



EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO TXOSTENA 2008

aRarteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoria del Pueblo

20
urte años

Zuretzat lanean
Trabajando para ti

**EUSKO
LEGE BILTZARRAREN
TXOSTENA
2008**



© ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Paper ekologikoa.

L.G.: VI-136/09.

ararteko

**EUSKO
LEGEBILTZARRARENTZAKO
TXOSTENA
2008**





AURKIBIDEA



AURKEZPENA	17
I. ATALA. JARDUERARIK GARRANTZITSUENEN ANALISIA ALORREZ ALOR	21
II. ATALA. LEHENTASUNEZKO TALDEAK.....	287
III. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK.....	641
IV. ATALA. TXOSTEN BEREZIAK.....	675
V. ATALA. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPESTATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN NAHIZ ESKUBIDEAK BERMATZEKO ERAKUNDEEKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEN DUTEN BESTE JARDUERA BATZUK.....	701
VI. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN	763
VII. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA.....	807
VIII. ATALA. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK ZENBATE- RAINO BETE DIREN.....	841
IX. ATALA. ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK.....	861
ERANSKINA GRAFIKOAK	891
GAIEN AURKIBIDEA	907

AURKEZPENA	17
I. ATALA. JARDUERARIK GARRANTZITSUENEN ANALISIA ALORREZ ALOR ...	21
1. Gizarte Ekintza.....	25
2. Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa.....	71
3. Kultura eta Elebitasuna.....	79
4. Hezkuntza.....	91
5. Funtzio Publikoa.....	111
6. Ogasuna	133
7. Herrizaingoa.....	153
8. Justizia.....	181
9. Ingurumena	199
10. Herri Lanak eta Zerbitzuak.....	213
11. Animaliak Babestea	229
12. Osasuna	235
13. Lana eta Gizarte Segurantza.....	253
14. Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	259
15. Etxebizitza	273
16. Zenbait Gestio	283
II. ATALA. LEHENTASUNEZKO TALDEAK	287
1. Berariazko arreta emakumeen eta gizonen berdintasunari.....	291
2. Berariazko arreta adinekoei.....	333
3. Berariazko arreta adingabeei	363
4. Berariazko arreta ezgaitasuna duten pertsoneri.....	475
5. Berariazko arreta etorkinei.....	507
6. Berariazko arreta ijito herriari	539
7. Berariazko arreta gizartean baztertuta edo pobrezian bizi diren pertsoneri.....	555
8. Berariazko arreta terrorismoaren eta jazarpen indarkeriaren biktimei.....	587
9. Berariazko arreta lesbiana, gay, bisexual, transgeneriko eta transexualei.....	591
10. Berariazko arreta espetxeratuei	597
11. Berariazko arreta gaixo kronikoei	613

III. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK	641
1. Hilerrietako zerbitzu publikoak erlijio sinismen ezberdinetara egokitzea. Aipamen berezia komunitate musulmanari	643
2. Gure erkidegoan izapidetzen diren hirigintza antolamenduko planetan ingurumenaren gaineko beharrezko ebaluazioa eskatzea.....	655
3. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legea egokitu behar dira etxebizitza eskatzaileen erregistroari dagozkion ebazpenen tramitazioa eta jakinarazpena	666
IV. ATALA. TXOSTEN BEREZIAK	675
1. 2008. URTEAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIAK.....	677
1.1. Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausoak. Hurbilketa.....	677
1.2. Gizarte ekintza sektoreko lan baldintzak.....	688
2. 2008. URTEAN EGITEN ARI DIREN TXOSTEN BEREZIAK.....	699
V. ATALA. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN NAHIZESKUBIDEAK BERMATZEKO ERAKUNDEEKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEN DUTEN BESTE JARDUERA BATZUK	701
1. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK ...	703
1.1. Taldeekin, elkarteekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan jarduteko harremanak	703
1.2. Arartekoak ematen dituen ikerketa bekak eta Arartekoaren argitalpenak	714
1.3. Herritarren partaidetzarako foroa: "Bizikidetzeta eta gatazkak ikaste-txeetan"	716
1.4. EHUko udako ikastaroen jardunaldiak, "Buruko osasunari eta pertsonen eskubideei" buruzkoak.....	717
1.5. Giza eskubideen arloan sentsibilizatzeko jarduerak.....	718

2.	GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO ERAKUNDEEKIN BIDERATUTAKO JARDUERAK	720
2.1.	Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXIII. Jardunaldiak.....	721
2.2.	Europar Batasuneko Estatu kideen eskualde mailako Herriaren Defendatzaileen VI. Mintegia	747
2.3.	Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioaren (OIF) Urteko XIII. Biltzarra	749
2.4.	Herriaren defendatzaileek Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 60. urteurrena dela-eta egindako adierazpena.....	750
3.	ARARTEKO ERAKUNDEAREN BESTE JARDUERA BATZUK	754
 VI. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN		763
1.	OHAR ETA DATU OROKORRAK.....	765
2.	ESTATISTIKA ALORREZ ALOR.....	769
3.	ESTATISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA.....	774
	A) Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexak	775
	B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak	776
	C) Toki administrazioaren aurka aurkeztutako kexak	778
	D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak	783
	E) Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurka aurkeztutako kexak.....	783
4.	LURRALDE ESTATISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)	784
5.	PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA (KEXEN EGOERA).....	788
6.	ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO ERA)	799
7.	ARRETA ZUZENENKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONO BIDEZKO KONTSULTAK)	801
8.	OFIZIOZKO JARDUERAK.....	803
9.	ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)	804

VII. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA	807
1. SARRERA ETA OHARRAK.....	809
2. ARARTEKOAK 2008. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA AGINDEIEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA.....	812
A) Eusko Jaurlaritz.....	812
B) Foru aldundiak	813
C) Udalak	814
D) Beste erakunde publiko batzuk	823
3. ARARTEKOAK 2008. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN AGINDEIEN ZERRENDA.....	824
A) Eusko Jaurlaritz.....	824
B) Foru aldundiak	828
C) Udalak	830
D) Beste erakunde publiko batzuk	839
4. ARARTEKOAK 2008. URTEAN EGINDAKO OHARTARAZPENEN ZERRENDA... Udalak.....	840 840
VIII. ATALA. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK ZENBATERAINO BETE DIREN	841
1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK	846
A) Eusko Jaurlaritz.....	846
B) Foru administrazioa	846
C) Tokiko administrazioa	847
D) Eragindako beste erakunde batzuk	850
2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK.....	851
A) Eusko Jaurlaritz.....	851
B) Foru administrazioa	852
C) Tokiko administrazioa	853
3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK.....	857
A) Eusko Jaurlaritz.....	857
B) Foru administrazioa	858
C) Tokiko administrazioa	858
D) Eragindako beste erakunde batzuk	858
4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK	859
Tokiko administrazioa	859

IX. ATALA. ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK	861
1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA	864
2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK	868
2.1. Bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea	868
2.2. Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Atxilotuen eskubideak	870
2.3. Intimitaterako eskubidea eta norberaren datuak babesteko eskubidea ...	872
2.4. Funtzio publikoan sartzeko berdintasunaren printzipioa	872
2.5. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Errugabetasun ustearen prin- tzipioa	873
2.6. Askatasunik ez duten pertsonen eskubideak	875
2.7. Hezkuntzarako eskubidea	876
3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	878
3.1. Zerga-sistema bidezkoa. Berdintasun, progresibotasun eta legezkotasun printzipioak	878
3.2. Jabetza pribaturako eskubidea	879
4. GIZARTE ESKUBIDEAK	880
4.1. Familiaren babesa. Adingabeen eskubideen babesa	880
4.2. Osasunerako eskubidea	882
4.3. Ingurumen egokia izateko eskubidea	884
4.4. Etxebizitza duina izateko eskubidea	885
4.5. Ezgaitasun fisikoa, sentimenezkoa edo psikikoa dutenen eskubideak....	887
4.6. Adinekoen eskubideak	888
5. LABURBILKETA	889
ERANSKINA: GRAFIKOAK	891
- 1. Diagrama: Arartekoak zenbatetan ikusi duen jarduera okerra administra- zioaren jokieran 2008an burututako kexetan	893
- 2. Diagrama: Ararteko erakundearen esku-hartzea zenbateraino izan den eraginkorra	893
- 3. Diagrama: Arartekoak jasotako kexa kopuruaren bilakaera (1989-2008).....	894
- 4. Diagrama: 2008an jasotako kexen egoera onarpen prozesuaren ondoren..	894
- 5. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa, jarduera alorren arabera	895
- 6. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa, eragindako administra- zioen arabera	895
- 7. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera	896

- 8. Diagrama:	Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa, sailen arabera	896
- 9. Diagrama:	Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera	897
- 10. Diagrama:	Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera	897
- 11. Diagrama:	Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera (1989-2008).....	898
- 12. Diagrama:	Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko (1989-2008)	898
- 13. Diagrama:	Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera	899
- 14. Diagrama:	Jasotako kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera	899
- 15. Diagrama:	Jasotako kexen banaketa, aurkezteko eraren arabera.....	899
- 16-17. Diagramak:	2008an arreta zuzeneko bulegoetan jasotako bisitak (kopurua eta ezaugarriak)	900
- 18. Diagrama:	Banaketa adin taldeen arabera	900
- 19. Diagrama:	Kexa bilakatutako bisitak	901
- 20. Diagrama:	Ofiziozko jarduerak (2008). Banaketa alorrez alor.....	902
- 21. Diagrama:	Ofiziozko jarduerak (2008). Eragindako administrazioen araberrako banaketa.....	902
- 22-27. Diagramak:	Kexagileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa (inkestaren emaitzak)	903
- 28-29. Diagramak:	Euren arazoa "ez da konpondu" edo "nahiko txarto konpondu da" dioten kexagileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa	906
GAIEN AURKIBIDEA.....		907

AURKEZPENA

Atsegin handiz aurkezten dut Ararteko erakundeak 2008an zehar egin duen lana. Zuzentzen dudana erakundeak Eusko Legebiltzarrak sortu zuen, euskal herri-administrazioen (Eusko Jaurjaritza, foru aldundi eta udalen) jardueraz herritarrek egindako keak aztertzeko, batez ere. Administrazio horien politika publikoak ere ebaluatzen ditugu, gizarteko behar beti aldakorrei ahalik eta ongien erantzun diezaieten. Hori dena azken helburu honen mende jartzen da: herri-administrazioen betekizunei dagokienez, Arartekoak pertsonen eskubideak babesteari berme sendoa eman diezaiola arduratzea.

Aurten, hain zuzen, Arartekoak 20 urte beteko ditu. 1989ko martxoaren 8an, erakundeak arautzeko legea onartu zenetik lau urte igaro ondoren aukeratu zuten ararteko Juan San Martín, legebiltzarkideen hiru bostenetik gorako gehiengoaren bidez, eta hura hasi zen erakunde honen zimentuak jartzen. Herrialde askotan Defensoría del Pueblo, Ombudsman, Procuradoría edo beste izen askorekin dauden erakundeen parekoa da. Horien denen sustraia orain 200 urte Suedian sortutako Ombudsmana da.

Gure 20. urteurrena aprobeztatuz, euskal herritarrei Arartekoa ezagutarazteko lana biziagotu nahi dugu, honako xede hau al bait ondoen betetzeko: Euskadin bizi den pertsona bakoitzak jakin dezala erakunde honek zein zerbitzu publiko eskaintzen duen eta zertan lagun diezaioketun. Arartekoan berrogeita hamaika lagun gabilta lanean gaur egun. Erakundearen arduradun nagusi naizenez, eskaintzen dugun zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzeko asmoa dut eta horretarako laguntza eskatu nahi dizut, zure iritzia, ekarpenak, kritikak eta abar helaraz diezazkiguzun. Horrek guztiak akuilu eta bizigarri gisa balioko digu denengana iristeko eta denei gero eta zerbitzu hobea emateko. Gure web gunearen bitartez, gu hobeto ezagutzera animatzen zaitut (www.ararteko.net). Bertan aurkituko duzu gure ibilbidean egiten ari garen guztia herritarren eskubideak ondo babestu daitezun; administrazioek administrazio onaren printzipioaren arabera joka dezaten, jokabide desegokiak kenduz; politika publikoek aurrera egin dezaten, gizarte gero eta inklusiboago, kohesionatuago eta zuzenagoaren bidetik, dibertsitatea eta pertsonen arteko desberdintasunak errespetatuz.

Beti kalitatearen alde eta, beraz, gure lanaren emaitzak Eusko Legebiltzarrari eta euskal herritarrei ezagutarazteko ditugun baliabideak hobetzearen alde apustu egiten dugunez gero,

urtero berrikuntzak egiten ditugu urteko txostenean. Txostenak nahitaez oso mardula eta luzea izan behar du, bada Ararteko erakundeak 2008. urtean burutu duen lana –arras zabala eta askotarikoa– bildu behar du. Horregatik, ez da batere erraza txostenaren irakurketa atsegina, arina eta erakargarria izan dadin lortzea.

Aurten *pendrive* deritzana izango da urteko txostenaren euskarri nagusia. Hor sartuko dira urteko jarduera laburtzen duen liburuaren testua, urtean barrena eman ditugun ebazpenak eta ateratako argitalpenak. Azken batean, Ararteko erakundeak 2008an burutu dituen ekintzen eta jardueren multzo zabal eta trinkoa kontsultatu ahal izango du interesa duen edonork. Dena den, liburua mantentzea erabaki dugu, baina edizio mugatuagoa eginez, informatika-baliabideak erabiltzerik ez dutenek edo pantailan nekez irakurtzen dutenek txostenaren edukia euskarri klasikoan irakurri ahal izan dezaten.

Urteko txostenean, Arartekoan bideratu diren kexa-espeditenteen berri eman ohi da, gaika multzokatuta, erakundearen lana egituratzeko arloen arabera eta herritarrek euskal administrazio publikoren baten jardueraz –edo jarduera faltaz– egindako kexen arabera. Kexaren prozeduran ezinbestekoa da, normala denez, eragindako administrazioari aditzea, bere jarrera oinarritu dezan. Aurten ere adierazi beharra daukagu, zoritxarrez, askotan –estatistikari buruzko informazioan ikus daitekeenez– eragindako administrazioak ez duela azkar erantzuten edo informazio eskasa bidaltzen duela, egindako eskaerari ez dagokiona. Horrek guztiak eragin kaltegarria izaten du ematen dugun zerbitzu publikoaren kalitatean.

Ararteko erakundea sortu eta arautzeko 3/1985 Legeak, otsailaren 27koak, honela definitzen du erakundea: Konstituzioaren I. idazpuruan bildutako eskubideak defendatzeko eta horiek legearen arabera bermatzeko asmoz Legebiltzarrak jarri duen goi-ordezkarria da. Beraz, gure eginkizun nagusia hori izan arren, ez dugu kexak bideratzen soilik jardun behar. Kexekin loturarik ez duten jardueren artean, lehenik eta behin, txosten bereziak nabarmendu nahiko nituzke. Txosten berezietan, behar bezala diagnostikatu eta aztertu behar diren prestazio publiko, baliabide, dispositibo edo errealtateak aztertzen dira, horiek hobetzeko asmoz, Euskadin herritar guztiak beren eskubideak behar bezala eta baldintza beretan baliatu ahal ditzaten.

Txosten berezietan gain, lehen aipatu dudan helburu orokorrari helduz, Arartekoak era askotako jarduerak burutzen ditu, oinarritzko eskubideak erabiltzeko orduan urratze, urritasun, arrisku edo ahultasun egoeran dauden taldeei dagokienez. Bilerak egiten ditu gizarte erakundeekin eta herri-administrazioetako hainbat arduradunekin; zenbait biltzar, jardunaldi eta mintegitan parte hartzen du; ikerketa-bekak iragartzen ditu, eta abar. Baliabide horiek guztiak zerikusi zuzena dute aipatutako egoerei buruzko informazio zehatz eta eguneratua izateko helburuarekin, gero administrazio eskudunei gomendioak egiteko.

Azkenik, nahi bat adierazi gura dut. Giza eskubideen sistema, alegia, gure demokrazien eta bizikidetasunaren oinarritzko zutabea, izatez dinamikoa eta ebolutiboa da –hauskorra ere bai– eta, hortaz, etengabe hobetu daiteke eta hobetu behar da. Horretarako, botere publikoek buru-belarri aritu behar dute, baina gutako bakoitzaren konpromisoa eta lana ere

ezinbestekoak dira, hau da, euskal gizarteko pertsona bakoitzaren konpromiso zibikoa, giza eskubideak sustatu, babestu eta lantzeko. Gizakiaren bizitzarako eskubidea, duintasunerakoa, askatasunerakoa, berdintasunerakoa, osotasun fisiko eta morala izatekoa, nor bere nortasuna aske garatzekoa, e.a., eskubide horiek guztiak eta horietako bakoitza egunero defendatu behar ditugu. Baita gizakien eskubideak egoera onean mantentzeko ezinbestekoak diren balioak ere: indarkeriarik eza, eta lagun hurkoa, gu bezalakoa ez dena, dibertsitatea, aniztasuna, senidetasuna eta elkartasuna errespetatzea.

Iñigo Lamarca Iturbe
ARARTEKOA

ararteko

I. ATALA

JARDUERARIK GARRANTZITSUENEN ANALISIA ALORREZ ALOR



Arartekoak, legez bere esku utzitako eginkizunen artean, herritarrek egiten dizkioten keak ebatzi behar ditu, eta bai ofizioz esku hartu ere, itxuraz oinarritzko eskubideren bat urra lezakeen edo legeak betetzen ez dituen administrazio jardueraren bat antzematen duen bakoitzean.

2008an jasotako 1.696 kexetan eta hasi ditugun ofiziozko 389 jardueretan askotariko arazoan azaldu dizkigute; horregatik, interesgarria iruditu zaigu atal honetan gairik azpimarragarrienak biltzea, Ararteko erakundearen jarduera egituratzen duten alor desberdinetan sailkatuta.

Beraz, Arartekoaren bulegoak aztertzen dituen gaien era askotariko kasuistikaren isla izan nahi du atal honek, euskal herritarren kezken berri ematen baitute.

Arlo bakoitzaren sarreran, gaikako arlo bakoitzaren ikuspegi orokor eta sistematikoa eman nahi da, baina kexetan adierazitako kasu zehatzak aipatuz.

Bestalde, teknologia berriak pixkanaka ezarri nahi dira, herritarrekin harremanetan jartzeko ditugun tresnak etengabe hobetzen joan ahal izateko. Horrela, liburu formatuari erantsi zaion *pendrive*-a ez da izango, soil-soilik, txostena beste formatu batean emana; aitzitik, horri esker, kexa-espeditenteei eta ofiziozko jarduerari amaiera ematen dieten ebazpenak osorik kontsultatu ahal izango dira, dagozkien loturen bidez. Bestalde, aipatu behar dugu erakundearen web orrian (www.ararteko.net) 2008ko txosten hau aurkitu ahal izango dela, baita Ararteko erakundeak aurkeztutako gainerako urteko txostenak eta txosten bereziak ere. Horiek hainbat aldiz aipatzen dira txosten honetan.

I.1

GIZARTE EKINTZA

1. GIZARTE EKINTZA

1.1. Sarrera

2008. urtean, arlo honi dagozkion 157 kexa jaso dira, eta hori arloka banatutako erreklama-zio guztien %12,38 da.

Kexa horiek ukitzen dituzten administrazioak kontuan izanda, honela banatzen dira:

- Foru Administrazioa	87
- Tokiko Administrazioa	44
- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza)	21

Administrazio bakoitzak gaiari dagokionez bere eskuduntzak dauzka, hori dela eta, gizarte gaiari dagokien hiru administrazioen arteko eskuduntza banaketak, neurri handi batean, administrazio bakoitzak daukan kexa kopurua dakar.

Arlo honetan planteatutako gaien edukiari lotuz gero, azpiarloak honela sailkatzen dira:

- Gizarte prestazio ekonomikoak	58
- Adinekoentzako laguntza	25
- Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako laguntza	19
- Haur eta nerabeentzako laguntza	16
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	13
- Babes bereziko taldeentzako laguntza	11
- Familientzako laguntza	8
- Emakumeentzako laguntza	3
- Eskubideak eta askatasunak	2
- Bestelakoak	2

Atal honetako edukiak aurten EAEko gizarte politikei dagozkien kontu garrantzitsuenak eta Arartekoaren jarduketak, batez ere izapidetu ditugun kexen azterketari dagozkionak, jasotzen ditu.

1.2. Arau berrikuntzak

Aurten gizarte politiketan eragin handia daukaten zenbait lege onartu dira, eta honakoak dira: 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa; 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Sarreren bermeari eta Gizarteratzeari buruzkoa; 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familientzako Laguntzari buruzkoa; eta 1/2008 Legea, otsailaren 8koa, Familia Bitartekotzari buruzkoa. Lehenengo biak atal honetan landuko ditugu. Bestalde, foru aldundiek

eta Estatuaren Administrazio Orokorrak Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun egoeran dauden pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 estatu Legea garatzen jarraitu dute. Alderdi hori 1.3. atalean landuko dugu.

Gizarte Zerbitzuei buruzko lege berriak urriaren 18ko Gizarte Zerbitzuei buruzko 5/1996 Legea indargabetzen du. Lege berriak ordenamendu berria ematen die gizarte zerbitzuei, egondako gizarte eta ekonomia aldaketatara egokitzeko, eta jendeak gizarte zerbitzuetarako daukan eskubidea sustatzeko eta bermatzeko. Azken urteotan gizarte ekintzak garapen handia izan du. Prestazioen eta jarduketaren eskaria ere hazi egin da. Legeak, beraz, gizarte aldaketa horiek, ahulezia egoera berriak eta, besteak beste, Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun egoeran dauden pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 estatu Legetik, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 euskal Legetik, Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legetik edota Familia Bitartekotzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legetik etortzako babes konpromisoak biltzen ditu.

12/2008 Legearen elementu nagusietako bat da herritarrek gizarte zerbitzuetarako daukaten eskubidea onartzen duela. Horren ondorioz, herritarrek administrazioari auzi bidez eska diezazkioke jasotako baliabide eta prestazioak

Beste elementu garrantzitsu bat **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioen titulartasuna**ren arauketa da. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioen tituladunak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udaletan erroldatuta egonda legezko eta benetako bizilekua daukaten lagunak dira. Idazketa horrek aldaketa garrantzitsua dakar, orain arte gizarte zerbitzuei buruzko araudiak ez zuelako legezko bizilekuaren eskakizuna jasotzen. Idazketa horren arabera, erroldatzeko zailtasunari administrazio baimena lortzeko zailtasuna eransten zaio, eta horregatik egun arte aplikatu den xedapenak baino murriztaileagoa dirudi.

Hurrengo paragrafoak, ordea, argitzen du EAEko edozein udalerritan erroldatuta egonda sarbidea eskatu aurreko 12 hiletan jarraian benetako bizilekua izan duten pertsonen ere hedatzen zaiela. Paragrafo horrek prestazio eta zerbitzuak pertsona guztiei egiten dizkie hedagarri, zein ere den euren egoera administratiboa, 12 hileko benetako bizilekua eta alde zuzeneko erroldatzea egiaztatuz gero. Ondoren salbuespenak egiten ditu; besteak beste, Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun egoeran dauden pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 estatu Legeko 5.1. artikulura igortzen du. Horrek egoera administratibo erregularreko 5 urteko epea frogatzeko eskatzen du; urte horietatik 2k aurkezteko datoren aurrekoak izan behar dute; edo alde zuzeneko erroldatze epe luzeagoak eta eskakizun gehigarriak ezartzeko aukera Prestazio eta Zerbitzuen Saileko prestazio eta zerbitzu batzuetara iristeko, horiek eskuduntza daukaten euskal herri-administrazioek arautzen dituztenean. Beraz, prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea arautua izan arte itxaron beharko da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioen titulartasunari buruzko araudiaren irismena baloratu ahal izateko.

Lege horrek honakoa ere xedatzen du: autonomia erkidegoan dauden pertsona guztiek, alde zuzeneko erroldatze epe eskakizunik gabe, informazio, balorazio, diagnosi, orientabide

eta laguntza zerbitzuak jaso ahalko ditu, baita gizarte behar larri bezala definitzen diren zerbitzu eta prestazioak eta haur eta nerabeen babes eremuan sartzen diren zerbitzuak ere.

Xedapen hori aurrerapausoa da, udal askok horrelako zerbitzuak emateko alde aurretiko erroldatzea eskatzen zutelako, eta beste batzuetan, honelakorik zegoenean, gizarte behar larrietarako udal zerbitzura desbideratu ohi ziren.

Beste printzipio garrantzitsua zerbitzuen erantzukizun publikoari dagokiona da, oraindik ere itundutako titulartasun pribatuko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduekin bateragarria bada ere.

Laguntza eredia komunitarioa da, eta haren oinarria erabiltzaileei laguntza euren ohiko ingurunean bermatzeko premia da.

Legeak ahalegina egiten du eskuduntzak zehazteko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema toki, lurralde eta autonomia esparruen esku-hartzearekin egituratzeko. Horretarako, hiru mailetan, udal, aldundi eta Eusko Jaurlaritzan, prestazio eta zerbitzu sarea diseinatu da.

Berrikuntza bat dago: **teleasistentzia zerbitzua** (erabiltzaileei, telefonoz, berehalakoan, osasun, gizarte edo norberaren segurtasun larrialdietan, gizarte laguntzako sarearen baliabide komunitarioak jaso ahal izateko aukera ematen dien zerbitzua), Eusko Jaurlaritzaren eskuduntzara pasa da.

Eskuduntza zehaztapen hori aurrerapen garrantzitsua da, baina **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzu Sailaren** araudia zehazteke geratu arren; beraz, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oinarriko edukia bukatzeke dago. Legeak prestazio eta zerbitzuak definitu eta sailkatzen ditu, eta esku-hartze prozedura azaltzen du, baina prestazio eta zerbitzuak jasotzeko eskakizun orokorrak adierazi besterik ez du egiten, eta berariazkoak arau bidez garatzeko uzten ditu. Berariazko eskakizunen eta Prestazio Sailaren zehaztapenik ezak zabalik uzten du sistema berriaren babes eta estalduraren benetako irismena.

Gizarte Zerbitzuen mapa osatuko duen **Gizarte Zerbitzuen Plan estrategikoa** prestatzea ere aurreikusten du. Tresna horien bidez, laguntza homogoneoa berma daiteke euskal lurralde osoan. Funtsezko kontua da, egun gizarte zerbitzuek daukaten arazoetako bat, hain zuzen ere, pertsona erroldatuta dagoen udalerrri edo lurraldearen arabera estaldura desberdina baita, eta Arartekoak hori ohartarazi du bere txostenetan.

Arautze eta plangintza hori xedapen gehigarriek finkatzen duten epearen arabera egin behar da, eta hori betetzea garrantzitsua da sistema berria eraginkorra izan dadin.

Legeak erakundeen arteko koordinaziorako Gizarte Zerbitzuen Erakundeen arteko Batzordea eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Batzordea bezalako organoak sortzea ere aurreikusten du. Azkenari dagokionez, egungo Gizarte Ongizatearen Euskal Batzorderen antzeko ezau-garri eta funtzioekin.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren elementu oso garrantzitsuetako bat zerbitzuen finantzaketako **erabiltzaileen parte hartze ekonomiko**aren arautzea da. Araudiak xedatzen duenez, zerbitzuak doakoak izan, edo prezio publikoa ordaintzeari lotuta egon daitezke, baina aurreikusten duenez, pertsonak prezio publikoa ordaintzeko beste baliabide mailarik ez badaukate, salbuespenak eta hobariak izan ditzakete. Bestalde, berariaz adierazten da baliabide ekonomikoaren maila ezin dela erabili zerbitzua edo dagokion kalitatea ukatzeko edo mugatzeko. Aitzitik, gizarte zerbitzuak esku-hartzearen premiaren arabera jasoko dira.

Adinekoentzako egoitza zerbitzuei dagokienez, zorra onartzeko aukera aurreikusten da. Ondarearen balorazioan, zorra onartzeko prozeduraren baitan, haren ohiko bizilekua den etxebizitza edo ostatua salbuetsita geratzen dela xedatzen da, ezohiko balioko etxebizitza izan ezik.

Zorra kobratzeko ordaindu behar duen pertsonaren ondasunen ondare-betearazpenera joz gero, xedatzen denez, ez da ohiko etxebizitzaren gainean betearaziko elkarbizitza unitateko edozein kidek, edo erabiltzaileak berak, behar duenean baina haren zehaztapena araudiaren bidez garatzeko uzten bada ere.

Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen parte hartze ekonomikoa gai garrantzitsua da. 2005 eta 2006ko ohiko txostenetan araudi aldaketa aipatu genuen: Bizkaian, urriaren 11ko 15/2006 Foru Dekretuak, 209/2005 Foru Dekretua, abenduaren 20koa, mendeko adinekoentzako egoitzako foru zerbitzu publikorako sarbidea eta egonaldi iraunkorreko zerbitzua emateko baldintzak arautzen dituen, aldatzen du. Araudi horrek, Bizkaian, higiezinaren ondarea eskatzailearen ahalmen ekonomikoari begira zenbatzea sartu zuen, ohiko etxebizitza eta ordaintzeko moduan ez dagoen erabiltzaileari dagokion finantzazioaren berme moduan zorra onartzea barne. Arabako Lurralde Historikoan ere prozedura hori aurreikusten da. Beraz, Gipuzkoa zen ohiko etxebizitza ondarea zenbatzeko eta egoitzako foru zerbitzu publikoa jasotzeko zorra onartzeko, ezohiko balioa izan ezean, salbuetsita zegoen lurralde bakarra. 2006ko ohiko txostenean ohiko etxebizitza zenbatzeak zekartzan zailtasunak adierazi genituen, familia etxebizitzak daukan sinbologiagatik eta kasu askotan ostaturik ez daukaten senideek duten ostatu egokirako premiagatik. Baita lurraldeen arteko desberdintasunari dagokionez ere, Bizkaian eta Araban etxebizitza bizilekua jasotzen duen pertsonaren ondare-elementu bezala zenbatzeagatik, Gipuzkoan zenbatzen ez zen bitartean.

Lege berriak gaia argitzen du eta irizpide bera ezartzen die hiru lurraldeei. Aurrerantzean, ohiko bizilekua den etxebizitza edo ostatua ondarearen baloraziotik salbuetsita geratzen da. Xedapen horrek aldaketa handia dakarkio Arabako eta Bizkaiko egoitza publikorako sarbidea arautzeko egungo erregimenari, eta hura aldatzea eskatzen du. Aldaketa hori zazpigarren xedapen iragankorrean aurreikusita dago. Aldaketa egiten ez den bitartean, etxebizitza ondarea zenbatzeko kontuan hartzen duen egungo araudiak dirau indarrean, eta hori, Bizkaian behintzat, darabilgun informazioaren arabera, egoitza publikoa eskuratzea oztopatu duen elementua izan da. Araudia aldatuko dela jakiteak, segur aski, eskaera berriei eragingo die. Hori dela eta, behin-behineko egoera horrek ez die adinekoei mesederik egiten.

Beste elementu garrantzitsu bat Kataloan sartzen diren eta ekimen pribatuak burutzen dituen prestazio eta zerbitzuen kontratazioaren **itun erregimena** da. Espero dugu berrikuntza

horrek laguntzea erakunde pribatuek kudeatzen dituzten programen egonkortasunik ezari lotutako arazoak gainditzen, hura izan baitzen aurten Arartekoak Legebiltzarrari *Gizarte esku-hartzeko hirugarren sektoreko lan baldintzei* buruz aurten aurkeztu zion ezohiko txostenaren ondorioetako bat. Ondo baloratzen da kontratazio administratiboko prozesuetan gizarte klausulak sartu izana ere.

Legea onartu izana aurrerapauso handia da, gizarte zerbitzuei **erakundeen arteko adostasuna** lortu duen lan tresna ematen zaielako, eta hori funtsezkoa da gizarte zerbitzuen garapenean aurrera egiteko eta, bestalde, mantendu beharrekoa da Legeak berak hartutako konpromisoak betetzeko.

Aipatu nahi dugun beste lege bat, Gizarte Eskubideetan daukan garrantzia dela eta, **Sarre-ra Bermeari eta Gizarteratzeari buruzko Legea** da. Beste berrikuntza garrantzitsua da. Araudi hori gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokako oinarritzko dispositiboen arautze berria da. Orain arte dispositibo horiek Oinarritzko errenta, Gizarte behar larrietarako laguntzak eta Gizarteratzeko hitzarmenak ziren.

Bazterkeriaren aurkako dispositiboek gizarte eragin handia izan dute, txirotasun tasei eutsi eta txirotasun motarik larrienen hazkundea ekidin dituelako. Hala ere, gizarte bikoiztasuneko prozesuak aurrera jarraitzen du eta txirotasun eta gizarte-bazterkeria egoerei aurre hartu eta arinduko dituzten tresnak behar dira. Legeak aurreko araudiaren esperientzia jasotzen du, dispositibo guztiak berrordenatzen baititu, eta aintzat hartzen ditu izandako gizarte aldaketak eta egungo egoerak, hots, txirotasunaren ezaugarri berriak, hala nola, guraso bakarrek familiak, gehienetan euren ardurapean adingabeak dauzkaten emakumeek osatuak, egiturazko langabezia dauden pertsonak edota ezegonkortasunagatik edo soldata murriztagatik behin-behineko lana dutenak, bizi maila duina bermatzen ez dieten sarrera oso baxuak dauzkaten adinekoak, eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak. Arartekoak lehenago ere planteatu zituen horrelako egoerak.

Berrikuntza da onuradunak ez direla derrigorrez bazterkeria arriskuan dauden pertsonak, ezpada sarrera mugatuak direla-eta bizimodu duina izatea zail daukaten pertsonak, hala nola, pentsiodunak edo behin-behineko langileak. Babes esparrua ekainaren 25eko 8/2005 Legearen bidez zabaldu zituzten pentsiodunei, 2008. urtean.

Legeak Gizarteratzeko Erakundeen arteko II. Planak aurreratzen zituen kontuak jasotzen ditu, eta iazko urteko txostenean ere aipatu genituen.

Legeak zioen azalpen zabala dauka eta bertan definitzen du sistema. Definizio horretatik jasoko dugu lanari gizarteratzeko funtsezko bidea irizten zaila eta **eskubide bikoitzeko printzipioa**. Printzipio horren arabera zenbait eskubide dakartzaten egoera bi bereizten dira: prestazio ekonomikorako eskubidea eta lanean eta gizartean txertatzeko laguntza personalizatuak jasotzeko eskubidea, txertatzeko hitzarmenean derrigorrez parte hartuz. Beste printzipio garrantzitsu batzuk pertsona guztiak EAEko lurralde osoan (horrek koordinazioa eskatuko du) daukaten zerbitzu eta prestazio berdintasuna, eta gizarte-egoera ahuleneko sektoreentzako unibertsaltasun eta berriazko laguntza printzipioa.

Sistemaren beste elementu nagusi bat **enplegagarritasunaren sustapenak** daukan tokia da. Sistemaren helburuetako bat ahalik eta pertsona gehieni lan merkatuan sartzea erraztea da, eta horregatik azpimarratzen ditu lanerako orientabidea, prestakuntza eta bitartekaritza. Lana txirotasunaren aurka babesteko mekanismotzat hartzen da, eta horrek lanpostuak betetzeko laguntza politika dakar.

Legeak ematen duen laguntzaren komunitateko ikuspegia dauka, batez ere, oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokienez. Prestazio ekonomikoak ezartzen eta arautzen ditu, hots, Gizarteratzeko eta babeserako oinarrizko errenta eta Lan sarreren errenta osagarria. Gizartean eta lanean txertatzeko tresnak ere arautzen ditu. Tresnok, nagusiki, txertatzeko hitzarmena eta berariazko esku-hartze neurriak dira, eta Enplegu Zerbitzuek, Osasun Zerbitzuek edo Etxebizitza Zerbitzuek garatu beharreko zentroek edo zerbitzuek programa ditzakete. Beraz, gizarte babeseko bestelako esparruetan ere esku-hartze neurriak aurreikusten dira.

Legearen elementu garrantzitsuenetakoa bizikidetasuna unitatetzat jotzen denaren eta etxebizitza edo ostatu independentetzat jotzen denaren arautzea da. Sistemaren estaldura etxebizitza edo ostatu independentean bizi den bizikidetasun unitatearen sarreren arabe-rakoa da.

Horri garrantzitsua deritzogu. Arartekoak "oinarrizko errentaren prestazioa arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuak bizikidetasun unitate ekonomiko independentetzat jotzen duena berrikusteko premiari" buruzko gomendio orokorra, 2006 txostena, egin zuen. Gomendio horretan ohartarazten diren egoeretako batzuk sartu egin dira, hala nola, guraso bakarrek familien zailtasunak edo banantze edo dibortzio baten ondorioz familia etxebizitza utzi behar duten pertsonen egoera.

Gizarteratzeko eta babeserako oinarrizko errentaren eta Lan sarreren errenta osagarriaren **kopurua** lanbide arteko gutxieneko soldataren %88an finkatzen da pertsona bakarrek bizi-kidetasun unitateentzat, eta lanbide arteko gutxieneko soldataren %125era irits daiteke lau lagunetik gorako unitateentzat. Gizarteratzeko eta babeserako oinarrizko errenta premia-zko egoeran dauden eta sarrera maila lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez zaion pentsiodunek osatutako bizikidetasun unitateentzat denean, kopurua bestelakoa izango da. Horrelakoetan, kopurua lanbide arteko soldataren %100ekoa da eta %135 artekoa hiru lagunetik gorako bizikidetasun unitateak izanez gero. Legeak aurreikusten du ezarritako gehienezko kopuruak diru-laguntza baten bidez osatuak izatea, guraso bakarrek unitateak direnean, eta kopurua araz ezartzen da.

Araudiak **izapidetzea arintzeko** xedapenak jasotzen ditu. Hori ohiko kexa izan da. Pertsonen egoeraren aldaketa orok kopuruaren zenbaketa berria zekarren, eta horrek atzerapenak zekartzan, eta batzuetan kalteak. Araudi berriak Errenta mota batetik bestera automatikoki igartzeko mekanismoa xedatzen du. Malgutasun tartea ere aurreikusten du, esanguratsua ez denean baldintza ekonomikoetako aldaketak kontuan ez hartzeko; hots, % \pm 5eko tartean. Bestalde, xedatzen du aldaketaren ondorioak aldaketa ekarri zuen gertaera ondorengo hilaren 1etik aplikatuko dela.

Legeak muga batzuk ezartzen ditu, hala nola, urte bitarako ematea mugatzea, edota etxebizitza berean Sarrera bermerako errenta jasotzen duten pertsona kopuruari dagokiona. Betebeharrak ez betetzeagatik edo arau-hausteengatik iraungi denean eskatzeko aukera ere mugatzen da.

Legearen berrikuntza nagusien artean **etxebizitzako prestazio osagarria** sartu izana dago. Prestazio hori Sarrera bermerako errentaren tituludunen ohiko etxebizitza edo ostatuari lotutako premiak betetzera bideratzen da: alokairu gastuak eta premiako egoera baino lehenago ohiko etxebizitza edo ostatua eskuratzeko sinatutako kredituen interesetatik eta amortizaziotik etorritako gastuak. Berrikuntza nagusia eskubide subjektibotzat hartzea da, hots, ez dago aurrekontu partidarik egoteari lotuta.

Prestazio horrek zenbait muga dauzka:

- Jabetzan edo alokairuan babes ofizialeko etxebizitza dutenak edo etxebizitza baten jabetza izanda alokairu gastuetarako eskatzen dutenak eskubidearen titulartasunetik salbuesten ditu.
- Etxebizitza edo ostatu berean prestazioa eska dezaketen bizikidetasun unitateentzat gehienezko muga ezartzen da.
- Babeseko klausulak xedatzen dira jabetza eskuratzeko bitarteko bezala erabil dadin eragozteko.

Legeak jasotzen duen beste prestazio bat **Gizarte Behar Larrietarako Laguntzak** dira, baina, adierazi legez, etxebizitzari dagozkion gastuak atera dira. Horrelako laguntzak gastu zehatzei aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonentzat dira. Diru-laguntza izaerakoak dira. Beraz, oraindik ere gastuak justifikatu behar dira, eta gastuok, betiere, gizarte marjinazio egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko behar direnak izango dira. Oraindik ere, prestazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako kreditua esleitura egotearen arabera da.

Legeak aurreikusten du udalek aurkeztutako eskaeren edukia egiazta dezaketela, bestelako erakundeei edota entitate publiko eta pribatuei datuak eta txostenak eskatuz. Datu eskara hori erabiltzaileek eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzeke ezinbestekoak diren eta mugatu behar da. Xedapen hori zabala da, Konstituzioko 18.4 artikuluan jasotako **Datu Babeserako** oinarrizko eskubidea dela kontuan hartuz. Gai horri dagokionez, gogoratu behar da Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoa eta azaroaren 30eko K Aren 292/2000 Ebazpena aplikatu behar direla. Legean ohar hori ere dago adierazita, pertsonaren adostasuna eta euskal administrazioen arteko zenbait informazio mota partekatzeke beharrezko jotzen diren segurtasun dispositibo guztien erabilera xedatzen baititu.

Funtsezko beste elementu bat **txertatzeko hitzarmenen** arautzea da. Legearen berrikuntza, gizarte izaerako ekintzekin batera, lan izaerako ekintzak sartzean datza. Legeak holako hitzarmenak prestatzeko eta abiarazteko arautze zabala ematen du eta aurreikuspen berriak

egiten ditu, hala nola, udal sailen arteko koordinazioari dagokiona, edo udalek horrelako hitzarmenak eteteko, berrikusteko eta aldatzeko daukaten ahalmenari dagokiona.

Legeak Txertatzeko euskal plana aipatzen du tresna garrantzitsu bezala, eta Gizarte Diagnosi eta Esku-hartzerako Tresna, informatzeko daukan funtzioagatik.

Eskuduntza banaketari dagokionez, ez dago aldaketarik, txertatzeko hitzarmenen edukiari dagokionez izan ezik, ekintzak lanean txertatzera edo lana hobetzera bideratuta egonez gero. Halakoetan, haren zehaztapena eta jarraipena Lan Zerbitzuen ardurara izango da.

Erakundeen arteko koordinazio organoa aurreikusten da: Gizarteratzeko Erakundeen arteko Batzordea eta Eusko Jaurlaritzan, Sailen arteko Batzordea. Aholkua eskatzeari eta parte hartzeari dagokienez, organoa Gizarteratzeko Euskal Kontseilua da.

Legearen beste berrikuntza bat da tituludun edo onuradunen eta jasotzaileen arteko bereizketa. Prestazioa irabazi asmorik gabeko gizarte erakunde batek jaso ahal izateko aukerak arautegia garatzea eskatzen du, eta justifikatu beharreko salbuespena da. Segur aski, pertsonak egoitza baliabideetan bizi direnean (hura izaten da gizarte-bazterkeria larrian bizi diren pertsonen kasua) sortzen diren kudeaketa arazoengatik ezarri da. Dena dela, onuraduna behar bezala informatzeko garrantzia azpimarratu behar da.

Legeak **prozedura administratibo arruntaren** bermeak sartzeko ahalegina egin du, eta hori oso ontzat jo behar da. Arartekoak askotan agertu du gizarte zerbitzu kontuetan administrazioaren jokabidea prozedura administratibora egokitzeke premia.

Txertatzeko hitzarmena prestatzeko prozeduraren arautzea ere elementu garrantzitsua da. Lege berrian luze eta zabal arautzen dira fase guztiak eta hura prestatzeko eta esku-hartzeko irizpideen homogenotasuna bermatzeko xedapenak egiten ditu. Aurreikuspen horri oso garrantzitsu deritzogu, hartutako konpromisoak ez betetzeak prestazio ekonomikoa etetea baitakar, eta ez betetze hori askotan haien edukiaren arabera izango baita. Hori dela eta, ezinbestekotzat deritzogu egoera berean edo antzekoan jendeak bete beharreko betebeharrak eta konpromiso berberak izatea lortzeari. Txertatzeko hitzarmenek eduki homogeneoa behar dute, jendeak oinarriko errentaren prestazioei eusteko betebeharrak izateko. Bestela, desberdintasuneko egoerak gerta daitezke eta diskriminatzaileak izan daitezke, hots, egoera beraren aurrean, betebeharrak desberdinak izan daitezke, eta horrek hainbat ondorio izan ditzake, errenta etetea, besteak beste.

Araudi berrian ez da entzunaldi izapidetzea sartzen zuhurtasunezko zigorra ezartzen denean, eta Arartekoak horretaz ohartarazi zuen aurreko araudian ere. Araudi berriak zuhurtasunezko zigorrerako ziorik egon ez denean jaso gabeko prestazioak jasotzeko eskubidea argi onartu arren, zuhurtasunezko zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia emateko xedapenari oraindik deritzogu berme elementu garrantzitsu.

Bukatzeko, Legeak bazterkeriaren aurka borrokatzeko dispositiboak arautzen ditu, eta horrelakoek familia askori baldintza duinetan bizitzea ahalbidetzen diete. Legeak aurrekon-

tuetarako dakarren kopurua handia da, baina baita beharrezkoa ere, txirotasun egoerek egungo gizarte eta ekonomia eremuan dirautelako

1.3. Autonomia pertsonalaren sustapenari eta mendekotasuneko egoeran dauden pertsonentzako laguntzari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen garapenaren azterketa. Arreta berezia prestazio ekonomikoari

39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonalaren sustapenari eta mendekotasuneko egoeran dauden pertsonentzako laguntzari buruzkoa, Mendekotasun Legea bezala ezagutzen dena, iaz abiarazi zen eta 2008an ezartzen eta arautegia garatzen jarraitu du, bai estatu bai autonomia mailan. Gure autonomia erkidegoan, foru aldundiek egin dute garapen hori, eurak baitira araua ezartzeko eskuduntza daukatenak, zeinek bere lurralde historikoan.

Zentzu horretan, 2007an, hiru foru aldundiek mendekotasuna onartzeko prozedura arautu zuten, baita legeak jasotzen dituen prestazio ekonomiko gehienak ere. Aurten arautegia osatzen joan da, eta Arabako Foru Aldundiak xedapen bi onartu ditu. Honakoak: 24/2008 Foru Dekretua, otsailaren 12koa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa arautzen duena, eta 24/2008 Foru Dekretua, apirilaren 8koa, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duena. Horrela, gure autonomia erkidegoan aipatu legearen arautze nagusia osatzen da, salbuespen batekin: Bizkaiko Foru Aldundiak ez du zerbitzuari lotutako prestazioa arautu, eta hura da egiteke dagoen bakarra.

Hori dela eta, Bizkaiko Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailarekin ofiziozko jarduketa hasi genuen galdetzeko zergatik ez den oraindik zerbitzuari lotutako prestazioa arautu. Aipatu foru sailak igorritako erantzunean adierazi zigun arautze horri ez zitzaiola lehentasunezkoa iritzi, inor ez omen zegoelako premia horretan. Hori honela argudiatzen zen:

Adinekoentzako egoitzei eta eguneko zentroei dagokienez, adierazten zen toki publiko nahikoa zegoela eskariari erantzuteko eta, eguneko zentroei dagokienez horrela ez zen inguruetan, banakako laguntza ekonomiketarako deialdien bidez konpontzen zela. Ezinduentzako zerbitzu biei dagokienez, adierazten zen lurraldean zeuden toki guztiak forukoak zirela, eta beraz, lurraldean ez zegoela zerbitzu pribaturik. Hala ere, aldundiak zerbitzuari lotutako prestazioa arautzeko aukerari eusten zion.

Egia esan, beharrezko deritzogu arautzeari, legeak jasotzen duen prestazioa delako eta lurralde historikotik kanpoko egoitzako laguntza pribatua ere eman daitekeelako (egoera hori Arabak jaso du). Araztearen bidez, administrazioaren jokabidea argitzen da.

Arabak eta Gipuzkoan zerbitzuari lotutako prestazioaz egindako arautzea egoitza zerbitzuari eta egun/gaueko zentroari buruzkoa da, eta ez Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzkoa, hura udalari baitagokio. Dena dela, zerbitzu horrek, maiz, mendeko pertsonari laguntzen die, eta haientzako laguntza foruaren eskuduntza da.

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuari (ELZ) dagokionez, erantsi behar dugu mendeko pertsonari laguntza eman behar zaionean, funtsezko deritzogula aldundien eta udalen arteko

koordinazioari, zerbitzu horretan honakoa gertatzen delako: laguntzaren ardura foruari dagokio, esan bezala, zerbitzua aldunditik erabakitzen da, Banakako Laguntzarako Planaren bidez (BLP), baina zerbitzuaren kudeaketa udalari dagokio, eta, beraz, udaletik ematen da. Horrelako kasuetan, erakunde bien arteko koordinazio eza gerta daiteke, eta horrek mendeko pertsonarengan eragin kaltegarria izan dezake. Koordinazio falta nabarmenena Bizkaian gertatzen da, eta bertan norabide horretako hitzarmena lortzeko lana egiten ari da, baina guk dakigula ez da lortu.

Mendekotasun Legetik eratorritako prestazio ekonomikoen arautzearekin jarraituz, adierazi dugunez, Bizkaiko salbuespen horrekin, hiru lurralde historikoetan daude araututa. Hala ere, erantsi behar dugu arautze horiek ez direla homogeneousak. Aitzitik, desberdintasunak daukate, haietako batzuk handiak, prestazioak eskuratzeko eskakizunei eragiten baitiete. Gainera, arauaren interpretazioan aldeak daude, eta horrek are handiagoak egiten ditu emaitzetako desberdintasunak.

Prestazioen **kopuruari** dagokionez, legeak xedatzen du hura zehazterakoan onuradunaren ahalmen ekonomikoa hartuko dela aintzat (33.2 artikulua). Aldundiek egindako arauen garapenean, ordea, puntu hori Gipuzkoan baino ez da aintzat hartu, prestazio guztientzat. Araba zerbitzuari lotutako prestazioentzat baino ez da aintzat hartu. Bizkaian, bakar batentzako ere ez.

Gipuzkoan, 133/2007 FDko 6. artikulua dioenez, onuradun bakoitzari onartuko zaion prestazio ekonomikoa PFEZan (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) aitortutako errendimenduen arabera erabakiko da, errendimenduak zati bere ardurapean daukan pertsona kopurua. Aitortu ez eta egiteko salbuetsita daudela egiaztatzen ez dutenei, LGSren (lanbide arteko gutxieneko soldata) urteko errenta eta handiagoa esleituko zaie. Ateratako ahalmen ekonomikoa LGSrekin alderatzen da eta uztarketa horretatik, edozein prestazioren kopurua gehienez finkatutako zenbatekoaren %30 arte murriztu daiteke.

Arabian, zerbitzuari lotutako prestaziorako baino ez da ahalmen ekonomikoa aintzat hartzen, baina sarrerak ez ezik, ondarea ere zenbatzen da (24/2008 FD, 8. artikulua). Aurrerago zehaztuko da, prestazio horri dagokion atalean. Bizkaian ahalmen ekonomikoa ez da aintzat hartzen, eta, beraz, prestazio guztien kopuru osoa ordaintzen da.

Jakina denez, Legeak mendeko pertsonarentzako hiru prestazio ekonomiko mota xedatzen ditu: familia inguruan zaintzekoa, laguntzaile pertsonala izatekoa eta zerbitzuari lotutakoa. Legeak haiek eskuratzeko bete beharreko eskakizunak zehazten ditu (17. artikulutik 19.era). Hala ere, maiz gertatzen diren egoera batzuk ez daude legean jasota, eta horrek laguntza behar duten mendeko pertsonak estalduratik kanpo utz ditzaketen segurtasunik eza eta lege hutsumea sortzen ditu. Horren aurrean, euskal aldundiek zenbait erantzun izan dituzte. Haietako batzuek egoera horietako batzuk jaso dituzte euren arautegian edo, gertatzen direnean, arauaren interpretazio malgua egiten dute. Beste batzuk, ordea, Legearen literaltasunari lotu zaizkio, eta horregatik egoeretako batzuk ezin dira prestazio ekonomikoetan babestu. Hori dela eta, legean berriaz jasotzen ez dituen egoera batzuetan dauden mendeko pertsonen prestazio ekonomikoei hel diezaiekete ala ez, bizi diren lurralde historikoaren arabera. Jarraian alderdi hori garatuko dugu.

Familia inguruko zaintzarako prestazio ekonomikoari dagokionez, Legeak mendeko pertsona batekin bizi diren eta hura zaintzen duten familia askok egiten duten ahalegina aitortu nahi izan du. Horregatik, Legeak eta 615/2007 Errege Dekretuak adierazten dute euren etxean bizi eta eurekin bizi den hirugarren gradu arteko senide batek laguntzen dien mendeko pertsonak prestazio horretarako eskubidea daukatela. Legeak, ordea, ez dio ezer agertu zaizkigun honako egoerei buruz:

- senidea izan gabe laguntzen dien pertsona batekin bizi diren mendeko pertsonak. Egoera horretan daude seniderik ez daukaten edo, izanda ere, arduratu ezin diren senideak daukaten pertsonak. Hori dela eta, pertsona bat kontratatzen dute, maiz atzerritarra, eurei laguntzeko eta etxe berean bizitzeko. Lan harremana da eta, beraz, prestazio ekonomikoa dago.
- etxe berean bizi ez den senide baten laguntza daukaten mendeko pertsonak; senidea udalerrri berean edo oso gertu dagoen batean bizi ohi da.
- senide batekin bizi baina, ia egun osoan, kontratatutako familiaz kanpoko pertsona baten laguntza daukaten mendeko pertsonak.
- bere etxean berekin bizi den beste pertsona baten edo batzuen laguntza daukan mendeko pertsona; laguntzaileak ez dira senideak baina senideak balira bezala jokatzeko dute. Beraz, laguntza horrek ez du lan harremanik eta ez dago prestazio ekonomikorik. Komunitate erlijiosoen kasua da: mendeko pertsonak komunitate bereko kide baten edo batzuen laguntza jasotzen du. Gai hori aurrerago landuko dugu.
- Kasu horren antzekoa da beste hau ere: menpeko pertsona bat bere etxean bizi da, famili artekoa ez den –ez behintzat ezarrita dagoen graduari– pertsona batek zainduta, baina beraien artean familiarteakoak sentitzen dira eta hala jokatzeko dute. Pertsona edadetua da eta txikitan bere gurasoek abandonatu eta familia batek jaso zuen seme-alabatza. Familia horrekin hazi eta bizi izan da beti, famili arteko giroan, nahiz eta harreman hori adopzioaren bidez formalizatu ez.

Horrelako kasuek eta beste batzuek aniztasun handiko kasuistika osatzen dute, eta legeak ez dio erantzun argi eta zehatzik ematen beti. Lege aldaketa aztertzen ari da baina, bitartean, dagoen egoerak errazten du organo kudeatzailek zeinek bere modura jokatzea.

Jarraian, hiru prestazio ekonomikoak arautzerakoan dauden **lurraldeen arteko desberdintasunak** azalduko ditugu:

Etxe inguruko zaintzarako prestazio ekonomikoak:

Legearen arabera, prestazio horretarako eskubidea izateko, besteak beste, mendeko pertsonaren eta zaintzailearen arteko bizikidetasuna eta bien artean hirugarren gradu arteko

senidetasuna behar dira. Horrela adierazten da Legeko 14. eta 17. artikuluetan eta Mendekotasuneko egoeran dauden pertsonen zaintzaileen Gizarte Segurantzaren arautzen duen maiatzaren 11ko 615/2007 Errege Dekretuko 1. artikuluan.

Azken arau horrek, bere 1. artikuluan, zaintzaile ez profesionalak nor diren zehazten du: *“...su cónyuge y sus parientes por consanguinidad, afinidad o adopción, hasta el tercer grado de parentesco”*. Definizio horrek zaintzailea familia eremura mugatzen du, izatezko bikoteak kanpoan uzten ditu eta ez du lehenagoko elkarbizitza aldia adierazten. Salbuespen gisa, artikulua senidea ez den zaintzailea onartzen du, udalerrian urtebetetik gora bizi izan bada edo auzokoa bada, inguruko baliabide ezagatik, despopulazteagatik, arrazoi geografikoengatik edo bestelakoengatik beste modalitatez posible ez denean.

Aldundiek honako manuen bidez arautu dute prestazioa: Araban, 70/2007 Foru Dekretua, urriaren 23koa; Bizkaian, 98/2007 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, ekainaren 19ko 98/2007 FDak aldatua; eta Gipuzkoan, 133/2007 Foru Dekretuak. Haietan, **zaintzaileari buruzko honako desberdintasunak** azpimarratuko ditugu:

- Araban eta Gipuzkoan izatezko bikotea onartzen da, baina Bizkaian ez.
- Araban mendeko pertsonaren bizilekuan alde aurretik urtebeteko erroldatzea eskatzen zaio. Betekizun hori ez da beste lurralde bietan eskatzen.
- mendekoaren eta zaintzailearen arteko senidetasun eta bizikidetasun harremanari dagokionez, Gipuzkoan biak eskatzen dira, Bizkaian legez. Araban, berriz, zaintzaileari dagokionez egoera berezi bi jasotzen dira, mendekoak III. gradua onartua daukan heinean: a) mendeko pertsonarekin senidetasunik ez izatea, urtebete lehenagotik bizileku berean erroldatuta badago eta legezko erresidentzia badauka eta b) senidea izanda, bizileku berean erroldatuta ez egotea, baina bai udalerrian berean.

Desberdintasun horiek lurralde batean edo bestean egoera berak erantzun desberdina izatea ekar dezakete. Horrela, arestian aipatutako kasuak Araban onartuko lirateke, III. graduarekin baino ez bada ere, baina Bizkaian eta Gipuzkoan inola ere ez.

Arartekoaren aurrean bere gurasoak zaindu baina, udalerrian berean bizi arren, bizileku beran bizi ez den pertsonaren kasua aurkeztu da. Gipuzkoako Foru Aldundiak prestazioa ukatu dio, bizikidetasunik ez egoteagatik. Prestazio hori Bizkaian ere ukatuko zen, baina Araban III. gradurako onartuko zen. Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak prestazioa ukatu dio senidea ez den eta zaintzeko kontratatatu duen beste batekin bizi den pertsona bati. Ez dago laguntza eman diezaiokkeen seniderik. Egoera hori Gipuzkoan ere ukatuko zen, baina Araban III. gradurako onartuko zen.

Arestian komunitate erlijiosoaren kasua aipatu dugu. Euren buruari familia deritzotenez, prestazioa eskatu zuten. Gipuzkoako Aldundiak, ordea, ez dio onartu zaintzailea, –komunitateko beste erlijioso bat–, senidea ez zelako, harekin bizi arren. Adierazi zaigunez, dirudienez azken egoera horrek, bere berezitasunagatik, prestazioa jasoko zukeen Bizkaian.

Ikusten dugunez, horrelako komunitateek familia baten ezaugarriak biltzen dituzte: bizikidetasun luzea, elkarrentzako laguntza, unitate ekonomikoa osatzen dute, kideen arteko lotura

handia dago, euren buruari familia deritzote eta horrela jokatzeko dute, etab. Lotura hori, ordea, arrazoi erlijiosoen arabera engaiamendu pertsonalaren ondorioa da, baina ez dago odolkidetasunik, ezkontza-ahaidetasunik edo adopziozko, arauak adierazi legez. Horregatik, harreman horrek ez dauka ez ondorio zibilik ez juridikorik. Hots, ez dago senidetasunik, hitzaren zentzu juridikoan, mendeko pertsonaren eta zaintzailearen artean. Arrazoi horregatik, zalantza jartzen da familia inguruko zaintzetarako prestazio ekonomikorako eskubidea. Erantsi behar da, klausurako ordena izanez gero, mendeko pertsonaren familia zibilak ezin lezake hura zaindu, nahi balu ere, ez bailuke komentuan sartzerik.

Era berean, arestian aipatu dugun antzeko kasuan –izatez adoptatutako pertsona, baina legez ez–, Bizkaiko Foru Aldundiak pertsona horri ukatu egin dio famili barruko zaintzetarako prestazioa, zaintzailea familiakoa ez delako. Araban, diru-laguntza hori eman egingo zioten (bere araudian jasota duen salbuespenagatik) eta Gipuzkoan, ziur aski, beste diru-laguntza mota bat emango zioten (laguntzaile pertsonala).

Lurraldeen arteko **desberdintasunak** zerbitzuen arteko, zerbitzuen eta prestazioen arteko eta eguneko zentroa eta etxez etxeko laguntza bezalako zerbitzu batzuen erabileratik datozen ondorio ekonomikoak **bateragarritasun/bateraezintasun erregimenera** ere iristen dira. Zentzu horretan, lurralderik mugatzaileena Bizkaia da, familia inguruko zaintzetarako prestazioa, teleasistentziarekin eta aldi baterako egoitzako egonaldiarekin izan ezik, legean xedatutako prestazio eta zerbitzu guztiekin baita bateraezina (98/07 FDko 3. artikulua). Beste lurralde bietan –Araba eta Gipuzkoa– prestazio hori bateraezina da zerbitzuen erabilerarekin, baina lurralde bakoitzean bateraezintasun horrek ondorio ekonomiko desberdinak dauka (Arabako 70/2007 FDko 4. artikulua, eta Gipuzkoako 133/2007 FDko 4.4 artikulua).

Horrela, prestazio ekonomikoa etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin bat datorrenean, Araban laguntza ekonomikoa emandako ordu kopuruaren arabera portzentajearen murrizten da. Gutxieneko murrizketa %3koa da, hileko 20 orduetik behera denerako, eta gehienezkoa, %25ekoa, hileko 80 laguntza ordu edo gehiagorako. Gipuzkoan, prestazioaren %20 murrizten da, ELZ erabiltzen denean, laguntza ordu kopurua zehaztu gabe.

Laguntza ekonomikoa eguneko zentroarekin bat datorrenean, Araban laguntza %25ean murrizten da laguntza lanegunetakoa baino ez bada, %15ean asteburuetan baino ez bada, eta %40an egunerokoa bada. Gipuzkoan murrizketa %50 ekoa da, besterik zehaztu gabe.

Prestazio ekonomikoa zerbitzu biekiko –ELZ eta eguneko zentroa– bat datorrenean, laguntzak murrizketa nozitzen du, mailakakoa laguntza orduen arabera; Araban, gehienez ere %50ekoa da. Gipuzkoan, murrizketa %60koa da.

Hala ere, aldi baterako egoitzako egonaldia dagoenean, Araban aldi horretarako prestazio ekonomikoa eteten da, eta Gipuzkoan, ordea, lehen hiru hilabeteetan ez da eteten.

Adierazitakoaz gain, prestazio ekonomikoari eragiten dion beste alderdi bat aipatu nahi dugu. Prestazio ekonomiko hori eskuratu ahal izateko, legeak, horrez gain, beste betekizun

bat ezartzen du: “...*que se den las condiciones adecuadas de (...) habitabilidad de la vivienda...*” (18.1. artikulua, 14.4. artikuluari lotuta). Horrek **etxebizitza** mendeko pertsonaren egoerari **egokituta** egotearekin du zerikusia; hots, **oztopo arkitektonikorik** ez izatea eta mendeko pertsonaren autonomia errazteko behar diren elementu teknikoak izatea. Horrek, batzuetan, etxebizitza egokitzea (komunean obrak egitea, etab.) eta **laguntza teknikoak** delakoak eskuratzea eskatzen du, prestazio ekonomikoa eskuratu ahal izatek alde zuzenetik baldintza bezala.

Etxebizitzaren egokitzapenak gastua dakar, eta horretarako administrazioak ez du laguntzarik ematen. Zentzu horretan, hiru foru aldundiek horretarako laguntza ekonomikoa daukate, baina haiek eskuratu ahal izatea zenbait baldintzaren arabera da, besteak beste: ekonomikoa eta adinari dagokiona, biak ala biak gehienezko mugekin. Lehena hiru aldundietan agertzen da eta familiako (ez banakako) sarrera jakin batzuk ez gairatutako beharri dagokio; kopurua dela eta, hura erraz gairatzen da. Bigarrena –gehienezko adinari dagokiona– Gipuzkoan ez da agertzen. Araban, neurri batean, laguntza teknikoetarako agertzen da, baina ez, ordea, komuna egokitzeko lanetarako. Bizkaian, berriz, muga hori erabatekoa da, eta laguntza horiek eskuratu ahal izateko ezin da 65 urtetik gorakoa izan; beraz, adin horretatik gorako guztiak kanpoan uzten ditu.

III. graduko mendekotasuna zeukan adineko baten kasua agertu zitzaigun; bere etxean bizi zen, familiak zaintzen zuen eta familia inguruko zaintzetarako prestazio ekonomikoa eskatu zuen. Eskuratu ahal izateko, etxebizitza mendeko pertsonaren egoerara egokitzeko eskatu zitzaion (komunean lanak egitea eta garabia eta ohe artikulatua bezalako elementu batzuk eskuratzea). Familia unitateak egokitzapena egin zuen, horrek ekarri zion gastu ekonomikoarekin. Hala ere, ezin izan zuen horretarako laguntza ekonomikorik eskuratu mendeko pertsona –laguntza eskatzen zuena– 65 urtetik gorakoa zelako.

Aldundiek laguntza ekonomikoetarako urtero egiten dituzten deialdiak ezgaitasuna daukaten pertsonentzat daude pentsatuta eta Mendekotasun Legea onartu baino lehenagokoak dira. Gipuzkoan aldatu egin da eta mendeko pertsonak hartzen ditu, zein ere den adina (otsailaren 24ko 11/2004 Foru Dekretuko 3. artikulua). Araban adinekoentzat muga batzuk ezartzen dira (martxoaren 10eko 17/1998 Foru Dekretuko 4. artikulua) eta Bizkaian muga erabatekoa da, adierazi bezala (abenduaren 18ko 246/2007 Foru Dekretuko 4.4. artikulua).

Adierazitakoagatik, laguntza horiek mendekotasun legeak dakartzan premietara eguneratu behar lirateke, legeak ez baitu mendekotasuna onartua izateko gehienezko adinik ezartzen, eta baliabide ekonomikoa baloratzerakoan, mendeko pertsonarenak hartzen baititu aintzat, eta ez elkarbizitza unitatearenak, laguntza batzuekin gertatu legez.

Era berean, iker liteke Mendekotasun Legeko hirugarren xedapen gehigarriak Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia erkidegoak honakoa ezartzeko ematen duen aukera: “...*acuerdos específicos para la concesión de ayudas económicas con el fin de facilitar la autonomía personal. Estas ayudas irán destinadas a: a) A apoyar a la persona con ayudas técnicas o instrumentos necesarios para el normal desenvolvimiento de su vida ordinaria.*”

b) a facilitar la accesibilidad y adaptaciones en el hogar que contribuyan a mejorar su capacidad de desplazamiento en la vivienda."

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa

39/2006 Legeko 19. artikulua adierazten du prestazioaren xedea mendekotasun handia duten pertsonen autonomia sustatzea dela, eta eransten duenez, laguntza pertsonalaren helburua honakoa da: *"horren bidez onuradunari hezkuntza eta lan-arloan parte hartzen lagunduko litzaioke, eta, era berean, bizitza autonomoagoa izaten ere bai, eguneroko bizitzan aurrera eraman beharreko ekintzetan"*. Prestazio hori mendekotasuneko III. gradurako dago pentsatuta. Arautzerakoan ere, lurraldeen arteko desberdintasunak topatzen ditugure autonomia erkidegoan:

Mendeko pertsonari dagokionez, Araban eta Bizkaian hezkuntza edota lan-arloan jardutea eskatzen da, eta Gipuzkoan, ordea, arestian aipatu dugun lege testuak adierazten duen helburua aipatzen da, zeinean bizimodu autonomoagoa lortzea sartzen baita. Azken horren arabera, Gipuzkoan jakin dugu III. gradua daukan adineko bati prestazioa eman zaiola, kontratatutako familiak kanpoko pertsona batek laguntzen diolako. Hots, prestazioa familiako zaintza ordezkatzeko ager liteke, hura zorrozki posible ez denean, baina mendeko pertsonak III. gradua daukan heinean. Gradu hori agertzen ez denean, aukera hori ez da posible, eta zaintzailea senidea izan eta harekin bizi denerako mugatu behar da. Guk dakigula, ordea, Araban eta Bizkaian inongo kasutan ere ez zaie prestazioa adinekoei onartzen.

Prestazio horren eta gizarte zerbitzuen erabilerean arteko bateragarritasunari dagokionez, Bizkaian erabateko bateraezintasuna ezartzen da, adierazi dugun bezala, teleasistentzia eta aldi baterako egoitzako egonaldi zerbitzuetarako izan ezik. Araban eta Gipuzkoan, aldiz, bateragarritasuna erabatekoa da, egonaldi iraunkorrerako izan ezik, logikoa denez. Horren arabera, prestazio hori daukan pertsonak –gogora dezagun III. gradua izatea eskatzen duena– Bizkaian ezin du ELZrik ez eguneko zentrorik izan, eta Gipuzkoan eta Araban, berriz, zerbitzu bietako edozein edo biak izango lituzke.

Prestazio hori zerbitzu batekin edo batzuekin uztartzen denean, Gipuzkoan, arestiko prestazioko murrizketa berak ezartzen zaizkio laguntzari, hots: %20 ELZari dagokionez, %50 eguneko zentroari dagokionez, eta %60 zerbitzu biei dagokienez. Araban, ordea, ez da zentzu horretako murrizketarik adierazten.

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa

Adierazi dugunez, prestazio hori arautzeke dago Bizkaian. Beste lurralde biei dagokienez, arautzeak egoitza laguntzari eta eguneko zentrokoari eragiten die. Gipuzkoan itxaron zerrandan gutxienez hiru hilabetez egotea eskatzen da, eta Araban, aldiz, ez da horretaz ezer adierazten.

Lurralde bietan, jasoko den prestazioaren kopurua mendeko pertsonaren baliabide mailaren arabera da, baina aldeak daude. Gipuzkoan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aitortutako errendimenduak hartzen dira kontuan; horiek zati haren ardurapeko pertsona kopurua egiten da, onuradunaz eta ezkontide edo izatezko bikoteaz gain, egonez gero. Ateratzen den mendeko pertsonaren ahalmen ekonomikoa lanbide arteko gutxieneko soldatarekin erlazionatzen da. Horren arabera, gehienez ere prestazioaren %30 murriztu daiteke.

Arabian, portzentaje bera erabiltzen da errentarekiko, eta mota orotako sarrerak, per capita errenta bezala finkatuta, kontuan hartuz kalkulatu da, ondarea ere kontuan hartuz. Horrela aldagai bi horiekin taula bat ezartzen da, eta bertan ateratzen da prestazioari aplikatu dakioken murrizketa %50, errenta eta ondare handienarentzat, eta %0 artean, kontrako kasuarentzat, mugitzen dela.

Laburbilduz, adierazitakoaren arabera, esan dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoan Mendekotasun Legetik eratorritako prestazio ekonomikoaren arautegiak ez direla homogeenak, eta horrek interpretazioen arteko desberdintasunak errazten dituela. Horrek guztiak honakoa dakar: foru administrazioek prestazioei trataera desberdinak ematea, eta mendekotasun egoera berdinen aurrean erantzun desberdinak egotea. Bistan denez, autonomia erkidego batean egoera hori ez da desiragarria, herritarrek ez dutelako ulertzen zergatik diren desberdinak trataerak. Beraz, oso komenigarria litzateke Mendekotasun Legea Euskal Autonomia Erkidego osoan aplikatzeko irizpideak bateratuko litzuzkeen koordinazioa ezartzea. Zentzu horretan, espero dezagun, arlo horretan ere, lehen aipatu dugun Gizarte Zerbitzuen Lege berriak ezartzen duen irizpide bateratzea erabiltzea.

Arartekoa mendeko pertsonen kezkatzen dute, haien egoerak laguntza handiagoa behar izatera daramatzalako eta ahulago bihurtzen dituelako. Horregatik eta arestian adierazitako guztiagatik, gure autonomia erkidegoan Mendekotasun Legea aplikatzeko moduari buruzko **barneko lan batzordea** sortu dugu. Egoeraren onarpenari, haren ondorioei, irizpideei eta gizarte prestazio eta zerbitzuetarako sarbideari lotutako alderdi guztiak zehaztasun handiz ezagutu nahi dira. Bestalde, hurrengo urteotan egoeraren jarraipena egingo da, bilakaeraren azterketa konparatiboa egin ahal izateko. Horrek guztiak gabeziak eta hutsuneak ezagutze-ko elementu objektiboak emango dizkigu, euskal administrazioei dagozkien hobekuntza proposamenak egin ahal izateko. Batzordea 2008. urte hau nahiko aurreratuta zegoenean eratu da, eta lanaren programaketan egin da lan. Beraz, datorren urteko txostenean eman- gongo dugu egindako jardueren berri.

Mendekotasun Legeari lotutako kontuei buruz **jasotako kexei** dagokienez, zenbait gai agertu dira. Aipatutako kasuez gain, beste batzuk bestelako zioengatik agertu dira, besteak beste: eskatutako balorazioaren atzerapena, balorazioaren emaitzari buruzko desadostasuna, esleitutako gizarte zerbitzua onartzeko atzerapena (egoitza, eguneko zentroa edo etxez etxeko laguntza), prestazioa atzeraeraginezko ondorioekin eskatzea (mendeko pertsona hil ondoren), etab. Horretaz dihardugu 1.4.3. atalean. Baina hemen, bat azpimarratu nahi dugu argi islatzen dituelako azaldu ditugun lurraldeen arteko desberdintasunak.

Arartekoari Barakaldon bizi zen senar-emazteen kexa aurkeztu zitzaion; adineko senide bi-rekin bizi ziren, biek zeukaten III. graduako mendekotasuna, eta laguntza ematen zieten. Bizkaian gizarte zerbitzua eta prestazio ekonomikoa bateraezinak direnez gero, adierazi dugunez, pertsona horiek Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) eskatzea hautatu zuten. Horrela jasotzen zen aldundiak egindako Laguntzarako Banakako Planean, baina zerbitzu hori udaletik ematen da. Kasu horretan, Barakaldoko Udalak prestazioa onartu zuen, mendeko pertsona bakoitzeko asteko 6 ordu eta 15 minutu (ordubete eta 15 minutu astelehenetik ostiralera). Onartu zenetik hiru hilabetera, ordea, zerbitzua ematen hasi gabe zeuden. Udalera jo genuen eta, handik gutxira, adostutako zerbitzua jarri zen; kasu horretan, pertsona bakoitzeko ELZko 25 ordu hilean. Pertsona bi horiek beren ahalmen ekonomikoaren arabera ordaintzen dute zerbitzua, baina ez daukate prestazio ekonomikorik eta III. graduako mendekotasunari dagokion laguntza emanda irizten zaie.

Kasuak aipatzen ari garen lurraldeen arteko desberdintasuna islatzen du argi eta garbi. ELZko hileko 25 orduz (kasu horretan esleitutakoak) etxean laguntza jasotzen duen III. graduako mendeko pertsonak ez du prestazio ekonomikorik jasotzen Bizkaian. Araban eta Gipuzkoan, aldiz, egoera berberak, ELZ ez ezik, familia inguruko zaintzetarako laguntza ekonomikoa jasoko luke (haren kopurua, 2008an, 506,96 euro/hilekoa da), Araban %8,5ean murriztuta (emandako 25 orduen arabera) eta Gipuzkoan %20an. Alegia, pertsona berak, aipatu ELZaz gain, hileroko 463,87 euro jasoko lituzke Araban bizi balitz; 405,57 Gipuzkoan bizi balitz; eta 0 Bizkaian bizitzeagatik.

Gainera, kasu horrek beste hausnarketa batera garamatza: Bizkaian zerbitzuen artean eta haien eta prestazioen artean ezarritako bateraezintasunak (teleasistentziaren salbuespenarekin) berdintzat jotzen ditu zerbitzu guztiak, haien artean alde handiak egon arren. Esaterako zerikusi gutxi dauka ELZak egoitzako laguntzarekin, bai laguntzaren intentsitateari, bai erabilitako baliabideei bai zerbitzuaren kostuari dagokienez. Horregatik, alderdi horretaz ere hausnartzea komeni da. Aurten ofiziosko jarduketara burutu dugu; udal lagin batera jo dugu kudeaketari, finantzabideari eta erakundeen arteko koordinazioari dagokienez zerbitzuaren egoera ezagutzeko. Lehentasunezko Laguntzako Taldeei buruzko txostenaren II. atalari lotzen gataizkio, Adinekoei buruzko atalari, hain zuzen ere.

Estatuaren Administrazio Orokorrari dagokion legearen arauzko garapenari dagokionez, ebazpen bi nabarmendu behar dira: lehena, zentroak eta zerbitzuak egiaztatzeko irizpideei buruz, eta bigarrena, ordain-kidetasuna delakoari buruz. Estatuaren Gizarte politika, Familia eta Mendekotasun eta Ezgaitasunarentzako Laguntzarako Idazkaritzaren 2008ko abenduaren 2ko ebazpen biek (abenduaren 17ko BOE) Autonomiarako eta Mendekotasunarentzako Laguntzarako Sistemaren Lurralde Batzordearen hitzarmen bana argitaratu zituzten. Hitzarmenetako bat aipatu sistemaren "zentro eta zerbitzuen kalitatea bermatzeko egiaztapenerako irizpide komunei buruzkoa" da. Beste hitzarmena "onuradunaren ahalmen ekonomikoaren zehaztapenari eta hark" aipatu sistemaren "prestazioetan parte hartzeko irizpideei buruzkoa" da.

Zentroak eta zerbitzuak egiaztatzeko irizpideek haiei guztiei eragiten diete, titulartasun publikokoak zein pribatukoak izan. Esan behar dugu, gure autonomia erkidegoan irizpide

gehienak betetzen direla, horretaz egoitzei eta eguneko zentroi buruzko autonomia arautegia dagoelako. Autonomia erkidegoan ez dago ELZe buruzko arautegirik, eta ona litzateke egotea, Gizarte Zerbitzuen Lege berriak ezarritako printzipioak betetzeko. Dena dela, estatuko ebazpen horretan, dakarren berrikuntzagatik, 1.b) puntua azpimarratu behar da. Puntu horrek adierazten du zentroetako zuzendariak unibertsitateko titulua eduki behar dutela eta mendekotasunari, ezgaitasunari, geriatricari, gerontologiari, egoitzak zuzentzeari edo mendekotasunarentzako laguntzari lotutako bestelako arloei buruzko prestakuntza eginda. Hiru urtetik gorako esperientzia eta prestakuntza osagarria izanda betetako lan postuak salbuesita geratzen dira.

Bestalde, zentro eta zerbitzuetako enpleguaren kalitateari buruzko bosgarren puntuak honakoa azpimarratzen du: *“Dado que la calidad en la prestación de los servicios está ligada a la calidad en el empleo de los profesionales que la llevan a cabo, se acuerda introducir, con la participación de la representación legal de los interlocutores sociales, determinados requisitos y estándares de calidad en el empleo, para la acreditación de centros, servicios y entidades.”* Gainera esaten da Lurralde Batzordeak, hamabi hileren buruan, egiaztapen horretarako kontuan hartuko diren enpleguaren kalitateari buruzko adierazleak adostuko dituela, *“...entre los que figurarán los de estabilidad en el empleo, formación, prevención de riesgos laborales, adaptación de puestos de trabajo para discapacidad, etc.”* Puntua honakoa adieraziz bukatzen da: *“Las Administraciones competentes establecerán las exigencias en la contratación de los servicios que permitan dar cumplimiento a los objetivos que se fijan para la calidad en el empleo.”* Atal horrek garrantzi handia dauka hura betez gero gizarte zerbitzuetako langileen greba egoera asko ekidin daitezkeelako, haien lan aldarrikapenak direla-eta, holakoek zerbitzuotan laguntza jasotzen duten pertsonen egoera zail eta deserosoak sor baitiezazkiekete. Adinekoei buruzko atalean, horrelako kasu batez hitz egiten dugu.

Gai horri dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Lege berriak (48.4. artikulua) adierazten du Gizarte Zerbitzuen Euskal Batzordearen baitan derrigorrez kontseilu sektoriala sortuko dela *“gizarte-zerbitzuen arloko enpleguaren kalitaterako eta prestakuntzaren eta kualifikazioaren hobekuntzarako.”* Era berean, legeak atal osoa (V. idazpuru) eskaintzen dio erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuak emateko ekimen pribatuarekiko itunari, eta bertan itun erregimena nabarmentzen da. Horri dagokionez, adierazten du ituntzeko, besteak beste, itundu beharreko zerbitzu edo zentrorako kontratatutako langileen ratioak eta lan baldintzak hobetuko dituzten erakundeen alde jokatzeko neurriak ezarriko direla. Edonola ere, Eusko Jaurlaritzak, dekretuaren bidez, 2009. urtean (abenduen 25a baino lehen), dekretuz, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren itun erregimena arautu beharko du (zortzigarren xedapen gehigarria). Esparru orokor horrek, gerora, administrazio bakoitzari bere ekintza itundua arautzen utziko dio.

Onuradunen ahalmen ekonomikoa eta hark sistemaren prestazioetan ekonomikoki parte hartzeko irizpideak zehazteko hitzarmenak dio hura hartzen dela *“autonomia erkidegoek edo eskuduntza duten administrazioek baldintza onuragarriagoak arautzeko duten ahalmena kaltetu gabe.”* Horrek gure Autonomia Erkidegoari eragiten dio, Gizarte Zerbitzuen Lege berrian, adierazi dugunez, alderdi horri lotutako irizpide orokorra adierazi baitu.

Hala ere, hitzarmen horrek ezartzen duena adieraziko dugu. Onuradunaren ahalmen ekonomikoari dagokionez, dio haren errenta eta ondarea aintzat hartuz zehaztuko dela. Ohiko bizilekuari dagokionez, adierazten da honako kasuan zenbatuko dela: *“..el beneficiario perciba el servicio de atención residencial o la prestación económica vinculada a tal servicio y no tenga personas a su cargo que continúen residiendo en dicha vivienda.”* Haren ardurapeko pertsonatzat nor hartzen den definitzen du eta eransten du etxebizitzaren titularkidetasun kasuetan, onuradunari dagokion portzentajea baino ez dela aintzat hartuko.

Onuradunak sistemaren zerbitzuetan ekonomikoki parte hartzeko (ordain-kidetasuna de-ritzona) irizpideei dagokionez, onuradunaren ahalmen ekonomikoa hartuko da aintzat. Hitzarmenak egoitza zerbitzua, egun/gaueko zentroa eta etxez etxeko laguntza bereizten ditu. Haietako bakoitzarentzat, administrazioak parte hartze horri begira erreferentziatzko adierazle bat finkatuko du.

Lehen kasuari dagokionez –egoitza zerbitzua–, egoitzako laguntza mantenutik eta ostatu zerbitzutik bereizten da. Honakoa ere eransten da: onuradunaren parte hartzeak haren ahalmen ekonomikoaren %70-90 artean hartuko du, gastu pertsonaletarako gutxieneko kopurua bermatuz beti. Egun/gaueko zentroan parte hartze portzentajea %10 eta 65 artekoa izango da. Etxez etxeko laguntzari dagokionez, portzentajea berbera da, baina onuradunak ez du kostuan parte hartuko bere ahalmen ekonomikoa ZOEAPren (Zenbait Ondorioetarako Errentaren Adierazle Publikoa) berdina edo txikiagoa denean.

Aipatu zerbitzuetakoren bat prestazio ekonomikoarekin batera jasotzen denean, horrek murrizketa izan lezake onuradunaren ahalmen ekonomikoa ZOEAP baino handiagoa bada. Murrizketa hori eginda, jasoko den prestazioaren zenbatekoa, gutxienez, zerbitzuari lotutako eta laguntza pertsonalerako prestazioen %40, eta familia inguruko zaintzetarako prestazioaren %75 izango da. Hots, gehieneko murrizketak %60koak izango dira, lehen prestazioetan, eta %25ekoak, bigarrenetan.

1.4. Arloaren gairik garrantzitsuenen azterketa

1.4.1. Eskubideak eta askatasunak

Prestazioaren ukapena udal erroldan erregistratuta ez egoteagatik

Aurten kexa asko jaso dugu erroldan izena ematea ukatu izanari buruz. Gaiak urtetik urtera garrantzi handiagoa dauka, baliabideak eta zerbitzu publikoak jasotzeari eragiten diolako: osasun txartela, Etxebide, euskal etxebizitza zerbitzua, edo gizarte laguntzak, zerbitzuak eta prestazioak. Gizarte Zerbitzuen Lege berriak gizarte zerbitzurako eskubidea aitortzen die erroldatutako pertsonari, eta, beraz, errolda ezinbesteko eskakizun bihurtu da.

Atal honetan bertan, Lanak eta Zerbitzuak arloan, eta horri lotzen gatzaizkio, udal erroldan izena emateko zailtasunak, aplikatzeko lege erregimena aztertzen ditugu, eta aurten burututako jarduketak biltzen ditugu, hots, udalei egin dizkiegun gomendioak. Egoitzetan bizi

diren pertsonak, hala nola, adingabeak edo gizarteratzeko bidean dauden helduak, erroldan erregistratzeari lotuta hasi dugun ofiziozko jarduketa ere aipatzen dugu. Bestalde, II. Atalean ere erroldan izena emateko zailtasunak aipatzen ditugu; atalaren edukia Arartekoaren jarduketak dira, eta bereizkeria, gizarte bazterketa jasan edo eskubideak erabiltzeko egoera ahulean dauden pertsonen dagozkie, zehazki, ijitoei eta gizarte-bazterkeria larrian dauden pertsonen dagozkien ataletan.

Adierazten genuenez, erroldan erregistratzea gizarte prestazioak jasotzeko betekizuna da. Kexak jaso ditugu, laguntzetarako deialdiak ezarritako epean erroldako erregistroa egiaztatu ezin izanagatik prestazioak ukatu direlako, pertsona horiek bizilekuan bizitzea egiaztatu arren. 527/2008 kexan, Arabako Foru Aldundiak laguntza ukatu zion bera ama zaintzen zuen pertsona bati, epean erroldatzea ez egiaztatzeagatik. 2006. urterako mendeko senide nagusiei etxean laguntza ematen dieten pertsonentzako laguntza ekonomikoetarako deialdi publikoa arautzen duen Arabako Foru Aldundiaren arautegiak, 2006ko azaroaren 13ko ALHAO, 2006. urte osoan bizikidetasuna izateko betekizuna ezartzen du. Egiaztatzeko froga bakarra errolda ziurtagiria da. Pertsonak bizikidetasuna egiaztatzen zuen bestelako agiriak aurkeztu zituen, baina ezin izan zuen urte osoan erroldatze ziurtagiria aurkeztu, eta laguntza ukatu zitzaion. Txostena izapidetze prozesuan dago. 668/2008 kexak ere eduki bera dauka, kasu honetan arautegia Gipuzkoako Foru Aldundiarena da. Aldundiak ez dio eskaria egin zuen egunetik familia inguruko zaintzarako prestazio ekonomikoa ordaindu, data horretan ez zegoelako bere amaren bizilekuan erroldatuta. Erroldatuta zegoela egiaztatu ez zuen aldiari dagokion prestazioa ukatu dio eta erroldatzea agertzen den datatik baino ez dio prestazioa ordaindu, bizi den udalak emandako elkarbizitza ziurtagiria aurkeztu arren. Antzeko kontua da, arauak berak ezartzen duelako betekizuna, kasu honetan, Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden pertsonen laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko prestazio ekonomikoak arautzen dituen azaroaren 20ko 133/2007 Foru Dekretuak. Txostena izapidetze prozesuan dago.

1.4.2. Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Jasotzen ditugun kexa asko prozedura administratiboari edo, nola edo hala, prozedurazko arloari daude lotuta. Zentzu horretan, oraindik ikusten dugu gizarte zerbitzuen kontuetan herri-administrazioaren jokabideak prozedura administratibora egokitze premia.

lazaradopzioprozedurari buruz prestatu genien ebazpenean ([2007ko irailaren 14ko ebazpena](#)¹), Arabako Foru Aldundiak, adin aldeagatik egokitasuna birpentsatu ez zuenez gero, gomendioaren alde substantiboa onartu ez bazuen ere, aldundiak ebazpenak prozedura

¹ Arartekoaren ebazpena, 2007ko irailaren 14koa. Horren bidez, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari gomendatzen zaio bere jarduera Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erki-deari buruzko Legearen 42. eta 89. artikuluetan ezarritako prozedurara molda dezala eta adopzio hartzailearen eta adopziogaiaren artean dagoen 42 urte baino gehiagoko aldean oinarrituta adopziorako egokitasunaren ziurtagiria ukatu izana berriro azter dezala.

administratibora egokitzeko gomendioak onartu zizkigun. Zentzu horretan, erantzun zigan izapidetzeetan bizkorrago ibiltzen ahaleginduko zirela. Egokitasun ziurtagiriaren izapidetzea-ri buruz egin genituen gomendioak sartuko zituztela ere esan zigan, hots, hura bukatzeko ez direla hiru hilabetetik gora luzatuko eta emandako ebazpenak dagokion errekurtsioa, aurkeztu behar litzaiokeen organo administratibo edo judiziala eta jartzeko epea edo, hala balitz, eperik eza jasoko dituela. Bestalde, interesdunari egokitasun ziurtagiria jaso dela jaso denetik 10 egunen buruan jakinaraziko zaio, ebazpenerako gehienezko epeaz eta isiltasun administratiboaren ondorioez ere jakinaraziz. Txosten horren bidez ikus daiteke adminis-trazioaren erabaki batzuek oraindik ere ez dituztela prozedura administratiboaren arauak sartzen. Egokitzapen hori lortzeko egiten ari diren ahaleginak oso ontzat jotzen ditugu.

748/2007 txostenean ere, Arabako Foru Aldundiak erantzun digu prozedura administrati-boa arautzen duen arautegietako xedapenetara egokitzeko borondatea daukatela. Txosten honetan, zein atal honetako haur eta nerabeentzako babesari buruzko epigrafean aipatzen dugun, agerian geratzen zen Adingabearen Batzordearen ebazpenak prozedura adminis-tratibora egokitzeko premia. Adingabearen Batzordearen ebazpenak, zeinen arabera neska bati babesgabetasun egoera aitortu eta legearen arabera haren tutoretza bere egiten baitu, ez zen adierazten zein zen hari oposizioa aurkezteko jurisdikzioa edo eskuduntza zeukan organoa, ezta errekurtsioak jartzeko epea ere, 30/1992 Legeko 58. eta 89.3. artikulua. Foru aldundiak erantzun digu horrelako ebazpenek izan behar duten edukia adierazten duen agindua eman duela, arestiko arautegiaren arabera, eta oso ontzat jotzen dugu.

1.4.3. Mendekotasuneko egoeran dauden pertsonak

1.3 atalean abenduaren 14ko 39/2006 Legeari eta gure autonomia erkidegoan daukan arau-tegi garapenari buruz hitz egin dugu. Era berean, gai horri lotuta aurkeztu diren kexa batzuk aipatu ditugu. Horri guztiari azpiatal hau erantsiko diogu.

Mendekotasuneko egoera aitortzeak, gradu eta mailaren arabera, prestazio ekonomikoak eta zerbitzu batzuk dakartzanez gero, mendekotasuneko egoera onartzeko jarraitutako prozedurari eta onuradunak diren pertsoneri buruzko kexak eta informazio eskariak jaso ditugu.

543/2008 txostenean galdetzen zitzaigun ea euskal familia batek etxean hartzen zuen sa-harar jatorriko adingabe batek mendekotasuneko egoera onartzea eska zezakeen. Oso garrantzitsu deritzogu, askotan adierazi dugunez, Arartekoaren aburuz, adingabe izatea nazionalitatearen edo egoera administratiboaren gainetik dagoelako, eta horregatik berri-ro gogorarazi behar dugu zein den adingabeen babesari buruz indarrean dagoen legedia: 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes juridikoari buruzkoa, eta Eusko Legebiltzarraren 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurtzaroarentzako eta Nerabeza-roarentzako Laguntzari eta Babesari buruzkoa. Arautegi horren arabera, administrazioaren jarduketan printzipioak adingabearen interes gorena eta haren garapena bermatzeko haren eskubideen babesa izan behar du, eta printzipio horrek batera letorkeen legezko beste edozein printzipioren gainetik egon behar du.

Jaso dugun beste kexa bat Mendekotasun Legeak sortu dituen itxaropenei dagokie, ez zaielako beti erantzunik ematen. Horixe da egindako balorazioarekin ados ez zegoen pertsonaren kasua, onartutako gradua eta mailak artean eraginkorrak ez zirelako, legea mailaka ezartzeko egutegiaren arabera. Hori dela eta, pertsona horrek ezin zuen nahi zuen prestazio ekonomikoa artean eskuratu.

1.4.4. Haurtzaroarentzako eta nerabearentzako babesa

Aurten aldundiek haurtzaroarentzako babes kontuetan izandako jarduketei lotutako zenbait kexa izapidetu ditugu. Kasu batean, Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzendutako 1063/2007 txostena, harrerako lehen hiletan komunikatzeko zailtasunei buruzkoa zen. Beste kexa batzuk tutoretza bere gain hartzeko erabakiarekiko desadostasunari buruzkoak dira; Bizkaiko Foru Aldundiari zuzendutako 203/2008 txostena da, eta kexa bultzatu zuenak bide judizialera jo zenez, eten egin genuen. Arabako Foru Aldundiari zuzendutako 748/2007 txostenaren zioa, bestalde, Adingabearen Batzordeak ginear jatorriko familia batekin izandako jokabidearekiko desadostasuna zen. Adingabearen Batzordeak adingabea babesgabetasun egoeran jo zuen adingabea abandonatuta zegoela ulertu zuelako, haren amak eta neba-ahizpek Gasteizen lan egin arren. Ama ez zegoen ados familiarekin urteetan ziharduten gizarte zerbitzuek izandako jokabidearekin, eta horregatik ez zen laguntzeko oso prest agertzen. Foru aldundiak informazioa igorri zigun azaltzeko zer jokabideren arabera ulertzen zuen amak abandonatuta zegoela, baita familiako esku-hartze taldeek egindako ahaleginei eta harremanetan egondako zailtasunei buruzkoa ere. Erakunde honek ere kexaren bultzatzailearekin komunikatzeko zegoen zailtasuna egiaztatu zuen eta, izan ere, esku-hartzea bertan behera utzi genuen hark amore eman zuelako. Gure aburuz, txosten horrek argi erakusten du kulturen arteko komunikazioa hobetzeko premia, jatorriz beste herrialde batekoak izanda gure erkidegokoak ez bezalako kultura eta komunikazio kodeak daukatenean.

Gizarte Zerbitzuek atzerritar askori ematen diete laguntza, baliabide eta arazo desberdinetatik, eta horregatik kultura aniztasuna kontuan hartuko duen esku-hartze tresnak behar dira. Bestalde, garrantzitsua da erakunde eta herri-administrazioei buruz eta betetzen dituzten funtzioei buruz daukaten ezagutza eza, beste herrialde batzuetatik datozelako eta bertan funtzio publikoa ez delako berdin ulertzen. II. atalean, Lehentasunez Laguntzeko Taldea: kartzelan dauden pertsonak delakoari dagokion atalean, jarduketa baten berri ematen dugu, 1267/2008 txostena; bertan gako kulturalak eragin handia izan du. Txosten hori esku-hartzea bideratuko duten diagnosiak egiteko kultura arteko ikuspegiak daukan garrantziaren adibidea da. Kasu horretan, hasieran alderdi kulturala aintzat hartu ez zuen jarduketa egon zen, eta horregatik, adingabe baten zaurien aurrean, amaren epaiketa eta zigor penala ekarri zuen salaketa penalerako dispositiboak abiarazi zen. Adingabeari eraso egin zion emakumea aitaren emazte berria zen eta horregatik, emakumea aitarekin elkarbizitzen hasi zenean, bien, amaordearen eta semearen, arteko arazoak izan zituzten, indarkeria fisikora iritsi arte. Hala ere, ondoren esku hartu zuten gizarte eta erakunde agenteen arabera, amaordearen eta semearen arteko harremana normaldu egin zen. Emakumea beste ume batzuen ama izan da eta herriko bizimoduan sartzen eta integratzen joan da, beste estilurik gabe. Gertaerek ez zeukaten bere garaian baloratu zitzairen larritasuna eta ez zuten, egungo

ikuspegitik, zigor penala merezi, amaren kontrako salaketa penala egin zutenek esan zigutenez. Ama kartzelan sartzea, une haietan, neurrigabea eta ulertezina zen familiarentzat. Horregatik, ondoren eskola eta udala bera mugitu dira amak kartzelan zigorra bere haurrengandik bananduta betetzea galarazteko. Gako kulturalak, askotan erabakigarriak ez badira ere, elementu garrantzitsua dira edozein esku-hartze egiterakoan. Informazio gehiagorako aipatutako txostenaren atalari lotzen gataizkio.

3/2008 kexa ere izapidetu dugu, ofizioz; Zabalotxe egoitzan hezitzaile batek Bizkaiko Aldundiaren ardurapeko adingabe talde batengandik jasan zuen erasoari buruzkoa da. II. atalari, adingabeei buruzko zatiari lotzen gataizkio; bertan aldundiaren erantzunaren eta egoitzara egin genuen bisitaren berri ematen dugu.

Atzerriko adingabeei eragiten dieten jarduketei dagokienez, foru aldundien tutoretzapeko adingabe atzerritarrek erroldan izena emateko dauzkaten zailtasunei buruzko jarduketari ekin diogu ofizioz. Jarduketa egoitza baliabideak dauden udalei zuzendu diegu. Oraindik ez dugu udal guztien erantzuna jaso, beraz, izapidetzen ari den txostena da. Udal erroldan erregistratzea oso garrantzitsua da adingabeentzat, sarritan adierazi dugunez, zerbitzu publikoetarako sarbidea ematen dielako. Zentzu horretan, kexak jaso ditugu babes erakundearen tutoretzapeko adingabe atzerritar batzuk udal erroldan erregistratu gabe daudelako.

Aurten zenbait kexak jaso ditugu auzokideen artean zentro berriak irekitzearen aurkako jarre-rak egon direlako, 1197/2008 eta 1359/2007 txostenak. Informazio gehiagorako txosteneko Lehentasunezko Laguntzarako Taldeak II. atalari, Adingabeei dagokionari lotzen gataizkio. Bestelako kexa batzuk ere izapidetu ditugu: adina zehazteko zailtasunei buruzkoak, 11/2007OF eta 1129/2008 txostenak; adingabekoen erresidentzia arautzen duten lege xedapenak ez betetzeari buruzkoak, 23/2008OF, 6/2008OF, 54/2006OF eta 1299/2008 txostenak; eta adingabeen eskubideei buruzkoak, hala nola defentsarako eskubideari buruzkoak, 1398/2008 txostena, edo konfidentzialtasun eskubideari buruzkoak, 253/2008. Haien azterketa txosteneko Lehentasunezko Laguntzarako Taldeak II. atalean, Adingabeei buruzko berariazko atalean ikus daiteke.

Amaitzeko, urte bukaeran, adingabeentzako konpentsazio- eta mantenu-pentsioei buruzko gaiari heldu nahi izan zaio, haien ordainketa askotan bete gabe geratzen delako eta dagokien familientzat eragin oso kaltegarria daukalako. Zentzu horretan, Eusko Legebiltzarrak baimena eman dio Jaurlaritzari mantenua ordaintzeko bermeko funtsa sortzeko, pensio biak konturako aurrerapenen bidez bermatzeko. Jaurlaritzak 2009ko lehen hiruhilekoan arautu beharko du gaia. Horrela jaso du 2009. ekitaldirako Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartu zituen abenduaren 29ko 12/2008 Legeko zortzigarren xedapen gehigarriak.

1.4.5. Adinekoak

Gizarte-bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legea aldatzen dituen ekainaren 25eko 8/2008 Legea indarrean sartzea berrikuntza garrantzitsua izan da. Lege horrek adinekoen

babesa areagotu du, pentsionistentzat bizikidetasun unitatea izatea esplizituki jaso duelako, baita beste senideekin bizi direnean ere, eta prestazioaren gehieneko zenbatekoa lanbideen arteko gutxieneko soldataren %100 arte eta pertsona biko bizikidetasun unitateentzat %125 arte igo duelako. Bizilekuan, ezkontidea izan ezik, sarrerak dauzkaten beste pertsona batzuk egon arren pentsioduna oinarritzko errentaren tituludun jotzea, 2009ko urtarrilean sartu da indarrean.

Kexak jaso ditugu pertsona batzuek, aldaketa hori egon arren, inongo prestazioren onuradun izan gabe jarraitzen zutelako, laguntzak sarrera txikiagoak zeuzkaten bizikidetasun unitateentzat aurreikusten baitziren. Horixe da 1026/2008 txostenaren kasua. Bertan adierazi ziguten itxaropenak oso handiak izan zirela baina artean adineko askok ez zutela euren egoera hobetzen, gabezia handiak zeuzkatela, eta ezin zutela sarrerarik eskuratu. Gure erantzunean dauden babes sistema biak aipatzen ditugu: gizarte segurantzaren ordainpekoa, eta laguntzako, ahultasun eta premia egoerei lotutakoa. Sistema horiek erakunde bik kudeatzen dituzte, Espainiako Gobernuko Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak. Laguntza sistema ordainpekoari dagozkion eta inondik ere nahikoak ez diren pentsioak orekatzen ari da. Oztopo nagusia, beraz, ordainpeko sistemako pentsio batzuk oso txikiak izatean datza, laguntza sistemak ahaleginak egin arren.

Adinekoentzako zerbitzuei dagokienez, aurten Araban erakunde laguntzaileek ematen dituzten zerbitzuei buruzko kexa bat jaso dugu; zehazki, kexa Caser Residencial Alto de Prado Tutoretzapeko Apartamentuak kudeatzen dituen enpresari buruzkoa zen (431/2008 txostena). Foru aldundiak erantzun digu eta gizarte zerbitzuen ikuskaritza funtzioak batez, EAEko gizarte zerbitzuen baimentze, erregistratze, homologatze eta ikuskatzea arautzen dituen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuko 39. art., burututako esku-hartzeak zehaztu dizkigu.

482/2008 txostenaren zioa egoitza zerbitzuen ikuskaritzan eskuduntza daukan Arabako Foru Aldundiari jakinarazi zitzaion komunitateko etxebizitza bateko laguntza falta izan zen. Aldundiak zigortzeko prozesuari ekin zion baina ezin izan zuen bukatu, froga faltagatik. Hori dela eta, prozedura iraungi egin zen.

Erabiltzaile baten egoitza batetik besterako lekualdaketa buruzko arautegiaren aldaketa, Araban

Azken urte biotako txostenetan aipatu dugu zein garrantzitsua den adinentzako egoitzak pertsonai horien berezko inguruan egotea. Zentzu horretan, adierazten zen Arabako Foru Aldundiarekin egoitza batean beste batera aldatzeko bete behar den gutxieneko epeari buruzko txostena ari ginela ofizioz izapidetzen. Nahi genuena honakoa zen: arau aldatzea egoitza batean beste batera eramateko gutxieneko eperik ez eskatzeko, aldaketaren zioa egoitzan bizi zenaren familia eta gizarte ingurura hurbiltzea zenean eta, batez ere, udalerrri aldaketa zekarrenean.

Jarduketaren zioa honakoa izan zen: txostenari ekin zitzaionean, 2006an, arautegiak egoitza batean gutxienez sei hilabetez egotea eskatzen zuen beste batera aldatu ahal izateko, eta

ez zuen baloratzen aldaketak eskatzailearen familia eta gizarte ingurura hurbiltzea zekarrenentz. Betekizun horren arabera, Lezako (Arabako Errioxa) egoitza batean egonda, familia Gasteizen izateagatik hango egoitza batera aldatu nahi zuen adinekoak, ezin izan zuen epea bete arte egin. 2007an, Mendekotasun Legea dela-eta arautegi berria onartutakoan, sei hilabeteko gutxienerako epe hori hirura murriztu zen eta, aldatzeko zio gisa, familia bizilekura hurbiltzea sartu zen. Aldaketa horiek onak dira baina, hala ere, gure erakundetik, adierazitakoa bezalako egoera bereziak zeudenean, gutxienerako egonaldia betetzeko betekizuna kendu behar zela defendatzen genuen.

2008 honetan, Arabako Foru Aldundiak kontuan hartu ditu Arartekoak helarazitako balorazio horiek eta apirilaren 24ko 39/2007 eta maiatzaren 8ko 45/2007 Dekretuak aldatzen dituen irailaren 16ko 85/2008 Foru Dekretua onartu du; aldatutako dekretuek mendekotasun egoera onartzeko prozedura, autonomiarako eta mendekotasunarentzako laguntzarako sistemako zerbitzuetarako eskubidea eta sarbidea, eta mendekotasuna onartu ez zaien eta lurralde historiko horretako Gizarte Zerbitzuen Foru Sarearen erabiltzaileak diren pertsonen sarbide eta lekualdatze erregimena arautzen zituzten. Aldaketa horretan zentroa (egoitza, egunekoa edo gauekoa) aldatzeko jatorrizko zentroan egokitze epea betetzeko betekizuna kentzen da. Gainera, lekualdaketarako zio gisa honakoak ezartzen dira: a) familia bizilekura hurbiltzea, b) eskatutako zentroa egokiagoa izatea, erabiltzailearen premien arabera eta c) eskaera behar bezala justifikatzen duen bestelako zio pertsonal edo familiar oro.

Horrela, norbaitek zentroa aldatzea eskatzen duenean, haren inguruabar familiar eta pertsonalak hartuko dira aintzat eta berezko ingurutik hurbil dagoen lekua esleitu ahalko zaio, jatorrizko zentroan eman duen denbora gorabehera.

Adinekoentzako egoitzei lotutako hiru txosten izapidetu ditugu: bat, langileen greba batenagatik; bestea, lanak egiteko aldi baterako hustuketagatik; eta hirugarrena, zentroa eraisteko behin betiko hustuketagatik. Jarraian azalduko ditugu:

Gasteizko Ariznabarra adinekoentzako egoitzako greba

Egoitza horren titulartasuna foruarena da baina kudeaketa pribatua dauka (Quaevitae Bizi-Kalitatea, SL –Mapfre taldea–), 2.046. urtean iraungiko den 45 urteko aldirako administrazio emakida baten arabera. Egoitzako 140 leku (110 lagunduak eta 30 psikogeriatrako) eta bere baitan hartzen duen eguneko zentroan beste 60 leku (erdiak lagunduak eta gainontzeak psikogeriatrako) dauzka.

2008ko otsailaren 18an, zentzoko langile askok, euren lan aldarrikapenak direla-eta, muga gabeko grebari ekin zioten, eta urtea bukatutakoan ere badirau (hamar hilabete eta erdiren ondoren). Argi dagoenez, egoerak bertan artatutako pertsonak jasotzen duten laguntzari eragiten dio, batez ere zentroaren erabiltzaileei, zerbitzuak ematen duen laguntza intentsitate handikoa delako.

Hori dela eta, 2008an egoitza horretan dauden pertsonen senideen zenbait kexa jaso ditugu. Grebak zentroan sortzen duen egoerari, haren erabiltzaileengan dauzkan ondorioei eta,

nahikorik ez zirelakoan, ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzkoak ziren kexak. Adierazten zutenez, grebak zenbait hilabetez iraun ondoren, egoera oso zaila zen eta Arartekoak arazoa konpontzeko esku har zezan eskatzen zuten. Kexa guztietan zerbitzuaren kalitate eskasa, laguntza falta eta zikinkeria aipatzen ziren, baita bestelako alderdi zehatzak ere, besteak beste:

- Higiene pertsonalik eza, gernu eta gorotz usaina, zurgatzailea ez aldatzeagatik, edo arropa eta are ohea bustita izateagatik. Luzaroan (15 egunez) dutxatu gabe egoteagatik ere bai
- ohetik jaikiarazteko atzerapenak, agian goizeko 11,30ean jaikiarazten baitira, eta horrek gosariak eta bazkariak bat egitea dakar
- otorduak oso azkar ematen zaizkie, denbora faltagatik, eta hori dela eta ezin dute behar bezala jan
- pertsona batzuk ospitalera eraman behar izan dituzte desnutrizioagatik edo deshidratazioagatik
- inork ordezkaten ez dituen oporraldiak eta gaixotasun baxak
- etab.

Gertakari horiek kezka handia sortzen digute, batez ere kaltetutakoen ezaugarriak kontuan izanda: adinekoak eta mendekoak, haietako askok osasun arazo gehiagorekin eta, haiek guztiek, zaintza eta laguntza berezia behar dituzte bizitzako jarduerarik oinarritzkoenak egiteko eta bizirauteko. Horrek guztiak oso ahul bihurtzen ditu. Ezin dugu ahaztu pertsona horiek egoitza batean sartzeko arazoia zerbitzu publikoak behar bezala lagunduak eta zainduak izateko ematen zien bermea izan zela, familiaren etxean behar bezalako laguntza jasotzeko zailtasunak direla-eta.

Arestikoa esanda, arazoaren zailtasunak ere onartzen ditugu, jokoan eskubide bi daudelako. Alde batetik, zentroan bizi diren adinekoek behar bezalako laguntza jasotzeko daukatena. Bestetik, langileek greba egiteko daukatena. Egoera horren aurrean, eskubide biak orekatu behar dira, eskubide batek bestea ez kaltetzeko. Dena dela, zentroan bizi diren pertsonak sortzen diguten kezka, adierazi legez, haien ahultasunean oinarritzen da.

2003. urtean ere, egoitza horretako langileek 8 hilabeteko greba egin zuten eta gure erakundeak urte horri dagokion txostenean adierazi genuen txostena izapidetu zuen. Greba hura laudo arbitral baten bidez bukatu zen.

Aurtengo grebaz zenbaitetan hitz egin da Arabako Batzar Nagusian, eta bertan egoitzaren kudeaketari buruzko mozio bi onartu dira: 9/2008 Mozioa, apirilaren 21ekoa, eta 33/2008 Mozioa, urriaren 13koa. Azkenak, onartzen du egoitza gatazka gunea bihurtu dela, uste du kudeatzen duen enpresa dela agertutako arazoak konpontzeko arduradun bakarra eta, azkenik, foru gobernuari eskatzen dio, mozio horren ondorengo urtebetearen buruan laneko normaltasuna, erabiltzaileentzako kalitatezko laguntza eta egoitzaren kudeaketaren kontroleko gardentasuna lortu ez badira, enpresa adjudikaziodunarekin egoitzaren kudeaketa zuzena berreskuratzeko negoziazioei ekin diezaien.

Kaltetutako pertsona taldea eta egoitza foru zerbitzu publikoa dela kontuan izanda, Arartekoak, egoitzaren tituluduna zen aldetik, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzu Sailera jo zuen. Saisetik erabiltzaileek behar bezalako laguntza jasotzeko daukaten eskubidea bermatzeko zer neurri ari ziren jartzen jakin nahi genuen. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailera ere jo genuen, hura baita egoitza batek eman beharreko gutxieneko zerbitzuak finkatzen dituen. Ezarritako gutxieneko zerbitzuen edukia eta, kaltetutako pertsonen ezaugarriak kontuan hartuta, ematen zuten laguntza mailari zegokionez, haiei buruzko balorazioa eskatu genizkion. Bestalde, grebak zerbitzuaren ohiko funtzionamenduari eragiten diola onartuta ere, ezarritako zerbitzuek behar bezalako laguntza bermatzen zutela uste zuten galdetu zitzaion.

Aipatu saietik eta Arabako Aldunditik gaiari buruz hartutako jarduketa eta neurrien gaineko informazio zabala eman zitzaigun, hala nola prozesuari egindako etengabeko jarraipena, sarri egindako ikuskapen bisiten bidez. Bisita horien emaitzetan egiaztatzen zen egoitzako laguntzan gabeziak zeudela, bai zentroaren higiene eta garbitasunean, bai dinamizatze-ko jarduera faltan, bai egoiliarren eskaerei erantzuteko langileek zeukaten atzerapenean, goizean jaikiarazteko atzerapenean, etab. Txosten horiek izanda, foru sailak, zenbaitetan, gutxieneko zerbitzuak areagotzeko eskatu zion exekutibo autonomoari, eta hark birritan egin zion kasu eskaerari eta agindu bana eman zuen.

Bere aldetik, Eusko Jaurlaritzako aipatu sailak gutxieneko zerbitzuei buruzko bost agindu onartuz izan zuen jokabidearen berri eman zigun. Greba ordutegia handitzen joan zen, eta horregatik gutxieneko zerbitzuetako langileak ere areagotu ziren. Horrela, greba otsailaren 18an hasi zen, goizez ordu bi eta erdiko lanuztea eta arratsaldez beste horrenbeste eginez, astelehen, asteazken eta ostiraletan. Maiatzaren 10ean, lanuzteak larunbat eta igandeetara zabaldu ziren, ordutegi berarekin. Urriaren 1ean, lanuzteak asteke egun guztietara zabaldu ziren, hiru ordu eta erdiz goizez eta beste horrenbestez arratsaldez. Urte bukaeran horixe da egoera.

Hortaz, grebaren intentsitatean aldaketa egon da, eta horrek administrazioari erantzuna aldarazi dio, gutxieneko zerbitzuetako langileak areagotuz. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, adierazi dugunez, bost Agindu eman ditu gutxieneko zerbitzuak finkatzeko. Irailaren 30an terapia okupazionala, fisioterapia eta psikologiako langileak erantsi zituen, ordura arte ez baitzegoen holakorik. Azken agindua azaroaren 14koa da.

Sail horrek, bere idatzian, adierazi zuen bere ustez ezarritako gutxieneko zerbitzuak egokiak zirela egoiliarren eskubideak bermatzeko, eta adierazten zuenez, errepikatutako jurisprudentziaren arabera, *“zerbitzu bat ezinbestekotzat jotzeak ezin du zerbitzu hori eman behar duten langileen grebarako eskubidea ezabatu; aitzitik, zerbitzu hori emateko neurriak hartu behar dira edo, bestela esanda, zerbitzu horren bidez baliatzen diren eskubide, askatasun edo ondasunen gutxieneko bermerako beharrezko lanak emango direla ziurtatu behar da, baina ohiko errendimendu-maila eta funtzionamendu normala lortzeko beharrik gabe.”*

Arestikoa ikusita, “in situ” ezagutu nahi izan genuen egoitzaren erabiltzaileen egoera zein zen, ea jasotzen zuten laguntza egokia zen eta, zentzu horretan, haien eskubideak errespe-

tatzen ziren. Horretarako, erakunde honetako langileak zentroan agertu ziren, aldez aurretik jakinarazi gabe, instalakuntzak ikusteko eta egoiliarren iritzia jasotzeko, batez ere egoerari buruzkoa. Bisita abenduan izan zen, gutxieneko zerbitzuei buruzko azken Agindua, langileak areagotuz, emanda zegoenean. Bisitak iraun bitartean egiaztatu zen gutxieneko zerbitzuen areagotzea onuragarria izan zela eta zentroko laguntza maila onargarria zela, bai egoiliarren higie pertsonalari dagokionez, bai instalakuntzen garbitasunari dagokionez, burututako jardueri dagokienez, otorduei dagokienez, etab. Hori guztia, greba baten testuinguruaren baitan, zeinean eragina izatea saihestezina baita. Zentzu horretan, greba dela-eta zentroari zerbitzu batzuk falta zitzaizkion, besteak beste, asteburuetan eta jaiegunetan burutu ohi ziren ile-apaindegia eta kultura eta jolas jarduerak. Aldundiak asteroko ikuskapenak egiten zituen eta pertsona bat izendatu zuen egunero lau orduz egoteko zentroan. Artean eguneko zazpi orduko lanuzteak egiten ziren (hiru ordu eta erdi goizez eta beste horrenbeste arratsalde), eta hori jardunaldiaren zati handia da. Hala ere, sentipena izan zen grebaren ondorio zuzena, egoiliarren premia fisikoei dagokienez, nahiko kontrolatuta zeudela bisita izan zenean, diogunez, testuinguru jakin horretan beti. Gatazkaren iraupen luze horretan, lanuzteak handitzen joan ziren eta administrazioak hari buruzko neurriak hartu zituen.

Hala ere, egoiliar batzuekin, zentroko langile batzuekin eta senideren batekin izandako elkarriketetan, grebari lotutako ondorioei antzeman zitzairen. Alde batetik, nekea iraupen luzeagatik, zentroko langileen arteko giroa, grebari atxiki ez zitzaizkion langileen estresa, laguntza langileengan horrek eragiten dituen gaixotasun baxak, ordezkatzeko langileak kontratatzeko zailtasunak eta, ondorioz, laguntza langileak maiz berritzea. Horrek, egoiliarren zat, behin eta berriz aurpegi berrietara eta jokatzeko modu berrietara ohitu beharra dakar. Bestalde, horri guztiari erantsi behar zaio, gatazkaren iraupen luzeak eta dagoen tentsioak, egoiliarren bilakaera psikologikoan eta haien familia inguruan ondorioak eragiten dituela. Izan ere, familiek euren senideei zaintza eta laguntza handiagoa eman behar diete. Horrela ondorioztatzen zen eskura izan genuen zentroaren erreklamazio liburutik.

Horren guztiaren aurrean, kasu horretan gertatzen den eskubide gatazka dela-eta, eta Arartekoak horrelako kasuetan jokatzeko ahalmen mugatua daukanez gero, egoerari adi gaude, zentroaren erabiltzaileentzako laguntzari dagokionez, laguntza hori egokia izan dadin, haien eskubideak errespetatu ditzen eta, une oro, haien guztien duintasuna zaindu dadin. Zentzu horretan, bisitak egiten jarraituko dugu eta alderdi bientzat zabalik egongo gara, legeak ematen digun jokabide esparrutik beti.

Eskubide bat baino gehiago nahasten diren egoera guztietan –azaldutako kasuan bezalazaila izaten da haien arteko oreka. Mendeko pertsonentzako laguntza zentroeiei dagokienez, zailtasuna are handiagoa da gizatalde horrek daukanez ezaugarriak direla eta. Gutxieneko zerbitzuek, euren izaeragatik beragatik, zentroaren ohiko funtzionamendurako aurreikusitako langileen murrizketa dakarte, eta horregatik ematen den laguntza ezinbestez kaltetzen da.

Mendeko pertsonentzako laguntza ematen duten gizarte zerbitzuetan burutzen diren lan grebek parte hartzen duten alderdi guztien eta gizartearen beraren hausnarketa eskatzen dute, bertan biltzen diren elementu guztiei buruz. Funtsean, adierazi behar da bertan kaltetuenak –zerbitzuen erabiltzaileak– ez direla arazoan parte zuzena eta ez daukatela

aldarrikapenei kasu egiteko ahalmenik. Gainera, euren mendekotasunak oso ahul bihurtzen dituen pertsonak dira, bizirauteko gizarte eta osasun laguntza behar baitute. Hala ere, ondorio latzak pairatzen dituzte.

Konstituzioak langileei ematen dien grebarako eskubidea zalantzan jarri gabe, oreka puntua topatu behar litzateke eskubide horren erabileraren ondorio kaltegarriak aipatutakoa bezalako talde ahulengan ez erortzeko. Bestalde, adinekoentzako egoitzak gizarte laguntza ez ezik, osasun laguntza ere ematen duten zentroak dira. Azken horrek osasun arlora hurbiltzen ditu, eta hori ere kontuan hartu beharko da gutxieneko laguntza zerbitzuak ezartzerakoan.

Dena dela, garrantzitsua deritzogu lanean kalitatezko estandar batzuk finkatzeari, zentroak, zerbitzuak eta erakundeak kreditatzeko, Gizarte Politika, Familia eta Mendekotasunarentzako Laguntzako Estatu Idazkaritzaren Ebazpenak eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Lege berriak jaso bezala. Mendekotasun Legeari buruzko atalean aipatu ditugu alderdi biak. Mendekotasunerako Lurralde Kontseiluak datozen hiletan finkatuko dituen kalitate adierazleei adi egongo gara; haien artean, laneko egonkortasuna, prestakuntza, etab. sartu behar dira.

Lanak egiteko, Sestaoko Juan Ellacuria adinekoentzako egoitzaren hustuketa (755/2008 esp.)

151 sinadurak bultzatutako kexa jaso genuen; kexa udalaren titulartasuneko den Sestaoko Juan Ellacuria adinekoentzako egoitzan burutuko ziren zaharberitze lanei buruzkoa zen. Sinatzaileak ez zeuden ados udalak hartutako erabakiarekin. Haren arabera, lanak fase bakar batean burutuko ziren, eta horrek zentroaren hustuketa eta, lanek iraun bitartean, erabiltzaileak beste egoitza batera eramatea zekartzan. Eransten zutenez, egoerak kezka eta urduritasuna sortzen zizkien adinekoei, eta hura saihesteko modukoa zen lana zatika egin balitz, sinatzaileek defendatu bezala.

Sestaoko Udalera jo genuen gaiari buruzko informazio eske. Erantzunean adierazten zen egoitzaren egoera ez zela egokia, instalakuntzak oso hondatuta zeudela, eta horrek ondorio kaltegarriak zeuzkala haren bizigarritasun, segurtasun eta irisgarritasunean. Egoera horretan, egoitzak ez zituen horrelako egoitzak arautzen dituen martxoaren 10eko Eusko Jauriaritzaren 41/1998 Dekretuan xedatutako betekizunak betetzen. Horrek guztiak eraikuntza osoaren zaharberitzeari ekinarazten zuen, eta horretarako barruko zati handi bat eraitsi behar zen. Horrelako lan batek eragozpen asko sortzen ditu (zarata, hautsa, etab.) eta mota horretako lan bati dagozkion arriskuak.

Udalak adierazten zuen lana, egoiliarrek barruan zeuden bitartean, zatika egitea baztertu zela mediku eta psikologo batzuen, eta horrelako esperientziak zentroa hustu gabe bizi zituzten egoitzetako zuzendarien iritzia entzun ondoren. Horri erantsi zioten iritzi horiek guztiek zentroa hustea aholkatzen zutela, horrek egoiliarrei ekar ziezaiekeen kaltea lanaren eragozpen saihestezinekin pairatuko zituztenak baino askoz txikiagoa zela ulertzen zelako. Gainera, lana behin eta batera eginez haren iraupena dezente murrizten da, eta orain 14 hiletan kalkulatu da.

Zentroa husteko erabakia hartuta, egoiliarrek Barakaldoko Santa Teresa egoitzara eraman-go zirela erabaki zen; egoitza eraiki berria da eta, gertu egoteagatik eta garraio publikoa egoteagatik, besteak beste, egokia zirudien. Zentro horretan, udalak lehen solairu osoa kontratatu zuen, lekualdatutako pertsona guztiak bertan egon zitezen, adiskidetasun harremani eusteko.

Zaharberritze lanak burutzeko moduari dagokionez, adierazi behar da udalak, zentroaren tituluduna izanda, ahalmen osoa daukala egoki deritzon egikaritze modua hartzeko, zerbitzua behar bezala ematen jarraitu, pertsonen eskubideak errespetatu eta indarreko xedapenei aurka egiten ez dien heinean. Hori guztia bete egiten zen ikertutako kasuan, eta horregatik ez zen lege irregulartasunik ikusi udalaren jokabidean.

Bilboko Reina de la Paz adinekoentzako egoitzaren hustuketa, hura eraisteko

Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK) erakundearen Gizarte Ekintzarena den egoitza horretan sortutako gatazkari buruzko txostena ere izapidetu dugu. Indarreko arautegira egokitze zentroak egin behar zituen lanen aurrean, erakundeak ematen ari zen egoitza jarduera ete-tea, eraikina eraistea eta zenbait zerbitzu izango zituen beste berri bat eraikitzea erabaki zuen. Horrek, ezinbestean, zentroa hustea eta egoiliarrek beste zentro batzuetara eramatea eskatzen zuen. Hasiera batean, zentroak Loiu eta Unben zeuden kokatuta, eta ondoren Bilboko eta haren inguruko beste batzuk joan ziren batzen.

Albisteak ezustean harrapatu zituen egoiliarrek eta senideak eta, ziotenez, komunikabideen bidez izan zuten horren berri. Zentroaren erabiltzaile batzuek eta haien senideek Ohianka deritzon elkarte sortu zuten, zentro horretako egoiliarren eskubideak defendatzeko. Elkarrekin erakunde honetara jo zuten, neurriarekin eta gertaerak burutzen ari ziren moduarekin zeukaten desadostasuna adieraziz: informazio falta, iritzia emateko edo proiektu berrian parte hartzeko ezintasuna, zentroan sartzerakoan sinatutako kontratua ordezkatzeko zuten eta eraikin berrira itzultzeko eskubide galera zekarren berritze kontratua sinatzeko betebeharra, presioak, etab. Horren aurrean, elkarteak uste zuen egoiliarren eskubide batzuk urratzen zirela, hala nola, duintasunerako edo parte hartzeko eskubideak. Ez zuen araura egokitze lanak burutzea zalantzan jartzen, baina defendatzen zuenez, lanak zatika, solairuka egin zitezkeen, zentroa hustu barik. Egoitza husten eta pertsonak zentro berrietara eramaten hasiak ziren.

Elkarrekin eskaerak honako puntuetan biltzen ziren:

- Zentroan sartutako sinatutako kontratuen balekotasunaren defentsa. Kontratu horretan laguntza behin betiko ziurtatzen zen, pertsona mendeko bihurtuta ere. Sinarazten zitzaie kontratu berrian, ordea, une hartan autonomia galduta zeukatenei zentro berrira itzultzea galarazten zitzaie.
- Eraikinaren eraisketaren –eta, beraz, hustuketaren– aurka zeuden haien ustez lanak zatika egin zitezkeelako.
- Hustuketa geldiaraztea eta BBK-k egoitza legaltasunari egokitze proiektu adostua eta egikaritzeko egutegi baten arabera aurkezta eskatzen zuten.

Ohianka elkarteak Eusko Legebiltzarrera eta Bizkaiko Batzar Nagusietara eraman zuen kasua, hari buruzko iritzi eske. Erakunde biek elkartearen alde egin zuten. Gaia Bilboko Udalaren udalbatzan ere landu zen.

Planteatutako gaiari dagokionez, konplexua dela ikusten dugu, zenbait alderdi batzen zirelako. Alde batetik, erakunde honi, legaltasunera egokitzeari dagokionez, euskal herri-administrazioen jokabidea baloratzea dagokio. Kasu horretan, diharduen Administrazioa Bizkaiko Foru Aldundia da, Gizarte Ekintza Sailaren bitartez. Bestalde, egoitzaren titulartasuna daukan erakundea, ixteko erabakia hartu zuena, Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK) da. Haren gobernu organoetan erakunde publikoen ordezkariak daude (Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala eta Bizkaiko beste udal batzuk). Arartekoa arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, hari, 9.1.d) artikuluan, BBK-k Reina de la Paz egoitzan izandako jokabidea baloratzeko eskuduntzak ematen dizkio. Egoitza adinekoentzako ostalua eta laguntza emateko gizarte ekintza da, eta horregatik jokabidea pertsona horien eskubideei eta ongizateari dago lotuta. Pertsona horiek, euren ahultasunagatik, lehenetsuneko laguntzarako taldeetako bat da pertsonen eskubideak bermatzen dituen erakunde honetarako.

Euskal Autonomia Erkidegoan adinekoentzako egoitzak apirilaren 10eko 41/1998 Dekretuak arautzen ditu. Foru aldundiek horrelako zentroak baimentzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskuduntza daukate, martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuaren arabera. Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, Gizarte Ekintza Sailaren bitartez, egoitza horren legezkotasuna kontrolatzea.

Arestikoaren arabera, foru sail horretara jo genuen informazio eske; egoitzak legea zer neurritan betetzen zuen eta sailaren ikuskaritzak zer jarduketa burutu zuen jakin nahi genuen, hari buruzko erabakia hartu ahal izateko. BBKra ere jo genuen, komenigarritzat jo genuelako erakunde horrek egoeraz zeukan ikuspegia emateko aukera izatea eta egoki zeritzon gutzia ematea, erakunde honek gaiari buruzko erabakia hartu aurretik.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saitetik jasotako erantzunean, lege egoerari dagokionez, egoitzaren ibilbidearen eta sail horretako Ikuskaritza eta Kontrol Zerbitzutik burututako jarduketan berri ematen zen. Adierazten zenez, egoitza 1975ean ireki zen, bere kabuz moldatzen diren edo autonomoak diren adinekoentzako laguntzarentzat, baina bertan, denboraren poderioz, mendekotasunezko egoerara iritsi ziren pertsona batzuk geratzen ziren. Azaltzen zenez, egoitza eredu hori ez dator egungoekin bat, orain lehenetsunak mendekoak diren eta bizitzeko oinarrizko premietarako laguntza behar duten pertsonentzako laguntzara bideratzen baitira, horrek haiek euren etxean bizitzeko zailtasun handiak dakartzalako.

Laburbilduz, aldundiak adierazi zigun zentroak zenbait lan egin behar zituela gela eta komunetan, bere egoera arauan xedatutako betekizunetara egokitzeko. Arauan adierazitako gehienezko epea beteta, 2008ko ekainaren 4an, egokitzapena egin gabe zegoen eta horregatik zentroak funtzionatzeko baimena baliorik gabe geratu zen. Jarduerarekin jarraitu ezinik, BBK-k epe bat jarri zuen zentroa husteko eta erabiltzaileak beste egoitza batzuetara eramateko.

BBKren erantzuna ere jaso genuen. Bertan adierazten zenez, zentroa araura egokitzeak lan erabatekoa egitea, barneko egituren eraisketa, eskatzen zuen, batez ere, gelen neurria eta komunetarako eta esparru komunetarako irisgarritasuna egokitzeko. Bideraezintzat jotzen zen lanari zatika ekitea, horrek zekartzan arrisku fisiko eta osasunekoengatik (istripuetarako arriskua, hautsa, zarata...), eta deserosotasunengatik (egoiliarrek solairuz solairu etengabe aldatzea) eta lanen eragin orokorragatik, haren iraupena bost urtetan kalkulatzeko baitzen.

Horren aurrean, BBK-ko gobernu organoek egungo eraikina eraistea eta beste berri bat eraikitzea erabaki zuen. Eraikin berriak adinekoentzako egoitza eta ezgaitasun fisikoa daukaten pertsonentzako eta gazteentzako ostatu baliabideak ekarriko zituen. Erabaki horrek egungo egoitza ixtea eta erabiltzaileak lekualdatzea eskatzen zuen, eraikin berria prest egon arte. Erakundeak neurri horrek egoiliarrentzat zekartzan ezohiko gastu guztiak bere egiten zituen eta egoitza berrira itzultzea bermatzen zien, baina egoera autonomoan zeudenei baino ez.

Prozesuan parte hartutako hiru alderdiei –Ohianka elkarteak, egoiliarrek eta senideak ordezkatuz, Bizkaiko Foru Aldundia eta BBK– entzunda eta kasuari dagokion arautegiaren eta administrazio onaren edo administrazio jokabide onaren printzipioaren arauen arabera (pertsonentzako zerbitzuak ematen dituzten erakunde guztiei eskatzen zaizkienak), Arartekoak azaldutako kasuari buruzko honako **azterketa** egin zuen:

Kasu honetan aplikatu beharreko lege esparrua honakoek osatzen dute:

- 40/1999 Dekretua, martxoaren 10ekoa, EAEko gizarte zerbitzuak baimentzea, erregistratzea, homologatzea eta ikuskatzea arautzen dituena.
- 41/1998 Dekretua, apirilaren 10ekoa, adinekoentzako egoitzako gizarte zerbitzuei buruzkoa. Apirilaren 8an sartu zen indarrean. Dekretuak adinekoentzako egoitza guztiek bete beharreko betekizun materialak eta funtzionalak adierazten ditu. Funtsean suteen aurkako neurriak, elektrizitate instalakuntza, arkitektura-oztopoak, higiene zerbitzuak, gelak, esparru komunak, osasun esparrua, taldeko jantokiak, programazioa eta laguntza langileak jasotzen ditu. Dekretu horretako xedapen iragankorrak, kasu honetan aplikatzekoak, maiatzaren 31ko 125/2005 Dekretuaren bidez aldatu ziren. Bestalde, 41/2008 Dekretuak, 4. eta 5. artikuluan, egoitzen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak jasotzen ditu.

41/1998 Dekretua indarrean sartu zenetik, Reina de la Paz egoitza bertan finkatutako betekizun guztien mende geratu zen. Beraz, funtzionatzeko behin betiko baimena hura betetzearen arabera zen.

Betekizunei dagokienez, dekretuak besteak beste, honakoak finkatzen ditu: geletarako gutxienezko neurria (10 m² banakakoetarako eta 14 bikoitzetarako), gutxienez 0,90 m-ko zabalera oheetarako eta komunek arkitektura-oztoporik ez izatea (dekretuko eranskinen 4. zehaztapen teknikoak (higiene zerbitzuak) eta 6.ak (gelak)). Zentroak ez zituen alderdi horiek betetzen, gela eta oheen neurria adierazitakoa baino txikiagoa zelako eta komunek, dutxa egokituaren ordez, bainuontzia zeukatelako. Azken horri dagokionez, dekretuak ez du gela bakoitzak bere komuna bertan izatea eskatzen; horren ordez, lau laguneko bat

ezartzen du. Dauden komunek, ordea, ez dute arkitektura-oztoporik izan behar eta gurpil aulkia dutxan sartzeko modukoak izan behar dute.

Betekizun horiek ez dira debaldekoak; aitzitik, haien zioa inork, gurpil aulkian, mugikortasun arazoak topatu ahal izatea edo luzaroan ohean zaintza berezien pean etzanda egon behar izatea aurreikustea da. Horrelako kasuetan, laguntza egokia eta ahalik eta bizi kalitaterrik onena bermatu behar dira. Betekizunak, beraz, egoitzentzako kalitate bermea dira, erabiltzaileen onurarako. Euskal zentro askok araura egokitzeko lan handiak egin dituzte, funtzionatzeko administrazio baimena eskuratzeko beharrezkoa baita.

Funtzionatzeko baimenari dagokionez, aipatutako 41/98 Dekretuko lehen xedapen iragankorra da aplikatzekoa. Urtebeteko epea (99.4.8 arte) finkatzen du zentro guztiek arauaren arabera funtzionatzeko baimena eskatzeko. Epe horretan zentroak betekizun guztiak bete ezean, gehienez bost urtez funtzionatzeko behin-behineko baimena ematea aurreikusten da (2004.4.8 arte), zentroa dekretura egokitzeko.

Reina de la Paz egoitzak ezin izan zuen funtzionatzeko baimena eskuratu, aipatu arrazoiengatik, eta, hori dela eta, aldundiak behin-behineko baimena eman zion, eta dekretuan finkatzen duen epea bete arte luzatu zen. Unea iritsita, egoitzak, Bizkaiko eta EAeko beste batzuek bezala, ezin zuen funtzionatzeko baimena eskuratu, eta horregatik Eusko Jaurlaritzak araura egokitzeko epea 2008ko ekainaren 4a arte luzatu zuen, 125/2005 Dekretua onartuz. Dekretuak idazketa berria ematen die xedapen iragankorrei.

Zentzu horretan, lehen xedapen iragankorrek adierazten du 1998 baino lehenagotik (dekretua indarrean sartu zen data) jardun eta arkitektura-oztopoei edo gelei buruzko alderdiak betetzen ez dituzten (zentro horren kasua) zentroek hiru baldintza betez gero baimena lortu ahaliko dutela: lanak bideraezinak edo neurritz kanpoko kostu ekonomikoak izatea, gainontzekoan zentroa ondo ibiltzea eta ez betetzeak osasunari edo segurtasunari ez eragitea. Horrelako egoeran ez zeuden zentroek –erreforma posibletzat jotzeagatik– lan proiektua aurkeztu behar zuten egokitzeko 3 urteko epea eman zekien. Epea 2008ko ekainaren 4an betetzen zen eta luzaezina zen. Beraz, bete ezean zentroa itxiko zen.

BBK-k 4,6 milioi eurotan kalkulatu zuen kostua. Hala ere, egoitza aipatutako bigarren egoeran zegoen, eta horregatik Aldundiak funtzionatzeko behin-behineko baimena eman zion baimendutako epea, 2008ko ekainaren 4a, bete arte. Une horretan, aldundiak lanak data hori baino lehen burutu behar zirela gogorarazi zion, bestela zentroa itxiko zelako. BBK-k ez zituen beharrezko lanak egin, eta horregatik data hartan (2008-6-4) zentroaren baimena baliorik gabe geratu zen.

Egoera ezagututa, BBK-k zentroa eraistea aginduta zeukan, baina ez zuen horren berririk eman. Administrazioari baimena iraungi baino egun batzuk lehenago eman zion erabakiaren berri eta sei hileko epea eskatu zion zentroa husteko eta egoiliarrek beste zentroetara eramateko. Aldundiak ezohiko epea onartu zion, eta epe hori 2008ko abenduaren 2an bete zen.

Erantsi behar da data horren aurreko egunetan egoitzan pertsona batzuk geratzen zirela, BBKren baldintzak onartzeari uko egin ziotelako. Pertsona horiek arazoak izatea saihesteko,

data baino egun batzuk lehenago Ohianka elkarteak, BBK-k eta aldundiak alderdi batzuk adostu zituzten: husteko epea abenduaren 28a arte luzatzea, pertsona guztiei, salbuespenik gabe, zein ere zen egoera soziosanitarioa, zentrori itzultzea bermatzea, eta zentroan sartutakoan sinatutako kontratua balekoa izatea, berritze kontratu berria sinatu beharrik gabe eta kontratu berria baliorik gabe utziz.

Gertakizunak horrela kontatuta, adierazi behar da Bizkaiko Foru Aldundiaren jokabidea, egindako eskaerei eta emandako baimenei dagokienez, indarrean dagoen arautegiari loto zaizkiola.

Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK) erakundearen jokabideari dagokionez, txostenean dauden datuen arabera, gure ustez ez da egokiena izan, erabakiek kaltetu dituzten pertsonak adinekoak eta ahulak direla kontuan izanda. Hori zenbait arrazoiengatik adierazten dugu.

Alde batetik, BBK-k, hasieratik, aplikatu beharreko dekretua, bere betebeharrak eta ezarritako epeak ezagutzen zituen. 41/98 Dekretuak, egoitzek bete beharreko betekizunak adierazterakoan, egokitzeko epe iragankorra finkatu zuen. Epea zabala izan zen, gutxienez, bederatzi urtez luzatu baitzen, 1999ko apirilaren 8tik 2008ko ekainaren 4ra. Hala ere, BBK-k epe guztiak agortu zituen egokitzapena egin gabe.

Bestetik, erakundeak ez du etorkizuneko zentroaz hartutako erabakiaren berri behar bezala eman, ez uneagatik ez moduagatik. Administrazioak, aipatu denez, baimena iraungi aurreko egunetan jakin zuen. Egoiliarrek eta senideek komunikabideen bidez jakin zuten, baimena iraungi ondoren. Jokatzeko modu horrek "egoiliarra den aldetik eragin diezaioketen edo bere interesekoak izan daitezkeen gai guztiei buruz informazioa jasotzeko eta galdetua izateko" eskubidea urratu zen, 41/98 Dekretuko 5. artikuluan jasotzen denez, egoiliarrentzat garrantzi handiko albistea baitzen. Informazio idatzi eta zehatzagoa are berantiarra izan zen, hustuketa hasitakoan eman baitzen. Jokatzeko modu horrek "egoiliarra den aldetik eragin diezaioketen edo bere interesekoak izan daitezkeen gai guztiei buruz informazioa jasotzeko eta galdetua izateko" eskubidea urratu zen, 41/98 Dekretuko 5. artikuluan jasotzen denez, egoiliarrentzat garrantzi handiko albistea baitzen. Informazio idatzi eta zehatzagoa are berantiarra izan zen, hustuketa hasitakoan eman baitzen.

Gainera, irteerakoan egoiliarrek sinatu beharreko kontratu berriak ez zituen aurreko kontratuan aitortutako eskubide batzuk errespetatzen, zentro berrira euren kabuz moldatzeko moduan zeudenak baino ezin baitziren itzuli, gainontzeko guztiak baztertuz. Bestalde, lekualdaketa ez zuen errespetatzen familia eta gizarte inguruan egotea, batez ere zentrotik kanpo gizarte bizimodua zeukaten pertsona autonomoena.

Arazoa beste modu batean bideratu behar zatekeen, prozesu ireki, parte hartzaile, garden eta hurbilagoa behar zatekeen kaltetutako adinekoentzat. Jokabide arduratsuagoak bizi zen arazoa saihestu edo, behintzat, nabarmen arinduko zukeen. Gure ustez horrelako pertsonen eragiten dieten jokabideak segurtasuna eta egonkortasuna –fisikoa eta emozionala– eman-go dizkieten ereduak gidatu behar dituzte. Kasu horretan, aldiz, gure ustez ez dira holako baldintzak errespetatu.

Egoitza baten tituluduna den edozein erakundek –kasu honetan, BBK-k– hari buruz egokien deritzen erabakiak hartzeko daukan eskubidea onartzen dugu, erabaki horiek ordenamendu juridikoan ezarritakoari lotu, dauden kontratuzko arauak errespetatu, eta erabakiak hartu eta haiek eta ondorengo prozesua jakinarazi bitartean jokabide onari lotutako arau etikoak ere errespetatzen dituzten heinean. Kasu horretan egindako kudeaketa, berriz, ez da egokia izan eta ez ditu pertsoneri zerbitzuak ematen dizkieten erakundeei eska dakizkiekeen jokabide oneko arauak errespetatu.

Denbora nahikoz burututako prozesuko jokabide arduratsuagoak, informazio egokiak, eskubide guztiekiko errespetuak, etab., adineko askok bizi izan dituzten kezka eta nahasmena saihestu edo, behintzat, arinduko zituzketen.

Erantsi behar da, kasua aztertu ondoren, 41/1998 Dekretua zenbait alderditan aldatzeko premia ikusi dugula, gure ustez kontu horretan bizi izandako egoera txarrak saihestu daitezkeelako. Honakoak sartzeaz ari gara: a) administrazioari zentroa itxiko dela jakinarazi eta zentroa egiatan itxi bitartean gutxieneko epea finkatzea. Horrek erabiltzaileei erabakiaren berri ematea kudeatzen utzi eta haiei neurria barneratzeko denbora emango lieke, eta b) eteteari buruzko komunikazioak erabiltzaileei informatzeko eta haien eskubideak errespetatzeko konpromisoa ekartzea, dekretu horretako 5.5 artikulua araberera.

Administrazioak konpromisoa betetzen dela kontrolatu behar luke. Garrantzitsua da foru aldundiak 40/98 Dekretuak ematen dizkion kontrol eskuduntza guztiak erabiltzea, batez ere adinekoak bezalako pertsona ahulen eskubideak eta duintasuna jokoan daudenean. Aztertzen ari garen kontuan eta egoitzak lanak egiteko zeukan azken epeari dagokionez, aldundiak jakin behar zuen haiek ez zirela egiten ari. Bestalde, denborak aurrera joan ahala, aldundiak aurreikusitako behar zuen, lanen tamainagatik, behin-behineko baimenaren epea bukatutakoan, egoitza ez zela funtzionatzeko behin betiko baimena lortzeko moduan egongo. Hala ere, aurreikuspen horrek ez zituen aldatuko ez zentroak zeukan baimena ez haren iraungipena; baina askoz lehenago ahalbidetuko zuen zentroaren behin betiko itxiera ezagutzen, haren ondorioak behar bezala planifikatu ahal izateko. Horixe da Eusko Jaurlaritzaren aurrean sustatu nahi dugun arautegi aldaketak nahi duena.

Ebazpena honako ondorioekin bukatzen zen:

- 1- Bizkaiko Foru Aldundiak indarreko arautegian xedatutakoaren araberera jokatu du, lanak egiteko eskatuz eta funtzionatzeko behin-behineko baimena emanaz. Azkenaren balekotasuna bukatutakoan, hustuketarako 6 hileko epea eman zuen.
- 2- Legeak BBK Reina de la Paz zentroa eraisteko eta eraikin berria eraikitzeko babesten du, baina kontu horretan egindako kudeaketa ez da izan behar zukeena, kaltetutako pertsonen ezaugarriak kontuan izanda. Mota horretako prozesu bat sentsibilitate eta kontu handiz burutu behar da, eta haien eskubideak eta ongizatea behar bezala babestu behar dira. Kasu horretan, ez du behar zen arduraz jokatu, adinekoena bezalako talde ahulekin konprometitutako gizarte ekintza daukan erakundearengandik espero zitekeenez.

BBK-k bederatzi urteko epe luzea izan du zentroa 41/1998 Dekretuaren eskakizunetara egokitzeko edo egokien zeritzon proiektua kudeatzeko, ezustekorik gabe eta erritmo arrazonagarrian. Beraz, bere erabakietan eta haiek jakinarazterakoan ardura eta aurrerapen handiagoz jokatu ahal eta behar zuen. Horrek, seguruenik, denok lagundu eta babestu behar ditugun adineko askok bizi izan duten kezka eta nahas-mendu goera saihestu edo, behintzat, arinduko zukeen.

- 3- Jokabide onaren araberrako jokabideak informazioaren kudeaketa argia eta gardena, baldintzak gordetzeko bermea, denak salbuespenik gabe itzultzeko bermea, haien eskubide guztien babesa, beste zentroetara eramateko proposamenak denbora nahikoz eta erabiltzaileek parte hartuz egitea eta familia eta gizarte inguruan geratzea bilatuko zuen birkokapena eskatzen zituen. Alderdi horiek ez dira errespetatu.
- 4- Hustuketarako azken egunaren bezperatan BBKren eta Ohianka elkartearen artean adostutako hitzarmena ontzat jotzen zen, hemen adierazitako bermeei lotutako puntuak jasotzen dituelako.
- 5- Bukatzeko, adierazitako arautegi aldaketak egiteari komenigarri generitzon.

1.4.6. Babes bereziko taldeentzako bestelako laguntzak

Atal honetan ezgaitasunak dauzkaten pertsonen eta ijitoen sustapenari dagozkien jarduketa batzuk aipatuko ditugu, baina dagozkien jarduketa guztiak ezagutzeko eta dagozkien arazoen buruzko azterketa zabalagoa egiteko txosteneko II. atalari lotzen gatzaizkio; atala diskriminazioa, gizarte-bazterkeria pairatu edo euren eskubideak erabiltzeko ahultasunean dauden taldeei dagozkien jarduketei buruzkoa da.

Ekimen Ijitoa Elkarteak bultzatutako 799/2008 kexan bost seme-alaba dauzkan familia batetik etxebizitarik ez izateagatik bizi duen babesgabetasunaren berri eman zitzaigun. Familia ijitoak adingabeko 3 seme, ezgaitasuna daukan adingabeko alaba bat eta bidean datorren bosgarren bat dauzka, kamioi batean bizi da eta urte bi baino gehiago dira bizileku finkorik izan gabe. Administrazioek ez diote egoerari erantzunik eman. Beldur ziren erroldatik kentzea izapidetzen ari ote zen, eta horrek zailtasunak leharzkieke gizarte laguntzei eusteko edo Etxebiden erregistratuta jarraitzeko. Adingabeak Hirukide Jesuitinak Hezkuntza Zentroa doaz eta bertan, zentroak ahal duen neurrian, laguntza jasotzen dute. Zentroak, gainera, zenbait txosten egin ditu eta bertan familiaren jarrera ona eta elkarlana eta seme-alabak eskolaratzeko egiten ari den ahaleginak egiaztatzen zituen. Donostiako Udalak jakinarazi digunez, ez du erroldatik kentzeko txostenik abiarazi, eta hori dela eta Donostiako Udalaren gizarte zerbitzuek oraindik laguntzen diete. Bestalde, adierazi digu familiaren funtsezko arazoa etxebizitza egonkorra izateko premia dela eta, beraz, *"un problema que debe ser abordado desde las instancias competentes en materia de vivienda y no desde el sistema de servicios sociales"*. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzarekin batera, etxebizitza arazoa konpondu gabe, egindako izapidetzeen berri eman digu. Gure aldetik, hirutan eskatu diogu informazioa Etxebizitza Sailari, baina ez dugu orain arte erantzunik jaso. Txostena oraindik

dago zabalik, baina gure erkidegoan familia batzuek bizi dituzten gabezien eta horrelako adingabeen ahultasun egoeraren eredu da.

Oraindik ere **ezgaitasuna daukaten pertsonen** zailtasunak dauzkate berdintasunezko baldintzetan bizitzeko bidea emango dieten laguntzak eskuratzeko. 790/2008 kexaren gaia Araban, ezgaitasunek eragindako pertsonentzako Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren Laguntzak emateko arautegia onartu zuen martxoaren 1eko 17/1998 Foru Dekretua aplikatuz, egiten den urteroko laguntza teknikoetarako deialdia zen. Laguntza horiek, 2007. urtean, ez zuten ohe artikulatua erosteko laguntzarik jasotzen. Arabako Foru Aldundiak honakoa egingo dutela erantzun digu: *"analizar la posibilidad de incluir ciertas ayudas no contempladas hasta la fecha, y entre las que se incluyen las camas articuladas, en la convocatoria correspondiente al ejercicio 2009. En caso de que este informe fuera favorable y que por el Consejo de Administración se considerara oportuno. Se procederá a modificar el catálogo de ayudas susceptible de subvención para la convocatoria del próximo ejercicio."*

Ezgaitasuna daukaten pertsonen eta eurentzako egoitza laguntzari dagokienez, Bizkaian, aldi baterako edo etengabe, egoitza baliabidea nahi zuten 60 urtetik beherako pertsonen zenbait kasu aurkeztu zaizkigu. Kasu guztietan adina jartzen zen egoitza baliabidea esleitzearakoan kontuan hartu beharreko elementu garrantzitsu bezala.

Kasu batean (846/2007 txostena), burmuineko lesioa zeukan pertsona bat zen, eta egoitza batean aldi baterako egotea eskatzen zuen. Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak adierazi zuen ez zegoela haren ezaugarrientzat lekurik eta adinekoentzako egoitza batera igorri zuen. Pertsona horrek 50 urte zeuzkan eta ez zirudien baliabide hori berarentzat egokiena izan zitekeenik, ez adinagatik ez zegoen egoeragatik. Horregatik, erakunde honetatik foru sailari honakoa proposatu zitzaion: hartutako burmuinetako kaltea zeukaten pertsonentzako berariazko egoitza ezean, burmuineko paralisia jotako pertsonentzako zentroan lekua ematea. Gure aburuz talde hori egokiagoa zen pertsona horrentzat adinekoena baino, bai adinagatik bai egoeragatik.

Aldundiak kasua adinekoentzako egoitzara bideratzea berretsi zuen, eta argudiatu zuen, salbuespenezko egoeretan, holako zentroek 50 urtetik gorako pertsonak sartzea onartzen zutela. Erantsi zuenez, aldi baterako egonaldietarako egoitza lekuak adimen ezgaitasunari, burmuineko perlesiari eta garapenaren trastorno orokorrari, autismoari eta haur psikosiari bideratuta zeudela. Hots, ez zegoen hartutako burmuineko kalterako egoitza lekurik.

Gizarte Ekintza Sailak erakunde honek proposatzen zuen burmuineko perlesiak jotako pertsonentzako zentroa baztertzeko, argudiatuz ez zeritzola kasu horretarako egoki, baina ez zuen balorazio horretarako ziorik adierazten, ezta zergatik uste zuen mendeko adinekoentzako zentroa hobea izan zitekeela. Horregatik, horri buruz egindako balorazioa ezagutzea eskatu genuen. Foru Sailak kasua astiroago aztertu eta Aspace, burmuineko perlesiadun pertsonentzako zentroak kudeatzen dituen elkartearen iritzia bildu zuen. Txostena pertsona horri laguntza ematearen alde agertu zen eta, azkenean, Gizarte Ekintza Sailak proposatutako zentroan aldi baterako 15 eguneko egonaldia esleitu zion. Pertsonak berak eta familiak esperientziaren balorazio ona egin zuten.

Uda honetan, Bizkaiko Aldundiak Ezgaitasuna daukaten mendeko nagusientzako egoitza laguntzako unitatea (EMNU) ireki zuen, Leioako egoitzan, 18 lekurekin. Unitatea ezgaitasun fisiko larria edo oso larria daukaten, eta hari lotuta trastorno kognitiboak edo burukoak izan ditzaketen pertsonentzako laguntza –aldi baterakoa edo iraunkorra– emateko da.

Gizarte Ekintza Sailak unitate horretan egoitza leku iraunkorra eman zion ezgaitasun fisiko larria zeukan 37 urteko pertsona bati. Handik gutxira, pertsona horrek bere borondatez utzi zuen unitatea, bere egoerarako desegokia zeritzolako.

Adierazi zigunez, unitatea ez da egoitzatik desberdindutako eta bereizitako esparrua. Aitzitik, zentro osoari irekita dago eta haren luzapena da. Hori dela eta, egoitzaren erabil-tzaileak askatasunez sartzen dira gune horretan. Are gehiago, aldi berean, egongelak eta jantokia bezalako lekuak partekatzen dituzte. Hori dela eta, pertsona horrek zioen ia egun osoa partekatzen zuela adinekoekin, unitatean 60 urtetik beherako beste lagun bi baino ez zeudelako. Egoera ez zen eroso ezta berak nahi zuena. Gainera, bere ustez komunaren, jardueren, etab.en egokitzapenari lotutako zenbait alderdi hobetu behar ziren. Horregatik guztiagatik utzi zuen zentroa, baina arrazoi nagusia zen 37 urterekin adinekoentzako egoitza batean sentitzen zela, eta horrek bere gogoan eragin txarra zeukan.

Arestikoa aipatu foru sailari adierazi zion eta berarentzat egokiagoa izan zitekeen zentroan leku emateko eskatu zuen. Erantzunaren zain zegoen. Txostena izapidetze prozesuan dago.

Edozelan ere, gure ustez garrantzitsua da pertsonen adina aintzat hartzea gizarte baliabideetan esparruak eta denborak partekatzerakoan, batez ere adin handikoak ez direnean, bizi erritmoak, interesak, ohiturak, etab. desberdinak direlako bizitzaren aro bakoitzean. Berdin, egoerak ezgaitasun fisikoa baino ez daukan gazte baten aldarlean eragin txarra izatea saihesteko.

1.4.7. Familientzako laguntzak

Diru-laguntzak jaiotzagatik eta adopzioagatik

Atal honetan izapidetze bidean dagoen 1520/2008 txostena aipatuko dugu; saharar jatorriko adingabe batentzako babes iraunkorrari buruzkoa da. Adingabeari seme-alabak daukaten familientzako laguntzak arautzen dituen 255/2006 Dekretuan xedatutako laguntzak ukatu zaizkio, babes iraunkorraren eta adopzio aurrekoaren arteko parekatzerik jasotzen ez delako. Parekatze hori uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuan araututako lan eta familia bizimoduak bateratzeko neurriei lotuta jasotzen da, baina ez aurreko arautegian.

560/2008 txostenean xedatutako hiru hileko epetik kanpo aurkezteagatik adopziorako laguntza ukatu izanarekin desadostasuna agertzen dute. Epez kanpo aurkezteko arazoa 1373/2008 txostenean ere agertu da. Azken horretan 2. umearen jaiotzarako laguntza ukatu zen, laguntzaren bigarren zatia epez kanpo aurkezteagatik. Kasu bietan administrazioak arautegian xedatutakoaren arabera jokatu du.

Umeengatiko laguntzak ukatu izanari buruzko 133/2008 txostenean ere, administrazioak zuzen jokatu zuen, haren brasildar emaztearen seme adingabearen berrelkartze kasua zelako. Arautegiak ez ditu familia berrelkartzea eta adopzio kasuak parekatzen ez dagoelako seme-alaba lotura berririk.

Eskolaratzeko laguntzak

Eskolaratzeko laguntzei buruzko keak jaso ditugu, besteak beste, 294/2008 eta 466/2008 txostenak. Kasu bietan ez dira behar ziren agiriak aurkeztu. Lehenengoan, pertsonak ezin izan zuelako gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak arautzen dituen hitzarmena eman. Bigarrenean agiriak laguntza ukatu ondoren eman zituelako.

Hitzarmen arautzailea, edo aita edo amari (gehienetan aitari) egindako elikagai eskearen ziurtagiria emateko betebeharra oztupoa izaten ari da gizarte laguntzak eskatzen dituzten guraso bakarreko familientzat, batez ere beste herri batean bizi bada eta harekin harremanik ez badauka.

Lan eta familia bizimoduaren bateraketa

491/2008 kexa jaso dugu, administrazioak jardunaldi murrizketarako laguntza emateko dabilen atzerapenari buruzkoa. Administrazioak ez zuen 118/2007 Dekretuan xedatutako ebazteko 6 hileko epea agortu, eta beraz, jarduketa ez zen zuzena. 1151/2008/16 txostenean kexa laguntzak diseinatu diren moduari buruzkoa zen. Izan ere, eszedentzia edo jardunaldi murrizketa egoerarako laguntza jasotzea asko atzeratzen da.

Bestalde, aurten [2008ko uztailaren 9ko ebazpena](#)² prestatu dugu. Ebazpena eszedentzia eta jardunaldi murrizketa kasuetarako laguntzen zenbatekoei buruzkoa da, eta II. atalean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko zatian ere horretaz hitz egin dugu. Ebazpen horretan, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari lanbidea eta familiako bitzita bateratzeko neurriak arautzen dituen uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuko 8. artikuluan xedatzen dena ebaluatzea eta, ebazpenean adierazitako argudioak kontuan hartuz, uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuko 8. artikuluan seme-alabak zaintzeko xedatutako eszedentzia edo jardunaldi murrizketari heltzen dioten langileentzako laguntzengatik gizonak eta emakumeak jasotzen dituzten zenbatekoetan dauden desberdintasunak berrikustea gomendatzen zaio.

² Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 09koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari gomendatzen zaio berrikus dezala seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi laburtua hartzen duten langileen artean zergatik ematen zaien laguntza handiagoa gizonei emakumei baino.

Laguntzak familia ugariei

540/2008 kexa jaso dugu. Bertan, kexagilea ez da ados agertzen Donostiako Udalak udal garraioa darabilten familia ugariarentzat darabilen txartel sistemarekin. Txostena izapidetze prozesuan dago. Kexaren zioa honakoa da: udalak txartel bakarra ematen du familia osoarentzat, eta banketxe jakin batean eskuratu behar da.

Guraso bakarreko familientzako laguntza faltari eta desberdintasun egoerari buruzko kexa bat ere aipatuko dugu, 205/2008 txostena. Guraso bakarreko familiak gero eta gehiago dira erakundeen aitortza eta laguntza behar dituen gizarte errealitatea.

1.4.8. Gizarte prestazio ekonomikoak

Gizarte behar larrietarako laguntzei lotuta antzeman diren arazo nagusiak

Aurten gizarte behar larrietarako laguntzei lotuta izapidetu ditugun kexak laguntzak emateko atzerapenekin dute zerikusia, esaterako, 287/2008 txostena, edo jasotze okerragatik egindako ukatze edo erreklamazioekin.

Ukatzeei dagokienez, zenbait kexa izapidetu ditugu (610/2008 eta 506/2007). Haien zioa udalek gizarte behar larrietarako laguntzak emateko darabiltzaten irizpideak dira. Laguntza horien ezaugarri nagusia, oinarrizko errentako prestazioak ez bezala, aurrekontuaren arabera mugatuta egotea da. Hori dela eta, oinarrizko gizarte zerbitzuek benetako premia egoera dagoela eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako esleututako kreditua dagoela egiaztatu ondoren ematen dira.

Eusko Jaurlaritzak udal bakoitzari udalaren premia adierazleen arabera esleitzen dio kreditua. Adierazleak, besteak beste, oinarrizko errentaren jasotzaile kopurua, kotizazio gabeko pensio kopurua, langabetu kopurua... dira. Udalek, banaketa errazteko eta iruzurrak saihesteko, orientatzeko irizpideak prestatzen dituzte. Aurrekontu mugatua banatu beharrak irizpide argiak eskatzen ditu, prestazioen trataeran objektibotasuna eta prestazioak benetan jasotzeko behar den herritarren arteko berdintasuna ahalik eta gehien bermatzeko. Laguntza horiek gizarte bazterkeria egoerak prebenitzeko, arintzeko edo saihesteko behar diren berariazko gastuak ordaintzera bideratzen dira, eta horregatik oinarrizko gizarte zerbitzuak dira gastu premia, esklusio egoeran dauden pertsonak gizarteratzen laguntzeko garrantzia edo lehentasuna baloratzen dituztenak. Zentzu horretan, ezinbestekoa da nahiko ezagunak diren irizpide orokorrak egotea, pertsonaren premia eta laguntza eskatzen den gastuaren garrantzia egiaztatzeko txostenak egitea, premiarik handiena daukaten pertsonen artean objektibotasunez eta zuzentasunez banatzen direla bermatzen laguntzen baitu. Laguntzak emateko prozesuetan garrantzitsua da administrazio prozedurarako arauaren pean egin behar dela kontuan hartzea, eta hori dela eta, ezarritako bermeak bete eta ukatzen dituzten ebazpenak nahikoa egudiatu behar dira.

Horrela, 525/2007 txostenean larrialdietarako laguntzak emateko prozedura administrazio prozedura egokitu beharra azpimarratu behar izan genuen. Kexaren zioa zen administrazio jakinarazpenei buruzko arautegia ez zela bete, eta horregatik, Ermuko Udalak laguntzak itzultzeko egiten zion eskaera ez zen egokia. Arautegiaren arabera, jakinarazteko bigarren ahalegina behar da, hurrengo hiru egunen buruan bestelako ordutegian eginda. Txostenean ez zen agertzen postontzian bigarren ahaleginaren oharra, ordua eta eguna, jakinarazpena egongo zen bulegoa eta posta zerrendetan itxaroteko epea adieraziz, utzi zenik. Bukatzeko, egiaztatu genuenez, beste jakinarazpen batean ez zen larrialdietarako laguntzak arautzen dituen arauan xedatutako informazio garrantzitsu bat sartu. Gure iritziz, akats horiek nahasmenerako bidea ematen zuten. Ermuko Udalak oker jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedurari jarraitu zion arren, jakinarazpen prozesuan eta emandako laguntzen itzulketan behar ziren aldaketak egiteko borondatea adierazi ziguten.

Emakume baten kasua aurkeztu zitzaigun: Gasteizko Udalak Gizarte Behar Larrietarako Laguntza (GBLL) ukatu zion, datuak ezkutatu zirela argudiatuz. Emakumeak zioen ez zuela ezer ezkutatu, eta berari ezin egotz zekiokkeen akatsa izan zela. Lehenago lan egin zuen enpresak akats bategatik eman ziola alta Gizarte Segurantzian.

Gertakari horrek berak pertsona horrek jasotzen zuen oinarrizko errenta etetea ekarri zuen, baina akatsa argitutakoan udalak zuzendu egin zuen. Hala ere, emakumeak ezin izan zuen GBLLei zegokiena aldatu, ahaleginak egin arren.

Kasua udalari aurkeztu genion eta horrek akatsa baieztatu zuen. Ukatzeko ebazpena balio gabetu eta berria eman zuen; bertan pertsona horri eskatutako GBLL jasotzeko eskubidea onartzen zitzaion.

Gure ustez garrantzitsua da ahultasuneko egoeran dauden pertsonen laguntzen lan egin duten udal batzuen jokabideak ere azpimarratzea; haietako bat Irungo Udala da, haren laguntzari esker, zenbait familiak ostatu duina eduki ahal izan baitzuten. 208/2007 txostenak, esaterako, euren ardurapean adingabeak zeuzkaten familia bi bizi ziren ostatu osasungarritasun falta jasotzen du. Irungo Udalaren jokabideak eta Gipuzkoako Caritasen laguntzak familiak orain baldintza duinagoetan bizitzea eta oinarrizko premiak beteta izatea ahalbiderratu dute.

Oinarrizko errentari lotuta antzeman diren arazo nagusiak

Aurten 160/2008 kexa jaso dugu. Kexa zenbait lagunek errentakidetza erregimenean etxebizitza partekatzen dutenean elkarbizitza unitate ekonomikotzat jotzeari buruzkoa da. Gai horri buruz, 2006an gomendio orokorra egin genuen. Adierazi genituen egoeretako batzuk aintzat hartu dira Sarrera Bermerako Lege berrian, arestian aipatu legez. Gomendioan etxebizitza eskuratzeko zailtasunak pertsona askori, arauak eskatu legez, etxebizitza edo ostatu independentea mantentzea galarazten diela ohartarazten genuen. Horrek pertsona askori elkarbizitza partekarazten die, baina horrek ez dakar sarrerak partekatzea eta, are gutxiago, bizimodu komuna partekatzea.

Kexaren zioa honakoa zen: errentari kideek bizikidetasun unitate ekonomiko bakarra osatzen zutela ulertzen zen, eta horregatik, sarrerak zenbatzerakoan bien sarrerak sartu ziten. Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunaren arabera, familia loturarik egon gabe premia larria egiazta daitekeen egoera dagoenean, zenbait pertsonak etxebizitza independentziaz badarabilte baino ezin da ulertu zenbait elkarbizitza unitate ekonomiko daudela. Gainera, zenbait betekizun bete behar dira:

- 1- Udalak edo udalean diharduten gainontzeko erakunde publiko edo pribatuak eman ditzaketen bestelako ostatu formularik ez egoteak eragindako taldeko eta aldi baterako elkarbizitza egoerak izatea. Horrelako kasuetan, oinarrizko gizarte zerbitzuen alde aurretiko txostena eskatuko da, eta bertan arestiko betekizunak bat datozela egiaztatzea behar da (Oinarrizko errenta arautzen duen 198/1999 Dekretuko 5.2.e) artikulua).
- 2- Errentari kideek premia larriko egoeran egon behar dute. Gizarteratzeko Gutxieneko Sarrera eta Behar larrietarako laguntzak aplikatzeko gidaliburu gisa emandako Eusko jaurlaritzaren 2/1999 Gutunaren arabera, egoera hori betetzen da gutxienez errentari kideetako batek laguntza eskuratzeko xedatutako baliabideetatik gora ez daukanean eta, dagokion pertsona multzoarentzat, dauzkaten sarrerak orokorrean legokiokoen Oinarrizko errentaren hileko gutxieneko zenbatekoa halako 1,5 baino gutxiago direnean, kide kopuru osoaren arabera.

Laburbilduz, etxebizitza baten errentari kide bakoitza bizikidetasun unitate ekonomiko independentzetan jo daiteke, arestiko betekizunak betez gero: senideak ez izatea, premia larriko egoeran egotea, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak zentzu horretako txostena egitea.

906/2008 kexaren zioa honakoa da: Bizkaiko Foru Aldundiak oinarrizko errentagatik oso kopuru txikia, 16€, eman du, egoera ekonomikoa aztertu ondoren eta Oinarrizko errenta arautzen duen 198/1999 Dekretuko 11. artikulutik 17.era baliabideak zehazteko xedatutako arauari jarraituz. Kexaren zioa honakoa zen: Bizkaiko Foru Aldundiaren aburuz, osabidezko pentsioa etxebizitzaren %50aren eskurapenarekin ordezkatzeko ondare hazkundera zekarren, eta balioa oinarrizko errentaren kontzeptuagatik dagokion zenbatekoa kalkulatzeko zenbatu behar zen. Txosten horretan Foru Aldundiak ez zuen 198/1999 Dekretuko 29. artikulua aplikatu; artikulua, 2. atalean, pertsonaren ohiko bizilekua izanda jabetzan daukan etxebizitza edo ostatua ondarearen baloraziotik salbuetsiko dela xedatzen du. Erakunde honen aburuz, foru aldundiak zuzen jokatu zuen, aipatu 20. artikulua ez zelako aplikagarria, hura etxebizitza baten tituludunak izanda bat-batean premiako egoeran geratzen diren pertsonari aplikatzen zaielako.

Gizarteratze kontuetan eskuduntza daukaten administrazioek ohiko etxebizitzari ematen dioten trataera desberdina da etxebizitza eskuratu den unearan arabera. Ez da gauza bera etxebizitza premiako egoera baino lehenago ala ondoren eskuratzea. Azken kasuari dagokionez, eskuratzea ahalbidetu duen finantzabidea hartzen da kontuan. Arrazoiak da etxebizitzaren jabetza eskuratzea ez dela bazterkeriaren aurkako borrokari dagozkion dispositiboen helburua, izatekotan, mantentzen edo bizimodu duina izaten utziko dion ostatu

egokia izaten laguntzea baizik. Sarrera Bermerako Lege berriak ere bereizketa hori egiten du. Zio horrek ez du galarazten babesik gabeko egoeran egon daitezkeen pertsonen kasuak gertatzea, talde batzuek, besteak beste adinekoek, ez dutelako bizirauteko sarrerarik izateko gaitasunik, ohiko etxebizitza gaineratik kenduz ez bada, eta hori, egun etxebizitza eskuratze-ko dauden zailtasunak egonda, erabaki gutxienez "arriskutsua" da. Ijitoei dagokienez ere, ez-etxea baino ez bada ere, etxebizitzaren jabetza eskuratzea ostatua bermatzeko modu bakarra izan ohi da.

Beste kasu bat ere agertu zaigu: pertsona bat oinarrizko errentaren onuraduna zen eta mendeko pertsona batekin bizi zen, hari laguntza emanez. Etxe inguruko zaintzetarako prestazio ekonomikoak onartu zitzaion. Horrek familia sarrerak handitzen zituen, eta horregatik Bizkaiko Foru Aldundiak laneko sarreratzat jo zuen eta oinarrizko errentari dagokion zenbatekoa aldatu zuen, lan pizgarriei buruzko xedapenak aplikatuz. Horren ondorioz, oinarrizko errentaren zenbateko osoa murriztu zen.

Pertsona hura ez zen aldaketarekin ados agertu, bere ustez horrek mendekoari prestazioaren zenbateko osoa jasotzea galarazten ziola. Hura, ordea, posible litzateke hark soldata jasoko balu, oinarrizko errenta bezalako laguntza prestazioaren ordez.

Honako azterketa egin dugu: Gizarte-bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak oinarrizko errenta bizitzeko oinarrizko premiak betetzeko prestazio bezala definitzen du, eta subsidiarioa eta, batzuetan, bizikidetasun unitateko edozein kideri legozkiokkeen eduki ekonomikoko gizarte baliabide eta prestazio mota guztien osagarria da. Oinarrizko errenta jasotzeko eskubidea izateko, besteak beste, ez da baliabide nahikorik izan behar, eta horretarako familia baliabide guztiak, zein ere den haien jatorria, zenbatzen dira (18.1.c eta 34. artikulua).

Lege konfigurazio horren arabera, oinarrizko errentari begira, mendekoari laguntza emateko prestazioa kontuan hartu behar da. Bestelako laguntza prestazioak ere zenbatuko lirateke, hala nola, Kotizazio gabeko Pentsioa edo Gizarte Ongizateko Funtsa, batzuk aipatzearen, mantenu-pentsioak eta osabidezkoak ere zenbatzen diren bezalaxe, oinarrizko errentaren xede bera baitute.

Bestalde, Mendekotasun Legea deritzonak, prestazio ekonomikoaren bidez, familia zaintzaren lana aitortu nahi izan du eta, gainera, lan izaera eman nahi izan dio, zaintzaileari Gizarte Segurantzaren alta ematea sartuz. Beraz, ez da arrazoirik ikusten sarrera horrek bestelako edozein lanetik etorritakoarenak ez bezalako trataera izateko, oinarrizko errentari begira. Adibide asko ema daitezke, baina eremu beraren baitan, laguntzaile pertsonala edo etxetik kanpo senidea ez den norbait zaintzea aipa ditzakegu. Holako egoerak, eta beste asko, lanekotzat jotzen dira eta horregatik jasotzen dena soldatako sarrera da, eta oinarrizko errentari begira familia baliabideen barruan zenbatu daiteke.

Gainera, sarrerak lanetik datozenean, ez dira osorik zenbatzen, zati batean baizik, lan pizgarriak deritzenak aplikatzen zaizkielako. Horixe aplikatu zuen aldundiak, aipatutako lan izaeraren arabera. Beraz, ondorioztatzen zenez, aldundiaren jokabidea legeari lotu zitzaion.

Eduki ekonomikoko bestelako gizarte prestazioak**- Ezgaitasunagatiko kotizazio gabeko prestazioa**

632/2008 kexa kexagileak adierazi zigun ezgaitasunagatiko kotizazio gabeko prestazioa ukatu zitzaiola berak balorazio eskaera berritik egin gabe eta Mediku Epaimahaietatik igaro gabe.

Egiatzatu dugunez, Arabako Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren Kudeaketa Zuzendari-tzak, txostena lekualdatzeko eskaeraren aurrean, beste administrazio batek, Gaztela eta Leongo Batzarrak, hain zuzen ere, izapidetutako txostenean adierazitako datu berberekin, ondorioetarako data izan ezik, ebazpen berria eman zuen, eta data hori txostena lekualdatzeko unearekin dator bat, eskaerarik egon ez arren. Txostena izapidetze prozesuan dago.

1.4.9. Auzoko gatatzak

Askotan, herritarrek Arartekoaren bulegora jotzen dute euren aburuz dagokion udalak behar bezala tratatzen ez duen auzoko gatatzak baten aurrean. Orokorrean, komunitateko auzokideren baten jarreragatik pairatzen dituzten nahasmenduak izaten dira.

Horrelako kasuen aurrean legez norbanakoen arteko kontuetan esku hartzeko daukagun ezintasuna adierazten dugu baina, gizarte esku-hartzea posible denetan, interesa agertzen dugu udalak horrelako gatatzak aurrean izandako jokabidea adieraz diezagun. Orokorrean, pertsona gatatzakatsurekin egindako gizarte esku-hartzea, berehalako emaitzak lortzeko ezintasuna eta gizarte lanaren lorpenak baloratzeko itxaron beharra jakinarazten zaizkigu.

Kasu gehienetan gure esku-hartzeak ekarri duena udalak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailak bizikidetasuna asaldatzen dutenak ohartaraztea izan da, eta batzuetan, horrelakoak ez sortzeko eskatu zaie, holakorik dagoenean, sailarekin daukaten alokairu kontratua deuseztatuko zaiela esanez. Horrelakoetan, administrazioek burutzen duten gizarte esku-hartzearen berri ematen digute; sekretupekoa izateagatik eta hirugarren pertsonari eragiteagatik babestuta dago eta horregatik kexaren bultzatzaileari ez diogu edukia jakinarazten.

Kasu batzuetan, udalak ez du jarduketarik izan, 445/2007 txostenean bezala. Auzoko batek, auzokideekin zeukan bizikidetasun arazoa zela-eta, behin eta berriz eskatu zien laguntza Getxoko Udalaren gizarte zerbitzuei, laguntzarik jaso gabe, gizarte zerbitzuen ustez kontu pribatua zelako. Bizikidetasun arazo larriak zeuzkan auzokideak gizarte zerbitzuen erabiltzaileak ziren eta gizarte zerbitzuen laguntza eta bisitak jasotzen zituzten, baina bizikidetasun arazoei lotuta ez zen jarduketarik egon. Horregatik, Getxoko Udalari orduan indarrean zegoen Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak unibertsaltasun printzipioa ezartzen zuela, 7. artikuluan: *“Gizarte-zerbitzuetako sistemaren oinarrizko unitatea da oinarrizko gizarte-zerbitzua. Inolako bereizkeriarik egin gabe, biztanle guztientzat da.”*

1.2

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA,
MERKATARITZA ETA TURISMOA**

2. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

2008an guztira 16 kexa aurkeztu dira nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoaren arloan; alegia, ekitaldi honetan erakundearen jasotako kexa guztien % 1,26.

Kexek honako administrazio hauetan izan dute eragina:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	12
- Foru administrazioa	3
- Toki administrazioa	2

Horien edukiari dagokionez, jasotako kexak honako azpiarlo hauetan banatzen dira:

- Kontsumoa	7
- Merkataritza	3
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura	3
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	1
- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna	1
- Turismoa	1

Arloan egindako jarduera nagusien nondik norakoa argitzeko, **Administrazioaren funtzionamenduaren eta prozedura administratiboaren** alorrean izapidetu diren kexak azalduko ditugu, hasteko. Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailek hiltegi bati buruz egindakoak eragindako kexa aipatuko dugu. Kexagilearen ustez, herri-administrazioak bazterkeriaz jokutzen ari ziren bere enpresarekin, egitasmoa mar-txan jartzeko oztopo ugari jartzen ari baitzitzaizkion. Besteak beste, kexatzen zen Eusko Jaurlaritzak marka bat Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoan erregistratzearen kontra egindako alegazioengatik, Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzak egindako ikuska-tzeengatik eta Bizkaiko Foru Aldundiak egitasmoak diruz laguntzeko deialdian laguntzak ukatu zizkiolako.

Lehenengo gaiari dagokionez, Patente eta Marken Espainiako Bulegokoa, azaldu genion ezin genuela baloraziorik egin, Arartekoak alor horretako kexarik izapidetzeko eskumenik ez duelako, erregistro hori Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruko administrazioen men-de ez dagoenez gero. Ikuskatzeen aktei dagokionez, adierazi genuen egindako alegazioak erantzuteko arauzko epea agortu gabe zegoenez, ezin genuela planteatzen zitzaizkigun gaien edukia baloratzen hasi. Azkenik, diru laguntzarik ez ematearen kontuan, jakinarazi genion alde zuzenetik zegoen administrazioari erreklamaziorik egin ez zionez, laguntzak banatzeko moduarekiko desadostasunaren argudioak azalduz, eta administrazio horrek bere ebazpena argitzeko aukerarik izan ez zuenez, ezin genuela artean auzian esku hartu. Horren gainean, jakinarazi genion kexagileari deialdiak berak ezartzen dituen arauak eta berriazko irizpideak ez ezik, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Oroko-

rra ere aplikatuko zaiola. Zehazki, 17.3 e) artikulua ezartzen du diru-laguntzak emateko oinarriak erregulatzen dituen arauak zehaztuko dituela, besteak beste, laguntzak emateko irizpide objektiboak eta, izatekotan, horiek nola neurtu (682/2007).

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren atalean, iazko txostenean ere aipatu genuen Bizkaiko Lurralde Historikoan 2007/2008 denboraldian kontrolpeko ehiza-guneetarako baimen bat ukatzeari buruzko kexaren inguruko jardura burutu dugu. Kexagileak zioen, hurrengo denboraldian ehizan ibiltzeko eskubidea izateko behar zituen atzemateen agiriak aurkeztu arren, ez zuela horren frogagiri formalik, ez zutelako inolako frogagiririk ematen. Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak, bere aldetik, ukatzen zuen interesdunak eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuenik. Aurkeztutako dokumentazioa aztertu genuen eta egiaztatu genuen ez zirela prozedura administratiboaren gutxieneko arauak bete (ez zen espedienterik bideratu, ez zen jakinarazpen egokirik egin, ezta errekurtsorik egiteko aukerarik eskaini ere...). Gainera, halako ehiza-baimenak luzatzeari buruzko araudiak atzemateen orriak aurkeztu behar zirela zioen, baina ez zioen baldintza hori urratzeak hurrengo denboraldian baimena debekatzea zekarrenik.

Alde horretatik, 2007/2008 ehiza denboraldirako, sailak ezarria zuen kontraesanezko prozedura balizko kaltetuentzako bermeeekin, eta ehiza-orriak ematen ez ziren kasuetan ehizan aritzeko debekua jarriko zela espresuki aipatuz (3870/2007 Foru Agindua, ekainaren 28koa. Horrekin guztiarekin ulertu genuen etorkizunean eta hurrengo denboraldietarako, aipatutako kexa hori (1426/2007) izapidetzean sumatu genituen arazoak konponduko zirela.

Kontsumoaren atalean, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek 2008an Arartekoari azaldu dizkioten kontsulta gehienak energiaren sektorea izan dute hizpide, bereziki, argiaren kontsumoen fakturazioa, gaueko tarifa aldatu eta gero, eta gas instalazioak ikuskatzeak ordaindu behar izatea.

Kontuan izan behar da Arartekoaren erakundeari ez dagokiola enpresa hornitzaileen jarduna kontrolatzea, erakunde pribatuak direnez gero; badagokio euskal herri-administrazioaren esku-hartzea ikuskatzea bere zereginen barruan dago. Eta euskal herri-administrazioak bai hartzen du esku gas instalazioen ikuskatzeak kobratzen, baina ez, ordea, gaueko tarifa berarrantolatzen. Izan ere, aldaketa hori eragin duten arauak Estatuko Administrazio Orokorra onartu zituen.

Udaren ostean, gasa hornitzen duten enpresak gas instalazioak ikuskatzeen zenbatekoa kontsumoekin batera fakturatzen hasi ziren, kasu askotan aurreko urtekoak izan arren.

Gas instalazioaren oinarriko segurtasun baldintzak aldian-aldian eta nahitaez ikuskatzeari dagokionez, gogoan izan behar da duela oso gutxira arte enpresa hornitzaileak egiten zuela, eta doan ateratzen zitzaiola erabiltzaileari. 4 urterik behin ikuskatu behar dira instalazioak eta gasaren instalazioa bera da ikuskatzen dena. Instalazioa ikuskatzea gauza bat da, eta beste bat erabiltzaileak bi urtetik behin enpresa baimendu bati galdara ikuskatzea kontratatu eta ordaindu behar izatea. Bigarren hori, galdara ikuskatzearena berdin geratu da araua aldatu denean ere.

2006an Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretua, onartu zuen. Dekretu horrek erregai gaseosoak banatu eta erabiltzeko arautegi teknikoa eta jarraibide tekniko osagarriak zehazten ditu. Arau horrek instalazio hartzaileak aldiari-aldiari ikuskatzera behartzen du banatzailea, eta aukera ematen dio kostea instalazioaren titularrari egotzeko. Errege Dekretu hori 2006ko irailaren 6an argitaratu zen Estatuko Buletin Ofizialean eta 2007ko martxoaren 4an jarri zen indarrean.

Enpresa banatzaileek zenbat kobratuko duten zehazteko eskumena ez dagokio estatuari, Autonomia Erkidegoei baizik eta, hartara, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak joan den uztailaren 135/2008 Dekretua, uztailaren 15ekoa, onartu zuen, eta horren bidez gasa kanalizazioetatik banatzen duten enpresek erabiltzaileei ematen dizkieten zerbitzuen kosteak arautzen dira.

Arauk, goiburuak argitzen duenez, enpresa banatzaileek erabiltzaileari horniketaren beharrak asetzeko ematen dizkion zerbitzuen truke gehienez zenbat kobratuko duten zehazten du.

Dekretuaren Xedapen Iragankorrak hauxe dio, hitzez hitz: *“el importe fijado en el presente Decreto para las instalaciones periódicas se podrá exigir a los usuarios en relación con las inspecciones efectuadas a partir del 4 de marzo de 2007, fecha de entrada en vigor del Real Decreto 919/2006, de 28 de julio, por el que se aprueba el Reglamento Técnico de Distribución y utilización de Combustibles gaseosos y sus instrucciones técnicas complementarias.”*

Arazoa azaleratu eta gero, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ukatzen du arestian idatzitako xedapen iragankorrak kobratzea atzerako eraginez aplikatu daitekeenik, eta defendatzen du ikuskatzeak ordaindu beharra 919/2006 Dekretutik datorrela; horrela, ikuskatzeak abonatuak ordaindu behar ditu Errege Dekretua indarrean jarri zenetik, hots, 2007ko martxoaren 4tik. Sailak, era berean, azpimarratu du Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak iazko udan onartu zuen Dekretuaren testua inplikatuari kontsultatu zitzaizela, enpresa banatzaileei eta kontsumitzaileen elkartei, alegia, eta orduan inork ez zuela eragozpenik jarri.

Hori gorabehera, ukaezina da araua onartzeak abonatuak kaltetu dituela, beraiek doan zirela uste zuten unean egindako ikuskatzeen zenbatekoa erreklamatzeko ari zaizkielako. Gainera, Estatuko Errege Dekretua indarrean jarri zenetik Dekretua onartu zen arte igarotako denbora luzeak, 16 hilabete, EAEko kaltetuak asko izatea dakar.

Kontsumoaren alorrean izapidetu diren kexei dagokienez, esan daiteke herritarrek, kexa horietan, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak emandako ebazpenekin ados ez dardela azaltzen digutela, erreklamatzeko zioten enpresa edo saltokiaren aurrean behar bezala defendatu ez dituztelakoan, arazoa konpontzea lortu ez dutelakoan edo sailak enpresaren jardunean kontsumo kontuei buruzko erantzukizunik ikusi ez duelako.

Jabetzen gara salatutako saltokiaren edo enpresaren kontra zigortzeko espedientea irekitzearen aukera nahasgarria izan daitekeela kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat, bide

horretatik jotzeak arazoak konpontzen ez dituen aldetik. Izan ere, planteatzen den arazo edo auziak ebatzi nahi dituztelako jarri ohi dituzte kontsumoaren alorrari buruzko erreklamazioak.

Aitortu behar dugu kontsumitzaile-erabiltzaileen eta zerbitzuak ematen dituzten pertsonen arteko harremanetan bi motako irregulartasunak igartzen direla, sarritan bata bestearekin zerikusirik ez dutenak. Irregulartasunetako bat zerbitzuaren erabiltzailearen aurrean, zerbitzua ematen den baldintzen arabera, sortzen diren erantzukizunen ingurukoa da, eta bestea zerbitzua ematean gerta daitezkeen ingurukoa, alegia, zerbitzu hori arautzen duten arau administratiboak enpresak betetzen ez dituenean sortzen dena. Bigarren erantzukizuna da Industria, Merkataritza eta Turismo Sailean aztertzen dena. Horrela, urratze administratiboa egin dela egiaztatzeko froga elementuak dituenean, sailak, salatuari entzunaldia eman ondoren, urratzearen erantzukizuna dagokion enpresa zigortzen du.

Herritarrak erreklamatzeko duenean dirutan edo espezieetan ordaindu edo konpontzea lortu nahi du, zerbitzua oker eman zaiola iritzita. Baina erantzukizun hori dagoen ala ez ebatzea ez dagokio Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari, auzitegiei edo arbitratzeko batzordeei baizik. Azken kasu honetan, gainera, bi aldeek ados egon behar dute aurkatzen dituen arazoa kontsumoko arbitrajearen irizpenaren arabera ebatzeko.

Hala ere, herritarrek, sarritan, kontsumo sailean eta Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoetan (KIUB) jartzen dituzte zerbitzua ondo eman zaienik uste ez dutela dioten erreklamazioak. Halakoetan, bai saila bai KIUB enpresarekin artekari egiten saiatzen dira, auzia lagun modura konponduko bada. Gestio horien emaitza eta lastertasuna alderdien bitartekaritzaren aurrean erakusten dituzten borondateak eta jarrerak markatuko dituzte.

Aitortu behar dugu Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ez duela enpresa baten titularraren hitzeman zuen kontra-prestazioa behar bezala gauzatzera behartzeko bitartekorik eta, ondorioz, enpresak Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuak ezartzen dizkion eginbeharrak urratu dituelako zantzurik dagoenean, enpresa zigortzeko espedientea izapidetze hastea beste aukerarik ez du.

Halako zigortzeko prozeduretan kontsumitzaile eta erabiltzaileak salatzaile dira juridikoki. Horrek esan nahi du ez dutela izapidetzean zuzenean parte hartuko. Hala ere, sailak jakinarazi beharko die prozedura ireki dela eta amaitutzat jotzeko erabili den ebazpena zein den.

Merkataritzaren arloan, oraindik ere kexak jasotzen ditugu kalez kaleko salmentan aritzearekin edo udal azoketan postuak esleitzearekin edo feria berezietan parte hartzearekin erlazionatutako alderdien inguruan. Kexa horiek azpimarratzen dute, berriro ere, Administrazioak ondasun publikoen arloan oinarrizko printzipioak bete behar dituztela, hala nola, publizitatearena eta lehia publikoarena.

Gai horri buruz, azpimarratu behar dugu Ordenantza bat kalez kaleko salmentaren alorrean indarrean dagoen araudira egokitzeari buruz ofizios hasi genuen esku-hartzea amaitu dela. 2003an, kexa-espedita bat izapidetu genuenean, ohartu ginen garai hartan kalez kaleko

salmenta arautzen zuen Donostiako Udal Ordenantza Salerosteko Jardueri buruzko maiaztaren 27ko 7/1994 Legea baino lehenagokoa zela, eta legearen kontrako xedapenak ere jasotzen zituela. Hor egon liteke, gure iritziz, udaltzainek, espedienteen igarri bezala, legean aurreikusitako araubidea urratzearen jatorria. Egiatzapen horrek ofiziozko jarduera hastera bultzatu gintuen urte hartan, udalak Ordenantza egokitzeko, gure erakundearen iritziz premiazkoa zena, udaltzainek ez zezaten ordenantzaz ezarritakoa aplikatzen jarraitu, ezarpen batzuk legearen kontrakoak zirela kontuan hartu gabe.

Udalak 2004an arazo horiek konponduko zituen xedapen edo ordenantza berria egiten hasiko zela esan zigun arren, jarraipena egin dugun urteotan eman dugun informazioaren arabera, prozedura geldituta dagoela ohartu gara. Udalaren jarrera zein den ikusita, eta espedientea aspaldi hasi genuenez eta Ordenantza egokitzeko egin genuen proposamena gauzatzea lortu ez dugunez, gure jarduera hortxe amaitzea erabaki genuen, gaian esku hartzeko genituen aukera guztiak agortu zaizkigulakoan.

Industriaren alorrari dagokionez, iaz elektronikako ingeniartzako titulu ofiziala –Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Fakultatean (UPV/EHU) eskuratutakoa– aintzatestearen inguruan egin genituen kudeaketen berri eman genuen, behe tentsiorako norbanakoaren trebakuntza-egiaztagiria eskuratze aldera.

Orduan jada, Espainiako Arartekoarenean garatutako jardueren emaitza zein izan zen azaldu ondoren, jakinarazi genuen erabaki genuela berriro eskatuko geniola laguntza Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari, interpretazioan sortutako zalantzei buruzko behin betiko iritzia esateko, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak zer erantzun zigun ikusita: *“...el título universitario oficial de Ingeniero en Electrónica, obtenido en la Facultad de Ciencia y Tecnología de la Universidad del País Vasco, posee el mismo carácter y nivel académico que los que se expiden por los estudios realizados en Escuelas Técnicas, todo lo cual permite considerar equivalentes ambas titulaciones a los efectos previstos en los requisitos de titulación exigidos en la Instrucción técnica complementaria ITC-BT-03, que acompaña al Reglamento electrotécnico para baja tensión (Real Decreto 842/2002, de 2 de agosto).”*

Zoritzarrez, esan behar dugu sailak ez diola gure laguntza eskaerari jaramonik egin eta ekidin duela horri buruzko iritzirik ematea. Beraz, pentsatu behar dugu agortu direla esku hartzeko gure aukerak.

1.3

KULTURA ETA ELEBITASUNA

3. KULTURA ETA ELEBITASUNA

2008an guztira 32 kexa jaso ziren arlo honetan. Honela banatuta egon ziren:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	18
- Tokiko administrazioa	12
- Foru administrazioa	5

Gaiaren arabera, honela sailka daitezke:

- Elebitasuna	15
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	6
- Kultur jarduerak	3
- Kirola	2
- Eskubideak eta askatasunak	2
- Beste batzuk	2
- Kultura ondarea	2

Elebitasunaren atalean jaso ditugun kexa asko erregistro zibiletan egiten den euskararen erabilerarekin lotutakoak izan dira. Txosten honetako justizia arloan, epaitegiak informatizatzeko atalean jaiotzak inskribatzeko gurasoek aukeratutako hizkuntza ofizialean burutu diren jardunak jaso dira.

Gure autonomia erkidegoko administrazio publikoen eremuan, komisariara jo eta salaketa euskaraz jarri nahi izan zuen, baina ezin izan zuen pertsonaren kexa jaso genuen. Hori hizkuntza ofizial biak era normalizatuan erabiltzeko oraindik dauden arazoak adierazgarri izan zen. Antzeko beste kasuetan bezala, euskaraz zekien beste agente bat komisarian bertan bilatzearen beharra proposatu genuen ere.

Erantzun gisa, agenteak euskalduntzearekin zuzenean lotutako neurrien (2389k 1 hizkuntz eskakizuna eskuratu dute) berri eman zigun Herrizaingo Sailak eta adierazi zigun gure eskaeran agertutako behararekin bat zetorrela. Hala ere, txanda bakoitzean euskaraz dakien agente bat egon dadin emandako araua aurkaratuta dagoela esan zigun, alderdi errekurtsogileak uste duelako lan baldintzei eragiten dien neurria dela. Txosten hau idazterako garaian, neurri hori ebazpen judizialaren zain dago.

Antzeko beste kexa batzuetan, txanda bakoitzean euskaraz dakien agente bat egoteko ezarpena aipatzeko eta iradokitzeak aukera izan dugu. Orain abian den bide judizialaren emaitzaren zain egon beharko gara.

Hala ere, interesdunak hartan adierazitako egoeran, ez zen agente euskaldun baten falta azaldu. Gure informazio-eskaeran lagundu zion pertsonak erantzun ziona hitzez hitz azaltzen zuen kexaren zatia jarri genuen. Agentearen erantzuna “yo no sé” izan zen, herritarrak

euskaraz zekien inor zegoen galdetu zionean. Ez du ematen, bada, hizkuntza ezagutzen zuen agente falta zegoela, halakorik zegoenentz egiaztatzearen falta, baizik.

Gure informazio-eskaeran adierazitako kexaren ikuspegi hori ez zen kontuan hartu, eta hori dela eta, egokia iruditu zaigu Herrizaingo Sailaren aurrean hori nabarmentzea, antzeko beste egoeratan euskaraz dakien agente bat komisarian aurkitzen saiatzeko.

Osakidetzako esparruan haur baten egoeraren gaineko kexa jaso genuen. Hiru urterekin psikologoarengana joan zen eta psikoterapiako tratamendua jaso behar zuela esan zioten. Horretarako bere osasun zentrora jo zuen. Ezin izan zuten euskaraz artatu eta ez zuenez bestelako irtenbiderik aurkitu, azkenean zentro pribatu batera jo zuen.

Euskararen erabilerarekin erlazionatutako beste kexa asko ez bezala, hau bestelakoa da, haiek ez baitute honek osasun arretarekin duen besteko lotura estua. Aipatutako kexa horietan esan daiteke osasunaren ikuspegitik arreta ez dela aldatzen, guk aukeratutako hizkuntza ofizialean ezin eskaini arren. Kasu honetan, ordea, haurrak jaso behar zukeen tratamenduan erabili beharreko hizkuntza funtsezko osagaia zela pentsarazten digute zenbait datuk.

Hortaz, aukeratutako hizkuntza ofiziala ezin erabiltzeagatik egindako beste kexek beste zilegitasun zuen kexa honek. Haietan nahia gauzatzea langile baliabideek hori ahalbidetzen duten mendeen dagoen ez bezala, kasu honetan nahia betetzea hasieratik beharrezkoa zela da berezitasuna.

Gure ustetan, haren eskaera bideratzeko zentro pribatu batean laguntzeko osasun gastuak itzul ziezazkioketela. Gure informazio-eskaerari erantzunez Osasun Sailak adierazi zigun gurekin bat zetorrela, eta horren bidez sistema publikoaren bidez onartu zen artatzea.

Gainera, Osasun Sailaz gain, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusira jo genuen, antzeko egoerak jasoz gero, artatzearen kostuak sistema publikoak bere gain har ditzan jarraitu behar duten prozeduraren berri interesdunei eman dakien.

Azkenik, elebitasunaren atalean gogoraziko dugu, iaz jakinarazi geniola Hondarribiako udalari trafiko seinale baten gainean dugun irizpena. Izan ere, jaso genuen kexa baten arabera euskara erabili zen bakarrik aparkatzea mugatzeko baldintzak zehazteko eta hizkuntza ofizial hori ezagutzen ez dutenek zailtasunak zituzten berau ulertzeko.

Udalak irizpenaren gaineko erantzunik eman ez zuenez, alkatearengana jo genuen zuzenean eta honako analisia egin genuen.

Kexa eragin zuen seinaleak ordutegiaren ("*07etatik 14etara*") eta egunen ("*astelehenetik-ostiralera*") mugaketa zituen. Ibilgailuaren jarduera ere aipatzen zuen ("*zamalana izan ezik*").

Udalak gure informazio-eskaerari erantzun zion seinaleak Hondarribiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeari buruz Udal Ordenantzak emandako arauak jarraitzen dituela

esanez. Horrekin bi artikulu zehatzetaz ari zen, 28.2: *“Herri-bideetako seinale eta iragarpenak oro euskarari lehentasuna emango dion modu elebidunen egongo dira, ulergarritasuna bermatzearen eta nazioarteko arauak errespetatzearen kalterik gabe;”* eta *“Ulergarritasuna piktograma bidez bermatu ahal litekeen kasuetan, euskarazkoa ezaguna denetan edota euskarazkoa eta erdarazkoa oso antzekoak direnetan euskarazko testua bakarrik izango dute iragarpenek”* ezartzen duen 28.3.

Euskararen erabilera normalizatzeko Legeko 10.2 artikulua lehenengoz irakurri eta elebidunak ez diren seinaleak horren aurkako direla pentsa genezake. Honelaxe dio: *“2. Kale-bidetango seinale eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira, nolahi ere nazioarteko arauari eta baliatzaileekiko ulergarritasunari eta segurantzari atxikiz.”*

Udal Ordenantzan oinarrituta seinaleak soilik euskaraz jartzeko hartutako erabakia ez zen apetaldia izan, euskaldun asko dagoen herrietan *erabil baitaiteke euskara bakarrik komunikatzeko benetako tresna gisa*. Hori dela eta, Ararteko erakunde honek iritzi zuen ez ditugula soilik kexa eta agindua alderatu behar.

Ondorioz, ikuspegi formal hutsean geratu gabe –horrek pentsaraziko liguke desadostasunak bi hizkuntza ofizialak seinale guztietan mimetikoki islatuta konpon daitezkeela–, uste dugu haratago joan behar dugula. Gaia ikuspegi materialetik aztertu behar dugu –komunikazio tresna den heinean– eta, beraz, seinalearen oharra gaztelaniaz ez jartzearen ondorioz baldintzatuta edo hutsalduta geratzen ez ote den egiaztatu behar dugu.

Hori oinarri, baloratu beharra zegoen euskararen aldeko gisa ulertutako jarduna, seinaleztapena, ez ote zen hizkuntza ofizial hori ezagutzen ez zuten pertsonak hizkuntzagatik baztertzen ari. Uste dut kexa honen oinarria aztertzeko hartu behar dugun ikuspegia ez dagoela Konstituzio Epaitegiak 10/1982 Legeari buruz emandako doktrinaren aurka. Horren arabera, *“la utilización por los poderes públicos de una sola de las lenguas cooficiales puede hacerse indistintamente por propia iniciativa o a elección de los interesados, cuando así se regula, siempre que no se lesionen los derechos de ningún interesado que pueda alegar desconocimiento de la lengua utilizada”* (9. oinarria).

Bestalde, Legebiltzarrerako Eusko Jaurlaritzaren 2001eko otsailaren 28ko txostenak, tokiko erakunde publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenei buruzko atalean bi hizkuntzen baterako erabilera malgutzea komeni dela aipatzen du, bereziki euskaldun asko dagoen guneei dagokienez. *“Lerroalde honetan eremu honetako lege-neurri espezifikoko aipatzen dira. Lehenengo neurria, zalantzarik gabe, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen araudi orokorra malgutzea izango da, toki-administrazioen jardunean erkidegoko hizkuntza ofizial bien erabilera bateratuari dagokionez, gehiengo euskalduna duten gunee-tan. Toki-administrazioan du euskararen erabilerak bizitasunik handiena, eta etorkizunean erabilera hori gehitu daiteke eta komunikatzeko benetako tresna edo benetako hizkuntza bihur daiteke, nahitaez gaztelaniarekin batera joan beharrik gabe, nahiz eta gaztelania erabili behar duten edo nahi duten pertsonak ez diren diskriminatu behar, administrazioarekin ad extra harremanak edukitzeko hizkuntza ofizial denez.”* (Euskararen Aholku Batzordearen Lege Garapenerako Batzorde-atalak prestaturiko txostena, 1999ko abenduaren 10eko saioan Eusko Legebiltzarrak onartu zuen 4garren erabakiarekin lotua, 94 orr.)

Beharrezkoa da ikustea ea seinale hori bat datorren 10/1982 Legearen 10.2 artikuluekin, horren garapenean kokatzen baita Hondarribiko Udalean euskararen erabilera normalizatze-ko arauetarako udal ordenantza.

Jaso dugun Udal Ordenantza horren 28. artikuluko 3. atalean euskara bakarrik erabil litekeen seinalea deskribatzen da, autonomia honetako hizkuntza ofiziala ezagutzen ez duen inori kalterik eragingo ez liokeelako.

Aitzitik, kexa eragin zuen seinalea ezin zen horren erraz esparru horretan kokatu. Leku-
ren batean, esaterako ordutegiari dagokionetik ("*7etatik 14etara*") debekuaren norainokoa ondoriozta daiteke. Besteren batean ("*astelehenetik-ostiralera*"), eta zalantzak izan arren, pentsa dezakegu astegunez ari dela (beharbada halaxe izan ohi delako zamalanetan). Baina zalantza horiek oinarri handiagokoak dira, zamalanak astegunetan egin ohi direla ohartzeko, beharrezkoa baita debekutik salbuetsita dagoen ibilgailu edo jarduera mota zein den uler-
tzea – "*zamalanak izan ezik*" .

Ararteko erakundearen iritziz, ulermenaren inguruko zalantza horiek behar bezain arrazoizkoak dira esku artean dugun seinalean Udal Ordenantzaren 28.3 artikulua soilik euskara erabili ahal izateko aipatzen dituen baldintzetako bat bera ere betetzen ez dela pentsatzeko.

Kultura atalean, Tiro Olinpiarreko Arabako Federazioko hainbat kidek Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuan aurkeztutako eskaera bati emandako ezezkoaren harira izapidetutako kexa aipatuko dugu. Eskaeraren bidez federazio erakundearen kontuen auditoretza jasota zegoen dokumentazio jakin baterako sarbidea eskuratu nahi zuten.

Aurrekariak eta gure balorazioak [2008ko martxoaren 11ko Ebazpenean](#) jasota geratu ziren³. Horren bidez gomendatu zitzaion Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari zenbait interesduneri eskatu zuten dokumentazio jakina lortzeko aukera eman diezaietela. Gure ebazpeneko gogoetetan adierazi genuen, eskatutako auditoria bukatu zela deduzigarria zela, eta ondorioz, sarbidea ukatzeko kontuan hartu ei zuten arrazoia baloratu genezakeela: kexa aurkeztu zutenek interesdun ez zirela ondorioztatu genuen.

Foru administrazioak jakinarazi zigun gure gomendioa onartzen zuela. Baina, harrigarria bada ere, interesdunek berriz ere erakunde honetara jo zuten eta gomendioa onartu ondoren helarazitako informazioa aurretik emandakoaren berdina zela adierazi ziguten. Hau da, Ararteko erakundearen aurrean kexa egitera eraman zituen eta idatziz ukatu zieten informazioa ezin eskuratu jarraitzen zuten.

³ Arartekoaren ebazpena, 2008ko martxoaren 11koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari gomendatzen zaio zenbait interesduneri eskatu duten dokumentazio jakina lortzeko aukera eman diezaiela.

Horren ildotik, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren aurrean kontraesana agertu genuen. Izan ere, bere garaian informazio zehatz bat ukatzea izan zena (auditoretza, esaterako), gerora existitzen ez zen informazio bihurtu zen. Bestela esanda, Arartekoaren gomendioa onartu zen, interesdunek lehenago ukatu zitzaizen informazioa eskura zezaten. Berrito eskatu zutenean, ordea, eman zizkieten dokumentuak aurretiaz jaso zituztenen berdinak ziren, ez zuten federazioaren kontuen audiotretza jasotzen.

Kontraesan horren aurrean ondorio batera heldu ginen –administrazioak ez digu inoiz argitu–: jardun desegokia egon zen, herritarren eta administrazioaren arteko harremanetan nagusi izan behar den gardentasun eta konfiantza printzipioen aurkakoa.

Hala ere, zaila izango da haratago joatea eskatutako kontsultari buruz izandako jarduerari dagokionez, orain, auditoretzari buruzko erreferentzia zehatza zuen eta federatuei ukatu zieten dokumentazio hori ez bada existitzen.

Haiek eduki zitzaizketen susmo zilegien kaltetan izan gabe, datuetatik ondoriozta zitekeena zen auditoretza ez zela benetan existitzen. Hortaz, are zailago zen ulertzea, auditoretza existitzen ez zela esan beharrean interesdun ez izateagatik ukatu izana.

Gardentasun gutxiko jardun hori horrela izanik ere, ulertu beharra dugu burututako jardunak ez zirela antzuak izan. Hortaz, interesdunek etorkizunean egingo zituztela esan zuten eskaera berrietarako sarbidea bermatuta geratu zen.

Ezgaitasuna duen pertsona batek egindako eskaera bat ukatu zela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak goi mailako kirolarientzat egindako deialdi baten esparrua ezagutzeko aukera izan genuen (92/2007Foru Dekretua).

Deitutako laguntzetara sartzeko eskakizunetako bat lurralde historikoko klub baten alde lehiatzea zen. Kirolari honen gurasoek agertu zuten lurraldean ez zegoela diziplina horretan ezgaitasunak dituzten pertsonekin lehiatzen zen klubik, eta beste lurralde bateko batekin egin zuela.

Horren harira hartzen den edozein ebazpen foru dekretuarekin bat etorri behar da, horixe baita deitutako laguntzen legea. Interesdunak alegatutakoa aipatutako foru legeko 2.1 artikuluan ezarritakoarekin bat zetorrela ematen zuen. Han adierazten da lurralde historikoan diziplina hori lantzen duen federazio edo erakunderik ezean, Bizkaiko federazio baten baimena edukitzea ez dela nahitaezkoa.

Hitzez hitz irakurrita, kanpo geratuko lirake lehiaketetan Bizkaitik kanpoko klub bateko kide gisa parte hartzen dutenak, Bizkaian bertan diziplina hori egiten duen kluba baldin badago. Alabaina, irakurketa horrek kanpo utz litzake, halaber, administrazio egoitza Bizkaian izaki, Bizkaiko klub bateko kide diren baina, ezarritako baldintzak bete nahi dituzten arren, beren klubek lehiaketetan parte hartu ez eta, ondorioz, aukera hori baduten kanpoko beste batzuetara jo behar duten kirolariak.

Hori ezinezkoa izan arren, arauan adierazitakoak zalantzarako biderik emango ez balu –alegia, deskribatutako egoerak berariaz bazter utziko balitu– eta, ondorioz, hori irakurrita kanpo utzi behar izango bagenu kexa eragin duen kasua edo ezgaitasuna ez den beste inguruabar batzuk direla medio hipotesi gisa aipatu dugun beste edozein kasu, nekez jarriko genituzke oztupoak. Hala ere, gure ustez, kasu honen inguruko interpretazioak dekretuaren xede den kirolarien eremua diseinatzerakoan jaso ez zen interpretazioa ekarri du.

Foru Aldundia gurekin bat zetorren kirolari honen egoeraren gainean egindako balorazioan, baina 92/2007 Foru Dekretuan ezarritako eskakizunak, oinarriak eta horrenbestez, deialdiko legea betetzen ez zituela iritzi zion.

Arartekoa iritzi zuen kexa hau eragin zuen erabakia berrikustek ez zituzkeela oinarriak urratuko, eskatutako laguntza eman izan balu. Aitzitik, ezinezkoa zaigu esatea, argitasun osoz ez behintzat, eskaria ukatu zuen erabakia deialdiaren aurkakoa izan zenik.

Foru Aldundiak emandako arazoiek kirolari honek 92/2007 Foru Dekretuko baldintzak bete zituenez zilegizko desadostasunaren esparruan kokarazi ziguten kasu hau.

Arrazoi horiek deialdiak zuen zehaztasun faltarekin lotuta zeuden. Izan ere, ezin zen argitasunez sailkatu kirolari honen kasua aipatutako foru dekretuko 2.1 artikuluko c atalean. Era berean, Bizkaiko Kirol Egokituko Federazioak lizentzia independenteak izapidetzen ditu, eta horrek lehiaztea ahalbidetuko zion. Horregatik, izan genuen iritzi ezberdina zilegizko desadostasunaren esparruan kokatu genuen, eta atera genuen ondorioa izan zen hartutako erabakia ez zela arrazoirik edo funtsik gabea izan.

Alderatutako jardun eta iritziak hurrengo deialdietarako erabilgarri izango dira, hala agertu baitzen Bizkaiko Foru Aldundiko balorazioan.

Laguntzen eremu berean, kulturako diru-laguntzen deialdi batera aurkeztu zen eta proiektua kulturakoa ez zela iritzi zutelako laguntza ukatu zioten elkarte baten kexa ekarriko dugu gogora.

Argi dago, ezin zela zalantzan jarri proiektua defendatzeko interesdunek alegatu zuten Errege Akademiako hiztegiak kultura terminorako jasotako adiera (*“conjunto de conocimientos que permite desarrollar un juicio crítico”*).

Aitzitik, hori ez da hiztegiak jasotzen duen bakarra. Gainera, gure ustez, kultura terminoa ez zen soilik gramatikaren esparruan eztabaidatu behar, deialdiaren esparruan bertan ere. Bestela, helburua testuingurutik ateratzeko arriskua zegoen.

Diru-laguntzak orokorrean aztertzerakoan, esan dezakegu esparru edo jardun bat edo bestea aukeratzea hautazkoa dela. Baina arautuko dituen araua ezarritakoan, deialdia egin duen erakundearen nahietatik at geratzen dira erabakiak. Agertu ziguten egoera ikusita, ez zitzaigun iruditu jardun arbitrarioko kasu baten aurrean geundenik.

Kulturaren adiera zabalak daude eta horiek kultura jardunei egozten dizkieten ezaugarriak udalak egindako baloraziotik gertuago daude, interesdunenetatik baino. Hori muturreraino eramanez gero, edozein jardun mota jasoko luke bere esparruan, izan ere, eta interesdunek adierazi bezala, ezagutzarekin zerikusia duen jardunik ezingo litzateke bazterrean utzi.

Udal deialdiari dagokionez kulturalaren eta zientifikoaren artean planteatu genuen kontzeptu alderaketa ohikoa da (proiektua telefoniako antenei buruzko informazioa zabaltzearen gainekoa zen), eta hala ikus daiteke kultur ekintzetan eta zientifikoetan, hortaz, ez dira baliokidetzat jotzen.

Esparru juridikoan hainbat arlo sozialetan garatzen diren politika bereiztuek, kasu honetan, kultura (deialdiagatik), ingurumena edo zientzia alorra (diru-laguntza eskatu zen ekintzei dagokionez) diruz laguntzeko teknika ezberdinen sustapena ahalbidetzen dutela uste dugu.

Beraz, gure ustez, deialdiak ezarritako alorra nahikoa zehatza zen, helburuari dagokionez, baita ezarritako balorazio irizpideei dagokionez. Horregatik uste dugu, araua alde batera utzita, udalak ez zuela arbitrarioki jokatu.

Tokiko erakundeek udarako antolatzen dituzten ekintzetara adingabekoek duten sarbideak desadostasunak eragin ditu aurrekoen ere, erabilitako hautaketa irizpidea dela eta (796/2008). Leioako hainbat gurasok desadostasuna agertu zuten, itxaron zerrendan geratu ziren umeei deitu ez zirelako, haien aburuz, toki libreak geratu baziren ere.

Alabaina, eskainitako tokiak 400 izan zirela egiaztatu zen eta azkenean programa parte hartu zuen adingabekoek kopurua 424. Desberdintasun horrek azalpena zuen. Tokiak zozketa bidez banatu ziren arren, zuzenketa elementua zeukan zozketak berak, eta familia bakoitzari zenbaki bat esleitu zitzaion, seme-alaba kopurua kontuan izan gabe. Zuzenketa faktore horren bidez, aurreko urteetan familiek agertutako proposamenei erantzuna ematen saiatu zen udala. Izan ere, gurasoek ezuste eta gorabehera ugari izaten zuten seme-alaba batzuk uztailako ekintzetan parte hartzen zutenean eta besteek ez.

Onartu beharra dugu tokiko erakundeek eskaintzen dituzten ekintza eta zerbitzuak aurrekontuak eta langile eskuragarritasunak baldintzatzen dituztela. Horri gehitu beharra dago, egun indarrean dagoen tokiko alorreko legeriak ez dituela kirol ekintzak derrigorrezko zerbitzu gisa jasotzen. Horregatik, tokiko erakundeek eskumen osoa dute zer ekintza programatzen duten erabakitzeko, nolako hedadura eman, noiz eskaini, nola kudeatu, etab.

Ondare historikoaren atalean bi kexa aztertzei aukera izan dugu. Bat, Donostian dagoen Kristina-Enea lursaila kalifikatutako kultura ondasun aitortzeko prozedura hasteko eskaerari erantzunik eman ez izanagatik elkarte batek aurkeztutakoa. Bestea, legebiltzarrean agertutakoa, historiaurreko hondar ugari dituen Praileaitz haitzulua babestearen ingurukoa.

Lehenengo gaiari dagokionez, uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 11.2 artikulua aurreikusitakoarekin bat etorriz Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aurrean egindako eskaera izan

zen arrazoia. Artikulu horren arabera, kalifikazio prozedurari nahitaez eman behar zaio hasiera, edozein pertsona fisiko edo juridikok hala eskatuz gero eta hori modu arrazoituan ukatu ezean.

Erantzunik jaso ez zutenez, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuten 2007ko martxoaren 2an egin zuten eskaera administrazioaren isiltasunaren bidez gaitzetsi izanaren aurka. Gainera, 2007ko ekainaren 26ko idazkiaren bidez, isiltasunaren egiaztagiria bidaltzeko eskatu zuten, berariazko ebazpena ez emateak eragindako ondorioak aipatuta, baina orduan ere ez zuten inolako erantzunik izan.

Uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 11.2 artikulua aurreikusitakoarekin bat etorritik Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aurrean egindako eskaera izan zen arrazoia. Artikulu horren arabera, kalifikazio prozedurari nahitaez eman behar zaio hasiera edozein pertsona fisiko edo juridikok hala eskatuz gero, hori modu arrazoituan ukatu ezean.

Erantzunik jaso ez zutenez, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuten 2007ko martxoaren 2an egin zuten eskaera administrazioaren isiltasunaren bidez gaitzetsi izanaren aurka. Gainera, 2007ko ekainaren 26ko idazkiaren bidez, isiltasunaren egiaztagiria bidaltzeko eskatu zuten, berariazko ebazpena ez emateak eragindako ondorioak aipatuta, baina orduan ere ez zuten inolako erantzunik izan.

Gure informazio-eskaerari emandako erantzunak zegokion espedientea izapidetzeko atzerapena eta jardun falta azaltzen zituen. Adierazi zuten *“..Kristina-Enea finkako elementurik adierazgarriena bertako lorategia dela. Bere garaian egin zen aurretiko irizpena baina guztiz beharrezkotzat jotzen da Euskadiko lorategi historikoen ikerketa zehatza, ondoren lorategi historikoen ikerketa zehatza, ondoren lorategi garrantzitsuenei Kultura Ondareko 7/90 legeak aurreikusten duen babesa eman ahal izateko. Konplexutasun handiko ikerketa da, hain zuzen, gai honetako adituak oso urriak baitira.*

Bestalde, hiri-plangintza alorrean, Donostia Udaleko Plan Orokorrean Kristina-Enea parkeak eta jauregiak babes maila I dute, ondorioz, bertan aurreikusi nahi diren lanak baldintzatuak egongo dira.”

Informazio hori ikusita, gure esku-hartzeari amaiera ematea erabaki genuen. Nolanahi ere, gogora ekarri genioen eskudun erakundeari Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 11.2 artikuluan ezarritako betebeharrak; alegia, kalifikazio prozedurari nahitaez eman behar zaiola hasiera edozein pertsona fisiko edo juridikok hala eskatuz gero, hori modu arrazoituan ukatu ezean, eta interesdunei horren berri eman behar zaiela.

Beste elkarte batek Arartekora jo zuen, Gipuzkoako Debako udalerrian dagoen Praileaitz I haitzuloaren historiaurreko santutegiaren egoerarekin lotutako auzi batekin. Historiaurreko santutegi hau ondasun kultural aitortu zen Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 17ko 120/2007 Dekretu bidez (2007ko uztailaren 26ko EHAA). Horren bidez haitzuloa eta haren ingurunea babesteko araubidea ezartzen da, betiere, kontuan harturik haitzuloa Sasiola harrobiaren lan esparruaren barruan dagoela.

Elkarteak haitzuloaren babes araubidearekin bat ez datorrela agertu zuen. Funtsean, bi arazoik ekarri dute desadostasuna: a) Deba ibaiak egiten duen meandroari jarraiki haitzuloa dagoen iparreko hegala babesteko beharra, santutegiaren balorazioa bermatzeko, eta b) haitzuloarentzat ezarritako babes araudi zorrotzak ez ditu harrobitik datozen kanpo arriskuak deuseztatzen.

Zegokion informazioa bildu ondoren, Arartekoak [2008ko abenduaren 18ko Ebazpena](#) helarazi zion Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari⁴.

Oinarri hartuko dugu Eusko Jaurlaritzako Kultura saila eskudun organoa dela garrantzitsu deritzen euskal kultura ondareko edota legeak ezarritako horien kultura ondasunak babesteko erregimena eratzeko, ordenamendu juridikoan ezarritako prozedurari jarraiki.

Dekretuan ezarritako haitzuloarako babes erregimenak bere zaintza kontrolatzen du, baita harrobiaren leherketen dardarek sor ditzaketen kalteen eragin zuzena ere. Dardara horiek ez dituzte dekretuan ezarritako parametroak gainditu, eta ez da ageri haitzuloan edo bere pintoretan inolako eraginik sortu dutenik. Edonola ere, dekretuak jarraipen mekanismoak barne hartzen ditu, zaintza plana kasu, bere lanak bukatzerakoan babes eremuen erregimenaren edo horietako batzuen erabilera erregimenaren mugaketan aldaketak proposa ditzakeena.

Ondasunaren ingurunea mugatzea beste auzi bat da. 2008ko abenduaren 18ko ebazpenean, ondasun kulturalen mugaketa egokirako funtsezkoa den elementu hau zehazteko sortzen diren zailtasun orokorrak adierazi genituen. Horregatik interesgarri iruditu zitzaigun Kultura Sailak Euskal Kultur Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12. artikulua garapen arautua sustatzea, ikuspegi bikoitz honetatik kultura interesekoak diren ondasunen inguruneke edukia barne hartuko duena.

Praileaitzeko haitzuloaren kasuan, agerian jarritako inguruabarrak eta Kultura Saileko adituen egindako txostenak baloratu ondoren, ondorio batera heldu ginen. Alegia, justifikazio tekniko nahikoa zegoela bere garaian ingurua mugatzeko erabili zen irizpidea berrikustea proposatzeko. Horiek ikusita, Kultura Sailak Praileaitzeko historiaurreko santutegiko inguruko mendi-hegal osoa mugakide babes eremuan sartzeko aukera kontuan izan beharko luke, bere esanahia eta ondarea behar bezala ulertzeko.

⁴ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 18koa. Horren bidez, Kultura Sailari gomendatzen zaio Praileaitzeko historiaurreko santutegiaren mugaketan aldaketa sustatzeko aukera azter dezala. Aldaketa horrek barne hartu beharko luke haitzuloaren inguruko mendi-mazela osoa.

1.4

HEZKUNTZA

4. HEZKUNTZA

2008. urtean hezkuntzaren arloan guztira 111 kexa jaso dira. Hori erakunde honen jardun osoan izapidetutako kexen guztizkoaren %8,75 da.

Kexa horiek eragindako administrazioak honako hauek izan dira:

- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritz).	71
- UPV/EHU	11
- Tokiko administrazioa	6

Edukiari dagokionez, jasotako kexak ondorengo gaietara edo azpiarloei buruzkoak dira:

- Eskubideak eta betebeharrak	31
- Haur hezkuntza	17
- Eskola-garraioa	11
- Ikasleak onartzea	9
- Unibertsitateko irakaskuntza	9
- Bekak eta bestelako laguntzak	7
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	6
- Hezkuntza-premia bereziak	6
- Hizkuntzen irakaskuntza	4
- Ikastetxeak - antolaketa	2
- Jangela	2
- Lanbide heziketa	2
- Beste alderdi batzuk	2
- Batxilergoa	1
- Irakaskuntza artistikoak	1
- Plangintza/hezkuntza programazioa	1

2007. urteari zegokion aurreko urteko txostenean adierazi genuen moduan, kexei dagokionez, hezkuntza arlotik jasotzen dugun kexa kopurua nabarmena da.

EAEko administrazio orokorrak (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila) kexa kopuru esanguratsua izaten jarraitzen du. Hala ere, hezkuntza zerbitzuen eskaintzan laguntzea erabaki duten tokiko administrazioak aipatzen dituzten kexak ere mantentzen dira, batez ere, zero eta hiru urte bitartean, Haurreskolak partzuergoa sartzearen bidez.

Halaber, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza maileri dagozkien kexak gehiago dira goi mailako unibertsitateko irakaskuntzari dagozkionak baino.

Jarraian, kexaren ohiko arrazoien banaketa tradizionalari jarraiki, 2008. urtean hezkuntzaren arloan erakunde honek gauzatu dituen jardunak azalduko ditugu orokorrean:

Eskolatzea

2008. urtean ama batek hala eskatuta izapidetutako kexa aipatu behar dugu. Guardiako Udalak ama horri 2.688,00 euroko sarrera ordaintzea planteatu zion, udalerriko eskolan publikoan 2007. urtean lau seme-alabei zegokien kostu gisa.

Gure esku-hartzeari ekitean, berehala nabarmendu dugu tokiko korporazioek beren gain hartzen duten betebeharra, alegia, hezkuntza zerbitzuetara bideraturiko instalazioen mantentzeak izan dezakeen kostua. Kostu horiek ezin baitute eragina izan instalazioak erabiltzen dituzten herritarrengan. Izan ere, hori egingo balitz, hezkuntzarako eskubidea urratuko litzateke.

Hala ere, onartu genuen ikastetxe publikoak mantentzeko betebeharra duten tokiko korporazioen artean udalerrri horretako ikastetxean gertatu ahal izan direnak bezalako errealitateak egokitzea ahalbidetzen duten erabaki bereziak hartu ahal izatea. Ikastetxe horretan beste udalerrietan bizi diren ikasleak eskolatu dira, Arabako tokiko erakundeak finantzatzeko Foru Fondoak osatzen duen finantziazio mekanismoak inguruabarrari erantzun nahikoa ez diola ematen uste delako; baina kontuan izan behar da mota horretako erabakiak aldi batean ez betetzeak ez lukeela izan behar familiek ekarpen ekonomikoa eskatzeko arrazoia.

Horri dagokionez, egokitzen jo genuen azpimarratzea hezkuntzako legeriak ez duela betebeharririk ezartzen adingabeak beren familiak bizi diren udalerrietan eskolatzeko. Egoera hori, hau da, familien egoitzak edo helbideak eskolan lekurik ez dagoenean ikasleak onartzeko lehenetsuneko irizpide gisa erabiltzeko bakarrik da garrantzitsua, baita garraio eta jangela zerbitzu osagarriak izateko ere.

Ondorioz, Alkatetzara jo dugu eta honakoa aipatu genion: kexagileari jakinarazi zitzaion ebazpenak –bere lau seme-alaben hezkuntza gastuen aipatutako kopuruaren sarrera eskatuz– estaldura juridikorik ez zuela eta, beraz, eraginik gabe uzteko beharrezko neurriak hartu behar zirela.

Tamalez, behin eta berriz saiatu garen arren, alkatearen lankidetzaz ezaren ondorioz, agortuztat jo ditugu gure bitartekaritza aukerak, nahiz eta ez gauden ziur zein izango den aipatutako ebazpenari dagokionez hartu daitezkeen azken erabakia.

Horrez gain, atal honetan nabarmendu nahi dugu neska adoptatu baten eskolatzea bere benetako adinaren, ezagutzen, heldutasunaren inguruabarretara egokitze aldera izapidetutako kexa.

Adopzioaren izapidetzeak direla eta igorritako agiri ofizialetan jaiotza data bat jaso zen baina, antza denez, ez zettorren bat benetakoarekin, adopzioaren ostean egindako azterketa medikoen arabera. Dagozkien foru aldundien haurrentzako zerbitzuen arabera, ohikoa izaten da adingabeen benetako adina “apaintzea” adopzioaren izapidetzeetan.

Are gehiago, neskatxak eskolatzea haur hezkuntzako hirugarren mailan hasi zuen, ikasteak berak komenigarritzat jo zuelako adinez zegokion maila baina goragoko bat egitea.

Haren garapena, kexan adierazi zen moduan, oso ona izan da eta ez du zailtasunik bere ikaskideekin batera aurrera egiteko eta, horrela, lehen hezkuntzari ekiteko. Antza hezkuntza administrazioa ez zegoen ados aurrera egite horrekin adin kontuak zirela eta.

Alabaina, azkenean, erregistroko adina zuzentzeko aitorten prozeduraren eskaeran kautelazko neurriak hartzeko, lehen auzialdiko epaitegi baten zitazioa kontuan hartuta, administrazioak adingabea lehen hezkuntzako lehen mailan eskolatzea proposatu zuen eta ondoren egiaztatu zen aldi horretako ikasketak egiten ari dela.

Aurten ere izan dira ikasle etorkinen eskolatzeari buruzko kexak. Oraingoan, erakunde honetara jo duten familiek Gasteizko ikastetxe bateko (Ramon Bajo LHI) haur etorkinek jasan behar izaten duten bereizkeria nabarmendu nahi izan dute. Izan ere, beren iritziz, larriki ari da urratzen ikasle horiek inguru normalizatu eta barneratzaileetan eskolatzeko duten eskubidea.

*EAE*n hezkuntza-premiei emandako erantzuna izeneko ezohiko txostenari egiten ari gatzazkion jarraipenari esker eta ikasle etorkinei dagokienez, ikasle etorkinak eskolatzeko ezartzen ari diren irizpideetara sarbidea izan dugu. Zehazki, 2007. urteari zegokion aurreko urteko txostenean, irizpide horien berri eman genuen adingabeen artapen espezifikoiari zuzendutako kapituluan. Era berean, sailaren planen berri eman genuen eta, emandako informazioaren arabera, ikasle etorkinak artatzeko egungo programa gainbegiratzeko eta eguneratzeko osatutako ebaluazio batzordeak ateratako ondorioak izatea espero zuen denbora laburrean.

Logikoa denez, kexa zehatz horretaz arduratzean, aurreko horrekin bat zetorren ildoari jarraitu nahi izan dugu. Horregatik, hezkuntza administrazioari ikasle etorkinak artatzeko egungo programaren ebaluazio posiblearen aurrerapena eskatu diogu. Gai hori sakonago aztertuko dugu adingabeen artapen espezifikoiari dagokion kapituluan.

Irakaskuntza artistikoak

Bere garaian, erakunde honek agerian jarri ahal izan zuen komenigarria dela ziurtasun handiagoa izatea Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan dauden onarpen irizpideei dagokienez, ezagutza orokorreko barne araudiaren onarpenaren bidez, bertako ikasle izango diren interresdun guztientzat.

Tamalez, aipatu behar dugu zenbait kexa jaso ditugula. Kexa horiek berriz ere onarpen edota matrikulazio irizpideei dagozkien alderdien inguruan interesa izatera behartu gaituzte.

Hizkuntzen irakaskuntza

2008. urtean euskararen ezagutza egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzen eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzi Esparru Bateratura egokitzen dituen apirilaren 8ko 64/2008 Dekretua onetsi da (EHAA, 71. zk.; apirilaren 13koa).

Alabaina, dekretu horrek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kudeatutako tituluak eta ziurtagiriak barne hartzea atzeratu du. Horien artean, Hizkuntza Eskola Ofizialeko ziurtagiriak.

Egoera horren ondorioz, hainbat kexa aurkeztu dira eta, kexa horien bitartez, interesdunek jakin nahi izan dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, aldaketa horri aurre egite-rako orduan, mantenduko ote duen Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza eskola ofizialek aurretik emandako gaitasun ziurtagiriaren eta EGA ziurtagiriaren arteko baliokidetasuna.

Baliokidetasun hori mantenduko dela baieztatu ahal izan da hezkuntzako arduradunen lan-kidetzari esker.

Bestalde, arlo horri dagokionez, hizkuntza eskola ofizialetan, euskal hezkuntza adminis-trazioen menpekoak diren titulartasun publikoko establezimenduetan, irakaskuntza horiek ikasten jarraitzen duten ikasle libreen inguruko kexa berriak ere izan dira. Kexen oinarrian zegoen arrazoa hauxe da: ez zeudela ados ikasle mota horrek zeuzkan bi azterketa deialdie-tako bat kentzearekin, 2007-2008 ikasturteetik aurrera bakararra baitzeukaten.

Interesdunen alegazioak Hezkuntza Sailak berak emandako informazioarekin egiaztatu ostean, ondoriozta dezakegu azterketa deialdiak bakarrera murrizteko erabaki administratiboak arau ba-besa izango lukeela abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuan jasotako ezarpenetan (BOE, 2007ko urtarrilaren 4a). Dekretu horren bidez, maiatzaren 3ko Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa arautzen duen araudi bereziko hizkuntzen irakaskuntzetako curriculumaren oinarritzko alderdiak zehazten dira. Lege horretako 43. artikulua hitzez hitz honakoa dio: *“Las Administraciones educativas organizarán, al menos, una convocatoria anual de pruebas para la obtención de los certificados correspondientes a los niveles intermedio y avanzado.”*

Hau da, arlo honetan eskumenak dituzten administrazioek diskrezionalitate eremua daukate eta horren barruan mugi daitezke, betiere, aurreikusitako gutxienekoa errespetatzen badute. Aukera horrek berekin dakar hezkuntzako administrazioen erabakiek ez dutela nahitaez bat etorri behar eta, denboraren joanean, eta horietako bakoitzarekiko hasieran onartutako irizpidea ere aldatzea.

Labur deskribatutako esparru juridikoak zehazten du eragindako administrazioek urteko gutxieneko deialdi batzuk bermatu behar dituztela eta, beraz, muga horri jarraiki, legezko eskakizunen arabera jardungo litzateke.

Ikasleak onartzea

lazko urteko txostenean aditzera eman genituen zero eta hiru urte arteko haur hezkuntzako lehen zikloan ikasleak onartzeko dauden irizpideen inguruan jasotako kexak.

Are gehiago, kexa haietan eta eskola mapa berriaren inguruan aurreraturiko informazioan oinarrituta, haur hezkuntzako ikastetxeetan ikasleak onartzeko irizpide komunak ezartzea

komenigarria dela dioen ebazpena egiteko aukera kontuan hartu genuen eta horri buruzko gomendio orokorra eman genuen.

Besteak beste, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako itunpeko ikastetxe publikoetan eta ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duen martxoaren 4ko 35/2008 Dekretua; 2008ko apirilaren 24koa Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen 12/04-2008 Akordioa –azken horren bidez, Haurreskolak Partzuergoan haurrak onartzeko araudia eta irizpideak onesten dira–. Aipatutako bi horien argitalpenak baieztatzen digu 2008-2009 ikasturtean ikasleak onartzeko prozesua irizpide komun batzuen arabera burutu dela. Beraz, nabarmendu behar dugu gomendio hori bete dela.

Zero eta hiru urte arteko haur hezkuntzako lehen zikloari dagokionez, aldian-aldian, zenbait familiak egungo sarbide sistema aldatzeko beharra planteatu ohi dute. Jakina denez, Haurreskolak Partzuergoaren mende dauden haurreskoletan izena emateko epeak hiru izaten dira: 1) maiatza, irailean edo urrian hasteko; 2) iraila, azaroan, abenduan, urtarrilean edo otsailean hasteko; eta 3) urtarrila, martxoan, apirilean, maiatzean edo ekainean hasteko. Izena eman eta eskolan hasteko data finkatzerako orduan, haurrek 16 aste beteta izan behar dituzte. Haurreskolan betetako lekuen kopuruari dagokionez, haurreskolak daukan leku eskaintza kopuru osoaren %60koa edo gutxiagokoa baldin bada, izena emateko epea erabat zabalik egongo da. Aldiz, %60 baino handiagoa bada, izena emateko ezarritako ohiko epealdiak errespetatu beharko dira. Nolanahi ere, beti bete behar da maiatzean izena emateko epealdia, irailean eta urrian ikasturte berriari ekiteko.

Badakigu haurreskoletarako sarbidea antolatzeko modu horren ondorioz zenbait familiak ezingo dituztela bateratu haien familiako erantzukizunak eta erantzukizun profesionalak. Egoera objektiboek, esaterako, adingabeen adinak, ez duenean ahalbidetzen bere barneratze goiztiarra, ikasturtearen hasieran, eta eskainitako plaza hutsak matrikularen lehen epealdian betetzen direnean.

Baina beharrezkoa da nabarmentzea, aipatutako gertaera saihestu ahal izateko modu bakarrak berekin ekarriko lukeela plazen erreserba ezartzea. Eta erakunde honen ustez, horrek zalantzan jarriko luke administrazio orok oinarrian izan behar duen eragingarritasun printzipioa. Horri dagokionez, ez dugu argudiorik topatu zenbait plaza hutsen ez betetzea –adingabeek adin jakin bat izan arte– justifikatzeko, haurrak artatzeko premiak tartean dardenean. Premia horiek administrazio erantzuleen erantzun eragingarria behar dute.

Lehenengo hezkuntzako zikloa ixteko eta, oraingoan modu orokorragoan, berriz ere eroldako datuen iruzurrezko erabilera azpimarratu nahi genuke.

2008-2009 ikasturtean ikasleak onartzeko jarraibideak onetsi dituen 2008ko martxoaren 5eko Aginduak ez du gehitzen azkenean aurreikusitako aldaketa (aitortutako helbideen artean bateragarritasunik ez dagoenean, NANA frogaren gisa erabiltzea eta horren menpekoez izatea atal honetako baremoaren puntuazio gabezia). Hala ere, egiaztapenaren izapidetzea mantendu da, udal eroldako ziurtagirian jasota dagoen aitaren, amaren edo legezko tutorearen helbideak eta NANean agertzen denak bat egiten ez dutenean.

Halaber, berme batzordeak osatzea xedatu du eta horien zereginen artean haren lurraldeko itunpeko ikastetxe publikoetan eta ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozesua gainbegiratzea eta hori arautzen duen araudia betetzen dela bermatzea da.

Gure esperientzian oinarrituta, esan dezakegu zuhurtzia horiek ez dutela ekiditen iruzurrezko jardun hori errepikatzea. Horren froga gisa bere garaian [2007ko uztailaren 16ko Ebazpena](#)⁵ igortzeak eragin zuen kontua adierazi nahi dugu. Egia da, erakunde honen ekitea ikusita, hezkuntzako arduradunak erroldako datuen tratamendu formal hutsera mugatu zirela eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere ohiko jokabidea izan zuela, alegia, salatu-tako pertsonen erroldatzeko ziurtagiria ezeztatzeko legezko eskumenik ez duela esatera. Horri dagokionez, gure iradokizunari muzin egin zioten, alegia, erroldak adierazten duen ustea berrestea, erroldako edukiaren konkordantzia faltaren irmotasuna eragiteko gai diren bestelako frogari baliabideekin alderatuz.

Berriki ezagutu dugu Bilboko Udalak, udal horri zegokion kexa Segurtasun Arloko Informazio eta Dokumentazio Unitatearen laguntzarekin erroldatzea berrikusteko espedientea izapidetu ondoren, haren jarduerak amaitu dituela, familiaren helbide gisa kexagileak bere garaian aipatutako baieztatuz eta ez, ordea, ikasleak onartzeko prozesuaren ondorioetarako alegatu eta egiaztatu zena. Horrek, gure ustez, hezkuntza administrazioak salatutako kasuen ikerketan ardura gehiago izan behar duela adierazten du.

Azkenik, eskola-adinean diren eta elkarren artean adin-alde txikia duten seme-alaba bat baino gehiago duten familiek aurkezturiko kexa multzoa nabarmendu nahi genuke. Izan ere, hezkuntza administrazioaren aurrean kudeaketa egokiak gauzatu ostean, ezin dituzte eskolatu anai-arrebak egoitza-arrazoengatik dagokien ikastetxean. Adierazitakoaren arabera, eskaintza administratiboa anai-arrebak establezimendu desberdinetan edo eskola berean, baina batek garraiorako eskubiderik izan gabe, eskolatzeko aukeraren ingurukoa zen.

Dagokion aurretiazko azterketa egin ostean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jo dugu, administrazio arduraduna baita, gai horri buruzko informazioa eskatzeko. Txosten baten bidez iritsi zitzaigun erantzuna. Handik ondoriozta zitekeen ikasgela bat zabaltzeko erabakia hartu zela, ikastetxean eskolatzeko arazoak eragin dizkien ikasleei zuzenduta. Modu horretan, ondoriozta dezakegu kexagileen anai-arrebak ikastetxean eskolatzeko eskaerak asebeteta gelditu direla.

Hizkuntz ereduak

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen duen urriaren 16ko 175/2007 Dekretua argitaratzeak kexak jartzea eragin du. Kexa horiek beren seme-alabek ikasketak zein komu-

⁵ Arartekoaren ebazpena, 2007ko uztailaren 16koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari iradokitzen zaio ikasleak onartzeko prozesu baten eraginetarako familia batek aitortu duen helbidearen egiazkotasuna ziurtatzeko saiakera egin dezala.

nikazio hizkuntzatan egitea nahi duten hautatzeko aukera izatea defendatzen duten familiek jarri dituzte.

Gure erkidegoan indarrean den hizkuntza-hezkuntza mailako antolamenduak, hizkuntz ofizialtasun bikoitza daukaten beste erkidego batzuetakoak ez bezala, orain arte behintzat, hezkuntza aldi guztietan hizkuntz aukera izatean oinarritutako sistema hautatu du. Horri dagokionez, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak bermatzen dute ikasle guztiek irakaskuntza hezkuntza maila guztietan bai euskaraz, bai gaztelaniaz, jasotzeko daukaten eskubidea. Horrela, irakaskuntzan hizkuntza aukeratzeko askatasuna da gure sistemaren funtsa eta horretan oinarritzen dira irakaskuntzako hizkuntz eredu desberdinak, bakoitzean hizkuntza koofizial bakoitzari ematen zaion birtualtasunaren arabera.

Baina kontuan izan behar da hezkuntzako hizkuntza antolamendu hori Euskal Autonomia Erkidegoko legegilearen aukera dela eta, gainera, Konstituzioak ez duela inolako eragozpenik jartzen, hala bada, "hizkuntzak elkartzeko" sistema edo "erabateko elebitasuneko" sistema deitu izan zaien beste sistema-mota batzuk ezartzeko. Horrela, Auzitegi Konstituzionalak adierazitakoa aintzat hartuta, esan daiteke Eusko Legebiltzarrak 2005eko abenduak osoko bilkuran onartu zuen ez-legezko proposamenaren moduko ekimenek badutela oinarririk. Proposamen horren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari honakoa eskatu zion: *Hori horrela izanik, Eusko Legebiltzarrak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio, hezkuntza-komunitateko eragile guztiekin batera, irakaskuntza arloan komunitateko bi hizkuntza ofizialetan maila orotako kompetentziak bermatuko dituen eredu berri baten azterketari berehala ekiteko, eta ahalik eta azkarren, praktikan jartzeko eta horrekin batera, eta eredu berriaren aplikazioa ziurtatzeko bide bakar gisa, irakaskuntzako legedia berritzea eskatzen dio Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, gaurtik hasi eta 2007ko otsailera bitarteko epean.*

Legebiltzarraren aginduari jarraiki, 2007ko martxoan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, berak hala eskatuta, agerraldia egin zuen Hezkuntza eta Kultura Batzordean, hizkuntzak elkartzera bideratutako aldaketa garrantzitsuak zekartzan ikasi eta irakasteko eredu edo esparru eleanitz berriaren proposamena aurkezteko. Hala ere, txosten hau egiten amaitzen dugunean, badirudi proiektu hori azkenean ezin izango dela gauzatu legegaldi honetan. Izan ere, legegaldi hori amaitzeaz dago.

Edonola ere, esan beharra daukagu aipatutakoa izanik une honetan balorazio bat egiteko oinarri gisa hartu beharreko testuingurua, maila erabat juridikoan, nolabaiteko nahasmena sortu ahal izan duela Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak oinarrizko hezkuntzaren curriculum berria ezartzeko erabakia hartu izanak, horrek berekin dakartzan aldaketekin, legegintzako aurrekariak berdin-berdinak izanik ere.

Horri dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak xedatzen eta ezartzen duen urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak, oinarrizko hezkuntza amaitzean Erkidegoko hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gai izatea lortzeko, hezkuntza sistema elebiduna helburu gisa jarri ostean, eta ikastetxe bakoitzari, haren hizkuntz proiektua aintzat

hartuta, curriculumaren planteamenduak zehazteko aukera aitortzen badio ere, eta elebitasunaren helburua curriculumaren edukiak helarazteko helburuarekin batzeko bitarteko egoki gisa zenbait hizkuntzen komunikatzeko tratamendua kontuan hartuta, adierazten du euskara izango dela eskoletan komunikatzeko hizkuntza nagusia.

Azken horri dagokionez, dekretu horren kontra sustatu diren administrazioarekiko auzi erre-kurtsoak lagungarriak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak (EAEAN) horri buruzko erabakia eman dezan.

Baina, oinarrizko hezkuntzaren curriculum berriaren inguruan sustaturiko errekurtsoen uste-kabeko alde hori alde batera utzita, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezko aldaketak egiten ez dituen bitartean, EAEko hezkuntzako hizkuntza antolamenduaren es-parrua berbera da eta, azken batean, horrek ahalbidetu egiten du hiru hizkuntz ereduren artean hautatzeko aukera (A, B eta D) eta hori espresuki aurreikusita dago Euskal Eskola Publikoari buruzko azaroaren 19ko 1/1993 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian.

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz ezartzen duen urriaren 16ko 175/2007 Dekretu horrek, zehazki, horren bigarren azken xedapenak ezartzen du euskal hezkuntza sisteman lehen al-diz 2008-2009 ikasturtean barneratzen diren ikasleek euskara eta literaturatik salbuesita gelditzea eskatu ahal izango dutela euskal hezkuntza sisteman eskolatuta igaroko duten epealdiak ikasturte bateko iraupena gaindituko ez badu. Gainontzeko kasuetan, ikastetxeak banakako plana ezarriko du bi urteko gehieneko epean eta eragindako ikasleak ebaluatu egingo dira plan horretan ezarritako ebaluazio irizpideen arabera.

Xedapen hori betetzeko, hezkuntza sailburuordearen 2008ko irailaren 22ko Ebazpena eman da. Bertan 2008-09 ikasturtean unibertsitatez kanpoko hezkuntzan Euskara eta Literaturatik salbuesita gelditzeko baldintzei buruzko jarraibideak jasotzen dira.

Salbuespen sistemaren aldaketa horren ondorioz, kexa ugari aurkeztu dira eta une honetan izapidetzen ari dira.

Amaitzeko, kasuan kasuko urrutiko irakaskuntzak dituen berezitasunen ondorioz, labur azalduko dugu D ereduan urrutiko batxilergoa ikasteko zailtasunei buruz jasotako kexa. Hezkuntza maila horretako urrutiko irakaskuntzak EAEn lurralde bakoitzeko ikastetxe ba-tean eskaintzen dira: Kexan Bizkaiko kasua aipatzen zen. Gaia Hezkuntza Sailera igorri zen haren berri izan zezaten eta jaso genuen erantzunean, ezaugarri horietako matrikulatzeko eskaerarik ez dutela jaso jakinarazteaz gain, irakasleen gaitasunari dagokionez, ikasle mota horretaz arduratzeko arazorik ez dagoela adierazi zuten.

Hezkuntza-premia bereziak

Erkidego honetan onetsitako araudiak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna antolatze aldera, batetik, curriculumerako sarbide-ego-kitzapenak egiteko aukera aurreikusten du eta, bestetik, curriculumaz norbanakoari modu esanguratsuan egokitzea kontuan hartzea.

Lehenengoak, azken batean, ikaskuntza (logopeda, fisioterapeuta, hezkuntzan laguntzeko espezialista) jaso ahal izateko beharrezkoak diren irismen eta laguntza teknikoko edo pertsonaleko neurriak dira. Ikasleen premiak ongi definituta daudenean, ez da arazo berezirik izaten. Aldiz, curriculuma norbanakoari modu esanguratsuan egokitzeko aukerak, ezohiko neurria den heinean, desadostasunak eragin ohi ditu, aurreko txostenetan aipatu izan dugun moduan.

Adierazi berri dugun moduan, banakako curriculum egokitzapen esanguratsua ezohiko neurria da, curriculumaren aginduzko elementuen aldaketa garrantzitsuak ekartzen baititu eta arlo, ziklo edo aldi baten edo zenbaiten helburu asko egokitu edo ezabatu egiten baitira. Neurri hori gainontzeko egokitzapen, programazio, indartze neurriak eta abar nahikoak ez direnean hartzen da. Hori izapidetzeko ezarri den onartzeko prozedurarako beharrezkoa da ikastetxeak hasierako egokitzapenaren proposamena egitea. Proposamen hori aurrerago orientabide pedagogikoko zerbitzuek eta hezkuntza-ikuskaritzak berretsi beharko dute.

Horregatik, ohikoa denez, horren inguruan izapidetu ditugun kexetan, erakunde honek familiei lagundu die irakasle tutoreen hasierako balorazioa egin dezaten eta, hortik abiatuta, berritzeguneko profesionalen lankidetzak izan dezaten eta, azken batean, hezkuntza-premia berezietan erantzuna emateko onetsitako antolamenduaren testuinguruan premiei erantzuna eman diezaioten.

Gainera, nabarmendu nahi genuke Bizkaiko dislexiaren elkarteak, DISLEBIK, erakunde honen esku-hartzea eskatu duela hezkuntza administrazioaren erantzun handiagoa lortzeko ikasteko zailtasun hori daukaten ikasleen beharrei dagokienez. Laburbilduz, elkarte horretako kideak hezkuntza sistemak ikasle horiek behar adina artatzen ez dituelakoan daude, lehenik eta behin, detekzio arazo baten eraginez. Horren ondorioz, familiek baliabide pribatuetara jo behar izaten dute eta tratamendu luze eta garestiak ordaindu behar izaten dituzte. Eta, bigarrenik, esku hartzeko irizpide argirik ez daukalako, irakasleen prestakuntza egokiarekin eta abarrekin batera.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onartu du *Irakurketaren eta idazketaren ikaskuntzako arazoaren jarraipen mahaia* sortzea. Aurreratu zenaren arabera, bere lana bi alditan banatuko du:

- Lehen etapan, mahaia diagnostikoko agiria egingo du eta, bertan, aipatutako ikasle horien artapena hobetzera bideraturiko orientabideak islatuta egongo dira. Diagnostiko hori egiteko, mahaia lanak eskatzen duen aldizkakotasunarekin bilduko da.
- Aurrerago, mahaia hiru hilero bilduko da aurreko agirian adierazitako gomendioak zenbateraino bete diren aztertzeko.

Mahai horren lanen jarraipena egiteko gure konpromisoa betetze aldera, jakin dugu 2008-2009 ikasturtean mahai teknikoaren osaketa aldatu dela eta profesional adituak barneratzea aurreikusi dela. Gainera, aldizkako bilerak programatu dira, irakurketan eta idazketan zail-

tasunak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntzako erantzunaren mailako hausnarketei eta jardun egokiei buruzko azken txostena egiteko. Txosten hori 2009ko maiatzerako esku-ragarri egongo dela esan dute.

laz eman genituen aditzera hezkuntza administrazioak berak hezkuntzan laguntzeko espezialisten ordezkapenak egiteko beharrei erantzuna emateko dituen zailtasunak.

Aurten ere zailtasun horien aipamen zehatza egin dugu funtzio publikoaren arloari dagokion laburpenean. Halaber, gai hori sartu dugu hezkuntza-premia bereziei eman beharreko erantzunaren ohiko jarraipenean.

Bekak eta laguntzak

2008. urtean nabarmentzekoa da familia talde batek aurkeztu zuen kexa, EAEko ikastetxeetan lehen hezkuntzako lehenengo eta bigarren zikloan ikasketak egiten dituzten ikasleentzat Testuliburuaren Kudeaketa Solidariorako Programa izeneko ezartzeari buruzkoa. Hori dela eta, benetan zenbaterainokoa den jakin nahi izan dugu, zalantzak planteatu baitira programa hori ezartzearekin, alegia, agian ikasleen eskolatzeko baldintzei dagokienez tratatu desberdina sortu ahal izateko aukeraren inguruan.

Kexa horretan oinarrituta abiatutako esku-hartzeari erantzunez, Ikastetxeen zuzendariaren txostena jaso genuen eta, bertan, programa horren arrazoiak eta helburuak azaltzen dira. Gainera, derrigorrezko erreferentzia gisa erabili zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak berak, bere garaian, 2006ko maiatzean Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura Batzordearen aurrean egindako agerraldian, egindako aurkezpena.

Beraz, txosten honetan honako hau adierazi da –eta hitzez hitz errepikatuko dugu–:

“2008ko ekainaren 13ko ebazpenaren bidez arautzen dira testuliburuak eta material didaktikoa era solidarioan erabiltzeko programaren funtsezko alderdiak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan derrigorrezko irakaskuntza-mailak egiten dituzten ikasle guztiei, haien jatorria edo gizarte-maila zein den alde batera utzita, helarazteko. Horretarako, derrigorrezko irakaskuntzako ikasleentzako testuliburuak eta material didaktikoa finantzatu nahi ditu eta baloreetako hezkuntzarekin konbinatu nahi du finantziario hori, maileguaren bidez materialak berriz erabiliz eta liburuak, kultur ondasuna den aldetik, gordez.

Programa hau martxan jarritz gizarte-kohesioa sustatzen da, kalitateko hezkuntza-sistema baten barruan aukera-berdintasuna bermatuko duten politiken bidez. Elkartasuna eta erantzunkidetasuna bezalako baloreak bultzatzen dira ikasle eta beren familien artean. Gainera, liburuak eta curriculum-materialak zaintzeak, baita kontserbatzeak eta berriz ere, aurreratze ekonomikoa dakarte familientzat eta garapen iraunkorraren ideian sakontzen dute, inguruneak irauteko funtsezkoak diren lehengaiak kontserbatuz.”

Txosten horretan zehaztuta da, halaber, aplikazio mailakatuko programa dela. Izan ere, *“programa apur-apurka ezarriko da (...) Legebiltzarrean aurkeztu zen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzak urtero arautuko duen egutegi baten arabera. Aurreikuspen arabera, 2010-2011 ikasturtetik aurrera hedatuko zaie itunpeko ikastetxe pribatuei programa.”*

Berriki, gainera, Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran, joan den urriaren 17koan, euskal popularren talde parlamentarioak testuliburuaren doakotasunari buruz aurkeztutako legezkoa ez den proposamena dela eta, osoko zuzenketa batek aurrera egin du eta horrekin bat etorritz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari honako hau eskatzen zaio: *“egun indarrean dagoen ‘Ikasliburuaren kudeaketa solidarioa’ izenburuko programaren aplikazioari eutsi diezaion eta urteko ebaluazioen ondorio diren hobetzeko ekintzak egin ditzan, horretarako 2006ko maiatzean Hezkuntza eta Kultura Batzordean aurkeztutako parametroei jarraituz.”*

Beraz, Legebiltzarrean egindako eztabaidan oinarrituta esan genezake, eskolako materialera bideraturiko sistemari dagokionez, gailendu nahi den hezkuntza politikako erabakia, familiei laguntza ekonomiko zuzena emateko sistema baztertuta, mailegu sistema dela. Dena den, ikasketetarako laguntzen ohiko finantzazio sistemarekin (bekak) uztartuta, kudeaketa solidarioko programa erabat ezartzea lortzen den arte.

Bistakoa denez, hori erabaki askeko eremua da eta zenbait aukera egon daitezke, eta guztiak zilegi dira. Baina egia da mailegu sistema edo kudeaketa solidarioko sistema sustatzeko erabakia hartu baldin bada, sistema hori ezartzerakoan bazterkeriako arrazoi gisa har daitezkeen tratamendu desberdinak izan ez daitezen arduratu beharra dagoela. Azken batean, hori da erakunde honetara jo duten familien kexan gailendu nahi dena.

Izan ere, horri dagokionez, aipatu behar dugu programa horren ezarpena itunpeko ikastetxeen sarean atzeratuko dela adierazteak soilik ez duela esan nahi hori baztertzeko arrazoia denik. Gainera, ezin da ulertu desberdintasun hori bidegabekoa denik eta irizpide objektiboetan eta arrazoizkoetan oinarrituta ez dagoenik. Sailburuak berak 2008ko maiatzean Legebiltzarrean egindako agerraldian xehetasunez azaldu zituen mailegu programa edo kudeaketa solidarioko programa horri dagozkion datu ekonomikoak.

Alabaina, ez da gauza bera gertatzen, gure iritziz, 2008-2009 ikasturterako onetsi diren instrukzioen beste alderdi batzuekin, Ikastetxeetako eta Hezkuntza Berrikuntzako zuzendarien 2008ko ekainaren 13ko Ebazpenaren bidez. Kexa aztertzean horietaz ohartu gara.

Beraz, gure hasierako parte-hartzea planteatzerakoan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunen aurrean, adierazi genuen programa horri uko egitea eta unibertsitatez kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketetarako urteko laguntzen deialdian parte-hartzea bateragarri ez izateak, praktikan, finantzaketa alde batzuk dakartzala eta, gure ustez, ez dira azaltzeko errazak.

Lerro batzuk lehenago aipatu dugun azken Legebiltzarreko eztabaidan (2008ko urriaren 10eko Eusko Legebiltzarrearen osoko bilkura), zenbait ahotsek programa horren zenbait alde berrikusteko eta orrazteko beharra dagoela plantatu zuten. Horri dagokionez, onetsitako

ebazpenak berak bultzatzen du programaren jarraipenerako urteko ebaluazioen emaitzei erantzuteko beharrezkoak diren hobekuntzarako jardunak gauzatzera.

Horregatik, gure asmoa berriz ere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunengana jotzea da, hobekuntzarako lan horretan erakunde honetan antzemandako aldeak aztertzea barnera dezaten sustatzeko.

Bestalde, zenbaitetan esleitzen diren beka eta laguntzak benetako errentagarritasunaren irizpideekin bat etorriz sustatzeko hezkuntza administrazioak aitortutako ahalegin bereziak sortzen dituen arazoak aipatu behar dira.

Zenbait kasutan, erakunde honek hezkuntzako arduradunen jarrera ulertu du, esaterako, foru ogasunek kooperatibei egindako ekarpenek sorturiko errendimenduei ematen dieten tratamendu fiskalaren berri eman duenean, kapital higigarriaren errendimendu gisa hartuta.

Alabaina, ez gaude ados, ikasketen aldeko laguntzen eskaerak kudeatzerakoan, aurretik egindako gastuen konpentsazio gisa enpresak edo enplegatzaileak ordaindutako zenbatekoen tratamenduari buruzko bere jarduerarekin. Gai horrek bere garaian [2007ko martxoaren 2ko Ebazpena](#)⁶ igortzea ekarri zuen.

Azkenik, dituen ezaugarri bereziak kontuan hartuta, laguntza eskaera baten kasua ekarriko dugu mahai gainera. Laguntza eskaera bat atzera bota zen, eskatzailea beka baten onuraduna zelako eta urtero argitaratzen den deialdiak ez duelako ahalbidetzen ekitaldi berean beka bat baino gehiago jasotzea, hainbat ikasketa batera egin arren. Adibide gisa hartu dugun kexa lehen hezkuntzako ikasle batena da, dagoeneko bekaduna da eta laguntza jaso nahi du egiten ari den musika ikasketetarako.

Ikastetxeak. Instalazioak

2007. urtean, hezkuntza-premia berezien ezohiko txostenaren jarraipenaren jardun espezifikoa planteatu genuen, traba arkitektonikoak ezabatzeari dagokionez.

Gauzatutako kudeaketak gorabehera, ezin izan genuen jakin ikastetxeen irisgarritasunaren benetako egoera adierazten duen mapa ote zegoen eta irisgarritasun osoa lortzeko dauden aurreikuspenak zein ziren.

Jasotako kexetatik ondoriozta daiteke zenbait ikastetxetan irisgarritasuna ez dela erabatekoa. Beraz, irisgarritasun arazo berriak aipatu behar ditugu eta, zorionez, dagoeneko konpondu dira. Basauriko udalerrian, Bizkaian, bizi den familia batek Etxebarrira aldatzea

⁶ Arartekoaren ebazpena, 2007ko martxoaren 2koa. Horren bidez, amaitutzat ematen da ikasketen aldeko laguntzen eskabideak kudeatzerakoan, aurretik egindako gastuen konpentsazio gisa enpresak edo enplegatzaileak ordaindutako zenbatekoen tratamenduari buruzko bere jardura.

zeukan aurreikusita, bere semearentzat inguru irisgarriagoa izateko eta, paradoxikoki, udalerrri horretako ikastetxe publikoan –Barandiaran LHI– traba arkitektonikoekin lotutako arazoak topatu zituzten. Alabaina, azkenean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak neurri egokiak hartu zituen eta seme horren eskolatzeko normala bermatua gelditu zen.

Aurreko ekitaldian aipaturikoarekin bat eginez, ikastetxeetako instalazioen egoerari lotuta izapideturiko kexen multzo osoa haur hezkuntzako lehen zikloari buruzkoa zen, gehienak, Haurreskolak Partzuergoak kudeatutakoak.

Zorionez, interesatu garen kasuetan erreakzioa azkarra izan da eta behar bezala bideratu ahal izan dira planteatutako premiei eman beharreko soluzioak. Hori gertatu da, esaterako, San Inazio-Intxixu (Bilbo) eta Derioko haurreskoletan.

Zerbitzu osagarriak. Garraioa

Baieztatu dezakegu eskola adineko kideak dituzten familiengan kezka gehien sortzen dituen ataletako bat eskola-garraioa dela.

Ohiko gisa har ditzakegun kexen tipologiaren barruan, ikasketak ikastetxe publikoetan, hezkuntza administrazioak zerbitzua ematea aurreikusita dagoen hezkuntza mailatan, egiten ari diren eta, zenbait arrazoi direla medio, garraioaren ibilbideekin bat egiten ez dutelako, erabiltzaile izan ezin diren ikasleen kasuak daude. Kasu horietan, gure eginbeharrak zalantzan jarritako erabaki administratiboa behar bezala eta nahikoa arrazoituta dagoen gainbegiratzean datza eta ezin zaio heldu, besterik gabe, garraiorako banako diru-laguntza deritzonak izatearen araudioari.

Hori gertatu da, esaterako, Artzentalesko Gorgolas auzoan bizi den familia batek hala eskatuta, izapidetutako kexaren kasuan. Zerbitzuaren esleipenduna den garraio-enpresak zenbait eragozpen planteatu zituen auzo hori eskola-garraioaren ibilbidean sartzeko. Horri lotuta, sarbiderako zailtasunak adierazi zituen, bai bideen egoeragatik, baita auzo horretara joateak ibilbidearen iraupena luzatuko zuelako ere. Pentsatzen dugu, enpresak alegatutakoari tratamendu egokia emateko, Eskola-Garraioaren Zerbitzuko langileek eta Ikastetxearen Zuzendaritzak berak, aurrerago, lekua bisitatu zutela. Bisita horren ondoren, txostena egin zen, ibilgailua leku horretaraino ez joateko garraioaren “komentziari” buruzkoa. Horretarako honako arrazoiak ematen dira: *“..Auzo horrek errepide estua eta oso bihurtu du, sarreran malda gogorarekin eta Artzentalesetik Turtziozeko irteeran barrera gabeko trenbide-pasagunea egoera nahiko eskasean.”*

Kexa horren antzekoa da Sopuertako Obekuri auzoan bizi den familia batek hala eskatuta orain izapidetzen ari garena. Kexa hartan, hasieran, garraio-enpresak alegatutako trazu-dura zailtasunen ondorioz egin zitzaion uko zerbitzuari. Halaber, hori izapidetzean hainbat hausnarketa planteatu genituen barneko zerbitzua antolatzeke aukera guztiak agortzeko beharrezko gainean, ezin baita baztertu banako diru-laguntzek ez dutela ahalbidetzen euren familiako beharrak eta behar profesionalak uztartzea.

Zorionez, kasu horretan ere, hezkuntza administrazioak barneko garraio zerbitzua antolatze-ko aukerak planteatu zituen berriz.

Gainera, egiaztatu ahal izan dugu, kexa kopuru handi batean, kexagileak ez daudela ados hasieran konfiguratu ez diren mailetarako garraio zerbitzua ez zabaltzearekin. Horiek, hain zuzen ere, batxilergoko eta lanbide heziketako ikasketak beste udalerrri batzuetan egiten dituzten ikastetxe publikoetako ikasleak dira. Zalantzarik gabe, kasu horretan hainbat botere publikok markatu nahi dituzte esku hartzeko urratsak, hezkuntza maila horietako eskola-garraioa zabaltzea kontuan har dadin.

Agian, arazo nabarmenagoa da garraio publikoaren sarearen bidez lotura onak ez dituzten udalerrietatik datozen ikasleak jasotzen dituzten eta eskualde mailakoak izatera iritsi nahi duten ikastetxeetan. Horri dagokionez, txalogarriak dira hezkuntza administrazioari hainbat zerbitzu, tartean diren administrazio guztien aurrean, garraioen eta ikasleen ordutegiak, maiztasuna eta ibilbideak bateratzearen alde egiten diren kudeaketak.

Gainontzean, konpentsaziozko politikak garraio espezifikoak ez izateak sor ditzakeen kalteak arindu behar ditu, ikasketa mota horrentzako ere jarraitzen da. Lehen aipatu ditugun banako diru-laguntzen aurrean, beste maila horietako ikasleek urtero argitaratzen den beken deialdi arruntan barneratutako diru-laguntzak dituzte. Deialdi horretan bereziki jasota daude joan-etorrietara bideratutako diru-laguntzak.

Azkenik, amaitzeko, aipatu behar dugu eskola-garraioaren zerbitzuak dituen segurtasuneko baldintzen inguruan gauzatu dugun ofiziozko jarduna.

Jakina denez, erakunde honek beti jarraitu ditu kezka handiarekin eskola-garraioaren segurtasuneko baldintzak. Adibide gisa aipatuko dugu 2004ko Eusko Legebiltzarreko Txosten arruntan adierazi genuen jardura (2004ko Txostena, II. kapitulua, 4.2. atala). Orduan, gure esku-hartzea amaitzean eta kexa aurkeztu zutenek eta hezkuntza administrazioak adierazitako kezkarekin bat egin genuela adierazi ostean, agerian utzi nahi izan genuen arlo horretan jarraipen berezia egin beharra zegoela, indarrean zen legeriak definituriko esparruaren baitan, eskola-garraio hobea eta seguruagoa lortzeko beharrezko neurri guztiak ezartzen saiatzeko.

Ordutik, arau aldaketa interesgarriak izan dira. Esaterako, 965/2006 Errege Dekretuak, irailaren 1ekoak, Zirkulazio Araudi Orokorra aldatzen duenak, burutu du apirilaren 8ko 2003/20/EE Zuzentarauaren transposizio prozesua. Aldaketa horiekin, orain arte eskola-garraiorako eta adingabeen garraiorako aplikatzen zen araudi juridikoa aldatu da eta garraio-mota horretara bideraturiko ibilgailuek segurtasuneko gailuak erabiltzerakoan Zirkulazio Araudi Orokorra edozein ibilgailurako eskatzen dituen betebeharrak, oro har, bete beharko dituzte.

Horretarako, Zirkulazio Araudi orokorraren 117. artikuluan (443/2001 Errege Dekretua, apirilaren 27koa) jasotako araudi espezifikoak oinarri gisa hartzeari utzi zaio –hori zen eskola-garraiora eta adingabeen garraiora bideratutako ibilgailuetan segurtasuneko gailuen

erabilera arautzeko aplikatzen zen bakarra– eta aipatu berri dugun araudi horren laugarren xedapen gehigarria barneratu da, espresuki adierazita hori aplikatu behar zaiela garraio-mota horretara bideraturiko ibilgailuei, baina ibilgailuen korridoreen aurrean dauden eserlekuetan segurtasuneko uhalen erabilera mantenduta.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jo dugu eskola-garraioaren zerbitzuaren egungo antolamendua eta, bereziki, zerbitzu hori erabiltzen duten adingabeen segurtasuneko baldintzak ezagutzeko. Hezkuntzako arduradunek Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Trafiko Zuzendaritzak aldi berean bildu duen informazioa eman digute.

Beraz, horri esker, egiaztatu ahal izan dugu eskola-garraioaren zerbitzuaren antolamenduan segurtasuneko uhalak erabiltzeari dagokionez eska daitezkeen segurtasuneko baldintza guztiak betetzen direla.

Eskola-jantokiak

Atal honetan, eskolaren konplexutasunaren eta dinamikotasunaren barruan errealitateak ekar diezagukeen ikuspegi aniztasuna adierazten duen kasua jaso nahi genuke. Laburbilduta agertuko dugun kexa ongi konpondu da. Adingabe zeliako baten gurasoek aurkeztu zuten kexa. Izan ere, adingabea jantoki zerbitzuaren erabiltzailea zen eta gainontzeko jankideen pareko eta haren gaixotasunera egokitutako menuak izateko zailtasunak zituen.

Hezkuntza Sailak gure lankidetzaren eskaerari erantzunez egindako txostenean adierazi zuen guraso horiekin harremanetan jarriko zirela laster eta bertan idatzitakoan aurreratu zigun ikasle horrek elikaduraren mailan dituen berezitasunak behar bezala hartuko direla kontuan.

Kaltetuen kopurua handia dela eta, Bilboko haurreskoletan jangela zerbitzua kentzeko erabakiaren gainean aurkeztutako kexa aipatu nahi dugu.

Kexa horren inguruan esku hartzeko aukerak kontuan hartzean, erakunde honek ezin izan du ahaztu autonomia erkidegoan haurrentzako hezkuntza-laguntza zerbitzu horren egoera. Gauza jakina da, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berezko eskaintzaren buru izateari uko egiteko eta Haurreskolak Partzuergoaren formularen bitartez udal ekimenaren lankidetzaren lortzen ahalegintzeko hartutako erabakiaren ostean, eskaintza horri atxiki zaion udalen kopurua pixkanaka handitzen joan dela eta Bilboko Udala dela horietako bat. Gaur egun, partekatutako eskaintza hori EAEko udalerriri ugaritara zabaldu da. Beraz, praktikan, zero eta urtebete arteko tartean eskaintza publikoaren %70 inguruko portzentajea da eta %62 koa urtebete eta bi urte arteko tartean.

Onetsi diren baldintza nagusiekin bat etorritik, Partzuergoaren mende dauden haurreskolek ez daukate barne kudeaketako jangela zerbitzurik. Beraz, bazkariei dagokienez eta familiei ematen zaien informazioan azaldutakoaren arabera:

“•Familia bakoitzak aukeratuko du, janaria etxetik eraman nahi duen, edo, Haurreskolak Partzuergoak enpresa hornitzailearekin itundutako baldintzetan, catering zerbitzua erabili nahi duen, betiere hori bideragarria denean.

- *Catering zerbitzua erabiliz gero, zerbitzu horren kudeaketa familiek egingo dute, haurreskolen funtzionamendu-araudian ezarritako irizpideen arabera.*
- *Nolanahi ere, catering zerbitzu horren kostua ez da hileko kuotan sartzen.”*

Badirudi errealitate horrek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari Haurreskolak Partzuergoko haurreskola guztietan jangela zerbitzua progresiboki ezartzeko eskatu dizkioten ekimen parlamentarioei erantzun diela, eskola bakoitzean jangela zerbitzua eskaini ahal izan dadin instalazioek horretarako aukera ematen duenean edo, halakorik ezean, catering zerbitzua, jangela zerbitzuaren prezioak gainontzeko ikastetxe publikoetakoen arabera homologatuta.

Baina, edonola ere, –eta hori da, azken batean, nabarmendu nahi genukeena–, Haurreskolak Partzuergoak osatutako hezkuntza-laguntzako eskaintzak bazkarien zerbitzua izateko aukera jasotzen du soilik, catering zerbitzuaren bitartez, eta zerbitzu horren kudeaketa familien erantzukizuna da.

Testuinguru horretan joan da zabaltzen EAEn zero eta bi urte arteko haurren arreta eta Bilboko Udalak onartu du modu osagarrian bere gain hartu duela udalerriko haurreskoletako jangela zerbitzuaren kudeaketa.

Bistakoa denez, hartutako erabakiak zailtasun handiak dakartza, bereziki, azken urteetako jardunean oinarrituta familiak haren ohiko luzapenean konfiantza izatea lortu bada. Horri dago-kionez, ezin da ukatu eragozpen horien garrantzia. Batetik, zerbitzua familiek hartu behar dute euren gain eta, bestetik, doakotasun araudia amaitzea, ordura arte eman denaren arabera.

Baina, izaera osagarria duen zerbitzua izanik eta zerbitzu horri ezin zaionez eskubide izaera aldarrikatu, ezin da eskatu horren ondorioz etor litekeen itundutako hitzarmena luzatzeko udal betebeharra, ezta ikasturtea hasita dagoenean ere, udalak onartu badu ere 2008. urtearen amaiera arte behin-behineko egokitzapeneko epea ezartzea.

Erakunde honen iritziz, aurrerantzean jangela zerbitzu gehiago ezarri ahal izateko bultzatuko diren ekimenak (administrazio titularren inplikazio handiagoa kudeaketan, familien gastua ordaintzera bideratutako laguntza publikoak areagotzea, eta abar) modu koordinatuan eta bateratuan sustatu beharko lirateke EAeko haurreskola guztientzat. Are gehiago, haurreskola mota horiek lehen haurtzarora bideratutako hezkuntza-laguntza eskaintza publikoari dagokionez lortu duten pisu erlatiboa kontuan hartuta.

Gure ustez, hori da aipatutako zerbitzuaren hobekuntza sakontzeko bidea, familien beharrak eta adingabe guztientzat benetako aukeren berdintasuna bermatzeko helburu garbia gehiago eta hobe uztartzea, hezkuntza-laguntzako arreta horiei zuzenduta baitago.

Unibertsitateko irakaskuntza

Atal honetan, irakaskuntza mota horretako beka eskaerak ezestearekiko, nagusiki, baldintza ekonomikoak ez betetzeagatik, desadostasunean oinarritutako kexak errepikatu dira. Espediente horietan, gure funtsezko helburua sail jarduleak egindako kalkuluaren zuzenketak eta deialdiaren aurreikuspenekiko egokia den egiaztatzea mugatuta dago eguneroko jardunean.

Izan duten interes berezia dela eta, bizi diren lurraldetik kanpo ikasketak egiten ari diren eta dauden garraio-aukerekin joan-etorriak egiteko zailtasunak dituzten unibertsitateko ikasleek egindako kexen iruzkina sartuko dugu. Kexek bidaiariaren garraiara zuzendutako enpresa pribatuek hartutako erabakiekiko desadostasuna adieraztea dute helburu.

Egoera horrek (entitateen izaera pribatua) gure esku-hartzea luzatzea eragozten zuen, Euskal Herriko Unibertsitateak gai horri buruz izan dezakeen jarrera etorkizunean aztertu badezakegu ere, horri buruzko kudeaketak egiten hasia edo hastekoa baitzen.

Kexa batzuen arazoak esparru akademikoarekin zerikusia daukate: irakasgaien ordutegiak eta beste maila batzuetakoekin batera horiek jarraitu ahal izateko zailtasunak, amaitu gabeko ikasketei berriz ekiteko erabakia hartzea, indarrean den ikasketa planera egokitu behar izanda, fakultateetan erabilitako irizpideak Erasmus programaren baitan atzerrian egindako irakasgaiak baliozkotzeko orduan...

Uka ezin daitekeen garrantziagatik, ikasteko eskubideari eragin diezaioken neurrian, nahiz eta labur-labur izan, unibertsitate sartzeko probak ("selektibitatea") ez egitearen inguruan izapidetutako kexaren kasua -ikasleak ezin izan zituen hautaprobak egin gaixotasun batengatik. Kasu horretan, espedientearen lekualdatze egokiaren bitartez, irailean aparteko deialdia egiteko aukera izan zuen erkidego honetatik hurbil dagoen unibertsitate batean (gogora dezagun EAEn ohiko azterketa ekainean egiten dela eta, ezohikoa, berriz, uztailen). Baina ez dakigu interesdunak aukera hori gauzatu ote duen. Era beran, pertsona batek Irakasteko gaitasunaren Ziurtagiria lortzeko ikastaroan matrikulatzeko hasieran izan zituen arazoak eta horrek eragindako kexa aipatzen dugu. Arazo horiek konpondu ziren.

Bizikidetasuna eta gatazkak ikastetxeetan

2007. urteari zegokion aurreko urteko txostenean iragarri genuen moduan, erakunde honek laster ezohiko txostena aurkeztea aurreikusi du, adingabeei eman beharreko baloreei buruz. Txosten hori ia amaituta dago.

Bestalde, "Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: zailtasunak eta arbuioak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta gizarteratzean" gaiari buruzko hausnarketarako eta parte-hartzerako Arartekoaren V. Foroan egiaztatu ahal izan da bullying edo eskolako jazarpen kasuak daudela arrazoi homofobikoengatik edo transfobikoengatik. Fenomeno horrek lotura dauka nerabeen eta gazteen sektore handi batek homosexuali-

tatearekiko eta transexualitatearekiko arbuioa eta kondena ideiak eta jarrerak izatearekin. Halaber, agerian gelditu da irakasleek sexu afektibitatearen aniztasunaren mailan prestakuntza egokia izateko beharra eta curriculumeko programek gai hori behar bezala barneratzeko beharra dagoela.

Aldi berean, Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen elkarteak, Gehituk, Gipuzkoako ikastetxeetan gauzatutako HDH (Hitz egin Dezagun Homosexualitateaz) programa ezagutu eta baloratu ahal izan da. Interes handiz jarraitu da, bestalde, Ombudsman suediarren esku-hartzea. Hark Suediako bazterkeriaren kontrako politika publikoak azaldu ditu. Politika horietan barneratutako neurrietako bat da, esaterako, ikastetxeak behartuta egotea nerabe homosexualenganako edo nortasun transexuala daukaten nerabeenganako tratu berdintasuna bermatuko duen plana egitera.

Tamalez, aipatu beharra daukagu, jardun espezifiko horietatik kanpo gelditu dela gure ustez, hezitzaileak eta familiak elkarrengandik urrun egotea berdinen arteko jazarpen kasuei aurre egiteko.

Familiako seme-alabak jazarpenaren biktimak direnean, kasu batzuetan neurriak ez dira nahikoak eta, azkenean, beren burua ingurunez aldatzeko beharrean ikusten dute. Beste kasu batzuetan, aldiz, jazartzaileen gurasoen kexak ere izaten dira. Izan ere, uste dute beren seme-alabak gehiegizko neurrien menpe daudela.

1.5

FUNTZIO PUBLIKOA

5. FUNTZIO PUBLIKOA

2008an, Funtzio Publikoan 128 kexa jaso dira. Zifra horrek planteaturiko erreklamazio guztien % 10,09 adierazten du. Horrenbestez, esan daiteke Funtzio Publikoa oraindik ere jarduerarik handienetarikoa dela erakundearen barruan, izapidetutako gai kopuruari dagokionez.

Kexa horien eraginpeko administrazioak honako hauek izan dira:

- EAeko administrazio nagusia (Eusko Jaurlaritza)	57
- Tokiko administrazioa	27
- Foru administrazioa	12

Edukia kontuan hartuta, beste alde batetik, kexak honako azpiatalekin lotuta egon dira:

- Hautapena	51
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	18
- Beste eskubide eta betebeharrak	13
- Ordezkapenak	11
- Lanpostuen hornidura	9
- Ordainsariak	7
- Lizentziak eta baimenak	6
- Hizkuntz normalizazioa	6
- Eskubideak eta askatasunak	2
- Beste alderdi batzuk	2
- Irisgarritasuna	1
- Lanpostuen zerrenda	1
- Administrazio egoerak	1

Sarrera

Sarbideari lotutako alderdiei buruzko lehenengo atal honetan, nahitaez aipatu behar da Gas-teizko Udalak 2007an egindako enplegu publikoaren eskaintza. Izan ere, eskaintza horrek kexa asko eragin ditu.

Hautagai kopuru handiaren desadostasuna eragin duen gaietariko bat gaztelaniaren eza-gupenak baloratzeko probaren eraketa izan da; hain zuzen ere, A eta B titulazio taldeen barruko lanpostuetarako oposizioak egin dituzten pertsonak, baita 3. hizkuntza-eskakizuna (euskara) duten C taldeko bi lanpostuetarako oposizioak egin dituztenak ere.

Gure esku-hartzea eskatu duten pertsonen iritziz, galdeketa administrazio hizkera erabiltzea baloratzera bideraturik zegoen, eta ariketarako ezarritako oinarrien edukia gainditzen zuten ezagupenak behar zituen.

Galdeketa zehatz aztertu ondoren eta udalak azaldutako arrazoiak baloraturikoan, [2008ko irailaren 9ko Ebazpena](#)⁷ egin dugu; bertan, oinarri egokiak ezarri ondoren, proban inplikaturiko arloetan ateratako ondorioak azalduko ditugu.

Ondorioak kontuan hartuta, uste dugu ez dagoela bermatuta egindako probaren eta deialdirako lanpostuetako funtzioen nahiz lanen arteko egokitzapenaren zaintza.

Halaber, hautapen organoen diskrezionalitate teknikoak ez ditu babesten deialdia euskarritzen duten arauzko elementuen urratzeak, akatsak nahiz beste zehaztugabetasun batzuk.

Horri dagokionez, galdeketa aztertuta ondorioztatu dugunez, datu nahikoa dago deialdiak arauturiko elementu bat ez dela errespetatu esateko; hain zuzen ere, esaten zen proban gaztelaniako gramatikaren, ortografiaren eta hiztegiaren ezagupenak baloratuko zirela. Datu horien artean, aipagarria da eduki horretatik kanpoko beste zientzia eta arlo batzuetako ezagupenak eskatzea eta Espainiako Errege Akademiaren Hiztegian jaso gabeko adierazpenak nahiz ahots latindarrak erabiltzea, baita siglak eta laburdurak erabiltzea ere; izan ere, horiei dagokionez, euren esangura jakitea eskatzen zen, eta ez beren eraketari buruzko arauak.

Probaren ohiko administrazio hizkera ere aztertu dugu. Arlo horretan, gure ustez beharrezkoa da bakuntasuna eta zuzentasuna bilatzea, batez ere kontuan hartuta helburua hizkuntza baten menderapena baloratzea dela, eta, gure iritziz, hori ez da bete.

Gure aurreko txostenean (2007), txostena prestatzen ari ginenean jasotako kexa bat aipatu genuen. Kexa horretan nazionalitatearen baldintza ezartzeko modua legearen araberkoa izatea jartzen zen zalantzan, Transportes Urbanos de Vitoria, SA (TUVISA) enpresak iragarritako deialdian, gidari/jasotzaile lanpostuak betetzeko.

Aurten, erakundeak onartu egin du deialdiaren oinarriek urratu egiten dutela Estatuan legezko egoitza duten EBtik kanpoko atzeritarrek herri-administrazioetan lan-kontratadun langiletzat lanpostua lortzeko duten eskubidea, eta jakitera eman digu hurrengo deialdien oinarrietan egokitzapena jasoko dela.

Bestalde, administrazioek, zorionez, onartu egin dituzte motibazio handiagoarekin lotutako eskakizunak, erakunde honek aspalditik planteatu dituenak. Horren adibidetzat, aipagarria da Udaltzaingoko udaltzain kategoriarako hautagai batek aurkezturiko kexa; hain zuzen ere, kalifikazio-epaimahaiak ez zizkon esan nahi izan proba psikometrikoak kalifikatzeko irizpideak.

Administraziora jo ondoren, horrek esan zuen nahikoa zela ebaluazio parametroei eta bakoitzean lortzeko moduko puntuazioari buruz emandako informazioa, eta ez zela egokia hautagaiari berak egin beharreko probari esleituriko balorazio zehatza jakinaraztea.

⁷ Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 09koa. Horren bidez, amaitu da Gasteizko Udalak, 2007. urterako enplegu publikoaren eskaintzan, gaztelaniaren ezagutza baloratzeko jarritako test moduko proba dela-eta egin diren kexen azterketa.

Gure ustez, administrazioak horretarako eman zituen zergatiek ez zuten ezezkoa arrazoitzen, eta, beraz, berretsi egin dugu hautagaiak eskubidea duela proba gainditzeko eskatzen zaizkion ezagutzei, gaitasunei edo trebetasunei buruzko informazioa jasotzeko, baita esleitu zaion kalifikazioa bermatzen duten arrazoiei buruzko informazioa jasotzeko ere.

Azkenik, administrazioak onartu egin du gure eskabidea, eta erakunde honi eta hautagaiari idazkia bidali digu hautagaiaren emaitzei buruz, batik bat gainditzeko gutxienerako puntuazioa lortu ez duen probaren atalari buruz.

Nolanahi ere, aipatzekoa da esku-hartzea hautapen organoaren jarduketan arrazoiketaren ordenan egin dela, eta ez dela eskaturiko profilararen egokitasuna baloratu, arlo horretan administrazioak eskumena baitauka kasuan kasuko lanpostuen eskakizunetarako irizpide tekniko eta puntuazio atari egokiak finkatzeko.

Atal honen barruan, oso bitxia dela kontuan hartuta, Arabako Foru Aldundiak 2007rako egingako Enplegu Eskaintza Publikoaren esparruan iragarritako hautapen prozesuetariko baten hautagai baten kexa aipatuko dugu. Interesduna haurdun zegoen, eta sendagileek haurra edukitzeko balizko datatzat adierazi ziotena oposizioko probetariko baten biharamuna zen.

Haurra edukitzeak proba egitea ekidingo ziolakoan, hori guztia administrazioari jakinarazi zion. Administrazioak azterketa ospitalean edo etxean egiteko aukera eman zion, baina betiere azterketarako deialdi orokorrean adierazitako eguna eta ordua errespetatuz.

Erakunde honek bazekien zaila zela pertsona guztien partaidetzaren berdintasun-printzipioa eta hautagai batek oposizioko proba egiteko eskubidearen zaintza bateratzea, hori ezinbestez alegatzen eta egiaztatzen duenean.

Halaber, komunikabideen bitartez, jakin dugu Arabako Foru Aldundiak, eskaintza horren garapenean, gutxienez proba bat egin zuela antzeko egoeran eta ospitalean zegoen hautagai bati.

Hala eta guztiz ere, gure iritziz, bidezkoa da foru-arduradunei jakitera ematea deialdi bakararena arau orokorra dela eta salbuespenak izan ditzakeela, horiek ondo alegatu eta justifikatuz gero. Halako egoeren tratamenduak beti ez du aukerarik ematen probaren eguna eta ordua mantentzeko, eta, beraz, formulak sortu behar dira, beste data bat ezarri arren berdintasun-printzipioaren errespetua bermatzen dutenak.

Horrela, justizia auzitegiek zenbait kasutan (justifikaturiko babes juridikoa merezi duten kasuak) onartu egin dute proba une desberdinetan egiteak ez duela nahitaz urratzen berdintasun printzipioa.

Gertaerek hartutako norabidearen ondorioz, hautagaiari proba deialdian sartutako gainetarako pertsonekin batera egiteko aukera sortu zitzaion, eta, beraz, amaitutzat hartu dugu gure esku-hartzea.

Espedientean hau ondorioztatu arren, gure iritziz, oro har eta herri-administrazio guztiak barruan hartzen dituen eremuaren barruan, eztabaida oraindik ere irekita dago, egoera hori beste hautaketa prozesu batzuetan berriro sor daitekeelako.

Beraz, administrazio bakoitzak hausnarketa egin beharko du, enplegu publikoaren eskuratzeko orduan hiritarren partaidetzaren bermeak handitzeko.

Euskal Herriko Unibertsitateak administrazioko eta zerbitzuetako langileriaren administrazioko laguntzaile eskalan karrerako funtzionarioztat sartzeko iragarritako hautaketa prozesuaren garapenak haserrea eragin du zenbait pertsonarengan, eta horiek erakunde honetan kexa aurkeztea erabaki dute.

Izan ere, kalifikazio epaimahaiak ukatu egin du Microsoft Excel XP modulua, IT Txartela ziurtagirien sistemako maila aurreratua, modulu horretako oinarrizko mailako ezagupenak egiaztatzeari dagokionez.

Oinarri arautzaileen arabera, hautagaiei oinarrizko maila eskatzen zaie, baina bat gatoz interesdunen haserrearekin; izan ere, modulu bataren eta bestearen edukia konparatuta ikusten denez, maila aurreratuari dagokion ziurtagiria duen pertsona batek gainditu egin behar izan du oinarrizko maila egiaztatzeko gutxieneko ezagupenak eskatzen dituen proba, azken ziurtagiri hori lortzeko probara aurkeztu edo ez.

Oinarrietan ezagupenok EHUK deitutako probara joanez egiaztatzeko aukera ezarrita egon arren (hautaketa prozesuen testuinguruan), gure ustez bide hori ez da beharrezkoa pertsona batek aldeztatik agiriaren bidezko egiaztapen egokia eta nahikoa duenean; esate baterako, maila aurreratuko ezagupenak frogatzen dituen egiaztapena duenean.

Gainera, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak horri buruz duen iritzia bermatu egiten du gure jarrera; erakunde horren ustez, hizkuntz eskakizunak egiaztatzearen arloan planteatzen den bezala, informatika gaitasuna IT Txartelaren bidez egiaztatzeak ezagupenen apurka-apurkako lorpenean euskarrituriko diseinuari erantzuten dio.

Txosten hau amaitzeko unean, kexa horien izapidetzeak bere bideari jarraitzen dio; orain, unibertsitateak gure azken oharren azalpenari buruz egiten duen balorazioa jakitearen zain gaude.

Bestalde, gure iritziz, interesgarria izan daiteke sartzeko deialdietan emakumeak diren balizko hautagaien aldeko erreserba antzekoa ezartzeko aukerari buruzko kexak ere jakinaraztea, generoaren araberrako eraginaren aurretiazko ebaluazioak neurri positiboak aintzat hartzen dituenen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

Jakina, ez dago arrazoirik funtzio publikoaren arloan bereizkeria positiboko neurri bat baztertzeko, helburua gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea baita. Izan ere, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiko epai garrantzitsuak daude horri buruz, eta epai

horiek edozein nazio-arau barruan hartuko duten mugak ezarri ditu, arau hori araudi komunitarioaren arabera dela esateko, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari dagokionez, enplegua, heziketa eta sustapena lortzearen arloan.

Hain zuzen ere, epai horietan ezarritakoa aintzat hartuta, enplegu publikoa lortzeko legezko eraketa generoaren ikuspegitik aztertzean, legegileak ez du ezarri lanpostuen ehuneko erre-serbarik (adibidez, ezgaitasuna duten pertsonen alde egiten duen bezala). Izan ere, hauxe ezarri du: gaitasunean berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaiela, emakumeek %40tik beherako ordezkaritza duten kidegoetan, eskaletan eta kategorietan, baldin eta beste hautagaiaren ezaugarriek (sexuaren arabera bereizkeria eragiten ez dutelarik) neurriaren aplikazioa justifikatzen ez badute. Eduki hauxe erantsi zaio EAEko Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/989 Legeko 27. artikuluari, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bitartez.

Azkenik, sarbideari buruzko atal hau amaitu baino lehen, Gipuzkoako Foru Administrazioaren zerbitzuko enplegatu batek eskatuta garaturiko esku-hartzea aipatu behar da; horrek lehen ere gure esku-hartzea eskatu du behin eta berriro.

Oraingoan, Diputatuen Kontseiluak Lehendakaritza eta Foru Administrazio Sailari buruz harturiko erabakiek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako salak emandako epaiek eragin dute pertsona horrek guri esku hartzeko eskatzea. Erabaki eta epai horiek honakoari buruz sustaturiko errekurtsoetan hartu dira: haurtzaroko nahiz gaztaroko erdi mailako teknikari bi lanpostu betetzeko oposizio lehiaketako praktika aldia ebaluatzeko batzordearen ebazpena (1/211 OP deialdia) eta psikologoko lanpostu baten deialdiaren hautaketa proben kalifikazio epaimahaiaren ebazpena (1/119 OP deialdia).

Lehenengo erabakiaren helburua psikologo lanposturako deialdiari buruz emandako epaia betetzea da: ezeztatu egiten dira bere garaian B gisa identifikatuko dugun hautagaiaren alde egindako izendapenak, eta, horren ordeztu, kexaren sustatzailea izendatu da (A gisa identifikatuko duguna), praktikako funtzionariotzat. Jakina, lehenengo erabaki horrek ez dauka aitzakiarik, egin duen bakarria psikologo lanposturako deialdia eragin duen pronuntziamentu judiziala onartzea eta betearaztea izan baita.

Lehenengo erabaki horren ostean, Diputatuen Kontseiluak, bilera batean, bigarren erabaki bat hartu zuen; hain zuzen ere, honako hau: (1) bere garaian A-ren alde egindako izendapenak ezeztatzea, praktikako funtzionariotzat eta, ondoren, karrerako funtzionariotzat egindakoak (haur eta gazteen teknikari ertaineko plazan), eta (2) B berriro sartzeko, praktika aldiari berriro heltzeko, haurren eta gazteen erdi mailako teknikaritzat.

Ikusten denez, bi deialdiekin lotutako egintza desberdinen arteko mendekotasun antzekoa ezarri nahi izan da, horren arabera pronuntziamentu judizialaren eraginezko derrigorrezko balioabetasunaren transmisioa justifikatzeko eta azaltzeko.

Hala eta guztiz ere, erakunde honen iritziz, egintza horiek zehatzago aztertuta ikusten denez, izatez ere ez dira prozedura bereko egintza lotuak. Aldiz, ondo bereizitako bi hautaketa

prozeduratan (1/119 OP eta 1/211 OP) hobeturiko egintzak dira; beraz, ezin dira konparatu zuzeneko mendekotasunarekin lotuta, eta, horrela, aldi berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedurari buruzko Legeko 64.1 artikuluan ezarritakoa ezin da erabili foru administrazio horrek epaiaren eraginpeko prozeduretariko baten derrigorrezko ikuskapenetik ondorioztatu nahi duen ezezpenerako.

Horri dagokionez, hautaketa prozedura horiek bereiz doazela aintzat ez hartzeak edo ahazteak arriskuan jar dezake segurtasun juridikoaren printzipioa; izan ere, haurren eta gazteen maila ertaineko funtzionario teknikorako bi lanpostu hornitzeko deialdia bi izendapenekin amaitu zen, eta horietariko bat, A-ri buruzkoa, egoitza judizialean berretsi zen. Foru administrazioak jakin egin behar du egintza honen irmotasuna, balizko ikuskapenerako bide guztiak agortu ondoren, nahiz eta psikologoko lanpostuaren deialdiari buruz emandako epaia derrigorrez betearazteak oztopo asko eragin; ondo jabetzen gara horretaz, baina uste dugu beste modu batera konpondu behar dela.

Nolanahi ere, Gipuzkoako Aldundiak bere erabakia berriro aztertzeko ahaleginak egin diren arren, azkenean eten egin behar izan dugu gure esku-hartzea, interesdunak justizia auzitegi-tara jo baitu.

Betetzea

Euskal Autonomia Erkidegoko karrerako funtzionarioentzako lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorretarako deialdiak kexak eragin ditu, lan-esperientziaren merezimenduaren balorazioari buruz.

Lehiaketa hauek arautu dituzten oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera, lan-esperientzia bezalako merezimenduak kasuan kasuko lanpostuko funtzioekin zerikusirik izanez gero baino ez dira baloratuko, erreferentziatzat lanpostuen indarreko monografia kontuan hartuta.

Horrenbestez, ñabardurak egin zaizkio aurretiazko lan esperientzia merezimendutzat hartzeko aukerari; horri dagokionez, lanpostu berean integraturiko zuzkiduretan garaturiko esperientzia eta administrazioiko beste lanpostu batzuetako esperientzia bereizi dira, erreferentetzat lanpostuen indarreko zerrenda (LZ) hartuta.

Gure ustez, aurretiazko esperientziaren balorazioa planteatzeko modu honek ez luke ondoriorik edo eragozpenik izango, proposaturiko korrelazio funtzional horrek (lanpostu desberdinetako zuzkidurak pilatuta) lotura hobezina edukiz gero, edo bilketa edo integrazio horren aurretik antolamendu mailako beste erabakirik egon ezean (zuzkiduren balizko eraldatzailatzat, etab.), lehiaketaren ondoretarako aintzat hartzen den aldian (azken zortzi urteak).

Baina ez da halakorik gertatu. Hain zuzen ere, oinarri espezifikoetariko batzuetan, irizpide orokor hori jaso ondoren, salbuespenezko balizko egoera horiek hartu dira aintzat, azterketa funtzionaletatik kanpoko lanpostuak arau orokorretatik salbuetsi dira edo ñabardurak egin

dituzte amortizaturiko lanpostuen kasuan, horietarako oinarritzat lanpostuari buruzko datu erabilgarrien azterketa hartuko dela esanez.

Dena den, erakunde honen esku-hartzea eskatu duten funtzionario batzuen ibilbide administratiboa aztertu ondoren, hausnarketa egitea komeni da, aurretiazko esperientziaren balorazioaren irizpide orokor horretan salbuespen berriak sartzeko, euren eremu funtzionalean karrerako itxaropenak murriztuta izan dituzten funtzionarioen kasuan. Gure iritziz, derrigorrezko lana da hori, EAEko Administrazio Nagusiak egin nahi duen berrantolamendu funtzionalak eraginpeko funtzionario guztiei aukera berdintasuneko lanbide sustapenerako aukerarik ez kentzeko.

Atal honetan, baina irakaskuntzaren arloan, aipagarria da Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren mendeko Irakasle Kidegoko funtzionario batek egindako kexa (behin betiko lantokia Donostiako ikastetxe publiko batean duen funtzionarioa). Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak prozedura hastea erabaki zuen, interesdun horri esleituriko lantokia ezeztatzeko, lekualdatzeen aurretiazko lehiaketa bat dela bide, horretarako hauxe esanez:

“El certificado de aptitud en el idioma euskera presentado por XXX no es una de las certificaciones idiomáticas reconocidas por el Decreto 47/1993 y sus modificaciones. Por consiguiente, XXX carece del requisito de perfil lingüístico exigido para serle adjudicado el puesto en el CEP (...) de Donostia en la especialidad de Educación Infantil, con Perfil Lingüístico 2 vencido.

La base trigésimo primera de la convocatoria de la Orden de (...), dispone que ‘podrá ser anulado el destino obtenido por cualquier concursante que no se haya ajustado a las normas de las convocatorias o no coincida con las características declaradas en la instancia y la documentación correspondiente’.”

Kasuari buruzko informazioa eskatu eta berme guztiak dituen ikuskapen prozedura behar dela ikusi ondoren (ikuskatu nahi zena lantokia esleitzeko adierazpen egintza irmoa baitzen), hezkuntza administrazioak hasitako prozedura behin betiko geldiarazita zegoela berretsi zigun.

Ordezkapenak

EHUko irakasleen ordezkapenentarako hautagaien zerrenda kudeatzeko indarreko araudian ezarritakoaren arabera, lanpostu elebiduna betetzeko deia jasotzeko, ezinbestekoa da euskaraz irakasteko gaitasuna edukitzea, Unibertsitateak onetsitako araudiaren arabera (EHUko errektoreordearen 2002ko ekainaren 5eko Ebazpena, Gobernu Batzordeak 2002ko maiatzaren 23an hartutako Erabakia argitaratzeko agindua eman duena; erabaki horren bidez, EHU Euskarazko Irakaskuntzarako Gaitasunaren Egiatzena Lortzeari buruko Araudia onetsi da).

Araudi horren arabera, euskaraz irakasteko gaitasuna bi modutan egiaztatu ahal da: horretarako dagoen proba gaindituta edo balioztatzearen bidez. Azken aukera horri dagokionez,

onetsitako araudiak unibertsitatekoak ez diren irakasleen bigarren hizkuntza eskakizunari (2HE) eta euskararen gaitasun agiriari (EGA) asimilaturiko tituluak eta ziurtagiriak berez balioztatzeko aukera ematen du; aldi berean, beste merezimendu batzuk balioztatzeko aukera ematen du, interesdunek eskatuz gero.

Ez genekien EHUK euskarazko irakaskuntzarako gaitasunaren egiaztapena lortzeko onartzen zituen merezimenduak zein ziren, eta aurkezturiko zenbait kexatan kritikatu egiten zen euskaraz egindako erdi nahiz goi mailako unibertsitate tituluak kontuan ez hartzea, EGA agiriarekin konparatzeko moduko hizkuntza gaitasuna onartzeari dagokionez; horrenbestez, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saileko arduradunengana jotzea erabaki genuen, horiek aukera hori berriro aztertu ahal izateko.

Esku-hartze horri erantzunez, hezkuntza arduradunek sendo berretsi dute ezinezkoa dela planteaturikoaren moduko onarpen bat hastea. Jarrera hori Hizkuntzetarako Erreferentziako Europako Esparru Komuna deritzon oinarrituz azaltzen da; izan ere, estandar horrek aukera eman du hizkuntza guztietarako maila batzuk ezartzeko, horietan oinarrituz ziurtagiria ematen duten erakundeek emandako tituluak konparatu eta homologatu ahal izateko.

Euskararen gaitasun agiria (EGA) ezagupen edo gaitasun aurreratuaren mailarekin bat dator (C1). Maila horren barruan zenbait trebetasun sartzen dira (entzumeneko ulermena, irakurmeneko ulermena, ahozko elkarreragina, ahozko adierazpena, idatzizko adierazpena), eta horiek, orain, ez dira lortzen erdi edo goi mailako unibertsitate ikasketak euskaraz eginda bakarrik.

Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak emandako informazioa kontuan hartuta, gure iritziz, ez da bidezkoa EHUrekiko jarduketarik hastea; izan ere, unibertsitate horrek egin duena aurretiaz ezarritako baliokidetasun araubidea zentzuz betetzea baino ez da, Hizkuntzetarako Erreferentziako Europako Esparru Komunean ezarritakoaren arabera.

Irakaskuntza sektorean, baina unibertsitatekoa ez den hezkuntza mailan, interesdun batzuei eragindako kalteak konpontzeko aukera eman duten kexa batzuk izapidetu dira. Esate baterako, haur hezkuntzan ordezenak egiteko interesa duen hautagai batek eskatuta izapideturiko kexa. Hain zuzen ere, 2006-2007 ikasturtean ez zioten utzi ikastetxe publiko batean lanaldi heren baten ordezena egiten, euskaltegi batean zuen arduraldi pribatuarekiko derrigorrezko bateragarritasunaren onarpena izapidetzeko aukera ukatu ziotelako. Azkenean, Hezkuntza Administrazioak onartu egin du bere akatsa, eta emandakotzat hartu ditu interesatuak 2006-2007an eskatu zituen zerbitzuak.

Hala ere, unibertsitatetik kanpo, gure ustez oso kezagarriak dira hezkuntza laguntzako adituen ordezkapen arrunterako dauden oztopoak.

Hezkuntzako arduradunek emandako informazioaren arabera:

"Azken urteotan, hezkuntza-laguntzako gero eta langile gehiago behar dira; are gehiago, azken 8 urteotan, bikoiztu egin da langile horien premia. Dena dela, ikasleen kopurua ez da horrenbeste hazi.

Horrezaz gainera, azken urteotan zehar, aldatu egin dira kategorien lanbide-profilak; izan ere, lehen hezkuntza-laguntzako laguntzaileak ziren eta orain, oster, hezkuntza-laguntzako espezialistak.

Ondorioz, euren lana hobetu egin da; bestalde, lehen klinika-laguntzaile (LH1) izatea eskatzen zitzaien eta orain, aldiz, Haur-hezkuntzako edo Gizarteratzeko goitekniakaria (LH2). Kontuan hartu behar dugu espezialitate horietako tituludunak gutxi direla –Sailak ahaleginak egiten dituen arren LHI sustatzeko– eta titulu hori nahikoa dela Haur-eskolen sarean –sare hori hazi eta hazi ari da– hezitzaile modura kontratatzeke. Horrenbestez, kontratatzeke moduan dauden langileak gutxi dira, hau da, horien kopurua mugatuta dago.

Horrez gainera, zailtasunak areagotu egiten dira hizkuntza-eskakizunak betetzen dituzten langileak lortu behar badira.

Hala eta guztiz ere, abuztuko azken egunetan betetzen dira hezkuntza-laguntzako espezialisten ikasturte osoko premia egonkorak, eta esan daiteke, orain arte behintzat, irailaren 1erako denak bete izan direla; dena dela, gero eta arazo gehiago ditugu lanpostu horiek betetzeko.

Behin ikasturtea hasi eta gero, premia horiek gorabehera, hainbat kontratu egiten dira lanaldi murrizketak betetzeko; izan ere, langile askok eta askok murrizketak eskatzen dituzte hainbat arrazoi direla eta: legezko zaintza (langileriaren %15ek, langile gehienak gazteak eta emakumeak baitira), liberazio sindikalak, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak (jarduera horiek gero eta gehiago programatzen dira), eta abar.

Kontratu horiek betetzea oso zaila da; izan ere, asko eta asko lanaldi murriztukoak dira, oso epe laburrekoak –sarritan egun bakarrekoak–, eta, gainera, gauak ematea ere eskatzen dute.

Ordezko gaien zerrendak kudeatzeko egun daukagun arautegiak ezartzen duenez, hainbat arrazoi eman daitezke eskainitako lanpostuei uko egiteko. Hona bermeak: lanaldi murriztuei eta gaua ematea eskatzen duten kontratuei uko egiteko bermea; are gehiago, ordezko gai ei deitu eta horiek uko egin ahal dute beste lanen bat badute beste administrazio edo enpresa batean. Egoera horiek justifikatu eta kontratuari uko egiten diotenez, hainbat dei egin behar dira egun gutxiko eta lanaldi murriztuko kontratuak betetzeko edo gauak ematea eskatzen dutenak betetzeko.

Beharbada berme horiek gehiegizkoak izan daitezke, baina geure buruari galdetzen diogu benetan kendu behar ditugun. Lan mota horien eskaintzak jasotzen dituzten langileen eta zerbitzu horiek behar dituzten ikasleen eskubideek talka egiten dute, argi eta garbi. Beste jarduera batean lanean diharduen langileari eskatu egin behar diogu jarduera horri uko egiteko egunean ordu gutxi batzuetan edo egun gutxitan lan egiteko?

Arrazoi horiek direla eta, gero eta zailagoa da hezkuntza-premia jakin batzuei arreta ematea.”

Interesen arteko oreka lortuko dela uste dugu, oraingo gorabeherak ahal den neurrian murriztu ahal izateko.

Atal hau amaitzeko, Osakidetzak administrazio laguntzaile kategoriako langileen beharri-zanak betetzeko aldi baterako kontratazio zerrendak kudeatu dituenean sorturiko agiriak lortzeari buruz izapidetutako kexa aipatuko dugu.

Bere nahiarekin zerikusirik ez duten arrazoieta oinarrituz, kexa sustatu duen interesduna berari zegokiona baino posizio baxuagoan egon zen zerrendan. Akats hori zuzendu ondoren, eta berari zegozkion puntuazioa eta posizioa berreskuraturikoan, Osakidetza eskabidea egin genion aldi horretan egindako izendapenei eta kontratuei buruzko informazioa emateko (interesatuari bere posizio zuzenaren arabera zegozkion izendapenak eta kontratuak). Administrazioak ez zuen gure eskabidea onartu, esanez administrazioen ondare erantzukizunaren prozedurak ez duela aurreitazko izapidetzerik ezartzen, erreklamaziogileak administrazioari erantzukizun-erreklamazioa formalizatzeko behar diren datuak eskatzeko.

Kexaren azterketa [2008ko urriaren 30eko Ebazpenarekin](#)⁸ amaitu da; horren bidez, interesatuari berak eskaturiko informazioa emateko gomendioa eman dio erakundeak Osakidetza. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak babestu egiten du administrazio-prozeduraren bateko interesdunek jarduketan egoera zein den jakiteko (izapidetzako edozein unetan) duten eskubidea. Halaber, legezko interesa duten hiritarrei aukera ematen die administrazio-artxiboetan dauden prozedura amaituei dagozkien agiri izendunak lortzeko, baldin eta agiriok pertsonen intimitateari buruzko daturik ez badute.

Baimenak eta lizentziak

Beti gertatu den bezala, atal honi buruz izapidetutako kexarik gehienak familiako eta lanbideko erantzukizunak hobeto bateratu behar izateak eragin ditu.

Esate baterako, Herrizaingo Saileko kontratudun enplegatutako batek eskatuta izapidetutako kexa; enplegatutako horrek lanaldia zortziren batean murrizteko eskabidea egin du, lanaldi jarraituaren araubidean, Segurtasun Administrazioako Laguntza Zerbitzuetako (SALZ) kontratudun langileen lanaldiei eta ordutegiari buruzko 2008ko zirkularra sinatu baino lehen.

Gure esku-hartzeari dagokionez, aditza eman nahi dugu, zenbait pronuntziamentu judizialean adierazitakoaren arabera, adingabeak zaintzeko lanaldi murriztapenetan manu hori (Langileen Estatutuko 37.5 artikulua) konstituzio aginduaren garapenaren barrukoa dela (Konstituzioko 39. artikulua); bertan, familiaren eta haurren babesa ezartzen da, eta helburu hori nagusitu eta orientaziotzat erabili behar da, interpretazioaren arloko edozein zalantza argitzeko, legezko zaintzaren betebeharrak lanaren antolamenduaren gainetik baitaude. Gure ustez, hausnarketa hau lagungarria izan zen Herrizaingo Saileko arduradunek hasierako ezezkoa berriro aztertzeko.

Beste beharizan batzuei dagokienez, aipatzekoa da sindikatu batek Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren jarduketari buruz aurkezturiko kexa, familiakoak hiltzen direnean ematen diren baimenei dagokienez, irakaskuntzako funtzionarioen kasuan. Lan-baldintzen

⁸ Arartekoaren ebazpena, 2008ko urriaren 30ekoa. Honen bidez Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzuari gomendioa egin zaio kexaren egileari eskatutako informazioa helaraz diezaion, zehazki, administrari laguntzaile kategoriako aldi baterako kontratazio zerrendak.

inguruko erabakien arabera, irakasleek hiru laneguneko baimena dute bigarren mailara arteko familiakoren bat hiltzen denean. Halaber, baimen horiek gertaera eragilearekin bat etorrita hartu behar dira.

Haserrearen eragileak irakasle batzuek azken hilabeteotan honako honen inguruan aurkezturiko keaxak izan ziren: familiakoak eguneko azken orduetan hil ziren, langileak bere irakaskuntza lana amaitu ondoren, eta Ordezkaritzari familiakoaren heriotza jakinaraztera joatean (baimena eskatu ahal izateko) horrek esan zien heriotzaren egun hori baimenaren barruko lehenengoa zela, eta, horrela, beste egun bi baino ez zitzaien gelditzen.

Gure esku-hartzearen ondoren, Langileria Kudeaketako zuzendariak esan du jarduera hori berriro aztertzeko asmoa duela.

2007an, Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundeko (GOFE) funtzionario batek jakitera eman zigun erakunde horrek ez zizkiola eman nahi haurdunaldiaren eraginezko aldi baterako ezgaitasunagatik 2006an hartu ezin izan zituen opor egunak.

Interesdunak Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko (aurrerantzean BLO) 59. artikuluan oinarrituz egin zuen eskabidea; bertan ezarritakoaren arabera, sortzapeneko ez den egutegiko urtetik kanpo har daitezke haurdunaldiaren, erditzearen nahiz edoskitzearen eraginezko aldi baterako ezgaitasunarekin edo amatasun baimenarekin zein hori edoskitzeko luzatzearekin bat etorri diren oporrak.

Foru erakundeak ez du onartu eskabidea; lehenengo eta behin, esan du aldi baterako ezgaitasuna gaixotasun arruntaren eraginezkoa izan dela; bigarrenez, BLOko 59. artikulua estatuko Administrazio Nagusiko eta horren erakunde autonomoetako enpleguentzako neurria jasotzen duela, eta, beraz, foru administrazioako enplegu baten kasuan ez dela aplikagarria; azkenik, esan du neurri hori sartzeari negoziazio kolektiboaren arlokoa dela, indarreko akordio arautzailean ez baitzegoen ezarrita, eta, gainera, berezko sortzapenaren hurrengo urteko otsailaren 1a finkatzen zen, oporrak hartzeko epemugatzat.

Erakundeari bere erabakia berriro aztertzeko eskatu ondoren (alferreko ahalegina), [2008ko martxoaren 14ko Ebazpena](#)⁹ onetsi zen; bertan, enpleguatari haurdunaldiaren eraginezko aldi baterako ezgaitasunarekin bat etorritako oporrak erabiltzeko eskubidea baimentzeko eskatu genion erakundeari.

GOFEK defendaturiko jarreraren aurka, haurdunaldiaren eta aldi baterako ezgaitasunaren arteko lotura egoera izapidetzeko agiri ofizialen eta langilean aurkezturiko osasun txostenen

⁹ Arartekoaren ebazpena, 2008ko martxoaren 14koa. Horren bidez, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari gomendatzen zaio keaxaren adierazle den langileari baimena eman diezaiola haurdunalditik eratorritako aldi baterako ezintasunarekin bat egin zuen 2006ko oporraldiaz gozatzeko.

bidez egiaztatu da. Horrela, gure ustez, betetzat hartu behar zen legean onarpena lortzeko ezarritakoa.

BLOk bi talderi dagokionez ezartzen du eskubide hori: Estatuko Administrazio Nagusiko eta horren organismo autonomoetako enplegatuak eta zerbitzu-lotura Langileen Estatutuaren arabera araututa duten pertsonak.

Hala eta guztiz ere, erakunde honen iritziz, EEko 14. artikulua benetako konstituzio-agin-duaren izaera dauka; bertan, legearekiko berdintasun printzipioa aldarrikatu eta sexuaren eraginezko bereizkeria guztiak debekatzen dira. Jakina da Konstituzio Auzitegiak berak ere bereizkeria ekintzen eragileztat hartzen duela, emakumeengan soilik eragiten duen elementu edo faktore bereizgarria baita.

BLO, izan ere, EEko 14. artikulua babesean sortu da, Europako Elkarrekin zuzentzarau bat Estatuko antolamendu juridikoan sartzeko. Bertako 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, sexuaren eraginezko zuzeneko bereizkeriatzat hartzen da emakumeen aurkako edozein jarrerara kaltegarri (haurdunaldiarekin edo amatasunarekin lotutako jarrerak).

Administrazio egoerak

Atal honetan aipagarria da aldi baterako zerbitzuetan (ordezkapenak) ibilbide luzea duen bitarteko irakasle funtzionario batek eskatuta jarraituriko jarduketa; hain zuzen ere, bere garaian erakunde honetan keza aurkeztu zuen Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak semea zaintzearen eraginezko eszedentzia edukitzeko aukera ukatu ziolako.

Halako kasuetan, EAEko Unibertsitatekan kanpoko Irakasle Funtzionarioen Lan Baldintzak Arautu dituen Akordioko xedapenen arabera (urriaren 23ko 182/2007 Dekretua; urriaren 31ko 210. zenbakiko EHAA), Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak "zerbitzu-ematearen etete iragankorra" izeneko egoera berean sartzeko aukera ezartzen du.

Hala eta guztiz ere, gure ustez, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak ez du saiatu behar aldi baterako izendapenak egiteko moduaren formalitate hutsa gainditzeko, etete iragankorraren egoera bereziari buruz esandakoaren ildotik (ikasturte hasieran lantokiak esleitzeko prozesuetan hutsik dauden lanpostuak erreserbatzea; egoera horretan gelditzeko aukera aintzat hartzea, Hautagaien Kudeaketa Zerrendaren baremoa berriro egitearen ondoretarako, etab.); azken batean, eskabidea egiten duten bitarteko funtzionarioei aukera eman behar die seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeko, baldin eta ukapena justifikatzen duen zergati objektiborik eta arrazoiturik ez badago ([2008ko azaroaren 18ko Ebazpena](#)¹⁰).

¹⁰ Arartekoaren ebazpena, 2008ko azaroaren 18koa. Horren bidez amaitzen da hezkuntzako bitarteko emakumezko funtzionarioei seme-alabak zaintzeko eszedentzia ukatzeko jarduna.

Aurten, erakundeak [2008ko abenduaren 11ko ebazpena](#)¹¹ ere eman du; hain zuzen ere, Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundeari (GOFE) gomendioa eman dio, eskabidea egiten duten karrerako funtzionarioei borondatezko eszedentzia onartzeko, sektore publikoan zerbitzuak emateagatik, lantoki berrirako atxikipena iraunkorra izan ez arren.

Gomendioak amaiera eman dio erakundeko karrerako funtzionario batek sustaturiko kexaren ikerketari; aipaturiko egoerara igarotzeko eskabidea ukatu ziotenez, uko gin zion beste herri-administrazio batek egindako lan eskaintzari (aldi baterako kontratazio zerrenda baten kudeaketan).

GOFEk arrazoibide bikoitzean euskarritzen zuen bere ukapena. Alde batetik, esaten zuen bitarteko egoeraren aldi baterako egoera ez zettorrela bat antolamenduak eszedentziaren adierazpena egiteko eskatzen duen kidego edo eskala batekoa izatearekin. Bestetik, Araudiko aldaketa baten indarraldia eta aplikagarritasuna adierazten zuen, Estatu Administrazio Nagusiko funtzionario zibilen administrazio egoerei zegokienez; aldaketa hori martxoaren 3ko 255/2006 Errege Dekretuaren bidez sartu zen, eta, horren arabera, bitarteko funtzionarioko edo aldi baterako langileko lanpostuak betetzeak ez du gaitzen zerbitzu publikoan zerbitzuak ematearen eraginezko eszedentziaren administrazio egoeran sartzeko.

Gure ebazpenak eztabaidatu egiten du arrazoibide hori; lehenengo eta behin, ukatu egiten du Administrazioak Estatuko araudiaren aldaketari eratzikitako oinarritzko araudi izaera. Horri dagokionez, Enplegatutako Publikoaren Oinarritzko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak oinarritzko aurreikuspenak jaso ditu, administrazio egoeren arloan, eta, indarrean sartu zenetik, indargabetu egin zuen abuztuaren 2ko 30/1982 Legeko manua, Funtzio Publikoaren Berrikuntzarako Neurriei buruzkoa; bertan, aztertzen ari garen eszedentzia-modalitatea zegoen jasota.

Egoera honetan, Euskadiko Funtzio Publikoari buruzko Lege berria egin arte, arlo horretako arauketa indarrean egongo da, harik eta Estatutuak sarturiko araudiaren aurka egiten ez duen arte.

Horrenbestez, honako hauek aplikatu behar dizkiogu kasuari: Euskadiko Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea eta azaroaren 11ko 339/2001 Dekretua, Euskadiko herri-administrazioetako funtzionarioen administrazio egoeren Araudia onetsi duena. Bi arauotako ezeinek ere ez du eszedentzia baldintzatzen karrerako funtzionarioa bere lanpostu berriarekin lotzen duen zerbitzu loturaren egonkortasunera edo iraunkortasunera. Legez, eszedentziaren modalitate hau finkoak ez diren funtzionarioen edo laneko prestazioei aplikatu ahal zaizkie.

Gainera, gure ustez, kidego eta eskala kontzeptuak ez dira karrerako funtzionarioei soilik aplikatzen; izan ere, bitartekotasun erlazioak lotu egiten du administrazioaren zerbitzuan lan

¹¹ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 11koa. Horren bidez, Arabako Gizarte Ongizaterako Erakundeari gomendatu zaio sektore publikoan zerbitzuak emateagatik borondatezko eszedentzia eskatzen duten karrerako langile funtzionarioei egoera hori onartzea, destino berrirako atxikipenak izaera iraunkorra ez badauka ere.

egiten duen pertsona, erakundean lanpostu bat betetzen duena; hain zuzen ere, betetzen duen lanpostuaren berezko funtzioak eduki eta karrerako funtzionarioen baldintza berberetan sartzen dira bertako langileria egituran, izendapenaren izaera iragankorraren eraginpean daudenen kasuan izan ezik.

Erretiroak

2008an ezkutuko ikastoletako arduraldia onartzeari buruzko kexak ere aurkeztu dira.

Oraingoan, hala ere, interesdunek, irakaskuntzakoak ez ziren jarduerak egin ondoren, zalantzan jartzen zuten aldi horien onarpena ez aplikatzea, Gizarte Segurantzarako kotizazioen ondoreetarako.

Bere garaian, Eusko Jaurlaritzak joan den urtarrilean egindako bilkuran harturiko erabakiaren berri izan genuen; bilkura horretan, Aurrekontuei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legeetik (berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarria) eratorritako ekainaren 15eko 788/2007 Errege dekretuaren benetako helburua aztertu zen; xedapen horiek, azken batean, EAEn euskarazko irakaskuntza jarduera egiaztatzeko ziurtagiria emateko onetsitako arauketaren aurrekariak dira (urriaren 9ko 172/2007 Dekretua).

Aurkezturiko kexak aztertuta ikusi dugunaren arabera, ukapena euskarritzen duten oinarri juridikoek Gobernu Kontseiluak bere garaian erabilitako arrazoibideak erabiltzen dituzte. Derri gorrezko hausnarketa batzuk baino ez dira gehitzen, berdintasun-printzipioaren irismenari buruz, aintzat hartuta bereizkeriazko balizko tratu bati buruzko alegatua, baita onarpen hori garai hartan ezkutukoak izandako ikastoletan garaturiko jarduera onartzera bideratzean kontuan hartu beharreko eskumen mailako baldintzei buruzko alegatua ere.

Beraz, orduan ondorioztatu genuen bezala, gure ustez erabaki hau nekez eztabaidatzeko moduko oinarri juridikoetan euskarritzen da. Horri dagokionez, euskarazko irakaskuntzako aldiak egiaztatzeko (aldiotan Gizarte Segurantzaren kotizatu dela onartzeko) ziurtagiri eskabideen inguruko legegintza aurrekarien azalpen ugariak zalantza gutxi uzten dute legegintza ekimena sustatzeko helburuari buruz (lehenengoz Estatuko 2007ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean jasotako ekimena): euskarazko irakaskuntza ezkutuan eman zuten andreñoi konpentsazioa ematea.

Halaber, aipagarria da Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen (GOFE) zerbitzuko bitarteko funtzionario batek aurkeztutako kexa; funtzionario horrek borondatezko erretiroko saria onartzeari buruz galdetu zuen.

Egia da, iraupen luzeko bitartekotasunari lotutako zenbait kasutan, konstituzio egoitzan onartu egin dela ez dagoela justifikaziorik bitarteko funtzionarioei tratu bereizirik emateko, karrerako funtzionarioei ematen zaien tratuari dagokionez; horrek, berez, kexari emandako ikuspegia azaltzen du. Hala eta guztiz ere, Konstituzio Auzitegiak adierazitakoaren arabera, berdintasun printzipioan oinarrituz, ez da zilegia euren arau juridiko sortzaileek onartu ez dituzten egoerak

onartzea, eta gure pronuntziamentua horretan oinarrituz ematen dugu; izan ere, Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeko Organismo Autonomoaren zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautu dituen bigarren Erabakiko 58.1 artikuluan hauxe baino ez da ezartzen: Erakundearen zerbitzurako langile funtzionarioei borondatezko erretiro sariak emateko aukera.

Ordainsariak

Atal honetan aipatzekoak dira EHUko irakasleen eta ikertzaileen gehigarriko osagarriak ebaluatzeko eta esleitzeko jarraitzen den prozesuari buruz aurkezturiko kexak, Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2007ko urtarrilaren 26an hartutako erabakiaren bidez iragarritako deialdiari dagokionez (otsailaren 19ko EHAA).

Unigual-EAeko Unibertsitate Sistemaren Kalitatea eta Egiaztapena Ebaluatzeko Agentzian bere garaian egindako kudeaketan ondorioz, erakunde horrek interesdunei jakitera eman zien agentziak konpromisoa zuela hartuta, garai hartan oraindik ere izapidetze aldiaren zegoen prozesu hori berme formaletara guztiz egokitzeko, berme horiek erabakigarriak baitira ebaluazioaren komite arduradunen jarduketara onartu bermatzeko eta, aldi berean, eraginpekoen benetako babesa segurtatzeko.

Horrela, justizia administrazioaren bideak irekita jarraitzen zuen bitartean, erakundeak ondorioztatu zuen unea heldu zela agentziak interesdunei euren aukera edo berme guztiak eskaintzeko, motibazio eskakizunak muturreraino eramanez.

Bestalde, baimenen arloan aipatu dugun sindikatuak ere bere kezka azaldu du, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren jardura baten inguruan. Oraingoan, zalantzan jarritako jardura bitarteko funtzionarioek bidegabeko zenbatekoak itzultzeari buruzkoa zen, ordainketak kalkulatzeko orduan akatsak egon baitziren. Kexaren zioa estu lotuta zegoen itzulketa hori kudeatzeko moduarekin (batzuetan, interesatuari alde aurretik ezer jakinarazi gabe, hilabeteari edo hilabetei dagozkien ordainketa guztiak atxikita (harik eta zor osoa ordaindu arte); zenbait kasutan, eraginpekoak egokitzapena egiteko lehenengo hilabetean bere ordainketak jaso ez dituen izan du lehenengoz arazoaren berri, etab.).

Berrito ere, gure esku-hartzearen ostean, Langileria Kudeaketako zuzendariak jardura hori ostera ere aztertzeko asmoa jakinarazi digu.

Hizkuntz normalizazioa

Gure iritziz, interesgarria izan daiteke kargu politikoa betetzen duen interesdun batek egindako kexa; pertsona horri hizkuntz eskakizunak egiaztatze proben sarbidea erraztu behar zaio, 4. eskakizuna egiaztatu ahal izateko.

Hasieran, gure esku-hartzea HAEEko arduradunei planteatu genien, horien ustez aipaturiko aukera baztertua eragiten duten arrazoietan sakontzeko. HAEEko zuzendariak esandakoaren arabera:

- HAEEren balizko jarduketa eremua, beste erreferente batzuen artean, Herri Administrazioan euskararen normalizatzeari lotuta egon behar da.
- Euskarak EAEko herri-administrazioetan duen erabilera normalizatzeko prozesuaren arauketa ikusi ondoren, hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko ohiko proben aplikazio eremu subjektiboa "*herri-administrazioen zerbitzuko langileria*" izan behar da.
- *Herri-administrazioen zerbitzuko langileria* hori, Euskadiko Funtzio Publikoaren Legean ezarritakoaren arabera, honako hauek osatzen dute: karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, behin-behineko langileak eta kontratuko langileak.

Ondorio horien arabera, HAEEko zuzendariak hauxe esan zuen: "*...HAEEK hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko antolatutako deialdi irekiak arautzen dituzten arauen esparru subjektiboan hautetsiak ez sartzea, ez da pertsona horiek deialdietatik kanpo uzteko oztopo formal hutsa: aplikazio orokorreko ordenamendu juridikoan, hautetsiek ez dute inolako obligazio pertsonalik euskararen erabilerari dagokionez, eta hortxe du oinarri materiala kanpo uzte horrek.*"

HAEEko arduradunen hasierako erreakzio horren eraginez, pentsatu genuen beharrezkoa zela gure esku-hartzearen esparrua zabaltzea, ea beste administrazio batzuetan deialdi askea eta irekia arautzeko aukera planteatu ote zen, euskararen ezagupenaren C2 maila egiaztatzeko interesa zuten hiritar guztientzat.

Beraz, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailerak jo genuen; jakitera eman genion, gure ustez, baimena duten hizkuntza-eskola ofizialek C2 mailaren ziurtagiria ematea (araubide askeko probak eginez) biderik onena izan daitekeela C2 maila (euskarazko gaitasuna duen erabiltzailea) egiaztatzen duen titulua edo ziurtagiria lortzeko, balizko interesdunak herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuen barruan ez daudenean; edo, aldi berean, helduen euskarazko irakaskuntza programetan sartu nahi ez dutenean (izan ere, euskaltegi batean matrikula formalizatzea derrigorrezko aurrekaria da Kultura Sailak ematen duen laugarren mailako ziurtagiria lortzeko).

Bigarren esku-hartze horretan eskaturiko informazioaren arabera, pentsa daiteke laster arautu egingo dela hizkuntza-eskola ofizialeko C2 mailaren curriculum eta ziurtagiria, eta hori, aldi berean, balioztaturiko C2 mailako tituluen eta ziurtagirien zerrendan sartuko dela. Baina, ordura arte, Kultura Sailak emandako laugarren mailako ziurtagiria kenduta, ikuspegi juridikotik begiratuta, ezin gara jarri HAEEK adierazitako jarreraren aurka; izan ere, jarrera horren arabera, hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko ohiko proben aplikazio esparru subjektiboa bat dator herri-administrazioen zerbitzuan dabiltzan langileak biltzen dituzten kategoriekin.

Bestalde, atal honetan hizkuntz eskakizunik gabeko bitarteko irakasleen taldeak erakunde honi berriro egin dion bitartekotza eskabidea adierazi nahi dugu.

Ulegarria da, irakaskuntzaren funtzio publikoan sartzeko beste hautapen-prozesu batea parte hartzean (oraintsu garatu den prozesua), bertan lehen bitarteko funtzionariotzat irakaskuntza-lanak egin dituzten hautagaien sarbidea sustatzeko ahalegina egin dutenez, berriro ere erakunde honen esku-hartzea eskatu izana; horrek, ostera ere, agerian jarri ditu euren oraingo lanbide egoeraren inguruko eragozpen larriak.

Izan ere, irakasle horien lehengo kexen kasuan ateratako ondorioen idazkian jasotakoa berretsi dugu (azken horiek “*egonkortasun-konpromisoa*” izenekoak ikuskatzean planteatuta); baina balizko edozein esku-hartze euren lanbide ibilbidearen jarraitasunean eragina izan dezaketen hezkuntza erabaki berriak hartu arte atzeratu dugu.

Beste eskubide batzuk

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarekin lotzen zuen zerbitzu ematearen erregulazioa eskatzen ari zen interesdun batek ere erakunde honen bitartekotza eskatu zuen.

Oraingoan ezin izan genituen konpondu bere eskakizun guztiak. Horrela, gizartearen arloko epaitegi baten epaiari buruzko gertaera frogatuak onartu arren, erakunde honek interesdunak hasitako prozesu judizialaren emaitzara jo behar izan zuen (garai hartan, erregu errekurtsoko fasean); izan ere, gure Legeko 13.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, ararte-koak ez ditu banaka aztertuko ebazpen judiziala jaso barik duten kexa guztiak.

Nolanahi ere, interesdunari jakitera eman genion gizarte jurisdikzioak bere egoeraren balizko onarpena eginez epe ertainean sortu ahal ziren eskubideek eraginkortasuna izango zutela Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenak emandako epaia betearaztearen arloan, lane-ko araudia konstituzio eskakizunekin (enplegu publikoak lortzeko eskakizunak) bateratzen duen jurisprudentzia-ildo finkatuarekin jarraituz.

Ildo horren arabera, kontratuaren izaera mugagabeak, denbora ikuspegitik begiratuta, aditzera ematen du hori ez dagoela amaiera jakinari zuzen edo zeharka lotuta, baina langileak, hautaketa prozedurak gainditu barik, izaera finkoa lortuko duela langilerian; hori ez zen bateragarria izango herri-administrazioetan langileria finkoa hautatzeko legezko arauekin, eta horixe gertatu da interesatuaren kasuan, Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenak emandako epaia betearazteari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, ñabardura horiek albo batera utzita, erakunde honek ez dauka arazorik (izan ere, behartuta sentitzen gara) administrazio kontratazioa iruzurrez erabiltzearen aurkako gaitzespenarekin bat egiteko (erabateko mendekotasun-zerbitzuko harremanak estaltzeari dagokionez), ezta halako jarduerak eragin ditzaketen kalte larriak agerian jartzeko ere.

Hain zuzen ere, aurrekari oso antzeko bat kontuan hartuta (bertan, justizia-azitegien esku-hartzeak kontratu-harreman baten lan onarpena eragin baitzuen, hutsik zegoen lanpostua arauz bete arte), ondorengo beste gorabehera baten berri izan dugu; bertan, EAEko Administrazio Nagusiak bidegabe jasotako ordainketak itzultzeko eskabidea egin zion interesdunari; zenbateko horiek Gizarte Segurantzari ordaindutako kuoten kontzeptuan izan ziren, eta euren zenbatekoa 6.714,01 eurokoa izan zen.

Gure esku-hartze aukera ondo zehazteko, harremanetan jarri ginen Lan eta Gizarte Segurantzako ikuskatzailearekin; horrek, 2007ko abenduan, eskabidea formulatu zuen, Administrazioak

kexa egin duen interesdunari Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta emateko eta bidezko kuotak ordaintzeko.

Ikuskatzaile honek berretsi egin zuen gure iritzia; hau da, Lan eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileak kuotak ordaintzeko egindako errekerimenduak ezin du inoiz ere berarekin eraman Administrazioak interesdun honi planteaturikoa bezalako eskakizunik; aldiz, bere gain hartu behar ditu ordaindu barik dauden kuota guztiak.

Horrela, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren jarduketan sartzeko asmorik gabe, gure ustez Administrazioari bidezko neurri guztiak hartzeko eskatu behar zaio, aipaturiko ebazpena ondore barik uzteko; azkenik, Administrazioak onartu egin du gure eskabidea.

Jazarpen morala edo mobbing-a

Derioko Udalean lanean dabilen udal enplegatu batek behin eta berriro egindako kexaren arabera, jazarpen moralizat kalifikatzen duen egoera bat jasaten ari da; hasieran, Osalane-ra jotzeko iradokizuna egin genion enplegatu horri. Erakunde horrek, esku hartu ondoren, haxe planteatu zuen, beste gomendio batzuen artean: udalaren barruan beste lanpostu bat ematea, langilearen iritzia aintzat hartuta.

Aurrekari horiexen eraginez onetsi da interesduna Gobernazio eta Barne Araubide Sailera (Udaltzaingoa) atxikitzea ebatzi duen alkatetza dekretua onestea; erabaki horrek, azkenean, beste kexa bat eragin du.

Alkatetzak, atxikipen hori bidezkoa dela justifikatzeko, Osalanek enplegatuaren osasuna babesteko egindako gomendioa ez ezik, antolamendu mailako arazoak ere adierazi zituen; aldi beran, balizko arau oinarritzat, Euskal Autonomia Erkidegoko Funtzio Publikoari buruzko zuzendaburuen 6ko 6/1989 Legeko (aurrerantzean, EFPL) 18.1 artikulua aipatu zuen, baita Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeko 81.2 artikulua ere.

Arau horiek aztertu ondoren, erakunde honek ikusi zuen alkatetza dekretu horren bidez interesatuarekiko atxikipen erabakia baino ez zela hartu, baina erabaki horrek ez zuela eragin bere lehengo lanpostuaren berraxikipena, mantendu egiten baita Udal Ogasuneko Sailaren esku-hartze arloari atxikitako administrari lanpostu baten beharra.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetako Funtzionarioen Lanpostuak Hornitzeko Araudia onetsi duen 190/2004 Dekretuko () 39. artikuluan ezarritakoaren arabera lanpostu berraxikipena ez denez, beste mugikortasun-aukera batzuen bideragarritasuna baloratu beharra planteatzen dugu, efektiboak birbanatzeko bidea alde batera utzita (dekretu horretako 37. artikuluan aztertzen dena), berehala pentsatu ahal baita bide horretan, lanpostuaren berehalako berraxikipena ez da beharrezkoa eta.

Horri dagokionez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuko 78. artikuluko (lanpostuak betetzeko printzipioak eta prozedurak) 3. atalean adierazitakoaren arabera, ematen diren

funtzio publikoko legeek, zenbait kasutan lanpostua betetzeko beste prozedura batzuk ezarri ahal dituzte, deialdi publikoaren bidezko lehiaketako eta izendapen askeko prozedura orokorretatik kanpo; esate baterako, osasunaren edo birgaitzearen eraginezko mugikortasuna dagoenean.

Izan ere, ordezeko birtualtasuna duten aurrekariak daude; adibidez, Funtzio Publikoa Berrietzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legeko 20.1 h) artikulua; bertan ezartzen denez, funtzionarioak beste unitate edo herri bateko lanpostuetara atxiki ahal dira, funtzionarioaren, ezkontidearen edo seme-alaben osasunean edo birgaitzean oinarrituriko eskabidea egin ondoren; horretarako, osasun-zerbitzu ofizialaren aurretiazko txostena aurkeztu eta aurrekontu zuzkidura duten lanpostu hutsak egon beharko dira.

Gure iritziz, derrigorrezkoa da mugikortasun aukera horrekin batera doan borondatezko-tasunari erreparatzea, lehenengo eta behin lekualdatzean interesa duen funtzionarioaren aurretiazko eskabidea behar baita. Halaber, prozedura honetan Osalanen gomendioa hartu behar da kontuan; hain zuzen ere: "*langilearen nahia aintzat hartuta, lanpostu aldaketa udalaren barruan bertan bilatzea*".

Hala ere, behin eta berriro saiatu garen arren, Derioko alkatezak ez ditu aintzat hartu gure hausnarketak; beraz, bitartekotza aukera guztiak agortutzat jo ditugu.

2007an Bilbao Arte Fundazioko enplegatu batek eskatuta izapidetutako espedienteaz aztertu genuen, jazarpen moraleko egoera onartu zuten pronuntziamenduen eraginez izapidetutakoa.

Urte horretan, esan genuen Patronatuaren iritzi arrazoitua jakin nahi genuela, berori baita Fundazioaren zaintzaren eta kontrolaren arduraduna, kontuan hartuta enplegatuen osotasun morala, fisikoa eta psikikoa urratu eta arriskuan jartzen duten egoera hauek garrantzi handikoak direla.

Azkenik, erakunde honetan Bilboko alkatearekin idazki bat sartu da, Kultura eta Hezkuntza Arloko zinegotziaren txosten batekin batera; bertan hauxe baino ez da esaten: "*..En dicha reunión todos los miembros del Patronato, por unanimidad, estimaron que la sentencia que da origen a la solicitud de información del Ararteko se considera cumplida y no procede repetir ni exigir a las personas declaradas responsables en la sentencia la indemnización ya satisfecha de forma directa por la Fundación, dando por cerrado este asunto.*"

Bilbao Arte Fundazioaren Patronatuak erantzun formala eman dio erakunde honek egingandako iradokizunari, eta, gainera, aintzat hartu du bertako laneko jazarpena onartu zuten pronuntziamendu judizialen balizko irismena; hala eta guztiz ere, gure iritziz (eta honelaxe jakinarazi diogu interesdunari), Patronatuak ñabardura gehiagoko balorazioa egin beharko luke, gure iradokizunean planteaturikoaren ildotik.

Bestalde, 2008an, Polizia Zientifikoko Unitateko (PZU) agente talde batek eskatuta hasitako esku-hartzea amaitu ahal izan dugu.

Espediente honetan, Herrizaingo Sailak laneko jazarpeneko balizko kasuetan esku hartzeko eta halako kasuen prebentziorako hartu diren ekimenak jakinarazi dizkigu. Halaber, unitate horretan dagoen agente bati dagokionez harturiko babes neurriaren aipamen berezia egin du, Laneko Ikuskapenak gomendaturiko neurri bat betetzeko.

Jakina, esan behar dugu pozik gaudela halako ekimenek aurrerapauso handia ematen dutelako, arrisku psikosozialak detektatzeko konpromiso handiagoa finkatzeko eta laneko jazarpeneko balizko salaketak ikertzeko.

Zorionez, ekimen hauek, laneko jazarpeneko salaketei dagokienez, jarduketa ildo argia ezartzen dute; hain zuzen ere, bitartekotzako lehenengo fasean, beharrezko emaitzak lortzen ez badira, Ikuskapen Nagusiko Zuzendaritzak hartzen du esku; horrek, aldi berean, salaketaren oinarria berretsiz gero, diziplina jarduketak hasteko proposamena egin dezake, beharrezko ardurarekin eta arintasunarekin, beharrezkoak ez diren atzerapenak ekiditeko, hori funtzionarioen osasunaren kalterako baita.

Halaber, emandako informazioak agerian jartzen du Sailak ahaleginak egiten jarraitzeko asmoa duela, halako bide berrien zabalkunde handiagoa lortzeko eta horien izapidetzearen ardura duten polizia agintarien heziketa egokia lortzeko.

Neurri berri horiek benetan eraginkorrak izango direla pentsatu nahi dugu, eta, gainera, baliozkoak izango direla etorkizunean halako kexarik ez egoteko.

Baina, ekimen horiek ez ezik, gure iritziz halako kasuei (PZUan gertatutakoa) buruzko hausnarketa kritikoa egin behar da, Saileko prebentzio eta babes lanean garatu behar direnekin bat ez datorren jarrera eta jokabide gehiagorik ez dela egongo bermatzeko.

I.6

OGASUNA

ararteko

6. OGASUNA

Sarrera

2008. urtean, ogasunarekin lotutako 106 kexa erregistratu ditugu, erakunde honetan aurkeztutako kexa guztien %8,36.

Kexa horiek zein arlo edo azpisaili buruzkoak diren kontuan hartuta, banaketa hau egin dugu:

- Tokiko zergak	56
- Foru zergak	18
- Prezio publikoak	13
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	10
- Tasak	5
- Eskubideak eta askatasunak	3
- Beste alderdi batzuk	1

Foru zergak

- *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)*

Zerga horri buruzko foru arauetan (3/2007 FA Araban, 6/2006 FA Gipuzkoan eta 10/2006 FA Bizkaian) hainbat berritasun daude aurreko legeriarekin alderatuta.

Hiru arauak indarrean 2007ko urtarrilean sartu baziren ere, 2008ko martxo-apiriletik aurrera izan dute herritarrek arau horien benetako eraginak ikusteko aukera, hau da, zerga likidatzeko epea hasi zenez geroztik. Alde horretatik, ausartzen gara esatera zerga berriaren lehenengo kanpaina nahiko lasaia izan dela erregistratutako kexa kopuruari dagokionez. Txosten honetan, berariaz aipatuko ditugu horietako bi; biek ere lotura zuzena dute berdintasun eta intimitaterako oinarritzko eskubideekin.

Zerga berriak hala Gipuzkoan nola Bizkaian **ezintasun iraunkor osoagatiko pentsioei** eman dien tratamenduaren ondorio da lehenengoa. Izan ere, prestazio horren salbuespenaren aplikazio eremua ezintasun iraunkor kualifikatu osoa duten 55 urtetik gorakoentzat murriztu da bi lurraldeetan.

Hala, aurreko legealdian ezintasun iraunkor osoagatiko pentsio guztiak zeuden salbuetsita, betiere pentsio horiek baziren hartzailearen lanaren edo jardueraren diru-iturri bakarra. Gaur egun, berriz, Gizarte Segurantzak 55 urtetik gorakoentzat ezintasun iraunkor kualifikatu oso gisa aitortzen dituen prestazioak, baliaezintasun osoaren edo baliaezintasun handiarenak baino ez daude PFEZtik salbuetsita.

Klase pasiboen araubideari dagokionez, lurralde horietan salbuetsita daude gaitasunik eza-gatiko edo ezintasunagatiko pentsioak, baldin eta pentsio hori jasotzeko zio izan den lesio edo gaixotasun horrek hartzailea guztiz ezgaitzen badu edozein lanbide edo ofiziotarako.

lazko gure txostenean adierazi genuen bezala, gure iritziz, arrazoirik gabeko desberdintasun egoerak sortzen ditu erreforma horrek. Izan ere, prestazio horren zerga ordaintzearen eta zerga horretatik salbuestearen artean ezarri den banalerroak ez du zehazten hartzailearen ezintasunarekin edo haren ahalmen ekonomikoarekin zerikusia duen ezein diferentzia. Aitzitik, bi egoera horiez besteko alderdi batzuei lotuta dago, zehazki adinari eta Gizarte Segurantzako araubide jakin batean sartzeari.

Bi talderi eragiten die horrek:

- Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartuta dauden pentsiodunak, 55 urtetik beherakoak eta beren pentsioa ez beste lan edo jardueraren diru-sarrerarik ez dutenak.
- Nekazaritzako, itsasoko eta autonomoentzako araubide berezietan sartuta dauden pentsiodunak, baldin eta pentsioa 2003ko urtarrilaren 1a baino lehenago aitortu bazaie.

Zerga legegilea gizarte legeriak xedatutako sistemaz baliatu da zuzenean eta soil-soilik pentsio horien zerga tratamendu berria eratzeko. Diseinu berri horrek izugarri sinplifikatzen du zergaren kudeaketa. Izan ere, ez da inolako banakotze lanik egin behar zerga likidatzeko orduan, erreformaren aurretik gertatzen zenaz bestela. Aitzitik, pentsioaren zerga tratamendua muturreko datu batek zehaztu du, Gizarte Segurantzako araudiak eman dion izendapenak hain zuzen ere, eta ez hartzailearen benetako ahalmen ekonomikoak.

Gainera, dena sinplifikatzeko ahalegin horretan murgilduta, zerga legegileak ez du kontuan hartu Gizarte Segurantzaz hainbat araubide daudela, ez eta horietako bakoitzak bere ezarpen prozesua izan duela ere. Horren ordez, erreferentzia bakar gisa Gizarte Segurantzako araubide orokorra hartu du, garatuena, eta ez du kontuan hartu nekazaritzako, itsasoko eta autonomoentzako araubide berezien egoera ez dela izan, eta ez dela, araubide orokorraren berdina. Zehazki, 55 urtetik gorakoentzako ezintasun iraunkorraren pentsiorik ez zegoen adierazitako araubide berezi horietan 2003. urtera arte, eta horren aplikazioa urte horretako urtarrilaren 1etik aurrera aitortutakoen ezintasun egoerei mugatu zitzairen. Gaur egun, horrek esan nahi du 2003ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik ezintasun iraunkor osoaren pentsiodun direnek pentsioa igotzeko aukera izango dutela 55 urte bete ondorenean, bakar-bakarrik Gizarte Segurantzako araubide orokorretik badatoz, eta ez dutela inolako aukerarik izango nekazaritzako araubide berezikoak badira, edo itsasokoak, edo autonomoen araubide berezikoak.

“Legearen aurreko edo legeko” berdintasun printzipioak egoera juridiko berberetan dauden haiek modu berean tratatzera behartzen du legegilea, eta debekatu egiten du zalantzan jarritako arau horren xedearen ikuspuntutik justifikazio objektibo edo arrazoizkorik ez duen edo neurritz gainera den desberdintasun oro. Funtsean, oro har onartutako irizpide edo balio iritzietan oinarrituta ez dagoelako maltzurra edo bidegabea den desberdintasun oro debekatzen du berdintasun printzipioak. Horrez gain, tratu desberdintasuna konstituzionaliki bidezkoa izan dadin, desberdintasun horren ondorio juridikoek lortu nahi den helburu horren arabera izan behar dute, emaitza larriegirik edo neurrigabeegirik izan ez dadin.

Halaber, beharrezkoa da gogoraraztea zer agintzen duen Konstituzioak 31.1. artikuluan. Izan ere, debekatu egiten du aberastasun adierazpen berberak modu desberdinean kargatzea, non eta ez dagoen horretarako justifikazio zentzuzkorik.

Horrenbestez, uste dugu erreforma horrek ez duela kontuan hartzen zergadunaren ahalmen ekonomikoa, haren errentak erakusten duen hori, alegia. Aitzitik, uste dugu legegileak ezintasun iraunkor osoa duten 55 urtetik beherako pentsiodunei ematen dien ahalmen ekonomiko teorikoa hartzen duela kontuan, horien pentsioa beste diru-sarrerara batzuk izatearekin bateragarria delako beste arrazoirik gabe, halako diru-sarrerarik benetan baduten edo ez alde batera utzita.

Begi bistakoa da pertsona batek ahalmen ekonomiko handiagoa izango duela ezintasun iraunkor osoaren pentsio kualifikatua badu, hau da, %20 gehiago, kualifikatu gabeko pentsio bat jasotzen badu baino, betiere gainerako egoera pertsonal eta ekonomikoak aldatzen ez badira. Alabaina, aztergai dugun araudi horrek hain zuzen ere baliabide gehien dutenei ematen die salbuespena, eta, aldiz, ukatu egiten die onura hori baliabide gutxien dutenei.

Printzipio horietan oinarrituta, erakunde honek [2008ko apirilaren 14 Ebazpena](#)¹² igorri zion foru ogasunari

Gomendio horren erantzun gisa, zerga administrazio horrek adierazi digu auzi hori Euskadiko Zergen Koordinaziorako Organoari (EZKO) azaltzea erabaki duela, hiru foru lurraldeetan arlo hori bateratzen saiatzeko, baina ez du oharpenik aurreratu, ez eta iritzirik ere, adierazitako gomendio horren edukiaren gainean.

Bizkaiko Foru Ogasunari dagokionez, egoera Gipuzkoakoaren antzekoa da: gaur arte ez du kontu honen gainean egindako gogoeten kontra egin, ez eta alde ere; soil-soilik, EZKOrri igorri dizkio.

Damu dugu auzi honek eragiten dien administrazioek arintasunik ez izatea eta, azken batean, hain sentiberatasun urria agertzea arazo honi konponbide egokia bilatzeko, dagoeneko zerga aldi guztiei eragiten baitie. Zergaren erreformak ondorio ekarri duen beste arazo bat **sindikatu**ko **kuotari** dagokion kenkaria gauzatzeko diseinatu den mekanismoa izan da (arazoa berbera da **alderdi politikoetako** afiliazio kuotetan ere); eta, hain zuzen ere, **intimitate pertsonalerako eskubidearekin** lotuta dagoelako aurkeztu zaio Arartekoari.

PFEZren kuotaren kenkarien ataleko erregulazioak aukera ematen du %30eko kenkaria aplikatzeko langileen sindikatuei ordaindutako kuotetan, bai eta alderdi politikoetako afiliazio kuota eta ekarpenetan ere, lan errendimenduetatik ken daitezkeen gastutzat baitauzkate.

¹² Arartekoaren ebazpena, 2008ko apirilaren 14koa. Horren bidez, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuari gomendatzen zaio ezintasun iraunkor osoagatiko prestazioengatik ordaindu behar den PFEZ aldatzea susta dezala.

Jakina, erreklamazioaren xedea ez da zergan kenkari hori sartzea, zerga hori zer modu bitxitan aplikatu den baizik. Izan ere, Foru Arauko 95.2. artikulua dioen moduan, bakar-bakarrak sindikatuek eta alderdi politikoek lehenago ogasunean aurkeztutako informazio eredu jakin batean sartuta dauden zergadunek egin dezakete kenkari hori; hau da, berariaz galarazten zaio zergadunari kenkaria aplikatzeko eskubidea bere kabuz egiaztatzea.

Hori horrela, hala langileen sindikatuak nola alderdi politikoak 182 zenbakiko informazio eredu aurkeztera behartu dira, informazio adierazpen horretan sartzea onartu duten afiliatuen gaineko eredu, alegia. Inprimaki horretan, langileen sindikatuek eta alderdi politikoek zerranda horretan sartzea onartu duten afiliatuen banan-banako datuak eman behar dituzte, bai eta urtean zenbateko kuota ordaindu duten adierazi ere. Erregulazio hori azaletik aztertzea aski da xedea zein duen ikusteko, alegia, kenkari berriaren aplikazioak ez kalte egitea PFEZko aitorpenaren proposamen edo zirriborro izenekoan eraginkortasunari, ogasunak gero eta zergadun gehiagori bidaltzen dien horrexeri, alegia. Asmoa da administrazioak beharrezko informazioa izaten jarraitzea, aitorpen proposamenak ahalik eta zuzenena eta zergadunaren esku-hartzerik gabe egiteko, modu horretan ondoko aldaketen prozesu masiboari aurre egin behar izatea saihestuko baita.

Hiru zerga administrazioek adierazi dute legezkoa dela formula hori, eta alegatu dute aliatuak informazio eredu horretan sartzeko berariazko onespina emateko eskakizunak erraz gainditzten dituela DBLOk afiliazio datuarekin lotuta jasotzen dituen eskakizunak. Dena dela, inork ere ez ditu sakon aztertu onespina horren benetako ezaugarriak.

Alde horretatik, oso interesgarria da Datuak Babesteko Euskal Bulegoak kontu honen inguruan eman dituen ebazpenetan adierazitakoa:

Y es que, a juicio de esta Agencia, dicho sea con todas las cautelas expresadas al inicio del presente Fundamento, es posible sostener razonablemente que si la única posibilidad de que una persona afiliada pueda aplicarse la deducción prevista en el artículo 95 de la Norma Foral pasa por la necesidad de que la misma dé consentimiento al sindicato para que éste pueda incluirle en la declaración informativa que debe trasladar a la administración tributaria (independientemente, se insiste de las consecuencias jurídicas que de ello puedan derivarse desde otros sectores del ordenamiento) el consentimiento que dicha persona afiliada prestara difícilmente podría ser calificado de 'libre', tal como, entre otros requisitos, exige la normativa sobre protección de datos de carácter personal.

Podría todavía argumentarse que el consentimiento prestado sería también 'libre' en cuanto entra dentro de la esfera de decisión de la persona afiliada prestarlo o no, pero no sería correcto, a nuestro juicio, defender dicha posición dado que la decisión estaría profundamente condicionada por la imposibilidad, en caso de no prestar el consentimiento, de practicar la deducción que le correspondería.

Alabaina, Datuak Babesteko Euskal Agentziak uste du ez liokeela kalterik egingo sindikatuen oinarrizko eskubideari kenkaria lortzeko ogasunean bertan sindikatu direla egiaztatu beharrak.

Horretarako, bulegoak jurisprudentzia konstituzionala aipatu du horretarako arrazoitzat eta honakoa dio: *“el derecho a la intimidad no es absoluto, como no lo es ninguno de los derechos fundamentales, pudiendo ceder ante intereses constitucionalmente relevantes, siempre que el recorte que aquel haya de experimentar se revele como necesario para lograr el fin legítimo previsto, proporcionado para alcanzarlo y, en todo caso, sea respetuoso con el contenido esencial del derecho.”*

Bulegoak honako hau adieraziz bukatu du bere arrazoibidea: *“...así como la necesidad de declarar la afiliación sindical ante la propia hacienda para practicar una deducción prevista por tal circunstancia, es admisible en cuanto aparece como una medida adecuada y proporcional, no puede predicarse lo mismo respecto a la obligatoria inclusión en un modelo informativo elaborado por los sindicatos, porque, siempre a juicio de esta Agencia, tal medida no cumple el canon de proporcionalidad que es exigible a cualquier medida limitativa de un derecho fundamental (...). Con evidencia, el modelo informativo tantas veces citado ni es necesario ni es imprescindible para la consecución de la finalidad perseguida, en cuanto la misma finalidad es posible si se permite que el sindicato declare su afiliación sindical ante la propia Hacienda (que sería la única medida proporcional) dejando optar, pero no ‘obligando’, a tal sindicato a manifestar su afiliación ante el propio sindicato como sustitutiva de la manifestación ante la propia Hacienda, en cuyo caso dicha manifestación de consentimiento sí podría calificarse de libre.”*

Gure iritziz, konponbide hori bakarrik har daiteke baliozkotzat, ez bakarrik bat datorrelako intimitaterako eskubideak merezi duen babes bereziarekin, baizik eta, horrez gain, modu horretan dagoen-dagoenean jarraituko duelako indarrean zerga arloko frogabideei buruzko arau orokorrak Azken urteetan maiz samar errepikatu den erreklamazio mota bat zerga administrazioak likidazioa aldatuz gero exijitzen dituen **berandutze interesei** buruzkoa da. Hain zuzen ere, foru ogasunean bertan errenta aitortzeko zerbitzuen bidez egindako likidazioak aldatu badira exijitzen ditu berandutze interesak, bai eta ogasunak zergadunari berari eman dion informazio fiskala erabiliz aurkeztutako likidazioak aldatu badira ere.

Errenta aitortzeko zerbitzua erabiltzen duten pertsona gehienek zerbitzu hori erabiltzen dute hain zuzen ere ez dituztelako ondo ezagutzen ez zerga araudia eta ez zerga likidatzeko mekanismoak eta, horregatik, ustez langile adituen esku uzten dute egiteko hori. Horrek ondorio dakar egin zaien likidazioa sinesgarria dela uste izatea. Hori horrela, zergadunak oro har aitorten likidazioa sinatzea administrazioaren jardun onarekiko fede eta konfiantza keinua da batez ere.

Alabaina, zerbitzu hori erabiltzeak ez du aldatzen zergadunak aitorten egile gisa duen egoera, hau da, zergadunaren erantzukizuna ez da benetan aitortpena eta likidazioa egin dituen organoaren esku uzten, zergadunak egin behar du prozesu horren ondorioz izan daitezkeen akats edota irregulartasunen ondorioen kargu, baldin eta bere kabuz jardun badu.

Kasu horretan, gerora egindako aldaketak zergadunaren kontrakoak badira, kaltetuek ez dute ia inoiz zalantzan jartzen egoera hori erregularizatzeko beharra. Alabaina, sutsuki agertzen dira berandutze interesak aplikatzearen kontra. Izan ere, zigor bidegabe baten

biktimatzat jotzen dute beren burua, batez ere likidazioan sarrera edo gastuak kalifikatzean egin badira akatsak. Halako kasuetan, kexagile batzuek uste dute ez luketela inolako interesik izan behar, eta beste batzuek, berriz, uste dute interesak ez lukeela izan behar diruak legez duena baino handiagoa.

Jabetzen gara halako asmoek hasiera batean bideraezin diruditela eta itxuraz gaur egungo zerga esparruak gaituzten dituztela. Izan ere, berandutze interesak ia printzipio orokor gisa sortzen dira gaur egun, eta lorpen gisa jotzen dira aldean arteko orekari dagokionez.

Hala ere, beharrezko deritzogu berriz ere hori azpimarratzea. Izan ere, kexagileei horren gaineko azalpen arrazoitua ematen saiatzen garen bakoitzean, konturatzen gara zerga administrazioaren gaur egungo jardunean normalak eta ohikoak diren gauza asko guztiz berriak eta ezezagunak direla prozedura arloan aplikatzekoa den legeriarentzat. Hau da, denboraren joanarekin, jarduera asko modernizatu egin dira eta teknologia berriek ematen dituzten aukera erakargarrietara egokitu dira. Alabaina, ez dira berrikusi jarduera horiek oinarri dituzten prozedura administratiboak¹³.

Arrazoi horrexegatik, bat ez etortzeak sortzen dira, hizpide dugun kasu honetan bezalaxe. Izan ere, administrazioak subjektu aktibo gisa parte hartu du aitortpena egiteko orduan, eta, hala ere, legezko ondorioetarako, ezer egin ez balu bezalaxe da. Lege estaldura egokirik ez dagoenez, fikzio hau sortu da: nahiz eta hasieran irudi lezakeen zergadunaren mesederako dela, ez da beti hala gertatzen, behinik behin esku hartzen dutenen erantzukizunari dagokionez, azaldu dugun kasu horretan ikusi ahal izan dugun bezala.

Pertsona batek **baterako aitortpenarekin** lotuta adierazi digun kexa baten espedientea izapidetu dugu; hain zuzen ere, Bizkaiko Foru Ogasunak ez dio onartu **adoptatu aurreko harrera judizialean** dagoen adingabe batekin **baterako aitortpena** egiteko aukera.

Administrazio horrekin izan dugun lehen kontaktuaren emaitza gisa, nahiz eta txosten hau ixtean oraindik ere zain geunden interesdunak jarritako berraztertze errekurtsoaren gaineko ebazpena noiz emango, jakin ahal izan dugu zerga kudeatzen duen bulegoak Foru Arauko 100. artikularen eta 83. artikularen artean dauden desberdintasun terminologikoetan oinarritzen duela bere jarduna (lehenengoak PFEZ batera familia unitateen zein modalitateetan ordain daitekeen azaltzen du. Bigarrenengoak, berriz, ondorengoengatik kenkaria arautzen du, eta parekatu egiten ditu ondorengoak eta adingabeak babesteko arloan esku-mena duen erakunde publiko batean formalizatutako tutoretza eta harrera kausaren baten bidez zergadunari lotuta dauden pertsonak).

Nahiz eta aitortu 100. artikulua "seme-alabak" terminoa darabilela eta, gainera, parekatze hori ez duela berariaz jasotzen, eta, aldiz, 83. artikulua jasotzen duela kontzeptu hori

¹³ Ikus Eusko Legebiltzararentzako 2003ko txostena. IV. atala. Gomendio orokorrak: Zerga kudeaketarako formula modernoak eta berezitasunak araudien bidez jaso eta onartzea.

tutoretza eta harrera egoerei dagokienez, hala ere, uste dugu ez litzatekeela zuzena izango artikulu horietako bakoitza bereiz eta hitzez hitz soilik interpretatzea, Bulego Kudeatzaileak aldeztu bide duen bezala. Izan ere, hala egitera, emaitza inkoherenteak izango lirateke, zerga arauaren helburutik beretik urrunduak, eta areago, Konstituzioaren kontrakoak lirateke, kontuan hartuta berezko eta adopzio bidezko seme-alabatasuna Konstituzioan bertan jasota dagoela (39.2. art.).

Halaber, zergen baterako ordainketari eta familia-unitateari lotuta, ama banandu baten erreklamazioa aipatuko dugu. Ama horrek adierazi zuen ez dagoela ados PFEZk 18 urtetik gorako seme-alaben zaintza beren gain dutenean ama banandu eta dibortziatuei ematen dien tratamenduarekin; izan ere, haren ustez, araudi horrek aitei egiten die mesede.

Irtenbide gisa, kexagileak proposatu du legeak modua ematea ondorengo zaintza eman zaion ezkontide horri PFEZren baterako modalitatea erabiltzen jarraitzeko, seme-alaba horiek adin nagusitasuna lortu eta gero ere.

Interesdunari adierazi genion ezin parteka genezakeela beraren ikuspegia, arrazoi hauexengatik:

Auzitegi Konstituzionalak behin baino gehiagotan eman duen doktrina baten arabera, berdintasun printzipioak legez, Konstituzioko 14. artikulua aitortzen duenez, **egoera juridiko berean** daudenak modu berean tratatzera behartzen du legegilea, eta debekatu egiten du, zalantzan jarritako arauaren ikuspegitik, justifikazio objektibo eta arrazoizkorik ez duen edo neurritz kanpokoa den desberdintasun oro. Alabaina, kasu honetan, aldi berean gertatu arren berdintzat har ezin daitezkeen bi egoera juridiko ari gara alderatzen. Hain zuzen ere, ondorengoak adingabe direnean ere PFEZk ez ditu modu berean tratatzen guraso bananduak. Adibide gisa, hauxe adieraziko dugu: ondorengo adingabe baten zaintza duen gurasoak bere aitopenean 18.000 euroko zerga oinarria badu, baterako modalitateak 600 euro inguruko onura ekarriko dio zergaren kuotan. Aldiz, ondorengo horrengatik mantenu-pentsioa ordaintzen duen gurasoak gehienez ere 160 euroko onura izango du (ondorengo bakoitzeko %30eko kenkaria), zeinahi izanik ere hark dituen diru-sarrerak eta eman beharreko mantenu-pentsioa.

Bestalde, ezin ahantz dezakegu adibide gisa jarri dugun egoera fiskal hori familia unitateen errenta guztietako zerga ordainketei buruzko PFEZko arau orokorraren salbuespen baten ondorio dela. Salbuespen hori honetan datza: mantenu-pentsioa ez dela agertzen sarrera gisa pensio hori hartzen duenaren errentan (bestela, amaren baterako aitopenean ordainduko litzateke horren zerga), eta, aldiz, ordaintzen duenaren aitopenean hala agertzen dela, kasu honetan, aitarenean. Funtsean, uste dugu auzi hau ezin balora daitekeela lehenago aplikatzekoa den legeria osorik aztertu gabe. Izan ere, modu horretan baino ezin jakin daiteke PFEZren tratamendua oro har abantailitsuagoa ote den ondorengo zaintza duten gurasoentzat haiengatik mantenu-pentsioa ordaintzen dutenentzat baino, eta hala bada, gero ikusi beharko litzateke egoera horretarako justifikazio objektibo eta arrazoizkorik ba ote den.

- Ondare Eskualdaketaren gaineko Zerga eta Egintza Juridiko Dokumentatuak (OEZ)

2007. urtean, Gipuzkoako Foru Ogasunak 45/2007 zenbakiko gure ebazpena ezetsi zuen. Ebazpen horretan, **babes ofizialeko etxebizitza** baten eskuratzaila zerga ordaintzetik salbuetsi zezala gomendatu genion. Izan ere, lehenago, **Etxebizitza Sailari berari etxea erostea eskaini zion aurreko esleipendunak**. Administrazio honek iritzi zion esku-hartze hark urratu egingo zuela GZFAko 13. artikulua. Izan ere, artikulua horrek debekatu egiten du zerga oinarriaren, salbuespenen eta gainerako zerga onuren eremua dagokien molde zorrotzetatik harago hedatzeko analogia.

Badakigu arrazoibide hori ez dela aplikatzekoa azaldutako egoera horretan, baina, hala ere, atseginez ikusi dugu foru ogasunak nola aurkitu duen konponbide alternatibo egoki bat, 18/1987 Foru Arauko 41.1. B 13. artikuluari beste paragrafo bat erantsita. Hain zuzen ere, hauxe zehazten du paragrafo horretan: *"Halaber, salbuespen hau aplikatuko da, indarrean dagoen babes publikoko etxebizitzak eskuratu eta esleitzeko prozedurei buruzko araudia- ren babesean, babes publikoko etxebizitza partikularrek elkarri eskualdatu badiote, betiere eskuratzaila Eusko Jaurlaritzak izendatu badu".*

- Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa)

Diru-laguntzen eragina zergan kenkariak izateko eskubidean, 2004ko aitortzean:

Interesdunak hainbat erregularizazio eskari aurkeztu ditu Bizkaiko Foru Ogasunean, uste baitu bere kasuan aplikagarria dela Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren 2005eko urriaren 6ko Epaia. Epaia horren bidez, auzitegiak adierazi du Europar Batasunaren seigarren zuzentarauaren kontra doala BEZaren Legea, zehazki 102. artikuluko lehenengo puntua eta 104. artikuluko bigarren puntua. Hala ere, zerga administrazioak ezetsi egin du kexagilearen xedea hark aurkeztutako eskari guztietan, eskari ekonomiko-administratiboa barne, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 11/2005 eta 13/2005 instrukzioak oinarritzat hartuta. Hain zuzen ere, instrukzio horiek diote ezin aplika daitezkeela epai horren ondorioak hura argitaratu zenerako irmoak ziren likidazioetan.

EEJAren epaiak argi uzten du estatu kideek ezin jar dezaketela mugarik BEZaren kengarritasunean seigarren zuzentaraua alde batera utzita. Beraz, Europar Batasuneko ordenamenduaren kontraketat hartzen dira hala hainbanaketaren izendapenean diru-laguntzak sartzearen murrizketa, nola diruz lagundutako ondasunen edo zerbitzuen erosketetan jasandako BEZa kengarritzat jotzearen murrizketa.

Auzitegi berberak ezetsi egin du Espainiako Gobernuak epaiaren ondorioak denbora aldetik mugatzeko duen asmoa, alegia, ondorioak etorkizunean baizik ez izatekoa. Izan ere, Europar Batasuneko arauen inguruan ziurgabetasun objektibo handia dagoenean baizik ezin muga daitezke EEJAren epaien denborazko ondorioak, eta kasu honetan, auzitegiak iritzi dio ez dagoela halako ziurgabetasunik.

Nolanahi ere, epai horrek dioenaren kontra, 2/2005eko Ebazpenak (horri dagokion foru egokitzearen bezalaxe) ukatu egin du Europar Batasuneko ordenamenduaren kontrako arau

bat aplikatuta erregularizazioen bat egin zaien subjektu pasiboetara diru-sarrerara bidegabeak itzultzeko eskubidea, betiere likidazioak jadanik irmoak baziren. Epaiaren *ex tunc* ondorioak ukatu dira hala, eta hori ezin egingo zukeen legegileak berak ere, 1988ko ekainaren 29ko EEJA Eren arabera. Izan ere, hauxe dio sententzia horrek: *“con posterioridad a una sentencia del Tribunal de Justicia (...) el legislador nacional no puede adoptar ninguna norma (...) que reduzca especialmente la posibilidad de reclamar la devolución de tributos indebidamente percibidos”*.

Luxenburgoko Auzitegiak behin baino gehiagotan emandako jurisprudentzia baten arabera, eginbeharren bat bete ez dela irizten bazaio, arau-hauste horrek izandako ondorioak ezabatu beharko ditu estatuak, atzerako eraginarekin. Horrek zerga arloan esan nahi du subjektu pasiboak eskubidea izango duela Europar Batasuneko ordenamenduari bateraezina den barne araudi horren arabera ordaindutako zenbatekoa itzul dakion.

Itzulketa eskatzeko formari eta funtsari dagozkion baldintzak direla eta, jurisprudentzia horrek berak dio barne ordenamenduan aurreikusitako baldintza horiek bete behar direla, baina ezin izan daitezkeela barne erreklamazioei dagozkienak baino kaltegarriagoak (balio-kidetzaren printzipioa) eta ezin artikulatu daitezkeela praktikan itzultzeko eskubidea ezinezko bihurtzeko moduan (eraginkortasunaren printzipioa).

Barne esparruan eska liteke diru-sarrerara bidegabeak itzultzeko, nahiz eta administrazio egin-tza irmoa izan, Zergen Lege Orokorrak (gure kasuan, Foru Arau Orokorrak) ezartzen dituen berrikusteko prozedura berezietakoren batean. Funtsean, likidazioaren irmotasuna benetan oztupoa litzateke itzulketa eskatzeko, baldin eta irmotasun horrek barne ordenamendua urratzen duten likidazioak berrikustea galaraziko balu. Baina gure ordenamendua kasu hori ez denez, eta kontuan hartuta barne erregulazioa ezin izan daitezkeela kaltegarriagoa baldin eta sarrerara bidegabea barne araudiaren eta Europar Batasuneko araudiaren arteko kontraesanaren ondorio bada, arlo horretan ere ezin uka daitezke horren irmotasuna, nahiz eta Zergen Zuzendaritza Nagusiak kontrakoa adierazi. Areago, logikoena litzateke, benetan ez betetzeak izango litzatekeen ondorioak atera nahi badira, ofizioz aitortzea dagozkion itzulketarako eskubidea, eta sarrerara bidegabeak benetan itzultzea, baita ebazteko errekurtsio edo likidazio irmoren bat egonda ere.

Tokiko zergak

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)

Balio katastralean akatsen bat izan eta balio hori aldatzeko erabakiari buruzko keak erregistratzen jarraitzen dugu. Kasu askotan, administrazioak ez ditu erregularizazioaren ondorioak akatsa sortu zen unera eraman nahi.

Kasu horietan, giltzarria da akatsa egintza edo eskubide gisa kalifikatzea. Izan ere, legez, likidazioan **egiteko akatsik** egin bada soilik berrikus daitezke likidazioa, akatsak zuzentzeko

eta sarrera bidegabeak itzultzeko prozedurak aplikatuta. Zuzenbideko akatsen bat egin bada, berriz, dagokion administrazio egintzaren irmotasunaren arabera berrikusi ahalko da.

Zerga administrazioak, gure iritziz gehiegitan, aldaketa horiek zuzenbideko akatsen ondorioztat hartzeko joera du, eta, horregatik, uko egiten dio atzerako eraginarekin berrikusteari, horrek ia beti likidazio irmoei eragiten baitie.

Gure iritziz, oro har, administrazioaren funtzionamendu txarrari egotzi beharko litzaizkioke balio katastrala murrizten duten eta higiezina eraiki zen urtean edo higiezinaren azalera egindako akatsen ondorio diren aldaketak, eta egitezko akats gisa kalifikatu beharko lirateke, halako moldez non akatsa egin zen garaira eramanda erregularizatu beharko litzatekeen salatu den akats horrek eragindako likidazioa, preskripzioaren muga bakarrarekin. Irizpide horrekin, gaur egungoarekin baino hobeto bateratu ahal izango lirateke segurtasun juridikoaren printzipioa eta pertsona kaltetuek exijitzen duten justizia material horren oinarrizko irizpideak.

- Hiri Lurren Balioa Gehitzearen gaineko Zerga (HLBGZ)

Barakaldoko Udalak mota honetako zergen tasan izan daitekeen gehienezko igoera onartu zuen 2006. urterako, %10 hain zuzen ere. Portzentaje hori bere hartan utzi zuen 2007rako ere. Horren ondorioz, izugarri igo ziren garai horretan higiezinak eskualdatu zituzten pertsonak ordaindu behar izan zituzten kuotak, ordura arte %2ko tasa aplikatzen baitzen.

2008ko ordenantzak %2ko tasara itzultzea ekarri du.

Zerga hori 2006an eta 2007an ordaindu behar izan zuten pertsona asko elkartu egin dira, udala estutu eta 2008ko ordenantza atzerako eraginarekin aplika dezan, eta Arartekoaren laguntza eskatu dute horretarako.

Badirudi dirua biltzea beste arrazoirik ez duela izan Barakaldoko Udalak zerga hori bat-batean igotzeko eta bi urteren buruan modu berean jaisteko: higiezinaren merkatuaren hedapen faseaz baliatu da udala finantza onbideratzeko planari heltzeko. Hedapenaldi hori amaitu eta udalaren diru-bilketa helburuak bete eta gero, zerga hori biltzeak duen garrantzia lehengora itzuli da, hala lehenagoko garaiei dagokienez nola inguruko herrietan zerga horren bilketak duen garrantzia kontuan hartuta.

Horri dagokionez, adierazi behar dugu 2008. urtean aplikatzekoa den ordenantzari soilik eragiten diola udalak abenduaren 27an onartu zuen aldaketak, alegia, zerga horren tasa %2ra jaisteko erabakiak, eta ez diela eragiten aurreko bi urteetakoei.

Zerga murriztea onartuta, udalak ez du aitortu urte horietan egin diren likidazioetan akatsik egin denik. Horrenbestez, likidazio horiek zuzentzat hartzen dira, garai hartan indarrean zegoen legeriaren arabera kalkulatu zirenez gero.

Bestalde, babes ofizialeko etxebizitza **azalera eskubidean** erosi zuen pertsona baten kexa jaso dugu. 10 urteren buruan, beste baten truke aldatu du etxe hori. Kexan adierazi duenez, notarioak ziurtatu dio udalak ez ziola zerga hori likidatu behar. Izan ere, bera ez da behin ere izan eskualdatutako azalera horren jabea. Dirudienez, udalak ez dio horri buruzko inolako argibiderik eman.

Azalera eskubidea akzesio eskubidearen salbuespen bat da. Horrek esan nahi du baldintza normaletan finka bateko eraikinak eta sailak finka horren jabearenak direla, eta, kontrako frogarik ezean, eraikin eta sail horiek lurraren jabeak egin dituela uste izaten da. Alabaina, azalera eskubidearen bidez, salbuespen bat egiten da akzesioaren printzipio orokorrean, eta dauden eraikinen eta sailen jabetza finkaren jabeari ez beste pertsona bati ematen zaio aldi baterako.

Azalera eskubidea benetako eskubidea da. Kasu horietan, kontuan hartu behar da bi eskubide daudela higiezin beraren gainean: azalera eskubidea duenarena eta azalera eskubidearen karga duen jabearena, gozamina duenaren eta jabe soilaren artean gertatzen den bezalaxe. Bi eskubideak, gozamenarena eta azalerarena, inoren gauzen gaineko benetako eskubide gisa kalifikatu behar dira, eta, aldi berean, baita jabaria mugatzen duten benetako eskubide gisa ere, jabeari karga bat ekartzen dioten aldetik.

Hori esanda, kontuan hartuta, gainera, zerga horren xedea ez dela bakarrik jabetza eskualdatzea baizik eta jabaria mugatzen duten gozamenaren benetako eskubideak eratu edo eskualdatzea ere badela, azaldutako auzi honek ez du zalantzarako biderik ematen: HLBGZ ordaindu beharra dago azalera eskubidea eskualdatzeagatik.

-Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ)

Tokiko zerga horixe da **ezgaitasunak** dakarren zerga ahalmena berariaz murrizteko aukera ematen duen bakarra, foru arau guztietan araututako karga arintzearen bidez.

Alabaina, 2004az geroztiko gure urteko txosten guztietan adierazi dugun bezala, EAEn salbuespen horren aplikazioa ez da ez baketsua eta ez uniforme.

Berriro ere esan behar dugu ordenantza fiskalek **alderdi formalak** arautzeko eskumena dutela eta horien bidez ezgaitasunen bat dutenek zergatik salbuesteko eskubidea egiaztatzeko zer dokumentu aurkeztu behar dituzten ezartzen dela. Alabaina, ez dute ahalmenik salbuespenaren irismena modulatzeko. Izan ere, hori **funtsezko alderdia** da, eta foru arauak soilik du horretarako eskumena.

Ezgaitasunen bat duten pertsonak zerga ordaintzetik salbuesteko udalak duen eskumena ez da iritziaren araberako ahalmena. Aitzitik, guztiz arautua dago, eta udalari dagokio bakarrik foru arauan ezarritako baldintzak betetzen diren edo ez egiaztatzea. Salbuespena zergaren funtsezko alderdia da, eta inola ere ezin arautu daiteke ordenantzen bidez.

Ez udal batzuek salbuespen hau bere benetako xedeari egokitzeko duten mesfidantza eta ez gaur egungo formulazioko alderdi batzuen inguruan dituzten desadostasunak bidera

daitezke salbuespenaren aplikazio eremua udal bakoitzak nahi bezala modulatu duten ordenantzak onartuta. Izan ere, horrek erdiz erdi urratzen du lege erreserbaren printzipioa (gure kasuan, foru arauaren erreserbari buruz ari gara). Alabaina, jakina denez, egoera horretan daude Euskal Autonomia Erkidegoko herrietako batzuk.

Ez dute askorik edo batere balio izan auzi honek eragindako administrazioei erakunde honek egindako gomendioek, ez eta 2004ko urteko txostenean argitaratutako gomendio orokorrak ere¹⁴.

Egoera hori indarrean dagoen legeriari egokitzeko azken ahalegin gisa, EUDELi (Euskadiko Udalen Elkarte) zuzendu gatazka, auzi honetan esku har dezan eta eragindako udallerrien artean hizpide dugun salbuespen horren inguruko jarrera aldaketa susta dezan, halako moldez non horren ondorioz ordenantzak berrikusi eta aldatuko diren, zergaren arau esparruan aurreikusitako moldeen arabera.

Bestalde, ezgaitasunagatik salbuespena eskatzeko epeei eta salbuespen horren eragine-tarako datari dagokienez, %65eko ezgaitasun aitortua duen pertsona batek hala eskatuta izapidetu dugun kexa aipatuko dugu bereziki. Pertsona horrek TMIZtik salbuesteko eskatu zion Bermeoko Udalari, eta udalak hasieran garaiz kanpokotzat jo zuen eskari hori.

Ordenantza aztertu eta gero, ikusi genuen nolabaiteko nahasbidea sortzen zuela idatzita zegoen moduak. Izan ere, bi epe aipatzen zituen: batetik, (4 1. artikuluko e letran, ezgaitasunagatik salbuespenari buruzkoan) likidazioa irmo bihurtzeko azken eguna zein zen aipatzen zen. Eta, bestetik, artikulua amaieran, aurreko letretan zerrendatutako salbuespen guztiei aplikatzeko formula bat azaltzen zen, eta salbuespena eskatzeko epea urtarilaren 1ean hasi eta otsailaren 15ean amaituko zela zehazten zen.

Udalbatzak onartu behar izan du ordenantza hori idaztean akats bat egin zela. Akats hori 2009. urterako konponduko du. Halaber, zehazki erreklamazio horri dagokienez, udalak bere akatsa eskatzailearen aldeko interpretazioa eginda konpontzea erabaki du. Alde horretatik, eskatzaileak zergatik salbuesteko eskaria likidazioa irmoa izan aurretik aurkeztu zuela iritzi dio, hau da, salbuespena jadanik 2008. urtean aplikatzeko ezarri zen epearen barruan aurkeztu zuela.

Tasak

Zergekin gertatzen denaz bestela, zergak ez baitira ordainarazten administrazioaren esku-hartze jakin batzuen ondorioz, ezinbestean kausa hauetakoren batengatik eska daitezke tasak:

¹⁴ Eusko Legebiltzarrentzako 2004ko txostena. IV. atala. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokionez ezintasunen bat duten pertsonak babesteko teoria eta praktika, tokiko zergan berriki egindako erreformaren ostean.

- Jabari publikoko ondasunak modu pribatuan erabiltzea edo modu berezian aprobetxatzea.
- Subjektu pasiboari modu partikularrean eragiten dion edo onura dakarkion tokiko eskumeneko zerbitzuren bat ematea edo jardueraren bat egitea.

Alabaina, halako egoerarik ez bazen ere, Arraia-Maeztuko Udalak hainbesteko bat kobratu zion partikular bati, **udal plangintzako aldaketa zehatz bat izapidetzeagatik** izan zitezkeen profesionalen ordainsariak, argitalpenak eta gainerako gastuak ordaintzeko funtsak berrezartzeko.

Erreferente arauemaile gisa Tokiko Ogasunei buruzko ekainaren 19ko 41/89 Foru Araua hartuta, uste dugu udal horrek igorritako likidazioak ez duela oinarririk tokiko erakundeek dituzten zuzenbide publikoko ezein baliabidetan, non eta ez den kontuan hartzen zerbitzu bat emateagatiko eta jarduera bat egiteagatiko tasa gisa. Hori, ordea, ez da bidezkoa. Izan ere, hirigintzako esku-hartzeek interes publikoa dute bereziki, eta horrek ezinezko egiten du interes partikular gisa hartzea. Hain zuzen ere, zerbitzuak emateagatiko tasek izan ohi dute interes partikularra.

Arrazoi horrexegatik, Arartekoak Arraia-Maeztuko Udalarari gomendatu zion ofizioz itzul zitzala interesdunek aipatutako espediente hori izapidetzearen ondorioz ordaindu zituzten zenbatekoak eta horiei zegozkien interesak. ([2008ko uztailaren 10eko Ebazpena](#)¹⁵). Udalak ez zuen onartu gomendio hori.

Azken urteetan, tokiko erakundeak ahalegin handia egiten ari dira udal zerbitzuak herri-gunetik kanpora zabaltzeko, hala nola **zabor bilketaren** zerbitzua zabaltzeko. Neurri hori hartzearekin batera, ordainagiria kobratzen da, eta batzuetan ez da kontuan hartzen kobratu asmo zaion pertsona horri zerbitzua benetan ematen ari ote zaion.

Arazo horixe zeukaten Bergarako landa auzune batean.

Kaltetuek adierazi zuten inguru hartan ez zeukatela ez edukiontzirik ez eta zaborra biltzeko gunerik ere, nahiz eta edukiontzia jartzeko interesa bazuten. Horri dagokionez, nabarmendu zuten beren etxeetatik hurbilen zeuden edukiontzia hiru kilometrora baino gehiagora zeudela.

Erakunde honek Bergarako Udalarari igorritako informazio eskaeran aurreratu zuen ez zela bidezkoa landa auzune horretako bizilagunei tasa kobratzea, etxebizitza horien eta zaborra biltzeko guneen artean zenbateko distantzia zegoen kontuan hartuta. Izan ere, ez zitzairen modu eraginkorrean ematen ari zaborra biltzeko zerbitzua. Testuinguru horretan, nabarmendu genuen tasa kobratzea legezkoa izateko ez dela nahikoa zerbitzua izatea eta zerbitzu

¹⁵ Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 10ekoa. Horren bidez, Arraia-Maeztuko Udalarari gomendatzen zaio ofizioz itzul dezala Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa zehatzari dagokion espedientea idatzi eta izapidetzeko ordaindu zen konturako zenbatekoa.

hori herrian ematea, baizik eta beharrezkoa dela zerbitzu horrek subjektu pasiboari modu partikularrean eragitea edo onura ekartzea.

Bergarako Udalak ordenantzaren testua aldatu zuen 2008. urterako. Zehazki, ordenantza berrian tarifa murriztuak aplikatzen dira, zaborra biltzeko guneetara dagoen distantziaren arabera, halako moldez non azkenean ez duten tasa ordaindu behar edukiontziak beren etxebizitzetatik 500 metrora baino gehiagora dauzkatenek.

Neurri horrek zerikusi handiagoa du zerbitzua modu eraginkorrean emateko eskakizunarekin, baina horrek bakarrik ez du konpontzen kexa sustatu zutenei 2007. urtean horrek eragin zien arazoa.

Egoera hori ikusita, Arartekoa tokiko erakunde horri gomendio bat igortzeko beharra ikusi zuen ([2008ko irailaren 9ko Ebazpena](#)¹⁶). Gomendio horretan, kontzeptu hori erreklamatu zuten pertsonen igorritako likidazioak ofizioz baliogabetu zitzala eskatu zion; izan ere, 2007. urtean ez zitzairen zerbitzu hori eman beren etxebizitzetan.

Bergarako Udalak ez zuen onartu gure gomendia.

Prezio publikoak

- Udal prezio publikoak

Tokiko erakundeak prezio publikoaren irudi juridikoaz baliatzen dira borondatez ematen dituzten zerbitzuak finantzatzeko. Hala, kultura, kirol eta aisiako jarduerak kexatzeko motibo izan ohi dira maiz, nahiz eta gehienak funtsean lotuago egon diru-bilketaren prozedurarekin eta alta eta baje kudeaketarekin, jarduerarekin berarekin baino.

- Euskal Autonomia Erkidegoak ordainarazitako prezio publikoak

2007. urtearen amaieran, Euskal Herriko Unibertsitateko (aurrerantzean, EHU) ikasleek sustatuko hainbat kexa jaso genituen. Kexa horietan adierazi zuten ez zeudela ados matrikula gisa bidegabeki ordaindu zutena itzultzeko eskatu eta Errektoretzak emandako ebazpenekin.

Kexa horietan adierazi zuten, matrikula ordaindu eta geroago, kexagileak jakin zuten salbuespena lortzeko beharrezko baldintzak betetzen zizutela. Ordura arte ez zeukaten, ordea, horren berri, eta horri buruzko aipamenik ere ez zetorren unibertsitateak formularioak formalizatzeko prestatutako agirietan.

¹⁶ Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 09koa. Horren bidez, Bergarako Udalarik gomendatzen zaio ofizioz ezeza dezala 2007. urtean zehar Zabaleta Mendi auzoko bizilagunei zaborren tasa gisa kobratutako zergen likidazioa. Izan ere, urte horretan zehar, ez zen zabor-bilketa zerbitzurik egon beren etxebizitzetan.

Salbuespen hori Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legean dator jasota, 39 1 a) artikuluan.

Agertutako kasu hori aztertu ondoren eta EHUrekin lehenengo harremana izan eta gero –erakunde horrek kontu honen gainean duen jarrera baieztatzeko balio izan zигun horrek–, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jo genuen alde batetik, eta EHUra bertara bestetik, eta erakunde horietako bakoitzari eskatu genion har zezala gure ustez haiei zegokien erantzukizuna Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2003 Legeak 39 1 a) artikuluan jasotzen duen albuespena aplikatzeari zegokionez.

3/2004 Legeak sortutako arau esparrua kontuan hartuta eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak senitartekoren baten ezgaitasunagatiko albuespena indarrean sartu eta ondoko lau ikasturte akademikoetan unibertsitateko prezio publikoak arautzeko eman zituen aginduak aztertu eta gero, gure iritziz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak azalpenak eman behar zituen, 3/2004 Legea berehala betearazi ez zuelako eta horren ondorioz EHUk ez zuelako aplikatu albuespen hori 2004-2005 eta 2005-2006ko ikasturteetan. Izan ere, Hezkuntza Sailak ez zuen albuespen hori jaso zegozkion aginduetan. Halaber, gure ustez, EHUren beraren ardura zen hurrengo ikasturteetan, hau da, 2006-2007 eta 2007-2008koetan, albuespena modu normalizatuan aplikatzea. Izan ere, bi ikasturte horietan unibertsitateak ez zuen albuespena aplikatu, nahiz eta hori dagoeneko agertzen zen Jaurlaritzak emandako prezioei buruzko aginduan.

Hauxe zioen EHUk bidali zigun txostenak: *“..la Consejería de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco se ha comprometido a asumir el pago al alumnado afectado y se ha resuelto admitir las solicitudes de exención de precios públicos por pertenecer a familias con personas con discapacidad correspondientes a los cursos 2004-2005, 2005-2006 y 2006-2007.*

Se indica asimismo, que dicha decisión ha sido publicada en la prensa y en la página Web de la UPV/EHU, estableciendo un plazo hasta el 30 de junio para solicitar las exenciones”.

Ildo beretik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2004-2005, 2005-2006 eta 2006-2007ko ikasturteei zegozkien ordainketak itzuli zituen, eta konpromisoa hartu zuen ikasturte horietan kalte hartutako ikasleek ordaindu zituzten zenbatekoak EHUri transferitzeko.

Esku-hartze horien ondoren, uste dugu gaur egun honi buruz indarrean dagoen legeria berezarrira gelditu dela, eta, ondorioz, amaitutzat eman dugu gure esku-hartzea.

Alabaina, 2008ko ekainaren 23ko Aginduak unibertsitateko zerbitzu akademikoen 2008-2009ko ikasturterako prezioak ezarri ditu, eta hizpide dugun albuespen hori aplikatzeko eremua murriztu du. Izan ere, ikasleen senitartekoen ezgaitasuna gutxienez %65ekoa izatea eskatzen du. Ordura arte, behar zen gutxieneko portzentajea %33 zen, ez baitzen ezgaitasun jakinik zehaztu.

Hori dela eta, araudia aldatzearen ondorioz kalte hartutako hainbat pertsonak zalantzan jarri dute aldaketa hori legezkoa ote den, eta, horregatik, esku har dezagun eskatu digute berriz ere.

Ezgai, elbarri eta antzeko beste terminoek hainbat esanahi izan ditzakete, erabiltzen diren eremuaren arabera. Espainiako araudiari dagokionez, zergaz besteko hainbat legeak jasotzen dute ezgaituaren kontzeptua. Horien artean, hauxe aipa dezakegu esanguratsuentzat: 13/1982 Legea, apirilaren 7koa, elbarrituak gizarteratzeari buruzkoa. Izan ere, lege horretako 7. artikulua hauxe dio: "Lege honen eraginetarako, elbarritutzat joko dira gaitasun fisiko, psikiko edo sentsorioetan itxuraz iraunkorra den urritasunen bat duten pertsonak, urritasun hori sortzetikoa izan zein ez, baldin eta horren ondorioz hezkuntzan, lanean edo gizartean integratzeko aukerak murriztuak badituzte".

Geroago, garrantzi handiko beste bi arau onartu ziren; lege horiek definizio hauexek ematen dituzte:

41/2003 Legea, azaroaren 18koa, ezgaitasunen bat duten pertsonen ondarea babestekoa. Lege horren eraginetarako, honako hauek bakarrik hartuko dira ezgaitasunen bat duten pertsonatzat:

- a) %33ko edo gehiagoko elbarritasun psikikoa dutenak.
- b) %65eko edo gehiagoko elbarritasun fisiko edo sentsoriala dutenak.

Bestalde, abenduaren 2ko 51/2003 Legeak, aukera berdintasunari, bereizkeriarik ezari eta ezgaitasunen bat daukaten pertsonen irisgarritasun unibertsalari buruzkoak, honako hau dio: "Lege honen eraginetarako, 100eko 33ko edo gehiagoko elbarritasunak eragindakotzat joko dira ezintasun iraunkor oso, absolutu edo baliaezintasun handiagatik pentsioren bat aitortua duten Gizarte Segurantzako pentsiodunak eta lan egiteko ezintasun iraunkorra dutelako edo gaitasunik ez dutelako erretiro pentsioa edo zaharsaria aitortua duten klase pasiboetako pentsiodunak".

Gure zerga sistema arauemailean ez da termino bakar bat erabiltzen ezgaitasunari buruz mintzatzeko, eta areago, arau beraren barruan, zenbaitetan, hainbat adierazpide erabiltzen dira errealitate bera izendatzeko.

Zehazgabetasun terminologikoa gorabehera, uste dugu zerga araudia egiteko egoera berberari buruz ari dela beti. Hala, gure sistemako zerga garrantzitsuenetako bik definizio bat ere badakarte, eta horietara jo beharko genuke gainerakoek erabiltzen dituzten terminoak interpretatzeko orduan. Alde batetik, zuzeneko zergapetzeak, zehazki PFEZk, honako hau dio zergaren ondorioei dagokienez: "Ezgaitzat joko dira erregelamenduz ezarritako baldintzetan 100eko 33ko edo gehiagoko elbarritasuna dutela egiaztatzen duten zergadunak". Beste alde batetik, zeharkako zergapetzeak, BEZaren Legeak, hauxe dio. "Lege honen ondorioetarako, elbarritasunen bat duten pertsonatzat hartuko dira 100eko 33ko edo gehiagoko elbarritasun legezkia dutenak, elbarritasun maila onartzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozedurari buruzko 1971/1999 Errege Dekretuan jasota dagoen baremoaren arabera".

Proposatzen ari garen interpretazioarekin bat, adierazitako definizio horretara jo beharko litzateke zerga arau bat ezgaitasunen bat duten pertsonari buruz ari den aldiro, nahiz eta bi definizioak zerga horietara mugatu. Hori guztia, gure iritziz, legegintzako teknikaren arazo baten ondorio da. Beraz, berriz diogu, zergen eraginetarako, 100eko 33ko edo gehiagoko

elbarritasun maila dutenak izango dira lege ezgaitu. Baina printzipio orokor hori arauan bertan zehaztapen espliziturik ez dagoenean bakarrik da aplikatzekoa, hau da, ez du galarazten adierazitakoaz bestelako maila bat ezartzea –bereziki, 100eko 65 aipatu ohi dute testuek–, baina, hala egiten ez badu, ulertu behar da 100eko 33ko edo gehiagoko mailak ezartzen duela elbarritasuna.

Unibertsitateko tasei dagokienez, eta, zehazkiago, familian ezgaitasunen bat duen senitartekoaren bat duten ikasleei aplikatu beharreko salbuespenari dagokionez, Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legeak hauxe dio 39. artikuluan.

“1. Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek Lege honetako 95. artikulua aipatzen dituen prezioak ordaintzetik salbuetsiak izateko eskubidea izango dute, edo prezio horien gain murriztapenak egin dakizkien eskubidea izango dute, erregelamenduz ezarritakoaren esparruan: Prezio horiek ordaintzetik erabat salbuetsiko dira, ohorezko eta lehen mailako familia ugarietako kide direnean, eta ezinduren bat duten familietako kide direnean; orobat terrorismoaren biktima izan direnak eta haien senitartekoak.

a) Ehuneko berrogeita hamarreko salbuespena egingo zaie, bigarren mailako familia ugarietakoak eta guraso bakarreko familietakoak badira.

b) Ehuneko berrogeita hamarreko salbuespena egingo zaie, bigarren mailako familia ugarietakoak eta guraso bakarreko familietakoak badira.

2. Prezio publikoak onartzeko agindu edo erabakian, aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak zehaztu ez ezik, beste salbuespen batzuk ere ezarri ahal izango dira, erabatekoak edo zati batekoak, betiere arbitrariotasunezko bazterkeriarik eragiten ez badute.

3. (...).”

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila azaldu berri dugun lege ahalmenaz baliatu da 2008ko prezioen Aginduan. Hain zuzen ere, “zehaztapen” hauxe egin du –ikus duzun–, 3/2004 Legeko 39.2. artikulua berariaz baimentzen du: ezgaitasunen bat duen senitarteko bat izateagatik salbuespen osoa ematen duen onura ezgaitasun hori 100eko 65eko edo gehiagokoa den kasuetara murriztea.

Horiek horrela, kasu hau amaitu behar dugu esanez kexagileek legekoa ez delakoan zailtzan jarri duten murrizketa horrek ez duela urratzen indarrean dagoen ordenamendu juridikoa.

1.7

HERRIZAINGOA

7. HERRIZAINGOA

Sarrera

2008an, Arartekoaren erakundeak 141 kexa jaso ditu Herrizaingo arloan, hain zuzen ere,aldi honetan aurkezturiko kexa guztien % 11,12. Kexa horiek, eraginpeko herri-administrazioak aintzat hartuta ondoren adierazitakoaren arabera sailkatu ditugu:

- Tokiko administrazioa	86
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	54

Kexetan aztertutako gaiak aintzat hartuz, ondoren adierazitakoaren arabera banatu ditugu:

- Trafikoa	101
- Eskubideak eta askatasunak	17
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura	16
- Hiritarren segurtasuna	4
- Beste alderdi batzuk	3

Gainera, 10 espediente izapidetu ditugu ofizioz, honako gai hauei buruzkoak:

- Babes zibila	6
- Atxiloketa-zentroak	3
- Eskubideak eta askatasunak	1

Aurten **trafikoari** buruz jasotako kexa kopuruak gora egin du, iaz jasotakoei dagokienez. Aurreko urteetan bezala, kexarik gehienak Eusko Jaurlearitzaiko Herrizaingo Sailaren eta Bilboko Udalaren jarduketari buruzkoak izan dira, baina beste udal batzuen jarduketari buruzkoak ere izan dira; esate baterako, Bakio, Basauri, Bergara, Donostia, Erandio, Errenteria, Getaria, Getxo, Hernani, Lekeitio, Pasaia, Portugalete, Santurtzi, Gasteiz, Zalla eta Zarautz. Udal horietariko batzuk kexa bakarra izan dute.

2008an ere, sortu diren gaiak, funtsean, **zigortzeko araudiari** buruzkoak dira, gehienbat zigorrak ezartzeko jarraitu den prozedurari buruzkoak. Horri dagokionez, berriro ere betiko arazoak planteatu dira, adibidez, jakinarazpenak egiteko modua eta prozeduren izapidetze estandarra.

Horrela, jasotako zenbait kexatan, interesdunek diote ez dutela zigortzeko prozeduraren berri izan bide betearazlea hasi arte; hori, kasurik gehienetan, izapidetzeen jakinarazpenak ediktuen bidez izapidetzearen ondoriozkoa da. Egiatzatu dugunaren arabera, zenbait kasutan, gainera, ediktu bidea horretarako legezko baldintza guztiak bete orduko erabiltzen da.

Azpinarratu beharrekoa da **ediktuen bidezko jakinarazpena** bide berezia dela, eta, berori erabiltzeko, beharrezkoa dela zuzeneko jakinarazpena bermatzen duten bide guztiak agortuta egotea. Gure ustez, bidezkoa da Konstituzio Auzitegiak (lehenagoko doktrina batean oinarrituta) aurtengo otsailaren 25eko 32/2008 Epaian horri buruz adierazitakoa azaltzea; epai horren arabera, ediktuen bidezko jakinarazpena *“constituye un remedio último de carácter supletorio y excepcional, que requiere el agotamiento previo de las modalidades aptas para asegurar en el mayor grado posible la recepción de la notificación por el destinatario de la misma, a cuyo fin deben extremarse las gestiones en averiguación del paradero de sus destinatarios, por los medios normales, de manera que la decisión de notificación mediante edictos debe fundarse en criterios de razonabilidad que conduzcan a la certeza, o al menos a una convicción razonable, de la inutilidad de los medios normales de citación”* (2. oinarri juridikoa).

Gutziz kezkarria da administrazio batzuek ediktuen bidezko jakinarazpena modu automatikoan erabiltzea, pertsona juridikoei euren titulartasuneko ibilgailuaren gidaria identifikatzeko eskabidea egiteko, gidari hori trafikoko araudiaren aurkako urratzeren batengatik salatu denean. Erakunde honen ustez, zalantzarikoa da modu horretan jakinarazitako errekerimendua baliozkoa izatea, jasotzaileak egintzaren berri izan dela egiaztatzeko; hori, gure iritzian, beharrezko egitateko kasua da errekerimendua justifikaturiko arrazoi barik ukatu dela ulertzeko eta, horren eraginez, urratzea egin duena zehatzeko (Trafikoari, Bide Segurtasunari eta Motorreko Ibilgailuen Zirkulazioari buruzko Legeko Testu Artikulatua onetsi duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko 72.3 art.).

Ediktu bidea erabili ahal izateko baldintzak ez betetzeari dagokionez, berriro ere aipatu egin behar dugu Gasteizko Udalak izan duen aurkako jarrera, aurrean amaitu dugun kexa-espeditante batean; bertan, gure txostenetan adierazi ditugun beste espeditante batzuetan bezala, udal horrek ez du jardun guk lehenago emandako bi gomendioen arabera, zuzeneko jakinarazpenerako bi ahaleginen arteko ordutegi aldeari dagokionez, Auzitegi Gorenak 2004ko urriaren 28an emandako Epaia baino lehen izapideturiko prozeduratan; izan ere, horrek, arazoaren 26ko 30/1992 Legeko 59.2 artikuluari buruzko legezko doktrina finkatu zuen (ekainaren 26ko 17/2006 eta irailaren 24ko 23/2007 gomendioak).

Aurreko urteetan bezala, administrazioari prozeduraren **izapidetze estandarra** egin izana leporatu dutenak, defentsan aurkezturiko alegazioak eta probak baloratu ez izanaz kexatu dira, batez ere, baita horiek hori isilbidez ukatu izanaz.

Egiatasunaren ustezkotasuna eskatze hutsa da (trafikoko legeriak agintaritzako agenteek zuzenean ikusitako eta formulariko derrigorrezko salaketetan jasotako gertaerei dagokienez, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera), izatez ere, inputatuek prozeduran bere burua errugabetzeko aurkezten dituzten alegazioek eta probek jasotzen duten erantzun bakarra, baita batzuek eta besteek gertaerak zalantzan jartzen ez dituztenean ere; hain zuzen ere, errugabetzeko egoerak agerian jarri eta horiek, gainera, kasuan kasuko administrazioak aintzat hartu dituzte gure esku-hartzearen eraginez.

Berriro ere, agerian jarri behar dugu zigortzeko prozedura baten izapidetzeko akats guztiak ez dutela beti espeditantearen balioabetasuna eragiten. Akats garrantzitsuek soilik sortzen

dute ondorio hori. Horrenbestez, gaia ondo aztertzeko, prozedura osoa hartu behar da kontuan, eta, batez ere, aintzat hartu behar dira interesdunek eurei eraxkitako egintzen berri edukitzea, euren esku izandako defentsa baliabideak, espedientearen azken ebazpena eta egotzitako ekintzak indargabetzeko duten gaitasuna.

Aurkezturiko kexak ikuspegi horretatik aztertu ondoren, gure ustez, 2008an jakinarazi dizkiguten prozedura akats askok ez dute garrantzi nahikorik zigorraren baliozkotasunean eraginik izateko.

Kexetariko batzuk, aurten ere, **amaitu gabeko prozedurei buruzkoak** izan dira. Beraz, azpimarratu behar dugu ezin dugula halako kasuetan eskurik hartu zigortzeko prozedura amaitu arte eta zehaturiko pertsonak bere esku dituen prozedura administratibo guztiak agortu arte. Halaber, nabarmendu egin behar dugu guk esku hartu ahal izateko beharrezkoa dela gure iritzipean jartzen diren gaiak prozeduran alde zuzenetik alegaturik egotea, administrazioak horiei buruzko pronuntziamentua emateko aukera edukitzea.

Berriro ere kexak egon dira **Trafiko Zuzendaritza Nagusiak eta EAEko administrazioek** euren eskumeneko gaitan **aplikaturiko irizpide desberdinei** buruz, gehiegizko abiaduraren eraginezko zehapenak mailakatzeari dagokionez, oraingoan udal administrazio batekin lotuta.

2007ko txostenean agerian jarri genuenez, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak eta EAEko administrazioek aplikaturiko irizpideak (administrazioek aplikatzen dituztenak, dirudienek, onuragarriagoak) berdinak ez izatean ezin ditugu legez aurkakotzat hartu administrazio horiek ezartzen dituzten zehapenak, eta, gainera, ezin dugu eskurik hartu, administrazioei zehapenak murrizteko esanez, baldin eta antolamendu juridikora egokitzen badira, azterturiko kasu guztietan gertatu den bezala. Era berean, gure iritziz, kexek agerian jarri dute beharrezkoa dela gehiegizko abiadurako kasu hauetan (gure informazioaren arabera, as-tungaririk egon ezean zigorra nolabaiteko automatismoz mailatzen da, aurretiaz ezarritako baremoak aplikatuz, eta aplikatzen den legeria bakarra da) zigortzeko administrazioak euren artean koordinatzea, urratze batek zehapen desberdina ez jasotzeko, urratze hori egiteko lekuaren arabera.

Jakin ahal izan dugunez, Trafikoari, Motorreko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeko Testu Artikulatua aldatu duen Legeko proiektuak, Estatuko gobernuak 2008an onetsi duenak (txosten hau ixteko unean Legebiltzarrean izapidetzeko fasean), irizpideak bateratu ditu halako urratzeek tratamendu juridiko bera jasotzeko, zigorra ezarri duen administrazioa edozein izan arren.

Aurten zigorren **ordainketa aurreratu murriztuarekin** loturiko prozedura gaiak planteatzen dituzten bi kexa jaso ditugu (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko 67. art.). Horietariko bat administrazioak salaketan jasotako zigorraren zenbatekoa handitzearen eraginezkoa zen; izan ere, salaturiko pertsonak ez zuen aldaketa horren berri izan premiamenduko prozedura izapidetzen ari dela jakin arte; prozedura horren helburua, hain zuzen ere, lehenengo zenbatekoaren (bidezko murriztapenarekin ordaindutakoa) eta zigor

berriaren arteko aldea derrigorrezko ordainaraztea zen. Beste kexa, berriz, administrazioak zigorraren ordainketa aurreratua (bidezko murriztapenarekin) egin zuen pertsona batek aurkezturiko errekurtsuari ez erantzutearen ondoriozkoa izan zen.

Irnotasunik hartu ez duten zigorren derrigorrezko betearazpena (euren aurkako administrazio errekurtsioak berariaz ez ebaztearen eraginez) aurten ere sortu da; beraz, berriro ere aditza eman behar dugu halako errekurtsioak ebazteko epea igarotze hutsak ez duela gehiagoko barik administrazioa gaitzen errekurrituriko zigorrak betearazteko (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko 83. art. eta otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuko 20. art.).

Puntu honetan, gure ustez, aipagarria da Auzitegi Gorenak gaiari buruz finkatu duen legezko doktrina aipatzea: *"interpuesto recurso de alzada contra una resolución sancionadora, el transcurso del plazo de tres meses para la resolución del mismo no supone que la sanción gane firmeza ni que se convierta en ejecutiva"* (2008ko irailaren 22ko epaia, 2008\4545 EJ).

2008an jasotako bi kexak agerian jarri dituzte zenbait prozeduran dauden disfuntzioak; hain zuzen ere, **agente salatzaillearen administrazioa ez den beste administrazio baten izapidetzea duten prozeduretan dauden disfuntzioak**. Hori, gertatu ere, agente hori Ertzaintzako denean eta prozeduraren izapidetzea udal administrazioaren eskumenekoa denean gertatzen da, eta alderantziz, hau da, salaketa Udaltzaingo agenteak egiten duenean eta prozeduraren izapidetzea, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak egiten duenean. Azterturiko bi kasutan, salaturiko pertsonak aurretiazko ordainketa egin zuten salaketan adierazitako kontuan, hau da, agente salatzaillearen administrazioaren kontuan, eta ez prozedura izapidetzeko ardura zuen administrazioaren kontuan; azken horrek, datu horren berri ez zuenez, aurrera jarraitu zuen izapidetzearekin, ordainketa aurreraturik egon ez balitz bezala. Gure iritziz, halako disfuntzioak, detektatu ondoren, zuzendu egin beharko lirateke.

Bilboko Udalak zigorra ezarri zuen (ibilgailua gaizki **aparkatzeagatik, San Mames futbol zelaiaren inguruan**) eta, horren eraginez, ibilgailua udal gordailura eramane zioten pertsona batek kexa bat aurkeztu zigun; izan ere, bere ustez, udal jarduketa bidegabekoa izan zen, berak esandakoaren arabera ibilgailua aparkatu zuenean uste baitzuen bertan uztea baimenduta zegoela; izan ere, seinale murriztaileak (hori urratzea egotzi zioten) partida egunetara mugatzen zuen debekua, baina ez zuen esaten ibilgailua egun horietan aparkatu zenik eta berak ez zuen datu horren berri.

Kexaren barruko gaia lehendik ere planteaturik zegoen erakunde honetan, lehenagoko kexa-espeditze batean; bertan, hain zuzen ere, udal horri gomendioa egin genion, partida egunetarako debekuari buruzko seinale guztiek hori zein egunetan zen ere adierazteko, datu hori gabe seinaleek ezin baitzuten debeku funtziorik bete. Gainera, kexa eragin zuen zigorra ondorio gabe uzteko ere eskatu genion, eta interesdunari ibilgailua udal gordailutik berreskuratze ordaindu zuen zenbatekoa itzultzeko (abuztaren 30eko 29 eta 30/2000 gomendioak).

Zirkulazio Araudi Orokorreko 150.4. artikuluan seinaleen aplikazio eremuari buruz ezarritako arauak aintzat hartuta, aipaturiko gomendioetan, gure ustez, zigorra eragin zuen seinaleen

antzekoek ezarritako debekua (San Mamesen inguruan partida egunetan trafikoko arauketa bereziaren eraginean dagoen zonan instalaturiko seinaleak) bakoitzaren bertikalean hasi eta bertatik hurbileneko bidegurutzean amaitzen zen.

Aipaturiko manuan eta araudi horretako 137. artikuluan oinarrituz, esan daiteke seinale horiek emandako informazioa ez zela nahikoa partida egunetan aparkatzea debekatzeko funtzioa bete ahal izateko; izan ere, seinaleek ez zuten funtsezko datu bat ematen debekua noizko zen jakiteko, hain zuzen ere, ez zuten esaten debekua indarrean noiz zegoen.

Adierazitako bi manuetan oinarrituz, gure ustez, era berean, gabezia hori arauketa bereziko zonako sarbideetan kokaturiko seinaleek emandako informazioaren bidez bete ahal zen, udalak adierazitakoaren arabera, eta, horretarako, zonako gainerako seinaleetan ere debekuaren data zehatza adierazi behar zen.

Udalak, une horretan, ez zituen gure gomendioak onartu, eta ondorengo espediente batean ere ez zituen onartu. Hala eta guztiz ere, kexa berriak agerian jartzen zuen, denbora igaro arren, antzeko egoerak gertatzen zirela, ibilgailua araturiko zonan aparkatzen zuten pertsonen artean, ez baitziren debekuaz jabetzen; horrenbestez, gure iritzian, bidezkoa da udalak berriro aztertzea guk garai hartan erabili genituen arrazoibideak, erabaki egokia hartu ahal izateko.

Udalak, berriro ere, ukatu egin ditu gure gomendioak; izan ere, bere ustez, debeku seinaleek beharrezko informazioa ematen dute euren funtzioa betetzeko. Halaber, 2000ko txosten bat bidali digu, eta, bertan esaten denez, seinaleek ez dute aukerarik ematen debekuaren data jasotzeko; dena den, udalak ez du gaiari buruzko balorazio gaurkoturik egin, guk hori egiteko eskatu diogun arren.

Zigortzeko araubideari lotu gabeko trafikoko beste alderdi batzuei dagokienez, aipagarria da donostiar batek aurkezturiko kexa, bertako udalak ez baitu neurririk hartzen donostiar honen iritziz honako honen eraginezkoak diren bide segurtasuneko arazoak konpontzeko: udaleko hiri autobus batzuek geraldian baten ondoko oinezkoen pasabide batean sistematikoki aparkatzearen eraginezkoak.

Bide batzuen antolamenduaren aurkako kexak ere egon dira; adibidez, Bilboko Miramarreko bidearen eta Donostiako Ategorrietako Galtzada Zaharraren aurkakoak; horiei dagokienez, era berean, bide segurtasunik ezari lotutako zalantzak planteatu dira.

Beste kexa batean, hiritar frantses batek gure esku-hartzea eskatu du, Bilboko Udalak bere autoa ibilgailuen udal gordailuan zegoela egiaztatzeko; izan ere, berak esandakoaren arabera, agiria gordailuan bertan lortzen saiatu zen, baina ez zioten ulertu.

Trafikoko istripu batean inplikaturiko pertsona batek kexa aurkeztu du, berak egindako eskabideak erantzunik jaso ez duelako; eskabide horretan, istripuari buruzko polizia txostenean zenbait datu jasotzea eskatu zuen.

Era berean Lekeitioko Udalak bertako alde zaharreko etxebizitza baten jabeei bertara ibilgailuz joateko baimena ukatzearen eraginezko kexa ere jaso dugu; udal horrek dioenez, udalerriko ordenantzan ezarritakoaren arabera, horretarako beharrezkoa da udalerrian errol-daturik egotea.

Bestalde, **Herriaren Defendatzaileari** bere eskumeneko gaiei buruzko kexak **bidali zai-zkio**; esaterako, autoeskoletako irakasleei euren funtzioa betetzeko legez eskatzen zaien gutxieneko altuerari buruzkoa. Kexa horietariko gehienak, hala eta guztiz ere, Estatuan izapideturiko zigortzeko prozedurei lotuta egon dira.

Halaber, Andaluziako, Kataluniako eta Gaztela eta Leoneko **Herriaren Defentsaren Erakundeari** ere kexak bidali dizkiegu, euren kontrolpeko zigortzeko prozedurei buruzkoak.

Azkenik, aditzera eman behar dugu jasotako kexetariko batzuk **ez ditugula onartu**; batez ere, bertan jasotako gaia aldeztatik administrazioari planteatu ez zaiolako edo kexa eragin den administrazio jarduketatik urtebete baino gehiago igaro delako.

Beste ararteko batzuei bidali dizkiegun kexak eta onartu ez ditugunak ez daude jasota sarre-ra honen hasieran adierazi ditugun datu kuantitatiboetan.

Aurten **Herrizaingoaren barruko gainerako eremu materialei buruz** jaso dugun kexa kopura 2007koa baino handiagoa izan da. Aipagarria da eskubideen eta askatasunen arloan aurreko urteari dagokionez izandako gorakada nabaria.

Kexarik gehienak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari buruzkoak izan dira, eta, neurri txikiagoan, Bilboko, Gasteizko, Barakaldoko, Galdakaoko, Laudioko eta Errenteriako udalei buruzkoak, eta azken horietarikoren batek kexa bakarra izan du.

Aurreko urteetan bezala, **kexa horietariko batzuetan indarra neurri gabe erabiltzea edo poliziak emandako bidegabeko tratua salatu** da, agenteek polizia egoitzetatik kanpo garaturiko jarduketei dagokienez.

Atal honetan, aipagarria da bi anaiak eskatuta izapideturiko espedienteak; Ertzaintzak atxilotu egin zituen, ertzainen aurkako ustezko atentatu delitua egiteagatik. Gertaerak igande goiz bateko lehenengo orduetan izan ziren; kexagileak Gasteizko Artiumeko plazan zeuden, inguruko diskoteka batetik irten ondoren. Eurek kontaturikoaren arabera, polizia bereizgarririk gabeko ibilgailu bat halako batean euren ondoan gelditu eta anaietariko bat zapaltzeko zorian egon zen; horren ondorioz, horrek agirika egin zion ibilgailu barruan zeuden pertsonetarik bati (ez omen zekien polizia zenik), eta azken horrek, berriz, aurpegian kolpe gogorra jo eta lurrera bota zuen. Kexaren sustatzaileek esandakoaren arabera, handik gutxira uniformedun agenteak joan ziren bertara, eta konortetik gabe utzi arte kolpatu zuen mutila. Anaia horiek esan zuten ez zekitela ibilgailu barrukoak ertzainak zirenik; izan ere, eurek

diotenez, autoak eta euren janzkerak ez zuen Ertzaintzaren bereizgarririk, eta agenteak ere ez ziren ertzaintzat identifikatu. Lehenengo anaia eskuburdinak jarri zizkiotenean eta uniformedunak heldu zirenean konturatu omen zen ertzainak zirela, eta beste anaia ez zen horretaz konturatu osasun zentroan egon zen bitartean, bertara eraman baitzuten osasun laguntza jasotzeko.

Gertaerak ikertzeko bidali genion lankidetzak eskaerari erantzunez, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jakitera eman zigun agente horiei agindua eman zietela inguru horretan gertatzen ari zen borroka batean esku hartzeko. Halaber, jakitera eman zigun agenteek beste bertsio bat eman zutela euren identifikazioari buruz, atxilotetaren ondorioz egindako atestatuan; hain zuzen ere, interesdunei euren lanbide egiaztapenak erakutsi zizkieten, eta agintaritzaren agentetzat identifikatu zuten euren burua, anaiek eurengana jo zutenean.

Talde horrek egindako beste kexa bat, izan ere, Galdakaoko Udaltzaingoaren esku-hartze bati buruzkoa izan da; hain zuzen ere, udalerriko ikastetxe batean eskola kirolaren urteroko jaietan egindako esku-hartzeari buruzkoa. Eurek emandako informazioaren arabera, polizia jardueta auzotarrek aurkezturiko kexa baten ondorioz hasi zen, auzotarrek esan baitzuten musikaren bolumena altuegi zegoela; jarduketaren barruan, agenteek indarra erabil zuten, eta defentsako esprai toxikoak ere erabili zituzten; horiek lesioak eta erreduak eragin zizkieten bertan bildutako pertsona batzuei. Kexan adierazitakoaren arabera, polizia ibilgailu bat hezkuntza barrutian sartu eta arriskuan jarri zuen haurren segurtasuna, horiek ikastetxeko kirol pistetan jolasten ari baitziren. Era berean, kexan esaten zenez, polizia esku-hartzeak ez zuen aintzat hartu une horretan ikastetxean zeuden pertsona asko adingabeak zirenik.

Kexa horietariko batzuek atzeritarrek egindakoak dira, eta poliziarengandik jasotako tratua adierazitako gertaerarekin lotu dute.

Esate baterako, hiritar afrikar beltz batek aurkezturiko kexa; Ertzaintzak bere agenteen aurkako ustezko atentatu delitu baten eraginez atxilotu zuen. Interesdunak guri kontaturikoaren arabera, San Frantzisko auzoan zegoen, bere autoren ondoan, espaloiko zintarrian eserita, beste afrikar batekin batera; orduan, ertzain batek, beste agente batzuekin batera zonan bi lagunekin zerikusirik ez zuen jarduketa bat egiten ari zenak, automobileko musika ekipamenduaren bolumena jaisteko agindu zion. Kexagileak emandako bertsioaren arabera, agindua bete ondoren, beste agente batek bertatik joateko esan zion, modu iraingarrian; horren ondorioz, berak protesta egin zuen, tratua iraingarria baitzen, eta jokabide hori salatzeke asmoa adierazi zuen; horretarako, identifikazio zenbakia eskatu zion agenteari. Kexaren sustatzaileak emandako datuen arabera, agentea haserretu egin zen horregatik, eta atxiloturik zegoela esan zion; horma kontrara indarrez jarrarazi eta orkatiletan ostikoak ematen hasi zitzaion. Kexagilearen bertsioarekin jarraituz, agenteak, gero, belaunarekin jo zion barrabiletan, eta, horrela, lurrera erori zen; posizio horrextan jarri zizkioten eskuburdinak, eta ibilgetu egin zuten, polizia funtzionario baten belauna lepoaren kontra gogor estututa; horrek min handia eragin zion. Berak dioenez, jasotako kolpeek lesioak eragin zizkioten lepaornoetan (sendagileak diagnostikaturiko lesioak), eta horrek ondorioak sortu zizkion; gauza bera esan du orkatiletan hartutako kolpeei buruz. Halaber, esan zigun jendarean laidotuta eta irainduta sentitu zela agenteen ekintzaren eraginez.

Kexagilearen ustez, atxiloketak eta hori egiteko moduak (oso zakarra) ez zuten inolako justifikaziorik izan, eta bera iraindu zuen agentearen jarduketa kritikatzegatik gertatu ziren. Berak adierazitakoaren arabera, agenteek iseka egin zioten, adierazpen xenofoboak erabilita, bere aurkako tratua salatzen ari zen bitartean. Halaber, komisarian atxiloketarekiko desadostasuna adierazi eta, agintea gehiegikeriaz erabiliz (arrazakeriazko irainak, jasotako tratua salatzeagatik bakarrik), irainak nahiz erasoak jaso zituela esan zuenean, komisarian ere barre egin zioten berriro.

Kasu honetan ere, Herrizaingo Sailak aditzera eman zigun agenteek gertatutakoari buruz emandako bertsioa (polizia atestatuan emandakoa) guztiz desberdina zela, funtsean, kexagileak emandakotik. Aditzera eman zigun, era berean, ezin izan zirela egiaztatu interesdunak polizia egoitzan jaso omen zituen irainak eta isekak.

Etorकिन aurkako polizia tratu txarra salatzen zuen beste kexa bat arlo horretan lan egiten duen elkarte batek aurkeztu zuen; bertan esaten zenez, Ertzaintzako kideek gehiegikeriaz erabili zuten euren agintea, jatorri afrikarreko bi gizonekin izandako esku-hartzean. Elkarreak gertaerari buruz emandako bertsioaren arabera, bi gizonak automobiler zihozten etxera; halako batean, Urnietako sarreran, polizia bereizgarririk gabeko ibilgailu batek euren autoa aurreratu eta ibilgailu barruko pertsonak (hauek ere polizia bereizgarririk gabe) gelditzeko esan zieten, armak erakutsiz (bi lagunak interpretatu zuten armak erakusteak poliziatzat identifikatzen zituela ibilgailu barruko pertsonak); ondoren, euren atzetik joateko esan zieten. Kexan adierazitakoaren arabera, eurek horixe egin zuten, harik eta, herri horretako industrialde batera heldu zirenean, bertan beste inor ez zebilela eta hirigunetik urrun zeudela ikusita, ibilgailua gelditu eta agenteei ez zirela aurrerago joango esan zieten arte. Erreklamazioa aurkeztu duen elkartearen bertsioan esaten denez, agenteek autotik irtenarazi eta eskuak automobilaren gainean jartzeko esan zieten, eta hankak ondo zabaltzeko; agiriak eskatu eta aldean zituzten gauzak ibilgailuaren kapotaren gainean jartzeko esan zieten. Bertsio horren arabera, uniformedun lau ertzain joan ziren bertara, bi poliziaren ibilgailutan; bi lagunak arakatu eta sakelako telefonoak kendu zizkieten.

Kexaren arabera, poliziaren esku-hartzea bi ordu ingurukoa izan zen; aldi horretan, interesdunetarikoa bat eskuak altxatuta eta eraikinaren horma kontran jarrita egotera behartu zuten, eta bestea, berriz, eskuak autoaren kapotaren gainean jarrita egotera. Erreklamazioa egin duen elkarteak dioenez, esku-hartzea egin zutenean, agenteek adierazpen iraingarriak eta mehatxuzkoak egin zituzten, bi lagunak aurka. Dirudenez, azkenean, agenteek trafikoko araudia urratzeagatik salatu zuten ibilgailuaren gidaria. Kexan esaten denez, poliziaren jarduketa amaitu ondoren, interesdunak bertatik hurbileko Ertzaintzaren komisaria batera joan ziren, gertaerak salatzea, baina ezin izan zuten hori egin, komisariako agenteak gaia ahazteko esan eta salaketa formalizatu nahi izan ez zuelako. Elkarreak adierazi digunez, komisarian sakelako telefonoak itzuli zizkieten.

Herrizaingo Sailak berretsitakoaren arabera, poliziaren jarduketaren eragilea hauxe izan zen: agenteek uste zuten bi lagunak ibilgailuak trafikoko bi administrazio urratze nahiko larri egin zituela. Bi lagunak industrialdera eraman izana justifikatzeko, esan zuten identifikatu egin behar zituztela, urratze horien salaketa formalizatzeko, eta hasierako lekuak gutxieneko

segurtasun baldintzak betetzen ez zituela, halako izapidetzeak egiteko. Esan zigun bi pertsona horiek ez zutela euren burua identifikatu nahi izan, eta agenteak mehatxatu eta iraindu egin zituztela, eta horiek zigor urratzea egotzi zietela horregatik. Onartu egin zuen agenteek arakatu egin zituztela bi lagunak, eta, neurri hori justifikatzeko, esan zuen euren identifikazioa segurtatu eta agenteen segurtasuna bermatu beharra zegoela. Era berean, onartu egin zuen lagunetariko baten sakelako telefonoa konfiskatu zutela (ez biena), eta, jarduketa hori justifikatzeko, esan zuen hori edukitzea legezkoa zen ala ez egiaztatu behar izan zutela, jabeak agenteei esan baitzien ez zuela kontaktuko telefonorik, horri buruz galdetu ziotenean. Hala eta guztiz ere, ez zen ados egon esku-hartzeak irauan omen zuen aldiarekin, eta, horri buruz, esan zigun aldi hori ordubeteko izan zela.

Emandako informazioa aintzat hartuta, gure ustez, jarduketa horietariko batzuk ez daude justifikatuta; esate baterako, bi lagunak hasierako lekutik urrun zegoen jenderik gabeko beste leku batera eramatea eta, izapidetze hori egiteko, biak identifikatzea (ez gidaria bakarrik). Informazio horren arabera, halaber, gure iritziz zalantzazkoa da sakelako telefonoa kentzea, arakatzea eta poliziaren esku-hartzea ia ordubetez luzatzea.

Bestalde, Herrizaingo Sailak ez zigun informaziorik eman interesdunen salaketa jaso nahi ez izateari buruz; horrela, txostena ixteko egunean, ez dugu horri buruzko iritzia emateko elementu nahikorik eduki.

Atzerritarrek identifikatzeko modua eta euren jabetzak arakatzea, beste bi kexatan ere planteatu da, Bilboko Udaltzaingoaren bi jarduketei dagokienez. Bi kasutan, kexak aurkeztu zituzten pertsonak poliziaren esku-hartzea ikusi zuten.

Horiatariko bat ez zegoen ados agenteek denda batean bi emakume beltzen identifikazioa eta arakatzea egiteko moduarekin. Bere ustez, agenteek modu desegokian hitz egin zieten bi pertsona horiei, ez zuten beharrezko diskrezioz jardun eta, gainera, ez zuten aintzat hartu eurekin adingabe bat zegoela.

Beste kexan adierazitakoaren arabera, polizia kidego horretako kideak identifikazioa eskatu zion jatorri afrikarreko hiritar bati, eta motxila arakatu nahi ziola esan zion; horretarako, besotik heldu eta atzerantz okertu zion, eta kaleko albo batera eraman zuen. Gainera, identifikazioa eta arakatzea pertsona hori beltza izatearen ondoriozkoak izan zirela uste du. Adierazi zigunez, hiritar horrek ez zeukan legez kanpoko gauzarik motxilan.

Udalak jakitera eman zigunaren arabera, lehenengo kasuan, aginteek ukatu egin zuten tratu desegokia eta diskreziorik gabea eman izana. Bigarrenari dagokionez, esan zigun hiritarra identifikatzea eta arakatzea bere ezaugarri fisikoen eta janzkeraren eraginezkoak izan zirela, zorro bat lapurtzeagatik salaturiko gizon baten deskribapenarekin bat zetozelako; halaber, poliziaren esku-hartzea polizia instrukzioaren arabera izan zela esan zigun, eta agenteek hiritar horrek salaketarekin zerikusirik ez zuela egiaztatu zutenean amaitu zela.

Bi kexetan aditzera ematen zen agenteek gertaerak ikusten jarraitzeko eragozpenak jarri zizkietela lekuko batzuei. Udalak, hala eta guztiz ere, ez zuen hori onartu. Aldiz, esan zigun,

lekuko batek, poliziaren jarduketa ikusteaz gain, bertan parte hartu nahi izan zuela, eta hori, udalak dioenez, agenteen lana oztopatzea da.

Beste kexa batean, Errenteriako Udaltzaingoari gizon homosexual atzeritar baten identifikazioa egotzi zitzaion; gizon hori, antza denez, Eusko Jaurlaritzaren etxerik etxeko inkestak egiten ari zen. Kexa horretan adierazitakoaren arabera, kidego horretako bi agentek bide publikoan identifikatzeko eskabidea egin zioten pertsona horri; egiten ari zen inkestak arakatu eta bera kontratatu zuen enpresari deiarazi zioten, bere ordeztuz; gero, joaten utzi eta udalerritik alde egiteko iradoki zioten. Kexan hiritar horren bi baldintza pertsonalekin (lehen adierazitakoak) lotzen da poliziaren jarduketa.

Errenteriako Udalak, identifikazioa justifikatzeko, esan zuen Udaltzaingoak telefono deiak jaso zituela, eta, horietan adierazitakoaren arabera, gazte bat inkesta susmagarriak egiten ari zela etxerik etxe, biztanleak hurrengo jaiegunetan etxean egoteari buruz. Udalak ukatu egin zuen agenteek pertsona horri udalerritik joateko eskabidea egin izana.

Udal informaziotik ondorioztatzen denez, hala ere, agenteek identifikatzeko eskatu zioten gazteari, jarduketa horren zergatia azaldu barik; zergatia azaltzea, gure ustez, beharrezkoa da, eta, hori egin izan balute, segur aski ekidin egingo zen gazteak tratatu txarra jasaten ari zela pentsatzea.

Informazio horretatik ondorioztaturikoaren arabera, agenteek inkesta gehiagorik ez egiteko eskatu zioten gazteari, bere lanak sorturiko sumoak ikusita. Baina horrek, gure iritziz, ez dauka inolako justifikaziorik.

Kexa horien izapidetza egitean, egiaztatu egin dugu erakunde honek EAEko herri-administrazioen mendeko polizia kidegoei emandako gomendio orokor batzuk (kexetan adierazitako gaiak buruzkoak) halako kasuetan duten betetze maila.

Gure iritziz, **honako gomendio orokor hau** oraindik ez da guztiz betetzen: **“Polizia kidegoek kontroleko tresnak ezartzea, agenteen balizko jarduketa irregularrak ekiditeko”** (2003ko txosten arrunta).

Horri dagokionez, aurten ere jakitera eman behar ditugu poliziaren jarduketei buruzko kexak ikertzeko arazoak ditugula; horiek zigor jurisdikzioak aztertzen ditu, bai poliziaren esku-hartzean atxiloteta edo halakorik gabeko zigor egozpena egon delako, bai eraginpeko pertsonak eurek agenteak salatu dituztelako, bai bi zergati horiek biltzen direlako.

Horixe gertatu da, esate baterako, Galdakaoko Udaltzaingoaren jarduketa bati buruzko kexan (lehen adierazitakoa), baita Donostiako Udaltzaingoaren esku-hartze bati buruzko beste kexa batean ere; azken horren izapidetza 2007an hasi eta aurten amaitu dugu ([2008ko irailaren 23ko ebazpena](#)¹⁷).

¹⁷ Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 23koa. Horren bidez amaitzen da bere esku-hartzea emakume gazte batek egindako kexari dagokionez. Emakume horrek adierazi zuen tratatu desegokia jaso zuela Donostiako Udaltzaingoaren eskutik.

Behin eta berriro esan dugunaren arabera, gure iritziz, prozedura judizialaren izapidetzeak arartekoari ez dio ekiditen polizia arduradunei gertaerei buruzko barne ikerketa hasteko eskaera egitea, agenteen balizko jokabide irregularren berri dutenean (aipaturiko gomendioan adierazitakoaren arabera); halaber, gomendio hori eta erakunde honek EAEko herri-administrazioen mendeko polizia kidegoei egindako beste batzuk bete diren egiaztatzea ere ez dio ekiditen, eta prozedura judizialetik kanpoko alderdiak (kexaren barruko alderdiak) aztertzea ere ez.

Arartekoak 2008ko irailaren 23an emandako Ebazpenean zehatz jasota dago erakunde honek horri buruz duen jarrera.

Aurten gomendio hori betetzeari lotuta ikusi ditugun gainerako arazoak ere betikoak dira. Batez ere, barruko ikerketa hastea atzeratzeari lotuta daude, eta ikerketa hori kexaren eraginpeko agenteen bertsioa eskatzera mugatzeari lotuta.

Azpimarratu egin behar dugu berehalakotasuna erabakigarria dela, ikerketak gertaera argitzeko funtzioa arrakastaz betetzeko gutxieneko bermeak eduki ahal izateko; gainera, garrantzitsua da polizia arduradunek ikerketa balizko jarduketa irregularra egon dela jakin eta berehala hastea Ikuspegi horretatik begiratura, gaitzesgarria da ikerketa justifikazio barietate atzeratzea.

Era berean, nabarmendu egin behar dugu eragindako agenteek beste bertsio bat ematea berez ez dela baliozkoa kexa baztertzeko, arakatzeko jarduerak albo batera uzteko edo polizia jarduketaren egokitasunari buruzko iritzia euskarritzeko.

Adierazitako arazoak mantendu egiten direnez, berretsi egin behar dugu ezinbestekoa dela kasuan kasuko administrazioek arlo honetarako jarduketa protokoloak ezartzea, kexa bat jasotzen dutenean eta horri buruzko ikerketa egiten dutenean garatu beharreko jarraibideak argi zehazteko, aipatzen ari garen gomendio orokorrean adierazi duguna aintzat hartuta.

Jasotako kexak eta polizia arduradunek emandako azalpenak aintzat hartuz, gure iritziz, ez dira bete "Poliziaren jarduketak pertsona atzerritarrekin, San Frantziskoko zonan" izeneko txostenean eman genituen gomendioak, **indarra erabiltzearen barne kontrolari** dagokionez (7. eta 8. gomendioak), horiek edozein polizia jarduketatan aplikatu beharrekoak baitira (hori edonon gertatu arren) beste zenbait aldiz azaldu dugunaren arabera.

Bertan adierazi genuenez, indarra erabiltzea azken aukera izan behar da, eta, hori eginez gero, zorrotz errespetatu behar dira egokitze-, beharrian- eta proportzionaltasun printzipioak; gainera, hierarkian gorago daudenen iritzia arrazoitua, kontrolatua eta berretsia egon behar da kasu bakoitzerako. Era berean, mekanismo egokiak ezarri behar dira polizia jarduketaren ondorengo kontrola egin ahal izateko. Horri dagokionez, gure iritziz, agenteek euren jarduketa justifikatzen duten zergatiak jakinarazi behar dizkiote kontrol zentroko sistema informatizatuari, baldin eta polizia egoitza kanpo indarra erabiltzen badute; halaber, zergati horiek eta esku-hartzearen garapenaren azalpen zehatzak agiritan jaso behar dituzte (batez ere, erabilitako indarra zehatz azaldu behar da).

Hala eta guztiz ere, gomendio horiek betetzeari buruzko informazioa eskatzen dugunean (eraginpeko administrazioek eurek ere agenteek indarra erabili dutela onartzen dutenean), administrazioek erabilitako indarraren balorazioa baino ez digute jakinarazten, esanez horrek bete egin dituela adierazitako legezko printzipioak; baina ez digute ematen indarraren erabilera horri buruzko zehaztapenik, eta aipaturiko gomendioak aintzat hartuta jardun den ere ez digute azaltzen; hori ez da nahikoa erakunde honek erabili den indarrari buruzko balio judizioa emateko eta gomendioak bete diren ala ez egiaztatzeko. Aurten, indarra erabiltzeari lotuta aurkeztu diren kexa guztietan gertatu da hori, baita Donostiako Udaltzaingoaren jarduketari buruzko lehengo kexan ere (Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 23koa).

Beste kexa batzuetan, esate baterako, azken kexa honetan, aditzera eman digute erabilitako indarra polizia jarduketaren eraginezko zigor eginbideak izapidetzeko ardura duen epaitegiak baloratu behar duela. Ukatu egin behar dugu arrazoibide hori; izan ere, halako kasuetan eskatzen duguna ez da kexaren osteko balorazioa, polizia jarduketan prebentzio mekanismoak (aipaturiko txostenean eta lehenago ere adierazi ditugunak) aplikatzeari buruzko informazioa baizik.

Hori guztia aintzat hartuta, berretsi egin behar dugu ezinbestekoa dela gomendio horiek betetzea.

Bestalde, erakunde hau kezkatuta dabil, euren jarduketak eraginpeko pertsonen gaitzespena edo salaketa jaso dezakeela ikusten dutenean, agenteek hauxe egiten dutelako: pertsona horien aurkako **salaketa jarri, aginteekin erlazionaturiko zigor urratzeak egotzita** (aurka egitea, esandakoa ez egitea, atentatua, etab.). Izan ere, zenbait kexatan agerian gelditu da hori.

Onartu egin dugu ez dela erraza adierazitako jarduketak saihestea; izan ere, gertatzen direnean, gehienetan ezkutatu egiten dira, polizia funtzioen legalitate itxura emanez; lehen ere esan dugu polizia arduradunek jabetu beharra dutela, antolamendu juridikoak agenteei atestatua egiteko ematen dien ahalmena gehiegikeriaz erabiltzeko aukeraz. Hori dela eta, berretsi egin dugu neurriak hartu behar direla halako jokabide gaitzesgarriak aurreikusteko eta kontrolatzeko.

Aurten ere gai bera sortu da, lehen adierazi ditugun kexetarikoa batzuetan, baita Ertzaintzak kanpin batean izandako jarduketaren aurkako beste kexa batean ere, eta azken hori aurre-rago aztertuko dugu.

Kexa hauetan eman zaigun informazioaren arabera, ez dirudi aipaturiko mekanismoak ezarrita daudenik, eta, beraz, gai honetan ekin beharko dugu aurrerantzean ere.

Gasteizko Udaltzaingoak "*desobedientzia (identifikatu nahi ez izatea), irainak, mehatxuak eta erasoak polizia agenteari*" deritzonagatik (trafikoko araudia urratzeari lotutako gertaera) atxilotutako pertsona batek aurkezturiko kexaren izapidetzean, agerian gelditu da gure us-tez kezkarria den arazo bat, lehenagoko txostenetan ere aipatu duguna; hain zuzen ere,

auzibidean hasiera-hasieratik hutsegitetzat kalifikatzen diren gertaerengatik inor atxilotzea, agenteek ere hutsegitetzat baloratuz gero ez baitzen atxilotetarik egongo.

Orain arte adierazitako kexetan, beste gai batzuk ere aipatzen dira behin eta berriro.

Esate baterako, **agenteek euren identifikazio zenbakia eman nahi ez izatea**; hori Ertzaintzak afrikar jatorriko gizon baten aurka egindako jarduketari buruzko kexa batean jaso da, baita Galdakaoko Udaltzaingoaren jarduketari buruzko beste batean ere (lehen adierazi dugu). Halaber, Ertzaintzak kanpin batean egindako esku-hartze baten aurkako kexa batean ere jasota dago.

Gauza bera esan daiteke **polizia jarduketan lekukoak** egoteari eta **kalean pertsonengana jotzeko moduari** buruz ere; izan ere, horrek adierazi diren lehenengo bi kexak eragin ditu.

Bi gai horiek, gogoratuko dugunez, "Poliziaren jarduketak pertsona atzerritarrekin, San Franziskoko zonan" txostenean aztertu ziren (8.a b, 2 eta 3 gomendioak).

Txosten horretan adierazitakoaren arabera, era berean, beharrezkoa da zona horretan jarduten duten agenteek **trebakuntza** izatea, euren lanean eragina duten alderdi bereziei buruz; esate baterako, atzerritartasuna, beste kultura batzuk, etab. (5. gomendioa). Ertzaintzak zona horretan jatorri afrikarreko pertsona batekin izandako jarduketari buruzko kexaren izapidetzea aprobeixatu dugu Herrizaingo Sailaren arloan gomendio hori zein neurritan betetzen den egiaztatzeko. Sail horrek adierazi digunaren arabera, 2001etik ez du gehiago trebakuntza hori eskaini, berriro eskaintzeko prest dagoela adierazi arren.

Aurten gure iritzipean jarritako **beste polizia jarduketa batzuei** dagokienez, aipagarria da aipatzen ari garen kexa eragin zuena; hori Zarautzeko kanpin baten titularrak aurkeztu zuen, Ertzaintzak establezimenduaren barrutian egindako esku-hartze baten alderdi batzuen aurka; izan ere, bere ustez, jarduketa horrek urratu egin zuen ostalarien intimitaterako eskubidea. Erreklamazioan esan zuen ez zegoela ados eskubide hori errespetatzeko egin zuen eskaerari agenteek emandako erantzunarekin.

Interesdunak gertaerari buruz jakinarazitakoaren arabera, lau ertzain eta bi udaltzain kanpinera joan ziren, bertako kanpadenda batean zegoen gizon bat identifikatzeko (eurek esan zuten), ziklomotore bat lapurtzeari buruzko polizia ikerketa baten eraginez. Berak emandako bertsioaren arabera, kanpineko arduradunek baimena eman zieten agenteei barrutian sartzeko, eta pertsona horren ustezko kanpadendara lagundu zieten. Dirudienez, pertsona hori ez zegoen bertan, eta, beraz, agenteek dendatik hurbil gelditzea erabaki zuten, gizona itzuli arte. Kexan esaten denez, gero, kanpineko segurtasun zaintzaileetarikoa batek zuzendaritzari jakitera eman zion bi ertzainek poltsa batzuk atera zituztela kanpadendatik, eta horiek arakatzen ari zirela. Kexagileak jakitera eman zigun informazio hori jakin zuenean bertara joan zela, kanpineko beste enplegatu batekin batera, eta agenteei jarduteko modu horrekiko desadostasuna adierazi ziela; izan ere, bere ustez, horrek urratu egiten zuen agenteek arakatzen ari ziren gauzen jabearen intimitaterako eskubidea; horrek, gainera, bera ere

konpromisoan jar zezakeen, kanpineko arduraduntzat. Berak esan zigunez, agenteetariko batek haxe erantzun zion : *"Tú y tú no habéis visto nada"*, berari eta bere enplegatuari buruz, eta: *"Si te lo hubieran hecho a ti harías cualquier cosa por solucionarlo, no vamos a estar aquí cuatro horas para que en las bolsas sólo haya unos calzoncillos sucios"*.

Kexan adierazitakoaren arabera, hori ikusita, kexagileak berriro esan zuen instalazioaren arduraduna zela, eta berretsi egin zuen polizia jarduketaren alderdi horrekin ez zegoela ados. Bertsio horrekin jarraituz, agenteek, azkenean, arakutzen ari ziren poltsak itxi eta denda barruan utzi zituzten berriro. Kexaren sustatzaileak dioenez, berari lehen esandako hitzak esan zizkion agenteak isilik egoteko agindu zion, modu txarrean: *"Cállese señora, que está gritando como una gallina"*. Halaber, agenteak ez zion bere identifikazio zenbakia erakutsi nahi izan, berak eskabidea egin baitzion jarduketari eta berak jasandako ahozko tratuari buruzko kexa aurkezteko; ondoren, beste bi ertzainek esan zioten agenteak salatu egin zuela agintaritza eragozteagatik eta zaintzako gauzak galtzeagatik. Bere ustez, egozpen hau (berak dioenez, une hartan agenteak ez zion ezer esan) agenteen jarduketa zalantzan jartzearen ondoriozkoa izan daiteke.

Herrizaingo Sailak gertaturikoa argitzeko egindako barne ikerketaren berri eman zigun. Sailak emandako informaziotik ondorioztatu genuenez, gertaera horretan parte hartu zuten ertzainek onartu egin zuten kexagilea aipaturiko poltsak arakatu izana. Sailak, hala eta guztiz ere, esan zuen, agenteek eta udaltzainek adierazitakoaren arabera, poltsak kanpadendako sarreraren aurrean zeudela, ez barruan, kexan esaten denez. Informazio ofiziala aintzat hartuta, beste lekuko batzuek, hala ere, esan zuten agenteak kanpadendara heldu zirenean hori itxita zegoela eta kanpoan ez zegoela poltsarik. Gure ustez, emandako datu hauek kontuan hartuz, zalantzakoa da poltsak agerian egon arren, horrek poliziaren jarduketa justifikatzea, baldin eta, agenteek diotenez, horiek kanpadendako zona pribatuan bazeuden. Bestalde, ikerketaren arabera, kexan aipaturiko agenteak establezimenduko titularrari emandako tratua ez zen egokia izan, eta agenteak ez zion identifikazio zenbakia eman, horrek eta bere kideak hori ukatu arren. Eman zizkiguten azalpenen arabera, Herrizaingo Saila bi jokabide horiek diziplinaren ikuspegitik aztertzen ari zen. Sail horrek berretsi egin zigun kexagilea agenteekiko errespetu faltaz salatu zutela, eta kexagileak, aldi berean, zigor auzibidean aurretiazko eginbideak irekitzea eragin zuen salaketa bat egin zuela.

Interesdunak, era berean, esan zigun bere kexan aipaturiko agente horren aurkako **salaketa egin** nahi izan zuela, bere herriko Ertzaintzaren komisarian, eta bertan horretarako eragozpenak jarri zizkiotela.

Nahiko sarri planteatzen den azken alderdi hori aurtengo beste kexa batzuetan ere ageri da.

Lehen esan dugunez, jatorri afrikarreko bi gizonen Ertzaintzaren jarduketaren aurka aurkezturiko kexaren zergatiatariko bat izan da; jarduketa hori balizko trafikoko urratze baten ondoriozkoa izan da.

Barakaldoko taberna batetik bere lagunekin batera kanporatu omen zuten emakume batek egindako kexan ere ageri da. Horren irritziz, kanporatzea bere eta lagun baten ezaugarri

etnikoen ondoriozkoa izan zen (biak jatorri Latino Amerikako afrikar jatorrikoak), eta hori xenofobia delitua izan daiteke. Kexagileak adierazi zigunez, Udaltzaingoak esan zion ez zuela eskumenik, eta Ertzaintzara bidali zuen; Ertzaintzak, aldi berean, kontsumo bulegora. Barakaldoko Udalak, aldiz, esan zigun pertsona horiek lehenengo Ertzaintzara joan zirela, eta Udaltzaingoak bideratu zituela kontsumo bulegora; izan ere, poliziaren egoitzan arreta eskaini zioten agenteek ez zuten tratu xenofoborik edo arrazakeriazkorik aipatu. Bestalde, Herrizaingo Sailak oraindik ez dio gure lankidetzara eskaerari erantzunik eman, txosten hau amaitzeko uanean.

Aipatu beharra dago, halaber, agiririk gabeko eta administrazio egoera irregularreko pertsona atzerritar batek aurkezturiko kexa; hain zuzen ere, berak esan zigunez, Ertzaintzak ez zuen formalizatu nahi izan berak egin nahi zuen salaketa, bere pasaportearen desagertzearen buruzkoa, agenteek ziotenez bere identitatea egiaztatu ezin zuelako. Gure iritziz, polizia kidegoek salatzailearen identitateari buruzko informazio egiazkoa eta kontrastatua eduki ezin izateak ez du zertan ekidin horrek ez-zilegi bat salatu ahal izatea. Horrek, gure ustez, agerian jartzen du polizia kidego horiek ez dakizkitela euren legezko betebeharrak, eta delituaren biktima babesik gabeko egoeran jarriko luke. 2004ko txostenean antzeko kexa bat adierazi behar izan genuen, eta, horren ondorioz, Herrizaingo Sailak bateratu egin zituen irizpideak, bere ustez, Ertzaintzako polizia zentroak ordura arte aplikatzen zituztenak. Gure iritzian, irizpide berriak ez zeuden nahiko argi idatzita, eta, horrela, administrazio horri horiek beste modu batera formulatzeko eskatu genion, baina horrek ez zuen kasurik egin. Gure ustez, kexa hau kontuan hartuta, orduan egin genuen iradokizunak indarra hartu du.

Bestalde, Ertzaintzak kanpin batean izandako jarduketari buruzko lehengo kexak agerian jarri du disfuntzioa egon daitekeela **epaiketa azkarrerako zitazioan**; zitazio hori Ertzaintzako komisarian eman zioten interesdunari, bere aurka egindako polizia egozpenaren ondorioz; horrek, dirudienez, zitazioan ageri zen data eta eraginpeko agenteei dei egin zitzaizkien data bat ez etortzea eragin zuen. Lehenago ere aztertu behar izan dugu halako disfuntzio bat, eta, hortaz, gure iritziz, horren zergatiak argitu eta beharrezko neurri guztiak hartu behar dira berriro halakorik ez gertatzeko.

Aipatzeko moduko beste kexa bat bi turistak aurkeztutakoa da; Donostiako ostatu batean zeuden. Horiek adierazitakoaren arabera, logelan atsedena hartzen ari zirenean, albiste oso larria jaso zuten, eta horrek emakumearen erreakzio nahigabetua eragin zuen; horren ondorioz, Ertzaintza bertaratu zen, dirudienez auzotarren batek egindako salaketaren eraginez, auzotar horrek uste baitzuen tratu txarren kasua zela. Kexagileak adierazitakoaren arabera, agenteak itxuraz pozik joan ziren gertatutakoari buruz jasotako azalpenekin, baina gero itzuli eta identifikatzeko eskatu zioten gizonari, emakumearekiko urruntze agindurik ote zuen egiaztatzeko; kexagilearen ustez, egoera hasieran argitu ondoren, eta gaiaren inguruko gorabeherak aintzat hartuta, poliziaren esku-hartze berri hori guztiz bidegabea eta justifikaziorik gabea zen.

Generoko indarkeriaren biktimek aurkezturiko kexa batzuetan planteatu diren gaien artean, aipagarriak dira polizia eskolta kentzea eta erreserbarik nahiz diskreziorik ez egotea, urruntze aginduaren kontrolean.

Halaber, Ertzaintzak **burutik gaixo dauden gogoz kontrako barneratze** kasuetan izandako jarduketaren alderdi batzuei buruzko kexa bat jaso dugu.

Arlo honetan gure iritzipean jarri diren **beste gai aipagarri batzuk** honako hauek dira: Ali-Gobeo (Gasteiz) *garbiguneko* hiritar segurtasunik eza; Ertzaintzaren eta Gasteizko Udaltzaingoaren arteko koordinazio eza, bide publikoan erretako ibilgailu baten berri jabeari ematean; Bilboko Udaltzaingoak kale musikari bati biolina kentzea, eta Laudioko Udaltzaingoak istripu baten ondorioz egindako txostenaren edukia, bertan adierazpen batzuk egozten baitzizaizkion kexagileari, berak hori ukatu arren.

Azkenik, gure esku-hartzerik jaso ezin izan duten kexa batzuen berri eman nahi dugu; izan ere, kexa horiek errefusaren legezko kasuetan zeuden, edo Herriaren Defendatzailearen eskumeneko arloaren barrukoak ziren. Lehen esan dugunez, kexa horiek ez dira zenbatu sarrera honen hasieran eskaini ditugun datu kuantitatiboetan.

Aurten **kexa oso gutxi ukatu** ditugu arlo honetan. Horien artean, aipatzekoa da trafikoko istripu batean inplikaturiko pertsona batek aurkeztutakoa, Ertzaintzak istripuari buruz egindako ikerketari eta komunikabideei gaiari buruz emandako informazioari dagokionez; bertan ezin izan dugu eskurik hartu, gaia auzibidean ebatzita zegoelako; era beran, segurtasun pribatuarekin lotuta beste batean ere gauza bera gertatu da, hori ondo formalizatuta ez egotearen ondorioz.

Herriaren Defentsaren Erakundeari igorri dizkiogun kexak honako honi buruzkoak dira: pertsona bati polizia kontrol batean emandako tratua; erasoen eraginezko salaketa baten izapidetzeari buruzko informazioa; Estatuko administrazioaren jarduketa, Estatuko segurtasun pribatuko enpresetako balizko irregulartasunei dagokienez; polizia datu pertsonalak ezabatzeko eskabidearen izapidetzea, eta Nortasun Agiri Nazionala izapidetzen duten bulegoen funtzionamendua.

* * *

Azkenik, aipagarriak dira 2008an arlo honetan Arartekoaren erakundeak legez eratzikita dituen funtzioak garatzeko aurkitu ditugun zailtasunak; horiek, batez ere, administrazioak gure **lankidetz**a eskaerari erantzun formala baino ez ematearen eraginezkoak dira, sarritan ez baitigute eskaturiko informazioa ematen.

Horixe gertatu da, esate baterako, Ertzaintzak Gasteizko Artium museoaren ondoko plazan izandako jarduketari buruzko kexan (lehen aipatu dugun kexa), baita polizia kidego horrek hiri horretako gazte talde batekin izandako esku-hartzeari buruzko 2007ko kexa-espeditentean ere (urte horretako txostenean azaldutakoa). Bi kexa horietan, Herrizaingo Sailak gure lehenengo informazio eskaerari erantzunez emandako informazioan ez ziren erantzuten guk egindako galderak.

Antzeko zerbait gertatu da Galdakaoko Udaltzaingoaren jarduketari buruzko espedienteen ere (hau ere lehen aipatuta); bertan, udalerrri horretako udalak ez zigen eman (lehenengo erantzunean) guk eskaturiko informazioa.

Donostiako Udaltzaingoak 2007an egindako jarduketari buruzko kexaren kasuan ere gauza bera gertatu da (lehen azaldutako kexa); horri dagokionez, udalak ez zion erantzun egokia eman gure gomendioetariko batzuk betetzeari buruzko informazioa emateko egin genion eskabideari (lehen aipaturiko **Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 23koa**).

Balorazio bera egin dugu Bilboko Udalak ezarritako zigorraren aurkako kexari buruz; zigor hori futbol partidako egunetan indarreko trafikoko araudi berezia urratzearen ondoriozkoa izan da. Kexa horretan, udalak ez digu eman guk eskaturiko informazioa, jarduketa hori azaltzean agerian jarri dugunez.

Horixe gertatu da, halaber, 2006ko kexa-espediente batean, Santurtziko Udalak bere funtzioa nabarmen galdu zuen pasabide batean aparkatzeagatik ezarritako trafikoko zigorrari buruzkoan. Udal horrek interesdunak emandako datuei buruzko informaziorik eman gabe eta horrek datuok egiaztatzeko aurkezturiko probak nahiz prozedurari buruz egindako alegazioak baloratu barik amaitu behar izan dugu aurten espedienteak.

Antzeko arazoa sortu da, baina erantzun formalik gabe, 2007an Bermeoko eta Donostiako Udaltzaingoaren egoitzetara egindako bisitaldiaren eraginez izapideturiko espedienteetan; hain zuzen ere, bi udal administrazio horiei egindako eskaera erantzun gabe gelditu dela aintzat hartuta (lehenengo kasuan, gure balorazioari buruzko iritzia jakin ondoren), aurtengo esku-hartzea arlo horretako jarduketa jakin gabe amaitu behar izan dugu.

Eta, azken batean, Errenteriako Udaltzaingoaren egoitzetarako bisitaldiaren ondorioz izapidetu dugun espedienteen gauza bera gertatu da; bertan, hurrengo atalean azaldu dugunez, udalak oraindik ez dio gure eskaerari erantzun.

Behin eta berriro adierazi dugunaren arabera, jarduketa modu horrek guztiz baldintzatzen du planteaturiko gaiak ondo aztertu ahal izatea. Gainera, inolako justifikaziorik gabe atzeratzen du kexen izapidetzea, eta hori oso kezagarria da, atzerapenak kexa eragin duen polizia jarduketaren barne ikerketan eragina duenean, ikerketa horren eraginpean gelditu ahal delako.

Horrenbestez, berriro ere lankidetza printzipioa aipatu behar dugu, halakorik ez gertatzeko. Era berean, berriro esan behar dugu adierazitako jarduketak eragozpen handiak direla, gure funtzioak ondo garatu ahal izateko; aldi berean, nabarmen urritzen dituzte erakunde honetara datozenen eskubideak, kontuan hartuta antolamendu juridikoak euren interesen defentsarako sortu duela erakunde hau.

Ertzaintzaren eta udaltzaingoen atxiloketa-zentroak

Ziegak. Udaltzaingoen eta Ertzaintzaren atxiloketa-zentroak txosten berezian (1991) egindako gomendioak zein neurritan bete diren egiaztatzeko egindako jarduketan esparruan, erakunde honen ordezkariak Ertzaintzak Arkauten (Iradier basea) eta Gasteizen dituen atxiloketa-zentroetara joan da aurtien; baita Errenteriako Udaltzaingoen egoitzetara ere, horien guztien egoerari buruzko datu gaurkotuak eduki ahal izateko.

Ikustaldi horiek egin ondoren, gure balorazia jakinarazi genien Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eta Errenteriako Udalari, horri buruzko iritzia eta guk egindako iradokizunak gauzatzeko asmoari buruzko informazioa emateko. Txostena amaitzeko orduan, Errenteriako Udalak ez zion erantzunik eman gure lankidetzara eskaerari.

Ondoren, aipaturiko balorazioaren alderdi nagusiak eta Herrizaingo Sailak emandako erantzuna adieraziko ditugu.

Hori baino lehen, aditzera eman behar dugu 2008an amaitu egin dugula gure esku-hartzea, iaz Laudioko Ertzaintzaren komisarian eta Bermeoko nahiz Donostiako Udaltzaingoen egoitzetan egindako ikustaldien ondorioz izapideturiko espedienteen arloan; horri dagokionez, 2007ko txosten arruntean egindako balorazioa behin betikoa da; izan ere, Ertzaintzaren kasuan, gure ustez, Herrizaingo Sailak gaiari buruz emandako informazioak ez du aldatu balorazio hori, eta Bermeoko eta Donostiako udalek ez diote erantzunik eman guk egindako lankidetzara eskaerari.

1. Ertzaintzak Arkauten duen atxiloketa-zentroaren ikustaldia (Iradier basea)

- 1.1. Ziegen zona funtsean ez da aldatu, gure aurreko ikustalditik (2006an egindakoa), ezaugarri fisikoei dagokienez.

Instalazioak, oro har, oraindik ere egokiak dira euren helbururako; baina zentroak ez dauka egoitza berezirik adingabeak zaintzeko, horiek egokiak izan eta bananduta egon behar baitute helduen egoitzetatik, Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (17.3 art.).

Lege hori indarrean sartu denetik bisitaturiko Ertzaintzaren atxiloketa-zentro ia guztietan ikusi dugun gabezia hau, gure ustez, zuzendu egin behar da.

Komunaren eraketa ere ez da aldatu, komun-ontzian eta dutxan atxilotuen intimitatea bermatzeko instalaturiko altuera ertaineko panelei dagokienez. Gure aurreko ikustaldiaren eraginezko balorazioan adierazi genuenez (2006ko txosten arruntean jasotako balorazioa), gure ustez panel horiek ez dute euren eginkizuna ondo betetzen; izan ere, komunean sartzeko atea duen hormatik (gardena) komun-ontzia eta dutxa ageri-agerian daude.

Herrizaingo Sailak, hala eta guztiz ere, egoera hori zuzentzeko berrikuntza batzuk egiteko konpromisoa hartu du.

Ziegen barruko argia graduatu egin daiteke, eta hori berritasuna da, gure aurreko bisitaldian ikusitakoari dagokionez; horri buruzko balorazio positiboa egin dugu.

Ikustaldia egiteko unean, ziegen zonan kiratsa zegoen. Gainera, Polizia Kriminalaren Ataleko ziegen korridoreko sabaiko bi lauza egoera oso txarrean zeuden, gure solaskideek esandakoaren arabera ura eramateko sistemari izandako matxura baten ondorioz. Halaber, korridore horretako lurzoruan orban handiak zeuden, segur aski matxura horren eraginez, baita komun-ontzian ere. Gainera, ziegetariko bateko horma arrakalaturik zegoen.

Gure balorazioari emandako erantzunean, Herrizaingo Sailak esan zuen lauza ordezta eta orbanak kenduta zeudela. Era berean, aditzera eman zigun aurreikusita zuela arrakalak konpontzea eta kiratsa kentzeko berrikuntzak egitea.

- 1.2. Zentroak bideo grabazioko sistema dauka; horrek, erakunde honetako kideekin egon ziren polizia ordezkariak emandako informazioaren arabera, polizia ibilgailutik ziegen zonarako eta atxilotuen zirkulazioko eremu guztietarako sarbidea kontrolatzen du, komunak, ziegen barrua eta erreserbaturiko elkarrizketa egiteko gela izan ezik.

Sistema, funtsean, ez da aldatu gure lehengo ikustalditik; sistema hori modu independentean kudeatzen du zentroko atal bakoitzak. Trafikoaren arloko kudeaketak, oinarrian, Hiritarren Segurtasuneko Atalaren mendeko atxiloketa-zentroen ereduaren arabera da, eta Polizia Kriminalaren Atalari dagokiona, berriz bere zentroen ereduaren arabera.

Erakunde honek sistema horri buruz egin duen balorazioa 2006ko txosten arruntan jasota dago (I, 7.1 kapitulua); beraz, arlo honi dagokionez, bertan emandako iritzi orokorretan oinarrituko gara.

Ikustaldian, gu ziegen zonan sartzearen grabazioaren zati bat ikusi genuen.

Hala eta guztiz ere, ezin izan genituen ikusi Polizia Kriminalaren Atalak egindako atxiloketa baten grabazioak (gure asmoa horixe zen); izan ere, aditzera eman zituzten arabera, sistemak matxura zuenez, zentroko ekipamenduek ez zuten informazio hori, eta grabaturiko materiala hori zaintzearen ardura zuen Polizia Kriminalaren Ataleko Zerbitzu Nagusien Unitatean zegoen (horren egoitza Erandion).

Ikustaldia egiteko unean, atal horretako sistemaren kontroleko bi geletariko batean instalaturiko ordenagailuak ez zebiltzan, horiek ere matxura bera izatearen ondorioz, eman zituzten azalpenaren arabera. Kontroleko beste gelan instalatutakoa bazebilen (ziegen zonan kokaturiko gela), eta bertatik ikusi genuen grabazioa.

Herrizaingo Sailak gure balorazioari erantzuteko emandako informazioaren arabera, matxura hori gu bertan egon eta egun gutxi geroago konpondu zuten.

Bestalde, gure solaskideek adierazitakoaren arabera, sisteman akatsak ari ziren gertatzen.

- 1.3. Ikustaldian eman ziguten informazioa kontuan hartuta, Polizia Kriminalaren Atalaren mendeko zentroek ez dute adingabeen atxiloketen erregistro libururik, uztailearen 30eko 1774/2004 Errege Dekretuko 3.5. artikuluan hori ezarri arren; dekretu horren bidez, Adingabearen Zigor Erantzukizuna arautu duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren Araudia onetsi da. Araua indarrean sartu denetik bisitatu ditugun Ertzaintzaren atxiloketa-zentroetan ohikoa da hori, eta zuzendu egin beharko litzateke.
- 1.4. Polizia egoitzetan egindako egonaldian, Polizia Kriminalaren Atalak gure aurreko bisitalditik egindako atxiloketa batzuen erregistro elektronikoak ikusi genituen.

Atal honetako bi unitateetarik bakoitzak (Informazioaren eta Azterketaren Unitatea eta Ikerketa Kriminalaren eta Polizia Judizialaren Unitatea) bere atxilotuen liburua dauka, eta hori bakarra da autonomia erkidego osorako.

Liburu horren oraingo eraketak ez du aukerarik ematen zentro bakoitzeko atxilotu kopurua kontsulta baten bidez jakiteko; hori, gure iritziz, zuzendu egin beharko litzateke.

Gure aurreko ikustaldiaren balorazioan (2006ko txosten arruntean adierazitakoa), aditzera eman genuen beharrezkoa zela eskubideen informazio akta Prozedura Kriminalari buruzko Legeko 520. artikuluan ezarritakora egokitzea, eta, manu horretan ezartzen denez, atxilotuari egotzitako gertaerak eta hori askatasun gabe uztea eragin dute arrazioak jasotzea.

Kontsultatu ditugun informazio aktetan (eskubideei buruzkoak), gertaeren kalifikazio juridikoari buruzko informazioa baino ez zen ematen, egotzitako delituari dagokionez; baina ez zuten ezer esaten kalifikazio hori eragin zuten gertaerei buruz.

Berretsi egin behar dugu egoera irregular hori zuzendu egin behar dela; izan ere, sarritan jarri dugu agerian, eta, dirudenez, Ertzaintzaren beste atxiloketa-zentro batzuetan ere eragina dauka.

Gure solaskideek emandako informazioaren arabera, gure aurreko ikustalditik ez da egin edo eskatu inkomunikaturiko atxiloketarik.

Datu horri buruzko balorazio positiboa egiten dugu; izan ere, beste zenbait aldiz adierazi dugunaren arabera, antolamendu juridikoa nazioarteko erakundeek giza eskubideen defentsan emandako gomendioetara egokitzeak aukera ematen duen

legegintza aldaketa egin arte¹⁸, gure ustez, Prozedura Kriminalari buruzko Legeko 520 bis eta 527. artikuluek horri buruz ezarritako murriztapenak modu sistematikoan aplikatu ezin diren salbuespenezko neurriak dira.

2. Ertzaintzaren Gasteizko komisariarako ikustaldia

- 2.1. Ziegen zonaren eraketa Ertzaintzako beste atxiloketa-zentro batzuek dutenaren antzekoa da, eta, oro har, egokia da euren helbururako.

Hala eta guztiz ere, zentroak ez dauka egoitza berezirik adingabeak zaintzeko; hau da, ez dauka horretarako gela egokirik, atxilotu helduek erabiltzen dituztenetatik bananduta dagoenik (Adingabearen Zigor Erantzukizunari buruzko urtarriaren 12ko 5/200 Lege Organikoko 17.3 art.); hori, gure ustez, zuzendu egin beharko litzateke.

Gure solaskideek esandakoaren arabera, adingabeen zaintza itxarongela batean egiten da. Gela hori ez zela horretarako erabiltzen adierazi ziguten arren, kanpoan itxarongelatzat errotulaturik eta funtzio horretarako ekipatuta zegoela egiaztatu genuen (barruko inguru osoan aukiak zituen).

- 2.2. Polizia arduradunek adierazi zigutenez, ziegen barruan argiaren intentsitatea ezin da graduatu.

Herrizaingo Sailak esan digu oraingo instalazioa aldatzeko asmoa duela, argia graduatu ahal izateko, eta horri buruzko balorazio positiboa egiten dugu.

- 2.3. Bisitaldia egiteko unean, instalazioak, oro har, garbitasun eta kontserbazio egoera onean zeuden.

Hala eta guztiz ere, arazoak ikusi ditugu taldeko ziegaren sabaiaren mantentzean (pitzadura nahiko handia), korridoreko zoladuran (erdialdean narriatuta) eta banakako ziega bateko hormetan (inskripzio asko margotuta).

Kasu honetan ere, Herrizaingo Sailak aditzera eman digu hori guztia konpontzeko asmoa duela, eta horri buruzko balorazio positiboa egiten dugu.

- 2.4. Zentroak duen bideo grabazio sistemak, jaso dugun informazioaren arabera, polizia ibilgailutik ziegen zonarako eta atxilotuen zirkulazioko eremu guztietarako sarbidea

¹⁸ Hain zuzen ere, Arkauteko atxiloketa-zentrorako (Iradier basea) ikustaldia egin genuen egunean bertan (2008ko urriaren 22a) Giza Eskubidetarako eta Terrorismoaren aurkako Borrokarako NBEko errelatore bereziak, Martin Scheinin-ek, inkomunikazio araubidea indargabetezko eskaera egin zuen, NBEko Biltzar Nagusian urtero egindako agerraldian.

kontrolatzen du (komunak, ziegen barrua eta erreserbatutako elkarriketa egiteko gela izan ezik).

Kamerak daudela egiaztatu eta grabazioaren zati bat ikusi dugu, ziegen zonan egin dugun egonaldiari dagokiona.

Gure solaskideek adierazitakoaren arabera, sistema, funtsean, Herrizaingo Sailak Ertzaintzaren beste atxiloteta-zentro batzuetan (honen antzeko ezaugarriak dituzteten) instalaturiko ereduaren arabera da.

Erakunde honek sistema horri buruz egindako balorazioa 2006ko txosten arruntan jasota dago (I. kapitulua, 7.1), eta, beraz, bertan egindako ohar orokorretan ezarritakoa hartuko dugu kontuan.

Ikustaldian eman ziguten informazioaren arabera, grabaturiko materiala bilduta duen lekurako sarbidean ez dago horri lotutako murriztapen berezirik, eta, gure iritziz, akats hori konpondu egin behar da.

Herrizaingo Sailak gure balorazioari erantzuteko eman digun informazioa, hala eta guztiz ere, horren aurkakoa da.

- 2.5. Polizia arduradunek eman ziguten informazioa aintzat hartuta, zentroan ez dago atxiloturiko adingabeen erregistro liburu berezirik (Adingabearen Zigor Erantzukizuna arautu duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren Araudia onetsi duen utzailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuko 3.5. art.).

Kasu honetan, Herrizaingo Sailak aditzera eman digu, bere aurreikuspenen arabera, erregistro liburu hori 2009ko lehenengo seihilekoan egon daitekeela atxiloteta-zentroen esku.

- 2.6. Guk egindako ikustaldian, erakunde honetako arduradunek atxiloteta baten erregistro elektronikoak ikusi zituzten. Hala ere, zentroko arduradunek ez zieten erakutsi nahi izan erregistro horien paperezko kopia, erakundeko ordezkariak eskatu arren, eta aditzera eman zieten erakundeak idatziz egin behar zuela horretarako eskaera.

Arduradun horiei aditzera eman nahi diegu otsailaren 27ko 3/1985 Legeak Arartekoaren erakundeari ahalmena eman diola EAEko herri-administrazioetako edozein zerbitzura edo egoitzara ikuskapena egiten duenean bidezko informazio guztiak eskatzeko; gainera, administrazio horiei eskatzen zaizkien agiri guztiak aurkeztu beharra ezartzen die (12.1 eta 23. artikulua). Hala eta guztiz ere, informazio horrek ez zuen euren jarrera aldarazi.

Era berean, Herrizaingo Sailari horren berri eman genion, jakitun gelditzeko eta beharrezko neurri guztiak hartzeko, polizia zentroek adierazitako legezko betebeharra

betetzeko eta lehenago ere gertatu den beste halako egoerarik berriro ez gertatzeko.

Halaber, erakunde honetako ordezkariak polizia zentrorako ikustaldian lortu ezin izan zituzten agirien kopia bidaltzeko ere eskatu genion.

Sailak aditzera eman digu polizia zentroei etorkizuneko jarduketa betebeharrerata egokitzeko eskatu diela.

3. Erreterriako Udaltzaingoaren komisaria

- 3.1. Polizia egoitzak oraintsu eraikitako eraikin independente batean daude, eta eraikin hori hirigunetik urruneko industrialde batean dago.

Gure solaskideak jakitera eman zigunez, Udaltzaingoa 2008tik egoitza horretan egon arren, ziegen zona ez da 2009ra arte funtzionatzen hasiko.

Berak emandako azalpenen arabera, aldi horretan, Udaltzaingoak egindako atxiloteten instrukzioa Ertzaintzak egiten du, eta atxilotuen ardua ere azken horrek hartzen du.

Ziegen zonak sarbide independentea dauka, eta, gure iritziz, egokia da, oro har, bere helbururako, gure ustez zuzendu egin behar diren honako alderdi hauetan izan ezik:

- a) Zentroak ez dauka adingabeak zaintzeko egoitza berezirik, adin nagusikoak zaintzeko erabiltzen direnetatik bananduta (Adingabearen Zigor Erantzukizunari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoko 17.3 art.).
- b) Osasun zerbitzuek ez dute dutxarik. Gainera, atea opakua da, eta, horrenbestez, horren ordeztatuaren zaintza ahalbidetu eta, aldi berean, horren intimitatea bermatzen duen atea jarri behar da.
- c) Egoitzek salaketak jasotzeko gela bat dute; horrek leiho handiak ditu kalearen mailan, eta, ikustaldia egiteko unean, horiek ez zuten gortinarik edo zona hori kanpotik ez ikusteko beste elementurik.

Gure solaskideak onartu egin zuen komuneko atea aldatu behar dela (guk adierazitakoaren arabera), eta jakitera eman zigun salaketak jasotzeko gelako leihoetan babeseko elementuak instalatzeko proiektua zegoela.

- 3.2. Egindako ikustaldian eraikinaren kokalekuak (hirigunetik nahiko urrun) salaketen aurkezpenean zuen eragina jakin nahi izan genuen.

Dirudienez, pertsona batzuk, gehienbat adinekoak, kexatu egin dira polizia egoitzen oraingo kokalekuaren eraginezko eragozpenen aurka.

Gure solaskideak esan digunez, administrazio horrek ez du aztertu ea kokalekua aldatzeak Udaltzaingoa jasotako salaketa kopurua murriztu duen; hala ere, egiaztatu egin du kokalekua aldatu zenetik Ertzaintzan aurkezturikoen kopuruak gora egin duela.

Gure iritziz, hori kontuan hartuta, komenigarria da Udalak gaia aztertzea eta hirigunean salaketak jasotzeko bulegoa sortu beharraren komenigarritasuna aztertzea, adierazitako arazoak zuzendu ahal izateko.

- 3.3. Ziegek bideo grabazioko sistema dute; horrek, gure solaskideak emandako informazioaren arabera, zona horretan atxiloturiko pertsona guztien zirkulazio eremu guztiak grabatzen ditu, komunak, ziegen barrua eta zaintzako agenteak zaintza egiteko gela izan ezik (sarbide independentearen eta ziegen korridorearen arteko gela, sarbidetik ziegetarako bidean dagoena).

Gure solaskideak, halaber, sistema azken gela horretaraino hedatu behar zela onartu zuen.

Horrek emandako azalpenetatik ondorioztatzen denez, mekanismoaren oinarritzko ezaugarriak honako hauek dira:

- Sistemaren grabazioak denbora errealekoak dira, eta grabazioa ezin da deskonektatu edo eten.
- Grabazioen arduraduna agente informatikoa da.
- Sistema kontrolatzen duen ekipamendu informatikoa, gaur egun, komunikazioko zentrolean kokaturik dago, baina aurreikusita dago sarbide murriztuko gela berezi batera eramatea.
- Ez dago aurreikusita grabaturiko irudiak zuzenean ikustea, eta, oro har, grabaturiko materiala gero berriro ikuskatzea ere ez.
- Ez dago aurreikusita ikuskapenean ikusitako balizko gorabeherei buruzko erregistro berezia sortzerik.
- Grabaturiko materiala gordetzeko epea 27 egun ingurukoa izango da.

Erakunde honen ustez, ona da grabazio sistema hori instalatu izana. Beste zenbait kasutan adierazi dugunez, neurri hori, gure iritziz, aurrerapauso garrantzitsua da atxilotuen osotasunaren eta duintasunaren aurkako neurrien prebentziorako; gainera, tresna egokia da arlo horretan egon daitezkeen jarduketa irregularrak argitzeko eta polizia funtzionarioak oinarri gabeko kexetatik zein salaketetatik babesteko.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari bidali genion urriaren 6ko 81/1999 Gomendioan, gai hau aztertu eta, gainera, ondorioztatu genuen halako kontrol etengabeko sistema bat eraginkorra izateko, gutxienez, honako baldintza hauek bete behar direla:

- a) Grabazioen ardura duen pertsona independentea izatea, atxiloketak eta atxilotuen zaintza egiten duten unitateen funtzionamendutik eta antolamendutik; gainera, grabaturiko materialaren ikuskapen sistematikoa egin beharko du.
- b) Grabaturiko materiala, gehienez ere, grabaturiko jarduketan eraginezko balizko administrazio eta zigor erantzukizunak preskribatu arte gordetzea; halaber, kon-tuan hartu beharko da giza eskubideen erakunde bermatzaileen esku-hartzea (adibidez, Arartekoaren esku-hartzea).
- c) Egindako grabazioak eta horiek ikustean agertu ahal diren gorabeherak agirietan jasota dituen erregistroa sortzea, erakunde honek edo eskubideak defendatzen dituzten beste erakunde batzuek sistemaren funtzionamendu orokorrari buruzko informazioa edukitzeko.

Bisitaldian jasotako informazioaren arabera, ezarritako sistemak, dirudienez, ez ditu adierazitako baldintzak betetzen, grabazioa zuzenean ikusteari, grabaturiko materialaren ikuskapen sistematikoari, gordeta edukitzeko epeari eta gorabeheren erregistroari dagokienez.

Bestalde, Errenteriako Udalarari informazio osagarria eskatu diogu, iritzi egokia eduki ahal izateko, grabazioen arduradunak aipaturiko gomendioan finkaturiko ezaugarriak betetzeari buruzkoa.

Bide batez, gogoratu egin diogu beharrezko neurri guztiak ezarri behar direla, sistema kontrolatzen duten ekipamenduetarako, horiek dituzten geletarako eta gordetzeko lekurako sarbidea murriztua izateko.

1.8

JUSTIZIA

ararteko

8. JUSTIZIA

2008. urtean, 93 kexa sartu ziren Arartekoan Justizia arloarekin lotuta, erakundeak jasotako kexa guztien %5,48. Denetan ezin izan genuen esku hartu; izan ere, epaileen eta auzitegien autonomia gorde behar denez, eremu judizialean bertan aurkeztu eta ebatzi behar dira herritarrek epaileen erabakiekin lotuta agertzen dituzten desadostasunak. Ondorioz, erreklamazioak epaitutakoaren edukiarekin ados ez egoteagatik egiten direnean, Legeak gure jardun ahalmena murrizten du, eta erreklamazioa jarri dutenei errekurso bidez beren asmoa aurrera eramateko zein bide dituzten adieraztera mugatzen du, baita kexa jartzera ere, hala badagokio, Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Sala, Fiskaltza edo Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzua jakinaren gainean daudela. Bestalde, ezin esku har dezakegu, baldin eta guk azter dezagun aurkeztutako auzi horren inguruko ebazpen judiziala emateko badago oraindik, ez eta Administrazioak sortutako arazoa ez baizik partikularren arteko liskar bat bada ere.

Alabaina, gure eskumenen barruan sartzen da beste erakunde batzuek egindako lana; izan ere, erakunde horiek zuzen jardutearen mende dago, neurri handi batean, Justizia Administrazioari erabiltzaileen eskubide garrantzitsu batzuen bermea. Iaz jardun horren kontra jarritako erreklamazioen ondorioz, 52 espediente ireki ditugu, arloka banatuta, modu honetan:

- Justizia Administrazioaren funtzionamendua	18
- Zigor arloko esku-hartzeak	16
- Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak	9
- Doako laguntza juridikoa	6
- Beste alderdi batzuk	3

Dena dela, adierazitako arrazoi horietako batengatik esku hartzerik izan ez dugun kasuetan ere, kexagileari laguntzen saiatu gara, gure esku zegoen neurrian, batez ere bi aldetatik:

- alde batetik, aholkuak emanaz kexan adierazitako egoerei aurre egiteko legeak ematen dituen bideen inguruan, dituen eskubideen inguruan eta abokatuen laguntzarekin auzitegietan eskubide horiek baliarazteko dituen bideen inguruan. 2008an egindako ildo horretako esku-hartzeei dagokienez, bereziki nabarmentzekoak dira jarrera oldarkorra eta hainbat jokabide nahaste dituzten pertsona batzuen familiek egindako laguntza eskariari erantzunez sustatu ditugunak. Horrek familiei sortzen zizkien arazoak oso larriak ziren kasu batzuetan, eta haien askatasunari, duintasunari, osotasunari eta osasunari eragiten zieten; beste kasu batzuetan, berriz, ondarearen eta ekonomiaren alderdiak aipatzen zituzten. Biktimari laguntzeko zerbitzuekin koordinazio lana egiten aritu gara epaitegietan, hala zigor arloan jasotzen diren lege erantzunei dagokienez (batez ere etxeko indarkeriaren eta genero indarkeriaren arloan) nola arlo zibilarri dagokionez (ezgaitasun edo zarrastelkeria adierazpenak).

- Bestetik, harremanetan jarriz gure iritziz auzitegiak alde batera utzita euren arazoa konpontzeko bidea eman lezaketen baliabideekin, hala bitartekaritza bidez nola gizarte ongizateko edo gizarteratzeko sarearen bidez. Azken horren kasuan, gure esku-hartze gehienak baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen gainekoak izan dira. Pertsonak horiek denetariko arazoak zeuzkaten justiziarekin, eta, nola edo hala, droga-mendetasunarekin lotuta zeuden arazo horiek, iraganean drogen mendeko izan zirelako nahiz orduan hala zirelako. Kasu horietan guztietan, baliabide horietatik instantzia judizialekin eta Fiskaltzarekin aurrera eramandako egintzekin elkarlanean jarduten saiatu gara; oro har, ondo hartu dituzte gure kudeaketak, eta, beraz, beste urte batez, jarrera hori eskertu beharra dugu.

Justizia Administrazioaren funtzionamenduari dagokionez, lehenik eta behin, **epaitegiengizarte zerbitzura aritzen diren langileek erabil-tzaileei emandako tratua**ren gaineko kexen ondorioz esku hartu dugu.

Horien artean, **erregistro zibiletan** herritarrei ematen zaien arretaren gainean hainbat espediente ireki dira. Horien artean, hurrengo bi hauek iruditzen zaizkigu aipagarrienak, bai gizarte hedapen handia dutelako, eta bai instantzia judizial eta administratiboetan erreakzio azkarra eragin dutelako.

Horietako bat gizarte hezitzaile batek sustatu zuen. Barakaldoko Erregistro Zibilera jo zuen, errumaniar nazionalitatea zuen emakume batekin. Emakume hark semearen izena eman nahi zuen erregistroan, epez kanpo. Kexagileak adierazi zuen, alde batetik, herritarrei eragozpenak sortzea eta denbora galaraztea saihestuko litzatekeela, baldin eta, informazio gisa, erabil-tzaileek zer dokumentazioa aurkeztu behar duten berari-az agertuko balitz Erregistro Zibileko bulegoetan bertan eskuragarri dagoen agiri horretan.

Bestalde, kexagileak uste zuen, dokumentazio hori aipatu ondorioetarako legez eskatzeko modukoa dela zalantzan jarri gabe, emakume horrek aurkeztua zuela Erregistroan jaiotza agiria, behar bezala itzulita eta protokolatuta, bere seme-alabetako beste bat inskribatu zuenean. Hori ikusita, galdetzen zuen ea ez legokeen modurik jaiotza agirian aipatzen diren alderdiek, behin erakunde batean egiaztatuta, interesdun gisa pertsona bera duten espediente guztietarako izan ditzaten ondorioak delako erakunde-ean. Haren iritziz, horrek ez litzuke, soilik, izapideak errepikatzearen ondoriozko eragozpenak saihestuko, baizik eta baita, emakume honek bezala, egoera ekonomiko larrian dauden pertsonen bidaietan, protokolazioan eta itzulpen ofizialean ordaindu ezin dezaketen kostua duen dokumentazioa behin eta berriro lortu behar izateak dakartzan kalte ekonomikoak ere (are gehiago, aipatu emakumeak gizarte behar larrietarako laguntzara jo behar izan zuen 200 euroko gastu horri aurre egiteko).

Erregistroaren kargu zegoen magistratuaren erantzunak ondo azaltzen du nolako interesarekin aztertu zuen kexa, bai eta neurriak hartzeko borondatea zuela ere, kexa hartan azaldu ziren dis-funtzioak ikusita.

Alde horretatik, informatu zuen epez kanpo seme-alabak inskribatzera joaten den aldiko amaren jaiotza agiria aurkezteko eskakizuna ez dela berez herritarrak gogaitzeko, nahiz

eta Administrazio Justizian lehendik jasota dagoena egiaztatzea eskatu; aitzitik, inskribatu asmo den egintza hori benetakoa dela bermatzeko eskatzen da berriz agiria; izan ere, baliteke azkeneko alditik pertsona horrek bere izena edo abizenak aldatu izana –zenbait kasutan gertatu den bezala–.

Nolanahi ere, adierazi zuen nahiz eta hasiera batean nahitaez legeztatu behar diren atzerriko funtzionarioek igorritako eta aurkeztutako dokumentuak, ez dela halakorik eskatuko baldin eta dokumentua benetakoa dela ageri bada, beste espediente batean jadanik legeztatu delako; kasu horretan, eskatzaileak eman behar du jadanik Erregistro Zibilean izapidetutako espediente horren zenbakia, legeztatze hori egiaztatzeko. Bestalde, herritarrei informazio gehiago ematea erabaki zuen, eta bi hizkuntza ofizialetan ez beste batzuetan idatzita dauden dokumentuak legeztatu eta itzultzeko legeak zer baldintza jasotzen dituen gehitzea.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Gizarte Segurantza Sailaren lankidetzara eskatu genuen, eta hark erantzun zigun halakorik berriz gerta ez dadin bi hizkuntzatan prestatuko zituela hainbat inprimaki, Erregistro Zibilean eskuragarri egon daitezen, halako moldez non erabiltzaileek informazio normalizatu izango duten, ordura arteko boluntarismoa gaindituta, egin beharreko izapideen eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren gainean. Ondorio horietarako oso baliagarriak izango zirela iruditu zitzaigun, eta euskal administrazioari adierazi genion magistratu epailearen ustez berariaz zein alderdi jakinarazi behar zaizkion hala epe barruan nola epez kanpo semearekin edo alabarekin izena ematera joaten den horri.

Atzerritarrek Erregistro Zibilean aurkitu dituzten arazoaren artean, adierazgarria Getarian bizi den argentinar baten kasua. Argentinar horrek, 2006ko abuztuan, eskari bat aurkeztu zuen Azpeitiko Erregistro Zibilean, bizilekua hemen izateagatik espainiar nazionalitatea lortu, eta gero Madrilgo Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusira bidal zezaten.

Ia bi urte igaro ziren horren berri izan gabe, eta Zuzendaritza Nagusian bere espedientea zertan zen jakin nahi izan zuen. Han adierazi zioten ez zutela espediente horren berri, eta espedienteak Azpeitian egon behar zuela oraindik. Kexagileak, erantzun hori ikusita, Erregistro Zibilera jo zuen berriz, eta hango langileak erantzun zioten bertan adierazitakoaren arabera jada Zuzendaritza Nagusira bidalita zegoela, eta, interesdunak esandakoa gorabehera, ezin egin zezaketela beste gestiorik hura aurkitzeko, eskaera hartu zuenak jada han lan egiten ez zuelako eta Erregistro Zibileko langileak lanez gainezka zeudelako.

Gure erakundeak zuzeneko gestioa egin zuen Erregistro horretan. Horren bidez, espedientea aurkitu zen, eta kexagileari esan izan zitzaionaren kontra, espedienteak Azpeitian jarraitzen zuen, lekukoak ekartzeko eginbidea egin behar zelako; denbora horretan guztian, ordea, ez zen hori betetzeko erabakirik eman ez, eta kexagileari horren berri eman ere. Hartu gintuen funtzionarioak esan zigun Epaitegia berehala jarriko zela harremanetan kexagilearekin, eginbide hori betetzeko eta espedientea al bait arinen Madrilera bidaltzeko. Gertatutakoa azaltzeko, adierazi zuen Erregistroa, langile gutxi egotearen ondorioz, lanez gainezka zegoela bertara iristen ziren kontu guztiei erantzun ahal izateko.

Guk esku hartu izan bagenu espediente honi bide eman zion arazoa konponduko zela alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila jakinaren gainean jarri nahi izan genuen,

gertatutakoa eragin zuten alderdi koiunturalak nahiz egiturazkoak identifikatzeko eta zuzentzeko modua izan zezan. Administrazio autonomikoaren erreakzioa lankidetzakoa eta gardena izan zen, eta horri buruzko txosten oso bat igorri zigun; txosten hori interesdunari barkamena eskatuz amaitu zuen. Kasua aztertu eta gero, ondorio atera genuen Erregistro Zibilean kexagileari emandako arreta desegokia berez ez zela izan hango langileen gogo txarrarengatik –horietako batzuek “Kalitatea jendearentzako arretan” eta “Kalitatea kudeatzeko sistemak Justizia Administrazioan” ikastaroak eginak zituzten–, baizik eta giza baliabideen faltagatik izan zela gehiago; hain zuzen ere, baliabide falta horrek, bete gabeko edo behar bezalako kualifikaziorik ez zuten langileekin betetako bajek larriagotua, ondorio ekarri zuen zerbitzua batzuetan mantsoa eta ez oso eraginkorra izatea.

Arazo horien izaera aintzat hartuta, zeinak Justizia Administrazioaren funtzionamenduarekin lotuta jasotzen ditugun kexa guztietan nola edo hala errepikatzen baitira, ezin esan daiteke Azpeitiko Epaitegian bakarrik gertatzen direnik, eta, antza, ez dago inolako arrazoirik horiek nolabait epe laburrean konpontzeko bidean izango direla esateko. Ondorioz, arrazoizkoa da pentsatzea, baldintzak aldatzen ez diren bitartean, berriz ere antzeko gertakariak izango direla edo izaten ari direla, baina sistemak ez dituela antzemango erabiltzaileak egoera salatzen ez duen arte. Horrenbestez, Justizia Sailari gogorarazi diogu ezinbestekoa dela, gainerako instantzia erantzuleekin elkarlanean, bakoitza bere eskumen esparruan, ahalik eta kontu handienaz ibiltzea aukera hori minimizatzen.

Horri dagokionez, zalantzarik ez da azken urteetan asko aurreratu dela **atzerapen judizialaren** arloan. Dena dela, herritarrek arrazoi horrengatik jarritako salaketak aztertzean, ikusi dugu, esate baterako, 9 hilabeteko atzerapenak ere izan direla Probintzia Auzitegian gora jotzeko errekurtsua jarri denetik errekurtsu hori han hartu duten arte, eta urtebete geroago eman dutela sententzia; 5 hilabete ere pasatu direla Lehen Auzialdiko Epaitegian gora jotzeko asmoa iragarri eta hark errekurtsua formalizatzeko zer epe izango den adierazteko probidentzia eman arte; hilabete eta sei hilabeteko atzerapenak ere izan prozedura judizialen batean interesatuta zeuden edo bertan agertu ziren pertsona batzuen eskariari Epaitegiak erantzunen bat emateko –ez beti guk esku hartu baino lehen–; pertsona horiek berek autoetan aurkeztu zituzten dokumentu batzuen kopia soila edo lekukotasunezkoa behar zuten, isilpeko eta erreserbatutzat jo ez zirenez, eta presa zeukaten beste gauza batzuetan erabiltzeko.

Arartekoak, Justizia Administrazioaren funtzionamendua zuzenean ikuskatzeko eskumenik ez daukanez, arlo horretan ikertu eta esku hartzeko ahalmena duten jurisdikzio instantzietara igorri behar ditu kexa horiek. Nolanahi ere, beti saiatzen gara lehenago dagokion epaitegian borondate oneko kudeaketak egiten. Horrekin, baliagarri gerta daitekeela uste badugu, erakunde honetara jotzen duenari informazioen bat ematen saiatzen gara, egintzak zein egoeratan dauden eta erabakiren bat emateko zentzuz zenbat denbora pasatzea espero den jakiteko, bai eta gure esku dagoen neurrian izapideren batengatik geldirik dauden prozesuak desblokeatzen laguntzen ere, Epaitegiko bertako auzi metaketaren ondorioz ebaizenak emateko behar izaten den denbora gorabehera. Gure kudeaketen ondorioz, hala eskatu diegun idazkariek eman ditugun laguntzari esker, izapideak arindu dira kasu gehienetan.

Dena dela, atzerapen horien berri ematen jarraitzeko betebeharra daukagu, eta ez bakarrik nahastea direlako Auzitegietara jo behar duten horientzat, ezpada garrantzi sozial handia duelako arlo batzuetan erantzun judizial arinik ez izateak ere. Horixe da 2008an arrazoi horrengatik jaso ditugun hainbat keaxaren kasua: horietako bat dibortzio prozedura batean gertatu zen; berandu hartu ziren neurriak, eta, horren ondorioz, amak, egiteko bidetik, 63 egunez bere aitarekin inolako harremanik izan gabe eduki zuen alaba; Epaitegiak ez zuen esku hartu hori eragozteko, eta haren jarrerak ez zuen izan Fiskaltzak ikustaldian adierazitako gaitzespena beste ondorioz. Beste erreklamazio batzuetan, emakume batzuek adierazi digute beren kargura dauden seme-alabentzako mantenu-pentsioen inguruan berandu hartzen dituztela neurriak eta horren ondorioz estutasun ekonomiko larriak izaten zituztela. Beste kexa batek agerian utzi zuen atzerapen judizialak izaten direla mugikortasun arazoak dituzten pertsonen gutxieneko autonomiaz mugitzeko modua izan dezaten egin beharreko obrei dagokienez. Azkenik, kontsumo arloan salaketa jarri zuen pertsona batek adierazi zigun atzerapenaren ondorioz, nahiz eta jakin behin betiko ebazpena aldekoa izango zitzaiola, kontsumitzaile gisa bere eskubideak aldezteko berriz ere auzitegietan errekurtsua jartzeko zuen asmoa kentzen saiatzea; izan ere, hainbeste denboraren ondoren hori aitortzea ez da eraginkorra auziaren zenbatekoa hain txikia denean. Uste dugu balagarria dela egoera horien berri ematea; izan ere, zerbitzu publikoaren funtzionamendu txarraren ondorio praktikoez jabetzen laguntzen dute, datu estatistikoetatik harago, eta agerian uzten dute zein urrun gauden oraindik justizia azkar eta kalitatekoa izateko helburutik.

Jurisdikzio zibilean, kexa ohikoenak, beste urte batez, banantzeko eta dibortziatzeko prozesuekin lotutakoak izan dira. Gorago adierazi bezala neurriak hartzeko atzerapenen ondorioz izan diren kekez gain, gizonen aurkeztutako kexak nabarmentzen dira, asko izan baitira; hain zuzen ere, banantzeko eta dibortziatzeko auzietako prozeduretan seme-alaben zaintza partekatua ezetsi zaiela-eta kexatu dira. Haien iritziz, aurreiritzi sexista dago halako erabakietan, eta, horren arabera, epaitegien zerbitzura dauden epaile, fiskal eta talde psikosozialek pentsatu ohi dute adingabeak, baldintza berberetan, hobeto daudela amaren zaintzapean. Ondorioz, salatu dute amak praktikan nahikoa duela zaintza partekatzeari uko egitea, lehentasunez zaintza osoa berari emateko, are seme-alaben zaintzan beti biak inplikaturik egon diren kasuetan ere.

Nahiz eta erabaki judizialei zor diegun errespetuak galarazi egin digun arrazoi horrengatik aurkeztu dituzten kexetan esku hartzea, behinik behin ezin dugu aipatu gabe utzi mahaigaineratu duten eztabaida; izan ere, gizarte hausnarketa handiago baten barruan sartzen da hori, eta arlo horretan eremu guztietako patroiz sexistak gainditzen laguntzea da gure betebeharra, genero ikuspegia emanda.

Alde horretatik, ikusi dugu, seme-alaben zaintzak bikoteko bi kideen ardua izan behar duelako ideiak gizartean aurrera egiten duen heinean, banandu ondoren ere haien jagoletza eta zaintza partekatzea gogoko aukera gisa hartzen ari dela jendea, betiere horrek –adingabeekin lotuta adosten den beste edozein neurrik bezala– ez badio kalte egiten haiek lehenesten duten interesari. Gure epaile eta fiskalek, iritzi onarekin, seme-alaben egonkortasunaren ideiarekin lotu ohi dute interes hori, eta hori guztiz bateragarria da, hasiera batean, bikotea hautsi ondoren zaintzaz bi gurasoak arduratzen jarraitzearekin, betiere hori sistema arrazoizkoren baten

bidez antolatzen bada. Testuinguru honetan, egonkortasuna kontzeptu geografiko gisa ez baizik esanahi psikoafektiboarekin definitzen ez den artean, hala adingabearen eguneroko bizimodua gidatzen duten leku eta denborazko erreferentzien irmotasunean nola banandu eta gero ere bai aitak eta bai amak maite eta zaintzen jarraitzen dutelako kontzientzian ere oinarrituko da.

Gure iritziz, irizpide horiek betetzeko gaitasunaren argitan baloratu beharko dira, aurreiritzi gabe eta objektibotasunez, kasu bakoitzean egon daitezkeen baldintza material eta emozionalak, zaintza bi gurasoek har dezaten beren gain, toki bereizietan bizitza ere, hala zaintzeko denbora banatuta (eta ez du zertan %50ekoa izan), nola zaintzeko lanak modu bideragarrian banatuta. Horren arabera izango da arrazoizkoa hautatzen den sistema, bai eta sistema horri adingabearen eboluzioaren arabera egiten zaizkion aldaketak ere.

Atal hau amaitzeko, Gipuzkoan famili biltokiak bat-batean itxi dituztela eta egindako esku-hartze bat aipatu behar dugu. Adierazi zigutenez, uztailaren hasieran itxi behar zituzten, finantzaketa faltagatik.

Biltoki horien funtzionamenduari buruzko beste espediente batzuetan egin dugun esku-hartzearen ildotik, kexa jaso genuenean prestatzen ari ziren araudi berriaren esparruan zerbitzu horiek kudeatzeko irizpideen inguruko gogoetan parte hartzeko aukera izan genuen. Irizpide horien baitan, besteak beste, eskumenak berriro mugatuko dira, eta, horren ondorioz, famili biltokiak, egoitza judizialean emandako neurriak betetzera bideratuta daudenean, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako Sailburuordetzako Gizarte Ongizate Zuzendaritzaren erantzukizuna izango dira.

Horrek pentsarazi zigun biltokia ixteko iragarpena ere, zerbitzu hori finantzatzeko botere publikoek atxikiak zituzten baliabideekin duen lotura alde batera utzita, berehala onartzekoak ziren araudi berriaren ondorioz hasiko zuten aldi igarokorraren eta negoziazioen esparruan interpretatu behar zela. Nolanahi ere, salatutako arriskua benetakoa zela egiaztatu genuen; berehala esku hartu genuen, eta Administrazioari eskatu genion har zitzala beharrezko neurriak, biltokiak itxiz gero seme-alabekin komunikatzeko Gipuzkoako famili biltokietara jo behar duten gurasoei egingo litzaiekeen kaltea saihesteko, egoitza judizialean ezarrita.

Gure ekimenak berehalako eragina izan zuen, eta presazko bilera bat antolatu zen uztailaren 1erako, Gizarte Ongizateko zuzendariaren eta Gipuzkoako bi famili biltokietako langileekin, haien egoera ezagutu eta baloratzeko, eta baita zerbitzuak jarraitzeko beharrezko laguntza emateko ere. Horren guztiaren ondorio gisa, biltokiak kudeatzen dituen erakundeak guneak uztailaren 7rako berriz irekitzea erabaki zuen, eta berriz agindu eta eman zituen bisiten txandak eta ordutegia.

Zigor arloko jurisdikzioan, egintza judizialaren eta berriro gizarteratzeko baliabide sozialen arteko koordinazioan laguntzeko asmoz, goian labur aipatu ditugun zuzeneko kudeaketak egin ditugu, eta arlo horretan egindako beste hainbat esku-hartze ere aipatuko ditugu, espetxeratupei, lehentasunezko arreta behar duen talde gisa, txosten honetan espezifikoki eskainitako atalean.

Arlo horretan jasotako gainerako kexak atxilotuenak izan dira; hain zuzen ere, segurtasun indarren eskuetan tratu txarrak eta torturak jasan dituztela salatu dute. Salaketa horiek egoitza judizialean aurkeztu dituztenez, eta kasu guztietan Guardia Zibilaren jardunarekin lotuta zeudenez, ezin izan dugu egozpen horietan esku hartu, eta estatuko herriaren defen-datzaileari igorri dizkiogu.

Kontu hori, dena dela, ez da bakarrik kezkatzeko motiboa gure erakundearentzat, baizik eta nazioarteko instantzia guztientzat; hain zuzen ere, 2008. urtean, beren iritzia eman ahal izan dute bai Espainiako araudian eta bai araudi horren aplikazioan botere publikoek presoen eskubideak bermatzeko duten moduaren inguruan.

Bi alderdi horiek jaso ziren iaz Espainiak Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordean aurkeztu zuen txosten horretan. 2000ko abendutik 2007ko hilabete berera artekoa da txosten hori. Batzordeak, NBEk 1966an hartutako eta Espainian 1977an berretsitako Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna kontrolatzeko organoa ordezkatzan baitu, txosten hori aztertu zuen 2008ko urriaren 20an eta 21ean egindako bilkuretan. Hil horren 30ean bere ondorioak onartu zituen (CCPR/C/ESP/CO/5), eta adierazi zuen Ituna ez zela betetzen hainbat alderdi garrantzitsutan.

Iaz ez dugu jaso kexarik gure eragin esparruaren barruan sartuta dauden administrazioen kontra Batzordeak aipatzen dituen kontuen inguruan. Hori hala izanik ere, ez diogu utzi aurre hartzeko mekanismoak indartzeko lanari. Horretarako, alde batetik, bilerak egin ditugu nazioarteko instituzio eta gobernu kanpoko erakundeekin; alde horretatik, Terrorismoaren kontrako Borrokan Giza Eskubideetarako Nazio Batuen errelatorearekin eta Amnesty Internationaleko zuzendariarekin egindako bilerak dira nabarmentzekoak. Beste alde batetik, modu aktiboan lagundu dugu Espainiako Gobernuaren eskariz torturaren eta bestelako tratu anker edo iraingarrien aurkako Nazio Batuen Hitzarmeneko Aukerazko Protokoloan aurreikusitako Prebentziorako Mekanismo Nazionala (TPMN) abiarazteko egin den kontsulta prozesuan.

Arartekoak, horri dagokionez, sorkuntza berriko mekanismo baten alde egiten du; mekanismo horretan, gaur egungo erakundeekin elkarlanean, arlo horretan ikerketa eta salaketa lan serioak egin dituztela kreditatzen duten pertsonak hartu beharko lukete parte. Uste dugu, bestalde, Estatuaren egitura plural eta asimetrikoa kontuan hartuta, beharrezkoa dela eratzten den erakunde hori sarean sartzeari proiektzio autonomikoa duten beste batzuekin, eta bakoitzaren eskumenak estatuko eta erkidegoetako Herritarren Defentsa Bulegoen eskumenak arautzen dituzten irizpide berberak aplikatuz mugatzea.

Gogoeta horretara berriaz ekarri duguna ez da izan, ordea, izaera deszentralizatu horretan nabarmentzea. Alde batetik, jakintzat eman dugulako, eta, bestetik, gure iritziz Arartekoak Giza Eskubideen Kultura sustatzeko zer egiteko duen kontuan hartuta, gure betebeharra ez delako gure instituzioaren protagonismoa aldeztzea euskal eremurako sortzen den erakundean, baizik eta, beste ezer baino lehen, gizarte zibilaren parte-hartzeak, hala erkidegoan nola estatuan, albat zabaldu eta independenteena izan behar duela aldeztzea.

Puntu honetan ez dago sobran gogoraraztea akats bat egiten dela maizegi, eta ez ezinbestean fede txarragatik, bai Giza Eskubideen aldeko borrokaren eremuan eta bai garapenerako

nazioarteko lankidetzan: berez edo duten balio sinbolikoagatik justifikatzen diren egitura berriak sortzen direla, alegia, lehendik existitzen dena hobetzeari begira benetan izatea espero den eraginaz harago. Gure kasuan, Aukerazko Protokoloan hartutako konpromisoak forma aldetik baino ez betetzeko tentazioa litzateke arrisku hori, lehendik dauden instituzioak izendatzeko espedientearen bidez, funtsean orain arte egiten ari zirena eginez TPMNko funtzioak beren gain har ditzaten, hala estatuan nola esparru autonomikoan.

Halakorik gerta ez dadin, TPMNk daukaguna hobetzeko ematen duen tarteari lotuta dago gure hautua, eta defentsa bulego honetan, Espainiaren kasuan, parte-hartze demokratikoan sakontzeko ematen duen aukeran kokatzen dugu. Horretarako "Civilian Oversight of Law Enforcement" ekimenak hartu genituen erreferentzia gisa; gure inguruan ia ezezagunak dira, nahiz eta urteak daramatzaten Kanadan (CACOLE) eta Erresuma Batuan (IPCC) garatzen. Estatu Batuetan, American Civil Liberties Union-en datuen arabera, 50 hiri handienetatik %60k baino gehiagok dauzkate polizi jardueraren jarraipen zibilerako sistemak; sistema horien bereizgarria da herritarren espektro zabal bat biltzeko gai direla, independenteak direla, ikertzeko gaitasuna dutela eta gardenak direla, hala beren funtzionamenduan nola kideak hautatzeko prozesuetan.

Jakina, kontua ez da TPMNk adierazitako erakunde horien egitura berdintsua hartzea; bakar-bakarrik nozio onuragarri bat nabarmentzeko jarri ditugu adibide gisa, gure ustez merezi duen arreta beti ematen ez zaion nozio hauxe nabarmentzeko, alegia: ez dagoela kontraesanik, guztiz bestela baizik, kontrol zibil horren eta, zalantzarik gabe, Poliziak eraginkor izango bada beharrezko duen herritarren konfiantza horren artean. Hain zuzen ere, konfiantza horri oinarri irmoa ematea da kontua, gogoratuz polizi lanaren onarpen akritikoa, zenbat ere zerbitzu ematen dion sistema horren izaera demokratikoan bilatzen den justifikazioa, eredu autoritario bat dagokiola, desegokia kalitateko demokraziarako. Aldiz, herritarren ikusmolde helduagoak, nola baita gure ustez gure erakundeak sustatu behar duena, ez du konfiantza hori jakintzat ematen, eta ez du uste hori herritarren betebeharra denik Zuzenbide Estatu bat badelako. Haatik, parte-hartze demokratikoan sistema independenteak izatearen emaitza gisa ulertzen du gehiago, eta horien bidez, hala Poliziaren kasuan nola gizarteko liskarrei aurre egiteko eskura dauden gainerako baliabideen kasuan, komunitateak aukera duela modu aktiboan eta erantzulean inplikatzeko, helburuak zehaztuz, emaitzak ebaluatuz, gerta litezkeen botere abusuak saihestuz eta erantzukizunak exijituz.

Nolanahi ere, halako ezerk ez ditu aldatuko gure erakundeari buruzko legeak arlo horretan agintzen dizkigun prebentzio eta kontrol funtzioak, eta, horiek betez, leialki jardungo dugu elkarlanean, gure eskumenen esparruan, azkenean onartzen den organoarekin.

Justizia Administrazioaren funtzionamenduarekin lotuta jaso ditugun erreklamazioetako dezente erabiltzaileek **gure erkidegoko hizkuntza ofizialetako** batean nahiz bestean harremanak izateko dituzten zailtasunei buruzkoak izan dira. Beharbada, botere publikoen jardun-esparruen artean, Justizian nabarmentzen da gehien zenbat bide dagoen oraindik egiteko euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasuna praktikan benetakoa izan dadin. Hori ez dute agerian uzten jasotzen ditugun kexek bakarrik; halaxe frogatzen ere dute Abokatuen Euskal Kontseiluak 2008ko abenduan horren inguruan sustatu zuen gogoetaren emaitzek;

gogoeta hartan geuk ere hartu genuen parte, eragile juridiko guztietako txostengile adierazgarriekin; eta berariaz salatzen du hori Eskualde Hizkuntzen eta Hizkuntza Gutxituen Europako kartarako Adituen Batzordearen txostenak ere; txosten hori 2008ko abenduaren 11n onartu zuen Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak, eta kritika horixe jaso zuen "Eskualde Hizkuntzen eta Hizkuntza Gutxituen Europako Karta Espainian aplikatzeko gomendioa" idatzian.

laz arrazoi horrengatik Arartekora jo zuten pertsona gehienek seme-alaba jaioberrien jaiotza euskaraz inskribatzeko zeuzkaten zailtasunak salatzeke jo zuten. Adierazi zuten, eskubide hori ukatu egin zieten, Erregistro Zibilak izena emateko erabiltzen duen aplikazio informatikoak gaztelaniaz baizik egiten uzten ez duelako. Kasu horietan guztietan, estatuko Herriaren Defentsarako Bulegora jo genuen, estatuko Administrazioaren jardun horretan esku har zezan, eta guk, bestalde, erkidegoko Administrazioan egin genituen kudeaketak.

Gure proposamenaren abiapuntua izan da pentsatzea ezin izan daitekeela arauzkoa herritarrek arlo horretan beren eskubideak gauzatzeko aurkitzen dituzten oztopoen jatorria; hain zuzen ere, Konstituzioko 3. artikulua eta Konstituzioko jurisprudentziak (batez ere, Auzitegi Konstituzionalaren 82/96, 56/1990, 337/199474/1989 eta 337/1994 sententziak) horren inguruan ezarritakoak ematen ditu eskubide horiek. Hain zuzen ere, Justizia Ministerioak eta Erregistroen Zuzendaritza Nagusiak hainbat neurri hartu ditu Erregistro Zibilarekin lotutako inprimaki elebidunen eredu ofizialak onartzeko, gaztelaniaren eta autonomia erkidego batzuetako hizkuntza ofizialaren arteko koofizialtasuna benetakoa izan dadin (azkenekoen artean, otsailaren 8ko JUS/268/206 Aginduak, JUS/644/2006 Aginduaren bidez argitutakoak, Erregistro Zibilaren hainbat idazpen ereduren eta familia liburuaren hainbat bertsio erantsi ditu, estatuko hizkuntza ofizial guztietan). Eta, batez ere, ezin ahantz daiteke, ekainaren 22ko 12/2005 Legearen bidez 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeko 23. artikulua berridatzi eta gero, desagertu egin dela, era berean, gisa honetako izen emateak gaztelaniaz ez beste hizkuntza batean emateko aukera ez jasotzeak zekarren traba.

Erregistro Zibiletako euskarriak kudeatzeaz arduratzen diren sistemen itzulpenak Justizia Ministerioak arlo horretan egin dituen urratsen arabera txertatu dira. Ulertzekoa da aplikazio informatikoa gaztelaniazko jatorrizko testuen euskarazko bertsiora egokitzea zailagoa izatea, eta, beraz, denbora gehiago behar izatea latindar sintaxia duten beste hizkuntza batzuen kasuan baino. Baina ekainaren 22ko 12/2005ko Legea indarrean sartu zenetik iragan den denbora tarte kontuan hartuta, ez dirudi zailtasun horrek behar beste zurrizten duenik hainbeste berandutzea aurreikuspenak betetzeko beharrezko mekanismoak ezartzeko, hizkuntza ofizial guztietan dauden idazpen ereduak Inforeg aplikazioan txertatuta (Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak 2005eko urtarrilaren 25ean emandako Ebazpenean aurreikusi zen aplikazio hori ezartzea). Alde horretatik, maiatzaren 17ko JUS/1468/2007 Aginduak prozesuari eman asmo zion bultzada ez dator bat txertatze hori praktikan jartzeko erritmoarekin; hain zuzen ere, Agindu horretako Bigarren Xedapen Gehigarriak Administrazio Justiziarerako Erlazioen Zuzendaritza Nagusiari ematen dio egiteko hori, Teknologia Berrien Zuzendaritzaorde Nagusiaren bidez. Ez dirudi arazoa itzultzea bera denik, kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzaren Justizia Administrazioerako Erlazioen Zuzendaritzak bere lankidetzak eskaini izan duela arlo horretan, eta, jakinarazi zigunez, prozesu hori 2008ko otsailaren erdialderako bukatuta egotea espero zuela.

Aurreikuspen horiek betetzea galarazi zuten arazoak identifikatzen saiatu ginen, ahal genuen neurrian konpontzen laguntzeko, eta zailtasun hauek zeudela ikusi genuen:

- Justizia Ministerioak Eusko Jaurlaritzari itzuli beharreko testuak zein erritmotan bidaltzen zizkion zen arazo horietako bat, astean 10 bidaltzen baitzizkion.
- Bigarren eragozpena aplikaziorako sarbidea zen; hori beharrezkoa zen egindako itzulpenak txertatzeko, eta euskal administrazioak ez zeukan sartzeko modurik, ez baitzuen Ministerioarekin konektatzeko sistema informatiko egokirik. Dirudienez, konektatzeko arazo horren ondorioz, ez baitzen konpondu maiatzera arte, atzeratu egin zen itzulpenaren bigarren fasea, "testu dinamikoak" izenekoei dagokiena.
- Horren guztiaren ondorioz, ezin izan zen ezarri horretarako beharrezko aplikazio informatikoa osatzen duten 165 testuak itzultzeko prozesuaren egutegi edo kronogramarik, eta EAEko Administrazioak Justizia Ministerioari eskatu zion ezar zezala aplikazio hori hiru hiriburuetan eta Barakaldon abuztua baino lehen, eta gainerako Erregistro Zibiletan, irail-urriak baino lehen.

Kontraste nabarmena dago zailtasun horiek itxuraz duten funtsik ezaren eta zailtasun horiek ez konpontzeak dakarren kaltearen artean; batetik, herritarrei egiten die kalte, eta legitimitate osoz protestatu dute Erregistro Zibilean beren seme-alabak gure erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean zein bestean inskribatzeko duten eskubidea baliatzerik izan ez dutelako, eta, bestetik, Estatuari egiten dio kalte, eskubide hori bermatzeko gauza izan ez den aldetik, bere botereetako bat ez delako egokitu zerbitzatu behar duen gizarte horren errealtate elebidunera.

Horregatik, urtean zehar behin eta berriz adierazi diegu dagokien administrazioei modu koordinatuan jardun behar dela, nor bere eskumenen esparruan, arrazoirik gabe luzatzen ari den prozesu hori bultzatzeko; izan ere, ez dezagun ahantz, kontua ez dela printzipio orokor bat edo asmoen adierazpen orokor bat eskubide positibo bihurtzea: eskubide aitortua da, eta ez da eragotzi Legearen oztopo batengatik, baizik eta Administrazioak lege hori betetzen dela bermatzeko dituen tresna, plantillak eta aplikazio informatikoak ez egokitzeagatik. Informatizazioa ezinbesteko baliabidea da lan hori errazteko, eta logikoa da pentsatzea hori martxan jartzeko denbora behar dela, baina ezin ahantz dezakegu instrumental hutsa dela halako plantilla eta aplikazioak ezartzearen azken zentzua, eta hori ez dela herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzea besterik. Aldiz, 12/2005 Legea indarrean sartu zenetik arrazoizkoa baino denbora gehiago pasatu da, eta agerian gelditu da herritarrei zerbitzu hobea ekarri beharrean ezin onartuzko oztopo bihurtu dela hizkuntza eskubideak baliatzeko.

Estatuko Administrazioan, Teknologia Berrien Idazkaritza Orokorrak espero zuen 2008. urtearen amaierarako ezarrita egongo zela gure erkidegoko Erregistro Zibil guztietan Justizia Ministerioak prestatutako aplikazio informatikoaren azken bertsioa; hain zuzen ere, plantillak administrazio autonomikoak berak itzuli ditu euskarara, eta horrek modua emango die hala nahi duten gurasoei jaioberriak zuzenean euskaraz inskribatzeko. Txosten hau ixten ari ginen garaian, aurreikuspen horiek ez ziren oraindik bete, nahiz eta Eusko Jaurlaritzako

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren egutegiaren arabera aurtengo lehen hiru hilabeteak amaitzerako ezarrita egon behar duen gure erkidegoko 14 Erregistro Zibiletan, Tolosan hasita, 2008ko abenduan, eta Amurrión amaituta, martxoaren 31n. Nolanahi ere, Arartekoak horren jarraipena egingo du.

Atal hau bukatzeko, adierazi behar dugu bidegabeki atzeratu direla Justizia Administrazioan aurkeztutako hainbat eskariren izapideak, euskaraz idatzita zeudenez itzuli egin behar izan direlako.

Kasu horietako batean, Errenterian aurkeztutako 2 orrialdeko idazki batek 5 aste baino gehiagoko atzerapena izan zuen, harik eta Donostiako Erregistro Zibilak itzulpena jaso zuen arte. Kexaren sustatzaileak, gainera, geroago egia zela ikusi genuen egoera baten berri eman zuen, eta oso adierazgarria da egoera hori: bere idazkia aurkeztu baino lehentxeago, eduki berbera zuen beste idazki bat aurkeztu zuen, eta hori ere itzuli egin behar izan zuten. Hau da, antza denez, denbora hori guztia behar izan zuten lehenago itzulita zegoen testu bat itzultzeko. Antzeko zerbait gertatu zitzaion Igorreko senar-emazte batzuei. Durangoko Erregistroari bideratutako idazki bat aurkeztu zuten herri horretako Bake Epaitegian, eta hiru aste pasatu ziren itzulpena hara iristerako.

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari azalpenak eskatu genizkion, itzulpen zerbitzuaren administrazio arduraduna den neurrian. Horri buruzko ikerketak agerian utzi zuen kasu guztietan dokumentua egun batetik bestera itzuli zela, agudoki, eta zegokion Epaitegiak berandu jaso zuela, hain zuzen ere, organo judizialen artean agiriak eskatu eta igortzeko prozesuak posta arrunt bidezko komunikazio izapide ohikoa jarraitu zuelako. Hala jakinarazi genion Justizia Auzitegi Gorenaren Gobernu Salako Idazkaritzari, gaur egun komunikazio teknologia eskuragarri dagoela kontuan hartuta, egoki irizitako neurriak har zitzaizkien halakorik berriz ez gertatzeko.

Gertakari horien harira adierazi nahi dugun gogoeta, dena dela, teknologia hori erabiltzeko behar agerikoak harago doa, eta bi kontu hauek planteatzen ditu:

- Lehenengoa Epaitegietan euskaraz aurkeztutako dokumentuak beti eta kasu guztietan itzultzeko beharrari buruzkoa da. Badirudi haren zerbitzura dauden langileek pentsatzen dutela inork euskarazko idazki bat aurkezten badu, autonomia erkidego honetako erregistro publiko batean ondorioak izan ditzaizkien, hizkuntza ofiziala izateak ondorio bakarra izango duela, alegia, idazkia gaztelaniara itzultzea, nolanahi ere nahitaezkoa dena, ez dagoela erabiltzailearen kontu, gainerako hizkuntzekin gertatzen ez den bezala, baizik eta Administrazioa bera arduratzen dela. Irizpide horren aurrean, beharrezkoa da nabarmentzea euskara eta gaztelania koofizialak direla, eta bi hizkuntza horietako edozeinetan emandako agiri orok, betiere legean ezarritako betekizunak betetzen baditu, sortzen dituen ondorio guztiak izan behar dituela, itzuli beharrik izan gabe; Epaitegiko langileek agiria idatzita dagoen hizkuntza ofiziala jakin ez eta, beraz, aipatu betekizunak betetzen ote diren zehaztu ezin dezaketenean bakarrik itzuli behar izango dira.

Legearen eskakizunetara irizpide horietako bigarrena egokitzeaz gain, bistakoak iruditzen zaizkigu arestian aipatutako irizpidea hartu ordez beste hori hartzeak

dakartzan ondorioak, bai espedienteak arin izapidetzeari dagokionez, bai Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioak biztanleei zerbitzu hobea eskaintze aldera pixkanaka hizkuntza ikasten joateko beharraz jabetzeari dagokionez.

- Egiaztapen horren bigarren parte da langile gehienak, nahiz eta erregistro informatetan euskaraz aritzeko gai izan, ez direla gai beren lana bi hizkuntzetan fidagarritasun profesionalarekin egiteko. Hala berresten dute aipatutako Adituen Batzordearen ondorioek; dena dela, laudatu egiten du Administrazio Autonomikoak hizkuntzan gaitzeko egin duen ahalegina. Beharbada, ahalegin horren eta lortutako emaitzen arteko kontrasteak orain arte jarraitutako estrategiaren gaineko gogoeta egiteko baliogarria behar luke, estrategia hori hobetzeko, sistema pertsonalizatuago baten bidez eta profesional bakoitzaren eboluzioari eta ezarritako helburuei egokituta hobetzeko, hori dena Epaitegietako hizkuntza dinamizatzaileek, ikusi ahal izan dugunez, egiten duten lan onarekin hertsiki koordinatuta.

Administrazio korporatiboen jardunari buruzko atalean, psikologo eta abokatu profesionalen zerbitzua erabili duten hainbat pertsonak jarritako kexen harira esku hartu ahal izan dugu. Kexa gehienak elkargo horien erabiltzaileek jarri dituzte, ez baitzeuden ados kasuan kasuko elkargoak haien salaketak nola kudeatu dituzten; haien ustez, afiliatuen jarrera ez da zuzena izan, eta, horren ondorioz, erantzukizun zibil edo diziplinarioak eskatu dituzte beren salaketetan.

Adierazi behar dugu gure funtzioa ez dela salatutako profesionalen lanaren inguruan Elkar-goek kode deontologikoaren ildotik egiten dituzten balioztapenak berraztertzea. Bada gure eginkizuna, ostera, salaketa horiek arduraz eta legeak ezarritako prozedura betez azter daitezkeen, eta, legeak agintzen duenez, haiei buruzko ebazpenek erantzun oinarriduna eman diezaieten salaketa horiek aurkeztutako gai guztiei.

Horrela, kontratatutako zerbitzu horretan parte hartzen duten profesionalak biltzen dituzten korporazioek berme eginkizuna bete behar dutelarik, eginkizun horren funtsezko alderdi bat sostengatu nahi da. Hain zuzen ere, elkargokideen jarduera deontologiaren aldetik kontrolatzea haien parekoen esku uztean, legearen abiapuntua da azken horiek direla interes handiena dutenak jarduera hori *lex artis* delakoarekin bat gauza dadin, Administrazio publikoekin dituzten harremanetan, herritarren eskubide eta interes legitimoak babesteko sorturiko erakundeek ere, hala nola Arartekoak, duten helburu bat. Beraz, jarrera profesional jakin baten balorazio deontologikoen edukian sartu gabe, elkargoaren kontrol sisteman sortu ahal izan diren akatsak identifikatzeko betebeharra dauka Arartekoak, etorkizunean aukera gutxiago izan dadin kontrol hori birtualtasunik gabe geratzeko.

Hala gertatu zen Bizkaiko Psikologoen Elkargoaren kontrako kexa jarri zuen emakume baten kasuan; hain zuzen ere, bere semea artatu zuen psikologoaren kontrako erreklamazioa kudeatzeko moduagatik jarri zuen kexa. Ikusi ahal izan genuenez, kexa hura izapidetzeari hainbat akats gertatu ziren, eta horrek, prozedura atzeratzeaz gain, salatutako profesionalaren erantzukizun oro preskribatzea ekarri zuen.

Gure esku-hartzeak agerian utzi zuen prozesu osoan zer hobetu asko zegoela, eta, horren eraginez, Elkargoak barkamena eskatu zion salaketa-egileari, eta prest agertu zen gertatutakoa berriz ez gertatzeko [2008ko abuztuaren 21ean igorri genion gomendioan](#)¹⁹ adierazitako neurriak hartzeko. Horrek guztiak agerian uzten du elkarlanerako jarrera zintzoa izan dela, eta, beraz, gure aitortza merezi du.

Abokatuen Elkargoen jardunaren inguruan urtean zehar egindako esku-hartzeen artean, bereziki nabarmentzekoak dira doako justiziarako eskubidearekin lotutakoak.

Gure esku-hartzeen bidez, ikusi ahal izan dugu abokatu gehienek serio eta dedikazio handiz hartzen dituztela beren gain banakoei onura hori ematearen ondorioz egokitzen zaizkien defentsak. Alabaina, hori bezain egia da arrazoi horregatik iritsi zaizkigun erreklamazioetako batzuek agerian utzi dituztela Justizia Administrazioaren erabiltzaile batzuek jasan beharrik ez duten egoera batzuk, hasi abokatuarekiko komunikazio arazo xumeetatik eta profesional arretatsuei ez dagozkien jardueretara. Zalantzarik ez dugu Elkargoek ezin interes handiagoa dutela halakorik gerta ez dadin, baina gisa horretako erreklamazioek agerian uzten duten hobekuntza tarte hori gutxitzeko gakoa ez da mugatzen, gure ustez, araua betetzen ez dutenen kontra diziplina bidean zorrotzago jardutera. Kontua gehiago da horri aurrea hartuz jardutea, bi zentzutan:

- alde batetik, bideak jarri Elkargoak arin eta berehala erreakzionatzeko modua izan dezan, baldin eta agerikoa bada izendatutako abokatuak ez duela jardun profesional onengandik espero den bezala, hala pasibotasunez aritu delako nola bezeroari osoki edo partziali funtsik ez duten eskakizunak proposatu dizkiolako.
- Beste alde batetik, ziurtatuz profesional horiek behar bezala prestatuta eta informatuta daudela ofizioko lanari buruzko araudiari dagokionez.

Bi alderdi horiekin lotuta, joan den urtean etengabe aritu gara hizketan elkargoetako instanzietan; horren ondorioz, arin eta zentzuz konpondu dituzte herritarrek arlo horretan helarazi dizkiguten arazo praktikoak, diziplina esparrutik harago. Eskertzen dugu oro har Abokatuen Elkargoek eta bereziki Bizkaikoak eta Arabakoak arlo horretan izan duten prestasun ona, kasu jakin batzuetan sortu ahal izan diren irizpide desberdinez harago.

Gipuzkoako elkargoarekin izandako lankidetzeta, ordea, ez da izan behar bezain joria; halaxe uzten du agerian doako justiziaren onuradun batek jarritako kexaren ondorioz esku hartu genuela-eta gertatutakoak; onuradun horrek kontratuz kanpoko erantzukizun zibila erreklamatu nahi zien bi aseguru etxeri, istripu baten ondorioz. Kasu horretarako izendatu zen abokatuak, kalteak zenbatetsi eta epaiketaz kanpo erreklamatu eta gero, zegokion egintza judiziala preskribatzen utzi zuen, horren gaineko salaketarik jarri gabe. Bezeroak Elkargoan salatu zuen, eta hark diziplina bidean jarduteko izan zuen pasibotasunaren ondorioz,

¹⁹ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abuztuaren 21ekoa. Horren bidez, Bizkaiko Psikologoek Elkargo Ofizialari gomendatzen zaio erantzukizun zibilaren eta diziplinazkoaren arloko kexen kudeaketarako irizpideak aplikatu ditzala eta Estatutuaren zenbait aldaketa egin ditzala.

azkenean Arartekoak hala eskatuta jardun zuenerako, preskribatua zegoen aldi baterako erantzukizuna. Elkargoak, nolahi ere, artxibatzeke ebazpenean adierazi zuen lan profesionala zuzena izan zela une oro, Epaitegiaren aurrean gauzatu ez zen asmo hori bideraezina baitzen.

Horri dagokionez, adierazi behar dugu epaitegi baten aurrean uzi bat defendatzeko abokatu bat ofiziozko txandan esleitzen denean azkenean dagokion auzi-eskea ez aurkeztea ez dela, berez, deontologiako arau-hauste bat, baldin eta horren arrazoiak bada –adiskidetzeari lortzen den kasuek gain– eske hori bideragarria ez izatea. Nolanahi ere, ondorio horietarako, ezinbestekoa da bideragarritasun falta hori abokatuak duen iritzia araberak bakarrik ez erabakitzea; aitzitik, bera ez den instantzia batek aztertu eta berretsi behar du, bestela ez legokeelako bermaturik ofiziozko laguntza juridikoa, laguntza hori emateaz arduratzen den profesionalaren borondatearen mende legokeelako, praktikan.

Arrazoi horixe dela medio, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeko 32. eta 33. artikuluetan zehaztu egiten da lege bereko 23. artikuluan abokatuei beren lana egiteko ematen zaizkien irizpide askatasun eta independentzia. Izan ere, bi artikulurik horietan, abokatuak defentsa bere gain hartu behar dutela xedatuta dago, uziaren funtsik eza alegatu ezean, sei eguneko epean, Doako Justiziaren Batzordearen aurrean; batzorde horrek horren gaineko erabakia hartuko du, Abokatu Elkargoak –eta, hala badagokio, Fiskaltzak– beren irizpena eman eta gero.. Auzi honetako abokatuak ez zuen Batzorde horretan alegatu defentsa bideraezina zenik, eta, beraz, ez zen hura betetzetik aske geratu.

Horrexegatik, kezkarria da, gure aburuz, Gipuzkoako Abokatu Elkargoak lankidetzan aritzeko gure eskaerari erantzutean hartzen duen irizpidea, baieztatzen duenean korporazioak baino ezin susta edo exiji dezakeela bere kideen diziplinazko erantzukizuna, eta dioenean elkargoko Gobernu Batzordeak bere irizpide zintzoaren arabera erabakitzen duela, Doako Justiziaren Batzordeari txostenik eskatu behar izan gabe. Horrela adierazirik, baieztapen horiek indargabetu egiten dituzte ordenamenduak –abokatuaren jardueraren eremuan, oro har, eta doako justiziaren eremuan, bereziki– epaitegi eta auzitegien erabiltzaileen eskubideak egiaz gauzatea bermatzeko baliatu nahi dituen kontroletako batzuk. Ondorioz, legeak eremu horretan Arartekoari esleitzen dizkion zereginak direla eta, espediente hau eragin duen kasu partikularretik harago, garrantzizko zehaztapenak egin behar ditugu:

- Elkargo profesionalak, Zuzenbide Publikoko korporazioak diren aldetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen mende daudela, lege horretako 2. artikuluan xedatuta dagoenez.. Elkargoak aztergai dugun erabakiaren motako erabakiak hartzea eta horren ondoriozko Arartekoaren kontrola araudi horren mende daudela badago ezarrita, gainera, EAEko azaroaren 21eko 18/1997 Legeko (tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa) 48. artikuluan eta Gipuzkoako Abokatu Elkartearen Estatutuetan –hain zuzen ere, EAEko aipatutako legeko 19.5 artikulua estatutu horietara bideratzen du–, eta hori berariaz jasota dago lege horretako 19.2 artikuluan, diziplinari dagokionez.. Aipatu ditugun bi legeek elementu arautuak sartzen dituzte erreklamazioari dagokion elkargo jardueran, eta elementu horiek garrantzitsuak dira

ea elkargoak bere ebazpenean ebatzi beharreko alderdi guztiei buruzko erantzuna ematen duen ala ez balioztatzean, bai eta preskripzioaren gaian ere; azken horri dagokionez, bestalde, aipatutako estatutuetako 99. artikulua Eusko Legebiltzarraren 18/1997 Legea bideratzen du.

- Doako Justiziaren arloan, Elkargoak aditzera ematen duenean salatutako abokatuak salaketa jarri ez badu ere bere egiteko profesionala bete duela, uzia funtsik gabea zela-eta hori egitetik salbuetsita zegoelako, elkargoen ahalmenen izaera arautuak salatu den abokatu jardueraren deontologiazko balioztapenari berari ere eragiten dio. Ezin onar daiteke Elkargoaren askatasuna hain erabatekoa izatea arlo honetan; izan ere, doako justiziaren onura arautzen duen legean araututako prozedura baten bidez baino ezin egin daiteke halako salbuespena, eta, horrenbestez, lege horrextako xedapenek zehazten dute, nahitaez, zer esparrutan erabil dezakeen elkargoak bere irizpide zintzoa gai horren inguruan.
- Azkenik, ezin etor gaitzke bat elkargoak baino ez duela eskumena abokatuen diziplinazko erantzukizunaren akzioa sustatzeari ekiteko. Gogorazi behar da ekimen hori ez dela nahasi behar diziplina ahalmenarekin; azken hori bai dagokio bakar-bakarrik korporazioari (EAEko Profesionalen Elkargoari buruzko 18/1997 Legeko 19.3 eta 24 d) artikulua). Hala dago jasota Gipuzkoako Abokatu Elkargoaren estatutuetako 61.2 g), 92.1 artikuluetan ere; gainera, 101.1 artikuluan, bakar-bakarrik Batzarrari ematen zaio zigor espedienteak abiarazteari buruzko erabakiak hartzeko zeregina. Baina, hala ere, 103.1 artikuluan kide baten aurkako diziplinazko prozedurak abiarazteko bideak arautzean, interes legitimoa duen hirugarren baten salaketa berari jasotzen da, besteak beste.. Estatutuetako 105.3 artikuluan arabera, abokatuaren jardura profesionalak kalte egin diola alegatzen duen bezero batena litzateke kasu hori. Agerikoa da, hartara, elkargoaren estatutuek berek onartzen dutela erabiltzaileak izan dezakeela ekimena diziplinazko prozedura abiarazteko –instruktoarearen proposamenak ikusi eta gero, Batzarrak har ditzakeen erabakiak gorabehera, diziplina espedientea abiaraztea dela zein, lehen azterketa egin eta gero, kasua artxibatzea dela–.

Irizpide horiek betez, Arartekoak ebazpen bat bidali zuen abenduan, eta han adierazi zuen bere iritziz ez zela zuzena izan Gipuzkoako Abokatuen Elkargoren jardun hori ([2008ko abenduaren 9ko Ebazpena](#)²⁰).

Ezin informa dezakegu Elkargoak ildo horretan helarazi dizkiogun gomendioak onartu dituen edo ez; izan ere, txosten hau ixten ari ginen egunean, horri buruzko iritzia emateko eskatu genion epea amaitu eta hilabete geroago, erantzunaren zain geunden oraindik.

²⁰ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 9koa. Horren bidez, Gipuzkoako Abokatu Elkargoari gomendatzen zaio diziplinazko erantzukizunaren arloko kexen kudeaketarako zenbait irizpide aplika dezala, haren doako laguntza juridikoaren onuradun batek bere abokatuari jarritako salaketa gaizki izapidetzeagatik, aurkeztutako kexa baten harira.

Komunikazio arazo zehatzak dira, baina ezin onar dezakegu legeak korporazio profesiona-
lekin batera Justizia Administrazioaren erabiltzaileen eskubideak aldezteko agindu digun
lana zailtzea. Beraz, horiek gainditzeko betebeharra dugu, betiere erakunde honen lehen-
tasunezko ikuspegitik, zeina ez baita hainbeste fiskalizatzea, baizik eta elkarlanean aritzea
gure gainbegiratze lanaren xede diren instituzio eta erakundeekin, ustezko akatsak zuzendu
eta prozesuak hobetzeko helburu bateratu hori lortzeko ahaleginak batzeko.

1.9

INGURUMENA

9. INGURUMENA

2008ko ekitaldian, ingurumenari buruzko 88 kexa jaso ditugu; hain zuzen ere, erakunde honek jasotako kexa guzien %6,94 izan dira.

Erreklamazio horiek gure hiri eta landa inguruak jasaten dituen eraso gero eta ugariagoekin kezkatuak dauden taldeek edo elkarteek aurkeztu dituzte, baita ingurumen eraginaren zuzenean eragina jasaten duten biztanleek ere.

Ingurumenaren aurkako erasoak Konstituzioko II. tituluan jasotako eskubideen aurkako atentatuak dira; izan ere, urratu egiten da hiritar guztiek pertsonaren garapen onerako ingurumen egokia izateko duten eskubidea, baita hori kontserbatzeko eskubidea ere (EK-ko 45. art.). Konstituzioak babesturiko talde interes honen defentsak arartekoari aukera ematen dio talde edo elkarte guztiek kexak aurkezteko duten legitimazioaren interpretazio zabala egiteko.

Erkidegoan egiten ari diren ikerketen arabera, hiritarrek gero eta kezka handiagoa dute ingurumenari buruz; hain zuzen ere, lehenengo mailako garrantzia ematen diote bizi kalitatearen arloan; horri dagokionez, gainera, aipagarria da gero eta kezka handiagoa dutela ingurumenaren eta osasunaren arteko loturari buruz, klimaren aldaketari buruz baino (esate baterako), azken arazo hori eguneroko bizitzan gutxiago nabaritzen delako, beharbada. Hori agerian gelditu da erakunde honetan jaso diren kexetan.

Lehenengo eta behin, eraginpeko administrazioen arabera, kexak ondoren adierazitakoaren arabera bildu ahal dira:

- Tokiko administrazioa	79
- EAEko administrazio nagusia (Eusko Jaurlaritza)	7
- Foru administrazioa	3

Edukiari dagokionez, honelaxe sailkatu ahal dira:

- Egoitza lurzoruan sailkaturiko jarduerak	57
- Beste ingurumen eragin batzuk	19
- Lurzoru urbanizaezinean sailkaturiko jarduerak	6
- Industria lurzoruan sailkaturiko jarduerak	3
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	3

- Egoitza lurzoruan sailkaturiko jarduerak

Ekitaldi honetan, zaraten, usainen eta keen eraginezko eragozpenei lotutako kexa kopuruak nabarmen egin du gora; eragozpen horiek egoitza lurzoruko jardueren (jarduera sailkatu deritzenak) funtzionamendu irregularren ondoriozkoak dira, eta halako jarduerak egiteko manuzko udal baimena behar da.

Urterik urtera, erakunde honek ohartarazi egin ditu herri-administrazioak, halako jardueratik bizi diren pertsonen osasunak eta bizi kalitateak jasaten dituzten kalte larriei buruz, jarduera horien funtzionamendua instalazio lizentziek eta indarreko legediak ezarritako neurri zuzentzaileetara egokitzen ez denean.

Udalek bermatu egin behar dute baimendutako jardueren funtzionamendua egokitu egiten dela, betiere, instalazio lizentzian ezarritako murriztapenetara eta neurri zuzentzaileetara; bestela, jarduerok baimendutako instalazioaren parametroetara eta mugetara berbideratu behar dituzte. Horretarako zigor neurriak hartu behar badira (pertsonen atsedena eta kalitatezko ingurumena errespetatzen ez dituzten jokabideak edo jarrerak aldarazteko), indarreko antolamendu juridikoak hiritarren interes orokorra babesteko bideak eskaintzen ditu.

Hala eta guztiz ere, udalek ez dituzte betetzen jarduera horiek ikuskatzeko eta kontrolatzeko funtzioak, ez diete funtzio horiei arreta nahikorik eskaintzen, eta horiek kudeatzeko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak ere ez dituzte erabiltzen. Horrenbestez, herritarrek kexak aurkeztu dituzte erakunde honetan, halako jardueren funtzionamendu irregularrak luzaro eragindako eragozpenekin nekatuta daudelako eta, aldi berean, udal agintariek euren arazoak konpontzeko neurri zehatzik hartzen ez dutelako.

Aurten ere, ingurumenaren arloan jasotako kexa kopururik handiena **ostalaritzako establezimenduen** irregulartasunen eraginezko irregulartasunei buruzkoak dira (adibidez, tabernak, pubak, jatetxeak, txokoak edo gastronomia elkarteak, etab.); izan ere, instalazio horiek eragiten dute zuzenen biztanleengan, egoitzako hiri lurzoruan kokaturik daudelako.

Oro har, kexa horiek lokalen intsonorizazio ez-egokiari, potentzia handiko musika ekipamenduak edonola erabiltzeari, ate bikoitzik ez edukitzeari, ixteko ordutegia ez betetzeari eta halako alderdiei buruzkoak dira.

Ekitaldi honetan tramitaturiko espedienteei dagokionez, erakunde hau kezkatuta dabil, azterturiko kasu batzuetan (ehuneko handia izan ez arren, eta gehienbat udalerrri txikietan) halako instalazioen funtzionamenduan ia ez dagoelako administrazio kontrolrik. Horrela, esate baterako, aipagarria da Sopolako Udalak esku hartu duela urteetan irekita egon den ostalaritzako establezimendu batean, establezimendu horrek zarata eragozpen larriak sortu dizkielako inguruan bizi diren herritarrei.

Kexa jaso ondoren, tokiko erakundera jo eta salaturiko jardueraren hirigintza legezkotasunari buruzko informazioa eskatu dugu. Tokiko erakundeak jakinarazi digunez, jarduera errendimendu betean zegoen, baina instalazioko eta irekitzeko manuzko lizentziarik gabe.

Hori dela eta, Sopolako Udalari beste idazki bat bidali eta aditzera eman diogu, udal agintariek halako instalazioen klandestinitate egoeraren berri dutenean, EAEko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorreko 65. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, eta bidezko zigoren kalterik gabe, jardueraren titularrari egoera erregulatze eskabidea egin behar zaiola; horretarako, 6 hilabeteko epea emango zaio, eta epe hori,

ondo justifikaturiko kasuetan izan ezik, ezin izango da gainditu; bestela, jarduera legalizatu ezin badu, lokala ixteko agindua eman beharko du, interesatuak esan beharrekoa entzun ondoren.

Gure oharrei kasu eginez, Udalak jakitera eman zigun jarduera hori legeztatzeko eskabidea egin zuela. Hala eta guztiz ere, denbora igaro ondoren, eraginpeko pertsonak berriro ere erakunde honetara jo zuten, esanez instalazioa lehengo egoera berean ari zela funtzionamenduan; horrenbestez, beste informazio eskaera bat egin genion udal agintaritzari, eta, bertan, arlo horretan dagozkion erantzukizunak eta betebeharrak berretsi genizkion.

Bigarren eskaerari erantzunez, Udalak jakitera eman zigun, alkatetza dekretuaren bidez jarduera ixteko eskabidea egin bazen ere, ebazpen hori ez zela bete, eta bidezko neurriak hartuko zituztela instalazioa modu subsidiarioan ixteko.

Kasu honetan egiaztatu dugunez, oraindik ere ohikoa da kontroleko prebentzio sistemak arrakastarik ez izatea. Baina a posteriori egindako ikuskatze prozedurek ere huts egiten dute sarritan, udal lizentzia eduki arren, indarreko legediak babestuta, baimenean ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen ez dituzten jarduerari dagokienez.

Arlo honetako administrazio eskudunek, gure ustez, ezin dute ezer egin erregularizazioa egiteko orduan, eta hasitako legeztatze prozedurak gehiegi atzeratzen dituzte, bai instalazioen titularrek aurkeztu diren proiektuak zuzentzeko gaietan formulaturiko eskabideei erantzunik ematen ez dizkietelako, bai jarduera funtzionamenduan jartzeko behar diren aurretiazko ikuskapenentarako baliabide pertsonal nahikorik ez dutelako. Horren eraginez, zenbait kasutan, halako jardueren titularrek, udal agintaritzak bidezko zigor neurriak hartzeko berandu ibiltzen direla jakinik, ez dute manuzko lizentziarik eskatzen, establezimenduak irekitzeko, edo ez dituzte eskaturiko neurri zuzentzaileak betetzen.

Bestalde, ekitaldi honetan egiaztatu dugunaren arabera, urteetatik hona irekita egon diren antzinako ostalaritza establezimenduen edo jatorri tradizionalen kexa kopuruak nabarmen egin du gora; horien jarduerak ez dira bere garaian baimendutakoak. Esate baterako, musika ekipamenduak erabiltzen dituzten puben jarduera; izan ere, horiek ez dute intsonorizazio neurri egokirik hartu, instalazio berria legeztatzeko eskabiderik egin ez zaielako.

Horren adibidetzat, aipagarria da Zumaiako establezimendu baten kasua. Herritarrek kexa aurkeztu zuten erakunde honetan, eta, bertan, euren etxebizitzan aspalditik hona jasaten zituzten kalte larriak adierazi zituzten. Eurek ziotenez, zarata eragozpenak jardueraren errentzia aldatu zenean hasi ziren, betiko jabeak erretiroa hartu zuenean.

Tokiko erakundeak emandako administrazio espedientean egiaztatzen denez, lokalean titulartasun aldaketa irregularra egon zen; hain zuzen ere, titular berriari tasak ordaintzeko baino ez zitzaion eskatu, eta udal agintaritzak ez zituen bidezko egiaztapenak egin, lokala hasieran emandako lizentziara egokitzen dela egiaztatzeko. Erakunde honek eskaturiko ikuskapenean egiaztaturikoaren arabera, lokalak baimenik eta isolamendu akustikorik gabeko musika ekipamendua zuen.

Arartekoak aditzera eman duenez, orain dela hogeit hamar urtetik honako jurisprudentzian adierazitakoaren arabera, lokalak irekitzeko lizentziak arauturiko egintzak dira, eta horietan antolamendu juridikoaren mugen barruan dagoen zerbait egiteko eskubidea onartzen zaio administratuari; izan ere, lizentziak eskualdatu egin daitezke, batez ere izen aldaketaren bidezko titulartasun aldaketak baino ez direnean: lehenengo lizentziak eman direnean ez da pertsonen baldintzak haztatu beharrik egon, lizentzia errealak eta objektiboak izan direlako eta transmisioa ekidin ahal duten moten barruan ez daudelako, Tokiko Korporazioetako Zerbitzuei buruzko 1955ko ekainaren 17ko araudiko 13. artikuluan arauturikoaren arabera (besteak beste, 1944/4999 art.).

Hala eta guztiz ere, Tokiko Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiko 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, obren, instalazioen edo zerbitzuen baldintzei buruzko lizentziak eskualdatzeko modukoak dira, eta horretarako baldintza bakarra udalbatzari titular berriari egindako eskualdaketa jakinaraztea da; arau horretako 15.1 artikulua ezartzen duenez, halako lizentziak obraren edo instalazioaren baldintzek irauten arte egongo dira indarrean, eta lizentzia horien arauak Araudiko 16. artikulua osatzen du. Manu horretan ezarritakoaren arabera, halako lizentziak ondore barik geldituko dira lehendik ezarritako baldintzak bete ezean, eta lizentzia emateko zergatiak ezeztatzen direnean ere ondore barik geldituko dira, edo lehen egonez gero ukapena justifikatuko zuten zergati berriak sortzen direnean.

Horretarako, Auzitegi Nagusiak garai hartan ere esan zuen jarduera baten titulartasunaren transmisioak irekitze lizentzia berriaren sorrera eragiten duela; horri dagokionez, agintaritzak eskudunak egiaztatu egin du eskualdatutako lizentziak babesten duen egoera beharrezko legezkotasun baldintzetan mantentzen dela, eta hori erabakigarria da (Auzitegi Nagusiaren epaiak, 1983ko otsailaren 23koa – 938. art.– eta 1986ko otsailaren 28koa – 1626. art.–).

Horrenbestez, kasu honetan argi dago Zumaiako Udalak ezin duela baimenik eman jarduera horren funtzionamenduari jarraitzeko, titular berriari irekitze lizentzia egokia eman barik, are gutxiago establezimenduak bere garaian emandako kalifikazio txostenean adierazitako neurri zuzentzaileak betetzen zituela egiaztatu gabe. Prozesua urtebete baino gehiago luzatu arren, jarduera luzatzea erabaki zen, proiektu berria aurkeztuta, gero legeztatuta ahal izateko.

Bestalde, zenbait kasutan tokiko administrazio batzuek arlo honetan duten utzikeria edo gehiegizko pasibotasuna agerikoa izan arren, beste zenbaitetan aldaketa nabaria ikusi dugu administrazio horien jardueran, batez ere EAEko hiriburuetan, azken urte hauetan. Dirudienez, azkenean, udalek euren gain hartu dituzte establezimenduen ikuskapen iraunkorrek eskumenak, eta, beharrezko kasuetan, neurri zuzentzaileak ezarri dituzte erabilera ez-egokiaren eraginezko eragozpenak ekiditeko, eta urratzeak behin eta berriro ez egiteko, gero eta hertsagarriagoak diren zehapenak ezarrita.

Beste alde batetik, 1996an egindako gomendio orokorrean ("*Ostalaritzako establezimendu publikoetan instalaturiko musika ekipamenduek sorturiko kutsadura akustikoa kontrolatzeari buruz*") fase esperimentaleko sistema sonografikoen bidezko aukerak aipatu genituen, eta orain eta pozik egiaztatu dugu gero eta ohikoagoa dela udalek halako sistemak instalatzera behartzea, gaueko funtzionamendua duten jardueretan instalaturiko musika ekipamendue-

tan, bertako zaratak zorrotzago zehaztu ahal izateko eta lokalak ixteko ordutegiaren gaineko kontrol handiagoa edukitzeko. Horrela, egiaztatu dugunaren arabera, udalerriak kontrol sistema berriak sartzen ari dira administrazio ebazpenei objektibotasun handiagoa emateko eta aurreikuspenak bete egiten direla bermatzeko.

Bestalde, **merkataritza establezimenduek** sorturiko eragozpenei buruzko kexa kopurua ere handia izan da; kexa horiek, batzuetan, hozte eta aireztatze sistemek sorturiko zaraten eraginezkoak izan dira, eta, beste zenbaitetan (kasurik gehienetan), zamalanak egitean sortzen diren eragozpenen ondoriozkoak.

Oro har, establezimendu hauen isolamendu akustikoa nahikoa da supermerkatuko lokal baterako. Hala eta guztiz ere, barruti nagusiaren ondoko biltegiei buruz ezin dugu gauza bera esan, salatutako zarata eragozpenik gehienak bertatik baitatoz.

Biltegi hauek, establezimenduaren zati osagarritzat, isolamendu maila handia eduki behar dute, baita jardueraren neurri zuzentzaile berberak ere, zamalanak egitean sor daitekeen edozein eragozpen ekiditeko. Horixe ulertu zuen Donostiako Udalak; hain zuzen ere, supermerkatu bateko biltegi batean egiten ari ziren irregulartasunak egiaztatu ondoren, jardueran berrikuntza partziala eskatu zuen, biltegiako zona batzuk aldatzeko eta hobetzeko.

Bermeoko Udalak, antzeko egoera batean, zamalanak goizeko 8:00etara arte atzeratu behar zirela ezarri zuen. Halaber, lan horiek egiteko erabilitako makinaren gurpilak aldatzeko eskabidea ere egin zuen, horien ordez zarata gutxiago ateratzen zuten gomaz bildutako batzuk erabiltzeko.

Amaitzeko, erakunde honetan aurten ere agerian gelditu denez (gaiari buruzko zenbait kexa egon baitira), beharrezkoa da EAeko leku guztietan dagoen arazoari aurre egitea: **gazteek lonjak elkartzeko lokaltzat erabiltzea**, lonja horiek halako erabilerarako behar diren baldintzak bete barik.

lazgo urteroko txostenean ezarritakoa berrestearen kalterik gabe (lokalen funtzionamendu irregularraren arazoei eta arazoaren eraginpeko udalek harturiko jarrerari buruzko azterketa sakona egin genuen), berriro ere aditzera eman behar dugu halako instalazioak sailkaturiko jardueren araubidearen mende daudela, eta, beraz, administrazio-lizentziaren araubidea bete behar dutela, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 55. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa.

- Industria lurzoruan sailkaturiko jarduerak

Lehen esan dugunez, biztanleek osasunerako eta ingurumenerako eskubidea aldarrikatzeko jo dute erakunde honetara, horiek erasoak eta nahasteak jasaten ari baitira, guztiz kutsagarriak diren industria jardueren eraginpean ere badaudelako.

EK-ko 45. artikuluan ezarritakoaren arabera, agintari publikoek ingurumena suspertu behar dute, baita defendatu, mantendu eta zaindu ere; gainera, tresna egokiak bermatu behar

dituzte halako instalazioetan esku hartu ahal izateko, beharrezkoak diren prebentzio neurrien, prestazioen eta zerbitzuen bitartez, eta ez dute hori ez egiteko inolako aitzakiarik, EK-ko 53.3 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta; izan ere, bertan ezarritakoaren arabera, agintari publikoek babesa bermatzeko betebeharrak juridikoa dute, eta horrek, kasu honetan, esan nahi du jarduera egiten denetik hurbil bizi diren pertsonen osasuna eta ingurumena ondo babestu behar direla.

Agintari publikoek ezin dira ezer egin gabe gelditu, ingurumenean kalte egiten duten halako egoerak daudenean, egoera horiek pertsoneri edo ondasunei kalte egin arte. Hain zuzen ere, administrazioak esku hartzea ezinbestekoa da, arriskua sortzen duen egoera amaitzeko, eta, horretarako, bidezko neurri zuzentzaile guztiak hartu edo zuzeneko erantzukizuna dutenei horiek hartzeko eskatuko zaie. Ezin dugu ahaztu ingurumena babesteko helburua ez dela mugatzen sorturiko kalteak konpontzera; izan ere, helburu horren barruan, ingurumena osatzen duten elementuen kontserbazioa ere sartzen da.

Gainera, Konstituzio Auzitegiak arlo honetan duen doktrinarik berrienean ezarritakoaren arabera, Administrazioak industria jardueraren eraginezko ingurumen kalteak onartuz gero edo horien aurrean ezer egin ezean (jarduerok pertsonen osasuna arriskuan jarri ez arren), urratu egiten dira osotasun fisikorako edo moralerako (EK-ko 15. art.), pertsonaren nahiz familiarren intimitaterako (EK-ko 18.1) eta egoitzaren bortxaezintasunerako (EK-ko 18.2) funtsezko eskubideak.

Konstituzio Auzitegiak administrazioaren esku-hartzea eskatzen du, ingurumen-lizentziaren teknikaren bitartez, jarduketaren iraupen osoan ingurumen politika osoa informatu behar duen prebentzio printzipioaren ardatz gisa; horretarako, beharrezko zerga neurri guztiak hartu beharko ditu, eskubide horiek kalterik jasaten ez dutela bermatzeko.

Gaur egun, kutsadura handia sortzen duten enpresarik edo jarduerarik gehienak Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen (KPKIL) eraginpean daude. Lege horren helburua ingurumenaren babes orokor handia da, eta, horretarako, prebentzio eta kontrol integratuko sistemak ezartzen ditu, atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura ekiditeko, murrizteko eta kontrolatzeko. 2002ko uztailaren 3tik (lege hori indarrean sartu zen eguna), aplikagarria da egokitu behar diren instalazio berri guztietara, eta horiek 2007ko urriaren 30a baino lehen egokitu beharko dira. Lehendik dauden instalazioetarako, legea egokitze data berori da; hala eta guztiz ere, behin behineko funtzionamendua izan dezakete, baldin eta Ingurumen Baimen Integratuaren (IBI) eskabidea 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen aurkezten bada, araudi sektorial aplikagarriak eskaturiko ingurumen baldintzak betez gero.

Aurten egiaztatu dugunez, ingurumen agintaritzak IBlak eman dizkie erakunde honek salaturiko enpresei eta instalazioei (jarduerak kutsadura akustikoa eta atmosferikoa sortzearen eraginezko salaketa).

Horrela, aurtengo amaieran, Elorrioko galdaketa-enpresa bati eman diote IBI, eta horrek 16/2001 Legeko 1. eranskineko 2.4 kategorian jasotako jarduera garatzen du ("Metal ferrosen galdaketak, eguneko 20 tonatik gorako produkzio gaitasunarekin").

Egiaztatu dugunaren arabera, emandako ebazpenean zehatz azaltzen da jardueraren produkzio prozesua; gainera, atmosferarako igorpenak eta uretarako isurketak identifikatzen dira, bai hondakinezkoak eta bai euri urenak nahiz sanitarioak; azkenik, hondakin arrisku-suak eta ez-arrisku-suak sortzeko modua zehazten da.

Proiektuan jasotako Hobekuntza Tekniko Eskuragarriak zehaztu ondoren, IBIk ustiapenak bete behar dituen baldintzak eta eskakizunak azaltzen ditu. Labur-labur esateko, eskatzen diren baldintza orokorrak honako hauek dira:

1. Airearen kalitatea babesteko. Igorpen fokuak identifikatu ondoren, igorpenaren gehieneko balioak, aurreikusi beharreko bilketa sistemak eta gasak ebakutzeko sistemak ezartzen dira.
2. Saneamendu sarera eta ibilgura isurtzeko. Isurketen jatorria, inguru hartzailea eta kokalekua sailkatzen dira; gainera, isurketaren gehieneko emariak nahiz bolumenak eta igorpenaren gehieneko mugak ezartzen dira. Halaber, araztegieta jarraitu beharreko jarduketei edo hondakin uretarako neurri zuzentzaileei buruzko informazioa ematen da.
3. Araztegieta sorturiko hondakinak ondo kudeatzeko, hondakin motaren arabera gauzatu behar diren jarraibideak ezartzen dira.
4. Lurzorua babesteko ere neurriak hartu behar dira, eta horiek, funtsean, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan jasotakoak dira; dekretu horren bidez, lurzorua kutsatu dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpideak zein estandarrak ezarri dira; halaber, aintzat hartu behar da lurzoruaren kutsadura aurreikusteari eta zuzentzeari buruzko otsailaren 4ko 1/2005 Legea. Neurri horien helburua, garaturiko jardueraren ezaugarrien arabera, beharrezko jarraibideak ezartzea da, erabiltzen eta sortzen diren materialak metatzeko prozesuetan lurzoruaren gaineko eragina ahalik eta gehien murrizteko.
5. Zaratari lotutako baldintzak. Elkarren ondoko etxebizitzetan baimendutako gehieneko mailak ezartzen dira.

Halaber, ezarritako igorpen parametroetara egokituriko ingurumen zaintzako programa ere behar da, eta, gainera, ohikoak ez diren egoerentzako funtzionamendu baldintzak eta prebentzio neurriak ere ezinbestekoak dira.

Nolanahi ere, IBI horren eraginkortasuna, egiaztatu dugunez, instalazioak honako honen arabera eraikita eta ekipatuta daudela egiaztatzearen mende daude: aurkezturiko proiektu berria eta emandako ebazpenean ezarritakoa. Horretarako, tekniko eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztu eta, bertan, aditzera eman behar da baldintza guztiak betetzen direla, egin behar den ikuskapen-bisitaldia baino lehen. Baldintza horiek egiaztatzeko epea sei hilabetekoa da. Egiaztatze horrek sorraraziko duen ebazpenaren bidez, integraturiko baime-naren eraginkortasuna adieraziko da.

Era berean, egiaztatu dugunaren arabera, IBIa emateko ebazpena eman da, kokea sortzeko jarduera baterako, harrikatza labe batera batean destilatuta; jarduera hori Barakaldon garatzen ari da.

Beste alde batetik, Ansioko lantegi zaharra eraisteko obren eraginari buruzko salaketa bat jaso dugu; obrak horiek Barakaldoko Lutxana auzoan egiten ari ziren.

Barakaldoko Udalak jakitera eman zigunez, zona horretan egiten ari ziren hirigintza obrek halako obra guztien eragozpen sailhestezinak eta nahitaezkoak sortzen zituzten; gainera, herritarrei eragozpen handiagoak eragiten zizkieten obrak laster desagertuko ziren, lanak amaitu eta batera.

Hala eta guztiz ere, arartekoaren iritziz, halako obra handiak egiten direnean, agintari publikoek ere beharrezko neurri guztiak hartu behar dituzte, sortu ahal diren eragin guztiak ahalik eta gehien arintzeko edo murrizteko eta, horrela, herritar guztiak duten atseden eskubidea bermatzeko.

Azkenik, Térmicas No Miranda Lantarón plataformak erakunde honi aurkezturiko kexa azalduko dugu; bertan, Lantaronen **ziklo konbinatuko zentral termikoa** instalatuko dutela salatzen da.

Instalazioari buruz egindako alegazioak eta eraginei buruzko dokumentazioa arretaz aztertu zituen erakunde honek, kasuari zegokion eskumen eremua zehazteko, kontuan hartuta, gainera, zentral termikoen jardueraren baimen araubidea eta Lantaroneko udalerrian instalatu nahi denaren araubidea.

Argi gelditu zen zentral termikorako baimenaren eskumena Estatuko administrazioak zuela, hain zuzen ere, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak; beraz, Ingurumen Eraginaren Adierazpenaren Azterlana Ingurumen Ministerioak egin behar du. Ministerio horien kontrola arartekoari dago legez eratzikita, apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

Horrenbestez, planteaturiko gaiak ikuspegi integratzailea behar duela ere kontuan hartuta (bai erkidegoen arteko izaera duelako, nahitaez; bai administrazio prozedura jakinak gauzatu behar direlako, herri-administrazio desberdinetan eragina dutenak), salaketa herriaren defentsariari bidaltzea erabaki genuen.

- Lurzoru urbanizaezinean sailkatutako jarduerak

Atal honetan, tramitatzen ari garen kexa bat aipatu behar dugu, elgoibartar batzuek aurkeztutakoa; herritar horiek, hain zuzen ere, euren etxebizitzetatik hurbil instalatuta dagoen **txerri ustiapen** baten eraginezko irregulartasunak salatu dituzte; ustiapenak 17 hektareako azalera dauka, bi lursailetan banatuta. Herritar horiek adierazitakoaren arabera, jarduera hori San Lorenzo ibaiaren arro hidrologikoan bertan dago, eta baserri batzuetara ura hornitzen duen iturburutik oso hurbil. Euren diotenez, gainera, *“los residuos orgánicos de los animales se filtran en el terreno (debido principalmente a la erosión que estos animales producen) aflorando posteriormente en manantiales o en el río, lo que puede ser causa de problemas sanitarios. Además, debido al desnivel del terreno la escorrentía es grande,*

formándose cantidad de riachuelos, además de los ya establecidos, por lo que el agua superficial arrastra los desechos en caso de lluvia. Entre estos desechos se encuentran agentes contaminantes producidos por los animales, tales como nitrógeno, fósforo y metales pesados. El olor y ruido, debido a la gran cantidad de animales, es muy molesto.”

Txosten hau amaitu dugunean, Udalaren zerbitzu teknikoek erakunde honek eskatuta egingdako ikuskapen bisitaldien ondoriozko txosten teknikoak jasotzearen zain gaude.

Aldi berean, Orozkoko auzo bateko herritarrek aurkezturiko kexa baten eraginez ere esku hartu genuen; horiek ez zeuden ados **abereen estabulazio** baten kokalekuarekin, euren etxebizitzatik hurbil baitzegoen; hain zuzen ere, kokaleku horrek urratu egiten zuen distantziarik laburren araubideari buruzko udaleko indarreko hirigintza araudia, halako instalazioetarako ezarritakoa.

Zenbait kudeaketa egin ondoren egiaztatu genuenaren arabera, egia zen jarduerak ez zuela betetzen Arau Subsidiarioetan ezarritako 400 metroko gutxieneko distantzia, egoitzako hiri lurzorurako ezarritakoa; gero, hala ere, arau horren alderdi batzuk aldatu zituzten. Izan ere, Orozko abeltzaintza-udalerrria da funtsean, eta, beraz, ezarritako distantzia gehiegizkoa da, udalerrria zeharkatzen duen autobidea banaketa hesi nahiko garrantzitsua delako, eta, horren eraginez, abereen estabulazioa zonako biztanleei inolako kalterik sortu gabe garatu ahal delako.

Horrela, aldatutako arauan haxe dago ezarrita: *“Egoitzako hiri lurzorurako distantziarik laburrena 400 m-koa izango da. Distantzia hori ez da aplikatu egoitza lurzoruko mendebaldean kokaturik dauden eta A-8 autobideak bertatik banatzen dituen eremuetan.”*

Azkenik, egiaztatu genuen instalazioak bete egiten zituela Orozkoko Arau Subsidiarioetako gainerako hirigintza-parametro guztiak. Halaber, zonako herritarrek aurkezturiko alegazioen eraginez (Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Legeko 55. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozedurari dagokion tramitean aurkeztutakoak), neurri zuzentzailetzat, jarduerari zuhaitz hesi bat instalatzeko eskabidea egin zitzaion, abereen estabulazioaren perimetroaren %80 (gutxienez) ezkutatzeko zuzena.

- Beste ingurumen eragin batzuk

Azpiarlo honetan jasotako kexen artean, hiri zonetan eta zona urbanizaezinetan daude **telefonía mugikorrekoko antenen instalazioei** buruz jaso ditugunak aipatu behar dira berriro. Aurten ere, erakunde honek tramitaturiko kexa kopurua handia izan da; kexa horiek banakakoek aurkeztu dituzte, baina baita erakundeek ere, horiek guztiak kezkatuta baitaude halako instalazioek eragindako eremu elektromagnetikoen giza osasunean sor ditzaketen ondorio kaltegarriekin.

Telefonia mugikorraren erabilera masiboaren eraginez, halako azpiegituren instalazioak nabarmen egin du gora; horren ondorioz, aldi berean, alarma nabaria sortu da gizartean.

Horri dagokionez, arriskuak egon daitezkeela ikusita, OMEk eta Europar Batasunak, 1999ko uztailaren 12ko 1999/519/EE Gomendioaren bidez (Europar Batasuneko Osasunaren Ministro Kontseiluaren Gomendia), herritarren osasunean babes maila handia lortzeko, muga batzuk ezartzea onetsi zuten; Espainiako legediak onartu egin zituen muga horiek, irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretua onetsita, dekretu horren bidez, jabari publiko erradioelektrikotik babesteko baldintzak, emisio erradioelektrikoetarako murriztapenak eta emisio erradioelektrikoetatik babesteko neurriak onetsi ziren.

Arau honek jaso egiten ditu aipaturiko Gomendioan ezarritako emisio erradioelektrikoetatik iritsitako eremu elektromagnetikoen aurkako osasun babeseko irizpideak; gainera, aintzat hartu du komenigarria dela herritarrei informazioa ematea, formatu egokian, eremu elektromagnetikoen ondorioei eta halakoei aurre egiteko hartutako neurriei buruz, herritarrek arriskuak hobeto ulertzeko; halaber, horien eraginpean egotearen aurkako osasun babesari buruzko informazioa ere eman behar zaie. Arauak, halaber, eraginpean egotearen mugak ere jasotzen ditu (irradi-komunikazioko sistemei dagokienez), gomendio honetan ezartzen direnak.

Bestalde, erakunde honek, Eusko Jaurlaritzak 2001ean aurkezturiko gomendio orokorraren bidez ("*Euskal Autonomia Erkidegoan telefonia mugikorreko estazioak instalatzeko baimena arautzeko araudi baten beharra*"), agerian jarri zuen EA Eren eremuan ez zegoela araudi berezirik Administrazioak eman beharreko baimenen araubidea arautzeko; hain zuzen ere, telefonia mugikorreko antenak instalatzeko eta egokitzeko eman beharreko baimenak arautzeko, kontuan hartuta instalazio horien ezarkuntzan bildutako hirigintza- eta ingurumen baldintzak; halaber, sor daitezkeen ondorioetatik (batez ere, giza osasunaren gaineko ondorioak) babestea bermatzeko kautelazko neurri egokiak ere hartu behar dira.

Azken urteotan, erakunde honek arlo honetan garaturiko jarduera, neurri batean, gaia aztertzeke egin diren azterlanen jarraipena egitera bideratu da, eta, orain arte, ateratako ondorioen arabera, esan daiteke ezin dela frogatu telefonia mugikorreko antenek sorturiko erradiazio elektromagnetikoen eta biztanleen artean gaixotasun larriak sortzearen arteko lotura dagoenik. Era berean, Estatuko Administrazioak halako instalazioak arautzen dituzten udal ordenantzen aurka egindako salaketei buruzko pronuntziamentu judizialak ere ikusi ditugu. Horri dagokionez, esan daiteke Agintaritzak Judizialak ezabatu egin dituela udalen eskumen eremua (hau da, hirigintza antolamenduaren eremua) gainditu duten gorabeherei buruzko xedapen guztiak.

Bestalde, eta jasotako erreklamazioei dagokienez, instalazioen hirigintza legezkotasunari buruzko kontrol zorrotza egiten saiatu gara; azterturiko kasurik gehienetan ikusi dugunez, instalaturiko telefonia mugikorreko antenak udal baimenik gabe jarri dira.

Horri dagokionez, kezagarria da, telefonia mugikorreko antenek herritarren artean alarma handia sortzen dutela jakin arren, udal-agintariak arlo horretan ezer ez egitea edo gehiegi atzeratzea, indarreko legediaren arabera aplikatu behar diren neurriak hartzeko orduan, salaturiko instalazioa klandestino dela egiaztatzen denean; gainera, ez da ahaztu behar udal-haizukortasunak halako kasuetan ez duela hirigintza antolamendua errespetatzen.

Herritarrak kezkatuta daude telefonia mugikorreko antenek sorturiko eremu elektromagnetikoei lotutako arriskua egon daitekeelako; beraz, herri-administrazioek gogor jardun behar dute halako azpiegituren instalazio klandestinoaren aurka. Gainera, ez da ahaztu behar telefonia mugikorreko antenak ez direla inoiz ere kaltegabeak, horien funtzionamenduak beste arazo batzuk sor ditzakeelako; esaterako, zaratei lotutako eragozpenak, sute arriskuak, etab. Administrazioaren jarduketa administrazio lizentziaren bidez eskatu ahal da, halako instalazioek biztanleen eskubideei kalterik egingo ez dietela bermatzeko prebentzio printzipioaren ardatza baita.

Bestalde, azpiarlo honetan aditzera eman behar dugu erakunde honek, oraindik ere, elizetan eta eraikin publikoetan instalaturiko **erlojuen kanpaien** zaraten eraginezko eragozpeni buruzko kexak jasotzen dituela.

Egindako informazio eskaerei erantzunez, behin baino gehiagotan jaso ditugun udal txostenetatik ondorioztaturikoaren arabera, erlojuen kanpainek egindako zaratak salbuetsita daude kasuan kasuko udal ordenantzetan ezarritako zarata mugetatik, zarata *tradizionalak* direlako eta biztanlerik gehienek zarata horiek onartu egiten dituztelako.

Jakina, garai batean, erloju publikoek gizarte eginkizuna zuten, industrietako txanda aldaketak iragartzen zituzten sirenen moduan; izan ere, sasoi batean, biztanle guztiek ez zuten erlojurik, gaur egun bezala. Horrenbestez, gaur egun, esan daiteke kanpai hotsak, batez ere gaueko orduetan, dagoeneko ez duela zentzurik.

Azterturiko kasuetan, egindako zarata neurketen emaitzak bat datoz; horietan guztietan gainditu egiten dira gaueko orduetarako arauz ezarritako gehieneko zarata mailak, gure erakundera etorri diren pertsona guztien etxebizitzetan. Arartekoak eskabidea egin die udal agintariei, salaturiko erlojuetako kanpaiak deskonektatzeko, gaueko 22:00etatik goizeko 8:00etara, EK-ko 53.3 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta; izan ere, bertan ezarritakoaren arabera, botere publikoek bermatu egin behar dute gizarte eta ekonomia politika arautzen duten printzipioen babesa; beraz, kasu honetan, bermatu egin behar da salaturiko instalazioetatik hurbileko pertsona guztiek osasuna babesteko eta ingurumen egokiaz gozatzeko duten eskubidea.

Atal honetan, EAEko **errepide** sare nagusietatik hurbil bizi diren pertsonen **kutsadura akustikoa** ere aipatu nahi dugu.

Lehenengo eta behin, aditzera eman behar dugu, Zaratari buruzko 37/2003 Legeak eta Zarata Ebaluatzeari eta Kudeatzeari buruzko 2002/49/EE Zuzentarauak ezarritako betebeharrak kontuan hartuta, Foru Aldundiak Zarataren Mapa estrategikoak egiten ari direla, urtean 6 milioi ibilgailu baino gehiago dituzten bide sareei buruz; halaber, ekintza plan egokiak ere egiten ari dira, eta, horietan, komunikazio bide nagusien inguruan sortzen diren zaratak murrizteko jarduketa bereziak jaso behar dira.

Hala eta guztiz ere, Ordiziako herritar batzuek eskatuta hasitako kexa espedientearen tramitazioan ikusi dugunez (N-1 errepideko trafiko trinkoaren ondorioz jasotako eragozpen

larriak salatzen dituen espediente), Gipuzkoako Foru Aldundiak, foru errepideen tarte batzuetan sortzen den zarata eragin larriaz jabetuta, eremu horietan lehentasunezko jarduketa bereziak egitea erabaki du, zaratak murriztu ahal izateko, kasuan kasuko Ekintza Plana onetsi arte itxaron barik.

Horrela, lehentasunezko jarduketa behar duten tarte horietan (N-1 errepideko tarte ere barne, Ordiziako udalerritik igarotzek lekuan), zarataren Eraginaren Xehetasun Ikerketak egiten ari dira, Mapa Estrategikoetan ezarritakoa baino eskala handiagoan; eraginaren irismena eta hori murrizteko balizko soluzioak aztertzen ari dira. Foru Erakundeak tarte horren Xehetasun Ikerketa eduki nahi du laster, eta, bertan oinarrituz, azterketa zehatzagoa egin ahal izango du eraginpeko pertsonen gaineko eraginari buruz. Aldi berean, jakitera eman digutenaren arabera, Xehetasun Ikerketa eduki arte, ezin zituzten aurreratu tarte horretan planteatu ahal diren soluzio tekniko zehatzak, aukera asko baitzegoen, aintzat hartuta zarata fokuan egiteko moduko ekintzak eta eragina murrizteko egin daitezkeenak.

Nolanahi ere, aipagarria da Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarrei egiten ari ziren ekintzei buruzko informaziorik ez ematea, kontuan hartuta herritarrok behin eta berriro jo zutela erakunde horrengana bere esku-hartzea eskatzeko. Hori dela eta, gure ustez, bidezkoa da Bide Azpiegitura Saileko diputatuari, bidalitako ondorioen idazkian, eskabide egitea prozeduraren eraginpeko pertsonen haxe adierazteko: salaturiko zarata-eraginei soluzioa emateko prozeduraren ezaugarriak. Horri dagokionez, gogoratu egin behar dira herri-administrazioei ingurumenaren arloan ezartzen zaizkien betebeharrak, uztailaren 18ko 27/2006 Legeak ezarritakoak; lege horren bidez, ingurumenaren arloko informazioa eskuratzeko, parte-hartze publikorako eta justizia lortzeko eskubideak arautu dira.

Arau honetan ezarritakoaren arabera, ezinbestekoa da jendeak parte hartzeko bide egokiak ezartzea; horrela, prozesuan interesa duten pertsonen iritzia eta oharrak egin ahal izango dituzte, eta horiek aintzat hartu beharko dira Administrazioak planteaturiko ingurumen arazoei soluzioak emateko hartu behar dituen erabakietan.

Amaitzeko, aipatzekoak dira **txosnen, etxolen** eta **oholtzen** instalazio ez-egokiaren eta gehiegizkoaren ondorioz sortutako kalte larriak; horiek, hain zuzen ere, gure udalerrietako jaietan jartzen dira, baina sor ditzaketen ondorio kaltegarriak arintzeko behar diren neurriak hartu barik.

Ekitaldi honetan aztertutako kasuetatik ondorioztatzen denez, kasuen ehuneko handian, udalek ez diete garrantzirik ematen eraginpeko herritarrek aurkezturiko salaketei, uste baitute jarduera horiek egun gutxi batzuetakoak baino ez direla eta tradizionalak direla; gainera, uste dute biztanlerik gehienek (gutxi batzuek kenduta) onartu egiten dituztela halako zaratak. Egoera horrek agerian jartzen du beharrezkoa dela aisialdia eta dibertimendua atsedena hartzeko eskubidearekin (halako ospakizunetan parte hartzen ez duten pertsonen atsedena) bateratu beharra dagoela.

I.10

HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

Sarrera

2008. urtean, 158 kexa jaso ditugu herri lanen eta zerbitzuen arloan; hain zuzen ere, erakunde honetan aurkeztutako erreklamazio guztien %12,46.

Kexa horiek administrazio hauei eragiten diete:

- Tokiko administrazioa	121
- Foru administrazioa	22
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	8

Edukiari dagokionez, jasotako kexak azpiatal hauetan banatzen dira:

- Tokiko zerbitzu publikoak	46
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	32
- Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna	26
- Garraioak	16
- Azpiegiturak	12
- Irisgarritasuna	10
- Eskubideak eta askatasunak	9
- Obrak egitea	6
- Beste alderdi batzuk	1

Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Erroldaren arloan aurkeztutako kexak aipatuz hasiko dugu atal hau. Legebiltzarrari igorritako txostenetan gai hori behin eta berriz agertu arren, berriz ere nabarmendu behar dugu; izan ere, kexa ugari jasotzen ditugu oraindik ere arlo horretan, udalek ezezkoa ematen dietelako biztanleen udal erroldan izena ematea eskatzen duten pertsona jakin batzuei, nahiz eta benetako bizilekua udalerrian bertan izan.

Erroldan izena emateak pertsonen eskubideei eragiten die. Pertsona bati biztanleen udal erroldan izena ematen uzten ez bazaio, ezingo du lortu eskubide eta betebeharrak dituen bizilaguna izatea –Tokiko Araubideko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (TAOL) biltzen ditu eskubide eta betebeharrak horiek, 18. artikuluan–. Gainera, funtsezko eskubideei ere eragiten die, hala nola: gai publikoetan baldintza berberetan parte hartzeko eskubideari, joan-etorri aserako eskubideari eta beste gizarte eskubide batzuei, esate baterako, udalerrian eskolatzeko eskubideari, osasun txartela lortzeko eskubideari eta Etxebide etxebizitzaren zerbitzu publikoan izena emateko eskubideari.

Aurten, hainbat gomendio prestatu ditu Arartekoak, eta adierazitako arrazoiengatik erroldan izena emateko zenbait eskaerei ezezkoa emana zioten udalek onartu dituzte egindako

gomendio horiek. Hala nola [2008ko maiatzaren 6ko Ebazpena](#)²¹ eta [2008ko irailaren 16ko Ebazpena](#)²². Aldiz, “irakasleen etxe” deitzen diren horietako okupatzaileek sustatutako kexa-espeditenteei dagokienez (espeditenteak: 551/2008, 596/2008 eta 597/2008), etxebizitza horiek eraitsi egin zituztela eta pertsona horiek haietan bizitzeari utzi ziotela ikusirik, gure erakundearen irizpidea zein den adieraziz amaitu genuen gure esku-hartzea, hau da, ohiko eta benetako bizilekua izatea dela izen ematea bere hartan uzteko baldintza.

Udalek erroldan izena emateko jarraitzen duten prozedura honakoa da: erroldaren kudeatzaileak, erroldatu nahi duen pertsonaren eta haren etxebizitzaren agiriak ikusita, zuzenean ematen du pertsona horren izena erroldan. Oro har, nahikoa da agiriak aurkeztea, hala nola, eskriturak, alokairu kontratua, erroldatutako pertsonaren baimena, hornikuntza kontratua edo fakturak eta bestelako agiriak, funtzionarioa ziur egon dadin emandako datuak benetakoak direla; beraz, prozedura hori oso azkarra eta lagungarria da. Zailtasuna sortu ohi da erroldatu nahi duen pertsonak eskatzen diren agiriak eskura ez dituzenean eta hori gizarte egoera ahulean dauden egoerak dira. Horien adibide dira, besteak beste, egoera irregularrean dauden atzerritarrak, bakarrik dauden atzerritar adingabeak, etxerik gabeko pertsonak, furgonetetan edo etxeetan beste senitarteko batzuekin bizi diren ijito arrazako pertsonak, etxeko logela bat alokatuta bizi diren eta jabeak erroldan izena ematen uzten ez dien pertsonak.

Kasu horietan, erroldaren kudeatzaileak ahoz esaten dio interesdunari zer agiri falta zaion, edo adierazten dio egoera horretan ezin eman dezakeela izenik erroldan. Jarduteko modu horri ikusten diogun eragozpena da ez dela jasota geratzen ez erroldatzeko eskaera eta ez eskaera egin den eguna, ez dela prozedura administratiborik hasten, ez eta ebazpen bidez amaitzen ere. Aurten hainbat iradokizun egin ditugu horren inguruan, eta proposatu dugu norbaitek eskatzen diren agiriak aurkezterik ez badu, aholka dadila eskaera idatziz aurkeztea; halaber, iradoki dugu komenigarria dela gizarte zerbitzuekin egoera horiek kontuan hartuko dituzten jarduteko protokoloak egitea ([2008ko irailaren 15eko Ebazpena](#)²³ eta [2008ko irailaren 15eko Ebazpena](#)²⁴).

Gasteizko Udalak bi iradokizun horien gainean emandako erantzuna jaso dugu, bai eta Arabako Sos Arrazismoak sustatutako beste espediente baten gainean eman duen erantzuna ere; hain zuzen ere, Sos Arrazismoa gizarte erakundeak espediente horretan dio udalak ez diela erantzuten bizileku gisa haren egoitza ematen duten atzerritarren erroldatzeko eskaerei.

²¹ Arartekoaren ebazpena, 2008ko maiatzaren 06koa. Horren bidez, Portugaleteko Udalarari gomendatzen zaio udal erroldan helbidea aldatzea onar dezala.

²² Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 16koa. Horren bidez, Errenteriako Udalarari gomendatzen zaio pertsona bati erroldan izena eman diezaiola.

²³ Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa. Horren bidez, Gasteizko Udalarari iradokitzen zaio erroldatzeko baldintzei eta eskubideari buruzko informazioa hobetu dezan; eskaera idatziz aurkeztu dezan; eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak, erroldan izena emateko edo mantentzeko zailtasunak kontuan hartzen dituen jarduera protokoloa landu dezan.

²⁴ Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa. Horren bidez, Gasteizko Udalarari iradokitzen zaio erroldatzeko baldintzei eta eskubideari buruzko informazioa hobetu dezan; eskaera idatziz aurkeztu dezan; eta erroldan izena emateko etxerik gabeko pertsonen izena ematea mantentzeko zailtasunak kontuan hartzen dituen jarduera protokoloa landu dezan.

Horrez gain, adierazi du ez duela erraztasunik ematen hirian bizi diren baina eskaeran beren bizilekua egiaztatzerik ez duten pertsonak erroldatzeko. Kasu horretan, udalak hauxe erantzun digu: *“ En cualquier caso, y en cumplimiento de la recomendación de esa institución, y dada la creciente complejidad de la casuística relacionada con el empadronamiento de personas que están en situación de vulnerabilidad social por distintas razones, se está procediendo por los Servicios Técnicos Municipales del Departamento de Tecnologías de la Información al que está afecto la Unidad de Padrón, a la elaboración de un protocolo que recoja la diferente problemática y que unifique los criterios utilizados al resolver los procedimientos en cuestión”*.

Txosten honetako II. kapituluan, Arreta Espezifikoko Taldea: Etorkinak eta Ijitoak atalean, modu espezifikoa azaltzen da zer gertatzen den erroldan talde horiekin; beraz, atal horretan arazo honen gainean egindako azterketari lotzen gataizkio. Hala eta guztiz ere, hainbat gomendio aipatuko ditugu biztanleen udal erroldaren eta ijitoen inguruan, eta horien artean Hernaniko Udalarari igorritako ebazpena nabarmendu nahi dugu, berritasun bat baitu: Udalak ez zion garaiz erantzun erroldan izena emateko eskaera bati, eta, ondorioz, erroldatzeko eskaera onartu zuen, isiltasun positiboaren bidez ([2008ko uztailaren 4ko Ebazpena](#)²⁵ eta [2008ko abenduaren 19ko Ebazpena](#)²⁶).

Azkenik, erroldari dagokionez, ofiziozko jarduera hasi dugu adingabeentzako eta gizartean larri baztertuta daudenentzako nahiz etxerik ez dutenentzako egoitza baliabideak dituzten 36 udaletan. Informazio eskaera horren bidez, erroldatzeari buruzko lege araubidea betetzen ote den aztertu nahi dugu, eta jakin, erakunde eskudunarekin jarduteko protokolorik ba ote den. Udalek bidaltzen dizkiguten erantzunak aztertu eta analizatu ondoren, egoki iritzitako proposamenak egingo ditugu.

Aurten, bestalde, **herritarrek** nahiz zinegotziek udal organoetan **parte hartzeko** duten eskubidearen inguruan izapidetutako kexak aipatu behar ditugu. Hala, iazko txostenean aipatu genuen kexa batekin amaitu dugu gure esku-hartzea; hain zuzen ere, herritar batek Donostiako Udalaren hainbat osoko bilkuratara sartzerik izan ez zuela-eta jarri zuen kexarekin. [2008ko abuztuaren 26ko Ebazpena](#)²⁷, Donostiako Udalarari gomendatu genion alda zezala Osoko Bilkuren Araudi Organikoa, zehazki bilkuren izaera publikoari buruzko atala, eta arautu zitzala osoko bilkuretara joaten diren herritarren eskubideak eta betebeharrak, bai eta arau-hausteak eta zigorrak ere, bertaratutako norbaitek ordena publikoa asaldatuko balu ere. Ez du onartu egindako gomendioa.

Gasteizko Udalaren kasuan, “Aurrekontu parte-hartzaileen aldeko plataforma” osatzen duten erakundeetako batek aurkeztu zuen kexa; idatzi horretan, galdetzen zuen udal

²⁵ Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 04koa. Horren bidez, Ortuellako Udalarari gomendatzen zaio pertsona bati erroldan izena eman diezaiola.

²⁶ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 19koa. Horren bidez, Hernaniko Udalarari gomendatzen zaio beharrezko izapideak egin aurretik, udal erroldan izena ematearen ziurtagiria egin dezala.

²⁷ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abuztuaren 26koa. Horren bidez, Donostiako Udalarari gomendatzen zaio arau ditzala biztanleek Udalbatzaren bilkura publikoetara joateko dituzten eskubideak eta betebeharrak.

taldeetakoren baten gonbita lortu behar ote zen osoko bilkuretara joateko, eta bestela interesdunak ez ote zeukan joaterik, batzar aretoa hutsik egonda ere. Osoko bilkurak publikoak direla kontuan hartuta, erakunde honek uste du jendeak ez duela baimenik eskatu behar batzar aretora joateko, eta behar bezala bermatu behar dela herritarrek zuzenean osoko bilkuretara joateko duten eskubidea. Udalak adierazi zigun eman zuela agindua osoko bilkuretara joateko gonbita beharrezkoa zela zioen eskakizun hori kentzeko, baina betiere lokalaren edukiera kontuan hartuta emango zuela sarbidea.

Udal organoen funtzionamenduari lotutako beste kexa batzuk zinegotziek, udal taldeek eta are udalean ordezkariarik lortu ez duten alderdi politikoek aurkeztu dituzte. Hain zuzen ere, udal talde batek aurkeztutako kexa bat zinegotziek osoko bilkuretan esku hartzeko dituzten eskubideei buruzkoa da; haien ustez, modu murriztailean eta oker interpretatzen ari ziren beren izenean aritzen diren zinegotzien jardunari buruzko araudia (724/2008). Alabaina, Zierbenako Udalak aurkeztutako agiria aztertu eta gero, uste dugu osoko bilkurako lehendakariak Udal Araudi Organikoaren arabera jokatu duela.

Horrez gain, alderdi politiko bateko bi pertsonak aurkeztu duten kexa nabarmendu dezakegu (891/2008). Alderdi horrek ez zuen ordezkariarik lortu udalean, Galdakaoko Udalak herritarren parte-hartzea murriztu zuelako. Pertsona horiek udalean esku hartzeko eta mozioak aurkezteko eskubidea aldarrikatzen zuten, gai publikoetan parte hartzeko eskubidearen testuinguruan, bizilagunen interes orokorrak defendatzen zituzten aldetik. Jakinarazi genien udal ordezkariarik ez duten alderdiek ez dutela estatus berezirik eta ezin pareka daitezkeela bizilagunen elkarrekin ere, hain zuzen ere protagonismo espezifiko ematen baitie 7/1985 Legeak –TAOL–.

1985eko urriaren 15eko Tokiko Autonomiaren Europako Gutuna aipatzen zuten interesdunek. Hala, gutun hori zuzenbide positibora ekarri behar da eraginkor bihurtzeko, eta, alde horretatik, botere publiko guztiek sustatu beharreko helburua da herritarrek informaziorako eta gai publikoetan parte hartzeko duten eskubideetan sakontzea; dena dela, une bakoitzean administrazioek definitzen eta zehazten dituzte gai horren inguruan esku hartzeko politikak, beren burua antolatzeko duten eskumenez baliatuz, horixe baita, hain zuzen ere, tokiko autonomiaren bermearen fruitua.

Herritarren parte-hartzeari buruz ari garela, aipatzekoa da, halaber, [2008ko urriaren 27ko Ebazpena](#)²⁸, Olaberriako Udalarari igorritakoa. Zinegotzi batek aurkeztu zuen kexa, ez baitzegoen ados lan batzordeetan –lan batzordeek ez dute zerikusirik informazio batzordeekin– parte hartzeko adostutako araudiarekin. Izan ere, araudi horren arabera, bizilagun interesdunek erroldatuta egon behar dute eta herrian bizi behar dute. Gure oharretan, adierazi genuen haxe ezartzen duela Tokiko Araubideko Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 16. artikuluan:

²⁸ Arartekoaren ebazpena, 2008ko urriaren 27koa, herriko biztanleek Olaberriako Udalaren lan batzordeetan parte hartzeari buruzkoa.

“Udalerriko errolda udalerriko auzotarrak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa da. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen frogara dira.”

Aurreko baieztapena alde batera utzi gabe, gure oharretan adierazi genuen udalek ofizios baja eman behar dietela ezarritako baldintzak bete ez eta erroldatuta ageri diren haiei, dagokion espedienteen egoera hori egiaztatu eta interesdunari audientzia eman eta gero (Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudia (LMA), uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak onartzen duena, 72. artikulua). Hau da, dagokion espedientea izapidetzen ez den bitartean eta arauzko ebazpena ematen ez den bitartean, pertsona orok du egoiliar izaera.

Olaberriako Udalak adierazi zuen ez zegoela ados ebazpen horrekin. Izan ere, haren ustez, *“el empadronamiento no constituye necesariamente prueba de residencia”*. Erakunde honek berriz ere adierazi nahi du erroldan izena emanda agertzea badela udalerriri horretan bizitzearen frogara, horren kontrako frogak onartzearen eta ofizios baja ematearen izapidez ere ekitearen kaltetan izan gabe, nahitaezko espedientea aurrez aztertuta.

Azkenik, administrazioaren funtzionamenduari buruzko atal honetan, Donostiako Udalarekin eta udalerriarren lurralde antolaketaekin zerikusia duten bi kexen berri eman nahi dugu. Kexetako bat herritar batek aurkeztu zuen (943/2008), udal barrutirik sortzen ez dela eta. Izan ere, haren ustez, egoera horrek ez die uzten herritarrei deskontzentratzeko eta parte hartzeko tresnarik izaten, eta, gainera, gisa horretako antolaketa izatea, indarrean dagoen lege araudiaren arabera (7/1985 Legea TAOL, 128. artikulua), nahitaezkoa da 175.000 biztanletik gorako probintzia hiriburuentzat. Horri dagokionez, interesdunari udalak emandako informazioa igorri genion, alegia, lanean ari direla udalerriarren ezaugarri erantzungo dien ereduak bilatzen. Gure esku-hartzea amaitutzat eman genuen, eta zain gaude Legeak ezarritako duen lurralde oinarriaren antolaketa proposatzeko eta onartzeko erantzukizun politikoa dutenek egin beharreko ahaleginak egin ditzaten hiriarentzat komenigarriena den hori hartzeko, gaur egun indarrean dagoen lege esparruaren barruan.

Beste alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzendutako beste kexa bat izapidetzen ari gara (1369/2008). Kexa hori Igeldo Donostiako udalerritik bereizi eta udalerriri gisa eratzeari buruzkoa da. Inguru horretan bizi diren hainbat bizilagunek egin zuten eskaera hori, 1995. urtean. Erreklamazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 1998ko otsailaren 5ean emandako epaia hartzen du aurrekari gisa. Izan ere, epai horrek aintzat hartu zuen elkarte kexagileak jarritako errekurtsioa, Donostiako Udalak bereizte espedientea abiarazteko eskaera ukatuz osoko bilkuran hartu zuen akordioaren kontrakoa; hain zuzen ere, espedientea Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera izapidetzeko eskubidea aitortu zion elkarte kexagileari. Udalak kasazio errekurtsioa jarri zuen epai horren kontra.

Diputatuen Kontseiluak, 1999ko azaroaren 23an egindako bilkuran, bereizte espedientearen izapidetzeak etetea erabaki zuen, Donostiako Udalak epai horren kontra jarri zuen kasazio errekurtsioa ebatzi arte. Errekurtsio hori, azkenean, Auzitegi Gorenak ezetsi egin zuen, 2003ko urriaren 29an, eta oraindik ez dute kendu adostutako etetea. Gipuzkoako

Foru Aldundiak adierazi digu kenduko duela adostutako etete hori, baina oraindik ez dugu amaitutzat eman gure esku-hartzea, jarraitu beharreko izapidetzeek benetan zer egutegi izango duten jakin nahi baitugu.

Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna

Kontratazio araubidearekin zerikusia duten gaiekin hasiko gara urte osoan epigrafe honen barruan izapidetu ditugun auziak aztertzen. Administrazioak abantaila handiak ditu, besteak beste, formalizatzen dituen administrazio kontratuak aldatzeko, baina, administrazio egintzak lege eragin osoa izan dezan, ezinbestean bete behar dira baldintza batzuk. Administrazioak, nagusitasun egoeran egoteagatik, ezin du alde batera utzi jarraitu beharreko kontratuen eta prozeduren eta izapidetzeen izaera aldebikoa, bereziki aipatuz nahitaezko audientzia, hau da, kontratista esleipendunaren egoera juridikoa kontuan hartu behar du, kontratua betetzean edozer gauza gertatzen bada ere.

Gogoeta horren haritik, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari gomendatu genion ([2008ko uztailaren 17ko Ebazpena](#)²⁹) kexa jarri zuen pertsonaren erreklamazioa bideratu zezala eta ordain zezala administrazioak alde bakarretik ezarritako prezioaren eta sail horrek berak 2005. urtean mota horretako prestazioetarako ezarritako prezioaren gaineko portzentajearen artean zegoen aldea. Onartu du egindako gomendioa.

Ondare publikoei dagokienez, interesgarria da Gordexolako Udalari egindako gomendioa aipatzea ([2008ko urtarrilaren 23ko Ebazpena](#)³⁰). Administrazioak beren ondasunak kudeatu eta ustiatzeko lehia publikoari lotuta daude, ezarritako baldintzak betetzen dituzten interesdun guztiek abian jartzen diren lizitazio prozesu guztietan tratu berarekin eta diskriminaziorik gabe parte hartu ahal dezaten. Aztertutako kasuan, ez zen hala gertatu. Izan ere, kexa aurkeztu zuen abeltzainak hainbat urte zeramatzan bazkalekuak ustiatzeko aukera izan nahian, baina ez zioten aukera hori ematen. Ondorioz, arartekoaren gomendioa zen gaur egungo emakida berrikustea eta lehia publikoko espedientea izapidetzea, jabari publikoko ondasun hori modu pribatuan erabiltzen uzteko. Ez zuen onartu egindako gomendioa.

Udal ondareen ustiapenari dagokionez, bazkalekuen gaineko beste kexa espediente bat aipatu behar dugu (1261/2006). Kexa hori amaitutzat eman dugu aurten, nahiz eta ez den konpondu atzemandako irregulartasuna. Artziniegako Udalak aitortu zuen titular batek hainbat bazkaleku erabiltzen zituela nahiz eta ez zituen betetzen mendiei buruzko araudian ezarritako baldintzak, eta, gainera, dirudienez, lursaila hirugarren bati laga zitzaiola, azpierreant. Alabaina, kexa aurkeztu zuen pertsonari ez zioten ematen eskatutako ustia-

²⁹ Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 17koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari gomendatzen zaio zenbateko jakin bat ordain dezala obra baten segurtasun eta osasun gaietako laguntza teknikoko eta koordinazioko zerbitzuaren kontratu aldatuari dagokion ordainsari gisa.

³⁰ Arartekoaren ebazpena, 2008ko urtarrilaren 23koa. Horren bidez, Gordexolako Udalari gomendatu zaio ondorioz gabe utz dezala herri onurako mendi bateko bazkalekuak abeltzaintzarako erabiltzeko eman duen baimena.

pena, nahiz eta betetzen zituen ezarritako baldintza guztiak. Hori arrazoitzeko eman zuten argudioa zen ez zeukatela lursailik uzteko eta osorik aztertu nahi zutela herri ustiapenen arazoa, errenta gehiagorako baimena eman aurretik. Asmo hori, ordea, ez zuten artean abian jarri, denbora igaroa bazen ere.

Era berean, herritar baten kexa izapidetu dugu. Herritar horrek, partikular batek kale txiki publiko bat okupatua zuela salatu zuen, horrela jarduteko titulurik izan gabe ([2008ko otsailaren 28ko Ebazpena](#)³¹). Administrazio Batzarrak adierazi zuen trukatzera 2002. urtetik egina zegoela baina, hainbatetan eskatu bazitzaion ere, ez zuela behar besteko agiririk aurkeztu bere esanak egiaztatzeko. Kexa izapidetzen hasi eta geroago, lurra trukatzera adostu zuten, baina ez zituzten jaso eragiketa hori egitea beharrezkoa zergatik zen azaltzen zuten arrazoia, eta ez zuten izapidetu Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren arabera –1372/1986 ED, ekainaren 13koa– izapidetu behar zen espedientea.

Ondare erantzukizunagatiko erreklamazioen arloan, izapidetu ditugun kexa-espedienteetan oro har ez dago ezaugarri berririk aurreko urteetakoekin alderatuta. Jakina denez, horien funtsa laburtuz, herri-administrazioei eskatutako kalte-ordainak dira, eta herri-administrazioak, ezinbestean, oso homogeneoak izaten dira.

Nolanahi ere, aurreko ohar horiek ez dute kentzen herritarrentzat mota horretako eskaerak duten ezin ukatuzko garrantzia, zerbitzu publikoen prestazioan kalitate estandar handiagoak eska daitezkeela konturatzen diren heinean. Horregatik, nahiz eta jakin neurri batean errepikakor izateko arriskua dugula, ezin saihestuzkoa da aipatzea joan den urtean zer nabarmendu den gehien jorratzen dugun arloaren barruan.

Nolabaiteko garrantzia izaten jarraitzen dute erreklamazioa egin eta arazoizkoa baino denbora gehiago igaro ondoren –araudian prozedura horietarako ezarritakoa baino gehiago beti– interesdunak jarritako kexen inguruan oraindik erantzunik ez duelako jaso. Erreklamazioak abiapuntu dituen kexa horien artean bi eratakoak bereizi behar dira: batzuetan, ez da inon agertzen erreklamazioaren gainean izapidetzerik abiarazi denik dagokion administrazio espedientearen bidez; eta beste batzuetan, berriz, egin da erreklamazioaren gaineko izapidetzeren bat, baina ez da amaitu oraindik.

Hala jarduerarik ezaren nola berandutzearen kasuan, administrazioek espedienteak ahalik eta azkarren izapidetu ditzaten eta geldirik diruditen espedienteek berriz hel diezaien lortzea da gure eginkizuna, egoera guztietan administrazioaren egintzak ebazpenen bidez amaitu daitezkeen eta ebazpen horiekin, zuzenbidearen arabera, prozedura bukatutzat eman dadin. Alegia, dagokionean eztabaidaren funtsa aztertzen badugu ere, lehenik eta behin, atzemandako akats formalak konpon daitezkeen esku hartzen dugu.

³¹ Arartekoaren ebazpena, 2008ko otsailaren 28koa. Horren bidez, amaitutzat ematen da partikular batek Durumako plaza nagusian titulartasun publikoko kalezulo bat okupatu izatearen ondorioz hasitako espedientea izapidetzearen inguruko bere jarduera.

Azaldutako jokabideak gaitzestekoak badira ere, are gaitzesgarriagoa da esku hartuta ere administrazioak herritarren erreklamazioei berariaz ez erantzutea. Erraz igartzen da administrazioaren isiltasuna erabiltzeko jarrera hain laidoztatuari lotutako kasuak direla horiek. Hain zuzen ere, administrazioek nahita ez dute betetzen izapidetzen ari diren prozedurak berariaz amaitzeko erabakiak hartzera behartzen dituen lege agindua.

Horren erakusgarri da [2008ko maiatzaren 5eko Ebazpenari](#)³² bide eman dion kexa –aurrekariak ez dira nabarmentzekoak: herriko kale batean erori eta min hartu zuen kexagileak uste du udal zerbitzu publikoen funtzionamenduari egotzi ahal zitzaioela erantzukizuna–. Ebazpen horren bidez, Guardiako Udalari gomendatu genion amai zezala ondare erantzukizuneko espedientearen izapidetzea, eta eman eta jakinaraz zezala horren gaineko berariazko ebazpena. Gomendio hori ez da jarraitu.

Nabarmentzea merezi du beste kexa multzo honek ere: ondare erantzukizunagatiko erreklamazioak izan daitezkeela sumatuta, herritar batzuek ez dituzte halako erreklamazioak dagokion administrazioan aurkeztzen, eta guri eskatzen digute hala asmo horien oinarriak aztertzeko nola erreklamazioa bera jartzeko eman behar dituzten pausoez informatzeko. Kasu hori hizpide izan dugu, hain zuzen ere, udalei zuzentzen zaizkielako erreklamazio gehienak eta, herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak direla kontuan hartuta, badirudi, beren zerbitzuen bitartez modu eraginkorragoan bete behar dutela eta bete dezaketela alde aurretik informatzeko eginkizun hori.

Ezin falta daitezke, ohikoak baitira, erreklamazioak ezeztatzen dituzten ebazpenekin ados egon ez eta horren ondorioz jarritako kexak. Espediente multzo horien kasuan, gure eginkizuna da erreklamazioak jatorria non duen eta ikuspegi material batetik zalantzan jarritako administrazioaren erabaki hori zertan oinarritu den ebaluatzea. Horretarako, batzuetan, nahikoa da kexagileak aurkeztutako agiriak aztertzea, eta, beste batzuetan, nahitaez jo behar dugu administrazioetara, auzi horri buruzko informazioa biltzera. Hemen adierazten ari garen horren adibide ditugu [2008ko urtarrilaren 17ko Ebazpenak](#)³³ eta [2008ko abuztuaren 21ekoak](#)³⁴. Gomendio horiek dagozkien administrazioek ez dituzte onartu.

Kasu batzuetan, interesdunek auzitegietara jotzea erabakitzen dute, eta halakoetan ez dugu jarraitzen jadanik hasitako esku-hartzeekin, baldin eta esku-hartzeren bat hasi badugu. Halaber, administrazio bati baino gehiagori eragiten dieten kexak jasotzen jarraitu dugu. Kexa horiek iruzkin zabalagoa behar dute, administratuek hara eta hona ibili behar izatearen ondorioz sortzen diren kalteak kontuan hartuta.

³² Arartekoaren ebazpena, 2008ko maiatzaren 5ekoa. Horren bidez, Guardiako Udalari gomendatzen zaio ondare erantzukizuneko espediente bat izapidetzen amai dezala, berariazko ebazpena eman eta jakinarazita.

³³ Arartekoaren ebazpena, 2008ko urtarrilaren 17koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio bertako kale batean apurtuta zegoen baldosa zapaldu eta erortzearen ondorioz jasandako kalteengatiko ondare erantzukizuneko erreklamazioa izapidetu dezala.

³⁴ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abuztuaren 21ekoa. Horren bidez, Errenterriko Udalari gomendatzen zaio bertako kale batean altxatutako estolda estalkiarekin estropezu egin eta erortzearen ondorioz aurkeztu zen ondare erantzukizuneko erreklamazioa izapidetu dezala.

Horri dagokionez, ondo konpondu zen kasu bat azalduko dugu labur-labur. Gertaerak pertsona bat espaloian erori eta min hartu zuela du hizpide. Kaltetuaren iritziz, espaloia gaizki zegoelako gertatu zen istripu hori, eta, ondorioz, uste zuen kalte-ordain ekonomikoa hartzeko eskubidea zuela.

Aurkeztutako agirietatik ondorioztatzen zen lurralde arrazoiagatik igorri zitziola eskaera udalari eta zegokion foru aldundiari. Alabaina, bi erakundeetako bat ere ez zen mintzatu gaiaren muinaz, arlo horretan eskuduna bestea zela uste baitzuten biek ere.

Desadostasuna, labor adierazita, herritar hori erori zen lekuagatik sortu zen. Udalaren ustez, leku horretatik foru errepidea pasatzen denez, aldundiari zegokion arazoa. Aldundiak, berriz, argudiatu zuen istripua espaloian gertatu zenez udalari zegokiola arazoa, tokiko araubideari buruzko araudiak arlo horretan ematen dizkion eskumenak kontuan hartuta.

Labor adierazitako aurrekari horiekin, kexa izapidetzerako onartzea adostu genuen. Horrela, ondoren, bi erakundeen lankidetzara lortu genuen eta kasu horri buruzko informazioa eskatu genuen, esleitutako ditugun gure eginkizunak bete ahal izateko.

Udalak, gure eskaera betetzera, ebazpen baten kopia bidali zigun eta, horren aurreko pronuntziamentua berrikusita, erreklamazioa onartzea erabaki zuen. Ebazpen horren edukia bidea ematen du ondorioztatzeko kexaren oinarri ziren arrazoiak konponduz gelditu zirela eta, gainera, kexagilearen interesen aldekoa ere bazela.

Tokiko zerbitzu publikoak

Atal honi dagokionez, aurreko jasotako kexak, oro har, oinarrizko zerbitzu publikoen prestazioa hobetzeko eskaerari buruzkoak izan dira, hala nola ur hornikuntzaren zerbitzua, estolderia zerbitzua eta bide publikoak hobetzeko eskaerari buruzkoak. Bereziki aipatzekoa da zerbitzu horiek baserrialdeetan nola ematen diren. Izan ere, hirigunetik eta gune urbanizatuetatik kanpo bizi diren pertsonak erreklamazioak jartzen jarraitzen dute, uste baitute ez zaiela batere kasurik egiten edo oso kasu gutxi egiten zaiela. **Landa bideak** dira arazoetako bat. Izan ere, gaizki zainduta daude eta inbertsioak falta dira bide horiek mantentzeko. Baina, horretaz gain, behin eta berriz kexatzen zaizkigu baserrialdeetako hondakin urak arazteko sistemen inguruan; nagusiki, **hobi septikoak** gaizki zainduta daudelako kexatzen dira eta administrazio eskudunen aldetik kontrol falta dagoelako eragindako bizilagunei eragozpenik ez sortzeko neurriak har ditzaten exijitzeko orduan.

Hilerrien zerbitzu publikoaren inguruan ere esku hartu dugu. Alde horretatik, hainbat elkarrek aurkeztutako kexa bat izapidetzen ari gara, Gasteizko Udalak ez baitie erantzun hilerri musulman bat sortzeko aurkeztu duten eskaerari. Informazio hau ixten ari ginenean ez geneukan oraindik guk eskatutako informazioaren erantzunik. Auzi horren inguruan, gomendio orokor bat bidali diegu arlo horretan eskumena duten administrazio guztiei, modua egin dezaten hilerrietako zerbitzu publikoak erlijio sinesmen guztietara egokitzeko; bereziki, musulmanen komunitateari egin diegu erreferentzia. Analisi hori txosten honetako III. kapituluari dago.

Azpiegiturak

Atal honetan, lehenik eta behin nabarmendu behar ditugu Estatuko Administrazio Orokorren eskumenekoak diren azpiegiturak eraikitzea hizpide duten kexak. Izan ere, horiek interes orokorrekotzat jo dira. Hori horrela, erakunde honek ez dauka eskumenik halako kexak izapidetzeko. Arartekoaren zeregina, kasu horietan, proiektuaren izapidetzeari eta kasuan-kasuan aplikatzekoa den araudi orokorrari buruz eragindako herritarrek eskatzen duten informazioa ematea izan ohi da.

Hala, informatu ahal izan dugu Lamiakon, Leioako udalerrian, araztegi bat eraikitzeko proiektua izapidetzen ari direla. Instalazio hori hirurehun mila biztanlek baino gehiagok sortzen dituzten hondakin urak arazteko izango da. Kexagileen kezka da araztegi hori Lamiako eta Txopoetako etxebizitzetatik berrehun bat metrotara instalatuko dutela, eta haien ustez horrek ez duela betetzen mota horretako eraikinek bizitegi guneekin gorde beharreko gutxieneko tartea. Horrez gain, ingurumenari ere eragingo diola argudiatu dute (61/2008).

Hori dela eta, arlo horretan aplikatzekoa den araudiaz informatu ditugu interesdunak, hala hirigintzako araudiaz nola ingurumenekoaz. Zehazki, Ingurumen Ministerioan alegazioak aurkez zituzten, ministerio horrek baitu proiektua izapidetzeko eskumena, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Dekretuan ezarri diren xedapenen berri eman genien. Dekretu horren bidez onartu zen proiektuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko testu battegina. Bestalde, adierazi genien gure iritziz airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legea (xedapen indargabetzaile bakarra) onartu eta gero Euskal Autonomia Erkidegoan ez zirela aplikatzekoak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Arautegiak (2414/ 1961 Dekretua, azaroaren 30ekoa) ezartzen dituen gutxieneko distantziak.

Beste alde batetik, Lasarte-Hendaia tren linea bitan banatzeko proiektuarekin lotutako hainbat kexa jaso ditugu. Jasotako kexak hainbat kontu eta kezkarri buruzkoak badira ere, denetan aipatzen da zein zaila den benetan eta zuzenean hitz egitea erabakiak hartzeko arduraduen administrazioarekin. Horri dagokionez, alde batera utzita administrazio arduradunak dagokion lege forma betez izapidetu ote dituen proiektuak, beharrezkotzat jo beharko litzateke eragindako herritarrei informazio pertsonalizatua ematea, esate baterako, obra egin asmo den tokian bertan langile kualifikatuak izango dituzten informazio guneak jarrita. Mota horretako azpiegiturak egitea oso onuragarria da biztanleen zati handi batentzat, baina, aldi berean, ezin ukatuzkoa da beste pertsona batzuek azpiegitura horien eraginak, eragozpenak eta kalteak pairatuko dituztela, bai lanak egin baino lehen, egiten ari diren bitartean, eta baita geroago ere, azpiegitura horiek martxan jartzean.

Azken finean, mota horretako azpiegiturak martxan jartzeko prozesuan, arduradun kualifikatu bat jarri beharko litzateke beti herritarrekin hitz egiteko, hala zuzenean eragiten dieten pertsonekin hitz egiteko nola eskuarki bizilagunen aldarrikapenen ordezkari egiten diren taldeetako arduradunekin hitz egiteko. Solasaldi horrek egiten diren galdera guztiei erantzuteko balio beharko luke, legezko izapidetze hutsak betetzeko baino areago.

Gainerakoan, proiektuek zuzenean eragiten dieten herritarren kezka handienetako bat da trenbidea bitan banatzean trena gertuago egongo dela etxebizitzetatik eta horrek eragozpenak ekarriko dituela etorkizunean (435/2008, 769/2008). Horri dagokionez, kontuan hartu behar da Ingurumen Sailburuordetzak bete beharreko baldintza batzuk ezarri dituela Ingurumen Eraginaren Adierazpenean (IEA), eta, zehazki, zenbait neurri ezarri dituela tren linea berria martxan dagoenean zaraten eta bibrazioen eraginak gutxitzeko. Ingurumena Zaintzeko Programaren arabera, neurri egokiak hartu beharko dira kutsadura akustikorik izan ez dadin, eskura dauden teknikarik onenak aplikatuta. Halakotzat joko dira, hain zuzen ere, baldintza tekniko eta ekonomiko bideragarrietan eta proiektuaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta gutxien kutsatzen duten teknologiak. Zehazki, linea martxan jartzen denean, funtzionatzen hasi eta lehenengo bi urteetan hain zuzen ere, gutxienez urtean bitan neurtu beharko da zarata, zirkulazio handia dagoen egunetan, bai egunez eta bai gauez, trenak eragiten dien etxebizitzien fatxadetan.

Atal honetan aipa ditzakegu, halaber, ekainaren 1eko uholde larrien ondorioz izapidetutako bi espedienteak. Uholdeak Bizkaiko hainbat udalerriri erasan zien, eta espedienteak ofizioz izapidetu genituen, hedabideetan agertu zen informazioa ikusita. Izan ere, hedabideek zailtzean jarri zuten gainezka egin zuten ibaien ibilguetako eta ertzetako egoera eta ez zen behar besteko neurririk hartu, Uholdeak Saihesteko Planetan jasotzen diren aurreikuspenen arabera. Kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ur Agentziak informazioa bidali zigula eta azaldu zigula uholdeak zergatik gertatu ziren eta zer esku-hartze zeuden aurreikusita Getxoko Gobela ibaiaren egokitzapen hidraulikorako plana gauzatu bitarteko (nahiko aurreratuta zegoen planaren izapidetzea), amaitutzat eman genuen espedienteak.

Azpiegiturak egiteak, kasu askotan, berekin dakar elkarlanean aritzeko eta adostasuna lortzeko beharra, baldin eta proiektuak eragiten dien arloak hainbat administrazioen eskumenekoak badira. Enpresaburuen eta jabeen elkarte batek kexa bat aurkeztu zuen, sarbideen egoera deitoragarriaren ondorioz beren jarduerak egiten zituzten industrialdea larri hondatzen ari zela eta. Izan ere, bi udal mugakideak ez ziren ados jartzen, eta ez zieten arazoa konpontzeko biderik ematen. Bildutako informazioa ikusita, [2008ko urriaren 27 Ebazpena](#)³⁵ igorri genien auzi horrek eragiten zien administrazioei, elkarren artean ados jar zitezten nahi bagenuen ere, ados jartzen ez baziren legez ezarritako tresnak erabil zitzaizkien, eragindako herritarren eskaerei erantzuteko.

Irigarritasuna

Atal honetan, egiaztatu ahal izan dugu oraindik ere ez dela betetzen irigarritasunari buruzko araudia herri-administrazioek egiten dituzten obretan, hala zerbitzu publikoetarako eraikinetan nola espazio publikoetan. Hamar urte baino gehiago igaro dira irigarritasuna sustatzeari

³⁵ Arartekoaren ebazpena, 2008ko urriaren 27koa, Donostiako Papin Eremuko industrialdearen egoera txarrari eta Pasaiaiko saihebidetarako lotura berrian errepidetik irteteko bidea eskatzeari buruzkoa.

buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legea egin zenetik, eta zortzi urte hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua indarrean sartu zenetik, eta ezin daiteke onartu administrazioak guztiz arduratsuak ez izatea egiten dituzten proiektu publiko berrietan araudi hori betetzerakoan.

Ez dugu ahaztu behar, Konstituzioko 9.2. artikulua arabera, botere publikoei dagokiela inguruabar zehatzak sustatzea gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen, bai eta oztopoak kentzea ere, baldin eta oztopo horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute. Alde horretatik, herri-administrazioek ez lukete Konstituzioaren agindua ahaztu behar araudia betez esku hartzen dutenean. Horrela, edozein proiektu egitean, hiriguneetako eta eraikin publikoetako irisgarritasuna pertsona guztiei bermatzeko ikuspegi orokor horren arabera aztertu beharko litzateke, eta horren arabera eman irtenbidea.

Garraioak

Lantokira, aisiarako guneeetara, ospitaleetara eta beste hainbat tokitara garraio publikoan joateko herritarren eskaerak gero eta gehiago kezkatzen du administrazioa. Alabaina, herritarrek beren autoa erabiltzeari utzi eta, beraz, garraio publikoa erabil dezaten, beharrezkoa da garraio eskaintzak benetan erantzutea erabiltzaileek aldarrikatzen dituzten beharrei, bai ibilbideari dagokionez, bai maiztasunari dagokionez, eta bai bestelako alderdiei dagokionez ere. Gainera, beharrezkoa da garraio bideen artean koordinazioa izatea ere, bidaiariak bidaiatzen jarraitzeko modua izan dezan, konbinazioetan denbora gehiegi itxaron beharrik izan gabe.

Bizkaian arazo horri irtenbidea aurkitu nahian ari dira. Hain zuzen ere, lurralde horretan hainbat garraio bideek jarduten dute, eta batzuetan elkar estaltzen dute, hala nola Renfek, FEVEk, Bilboko metroak, Euskotranek, Euskotrenek eta Bizkaibusek. Egoera horrek bereziki Bilboaldeari eragiten dio, eta horri erantsi behar zaio metroa etengabe hedatzearen ondorioz errepide bidezko garraio zerbitzuaren eskaerari eragiten ari zaiola. Hori dela eta, esku-hartzeak koordinatu behar dira eta zerbitzuen baliabideak optimizatu. Horrek, ordea, aldi baterako eragozpenak ekar diezazkieke zenbait erabiltzaileri.

Horixe izan da, hain zuzen ere, Ezkerraldeko Bizkaibus zerbitzuaren erabiltzaile batek egindako kearen edukia (4/2008). Eragindakoak adierazi zuen ez zegoela ados zerbitzu horrekin. Izan ere, metroa Portugaletera iristearen ondorioz, Bilbo eta Portugalete lotzen zituen linea kendu zuten, eta ibilbide hori, aldi baterako, A3151 linean sartu zuten, Bilbo Santurtzirekin autobidez lotzen zuen linean, alegia. Autobus hori Portugaleten sartzen zen, eta, beraz, bidaiak gehiago irauten zuen Santurtzira zihoazen pertsonentzat.

Ikusten ari gara herritarren kezka handitzen ari dela, eta erabiltzaileek jadanik ez dutela bakarrik zerbitzua eskatzen, baizik eta zerbitzuak kalitate handiagoa izatea eskatzen dutela. Hala, erosotasunak eta, bereziki, segurtasunak garrantzi handia hartzen dute zerbitzuaren balorazioan.

Gai hori jada jaso genuen 2007. urteko txostenean, Bizkaibus garraio zerbitzuarekin lotuta; hain zuzen ere, erabiltzaile batzuek zalantzan jarri zuten bidaiariak zutik joan ote daitezkeen herriarteko garraio zerbitzua ematen duten autobusen barruan, ibilgailu barruan zaurgarriagoak baitira zutik doazenak, gidatzean edozein istripu edo ustekabe gertatuta ere.

Ibilgailuen Araudi Orokorrek zehazten duenez, herriarteko garraiorako eginda eta hornituta daude ibilbide laburretarako ibilgailuak. Ibilgailu horiek zutikako bidaiarientzat bereziki prestatutako lekurik ez badute ere, garraia ditzakete mota horretako bidaiariak, ibilbide laburretan, zirkulazio korridoreetan. Bizkaibus zerbitzuko ibilgailuek herrietako eta ibilbide laburretako autobusen ezaugarriak betetzen dituzte.

Bestalde, bidaiariak autobus barruan zutik joan badaitezke, ibilgailu horiei abiadura muga murriztaileagoa ezartzen die Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorrek. Zehazki, hauxe dio Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorra onartzen duen 1428/2003 Errege Dekretuak 48.b artikuluan, herrietatik kanpo dauden bideetarako gehienezko abiadurak ezartzen dituenen: *"en el supuesto de que en un autobús viajen pasajeros de pie porque así esté autorizado, la velocidad máxima, cualquiera que sea el tipo de vía fuera de poblado, será de 80 km/h"*.

Nahiz eta bagenekien arlo horretan mugak izango genituela, Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanetan jarri ginen, eta eskatu genion azter zezala jende gehien ibiltzen den orduetan eragindako lineetan errefortzu unitateak jartzeko aukera, edo jar zitzala autobus horiek maizago, ikastetxeetako eta lantokietako sarrera-irteera orduetan.

Aldundiak bere erantzunean azpimarratu zuen lortu zela linea horietan autobusak 15 minututik behin pasatzea. Halaber, adierazi zuen errefortzuak ezarri zirela, puntako orduetan ahalik eta bidaiari gehienak hartzeko. Azkenik, adierazi zuen errefortzuko zerbitzu iraunkorra jartzeko muga zutikako bidaiari ahalmenaren %50ean ezarria zegoela eta errefortzuko ibilgailu bat atxikitzen ziotela lineari, baldin eta muga hori gainditzen zela ikusten bazuten.

Nahiz eta legearen ikuspegi zorrotzetik ezin jar genezakeen zalantzan bidaiarien parte bat zutik joan zitekeela autobuseko zirkulazio korridorean, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Hirigintza Sailari azpimarratu genion ahal zen neurrian egin zezala modua ahal zela bidaiariak zirkulazio korridorean zutik joan ez zitezen eta inola ere ez zitezen hala joan ibilbide luzeetan.

Zerbitzua hobetzeko ildo horren barruan sar ditzakegu Euskotrenek eta Euskal Trenbide Sareak abian jarri dituzten ekimenak. Izan ere, geltokietako komunak irisgarritasun unibertsalaren arabera egokitu dituzte. Horrez gain, komunak jarri dituzte distantzia ertain eta luzeko trenetako bagoietan. Hala, orain arte, komun egokituen 10 modulu kontratatu dituzte mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, eta 200 serieko 10 unitatetan instalatuko dituzte, Bilbo Donostiarekin lotzen duen linean.

Neurri hori oso garrantzitsua da. Izan ere, 2005. urtean Eusko Jaurlaritzari igorri genion txostenean aipatu genuen herritarren eskaera bati erantzuten dio.

Gogorazi behar da Euskotrenek Bilbo-Hendaia eskualdeko zerbitzua martxan jarri zue-
netik komun publikoak instalatu zituela tren horietako bagoietan, eta Bilbo Donostiarekin

lotzen duten ohiko zerbitzuek, berriz, ez zutela halako ekipamendurik, nahiz eta azken bi daia horrek dezente gehiago irauten duen.

Euskotrenek adierazi zuen legez ez dagoela behartuta bagoietan komunak jartzera. Izan ere, ekipamendu hori ibilbide luzeko lineetan bakarrik exijitu daiteke eta enpresa publiko horrek ez zuen halako zerbitzurik ematen. Nolanahi ere, konpromisoa hartu zuen etorkizunean erosten dituen unitateek komun moduluak izateko.

Familia ugarietako kideei dagozkien onuren aplikazioak kexatzeko motibo dira oraindik ere. Izan ere, garraibide batzuek horren kontra egiten dute oraindik ere, eta uzkur ageri dira deskontu horiek modu normalizatuan ezartzeko. Horrek inoiz edo behin eragin du familia ugarietako kideek aurre egin behar izatea eta tentsio egoerak jasan behar izatea, legez aitortua duten eskubide bat bete dadin (1567/2008).

Kontuan hartu behar da, gainera, 2008ko otsailaren 19ko Auzitegi Gorenaren Epaiak (AGE) aurrerapen handia ekarri duela onura horien aplikazioan. Izan ere, epai horrek dio zuzenbide osoz baliogabeak direla Familia Ugariak Babesteko Legea garatzen duen 1621/2005 Errege Dekretuko 10.2. eta 11.3. artikulua, eta, beraz, onurek: *“tienen naturaleza de mínimos y son compatibles o acumulables con cualesquiera otros, que por cualquier causa, disfruten los miembros de las familias numerosas”*.

Arazoa garraio enpresek ohiko erabiltzaileei eskaintzen dizkieten bonuekin hasi zen, horien tarifak dezente txikiagoak baitira noizean behingo tituluak baino. Kasu horietan, familia ugarietako kideek aukera egin behar zuten, edo bonua erosi, edo noizean behingo titulua erosi, Familia Ugariak Babesteko Legeak jasotzen dituen deskontuekin.

Paradoxa hau gertatzen da, ordea: legeak ezarria zuela bateragarritasuna eta, beraz, bigarren xedapen gehigarriko onuren izaera metagarria. Nolanahi ere, bigarren xedapen iragankorrean, bere hartan utzi zituen 1971ko legedian jasotako onurak. Segur aski, hartutako inertziaren bidez ezarri zuen 40/2003 Legea garatzeko araudiak ezin meta daitezkeela deskontuak eta tarifen gainean ezar daitezkeen beste deskontu batzuk.

Laburbilduz, familia ugarietako kideei garraioaren arloan egiten zaizkien deskontuak metagarriak dira, eta, ondorioz, bonuek ere 40/2003 Legeak aipatzen dituen tarifa murrizketak izan behar dituzte prezioan.

EAEn jarduten duten garraibide handiak jada egokitzapen plana garatzen ari dira, eskaintzen dituzten garraio titulu guztiak Familia Ugariak Babesteko Legeak ezartzen dituen onura guztiekin eskuratzeko modua izan dadin 2009. urtetik aurrera.

Azkenik, ezin dugu ahaztu arazo horiek guztiek modu berezian eragiten dietela ezgaitasunen bat duten pertsoneri. Izan ere, gaur egun oraindik, gainerako herritarren aldean askoz ere garraio eskaintza mugatuagoa dute. Erakunde honen lanean talde horrek duen garrantziak gomendatu digu arazo hori ezgaitasunen EAeko esparruan jorratzea.

I.11

ANIMALIAK BABESTEIA

11. ANIMALIAK BABESTEA

Animalien babeserako arlo honen bidez Arartekoak atal berezia sortu du herritarrek animaliak babesteko araudiarekin lotuta egiten dituzten erreklamazio eta kexak aztertzeko.

Eragindako administrazioen arabera, kexak honela banatzen dira:

- Tokiko administrazioa	10
- Foru administrazioa	3

Azpiarloei dagokienez, berriz, honela:

- Animaliak edukitzea	6
- Beste batzuk	3
- Gune zoologikoak	2
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	1

Kexagileek helarazitako arazoek honakoak dituzte hizpide: animalien egoera, animaliek bizi duten egoera etxe pribatuetan, gune publikoetan eta, bereziki, animaliak hartzeko edo egoteko zentroetan, gure zoologikoak deritzenak.

Erreklamazioen beste alderdi batek agerian jartzen ditu hainbat esparrutan gizaki eta animalien arteko bizikidetzatik sortzen diren arazoak.

Nolanahi ere, gure esku-hartzearen helburua animaliak babesteko legearen zein animaliak edukitzea arautzen duten udal ordenantzen bidez animaliei eman behar diegun tratua kontrolatzeko eta jarraitzeko autonomia-erkidegoko administrazioek egiten duten lana da.

Gune zoologikoen kontrol administratiborako atalean animaliak babesteko zaintzarekin arduratzen diren hainbat elkarteren kexa jaso dugu. Kexa horiek Bizkaiko lurraldeko hainbat udalerriri zerbitzua ematen dien Santurtziko animaliak hartzeko zentroa izan dute hizpide. Animaliak babesteko eta gune zoologikoak kontrolatzeko arautik eratorritako betebeharrak betetzen ez ei dituztela eta, bazterrean utzi dituzten animaliak jaso eta zaintzeko zerbitzua hitzartu duten udalei egindako salaketentzako erantzunik jaso ez izana agertu digute elkarteek. Salatutako gertaerak alderatzeko asmoz informazioa eskatu diegu administrazio eskudunei eta orain aztertzen ari gara.

Bestetik, herritarrek erakunde honetara jotzen dute administrazioek ez dutelako ezer egiten hainbat gune publikoetan animali batzuek eragindako gertakari edo erasoen aurrean. Erreklamazio hauek egoki izapidetze aldera, zegokion udaletara jo dugu **animaliak edukitzeari** buruzko araudiak ezartzen dituen betebeharrak gogorarazteko. Eusko Legebiltzarraren urriaren 29ko 6/1993 Legeak, animaliak babestekoak, eta ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak,

txakurrak edukitzeari buruzkoak, diote udalen eskumena dela animaliak dituztenek beren betebeharrak betetzen dituztela ikuskatzea eta kontrolatzea. Oro har, hirietako bideetan eta gune publikoetan, txakurrak kontrolpean egon behar dira eta lotuta ibili behar dira, gehienez ere bi metroko kate edo uhalarekin. Txakur guztiek dagokien mikrotxipa eraman behar dute, identifikatuta egon daitezen, eta bizi diren herrian errolatuta eta erregistratuta egon behar dira. Animalia batek erasoz gero jarraitu beharreko prozedura arautzen du dekretuak. Garrantzitsua da nabarmentzea, pertsoneri eraso eginez gero, horrek kalterik eragin ez arren, animalia albaitariak ebaluatu behar duela, pertsonentzat arriskutsua izan ote daitekeen ikusteko. Bestalde, arrazaren tipologiagatik edo animalia beraren ezaugarriengatik arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek animaliak edukitzeko araubide murriztaileagoa dute, besteak beste, muturrekoak jartzea edo bi metro baino gutxiagoko uhalak erabiltzea.

Udal administrazioek **abandonatutako animaliak jasotzeko** zerbitzua udalerrri barruan emateko betebeharra dute. Zerbitzu horren bitartez bakarrik eta atentziorik gabe dauden txakurrak gure kaletatik kentzen dira. Era berean, txakurrak mikrotxip bidez identifikatzen dira haien jabearekin harremanetan jarri ahal izateko. Abanto-Zierbena udalerrriak abandonatutako txakurrak jasotzeko duen zerbitzuaren funtzionamendua izan zen [2008ko apirilaren 17ko Ebazpenaren](#) arrazoia³⁶ Bertan eztabaidagai jarri genuen jabeak galdutako animalia batengatik ordainketa jabeari kobratzea. Gogoratu beharra dago gomendio hau ez zela jarraitu.

Arlo honetan nabarmendu beharreko beste puntu bat **jarduera edo ikuskizunetan animalien parte-hartzea** eta administrazioek ekitaldiaren izaeraren eta animaliak babesteko arauaren gainean egin behar duten kontrola da. Pertsona baten salaketaren ondorioz kexa-espeditentea hasi eta hezkuntza zentro bateko eskolaz kanpoko ekintza aztertzeiko aukera izan genuen. Ekintzan adingabeek parte hartzen zuten bigantxa txikiak erabili ziren.

[2008ko martxoaren 4ko Ebazpenaren](#)³⁷ bitartez Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailera jo genuen, animaliak tartean izango diren ikuskizun edo adierazpenak antolatzeiko aurretiaz eskatu behar den legezko baimenaren edukia arautu zezan proposatzeko, animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 4.6 artikulua ezarritakoarekin bat etorritik. Sailari beste proposamen bat egin genion: dagokion neurriak ezar zitzala, administrazio eskudunak "sokamuturrari," beti eta legeriak biltzen dituen kasu guztietan, aurretiazko kontrola egingo diola bermatzeko. Kontrol horren bidez, zezen ikuskizun tradizionalei buruzko araudian ezarritako baldintzak betetzen direla bermatuko da, bereziki, herri ikuskizun edo jai horietarako baimena ukatzeari dagokionez, horietan adingabeek modu aktiboan parte hartuko dutela aurreikusita dagoenean.

³⁶ Arartekoaren ebazpena, 2008ko apirilaren 17koa. Horren bidez, Abanto-Zierbenako Udalari gomendatzen zaio itzul dezala partikular batek abandonatutako animalia baten bila pasatzean ordaindu behar izan zuen zenbatekoa.

³⁷ Arartekoaren ebazpena, 2008ko martxoaren 04koa. Horren bidez, Herrizaingo Sailari iradokitzen zaio herri ikuskizun eta adierazpenetan animaliak erabili ahal izateko aurretiko baimenaren arauzko garapena susta dezala.

Sailak bidali zigun erantzunean zezen ikuskizunak arautzeko burutzen ari ziren izapidetzeak adierazi zizkigun. Gerora, azaroaren 11ko 183/2008 Dekretuaren bidez zezen ikuskizunei buruzko araudi berria onartu zen.

Araubide honen arabera, bizirik 60 kg baino gutxiago dituzten abelburuek ikuskizun edo jolas jardueretan parte hartzea debekatuta dago. Ikuskizun eta Jolas Jarduerei buruzko Legearen arabera, zekorrek egiten diren ikuskizunak udalek baimenduko dituzte bide publikoetan eta 700 pertsona baino gutxiagoko edukieradun lokaletan egiten badira, eta edukiera hori baino gehiagoko lokaletan egindakoak Eusko Jaurlaritzak baimenduko ditu. Edonola ere, Herrizaingo Sailak dio ikuskizunak jendearentzat zabalik ez dagoen lokal pribatu batean egiten direnean ez dela araudi hori aplikatuko eta administrazioak ezin izango duela aurretiaz esku hartu.

Aldiz, igorritako txostenak ez du aipatzen Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Euskal Legearen (ABL) 4.6 artikuluan ezarritako xedapena; xedapen horretan animaliek herri ikuskizun eta jaietan parte hartzeko behar den administrazio baimenaren arauko garapenaren beharrezana ezartzen da. Informazio hori ikusita, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak animaliak babesteko araudia garatzen duen alderdia araupetzeko beharra ez zuela aintzat hartuko ikusi genuen. Aitzitik, berriki onartutako araudiak zezen ikuskizunei buruzko alderdi batzuk argitu ditu.

I.12

OSASUNA

ararteko

12. OSASUNA

Arlo honetan, 83 kexa jaso ditugu guztira. Azpiataletan banatuta, honela sailkatzen dira:

- Erabiltzaileen eskubideak	54
- Osasun laguntza	13
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	11
- Buruko osasuna	4
- Beste alderdi batzuk	1

Nabarmentzekoa da, 2007an Osakidetzako erabiltzaileen arretarako bulegoetan jarritako erreklamazioei buruzko datuak kontuan hartuta (Osasun sailburuak Legebiltzarraren galdera bati emandako erantzun idatzia), gehienek itxaron zerrendarekin dutela zerikusia, eta guxtiago direla osasun arloko funtzionamenduarekin edo laguntzarekin zerikusia dutenak.

Hala eta guztiz ere, Osakidetzako laguntza jardueraren inguruan Arartekoaren erakundeetan jaso ditugun kexei dagokionez, gutxi batzuek izan dute zerikusia itxaron zerrendekin 2008. urtean. Arlo honetan, banan-banako informazio sistema abian jartzeko egin den legez besteko proposamena aipatu behar dugu; sistema horrek, sinadura digitalaren bidezko sarbideetan isilpekotasuna eta trazabilitatea bermatuz, modua emango dio gaixoari zein egunetan hartuko duten jakiteko eta dagokion prozesuaren arabera bidezkoa den informazioa izateko. Kontrara, kexa gehienek osasun funtzionamenduarekin edo laguntzarekin izan dute zerikusia. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da arlo honetan jaso ditugun kexa guztietatik 54k izan dutela zerikusia Osakidetzarekin, eta gainerakoek Osasun Sailarekin –besteak beste, bularreko minbizia goiz detektatzeko programari, errehabilitaziorako prestazioei, giza papilomaren birusaren kontrako txertatzei, gastuen itzulketei eta osasun prestazioei lotuta– eta beste sail batzuekin izan dutela zerikusia, hala nola Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin, tabakoaren kontsumoari buruzko kexen kasuan, aurrerago azalduko dugun bezala.

Arretaren kalitatea ez dela ona uste duten herritarren kexak jasotzen jarraitzen dugu; hain zuzen ere, adierazi dute ez dutela behar beste informazio lortu, eta ez dutela behar bezainbeste parte hartu eurei eragiten dieten erabakietan.

Zenbaitetan kexa orokor eta objektibatzen zailak direla aitortu behar badugu ere, beharrezkoa iruditzen zaigu kexa horiek hemen aipatzea, Osakidetzari gure balorazioa igorri dugun modu berean, nahiz eta ez izan hain justu berraztertzeiko moduko kontuak.

Adibide gisa, herritar baten kexa jarriko dugu: hiru hilabetez itxaron eta gero, 15 egun lehenago jakinarazi zioten txanda aldatuko ziotela. Eman zioten ordu horretan joaterik ez zuenez, beste hiru astez atzeratu zioten txanda. Ez zegoen ados atzerapen horrekin, sinetsita baitzegoen beste modu batera saiaturik gero sistemak egokitzapenen bat egiteko modua emango zuela, beste hiru astez itxaron beharrik ez izateko.

Jasotzen ditugun kexetako batzuek administrazioaren funtzionamenduari lotutako beste alderdi batzuekin izaten dute zerikusia: kasu honetan, kontsulten kudeaketarekin.

Litekeena da une horretan ospitaleak beste erantzunik ezin ematea, baina kontsulta ez bada bertan behera utzi erabiltzaileari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik, komenigarria da jabetzea arreta hobetzeko baliagarria izan daitekeela irizpideak edo arau orokorrak malguak izatea.

Jakina, malgutasun horrek ezin dio beste inori kalterik egin, baina ahalegina behar dugu pentsatzeko ez duela zertan erabiltzaileak jasan administrazioak bere funtzionamenduari beharren arabera antolatzeko duen pribilegioa. Sistemak zenbaitetan onar dezake nolabait teko malgutasuna, eta ideia horixe helarazi nahi diogu Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, kasu honetan bezalaxe erabiltzaileari egoztekoak ez diren arrazoiengatik txanda aldatzen den kasuetarako.

Lehen mailako arretako medikuei osasun txartel gutxiago emateko egin diren egokitzapenen ondorioz, medikua aldatu zaie erabiltzaile askori. Horren ondorioz, hainbat pertsona kexatu dira, lehen bezala jarraitu nahi zutela eta.

Aldaketa horiei buruz eman diguten informazioaren arabera, hainbat medikuk gainbegiratu dituzte aldaketa horiek, laguntza arazorik ez dagoela egiaztatzeko. Hainbat kasutan izan ezik –hala nola medikuz bereizi diren famili unitateetako adinekoen kasuan eta mediku historia bizia dutenen edo gertaera larriak izan dituztenen kasuan–, aldaketa horiek saihestezinak izan daitezke.

Hala izan daitezkeela onartuta, beharrezkoa da, hala ere, egindako aldaketari eragozpenen bat jarri dieten pertsonen egoera banan-banan aztertzea, arrazoiak funtsatuak diren edo ez jakiteko, eta, horrenbestez, kontuan hartzekoak diren edo ez jakiteko. Halaber, arrazoi funtsatuengatik kontuan hartzekoak ez badira, beharrezkoa izango da atea zabaltzea, etorkizunean kontuan har daitezen, aldaketak finkatu eta gero.

Arlo horren barruan baina beste ikuspegi batetik, guraso batzuen kexak jaso ditugu; guraso horiek ez dute zalantzan jarri medikua aldatzea bera, ez eta profesional berriak haien seme-alabei eman dien arreta ere; bai, ordea, aldaketa horrek lana eta seme-alaben arreta bateratzeko duten moduari eragin izana –medikutara lagundu behar dituztenean–.

Kexa horiek goizeko medikua jarri dieten guraso batzuek jarri dituzte, eta lehengo egoerara itzultzea eskatu dute, osasun etxera arratsaldean joan ahal izateko, lehen joaten ziren bezalaxe.

Dirudenez, familiako eta laneko bizitza bateratzeko inguruabarrei lotuta dago eskakizun hori. Horregatik, Arartekoak Osakidetzara jo zuen, lehen bezala txanda arratsaldera aldatzeko eskaria onartzeko aukera azter zezan, denbora pixka bat igaro eta gero.

Mediku aldaketari buruzko kexa horietako batzuek mahai gainean jarri dute osasun sisteman oro har dauden arazoetako bat, alegia, profesionalak falta direla espezialitate

jakin batzuetan. Horri dagokionez, guraso batzuek adierazi dute ez daudela ados pediatria faltagatik sortutako zailtasun erantsi horiekin –hain zuzen ere, langile gutxi dituen espezialitateetako bat da pediatria–.

Espezialista faltaren arazo hori bera zegoen buruko gaitzen zentro batean, psikiatra lanpostu bat bete gabe baitzegoen. Bere erantzunean, Osakidetzak jakinarazi zigen espezialitate horretako profesionalak aurkitzea zaila delako sortu zela arazo hori; arazo horri behin-behinean heldu zioten, zentroan zeuden psikiatren dedikazioa handituta, eta, azkenean, beste mediku bat kontratatuta konpondu zuten.

Osasun-garraioaren ohiko erabiltzaileek eta ospitaleko alta hartu ondorenean osasun-garraioa erabili behar izan duten gaixo batzuek kexak jarri dituzte, zerbitzu horren funtzionamendua dela eta.

Lehenengo kasuan, luze itxaron behar izaten dutelako dialisi saioa bukatu eta hartzen dituzten arte, eta hartu eta gero ere oso ibilbide luzea egin behar izaten dutelako etxera itzultzeko. Kontuan hartuta gaixo horiek astean hainbat alditan joan behar izaten dutela tratamendu hori hartzera, bidezkoa dirudi itxaronaldia eta joan-etorriak laburtu nahi izateak.

Txanda hartuta ematen den sistema publikoaren osasun prestazio bat denez, informazioa eskatu genion Osasun Sailari, dialisi tratamendua hartzera maiz samar joan behar izaten duten inguru bereko gaixoen garraioaren egoera zein den jakiteko.

Kexen bigarren multzoari dagokionez, alegia, gaixoez ospitaleko alta hartzen dutenetik anbulantziak hartu arte itxaron behar izaten duten denborari dagokionez, anbulantziek zein behar bete behar izaten dituzten adierazi digute emandako informazioan.

Atzerapena eragin duten inguruabarrak gorabehera (ezin bazter utzi dugu atzerapena arrazoikoa izatea) itxarotea ezin saihestuzkoa zela onartuta ere, kaltea arintzen saia daiteke behintzat, gaixoari edo familiari atzerapenaren berri emanda edo zergatia jakinarazita. Informatzeko ahalmen hori Osakidetzako zentroekin lotzen dugu, eta, horregatik, erakunde horri egin diogu iradokizun hori.

Erabiltzaileen erreklamazio batzuek modua ematen dute erakundeak berak bestela oharkabean pasa litezkeen bere funtzionamenduaren gaineko alderdi batzuk ezagut ditzan. Hor kokatzen dugu uteroa arraspatu zioten emakume baten kexa. Emakume hori logela berean zeuden gainerako gaixoez bezalaxe artatu zuten. Horren arrazoia zein zen galdetu zuen, eta esan zioten medikua kontzientzia eragozlea zela eta horregatik ez zuela artatu.

Itxaronaldiak arriskurik ekarri ez izanagatik, ez zen ahaztekoa aurreikuspen edo prozedura falta izan zela. Emakume horri ez zioten jakinarazi ez zutela haren egoera aztertu, horri buruz galdetu zuen arte, eta galdetu zuenean, adierazi zioten ez zutela artatuko guardiako txanda aldatu arte.

Ospitaleko arretari dagokion arlo horretan bertan, euskal ospitale batean zegoen pertsona baten kexa kokatzen dugu. Logelakideari tuberkulosia diagnostikatu zioten, eta beste logela

batera aldatu zuten. Kexagileari ez zioten egoeraren berri eman. Hala, kexatu egin zen, egoera horren berri eman ez ziotelako eta berak eskatu behar izan zuelako kutsadura proba egin ziezaiotela. Emaizta positiboa izan zen.

Eskatu genuen informazioa kontuan hartuta, ikusi genuen osasun jarduera ez zela okerra izan kontu haren funtsari zegokionez. Alabaina, gaixoari ez zioten eman guri geroago eman ziguten azalpena. Horregatik, espedientea artxibatu aurretik, Osakidetza jo genuen, berriz ere antzeko ezer gertatuz gero ospitalean egoera horretan dauden pertsonak hobeto informa ditzaten.

Osasun laguntzari buruzko kexen multzo honetan, lan mutualitatea artatzen ari zen pertsona baten kasua gogorarazi behar dugu. Mutualitateak geroago jakinarazi zion gaixotasun arrunta zela hura, eta prestazioa emateari utzi zion. Osakidetza jo zuen, eta han, berriz, adierazi zioten lehenago artatu zuenarengana jo behar zuela.

Errekurtso bat jarri zuen GSIN-n, mutualitatearen erabakiaren kontra, baina asko atzeratu zen ebazpena ematen.

Arartekoaren erakundearen kexa jartzeko arrazoia izan zen arretarik gabe utzi zuela irtenbiderik gabeko egoera hark.

Nahiz eta onartu Osakidetzaren edo Osasun Sailaren erabakiak (biek esku hartu zuten) ez zirela izan arbitrarioak, gaixo hori zegoen egoera "prozedurazko" hark ez zuen harentzat arazo izan behar, eta modu eraginkorragoan bermatu behar zitzaion laguntza. Gainera, baldin eta azkenean laneko gaixotasun gisa kalifikatzearen alde ebatzi izan balitz espedientean, mutualitateari jasanarazi ahal izango zitzaion osasun sistema publikoan hari laguntza ematen jarraitzeak izango lukeen kostua. Hala dago jasota Osasuneko Sistema Nazionaleko zerbitzu arruntei buruzko irailaren 15ko 1030/2006 Errege Dekretuan, IX. eranskinean.

Azaldutako egoera horrek zenbait alderditan parekotasunak ditu zirkulazio istripu bat izan zuen erabiltzaile batek adierazitako beste egoera batekin. Izan ere, 1030/2006 Errege Dekretuko eranskin horrekin du zerikusia. Hasieran Osakidetzan artatu zuten, eta gero istripuaz erantzun behar zuen aseguru etxera bidali zuten, uste baitzuten hari zegokiola laguntza prozesuarekin jarraitzea.

Jardunbide horren ondorioz eta aseguru etxean laguntza lortzeko izan zituen zailtasunen ondorioz, bere kabuz lortu behar izan zuen arreta.

Pentsa liteke tematu izan balitz sistema publikoan emango ziotela laguntza. Kontua da, zentro pribatu batean bere ebakuntza ordaindu eta gero –aseguru etxeak bere betebeharra bete zuen edo ez aztertu beharko da kostu horren erantzukizuna nork duen erabakitzeko–, erabiltzaileak errehabilitazio saio batzuk behar izan zituen, eta berriz ere Osakidetza jo zuen.

Araudietan hainbatetan esaten da emandako zerbitzuaren zenbatekoa erreklama dezaketela osasun administrazioek, baldin eta ordaintzeko betebeharra duen hirugarrenik bada.

Osasuneko Sistema Nazionalaren zerbitzu arruntei buruzko irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak IX. eranskin horretan aurreikusten duenari lotu gatzaizkio.

Aurreikuspen horiek ezin baldintza dezakete osasun publikoko laguntza horretarako eskubidea duen inor. Horregatik, Arartekoak kexa hori igorri zion Osakidetzari, pentsatuz sistema publikoak laguntza ematen jarraitu behar zuela, zerbitzuaren kostua erreklamatzeko eskubidea zuela alde batera utzita. Bere erantzunean, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi zigun aurrekariak aztertu eta gero espedientea igorri ziola Osasun Lurralde Zuzendaritzari, gastuak itzultzeko izapidea hasteko.

Historia klinikoko agiriak eskuratzearen inguruan jaso ditugun kexetako batzuek agerian utzi dute egokitu beharra dagoela zenbaitetan agiriak eskuratzen ez uzteko jarraitu den irizpidea, irizpide hori nola jasota dagoen eta nola aplikatzen den kontuan hartuta.

Honela dio ospitaleko agiri klinikora sartzeko prozedurak, hainbat tokitan, eman daitezkeen agiri motei buruz ari dela: "*Eskatutako dokumentu-moten kopia, ondorengo hauek izan ezik: hirugarren pertsonen informazioa jasotzen dutenak edo ohar, uste edo esateko objektiboak dituen beste edozein, besteak beste, anamnesia, miaketa eta eboluzioa, bai medikoa bai erizaintzakoa.*"

Baldin eta ukatzeko arrazoi hori oro har aipatzen dituen agiri guztietarako ezartzen bada, ez dirudi arrazoi funtsatua denik.

Azaroaren 14ko 41/2002 Legeak, historia klinikoa eskuratzeko eskubideari buruzkoak, 18.1. artikuluan jasotzen du osasun zentroek prozedura bat arautuko dutela, eskubide horiek kontuan hartuko direla bermatzeko. Baina nola arautu den ikusita, badirudi prozedura hertsitik harago joan dela, pentsatu baita anamnesi, miaketa eta eboluzio guztietan gertatzen direla 41/2002 Legeko 18.3. artikulua horretan jasotzen diren mugak.

Arrazoi hori dela eta, ofiziozko espediente bat abiarazi genuen; txosten hau ixten ari ginen garaian irekita zegoen oraindik espedientea.

Bere erantzunean, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak adierazi zigun gida gisa egin zela ospitaleko agiri klinikoa eskuratzeko gaur egungo prozedura, historia klinikoa osatzen duten agirieta sartzeko eskubidea arautzeko orduan zentro guztietarako balio izateko moduan. Anamnesi, miaketa eta eboluzioari buruzko orriek oro har hirugarren pertsonen buruzko informazioa jaso dezaketenez (41/2002 Legeak jasotako muga), orri horiek oro har ez emateko modua egin zen prozedura horretan.

Geroago, Agiri Klinikoko Batzordeak lehen mailako arretarako prozedura bat diseinatu zuen, 2004ko uztailen. Atal honekin lotuta, agiri horretan xehekiago jasotzen da agiriak eskuratzeko aurreikuspena, eta adierazten da eskatutako agirien kopia emango dela, baldin eta ez badute beste inoren daturik edo profesionalen ohar subjektiborik, eta ez badago agiri hori emateko arrazoirik, nola baitira behar terapeutikoa eta antzeko beste arrazoi batzuk. Beste inoren gaineko oharrik edo informaziorik ematen ote den zalantzarik izanez gero, anamnesi,

miaketa eta eboluzioari buruzko orrietako datu objektiboak laburtuko dituen txosten bat egitea aurreikusten da.

Ospitaleko agiriak eskuratzeko prozedurari dagokionez, hainbat egokitzapen egin zaizkio testuari, eta aldaketa batzuk erantsi zaizkio sarean. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren txostena bukatzen zen esanez Agiri Klinikoko Batzordeak beste bertsio bat egin nahi duela 2009. urtean, bi agiriak bateratzeko –ospitalekoa eta lehen mailako arretakoa– eta historia klinikoa eskuratzearekin lotuta dauden hainbat alderdi eguneratzeko.

Gaixo kronikoek izan ohi duten arazoetako bat errehabilitazioa da.

Arlo horretan, hainbat kexa jaso ditugu; izan ere, arazo horiek dituzten gaixoez uste dute gaur egun sistema publikoak ez duela ematen behar bezainbesteko zerbitzua.

lax, espediente bat ireki genuen Euskal Osasun Publikoan Gaixotasun Kronikoen Errehabilitazioa Hobetzeko Proiektua 2007-2009 nola garatzen ari zen jakiteko (gaixotasun neurologikoak, gaixotasun kardiologikoak, biriketako gaixotasunak, eta bularreko minbizia eta linfedema). Horko aurreikuspenak ikusita, esan dezakegu badagoela adostasuna jardun esparru horiek hobetzeko esku hartu beharra dagoela.

Gure eskaerei erantzunez jaso dugun informazioa kontuan hartuta, planeko aurreikuspenak betetzen ari direla uste dugu. Plan horretan biltzen diren lau jardun esparruetatik, iruditu zaigu egoera espezifikoak daudela horietako batean, hain zuzen ere gertatzezko garuneko kaltea dutenei eragiten dien atalean, eta komeni dela espediente berezi bat irekitzea, gainerako arloetatik aparte.

Errehabilitazio neurologikoaren esparruan aurreikusitako eta garatutako jardueri buruz adierazitakoa kontuan hartuta, ulertu behar dugu aurreikuspenak betetzean egingo dela aurrera gaixotasun neurologikoak dituzten pertsonen eta haien zaintzen dituzten senitarte-koen arretan, laguntza jarraitua izateko modua eginda, laguntza osoa lortuta.

Arartekoan jaso ditugun kexek, funtsean, gaixoak laguntzeko jarraipen falta horrekin izan dute zerikusia; hain zuzen ere, egoera kritikoa gainditu eta hala garunetako hodietako gaixotasunetik nola traumatismo kraneoentzefalikoetatik bizirik atera diren hainbat gaixoez ezin izan zuten errehabilitazio neurologikoarekin jarraitu, nahiz eta tratamendu hori beharrezko zutela agertu haien ospitaleko altan.

Oro har, errehabilitazio tratamendu horiek ez daude sistema publikoan; horregatik, zentro pribatu batean laguntza izateko baimena eskatu zuten, eta ukatu egin zitzaion eskaera hori.

Gaixotasun neurologikoa duten pertsonen errehabilitazioari buruzko espediente bat ireki dugu, eta Osasun Sailari helarazi diogu gure balorazioa.

Molde horretan egin genuen balorazioaren erantzunean, Osasun Sailak adierazi zigun, hor emandako arrazoiengatik, hartutako kalte zerebralerako errehabilitazio neuropsikologikoa

erantsi zuela Euskal Osasun Publikoan Neuroerrehabilitazioa Hobetzeko Proiektuan, eta horretarako beharrezkoa dela arloan adituak diren langileek, neuropsikologoek, lurralde historiko bakoitzeko erreferentziako neuroerrehabilitazio unitateetan parte hartzea, halako moldez non kalte zerebralaren ondoriozko ezagumenaren nahasteak eta portaeraren eta emozioen nahasmenduak detektatzeko eta tratatzeko bideak optimizatuko diren Osakidetzan.

Gure balorazioak ez zituen alde batera utzi Neuroerrehabilitazioa Hobetzeko Proiektua onartuta ireki ziren aukerak. Horregatik, gure balorazioan adierazi genuen uste dugula Euskal Osasun Publikoan Gaixotasun Kronikoen Errehabilitazioa Hobetzeko Planeko helburuak betetzen direnean gaixotasun neurologikoren bat duten pertsonen behar duten errehabilitazioa eman ahalko zaiela, bere fase guztietan, eta, funtsean, gaur egun arlo pribatuan eskaintzen dituzten jarraibideekin bat etorriko diren helburuak, oinarri metodologikoa eta tratamenduen ikuspegi terapeutikoa izango dituela.

Espedientea irekita dago oraindik, Neuroerrehabilitazioa Hobetzeko Proiektuan aurreikusitako hobekuntzak egin bitartean gaur egun gaixoei eskatzen dituzten tratamenduen erantzun dakien proposatu baitugu. Hori proposatzean, bazter uztea zaila den ikuspegi bat hartu dugu kontuan, alegia, aurreko jarraibideak berariaz aldatu dituzten erabaki judizialena; hain zuzen ere, erabaki horien arrazoibideetan azaltzen da aldaketa hori, bai eta zer arrazoi dauden ere berehalako errehabilitazioa behar duten eta euskal osasun sistemak kalte zerebrala duten gaixoen suspertze neuropsikologikoko tratamendurik eskaintzen ez duela-eta tratamendu hori osasun pribatura joanda baizik ezin eskura dezaketen pazienteen eskariak onartzeko.

Gaixo kronikoen artapenaren arlo horretan bertan, somatikoak ez izan arren, buruko osasun arazo larri eta kronifikatua duten pertsonak aipatu behar ditugu; pertsona horien artean denetarik egoerak daude. Aurreko txostenetan aipatu izan dugu baliabide gabezia nabarmena dagoela ospitaleratuen "desinstituzionalizazio" prozesuak garatzeko eta buruko osasun etxeetan eta epe laburreko ospitalizazio unitateetan egiten diren ebakuntzak osatzeko.

Laguntza emateko orduan, burutik gaixo daudenen erabakitzeko ahalmena ebaluatzeak dakarren zailtasuna aurkitzen dugu –egoera gatazkatsua da, gaixoaren askatasunari eragiten dioten erabakiak ere har baitaitezke haren izenean, hala nola medikatzea eta ospitaleratzeari. Bada, ezin saihestuzko izan daitezkeen egoera horiez gain, ospitaleratuta dauden pertsonen hala jarraitzeko arriskua izan lezakete, erdibideko baliabide falta horregatik.

Gaixoen behar espezifikoaren ondorioz hartzen du Plan Estrategikoak arreta soziosanitarioaren garapenaren balizko hartzaile gisa gaixotasun mental eta kronifikatuak dituzten pertsonen taldea. Behar horiek ez dira beti izaten osasunarekin lotutakoak soilik.

Arartekoak, agintaldi parlamentarioari jarraituz, ohiz kanpoko txosten bat egin du aurtan Euskal Autonomia Erkidegoko arreta soziosanitarioaren egoeraren gainean. Egin berria badugu ere, 2005-2008ko Plan Estrategikoan jadanik aurreratu genituen alderdi batzuekin dute zerikusia hor jaso ditugun gomendioek; horrenbestez, txosten horretako II. atalean jasota dauden jarraipen jarduerak hasi ditugu, alegia, gaixotasun kronikoren bat duten pertsonen arreta espezifikoari buruzko atalean jasotakoak.

Beste ikuspegi batetik, Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen ikuspegitik, baina hor ere burutik gaixo dauden pertsonekin lotuta, garrantzitsua da jakitea lege horren aplikazioa zenbateraino iristen den gaixo horiengana. Horretarako, Arartekoak informazioa eskatu die hiru foru aldundiei eta Osakidetzari, datuak bildu eta lege hori pertsona horiengan izaten ari den eragina baloratzeko modua izan dezan.

Halaber, burutik gaixo daudenen arretarekin lotuta, Buruko Gaitzen Plan Estrategikoaren esparruan kokatzen ditugun jarduerak aipatu behar ditugu.

Jarduera horien laburpena II. atalean dago jasota, artatuak izateko lehentasuna duten taldeei buruzko atalean, alegia.

Jarduera horietako batek zerbitzu zorroarekin izan du zerikusia; kontu hori adingabe baten gurasoek sustatutako banako espediente batean jorratzeko aukera izan dugu; hain zuzen ere, osasun etxeko medikuak adierazi zien adingabeak tratamendua behar zuela bere ahalmenak suspertzeko, haren patologiaren larria kontuan hartuta; tratamendu hori, ordea, ez zegoen sistema publikoan.

Aipatutako osasun etxe horretako txostenean oinarritu zen kexa; txosten hori mahai gainera ekarri genuen, nahiz eta jakin txosten hori bakarrik ez zela nahikoa izango prestazio gehiago sortzeko. Baina garrantzitsua zen sistema publikotik zetorren iritzia hori, lotuta baitzegoen gaur egungo zerbitzu zorroak buruko osasunaren arretari dagokionez jasotzen duenarekin –1030/2006 Errege Dekretua–; izan ere, III. eranskineko 7. atalean dio beharrezkoa dela laguntza ematen jarraitzea autismo diagnostikoa eta tratamendua dutenei. Kexa horren ondorioz, osasun administrazioak jakinarazi zigun sistema publikoan tratamenduak gehitzeko aurreikusitako prozedura abiaraziko zuela.

Behar bezainbeste estaltzen ez diren beharren inguruan gaixo kroniko batzuek agertu dizkiguten kexetako bat gernu-inkontinentziarako xurgagailuen gainekoa izan da; finantzatzen diren osasun produktuetako bat da hori, ospitaleratuta ez dauden gaixoei banatzekoa.

Produktu hori lortzeko errezeta behar da, lehenago mediku ikuskaritzak onetsia, eta jaso ditugun kexen arrazoia izan da aurreikuspen estandar batzuen arabera jarri dela produktu hori banatzeko muga, eta muga hori ez dela nahikoa pertsona horien beharretarako.

Aztertutako aurrekariak kontuan hartuta, ez dirudi banaketa erregelamenduz ezarrita dagoenik aurretik. Hori dela eta, oro har pixoihal kopuru jakin bat ezartzeak ez luke oztopo izan behar egoki egiaztatuta dauden egoeretan gehiago emateko.

Kexa jartzeko motibo izan ziren egoera horietan, kexekin batera aurkeztutako txostenek iradoki zuten horixe zela kexagileen kasua. Horietako batean, interesdunei adierazi genien beste eskaera bat aurkez zezatela, beren txostena oinarritzat hartuta, eta bestean, Osasun Sailari iritzia eskatu genion, pixoihal gehiagoren beharra ba ote zegoen jakiteko. Aukera horiek koherentzetat jo zituen, eta onartu egin zituen, gaixoaren egoera klinikoa kontuan hartuta.

Hirugarren espedientea 84 urteko mendeko pertsona baten kasuari buruzkoa da; hondar-he miparesia du 2001etik, eta arnas aparatuko infekzio errepikakorra; hori dela eta, likido asko edan behar du. Kasu horri buruzko espedientea izapidetzen ari da, haren behar espezifikoei buruzko txosten medikoaren ginean eskatu genuen balorazioaren erantzunaren zain.

Adierazi dugun behar hori bera, alegia, prestazioaren konfigurazioak modua ematen duenean banakako erabakiak hartzea, osasun prestazio osagarria ukatu zaion pertsona batek jarritako kexan aurkitu dugu: gurpil aulki elektrikoa eskatu zuen adingabe baten kasua da, hain zuzen ere. Eztatanda zen 1030/2006 Errege Dekretuak aulki hori emateko ezartzen dituen baldintzak betetzen ziren edo ez; izan ere, dekretu horrek behar besteko ahalmena eskatzen du ikusmen aldetik, buru aldetik eta maneiatzeko kontrol aldetik, arriskutsu izan ez dadin erabiltzaileen eta beste pertsonen osotasunarentzat.

Halako kontuak aztertzen dituzten teknikarien taldeak osatutako batzordeak 11 urteko adin tartea ezartzen du aulkia emateko muga gisa; urte horietatik aurrera, bestelako inguruabarrak ez bada, ahalmen hori badela pentsatzen da. Kasu honetan, medikuak adierazi zuenaren gainetik jarri zen eskatzaileak 9 urte izatea. Familiak kexarekin batera aurkeztu zuen medikuaren txostena.

Egokia izan daiteke adina hartzea prestazio hori modu publikoan finantzatzeko eskatzen den baldintza betetzen dela uste izateko elementu gisa, baldin eta hori presuntziotzat hartzen bada, hau da, baldin eta onartzen bada beste nolabait egiazta daitekeela ahalmen hori betetzen ote den. Izan ere, 11 urteko adingabe batek ahalmen hori eduki dezakeen bezalaxe, gerta liteke ez izatea zaharrago batek.

Horregatik, iruditzen zaigu adinaren eskakizuna ezin ezar daitekeela modu hertsian –ez behetik eta ez goitik– prestaziorako eskubidea baden edo ez ondorioztatzeko baldintza gisa, baizik eta eskatzaileak gurpil aulki elektrikoa erabiltzeko ahalmenik baduen egiaztatze-ko beste bide batzuk ere izan behar direla.

Bere erantzunean, Osasun Saila ez zetorren bat balorazio horrekin, uste baitzuen edozein neurri jar daitekeela zalantzan, baina adierazi zuen egokiagoa dela neurri hori zabal daitekeen irizpide gisa aplikatzea *ad hoc* egindako txostenetan gogoia edo motibazio falta irizpide gisa hartzea baino. Halaber, txostenean adierazi zuen 11 urte izate hutsa ez dela behin ere behar besteko irizpide izan.

Arartekoak iritzi zion ez litzatekeela zalantzarik izan behar administrazioaren erabakia funtsatua dela, baldin eta aulkia modu autonomo eta eraginkorrean erabiltzeko ahalmenari buruz egindako txosten medikoa aztertu eta gero hor adierazi zaizkigun arrazoiak aztertzen badira –*ad hoc* txostena izatea–. Baina ez dirudi behar besteko arrazoia denik halako egoerei buruzko txosten guztiak hala direla uste izatea.

Gure balorazioa [2008ko abenduaren Ebazpenean](#)³⁸ jasota gelditu da. Osasun Sailari igorri genion ebazpen hori.

³⁸ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 16koa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari gurpildun aulki elektrikoa finantzatzeko eskaria berrikusteko gomendioa egiten diona.

laz adierazi genuen hainbat esku-hartze hasi genituela sortzez nahiz gertatzez entzumen urritasuna zuten pertsona batzuek aurkeztutako kexa baten harira. Beste inora joan beharrik izan gabe gure autonomia erkidegoan kokleako inplanteak egiteko dagoen aukerari buruzko informazioa eskatu genuen, bai eta bigarren inplantea edo alde biko inplantea egiteko aukerari buruzko informazioa ere. Halaber, inplantearen ondoko tratamendu logopedikoak nola egiten diren ere galdetu genuen, nahiz eta errehabilitazio hori hainbat irizpideren arabera egiten den.

Bigarren inplanteari dagokionez, Osasun Sailak adierazi zigun ez dagoela irizpide batasunik onuradunak zein gaixo izan daitezkeen zalantzarik gabe erabakitzeke, eta amaitu zuen esanez behar duten pertsona guztiei lehenengo inplantea bermatzea lehenesten dela.

Beste zentro batzuetara joan behar izateari dagokionez, aurreko egoera aipatu eta gero, osasun administrazioak jakinarazi zigun gaur egun, Gurutzetako Ospitalean ikusten dituzten adingabeak izan ezik, gaixoak Osakidetza erreferentziatzeko zentrorara bidaltzen dituztela ebakuntza kirurgikoak egitera, Donostia Ospitalera, alegia.

Ondoko tratamendu pedagogikoak egiteko moduari dagokionez, osasun administrazioak txostenean adierazi zigun ez dagoela alderik irizpide klinikoetan. Hala ere, ikusi zuen badirela homogeneizaziorako bidean lan egiteko arrazoiak –beharbada, Gipuzkoako zentro batekin bestelako hornidura bat daukalako hitzartua–.

Kokleako inplantea beste norabait bideratzeko edo bertan ezartzeko barne irizpideak zein diren jakiteko informazio osagarriari dagokionez, oraindik ez dizkigute bidali Osakidetza erabiltzen dituen protokoloak.

Beste arlo batean, hau da, zentzu hertsian osasun laguntza gisa har dezakegunaz bestelako arlo batean, Arartekoak Osasun Sailera jo du, osasun arloan aurretiazko borondateei buruzko agiriarekin zerikusia duten hainbat konturen gaineko informazio eskatzeko; kontu horrek Legebiltzarrean ere interesa piztu du.

Borondateen Euskal Erregistroa sortu zela lau urte baino gehiago igarota, aurten Osasun Sailera jo dugu, borondate adierazpen horiek gure osasun sistema publikoan nola egin diren jakiteko, izen emateari eta beste erregistro batzuekiko komunikazioari dagokionez nahiz borondate horiek betetzeko sortu diren arazoei dagokienez.

Legebiltzarrak arlo horretan esku hartu du, Eusko Jaurlaritzari galderak eginda, eta, ikusi dugunez, hainbat kontu bat datoz Arartekoak proposatutakoarekin.

Funtsean, hiru punturen gaineko informazioa eskatu genuen:

- A. Borondatea adierazteko erregistroen artean zer konexio dagoen, kontuan hartuta nolako garrantzia duen horrek borondate horien berri izango dela bermatzeko.
- B. Borondateen Erregistroa sortzeko 270/2003 Dekretuak 13. artikuluan jasotzen duenez, agiri inskribatuak badirela jakinarazten ote zaien zentroetako langileei, egileek horretarako baimena eman badute.

Izena emateko eskaera orriak aukera ematen du egileak horretarako baimenik ez ematea. Hasieran pentsa liteke baimen hori badela; izan ere, erregistro horren helburua hain zuzen ere egilearen borondatearen berri izango dela bermatzea da, borondate hori adierazteko arrazoi izan zen egoera suertatzean.

Horregatik, aurreikuspen hori aplikatzeko orduan zailtasunik edo desadostasunik sortu den jakiteko informazioa eskatu genuen.

- C. Osasun profesionalak adierazpen horien berri izan dezaten saiatu behar da, eta horren gaineko informazioa ere eskatu genuen.
- D. Muturreko egoeretan nola jardutea nahi duten jasotzen du aurretiazko borondateen agiriak. Borondate hori jakinda, zalantzak sor litezke betetzeko orduan, bai mediku praxiarekin lotutako arazoengatik, bai deontologia arazoengatik eta bai borondate hori kontuan hartu eta hala badagokio bete behar duena kontzientzia eragozlea delako.

Arazo horiek sor daitezkeela onartuta, gerta liteke, esate baterako, mediku arduradunak kontzientzia eragozle izateko duen eskubidea oker ulertzea eta horrek ondorio ekartzea egileak aurretiazko borondateari buruzko agirian jaso dituen jarraibideak ez kontuan hartzea, edo kontuan hartzea, baina iragaziak izatea, hark kontzientzia eragozle izateko duen eskubidearengatik.

Pertsona batek aurretiaz adierazi duen borondateari dagokionez kontzientzia eragozle izateko legitimitateak ezin izan dezake ondorio hori. Zalantza sor liteke mediku jakin batek borondate hori bete behar duen edo ez, baina beti bermatu behar da osasun sistemak borondate horren berri izatea, eta hark baloratuko du nola bidera daitekeen egilearen borondatea.

Horregatik, Osasun Sailari balizko egoera horri buruzko balorazioa eskatu genion.

- A. Lehenengo atalarekin lotuta, 124/2007 Errege Dekretuaren arabera –Aurretiazko Jarraibideen Erregistro Nazionala (AJEN) sortu zuen–, jakinarazi zigun egin dela erregistro autonomiko bakoitzeko datuen hasierako karga, Osasun eta Kontsumo Ministerioak egindako zehaztapen teknikoei jarraiki, eta hainbat prozesu zehaztu direla erregistro horiek sinkronizatzeko. Borondateen Euskal Erregistroak garatua du izen emate/inskripzio prozesua, hasiak dira AJENekin baliozkotzeko probak egiten, eta gainerako prozesuetarako beharrezko garapen informatikoak egiten jarraitzen dute.
- B. Agertu genuen bigarren kontuari dagokionez, jakinarazi ziguten ez dela inolako arazorik izan 270/2003 Dekretuko 13. artikuluan jasotakoarekin. Hala ere, agiriren batean *item* hori betetzen dela jasota ez badago, interesdunari hala egin dezan eskatzen zaio, eta ezezkoa hautatzen badu, Erregistroko zein abantaila gal ditzakeen jakinarazten zaio.

C. Hirugarren atalari dagokionez, kontuan hartuta 270/2003 Dekretuko 14. artikulua, borondate adierazpenik baden jakiteko profesionalek Erregistrora jotzeko duten betebeharrari buruzkoa, egunero igortzen zaio Osakidetzari izen emate berrien zerrenda, Erregistro horri emandako funtzioekin bat; beraz, laguntza zentroeiei ematen zaie erregistratutako agirien berri.

Informazio hori ez bakarrik Osakidetzako profesionalei baizik eta autonomia erkidegoko mediku guztiei emate aldera, inskribatutako agirien berri izan dezaketenek, Osanet-en bidez kontsulta eginez erabiltzailea eta pasahitza jarrita, helbide espezi-fiko batean.

Osasun profesionalei Osakidetzaren bidez eta elkargo profesionalen bidez eman zaie funtzionaltasun horien berri.

D. Laugarren atalari dagokionez –aurretiazko borondatea betetzeak sor litzakeen arazoiei dagokienez–, Osasun Sailak komenigarriagoa iritzi dio gaur egun medikuek osasun praktikan izaten dituzten gatazka bioetikoez arduratzen diren instantziek ebaztea horren inguruan sor litezkeen kontuak. Etorkizunean horri heltzeko aukera bazter utzi gabe, gaur arte –kasurik hauteman ez denez– ez da beharrik ikusi aurretiazko borondateak betetzearen inguruan izan litezkeen gatazka etikoei buruzko protokolo zehatz bat egiteko.

Gatazka egoeraren bat sortzen bada eta zentro horrek profesional kontzientzia eragozleak ordezkatzeko langilerik ez badu, Osasun Sailak beste osasun sistema publiko batera bideratuko du, berea izan edo hitzartutakoa izan, aurretiazko borondatea betetzen dela ziurtatzeko. Erreakzio mekanismo hori bera hartuko da kontuan gatazka osasun zentro pribatu batean sortzen baldin bada ere. Izendatutako ordezkariak edo profesional kontzientzia eragozleak zuzenean edo mediku elkargoen bidez Osasun Sailari gertakarien berri eman badiote, hara bideratzeko neurriak hartuko dira.

Osasunaren arlo honetan jorratu ahal izan ditugun kontuen artean, Legebiltzarrean eztabai-datu duten beste kontu bat aipatu behar dugu: bularreko minbizia goiz detektatzeko gaur egungo programa 50 urtetik beherako emakumeei ere aplikatzea, legez besteko proposamen baten bidez; azkenean proposamen hori ez zen onartu eduki horrekin.

Beren ikuspegia azalduz Arartekora jo zuten elkarteei igorritako analisisa bilduko dugu hemen.

Aurrekariak aztertuta, ikusi genuen desadostasuna ez dela oinarritzen alderdi juridikoetan, baizik eta alderdi zientifiko, mediko eta ekonomikoetan oinarritzen dela. Alderdi zientifiko eta medikoak ditu oinarri, molde horretako arrazoiak aipatzen direlako, eta alderdi ekonomikoak, berriz, osasun arloko beste erabaki batzuetan bezalaxe, horren aplikazioak norainoko irismena duen neurtu behar delako, aurrekontu mugak kontuan hartuta.

Alde horretatik, esan dezakegu ebidentzia zientifikoen gaineko judizioek eta horiek oinarritzat hartuta osasun arretaren esparruan egin daitezkeen gomendioek kontuan hartzen

dutela baliabideak mugatuak direla eta funtsak eremu batean erabiltzen badira ezin erabiko direla beste batean; beraz, beti neurtu behar da lortutako onurek kostua justifikatzen duten. Beharbada, horren ondorioa da adostasunaren, ebidentzia zientifiko ukaezin baten edo gradu goreneko gomendio baten (gomendioak hainbat gradu izan ditzake) beharra eskakizun erabakigarri gisa ezartzea prestazio edo tratamendu berriak sartzeko orduan, edo programa batean adin tartea zabaltzeko orduan, kasu honetan gertatzen den bezala.

Beste arrazoi batzuen artean, komenigarria deritzogu adostasun edo ebidentzia zientifiko ukaezina deitzen dugun hori aipatzea; izan ere, uste dugu elkarreak eskariei erantzuteko orduan askotan ez direla ados egon, hain zuzen ere, sentitu dutelako itzala kendu dietela programa zabal dezaten eskatzeko eman dituzten argudioei dagokionez.

Guri, bestalde, igorri zizkiguten agirien analisia ikusita, egokia iruditzen zaigu esatea ez dagoela ebidentzia zientifikorik programa 50 urtetik beherakoei zabaltzea gomendatzen duenik; areago, iruditzen zaigu ez dagoela horren gaineko adostasunik.

Gaur egungo egoerari dagokionez, programa 50 urtetik beherako emakumeei zabaltzeko joera zientifikoei dagokionez, nahitaez aipatu behar genuen 2006ko Osasun Sistema Nazionaleko Minbizi Estrategien gaineko Agiria; izan ere, gomendioen atalean, hauxe aipatzen du adinaren inguruan:

“3.2.3. Cáncer de Mama

A pesar de ciertas controversias, los resultados de los estudios caso-control y ensayos clínicos realizados hasta el momento son consistentes. De la mayoría de ellos se concluye que la realización de mamografías periódicas conduce a una disminución del riesgo de morir por cáncer de mama.

Respecto a la efectividad del cribado en mujeres menores de 50 años, continúa la controversia sobre su eficacia respecto a la obtención de una disminución significativa de mortalidad en este grupo de edad.

En lo que sí hay un consenso general es en la recomendación de aplicar, con carácter poblacional, programas de cribado de cáncer de mama a todas las mujeres de 50 a 69 años.”

Agiri horrek aipatzen duen Osasun Sistema Nazionalaren esparruan, gaur egun badira detekzio programak autonomia erkidego guztietan. Kexa hau aztertzen ari ginela, ia guztiek hartzen zituzten 50 urtetik 69 urtera bitarteko emakumeak, eta bostetan adin tartea 45 urtera jaitsi dute.

Komunitate zientifikoan ospe handia duten erakunde batzuek minbizia goiz detektatzeko programan 45 urtetik 69 urtera bitarteko adin tartea hartzeko gomendioak egin dituzten aldetik, ez dirudi zalantzan jartzekoa denik programetako adin tartea 45 urtera jaitsi duten autonomia erkidego horien erabakiaren funtsa.

Alde horretatik, ez genuke hutsik egingo baldin eta esango bagenu –halaxe ondorioztatu genuen haren idatzitik– erakundeen arteko desakordioaren alderdi garrantzitsu batek zerikusia izan zuela beren proposamenak aurkezteko orduan itzala kendu zietela sentitu izanarekin. Horri dagokionez, ez da gauza bera esatea, Minbiziaren aurkako Estrategiaren agiriak berak dioten bezala, eztabaida dagoela baheketari dagokionez eta esatea ez dagoela oinarri edo ebidentzia zientifikorik programa 50 urtetik beherako emakumeei zabaltzea justifikatzen duenik.

Balorazio hori azaltzeko, gaur egungo detekzio programan jasotako adina dutenei baino gazteagoei mamografia egitea eraginkorra dela dioten gomendioetako bat aztertu genuen. Hain zuzen ere, Kanadako Osasun Prebentziorako Unitate Bereziaren gomendioari buruz ari ginen, honela baitio: *“La evidencia actual con respecto a la eficacia de la mamografía de screening no sugiere su inclusión, o su exclusión, en el examen periódico de salud de mujeres de 40-49 años de edad con riesgo medio de cáncer de mama (recomendación de grado C).”*

Gomendio horren edukia eta horri ematen dion gradua kontuan hartuta, adin tartea 45 urteetara zabaldu duten autonomia erkidegoen erabakia funtsatua dela esan liteke, baina hori bera esan liteke hala egin ez duten gainerakoen erabakiari buruz ere.

Elkarteek igorri zizkiguten agirietan, *“ez da iradokitzen sartzea, edo bazter uztea”* dioten testua azpimarratu zuten, Osasun Sailak 45 urtetik 49 urtera bitarteko emakumeak programatik kanpo uzteko ematen dituen gainerako arrazoibideak nabarmentzeko.

Iritzi hori egokia zen, baina beharrezkoa iruditu zitzaigun jarraian zehaztaper bat egitea, C graduko gomendio bat zela adierazteko; hori garrantzitsua iruditzen zaigu guk balora genezan jarritako egoera horri buruzko iritzia azaltzeko; jadanik gure iritzia zein den aurreratuko dugu esanez, alde batetik, ez duela ematen funtsik gabea denik beren programetako adina 45 urteetara jaitsi duten autonomia erkidegoen erabakia, eta aitortuz, aldi berean, oraindik eztabaida dagoela neurri hori aplikatzeko, Osasuneko Sistema Nazionalak 2006an egindako Minbizi Estrategiei buruzko Agiriak erakutsi duenez.

Ebidentziak edo gomendioak kalifikatzeko sistemak desberdinak izan daitezkeela jakinik ere, egokia iruditu zitzaigun zenbaitetan edukari eman behar zaion esanahiari buruz ari-tzea.

Kanadako Osasun Prebentziorako Unitate Bereziak gomendio horri ematen dion graduaren esanahia baloratzeko, ebidentzia maileri eta gomendio graduari buruzko hainbat testu kontsultatu genituen, eta ondorioztatu genuen C graduak honako hau esan nahi duela: *“Ni recomendable ni desaconsejable (al menos moderada evidencia de que la medida es eficaz) pero los beneficios son muy similares a los perjuicios y no pueden justificar una recomendación general.”*

Definizio hori bat dator Kanadako lan taldearen gomendioaren edukiarekin.

Ondorio horren arabera, ulertu genuen ez dagoela "osasun arazorik" adina murrizteko, baina badirela hainbat arrazoi funtsatu 50 urteetara arteko gaur egungo adin tartea bere hartan uztea justifika dezaketenak.

Hala, bada, egokiagoa iruditzen zaigu adostasunik ez dagoela esatea bularreko minbizia goiz detektatzeko gaur egungo programen adina jaitea eraginkorra dela esateko ebidentzia zientifikorik ez dagoela esatea baino.

Testuinguru horretan kokatuta, elkarteek Arartekoari proposatu zioten behintzat gomenda ziezaiola Osasun Sailari, programako adina jaitea onartzen ez badu ere, proba bat egitea ezarritako adinetik beheragokoekin. Iritzi genion ez zela egokia modu horretan esku hartzea; izan ere, hala jarduteak esan nahiko luke hain zuzen ere osasun administrazio horrek uste duela badirela arrazoiak adin tarte horretako emakumeei mamografiak egiteko, nahiz eta egin dugun balorazioa kontuan hartuta adostasunik ez dagoen horren inguruan.

Aurreko txostenetan, behartuta ikusi dugu geure burua tabako kontsumoaren mugak bete-zearen inguruko egoera hori aipatzeko.

Ikuspegi materialetik, osasun arlo horretan kokatu ditugu tabako kontsumoari buruzko kexak. Kexen xedearen ikuspegitik, ordea, eragindako administrazioa ez da Osasun Saila edo Osakidetza, baizik eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, edo beste sail bat, baldin eta hor gertatu bada tabako kontsumoarekin lotutako arazoa edo arau-haustea.

Droga-mendetasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko 18/1998 Euskal Legearekin lotutako Estatuaren 28/2005 Legea aplikatzean sortu diren zailtasunen inguruan zer jarduera egiten jarraitzen duten adierazi digu Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, besteak beste, lege batean eta bestean tipifikatutako egoerak ez datozelako guztiz bat, eta horrek eragina duelako zigor espedienteak izapidetzeko organo eskuduna zein den erabakitzeke orduan.

Legeria egokitu beharra dagoela erakusten duten egoera horien ondoan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren txostena erretzaile ez direnei eragiten dieten hainbat arazori buruzkoa da; izan ere, ez da araudirik egin horiek babesteko. Erre daitekeen establezimenduetan dauden adingabeen kasua da hori, edo establezimendu horietan lan egiten dutenen osasuna babestearekin zerikusia duten kasuak.

Horri dagokionez, beharrezkoa da kexa horiek jasotzea, tabako kontsumoarekin lotuta baitaude horiek ere, baina ostalaritzako establezimenduetan lan egiten dutenen ikuspegitik eginak; izan ere, horiek ere jasan behar izaten dituzte bezeroak erretzaileen "keetatik" babesteko neurriak legez ezartzeko arrazoi izan diren kausa berberak. Langile horiek ez daukate beste establezimendu bat hautatzeko aukerarik, eta, hala ere, begi bistakoak dira nolako eragozpenak jasan behar izaten dituzten. Arazo horren gainean jarduten dira droga-mendekotasunaren zuzendaritzak Eudelekin egiten dituen bileretan, indarrean dagoen eskumenen esparruan gestioak egiteko zer aukera dauden aztertzeke.

Administrazio eskudunak eman digun informazioaren arabera, gaur egun arau esparru bat idazten ari dira, legezko drogen salmenta eta kontsumoaren gaineko eskumenak eta egoerak gehiago zehazteko eskaerari erantzuteko, bai eta bereziki zaurkorak diren pertsonak establezimenduetara sartzearen inguruko kontuak zedarritzeko ere. Eman diguten informazioaren arabera, esku-hartze hauek planifikatu dira:

1. Tabakoaren kontsumoaren eta salmentaren arloko politikari eta legeriari buruzko azterlanak eskatuko dira hainbat autonomia erkidego eta estatutan, gaur egungo legerian atzemandako hutsuneak gainditzeko.
2. Batzorde juridiko bat sortuko da.
3. Azterlana Droga-mendetasunen Eusko Kontseiluaren osoko bilkuran aurkeztuko da.

I.13

LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

13. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

2008an, Lan eta Gizarte Segurantzaren arloan, guztira, 4 kexa aurkeztu dira.

Gizarte Segurantzako arazoei buruzko kexak Herriaren Defendatzaileari bidali zaizkio, Legebiltzarreko ordezkari horren eskumenekoa baita Estatuko Administrazio Nagusiko organoen jarduketara fiskalizatzea. Kexa horien artean, iazko txostenean, ordura arte Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailerik prestazio batzuk jasotzen zituzten pertsonen egoerari buruzkoa zegoen; prestazio horien aurrekaria laneko istripu bat zen, eta horren eskumena Gizarte Gaietako Ministerioari zegokion.

2008an jasotako kexan azaldutakoa aintzat hartuta, arazoa konpondu gabe zegoen; izan ere, Gizarte Gaietako Ministerioaren Probintziako Zuzendaritzak urte horretan ezezkora eman zion eskabideari, ordura arteko ebazpenetan adierazitako zergatietan oinarrituz; hain zuzen ere, prestazioaren aurrekaria laneko istripua eta, beraz, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren erantzukizunekoa izan arren, ulertzen zen ordainketa Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari zegokiola. Baina, azkenik, egiaztatu dugu GSIN aldeko ebazpenak ematen hasi dela, eta Osasun Sailak horri buruzko informazioa ematen die, administrazio horretan eskabidea aurkeztu nahi dutenei.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen arloan, jasotako kexak lanerako laguntza deialdiei, Lanbiden lan eskaintza batzuk jasotzeari, hauteskunde aktetako erregistroko oharrei eta familia nahiz lanbide bizitza adiskidetu beharrari buruzkoak izan dira.

Lanerako laguntzei dagokienez, lanaren eta gizarte segurantzaren arloko eskumena oraindik transferitu gabe egon arren, Euskal Autonomia Erkidegoan ekimen garrantzitsuak garatu dira lanean egonkortasun eta kalitate handiagoa lortzeko. Esparru horretan sartu behar dira foru aldundiek ezarritako diru-laguntza programak, Estatuak sorturiko laguntzak osatzen dituztenak.

Diru-laguntza horiek aplikatzeari buruzko kexa egon da. Hain zuzen ere, hori Arartekoaren iritzipean jarri zen, Bizkaiko Foru Aldundiko 2007ko martxoaren 6ko 35/2007 Foru Dekretuak ezarritako laguntzak kontuan hartuta, lanaren egonkortasuna sustatzeko, 50 urtetik gorako langile baten (gizona) aldi baterako kontratua behin betiko kontratu bihurtuta.

Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailak gaitzirritzi egin zion eskaerari, langilea 50 urtetik gorakoa ez zelako, aldi baterako kontratua behin betiko bihurtzeko unean, nahiz eta data horretan langileak ia 50 eta 11 hilabete eduki.

Gaitzirizpena justifikatzeko adierazitakoaren arabera, *“una persona que tiene 50 años no puede considerarse, estrictamente hablando, como mayor de 50 años, ya que para ello debe tener cumplidos 51 años”*.

Arartekoak gomendioa eman zion Lan eta Trebakuntza Sailari, enpresa sustatzaileari 35/2007 Foru Dekretuak diru-laguntzak emateko ezarritako prozeduran parte hartzeko es-

kubidea onartzeko; izan ere, agerikoa zen enpresa horrek konfiantza jarri zuela Bizkaiko Foru Aldundiko Sailean, eta asmo onez jardun zuela, diru-laguntzaren helburuaren interpretazioa egitean (gehienetan onarturiko interpretazioa). Horri dagokionez, kontuan hartu behar da arauak berak ez duela zehazten 50 urtekoa nor den, diru-laguntza hori aplikatzearen ondorioetarako, nahiz eta sail horrek oztoporik ez eduki diru-laguntzaren helburua argi eta garbi zehazteko.

Gainera, erakunde honek defendaturiko jarrera aurreratu ondoren, Lan eta Trebakuntza Sailak, 2008ko deialdian (maiatzaren 19ko 87/2008 Foru Dekretua), berariazko erreferentzia jaso zuen, erreferentziako denbora unitatea urtea zela argitzeko. Hain zuzen ere, 8. artikuluan jasotako aipamen berezian hauxe esaten zen: *“Adina urteka zenbatuko da, jaiotegun osoa barnean hartuta.”*

Zehaztapen horrek, berorren idazketa oso argigarria izan ez arren, 87/2008 Foru Dekretuak erabilitako denbora unitatea zehazten zuen, baina ez zuen aldatzen 35/2007 Foru Dekretuaren edukia, bertan ez baitzegoen jasota. Izan ere, 2008ko deialdian sartzeak gehiago nabarmendu zuen ez zegoela 35/2007 Foru Dekretuan jasota. Denbora erreferentzia hori gabe urratu egiten zen Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailak manuari eman nahi zion interpretazioa.

Gogor saiatu arren, gure gomendio hau ez zen onartu. ([2008ko uztailaren 30eko Ebazpena](#)³⁹).

Lanbideri buruzko kexa, izatez ere, ordaindutako telefono deiak behar dituzten eskaintzen iragarkiak jasotzearen ingurukoa zen. Informazioa eskatu diogu Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari, eta, txosten hau amaitzeko orduan, espedientea izapidetzen zegoen. Gainera, kexaren barruan komunikabide pribatuetan eskaintza berberak sartzea ere aipatzen zenez, kexa aurkeztu duenari jakitera eman nahi diogu Merkataritza Komunikazioa Arautzeko Elkartera jotzeko aukera duela.

Hauteskunde sindikalen bulego publikoaren funtzionamenduari dagokionez, enpresa baten ordezkariak Arartekoaren erakundera jo zuen, uste baitzuen bulego horrek ez ziola bere eskariari erantzun egokirik eman (langileria ordezkari bati buruzko ziurtagiriak amaitzeko eskaera).

Ordezkaritza hori ezezteko erabakia hartu zen, eta akordio hori epaitegian aurkaratu zen, eta epaitegiak akordio horren aldeko epaia eman zuen.

³⁹ Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 30ekoa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailari gomendatzen zaio Auto-reparaciones (...) S.L. enpresari aitortzeaz 35/2007 Foru Dekretuak sortu zituen diru-laguntzak emateko prozeduran parte hartzeko eskubidea. Diru-laguntza horiek 50 urtetik gorako langile gizonezkoen aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko dira.

Gure eskaerari emandako erantzunean, laneko administrazioak jakitera eman zigun epaia oraindik ez zela irmoa, erregu errekurtsioa jarri baitzen. Lan Prozedurari buruzko Legeak (287. artikulua eta hurrengoak) ez du jasotzen kexan aipaturiko kasua, behin-behineko betearazpena egiteko aukera ematen dutenen artean; hori kontuan hartuta, lan administrazioaren erantzuna egokia zela esan daiteke.

Balorazio horren arabera, Lurraldeko Hauteskunde Batzordeak aplikaturiko irizpidea hauxe zen: enpresetako ordezkariak aldaketako komunikazioak ebatzi gabeko gorabeherat hartzen zituen, horiek ebatzen judizialik gabeko akordioetan oinarriturik zeudenean. Bien bitartean, ez zen egiten lehenagoko akordioak aldatzeko inskripziorik.

Laneko betebeharrak bizitza pribatuarekin bateratzera bideratutako neurrien inguruan zenbait kasutan sortzen diren zailtasunak agerian jarri ziren, familia ugariko ama batek aurkezturiko kexan.

Aurkezturiko kexa honetan, desadostasuna agertu zuen EITBk ez zuelako onartu berak proposaturiko lanaldi murriztapena. Kexa hori oinarritzeko, familiako eta laneko bizitza moldatu beharra adierazi zuen, kontuan hartuta familia ugariko ama zela.

Ikusten denez, halako zailtasunak Eusko Jaurlaritzan aurkezturiko urteroko txostenetan jasota daude, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko atal berezian.

Emakume horrek aurkezturiko alegazioak egiaztatzeko, informazioa eskatu diogu EITBri, erakunde horrek balorazioa egiteko, emakumeak lanaldia berrantolatzeke aurkeztu duen proposamenari buruz. Desadostasuna auzibidera eramatearen ondorioz, ez genuen esku hartu beharrik izan.

I.14

**HIRIGINTZA ETA LURRALDE
ANTOLAMENDUA**

14. HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

Sarrera

Hirigintza eta lurraldeko antolamendu arloak hirigintzako hiru estadioei buruz –lurzoru, hirigintza eta lurraldeko antolamendua, hirigintzako eraldaketa prozesua eta hirigintzako diziplinaren erabilera– Arartekoak burututako jarduketan berri ematen du.

Hirigintza eta lurraldeko antolamendu arloan jasotako kexak 82 izan dira, aurkeztutako erreklamazio guztien %6,47, alegia. Dagozkien administrazioei dagokienez, kexak honela banatzen dira:

- Tokiko administrazioa	79
- Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza)	4
- Foru Administrazioa	3

Azpisailak kontuan hartuz:

- Hirigintzako diziplina eta Aurria	44
- Irisgarritasuna	13
- Hirigintzako antolamendua	13
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	7
- Hirigintzako kudeaketa	4
- Kontratazio, ondare eta administrazioaren erantzukizuneko erregimena	1

Gai horri buruzko **lege berrikuntzei** dagokienez, 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena aipatuko dugu; haren helburua, izenak adierazi legez, Estatuak indarrean zeukan lurzoruari buruzko arautegia testu bakar batean bategitea da; bertan, lurzoruari lotutako konstituzio eskubide eta betebeharren oinarriko baldintzak biltzen dira.

Gure Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzak 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa garatzeko premiazko neurriei buruzkoa onartu du. Sistematik kanpoko eta zati bateko xedapen hori 2/2006 Legeak sor zitzakeen interpretazioari buruzko zalantza batzuk konpontzen ahalegindu da. Dena dela, oraindik, arau horretako lehen xedapen gehigarriak adierazten zuenez, gobernuak, urtebeteko epean, prestatu behar zuen arautegiaren garapenak egiteke jarraitzen du.

Hirigintzak sortutako plusbalioetan erkidegoak daukan partaidetza aldatzen duen azaroaren 28ko 11/2008 Legeak 27. artikulua berria sartzen du; horren helburua finkatu gabeko hiri-lurzoru urbanizagarriaren jabeek emateko dauzkaten betebeharrak hirigintza kargarik gabeko eraikigarritasun haztuaren %15era igotzea da.

Txosten honen xedearen barruan herritarrek Administrazioaren jokabidea zalantzan jarri Arartekoari aurkeztutako keaxak eta erreklamazioak nabarmentzea dago. 2008ko LLTBko 4. artikulua zerrendatzen duen herritarren eta jabeen eskubide eta askatasunen zerrendak, bidea ematen du aurkeztutako keaxak lege testu horrek biltzen dituen eskubide mailaren batera birbideratzeko.

- Etxebizitza duin, egoki eta irisgarria izateko eskubidea

Lehenengo eskubideak Konstituzioko 47. artikulua xedatzen duen **etxebizitza izateko eskubidea** eratzten dituen elementu batzuk xedatzen ditu. Gizarte eta ekonomi politikaren printzipio gidari horrek garapen eta eduki berezia dauka hirigintza eta ingurumenari buruzko arategian.

LLTBren arabera, etxebizitzak duina, egokia eta irisgarria, isuri kutsagarririk gabea izan behar du, eta ingurune eta paisaia egokian egon behar du.

Eskubide horren eta dagozkion elementu guztien aplikazio zuzena herritarrek hirigintzako eta lurraldearen antolamendu arloaren barruan aurkeztutako erreklamazioetan maiz errepikatzen den zioa da.

Auzo edo inguru hondatuen hiri-biziberritzerako jarduketa publikoek gogoan izaten dute herritarrek etxebizitza duina izateko daukaten eskubidea. Etxebizitza zaharkitua zaharberritzeko premiak dakarren interes publikoaren abiapuntua etxebizitzotan bizi diren okupatzaileei berriro bizilekua emateko irtenbidea bilatzeko betebeharra da. Ez litzateke ulertuko, auzo hondatu baten hiri-biziberritze prozesuaren ondorioz, ordura arte etxebizitza zeukaten pertsonak hura utzi eta ohiko etxerik gabe geratu beharra. Zentzu horretan, legediak izaera orokorra eman die **berriro bizilekua emateko** eskubideari eta itzultzeko eskubideari, hirigintzako jarduketak eragindako etxebizitza hustu behar duten pertsonentzat.

Hirigintza jarduketek eragindako pertsonen bizileku berria ematea estatuko legediak sartu zuen eskubidea da –Lurzoruaren eta Hirigintzako Antolamenduaren erregimenari buruzko Legearen Testu Bategineko Bigarren Xedapen Gehigarria, 1/1992 Legegintzako Errege-dekretua, ekainaren 26koa–. Lege horrek hirigintzako jarduketa baten ondorioz euren ohiko bizilekutik irtenarazitako higiezin legezko okupatzaile guztiei bizileku berria emateko eskubidea bermatzen zuen, zein ere zen plana burutzeko hautatutako jokabide sistema.

Hala ere, Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 20ko 61/1997 ebazpenak eskubide horri eragin zion; izan ere, Auzitegiaren aburuz, Estatuak derrigorrezko desjabetzeak arautzeko baino ez dauka eskuduntzarik, eta gainontzeko hirigintzako kudeaketa sistemak Hirigintzan eskuduntza daukaten Autonomia Erkidegoei dagozkie. Hori dela eta, hirigintzako jarduketa partikularren –ohikoena– ekimenez edo administrazioarekin baterako ekimenez zeneko eskubidea arautzen zuen bigarren atalaren konstituzio kontrakotasuna ebatzi zuen. Egoera horri, Eusko Legebiltzarrak bizileku berria emateko eskubidea osorik arautu ez izana batu zitzaion.

Horregatik, denboraldi batez, autonomia erkidegoan egoera paradoxikoa egon da: hirigintzako legediak bizileku berria emateko eskubidea administrazioak hautatutako jokabide sistemaren arabera onartzen zuen. Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak (LHL) egoera konpondu du. Hango bigarren xedapen gehigarriak bizileku berria emateko eskubidea jasotzen du ohiko bizilekua duten etxebizitzaren legezko okupatzaileen-tzat, zein ere den hirigintzako jarduketa sistema. Lege hutsune hori Arartekoarengana jo duten pertsona batzuen kexa eta kezkarako zioa izan da, oraindik ere hirigintzako kudeaketa jarduketa batzuek arestiko arautegiari heldu edo bertan babestu nahi dutelako.

Kexa kasuetako bat Sestaoko Simondrogas inguruko hiri-biziberritze prozesuak eragindako familia batzuen egoerari buruzkoa da. Pertsona horiek gabezia eta kalte handiak zeuzkaten eraikinetan bizi ziren, kasu batzuetan hondameneko egoeran deklaraturako eraikinetan. Horregatik, udalaren plangintzak ingurua biziberritzeko eta okupatzaileei bizileku berriak emateko xedapenak sartu zituen.

Familiek aurkeztu diguten arazoa honakoa da: kasu batzuetan, Udalak ez du bizileku berria emateko eskubidea aintzat hartu, eraikinaren aurre-deklarazioa eta eraisteko agindua egozteagatik, edo legez arlo horretan (konpentsazio sistema) xedaturako hirigintzako jarduketa sistemaren arabera eskatzeko modukoa ez litzatekeela uste izateagatik.

Arestiko txostenetan adierazi genuenez, Sestaoko Udalak, bestelako herri-administrazio batzuekin batera, inguru horretako hiri eta gizarte biziberritzeko programetarako plan zuzendaria deritzon kudeaketa agiria prestatu zuen. Plan horrek, bere gogoeten artean, administrazioak hirigintzako desjabetzearen bidez jokatzeko duen kasuetarako bizileku berria emateko eskubidea bermatzen zuen irizpidea jasotzen zuen. Gainontzeko kasuetan, aurrizko deklaraturako eraikinetan edo birziriketa txosten batean sartutakoetan, bizileku berria emateko eskubidea aipatu plan zuzendaria onartu zenetik azken hamabost urteetan benetan bizi izana egiaztatu ahal bazuten baino ez zuen berariaz onartzen.

Irizpide horren aurrean, Arartekoak proposatu zuen Sestaoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hirigintzako jarduketa horrek eragindako etxebizitzaren legezko okupatzaile guztiei bizileku berria emateko eskubidea bermatu behar zutela, eraikina aurrizko egon arren eta zein ere zen erabilitako kudeaketa⁴⁰.

Jarduketa horrez gain, 2008an pertsona batek bere izenean egindako erreklamazioa jaso dugu; pertsona hura Sestaoko inguru horretan ordenazioz kanpo deklaraturako eraikin bateko etxebizitza baten jabea da. 2003an behin betiko onartutako Hirigintzako Antolamendurako Plan Orokorren arabera, jabeen ekimenez, konpentsazioaren bidezko jarduketa aurreikusten zen, eta horren arabera eraikina eraitsi eta lurzoru administrazioari emango zitzaion. Udalak eraikinaren ohiko aurre-deklarazioa izapidetu zuen, eta txostena 2005eko abenduan bukatu zen.

⁴⁰ Arartekoak Eusko Legebiltzararentzat egindako txostena 2006, II. eranskina, Bestelako ebazpenak.

Erreklamaziogileak zioenez, ezin izan zuen txosten administratibo hori eskuratu. Horregatik, Sestaoko Udalari ebazpen horren kopia bat eskatu eta eraikina erausteko planaren aurrean zegoen babesgabetasuna azaldu zuen, udalak ez ziolako bizileku berria emateko eskubidea onartzen. Sestaoko Udalari gaiari buruz galdetu, eta hark jakinarazi zigun ez zela aurreikusten bizileku berria ematea jarduketak ez zekarrelak o desjabetzerik –61/1997 KAetik eratorritako hirigintza legedia aplikatu behar zitzaion– eta aurri-deklarazioaren ondoren eraikinean bizi-tzen jarraitzen zuen erreklamaziogileak bete ez zuen eraikina husteko agindua eman zelako. Dena dela, jakinarazi zigunez, hasieran birzatiketa proiektua 2007ko urtarrilean onartu zen, hots, LHL indarrean sartu ondoren.

Informazio hori ikusita, Sestaoko Udalera jo eta eraikin horren legezko okupatzaileei bizileku berria emango zaiela bermatzeko premia adierazi genion, birzatiketa proiektua Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera izapidetuko zela kontuan hartuz. Udalaren erantzunak berretsi zuen, kasu horretan, eraikinaren aurri-deklarazioaren ostean, erreklamaziogileak higiezinaren legezko okupatzaile izaera galdu zuela, eta ezin zela bizileku berria emateko eskubidea eskatu.

Abanto-Zierbenako Santa Juliana auzoko auzokide batzuegandik jasotako beste erreklamazio batek dio administrazioak, auzokideei bizileku berria emango zaiela eta egun pairatzen dituzten gizarte eta hirigintza arazoak saihestuko direla bermatuz, lekua biziberritzeko dauzkan planetan aurrera egin behar dela.

Administrazioak hiria biziberritzeko prozesua legezko okupatzaileei bizileku berria emateko asmo argiarekin zuzendu behar du. Biziberritzeko plana indarrean jartzeko epearen zehaztapen zuzena erabakigarria da etxebizitzaren legezko okupaziorako, eta bizileku berria emateko eskubidea beharrik gabe erreklamatzeari saihesteko balio du. Bestalde, esku-hartze publiko bizkorrak gizarte-esklusioko arriskuan dauden pertsonak eta taldeak hiri ingurune degradatu horietan pilatzea eta behin-behineko aldi horretan higiezinak hondatzea prebenitzeko, eta irtenbide duinik gabe jendea irtenaraztea dakarren eraikinen “hustuketa” errazteko tekniken erabilera galarazteko balio dezake.

Eraikinaren aurri-deklarazioa jabeak bere etxebizitzari erabiltzea eta izatea ahalbidetuko duten baldintza egokietan eusteko daukan betebeharraren testuinguruan kokatu behar da. Eraikinaren hondatzeak eta jabearen jarduerarik ezak egikaritze aginduen bidez eta, haiek alferrekoak direnean, aurri-deklarazioaren bidez esku harrarazten diote administrazioari. Eraikina mantentzeko betebeharraren porrotak eraikina eraisteko beharra eta etxebizitzak erabiltzeko eta izateko eskubidearen iraungipena dakartza.

Dena dela, aurri-deklarazioa, husteko agindua eta eraikinaren eraisketa ez dira era desegokian erabili behar, hirigintzako sustatzaileari lana erraztuko dion hirigintzako kudeaketa teknika bezala, eta are gutxiago, bide horretatik euren etxebizitza nola desagertzen den, bizileku berria emateko eskubidea nola iraungitzen den eta euren baliabide urrien bidez etxebizitza berria nola eskuratu behar duten ikusiko luketen legezko okupatzaileen eskubideak murrizteko.

Herritarrek egiten duten beste eskaeretako bat honakoa da: **etxebizitza irisgarria izatea**, hots, higiezinaren kanpotik arkitektura-oztopo gaindiezinik ez egotea. Atal horren barruan,

pertsona batzuek lehendik zeuden eraikinetan igogailuak jartzeko dauzkaten arazoak aipatu behar ditugu.

Herritarrek hainbat motatako arazoak azaltzen dizkigute. Alde batetik, etxebizitza guztietara iristen utzi eta eraikinaren segurtasuneko baldintzen murrizketa ez dakarren igogailua jartzeko higiezinaren jabe guztien arteko adostasuna egoteak dakartzan zailtasunak agertzen dituzte.

Bestetik, oztopo hori ezabatzeko irtenbidea ez da beti posible eraikinaren barruan edo komunitatearen lursail pribatuaren barruan. Holakoetan, fatxadaren gainean erantsi eta onura publikoko lurzorua zati bat hartu behar izaten da.

Neurri horrek dakarren hirigintza arazoa hiriko lursailak behar bezala antolatzeko interes publikoa eta eraikinerako irisgarritasuna ahalbidetzeko gizarte interesa neurtzean datza. Administrazioek baloratu behar dute noiz baimen daitekeen onura publikoko guneak estutu eta eraikinen eraketa eta estetika aldatzen duten eremuak okupatzea.

Onura publikoak eta gizarte interesak igogailua jartzeko behar den eremu publikoa jaregitea eta hura alboko jabeen komunitateei eskualdatzea ahalbidetzen dute. Hori ez da oztopoa interes publikoa igogailua lursail pribatuaren barruan jar daitekeen kasuetara ezin zabal daitekeela defendatzeko. Gauza bera esan daiteke oztopoen ezabaketa gainditu eta eraikinaren eraikigarritasuna zabalduz edo barruko esparruen banaketa hobetuz edo zabalduz ondareko etekina bilatzen duten eraikitze irtenbideei buruz.

Getxo, Bilbo edo Irun bezalako udal batzuek ordenantzen bidez arautu dituzte dauden eraikinetan igogailuak jartzeko betekizunak, eraikinaren edo lursail pribatuaren barruan konpondu ezina justifikatu beharretik abiatuz. Beste udal batzuek, ordea, Barakaldoko Udalak, besteak beste, auzokideek okupatzeko egindako proposamenei kasuz kasu erantzutea aukeratu dute. Xedapen orokor batean jasotako irizpide objektiborik eza, beste batzuetan adierazi dugunez, erakunde honen aurrean kexatzeko zioa izan da. LHLak, bere aldetik, lursail pribatuaren barruan igogailua ipintzea errazteko higiezinaren elementu pribatuak desjabetzeko aukera sartzen du. Lursailaren barruan irisgarritasuna konpontzeko betebeharrak kaltetu gabe, udal batzuen ordenantzetan sartu den legegilearen hautu horrek arazoak ekar ditzake, jabetza horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen arabera erabakiak hartzeko arauak aldatzen dituen eremu pribatuko kontu batean esku hartzen baitu. Ez da honako ikuspegia galdu behar: hirigintzako baimenak neutroak dira kontu zibiletarako, eta hirugarrenak kaltetu gabe ematen dira.

Arartekoaren erakundetik, izaera orokorreko interes arruntekoak deritzegu pertsonen irisgarritasun unibertsala bermatzeko dauden eraikinetan igogailuak jartzeko baldintzei. Beharrezko egokitzapen hori higiezinak zaintzeko eta zaharberritzeko betebeharretik dator –LHLko 199. artikulua–, eta jabego pribatuaren barruko irisgarritasunari buruzko arautegia betetzen dela bermatzen duten egikaritze aginduak emateko aukera jasotzen du. Komunitateak aukera horren bideraezintasuna objektiboki justifikatzen duen kasuetan, esaterako, eraikinaren bizigarritasun edo segurtasun baldintzei eragiteagatik, udalak eremu publikoaren

aldi baterako erabilera pribatiboa ematea erabaki dezake eraikuntzako tipologiak eta bideko irisgarritasunak uzten duten inguruetan.

Etxebizitzarako eskubidearen edukiak eraikina eta hura dagoen **hiriko ingurune egokia** biltzen ditu. Ingurune horrek kalitatezko ingurumen estandarrak izan behar ditu, zeinek, ingurumeneko beste aldagai batzuen artean, hirigintzako antolamenduak nahi duen bizileku erabilera aintzat hartu behar baitu. Horretarako, eskuduntza daukan administrazioak plangintza fase horretan behar bezala ebaluatu behar du erabakiaren ingurumen inpaktua. Kontrol hori egiteko tresna Ingurumenaren Babeserako otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak hirigintzako planetarako jasotzen duen ingurumeneko ebaluazioa da.

Txosten honen barruan aholku orokorra sartu dugu; bertan planteatzen duguna ingurumenean eragin esanguratsuak dauzkaten antolamendu xehakatu hirigintzako plan guztien beharrezko ingurumeneko ebaluazioa da.

- Hornidura publikoak eta taldeko ekipamenduak erabili ahal izateko eskubidea

Eskubide horren alderdietako bat arkitektura oztopoak ezabatuz taldeko ekipamendu eta hornidura publikoetarako irisgarritasun unibertuala bermatzeko premia da. Ekipamendu edo hornidura kontzeptu horren baitan, herritarrei zerbitzu publikoak (hirigintzakoak, garraioak, hezkuntzakoak, gizartekoak, kulturakoak, etab.) emateko behar diren azpiegiturak daude.

Gai horretan egondako hobekuntza begi bistakoa da gure herri eta hirietan, eta Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen eta haren arautegiaren garapenaren aplikaziotik dator.

Aurtengo ekitaldian, gure autonomia erkidegoan ezgaitasunen bat duten pertsonen elkar-teez egindako eskaeren aurrean, 10.000 biztanletik beherako udaletara jo eta eremu publikoetan, eraikinetan, garraioetan eta informazio eta komunikazio sistemetan irisgarritasunari buruzko arautegia noraino betetzen den ebaluatzea adostu dugu.

Bere aldetik, eskubide horren erabilerari buruz jaso ditugun kexek pertsona guztiei orokorrean, eta bereziki ezgaitasunen bat daukan taldeari hiri ingurura eta zerbitzu publikoak ematen diren esparru eta higiezinetara iristea oztopatzen dieten oztopoak ezabatu nahi dituzte. Horrela, kirol ekipamenduetara –igerilekuak, kirol zelaia–, osasun ekipamenduetara –anbulatorioa– edo ibilgailuen aparkalekuetara iristeko arazoak agertu dira.

Pertsonen eremu publikoetarako irisgarritasunari lotutako arazoetako bat, irisgarritasuna sustatzeko planetatik datorrena, hiriko oztopoak ezabatzeko edo gainditzeko onartutako udal lanetan eskailera mekanikoak jartzeko aukera bakarra da, beste aukera batzuk egon arren, esaterako, igogailu egokituak jartzea. Aldapek eta eskailera mekanikoek ez dute pertsona guztien irisgarritasunaren arazoa konpontzen (adinekoak, haurrak dauzkaten pertsonak, ezgaitasun fisikoa daukatena); holakoek, printzipioz, ezin erabil litzakete holako instalakuntzak.

Hiri eremuei dagokienez, Arartekoaren ustez inplikaturako herri-administrazioek behar den ahalegina egin eta gure udaletako hiri eremuetan pertsona guztiei irisgarritasuna bermatzeko behar diren neurri guztiak bultzatu beharra azpimarratu behar da. Erakunde honen aburuz, arautegian jasotako xedapenak betetzeko, lantzen ari garen kasuan, aldapak, eskailera mekanikoak edo tapiz mugikorak jarri beharrean, egokitutako igogailuak jartzeari eman behar zaio lehentasuna. Hori dela eta, udal askok herriko gune desberdinen arteko komunikazio arazoak igogailuak edo plataforma altxagarriak jarriz konpondu dituzte, horren erabilerak benetan ahalbidetzen baitu pertsona guztien irisgarritasuna.

Horri lotuta, Andoaingo eta Hondarribiako Udalekin kexa txostena izapidetu dugu hiriko egituraren barruko mailen arteko aldea gainditzeko eskailera mekanikoak jartzeagatik. Kasu horietan dagokien administrazioei aipatu hiri eremuetan elementu biak jartzeko aukera helarazi diegu. Igogailua jartzea aurreikusiko ez balitz, ezintasuna inguruaren ezaugarri orografikoengatik justifikatu behar litzateke.

- Hirigintzako antolamenduari eta aplikagarriak diren hirigintzako erregimen eta baldintzei buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea

Norbanakoen eta elkarten kexek azpimarratzen duten kontuetako bat honakoa da: batzuetan, zailtasunak daukate udal batzuetan izapidetzen ari diren hiriko antolamendurako tresnei buruzko informazioa eta agiriak eskuratzeko.

Lurzoruari eta hirigintzari lotutako kontuetan, informaziorako eta txostenak eskuratzeko eskubidea ordenamendu juridikoak jasotzen duen ekintza publikoari dago zuzenean lotuta, eta edozein herritar edo elkarteri uzten dio jarduten hirigintzako legedia betetzen dela ziurtatzeko, interes zuzenik egiaztatu beharrik gabe.

Hirigintzako informaziorako eskubidea bermatzeko mekanismo bi daude jarrita: udal planigintzaren edo hirigintzako bestelako txostenen azterketa material zuzena eta idatzizko informazio zuzena. Bestalde, informaziorako eskubideak beste bat dakar berekin: planak eurak eratzen dituzten agirien kopia eta hirigintzako txostenei atxikitako gainontzeko agiriak eskuratu ahal izatea.

LHLak parte-hartze eta informazio printzipioa jasotzen du; horrek -8. eta 9. artikulua - pertsona guztiek daukatela interesdun agertzeko eskubidea dakar, legitimazio berezirik egiaztatu barik, eta agiritegietan dauden agirien kopietara iritsi eta haien eskuratzeko eskubidea ere badaukatela. Bestalde, LLTBak, lurzoruaren jabetza eskubidetik bananduta, herritarrek hartutako administrazio egintzei buruzko informaziora iristea eta haien kopia eskuratzeko herritarren eskubide gisa xedatzen du. Era berean, 27/2006 Legeak, uztailaren 18koak, justiziari buruz informatzeko, parte hartzeko eta iristeko eskubideei buruzkoak (JIPIEL), ingurumen kontuetan, zenbait elkarteri hirigintzako antolamendu planetan partaidetza publikoa bermatzeko informaziora iristeko eskubidea erabiltzeko ematen dien izaera berezia.

Hirigintzako informaziora iristeko eskubide horren erabilera [2008ko abenduaren 2ko Ebazpenean](#)⁴¹ planteatzen den kontuetako bat da Ebazpen horretan, beste kontu batzuen artean, Bakioko Udalari hirigintzako informaziora iristeko eta hirigintzako txostenak osatzen dituzten agirien kopia eskuratzeko eskubidea arrazoitutako ebazpenaren bidez legez tasatutako kasuetan baino ezin dela mugatu gogorarazi genion. Gainera, herri-administrazioek interesdun agertzeko eskubidea bermatu behar dute hirigintzako prozeduretan interes bezirik egiaztatu beharrik gabe.

Zentzu berean [2008ko martxoaren 28ko Ebazpena](#)⁴² aipatuko dugu; bertan, hura garatzeko kontratatu zen talde teknikoaren jabetza intelektualari lotuta, birzatiketa txostenera iristeko eta haren kopia eskuratzeko eskubidea aztertu dugu. Ebazpen horretan, jabetza intelektualari buruzko arautegiak xedatzen dituen legezko mugen azterketa egin genuen; egileak bere lanerako daukan eskubidea gordetzen du arautegiak, eta jabetza intelektuala osatzen duten agirien kopia eskuratzeko eskubidea mugatu eta are eragotz dezake.

Egile eskubideak arautzen dituen legediak ezin du –inoiz ere eta kasu guztietan–, proiektuaren egile eskubideetan oinarrituz, informaziorako eta kopia eskuratzeko eskubidea mugatzen duen interpretazioa egin, ekimen partikularrez izapidetu arren, erregelamenduzko xedapen edo, hirigintzako baimenei dagokienez, administrazio hitzarmen gisa onartu diren hirigintzako proiektuetan. Jabetza intelektualari buruzko legeriak dakartzan mugek sarbidea mugatzen utziko lukete administrazioaren ustez erreklamaziogilearen helburua hirigintzari lotutako kontuak ez balira eta nabarmenki egilearen baimenik gabe hedatzeko bestelako arrazoiak baleude.

Eskubide biak uztartzeko xedez, tokiko administrazioek ezar dezakete eskatzaileak hirigintzako legeriaren defentsarako eskuratutako informazioaren eta agirien erabilera egokia egiteko konpromisoa hartu behar duela.

- Hirigintzako antolamendu eta egikaritze prozeduretan efektiboki parte hartzeko eskubidea

Hirigintzako prozeduretan efektiboki parte hartzeko eskubidea, informaziorako eskubidearekin batera, erakunde honi lurzorua antolamendu eta erabilera proposamen batzuei aurka egiten dieten herritar taldeek maizen aurkeztzen dizkioten kexetako bat da.

Benetako parte hartze efektiboak honakoak eskatzen ditu: herritarrei proposamenari buruzko informazioa izateko eskubidea aitortzea, oharrak, iradokizunak edo bestelako proposamenak erabakia hartu aurretik aurkezteko aukera eta, beti ere, dagokion administrazio organoak, azken batean, erabakia hartzeko ahalmena daukan organoak, ekarpen horiek behar bezala baloratzea. JIPIELak, interesa duten herritar jakin batzuek edo elkarteek, zeinen

⁴¹ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 02koa. Horren bidez, amaiera ematen zaio Bakioko plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketaren gaineko jarduerari.

⁴² Arartekoaren ebazpena, 2008ko martxoaren 28koa, Ortuellako Udalari egina. Horren bidez, amaiera ematen zaio hirigintzako espedienteak kontsultatzeko eskaerari erantzun arrazoiturik eman ez zaiolako hasi zen jarduerari.

xedeak ingurumenaren babesarekin edo eztabaidagai den arloarekin bat baitatoz, nahikoa aurretiaz efektiboki parte hartu ahal izateko administrazioekin harreman zuzena izateko aukera sartzen du, JIPIELko 16.2. artikulua.

Administrazioek LHLko 108. artikuluan xedatutakoak bezalako herritar partaidetzarako berariazko programak sustatu behar dituzte: administrazioak proposatutako erabakiak eta aukera posibleak azaltzeko saio publiko irekiak, izapidetzen ari diren hirigintzako tresnei eta herritarrek egindako ekarpenei buruzko dibulgaziozko materiala edo, eztabaida larriak egonez gero, herritar guztien partaidetza aktiborako bideak zabaltzeko aukera ere bai. Holako programetan eta burutu beharreko jardueretan administrazioek parte hartzeko lehentasunezko bidea eman behar diete ingurumenaren babesean eta hiriko garapen jasangarria interesa duten pertsona edo elkartei. Hirigintzako erabakiak hartzeko prozesuan herritarren ekarpenak lortzeko tresna baliagarria gure erkidegoko udal askotan eratu diren Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluak dira.

Atal horri lotuta, azpimarratu behar dugu jasotzen ditugun kexetako askok udal administrazioak udal batentzako hirigintzako antolamenduan proposatzen duen hiriko garapen ereduarekin ados ez dauden taldeekin daukatela zerikusia, eta plangintza tresna mota horren izapidetzean erabiltzen den metodologiaren aurkakotasuna adierazten dutela, etorkizun hurbilerako planari buruzko proposamenen gaineko iritzien erkaketa efektiborik ematen ez duelako.

Horrela, arestian aipatu dugun eta Bakioko Udalari zuzendu zitzaion 2008ko abenduaren 2ko Ebazpena aipatuko dugu; bertan, gaiari buruz hitz egin genuen eta holako elkarteek parte hartze prozesuetan informazioa izateko eta garapen ereduari buruz egiten dituzten proposamenak baloratuak izateko daukaten eginkizun nagusia aipatzen genuen.

Aurten 2006an hasitako jarduketara bat ere bukatu dugu; elkarte batek kexa bat aurkeztu zuen Bastida udalerriko Plangintzari buruzko Arau Subsidiarioen Berrikusketaren izapidetzeagatik eta golf zelaiaren kokapenaren aurreikuspenagatik. Funtsean, elkarteak hirigintzako agiriaren izapidetze prozesuan herritarrek orokorrean eta euren elkarteak, bereziki, izan zuten benetako parte hartze efektiborik eza adierazi zuten, eta uste zuten izapidetzeko fase bakoitzean aurkeztutako alegazioentzako erantzuna ez zela behar beste argudiatzen, ez zuelako zero aukera edo planik eza baloratzen. Zegokion informazioa eta balorazioa bilduta, Arartekoak [2008ko apirilaren 25eko Ebazpena](#)⁴³ eman zuen. Gure gomendioan, besteak beste, honakoa adierazi genuen: aurreikus zitekeen informazio publikoko izapidetze berrian, udalak aukera zeukala elkarte erreklamaziogileak agertutako kontuei arrazoitutako erantzuna emateko, horrela benetako herritar parte hartze efektiboagoa ahalbidetuz. Ebazpen hori betetzeari dagokionez, alkateak erreferentziazko ebazpena betetzeko eta, izapidetzearen barruan, Bastidako Hirigintzako Antolamendurako Plan Orokorrean Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostenetik ondorioztatzen ziren xedapenak sartzeko gomendioa onartzeko asmoa adie-

⁴³ Arartekoaren ebazpena, 2008ko apirilaren 25ekoa. Horren bidez, Bastidako Udalari gomendatzen zaio interesatuta dagoen orori aukera eman diezaiola Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrikusi eta egokitzeko prozesuan benetan parte hartzeko.

razi zigun. Komunikazio hori ikusita, ulertu genuen, ebazpenetik igarotako denbora eta Bastidako Udalaren Alkatetzak adierazitako asmoa gorabehera, kontua ez zela udalbatzara eraman, gaian eskuduntza daukan organoa hura izanik, aintzat hartzeko; horregatik, gomendioa ez onartutzat jo behar genuen, gerora eta etorkizunerako, hala balitz, dago-kion akordioa jasotzeko aukera kaltetu gabe.

- Lurralde, hirigintza eta ingurumeneko antolamenduko xedapenak errespetarazteko ekintza publikoa erabiltzeko eskubidea

Atal honetan hirigintza arloan eta, zehazkiago, hirigintzako diziplinan, erreklamazio gehien pizten dituzten kontuetako bat nabarmenduko dugu: pertsonen ekintza publikoaren erabile-ra hirigintzako legeria aplikada dadila eskatzeko.

Kexak egindako salaketen aurrean administrazioen aldetik dagoen esku-hartze faltari edo ahalmen publikoa erabiltzeko atzerapenari buruzkoak dira.

Udal administrazioek daukate, hirigintzako ikuskaritzaren eta hirigintzako baimenen bidez, hirigintzako antolamenduak araututako jardueren eta ekintzen kontrolean esku hartzeko eskuduntza.

Arestiko txostenetan adierazi dugunez, hirigintzako diziplinako ahalmenen erabilera lagaezina dela agintari eta funtzionarioentzat, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenez. Gairi buruz aurkeztutako salaketak izapidetzeko, eta hirigintzako legezkotasuna berreskuratzeko behar diren neurriak hartzeko betebeharrak, salatzailearen eta salatuaren artean egon ohi diren eztabaidetatik at geratu behar du, eta eztabaidek norbanakoen eremu pribatuan geratu behar dute.

Arartekoak, hirigintzako baimenik gabeko obregatik aurkeztutako salaketentzako erantzunik ezean, emandako ebazpenen artean, [2008ko apirilaren 23ko Ebazpena](#)⁴⁴ dago; bertan, Zaratomoko Udalari zegokien hirigintzako baimenik gabe egindako urbanizazio eta eraikuntza lanei lotuta hirigintzako diziplina txostena abiarazteko eskatu genion. Gomendioari jaramon egin zitzaion eta udalak burutzen ari ziren lanak etenarazi zituen.

Zentzu berean, Tolosako Udalera ere jo genuen, hirigintzako legeria bete zedila eskatzeko egindako zenbait eskaeren aurreko erantzun falta zela-eta egindako kexagatik. Kasu horretan, erreklamaziogileak jabe bati hirigintzako legeria itzultzeko lan batzuk egiteko agintzen zion udal ebazpenaren egikaritzea aipatzen zuen. Udalak uste zuen ez zirela esku hartzeko baldintzak betetzen, lanak egikaritu zirenetik igarotako denboragatik. Arartekoak [2008ko ekainaren 23ko Ebazpena](#)⁴⁵ eman zuen; haren arabera, udalari erreklamaziogileak diziplina txostena izapidetzen jarraitzeko aurkeztu zituen idatziei

⁴⁴ Arartekoaren ebazpena, 2008ko apirilaren 23koa. Horren bidez, Zaratomoko Udalari gomendatzen zaio hirigintzako diziplina-espeditentea has dezala dagozkion hirigintzako baimenik gabe egindako urbanizazio eta eraikuntzako zenbait obra direla-eta.

⁴⁵ Arartekoaren ebazpena, 2008ko ekainaren 23koa. Horren bidez, Tolosako Udalari gomendatzen zaio hirigintzako diziplinako espeditentearen izapideak egiten jarraitzeko

arrazoitutako erantzuna eman eta hirigintzako legeria, LHLko VI idazpuruak xedatzen duenaren arabera, bermatzeko behar ziren neurriak hartzea gomendatzen zitzaion. Bestalde, jarduteko agindua eskatzen duten administrazio egintzak, hirigintzako arau-urratzeetarako edo hirigintzako legedia itzultzeko operazioetarako lurzorua legeak xedatzen duenaren arabera, ez direla iraungitzen azpimarratu genuen. Emandako administrazio ebazpena LRJAP-PACko 94. artikulua xedatzen duenaren arabera egintza betearazlea zen, eta hura iraungitzeko epea hamabost urtekoa da. Gure ebazpenari erantzunez, udalak jakinarazi zigun, aipatu gomendioari jarraituz, erreklamazioileari arrazoitutako erantzuna emango zitzaiola.

Bestalde, gai honetan [2008ko azaroaren 21eko Ebazpena](#)⁴⁶ ere eman dugu; ebazpena auzokide talde batek titulartasun publikoko eraikin baten jardueratik datozen hondakin-urak Zadorrako sistemako urtegiaren inguruan isurtzeagatik jarri zuen kexari buruzkoa da. Dagoen administrazio guztietatik jasotako agiriak eta informazioa ikusita, gure balorazioa egin eta errekan gertatu zen isurketa desegokia zentroko arazketa sistemaren akats bategatik gertatu zela ondorioztatu genuen. Horrela, isurketak errekarari egindako kaltea txikia izan zen eta berehala burutu ziren baldintza egokiak berrezartzeko behar ziren jarduketak. Ulibarri Ganboako urtegia kaltetu duenik ere ez da sumatu, eta, beraz, ez da arriskurik egon ura handik jasotzen duten herritarrentzat.

Aurten, Donostiako gune megalitiko baten inguruko muinoan telekomunikazio antena bat kokatzea zalantzan jartzen zuen elkarte batek abiarazitako jarduketa bukatu dugu ([2008ko martxoaren 28ko Ebazpena](#)⁴⁷).

- Jabetzatik etorritako eskubideak

Bai Espainiako Konstituzioak –33. artikuluan– bai LLTBak lurzorua jabetzarako eskubidea bere gizarte funtzioaren arabera arautua eta mugatua izatetik abiatzen den hirigintzako sistema finkatzen dute. Jabetzarako eskubideak lurzoruari buruzko legeriaren eta hirigintzako antolamenduaren arabera erabiltzeko, izateko eta ustiatzeko ahalmenak biltzen ditu. Lurzorua hiriko bihurtu eta eraikitzea botere publikoek hirigintzako antolamenduaren bidez daukaten ahalmena da, eta ez jabetzarako eskubideari dagokion ahalmena. Lurzorua jabeen eskubideak eta betebeharrak kasu bakoitzean hirigintzako legediak plangintza, kudeaketa eta egikaritzeari buruz ezartzen duen arautegiaren arabera erabiltzen dira.

Eskubidearen muga horiek, batzuetan, kexarako zio dira, pertsona batzuek zalantzan jartzen baitute udalak lanak edo erabilera aldaketak egiteko baimena ukatzea, haiek udal plangintza-aren aurkakoak izan arren. Holako kontuak ez dira jarduketa irregularrak; aitzitik, hirigintzako diziplina kontrolatzeko eskuduntzaren erabilera dira, hain zuzen ere.

⁴⁶ Arartekoaren ebazpena, 2008ko azaroaren 21ekoa, Arratzu-Ubarrundia udalerrian dagoen Uribarri Ganboa herriko Santiagolarra (...) Etxeko jardunaren ondorioz errekarari ur zikinak isurtzeari buruzkoa.

⁴⁷ Arartekoaren ebazpena, 2008ko martxoaren 28koa, Donostiako Udalarri eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari egina. Horren bidez, amaitutzat ematen da Zubietako estazio megalitikoaren eremuaren barruan kokatuta dagoen telekomunikazioetarako antena baten ingurumen eraginaren ebaluazioa egiteko behararen inguruan hasi zuen jardura.

Horrela, jasotako erreklamazioetako batean, lursail baten jabeak adierazi zigun ez zegoela ados bere jabetzako landa lur batean udalak urbanizazioa eraikitzeke zeukan proposamenarekin. Arrazoi horregatik jotzen du erakunde honetara, jokabide hori legeriari lotzen zaion jakiteko informazio eske. Gai horri dagokionez, hirigintzako plangintzaren bidez udalek beren udalerriko lurralde osoaren antolamendua ezarri eta lurzorua legez aurreikusitako hiru mailatan –hirikoa, urbanizagarria eta urbanizaezina– sailkatu behar dutela adierazi genion. Horretarako, udalak hirigintzako informazioa eta proposatutako antolamendua justifikatzen duten azterketak dokumentatu behar dituzte, baina, aukeren artean, egokien deritzona hautatzeko ahalmena dauka. Puntu horretan, herri-administrazioek eskuduntza daukate lehen landatarrak ziren sailetan etxe-lurren garapen berriak ezartzeko.

Honen moduko erreklamazioak ere ohikoak dira: jabe batek lurzoru urbanizaezinean daukan bere jabetzako lursailean etxebizitza aurrefabrikatua jartzeko baimenari uko izana erreklamatu du. Udalak zalantzan jartzen du etxebizitza jartzea, haren jabetzako lursailean egindako lanak eta erabilerak Arau Subsidiarioetan xedatutakoaren aurkakoak direlako. Zehazki, jarrিতako eraikina ez legoke baimenduta izaera orokorreko lurzoru urbanizaezinean, gutxieneko lursailaren betekizuna eta etxebizitza derrigorrez nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi bati lotuta egotea betetzen ez dituelako. Adierazi behar da lurzoru urbanizaezina egoitzarako erabiltzea ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 28. artikuluan mugatzen dela; horrek, holako lurzorian etxebizitza berriak eraikitzea debekatzen du, baratzeko eta abeltzaintzako ustiategiei lotutakoak izan ezik. Kontu horri dagokionez, argitu behar da bere jabetzako lurretan jarri nahi den eraikin orok, gutxienez, dagokion hirigintzako udal baimena izan behar duela. Edozein erabilera edo eraikuntza lan burutzeko udal baimenak udal bakoitzak ematen dituen hirigintzako arauen eta, hala balitz, lurzoruari buruz dagoen legeriaren mendekoak dira. Zentzu horretan, erreklamaziogileari jakinarazi genion udalaren jokabideari ezin geniola ordenamendu juridikoaren kontrakoa iritzi.

Hirigintzako arauen egokitasunari buruzko eztabaidak administrazioek haiek arautzeko garaian daukaten erabakitzeke ahalmen zabaletik omen datoz. Inoiz plangintzan xedatutako murrizketen justifikazioa aztertu dugu, hala nola eraikinetako etxabeak erabilera batzuetarako murriztea. Planteamendu horri lotuta, iazko memorian [2007ko otsailaren 1eko Ebazpena](#)⁴⁸ aipatzen genuen. Ebazpena Alde Zaharrea eta Bilbo Zaharrea mintzalekuak jartzeko debekuari buruzkoa zen, eta Bilboko Udalak ez zuen onartu. Aurten, ordea, jakin dugu Bilboko Udalak, 2008ko urriaren 30eko udalbatzaren akordioz (BAO, 222. zk., azaroaren 28koa), telekomunikazio zerbitzuetarako (mintzalekuak) establezimenduei buruzko ordenantza onartu duela, eta ordenantza horrek aipatu guneetan holako lokaletarako zegoen debekua kentzen duela. Ordenantzak holako establezimenduen ezarpena arautu beharra dakar, bai banantzeko gutxieneko tartek ezarritik holako lokalek sor ditzaketan eragozpenak saihesteko, bai erabiltzaileei zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.

⁴⁸ Arartekoaren ebazpena, 2007ko otsailaren 1ekoa. Horren bidez, Bilboko Udalari gomendatu zaio baliorik gabe utz dezala telefono mintzalekuak jartzeko debekua. Debeku hori Bilbo Zaharra eremua bereoneratu eta barne-
tik eraldatzeko Plan berezian eta Uri Zaharrea berregokipenerako Egitamu berezian ezarrita dago.

I.15

ETXEBIZITZA

15. ETXEBIZITZA

Sarrera

2008an guztira 97 kexa jaso dira Etxebizitzaren alorrean, Arartekoarenean izapidetu diren kexa guztien %7,65, alegia. Kexak honelaxe sailkatuko genituzke, zer administraziori buruz izan diren kontuan hartuta:

- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza)	74
- Tokiko administrazioa	20
- Foru administrazioa	3

Kexak, bestalde, honelaxe banatu dira, hizpide izan dituzten gaien arabera:

- Etxebizitza esleitzeko prozedura	24
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura	19
- Babestutako etxebizitza alokatzea	17
- Etxebizitzaren beharra frogatzea	14
- Eraikuntzako akatsek eraginda kalteak babestutako etxebizitzetan	14
- Beste alderdi batzuk	4
- Irisgarritasuna	2
- Etxea erosteko eta birgaitzeko laguntzak	2
- Eskubideak eta askatasunak	1

Etxebizitzaren alorreko jarduerarik garrantzitsuenak jorratzen hasi baino lehen 2008an **lege eta arauetan izan diren berritasunik esanguratsuenak** aipatuko ditugu, labur.

Lehenik eta behin, Eusko Legebiltzarrak 11/2008 Legea, azaroaren 28koa, onartu zuela esango dugu. Lege horren bidez aldatu egin zen "erkidegoaren parte hartzea hirigintzaren jardunak sortutako gainbalioetan" eta, ondorioz, udalen lurzoru ondareak osatzen dituzten lurrak gehituko dira; lur horietan babes publikoko araubideren baten mendeko etxebizitzak eraikitzea eta dauden bizitzeko eremuetan hirigintzako obrak ordaintzeko erabiltzea lehenesten da. Neurri horrek sustapeneko indarreko beste batzuekin batera, EAEko udalek babes publikoko etxebizitzaren sustapenean esku-hartze handiagoa izatea ekarriko duela espero da.

Biziki espero zen etxebizitzari buruzko euskal legeari dagokionez, azkenean ez da eztabaidatu eta onartu Eusko Legebiltzarrean Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko abenduaren 16an onetsi zuen "herritarrek etxebizitza duina izateko duten eskubidea bermatzeko" lege proiektua, zoritxarrez, gure ustez behar-beharrezkoa baita euskal autonomia erkidegoak etxebizitza duin eta egokia izateko eskubide konstituzionala gauzatzeko lege tresna egokia, eta EAEko zenbait herri-administrazioek etxebizitzaren alorrean dituzten eskumenak arautuko dituen esparru juridiko erkidea ezarriko duena izan behar duela.

Aurten azkeneko urteotan indarrean egon den babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari buruzko araudia berrikusi da. Arau nagusia 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, "babes publikoko etxebizitzaren erregimen juridikoari eta etxebizitza eta lurzoru gaietan finantzatzeko neurriak" buruzkoa, da.

39/2008 Dekretu hori funtsezko bi helbururekin sortu zen: babestutako etxebizitzaren erregimena "Lurzorua eta Hirigintza" hizpide dituen ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako babestutako etxebizitza eta egoitzen edo zuzkidurazko aterpeen kategoria berrietara egokitzea eta Etxebizitzetarako 2006-2009 Plan Zuzendari indarrekoan zehaztutako helburuak izatez gauzatzea ekarriko duen arau berritzea.

39/2008 Dekretuan ezarritako aurreikuspenak garatzeko, sailtako hainbat agindu argitaratu dira babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko erregimeneko alderdi garrantzitsuak arautzeko. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren hiru agindu dira, 2008ko apirilaren 16akoak, eta, hurrenez hurren, babes ofizialeko etxebizitzak nola esleitu behar diren, Etxebizitzaren Eskatzaileen Erregistroa nola eraman behar den eta babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko egoera ezohikoak nola ebatzi behar diren sistematizatzen dituzte. Garrantzi handikoak dira hirurak etxebizitza babestua behar duten herritarrentzat.

Aurten, era berean, babes ofizialeko etxebizitzak saldu edo errentatzeko prezio gorenei buruzko kopuruak aldatu dira (Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren maiatzaren 15eko Agindua, "babes ofizialeko etxebizitzaren prezio gorenak zehazteari buruzkoa"), baita babes ofizialeko etxebizitzarik eskuratzeko eska daitezkeen diru sarreraren kopuruak ere (2008ko irailaren 8ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, "babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eska daitezkeen urteko sarrera haztatuak eguneratzeari buruzkoa").

Azkenik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko azaroaren 7ko Agindua onartu eta indarrean jarri dela aipatu behar dugu. "Babes publikoko etxebizitzaren sustapenerako laguntzak eta errentatzea sustatzeko neurriak" ditu hizpide eta bereziki errentatze babestua sustatzeko finantzatzeko neurriak aurreikusten ditu eta, sustatu beharreko jardueren artean, bi figura berri sartzen ditu, zuzkidurazko errentatzeak eta etxebizitza publikoak birgaitzea eta errentatzea landa eremuetan.

Urtaldian izandako **esku-hartzerik garrantzitsuenei** dagokienez, lehenik eta behin 2008an gure kontrolpean dauden administrazioei zuzendu dizkiegun gomendioak aipatuko ditugu eta, jarraian, etxebizitzaren arloa osatzen duten azpiarloetan sortutako arazo nagusiak aztertuko ditugu.

Gomendioak

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari zuzendu zaizkio alor honetan egin ditugu hiru gomendioak. Lehenengoan, [2008ko uztailaren 1eko Ebazpenean](#)⁴⁹, Etxebizitza eta Gizarte

⁴⁹ Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 01ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari gomendatzen zaio beharrezko neurriak har ditzala beren jabetzako etxebizitza EAeko Administrazioari ematen dioten pertsonak erabateko jabetzako erregimenean adjudikatutako babes ofizialeko etxebizitza eskuratu ahal izan dezaten.

Gaietako Sailak **irisgarritasun baldintzarik ez duen etxebizitza librearen jabee egokitutako etxebizitza babestua eskura** zer baldintzatan ipini zien aztertu genuen. Erreklamaziogileek (bat ezgaitua zen, mugimendu urrikoa), esku hartzeko eskatu ziguten trukea (etxebizitza babestua eta egokitua eta euren etxebizitza librea) eurentzat oso kaltegarria zela iritzita, eurenaren trukean jasoko zuten etxebizitza ez zutelako jabetzan hartuko, gainazalaren eskubidean baizik (75 urteko epe mugatua).

Ikerketako izapidetzeak egin eta gero, eta babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko halako kasu ezohikoetan biltzen diren berariazko inguruabarrak⁵⁰ aztertu ostean, gomendatu genion Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, batetik, halakoetan, etxebizitza behar duten pertsonak babes ofizialeko etxea jabetzan jasotzea izan dezaten behar diren neurriak hartzeko eta, bestetik, halako truke berezietatik eskuratutako etxebizitza guztiak babes ofizialeko etxe gisa kalifikatzeko.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ezetz erantzun diogu gomendioaren lehenengo zatiri, baina hitzeman digu etxebizitza egokia behar duten jabeek euren eskueran ipintzen dituzten ahalik eta etxebizitza gehien etxebizitza babestu gisa kalifikatuko dituela.

Luzatu ditugun gomendioekin kronologikoki segituz [2008ko irailaren 18ko Ebazpena](#)⁵¹, aipatuko dugu. Gomendio horretan **babes ofizialeko etxebizitza baten jabeari babes ofizialeko etxebizitzaren lege araubidea ustez urratzeagatik ezarritako zehapena** zuzenbidez egokia den aztertu dugu. Kasu honetan, etxebizitza babestua denboraldi batez hutsik izatea zurriz zuten lan arrazoi bereziak izan zirela frogatuta geratu zen, gure iritziz, eta arrazoi horiek behar bezala hartu behar zizkiola kontuan Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak. Gogoeta horietan oinarrituz, gomendioan “etxebizitzaren alorretik ezarritako zigorra indarrrik gabe uzteko eta kobratutako dirua itzultzeko” eskatu genion Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari. Ez digute, ordea, ebazpena onartu eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak dio karrera profesionala garatzeko eskubidea ezin dela erabili etxebizitza babestua- ren esleipenduna izatearen ondoriozko eginbehar administratiboetatik salbuesteko. Horren harira, hauxe dio Sailak:

⁵⁰ “Hizpide ditugun aparteko kasu hauetan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak pentsatu du etxebizitzaren jabeak diren eta, beraz, etxebizitzarik ez dutela egiaztatzen ez duten pertsonak etxebizitza babestua eskuratzeko eskubidea dutela. Izan ere, kasu horietan, botere publikoek babestu beharrekoak diren beste interes batzuk daude, alegia, ezgaitasunen bat duten pertsonen etxebizitza duin eta egokia izateko duten eskubidea bermatzea, gainerako biztanleen baldintza berdinetan.

Azken batean, eskubideen benetako berdintasunaren printzipioak eta giza aniztasunarekiko errespetuak justifikatzen dute ezgaitasunen bat duten pertsonen etxebizitza babestua eskuratzeko dituzten arazoak konpontzerari bideratutako neurri zehatzak hartzea.

Hori kontuan izanda, eta baita, babes ofizialeko etxebizitzaren gainerako adjudikaziodunek ez bezala, etxebizitza babestuak salbuespenezko bide honetatik eskuratzeko dituztenek beren etxebizitza Sailaren esku uzten dutela ere etxebizitza babestuen parkean barnera dadin, berariazko irtenbidea aurkitzea proposatu behar dugu berenganatzen duten etxebizitza babestuaren edukitze erregimenari dagokionez; horren baitan, babes ofizialeko etxebizitza erabateko jabetzapean eskuratu ahal izango dutela bermatu behar litzaieke.”

⁵¹ Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 18koa. Horren bidez Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari gomendatzen zaio etxebizitzaren arloan ezarritako zigorra ondorioz gabe utz dezala eta isun bidez bildutako zenbatekoa itzul dezala.

“Denboran zehar luzerako izango den bizileku-aldaketa bat eskatzen duen lanpostu jakin batera sartzeak ez du balio babes publikoko etxebizitza baten esleipenetik ondorioztatutako betebeharrak betetzearen salbuespen gisa. Betebehar nagusia esleipendunak etxebizitza ohiko bizileku bilakaraztea da.”

Azkenean kexagileari ezarritako zigorra indarrrik gabe utzi den arren, garrantzitsua da, gure ustez, azaltzea, etxebizitza babestua alorrean zehatzeko ahalmena baliatzea saihestezina bada ere, ahalmen hori, herritarrei garesti atera dakiekeenez, berme eta zorrotzasun juridikorik handienaz baliatu behar dela deritzogu, ekintza eta ebazpen automatikoak egin eta ematea saihestuz, eta kasu zehatz bakoitza indarrean dagoen jurisprudentziak zer dioen adituz aztertuz.

Hirugarren, [2008ko urriaren 27ko Ebazpena](#)⁵², aipatuko dugu, **Etxebizitzen Eskatzaileen Erregistroaren funtzionamenduari** buruz jasotako hainbat kexaren harira emandakoa. Erreklamaziogileek salatu dute erregistro horretan baxa emateko espedienteak prozedurazko bermerik gabe izapidetu direla, entzunaldiaren izapidetzerik gabe eta jakinarazpenak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Lurralde Ordezkaritzetako Iragarki Tauletan jarriz.

Urriaren 27ko ebazpen horretan, gure analisiaren ondorio gisa, honako gomendio hau luza-tu genion Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari:

- Egoki ditzala Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko izapideak eta jakinarazpenak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 30. artikularekin bat etorritik.
- 407/2005/30, 1221/2005/30, 1319/2005/30, 428/2006/30, 836/2007/34 eta 1040/2007/34 erreferentzia zenbakidun kexak eragin dituzten baxen ebazpenak berrikustea, eta, hala balegokio, erregistro horretan ezeztatutako antzinakotasuna onartzea.”

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak gure gomendioa onartu duen jakinarazteko epea amaituta, eta txosten arrunt honek hizpide duen urtaldia amaitu eta gero, oraindik ez dugu gomendioa aztertuko duten ala ez argituko digun erantzunik jaso.

Horregatik, urriaren 27ko ebazpen horretako gogoeta nagusiak oinarri gisa hartuta, iruditu zaigu gomendio orokorra eman behar genuela “Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legea egokitu behar dira Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroari dagozkion ebazpenen tramitazioa eta jakinarazpena” hizpide hartuta, eta gomendioaren testu osoa txosten honen III. kapituluan aurkituko duzue.

⁵² Arartekoaren ebazpena, 2008ko urriaren 27koa. Horren bidez Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari gomendatzen zaio Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko izapidetze eta jakinarazpenak 30/1992 Legeari egokitzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

Gomendio orokorrean Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Etxebizitzen Eskatzaileen Erregistroan izena emandakoen baxak eta aldaketak egiteko erabiltzen duen prozedura formal berrikusi behar dela ondorioztatzen da.

Erregistroko ebazpen horien jakinarazpen pertsonalen ordez iragarki tauletan argitaratzeko ohiturari dagokionez, azpimarratu dugu, besteak beste, Auzitegi Gorenak behin eta berriz emandako doktrinak dioela jakinarazpenetarako oholak erabiltzea salbuespeneko neurria dela eta administrazioaren funtzionamendu ona lotuta dagoela jakinarazpen pertsonalak egitearekin.

Bestalde, Etxebizitzen Eskatzaileen Erregistroan baxa hartzeko ebazpenak eman aurreko entzunaldiaren izapiderik ez eskaintzeari dagokionez, adierazi dugu, berriro ere, egintza administratiboak ekoizteko prozedurako funtsezko izapide hori *“prozeduran ageri ez direnean eta ebazpenean interesdunak argudiatutako alegazioak eta probak soilik kontuan hartu ez direnean”* baino ezin dela bazter utzi (azaroaren 26ko “Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 84. artikulua) eta, ondorioz, Etxebizitzen Eskatzaileen Erregistroa arautzen duen prozeduran entzunaldiaren izapidea bazter utziko bada, erregistrotik baxa ematea edo zerbait aldatzea interesdunak eskatu duenean egiten bada, edota interesdunak berak aurkeztutako agiriak eta alegazioak soilik kontuan hartzen badira.

Etxebizitza babestua errentatzea

Errentamendu babestuari dagokionez, bada erreklamazio dezente eragin duen gai bat, hots, 1472 Errege Dekretuak, azaroaren 2koak, **gazteak emantzipatzeko oinarritzko errenta** araupetzen duenak onartu zituen estatuko diru-laguntzak. Emantzipatzeko oinarritzko errenta hori 2008ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean eta ohiko bizitoki iraunkorraren errenta ordaintzeko diru babesa emateko laguntza zuzenen multzoa da.

Askotariko kexak egon dira gaiari buruz. Lehenengoak diru-laguntza horiek eskuratzeko zer baldintza eta eskakizun zegoen eta, batez ere, zein administrazioan eskatu behar zituzten argitzeko eskatzen zuten herritarrengandik heldu zitzaizkigun. Denboran hurrengoak laguntzak ordaintzen izandako atzerapenak hizpide zituztenak etorri ziren. Gure esku-hartzea, kasu askotan, erreklamaziogileei behar zituzten argibideak eta aholkuak ematera mugatu da, eta beste batzuetan kexa Etxebizitzaren Ministerioaren jarduna kontrolatzeko eskumena duen Herriaren Defendatzailearengana bideratzera, ministerio horri esleitu zaizkionez gero, besteak beste, gazteak emantzipatzeko laguntzak ordaintzeko lana.

Diru-laguntza horiek kudeatzeari loturiko gai horiek gorabehera, interesgarri deritzogu Arartekoak etorkinen eskubideak defendatzeko elkarte batek jarritako kexa bat tarteko egindakoa ere nabarmentzea.

Herritarren elkarteak, erreklamazioaren idatzian, dio diru-laguntza horiek oraingo konfigurazioa kontraesanean dagoela herritarrak barneratzeko printzipioarekin eta larriki baztertzeko

dituela pertsona multzo jakin batzuk, diru-laguntzaren onuradun izateko jendeak betetzen dituela egiaztatu behar duen eskakizunak oztupo direla premia duten hainbat kolektiboren-tzat. Laguntzetatik baztertuta geratzen diren kolektiboen artean honako hauek aipatzen dituzte: egoitza iraunkorrerako baimenik ez duten atzerritarrak, 18 eta 22 urte arteko gazteak, bakarrik dauden adingabeentzako sistematik datozela, etxebizitza behar dutenak, eta ezkutuko ekonomian lanean ari diren edo lanean egonkortasunik edo segurtasunik ez duten gazteak.

Oraingoan ere Herriaren Defendatzailearengana bideratu genuen herritarren elkartearen kexa. Gainera, herritarren elkarteak egindako planteamenduaren interesa kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarengana jotzeari ere egoki iritzi genion, elkarte erreklamaziogilearen proposamenaren berri emateko, autonomia erkidegoaren esparruan estatuko laguntza behar zuten kolektibo jakin batzuen bazterketak gainditzen lagunduko duten mekanismoak jarri beharko lirakeela eta, horretarako, autonomia erkidegoak etxebizitzaren eta gizarte gaien alorrean dituen eskuduntzak balia litzakeela diotenez gero.

Helburu horrekin idatzi bana zuzendu genien dituzten eskuduntzak tarteko elkarteak plaza-ratutako eskaerak ase zitzaketela iruditu zitzaigun Eusko Jaurlaritzaren bi saili, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailari, alegia.

Eusko Jaurlaritzako bi sailongandik heldu zaigun erantzuna aztertu eta gero, ondorioztatzen dugu, laburki, Eusko Jaurlaritzako bi sail horietako batek ere ez duela, oraingoan, eta oso arrazoi ezberdinengatik, egun baztertuta egon litezkeen kolektiboek estatuko emantzipazioarako oinarrizko errenta eskura jartzeko mekanismo osagarri berririk ezartzea beharrezko edo egoki denik uste.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, eskumen arazoak ikusten ditu eta, gainera, etxebizitzaren politikari eta botere publikoek herritarrei etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea bermatzeko moduari buruz oso bestelako kontzepzioa duela argudiatu du.

Bestalde, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak uste du gizarte bazterkeria saihesteko diru-laguntzen oraingo zein geroko arauketek –diru-laguntzok nahikoa baliabide ez duen jendea gizartean baztertuta geratzeko arriskuari aurrea hartzeko eta gizarteratzen laguntzeko dira– estatuko laguntzatik kanpo geratzen diren kolektiboak estaliko dituztela eta etxebizitza errentatzeko diru-laguntzak emango dizkiela emantzipatzeko oinarrizko errentatik kanpo geratzen direnei.

Informazio hori etorkinen eskubideen defentsarako elkarteari bidali diogu, aztertu eta komenigarri irizten dieten ekarpenak helaraz diezazkiguten.

Eraikuntzako akatsek eraginda kalteak babestutako etxebizitzetan

Etxebizitzetan alorreko kexa asko eta askok hizpide izaten dituzten arazoetako bat babes publikoko etxebizitzetan eraikuntzako akatsak izaten dira. Kasurik gehienetan, esku hartzeko

eskatzen digutenean helburua Arartekoak herri-administrazioak euren etxeetan azaldu diren eraikuntzako bizioak edo akatsak azkar konpontzeko behar diren lege neurriak hartzera behartzea izaten da.

2008an gehitu dira **mugitzeko arazo iraunkorrek dituzten pertsonentzat gordetako etxebizitzetako eraikuntzako akatsak** konpontzeko eskatzen dutenen kexak; salatzen dute esleitutako etxeak gutxieneko irisgarritasun baldintzak betetzen ez dituela eta, ondorioz, esleipendunek ezin dutela etxea independentziaz eta normaltasunez erabili.

Halakoetan, eraikuntzako akats horien izaerak –etxebizitzak ez daude egokituta ezgaituen beharretara– eragotzi egiten du etxebizitza berehala okupatzea eta babesitutako etxebizitzak sustatzen dituzten herri-administrazioen berehalako erantzun eraginkorra eskatzen du, inoiz baino gehiago.

20/1997 Legea, abenduaren 4koa, "Irisgarritasunaren Sustapenari buruzkoa", argi eta garbi mintzo da horren gainean, eta irisgarritasun unibertsalaren eta denontzako diseinuaren printzipioen haritik, etxebizitza sustatzaile guztiek mugimendu urriko pertsoneri gordetako etxebizitzak esleipendunen ezaugarrietara egokitu behar dituztela dio.

Lege horrek eta babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza akatsei buruzko araudiak diotena betetzeko, aurrean behin baino gehiagotan eskatu diogu Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eraikuntza enpresak mugimendu urriko pertsonentzat gordetako etxebizitzari egin beharreko konponketak egitera behartzeko edo, bestela, sailak berak egin ditzala, enpresa eraikitzaileen kontura. Horrela, inolaz ere, administrazioaren jarduera eza eragozpena izan ez dadin ezgaitasunen bat duten pertsonen etxebizitza duin eta egokia izateko eskubideaz baliatzean.

Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Atal honetan Arabako Berantevilla udalerriko hainbat herritarrek jarritako kexa nabarmendu nahi dugu, lurzoru publikoan tasatutako etxebizitzak sustatzeko udal jarduera bat zalantzan jartzen zuena.

Aurkeztu zuten erreklamazioaren bidez, Berantevillako herritar haiek **tasatutako etxebizitzaren amaierako prezioan igoera ustez irregularra** zegoela salatzen zuten. Funtsean diote etxebizitza bakoitza 10.000 € garestitzea ez dagoela egintza proiektuaren aldaketa batean zurituta, Berantevillako udalak eta etxebizitzak sustatu dituen udal sozietateak hala ziurtatu dute-, tasatutako etxebizitzaren garestitze hori etxebizitzak eraikitzeko obrak gelditu eta burutuko zituen beste enpresa bat kontratatzeak eraginda baizik.

Kasu horretan, gure erakundeak aurreko urteetan jakindako beste batzuetan bezala, agerian geratzen da herri-administrazioek eta euren bitartekoez beti jokatu behar dutela herritarren eskubideak eta egokitu zaizkien zeregin publikoetan ari direnean hartzen dituzten erabakien gardentasuna eta objetibotasuna bermatzen duten prozedura formalen erabat mende.

Bestela, herritarrek mesfidantzaz begiratuko diote aurretik lege formaltasun egokirik gabe egindako administrazioen jardunen bidez kotasunari.

Espedientearen instrukzioaren fasea amaitu ondoren, txosten hau itxita dagoela, herritar horiek salatutako egitateak aztertzen ditugun eta gertakari horiek merezi dituzten gogoetak formulatzen ditugun ondorioen idatzia ere prestatzen ari gara. Beraz, 2009an jakinaraziko zaie ondorioen idatzia erreklamaziogileei eta Berantevillako udalari, eta gure web orriko ebazpen eta gomendioen atalean argitaratuko dugula.

Etxebizitzak esleitzeko prozedura

Babes publikoko **etxebizitzak esleitzeko prozesuei** dagokienez, aurten hainbat erreklamazioen berri izan dugu, herritarrek babestutako etxebizitzak esleitzeko izapideen alderdi jakin batzuekin ados ez zeudela eta. Kexa horietako batzuk ez dira erreklamaziogileen asmoen alde ebatzi, eztabaidagaiak xeheki aztertu eta gero, auzitan zeuden alderdiak zuzenbidez egokiak zirela iruditu zaigulako, eta hala jakinarazi diegu zegokien administrazioei eta erreklamazioak jarri dituzten herritarrei.

Beste kexa batzuk, ordea, berehala babestu ditugu eta premiazko jarduketarik ere eragin digute; adibidez, Gasteizko Udalak bultzatutako babes ofizialeko etxebizitzaren Ensanche 21 udal sozietatearen bidezko sustapen baten esleipen prozesuan egin behar izan genuena.

Kasu horretan, hainbat herritarrek esku hartzeko eskatu ziguten Gasteizko Udalak babes ofizialeko 708 etxebizitzaren zozketarako onartu eta baztertuen zerrenda argitaratu zuelako eta zerrenda hura behin betikotzat jotzen ari zirelako, balizko akatsak ongitzeko erreklamazioetarako eperik ireki gabe.

Erreklamaziogileek salatzeko zutena egia zela baietsi genituen, eta prozedurazko bermerik oinarritzeko konkurrentziako edozein prozesu administratibotan parte-hartzaileek eskara eta eskatzen zaizkien agiriak ongitzeko aukera izan behar dutela diotenez, idatzia zuzendu genion Gasteizko Udalari, babes ofizialeko 708 etxebizitzaren eskatzaileek babestutako etxebizitzaren esleipendun izateko eta, zegokionari, babes ofizialeko 708 etxebizitzaren zozketan parte hartzeko baldintzen frogagiriak ongitzea izan zezaten neurriak berehala bideratzeko.

Eskaera bidali eta gutxira jakin genuen Gasteizko Udalak 708 etxebizitza haien zozketa eguna atzeratzea erabaki zuela, eta epea ireki zuela zozketarako onartu eta baztertuen zerrenda egitean akatsik bazegoen alegazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko. Hori ikusita, Arartekoaren Erakundeak babestutako etxebizitzak esleitzeko prozesutik bidegabeki baztertu zituzten pertsonen eskubideen alde luzatutako eskaera ondo hartu zutela iruditu zitzaigun.

I.16

ZENBAIT GESTIO

16. ZENBAIT GESTIO

Atal honetan esku hartu dugun arren gure erakundearen lana ordenatzeko zehaztu ohi ditugun gai-arloetan erraz egokitzen ez diren hainbat jarduera sartuko ditugu. Alde horretatik, eduki heterogeneoagoak bilduko ditu atal honek, besteak beste:

Alor honek barne hartutako kontu batek honakoa aipatzen du: Frankoren diktaduraren garaian errepresioa jasandako biktima izateagatik konpentsazioa jasotzeko, adinaren araberrako ustezko tratu desberdina. Pertsona batek adierazi digu ez dagoela ados 65 urteko adin muga jartzearekin Eusko Jaurlaritzak Amnistiaren Legeak babestu zituen kasuetan askatasuna kendu zietenentzako konpentsazioak emateko onartutako araubidean.

Diktadura garai haren osteko erreforma demokratikoak “adiskidetze nazionaleko” hainbat neurri ezarri zituen eta horren adierazpen gorena 1977ko urriaren 15eko Amnistiaren Legea izan zen. Alabaina, amnistia eman arren, Estatuko 1990eko Aurrekontu Orokorren 4/1990 Legea arte ez zen kalte-ordainik ezarri, diktaduran izandako espetxealdi politikoen aldiei dagokienez. Lege horrek kalte-ordainak eman zizkien espetxean arrazoi politikoengatik hiru urte edo gehiago egon zela frogatzen zuen eta 1990eko abenduaren 31n 65 urte zituen orori.

Bi baldintza horiek batera eskatzeak kexa ugari eragin zituen, kalte-ordainik jasotzeko aukerarik gabe utziz gizon eta emakume asko eta asko, batzuk hiru urte edo gehiagoko espetxealdirik izan ez zutelako –edo frogatzerik izan ez zutelako–, eta beste batzuk eskatutako adin baldintza betetzen ez zutelako. Zehazki, adinari buruzko auzia Konstituzio Auzitegiraino heldu zen, eta auzitegi horrek, 361/1993 Epaian, ukatu zuen auzitara eramandako xedapena konstituzioaren aurkakoa zela, eragindakoak laneratu eta gizarteratzeko zituzten aukerak adinarekin loturik zeudela argudiatuta.

Gorte Nagusietako Herriaren Defendatzaileak, araudi hark baztertutako jende askoren kexak jaso zituenez, gomendioa luzatu zien 1996an autonomia erkidego guztiei, autonomia erkidegoetan antzeko legegintza ekimenak garatzeko iradokiz, 4/1990 Legeko kalte-ordainen araudiaren osagarri. Gomendio horren ondorioz, zenbait autonomia erkidegok kalte-ordain handiagoak arautzeko ekimenak bideratu dituzte urteotan, espetxeko egonaldia laburtuz batetik eta kaltetuen adinaren baldintza ere aldatuz, hainbat formula tarteko. Zehazki, adinari dagokionez, estatuaren araudiko estaldura zabaldu duten autonomia erkidego gehienek gutxienez 65 urteko adinaren mugarekin jarraitzea erabaki dute, baina erreferentzia gisa euren araudia indarrean jarri zeneko data hartuta.

Hala egin du Euskal Autonomia Erkidegoak, eta 280/2002 Dekretuak konpentsazioa jasotzeko eskubidea duenari Dekretua argitaratu zen egunean –2002ko azaroaren 29a–, gutxienez 65 urte izatea edo 65 urte beteta izatea eskatzen dio. Horrela eskubidedunaren adinaren muga 12 urte jaitsi da estatuko 1990eko araudiaren aldean, eta konpentsazioa Amnistiaren Legea argitaratu zenean 40 urte edo gehiago zituztenen eskura jarri da.

Gure erakundeak esku hartu du lehenago ere behin baino gehiagotan 280/2002 Dekretuaren alderdi horrek eta beste batzuek eragindako kexak tarteko. Zehazki, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak gai horri buruzko jarrera eta aurreikuspenak adierazi zituen,

esanez balitekeela geroago, eta betiere aurrekontua izanez gero, adin mugarik jarriko ez zuen edozein arau aztertzea. Beraz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak gaiarekin konpromiso zehatzik hartu ez zuen arren, zabalik utzi zuen etorkizunean zerbait egiteko atea.

Edozelan ere, Konstituzio Auzitegiaren irizpidea adinaren baldintza Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluko berdintasun printzipioarekin bat datorrela dela ikusita, egokitzat jo genuen, xehetasun horiek guztiak kexagileari jakinarazi ostean, kontu horren inguruan gure esku-hartzea amaitzea.

Bilboko auzokide elkarte batek auzoko kaleetan bizi eta lo egiten zuen pertsona baten jokabideak sortutako arazoari buruz aurkeztutako erreklamazioa ere sartuko dugu hemen. Haien esanetan, pertsona hark dementziaren bat zuen eta oinezkoei eraso egiten zien aipatutako oinezko horiei irainduz. Horrez gain, auzoan kezka handia piztu zuten eraso fisikoak gertatu ziren. Kexu ziren udaltzainek ez dutelako halako arazoak eta egoerak saihesteko prebentzio neurririk hartzen.

Halako patologiak pairatzen dituen pertsonak erreferentziazko gizarte edo familia talderik ez duenean, zaila izan daiteke inguruan sortzen diren bizikidetasun arazoak konpontzea, eta, edozelan ere, ez dute epe luzerako arrakasta bermea eta diziplina askotatik heldu behar izaten zaie egoera horiei. Horregatik, hainbat profesionalengana jo genuen, irtenbidean herritarren segurtasunaren, buruko osasunaren eta gizarte ongizatearen ikuspegiak kontuan hartzeko. Bilboko Udaleko Herritarren Segurtasunerako Zuzendaritzak esan zigun gaiari buruzko beste txosten bat bidaliko ziola Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Fiskaltzari. Fiskaltzak esan zigun txostena jasotzen zuenean, txostenaren datuen arabera, lege oinarririk izanez gero, jaun horren barneratze ez-borondatezkoa edo ezgaitzea eskatuko zuela. Erabakia, nolana ere, epaile batek hartu behar zuen, eta pertsona hori auzi medikuak ere aztertu behar zuen. Horrek guztiak denbora behar zuen eta, tarte horretan premiazkoa zen, gure ustez, auzokideekiko enfrentamendu gehiago eragozteak. Ondorioz, saiatu ginen pertsona horri ikusarazten horrela jokatzu zer-nolako kalteak eragiten zituen, eta gaixotasunari aurre egiteko tratamendua onartu behar zuela.

Lan horretan funtsezkoa izan zen Bizitegi Elkarteko kale hezitzaileen lan bikaina. Horiek interesdunak zentro psikiatrikoa batetara joateko aukera onartzea lortu zuten. Berrito kasuaz arduratzen zen Fiskaltzarekin harremanetan jarri ginen, eta esan zigun ospitale horretako zerbitzuekin koordinatuz, berehala jarduerak hasiko zituela. Horrela, borondatezko joate hori beharrezko egonaldia bihur zedin, badaezpada eta epaitegiak hartuko dituen erabakien zain, aipatutako ildoan. Egin ahal izan dugun jarraipenetik jakin dugu dagokion psikiatra pozik dagoela gaixoak tratamenduari erantzun dion moduarekin. Jada senda agiria ere eman diote eta gizarte ongizateko zerbitzuetara bideratu, berrito gaixotzea saihestuko duen egoitza baliabideren bat esleie diezaiten.

Laburbilduz, herritarren segurtasuneko arazo gisa aurkeztu arren, sarritan gertatzen den bezala, azkenean arazo psikosozialetako baliabideak aktibatuz konpondu zen. Salaketa jarri zuen elkarteak prozesu osoan hain arduratsu eta eginkor jokatu ez balu ez genukeen inoiz halakorik lortuko.



II. ATALA

LEHENTASUNEZKO TALDEAK



Alorren egituraketa beti gaikako banaketaren arabera egin izan da. Banaketa hori osatzeko, Ararteko erakundearen jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezau-garri bereziak dituzten zenbait talderen arazoan berariazko tratamendua egiten da.

Talde horienganako berariazko arretarako alor horiek, urteko txostenean haien arazoan berri bilatzeko lana errazteaz gainera, taldeok dituzten arazo eta beharrezanean beren beregi erantzuteko jardueren esparruak sortu nahi izan dituzte.

Alde horretatik eta Ararteko erakundeak pertsona guztien eskubide guztiak bermatu behar dituela uste izanda, beharrezkotzat jo da beren eskubideak burutzean kalteren bat izan dezaketen talde batzuekin lehentasunez jardutea, ahultasun handiagoko balizko egoeran daude eta.

Talde horiekiko lehentasunezko esku-hartze horiei eman nahi zaien garrantziak justifikatzen du Urteko txostenean atal propio batean islatuta agertzea, haien eskubideen gaineko berme-lan garrantzitsu hori bistara dadin.

Atal honetan hamaika zatitan biltzen dira lehentasunezko arretako hurrengo taldeen inguruan burutu diren jarduerak:

- Berariazko arreta emakumeen eta gizonen berdintasunari
- Berariazko arreta adinekoei
- Berariazko arreta adingabeei
- Berariazko arreta ezgaitasuna duten pertsonari
- Berariazko arreta etorkinei
- Berariazko arreta ijito herriari
- Berariazko arreta gizartean baztertuta edo pobrezian bizi diren pertsonari
- Berariazko arreta terrorismoaren eta jazarpen indarkeriaren biktimei
- Berariazko arreta lesbiana, gay, bisexual, transgeneriko eta transexualei
- Berariazko arreta espetxeratuei
- Berariazko arreta gaixo kronikoei

Emakumeei, adinekoei, adingabeei, ezgaitasunen bat duten pertsonei eta etorkinei eskainitako arretari buruzko arloak 1999az geroztik daude finkatuta eta, beraz, talde horiei dago-kienez egindako jarduerak ugariak eta askotarikoak dira.

Gainerako arloak 2006an sortu dira. Horregatik ez dira lehenagotik zeuden arloak bezain luzeak eta xehatuak.

II.1

**BERARIAZKO ARRETA
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI**

1. BERARIAZKO ARRETA EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNARI

1. Esparru honetan egindako lanaren hurbilketa

Orain arte genero berdintasunari buruzko legeriak ez du ia garapenik eta agerpenik izan esparru juridikoan, baina XXI. mendean behar den bezala garatu eta indartu da, sexua dela eta emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasunarekin amaitzeko konpromisoa hartuta. Gaiarekin lotuta garatu diren lege xedapenek eta arau mailakoek, eta dagokien panela instrumentalak –ebazpenak, dekretuak, planak, programak, eta abar–, egitura autonomo bat osatzen dute eta ekintza politikoaren maila guztiak eragiten ditu egitura horrek. Genero ikuspegia esparru guztietan hartu behar da kontuan gaur egun, “ekonomia politikak eta gizarte politikak landu, martxan jarri, kontrolatu eta ebaluatzean, emakumezkoen kezka eta esperientziak kontuan har daitezten, gizonezkoen kontuan hartzen diren bezala” (Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseilua-ECOSOC) eta, era berean, emakumezkoen aldeko ekintza positiboa indartu behar da. Hori guztia dela eta, botere publikoak derrigortuta daude emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna errealtate bihurtzeko eta eraginkor izateko baldintzak ahalbidetu eta oztupoak gaitzera eta garatzen dituzten politika eta ekintza guztietan barne hartuz. Hala ere, errealtatea tematia da eta behin eta berriro erakusten digu emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren gaixotasunak indar handia duela oraindik gure gizartean. Gaitz endemiko bat dela esan daiteke, eta gaitzari aurre egiteko sendabide nagusien artean prebentzioa, sentsibilizazioa, erantzukizun partekatua eta erakundeen arteko lankidetzaz azpimarra daitezke, besteak beste.

Errealtate hori abiapuntutzat hartuta, Arartekoaren erakundeak etengabe egiten du lan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko, gizarte zuzen eta berdintasunezko bat sortzeko prozesuaren funtsezko helburu gisa. Bereziki, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean erakundeek emandako erantzunari buruz 2003an landu zen aparteko txostenak barne hartzen dituen gomendioak jarraitzen da; herri-administrazioek berdintasun printzipioaren urratzeak kontrolatu behar dituzte, eta sexua dela eta diskriminaziorik egiten ez dela ziurtatu behar dute; euskal gizarteak esparru honetan dituen beharrak eta eskariak ezagutu eta helarazi behar dira eta, amaitzeko, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa eta Emakumezkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasunari buruzkoa, garatzen eta ezartzen dela zaindu behar da.

Arartekoaren erakundeak emakume eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan garatu dituen jarduerak nagusiak islatzeko, ondoren adierazitako jardun ardatzak, Arartekoaren erakundeak garatutako lanaren funtsezko eginkizunak laburbiltzeko balio dutenak, hartuko ditugu abiapuntutzat. Lehenik eta behin, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borroka aipatu behar da. Ezin dugu ahaztu giza eskubideak urratzeko modurik gaitzesgarrienetako bat dela. Bigarrenik, herri-administrazioak aktiboki –administrazioak eragiten du zuzenean diskriminazioa– edo ez-egiteagatik –eskubide urraketa zuzentzeko esku hartzeko aukera edukita esku hartzen ez duenean– sexua dela eta egiten duen diskriminazioaren aurrean herritarrak defendatu edo babestu behar dira. Hirugarrenik, emakumeekin eta emakumeen ezaugarriekin berriaz lotuta dauden gaiak zaindu behar dira. Eta, amaitzeko,

egindako jarraipenaren berri emango dugu, berdintasunaren esparruko legeriak gaur egun izandako garapena egiaztatzeko.

2. Emakumeen kontrako indarkeria: desberdintasunaren paradigma

Emakumeen aurkako indarkeria dugu, gaur egun, gizartea gehien kezkatzen duen arazoe-tako bat; gainera, urtetik urtera datu gero eta beldurgarriagoak iristen zaizkigu arazo hone-kin lotuta: Emakumeak objektuak bailiran sentiaraztea eta tratatzea, pertsona orok dituen funtsezko eskubideen eta askatasun publikoen urratze larrienetako bat da. Emakumeen aurkako indarkeria dugu generoa dela eta egiten den diskriminazioaren adierazpen maxi-moa, emakumeek bizi duten desberdintasunezko egoeraren isla, eta horrelako egoerak errotik ateratzeko ezinbestekoa da herri-administrazio, erakunde eta gizarte zibilaren inplikazioa eta konpromisoa lortzea.

Arartekoari dagokio indarkeria sexistaren biktima diren emakumeei laguntzeko dauden mekanismo publikoen egokitasuna zaintzea, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean herri-administrazioek ematen duten erakunde mailako erantzuna benetan eraginkorra iza-teko. Hain zuzen ere, 2003an erakunde honek emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean erakundeek emandako erantzunari buruz landutako aparteko txostenean jada adierazten zen premia zela "herri-erakundeek indarkeriaren biktima izan diren emakumeei ematen dieten laguntza hobetzea, prebentzioa areagotzeko, kalteak murrizteko eta, neurri batean, mentalitate aldaketa eta mentalitate hori sortzen duen gizarte egitura aldatzen laguntzeko".

Ikuspegi integral bat osatu da, emakumeen kontrako indarkeriazko egoerei erantzuteko administrazio egituren eta berariazko baliabideen egokitzapena hobetzeko proposamenak barne hartuta, eta ikuspegi integral horrek tratu txarren eta erasoen biktimei laguntzeko eta arretea emateko mekanismoetan –poliziaren babesa, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, harrera etxebizitzak eta larrialdietako zerbitzuak, prestazio ekonomikoak, etxebizitza, gizarteratzea, hezkuntza eta erakundeen koordinazioa–, hau da, 4/2005 Euskal Legearen VII. Kapituluko III. tituluaren barne hartutako mekanismoetan aipatutako gomen-dioak gauzatzeko bidea aurkitu du. Bestalde, ezin dugu ahaztu 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoak, araudi autonomikoak bezala, jarrera diskriminatzaileen prebentzioa eta zigorraren ezarpena dituztela oinarrian, eta, era berean, berdintasunaren printzipioa eraginkor egiteko politika aktiboen aurreikuspena dutela oinarrian. Testu arauemaileak dira eta Genero Indarkeriaren aurkako Babes Neurri Integralei buruzko 1/2004 Lege Organikoarekin batera, xede dugun gaiaren funtsa diren oinarriak ezartzeko balio dute.

Esanak esan, egokitzen jo dugu aipatutako txostenean barne hartutako zenbait proposa-men jarraipen berariazkoagoa egitea eta, ildo horretan, euskal administrazioei, esparru honetan eskumenekoak direnei, gai jakin batzuei buruzko informazioa eskatzen zaie, gaur egun gaitz honek Euskadin duen egoera aztertzeko. Batez ere, kontuan hartzen badugu arazoa oraindik konpondu gabe dagoela; eta lege mailan aurrerapausoak eman badira ere eta aurrerapauso materialak eman badira ere, argi dago egindako lana hobetu behar dela

oraindik, modu horretan lortuko delako biktimen babesa ziurtatzea. Jakina, horretarako ezinbestekoa da bitarteko eta informazio gehiago edukitzea eta nahastutako eragileen arteko koordinazioa hobetzea.

Zentzu horretan, 2008an Euskadin emakumeen kontrako indarkeriari buruz jasotako informaziorik garrantzitsuena eskatu genion Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailari. Zehazkiago, 2008an jarritako salaketei buruz ahalik eta informazio gehien lortu nahi genuen: emakumeen kontrako indarkeriazko ekintzak, eskatutako babes aginduak, hartutako kautelazko neurri judizialak, 2008an gure lurraldean genero indarkeria dela eta emandako kondena epai judizial penalak, 2008an EAEn hildako emakume kopurua (genero indarkeriaren biktimak), genero indarkeriaren biktima izandako eta biktimen arretarako zerbitzuetan lagundutako emakume kopurua eta ofiziozko arreta zerbitzu espezializatuaren onuradun izan diren emakumeen kopurua (genero indarkeriaren biktimak).

Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailaren txostenak aipatu berri ditugun gai guztiei buruzko datuak barne hartzen ditu eta jarraian adierazi ditugu guztiak.

2.1. 2008an Euskadin izandako emakumeen kontrako indarkeriari buruzko daturik esanguratsuenak

1- Salaketa kopurua eta salaketak aurkezteko aukeratu diren Organoak

Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailak justizia.net orrian jarritako prentsa oharrak adierazten duenez, 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa eta Genero Indarkeriaren aurkako Babes Neurri Integralei buruzkoa, indarrean sartu eta hiru urte igaro ondoren, genero indarkeriaren biktima izandako emakumeek jarri dituzten salaketak ugaritu egin direla baieztatu ahal izan du Sail horrek.

Batez beste 11 salaketa jarri dira egunean EAEn, hau da, Euskadiko emakumeen %0,36k salatu dute mota horretako delituen biktima izan direla 2008an.

Udalerria	Zigor-gaiak
Vitoria-Gasteiz	600
Amurrio	41
ARABA	641
Tolosa	129
Azpeitia	59
Bergara	77
Eibar	90
Donostia-San Sebastián	619
Irun	108
GIPUZKOA	1.082

Udalerrria	Zigor-gaiak
Durango	131
Barakaldo	521
Gernika	104
Bilbao	1.171
Balmaseda	31
Getxo	298
BIZKAIA	2.256
GUZTIRA	3.979

Genero indarkeriaren epaitegietako 2008ko datuak

Aurreko taulan ikus daitekeen moduan, 2008an guztira 3.979 zigor gai aurkeztu ziren genero indarkerian espezializatutako EAEko epaitegietan. 2007an 3.917 izan ziren.

Lurraldeka, 2008. urtean gorakada ezagutu zen Bizkaian (166), baina Araban eta Gipuzkoan kontrakoa gertatu zen (-69 eta -35, hurrenez hurren, gutxiago).

	2007	2008	Konparatiba
Araba	710	641	-69
Gipuzkoa	1.117	1.082	-35
Bizkaia	2.090	2.256	166
GUZTIRA	3.917	3.979	62

2007an eta 2008an EAEko epaitegietan erregistratutako zigor gaiak

2008an epaitegietan erregistratutako zigor gai guztietatik 1.171 Bilbon erregistratu ziren; 619 Donostian; eta 600 Gasteizen. Azpimarratzekoa da, halaber, Barakaldon erregistratutako kopurua. Izan ere, berriki jarri da martxan eta jada 521 gai erregistratu dira. Aipatutako 4 hirietan erregistratu da guztizkoaren %73,1.

2- Eskatutako Babes Aginduak

Eskatutako babes neurriei dagokienez, 2008an gutxiago izan direla ikus daiteke, bai EAE osoko datuei erreparatuz, bai lurraldekako datuei erreparatuz. Horrela, Euskadi osoan 1.783 babes agindu eskatu ziren 2008an eta 1.931 izan ziren 2007an, hortaz, bi datu horiek alderatuz, -148ko emaitza lortzen da. Eskatera horietatik 1.004 Bizkaian egin ziren, aurreko urtean baino 26 gutxiago; 515 Gipuzkoan, 2007an baino 16 gutxiago; eta 264 Araban (355 2007an).

Emakumeen kontrako indarkeriari helduta, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburua oso kezkatuta agertu zen, 2008an prozesu judizialari uko egin zioten biktimen portzentajea ikusita: %11,6, hau da, guztira 462 emakume.

3- 2008an EAEn hildako emakume kopurua

Gaiarekin lotuta errolda edo estatistikarik ez badago ere, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailak emandako informazioaren arabera, 2008an 3 emakume hil dituzte EAEn.

4- Biktimentzako arreta zerbitzuetan arreta jaso duten genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeen kopurua.

2008an Euskal Autonomia Erkidegoan Biktimentzako Arreta Zerbitzuetan lagundutako genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeen kopurua 1.705ekoa izan da.

Lurraldeka, Bizkaian 960 emakumek jaso dute arreta, 534 izan dira Gipuzkoan eta, Araban, azkenik, genero indarkeriaren biktima izan diren 211 emakumeri lagundu zaie.

5. Ofiziozko arreta zerbitzu espezializatuaren onuradun izan diren genero indarkeriaren biktima izandako emakumeen kopurua.

Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailak adierazi digunez, 2007ko otsailaren 26an Legelarien Euskal Kontseiluarekin sinatutako Genero Indarkeria, Etxeko Indarkeria eta Sexu Erasoen Biktimei Berehalako Laguntza Juridikoa emateko Hitzarmenak 979.616,70 euroko gastua egin du 2008an. Aldi horretan 2.955 emakumek jaso dute abokatuen laguntza.

6- Erakundeen arteko koordinaziorako akordioak

Genero indarkeriarekin amaitzeko neurrien eraginkortasuna, modu batean zein bestean prozesuan nahastuta dauden erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa egiteko tresna egokien garapenaren mende dago, neurri handi batean. Horrelako baieztapen batek argi uzten du oso garrantzitsua dela Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktima diren Emakumeentzako Arreta Hobetzeko Erakunde arteko Akordioa. Eta oso garrantzitsuak dira, halaber, Koordinazio Protokoloak. Justizia Sailak sustatzen ditu, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren bitartez, eta Probintzia Auzitegiek, Magistratu Dekanoek, Fiskaltzak, Abokatu eta Prokuradore Elkargoek, Barne Sailak, tokiko polizia, Emakundek, Aldundiek, hiru hiriburuetako udaletako gizarte zerbitzuek eta Justizia Sailak berak sinatu dituzte. Koordinazio Protokolo horietan barne hartzen dira aipatutako erakunde guztiek emakumeen kontrako indarkeriaren aurka borrokatzeko hartu dituzten konpromisoak.

Protokoloaren garrantzia bi ikuspegitatik azpimarratu behar da: alde batetik, Protokoloa berrikusi eta lege eskakizun berrietara egokitu behar da etengabe, erakundeek unean uneko beharrei ematen dieten erantzuna hobetzeko. Bestetik, Protokoloan koordinazio tresnak barne hartzeaz gain, erakunde sinatzaile bakoitzak hartutako konpromisoak barne hartzen dira. Esanak esan, funtsezkoak dira lankidetzeta eta koordinazioa emakumeen kontrako

indarkeriaren aurka borrokatzeko Erakunde arteko Koordinaziorako prozesua behar den bezala garatzeko.

Prozesuan nahastuta dauden erakundeen arteko koordinazioa lagunduko duen ikuspegi integral eta diziplina anitzekoa jarraitzen da **Koordinazio Zentro Bakarrak eta Integra-la** osatzeko. Aipatutako zentroa aurkezten da eskumeneko zentro, unitate, organismo eta erakundeei genero indarkeriaren biktimak babesteko aginduak jakinarazteko kanal bakar gisa, eta behin aginduak jakinarazi ondoren, biktimekin erlacionatutako gizarte babeseko neurriak hartzen dira. Guztiarekin, administrazio eginkizunen kudeaketa eta egun Euskadin emakumeen kontrako indarkerian espezializatuta dauden 5 epaitegien eta eskumeneko gainerako zerbitzuen arteko koordinazioa hobetu nahi da, alde batetik; eta, bestetik, biktimenzako arreta zerbitzuei aipatutako eginkizunen gaineko ardura kendu nahi zaie, berez dagozkien arreta eginkizunetara mugatzeko.

Koordinazio Zentroak, Justizia Administrazioarekin Harremanetako Zuzendaritzaren mendekoa denak, honako eginkizun hauek beteko ditu: 1. Emakumeen kontrako eta familiaren baitako indarkeriaren prozeduretan irekitako edozein prozesutan barne hartutako babes neurri guztiak eta gainerako ebazpen judizialak zentralizatzea (babes neurriekin bakarrik lotuta aurreikusitako lege eginkizuna zabaltzen da). 2. Kasuan kasu emandako ebazpena osatzeko beharrezkoa den informazioa organo judizialeetatik jasotzea, hartara, BAZei biktimekiko harremanak errazteko eta biktimen egoera judiziala ezagutzen laguntzeko (biktima nahastuta dagoen beste prozesu batzuk, telefono zenbakia, eta abar). 3. Dokumentazio guztia Biktimenzako Arreta Zerbitzuen eskura jartzea. 4. Informazioa ematea eta Lege Medikuntzako Euskal Erakundearen zerbitzuekin, Talde Psikoszozialarekin eta, sortzen direnean, Balorazio Integraleko Unitateekin koordinatzea. 5. Biktimek eskatutako laguntzak eta, hala badagokio, laguntza horien izapideak egiteko eta emateko ardura duten gizarte babes, babes psikoszozial, laguntza, eta abarreko erakundeei ebazpen judizialak bidaltzea. 6. Beharrezkoak diren estatistikak lantzea eta EAEko erreferentziazko zentro bihurtzea.

2008ko azaroan jarri zen martxan Koordinazio Zentroa; bertan garatutako aplikazio informatikoak erraztu egiten du datuen kudeaketa eta eskumeneko organoek erabakiak hartzeko beharrezkoak dituzten estatistikak eta txostenak osatzeko lana.

Etxeko Indarkeriaren Biktimak babesteko Erregistro Zentralari¹ dagokionez, gaur egun Euskadi dugu babes neurriei buruzko datuak organo judizialen kudeaketa aplikaziotik Erregistro Zentralera zuzenean bidaltzen dituen autonomia erkidego bakarra. Horrela, transkripzio

¹ Martxoaren 5eko 355/2004 Errege Dekretuaren bitartez sortua, maiatzaren 9ko 513/2005 Errege Dekretuak aldatua, eta beranduago maiatzaren 25eko 660/2007 Errege Dekretuak aldatua, datu-base informatizatu bat da: zigorrak eta epai bidez adostutako segurtasun-neurriak, izapidetzen ari diren prozedurak, izapidetzen ari diren zigo-prozeduretan adostutako kautelazko neurriak eta babes-neurriak, inputatu bati egotzitakoak, Zigor Kodeko 137.2 artikuluan aipatutako arau-hausteengatik (ezkontidea, afektibitate-erlazioa eduki den pertsona, ondorengoak, anai-arreba propioak edo ezkontidearenak edo bizi den pertsonarenak, adin txikiak edo mende-koak, beraiekin bizi direnak edo tutoretzan, harreran, eta abar bizi direnak).

akatsak saihesten dira eta, era berean, erabilgarri dauden datuak etengabe berritzen direla ziurtatzen da.

Orain arte aipatu diren koordinazio ekintzekin batera –besteak beste biktimizazio sekundarioa saihesteko ekintzak dira–, azpimarratzekoa da **genero indarkeriaren eta familieren baitako indarkeriaren Balorazio Integraleko Zerbitzuen** diseinuari ekin zaiola. Lege Medikuntzako Euskal Erakundetik koordinatzen dira aipatutako unitateak eta psikiatrian espezializatutako auzitegiko medikuek, auzitegiko forentseek eta gizarte langileek osatzen dituzte. Epaitegiei laguntzeko unitateak dira eta agintaritza judizialak edo fiskalak –adin txikikoen kasuan– eskatzen dutenean balorazio orokorra egiten dute. Balorazio horretan, eraso fisikoak eta psikikoak barne hartzeaz gain, inplikatura dauden pertsonen rolak eta elkarreaginak barne hartzen dira, bai eta indarkeriaren intentsitatea eta erabilera ere. Horrez gain, jardun protokolo koordinatu bat eta informazioa jasotzeko protokolo teknikoak barne hartzen dira.

Helburua da, emakumeen kontrako indarkeriazko delituak gertatzen direnean ebazpenak emateko ardura duten organo judizialen eskura peritu tresna eta balorazio tresna eraginkorrrak jartzea. Izan ere, aipatutako unitateek emakumeen egoera, indarkeria jasaten duten edo indarkeriazko egoerak bizi dituzten seme-alaben egoera, eta erasotzaileen egoera aztertu behar dute. Zentzu horretan, organo horien birtualtasuna bikoitza da. Izan ere, oso mekanismo lagungarria da kasu bakoitzerako erabakirik egokienak hartzen asmatzeko, bai eta genero indarkeriaren biktimei ematen zaien laguntza hobetzeko ere. Kasu bakoitza sakonago ezagutuz errazagoa izango da gizarte eta laguntza neurri egokiak hartzea eta, horien bitartez, biktimak eta bere familiak jasan ditzakeen lesioak, bai eta ondorioak ere, aztertzen dira. Azken finean, horrelako proiektu batek jardun koordinatua eta integrala eskatzen du, eta gizarte langileek emandako ikuspegiarekin osatu behar da. Balorazio Integraleko Unitate horiek 2009an abiaraziko dira, mailaka.

Bestalde, azpimarratzekoa da 2008an antolatu zela Genero Indarkeriari eta Familiaren baitako Indarkeriari buruzko Diziplina arteko II. Biltzarra, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailak, Justizia Administrazioako Euskal Behategiarekin lankidetzan. Arartekoaren erakundeak ere parte hartu zuen. Biltzar horretan antolatutako lantegien bitartez, genero indarkeriaren esparruan garatutako politika eta ekimen nagusiak landu ziren, eta biktimen errehabilitazioarekin eta erabilgarri dauden baliabideekin erlazioan azken urtean ikusitako disfuntzioak eta arazoak hobetzeko balioko duten ondorioak atera ziren (www.justizia.net orriari ikus daitezke). Ondorengo lerroetan zehaztu ditugu ondorio horiek:

Esku-hartze judizialaren aurretiko laguntzari dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu ziren: esku-hartze judiziala martxan jarri aurretik Biktimentzako Arreta Zerbitzua erabiltzeko beharra. Ondorioz, zerbitzu guztietatik, eta, batez ere justizia zerbitzuetatik, BAZera bideratu behar dira biktimak, lehenengo arreta emateko; biktimari prozedura judizialek dakartzaten ondorioei buruzko informazio erreala eman behar zaie eta BAZen laguntza eskatzean biktimak zer lortu nahi duen zehaztu behar da, eta, era berean, biktimarekin batera, eta ez biktima alde batera utzita, maila terapeutikoan lortu nahi dena ezagutu. Gainera, biktimentzako informazio eta laguntza sistemak indartzeko beharra azpimarratu zen, salaketak kentzea saihesteko, eta, horrez gain, BAZ asteburuetan ere irekita egoteko beharra azpimarratu zen.

Arreta judizialari dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu ziren: berehalako informazio eta aholkularitza espezializatua; legez kontrako egoeran bizi diren biktima atzerritarren kasuan, ondorio juridikoei arreta berezia emateko beharra; profesionalak prestakuntza juridiko integrala eta espezializatua edukitzeko beharra; biktimei euren beharrei buruzko informazioa ematea, genero indarkeriaren aurka borrokatzeko neurriak hartzea, berdintasunaren ikuspegitik, eta gatazkak konpontzeko tresna gisa bitartekaritzaren balioaz hausnartzeko beharra, larriak ez diren egoeretan, hala nola erasotzaileak egoera konpontzeko parte hartu nahi duenean, horrelako egoerak ohikoak ez direnean, menpekotasun erlazioa ez dagoenean, eta abar.

Biktimei arreta emateko gizarte zerbitzuen erronkei dagokienez: emakumeenganako indarkeria eragiten duen arrazoi nagusia barneratzea eta genero ikuspegia kontuan hartzea; biktimek egin beharreko ibilbide osoan laguntza eskaintzeko plantilla nahikoa edukitzea eta kasuaren jarraipena egitea; gaur egungo zerbitzuak mantentzea eta egungo beharretara egokitzea; esku-hartze integratua eta kasu bakoitzean nahastutako sistemen esku-hartze integratua eta koordinazioa; etxebizitza, enplegua eta diru laguntzak eskuratzeko politikak indartzea; tratu txarrak salatzen ez dituzten emakumei laguntza ematea; edo aldi baterako banandu ondoren etxera bueltatzen direnei laguntzea; talde honen bizitza pertsonala-soziala eta lanekoa bateragarri egiteko politika errealak sustatzea; genero indarkeriaren biktima diren emakume etorkinei eta minusbaliatuei arreta berezia ematea; eta emakumeak bizi duen gutxiagotasun egoerak eta botere galtzeak barneratzea.

Amaitzeko, genero indarkeriarekin erlazionatutako berariazko arazoan esparruan, "EAEko Justizia Administrazioaren esparruan Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakume etorkinen Zailtasunak" izeneko ikerketa proiektuan lortutako emaitzak, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendariak Biltzar honetan ezagutzea eman zituenak, azpimarratzea gustatuko litzaziguke. Inmigrazioak genero indarkeria dela eta jarritako salaketetan duen eraginaren bilakaera aztertzen du aipatu ikerketa lanak, eta 2002-2007 aldian du erreferentziatzat. Lana egiteko erabilitako iturrien artean azpimarra daitezke: tratu txarren biktima izandako emakume etorkinekin erlazioan izapidetzen diren espedienteak eta esparru juridikoko langileei eta tratu txarren biktima izandako emakume etorkinei egindako elkarrizketak. Azterketak adierazten duenez, xede dugun taldeak askotariko arazoak ditu. Arazo batzuk horrelako pertsonen bizi duten egoerarekin daude lotuta –baliabiderik eza eta migrazio proiektuarekiko talka, inork sinetsiko ez dituelako beldurra, kanporatzeko beldurra, eta abar, familia egoera zaila eta administrazio egoera irregularra, Lege Integralak barne hartzen ez dituen erasoak eta informaziorik eza–, eta beste batzuk sistema judizialarekin daude erlazionatuta –informazioa interpretatzeko beharra, abokatuak eta langile sozio-juridikoei Atzerritarrei buruzko Legea ez ezagutzea, langile juridikoei eta gizarte langileek genero ikuspegia eta kultura arteko harremanak barne hartzen dituen informaziorik ez edukitzea, mugikortasun handiaren ondorioz horrelako prozesu luzea eteteko arriskua, erasotzailea aurkitzeko zailtasunak eta Epaitegietan segurtasun neurriak ez betetzea–.

Esanak esan, oso garrantzitsua deritzogu genero indarkeriaren biktima diren emakume etorkinen egoera zaila larriagotzen duten alderdiak azpimarratzeari. Jarraian garatu ditugun ataletan, Eusko Jaurlaritzako sail batzuk, talde honetan nabarmenagoa den biktimizazio

bikoitzarekin amaitzeko helburuarekin, 2008an martxan jarritako zenbait bitarteko aipatu ditugu. Edozein modutan, sektore arteko ikuspegia edo diskriminazio anitzaren ikuspegia, non generoarekin batera estatus sozioekonomikoa edo jatorrizko herrialdeko gizarteratze eredia nahastuta dauden, hartuko dugu abiapuntutzat, desberdintasunezko egoerak desagerrarazteko eta, horrela, emakume guztiek funtsezko eskubideak edukitzeko, eta berariazko konponbideak landu eta eskaintzeko.

2.2. 2008an genero indarkeriaren biktima diren emakumeei polizia babes emateko neurriak (arriskua baloratzeko irizpideak eta irizpide horiek aplikatzeko protokoloak)

2007ko txostenean jada zehazki aztertu zen Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko Segurtasun Sailburuordetzak garatzen duen prozesua: etxeko indarkeria edo genero indarkeria gertatu dela jakiten denetik, Ertzaintzaren esku-hartzea amaitutzat jo arte. Zehazkiago, 2005ean ezarritako lan sistemaren azterketa egin da. Lan sistema hori "Etxeko Indarkeria eta Genero Indarkeria gertatzean Ertzaintzak egindako esku-hartzeen Kalitatea Kudeatzeko Sistema" izenarekin ezagutzen da, eta horrelako egoeretan Ertzaintzak esku hartzeko hiru lurraldeetan jarraitzen dituen irizpideak bateratzen ditu.

Eta sistema horren barruan, 28. Instrukzioa azpimarratu dugu. Instrukzio horretan deskribatzen da etxeko indarkeriaren edo genero indarkeriaren biktimak bizi duen arrisku egoeraren balorazioa egiteko modua: arrisku maila identifikatzen da eta kasu bakoitzean ezar daitezkeen poliziaren babes neurriak zehazten dira. 2008ko apiriletik UNE-EN ISO 9001-2000 arauaren arabera kalitate ziurtapena du 28. Instrukzioak. Emakumeen kontrako indarkeriazko kasuei arreta emateko erabilitako protokoloaren kalitatea baloratzeko hiru urtez egindako kanpo auditoriaren prozesuaren baitan, honako alderdi hauek azpimarratu nahi izan dira alderdi positibo gisa: emakume bakoitzak pairatzen duen arriskuaren ebaluazioa, Euskal Herriko Unibertsitateak landutako bikotekidearen aldetik Indarkeria Larria pairatzeko Arriskua Baloratzeko Galdeketa bat oinarrian hartuta. Galdeketa horren bitartez zehazten da kasu bakoitzean ezarri beharreko babes maila; polizia koordinazioaren arintasuna, biktimak polizia-etxearekin harremanetan jartzeko telefonoak ezagutzeraz ematea, eragindako emakumeen prestakuntza nork bere burua babesteko neurrietan edo Ertzaintzaren eta beste polizia indar batzuen arteko lankidetzazko maila.

Horrekin batera, eta 4/2005 Legearen 51. artikuluan xedatutakoaren arabera, Emakunde "Emakumeen kontrako Etxeko Tratu Txarren Erakunde Erantzuna EAEko Polizia esparruan" izeneko txostena aurkeztu du 2008an. Txosten horrek erakusten ditu emakumeen kontrako etxeko tratu txarren esparruko polizia baliabideen ebaluazioak emandako emaitzak (www.emakunde.es). Lortutako datuen arabera honakoa esan daiteke: zailtasun bereziko egoerak bizi dituzten emakumeen arretarako baliabideei dagokienez, eta Estatuko beste polizia batzuen esku-hartzearekin alderatuta, oso positibotzat baloratu da emakumeek biktima bezala bizi duten egoerari lehentasuna ematea, emakume etorkinek administrazio mailan duten egoeraren aurrean. Hain zuzen ere, berariazko Instrukzio bat landu da eta, horren arabera, emakume bat irregulartasunezko egoeran bizita ere, Ertzaintzak ez du emakume

hori kaleratzeko espedientea abiaraziko, betiere etxeko tratu txarrak jasaten dituen emakume etorkina bada². Hori kontuan hartuta, errazagoa da, zalantzarik gabe, horrelako egoeren aurrean oso ahulak diren emakume biktima ez-nazionalen konfiantzarik ezari aurre egitea.

Azpmarratzeko beste alderdi batzuk dira: tokiko polizia etxeko tratu txarren esparruan ematen duten zerbitzuaren eragin mugatua. Tokiko polizia herritarrengandik duten hurbiltasuna azpmarratzen da, eta hurbiltasun horri esker, hobeto ezagutzen dute gizarte errealitatea eta genero indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurka borrokatzeko funtsezko eginkizunak betetzeko aukera dute, besteak beste: aldentzeko neurriak betetzen direla kontrolatzen laguntzen dute, indarkeria prebenitzen, indarkeriazko kasuak antzematen edo erkidegoan erabilgarri dauden baliabideei buruzko informazio ematen dute eta, neurri handi batean, udaletako gizarte zerbitzuekiko koordinazioa errazten dute.

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeek esku-hartzearen gainean duten ikuspegiari dagokionez, Ertzaintzak egiten duen lanarekin ados daude eta hartu beharreko erabakietan aktiboki parte hartzen dutela azpmarratu nahi izan dute. Antzeko datuak erakusten ditu etxeko indarkeriaren eta/edo genero indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko Ertzaintzak egiten duen esku-hartzearen asetasunari buruz Barne Sailak 2008ko bigarren lauhilekoan landutako txostenak. Barne Sailak adierazi digunez, telefonoz egiten dira galdeketak, eta kontuan hartuta etxeko indarkeria dela eta espediente ugari dagoela, baliabide gehiago behar dira kasu guztietan bitartekaritza lanak egiteko. Horregatik, biktimen lagin bat erabiltzen da emakume horiek duten asetasuna/asetasunik eza neurtzeko.

Nahiz eta balorazio positiboa egin den, gure erakundera kexak iritsi dira, izan ere, genero indarkeriaren biktima izan diren zenbait emakume ez dira ados agertu Barne Sailak bizkartzain zerbitzua kentzeko hartu duen erabakiarekin. Erabaki hori hartzeko, Barne Sailak kontuan hartu du eragindako emakumeen arrisku maila aldatu izana (edo desagertu izana), baina emakume batzuk oraindik mehatxatuta daudela uste dute eta ez dute horrelako erabaki bat ulertzen. Barne Sailari jakinarazi genizkion kexa horiek guztiak. Barne Sailak emandako erantzuna izan zen, emakume horiei etengabeko babesa kentzeko arrazoia arrisku egoera aldatu izana dela, alegia, "oinarizko arrisku egoera" dutela emakume horiek, eta kalifikazio hori kontuan hartuta, ez dagokiela bizkartzain zerbitzua. Era berean, Barne Sailak argi utzi zigun erreklamazioa aurkeztu zuten emakume horiekin segurtasun neurri prebentiboak ezartzen zirela eta aldiro-aldiro elkarrizketak egiten zitzaizkiela. Gaur egun jasotako erantzunak aztertzen ari gara gure erakundearen.

Bestalde, arrisku egoeran zeuden emakumeei laguntzeko 2008an poliziak egindako esku-hartzei buruzko datuak eskatu genizkion Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari, eta etxeko indarkeriatatik eta sexu askatasunaren kontrako delituengatik 2008an poliziaren aurrean aurkeztutako salaketei eta EAEn zaintzapean dauden erasotzaileen kopuruari buruzko informazioa eskatu genion. Haatik, txosten hau lantzen ari garen unean ez dugu oraindik

² "Atzeritarrei dagozkien Jardun Irizpideei" buruzko 33. Instrukzioa, Instrukzio bereko I. Eranskinarekin konbinatuta.

eskatutako daturik jaso. Horrenbestez, atal honetan Sail honek publiko egindako emaitzak erabili ditugu erreferentzia gisa (www.interior.ejgv.euskadi.net helbidean daude eskuragarri datu horiek). Esanak esan, 2008ko urtarriletik urrira 923 gizonetako atxilotu zituen Ertzaintzak euren bikotekideak jotzeagatik edo mehatxatzeagatik. 2008ko urtarriletik urrira, halaber, %7ko gorakada erregistratu du tratu txarrak salatu dituzten emakumeen kopuruak, aurreko urteko datuekin alderatuz. Horrela, 2.641 izatetik 2.834ra pasa dira.

Tratu txarrak jasan dituzten emakume gehien dauden adin tartea 23-40 urtekoa da: guztizkoaren %52, hain zuzen ere. Bigarren talde garrantzitsuena (%20), 40-50 adin tartean multzokatutako emakumeek osatzen dute. Era berean, 50 urtetik gorako emakumeen artean eta 23 urtetik beherakoen artean %14ko portzentajeak erregistratu dira.

2008ko azaroaren 24a erreferentziatzen hartuta, 15 dira bizkartzain zerbitzua duten emakumeak, eta 200 baino gehiago dira Ertzaintzarekin harremanetan jartzeko Bortxa telefono bat dutenak.

2.3. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako telefonoa

2008ko otsailaren 5ean, Espainiako Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten, genero indarkeriaren biktima diren emakumei informazioa eta aholkularitza emateko doako telefono zerbitzua eskaintzeko (016). Hitzarmen horren arabera, Espainiako gobernuak zuzenean bideratzen ditu Etxeko Indarkeriaren eta Sexu Erasoen Biktimei Telefono Arreta emateko Euskal Zerbitzura, genero indarkeriarekin erlazionatuta Euskaditik jasotzen diren dei guztiak (016 telefonoan jasotzen direnak). Bestalde, aipatutako akordioa oso baliagarria da, tratu txarrak edo erasoak jasan dituzten emakumei Administrazioari aholkularitza juridikoa eskatzeko bidea errazteko.

2008ko azaroaren 17an, Espainiako Gobernuko Berdintasunerako Ministerioak Genero Indarkeriaren esparruko Informazioa eta Aholkularitza Juridikoa emateko Telefono Zerbitzuari (016) buruzko txostena aurkeztu zuen (www.migualdad.es helbidean dago eskuragarri). 2008ko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra genero indarkeria dela eta EAetik jasotako dei kopurua 1.551 izan zen. Guztien artean 946 Bizkaitik egin ziren; 382 Gipuzkoatik; eta 223, azkenik, Arabatik.

Azpimarratzekoak dira, halaber, Gizarte Gaietako Sailak egoera bereziki ahula bizi duten emakumeen taldeak xede hartuta, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak garatu dituen ekimenak. Alde batetik, adineko emakumeen taldea bereizi behar da. Sailak aipatu duenez, talde horrek normaltzat jotzen du gizonetako indarkeria eta, hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak kanpaina bat ekingo du telefono zerbitzua 60 urtetik gorako emakumeengana hurbiltzeko. Kanpaina "Ez da berandu" lelopean garatuko da. Bestetik, emakume etorkinak daude. Irregularitasunezko egoeran bizi edo ez, telefono autonomikoan erasoak salatzen animatu nahi dira. Hizkuntza desberdinetan eskaintzen da zerbitzua. Bizileku baimenik ez duten emakumeen konfiantzarik eza gairatzen nahi da, izan ere, ez dituzte ezagutzen polizia

gorputzek jarraitzen dituzten irizpideak eta erabilgarri dauden gizarte baliabideak, arreta emateko telefono zerbitzua barne. Xede horrekin, EAEko lokutorioetan hizkuntza desberdinetan landutako liburuxkak banatu dira. Lokutorioetan banatu dira, emakume etorkinak askotan joaten baitira leku horietara euren familiei telefonoz deitzera, eta egoera hori probestu nahi da publizitate mezua helarazteko, eta tratu txar fisikoak edo psikikoak pairatzen badituzte nola jokatu behar duten jakinarazteko.

2.4. Etxebizitza babestuen kupoak genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitza babestuaren esparruan Jarduteko Plana onartu zuen 2004an. Plan horretan ekintza positiboko hiru neurri zehazten dira: 1. Alokairuko erregimeneke etxebizitza sozialen edo babes ofizialeko etxebizitzaren zozketetan genero indarkeriaren biktimentzako kupo berezi bat barne hartzea. Salbuespen moduan, eta etxebizitza beharra ziurtatzen denean, tratu txarren biktimek ez dituzte bete beharko Etxebizitza Sailburuaren Aginduak eskatzen dituen baldintzak. 2. Kasu larrietan eta salbuespenetan, alokairuko erregimeneke etxebizitzak zuzenean esleitzea, betiere jarraian zehaztu diren baldintzak betetzen badira: udaletxearen edo Foru Aldundiaren harrera etxebizitza edo –zentro batean egon izana, behin egonaldi denbora gainditu eta egonaldia luzatu ezin dela ziurtatzen denean; etxebizitzaren bila sutsuki ibili izana eta bizitzeko gizarte sare edo familia bat ez edukitzea. 3. Jabetzapean duen etxebizitza laga eta alokairuko erregimeneke babes ofizialeko etxebizitza batengatik aldatzeko aukera, biktimaren segurtasuna ziurtatzearen beste leku batera bizitzera joan behar denean.

Era berean, 2006ko urriaren 4ko Aginduak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitza esparruko ekintza positiboak buruzkoak, arautzen ditu xede dugun talde honetarako ekintza positiboko neurriak, bai eta biktima direla ziurtatzeko prozedurak eta esparruan aurreikusitako neurri baten babesa jasotzeko baldintzak ere.

Indarkeria pairatu duten emakumeentzako salbuespenezko tratamendu bat garatzeko berriazko prozedura bat ezartzea oso garrantzitsua bada ere, oso garrantzitsua da, halaber, prozedura hori eraginkorra izatea. Egoera oso ahula bizi duten emakumeen kasuan, erantzun ahalik eta azkarrena emango dien prozesu bat beharrezkoa da, kasu bakoitzak dituen ezaugarrietara ondo egokituko dena. Horregatik, indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko baliabideak oso tresna erabilgarria dira biktima emantzipatzeko prozesuaren barruan, are gehiago kontuan hartzen bada, kasu askotan seme edo alaba adin txikiak dituztela edo euren kargura senideak dituztela, biktima etorkina dela edo menpekotasun egoeran bizi dela, edo adineko emakume bat dela.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, aipatutako neurri guztiak martxan jarri eta duten ezarpena ezagutu nahi izan dugu eta, xede horrekin, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari ondoren adierazitako alderdiei buruzko informazioa eskatu diogu: genero indarkeriaren biktima izan eta 2008an talde horretarako alokairuan eskainitako etxebizitzaren kupo berezian

sartu diren emakumeen kopurua, edo Sail honetatik etxebizitza babestu bat zuzenean esleitu zaien emakumeena. Kontuan hartuko dira jatorria, onartutako eta ukatutako eskaerak, etxebizitza esleitzeko ezaugarriak (harrera baliabideen egokitasuna, baldintza orokorreko salbuespenak, eta abar), kupo berezian sartzen direnetik etxebizitza esleitzen den arteko batez besteko itxaron denbora, esleipena egin ote den, neurri hauen babespean esleitu diren etxebizitzak alokatzeko errenten batez besteko maila eta genero indarkeriaren kupo bereziaren barruan gaur egun etxebizitza baten zain dauden emakumeen kopurua.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak genero indarkeriari buruz emandako datuek erakusten dute horrelako egoera bizi duten emakumeek Etxebide Babespeko Etxebizitza Esleitzeko Zerbitzu Publikoan izena emateko egin dituzten eskaerak. Datuak lurraldeka eta datuen kontsulta egin denean (2008-12-19) kasuan kasu espedienteak duen egoeraren arabera aurkezten dira, eta genero indarkeriaren biktimatzat jo diren ala ez bereizten da.

Jarraian adierazi ditugu gure ustez interesgarriak diren datuak:

LURRALDEA	EGOERA	ESKAERAREN SARRERA DATA								GUZTIRA	
		2005 arte		2006		2007		2008			
		A	B	A	B	A	B	A	B	A	B
ARABA	Alta	32	25	11	11	16	14	4	4	63	54
	Ukatua	4	2	4	2	0	0	1	1	9	5
	Baja	34	20	2	0	0	0	0	0	36	20
	Erantzuteke	0	0	0	0	0	0	1	0	1	0
BIZKAIA	Alta	117	87	38	27	66	54	16	9	237	177
	Ukatua	55	24	25	5	34	4	13	1	127	34
	Baja	110	63	3	3	1	1	0	0	114	67
	Erantzuteke	0	0	0	0	0	0	9	1	9	1
GIPUZKOA	Alta	42	29	20	18	27	17	9	6	98	70
	Ukatua	10	4	10	7	3	1	0	0	23	12
	Baja	38	25	1	1	1	1	1	1	41	28
	Erantzuteke	0	0	0	0	0	0	5	0	5	0
GUZTIRA		442	279	114	74	148	92	59	23	763	468

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

A: Genero indarkeriaren biktima direla aitortu duten eskatzaileak.

B: Genero indarkeriaren biktima direla aitortu zaien eta BOE prozeduratik edo BOE eskuratzeko eskakizunetatik salbuetsi daitezkeen eskatzaileak.

Aurreko taulak erakusten duenez, 2005etik 2008ko abendura bitartean 1.231 eskaera aurkeztu dira gure lurraldean. Eskaera horietatik 763 indarkeriaren biktima izatea aitortu ez zaien eskatzaileenak dira eta 468 biktima direla aitortu zaien eskatzaileenak. Azpimarratzekoa da, halaber, 2008an 2007an baino gutxiago izan direla genero indarkeriaren biktima aitortuak diren emakumeek aurkeztutako eskaerak. %40 gutxiago, hain zuzen ere. Ezin dugu ahaztu, zentzu horretan, zozketa batean parte hartzeak ez duela ziurtatzen etxebizitza lortuko denik. Hala ere, genero indarkeriaren biktima diren emakumeek gainerako eskatzaileek baino

aukera gehiago dute etxebizitza bat lortzeko. Hortaz, horrelako mekanismo batek etxebizitza lortzeko duen eraginkortasuna, emakumeek etxebizitza eskatzen duten udalerrian egiten diren sustapenen mende dago, eta kontuan hartzen bada baliabide gutxi dagoela eta BOE sustapenik egiten ez dela edo oso gutxi egiten dela, zinez oso zaila da beharra duten emakumeek etxebizitza babestu bat eskuratzeko aukera edukitzea. Horrenbestez, udalerrri guztietan BOE etxebizitzaren sustapenak ziurtatu beharko lirateke, hartara, beharra duten emakumeek etxebizitza bat eskuratu ahal izateko.

39/2008 Dekretuak, martxoaren 4koak eta babes publikoko etxebizitzaren erregimen juridikoari eta etxebizitza eta lurzorua esparruko finantza neurriei buruzkoak, bere 12. artikuluan dioenari jarraituz, zozketa bidezko esleipenetako salbuespen aginduen eskaerei dagokienez, 2008an 21 eskaera egin dira. Horietatik 11 aldekoak izan dira, 4 negatiboak, 1 atzera bota da eta 5 izapidetzen ari dira. Eskaerak probintzien arabera aztertuz, Araban 3 eskaera Gasteizko udaletxetik iritsi ziren, 1 Foru Aldunditik eta beste bat Sailak berak antzeman zuen. Gipuzkoan 3 eskaera egin ziren: bat Donostiako udaletxetik, beste bat Bergarakotik eta azkena Andoaingo udaletxetik. Bizkaian, azkenik, eskaera bat Lutxanako udaletxetik iritsi zen; 2 Sestaokotik; 7 eskaera Bilboko udaletxeko emakumeen ataletik eta beste 2 Bizkaiko Foru Aldundiko emakumeen ataletik.

Errenten batez besteko mailari dagokionez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak argitu digu, xede ditugun emakumeak Bizigune programaren baitan alokairu erregimeneko maizter gisa erregistratzen direla eta gainerako maizterrek bezalaxe, gehienez ere euren sarreren %30 ordaintzen dutela.

Etxebizitza jasotzeko, baloratzeko eta bilatzeko epeei eta komunikazioari dagokienez, Sailak adierazi duenez, datu horiek aldatu egiten dira hainbat eragileren arabera: premiazkotasuna, lan karga, etxebizitzaren erabilgarritasuna eta maizterren mugikortasuna gaitasuna/beharra.

2.5. Baliabide ekonomikoak eta laneratzeko sartzeko eta gizarteratzeko laguntzak etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako.

Prestazio ekonomikoari dagokienez, bi laguntza mota bereizi behar ditugu: Estatu mailako laguntzak eta laguntza autonomikoak, eta biak ala biak ekonomia kolokatasuna bermatzeko dira. Estatuko laguntzen kasuan, gizarteratzeko errenta aktiboa bereizi behar da, alde bategatik. INEMek ematen duen errenta da (945/2003 Errege Dekretua, uztailaren 18koa). Bestetik, 1/2004 Legeak, abenduaren 28koak eta Genero indarkeriaren kontrako Babes Neurri Integralei buruzkoak (27. artikulua), barne hartutako laguntzak daude bestetik. Laguntza horiek bateragarriak dira 35/1995 Legeak, abenduaren 11koak eta indarkeriazko delituen eta sexu eraso biktimentzako laguntzei buruzkoak, aurreikusitako laguntzekin.

Laguntza autonomikoari dagokienez, berriz, hiru laguntza mota bereizi dira: Oinarrizko errenta, Gizarte Bazterkeriaren kontrako Legeak eta Gizarte Eskubideen Gutunaren Legeak arautzen duena. Ez da genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako bakarrik ematen den prestazioa, baina Berdintasunerako Euskal Legeak ekarritako aldaketan ondorioz,

talde horretara zuzendutako salbuespenak aurreikusten dira. Hain zuzen ere, tratu txarrak direla eta beste etxe batera joaten den emakumea, etxe horretan bizi diren gainontzeko kideekiko, senideak izan ala ez izan, bizikidetzat unitate independente bat bezala ikusten da, eta, beraz, emakume horren sarrerak ez dira kontuan hartzen bizirauteko oinarritzko gastuei aurre egiteko orduan. Bestalde, ez zaie eskatzen 23 urte baino gehiago edukitzeko baldintza betetzeko. (4/2005 Legearen zazpigarren azken xedapena). Gainera, aldi baterako harre-
ra etxebizitza edo –zentroetan bizi badira ere, eta oinarritzko mantenua estalita badute ere, oinarritzko errenta jasotzeko eskubidea dute, betiere berau lortzeko gainerako baldintzak betetzen badira. Esanak esan, aipatutako salbuespen guztien bitartez, tratu txarrak jasan dituen emakumeei gutxieneko autonomia ekonomikoa ziurtatu nahi zaie, dituzten behar oinarritzeko aurre egin ahal izateko.

Bigarren laguntza mota 2007ko azaroaren 29an Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuak emandako Aginduan barne hartuta dago. Agindu horrek Babes Integraleko Legearen 27. artikulua garatzen du eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeei diru laguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen du. Helburutzat du, edozein arrazoi delarik oinarritzko errentak estali ezin dituen egoeretan laguntzea eta, horrez gain, laguntza ordainketa bakar batekin kobratzen denez, egoera jakin batzuei etekina ateratzeko aukera eman nahi zaie. Horrela, laguntza honen onuradunak izan daitezke etxeko tratu txarrak jasan dituzten emakumeak, betiere EAEn erroldatuta badaude eta dituzten errentak Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %75era iristen ez badira eta enplegua lortzeko zailtasun be-
reziak badituzte.

Hirugarren laguntza mota udaletxeek tratu txarrak direla eta euren etxebizitza utzi behar duten eta bizirauteko baliabide nahikoa ez duten emakumeentzako ematen dituzten larrialdietako laguntzak dira (Gizarte Larrialdiko Laguntzak).

Horrez gain, genero indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideen baitan, 1/2004 Legearen 19. artikulua gizarte arreta integralerako eskubidea barne hartzen du. Ildo horretan, laguntza lortu ondoren emakume horien jarraipena egiten da eta arreta ematen zaie. Zentzu horretan, Euskadiko Gizarteratzeko Zuzendaritzak, gure erkidegoan laguntzak emateko prozedura arautzeko eskumena duen organismoak, Diagnostiko eta Esku-hartze Sozialerako tresna informatiko bat jarri du Gizarte Zerbitzuen eskura. Tratutxoaren berriazko fitxa bat du, emakumeen kontrako indarkeriazko egoerak gertatzen direnean berriazko diagnostiko bat egiteko.

Prestazio ekonomikoen esparruan, halaber, 2008an Eusko Legebiltzarrak 18/2008 Legea, abenduaren 23koa eta Sarreren Bermea eta Gizarteratzea lortzeko dena, onartu du. Lege horretan genero indarkeria –behar egoera– diru-laguntzekin erlazioan aipatu ditugun salbuespenak barne hartzen dira (Legearen 9.2.b eta 16.d artikulua).

Nahiz eta araudi horri esker prestazio ekonomikoen kudeaketa hobetu den, izan ere, prestazio ekonomikoen eta lan txertakuntza eta gizarteratzea lortzeko bitartekoen aplikazioaren homogeneotasuna ziurtatzeko landutako araudia da, emakume talde jakin batzuek, egoera irregularrean bizi diren emakume etorkinen taldeak, adibidez, zailtasunak dituzte prestazio

ekonomikoak eskuratzeko, nahiz eta beraiek osatzen duten euren erasotzaileekiko independentzia ekonomikoa lortzeko zailtasun gehien dituen multzoa. Horregatik, Arartekoaren erakundetik, eta Lege Integralean aurreikusitako ez-diskriminazioaren printzipioa betez, bereziki azpimarratu nahi dugu genero indarkeriaren biktimei ematen zaizkien laguntzak eskuratzeko baldintzak aldatzeko beharra, hartara, egoera irregularrean bizi diren emakume etorkinek laguntza horiek eskuratzen dituztela ziurtatzeko.

Amaitzeko, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeek pertsona langabetuen lan txertakuntza eta gizarteratzea lortzeko administrazioek izaera orokorrarekin ematen dituzten laguntzak eskura ditzakete. Enplegurako laguntzak daude alde batetik (329/2003 Dekretua, abenduaren 23koa), eta etxeko tratu txarren biktimen lan kontratazioa sustatzeko eta langile autonomo edo kooperatiba bazkide bihurtzen laguntzeko balio dute. Lan egoera hobetzeko eta lan txertakuntza sustatzeko laguntzak daude bestetik (327/2003 Dekretua, abenduaren 23koa), eta enplegurako prestakuntza ikastaroetan parte hartzeko orduan, lehentasunezko tratamendua ematen dute. Eta EAEko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak barne hartzen dira (6/2008 Ebazpena, ekainaren 2koa). Horrela, kontratazio publikoa zailtasunak dituzten pertsonen lan txertakuntza laguntzeko mekanismoak eskaintzen dira. Horien artean etxeko tratu txarren biktimen kontratazioa barne hartzen da.

Hala ere, tratu txarrak direla eta bikotekidea uzten duten emakumeak, askotan, bakarrik geratzen dira euren seme-alabekin, eta, beraz, seme-alabak zainduko dituen inor ez badute, zailtasun eta oztopo asko izaten dituzte, euren gizarteratzea lortzeko ikastaroetan eta errehabilitazio programetan parte hartzeko. Zentzu horretan, funtsezkoa da aipatutako laguntzak eskaintzeaz gain, horrelako egoera bat bizi duten emakumeei laguntzeko zerbitzuak sortzea.

2.6. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera baliabideak 4/2005 Legea egokitzea

Garrantzi handikoa deritzogu, halaber, gure Erkidegoan 148/2007 Dekretuak, irailaren 11koak eta etxeko tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeentzako harrera baliabideak arautzen dituenak, zein neurritan betetzen diren baloratzeari. Talde honentzako zentro eta etxebizitzaren sarea homologatzeko eta antolatzeke helburuarekin, eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko, aipatutako Dekretuak ezartzen ditu etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera baliabideen kalitate eta funtzionamendurako irizpideak eta gutxieneko baldintzak, EAEko lurralde esparruan eta baliabideen titulartasuna edozein dela.

Araudiko 2.1 artikulua ondo etarako, harrera baliabideen artean honako mota hauek bereiz daitezke: **berehalako harrera zerbitzuak**, egonaldi laburrekoak. Eguneko hogeita lau ordutan, urteko egun guztietan, daude irekita eta berehala egiten zaie harrera biktimei, dituzten beharren balorazioa egin bitartean eta kasuan kasu baliabiderik egokiena erabaki arte. **Egonaldi ertain edo luzeko harrera etxebizitzak eta –zentroak**. Lehenengoak aldi baterako babes eta ostatu eskaerei erantzuteko dira; bigarrenak esku-hartze espezializatu

integrala behar duten kasuei erantzuteko dira. Gure Erkidegoko oinarrizko harrera baliabideak dira, izan ere, emakume erabiltzaileen gizarteratzea eta autonomia pertsonala laguntzeko baliabiderik egokiena dira eta emakume horien pribatutasuna ziurtatzen dute.

Bizkaiko Foru Aldundiak, udalerriek eta mankomunitateek³ eskaintzen dituzten harrera baliabideei buruzko datuak aztertu ondoren, honakoak antzemandako hutsuneak: Harrera zerbitzu guztietan ez dira eskaintzen 148/2007 Dekretuak ezartzen dituen langile baliabideak, hau da, zenbait udalerritan ez dago 17.1 artikulua ezarritako eginkizunak garatzeko pertsona arduradun bat eta ez dago hartutako emakumeei lagundu, orientatu eta aholkuak emateko eta oinarrizko gizarte zerbitzuei informazioa emateko diziplina anitzeko ekipo tekniko bat, profesional espezializatuek eta behar bezala kualifikatuek osatutakoa (17.2 artikulua). Ez dago ziurtatuta talde teknikoak urteko egun guztietan beharrezkoa den arreta eskainiko duenik, asteburu, jai egun eta gauetan txandaka lan egingo duenik. Adierazitako guztiaz gain, berehalako arreta etxebizitza bakoitzaren gehieneko edukiera 5 plazakoa izatea ziurtatu behar da, pertsona helduak eta neska-mutil nerabeak barne hartuta, baina, zenbait kasutan, ez da baldintza hori betetzen. Harrera etxebizitzetan ez da errespetatzen araudiak ezartzen duen (38. artikulua) 5 plazako gehieneko edukiera –helduak eta neska-mutil nerabeak barne hartuta–.

Harrera zentroi dagokienez, nahiz eta Lege Integralak larrialdietarako etxebizitza espezializatuak eskaini behar direla ezartzen duen, batzuetan genero indarkeriaren biktimak osatuetan edo pentsioetan hartzen dira. Horixe gertatu da, adibidez, Gipuzkoan edo Araban. Gasteizen Berehalako Arreta Zentro bat egin bazen ere, zentro hori beteta dagoenean emakumeak aterpetxera bidaltzen dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentutik jakinarazi zaigunez, 2008ko abuztutik tratu txarren biktima diren emakumeentzako zerbitzu integrala osatzeko baliabide berri bat eskaintzen da. Biktimentzako eta horien laguntzako 20 plazako instalazio bat da. Zentroaren funtzionamendua lurraldeko udaletxeekin koordinazioan garatzen da, eta, era berean, Donostiako udalarekin Donostiako udal baliabidea modu koordinatuan erabiltzeko akordioa egin da. Bestalde, laguntza psikologikorako programa garatzen da eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoarekin hitzarmen bat sinatu da, salaketa jarri aurretik aholkularitza juridikoa eskaintzeko. Azpimarratzekoa da, zentzu horretan, aipatutako zerbitzua ez dagoela Eusko Jaurlaritzaren hitzarmenean barne hartuta. Udaletxeekin batera Gipuzkoa Plana ezartzeko kudeaketa lanak ari dira egiten. Tratu txarren biktima diren emakumeak dira aipatutako planaren xede.

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako baliabideen artean, Dekretuak etxeko tratu txarren biktima diren emakumeen errehabilitazioa eta gizarteratzea lortzeko zentro bat

³ Abanto-Zierbena (etxebizitza bat irekitzeko), Barakaldo (17 plaza), Basauri (10 plaza), Bilbo (35 plaza), Durango (5 plaza), Ermua (5 plaza), Galdakao (8 plaza), Busturialdeko gizarte-zerbitzuen mankomunitatea (9 plaza), Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Kontsortzioa (6 plaza), Portugalete (etxebizitza bat irekitzeko), Santurtzi (5 plaza), Sestao (5 plaza), Zalla (bi etxebizitza irekitzeko). Datu horiek guztiak eskura daude www.bizkaia.net helbidean. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia.

aurreikusten du, halaber. Intentsitate altuko gizarte babeseko neurriak barne hartzen dira, askotariko gizarte arazoekin lotutako beharrak dituzten emakumeentzat eta euren kontura dituzten senideentzat, eta neurri horien arabera zehaztuko da kasu bakoitzean beharrezkoa den babes maila eta espezializazioa (2.2 eta 8.2 artikulua). Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak 2008ko bere aurrekontuetan erreserbatu zituen aipatutako zentroa sortzeko eta martxan jartzeko beharrezkoak ziren baliabide ekonomikoak, baina, oraindik, ez da mota horretako zentro bat ezartzeko aurreikuspena bete.

3. Euskal botere publikoek sexua dela eta egiten den diskriminazioaren esparruan duten erantzukizuna

Zalantzarik gabe, erabakigarria da euskal herri-administrazioei diskriminazio sexistekin amaitzeko dagokien eginkizuna. Hori dela eta, dagozkien eskumenen esparruan, emakume eta gizonen arteko erlazioetan berdintasun erreala eta eraginkorra oinarrian dituen gizartea sortzeko eta sustatzeko betebeharra bere egin dute. Horretarako, bitarteko arauemaileak erabili behar dituzte eta prozedura egokiak ezarri, egiturazko desberdintasuneko fenomenoarekin amaitzeko, izan ere, desberdintasun horrek eragozten du gizarteko herritarrek askatasunean eta duintasunean garatu ahal izatea. Funtsean, gizonak eta emakumeak gizartean duten hierarkizazioa sustatzen duten kultur ereduak eta estereotipoak pixkanaka desagerrarazi nahi badira, banakako ikuspegiak gain, taldeko ikuspegiari lehentasuna eman behar zaio ezinbestean.

Horrela, harreman afektibo, kultural, ekonomiko, sozial eta zibiletan hierarkizazio gutxiagoko gizarte bat lortzeko konpromisoan gizon eta emakumeen inplikazioa da, hain zuzen ere, botere publikoek egin beharreko lana kanalizatzeko erreferente erabakigarrietako bat.

Hori dela eta, Arartekoaren erakundetik oro har, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko esparrutik bereziki, herritarren funtsezko eskubideen defentsa eraginkorra egiten dela ziurtatu behar dugu, batez ere berdintasun eskubidea ziurtatzeko, eta, gainera, euskal herri-administrazioarekiko harremanetan sexua dela eta egiten den diskriminazioarekin amaitzeko lan egin behar dugu. Hori guztia gauzatzean lortuko dugu EAEko ehun politiko-soziala osatzen duten gizartearen eta esparru politikoaren artean loturak sendotzea eta egin beharreko lana bideratzea.

Zentzu horretan, azpimarratzekoa da herri-administrazioak sexua dela eta egindako diskriminazioarekin lotuta ez dela kexa gehiegi aurkeztu aurretik. Hori ikusita, botere publikoek xede dugun esparruan egiten duten lana hobetzen ari dela azpimarratu nahi dugu, nahiz eta ezin dugun ahaztu oraindik estereotipo eta oztopo sexistek indar handia dutela gizartean; eta administrazioak horiekin guztiekin amaitzeko lanean protagonista izan behar duela azpimarratu nahi dugu.

Esparru publikoarekin zuzenean lotuta sexua dela eta egindako diskriminazioaren alderdirik garrantzitsuenei helduta, arazoa aztertzeko orduan ikuspegi bikoitz bat jarraitzeko egokitasuna azpimarratu nahi dugu: alde batetik, berdintasun eskubidearen urratzea kultur espazio

edo jai espazio batekin erlazioan gertatzeagatik aurkeztutako kexak daude edo hizkuntzaren erabilera sexista egitearekin lotura daudenak; eta, bestetik, eskubidearen urratzea lan/familia espazioan gertatzeagatik aurkeztutako kexak daude.

3.1. Berdintasun printzipioa eta kultur esparrua eta jolas/jai esparrua: “San Roke Kofradiaren” anaitasun bazkaria

Emakumeek euskal udalerrietan ospatzen diren zenbait jai ekintzatan aktiboki parte hartzeko dituzten zailtasunak behin eta berriro azpimarratzen dira Arartekoak urtero lantzen eta aurkezten dituen txostenetan. Irun eta Hondarribiko Alardeetan gertatzen diren arazo ezagunetz gain –2006ko txostenean berariazko tratamendua eman zitzaaien biei 3.1 atalean–, 2007ko txostenean (3. kapituluan), Sarriako udalerrri arabarreko herri ospakizun batzuetan emakumeek jasandako diskriminazioa barne hartu zen.

Dinamika horretan sartuta, azpimarratzeko da Laudioko udalerriko herritar batek aurkeztutako kexa. Hain zuzen ere, Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, izan ere, udaletxeak San Rokeko Kofradiak udalerriko eliza atarian antolatutako bazkarian eta jai programan aipatutako ekimenari buruz egindako publizitatean, ez zen errespetatu berdintasun eskubidea eta sexua dela eta emakumeak diskriminatu egin ziren, emakumeek ezin izan baitzuten parte hartu bazkarian. Gainera, bazkari hartan erakunde desberdinetako ordezkari politikoek parte hartu zuten, aipatutako udalerrikoak guztiak. Kexa aztertu eta gero, Laudioko udaletxera jo genuen ekintzaren baldintzak eta emakumeek ez parte hartzeko arrazoiak ezagutzeko, bai eta udaletxeak sexu berdintasunarekiko zuen jarrera ezagutzeko ere.

Laudioko udaletxeak emandako erantzunaren arabera, Kofradiaren barruan emakumeek parte hartzeko duten eskubideari buruzko eztabaida piztu da, eta, eztabaida Kofradiaren barruan egiten ari denez, udaletxeak eztabaidatik kanpo geratzeko erabakia hartu du. Emandako informazioa aztertu ondoren, Arartekoaren erakundeak [2008ko abenduaren 11ko ebazpena](#) eman zuen⁴. Ebazpen horretan, kexako datuak eta informazio eskaera egin ondoren jasotako erantzuna kontuan hartu dira, eta kontuan hartu da berdintasunaren esparruan indarrean dagoen araudia, batez ere Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legea, 2005eko otsailaren 18an Eusko Legebiltzarrak onartu zuena, eta ondoren adierazitako ondorioak azpimarratu dira:

- Kofradiaren eta udaletxearen arteko lotura ezartzen duten elementuak daudela kontuan hartuta, 4/2005 Legearen xedapenetan adierazitakora egokitu behar dela uste dugu.
- Hain zuzen ere, tokiko administraziorako “sexua dela eta egindako diskriminaziotik” ondorioztatutako betebeharrak zehatzei dagokienez, araudiko 7.1 l artikuluak garbi

⁴ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 11koa, Laudioko jaietan –San Roke Kofradiak– ermandade bazkarian emakumeek parte hartzeari buruzko esku-hartzeari amaiera ematen diona.

ezartzen du tokiko erakundeek tokiko mailan sexua dela eta egiten den diskriminazioa antzemateko betebeharra dutela eta diskriminazio hori desagerraraztekoa.

- Bestalde, 25. artikulua hainbat betebeharrak ezartzen ditu kultur esparruan herri-administrazioetara zuzenduta; neurri batzuk izaera **proaktiboa** dute (Berdintasunerako Euskal Legearen 25.1 eta 25.2 artikulua) – *“beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura jarduerak guztietan”*; eta izaera **debekatzailea** dute beste batzuk (Berdintasunerako Euskal Legearen 25.2 artikulua) – *“Debekatu egiten da emakumeek gizonetik berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan”*, edozein motatako laguntzak ematea eta euskal botere publikoetako ordezkariak, ordezkari gisa horrelako ekintzetan parte hartzea.
- Aipatutako araudia euskarri arauemaile eraginkorra da euskal herri-administrazioek berdintasun printzipioa ziurtatzeko egiten duten lana eta erakusten duten inplikazioa baloratzeko. Aztertzen ari garen gaiari dagokionez, Laudioko udaletxeak berdintasun printzipioa sustatu eta indartu behar du Laudioko udalerrian garatzen diren kultur ekintza eta jai ekintza guztietan. Eta, horrenbestez, emakumeek berdintasunezko baldintzetan parte hartuko dutela ziurtatzen duten jai espazioak eskaintzeko betebeharra du.
- Zentzu horretan, Kofradiaren anaitasun bazkaria udalerriko zaindariaren omenez egiten diren festen programa ofizialean barne hartuta dagoenez, eta espazio publiko batean antolatzen denez, xede dugun kultur ekintzak urratu egin du gizonen eta emakumeen berdintasunaren esparruan indarrean dagoen araudia.
- Adierazitako guztia kontuan hartuta, Arartekoaren erakundeak garbi utzi nahi izan du aurrerantzean, “Laudioko Udalak aipatutako bazkarirako ematen duen baimen administratiboa emateko, eta bazkaria antolatzen dutenei laguntzak emateko, lehenago aipatutako araudiak kultur ekintzei buruz dioena zehatz-mehatz bete beharko duela”. Horrenbestez, “...San Roke Kofradiak antolatzen duen ermandade bazkarian emakumeek baldintza berberekin parte hartu dezaten egokituko ez balitz, udalak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzen duen jai giroa sustatzeko betebeharra duen aldetik, berdintasunerako bazkari bat antolatu beharko luke San Rokeren omenezko jaietan”.

3.2. Generoa eta sexismoa hizkuntzan

Gai honen ildotik, kexa bat jaso genuen Bizkaiko udalerrri bateko udaletxeko Eledunen Bartzordeak sinatutako komunikatu baten eduki sexista zela eta. Informazioa osatu eta zehaztu ondoren, ezin dugu garbi esan hizkuntzaren erabilera sexista egin denik eta, ondorioz, ezin dugu esan otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.4 artikulua urratu denik. Artikulu horren

arabera, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin behar dute euskal botere publikoek zuzenean edo hirugarren pertsonen bitartez lantzen dituzten agiri eta euskarrietan.

Hala ere, ezin dugu ahaztu hizkuntzan erabiltzen den sexismoa, bizitzako beste hainbat alderditan erabiltzen dena bezala, gaur egun oraindik ere emakumeak gizonen azpitik jartzen dituzten inertzia kultural eta sozialen ondorioa dela. Hori dela eta, hizkuntzari ematen zaion erabilerak balio horiek akritikoki onartzen direla ikusten den neurrian, funtsezkoa da botere eta agintari publikoek erabat bazterzea, izan ere, zeharkako lana egin behar dute eta, bakoitzak dagokion esparruan, gizonen eta emakumeen berdintasun eraginkorra eragozten duten oztopoak gainditu behar dira halaberrez.

3.3. Familia esparruan emakumeen eta gizonen artean erantzukizunak berdin banatzen direla sustatzeko laguntzak: orientazio diskriminatzaile sexista baten inplikazioak

Atal honetan Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailari zuzendutako Gomendioa aipatu behar dugu. 2008ko uztailaren 9an eman zen aipatu Gomendioa eta beraren arabera, funtsezkoa da 118/2007 Dekretuak, uztailaren 17koak eta lanbidea eta familiako bizitza bateragarri egiteko neurriak arautzen dituenak, bere 8. artikuluan xedatutakoaren arabera ebaluazio prozesu bat martxan jartzea, eta, bereziki, seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen duten edo lan jarduna murrizten duten langileentzako laguntzengatik gizonei eta emakumei ematen zaizkien diru kopuru desberdinei dagokienez ([2008ko uztailaren 9ko Ebazpena](#))⁵.

Xede dugun Gomendioaren funtsa, haurdun dagoen emakume batek aurkeztutako kexan aurkituko dugu. Izan ere, sexu diskriminazioa egin dela adierazten du, gizon bat baita aipatutako Dekretuaren zortzigarren xedapenak barne hartzen dituen kopuru altuenen subjektu hartzailea. Ildo horretan, honakoa dio lege xedapenaren Zioen Azalpenak: "emakumei laneko bizitzan txertatzen eta lanbide karrera garatzen lagundu behar zaie, familia esparruan emakumeen eta gizonen artean erantzukizunak berdin partekatze erantzukizuna sustatu behar da, batez ere seme-alabak zaintzeko eta hezteko orduan, eta familia eta laneko erantzukizunen arteko bat etortzea erraztu behar da".

Erreklamazioa 2007ko Urteko Txostenean (3. kapituluak) jaso eta aztertu zenez, jarraian erreklamazioaren alderdirik garrantzitsuenak laburbilduko ditugu.

Lehenik eta behin, 118/2007 Dekretuaren 8. artikulua egiten duen aurreikuspena ekintza positiboko esparru teorikoan kokatu behar da, abiapuntu gisa emakume eta gizonen aukera berdintasuna ziurtatzeko estrategia publiko gisa eta, horretarako, eskubideen berdintasuna

⁵ Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 9koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari gomendatzen zaio berrikeri dezala seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi laburtua hartzen duten langileen artean zergatik ematen zaien laguntza handiagoa gizonei emakumei baino.

eragozten duten oztopoak desagerrarazi behar dira. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailak emandako argudioaren arabera, Dekretuan aurreikusitako tratu desberdintasunak, gizonezkoen aldekoak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bilatzen du, izan ere, seme-alabak zaintzeko erantzukizuna gizonen eta emakumeen artean berdina izatea bilatzen da eta sustatu nahi da.

Hala ere, bere garaian Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailari egin genion informazio eskaera dela eta aipatutako sailak eman zigun informazioa aztertu ondoren, oso baxua izan da araudi honek dakartzan etekinak probestu dituzten gizonezkoen portzentajea. Zehazkiago, laguntza erregimen hau sortu zenetik (117/2002 Dekretuak, uztailaren 16koak eta 329/2003 Dekretuak, abenduaren 23koak, eta, beranduago, 118/2007 Dekretuak, aldatu dutenak, ezarritako laguntza erregimena), gizonezko onuradunen kopurua 2002an %5,34koa izatetik 2006an %6,10ekoa izatera pasa da. 2006ko ekitaldiko datuak dira erabilgarri dauden azken datuak.

Bigarrenik, orain arte adierazitako guztia kontuan hartuta, bi alderdi azpimarratu behar dira. Alde batetik, nazioarteko iturri arauemaileetan xedatutakoaren arabera (batez ere Nazio Batuek 1979an emandako Emakumeen kontrako Diskriminazio Mota oro Desagerrarazteko Konbentzioaren 4.1 artikuluan xedatutakoaren arabera), EBko epaileak hartutako erabakiak (STJCE, 1995eko urriaren 17koa, "Kalanke" gaia, epaiaren 19. puntua), eta Espainiako legeria (batez ere 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzkoa; berdintasunerako mekanismo bat bezala aurkezten den ekintza positiboa (emakumeei bereziki laguntzeko neurriak hartzeko beharrak baldintzatzen du ekintza positiboaren garapena).

Bestetik, ekintza positiboa hainbat baldintza edo eskakizunen inguruan egituratuta dago, eta baldintza edo eskakizun horiek aurkitzen dira ekintza positiboaren oinarri teorikoan. Baldintza edo eskakizun horiek ekintza positiboaren **erabilgarritasuna** ahalbidetu behar dute, berdintasun erreala eta eraginkorra lortzera bidean betiere. **Proporzionaltasuna**, hartutako neurriaren –emakumeen aldeko berariazko neurriaren– eta lortu nahi den helburuaren –gizonekiko desberdintasunezko egoerak zuzentzea– arteko nahikotasuna eta egokitasuna. **Iragankortasuna**, hau da, behin helburua lortu eta gero neurriak desagertu egin behar du. Eta, amaitzeko, **motibazioa**, hau da, botere publikoek diskriminazio egoera erreala dagoela justifikatu behar dute hartutako neurriari legitimitatea emateko.

Hirugarrenik, eta aurrekoaren ondorio gisa, seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzean edo lan jarduna murriztean gizonei eta emakumeei ematen zaien tratu desberdina hartu behar da kontuan. Erakunde honetatik garbi ikusten dugu oso zaila dela EAEko araudia eta ekintza positiboa informatzen duten baldintzak bat etortzea. Izan ere, lehen esan duguna gogora ekarriz, oso gizon gutxik eskatu du neurri hori indarrean sartu denetik eta, beraz, zalantzan jartzen dugu neurria hartzearen eta lortu nahi den helburua betetzeko beharraren arteko erlazio funtzionala. Beste modu batera esanda, araudiak egiten duen formulazioak ez du egiaztatzen neurriaren beharrezko proporzionaltasuna, lortu nahi diren helburuekiko. Gure ustez, ez da tratu desberdina zilegi egiten duen ekintza positibo bat, izan ere,

zuzenean laguntzen den taldeak, gizonezkoen taldeak hain zuzen ere, emakumeek baino estatus ekonomiko pribilegiatuagoa dute.

Lortu nahi den helburua goraiatzeko modukoa bada ere, ezin dugu ahaztu jarrera bera sustatzeko gizonezkoen ematen zaiela laguntza ekonomiko handiagoa. Eta neurriak, gainera, ez du balio gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko eta ez dugu eraginkorra ikusten berdintasuna lortzeko helburuak betetzeko; azken finean, neurri diskriminatzaile bat dela esan daiteke.

Adierazitakoaz gain, kontuan hartu behar da Arartekoak 15/2008 Gomendioan adierazten duena, hain zuzen ere, horrelako araudi batek emakumezkoen zenbait subjektibitate motaren gainean eragiten duen inpaktua. Zentzu horretan, "Arudiak bereizkeria ekar lezake gizon eta emakumeen eredu tradizionalen sartzen ez diren famili eredu kasuan, adibidez ama bakarrik eraturako guraso bakarreko familiei (gehienak) ekarritako bereizkeria aita bakarreko familien aldean (oso eskasak praktikan). Halaxe gertatzen da bi emakumek osaturako familien kasuan, bi gizonek osaturakoekin alderatuta. Azken kasu horretan bi gizonen eraturako bikoteen alde egiten ariko litzateke inolako justifikaziorik gabe (gizonen erantzukizun partekatua sustatzearen helburuak zentzu guztia galtzen du lesbianearen eraturako bikoteen testuinguruan). Ondorioz, 118/2007 Dekretuak ematen dituen eskubideak erabiltzeko aukera bikote heterosexualei edo gizonek osaturako bikote homosexuali bakarrik emango litzaieke eta horiek, beraz, bidegabe faboraturiko litzuzke neurriak."

Amaitzeko, araudi honen esparruan, mendeko senideen arretari dagokionez sortzen den arazoa azpimarratu nahi dugu. Zehazkiago, 2007ko uztailetik mendeko senideak zaintzeko laguntza lerro berri bat dago, laneko jarduna murrizteagatik eta eszedentzia hartzeagatik jada ematen diren diru laguntza publikoak osatzeko. Azken horien kasuan emakumei eta gizonen ematen zaizkien diru laguntzen irizpide bera jarraitzen da, eta diskriminazio positiboa egiten da. EAE osoan aplikatzekoa den programan mendeko pertsonak zaintzeko aurreikusitako kopuruak, adin txikikoak zaintzeko eszedentzia hartzen duten edo laneko jarduna murrizten duten pertsonentzako laguntzen parekoak dira eta, kasu honetan, halaber, gizonezkoen aldeko diskriminazio positiboa egiten da.

Horrela, lan eszedentzia eskatzen duten amek urteko 2.400 euro jasoko dituzte; aitek, berriz, 3.000 euro. Laneko jarduna murrizten bada, emakumeek 1.350 eta 1.800 euro bitarteko laguntzak jasotzen dituzte –murrizketak irauten duen denboraren arabera–, eta 1.800 eta 2.400 euro bitarteko laguntzak jasotzen dituzte gizonek. Kasu honetan ere, bikotean erantzukizunak berdin banatzea bilatzen da eta, batez ere, gizonek dagozkien erantzukizunak bere gain hartzea.

Zentzu horretan, eta orain arte erakunde honetara mendeko senideak zaintzeko emakumeentzako aurreikusitako kopuru baxuagoa dela eta kexarik iritsi ez bada ere, gure ustez egokia litzateke seme-alabak zaintzeko laguntza lerroen inguruan lortutako ondorioak esparru honetara zabaltzea. Gure ustez, Dekretuak ikuspegi partziala edo aldebakarrekoa ezartzen du genero estrategia garatzeko eta, ondorioz, erabat desitxuratzen da ekintza positiboko neurriak ezartzeko estrategia. Izan ere, programak jarraitzen duen ikuspegia ez da bat ere eraginkorra gizonezkoen lanaren berdintasunezko banaketan inplikatzeko lortzeko.

4. Emakumeak eta euskal gizartean duen egoeraren berariazkotasunak

Emakumeen parte-hartze erreala eta eraginkorra lortzeko eta eragin politikoa, ekonomikoa eta soziala duten erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeak behar den bezala ordezkatu eta egoteko konpromisoa gauzatzeko, ezinbestekoa da erakunde egitura guztietatik garatzen diren ekintza publikoetan genero ikuspegia barne hartzea. Ikuspegi hori ondo garatu nahi bada, emakume eta gizonen arteko erlazioetan egitura desberdintasun intrintsekoak zuzentzeko aurrerapauso kualitatiboak eta kuantitiboak eman behar dira. Lehenengoari dagokionez, kontuan hartu behar da emakumeak historikoki izan duten preterizioa, bi generoen arteko botere erlazio desberdinetan errotuta dagoena, berdintasunaren esparruko lege eta arau mailako xedapenetan formalki aitortu behar da, eta, era berean, horrelako egoera baten ondorioak eta gizartean dituen inplikazio errealak baloratzeko bitartekoak behar dira. Hori guztia lortzeko, funtsezkoa da botere publikoak eta herri-administrazioak genero ikuspegiaren zeharkakotasunak duen garrantziaz kontzientziaztea.

Bigarren aurrerapausoari dagokionez (kuantitatiboa), ezinbestekoa da emakumeen alde lan egiteko berriaz sortutako organismoen eta herri-administrazio guztien ahaleginak eta borondateak bateratzea eta inplikatzeta. Izan ere, herri erakundeek euren eskumeneko gaiekin lotuta hartzen dituzten erabaki politikoek zuzenean eragiten dute gizarte osoa eta, ondorioz, gizartea osatzen duten emakume eta gizon guztiak. Jarduera publikoek genero berdintasunean eragiteko, funtsezkoa da jarduera horiek zeharkako izaera edukitzea. Zeharkakotasun horretan barne hartu behar dira, gaur egun arte eta gaur egun emakumeek gizonetik izan duten eta duten mendekotasunezko erlazioen ezaugarriak. Ideologia matxista izan da nagusi orain arte eta, ondorioz, emakumeak beti egon dira gizartean ezarritako eta orokortuta gizonetzko ereduaren mende.

Adierazitakoaren ildotik, kontu handia eduki behar da Arartekoak garatzen dituen jarduerak sexua dela eta egiten den diskriminazioa prebenitzera eta kontrolatzera bakarrik ez mugatzeko. Horrela, emakumeak gizarte ehuneko esparru guztietan txertatzera bideratuko diren jarduerak garatu behar dira, hasieran esan dugun moduan. Demokrazia politiko, ekonomikoa eta sozial berdintasunezkoago bat sustatu eta indartu behar da: emakumeei aktiboki parte hartzeko bideak ireki behar zaizkie eta inguruan izaten diren gertaeren ikusle soil izatetik, gertaera horien protagonista zuzen izatera iritsi behar dute.

Hori dela eta, atal honetan barne hartu ditugu familia harremanen baitan emakumeek egoera berezia duten alderdi guztiak –normalean boterearen banaketa asimetricoa egiten da–, izan ere, egoera berezi horren ondorioz sortzen dira laneko diskriminazioa eta gizartean pairatzen duten diskriminazioa. Familiaren baitako eginkizunetan sexuen araberako bereizketa nagusitu da orain arte. Horrela, emakumeei egotzi zaie bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko ardura eta horrek guztiak ekarri du, beste arrazoi batzuen artean, gizartean pairatzen duten bazterkeria. Osasun esparruan ere ikus daitezke emakumeak xede nagusizat dituzten egoerak eta Osasun Publikoan eta Osasun Arretan esku hartzeko proiektu guztietan genero ikuspegia barne hartzea lortu da. Ondorengo lerroetan zehaztasun handiagoarekin aztertu ditugu alderdi horiek guztiak.

4.1. Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egitea

Lehen esandakoa gogora ekarriz, sexuagatiko diskriminazioaren testuinguru batean lan bizitza eta familia bizitza bateragarri egiteko orduan, desberdintasunak ikus daitezke seme-alaba adin txikikoak edo mendeko senideak zaintzeko laneko jarduna murrizten duten edo eszedentzia eskatzen duten emakumeek eta gizonak jasotzen dituzten diru laguntza desberdinetan. Laguntza horiei helduta, eskakizunen interpretazioari eta, batez ere, laguntzak eskuratzeko eskakizunen ziurtapenari buruz kexa bat aurkeztu da. Kasu horretan, erreklamaziogileak bere seme adin txikikoa zaintzeko laneko jarduna %50 murrizteagatiko diru laguntza eskatu zuen, eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saileko Familia Zuzendaritzak ukatu egin zion, semea bizi den etxe berean bizitzeko baldintza betetzen ez zuelako. Gorako errekurtsua jarri zen eta dokumentazio gehiago aurkeztu zen aipatutako baldintza betetzen zela ziurtatzeko. Hala ere, gorako errekurtsua atzera bota zen, izan ere *“semearekin edo alabarekin bizi dela ziurtatzeko baterako erroldatze-ziurtapena aurkeztu behar da”*.

Ebazpen hori kontuan hartuta, alde batetik ondo aztertu beharko litzateke 118/2007 Dekretuak, uztailaren 17koak eta lan bizitza eta familia bizitza bateragarri egiteko neurriak arautzen dituenak, aurreikusten dituen araudiak laguntzak emateko erroldatze-ziurtagiria aurkezteko baldintza ezartzen ote duen eta, kasu honetan, egokia ote den eta, bestetik, mendeko pertsonaren –semea edo alaba– eta pertsona zaintzailearen arteko “elkarbizitza” egiten dela ziurtatu behar ote den, eta hori ziurtatzeko modu desberdinak daude.

Diru laguntzei dagokionez, 118/2007 Dekretuko 7 a) artikulua honako baldintza hau ezartzen du *“Seme-alaba zaintzeko eszedentzia hartzeko edo lanaldia murrizteko baimena eskatzea eragin duen seme-alaba horren zaintza eta babespea izatea eta bizileku berean bizitzea diruz lagundutako jardunak irauten duen bitartean”*. Jarraian, agindu bereko b) atalak honako baldintza hau ezartzen du: *“Eskaera aurkezteko garaian eta diruz laguntzeko moduko jardunak irauten duen bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bizitzea eta erroldatuta egotea”*.

Horrekin batera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak 80. artikuluan ezartzen duenez, interesdunak Zuzenbidez onar daitekeen edozein froga aurkez dezake –hala nola Kode Zibilak eta Prozedura Zibilaren Legeak aurreikusitako –froga bitartekoak–, prozedura bat erabakitzeko kontuan hartzen diren alderdi garrantzitsuak ziurtatzeko. Gainera, jurisprudentziaren arabera, Legez bakarrik muga daitezke frogak bitartekoak (1988ko urriaren 24ko STS).

Ondorioz, “bizikidetzak” frogatzeko modu bakarra erroldatze-ziurtagiria aurkeztea izatea, eskubidea gauzatzeko orduan mugak jartzea dela uler daiteke, izan ere, frogak legal bat izanik, legegileak bertan adierazitako edukia errespetatu behar du eta kontuan hartu behar du “eskubideari mugak jartzean eduki hori ezagutzen ez dela eta eskubidea gauzatea ezinezkoa izaten dela edo oso zaila izaten dela, edo beharrezkoa den babesa kendu egiten dela...” (apirilaren 8ko 11/1981 STC).

Erroldatze-ziurtagiriaren frogak balioari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 16. artikulua dioenez, erroldan izena emanda dagoela erakusten duen ziurtagiriak udalerririk

jakin batean eta ohiko bizilekuan bizi dela ziurtatzeko bitarteko bat da, baina ez “bakarra”. Auzitegi Gorenaren doktrinari helduta, “udal errola bitarteko publiko sinesgarri bat da, administrazio ondorio guztietarako, eta inskripzioak eskatzen den baldintza legez frogatzen du. Hala ere, **kontrakoa gerta daiteke eta erroldak aitortzen duen baldintza desitxuratura geratu**, izan ere, bizilekuari dagokionez (...) frogatze efektu pribilegiatua edukiko du isolaturik aurkeztean bada bakarrik, ez, ordea, (...) agiri horren eraginkortasuna, erroldako edukia errealitatearen bat ez datorrela egiaztatzen duten **beste frogak bitarteko batzuekin alderatzen bada**” (1984ko ekainaren 11ko eta 1985eko azaroaren 11ko SSTS) (guk erantsi dugu letra lodia).

Esanak esan, erreklamaziogileak 7a) artikulua eskatzen duen baldintza betetzen du, izan ere, berea da semearen zaintza eta etxe berean bizi da; halaber, 7b) artikuluan xedatutakoa betetzen du, EAEko udalerrri baten erroldan izena emanda dagoelako. Era berean, Dekretuko 10. artikuluko 5 d) ataleko bigarren paragrafoan ezarritako egoera ematen da; horren arabera “*Erroldatze-ziurtagiriak frogatzen ez badu eskatzailea udalerrian bizi dela, laguntzaren organo kudeatzaileak eskaera egingo dio eskatzaileari udalerrian bizi dela egiaztatzen duten dokumentuak aurkez ditzan*”, izan ere, arauak barne hartzen duen hipotesiaren arabera, erreklamaziogileak bere bizilekua frogatzen zuten beste agiri batzuk aurkeztu zituen. Horrenbestez, kexa aurkeztu duen emakumeak semearekin bizi dela ziurtatu duenez, kexa izapidetzeko ardura duen organo kudeatzaileari dagokio balorazioa egitea “*eta interesdunek aurkeztutako frogak baztertu ahal izango ditu, baldin eta frogak horiek egokiak ez direnean edo beharrezkoak ez direnean, eta ebazpen arrazoitu bidez egingo du*” (art. HAAJ-APE legearen 80.3 artikulua).

Zentzu horretan, azpimarratzekoa da ez dela motibaziorik ikusten eskatu den laguntza ukatzeko ebazpenean, ez eta gorako errekurtsioa atzera bota duen ebazpenean ere. Azken horrek erroldatze-ziurtagiria aipatzen du elkarbizitza ziurtatzeko frogatze onargarri bakartzat, eta kontraesan garbia sortzen da lehen aipatutako 10.5 d) artikuluan xedatutakoarekin, izan ere, “bizikidetzat” frogatzea onartzen du “errolda inskripzioaren” ordean. Adierazitako guztia jakinarazi zaio Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailari, eta jaso dugu bere erantzuna. Horren arabera, alde batetik “Arartekoaren erakundetik adierazitako jurisprudentziaren irizpidearekin bat eginez, gaur egun arte elkarbizitza frogatzeko bitarteko bakar bezala onartu den erroldatze-ziurtagiriari eman zaion balorazioa aldatu beharko litzateke, eta elkarbizitza frogatzeko beste bitarteko batzuk onar genitzake, betiere Erroldak aitortzen duen presuntzioa desitxuratzeko nahikoa frogatze balioa badu”. Eta, bestetik, “kexa aurkezteko arrazoi nagusiari helduta, aurkeztutako dokumentu guztiak aztertu ditugu eta erroldatze-ziurtagiriari eskatzen zaizkion eguneratze-baldintzak betetzen ez dituela eta erroldatze-ziurtagiriaren egiazkotasun presuntzioa desitxuratzen ez duela esan behar dugu”. Jasotako erantzuna ari gara aztertzen, espedienteari amaiera emango dion ebazpen bat emateko.

Beste alde batetik, baina lan bizitza eta familia bizitza bateragarri egiteko esparruan indarrean dagoen esparru juridikoarekin jarraituz, erakunde honetan jaso ditugun beste bi kexa aipatu behar ditugu. Gizarte ekintzaren esparru materialean aurkeztu baziren ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaiak duen zeharkako izaera kontuan hartuta, bi kasuetan genero ikuspegia barne hartu behar dela uste dugu eta, hori dela eta, berariazko

arreta ematea erabaki dugu. Bi kexen kasuan, gai nagusia da lan bitzta eta familia bitzta bateragarri egiteko neurriek laguntzen eskatzaileen kaleratzeen gainean duten afektazioa. Bereziki, bi kexen sustatzaileek –gizon langile bat batean eta emakume langile bat batean–, lege zaintzagatiko laneko jardunaren murrizketa eskatu zuten, aipatutako 329/2003 Dekretuak, gaur egungo 118/2007 Dekretuak, aurreikusitako diruz lagun daitezkeen jardun posible bat bezala.

Legearen arabera, laguntza jasotzeko lan erlazio bat eduki behar du eskatzaileak, eta, gure kasuan, lan erlazio horren esparruan langileek 6 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko laneko jardunaren murrizketa hartu dute (118/2007 Dekretuaren 1a artikulua). Hori dela eta, laguntzaren jasotzaileak lanetik kaleratu zituztenean, kopuru jakin bat bueltatzeko betebeharra zuten, diruz lagundutako kopuruaren eta lege zaintzagatik zegokien laneko jardunaren murrizketa eduki zuten jai egunen arteko diferentziagatik. Zinez, diruz lagundutako egoeraren iraupena hasiera batean ezarritakoa baino laburragoa izan zen, baina bi kasuetan ez zen langileen borondatez izan, baizik eta enpresariak kontratua etetean erakutsitako alde bateko borondateak eragin zuen egoera.

Gaur egun lan merkatuak duen egoerak lan erlazioen ezegonkortasuna nagusitzea ekarri du eta, ondorioz, langileak enplegu ezegonkortasunaren arriskua onartzeko dinamika batean daude sartuta. Esanak esan, erakunde honek garbi ikusten du euskal herri-administrazioek emakumeei lan bitzitan txertatzen eta euren lanbide karrera garatzen lagunduko dieten neurriak ezarri behar dituztela, familiaren baitan emakumeen eta gizonen artean erantzukizunak, batez ere seme-alaben zaintza, berdin banatzeko; eta familia erantzukizunen berdintasunezko banaketa egiteko neurriak ezarri behar dituztela, xede dugun Dekretuak agintzen duen moduan; baina, aldi berean, garbi ikusten dugu mota horretako neurriak eraginkor egiteko oztopo ugari daudela eta oztopo horiek konpondu behar direla.

Emakume batek edo gizon batek horrelako laguntzak eskatzeko orduan duen kezka nagusia da, ez daudela ziur duten lan erlazioa diruz lagunduko den egoerak irautean duen denbora guztian luzatuko ote den, edo, gauza bera dena, kaleratzeak berez dakarren kalte ekonomikoaz gain, jasotako diru laguntza itzultzeak ekarriko duen kalte ekonomikoa euren gain hartu beharko dutela ikusten dute. Eta horrelako egoera batek erabat baldintzatu ditzake emakumeak eta gizonak, laguntzak eskatzeko erabakia hartzeko orduan. Batez ere, pertsona langileek euren gain hartu behar dituzte lan ezegonkortasunak dakartzan arriskuak eta, hori dela eta, baliteke laguntzarik ez eskatzea erabakitzea batzuetan; eta, ondorioz, laneko erantzukizuna familia erantzukizunaren aurretik jartzen dute, edo familia betebeharra lan betebeharraren aurretik jartzen dute. Egoera hori emakumeen artean gertatzen da batez ere. Hain zuzen ere, horren erakusle da seme/alaba txikiak euren kontura dituzten emakumeen enplegu tasak ezagutu duen beherakada esanguratsua (13,6 puntu batez beste); gizonen kasuan, aitzitik, tasa horrek gora egin du. Euren kontura seme-alabak dituzten emakumeen enplegu tasak ez du %62,4ko portzentajea gainditzen, eta gizonena %91,4koa da; bien artean 29 puntuko aldea dago (Europako Batzordearen "Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna-2008" txostenak erakusten dituen ondorioak, COM (2008) 10 azkena).

4.2. Emakumeak eta gizarte eta lan eskubideak

Emakumeen lanari dagokionez, emakume batek aurkeztutako kexa bat jaso genuen. Arabako Foru Aldundiko Ongizaterako Foru Institutuari jarritako kexa zen, izan ere, aipatu institutuko langilea izanik (bitarteko funtzionarioa), haurdun zegoela eta aldi baterako lan ezintasunagatik eduki ezin izan zituen sorrarazitako opor egunak eskatu zituen.

Kexaren arrazoiak aztertzean, erakunde honetan konturatu ginen bazegoela funtsezko alderdi bat, oporren eskubidea ukatzeko erakunde publikoak hartutako erabakia, legez oinarritutako erabakia ote zen jakiteko. Hain zuzen ere, langilearen laneko bajaren inguruan sortutako eztabaidan aurkitu genuen arrazoiak, izan ere, erreklamazioa legala izango litzateke, baldin eta haurdunaldiak eragindakoa balitz laneko jarduna garatzeko ezintasuna, eta ez emakumeei bakarrik dagokien haurdunaldiarekin lotuta ez zegoen beste osasun arrazoi batek eragindakoa balitz.

Kexaren sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren –funtsean txosten medikoak eta deribazio txartelak–, gure ustez ez zegoen zalantzarik Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Institutuko langilearen baja eragin zuen arrazoi zuzena haurdunaldiarekin lotutako afektazioak zirela, eta ez gaixotasun arrunt batekin lotutakoak, administrazioak emandako ebazpenak defendatzen zuen moduan. Horrenbestez, diskriminazioaren kontrako arauen babesa indartu eta lehenetsi behar da beti, jarraian adierazten dugun moduan.

Esanak esan, 3/2007 Lege Organikoaren, martxoaren 22koa eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko denaren, 59. artikulua ezarpen esparrua Estatuko Administrazio orokorreko eta bere erakunde publikoetako langile publikoen esparrua da, beraz, esparru horretatik kanpo geratzen da interesduna; eta langile publikoen Oinarriko Estatutuak, apirilaren 12ko 7/2007 Legeak onartutakoak, ez du erreklamazioaren xede den eskubidea barne hartzen, eta oporrak negoziazio kolektiboaren barruan barne hartzen dira; erakunde honetatik Konstituzioaren 14. artikulua irakurketa integratua egin behar dela azpimarratu nahi dugu, eta Espainiako Goi Auzitegiaren doktrinaren ildotik, diskriminatzailetzat jotzen da pertsonaren sexuarekin lotura zuzena eta garbia duten arrazoi edo egoeren arabera egiten bada tratamendua, eta horixe da amatasunarekin gertatzen dena eta, horren barruan, haurdunaldiarekin gertatzen dena. Zehazkiago, *"...la protección de la condición biológica y de la salud de la mujer trabajadora ha de ser compatible con la conservación de sus derechos profesionales, de suerte que la minusvaloración o el perjuicio causado por el embarazo o la sucesiva maternidad constituyen un supuesto de discriminación directa por razón de sexo"* (182/2005 STC, uztailearen 4koa –RTC 2005, 182 –).

Ildo beretik, Auzitegi Konstituzionalak oporren eskubideari lotuta honakoa dio *"...la prohibición constitucional específica de los actos discriminatorios por razón de sexo determina que se habrá producido la lesión directa del art. 14 CE cuando se acredite que el factor prohibido representó el fundamento de una minusvaloración o de un perjuicio laboral, no teniendo valor legitimador en esos casos la concurrencia de otros motivos que hubieran podido justificar la medida al margen del resultado discriminatorio. Tal tipo de discriminación comprende, sin duda, aquellos tratamientos peyorativos que se fundan no sólo en la*

pura y simple constatación del sexo de la víctima, sino en la concurrencia de razones o circunstancias que tengan con el sexo de la persona una conexión directa e inequívoca, como sucede con el embarazo, elemento o factor diferencial que, por razones obvias, incide de forma exclusiva sobre las mujeres” (324/2006 STC, azaroaren 20koa. FJ. 4º).

Haatik, nahiz eta doktrina konstituzionalak diskriminazioa aipatzen duen eskubide baten gauzatzea ukatzen edo mugatzen duten erabaki edo jardueretan faktore erabakigarritzat haurdunaldia hartzen denean, eta tesi horri ondorio juridikoak dagozkiola azpimarratzen duen, ez dugu lortu Gizarte Ongizateko Foru Institutuan egin dugun eskaera aurrera ateratzea. Aipatutako Institutuko arduradunen ustez, jurisprudentziazko doktrinaren arabera, amatasunagatik baimenagatik, eta ez, ordea, aldi baterako bajagatik, urte naturalaren barruan oporrez gozatu ezin izan denean bakarrik gozatu ditzake interesdunak opor horiek urte naturalaren barruan. Gauzak horrela, administrazio ebazpenak alta eta baja medikuen parteak luzatzea eragin zuten kontingentzia komuna azpimarratzen zuen, eta ez zuen kontuan hartzen dokumentu ofizial guztietan deskribatutako diagnostikoa. Diagnostiko horretan, pazientearen sintomatologia aipatzeaz gain, interesduna “haurdun” zegoela aipatzen da berariaz. Nahiz eta kontuan hartu behar den Foru Institutuak, etorkizuneko negoziatio kolektiboaren esparruan guk adierazitako kontuan hartuzkoen ildotik hobekuntzak barne hartu behar direla azpimarratzen zuen, jaso dugun erantzuna aztertu ondoren, [2008ko martxoaren 14ko Ebazpena](#)⁶ eman du Arartekoaren erakundeak (Ebazpen horren eduki garrantzitsuenak aipatu berri ditugu).

Lan esparruan amatasuna eta haurdunaldia babesteko beharraren inguruan kontsulta bat egin zaigu halaber. Kasu horretan, sei hilabeteko haurdunaldia zuen kirol begirale batek, medikuaren aginduz bere lanpostua egokitzeko eskatu zuen, ezinezkoa baitzitzaien soinetak eskolak ematen jarraitzea. Egokitzea egiteko, laguntzako administrazio zereginak esleitu zitzaizkion interesdunari eta laneko jarduna erdira murriztu zen, txosten medikuak egindako gomendioak jarraituz. Baina arazoak sortu ziren, izan ere, erabakia hartu eta zuzendaritzak babestu ondoren, organismoko administrazio atalak hartu zen neurria gehiegizkoa zela interpretatu zuen, alegia, “edo” lanpostua egokitzen zen edo laneko jarduna murrizten zen. Erabaki hori hartzeko, administrazio atalak hitzarmen kolektiboa aipatu zuen, non “edo” juntadura hautakaria agertzen zen.

Eskaera jaso ondoren, kontsulta egin zuen aldearekin harremanetan jarri ginen, azalduetako egoerari buruzko informazio gehiago lortzeko. Interesdunak azaldu zigunez, hasiera batean hartutako neurriak aplikatu ziren azkenean, eta, era berean, hurrengo hitzarmen kolektiboan “edo” juntaduraren ordean “eta” juntadura jarriko zela adierazi zitzaigun, hartara, etorkizuneko horrelako arazorik gehiago ez edukitzeko.

Erakunde honek atsegin handia hartu du aldean arteko elkarrizketaren bitartez berdintasunaren printzipioa zinez gauzatzea eragozten duten oztopoak desagerrarazteko konponbideak

⁶ Arartekoaren ebazpena, 2008ko martxoaren 14koa. Horren bidez, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak gomendatzen zaio kexaren adierazle den langileari baimena eman diezaiola haurdunalditik eratorritako aldi baterako ezintasunarekin bat egin zuen 2006ko oporraldiaz gozatzeko.

lortu daitezkeela ikusita, betiere emakume bakoitzak bizi duen egoera bereziaren ezauzgarriak kontuan hartuta. Esanak esan, ezin dugu ahaztu berdintasunaren eskubidearekiko errespetua emakumearen lan eskubide eta –baldintzen esparru zabal batean gauzatu behar dela, eta esparru zabal horretan ditugu emakume langilearen lanpostua egokitzeo eskubidea, beste lanpostu batera aldatzekoa edo lan denbora mugatzekoa; guztiek dute lotura handia orain aztertzen ari garen gaiarekin. Jakina, horrek ez du esan nahi aipatutako neurriak, emakume langilearen eta fetuaren osasuna hobeto bermatzeko beste neurri batzuekin konbinatu ezin direnik. Funtsean, haurdunaldiak irauten duen bitartean nahitaez gertatzen ez diren beste baldintzatzaile batzuen mende dagoelako. Zentzu horretan, kontuan hartu behar dira haurdunaldi bakoitzak berezkoak dituen ezaugarriak, eta horiek baloratzeko kasuan kasu Osasun Zerbitzuko langileek ezarritakoa edo adierazitakoa jarraituko da.

Era berean, ezin dugu ahaztu hitzarmen kolektiboa dela lan erlazioaren edukia arautzeko esparru egokia; baina, aldi berean, oso garrantzitsuak dira ordenamendu konstituzionaleko aginduak eta, batez ere, testuko 14. artikulua. Horrenbestez, lan erlazioaren edukiak zehazteko orduan, 14. artikulua eraginkortasun osoa eta zuzena du berdintasunaren esparruko eztabaida emakumeen gizarte eta lan eskubideetara mugatzen denean.

4.3. Ordezkaritza orekatuaren printzipioa

Esparru politikoan ordezkaritza orekatua lortzeko printzipioaren jatorria eta funtsa, emakumeak Estatuko bizitza politikoan integartzeko beharrean dago, izan ere, demokraziak berezkoa duen baldintza bat da eta, horretarako, genero ikuspegia barne hartuko duen politika bat garatzeko beharra azpimarratzen da.

Nazioarteko formulazioarekin batera – *“Estatu kideek kasuan kasu herrialdeko bizitza politikoan eta publikoan emakumearen kontrako diskriminazioarekin amaitzeko neurri egokiak hartuko dituzte eta, bereziki, gobernuen politikak formulatzean eta gauzatzean eta kargu publikoak betetzean eta gobernuen plan orotan funtzio publikoak betetzean, emakumeen aukera berdintasuna ziurtatu behar dute (...)” (1979ko Emakumeen Kontrako Diskriminazio Oro Desagerrarazteko Hitzarmeneko 7.b artikulua);*

- **komunitarioa:** “gizon eta emakumeen arteko berdintasuna zuzenbide komunitarioaren funtsezko printzipio gisa” (**EBko Tratatuaren 2. artikulua, bertsio bateratua**); genero ikuspegia barne hartzeko printzipioa ziurtatzeko beharra azpimarratzen da, EBk jardueran orotan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna desagerrarazteko eta bien arteko berdintasuna sustatzeko helburua betetzeko lan egingo du (**EBko Tratatuaren 3.3. artikulua hiru atal, bertsio bateratua**); **EBko Funtzionamendurako Tratatuaren bertsio bateratuaren 19. artikulua lehenengo atalean** ezartzen den moduan, tratu berdintasunaren printzipioa ez da oztopo izango Estatu kideek ordezkaritza gutxienez dituen sexuari lanbide jarduerak gauzatzeko abantailak ekarriko dizkion neurriak hartzeko, edo kasuan kasu lanbide karreretan desabantailak orekatzeko neurriak hartzeko; eta emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua botere postuetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan, **Europar Batasuneko Estatuko Funtsezko Eskubideen Gutunaren 23. artikulua** zati gisa

- zentzu horretan, **3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak eta Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa denak, bere Zioen Azalpenetan** berariaz aipatzen duen moduan *"...el llamado principio de presencia o composición equilibrada, con el que se trata de asegurar una representación suficientemente significativa de ambos sexos en órganos y cargos de responsabilidad, que se lleva también así a la normativa reguladora del régimen electoral general (...) se avanza así en el camino de garantizar una presencia equilibrada de mujeres y hombres en el ámbito de la representación política, con el objetivo fundamental de mejorar la calidad de esa representación y con ella de nuestra propia democracia"*; eta
- **autonomikoa: 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak eta Gizon eta Emakumeen Berdintasunari buruzkoak, bere 23. artikuluan** honakoa xedatzen du *"Euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoen artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte"*.

Deskribatutako iturri guztiek osatzen dute ordezkaritza orekatuaren printzipioa gauzatzeko euskarri arauemailea; eta, hori lortzeko, desberdintasuna zuzentzeko neurri konpentsatzaile gisa partaidetza politikoan portzentajezko arautzea eta banaketa bilatu behar da. Xede dugun gaiari helduta, araudi autonomikoaren bitartez genero kuota bat arautzen da zuzenean, emakumeek bizitza publikoan duten agerpenarekin lotuta. Kuota hori ez dago mugatuta partaidetza politikora bakarrik, izan ere, Zioen Azalpenean aipatzen den zeharkakotasuna araudi autonomikoaren eduki materialean mantentzen da. Zehazkiago, Berdintasunerako Legearen 3.7. artikulua xedatzen duenez, *"Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan"*, betiere, kontuan hartuta, *persona anitzeko administrazio-organoetan ordezkaritza orekatutzat, hain zuzen, sexu biek %40ko ordezkaritza, gutxienez, dutenean joko da"*.

Bestalde, aztertzen ari garen printzipioaren xedari eta eraginari dagokionez, Auzitegi Konstituzionalak urtarrilaren 29ko 12/2008 epaian (FJ 3.a) garbi utzi du *"pretendiendo la igual participación efectiva de hombres y mujeres en la integración de las instituciones representativas de una sociedad democrática"*; *"el establecimiento de cuotas por razón de sexo en las listas electorales no establece una medida de discriminación inversa o compensatoria (favoreciendo a un sexo sobre otro), sino una fórmula de equilibrio entre sexos, que tampoco es estrictamente paritaria, en cuanto que no impone una total igualdad entre hombres y mujeres, sino la regla de que unos y otras no podrán integrar las candidaturas electorales en una proporción inferior al 40 por 100 (o lo que es lo mismo, superior al 60 por 100). Su efecto, pues es bidireccional, en cuanto que esa proporción se asegura igualmente a uno y otro sexo"*.

Osaera paritarioaren berme arauemaileei buruz egindako sarrera laburrak gure erakundeon jasotako beste kexa bat testuinguruan kokatzen laguntzen digu. Horrela, Gipuzkoako Foru

Ahaldunak 6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde, Gobernu eta Administrazioaren Antolamenduari buruzkoak, bere 15.3 artikuluan egiten duen aurreikuspena urratu zuela eta jaso genuen kexa. Aipatutako artikulua araberan, "Foru Aldundian bi sexuen ordezkariak gutxienez %40koa izango da"; eta kontuan hartu behar da aipatutako Foru Arauaren 15.2 artikulua araberan "Foru Aldundia ahaldun nagusiak eta gehienez ere hamar foru diputatuak osatzen dutela".

61/2007 Dekretutik abiatuta, Foru Aldundia 11 kidek osatzen dute eta lau emakumeak dira. Hori kontuan hartuta, erreklamazioaren ustez ez da betetzen 6/2005 Foru Arauak egiten duen aurreikuspena, izan ere, sexu bakoitzak "gutxienez" %40ko ordezkariak eduki behar du sexu bakoitzerako, eta ez %40ra ahalik eta gehien hurbiltzen den portzentajea.

Erreklamazioa jaso ondoren, gaiaren inguruko informazioa eskatu genion ahaldun nagusiari. Jasotako erantzunak zioenez, Aldundiko kideen, ahaldun nagusia barne, %40 kalkulatzeko, 4,4ko (11tik 4) emaitza lortzen da eta, Aldundiaren ustez, irizpide matematikoak jarraituz, hamarrekota bost baino baxuagoa denez, Foru Aldundian emakumeen edo gizonen ordezkariak lau kidek osatu behar dute. Ondorioz, 6/2005 foru araudiak ezarritako portzentajea errespetatzen du foru ahaldunen izendapenak.

Kexan aurkeztutako gertaerak, Gipuzkoako Aldundiak bidalitako erantzuna eta guk landutako ohar juridikoak kontuan hartuta, Arartekoaren erakundeak Gipuzkoako Foru Aldundiko organo betearazlearen osakeran ordezkariak orekatuaren printzipioa zuena edo okerra den argitzeko [Ebazpena eman zuen 2008ko uztailaren 1ean](#)⁷, eta honakoa bertan adierazitakoa: "Hori dela eta, (...), ez dirudi, 11 kideren %40 (alegia, hamar foru diputatuak eta diputatu nagusia) 4'4 izanik, eta emaitza hori matematikoki 4tik 5etik baino gertuago dagoenez, Foru Aldundiak berak egin bezala, 4 izango denik Foru Arauak ezartzen duen emakumeen eta gizonen gutxienezko kide kopurua, hala izanez gero, emakumeen portzentajea %40 baino txikiagoa izateaz gain (Arauak "gutxienez" dio), gizonen kopurua ere (11tik 7) gehieneko muga gaindituko bailuke (%64)".

4.4. Osasuna eta emakumeak

Epigrafe hau osatzen duten ataletan ikusi dugun moduan, genero ikuspegia eta berdintasunaren printzipioa dira botere publikoen jarduna legitimatzen duten printzipioak, eta horien baitan barne hartu behar dira, aktiboki zein berariaz, arlo desberdinetan edo politika desberdinetan, hala nola osasun politikan, berdintasuna lagunduko duten jarraibideak barne hartuz.

Aurretik landutako txostenetan jada adierazi genuen emakumeen berariazkotasunei protagonismo handiagoa eman behar zitzaizela osasun proiektuak lantzeko orduan, funtsean

⁷ Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 1ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseilua osatzeko ordezkariak orekatuaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.

emakumeenak bakarrik diren gaixotasunei edo osasun arazoiei dagokienez, adibidez, osasun prozesuei dagokienez –haurdunaldi, erditze, edoskitze edo klimaterioarekin lotutako gaixotasunak, besteak beste–. Ikuspegi horren baitan kokatzen da “Osasuna eta Emakumeak” programa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak landutakoa eta 2008ko ekainaren 20an Osasun sailburuak aurkeztu zuena. “Arrisku faktore diferentzialak” edo “erikortasun diferentzialak” bezalako kontzeptuak aipatzen dira, osasun esparruak osasunean berdintasuna sustatzeko egiten duen ekarpena baieztatuz.

Genero desberdintasuna osasunerako erabakigarria dela kontuan hartuta, osasun sistematik emakumeen osasuna sustatzeko eta prebentziorako egiten diren ekintzak berrantolatu nahi dira. Eta, berariaz, genero ikuspegia Osasun Publikoan eta Osasun Arretan garatzen diren esku hartzeko proiektu guztietan barne hartzea lortu nahi da; garondo minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa bat ezarri nahi da; emakumeen ugalkortasun osasuna hobetzeko beste hainbat jarduera garatzen dira, hala nola 2008ko ekainetik koito ondoko pilula dohainik banatzen da, eta prebentzioa lantzeaz gain, laguntza eta aholkularitza eskaintzen da; erditzearen fisiologiarekiko arreta pertsonalizatuagoa eta errespetuzkoagoa eskaintzen da, bai eta emakumeek hartzen dituzten erabakiekikoa ere, edoskitze naturala sustatzen da eta Osakidetzako Jaioberrien Unitate guztietan garapenean oinarritutako zainketak ezartzeko bidea errazten da, horien bitartez amek eta aitek sarrera librea dutelarik, haur jaioberriaren zainketan bien inplikazioa bilatzen delarik, eta abar.

4.5. Pobretasunaren feminizazioa

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailak 2008an aurkeztutako Pobretasunari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Galdeketak aurkeztutako datuen arabera, emakumeak dira, oraindik ere, gizarte bazterkeria pairatzeko arrisku gehien dutenak. Egoera hori bereziki begi bistan geratzen da, kontuan hartzen badugu pobretasun erreala –funtsezko beharrak estaltzeko diru-sarrera nahikoa ez edukitzea–, bi aldiz altuagoa dela familiaburua emakume bat den familiatan.

Baieztapen horrek berretsi egiten du Euskadin pobretasuna pairatzeko arrisku handien duten pertsonen profilak. 2004ko Pobretasunari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Txosten Orokorrean jada deskribatu ziren profil horiek: emakumeak eta bakoitzaren subjektibitateak ziren nagusi. Zehazkiago, pobretasuna pairatzeko arrisku handien zuten lau profilak honakoak ziren: 1) 45 urtetik beherako emakumea, lan egonkorrik ez duena, guraso bakarreko familia baten testuinguruan; 2) Europar Batasunetik kanpoko nazionalitateko pertsona bat; 3) emakume bakarra, 45 urtetik beherakoa eta lan egonkorrik ez duena; 4) emakume bakarra, 45-64 urte artekoa, eta lan egonkorrik ez duena.

PGDGko emaitzak azaldu ondoren, gure erakundeak jasotako erreklamazio bat aipatu behar dugu jarraian. Irungo udaletxeko Gizarte Zerbitzuek ukatu egin zuten, etxebizitza baten salmentagatik lortutako sarrerak zirela eta, gizarte prestazioak jasotzeko eskaera baten izapidetzea. Irungo alkatetzara jo genuen eskatutako prestazioa ukatzeko kontuan hartu ziren

datuak, baldintzak, irizpideak eta arrazoiak ezagutzeko. Jasotako erantzunaren arabera, prestazioa ukatzeko kontuan hartu da ekainaren 25eko 8/2008 Legeak –12/1998 Legea, maiatzaren 22koa eta gizarte bazterkeriaren kontrakoa aldatzen du– oinarritzko errenta eta larrialdietako laguntzak emateko ezartzen duen erregimena, eta berau garatzeko araudiak, bereziki 198 eta 199/1999 Dekretuak, Gizarteratzeko Gutxieneko Sarrerei buruzkoa eta Gizarte Larrialdietako Laguntzei buruzkoa, hurrenez hurren.

Erakunde honen ustez, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008ko apirilaren 24an emandako ebazpenak, erreklamaziogileari, egoera ekonomikoa aldatu zitziola eta, oinarritzko errenta jasotzeko eskubidea ukatzen zion, Gizarteratzeko Gutxieneko Sarrera arautzen duen 198/1999 Dekretuko 12.2 artikulua oinarrian hartuta; izan ere, aipatutako artikulua arabera, sarreren zenbatekotik kanpo geratzen dira ohiko etxebizitza saltzeagatik lortutako sarrerak, baldin eta beste ohiko etxebizitza batean inbertitzen badira; era berean, aipatutako Dekretuko 17. artikulua oinarrian hartuta, sarrera atipikoak lortu eta ondorengo hirurogei hilabeteetan konputatu behar dira, kopurua zati hirurogei egin eta hileko sarrera gisa. Hori guztia kontuan hartuta, Foru Aldundiak emandako Ebazpena zuzena dela azpimarratu zaigu. Hala ere, gizarte zerbitzuek kasu jakin batzuen jarraipena egin beharko lukete berariaz, hartara, sarrera atipiko konputagarrien ondorioz babesik gabeko egoera batean dagoen pertsonen euren egoera hobetzen ez oztopatzeko.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, Irungo udaletxeak kasu honetan egindako esku-harzteza positiboki baloratu behar da, izan ere, gure erakundeak jasotako erantzunaren arabera, erreklamaziogilearen egoera berezia da –berak adierazi duenez, lortutako dirua negozio bat irekitzeko erabili zen, baina ez zuen arrakastarik lortu; egoera hori behar den bezala dago justifikatuta gizarte zerbitzuen aurrean–, eta egoera berezi hori kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean kudeaketak ekin ditu, erreklamaziogileak oinarritzko errenta gisa jasotako kantitateengatik sarrera desegokiak direla eta irekitako espedientea artxibatze eskatuz.

Hala ere, 2008ko ekitaldian, gizarte ekintzaren esparruan eta gizarte bazterkeria edo pobretasuna pairatzen duten pertsonentzako berariaz laguntzeko esparruan, emakumeek jasandako egoerei buruzko informazioa modu zehatzagoan azaltzen da aipatutako txosteneko hainbat ataletan.

5. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako: garapena eta ezarpena

Arartekoaren erakundetik jarraipen zorrotza ari gara egiten euskal botere publikoen jardunean aipatutako arauak duen eraginaren gainean, bai eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren ezarpen eraginkorraren gainean ere. Hori dela eta, aurten ere ondorengo lerroetan aipatu ditugun alderdiek lortu duten garapena eta ezarpena ezagutzea komeni dela azpimarratu nahi dugu:

5.1. Berdintasunerako Legearen garapen maila, generoaren araberako eraginaren ebaluazioa kontuan hartuta: egindako ebaluazioen kopurua eta mota desberdinak, 2007ko otsailaren 14an xede horretarako onartutako jarraibideen esparruan

5/2007 Ebazpena, otsailaren 14koa eta generoa kontuan hartuta inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko Jarraibideak onartzen dituen eta desberdintasunak desagerrarazteko eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ekimenak barne hartzeko dena, argitaratu zenetik, 2008ko azaroaren 27ra arte, Emakundera guztira Generoaren araberako Inpaktuaren 151 Txosten bidali dira, administrazio mailako arau eta ekintzen proiektuei buruzkoak, eta ondoren zehaztu dira guztiak, sailen eta mailen arabera:

SAILA	GUZTIRA
Lehendakariordetza	2
Ogasun eta Herri Administrazio Saila	10
Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila	23
Barne Saila	11
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	11
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	19
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	46
Osasun Saila	3
Kultura Saila	10
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila	3
Garraio eta Herri Lan Saila	2
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila	11
GUZTIRA	151

Iturria: Emakunde

MAILA	GUZTIRA
Legea	25
Dekretua	62
Agindua	61
Ebazpena	3
GUZTIRA	151

Iturria: Emakunde

2008an generoaren araberako inpaktuaren txosten kopurua 2007an jasotakoan (57 guztira) bikoitza izan zen. Hori ikusita, garbi dago ahalegin handia egin dela jarraibideetan ezarritakoa betetzeko, eta, era berean, Eusko Jaurlaritzako sailak gero eta gehiago inplikatzeko direla garatzen dituzten politika publiko guztietan berdintasunaren ikuspegia barne hartzeko.

5.2. 4/2005 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarrian aurreikusten denaren arabera, Eusko Jaurlaritzak egitura organikoak eta lanpostuak egokitzeko egindako lana

Zehazkiago, Berdintasunerako Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarriko lehenengo paragrafoa betez, eta eskura dugun informazioa kontuan hartuta, egiturazko dekretuetan sailak osatzen dituzten zuzendaritzak eta atalak eta sailera atxikitako organismo autonomo, erakunde publiko eta organoak sustatzeko, koordinatzeko eta laguntzeko, bai eta 4/2005 Legean eta Eusko Jaurlaritzak onartutako berdintasunerako planean xedatutakoa betetzeko, eskumeneko organoa zehaztu duten Eusko Jaurlaritzako sailak honako hauek dira: a) Lehendakaritza (187/2006 Dekretuaren 8.h artikulua; urriaren 3koa da eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen ditu aipatutako Dekretuak); b) Ogasun eta Herri Administrazio Saila (otsailaren 28ko 42/2006 Dekretuaren 10.3.c artikulua); c) Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Saila (urriaren 18ko 315/2005 Dekretuko 10.q artikulua); d) Barne Saila 1.(azaroaren 8ko 364/2005 Dekretuko 1.m artikulua); e) Industria, Merkataritza eta Turismo Saila (urriaren 11ko 284/2005 Dekretuko 12.1.n artikulua); f) Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (urriaren 15eko 373/2005 Dekretuko 8.s artikulua); g) Kultura Saila (otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuko 5.2.i. artikulua); h) Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila (urriaren 25eko 340/2005 Dekretuko 8.s artikulua); i) Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila (urriaren 11ko 290/2005 Dekretuko 4.o artikulua).

4/2005 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarriaren bigarren paragrafoan xedatutakoaren betetzeari dagokionez, eta 134/2008, 168/2008, 179/2008 Dekretuen eta Autonomia Erkidegoko sail eta erakunde autonomoetako lanpostuak onartzen dituen Dekretua aldatzen duen 196/2008 Dekretuaren arabera, Eusko Jaurlaritzako zortzi sailek jada egokitu dute Lanpostuen Zerrenda eta "Generoaren Esparruko Programen Teknikaria" izeneko plaza sortu dute. Zehazkiago, aipatutako plaza sortu dute: Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, Garraio eta Herri Lanetako Sailak, Kultura Sailak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak; Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak; eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

5.3. 4/2005 Legearen 27. artikulua, publizitatea kontrolatzeko organoari eta komunikabideek igortzen dituzten edukiei buruzko kode etikoak bermatzen dituenak, bame hartutako aurreikuspenaren gaur egungo garapen maila

Ildo honetan, kontuan hartu behar da, 4/2005 Legea atera aurretik, Eusko Jaurlaritzan jada aipatutako funtzioez arduratzen zen organo bat zegoela, hain zuzen ere Begira-Publizitate Ez Sexistaren Batzordea, Emakundera atxikitakoa eta apirilaren 27ko 78/1998 Dekretuak arautua. Emakundek jakinarazi digunez, 2007ko azaroaren 9an Batzorde horretarako onartutako laneko planaren arabera, gaur egun lan egiten ari dira bere dekretu arauemailea 4/2005 Legea onartzean ekarritako egoera berrira egokitzeko. Era berean, Begiraren esparruan, kode etiko bat ari dira lantzen, komunikabideetan igortzen diren publizitate edukiei lotuta, aipatutako legearen 27. artikulua betetzera begira.

5.4. Berdintasunerako planak edo programak

Gaur egun 4/2005 Legearen 15. artikulua aipatzen dituen berdintasunerako planen eta programen promulgazioarekin lotuta euskal herri-administrazioek egindako lanari dagokionez, Emakundek jakinarazi digunez, jada emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan bat dute (Berdintasunerako Euskal Legearen 15. artikulua dioen moduan) hiru foru aldundi⁸, 56 udalerrik eta mankomunitate batek, eta guztiek batera Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren bi heren ordezkatzeko dituzte⁹.

5.5. Emakunderen egituren egokitzapena

Emakundek jakinarazi digunez, urriaren 31ko 214/2006 Dekretua betez, egitura organikoa aldatu ondoren, irailaren 25eko 160/2007 Dekretu bidez –Autonomia Erkidegoko Administrazio Sail eta Erakunde Autonomoen lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzen du –Emakunde– Emakumearen Euskal Institutuaren Lanpostuen Zerrenda aldatu zen, zegokion plantillan bederatzi plaza gehituz. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako sail guztiek dituzte Legegintzaldiko agiri programatikoak eta urteko agiriak programak, IV. Plana garatzeko, 4/2005 Legearen 15.2 artikuluan xedatutakoa betez.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 17. artikulua garatzeko helburuarekin, Emakundek lan talde bat abiarazi zuen 2007ko martxoan, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzarekin eta HAEErekin batera, Berdintasuneko Prestakuntzarako Plan bat diseinatzeko. Lan horren emaitza gisa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordeak Berdintasuneko Prestakuntzarako Plana (2008-2018) onartu zuen 2008ko martxoan. 2008ko azaroan egin da aipatutako planaren aurkezpena eta jada martxan jarri da programazioaren lehen aldia (2008-2009).

Amaitzeko, Emakundek, 4/2005 Legearen 51.2 artikuluan xedatutakoa betez, 2008ko uztailan bi txosten landu eta bidali ditu Eusko Legebiltzarrera. Txosten bat esparru judizialari buruzkoa da eta polizia esparruari buruzkoa da bestea. Bietan EAEn etxean baitako emakumeen kontrako indarkeriarekin lotuta dauden programa eta baliabideen eraginkortasuna eta eragina ebaluatzen da.

⁸ Bizkaiko Foru Aldundia: Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Foru Olana eta generopolitikei buruzkoa (2004-2007). Arabako Foru Aldundia: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana Araban. Gipuzkoako Foru Aldundia: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana (2008-2011).

⁹ Udalerriak: Abadiño, Abanto-Zierbena, Amurrio, Andoain, Anoeta, Areatza, Arrasate/Mondragón, Arrigorriaga, Azkoitia, Azpeitia, Balmaseda, Barakaldo, Barrika, Basauri, Berango, Berriz, Bilbao, Deba, Donostia-San Sebastián, Durango, Eibar, Elorrio, Erandio, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxo, Gorniz, Güeñes, Hernani, Hondarribia, Irun, Itsasondo, Laudio, Leioa, Lekeitio, Lemoiz, Mungia, Muskiz, Ondarroa, Ortuella, Plentzia, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sopela, Tolosa, Trapagaran, Ugao-Miraballes, Urduliz, Vitoria-Gasteiz, Zaldibar, Zalla, Zarautz, Zegama, Zierbena, eta Urola Garaia Mankomunitatea.

5.6. Berdintasunaren esparruko legeriaren ezarpenarekin erlazionatutako beste hainbat informazioa interesgarri

4/2005 Legearen 17. artikuluko 3. eta 4. ataletan adierazitako betetzeko, lan talde bat osatu da. Emakundek zuzentzen du aipatutako lan taldea eta Eudel, Funtzio Publikorako Zuzendaritza eta HAEE dira taldeko partaideak. Egindako lanaren ondorioz, berdintasunerako langile teknikoak kontratatzeke oinarrien eredu bat diseinatu da 2008an. Gainera, esparru berean, enplegu publikoa eskuratzeko hautapen prozesuetan lantzen diren gaien berrikuspena egin da eta prozesu horietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako gaiak barne hartzeko proposamen bat landu da.

4/2005 Legea garatzeko egin diren jarduera azpimarragarrien artean, aipatzeko da, alde batetik, 6/2008 Ebazpena, ekainaren 2koa, Gobernu eta Legebiltzarreko Harremantarako Idazkaritzako zuzendariarena, argitaratu da. Ebazpen horrek xedatzen du Gobernu Kontseiluak "Autonomia Erkidegoko Administrazio eta sektore publikoko kontratazioan irizpide sozial, ingurumeneko eta hainbat politika publiko barne hartzeko" hartutako Akordioa argitaratu behar dela. Akordio horretan argi uzten da kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako irizpideak barne hartzeko beharra, 4/2005 Legearen 20.2 eta 20.3 artikulua garatuz.

Zehazkiago, administrazio klausula berezien orrian, ingurumen edo gizarte mailako baldintza berezien ataleko "gizarte izaerako" azpiatalean, ondoren adierazitako baldintza bereziak barne hartuko dira, kontratuak irauten duen bitartean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko: a) tratu berdintasuna ziurtatzea enplegua eskuratzeko, lanbide sailkapena egiteko, iraunkortasunerako, prestakuntza emateko, kontratua eteteko, eta abar, eta bitzta pertsonala, familiako eta laneko bateragarri egiteko neurriak martxan jartzea; b) 10 langiletik gorako enpresa kontratistek edo azpikontratistek sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak martxan jartzea –jardunbide egokien kodeak lantzea eta zabaltzea, informazio kanpainak egitea, sexu jazarpena prebenitzeko berariazko prozedurak ezartzea, eta abar-. ; c) emakumeen kasuan kontratazio berri bat egitea edo aldi baterako kontratua behin betiko kontratu bihurtzea enpresa kontratistak edo azpikontratistak, baldin eta kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar badira eta enpresako plantillan emakumeen agerpena desorekatua bada, hau da, plantillako %40a iristen ez bada (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Ebazpeneko IX.3 atala).

Halaber, azpimarratzekoa da 6/2008 Ebazpen bitartez, herritarren eskubideen gauzate osotik urrun dauden emakumeei lan munduan txertatzen lagunduko dieten hainbat neurri barne hartzen direla; emakume talde honetan sartzeko zailtasunak arrisku egoeran edo lan ezegonkortasuna duten emakumeak, etxean baitako indarkeria jasaten duten emakumeak, 30 urtetik gorako emakumeak, guraso bakarreko familietako amak. Neurri horiek guztiak hartzen badira, enpresa esleipendunak, kontratatzen duen prestazioan barne hartu beharko ditu enplegua eskuratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsona langabetuen %20 gutxienez (Enplegua eskuratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak lan munduan txertatzeko Ebazpenaren IX.2 atala); ehuneko horren baitan sartzeko dira lehen aipatutako emakumeen taldeak.

Bestalde, 2008ko apirilaren 22an Tolosako udaletxeak EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako lehenengo Udal Ordenantza onartu zuen. Tokiko gobernua berdintasunaren alde esku hartzeko oinarrizko agiri arauemailea da Ordenantza eta aipatutako Berdintasunerako Legea du oinarrian. Euskal Autonomia Erkidegoko botere publiko eta herri-administrazio guztien kasuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea da aipatutako Legearen lehentasunezko helburu estrategikoa eta tokiko esparrua Legeak ezartzen duen esparruarekin lotzeko balio du, Legean oinarrituta sortu den aipatutako Ordenantzak baieztatzen duen moduan.

Euskal Herriko Unibertsitateko bi irakaslek landu dute, Emakunderen laguntzarekin. 22 kapitulu eta 60 artikulua ditu eta horien bitartez emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako udal politika aktibo baten arautzea bilatzen da. Gauzak horrela, aipatutako Ordenantza "tokiko gobernua xede dugun esparruan esku hartzeko oinarrizko agiri arauemailea da; era berean, berdintasunak duen garrantzia baieztatzeko balio du, izan ere, udal agendan sartu eta iraunarazi behar da, eta aldaketa politikoaren eraginpetik babestu (Ordenantzako Zioen Azalpena). Gainera, beste euskal udaletxe batzuetarako lagungarria izango da, onartu ondoren Berdintasuna Sareko teknikariei aurkeztu baitzaie, horretan oinarrituta "Ereduzko Ordenantza" bat osa dezaten.

Amaitzeko, 8/2008 Legea, ekainaren 25ekoa eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Gutunaren Legea aldatzen duena, onartzean, 4/2005 Legearen 45.2 artikuluan "alarguntasun pentsio baxuenetarako osagarriak" ezartzeko beharrezko ildotik xedatzen dena betearazteko balio du.

II.2

BERARIAZKO ARRETA ADINEKOEI

2. BERARIAZKO ARRETA ADINEKOEI

a) ***Aurrekariak***

Gero eta adineko gehiago dago gure erkidegoan. Ia 400.00 pertsona (401.124, EINEk argitaratutako azkeneko datuen arabera, iaz 397.132 ziren arren). Biztanleriaren zati handi bat dirrelako (%20 inguru) eta berariazko ezaugarri eta behar batzuk dituztelako, Arartekoak arreta berezia eskaini dio pertsona horien egoerari. Horren adierazgarri dira hirugarren adinekoen egoitza-zentroei buruzko txosten berezia (1994an aurkeztua) eta ez-egoitzazko laguntzari buruzkoa (1996an aurkeztua).

2005ean txosten berri bat egin zen, *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak*. Txosten horren xedea zen EAEn adinekoentzako zuzeneko arreta-sistemako zerbitzu nagusiak aztertzea –etxeko laguntza zerbitzuak, egoitza-zerbitzuak eta eguneko zentroak–, sistemako alderdi positiboak adierazteko, gabeziak hautemateko eta etorkizunerako jardunbideak proposatzeko.

2006ko eta 2007ko ohiko txostenetan aipaturiko txosten horretako gomendioak bete diren ikusi dugu, ohikoa denez. Horretarako, eskumendun administrazioetan daturik esanguratsuenak eskatu genituen; plaza, estaldura edo zerbitzu kopurua hazi ote zen jakin nahi izan genuen, baliabideen eskualdekako banaketa finkatu, arauen aldaketak ezagutu eskubideei, sartzeko baldintzei eta finantzatzeko irizpideei zegokienean, berariazko beste alderdi batzuk ere ezagutu nahi izan genituen, aztertutako zerbitzuen edo programen kalitatearekin zerikusia izan zezaketen heinean.

Era berean, 2007an indarrean sartzen zenez autonomia pertsonala sustatzeko eta mende-kotasuna duten pertsonen laguntzeko Legea (aurrerantzean Mendekotasunaren Legea), sail bakoitzak hori zuzen ezartzeko emandako urrats nagusiak zein izan ziren galdetu zen.

b) ***Urte honetako jarraipena***

Aurten adinekoentzako Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren (aurrerantzean ELZ) estaldura maila aztertu nahi izan dugu berariaz honakoengatik:

1. Aurrez aipaturiko berariazko txostenean esaten zen bezala, gutxien araututako zerbitzua da. Horregatik gomendatzen zen *“...adinekoentzako arretaren eremuaren barnean eratzu joan den arautegi-esparruan lortutako aurrerapenak, (...) oinarrizko gizarte zerbitzuak eta etxeko laguntza zerbitzua autonomia mailan erregulatuz osatu behar dira.”*
2. Orokorrean, zerbitzua kudeatzeko eskumenen ondorioz, finantzazio-sistema, plaza kopuruari buruzko informazioa, estaldura maila eta eskainitako laguntzaren edukia bera, ez dago beste zerbitzuen maila berean garatuta eta ezta lurralde guztietan berdin ere, ondorioz, arautzeko, kudeatzeko eta finantzatzeko beharrezko neurriak hartu behar dira *“lurralde mailako desoreka garrantzitsuak gutxitzeko eta pixkanaka kentzeko.”*

3. Berariazko txostenaren gomendioetan, batzuk ELZri buruzkoak ziren, zehatz esateko, 20. gomendia: *“Nahitaezkoa da etxeko laguntza-zerbitzuei buruzko informazioa galtzeko arriskua saihestea”*, 21. gomendia: *“...minimotzat jotzen den estaldura-tasara heltzeko, komenigarria izango litzateke 1994-2001eko denboraldian egondako urteko hazkuntza-erritmoa mantentzea”* eta 22. gomendia: *“...adinekoen proportzioa igoko dela aurreikusita (...), gomendagarria da zerbitzuak (...) intentsitatea mantentzea: arretako hirurehun ordu inguru, erabiltzaile bakoitzeko”*, baina orain arte ez dugu gomendio horiek artatu diren arrastorik.

Horregatik, aurten informazio eskariak igorri ditugu Foru Aldundi bakoitzera eta lurralde historiko bakoitzeko udal batzuetara (Asparrena, Barakaldo, Berriz, Bilbo, Donostia- San Sebastián, Gabiria, Leioa, Audio, Busturialdeko Mankomunitatea, Mutriku, Navaridas, Tolosa, Irun eta Vitoria-Gasteiz).

Eskari horietan honako informazioa eskatzen dugu mendeko adinekoei buruz (adinekotzat hartu ditugu 65 urte edo gehiagoko pertsonak):

1. Zerbitzua erabiltzen duten pertsonen buruz: sexua, adina, autonomia maila, bizikidetzaren ingurunea eta kuota.
2. Eskaintako zerbitzu mota: eskaintako arreta mota, asteko batez besteko ordu kopurua eta iraupena.
3. ELZen lurraldekako banaketa (eskualdeka, erabiltzaile kopurua bereizi egin dugu eremura eta eremu bakoitzeko erabiltzaile portzentajearen arabera. Portzentajea ateratzeko, eremu horretako adineko guztiak hartu dira kontuan).
4. ELZ eskaintzeko baliabide materialen eta giza baliabideen hazkundera.
5. Mendekotasun Legea ezarrita: ELZ araututa duen pertsona kopurua eta mendekotasun maila.
6. Zerbitzuaren finantzazioarekin, kudeaketarekin eta koordinazioarekin zerikusia duten gaiak: udalen eta foru aldundien arteko akordioak, erabiltzaileen ekarpenak, kudeaketa publikoa edo pribatua...

Txosten hau itxi denean eskariari erantzunda zeuden hiru Foru Aldundiak eta Asparrena, Barakaldo, Berriz, Bilbo, Donostia-San Sebastián, Irun, Audio/Llodio, Mutriku, Tolosa eta Vitoria-Gasteizko Udalak. Bertako edukia dator ondoren, lurralde historikoen arabera.

a) Arabako Lurralde Historikoa

Arabako Foru Aldundiak bere erantzunean lurraldeko eskumen-banaketaren berri ematen du:

- a. Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saila da adinekoen arretarako eskumena duena, pertsona horiek mendekotasunagatik, adinagatik, ezintasunagatik edo autonomia gabeziagatik eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan modu independentean ibili ezin badira eta Arabako lurraldean bizi badira.

- b. Vitoria-Gasteizko Udaleko gizarte esku-hartze saila da eskumenduna 60 urtez gorako pertsona autonomoak edo eguneroko bizitzako jarduerak egiteko ezintasun txikiak dituztenak artatzerakoan, hirian bizi badira eta han errolatuta badaude.

Horregatik, Foru Aldundira igorritako informazio-eskaerak lurralde historiko osoko 2008ko datuak ditu, eskualdeka banatuta eta hiriburua sartuta, mendeko pertsonen dagokienean; Vitoria-Gasteizko udalaren erantzunean mendekoak ez diren pertsonen 2007 eta 2008 urteko hiriburuko datuak ageri dira. Bestalde, Laudioko eta Asparrenako udalek erantzun dute ez dutela inolako daturik, Foru Aldundiko erantzunean dago informazio hori.

1) **ELZko 65 urte edo gehiagoko erabiltzaileen egoera pertsonalei** dagokienez:

ELZ-REN TITULARRAK DIREN ERABILTZAILEAK				ELZ GASTEIZ 2007 ¹	ELZ GASTEIZ 2008 ¹	ELZ ALDUNDIA 2008
ELZren titularrak diren pertsonen kopurua guztira				1.447	1.631	4.142
Sexua	Emakumeak			1.000	1.134	2.828
	Gizonak			447	497	1.314
Adina	65-74			178	191	511
	75-80			447	477	933
	81 eta gehiago			822	963	2.698
Autonomia maila	Mendekoak	MBB	I. maila	–	–	323
			II. maila	–	–	538
			III. maila	–	–	1.242
		Beste baremo bat		–	–	–
	Mendekoak ez direnak			–	–	165
Bizikidetz- ingurunea	Bakarrik bizi dira			%53,21	%53,30	%41,40
	65< familiakoekin bizi dira			%40,43	%40,40	%33,50
	65> familiakoekin bizi dira			%3,04	%1,60	%19,20
	Hirugarrengoeekin bizi dira			0	0	%5,90
	Bestelako egoerak			0	0	0
Kuotak	Erabiltzaileak ordaintzen duen batez bestekoa			3,57	3,98	3,5

¹ 65 urtez gorakoekin eta, aldi berean, 65 urtez beherakoekin bizi direnak, 65 urtez gorakoen bizikidetz-mailan sartzen dira soilik.

Ikus daitekeenez, badira mendekoen (ELZ Aldundia) eta mendekoak ez direnen (ELZ Gasteiz) artean konparazioak egiteko erreferentziako datu batzuk. Bi zerbitzuetan gehitu egin da 2007 eta 2008 artean artatutako pertsona kopurua. ELZ Aldundiaren kasuan, aurtengo datuak eta 2007ko ohiko txostenekoak alderatuz gero, ELZ erabili dutenen kopurua hazi egin dela ikusten da, 3.704tik 4.142ra igaro da. Dena dela, erabiltzaileen ezaugarriak antze-koak dira: gehienak emakumeak dira, 81 urtez gorakoak eta bakarrik bizi direnak.

Autonomia mailari buruzko datuei dagokienez, zenbait gauza hartu behar dira kontuan. Informazio eskaeran jakin nahi genuena zen Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasuna Duten Pertsonen Laguntzeko Legea (aurrerantzean Mendekotasunaren Legea) ELZko erabiltzaileen artean zer mailatan ezartzen zen jakitea, hau da, aipaturiko Lege horren arabera mendekotasuna baloratzeko eskatutako pertsonen datuak.

Foru Aldundiaren kasuan, Legea ezartzeko eskumena duen administrazioaren kasuan alegia, autonomia mailari buruzko datuak honela banatzen dira:

AUTONOMIA MAILA	Mendekoak	MBB	I. maila	242	
			II. maila	380	
			III. maila	693	
		MBB homologaziotik datozenei (39/06 Legea, 9. XG)	I. maila	53	
			II. maila	124	
			III. maila	418	
		Beste norbaiten laguntzaren homologazioa (39/06 Legea, 9. XG)	I. maila	28	
			II. maila	34	
			III. maila	131	
	Mendekoak ez direnak				165
	Balorazioa egin gabe				1.874
Guztira				4.142	

Gaur egun, Aldundiko ELZ erabiltzen duten 4.142 pertsonetatik Mendekotasun Legearen arabera mendekotzat hartu dira 2.103; horietako gehienak (%59) mendekotasun mailarik handiengan (III. mailan) daude, nahiz eta zerbitzua erabiltzen duten 1.874 pertsona egon oraindik baloratu gabe. Era berean, 165 lagun Foru Aldundiak aurrez mendeko bezala hartuta zituen, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak modu independentean egiterik ez zutelako, baina Mendekotasun Legearen baremoen arabera ez mendekotzat hartu dira.

Aldiz, Vitoria-Gasteizko Udalak ez du artatutako pertsonen autonomia mailari buruzko datu zehatzik eman, Mendekotasunaren Legeko baremoa ezartzeari buruz. Erantzunean adierazten dutenez, mendekotasuna baloratzeko eskumena Foru Aldundiena da, beraz, Udalak ez du mendekotasunak baloratzen parte hartzen, ezta ELZ zehazten den Banakako Arreta Programa (aurrerantzean BAP) egiten ere. Banakako Arreta Programan ELZ agindu dela oinarritzko gizarte zerbitzuak nola jakiten duten galdetuta, honakoa erantzun dute: *“no tenemos conocimiento, y se nos hace necesario para gestionar recursos propios y/o definir listados de espera al producirse dobles atenciones y valoraciones (personas que son dependientes y rechazan recurso foral por preferir este recurso, personas en lista de espera o en estudio-valoración para adecuar sus necesidades a los recursos solicitados y desconocemos que son dependientes o incluso familias en la que uno de sus miembros es dependiente y el otro no y hacemos converger los recursos)”*.

Gaur egungo egoeran, Vitoria-Gasteizko Udalak ez daki bere zerbitzuan artatutako pertsonetatik zenbat hartu diren mendekotzat.

Erabiltzaileek ordaintzen duten ELZren batez besteko kostuari dagokionez, egindako kalkulatu matematikoen arabera ez dago alde handirik bi zerbitzuetan orduko ordaintzen den zenbatekoaren artean, nahiz eta erabiltzailearentzat kostua handiagoa izan Udalean.

2) **Eskainitako zerbitzuaren ezaugarri** dagokienez (zerbitzu mota, arreta egun eta ordu kopurua, iraupena...):

ESKAINITAKO ZERBITZUA		ELZ GASTEIZ 2007	ELZ GASTEIZ 2008	ELZ ALDUNDIA 2008
Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren titularren kopurua.		1.147	1.631	4.142
Etxe bakoitzean ELZren onuradunen batez bestekoa		1,26	1,26	1,2
Eskainitako laguntza mota	Soilik laguntza pertsonala	% 2,20	% 2,40	% 50,08
	Soilik etxeko beharrak	% 18,50	% 17,70	% 34,30
	Biak	% 79,30	% 79,90	% 14,80
ELZk astero eskainitako ordu kopuruaren batez bestekoa		2.777,1	3.014,7	–
Aurreko urtearekin alderatuta igoerarik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		Bai	Bai	Bai
Astean erabiltzaile bakoitzari eskainitako arreta-ordu kopurua		2,33	2,24	7,35
Aurreko urtearekin alderatuta igoerarik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		Ez	Ez	Bai
Aurreko urtearekin alderatuta ELZn pertsona-laguntzaile gehiagorik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		Bai	Ez	Bai
Estandurik aurreikusten al da (nahiz eta egoera berezietan izan) kasu hauetan? <u>Bai edo ez erantzun</u>	Larunbatak	Bai	Bai	–
	Igandeak	Bai	Bai	–
	Jaiegunak astean zehar	Bai	Bai	–
	Aste Santua eta eguberriak	Bai	Bai	–
	Etxeko laguntzailea oporretan dagoenean	Bai	Bai	–
	Etxeko laguntzailea ez dagoen beste egoeretan	Bai	Bai	–
Batez besteko itxaron-epaia, ELZrako eskubidea onartzen denetik prestazioa jasotzen duen arte.		8	8	–
Erabiltzaile bakoitzeko zerbitzuaren batez besteko iraupena (hilabetetan)		30	29	24
Zerbitzua eguneko zentro batekin osatzen duten ELZren titularren ehunekoa ¹		% 5,9	% 6,2	–

¹ Pertsona hauek ELZ osatzeko Hirugarren Adinekoen beste baliabide batzuk erabili dituzte: Eguneko Zentroa, Asteburuetako Eguneko Zentroa edo Eguneko Arreta-zerbitzua.

Vitoria-Gasteizko Udalak emandako datuetan nabarmendu egiten da asteko batez besteko arreta orduak apur bat gutxitu izana (2,33tik 2,24ra). Are gehiago, datuen arabera, erabiltzaile kopuruak eta eskainitako ordu kopuruak gora egin arren, ez da zerbitzua eskaintzen duen profesional kopurua hazi, eta horrek eragina du, nahitaez, zerbitzuaren estaldura mailan.

Aldiz, Arabako Foru Aldundiaren erantzunean ELZn astean eskaintzen den ordu kopuruaren berri ez da eman; horri esker, 2007ko ohiko txostenean egin genuen bezala, matematikoki kalkulatu ahal izango genuke pertsonako eta urteko eskainitako ordu kopurua eta urte desberdinetako datuak konparatu. Erabiltzaileko asteko batez besteko ordu kopurua besterik ez dugu: 7,35 ordu/astean.

Bi administrazioen informazioaren azterketa konparatua eginda, kontrasteko funtsezko datuak hauek dira: batetik, Aldundiko ELZn (mendeko pertsonen arreta) astean erabiltzaileari emandako batez besteko ordu kopurua eta Vitoria-Gasteizko Udaleko ELZn (mendekoak ez diren pertsonen arreta) emandakoa; izan ere, mendeko pertsonen ELZ, batez ere, arreta pertsonalean oinarritzen da, aldiz, pertsona autonomoen ELZren estalduran nola arreta pertsonala hala etxeko beharrak sartzen dira. Datu hau honela azaltzen da: mendeko pertsonarik gehienak landa inguruan bizi dira eta gehienak familiakoekin bizi dira.

3) Arabako Lurralde Historikoan **zerbitzuak duen lurralde banaketari** dagokionez:

ESKUALDEA	65 URTE BAINO GEHIAGOKO BIZT.	ELZ ERABILTZAILE KOPURUA	ERABILTZAILEEN %
Arabako Bailarak	1.226	123	10,03
Aiaraldea	6.068	462	7,61
Arabako Mendialdea	872	59	6,76
Gorbeialdea	1.257	113	8,98
Arabako Errioxa	2.252	220	9,76
Arabako Lautada	39.170	3.165	8,08
ARABA GUZTIRA	50.845	4.142	8,14

Datu hauek eta 2007ko ohiko txostenekoak alderatuz gero, ikusiko dugu 65 urtez gorako mendeko pertsonak eta zerbitzu hau erabiltzen dutenak gehitu egin direla aurten:

- 2007an Araban 65 urtez gorako 49.880 pertsona zeuden. Aurten 50.845 pertsona dira.
- 2007an ELZren estaldura maila %7,42 zen, Foru Aldundiko datuen arabera, eta aurten apur bat igo egin da %8,14ra.

4) **Mendekotasun Legea ezartzeari** dagokionez:

Gizarte Ongizatearen Foru Erakundearen eskumena denez mendekotasuna baloratzea, horri buruzko datu bakarrak Arabako Foru Aldundiaren erantzunean daude.

Dena dela, Vitoria-Gasteizko Udalak aipatu du zailtasunak sortzen ari direla bi administrazioen artean, lankidetzarako mekanismorik ez dagoelako BAP egiteko eta erabiltzaileari dagozkion zerbitzuak edo prestazioak zehazteko, are gehiago, ez dakite Foru Aldundiak zer zerbitzu arautzen dituen ere. Udalak adierazi duenez, foru erakundearen erantzunaren zain daude, lankidetzeta-hitzarmena sinatzeko proposamena egin baitzion Udalak, mendekotasun-egoera eta mendekotasun-maila ezagutu ahal izateko, erantzunean aipaturiko ondorioak saihestu asmoz: *“duplicidad de recursos, intervención de dos instituciones, posibles situaciones no atendidas de forma adecuada ante los límites de una y otra institución, descontento de las personas usuarias”*.

Foru Aldundiaren erantzunari esker, mendeko izendatu eta Banakako Arreta Planean ELZ agindutako pertsona kopuruaren berri izan dezakegu, baita jasotako balorazio mailaren berri ere. Lehen ere esan dugu baloratutako gehienak mendekotasun handikoak direla. Datu horiek bat datoz 2007ko ohiko txostenekoekin (urte horretan egindako 1.782 mendekotasun baloraziotatik 889ri ELZ arautu zitzairen, eta gehienak mendekotasun handiko bezala baloratu ziren). 2008 amaieran ELZko 1.874 erabiltzaile daude oraindik baloratu gabe. Foru Aldundiak uste du, gehienak pertsona autonomoak direla.

MENDEKOTASUN LEGEAREN APLIKAZIOA 2008		AFA
Banakako Arreta Programetan (BAP) ELZ araututako pertsonen kopurua guztira		904
Banakako Arreta Programen ondoren ELZ ematen zaien pertsonen kopurua guztira	I. maila	159
	II. maila	263
	III. maila	430
ELZren arreta jaso duten pertsonen kopurua guztira, oraindik mendekotasun maila bete ez denean (edo zenean).		1.874

5) **Finantzazio eta kudeaketa irizpideei** dagokienez:

Arabako Foru Aldundiari eskatutako informazioarekin Foru Aldundiaren eta Lurralde Historikoko udalen artean balizko akordiorik edo hitzarmenik egon zitekeen jakin nahi genuen, etxeko laguntza zerbitzua eskaintzeari zegokionean.

Foru Aldundiak adierazi du Arabako Lurralde Historikoan 1984an Gizarte Ongizateko Foru Erakunde sortu zenetik mendeko edo mendeko ez diren adinekoentzako zerbitzuak –Vitoria-Gasteizko mendeko ez direnak ezik– Foru Aldunditik eskaintzen direla, eta horren inguruan ez dagoela inolako akordiorik.

Aipatutakoaren arabera, 2008an ELZ Araban finantzatzeko erregimena Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak 2008ko ekitaldian eskainiko dituen zerbitzuengatik kobratu beharreko prezio publikoen araudiaren mende dago (BOTH 15. zk., 2008ko otsailak 4), hor finkatzen da ELZren prezio publikoa hileko 290,12 euro izango dela. Aldi berean, erabiltzaile bakoitzaren banako zenbatekoa kuantifikatzeko baremoaren irizpideak ezarri dira, pertsonaren diru sarreraren eta arreta orduen arabera, eta famili unitatea eratzen duen pertsona kopurua ezarri

da zehapen bezala. Kasu hauetan famili unitatea honakoek eratzen dute: erabiltzaileak, bere ezkontideak edo ezkontza harremanaren antzeko erlazioa duen pertsonak eta seme-alaba adingabeek.

Vitoria-Gasteizko Udalaren ELZ dela eta, datu hauek azaldu dira erantzunean:

- 2008an ELZri emandako udal aurrekontua 3.800.000 izan zen, hau da, Gizartekintza Saileko aurrekontuaren %12 adina. Aurrekontu honek udalerrian bizi eta 60 urtez gorako adineko pertsona autonomoen ELZ finantzatzen du soilik.
- Banakako ekarpena kalkulatzeko, per capita errenta hartzen da kontuan eta orduko 0,50 eurotik orduko 11 eurora artekoa izan daiteke (2009rako prezio publikoen arabera).
- Famili unitatean sartzen dira erabiltzailea eta honen ezkontidea edo antzekoa eta biekin bizi diren seme-alabak, hauek bizikidetz-unitate independentea eratzen ez badute behintzat.
- 2008an zerbitzuaren estaldura maila %4,27koa izan zen 65 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan.
- Zerbitzuaren kudeaketa zeharkakoa izan zen eta mendekoak ez ziren pertsoneri eskaini zitzaizkien soilik.

Era berean, Vitoria-Gasteizko Udalak zerbitzua hobetzeko kontuan hartu beharreko zenbait gai aipatzen ditu:

- Foru Aldundiarekin koordinazioa, aurrez aipaturiko lerroan.
- Bizikidetz-unitatearen definizioa bateratu, diru-sarreraren zenbatekoa kontatzeko, prezio publikoa ezartzeko.
- Prezio publikoa kalkulatzeko diru-sarrera zatiak bateratu eta prezio - diru-sarrera ez konputagarriak eta dedukzioak ezartzeko, diru-sarrera kontzeptua argitu.
- Etxeko laguntzak eskaintzeko koordinazio sozio-sanitarioa areagotu.
- Babesteko/arnasa hartzeko baliabide sozio-sanitarioak sortu, behin behineko, adinekoek ospitalean alta hartu eta etxera itzuli aurretik.

b) Bizkaiko Lurralde Historikoa

Lurralde Historiko honetako etxeko laguntza zerbitzuaren errealitatea zehatz ezagutzeko, informazioa eskatu genien Bizkaiko Foru Aldundiari eta zenbait udali. Txosten hau itxi denean, Foru Aldundiak eta Barakaldo, Berriz eta Bilboko Udalek bakarrik igorri dute erantzuna.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari eskaria egin genionerako bagenekien aurreko urteetan ez zutela inolako daturik eman euren lurraldeko etxeko laguntza zerbitzuari buruz. Egia esan, Foru Aldundiak bere erantzunean dio udal eskumeneko zerbitzua denez, ez dutela horri buruzko daturik, eta Mendekotasun Legeari buruz eskatutakoak bakarrik aipatu ditu.

Horregatik, eskura ditugun datuak aztertu behar ditugunez, aipaturiko udal horiek igorritako informaziora mugatu beharra daukagu kasu honetan, bereziki Barakaldoren eta Berrizen kasuan, oso zehatz erantzun baitituzte galderak.

1) ELZko 65 urte edo gehiagoko erabiltzaileen egoera pertsonalei dagokienez:

Aipaturiko bi udal horiek emandako informazioa 2007. eta 2008. urteei dagozkien bi taula hauetan banandu daiteke.

Bi udalerrri horien neurria oso desberdina izan arren, datu batzuk beste lurralde batzuetakoekin bat datoz eta denboran mantendu dira: ELZ bakarrik bizi eta 81 urte baino gehiago dituzten emakumeei eskaintzen zaie, bereziki. Dena dela, udalerrri bakoitzak azaldu beharreko ezaugarriak ditu:

ELZ-REN TITULARRAK DIREN ERABILTZAILEAK 2007				BILBAO	BARAKALDO	BERRIZ
ELZren titularrak diren pertsonen kopurua guztira				9.219	401	18
Sexua	Emakumeak			6.525	314	17
	Gizonak			2.694	87	1
Adina	65-74			992	46	3
	75-80			1.545	70	6
	81 eta gehiago			5.496	285	8
Autonomia maila	Mendekoak	MBB	I. maila	–	–	2
			II. maila	–	–	5
			III. maila	–	–	6
		Beste baremo bat		–	–	–
	Mendekoak ez direnak			–	–	5
Bizikidetzatzaingurunea	Bakarrik bizi dira			% 46,69	–	% 38,9
	65< familiakoekin bizi dira			% 19,47	–	% 27,7
	65> familiakoekin bizi dira			% 15,46	–	% 27,7
	Hirugarrengoeekin bizi dira			0	–	–
	Bestelako egoerak			% 18,38	–	% 5,9
Kuotak	Erabiltzaileak ordaintzen duen batez bestekoa			551.910 ¹	–	36 €/hilean

¹ Bilboko Udalak datu hau erabiltzaileek emandako zenbateko bezala sartzen du, eta epea ezin dugu zehaztu.

2007ko datuei dagokienez, esan beharra dago intereseko aldagai batzuk kontrastatzerik ez dugula, hala nola, erabiltzaileen mendekotasun maila edo erabiltzaile bakoitzaren

ekarpenaren batez bestekoa. Lehenengo kasuan Berrizko Udalak bakarrik eskaini digu informazioa eta, bigarrenean, ezin da zehaztu Bilboko Udalak emandako zenbateko osoa hileko ala urteko ekarpenari dagokion (551.910, kalkulu matematikoak eginda 59,9 euroko ekarpena litzateke batez beste erabiltzaile bakoitzeko, kontuan izanda 2008an 9.149 pertsona erabiltzaile daudela).

2008ari dagokionez, Barakaldoko eta Berrizko Udalen informazioa dugu, Bilbok urte horretan inolako daturik ez baitu eman:

ELZ-REN TITULARRAK DIREN ERABILTZAILEAK 2008				BILBAO	BARAKALDO	BERRIZ
ELZren titularrak diren pertsonen kopurua guztira				–	387	23
Sexua	Emakumeak			–	311	21
	Gizonak			–	76	2
Adina	65-74			–	39	4
	75-80			–	170	7
	81 eta gehiago			–	144	12
Autonomia maila	Mendekoak	MBB	I. maila	–	68	7
			II. maila	–	32	9
			III. maila	–	43	12
		Beste baremo bat		–	228	0
	Mendekoak ez direnak			–	16	4
Bizikidetzaz ingurunea ¹	Bakarrik bizi dira			–	%46,5	%30,4
	65< familiakoekin bizi dira			–	%26,9 ²	%30,4
	65> familiakoekin bizi dira			–	%18 ³	%39,1
	Hirugarrengoeekin bizi dira			–	%1,8 ⁴	0
	Bestelako egoerak			–	%0,5	0
Kuotak	Erabiltzaileak ordaintzen duen batez bestekoa			–	29,80	40

¹ Barakaldoko ELZko erabiltzaileen %6,2 gehitu da, horien bizikidetzaz ingurunekeo informaziorik ez dagoelako.

² Item horretan ezkontidearekin bizi direnak bakarrik sartzen dira.

³ Seme-alabekin bizi diren pertsonak sartzen dira, eta kuantitatiboki berretsi ez daitekeen arren seme-alaba hauek gehienetan 65 urtez azpikoak izaten dira.

⁴ Familiakoekin bizi direnak sartzen dira.

Dependentzia mailari dagokionez, Barakaldoko ELZ erabiltzen duen pertsona kopurua honela banatu da, ondorengo koadroan adierazten den bezala:

- 159 pertsona onuradun daude eta mendekotasuna aitortuta dute, ondoren azaltzen den mailaren arabera.
- 16 ez dira mendekotzat hartu MBBn.
- 228 pertsonekin ez du Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak mendekotasun baloraziorik egin, eskatu ez dutelako edo baloratzeko zain daudelako, baina ELZ ezartzen

zaie Barakaldoko udalerriko Etxez etxeko Laguntzaren Araudian jasotako "Zerbitzuan sartzeko lehentasun baremoa" ezartzen zaielako. Hor ezartzen da ELZn sartzeko lehentasun ordena.

BARAKALDOKO ELZ-REN TITULARRAK DIREN ERABILTZAILEAK				2008	
Autonomia maila	Mendekoak	MBB	III. Maila	2. Maila	29
				1. Maila	39
				Guztira	68
			II. Maila	2. Maila	15
				1. Maila	17
				Guztira	32
		I. Maila	2. Maila	15	
			1. Maila	28	
			Guztira	43	
		Autonomoak		16	
		Beste baremo bat		228	

Aipatu beharra dago Berrizko Udalean ELZ erabiltzen duten guztiek mendekotasuna aitortuta dutela (gehienetan mendekotasun handia), aldiz, Barakaldoko Udalean erabiltzaile askok oraindik ez du balorazio hori lortu. Horregatik da oraindik ere zerbitzua zehazteko eta eskaintzeko eskumena, hein handi batean, udalarena.

2) **Eskainitako zerbitzuaren ezaugarri** dagokienez (zerbitzu mota, arreta egun eta ordu kopurua, iraupena...):

ESKAINITAKO ZERBITZUA 2007		BILBAO	BARAKALDO	BERRIZ
Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren titularren kopurua		9.219	401	18
Etxe bakoitzean ELZren onuradunen batez bestekoa		-	-	1
Eskainitako laguntza mota	Soilik laguntza pertsonala	-	-	5
	Soilik etxeko beharrak	-	-	1
	Biak	-	-	12
ELZk astero eskainitako ordu kopuruen batez bestekoa		10.758	-	108
Aurreko urtearekin alderatuta igoserarik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		Bai	-	Bai
Astean erabiltzaile bakoitzari eskainitako arreta-ordu kopurua		3,40	-	6
Aurreko urtearekin alderatuta igoserarik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		Bai	-	Ez
Aurreko urtearekin alderatuta ELZn pertsona-laguntzaile gehiagorik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		Bai	-	Bai

ESKAINITAKO ZERBITZUA 2007		BILBAO	BARAKALDO	BERRIZ
Estalduarik aurreikusten al da (nahiz eta egoera berezietan izan) kasu hauetan? <u>Bai edo ez erantzun</u>	Larunbatak	Bai	–	Ez
	Igandeak	Bai	–	Ez
	Jaiegunak astean zehar	Bai	–	Ez
	Aste Santua eta eguberriak	Bai	–	Ez
	Etxeko laguntzailea oporretan dagoenean	Bai	–	Bai
	Etxeko laguntzailea ez dagoen beste egoeretan	Bai	–	Bai
Batez besteko itxaron-epea, ELZrako eskubidea onartzen denetik prestazioa jasotzen duen arte.		–	–	15
Erabiltzaile bakoitzeko zerbitzuaren batez besteko iraupena (hilabetetan)		–	–	– ¹
Zerbitzua eguneko zentro batekin osatzen duten ELZren titularren ehunekoa		–	–	3

¹ Zerbitzuaren batez besteko iraupenaren berri eman ez arren, erabiltzailea hil arte edo egoitzan sartu arte mantentzen dela adierazi dute.

Igorritako informazioarekin ezin da inolako kontrasterik egin udalen artean, ELZn astean eskainitako ordu kopurua izan ezik; izan ere, kalkulu matematikoa egiteko, Berrizen kasuan 18 erabiltzaileek astean eskainitako 108 kontuan hartuz gero, erabiltzaile bakoitzak zerbitzuan asteko batez beste 6 ordu adierazten baitu. Aldiz, Bilboko Udalaren datua ($10.758/9219=1,16$) kontraesanean dago erabiltzaile bakoitzeko asteko 3,40 orduekin.

Bestalde, interesgarria da kontrastatzea Bilboko Udalean estaldura erabatekoa dela zerbitzu-egunei dagokienez, aldiz, Berrizko Udalean lanegunetako ordezko estaldura bakarra etxeko laguntzailea ez dagoenean gertatzen da, oporretan delako, bajaran dagoelako edo ez dagoelako.

2008ko zerbitzuaren ezaugarriei dagokienez:

ESKAINITAKO ZERBITZUA 2008		BILBAO	BARAKALDO	BERRIZ
Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren titularren kopurua		–	387	23
Etxe bakoitzean ELZren onuradunen batez bestekoa		–	1,25	1
Eskainitako laguntza mota	Soilik laguntza pertsonala	–	–	10
	Soilik etxeko beharrak	–	–	0
	Biak	–	–	13
ELZk astero eskainitako ordu kopuruaren batez bestekoa		–	2.430,23	137
Aurreko urtearekin alderatuta igoserarik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		–	Bai	Bai

ESKAINITAKO ZERBITZUA 2008		BILBAO	BARAKALDO	BERRIZ
Astean erabiltzaile bakoitzari eskainitako arreta-ordu kopurua		–	10	6
Aurreko urtearekin alderatuta igoyerarik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		–	Bai	Ez
Aurreko urtearekin alderatuta ELZn pertsona-laguntzaile gehiagorik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		–	Ez	Bai
Estaldurarik aurreikusten al da (nahiz eta egoera berezietan izan) kasu hauetan? <u>Bai edo ez erantzun</u>	Larunbatak	–	Bai	Ez
	Igandeak	–	Bai	Ez
	Jaiegunak astean zehar	–	Bai	Ez
	Aste Santua eta eguberriak	–	Ez	Ez
	Etxeko laguntzailea oporretan dagoenean	–	Bai	Bai
	Etxeko laguntzailea ez dagoen beste egoeretan	–	Bai	Bai
Batez besteko itxaron-epea, ELZrako eskubidea onartzen denetik prestazioa jasotzen duen arte		–	–	15 ¹
Erabiltzaile bakoitzeko zerbitzuaren batez besteko iraupena (hilabetetan)		–	36	–
Zerbitzua eguneko zentro batekin osatzen duten ELZren titularren ehunekoa		–	18	3

¹ Eskaria egitetik prestazioa jaso arte 60 egun igarotzen dira, gutxi gorabehera.

Barakaldoko Udalak bere erantzunean adierazten duenez, erabiltzaileen %75 inguruk zerbitzua bakarrik jasotzen dute, eta %25ek berarekin bizi den pertsonaren batekin partekatzen du.

Udal horretako informazioan txosten honetan aztertutako gainerakoetan baino asteko askoz ordu gehiago aipatzen da batez beste. Dena dela, Barakaldoko ELZk zailtasun batzuk ditu erantzunean aipatzen denez: *“En la actualidad existe una lista de espera de 547 personas (cifra actualizada a 28 de enero de 2009) que han solicitado SAD. Se trata de personas que se encuentran en diversas situaciones, es decir: personas que tienen reconocimiento de grado y nivel de dependencia, personas que están en proceso de valoración y personas que no han solicitado valoración de dependencia.”* Eta gehitu du *“si bien la mayoría de las personas que se encuentran en lista de espera son Adinekoak, es necesario tener en cuenta que también están incluidas personas con discapacidad física o psíquica menores de 65 años.”*

3) Bizkaiko Lurralde Historikoan **zerbitzuak duen lurralde banaketari** dagokionez:

Gainerako Lurralde Historikoetan ez bezala, Bizkaian zerbitzuak duen lurralde banaketari buruzko informazio konparaturik ezin dugu eman; izan ere, aurrez esan bezala, Bizkaiko Foru

Aldundiak ez du horri buruzko informaziorik, beraz, beharrezkoa litzateke udalerrri bakoitzeko informazioa biltzea, 65 urtez gorako mendeko pertsonen estaldura maila ezagutzeko.

Geroago sakonago aztertuko dugunez, hau zailtasun nabarmena da, informazioa falta de-
nez EAEn adinekoen eskubideen bermatutako estaldura ulertzeko.

4) Mendekotasun Legea ezartzeari dagokionez:

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako informazio bakarra Mendekotasun Legea ezartzeari buruzkoa da:

MENDEKOTASUN LEGEAREN APLIKAZIOA 2008		BFA	
Banakako Arreta Programetan (BAP) ELZ araututako pertsonen kopurua guztira		1209 ¹	
Banakako Arreta Programen ondoren ELZ ematen zaien pertsonen kopurua guztira	I. maila	2. Maila	273
		1. Maila	412
	II. maila	2. Maila	196
		1. Maila	224
	III. maila	2. Maila	37
		1. Maila	67
ELZren arreta jaso duten pertsonen kopurua guztira, oraindik mendekotasun maila bete ez denean (edo zenean).		-	

¹ Gainera, Eguneroko Bizitzako Jardueren Baremoaren arabera, mendekoak ez diren pertsonen 11 espediente daude, baina beste baremazio bat erabilita, BOT, Bizkaiko Foru Aldundiak erabiltzen duena.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren erantzunean 2008an ELZ araututako 1.209 pertsonen datuak daude. Horietako gehienak mendekotasun maila txikikoak dira, Arabako datuekin kontrastatu egiten du honek, izan ere, azkeneko lurralde honetan BAP zerbitzua jarri zaien pertsonarik gehienak III. mailako mendekotasuna dutenak dira.

Bestalde, Barakaldoko eta Berrizko Udalek ere eskaini dituzte horri buruzko 2008ko datuak:

MENDEKOTASUN LEGEAREN APLIKAZIOA 2008		BILBAO	BARAKALDO	BERRIZ
Banakako Arreta Programetan (BAP) ELZ araututako pertsonen kopurua guztira		-	109	4
Banakako Arreta Programen ondoren ELZ ematen zaien pertsonen kopurua guztira	I. maila	-	43	1
	II. maila	-	32	1
	III. maila	-	68	2
ELZren arreta jaso duten pertsonen kopurua guztira, oraindik mendekotasun maila bete ez denean (edo zenean)		-	60	19

Informazioa eskatu genuenean, Udalek Legea ezartzeko dituzten zailtasunen berri ere izan nahi genuen, nola mendekotasuna aitortzeko prozesuan hala Legea bera baloratzera.

Erantzunetan bi Udalek diotenez, ez dute BAP egiteko prozesuan parte hartzen, baina eskatzailearen udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuen txostenak kontuan hartzen dituzte. Gizarte Ekintza Sailak ebazpena agindutakoan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 24ko 74/2007 Foru Dekretuaren arabera, ebazpen hori dagokion udalari jakinarazten zaio. Baina Barakaldoko Udalak dio ebazpen hori agindutakoan mendekotasuna baloratzeko foru agin-dua igortzen zaiela, BAPen zerrenda bat eta familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoak aitortzeari buruzko Foru Aldundiko datuetan sar daitezke; Berrizko Udalak, aldiz, ez du Foru Aldundiaren eta udalen artean koordinaziorako inolako prozedurarik adierazi.

Euren balorazioetan, bi Udalek diote Legearen ondorioak positiboak direla. Berrizen kasuan, arreta handiagoa dela uste dutelako eta zerbitzuak errazago proposatu daitezkeelako. Barakaldoko Udalak uste du Mendekotasun Legea indarrean sartuta ondorio hauek egon direla, besteak beste: zerbitzuen eta prestazioen eskariak gehitu egin dira, erabiltzaileek eta profesionalak zerbitzuagatiko interes handiagoa dute; itxaron-zerrenda hazi egin da; profesional gehiago behar dira. Euren esperientzia kontuan hartuta, Mendekotasun Legea garatzeko araudi bat egin eta onar dadin proposatzen dute.

5) **Finantzazio eta kudeaketa irizpideei** dagokienez:

Aurreko ataletan bezala, Barakaldoko eta Berrizko Udalen erantzuna besterik ez daukagu, Bilbok ez baititu erantzun informazio eskaeran egindako galderarik kualitatiboak.

Udal hauen informazioa honela laburtu daiteke:

- Erabiltzaileen beharrak estaltzeari dagokionez. Berrizko Udalaren ustez udalerriko ELZ beharrak estalita daude, Barakaldoko Udalean ez bezala, zerbitzu honetan sar-tzeko gaur egungo itxaron-zerrenda dela eta (547 pertsona). Bi udalerrietan mende-koei eta mendekotasunik ez dutenei eskaintzen zaie zerbitzua.
- Zerbitzuaren kudeaketa, kasurik gehienetan bezala, zeharkakoa da.
- ELZren finantzazioari dagokionez, bi kasuetan udal zerbitzua denez, udal aurrekon-tutik ordaintzen da nagusiki, baina Barakaldoko Udalaren esanetan, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza bat ematen die ELZ eskaintzeko, Mendekotasun Legearen ondorioz.
- Erabiltzaileen ekarpenei dagokienez, Barakaldok ez du daturik eskaini. Aldiz, Ber-rizek adierazi du erabiltzaileek hilean gutxienez 6 euro ematen dituztela, kontuan izanda gehieneko egiazko kostea orduko 19,87 euro dela.
- Zerbitzuaren orduko zenbatekoa kalkulatzeko baliabide ekonomikoak konputa daitezen famili unitatea zehaztu behar dela eta, Barakaldon honakoak hartzen dira

kontuan: zerbitzuaren titularra, ezkontidea edo izatezko bikotea, 18 urte arteko seme-alabak, horiek barne eta edozein egoeratan, edo 26 artekoak, horiek barne, etxean bizi eta langabezian badaude edo ikasten ari badira eta seme-alaba ezinduak, gutxienez %33ko ezintasun maila dutenak, etxe berean bizi eta famili unitatearen mende daudenak ekonomikoki. Berrizko Udalean zenbateko hori kalkulatzeko kontuan hartzen den famili unitatea erabiltzailerera eta bere ezkontidera mugatzen da.

- ELZ hobeto kudeatzeko, beharrezkoa litzateke udalen artean Foru Aldundiarekin ko-ordinazio hobea egotea eta bitartekoak hobeto hornituta egotea, Barakaldok tresna informatiko hobeen beharra adierazi du.

c) Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gainerako Lurralde Historikoetan bezala, txosten honetan aztertutako informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia-San Sebastián, Irun, Mutriku eta Tolosako (2009ko otsailaren 5ean jaso genuen azken honen informazioa, txostena idaztea ia amaituta genuen) udalek emandako datuei buruzkoa da.

Arabako Lurralde Historikoan gertatu bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak emandako erantzunean ELZri buruzko lurralde historiko osoko datuak datoz, zerbitzua lurraldean nola banatuta dagoen ageri da eta aplikazio orokorreko araudia ere bai, ondorioz, guztira informazio gehiago dugu.

Era berean, esan beharra dago jasotako informazioarekin egin daitekeen kontrastea, Bizkaiko Lurralde Historikoan ez bezala, 2007ko datuei dagokiela; izan ere, kontuan izanda txosten hau zer garaitan egiten den, oraindik ez baititugu 2008ko datu guztiak edo, Foru Aldundiaren kasuan, 2008ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitarteko datuak daude.

1) ELZko 65 urte edo gehiagoko erabiltzaileen egoera pertsonalei dagokienez:

Informazioa eskatu genuenean, Gipuzkoako lurralde osoko 65 urte edo gehiagoko pertsonen egoera ezagutu nahi genuen, mendekoak izan eta zerbitzua erabiltzen zutenak.

Emandako datuen arabera, txosten honetan esaten ari garen bezala, ELZ erabiltzen duen pertsonaren profila honakoa da: emakumea, 81 urtez gorakoa eta bakarrik bizi dena.

Igorritako informazioa koadro hauetan ordenatu dugu:

ELZ-REN TITULARRAK DIREN ERABILTZAILEAK 2007				DONOSTIA	IRUN	TOLOSA	MUTRIKU
ELZren titularrak diren pertsonen kopurua guztira				1.747	319	165	37
Sexua	Emakumeak			1.393	241	128	24
	Gizonak			354	78	37	13
Adina	65-74			155	–	19	2 ¹
	75-80			–	–	37	8
	81 eta gehiago			–	–	109	19
Autonomia maila ²	Mendekoak	MBB	I. maila	–	–	6	–
			II. maila	–	–	10	–
			III. maila	–	–	22	–
		Beste baremo bat		–	–	65	27
	Mendekoak ez direnak				804	–	62
Bizikidetzatzaingurunea ³	Bakarrik bizi dira			–	–	73	13
	65< familiakoekin bizi dira			–	–	57	6
	65> familiakoekin bizi dira			–	–	31	11
	Hirugarrenengoekin bizi dira			–	–	4	–
	Bestelako egoerak			–	–	–	7
Kuotak	Erabiltzaileak ordaintzen duen batez bestekoa			%11,9	3,44 €/orduan	523,28 €/urtean	81,50 €/hilean

¹ ELZk 65 urtez azpiko 8 pertsona ere artatzen ditu.

² Irungo Udalak dio, 2007an Mendekotasun Legeari buruzko daturik ez zuenez, mendeko pertsonak eta autonomoak bereizteko beste baremo bat erabiltzen zela. Datu hauek ditu: 145 mendeko pertsona eta 174 autonomo.

³ Irungo Udala gaur egun ELZ erabiltzen duten pertsonen bizikidetzatzaingurunea aztertzen ari da, baina oraindik ez du azterketa prest.

2008ko informazioan Foru Aldundiko datuak ere sartu ditugu:

ELZ-REN TITULARRAK DIREN ERABILTZAILEAK 2008				DONOSTIA	IRUN	TOLOSA	MUTRIKU ¹	ELZ ALDUNDIA ³
ELZren titularrak diren pertsonen kopurua guztira				–	325	149	40	3.481
Sexua	Emakumeak			–	248	115	25	2.638
	Gizonak			–	77	34	15	843
Adina	65-74			–	–	26	3	378
	75-80			–	–	30	11	731
	81 eta gehiago			–	–	93	18	2.372
Autonomia maila ²	Mendekoak	MBB	I. maila	–	–	16	7	1.324
			II. maila	–	–	31	9	868
			III. maila	–	–	35	12	1.280
		Beste baremo bat		–	–	15	2	9
	Mendekoak ez direnak				–	–	52	10

ELZ-REN TITULARRAK DIREN ERABILTZAILEAK 2008		DONOSTIA	IRUN	TOLOSA	MUTRIKU ¹	ELZ ALDUNDIA ³
Bizikidetzatzaingurunea	Bakarrik bizi dira	–	–	84	32,5	–
	65< familiakoekin bizi dira	–	–	37	17,5	–
	65> familiakoekin bizi dira	–	–	28	37,5	–
	65> familiakoekin bizi dira	–	–	0	–	–
	Bestelako egoerak	–	–	0	12,5	–
Kuotak	Erabiltzaileak ordaintzen duen batez bestekoa	–	3,39 €/orduan	43,60 €/hilean	109 €/hilean	63,12 €/hilean

¹ ELZk 65 urtez azpiko 8 pertsona ere artatzen ditu.

² Irungo Udalak dio, 2007an Mendekotasun Legeari buruzko daturik ez zuenez, mendeko pertsonak eta autonomoak bereizteko beste baremo bat erabiltzen zela. Datu hauek ditu: 145 mendeko pertsona eta 174 autonomo.

³ 2008ko urtarrilaren 1etik irailaren 30erako informazioa.

2008ko informazioari dagokionez, funtsezko bi alderdi azpimarratu behar dira: zerbitzua erabiltzen dutenen mendekotasun maila, lehenengo eta hirugarren mailako mendekoak nagusi dituen, eta erabiltzaileen ekarpenaren batez besteko zenbatekoa. Irungo Udalak emandako informazioarekin kalkulu matematikoa eginda (4,2 ordu astean x 4,3 aste hilean = 18.06 ordu/hilean x 3,39 €/orduan = 61, 2 €/hilean), udalen eta foru erakundearen arteko datua kontrastatu dezakegu. Azpimarragarria da datua handiagoa izatea udal txiki batean, Mutriku, udal ertain batean, Irunen eta Tolosan, edo Foru Aldundian baino.

2) Eskainitako zerbitzuaren ezaugarriak dagokienez (zerbitzu mota, arreta egun eta ordu kopurua, iraupena...):

2007arekin alderatuz gero, jarraian azaltzen den bezala, esan beharra dago emandako informazioaren arabera ELZren guztirako orduak gehitu egin direla, Tolosako Udalean izan ezik. Dena dela, Donostian hazkunde horrek ez du erabiltzaileen arretan ordu kopurua gehitu, baizik eta erabiltzaile kopurua gehitu da.

Era berean, aipatu beharra dago Irun, Tolosa eta Mutrikuko udalen zerbitzuaren estaldura mailan zerbitzuko gorabehera guztiak sartzen direla, Donostiakoan ez bezala.

ESKAINITAKO ZERBITZUA 2007		DONOSTIA	IRUN	TOLOSA	MUTRIKU
Eteze etxeko laguntza zerbitzuaren titularren kopurua.		1.747	319	165 ²	37
Etxe bakoitzean ELZren onuradunen batez bestekoa		–	–	1,20	1,43
Eskainitako laguntza mota	Soilik laguntza pertsonala		94	34	16
	Soilik etxeko beharrak		172	38	11
	Biak		53	66	10
ELZk astero eskainitako ordu kopuruaren batez bestekoa		7.916,27	1.338	890,98	115,60
Aurreko urtearekin alderatuta igoerarik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		Bai	Bai	Ez	Bai

ESKAINITAKO ZERBITZUA 2007		DONOSTIA	IRUN	TOLOSA	MUTRIKU
Astean erabiltzaile bakoitzari eskainitako arreta-ordu kopurua		4,72	4,2	4,6	3,12
Aurreko urtearekin alderatuta igoerarik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		Ez	Bai	Ez	Bai
Aurreko urtearekin alderatuta ELZn pertsona-laguntzaile gehiagorik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		–	Bai	Ez	Ez
Estalduarik aurreikusten al da (nahiz eta egoera berezietan izan) kasu hauetan? <u>Bai edo ez erantzun</u>	Larunbatak	Bai	Bai	Bai	Bai
	Igandeak	Ez	Bai	Bai	Bai
	Jaiegunak astean zehar	Ez	Bai	Bai	Bai
	Aste Santua eta eguberriak	Ez	Bai	Bai	Bai
	Etxeko laguntzailea oporretan dagoenean	Bai	Bai	Bai	Bai
	Etxeko laguntzailea ez dagoen beste egoeretan	Bai	Bai	Bai	Bai
Batez besteko itxaron-epea, ELZrako eskubidea onartzen denetik prestazioa jasotzen duen arte.		– ¹	3,5 egun	– ³	1
Erabiltzaile bakoitzeko zerbitzuaren batez besteko iraupena (hilabetetan)		–	–	– ⁴	8,65
Zerbitzua eguneko zentro batekin osatzen duten ELZren titularren ehunekoa		–		%1	0

¹ Ez dute datu zehatz hori. Eskaria azkar eginez gero eta dokumentazio guztia sartu, batez besteko denbora 2 astegun izango litzatekeela uste dute.

² Zerbitzua 135 etxetan eskaintzen da, guztira 165 erabiltzaile ditu.

³ Zerbitzua eskubidea aitortzean hasten da.

⁴ Ia kasu guztietan hil arte edo egoitzan sartu arte.

2008ko koadroan Foru Aldundiak emandako datuak sartu ditugu eta ondorengo koadro hauetako informazioa osatzen du:

ESKAINITAKO ZERBITZUA 2008		DONOSTIA	IRUN	TOLOSA	MUTRIKU	ELZ ALDUNDIA ¹
Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren titularren kopurua.		–	325	149 ²	40	3.481
Etxe bakoitzean ELZren onuradunen batez bestekoa		–	–	1,14	1,48	–
Eskainitako laguntza mota	Soilik laguntza pertsonala	–	103	35	14	–
	Soilik etxeko beharrak	–	164	34	14	–
	Biak	–	58	62	12	–
ELZk astero eskainitako ordu kopuruen batez bestekoa		–	1.392	856,51	137,94	–

ESKAINITAKO ZERBITZUA 2008		DONOSTIA	IRUN	TOLOSA	MUTRIKU	ELZ ALDUNDIA ¹
Aurreko urtearekin alderatuta igoerarik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		–	Bai	Ez	Bai	–
Astean erabiltzaile bakoitzari eskainitako arreta-ordu kopurua			4,2	4,8	3,45	6,19
Aurreko urtearekin alderatuta igoerarik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		–	Bai	Ez	Bai	–
Aurreko urtearekin alderatuta ELZn pertsona-laguntzaile gehiagorik egon al da? <u>Bai edo ez erantzun</u>		–	Bai	Ez	Bai	–
Estaldurarik aurreikusten al da (nahiz eta egoera berezietan izan) kasu hauetan? <u>Bai edo ez erantzun</u>	Larunbatak	Bai	Bai	Bai	Bai	–
	Igandeak	Bai	Bai	Bai	Bai	–
	Jaiegunak astean zehar	Bai	Bai	Bai	Bai	–
	Aste Santua eta eguberriak	Bai	Bai	Bai	Bai	–
	Etxeko laguntzailea oporretan dagoenean	Bai	Bai	Bai	Bai	–
	Etxeko laguntzailea ez dagoen beste egoeretan	Bai	Bai	Bai	Bai	–
Batez besteko itxaron-epea, ELZrako eskubidea onartzen denetik prestazioa jasotzen duen arte.		–	0,5	0 ³	1	–
Erabiltzaile bakoitzeko zerbitzuaren batez besteko iraupena (hilabetetan)		–	–	– ⁴	8,55	106
Zerbitzua eguneko zentro batekin osatzen duten ELZren titularren ehunekoa		–	–	%3	0,025	–

¹ 2008ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitarteko informazioa.

² Zerbitzua 135 etxetan eskaintzen da, 165 erabiltzaile ditu guztira.

³ Zerbitzua eskubidea aitortzean hasten da.

⁴ la kasu guztietan hil arte edo egoitzan sartu arte.

Datu esanguratsua da Donostiako Udalak bere estaldura maila hazi izana aurreko urtearekiko, eta zerbitzua eskaintzen du asteburuetan, Aste Santuan eta Eguberrietan ere. Bere erantzunean aipatzen duenez, azken urteetako joera da, Mendekotasun Legea indarrean sartu izanaren ondorioa eta ELZren osoko prestazioan ordu gehiago sartzearen ondorioa.

Emandako datuekin kontraesankorra da intentsitate-maila (erabiltzaile bakoitzeko arreta ordu kopurua) Foru Aldundiak emandako datuen arabera 6,19 izatea batez beste astean eta, aldiz, informazioa eskatutako Udaletako batean ere ez lortzea maila hori.

Dena dela, Foru Aldundiak erabiltzaileari astean eskainitako batez besteko ordu kopuruari buruz emandako informazioan koadro hau sartu du

ASTEKO ORDUEN EBOLUZIOA

Urtea	Artatutako mendekoak	Mendekoei eskainitako orduak	Mendeko artatu bakoitzeko batez besteko orduak	Asteko batez besteko orduak
2006	3.071	764.896,42	249,07	4,79
2007	3.334	830.455,21	249,09	4,79
2008	3.481	698.071,97	200,54	5,14
2006*	1.980	617.024,42	311,63	5,99
2007*	2.106	654.502,20	310,78	5,98
2008*	2.464	594.402,57	241,23	6,19

¹ Izartxoaren duten ilaretan ez dira sartu urtea amaitu aurretik baja hartu eta urtea hasi ondoren alta hartutako pertsonak, ezta orduak gabeko pertsonak ere.

Praktikan kontuan izan behar da ELZko erabiltzaileen portzentaje batek bakarrik izaten duela ELZ hori urtebeteko aldi osoan, batzuetan altak zenbait hilabete igaro ondoren izaten baitira edo denbora baino lehen amaitzen baita. Horregatik, eskainitako emaitzek bi errealitate kontabilizatzen dituzte: erabiltzaile kopuru osoa, arreta denbora dena delakoa izanda, eta zerbitzuan urtebete osatu dutenak; azken urteetan ordu horien gorakada egon dela ikusten da.

3) Gipuzkoako Lurralde Historikoan **zerbitzuak duen lurralde banaketari** dagokionez:

Atal honen hasieran esan bezala, Gipuzkoako Foru Aldundia da 65 urte eta gehiagoko mendekoen arretarako eskumena duena. Horregatik, ondorengo koadro honetako datuetan egoera horretan dauden pertsonak eta horietatik ELZ erabiltzen dutenen portzentajea dago. Datu hauek eta Foru Aldundiak berak 2007an eskainitako datuak kontrastatuz gero, ikusiko dugu ELZ erabiltzen duten mendekoen kopuruak apur bat gora egin duela (3.223 pertsona 2007an).

ELZren LURRALDEKO BANAKETA 2008¹

ESKUALDEA	ERABILTZAILE KOPURUA	> 65 URTEKO PERTSONAK	ERABILTZAILEEN %
BIDASOA	276	13.059	%2,11
DEBABARRENA	223	11.532	%1,93
DEBAGOIENA	327	11.807	%2,77
DONOSTIALDEA	1.591	60.548	%2,63
GOIERRI	419	12.626	%3,32
TOLOSALDEA	282	8.032	%3,51
UROLA KOSTA	363	11.374	%3,19
GUZTIRA	3.481	128.978	%2,70

¹ 2008ko urtarrilaren 1etik irailaren 30erako informazioa.

4) Mendekotasun Legea ezartzeari dagokionez:

Mendekotasun Legea ezartzeko eskumena Foru Aldundiak du, eta 2008ko irailaren 30ean datu hauek ditu:

MENDEKOTASUN LEGEAREN APLIKAZIOA 2008		GFA
Banakako Arreta Programetan (BAP) ELZ araututako pertsonen kopurua guztira		–
Banakako Arreta Programen ondoren ELZ ematen zaien pertsonen kopurua guztira	I. maila	–
	II. maila	–
	III. maila	–
ELZren arreta jaso duten pertsonen kopurua guztira, oraindik mendekotasun maila bete ez denean (edo zenean).		1.818

Foru erakundeak bere erantzunean adierazi duenez, BAP ez da egiten ari Mendekotasun Legean aurreikusi bezala, baina ez du bere jokaerari buruzko beste daturik gehitu.

Udalek prozedura horren inguruan egindako balorazioari dagokionez, honakoa aipatu beharra dago:

- Mendekotasun Legean aurreikusitako Banakako Arreta Programa ordezkatzeko duen prozedura foru erakundearen eskumena da. Bertan Foru Aldundiak adierazten ditu pertsona horrek zer zerbitzu eta prestaziotarako eskubidea izango lukeen, bere mendekotasun maila kontuan izanda.
- Behin egindakoa, udaletara igortzen da eta horko oinarrizko gizarte zerbitzuek bideratzen dituzte onuraduna eta bere familia, aukeratu beharreko zerbitzura.
- Zeregin hau errazteko, Foru Aldundiak aplikazio informatiko bat sortu du eta Gipuzkoako udal guztiak sar daitezke aplikazio horretan. Donostiaren kasuan ez da aplikazio hori erabiltzen, eta hiruhileko bakoitzaren amaieran foru erakundeari igortzen dizkio datu guztiak, datu-basean sartzeko.
- Orokorrean Mendekotasun Legea indarrean sartzea modu positiboan baloratu dute, mendeko pertsonen baliabide eta prestazioetarako eskubidea dutela aitortzen baitu horrek, baita etxeko laguntza zerbitzurako eskubidea ere.
- Dena dela, nahiz Mutrikuk nahiz Tolosak adierazi dute ez dagoela Foru Aldundiarekin koordinaziorako mekanismorik eta Tolosako Udalak dio: *“El SAD lo gestiona el ayuntamiento y es cofinanciado por ambas instituciones y las personas usuarias del servicio. La coordinación es necesaria en este sentido, y también en la correspondiente valoración BVD, que determina si la persona es o no dependiente y en consecuencia quién financia el déficit entre el precio público y la aportación de las personas usuarias. La intensidad del servicio, seguimiento... se determina y realiza desde el ayuntamiento.”*

5) **Finantzio eta kudeaketa irizpideei** dagokienez:

Gipuzkoako Lurralde Historikoan, jakinda lankidetzarako akordio-marko bat dagoela Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) artean, akordio horren aplikazioari buruzko balorazioa ezagutzeko eskatu da informazioa, batez ere, nola udalen ikuspegitik hala Foru Aldundiaren ikuspegitik.

Gaur egun, Foru Aldundiak adierazi duenez, 2005-2007 indarraldia duen akordioa 2009ko abendura arte luzatu da, aldaketa batzuk egon dira eta adierazitako ordu kopurua igo egin da. Foru Aldundiak uste du akordio horri esker aurreko egoera hobetu egin dela eta erakunde-gatazkak konpondu direla, zerbitzua eskaintzerakoan homogeneizazio handiagoa lortuta. Hala ere, honakoa diote: *"...aplikatu baitira, batetik, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta laguntza sustatzeko 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legea, eta bestetik, argitaratu berri den Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea, egoera nabarmen aldatu da; horregatik, beharrezkoa da hitzarmen hori eguneratzea, eta, aldi berean, urratsak egitea zerbitzuaren arauketa askoz garbiago batera hurbiltzeko (zerbitzu kartak, Plan Estrategikoa, Gizarte Zerbitzuen Mapa, finantza doikuntza, eta oinarrizko bi legeen arteko lotura).*

Akordio-markoan 86 hitzarmen partikular daude (Gipuzkoako 88 hitzarmenetatik) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen artean, Aiako eta Amezketako udalekin izan ezik.

Akordioen baldintzei dagokienez, Foru Aldundiak dio 2008rako 17,73 euro/orduko ezarri dela. Adierazi du udalik gehienek (57) prezio hori baino txikiagoko kostea dutela, beraz, ez daukate inolako baliabiderik ekarri beharrik. Beste 14 udalek transferitutako zenbatekoaren kostu berdina dute, baina 15 udal daude Foru Aldundiaren zenbatekoa baino kostu handiagoarekin, beraz, hori beraien aurrekontutik hartu behar dute. Zentzu horretan, Irun eta Tolosako udalek aurrekontu defizita dute, mendeko pertsonen arretaren zati bat artatu beharra baitaude.

Horri buruz adierazi da Mendekotasun Legea indarrean sartu zenetik mendekotasuna duten pertsonen zerbitzuaren kostea Foru Aldundiak transferitu egiten duela, eta udal bakoitzak bere gain hartzen duela pertsona autonomoen zerbitzuaren kostea. Donostiako Udalak ELZko aurrekontuaren %40 autonomoei izendatzen die; Irungoak, %2,08 eta Tolosakoak ELZko aurrekontuaren %0,22.

Zerbitzu hau diruz laguntzeko eskura dituzten baliabideei dagokienez, Foru Aldundiak adierazi du 2008rako aurreikusitako aurrekontua 22.207.304 eurokoa izan zela, eta Legebiltzarreko eztabaidan 9 milioi euro sartu zirela. Igorritako informazioaren arabera, osoko zenbateko hori ez da burutu, izan ere, aurrekontuetan sartutako 1.602.944 orduetatik 947.194 eskaini dira (irailaren 30eko datuak). 2008 amaieran burutzapena 13.422.556 ordu/urtean izatea espero da eta horrek %12ko hazkunde esan nahiko luke 2007arekin alderatuz gero. Adierazi du, halaber, ez dakiela hazkunde hori profesionalen zenbat plazatan materializatu den.

Erabiltzaileen ekarpenari dagokionez, hitzarmen partikularra sinatu den udaletan Gipuzkoan ELZren araudi bateratuko II. Eranskina ezarriko da, eta hor ezartzen da:

- Bizikidetzta-unitatea ohiko etxebizitzan bizi direnena izango da, non eta prestazioa ez den arreta pertsonalera mugatzen, onuraduna bakarrik kontuan hartzen denera.
- Onuradunaren/onuradunen gaitasun ekonomikoa kalkulatzeko, bere errenta, ondarea eta pertsona kopurua hartzen da kontuan.
- Dena dela, ekarpenik txikiena da %1,5 kostua/orduko. Gehieneko ekarpena %100 izan daiteke. Hala ere, aldi bereko erabilera duen beste zerbitzu batean ordaindutako kopuruak kendu egiten dira (pertsona autonomoentzako ostatu alternatiboak, eguneko zentroak edo beste zerbitzu batzuk).

Donostiako Udalak egungo gutxieneko ekarpena 0 euroan dauka, udal araudiaren mende dauden pertsonentzako, horrek arautzen baitzuen aurrez etxeko laguntza zerbitzua, eta gehiengoa 17,73 euro (20,45 jaiegunetan), hau da, zerbitzuaren %100.

Irungo eta Mutrikuko udalen gutxieneko ekarpena 0,26 euro/orduko da eta gehiengoa 17,73.

Tolosako udalaren 2008ko gutxieneko ekarpena 0 euro da eta gehiengoa 15,43.

- ELZren kudeaketa zeharkakoa da, enpresa pribatua kontratatuta egiten da.

Donostiako Udalaren kasuan, eta udal gehienetan, esan beharra dago etxeko laguntza erregulatzeko udal araudi bat duela eta hor ezartzen da erabiltzaileak zehazteko zer araudi ezarri daitekeen, zerbitzuan sartzeko zer prozedura dagoen eta zer erregimen ekonomikoa duen, besteak beste.

ELZren kudeaketa hobetzeko, udalek honakoak proposatzen dituzte beren erantzunetan:

- Zuzeneko kudeaketarantz aldatu.
- Erabiltzaileen ekarpenak kalkulatzeko formula aldatu, gehieneko prezio publikoa ezarrita, zerbitzura sarbide unibertsalagoa egoteko, izan ere, gaur egun onuradun asko ez dira zerbitzuan sartzeko gastu ekonomikoa oso handia delako. Berez legeak aitortutako eskubidea denez, pertsonaren gaitasun ekonomikoa ez luke zehaztu behar zerbitzura sartzea, baizik eta mendekotasun egoerak eta bere eskubideak betetzeko erantzun egokia emateko beharrak.

Tolosako Udalak honi buruz dio *“el baremo para el cálculo de la aportación de la persona usuaria ha quedado desfasado con respecto a los recursos económicos de buena parte de la población, entendiendo que ‘castiga’ a las personas que durante toda su vida han ahorrado a pesar de contar con escasos recursos económicos. Así mismo, el patrimonio máximo a partir del cual hay que pagar la totalidad del precio público es muy bajo (35.000 euros por persona usuaria) y el precio público supera considerablemente al precio de los servicios privados. Todo ello supone que las*

personas, a pesar de su dependencia, no acepten el servicio público y contraten servicios privados de menor calidad, favoreciendo la economía sumergida."

- ELZn beste mota bateko laguntzak sartzeko aukera kontuan hartu, arreta pertsonalaz edo etxeko beharrez harantzagokoa, lagun egitea, adibidez.

Jasotako informazioa laburtu eta islatu ondoren, ohar eta hausnarketa batzuk egitea komeni da Arartekoaren erakundeari dagokion eskubideen bermearen ikuspegitik:

- Arartekoak *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak* txostenean egindako gomendioen jarraipenari dagokionez:
 - Beharrezkoa da **etxeko laguntza zerbitzuaren autonomia mailako araudia**, lortu beharreko arreta mailak ezarri behar dira, zerbitzuetara sartzeko berdintasuna bermatu ahal izateko. Tokiko mailari dagokionez, udalek etxeko laguntza zerbitzua arautzen duten araudia dute, baina Mendekotasun Legea indarrean sartuta eta duela gutxi Gizarte Zerbitzuen Legea onartuta, berariazko araudia behar da eta irismen handiagokoa.
 - **Arautzeko, kudeatzeko eta finantzatzeko neurriak hartu** behar dira **lurralde batetik bestera dauden aldeak gutxitzeko**. Zentzu horretan modu positiboan baloratzen dugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta EUDLEn artean sinatutako akordio-markoa. Hala ere, aurrez emandako datuetatik ondorioztatzen da lurralde batetik bestera alde handiak daudela, besteak beste, zerbitzuan sartzeko baldintzen artean, prezio publikoa finkatzean, erabiltzaileak beregain hartutako zerbitzuaren zenbatekoa kontatzeko famili unitatea zehaztean, erabiltzaile bakoitzeko batez besteko ordu kopuruan, asteburuetan, oporretan edo etxeko laguntza ez dagoen aldietan zerbitzua eskaintzean...

Txosten berezian esan genuen bezala, Araba bi arreta sare egotearen eta Bizkaian zerbitzua erabat udalen eskumena izatearen ondorioz, lurralde horietan alde nabarmenak eragiten ditu.

- **Etxeko laguntza zerbitzuei buruzko informazioa galtzen jarraitzen da**. Mendekotasun Legea indarrean sartuta erabiltzaileei buruzko informazioa zentralizatuta edukitzeko aukera dagoen arren arreta zerbitzuei, mendekotasun mailari eta horien esku jarritako baliabideei dagokienez, aurrez emandako datuetan ikus dezakegunez gaian eskumenak dituen foru erakunde bakoitzak emandako informazio maila mota askotakoa da. Egia esan, beharrezkoa da udal bakoitzak emandako informaziora banaka jotzea, erabiltzaileen informazioa izateko (adina, sexua, mendekotasun maila, familia-ingurunea, ordaindutako kuotak...).

Hori gabezia handia da erabiltzaileen eskubideak berdin bermatzeko, dena delako udalerrian bizita ere.

Desoreka horiek ekiditeko, ezinbestekoa da mendekotasun sisteman eta horren araudi mailako eta maila funtzionaleko garapenean sakontzen jarraitzea.

- Beharrezkoa da **estaldura maila egokia bermatzeko behar diren neurriak hartzea**, gure inguruko beste herrialde batzuen antzekoa, nola zerbitzuaren estaldurari dagokionez hala zerbitzuaren intentsitateari dagokionez. Lurralde eta udal guztietan gertatzen ez den arren, aztertutako informazioarekin ondorioztatzen denez, estaldura tasa igotzeak (hala gertatzen da Arabako eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan, ez daukagu Bizkaiko daturik) ez du beti esan nahi zerbitzuaren intentsitatea modu paraleloan hazten denik, hau da, erabiltzaile bakoitzeko arreta ordu kopurua hazten denik.

Argi dago 65 urtez gorako populazioak gora egin duela eta zerbitzua gehiago eskaintzen zaiela 81 urtez gorakoei, adin horretan arreta pertsonalaren eta etxeko arretaren beharraz gain, isolamendu handiagoa egoten baita eta gertuagotik egin behar izaten da lagun. Aztertutako datuekin baieztatu dezakegu EAEn artatutako pertsona kopuruak gora egiten duela, gizartearen eskariari erantzuten zaiola horrela, baina lurralde eta udalerrri guztietan hazkunde horrek ez duela esan nahi erabiltzaileari eskaintzen zaion ordu kopuruan gora egin denik.

Berariazko txostenean gomendatzen zen erabiltzaileko eta urteko 300 ordu inguruko zerbitzua eskaintzea. Datuak aztertu ondoren ikusi ahal denez, zerbitzuetako batzuk baino ez dira gerturatzen edo ez dute lortzen maila hori.

– *Mendekotasun Legea indarrean sartzearen ondoriozko gai* dagokienez:

- Mendekotasun Legearen **ondorio positiboa da mendeko pertsonen Legean sartutako prestazioak eta zerbitzuak izateko eskubidea aitortzen zaiela** eta horien artean dago etxeko laguntza zerbitzua. Zalantzarik gabe arau horrek sakondu egiten du zerbitzua eskubide unibertsala dela, mendeko pertsonen behar zehatzetan oinarritua eta, beraz, hausnarketa sakona eskatzen du zerbitzua eskaintzeko moduari, sartzeko baldintzei eta erabiltzaileen eskubideei buruz, erabiltzaile diren heinean.

Zerbitzua izateko eskubidea aitortzeak ondorioak izan behar ditu, besteak beste, gai praktikoetan, hala nola, finantzazio irizpideak zehaztean eta erabiltzaileen ordainketan. Horri dagokionez, tokiko erakundeen balorazioak interesgarriak dira, baita zerbitzurako sarbidea unibertsalizatzeko proposamenak ere, egoera ekonomiko desberdinetatik harantzago

- Bestalde, ohartzen gara eskumendun administrazioek nolako ahalegina egin duten Legea zuzen ezartzeko, eta oraindik beharrezkoa da **eskubideak hobeto bermatzeko** alderdi haietan sakontzea. Zentzu horretan, aurrez esan dugun bezala, beharrezkoa da kudeaketarako arau eta neurri bateratuak hartzea, aurrez adierazitako lurralde arteko desorekak amaitzeko eta Mendekotasunaren Legea

ezartzeak agerian uzten dituen desorekak ere amaitzeko. Beste alderdi batzuen artean aipatu beharrekoak dira: lurralde desberdinetan Legea ezartzeko prozeduren arteko aldeak, ELZ Mendekotasun Legeko beste zerbitzu eta prestazio batzuekin bateragarri egitea, tokiko erakundeen mota askotako parte hartzea prozesu horretan, foru erakundeen eta tokiko erakundeen arteko koordinazio-tresnarik eza edo behar adinakorik ez egotea, baloratzeko baremo bakarrak ezartzea izatezko egoera berdinentzat emaitza desberdinak ekiditeko...

- Tokiko erakundeen erantzunetatik ondorioztatzen denez, Foru Aldundiekin **koordinaziorako tresna eraginkorrak erabiltzeko** beharra dago, tokiko erakundeek parte hartze handiagoa izateko mendekotasun prozedurako faseetan.

* * *

Aurreko jarraipenaz gain, 2008an adinekoen eskubideak defendatzeko lanean jarraitu dugu, eskubideak bermatzeko eredian sakonduaz, talde horren bizi-kalitatea babesteko.

Horretarako, urte bukaeran amaitu zen Arartekoak beka eman eta Matía Fundazioko Inge-ma taldeari esleitu zitzaion lana, *Adinekoen eskubideak eta tratu desegokiaren prebentzioa*, 2009 hasieran argitaratuko dena.

Era berean, nazioarteko eta estatuko zenbat ekitalditan hartu dugu parte, ekitaldi horien guztien oinarrian adinekoen eskubideak babestea zegoen; gainera, talde honekin zerikusia duten kexak kudeatuko ditugu egunero eta urtean zehar sortutako zenbait gatazkatan parte hartu dugu, egoiliarren eskubideekin zerikusi zuzena zutelako. Txosten honetako gizarte ekintza atalean daude laburtuta.

II.3

BERARIAZKO ARRETA ADINGABEEI

3. BERARIAZKO ARRETA ADINGABEEI

Adingabeak eskubideak dituzten subjektuak dira, baina, horrez gain, dituzten ezaugarriak direla eta, egoera bereziki ahulean dagoen sektorea osatzen dute eta bermatu egin behar diren berariazko eskubideak dituzte. Horregatik hartzen du Arartekoak talde hau berariazko eta lehentasunezko arreta behar duen talde gisa.

Ararteko erakundeak biztanleriaren sektore honen eskubideak babesteari eskaintzen dion lehentasunezko arreta, aurten ere, hainbat jardun ildotan zehaztu da. Nagusiki, honakoetan:

- I. Egoera bereziki ahulean edo egoera ahulagoan dauden adingabe talde batzuei buruzko problematika zehatzaren analisia eta jarraipena egin da.
- II. Kexak ebatzi dira.
- III. Bereziki larriak diren edo gizartean eragina duten egoeretan ofizioz jardun da.
- IV. Biztanleriaren sektore honetan diharduten gizarte eragile, elkarte edo erakundeekin lankidetzan aritu gara.
- V. Beren eskubideen kultura zabaldu da.

Atal honetan, adingabeen eskubideak defendatzeari dagokionez 2008an burutu diren jarduera nagusiak labur-labur jasoko ditugu, goian aipatutako jardun ildoetako bakoitza bereizita. Gainera, aurreko urteetan egin diren eta lege edo arau bidez garatu behar ziren gomendioetako batzuk ekarri dira gogora, izandako aurrerapenak eta dauden gabeziak aipatu dira. Azkenik, laburpen gisa, aurten garatutako jarduerekin bat etorri bereziki kezkarriak diren eta hobetu egin behar diren hiru egoera edo problematika nabarmendu dira.

Atal hau luzea denez, epigrafe asko eta aztertutako sektore ugari dituen gero, jarraian aurkibide modukoa egin dugu, adingabeei berariazko arreta emateari eskainitako kapitulu honetan informazioa errazago bilatu ahal izateko:

- I. Egoera bereziki ahulean dauden sektoreen problematikaren analisia eta jarraipena.
 - 1) Familiaren babesik gabeko haurrak eta nerabeak
 - 2) Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak
 - 3) Adingabe lege-hausleak
 - 4) Sasoikako langileen seme-alabak
 - 5) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak
 - 6) Buru osasuneko arazoak dituzten haurrak edo nerabeak
 - 7) Eskolako tratu txarreko edo jazarpeneko egoerak
 - 8) Famili biltokiak
 - 9) Beste egoera ahul batzuk
- II. Kexak.
- III. Gertakari edo egoera bereziki larrien aurrean garatutako ofiziozko jarduerak.

- IV. Gizarte eragileekiko lankidetzeta eta gizarte sentsibilizazioa.
- V. Haurren eta haurtzaroko eskubideen kultura zabaltzea.
- VI. Beteta edo betetzeko dauden arauzko gomendioak.
- VII. Azken urteotan izan diren egoerarik problematikoenak edo kezagarrienak.

I. EGOERA BEREZIKI AHULEAN DAUDEN SEKTOREEN PROBLEMATIKAREN ANALISIA ETA JARRAIPENA

Adingabeen multzoaren barruan, orobat, beren eskubideak arrisku larrian dituzten sektoreak ere badaude. Ararteko erakundeak lehentasunezko arreta eskaintzen die egoera ahulean dauden edo premia bereziak dituzten haur eta nerabe talde horiei, funtsean, lan monografikoak eta ezohizko txostenak prestatuta eta horien inguruko jarraipena eginda. Horrela, aurren, jarraipenak honako zortzi sektore hauetan jarri du arreta (edo horiek hartu ditu kon-tuan):

- 1) Babesik gabeko haurrak eta nerabeak (babes sistemak)
- 2) Bakarrik dauden adingabe atzerritarrek
- 3) Adingabe lege-hausleak (epailearen neurriak bete behar dituztenak)
- 4) Sasoikako langileen seme-alabak (zenbait egoeratan eskolatu gabe geratzen dira)
- 5) Hezkuntza-premia bereziak edo zehatzak dituzten ikasleak (premia horiek ezgaitasunen baten ondorioa izan daitezke, baina baita jatorri, etnia edo egoera sozioekonomikoaren ondorioa ere)
- 6) Buru osasuneko arazoak dituzten haurrak eta nerabeak
- 7) Eskolako tratu txarreko edo jazarpeneko egoerak
- 8) Famili biltokiak

Aipatutako zortzi sektore horietan ez ezik, egoera ahulean dauden beste sektore batzuetan ere burutu dira zenbait jarduera eta ekimen. Horien artean, honakoak: adingabe atzerritarren eskolatzea, ijitoak, teknologia berriak erabiltzeak adingabeentzat izan dezakeen arriskua, gehiengoak ez bezalako joera sexuala duten nerabeak, arazoak sortzen dituzten droga-konsumoak... Hemen, berariazko azpiatalean bilduko ditugu (9).

Ikusi ahal izango den bezala, ezinezkoa izan da adierazitako sektore guztietan jarraipena maila berean egitea. Kasu batzuetan (adibidez, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei dago-kienez), zentroetara hainbat bisita egin dira, baita ofiziozko hainbat jarduera ere; beste kasu batzuetan, ordea, administrazio eskudunei informazio eskaerak bidaltzera, bisita zehatzak egitera edo ofiziozko jarduerak garatzera mugatu behar izan dugu.

1) Familiaren babesik gabeko haurrak eta nerabeak

Ararteko erakundeak bere garaian *Babesik gabe dauden haur eta nerabeen laguntza-zerbitzari* buruzko ezohizko txostena egin zuen. Eta, txostenaren amaieran, 42 gomendio zehatz proposatu ziren aztertutako kontuetako askoren gainean:

- adingabeen babesari dagokion esparru juridikoa eta eskumenen banaketa;
- zerbitzu sarean lan egiten duten profesionalak;
- banakako premiei erantzuteko programak;
- besteak beste, arazoak detektatzeko, erabakiak hartzeko, parte hartzeko eta berrikusteko prozedurak;
- egoitza-zerbitzuen antolaketa eta funtzionamendua;
- zerbitzu horien kontrola eta ebaluazioa...

Bai txostenean bertan bai ondorengo jardueretan, hobetu daitezkeen alderdiak edo lehen-tasunezkoztat jotzen diren premiak nabarmentzerakoan, erakunde honek ondorengoak azpimarratu ditu:

- araudi komuna behar da gure autonomia-erkidegoan, arretarik gabeko adingabeen funtsezko kontuak araupetzeko;
- ahalik eta erantzun desberdin gehien behar da (familia-harrera, larrialdietarako zentroak, eguneko zentroak...);
- erakundeen erantzunetan alde handiak ikusi dira lurralde historikoen artean;
- babesik gabeko egoerak antzemateko mekanismoak hobetu behar dira;
- oinarrizko gizarte zerbitzuen, hezitzaile adituen eta gure autonomia-erkidegoko beste zerbitzu batzuen arteko harremana eta koordinazioa sustatu behar da;
- irteera, jatorrizko esparruko gizarteratze edo autonomiako programak egin behar dira;
- haur eta nerabeek eta beren familiek parte hartzeko mekanismoak bultzatu behar dira;
- zerbitzuen ebaluazio kualitatiboa eta aldizkako kontrola egin behar dira.

Txostena aurkeztu zenetik (1997an), erakunde honek egoeraren jarraipena egin du, bereziki babesgabetasun egoerena, ekimen desberdinen bitartez: ofiziozko espedienteak sail eta erakunde desberdinen aurrean, aldizkako bilerak erakunde horietako arduradunekin, bisitak hiru lurraldeetako harrera-etxe edo zentroetara... Eusko Legebiltzarrarentzako ohizko txostenetan, urtero, jarduera horien emaitzak bildu dira. (Ikusi, adibidez, 2007ko txostena, II. kap., 3. azpiatala)

Bestalde, duela gutxi erakunde honek ezohizko txosten berria egin zuen, oraingoan, *EAEn bakarrik dauden atzerritar adingabeen egoeragan* arreta jarritz. Sektore horri arreta berezia jarri diogu beti eta horri buruzko berariazko espedienteak zuzendu ditugu hiru foru aldundietara. Gai hau berariaz eta aparte lantzen da ez txostenaren atal honetan, baizik eta hurrengoan.

Arartekoak urteotan egindako jarraipen-lanean, batez ere honelako gaietan jarri du arreta: adopzioa, familia-harrera, egoitzetako harrera, elkartzeko tokiak... Gai horien kudeaketa, funtsean, foru aldundiei dagokie. Aurten, hala ere, arreta berezia eskaini nahi izan diegu haurrak udal edo herri mailan babesteari.

Ezarritako eskumen esparruarekin bat etorritz, haurrak babestearen inguruan udalak duen erantzukizuna arrisku egoeratan zentratzen da (ez babesik gabekoetan). Hala ere, bi kasuetan, egoera aurreikusteko, antzemateko, zerbitzu espezializatueta desbideratzeko, familliei arreta emateko edo parte hartzen jarraitzeko udalak duen jarduera funtsezkoa da.

Zentzu horretan, aipatutako txosteneko 42 gomendioetatik gehienak zuzenean udalerrian aplikatzen dira edo lanean zuzenean eragina dute. Adibide eta oroigarri gisa honako gomendio hauek daude (eta horien inguruan, kasu batzuetan, jada aldaketak eta hobekuntzak egin dira. Hemen aipatu besterik egin ez ditugun gomendioen edukia ezagutzeko, ikusi aipatutako txostenaren gomendioen kapitulua):

6. Lurralde eta udal esparruko langileen prestakuntza eta koordinazioa.
9. Balorazio batzorde teknikoen osaera malgutzea.
11. Babesik gabeko egoera argia denean, oinarritzko gizarte langileekin harremanetan jartzea.
13. Erkidego esparruko programak garatzea.
17. Trantsiziozko programek jarraipen pertsonalizatua izatea.
18. Hainbat urtetarako arreta plana prestatzea.
19. Antzemateko sistemak hobetzea.
21. Beste instantziekin (hezkuntza, osasun, judizial, polizia) laguntza eta koordinazio mekanismoak sortzea.
22. Arretaren arduraduna prozedura hasi eta bukatzen den arte bertan egotea.
24. Prozeduran eta erreklamazioen mekanismoetan haurrek, nerabeei eta beren familliek parte hartzeko bideak.
25. Haurrentzako zerbitzuen instalazioak egokitzea, haurrei, nerabeei eta beren familliei harrera egiteko.
26. Oinarritzko gizarte langilearekiko harremana harrera-aldian zehar.
27. Banakako arreta plana lantzerakoan haurrek, nerabeei eta beren familliek modu aktiboan parte hartzea.
28. Egokitutako kasu eta neurriak aldizka eta sistematikoki berrikustea.

Gomendioek zuzeneko eragina dute, alde batetik, udal esparruan egiten den babeseko lanagan eta, bestetik, udal esparruak beste esparru edo instantziekin duen harremanagan, batez ere, foru aldundietako haurrentzako zerbitzu espezializatuekin duen harremanagan. Gainera, aipatzekoa da Arartekoa haurrentzako zerbitzu espezializatuaren jardueraren jarraipen sistematikoa egiten aritu dela urtez urte.

Horregatik, aurretik egindako jarraipenak osatzeko, azken urte honetan, ofiziozko espedienteen bitartez, toki erakunde askori idaztea interesgarria dela pentsatu dugu (gure erkidegoan 10.000 biztanle baino gehiago dituzten 40 herriei).

Espediente horien helburua hauxe izan da: herri mailan haurrei arreta emateko baliabide, programa eta zerbitzuei dagokienez, aipatutako txostenaren bilakaera hobeto aztertzeko balio diezaguketuen oinarritzko zenbait datu eta informazio eskatzea.

Txostena bera oso zabala denez eta gomendioak ugariak, informazio zehatza eskatu ordez, egokiagoa iruditu zaigu arreta adierazle gisa erabilgarriak izan daitezkeen datu kuantitatibo batzuetan eta alderdi jakinetan jartzea. Horrela, 40 udalei bidalitako informazio-eskaera (Gasteizen kasuan izan ezik), batik bat gai hauei zegokien:

1) Haurrak babesten, udalaren menpe dauden **langileei** buruz:

- Zehazki arlo horretan soilik lan egiten duen langilerik ote dagoen ala ez.
- Eta horrela balitz, zenbat langile dauden (lanaldi osoan), zein zerbitzutan aritzen diren, udaleko langileak ote diren, edo lan horretarako bereziki kontratatutako pertsonak edo taldeak diren, nolako prestakuntza zehatza duten edo jasotzen duten...

2) Eskaintzen diren **programa edo zerbitzuei** dagokienez:

- Zein diren, zein den beren helburua eta norengana zuzentzen diren...
- Beharrezkoak diren programak garatzeko zein zailtasun dauden...

3) **Artatutako populazioari** dagokionez:

- Aurreko urtean, esaterako, 2007an programan artatu ziren haur, nerabe edo familia kopuruari buruzko datuak, edo bederen, estimazioak ba ote dauden.

4) **Arreta berezia eskatzen duten arrisku egoerako kasuak edo babesik gabekoak antzemateari eta esku-hartzeari** dagokienez:

- Azken urtean, (2007an) adibidez, esku hartu diren kasuak guztira zenbat izan diren jakiteko datuak edo estimazioak ba ote dauden.
- Epe horretan foru aldundiaren zerbitzu espezializatuari deribatutako kasuak zenbat izan diren eta zein izan den jasotako erantzuna.
- Horrelako esku-hartzeak eskatzen dituzten arazo edo egoera ohikoenak zein diren.
- Azken urteotan ikusi den joera...

5) **Beste instantziekiko koordinazioari** dagokionez:

- Toki erakunde horrek zer balorazio egiten duen beste zerbitzu edo instantzien eskutik jasotako laguntza eta koordinazioari buruz; esaterako, sistema judiziala, hezkuntza zentroak, osasun zentroak... eta bereziki, lurralde eremuko haurrentzako zerbitzu espezializatuak.
- Aipatutako laguntza-koordinazioa hobetzeko, zein diren topatutako zailtasun nagusiak.

6) Lanaren **plangintza eta antolamenduari** buruz:

- Haurrak babesteko lan plangintzarik ba ote dagoen eta, horrela izanik, zein den onartutako azken plana.
- Haurren babeserako tokiko organo edo mekanismorik ba ote dagoen, kontsulta egin edo erabakitzeke eta, horrela izanik, zein sektore edo zerbitzu ordezkatzan duten, eta zenbateko maiztasunez biltzen diren.
- Haurrek, nerabeek eta beren familiek parte har dezaten zein bide dauden (erreklamaziorako, arreta planak osatzerakoan parte hartzeko...)

Gai horietako batzuk oso zabalak direnez, informazioa ahalik eta zehatzena izan zedila eta, batez ere, egindako hobekuntzak edo oraindik konpondu ez diren arazoak jorra zitzala eskatu genuen. Hala ere, gure helburua lortzen lagundu zezakeen beste edozein informazio helarazten baziguten, hori ere aintzat hartuko genuela adierazi genien.

Txosten honen idazketa bukatzeko unean, 30 udalen erantzunak jaso ditugu:

- Araban biztanle gehien dituzten bi udalena: Audio eta Gasteiz.
- Gaiarekin zerikusia duten Bizkaiko udal gehienena: Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Basauri, Bilbao, Erandio, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo (Busturialdeko Mankomunitatea), Getxo, Leioa, Mungia, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Valle de Trápaga-Trapagaran.
- Gipuzkoako (19 udaletatik) 13 udalena: Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Hernani, Irun, Lasarte-Oria, Pasaia, Tolosa, Zarautz y Zumarraga.

Horrenbestez, azterturiko informazioak, hurrengo orrialdeotan laburbilduta dagoenak, adierazgarritasun desberdina dauka, aintzat hartutako lurralde historikoaren arabera, baita 10.000 biztanletik gorako udalerrietara mugatzen bagara eta udalerririk txikienen egoera kontuan hartzen ez badugu ere. Nolanahi ere, helburua lortzeko nahiko interesgarriak diren datuak, joerak, arazoak eta proposamenak eskaintzen ditu.

Arartekoaren ekimen honen helburua ez da udalerrri bakoitzaren errealitatea zehatz eza-gutzea (horretarako, informazioaren tratamendua beste modu batekoa izan beharko babilizateke), konparazioak ezartzea, joerak aurkitzea eta arazo komunak edo tokiko haurren babes-beharrizanetarako erantzun hobea baldintzatzen duten elementuak identifikatzea baizik.

Oraingoz lortutako informazioaren laburpentzat, funtsean hiru elementu eskainiko ditugu hemen:

- 1) Datu kuantitatiboak eta informaziorik objektibagarrienak laburbiltzen dituen taula.
- 2) Datu horien balioari ñabardurak egiteko, datuok hobeto ulertzeko edo horien eraginezko joera batzuk nabarmentzeko iruzkinak.
- 3) Informazio kualitatiboenen laburpena, batez ere arazoak eta proposamenak adierazten dituzten informazioena.

Erantzunetariko asko azken unean jaso dira (urtarrilaren amaieran eta otsailaren hasieran), eta horrek zaildu egin du informazio hori ondo aztertzea eta txosten honen testuan jasotzea, informazioa jaso genuenerako txostena ia itxita baitzegoen. Hortaz, kasu batzuetan datu batzuk hurrengo taulan jasotzera mugatu behar izan gara, beste iritzi edo proposamen batzuk jaso barik.

1) Datuen taula

	HAURTZARDOAN SOLILIK DIHARDUTEN LANGILEAK		PROGRAMA ETA ZERBITZUAK	LAGUNDUTAKO BIZTANLERIA	ARRISKUKO EDO BABESIK GABEKO EGOERAK			PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAMENDUA		
	Plantillakoak	Bai			KOP. ⁽²⁾	KOP. OSOA ⁽³⁾	KASU KOPURUA (ESPEDIENTEAK)			HAURTZARO- PLANA (BAI/EZ)
			Esku hartuta koak	Aldundira deribatuta			Aldundiak onartuta			
Arabako L.H.										
Llodio	1	3	3	57	21	14	?	—	—	—
Vitoria-Gasteiz	21	56,5	6-17	—	333	(59+35) ⁽¹⁾	—	Bai	Bai	Bai
Bizkaiko L.H.										
Amorebieta- Etxano	—	2,5	5	112	9	2	2	—	—	—
Arrigorriaga	—	2	10	48	16	2	1	—	—	—
Barakaldo	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Basauri	—	5+	7	266	—	5	1	—	—	—
Bermeo	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Bilbao	2+	90+	11	5.619	—	38	? ⁽⁵⁾	—	Bai	—
Durango	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Erandio	—	X	3	381	Daturik ez	Daturik ez	—	—	—	—
Ermua	1	4	1	373	93	3	—	—	—	—
Galdakao	—	4,25	6	143	—	4	0	—	—	—
Gernika-Lumo ⁽⁵⁾	X	X	3+7	—	—	—	—	—	—	—
Getxo	—	8	7	—	32	4	—	—	—	—
Leioa	—	6	—	263	54	8	8	—	—	—
Mungia	—	2	5	120	84 fam.	4	—	—	—	—
Portugalete	—	10	7	493	—	—	—	—	—	—
Santurtzi	—	EISE	—	340	72	Daturik ez	—	—	—	—
Sestao	—	7	5	297	83 esped.	3	—	—	—	—

	HAURTZAROAN SOILIK DIHARDUTEN LANGILEAK		PROGRAMA ETA ZERBITZUAK	LAGUNDUTAKO BIZTANLERIA	ARRISKUKO EDO BABESIK GABEKO EGOERAK			PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAMENDUA		
	Plantillakoak	Bai	KOP. ²⁾	KOP. OSOA ³⁾	KASU KOPURUA (ESPEDIENTEAK)			HAURTZARO- PLANA (BAI/EZ)	KONTSULTAKO TOKI-ORGANOA (BAI/EZ)	ADINGABEEK PARTE HARTZEKO BIDEA (BAI/EZ)
		Kontratatuak			Esku hartuta koak	Aldundira deribatuta	Aldundiak onartuta			
Sopelana										
Valle de Trápaga-Trapagaran	–	–	0	–	–	–	–	–	–	–
Oharrak										
(1)	Gasteizeko Udaleko datuak 2007an irekitako espediente batekoak dira. Udal hori babesik ez duten adingabeentzako harrera-sarea duen bakarra da (10 etxe), gure autonomia-erikidegoan. 2007an hartutako adingabeak: 59 etxeetan eta 35 familietan.									
(2)	Programak eta, zenbait kasutan, azpiprogramak.									
(3)	Programa guztietako erabiltzaileak dira; hala ere, jakina, pertsona berak zenbait programa erabil ditzake urte berean.									
(4)	Bilboko Udalak ez du datuak eman Bizkaiko Foru Aldundira egindako deribazioei buruz, baina bai Aldundiak Oinarritzko Gizarte Zerbitzuei (87 kasu) egindako eskabideei buruz (balorazioa, esku-hartzea, jarraipena).									
(5)	Gizarte-arriskua edo babesgabetasuna duten haurrak, nerabeak eta familia babesesteko proiektua (2008ko urtarila-abendua)									

	HAURTZAROAN SOILIK DIHARDUTEN LANGILEAK		PROGRAMA ETA ZERBITZUAK		LAGUNDUTAKO BIZTANLERIA		ARRISKUKO EDO BABESIK GABEKO EGOERAK				PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAMENDUA				
	Plantillakoak	Bai	KOP.	KOP. OSOA	Esku hartutakoak	Aldundira deribatuta	Aldundiak onartuta	HAURTZARO-PLANA (BAI/EZ)	KONTSULTAKO TOKI-ORGANOAK (BAI/EZ)	ADINGABEEK PARTE HARTZEKO BIDEA (BAI/EZ)					
Gipuzkoako L.H.															
Andoain															
Arrasate-Mondragón															
Azkoitia	-	2	1	17	17	1									
Azpeitia	1	2	1	40-50	40-50	1	1								
Beasain															
Bergara	-	2	4	40 familia	45	4?	4								
Donostia-San Sebastián															
Eibar	-	11 (?)	3	190		3	3								
Elgoibar	-	-	4	310	3+7+16										
Errenteria	3,5	1+6	2	66	106	15									
Hernani	-	-	3	204	56	1	?								
Hondarribia															
Irun	-	X	3	249	49	31	?								
Lasarte-Oria	-	-	2	392	-	-	-								
Oñate															
Pasaia	-	4(?)	10+	451	101	5	1				Bai	Bai			
Tolosa	-	2	2	230	45	3					?	Bai			
Zarauz	0,5+0,5	2*	3	200-270	37	12	?				-	-			
Zumarraga	-	3,5	2	82	82	8	3				-	-			
Oharrak															
(1)	"Arriskuan dauden Adingabeekiko Gizarte eta Hezkuntza Jarduketarako Esparri Programa". Urteroko programazioa.														

2) Eskainitako datuak hobeto ulertzeko iruzkinak eta ñabardurak

- Taulari egin behar zaion lehenengo oharra, orokorra eta ezinbestekoa, bertan jasotako zenbakizko datuen balioa erlatiboa dela da.
Esate baterako, programa kopuruari erreparatuko diogu: batzuek udalerrian garatzen diren programa handiak baino ez dituzte aipatu, eta beste zenbaitetik, berriz, gehienbat ekintza bat izango litzatekeena hartu dute halako programatzat (adibidez, udalekuak antolatzea).
“Lagundutako biztanleria” deritzonari buruzko datuetan, kasu batzuetan adingabeak zenbatu dira, eta beste zenbaitetan familiak. Taulan eskainitako zifrak, oro har, programa bakoitzean lagundutako adingabeen batuketa da (geuk egindako batuaketa); baina, sarritan, adingabe berak zenbait programatan hartzen du parte. Hala eta guztiz ere, gure ustez, nolabaiteko hurbilketa eskaintzen dute eskainitako zerbitzuaren “bolumenera”.
- Langileriarri buruzko datuei dagokienez, egoerarik ohikoena kasuan kasuko udalak haurtzaroan soilik diharduen langilerik ez edukitzea da, eta zerbitzuak edo programak elkarteekin edo profesionalekin kontratatzea; gainera, horien koordinazioa edo ikuskapena biztanle guztientzat pentsaturiko gizarte-zerbitzuek egiten dute. Horixe da formularik hedatuena. Kasu batzuetan boluntarioak ere egoten dira.
Muturretan, alde batetik, haurtzaroan soilik diharduten langilerik edo kontraturiko langilerik ez duten udalak daude (esate baterako, Trapagaran, 2003tik), eta, bestetik, Gasteizeko Udala, Haur eta Familia Zerbitzu oso indartsuarekin (2008an 21 pertsona: 3 burutza, 8 psikologo, 8 gizarte-langile, 2 gizarte-hezitzaile); Gasteizek egoitza-harrerako sarea ere badauka, arrisku handiko edo babesik gabeko egoeratarako (10 zentro eta 56 pertsona baino gehiago kontratatuta).
- Programei eta zerbitzuei dagokienez, alde handiak daude. Arazorik ez duen salbuespenezko kasuren bat kenduta, eskaintza oso mugatutik (adibidez: eguneko zentroa; haurren etxez etxeko laguntza zerbitzua; familiaren arloko gizarte eta hezkuntza laguntzako programa) eskaintza oso zabalera doaz, eta azken kasu horretan planaren, azpiprogramen, baliabide espezializatuen eta halakoen arabera egituraturiko programak daude.
Bestalde, programak, kasu bakoitzean, irizpide asko eta anitzak aplikatuz bereizten dira: biztanleria sektore jasotzailea (adingabeak; familiak; ijitoak, etorkinak...); esku hartzeko estrategia (banakako arreta, taldeko arreta); eskainitako zerbitzua (beharri-zanen balorazioa, neurketa, prebentzioa, terapia...), etab.
Praktikan, sarritan, programa bat elkarte edo talde bati esleitzen zaio, beste bat beste bati, eta horrela; horrek, berriz, zaildu egin ditzake esku-hartze globalak.
- Lagundutako biztanleriarri dagokionez, taulan jasotako zenbakiek balio erlatiboa dutela esan dugu. Udalek emandako informazioa, hala eta guztiz ere, hemen eskaintzen ari garena baino fidagarriagoa da, ia beti erabiltzaileen datuak eskaintzen baititu (batzuetan familiak, beste zenbaitetan adingabeak), programaz programa bananduta. Datu horiek hobeto interpretatzeko, jarduera eta parte-hartze zehatzagoak

argiago bereizi behar dira denboran iraunkorrak diren esku-hartzeetatik (bereizte hau sarritan egiten da: esku-hartze trinkoa, aldi baterako esku-hartzea).

- Arrisku handiko edo babesik gabeko egoeren kasuan (hau da, babesik gabeko egoerarik larrienak), oro har, eskainitako datuak irekitako espediente kopuruari edo horietan inplikaturiko adingabe kopuruari buruzkoak dira. Tauletan ikusten denez, datu hau ez dago edo ez zaigu eskaini beti.

Foru aldundietako zerbitzu espezializatueta deribaturiko kasuei eta horiek eman-dako erantzunari dagokienez, gure iritzian, hobe da hori alderdi kualitatiboan aztertea, bertan gaiari buruzko informazio baliozkoagoa jaso baita.

- Azkenik, haurtzaro planak, kontsulta organoak eta adingabeek parte hartzeko bideak egoteari dagokionez, ohikoena halakorik ez egotea edo, behintzat, formalizatuta ez egotea da. Udalerrri batzuetan aurrerapausoak ematen ari dira norabide horretan (esaterako, tokiko beharrezanaren ikerketa, plana egin ahal izateko); beste zenbaitetan, hori behar dela esaten da; kasu ia guztietan esan denez, parte hartzeko bide bakarra kexen eta iradokizunen bidezkoa da.

Irizpide nahiko hertsia aplikatuz, esan daiteke gaur egun Gasteizeko udalak soilik dituela hiru elementuak: Gasteizeko Haurtzaroari eta Nerabezeroari buruzko Ikerketa diagnostikoa; sailen arteko Batzordea eta parte hartzeko Foroak (Foro Teknikoa, Foro Politikoa, Haurtzaroaren Foroa, Nerabezeroaren Foroa, Familiaren Foroa, Elkarleen Foroa); Lagunkide Programa, Haurren eta Nerabeen partaidetzarako.

Halaber, Pasaian tokiko haurtzaroko Plana dago, Busturialdeko Mankomunitatean Proiektu bat, eta eraketa formala duten tokiko organoak ere badaude Bilbon, Portugaleten, Pasaian edo Tolosan. Azken udalerrri horretan, era berean, kontratazio mahaiak daude, eta arriskuan dauden adingabeen gizarte eta hezkuntza jarduketako Esparru Programa ere bai.

3) Arazo, proposamen eta informazio kualitatiboagoak

Arartekoak egindako informazio eskabidearen arabera, halako ekarpenik gehienak lau alderditan oinarritu dira:

- a) Programak garatzeko dauden zailtasunak.
- b) Esku-hartzea behar duten arazorik edo egoerarik ohikoena.
- c) Azken urteotan ikusitako joerak.
- d) Beste erakunde edo zerbitzu batzuekiko lankidetzeta eta koordinazioa hobetzeko zailtasunak.

a) Programak garatzeko dauden zailtasunak

Programak, oro har, nahiko antzekoak eta errepikakorak dira; hala eta guztiz ere, bakoitzaren errealitatearen edo esperientziaren arabera, zenbaitetan batzuk beste batzuk baino gehiago nabarmentzen dira. Zenbait kasutan, arazoen edo zailtasunen zerrenda luzeagoa edo laburragoa eskaintzen da; beste batzuetan, nolabaiteko sailkapena egiten da.

Horrela, esate baterako, Bilboko udalak, oraingo azterketa eta balorazio prozesuaren arabera, hauxe bereizten du:

- 1) Barne antolamenduko arazoak
- 2) Udaleko beste sail batzuekin
- 3) Beste bulego batzuekin (sarean esku hartzeko)

Getxoko udalak zailtasunen zerrenda hau eskaini eta guk adibidetzat adieraziko dugu:

- *Koordinazio arazoak Aldundiko haurtzaro zerbitzu espezializatuarekin, baita ikastetxe batzuekin, osasun-zentroekin... ere. Koordinazioa, gehienbat, kasuarekin kontaktua duen pertsonaren borondatearen eta prestutasunaren arabera izaten da, erakundeek koordinazioaren aldeko apustu erreala eta ukigarria egitearen arabera baina gehiago.*
- *Haurtzaroan eta nerabezaroan esku hartzen dugun erakundeok gure artean ez argitzea eta elkar ez ezagutzea, esku-hartze arloari, eskumenei eta bakoitzaren funtzioei dagokienez (udaleko gizarte-zerbitzuak, ikastetxeak, osasuna, zerbitzu espezializatuak...). Horrek gaizki-ulertzeak sortzen ditu koordinazioetan.*
- *Tokiko plana eta koordinazio nahiz laneko foroa ez egotea.*
- *Zerbitzuak edo programa/zerbitzua garatzen duten profesionalak kokatzeko eremu fisikorik ez edukitzea.*
- *Kasuetara eta programa/zerbitzuetara atxikitako aldaketa asko. Arreta iraunkorra ez izatea eta erreferentziako irudiak aldatzea.*
- *Kudeatzeko, esleitzeko edota finantzatzeko modu desberdinen komenigarritasuna.*
- *Erantzukizunak administrazioaren eta zerbitzua ematen duten enpresen/erakundeen artean banatzean gabeziak egotea.*
- *Disfuntzioak datu-bilketan.*
- *Zailtasunak detekzio goiztiarrean eta prebentzioko esku-hartzea.*
- *Esku hartzeko oztopoak eta lankidetzak urria, gurasoen/autore-irudien artean.*

Udalek emandako erantzunetan adierazitako arazorik gehienak lehengo zerrendan adierazita daude.

Barruko arazoak (aurrekontu-arazoak, astirik edo langilerik eza, udal sailen arteko koordinazio urria...) edo beste erakunde edo zerbitzu batzuekiko arazoak (aurrerago aztertuko ditugunak) albo batera utzita, aipagarriak dira adingabeen familiari lotutako arazoak:

- esku-hartzea onartzen ez duten familiak;
- adingabeak programetara ez joatea, erreferentziako pertsona nagusien utzikeriaren eraginez;
- aitaren eta amaren arteko interferentziak, batez ere bananduta daudenean;
- Etorkinekiko komunikazio arazoak...

b) Esku-hartzea behar duten arazorik eta egoerarik ohikoena

Puntu honetan ere, arazo asko familia egoerari lotutakoak dira (buruko gaixotasuna eta drogen gehiegizko kontsumoak; familiek arrisku adierazleak ez identifikatzea...), eta eraginpekoak biztanle talde jakinekoak dira: nerabeak.

Adibidetzat, Bizkaiko udalerrri bateko gizarte-zerbitzuetako arduradunek eskainitako arazo zerrenda ikusiko dugu:

- *Jokabide erasokorrak edota delitu aurrekoak, gazten eta nerabeen artean (erasoak, jokabide ausartegiak edota gizartearen aurkakoak...).*
- *Familiaren egonkortasun eza, laguntza sare urria, bizileku aldaketa asko, familia osaketaren aldaketak, erreferentziako pertsonen aldaketa...*
- *Hezkuntza eta erreferentzia eginkizunean dena delakoagatik parterik hartzen ez duten gurasoak eta tutoreak.*
- *Bakarrik eta arau nahiz jarraibide barik luzaro egoten diren haurrak, gabezia afektiboak dituztenak.*
- *Rol aldaketak; hain zuzen ere, hurrek pertsona nagusien rolak hartzen dituzte (neba-arrebak zaindu, etxeko lanak egin, erantzukizun gehiegi eduki...).*
- *Kudeaketa txarra gurasoen banaketan, eta seme-alaben erabilera, legezko prozesuetan eta gurasoen nahiz seme-alaben arteko neurrien ezarkuntzan.*
- *Seme-alabengan eragina duten bikoteko gatazka handiak.*
- *Seme-alabek gurasoei tratu txarra ematea (errespeturik ez, irainak, mehatxuak, lapurretak, kontrolik eza...).*
- *Gurasoek haurren eta nerabeen jokabidea kontrolatzeko ezintasuna.*
- *Gurasoen edo tutoreen drogazaletasuna edo beste mendetasun mota batzuk (Internet, ludopatiak...).*
- *Gazteen eta nerabeen drogazaletasuna edo beste mendetasun mota batzuk (Internet, ludopatiak...).*
- *Eskola absentismo handia, familiak jakinda eta "onartuta".*

Batzuetan, arazoak aztertzea balizkoa da erantzuneko programak egituratzeko. Horrela, esate baterako, Santurtziko Gizarte Hezkuntza Esku Hartzeko Taldeak (GHEHT) arlo bakoitzeko arazo nagusiak bereizten ditu (familia, pertsona, eskola, aisialdia eta astialdia), eta azterketa horrexek adierazten ditu esku-hartze arloak (familia...).

Beste arazo edo arazo-iturri nagusia desadostasunena da, edo funtzioak argi mugatuta ez egotearena, tokiko zerbitzuen eta foru aldundietako zerbitzu espezializatuen artean. Adibidetzat, Zarautzeko udalaren paragrafo hau hartuko dugu:

"Babesik gabeko egoera ertaina eta larriaren arteko muga elkarrekin definitzea. Arazo hau halere, asko landu ahal izan da eta egoera hobetu da Eskualdeko lan taldeak kasu hauen balorazioan laguntzen dutenetik. Bestalde, egoera praktikoan, udalak esku hartzeko duen ahalmena askotan bizkorragoa da, foru aldundiak duenarena baino eta praktikan egoera larrien interbentzioa udalek asumitzen dugula gertatzen da askotan."

Zonako edo eskualdeko (Gipuzkoakoak) taldeei eta horiek lanean duten eraginari buruzko erreferentzia, kasurik gehienetan, positibo da (solaskide eta erreferentzia bihurtu dira, tokiko zerbitzuentzat); baina, batzuek diotenez, horren eraginez Aldundiaren erantzunak ez dira hain azkarrak.

c) Azken urteotan ikusitako joerak

Hemen gehien nabarmentzen direnak, zalantzarik gabe, lagundu beharreko gazteen eta, batez ere, familien profilen aldaketak dira, eta formulazioetan kointzidentzia handiak daude:

- Marihuana egunero hartzen duten 13-17 urteko gazte kopuruaren hazkunde nabaria; gurasoak ez dira gauza seme-alabei arauak eta mugak ezartzeko, eta azken horiek, gainera, eskola absentismo handia dute.
- Kultura kode desberdineko etorkin kopuruaren hazkundea.
- Guraso bakarreko familiak.
- Familia barruko indarkeriari eta emakumeen aurkako tratu txarrari lotutako arriskuak.
- Banantzeen judizializazio handiegia, adingabeak bitartean sartuta.
- Gurasoen (sarritan, bananduta) arteko harreman arazotsuak.
- Gurasoen ezintasuna, haurren eta nerabeen jokabidea kontrolatzeko.
- Adingabearen egunerokotasunean gurasoen presentzia eza edo presentzia urria.
- Familia berriro batzea, urteetan bananduta egon ondoren.
- “Enperadorearen sindromea” duten nerabeak.

Batzuek aldaketa adierazten dute lagundutako familien tipologian: arazo anitzeko familiak izatetik familia normalizatuagoak izatera igaro dira, baina horiek ere arazoak dituzte adingabeei arauak eta mugak ezartzeko orduan.

Horren ondorioz, aldaketak sortu dira beharrianetan eta esku hartzeko moduetan (zailtasun emozionalak, jarduera psikoterapeutikoak...); gainera, batez ere Gipuzkoan, lan kargak berregokitu egin dira: Aldundiak deribaturiko edo onarturiko kasu gero eta gutxiago; tokiko arloko esku-hartze gero eta handiagoa.

Oro har, arrisku egoerek eta eskariak gora egin dutela jotzen da.

d) Koordinazioa hobetzeko zailtasunak

Jasotako idazkietan arlo honi ematen zaion lekua aintzat hartuta, esan daiteke beronek sortzen duela kezkarik handiena gizarte zerbitzuen artean.

Orokorrean, erantzunetan ikuskatu egiten da beste gizarte eragile batzuekiko lankidetzak: osasun zentroak, ikastetxeak, sistema judiziala eta, batik bat, haurtzaroan espezializaturiko zerbitzu guztiak, foru aldundiaren mende daudenak.

Batzuek ez dute arazorik adierazi (kasu pare bat), baina gehienek, euren esperientzian oinarrituz, lankidetzak zailtasunak eta hobekuntza proposamenen bat ere adierazi dituzte. Horrela:

- **Sistema judizialari** dagokionez, aditzera ematen da ez dagoela koordinaziorik, edo, bestela, laguntza ematen duten udaletan, hori erkidegoaren onurarako lan neurriak aplikatzera mugatzen da.
- **Ikastetxeekiko lankidetzaren** arloan, jarduera eta balorazio nahiko desberdinak egin dira: hasi baterako jarduketako akordioak nahiz protokoloak eta lankidetzak lortzeko arazoetara. Aipagarriena edo gehien errepikatu dena profesionalak idatzizko jakinarazpenen bidez inplikatu nahi ez izatea da.

Hona hemen horren adibide batzuk:

- *"Los centros educativos no conocen bien los recursos que ofertamos a las familias, lo que condiciona las posibles derivaciones de caso. Grandes diferencias entre centros. Algunos no derivan nunca casos. Propuesta: incluir figura del trabajador social en el ámbito escolar."*
- *"Tanto en salud como en educación, en la detección de casos se tiende a comunicar datos de manera verbal pero no hay un compromiso de transcribirlos en un informe ni pasarlos por escrito."*
- *"Habría que clarificar el papel que los centros educativos desempeñan en la detección de menores en situación de desprotección (su nivel de responsabilidad...)."*
- *"Egoera larrietan datu edo informazio oso larriak emateko garaian tutore batzuk (ikastetxeetako tutoreez ari da) izutu egiten dira, eta batzuetan atzera egiten dute; ez dute nahi izaten txosten batean berak emandako datuak agertzea."*

Nolanahi ere, leku askotan jarduketa protokoloak ezarri dira, eta ikastetxeekin lorturiko koordinazioaren balorazio positiboa egiten da; koordinazio hori, gainera, "bikaintzat" ere hartzen da, zenbait kasutan. Kasu batean esaten da koordinazioa orain lehen baino txarragoa dela, eta horren zergatizat, berriz, "asetasuna eta familia batzuen beharrezanez erantzuna emateko ezintasuna" aipatzen da.

- Balorazioa kritikoagoa da **osasan zerbitzuekiko koordinazioari** edo lankidetzari dagokionez; bestela, beste arazo batzuk adierazi dira, koordinaziokoak ez direnak; hain zuzen ere, baliabide nahikorik ez egotea (adibidez, buruko gaixotasunen bat duten haurrei laguntza emateko orduan) edo datuen konfidentzialtasunari buruzko desadostasuna.

Esate baterako:

- *"Con la unidad de Psiquiatría Infantil de Osakidetza existe coordinación pero la dificultad estriba en la saturación que sufre este servicio (no puede garantizar una atención de calidad y periodicidad debido a la sobrecarga de trabajo) y en el hecho de que está ubicado en otro municipio."*
- *"No es fácil el acceso a la información de que disponen los centros de salud (...). La obligación de salvaguardar la confidencialidad por parte de los profesionales dificulta la intervención conjunta".*

Zenbait kasutan, hobekuntza proposamentzat, osasun zentroek gizarte langileak edukitzea planteatzen da, horiek laguntza eman baitezakete babesgabetasun egoerak detektatzeko.

- Baina, zalantzarik gabe, kritikarik edo zailtasunik gehienak **hautzaroko zerbitzu espezializatuen arloan daude; zerbitzuok foru aldundien mendekoak** dira, Arabako Foru Aldundiaren kasuan izan ezik. Hemen, adierazitako arazoan zerrenda oso luzea da:

- Teknikariak sarritan aldatzea, harrera eta balorazio zerbitzuan;
- Saileko langileekin kontaktua edukitzeko zailtasunak;
- Kontsultako edo aholkularitzako lekurik ez edukitzea, udal zerbitzuetako profesionalentzat;
- Adierazleen eskuliburu bateraturik ez edukitzea;
- Jarduketa protokolorik ez egotea;
- Alde bakarreko erabakiak hartzea;
- Kasuak batera ez baloratzea;
- Erantzunak azkar ez ematea (batzuetan, zazpi hilabete itxaron behar);
- Daturik ez egotea, Aldundiak kasuren bat onartzen duenetik...

Adierazitakoaren arabera, oro har, beharrezkoak dira protokoloak, arduradunen arteko akordioak (ez teknikarien artekoak), jarduketa esparruen mugaketa hobea...

Kasu batzuetan, izandako arazoetan konponbiderako formulak bilatu dira, adibidez, baterako protokoloak (adibidez, Pasaian) edo eskualde mailako bitarteko zerbitzuen sorkuntza (Gipuzkoa).

Beste batzuetan, antolamendu mailako aldaketak adierazi dira; esate baterako, balorazio batzorde teknikoaren sorkuntza, udal zerbitzuetako profesionalen partaidetzarekin (arartekoak orain dela urte asko egindako gomendioa); edo kanpoko balorazioen proposamena (kanpoko izaera hori azpimarratuta), kasu bakoitzari dagoen eskumen maila ezartzeko.

Ekarpen ugarien azpian dagoena, edo modu esplizituan ageri dena, lanbide irizpidea zalantzan jartzearen eraginezko ondoeza da (onartu gabeko deribazioak), edo balorazio urria edukitzearen edo behar bezala aintzat ez hartuta egotearen (erabakiak hartu baino lehen, hartu bitartean eta hartu ondoren) eraginezko ondoeza.

Hori laburbiltzeko, hona hemen hitzez hitzeko esaldi batzuk:

- *"Echamos en falta mayor participación en la determinación final de la categoría de riesgo".*
- *"Cuando surge la duda de si el caso es grave o es moderado, los ayuntamientos no podemos decidir porque la Diputación es juez y parte".*
- *"Normalmente cuando se deriva un caso es después de dos o tres años de intervención (...). Siempre ponen en duda todo el trabajo realizado, vuelven a hacer un estudio que dura meses y se pierde un tiempo importante, para luego determinar (no siempre) lo que ya se había valorado desde los servicios sociales de base."*
- *"Está claro que tenemos diferentes criterios de evaluación de caso pues no aceptan derivaciones que consideramos en grave riesgo y que superan las posibilidades de intervención municipal. Este tipo de gestión de casos nos lleva a una desconfianza hacia la sección de menores de Diputación y hace que derivemos el menor número posible de casos..."*

Zerbitzu bakoitzarekiko koordinazioari buruzko iruzkinak ez ezik, udalek balorazio eta proposamen zabalagoak ere egin dituzte, edo lanaren multzo osoan, harremanak izateko moduetan edo ikusitako bilakaeran eragina dutenak. Esate baterako:

- *“Se aprecia un incremento de la demanda de intervención municipal por parte de las diferentes instituciones y recursos comunitarios, especialmente del Servicio Foral de Infancia, los servicios educativos, sanitarios (especialmente de salud mental infantil) y de la Fiscalía de Menores”.* (Bilboko Udala)
- *“La demanda de colaboración y de coordinación inter-institucional, aunque en muchos casos informal, es cada vez mayor”.* (Ayuntamiento de Bilbao)
- *“Las coordinaciones están más centradas en ‘decir al otro lo que tiene que hacer’, que en buscar un sistema de trabajo conjunto, interdisciplinar e integral”.* (Getxo)
- *“Creo que sería importante homogeneizar las actuaciones de todos los municipios en materia de protección de menores y ampliar los recursos existentes, tratando de adecuarlos a las necesidades de las familias”.* (Eibar)

Nolanahi ere, koordinazioa hobetu beharra (detekzio handiagoa eta erantzun hobea nahiz azkarragoa lortzeko) ia guztiek sentitu eta adierazi dute; gainera, lehen esan dugunez, alderdi horixe berretsi dute udalik gehienek; erantzunak (eta hau kontuan hartu behar da), kasurik gehienetan, oinarrizko gizarte langileek edo udalerriko gizarte zerbitzuetako arduradunek eurek landu dituzte.

* * *

Honaino heldu da haurtzaroaren laguntzari (udalerrri mailan) buruzko informazioaren laburpena; hori, lehen esan dugunez, jarraipenaren helburu nagusia izan da azken urtean. Foru aldundiek haurtzaroaren babesaren arloan egindako esku-hartzearen ikuspegi orokorra edukitzeko, atal hauxe ikus daiteke 2007ko txosten arruntean. Hala eta guztiz ere, beste elementu oso zehatz bat ere eskainiko digu, hau da, Loiu (Bizkaia) eta Iruneko (Gipuzkoa) bi harrera zentrori dagokionez egindako jarduketan eta bisitaldien laburpena.

1) Zabaloetxe zentzoko (Loiu) “bizkaitarren unitatera” egindako bisita

Arartekoko langileek uztailaren 7an bisitatu zuten Zabaloetxe zentzoko (Loiu, Bizkaia) “bizkaitarren unitate” izeneko, zentzoko zuzendaritzari hala jakinarazi ondoren (unitate horri bakarrik dauden adingabe atzerritarren unitateetatik bereizteko eman zaio izen hori). Ohiko bisita izan zen. Izan ere, zentzokoak ezaugarri bereziak ditu, jokabide arazo larriak dituzten nerabeak artatzen baititu. Aurretik ere bisitatu zen zentzoko hau eta, beraz, bisita egin zenean bazen aurretiazko informazioa; are gehiago, ofiziozko espediente bat ere bazegoen hasita.

Informazioa, funtsean, honela bildu zen:

- Zentzoko zuzendariari eta unitateko koordinatzaileari elkarrizketa sakona egin zitzaion, erakunde honek era horretako zentzokotarako prestatu zuen “Jokabide nahasteak dituen adingabeentzako zentzokotara bisitak egiteko gida” izenekoari jarraiki.
- Zentzoko instalazioak bisitatu ziren.
- Elkarrizketa egin zitzaion artatutako adingabeei eta une horretan zentzokotan zeudenei.
- Elkarrizketa egin zitzaion, halaber, zentzokotan zeuden hezitzaileei.

- Zenbait espediente pertsonal aztertu ziren.
- Hainbat dokumentu aztertu ziren: egunerokoak, gorabeheren parteak, bizikidetzako arauak, salaketak...

Arestian aipatutako gidak kontuan hartu beharreko datu eta alderdi nagusiak xehetasun osoz berrikusten ditu, erakunde honek duen eskubideen defentsarako ikuspegitik. Hainbat kapitulutan banatzen da:

- Datu estatistikoak
- Azpiegiturak eta instalazioak
- Zentroko langileak
- Antolaketari buruzko datuak
- Deribazio irizpideak
- Osasunari buruzko datuak
- Hezkuntzari buruzko datuak
- Harremanak / Koordinazioa / Lankidetzak
- Datuen babesa
- Oharrak

Hemen ez ditugu bildutako datu guztiak islatu nahi, baina bai horietako batzuk nabarmendu, gure ustez esanguratsuagoak direlako edo hobetzeko premia handiagoa dutelako. Horrela:

- Artatutako adingabeei buruzko datu estatistikoei eta ezaugarriei dagokienez, honakoa azpimarra dezakegu:
 - o 2007an zentroak 49 adingabe artatu zituen (52 kasu) (zentroak 16 plaza ditu, 2 modulutan banatuta, 8 plazakoa bakoitza);
 - o 2008an, ordura arte, 30 adingabe artatu zituen eta bisita egin zen egunean 16 zeuden bertan inskribatuta;
 - o Egonaldiaren denbora oso aldakorra da, pare bat egunetik (larrialdi kasuak) hainbat urtera arte;
 - o Zentroan oso profil ezberdinak elkartzen dira (baliabide egokiagorik ez dagoelako, beste zentro batetik deribatu direlako...);
 - o Azken urteotan, aldaketa nabarmena izan da profilean: sartu berri gehienak (gutxi gorabehera %95) Fiskaltzak deribatutakoak dira, etxeko indarkeria dela medio (seme-alaba eta gurasoen arteko indarkeria);
 - o Adingabeak, eskuarki, adinez nagusi izatera heltzen direlako uzten dute zentroa. Ikus daitekeenez, emantzipatzeko aukerak (Saio programako etxebizitza) oso txikiak dira. Oro har, ez dira onartzen, jokabide arazoak dituztelako;
 - o Itxaron zerrenda dago. Horregatik sortu da aurrerago aipatuko dugun baliabideak zabaltzeko proiektua.
- Zentroko azpiegiturari eta instalazioei dagokienez:
 - o Unitate honek garai batean San José Artesano zentroa izan zenaren modulu bat hartzen du, hiru solairukoa: beheko solairuan gunek komunak daude, horien

- artean, jangela, garbitegia edo ikasgela bat; lehenengo solairuan banakako logelak daude, baita berritutako zerbitzuen modulua ere (dutxak, konketak, komunak); bigarren solairua berritu gabe eta nahikoa narriatuta dago eta, bisita egin zen unean, ez zuen inork erabiltzen;
- o Lehenengo solairuko logelak, egindako obren ondoren, handiagoak dira eta ohea, mahaia, mahaitxoak eta horma-armairua dituzte;
 - o Kristal zatiren bat edo ispilu hautsiren bat ikus daiteke, baita narriatutako aterren bat ere, baina, oro har, lehenengo solairuaren egoera ona da. Zenbait garbiketa arazo ere antzeman dira (adingabeek eurek egiten dute, txandaka);
 - o Traba arkitektonikoak mantenduko dira;
 - o Deigarria da, birmoldaketa lanak duela pare bat urte amaitu ziren arren, suteak antzemateko sistema inoiz ez da aktibo egon. Hori arriskutsua da eta erantzukizunak bazter uztea dakar.
- Langileei dagokienez, talde nahikoa egonkorra da, honakoek osatuta: 14 hezitzaile (horietatik bat emakumea) eta koordinatzaile bat, modulu eta txanden arabera antolatuta (4 goizez, 4 arratsaldez, 2 gauetz, 2 larunbatetan, 2 igandetan...). Azken hilabeteotan, zentro hau ustez itxi eta ordezko beste zentro batzuk zabalduko zirela eta esandakoa kontuan hartuta, dagoeneko zenbait hezitzaile beste baliabide batzuetara joan dira. Koordinatzaile bat dute.
- Antolaketari buruzko datuei dagokienez:
- o Zentroak hainbat agiri eta tresna ditu bere zereginak betetzen laguntzeko: zentroaren proiektua, barne erregimeneko araudia, hainbat protokolo (ez agertzeak, kontsumoak, kausa judizialak...), aldizkako txostenak, urteko memoria...
 - o Zenbait espediente nahasita zeuden;
 - o Gorabeheren liburuaren arabera, 2007an 31 gorabehera izan ziren eta 2008an 5 (bisita egin zen egunera arte):
 - o hutsegite arinen artean, ohikoenak berdinen arteko harremanetan izaten diren gatazkengatik izaten dira; hutsegite larrien artean, berriz, "ez itzultzearen ondoriozko ez agertzea" dago;
 - o 20 € ematen dizkiete astean. Duten jokabidearen eta burutzen dituzten jardueren arabera, zenbateko hori murriztu egin daiteke.
 - o Euste neurririk ohikoena euste fisikoa da. Denboraldi batez logelan isolatzea ere ohikoa da;
 - o Kexak edo iradokizunak egiteko biderik erabiliena tutorea bera edo zentroko zuzendaritza da;
 - o Funtsean, erabiltzen dituzten liburuak honako hauek dira:
 - 1) Itemen liburuak – Bertan, adingabeak egunean zehar egiten duena eta horrek pizgarrietan dituen ondorioak jasotzen dira.
 - 2) Egunerokoa – Egunean izandako gatazkak edo gertakari interesgarriak aipatzen dira.
 - 3) Gorabeheren erregistro liburuak.
 - o Ez dago kanpo ebaluaziorik, baina bai Bizkaiko Foru Aldundian kasuaz arduratzen direnekiko harremana.

- Deribazioei dagokienez, eta esan den bezala, gehienak Fiskaltzak egindakoak dira, askotan, familiak aurkeztutako salaketaren ondotik. Larrialdi egoeretan, adingabe bat sartzean zentroak ia ez du informaziorik jasotzen (batzuetan, Ertzaintzaren entrega idazkia baino ez da izaten). Adingabea beste zentro batetik datorrenean, ordea, informazioa nahikoa zabala izan ohi da.
Behar bezala betetzen da egoera aldizka berrikustearen betebeharra (sei hilez behin derrigorrezko txostenak egiten dira) eta adingabe horientzat, 18 urte betetzen dituztenerako, oso emantzipazio baliabide gutxi daudela nabarmentzen da.

- Adingabeen osasunari eta jasotzen duten osasun arretari buruzko datuei dagokienez:
 - o Nahikoa maiz erabiltzen dira botikak, betiere, medikuak hala aginduta eta zentroaren kontrolpean (medikamentuak hezitzaileen gelan daude, giltzapean);
 - o Ohikoa da, halaber, tabakoa erretzea, zentroko zenbait gunetan baimendua;
 - o Arazo larriak daude patologia psikikoak dituzten adingabeen premiei erantzuterakoan (txostenik ez egotea, esku hartzeko ildorik ez egotea, arreta nahikoa ez ematea...), larrialdi egoeretan izan ezik (zentrorra agerraldiren baten ondorioz ekartzea);
 - o la kasu guztietan droga kontsumoa problematikoa da (bereziki, marihuana edo haxixarena, baina baita beste droga batzuen ere, esaterako, kokainarena);
 - o Oro har, jatorrian zuten anbulatorio berean artatzen dituzte.

Alderdi horiei dagokienez, badirudi beharrezkoa dela, adibidez, medikamentuak hartzearen inguruko jarduna eta erregistroa izatea, horren jarraipena egitea hori kontrolatzeko zentrorik ez dagoenean, hezitzaileei medikamentuen erabilera egokiari eta erreakzio posibleei buruzko oinarrizko trebakuntza ematea, historia medikoko datuak babestea...

Antza, beharrezkoa da, halaber, koordinazio soziosanitario hobea izatea, hezitzaileek ez baitute jarraibiderik eta ez dakite zer egin behar duten egoera edo patologia larriei aurre egin behar dietenean (nortasunaren nahasmendua, eskizofrenia, psikosia...). Gainera, Osasun Mentalak (Osakidetza) ez ditu txostenak egiten, epaileak neurri terapeutikoak hartu behar direla aitortu ezean.

- Hezkuntzari buruzko datuei dagokienez:
 - o Batek berak ere ez du eskola graduatua atera;
 - o Adingabe bat bera ere ez dago DBHn eskolatuta. Oro har, 16 urte baino gazteagoak osabidezko hezkuntzan daude eta 16 urte baino zaharragoak lanbide hastapeneterako ikastegietan (LHIK) edo lana bilatzea helburu duten ikastaro laburretan. Nolanahi ere, elkarrizketatutako gazteak ez dira ikasten ari;
 - o 2007-2008 ikasturtean, beharrezkotzat jo ez denez, ez da zentroko bertako gela erabili. Aurretik, Hezkuntza Sailaren mendeko langileen esku zegoen.
- Beste zerbitzu edo eragile sozial batzuekiko harreman eta lankidetzari dagokionez (familia, babes zentroak, Fiskaltza, Ertzaintza...), oro har egokia dela uste da. Hobetu

beharrekoen artean, erreforma baliabideekiko erlazioa (irizpideen arteko desadostasunak eta informazio falta) eta oinarritzko gizarte zerbitzuekiko erlazioa (eskasa) daude. Ez dute informaziorik adingabeak larrialdi kasu gisa sartzen direnean. Orobat erroldatze arazoak daude.

- Besteak beste, datuak babesteko edo espediente pertsonalak kontsultatzeko irizpideak ere aztertu ziren. Nahiz eta espedienteak, eskuarki, zuzendaritza eremuan edo hezitzaileen gelan dauden (hau da, sarbide mugatuko guneetan edo giltzapean), ez dirudi neurriak egokiak direnik datuen konfidentziasuna bermatzeko.
- Oharrei dagokienez, hiru nabarmendu ditzakegu:
 - o Edozein salaketa egin edo kentzeko (eskuarki, alde egin izateagatik edo epez kanpo itzultzeagatik) ertzaingetara joan behar izateak antolakuntzako arazoak eragiten ditu; horren ildotik, faxez egiteko aukera planteatzen da, Ertzaintzarekin aurrez hala adostu ondoren.
 - o Zenbait gaztek, 18 urte bete ondoren ere, zentroan jarraitzen dute, eurek hala eskatuta, eta emantzipazio baliabide gehiago behar dira.
 - o Sistema judizialak denbora gehiegi behar izaten du egindako delituei erantzuteko eta horrek zigorgabetasun sententzia sortzen du adingabeengan.

Eskema hori alde batera utzita, eta zentroan zeuden adingabe eta hezitzaileen lagin batekin izandako banakako elkarrizketen ondoren, honakoak ere hobetu beharreko alderdien artean jaso ditzakegu:

- Janariaren kalitatea (elkarrizketatutako pertsona guztiek adierazitako kexa).
- Garbitasuna (ustez, ez da nahikoa eta, beraz, adingabeek eurek egindako garbiketa lanak osatzea proposatu da; horretarako, garbitzaileak kontratatzea proposatu da, esaterako, astero garbiketa lanak egin ditzaten).
- Telefono linea nahikoa ez izatea. Askok erabiltzen da eta, hori dela eta, zaila da faxak bidaltzea edo Internet erabiltzea.
- Hezitzaileentzako irizpide komunak eta egokiak ezarri eta aplikatu behar izatea adingabeekin dituzten harremanetarako.

Nabarmendu beharrekoak diren beste kezka elementu batzuk ondorengoak lirateke:

- Zenbait adingabek prestakuntzarik ez izatea;
- Arazoak dituzte kontsumoarekin, delinkuentziarekin, auto-erasoekin...;
- Oso deribazio gutxi egiten dira beste etxe funtzional batzuetara;
- Adingabe asko inolako justifikaziorik gabe ateratzen dira zentrotik. Horren ondorioz, aurrezalaketak jartzen dira eta, hala, adingabearen espedientea zaildu egiten da (hain zuzen ere, bisita egin zen egunean 10 bat baino ez zeuden zentroan, teoriarik artatuta dauden 16tik);
- Profil berrietara egokitu behar da, esaterako, larrialdi egoeraren baten ondorioz sartu direnen profilerak, halakoetan koordinazio handiagoa eta informazio gehiago behar baita...

Kontuan izanik, bisita egin zenean, modulu honek beharbada ez zuela jarraituko jokabide arazoak zituzten bertako nerabeak artatzen eta bakarrik zeuden adingabe atzerritarrak hartzen hasiko zela, Arartekoak ofiziozko espediente zuzendu zion Bizkaiko Foru Aldundiari. Bertan, funtsean, hiru alderdi aipatzen ziren:

- Zeintzuk ziren jokabide arazo larriak zituzten nerabeentzako baliabide berriak sortzeari eta haien arretaz arduratzerakoan hobekuntzak egiteari buruz zeuden berehalako aurreikuspenak;
- Zer obra edo egokitzapen egin behar ziren moduluan berriz ere erabiltzen hasi aurretik;
- Nola egingo zen aldaketa (adingabeena, hezitzaileena...) halako inguruabarretan ohikoak izaten diren arazoak saihesteko.

Bizkaiko Foru Aldundiak ofiziozko espediente honi emandako erantzuna irailaren 23an jaso zen; bertan, Zabaloetxe zentroan eta beste batzuetan eman beharreko pausoak adierazi ziren, baita nerabeei laguntzeko sare espezializatuaren berregituratzea ere:

- 12 plazako Zentro/Etxe bat, etxean erasotzaileak izan diren nerabeei laguntzeko.
- 2 Zentro/Etxe, sozializazio arazoak dituzten nerabeei laguntzeko.
- 10 plazako Zentro/Etxe 1, jokabide arazoak dituzten nerabeen arretarako eta kontrolerako Programa Trinkorako.
- 5 plazako baliabide espezifiko 1, beste erakunde batzuekin partekatuta eta Lurralde Historikotik kanpo dagoen zentro batean, substantzia toxikoen kontsumo larria duten nerabeei laguntzeko.

Horrenbestez, guztira 47 plaza egongo lirateke nerabeentzat.

Azkenik, eta lesiodun gorabehera batzuen ondorioz irekitako espediente bati dagokionez (2008ko otsailaren 1ean izandako gorabeherak), Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzuna apirilaren 3an jaso zen, eta, bertan, eskaturiko agiri eta datu guztiak aurkeztu ziren. Horri buruz, jakinarazitakoaren arabera, salaketak auzibidean daude.

Nolanahi ere (ez da ahaztu behar), unitate hau, ezarritakoaren arabera, Zabaloetxen itxi zen, eta bertan lagundutako adingabeak beste baliabide batzuetara eraman ziren.

2) Azpilikueta egoitza-zentrorako egindako bisita (Irun)

2008ko urriaren 17an, Arartekoko langileak 13 eta 18 urte arteko adingabeentzako Azpilikueta harrera zentroa ikustera joan ziren, aurrez ezer jakinarazi gabe. Zentro hori portaera arazoak zituzten nerabeei arreta ematen espezializatutako Programaren barruan dago.

Zentroa Dianova Elkarteak kudeatzen du eta, era berean, Gipuzkoako adingabeentzako beste hainbat harrera zentro kudeatzen ditu.

Bisita egin zen egunean, hartutako adingabeak 8 ziren, 11 plaza dauden arren. 2004az geroztik, alegia, zabaldu zenetik, zentroan guztira 48 adingabe izan dira eta batez beste

urtebetez egon dira bertan (gainbegiratu genituen erregistroko datuen arabera). 2008. urtean, zentroan hartutako adingabeak 18 izan dira.

Bisita egin zenean hartuta zeuden adingabeen gehiengoak 16 edo 17 urte zeuzkan, bik izan ezik, batek 15 eta besteak 18 baitzituzten. Guztira 8 nerabe ziren, horietako zazpi mutilak, eta neska bakarra. Guztira dauden plaza kopurutik beti hiru plaza gordetzen dira bakarrik dauden adingabe atzeritarrentzat, eta besteak EAEko adingabeentzat dira.

Hartutako adingabe gehienak Iturrioz eta Zandueta harrera zentroetatik datoz. Bertan programa terapeutikoko lehenengo fasea egiten da (gutxi gorabehera sei hilabetetik bederatzira irauten du) eta gero bigarren fasea beste zentro batzuetan egiten da, besteak beste, Azpilikuetan. Azpilikuetatik emantzipazio etxebizitzetara edo oinarrizko baliabideen sistemara bidaltzen dituzte, baliabide horietarako itxaron zerrendak direla-eta zailtasunak badituzte.

Adingabe guztiak udalerrian errolatuta daude eta, hortaz, inguruko osasun zerbitzuak erabiltzen dituzte. Gehiengoa inguruko LHIK batera joaten da edo EINren zentro batera. Momentu honetan adingabeetako bi besterik ez daude prestakuntzarik jaso gabe, izan ere, lan bila dabilta.

Zentroan honakoek egiten dute lan: zuzendari batek, psikologo batek, idazkari batek, hiru hezitzailek, bost laguntzailek eta sukaldari batek, lau txanda dituzte antolatzeko, goizez, arratsaldez, gauez eta asteburuetan. 2008 urtean zehar langileek aldaketa asko jasan dituzte, izan ere, urte hasieratik lau langile berri hasi dira lanean eta zuzendaria ere aldatu da.

Eraikuntza hiru solairuko baserria da eta lurrik distantzia batera dago. Beheko solairuan bulegoak, hezitzaileen bainugelak, sukaldea, jakitokia eta garbategia, eta jangela daude; azken horrek bisitentzako gunea du (nerabeek erabiltzeko ordenagailu bat zegoen, baina ez zebilen). Bigarren solairuan logelak daude (binakako lau eta banakako lau) eta lau dutxa, lau komun eta bi konketa. Goiko solairuan, ganbaran, aisiarako eta nerabeak biltzeko gunea dago (sofak, telebista, mahai-futbola, ping-pong, kiroldegiko aparatuak –zakua, horma-barrak...– eta bilera mahai bat).

Gainera, zentroak kanpoaldean oso leku zabala du. Bertan aparkalekua eta jolastokia daude (saskibaloiko saskia eta futboleko atea), baratza eta negutegia, eta mekanika, arotz lanetan etab. aritzeko lantegia.

Oro har, instalazioak ondo zainduta daude eta leku banaketa egokia izateaz gain, giroa eroso da. Zentroak gela guztietan dauzka suteak antzemateko sistemak, larrialdietako irteeraren seinaleak eta su itzalgailuak.

Instalazioetan barrera ibili ginen eta hainbat dokumentu begiratu genuen, hala nola, espediente pertsonal bat, jardueren asteko taula eta 2008ko aste bateko gorabeheren fitxategia. Horrez gain, zuzendariarekin, laguntzaileetako batekin eta zentroan hartutako adingabe batekin bildu ginen.

Helarazitako informazio guztia kontuan hartuta, ondorioztatu dugu zentroko giroa, oro har, ona dela. Izan ere, hezitzaileen eta nerabeen arteko harremana ona da. Dianovaren –hau da, elkarte kudeatzailearen– metodologiaren arabera, badirudi zentroak ez duela barne erregimeneko araudirik. Hartutako adingabe gehienak programa terapeutikoko lehenengo fasetik datozenez, haiekin aurretik hezteko kontratua sinatu da. Zentrorra iristen direnean ez da kontratua eguneratzen, non eta ez den adin nagusikoa eta egonaldia luzatzeko. Kasu horretan, sinatzen den kontratuak nerabeen eskubide eta betebeharrak jasotzen ditu eta baita neurri zuzentzaileak ere.

Edozein kasutan, zentroko araei buruzko informazioa ahoz helarazten da eta adingabeak bidegabeko jarrera duenean, ez da aurretik finkatutako zigor sistema jarraitzen.

Aztertutako agirietatik ondorioztatzen denez, berriz aztertu behar dira adingabeen espedienteak artxibatzeke irizpideak eta informazio hori eskuratzeko aukerak.

Bestalde, orain dela gutxi uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua argitaratu da, gizartean babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako egoitza-harrerarako baliabideak arautzen dituen. Dekretu hori atera ondoren, zuzendariak adierazi digunez, Dianova elkarte zentroko lan metodologia berraztertzen ari da, baita araudi berrira egokitzeke aldatu behar diren kontuak ere. Horiek, gure ustez, batez ere barne erregimeneko araudian edo bizikidetzako gidan agertzen dena bildu beharko dute; besteak beste, zentroan elkarrekin bizitzeko arauak, administrazio erregistroak (erabiltzaileen erregistroa, gorabeheren erregistroa, ezarritako neurrien erregistroa, bisiten erregistroa, botikak administratzeko erregistroa.....)

2) Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak

Babesik gabeko nerabeen artean, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak berariazko ezauzgarri eta beharrianak dituen taldea dira. Horregatik, azken hamaika urteotan, Arartekoak lehenasunezko arreta eskaini die. Horretarako, ofiziozko jarduera anitz, zerbitzuetako profesionalekin eta arduradunekin egindako bilerak, harrera-zentro guztietara egindako aldizkako bisitak, etab. burutu dira. Horren guztiaren berri aurreko urteetako txostenetan eman da.

2005ean jarraipen lanak areagotu egin ziren eta txosten berezia egin zen (*Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn*), eta gero, urtero, bilakaeraren azterketa hori berariazko atal batean sartu dugu urteko txostenetan (ikus, adibidez, atal hau bera 2007. urteko txostenean).

Tamalez, azken urtean ere bakarrik dauden adingabe atzerritarren gaia bereziki problematikoa izan da eta, ondorioz, Arartekoak maiz esku hartu behar izan du oso arlo anitzetan:

- Bisita gehiago egin ditu lurralde historikoetako harrera-zentroetara;
- Egoera problematikoen ondorioz ofiziozko jarduera gehiago buru ditu;
- Bilerak egin ditu harrera-zerbitzuetako arduradun instituzionalekin;
- Etorikinei laguntzeko hainbat elkarerekin bilerak egin ditu eta informazioa trukatu du;

- Prestakuntzako eta gizarte sentsibilizazioko jardunaldietan parte hartu du;
- Tartean diren beste sail edo zerbitzu batzuetara bideratutako ofiziozko jarduerak garatu ditu ...

Hiru jarduketa ildo horien emaitzaren oinarritzko laburpena egingo dugu hemen:

- 1) Hiru foru aldundiei datu orokorrak eskatzea.
- 2) Zentroetara egindako azken bisitaldiak.
- 3) Zenbait gaitan ofizioz egindako jarduketak.

Ondoren, atalez atal garatuko dugu.

1) Foru aldundiei datu orokorrak eskatzea (2008ko jarraipen espedienteak)

Aurreko urteetan bezala, eta dagoeneko informazio zabala eduki arren (jarduketa arruntan bidezkoa), gai honetan ere informazio eskaera egin diogu hiru foru aldundietariko bakoitzari, babes-sistemen arduradun nagusiak baitira, oinarritzko datu batzuk gaurkotzeko. Besteak beste, biztanleria sektore horretarako harrera zerbitzuetan aldaketak sartzen direlako etengabe. Kasu honetan, jarraipen lanak egiteko, gaia konplexua zenez, txostena luzea eta gomendioak ugariak, gomendio bakoitzari buruzko informazio zehatza edo xehatua eskatu ordez, egokiagoa iruditu zitzaigun bilakaera-adierazle gisa edo lehendik geneuzkan beste informazio batzuk osatu eta testuinguruan jartzeko erabilgarriak izango litzazkigukeen kopuruzko zenbait datutan jartzea arreta.

Datu eskaerak Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailari, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari egin genizkien, sektore honetako eskudunak eta arduradun gorenak izaki.

Azken urteko, hots, 2008ko, kopuruzko datuei dagokienez honakoen berri emateko eskatu genuen:

- 1) Sail bakoitzaren mendeko baliabideen sarean egindako aldaketak eta 2008ko abenduaren 31n zuten egoera:
 - Adingabeen esku jarritako baliabideen zerrenda eta horiei buruzko oinarritzko datuak: ahalmena, kokapenak, ezaugarriak, instalazioen egoera, adingabe horien beharrezan erantzuteko egokitasun maila edo ahalmena, berriaz edo soil-soilik beraientzat ez diren beste baliabide batzuen erabilera...
- 2) Baliabideen kudeaketan eta antolaketan egindako aldaketak:
 - Horiek kudeatzeaz arduratzen diren elkarteak edo erakundeak, indarreko hitzarmenen ezaugarriak, ikuskapen mekanismoak, figura profesional berriak, arreta-ratioak, kontratatutako segurtasun zerbitzuak...

3) Artatutako biztanleei buruzko datuak direla-eta:

- Urtean zehar hartutako adingabe "berrien" kopurua (2008an izandako sarrera berriak).
- Urtean zehar hartutako adingabeen kopurua guztira.
- 2008-12-31ra arte hartutako adingabeen kopurua.
- 2008-12-31n emantzipazio baliabideetan zeuden gazteen kopurua.
- Sailek eskura dauden baliabideen erantzuteko ahalmenari dagokionez artatutako biztanle kopuruaren inguruan egindako balorazioa.
- Artatutako adingabeen zenbait ezaugarritan (adina, jatorria, itxaropenak, beharri-zanak...) antzeman izan daitezkeen aldaketa esanguratsuak eta horiek zentroetan eta baliabideen izan dituzten ondorioak.

4) Adingabe horien administrazio egoerari eta erregularizazioari dagokienez:

- Agiriak izapidetzeaz arduratzen diren zerbitzuak.
- Urtean zehar hartutako tutoretza-kopurua.
- Urtean eskatutako bizileku baimenen kopurua.
- Urtean lortutako bizileku baimenen kopurua.
- Bizileku baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera.
- Urtean eskatutako lan baimenen kopurua.
- Urtean lortutako lan baimenen kopurua.
- Lan baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera.
- Sail bakoitzak adingabeak beren familiarekin berriro elkartzeko egin duen eskaera-kopurua eta urtean zehar bere laguntzarekin bideratu diren elkartzeen kopurua.

Datu eta alderdi horiek bazter utzita, txostenak nabarmendu zuen beharrezkoa zela beste administrazio eta sail batzuen laguntza ere. Hain zuzen ere, gure gomendioetako batzuk zehazki beste instantzia batzuei zuzenduta zeuden, esaterako, hezkuntza-administrazioa, osasun sistema, gazteentzako justizia-sistema, polizi zerbitzuak edo udal zerbitzuak (errola, gizarte zerbitzuak...). Eremu horietako batzuetan, Arartekoa ofiziozko jarduerak bideratzen ari da erakunde arduradunen aurrean. Horregatik, informazio osagarri gisa, sail bakoitzari eskatu zitzaion jakinaraz ziezagula zer iruditzen zitzaion aipatu instantzien aldetik jasotzen zuen laguntza eta, bere ustez, zer arlo, arazo edo beharriaz lortu behar litzatekeen haien inplikazio handiagoa nahiz laguntza edo koordinazio handiagoa.

Gainera, lurralde bakoitzean antzemandako egoeraren arabera, egungo mugak gainditze aldera baliabide edo zerbitzu berriak zabaltzeko zeuden aurreikuspenei buruzko informazioa eskatu zen.

Jasotako erantzunak ondorengo orrialdeetan laburbildu dira; horietan agertzen dira lurralde historiko bakoitzeko datu nagusiak, aldaketak eta balorazioak.

1.a. Arabako Lurralde Historikoa

Arabako Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen foru diputatuak gure informazio eskaerari eman dion erantzuna urtarrilaren 16an jaso da eta aipatutako puntuetako bakoitzari buruzko informazioa eskaintzen du. Jarraian, bertan bildutako datu nagusiak laburbilduko ditugu.

1) **Baliabideen sarean egindako aldaketei** eta 2008ko abenduaren 31n zuten egoerari dagokienez:

Sailaren erantzunak 2008an berariazko baliabideen kopuruan egin den gehikuntza zehazten du eta etorkizunean jarduera gehiago burutuko direla dio. Horrela:

- Emantzipazio etxe bat zabaldu da maiatzean, 7 plazakoa, komunitatean txertatua.
- Lehenengo Herrerako Zentroa, Gurutze Gorriaren egoitzetan dagoena (2008ko abenduan 30 plaza), 12 plazatan handitu da; horretarako, gauzak konpondu, hornidura berriztatu eta leku gehiago gaitu dira, adibidez, logelak eta komun gehiago.
- Harrera unitate bat gaitu da behin-behinean, Hospedería de Estibaliz deritzon, eta horrek 24 plaza ditu.
- Herrerako unitate bat gaitu da behin-behinean Casa Loyola deritzon (Gasteiz), eta horrek 8 plaza ditu.
- Gasteizen eraikin bat birgaitzeko proiektua dago, bertan zentro berria egiteko (betearazte fasean, 2009an martxan jartzeko).

Berariazko baliabide horiez gain, ohartarazi da bakarrik dauden adingabe atzerri-tarrak ere babes sareko gainerako etxeetan hartzen direla, beren profilak eta beharizanen programak baliabide egokitzat jotzen badituzte. 2008ko abenduaren 31n, 9 adingabe hartuta zeuden Arabako babes sare orokorreko etxeetan.

Bestalde, egoitzaz kanpoko baliabide gisa, Sailak gogorarazten du GOFEk lankidetzaz hitzarmena sinatu duela Osabidezko Hezkuntzarako Partzuergoarekin, Arabako babes sarean dauden adingabe atzerri-tarrak guztiek, iristen diren garaia edozein dela ere eta arreta alaitzen eskainiko zaiela bermatze aldera, alfabetatzeko, hezkuntza konpentsatzailea jasotzeko eta lanbideren batean hasteko aukera izan dezaten, betiere, derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adinik ez badute.

2) **Baliabideen kudeaketan eta antolaketan egindako aldaketei** dagokienez, honako elementu hauek azpimarra ditzakegu:

- Berariazko baliabide guztiak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak kudeatzen ditu lankidetzaz hitzarmen bidez, lehen hilabeteetan San Frantzisko Saleskoaren Elkartearekin, eta gero, baita beste erakunde batzuekin ere (Ixuri elkarte eta Kolore Guztiak kultura arteko elkarte).

- Programa teknikoki gainbegiratzeko lanak, funtsean, hitzarmenaren jarraipena egiteko eta zentroen eta kasuen jarraipena egiteko aldizkako bileren bidez garatzen dira. Gainera, hitzarmenetan aurreikusitako jarraipen orokorra ere egiten da.

Irudi profesional berriei dagokienez, aipagarria da:

- Baliabide berriak zuzkitu (Aukera emantzipazio etxebizitza eta Estibaliz nahiz Casa Loyola unitateak) eta Zabaltzen zentroko langile kopurua handitu egin da, ekainetik.
- Zaintzaileen irudi profesionalak sartu dira, Zabaltzen zentroko hezkuntza taldeei laguntzeko, eta harrera unitate profesionalak ere sortu dira.
- Foru Aldundiko talde teknikoa indartu egin da, programa honen jarraipenerako pertsona bat jarrita.

3) **Artatutako biztanleei buruzko datuei** dagokienez, oinarritzkoenak honako hauek dira (hemen, aurreko hiru urteetako datuak ere bildu dira, alderatzeak egin ahal izateko):

	2005	2006	2007	2008
– Urtean zehar hartutako adingabe “berrien” kopurua	42	38	41	141
– Urtean zehar guztira hartutako adingabeen kopurua	54	54	59	178
– Abenduaren 31ra arte hartutako adingabeen kopurua	16	16	40	97
– Abenduaren 31ra arte emantzipatzeko baliabidetan zeuden adingabeen kopurua	10	16	11	19

Era berean, hauxe jakin nahi genuela adierazi genuen: sailak berak nola baloratu zuen atenditutako biztanleen kopurua, eskura dauden baliabideen erantzun-ahalmenarekin lotuta.

Sailaren erantzuna luzea izan da puntu honetan: luzaroago eta eragindako administrazio guztiekin gogoeta egitearen alde agertu da. Honako hau adierazi du, hitzez hitz:

“En cuanto a la valoración de este punto es preciso contextualizar la respuesta desde una perspectiva de racionalización y planificación de los recursos, perspectiva esperable en un espacio (Álava, CAPV, Estado) y tiempo (Siglo XXI) en el que la acogida inesperada de más de 150 menores en un año, debe de hacer reflexionar más allá de los recursos disponibles y dispuestos por esta Institución Foral y sobre su capacidad de respuesta, reflexión que debe de ser abordada por el conjunto de instituciones responsables en la materia, de forma que se posibilite una intervención acorde con la planificación y racionalidad con que se desarrollan otras actuaciones dentro del conjunto de los sectores en riesgo y desprotección.

Es decir, factores derivados de:

- *Imprevisibilidad de la afluencia*
- *Desconocimiento del número de chicos y chicas que deciden ser acogidos en Álava.*
- *La progresión al alza de la demanda, muy significativa en 2008, que supone un incremento del 200% con respecto al año 2007 (178 menores atendidos en 2008 frente a 59 en 2007).*
- *La imposibilidad de trabajar desde una vertiente preventiva (factor clave en la filosofía de protección a la infancia),*

generan situaciones en las que la planificación y dotación de los recursos están sometidos a factores ajenos a los servicios sociales poniendo al límite la capacidad de respuesta, máxime cuando la acogida no sólo es un factor de voluntad si no de medios reales dentro de multiplicidad de necesidades, de apoyo interinstitucional y de desarrollo práctico de conciencia social. El inmenso esfuerzo realizado en 2008 por la Diputación Foral de Álava resulta insostenible, siendo necesario un planteamiento de planificación interautonómico, y a nivel del Estado español, para un adecuado equilibrio entre la atención a este colectivo de menores y a la atención igualmente del resto de necesidades de protección infantojuveniles."

Adingabeen ezaugarrietan ikusitako aldaketei dagokienez, aldaketak baino gehiago iaz adierazitako ezaugarri batzuk finkatu egin direla egiaztatu da:

- Ginea Konakryko Errepublikako pasaporteak duten gazte kopuruak gora egin du;
- Sahararik beherako eskualdeetako gazte asko Kanarrietan egondakoak dira, aldeaz aurretik;
- adingabe magrebtarren artean familia babes handiagoa dago (ahaideak lurraldean edo estatuan, eta horiek gazteok zentroan sartzea errazten dute).

4) **Adingabe horien administrazio egoerari eta erregularizazioari** dagokienez, aurkeztutako datuak, funtsean, honako hauek dira:

	2005	2006	2007	2008
Urtean zehar hartutako tutoretza-kopurua	16	12	25	41
Eskatutako bizileku baimenen kopurua	13	12	17	36
Lortutako bizileku baimenen kopurua	7	11	11	30
Bizileku baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera	7 hilab.	urte 1	urte 1	80 egun
Eskatutako lan baimenen kopurua				
egoitza-harreran dauden gazteak	1	1	1	1
jarraipen lanen xede diren gazteak	6	1		
Lortutako lan baimenen kopurua				
egoitza-harreran dauden gazteak	1	1	0	1
jarraipen lanen xede diren gazteak	6	1		
Lan baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera	20 hilab.	28 hilab.	hilab. 1	425 egun

	2005	2006	2007	2008
Sailak adingabeak beren familiarekin berriro elkartzeko egin duen eskaera-kopurua	–	–	0	0
Sailaren laguntzarekin bideratu diren elkartzeen kopurua	–	–	0	0

Datu horiek behar bezala interpretatzeko, komeni da, gutxienez, ohar hau: Bizileku edo lan baimena lortzeko behar den batez besteko denborari buruzko datuetan antzeman diren aldeak 2007an irizpideetan egin zen aldaketari baino ezin zaizkio zor. Ziurrenik, eskaera egiten denetik erantzuna jaso arte igarotzen den denbora da. Guri, ordea, egokiagoa iruditu izan zaigu beti harrera egiten denetik aipatu baime-nak lortzen diren arte igarotzen den denbora kontabilizatzea.

Agiriak izapidetzeaz arduratzen direnei dagokienez (hau lurralde bakoitzean aldatu egiten baita), Araban zentroek eurek egiten dute eta, horretarako, Adingabekoen eta Familiaren Arloko eta Helduko lege aholkularien laguntza baliatzen dute. Zaintzak (49 2008an) eta tutoretzak (41) Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak bideratzen ditu.

- 5) Sailak **erakunde arteko koordinazio eta lankidetzari** eta beste instantzia batzuen inplikazio handiagoa behar luketen beharrez edo arazoez egiten duen balorazioa dela eta, oro har ontzat jotzen duela erantzun du, baina, bere ustez, hobetu daiteke-ela.

Hobetzeko beharrak argi azaltzen honako paragrafoan:

“ Si bien alguna de las posibles limitaciones que encontramos pudieran derivarse de limitaciones en la dimensión y disponibilidad de los recursos que otras instituciones tienen (plazas en centros formativos, escolares, servicios municipales de ocio, plazos radiodiagnóstico), también es necesario señalar cómo en orden a la debida atención de los derechos de estos jóvenes y organización de los recursos sería necesario que todas las instituciones respondan con la misma inmediatez que se exige a los servicios de protección a la infancia, a fin de favorecer la integración formativo/escolar, el diagnóstico radiológico para la determinación de la edad ósea, la disponibilidad de espacios de ocio, deporte, incremento de los programas de integración social llevados a la mayoría de edad (alojamiento, inserción).

Concretando, se ve la necesidad de desarrollar políticas que desde la concepción integral y diacrónica del proyecto vital de estas personas generen programas de integración social que posibiliten un itinerario de inserción de cada joven, itinerario que si bien se iniciará en el ámbito de protección de menores deberá de complementarse y completarse desde el resto de sistemas (Sanidad, Educación, Servicios Sociales Generales y Básicos, etc), potenciando protocolos formativos, de integración laboral, empleo y alojamiento que den sentido y continuidad a la acción iniciada desde el ámbito de protección.”

Horri dagokionez, Arabako Foru Aldundiak hobekuntza behar duten alderdiak adierazi ditu, berariaz:

- hezur adinaren balorazio fidagarria eta homogeneoa ezartzea, AAEE guztietarako;
- autonomien arteko esku hartze protokoloak ezartzea, gazteen mugikortasunaren jarraipena eta azterketa egiteko;
- erakundeen arteko hausnarketa egitea, polizia aipamenetan jasotako datuen azterketan sakondu behar izateari buruz.

6) **Baliabide edo zerbitzu berriak zabaltzeko nahiz zentroaren egungo kokapenak dituen mugak gaingintzeko egin diren aurreikuspenak.**

Lehen puntuari adierazitakoaren arabera, Gasteizen zentro berri bat zabaltzeko asmoa dute.

1.b. Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak gure informazio eskaerari emandako erantzuna 2009ko urtarrilaren 14an iritsi zen, posta elektronikoz aurreratutako bertsioan. Azalduz gero, gai bakoitzari erantzun dio eta, erantsitako agiri gisa, Bizkaian dauden berariazko zentroyen zerrenda bidali digu.

Hemen, txosten honen baitan kontuan hartu ditugun eta aztertzen ari garen alderdiekin erlaziorik zuzenena duten datuak atera eta laburbilduko ditugu:

1) **Baliabideen sarean egindako aldaketei** eta 2008ko abenduaren 31n zuten egoerari dagokienez:

Jakina denez, bereziki 2001etik aurrera, bakarrik dauden adingabe atzerritarren arretarako baliabideak gehitzen joan dira eta beharizan berrietara egokitzen saiatu dira, batez ere Bizkaiko Lurralde Historikoan. Lurralde horretan azken urtean egin diren aldaketa nagusiak honako hauek izan dira:

- Apirilean bi unitate erdi autonomo abiatu dira (Aita Patxi eta Autonomia); bakoitzak 6 plaza ditu, eta aurrekoen eredu bera.
- Uztailen 30era murriztu da El Vivero egoitzako plaza kopurua. Aldi berean, Deusto egoitza ireki da, eta horrek 25 plaza ditu.
- Irailean 18 plazako modulu batean handitu da Zabalotxe egoitza.

Hala, beraz, 2007an zehar (ikus 2007ko txostena) nahiz azken urte honetan, Bizkaian adingabe horiei eskaini zaizkien harrerarako baliabideak zabaltzen joan dira, honako koadro honetan laburbil daitezkeen konfigurazioa izatera heldu arte:

BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ATZERRITARRENTZAT BERARIAZ DIREN BIZKAIKO BABES SAREKO ZENTROEN ZERRENDA (2007ko abendua)									
Zentroa	Kudeaketa	Erakundea	Plazak	Hartutako adingabe kop. (2008-12-31ean)	Taldearen ezaugarriak	Udalerrria	Hasierako data		
ZABALOETXE egoitza-zentroa	GUFerekin sinatutako hitzarmena	HIRUGARRENDAR KAPUTXINDAK	90	90	Mutilak, 12 eta 18 urte bitartekoak	LOIU	2000ko ABUZTUA ⁽¹⁾⁽²⁾		
ZORNOTZA LEHENENGO HARRERARAKO ZENTROA		LANDALAN	50	50	Mutilak, 12 eta 18 urte bitartekoak	ZORNOTZA	2006ko OTSAILA ⁽³⁾		
ZURBARAN B.U.	Publikoa	GUFE	13	13	Mutilak, 12 eta 18 urte bitartekoak	BILBAO	2005eko EKAINA ⁽⁴⁾		
MINA DEL MORRO B.U.	Publikoa	GUFE	12	12	Mutilak, 12 eta 18 urte bitartekoak	BILBAO	2006ko EKAINA ⁽⁵⁾		
AUKERA heziketa-zentroa		BERRITZU	14	14	Mutilak, 12 eta 18 urte bitartekoak	BARAKALDO	2006ko MAIATZA		
MINA DEL MORRO unitate erdi-autonoma	Publikoa	GUFE	6	6	Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak	BILBAO	2006ko EKAINA		
SAN IGNACIO unitate erdi-autonoma	Publikoa	IFAS	6	6	Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak	BILBAO	2007ko ABUZTUA ⁽⁶⁾		
CASA DEL MAR unitate erdi-autonoma	GUFerekin sinatutako hitzarmena	HIRUGARRENDAR KAPUTXINDAK	10	10	Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak	SANTURTZI	2006ko IRAILA		
BASAURI unitate erdi-autonoma	Publikoa	GUFE	6	6	Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak	BASAURI	2007ko AZAROA		
SAN ADRIÁN unitate erdi-autonoma	Publikoa	GUFE	6	6	Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak	BILBAO	2007ko AZAROA		
AITA PATXI unitate erdi-autonoma	GUFerekin sinatutako hitzarmena	URGATZI	6	6	Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak	BILBAO	2008ko APIRILA		
AUTONOMIA unitate erdi-autonoma	GUFerekin sinatutako hitzarmena	URGATZI	6	6	Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak	BILBAO	2008ko APIRILA		
EL VIVERO LARRIALDIETARAKO ZENTROA	GUFerekin sinatutako hitzarmena	URGATZI	30	24	Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak	GALDAKAO	2006ko URRIA ⁽⁷⁾		

BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ATZERRITARRENTZAT BERARIAZ DIREN BIZKAIKO BABES SAREKO ZENTROEN ZERRENDA (2007ko abendua)								
Zentroa	Kudeaketa	Erakundea	Plazak	Hartutako adingabe kop. (2008-12-31ean)	Taldearen ezaugarriak	Udalerrria	Hasierako data	
DEUSTO EGOITZA ZENTROA	GUFerekin sinatutako hitzarmena	URGATZI	25	37	Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak	BILBAO	2008ko UZTAILA	
EL GARMO EGOITZA ZENTROA	GUFerekin sinatutako hitzarmena	URGATZI	24	20	Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak	ARTZENTALES	2007ko APIRILA ⁽⁶⁾	
IZURZA EGOITZA ZENTROA	GUFerekin sinatutako hitzarmena	LANDALAN	20	20	Mutilak, 12 eta 18 urte bitartekoak	IZURZA	2007ko ABUZTUA	
Etxeen oinarritzko sarea				29				
Familia batekin dauden adingabeak				4				

¹ Orduan hasi zen bakarririk dauden adingabe atzerritarrek hartzeko berariazko proiektu gisa, nahiz eta 1996az geroztik hartzen dituen halako adingabeak

² 2008ko iraillean 18 plazako modulu berri bat sortu zen

³ Aurretik BERRIZEN kokatuta egon zen 2005eko urriaz geroztik

⁴ Aurretik Larrako-Torren kokatuta egon zen 2004ko ekainaz geroztik

⁵ Aurretik San Adrianen kokatuta egon zen 2004ko ekainaz geroztik

⁶ Aurretik Landalanek kudeatua 2005eko ekainaz geroztik

⁷ 25 plaza 2008ko uztailetik


⁸ 18 plaza 2008ko uztailetik

Zerrendan agertzen diren plazetan ez ezik, bakarrik dauden zenbait adingabe atzeritar zentro eta etxeen oinarrizko sarean (espezializatu gabekoan) hartuta daude; hauetan gutxi gorabehera bi bat adingabe atzeritar daude.

- 2) **Baliabideen kudeaketan eta antolamenduan egindako aldaketei** dagokienez, Sailak emandako erantzunaren arabera, ez da aldaketa adierazgarriarik egon, eta, horrenbestez, iazko informazioa eman da (hain zuzen ere, hitzarmenak, hezkuntza proiektuak eta agiri osagarriak); iazko txostenean horri buruzko informazio zabalagoa eman genuen.
- 3) **Lagundutako biztanleriari buruzko datuen** aldetik, azken erantzunean 2008ko abenduaren 31n gaurkoturiko datuak ematen dira, eta horiek, konparazioa errazteko, hemen jaso ditugu, aurreko urteetakoekin batera:

	2005	2006	2007	2008
Urtean zehar hartutako adingabe "berrien" kopurua	365	471	442	440
Urtean zehar guztira hartutako adingabeen kopurua	461	610	707	776
Abenduaren 31ra arte hartutako adingabeen kopurua	141	265	332	336
12-31n/12-20n emantzipazio baliabideetan zeuden adingabeen kopurua	112	42	71	Jasotzeko dagoen datua

Azken urteko sarrerei buruz, honako grafiko honetan ikus daiteke horien bilakaera:



Datuetan ikus daitekeenez, sarrera berrien maila aurreko bi urteetakoekin oso antzekoa izan da (urte haiek izan ziren sarrera kopuru handienekoak historia osoan). Datuok beste lurralde batzuetakoekin alderatuta, argi ikusten da Bizkaiko Foru Aldundiak ahalegin handia egin duela harrerarako baliabideak ezartzen. Horren

haritik, interesgarria da oso sail horretako arduradunek eurek egindako balorazioak ezagutzea.

Kasu honetan ere Sailari eskatu genion eskura dauden baliabideen erantzuteko ahalmenari dagokionez artatutako biztanle kopuruaren inguruko balorazioa egin zezala. Sailak aurreko bi urtekoen osagarritzat jo daitezkeen gogoeta batzuk biltzen ditu.

Gogora dezagun, orain dela bi urte, egoera oso larria zela zioela (*"Bizkaiko lurralde historikoan sortu diren sarreren kopurua etengabe eta arian-arian haziz joan da eta, horrela, haurren babes sistema egoera larrian dago, bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoitzetako harrerarako baliabideen aldetik. Adingabe hauek artatzen dituzten zentroak gainezka daude, erabat, eta batzuk aurreikuspenetatik gora bete dira."*); beste leku batzuekin alderatzeko datuak eskaini zituen, adingabeak leku batetik bestera mugitzearen fluxuetan eragina zuten faktoreak aipatu zituen eta, amaitzeko, adierazi zuen zerbitzuak berak edo harrera-sareak zailtasun handiak zituela gero eta eskaera handiagoari erantzuteko edo baliabide berriak sortzeko (ikus 2006ko txostena, azpiatal honetan bertan).

2007an ere kezka eta politika koordinatuak aplikatu beharra adierazi zuen (2007ko txostena, atal honetan bertan); azken idazkiak ere ildo berean sakondu du; hori argiago gelditzeko, txosten horren paragrafo batzuk jaso ditugu hitzez hitz:

"En Bizkaia, el 50% de la atención a menores en situación de Acogimiento Residencial es destinada a estos menores, llegando a superar el 80% si comparamos en el grupo de edad y sexo correspondiente. A lo largo del año 2008, como puede observarse en los datos remitidos, se han incrementado también los recursos existentes. Aun así, las posibilidades de respuesta adecuada son en muchas ocasiones limitadas.

Se considera que se sigue sin resolver el efecto que esta atención tiene en el propio fenómeno en sí, el consecuente incremento incesante de servicios que dicho fenómeno obliga a programar y la contradicción de principios de actuación con el propio Sistema de Protección que es quien debe ofrecer la atención.

Sigue siendo necesario consensuar políticas coordinadas y coherentes entre Comunidades Autónomas y dentro de las mismas y es necesario asimismo explorar Programas preventivos que traten de no perpetuar el fenómeno de la inmigración infantil clandestina."

Eta azken urte honetan ikusitako joerei dagokienez, Hegoaldeko Saharatik datozen pertsonen kopurua nabarmentzen da eta zalantzan jartzen da haien adingabetasuna. Kontu hori, geroago ikusiko dugunez, beste lurraldeetan ere eztabaida eta arazo iturri izaten ari da. Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak hauxe adierazi du hitzez hitz:

"Estas personas poseen pasaporte legal que indica su minoría de edad. Sin embargo, las evidencias físicas de dichas personas, y en algún caso las pruebas forenses realizadas demuestran que son personas mayores de edad. Hasta la fecha de la realización del presente informe, este Servicio de Infancia considera a estas personas 'menores de edad', pero resulta evidente que es necesario

clarificar esta situación. Cuestión esta de la que están informadas todas las entidades implicadas, Policía, Fiscalía de Menores, Fiscalía de Extranjería, etc."

- 4) **Adingabe horien administrazio egoerari eta erregularizazioari** dagokienez: Berriz gogorazi da adingabeen dokumentazioaz arduratzen den zerbitzua Gizarte Ekintza Saileko Haurren Zerbitzua dela, nola zuzenean hala Bizgarriren bidez. 2008ri dagozkion datuak honako hauek dira (aurreko urtekoak ere ematen ditugu, alderaketa errazteko):

	2007	2008
Urtean zehar hartutako tutoretza-kopurua	221	225
Urtean eskatutako bizileku baimenen kopurua	202	225
Urtean lortutako bizileku baimenen kopurua	101	175
Bizileku baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera		
Heldu zirenetik	14 hilabete	12,93 hilabete
Eskatzen denetik	4,5 hilabete	4,75 hilabete
Urtean eskatutako lan baimenen kopurua	12	23
Urtean lortutako lan baimenen kopurua	8	20
Lan baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera	2 hilabete	3,5 hilabete
Sailak adingabeak beren familiarekin berriro elkartzeko egin duen eskaera-kopurua	- (*)	- (*)
Urtean zehar bere laguntzarekin bideratu diren elkarteen kopurua	0	0

* Adingabeak familiarekin berriro elkartzeari dagokionez, berriro adierazi da "*berehalako arretari buruzko foru aginduetako bakoitzean Gobernuaren Bizkaiko Ordezkaritzari eskatu zaiola, lege ordenamenduarekin bat etorriz, adingabea familiarekin berriro elkartzeko prozedurari ekin diezaiola. Tutoretzari buruzko foru aginduetan, Gobernuaren Ordezkaritzari eskatzen zaio adingabea familiarekin berriro elkartzeko espedientean egindako gestioen emaitza jakinaraz diezaiola Sailari*".

- 5) **Sailak beste instantzia batzuen laguntzari** eta inplikazio handiagoa edo koordinazio hobea behar luketen arazo edo beharrei buruz egiten duen **balorazioari** dagokionez.

Sailaren erantzunak dio hainbat instantziarekin maiz harremanak izaten jarraitzen duela; besteak beste, honakoekin: hezkuntza-sistema, osasun sistema, Fiskaltza, udalerrak, Ertzaintza, Poliziaren Buruzagitza Nagusia, gazteen justizia, kontsulatueak, Eusko Jaurlaritzaren eta EAEko beste foru aldundi batzuk, Gobernuaren Ordezkaritzaren, beste autonomia-erkidego batzuetako administrazioak, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, Arartekoa bera...

Dienez, harreman horiek usu egokiak izan dira eta, gehienetan, arazoei ados jarrita aurkitu nahi izan zaie irtenbidea. Hala ere, adierazi du oraindik konpondu ezin izan diren zenbait zailtasun edo hobetu egin behar diren zenbait alderdi daudela. Ikuspegi horretatik, honakoak aipatu ditu:

- Adingabeei buruzko datuak lortzeko Poliziaren Buruzagitza Nagusiarekin izaten diren komunikazioak arindu behar dira, haien jatorriari buruzko informazioa

azkarrago hel dadin eta, horrela, irtenbide eraginkorragoak aplikatu ahal daitezten. Prozesu berean gainerako autonomia-erkidegoek eta babes erakundeek ere parte hartu eta lagundu behar dute.

- Adin nagusitasuna finkatzeko auzitegiko izapideak arindu behar dira.
- Zenbait udalerritan zailtasunak daude adingabeen erroldatzea kudeatzeko.
- Hezkuntza-sistemarekin koordinazioa dezente hobetu da, adingabe horien eskolatzea modu koherentean antolatze aldera, bereziki, derrigorrezko eskolatzeari adinean daudenean, baina arazoak daude urritik aurrera (hau da, ohiko matrikulazio-epetik kanpo) matrikularik onartzen ez duten lanbide hastapenerako zentroetan.
- Dokumentazioa izapidetzeko kontsuletxeak Bilbotik kanpo daude eta, kasu askotan, izapidetzeak langileak falta direlako atzeratzen dira.

Gai horietako batzuk lehen ere azaldu ziren. Aurten, ordea, batez ere beste lurralde edo erkidego batzuekiko koordinazioarekin zerikusia duten alderdiak azpimarratu dira:

- *“Se siguen constatando diferentes criterios de intervención y dificultades de coordinación entre las Comunidades Autónomas del Estado, e incluso dentro de nuestra propia Comunidad entre los tres Territorios Históricos, que ocasionan retrasos o incoherencias en las tramitaciones administrativas correspondientes.*
- *Los menores llegados a Bizkaia proceden en su mayoría de otras Comunidades Autónomas, donde han permanecido en sus centros de acogida, o con sus familiares. Sin embargo, la constatación de este dato no supone la facilitación del retorno a sus centros de origen, donde en la mayoría de los casos ya se han iniciado los trámites administrativos regulados por ley.*
- *En estas Comunidades Autónomas no se reseñan los menores, lo que provoca un desconocimiento de su situación legal y documental cuando los menores se mueven por el Estado.*
- *Existe una falta de clarificación respecto a cómo proceder con menores que llegan a un determinado lugar, pero que por diferentes razones desean o deciden trasladarse a otro, continuando su periplo migratorio.”*

6) **Baliabide edo zerbitzu berriak zabaltzeko edo erabiltzeko** nahiz egun daudenak hobetzeko egin diren aurreikuspenak eta horiek egiteko aurkitzen duen laguntza. Hemen, Sailak gogorarazi du baliabide edo zerbitzu berriak zabaltzea arreta behar izateak, aurrekontuan diru nahikoa egoteak eta leku jakin batzuetara heltzeko aukera izateak baldintzatzen dutela eta adingabeen egoitza-harrerarako baldintza egoiak betetzen dituzten baliabide berriak zabaltzea oso zaila dela, bai leku arazoak daudelako bai gizartearen gaitzespena eragiten dutelako. Gai hori geroago landuko da, Arartekoak hainbat kasutan esku hartu du eta.

7) **Emantzipazio programak**

Gizarte Ekintza Sailak, iazko erantzunean, Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusitik bultzatutako emantzipazio programei buruzko berariazko txostena sartu zuen

(Mundutik-Mundura proiektua, gazte etorkinak emantzipatzekoa). Programa horiek, pixkanaka, asko garatu dira Bizkaian; programa horiei balio handia eman die beti Ararteko erakundeak.

Kasu honetan, ez du datu osagarririk eman, txosten hau ixteko egunera arte behintzat. Hortaz, iazko txostenean jasotako datuak gogoratuko ditugu hemen:

- Guztira artatutako gazte kopurua: 138 (2005), 167 (2006).
- Abenduaren 31ra arte guztira artatutako gazteen kopurua: 112 (2005), 42 (2006), 71 (2007).
- Helburuak betetzea: 89 (2005), 75 (2006).

1.c. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

2007. urtetik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundian 2007an egin zen berrantolaketarekin bat etorritik, haurrak babestearen arloko eskumenak Gizarte Politikako Departamentuan bateratu ziren.

Departamentuaren erantzunak (posta elektronikoz aurreratu zizkigun datuak, 2009ko urtarrilaren 16an) guk azalduetako kontuetako bakoitzari buruzko informazioa eskaintzen du eta, zenbait datu ematean, zentroz zentro zehaztera iristen da.

Ondoren, jasotako informazioa laburbilduko dugu, lurralde bakoitzerako erabilitako eskemari jarraiki.

- 1) **Harrerako baliabideen sarean egindako aldaketei** eta baliabideok 2008ko abenduaren 31 duten egoerari dagokionez, baliabide bakoitzari buruzko informazio zehatza eman du (erakunde kudeatzailea, plaza kopurua, betetako plaza kopurua, lagundutako taldea, etorkizuneko aurreikuspenak...), eta, gainera, aditzera eman du 2008an sarea dimentsionatzeko ahalegin itzela egin duela, bi helbururekin: alde batetik, sarea eskari errealerara egokitzea; bestetik, egoitza harrerako zentroak arautu dituen 131/2008 dekretuan ezarritakora egokitzea. Jasotako datuen arabera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako baliabide sareak, Gipuzkoan, honako elementu hauek ditu:
 1. Urgentziazko harrera programarako: 5 zentro (Tolosa, Errenteria, Deba, Eskoriatza eta Zumaia), eta zenbait plaza harrera sareko zentroetan (Loiztarian eta Zikuñaga); gainera, familia baten ardurapean hartutako adingabe bat. Guztira, urgentziaz hartutako 84 adingabe.
 2. Oinarrizko programa orokorrerako: 17 zentro eta harrera etxebizitza, honako udallerri hauetan: Lezo, Legorreta, Urretxu, Azpeitia, Arrasate, Errenteria, Beasain, Zizurkil, Hondarribia, Tolosa eta Donostia. Guztira, abenduaren 31n, zentro horietan 72 adingabe zeuden.
 3. Emantzipazio programarako: hiru emantzipazio etxebizitza (Arrasaten eta Zaldibian), baita ostatuak ere (18 plaza). Guztira, 29 adingabe hartu dira programa honetan.

4. Jokabide arazoak dituzten nerabeentzako programa espezializatueterako: lurraldean bertan kokaturiko 5 zentro, eta beste batzuk Nafarroan, Bartzelonan, Murtzian, Madrilan eta Kantabrian (9 plaza). Guztira, abenduaren 31n, programa honetan 36 adingabe.

Aipagarria da aldaketak etengabeak direla baliabide sarean. Adierazitako baliabide batzuk sorberriak dira; baina beste zenbait, adibidez, Tolosa eta beste ostatu batzuk, "2009ko hasieran" itxiko direla dago aurreikusita.

2) **Baliabideen kudeaketan eta antolamenduan egindako aldaketei** dagokienez, Sailaren erantzunean programa bakoitzeko garrantzitsuenak adierazten dira. Horrela:

- Urgentiako harrera programan, aditzera ematen da laster zentro berriak irekiko direla Donostian (Ubako konplexua, 2 zentrotan eta 34 plazarekin) eta Debako eskualdean (24 plaza); biak kontratazio fasean daude eta euren agirietan (erantzunean esaten denaren arabera) "aldaketa garrantzitsuak egin dira, orain arte egiten den esku-hartzeari dagokionez, eta hezkuntza ratioetan eta esku hartzen duten beste langile batzuen arloan ere aldaketak egin dira".
- Oinarrizko harrera programan 2008ko azken hiruhilekoan irekitako lau zentro berriak aipatzen dira, baita 2009an beste bi zentro berri irekitzeko aurreikuspenak ere. Hala eta guztiz ere, esaten da, zentro espezifiko berriak ireki arren, oraindik ere bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzat bi plaza edukitzeko irizpidea mantentzen dela, oinarrizko sareko harrera zentro bakoitzean; horren adibidetzat, Bergarako zentro berria aipatzen da.
- Emantzipazio programari dagokionez, sorturiko zailtasun batzuk gainditzeko asmoz, Oviedoko unibertsitateari (Gipuzkoako Foru Aldundia lankidetzan ari da unibertsitate horrekin) programa berriro zehazteko eskatu zaio.
- Eta programa espezializatuan pauso kuantitatibo eta kualitatibo garrantzitsutzat baloratzen da bi zentro berri irekitzea (Iturriotz Azpi eta Añorga).

Aldaketa horiek ez ezik, programa bakoitzean garrantzi handiagoko edo txikiagoko beste hiru daude, eta horiek eragina dute edo izango dute, etorkizun hurbilean, adingabeen harreran:

- 1) Gipuzkoan, bakarrik dauden adingabe atzerritarren arreta osoaren kudeaketa ikuskatzea, kudeaketa hori Horbel kooperatibari emanda; funtzio zabalak eman (koordinazioa erakundeekin, txostenen tramitazioa, kasuen jarraipena, aholkularitza, datuak gaurkotzea...) eta, gainera, indartu egin da giza talde arduraduna.
- 2) Zinpeko jagoleen zerbitzua ikuskatzea, horiek orain arte mantendu dituzten bi zentroetan, eta horiek ezabatzea, urgentziako harrera-zentro berriak irekitzen direnean.
- 3) Bakarrik dauden eta arreta Gipuzkoako Foru Aldundian jasotzen duten adingabe atzerritarren beharrezanaren ikerketa eta ebaluazioa egitea; hori Oviedoko unibertsitateak eskatu du, eta ondorioak erabilgarriak dira 2009an bakarrik dauden adingabe atzerritarren arretarako Plan berria garatzeko.

3) **Artatutako biztanleei** buruzko datuak direla-eta, globalak honako hauek dira:

	2005	2006	2007	2008
Urtean zehar hartutako adingabe "berrien" kopurua	134	153	156	225
Urtean zehar guztira hartutako adingabeen kopurua	155	202	254	371
Abenduaren 31ra arte hartutako adingabeen kopurua	49	98	146	221

Sarrera berriei buruzko datuek, ikusten denez, hazkunde handia adierazten dute azken urtean. Hala ere, Sailak bere idazkian adierazitakoaren arabera: *"Estos datos de incremento constante deben ser, además, cruzados con otros factores muy importantes, como son el de la permanencia de los menores en nuestro sistema y el de la media de edad de los mismos. Es conocido que el índice de permanencia en el sistema alcanza en estos momentos prácticamente un 70% y que la edad media de los menores ingresados es de 15,4 años. Por ello, el número de menores atendidos mantiene una muy fuerte tendencia al alza."*

"Se ha producido, por lo tanto, un incremento muy importante en las entradas de menores que llegan a Gipuzkoa que, unido a la permanencia en los recursos, ha tenido como consecuencia que las cifras de menores atendidos acogidos (puntual y acumulado) se han disparado."

Jatorriari dagokionez, gehien-gehienak marokoarrak dira, hain zuzen ere, Tanger zonakoak.

Sailak Lortuz programari buruzko datuak ere ematen ditu; programa hori 2008ko maiatzean abiatu zen, gizarte bazterkerian edo horren arriskuan zeuden gazteen emantzipaziorako. Programa Gizarteratze eta Lan Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen du, eta plaza kopurua 72ra arte handitu da. 2008an programan parte hartzen zuten 77 gazteetatik 37 gazte atzerritarrak ziren, gehien-gehienak babes sistematik iritsitakoak.

4) **Adingabe horien administrazio egoerari eta erregularizazioari** dagokienez, honakoa aipatu behar dugu:

- Zenbait dokumentu izapidetzea baliabideak kudeatzen dituzten erakundeei euri dagokie (errola-ziurtagiria, OTI, pasaportea, etab.). Beste batzuk izapidetzea (adibidez, tutoretza-proposamenak edo bizileku-baimena) Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio (Horbel enpresako teknikarien laguntzarekin).
- Oraindik ere behin-behineko tutoretzak nabarmentzen dira; horiek berretsi egiten dira ondoren, behin babesik gabeko egoera egiaztatuta. Hona hemen azken urteotako datuak:
 - 2005. urtea: behin-behineko 53 tutoretza, berretsitako 27 tutoretza.
 - 2006. urtea: behin-behineko 112 tutoretza, berretsitako 81 tutoretza.
 - 2007. urtea: behin-behineko 74 tutoretza, berretsitako 69 tutoretza.
 - 2008. urtea: behin-behineko 120 tutoretza; berretsitako 110 tutoretza.

- Bizileku baimenen eskaerei dagokienez: larrialdietarako baliabideek 45 eskaera egin dituztela. Horietatik, guztira 39 lortu dira. Ez da daturik eman horiek lortzeko behar izan den batez besteko denboraz.
- Lan baimenei dagokienez, eskatutakoak 15 izan dira eta 10 lortutakoak; batez besteko denbora: ez da daturik eman.
- Familiarekin berriz elkartzeari buruzko daturik ere ez da eman.

Atal honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzunean, azken urtean egindako hezur proben kopurua agertzen da (210 proba); horri dagokionez, hartutako neurrien garrantzia eta eragina kontuan hartuta, urte horretan aldatutako bi elementu nabarmentzen dira:

- adina zehazteko protokoloa;
- entzunaldi tramitea.

Lehenengo alderdiari dagokionez, 2008ko otsailaren 19an ezarritako irizpide berriak biltzen dira, Gipuzkoako Probintzia Entzutegiak 2007ko abenduaren 18an emandako epaiaren ondoriozkoak. Alderdi hau geroago aztertuko dugu, arartekoak horri buruzko espediente espezifikoa egin baitu.

Eta, bigarren alderdiari dagokionez, hauxe esaten da hitzez hitz: "*con el fin de asegurar que en todos los casos se respetan los derechos que asisten a las personas menores de edad e incrementar la transparencia en la información, se han dado instrucciones muy concretas a todos los centros de protección sobre el procedimiento que tienen que seguir para notificar a los menas las Órdenes Forales que se dicten. En concreto, los siguientes derechos:*

- a) *Derecho a ser informado sobre las medidas adoptadas en relación a su persona y sus posibles consecuencias, en un lenguaje que entiendan y adaptado a su nivel y capacidad de entendimiento (si fuera necesario con la asistencia de un/a intérprete/a).*
- b) *Ser oídos en relación a las medidas adoptadas.*
- c) *Defender sus derechos, si no están conformes con las medidas adoptadas, contando en el momento de la notificación de la Orden Foral con la asistencia de un/a Letrado/a del Turno de Extranjería que les pueda prestar asesoramiento jurídico independiente al de la Entidad Pública y recurrir, en su caso, las medidas (que será el/a Letrado/a que se ha personado en el expediente administrativo de protección como representante del menor o un/a Letrado/a de nueva designación, en otro caso)."*

5) **Beste administrazio eta departamentu batzuekiko lankidetzari** dagokionez, Gizarte Politikako Departamentuak balorazio orokor positiboa egiten du erantzunean. Balorazio hori, zenbait kasutan, horietako bakoitzaren inguruan egiten duen errepa-soan zehazten du. Horrela, esate baterako,

- Dioenez, kasuren batean ikusi ahal izan da gazteentzako justizia-sistemak ez duela adingabe horietakoren batek izandako jokabidearen larritasunarekiko proportzionala den erantzuna ematen, bereziki, pertsonen kontra indarkeriaz jokatu dutenean edo egoitza-zentroetan kalte larriak eragin dituztenean.

- Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Fiskaltzak eskaintako laguntza handia aipatu du (foru erakundeak horri kontsultatzen dizkio eta bere iritzipean jartzen ditu bakarrik dauden adingabe atzerritarrei dagokienez hartu behar diren garrantzi bereziko erabakiak). Fiskaltzak gainbegiratuta, 2393/2004 Errege Dekretuaren 92. artikuluko ekintzak garatzeko jarduera-protokoloa sinatu da. Horren gainean, zera adierazi du: *“Tenemos discrepancias en el valor probatorio de la documentación presentada por los menores para acreditar su edad, pero estamos manteniendo contactos para resolver estas dudas”*.
- Egokia iruditu zaió Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzarekin egindako elkarlana bakarrik dauden 16 urtetik beherako adingabe atzerritarrak eskolatzeko horiek lanbide hastapeneko zentroetan sartzeko. Hala ere, etorkizunean arazoak egongo direla uste du: *“Ya que los cambios derivados de la nueva normativa que los regula puede ocasionar serias y muy importantes disfunciones en la atención a los menas. La carga teórica lectiva de que se dota a estos centros, y sobre todo, la aparición de plazos cerrados para poder realizar las matriculaciones pueden ser un gran obstáculo a corto plazo.”*
- Adierazi duenez, oraindik ere zailtasunak daude froga medikoak egiteko anbulatorio batzuek dituzten erantzun-epeetan. Berriró aipatu du zailtasunak dituztela tutoretzapean dauden adingabeek, dagokien bizileku eta lan baimena izapidetu eta lortu bitartean, gizarteratzen eta emantzipatzeko asmoak asetzen laguntzen dien lan jardueraren bat garatu ahal izan dezaten, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 41.1 artikuluko k) azpiatalean aurreikusitako salbuespenari helduz. Zailtasun horiek Gobernuaren Ordezkaritzak atzerritarrei buruzko araudiaren interpretazio murriztailea egitearen ondorioa dira.
- Adierazi duenez, Ertzaintza une oro haurrak babesteko baliabideekin harremanetan dago eta Foru Aldundian bertan Mikeleteen-Ertzaintzaren Sekzioa egoteak nabarmen errazten du bi erakundeen arteko koordinazioa.
- Gauza bera gertatzen da Polizia Kidego Nazionalako Atzerritarrentzako Unitatearekin; honekin ere une oro gaude harremanetan bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzko aipamenak egiteko, horiek erregistro zentrolean barneratzeko, datuak trukatzeko, etab.
- Azpimarratu du arlo honetan diharduten erakunde eta elkarteek parte hartuta, koordinazio mahaiak eratzen ari direla bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako zentroak zabaltzen diren herri edo eskualdeetan eta lan horren balorazioa oso positiboa dela talde hori Gipuzkoan behar bezala integratzeari eta koordinazioa hobetzeari begira.
- Aditzera ematen ditu Heldu elkartearekiko lan-protokoloa (dokumentazio-alderdiatarako), Gipuzkoako Gurutze Gorriarekiko Lankidetzak (hezkuntza-aisialdiko programa baterako), elkarte batzuekin egindako lana (zentro espezifikokoetako aisialdi-programetarako) eta, azkenik, Aldundiko Lan eta Gizarteratze Zuzendaritza Nagusiarekin lorturiko lankidetzak (emantzipazioa sustatzen duen Lortuz programa abiatzeko).

6) **Baliabide edo zerbitzu berriak zabaldu edo erabiltzeko** nahiz egun daudenak hobetzeko egin diren aurreikuspenak.

Baliabide berriak sortzeko aurreikuspenak aurreko ataletan aipatu dira. Horri sistemaren ebaluazioa gehitu behar zaio (dagoeneko eginda), baita epe ertain-luzerako planifikazio berria ere (egiteko fasean).

Horrekin batera, eta azken hausnarketatzat, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak egiten zuen bezala, administrazioen arteko estrategia komunak ezarri beharra planteatu du. Kasu honetan, ondoren adierazitakoaren arabera egin du:

“Somos muy conscientes de que cualquier actuación que realicemos desde Gipuzkoa está totalmente condicionada por el contexto donde trabajamos, esto es, las desigualdades existentes entre las diferentes administraciones del Estado en el enfoque de la atención de las necesidades de estos menores, haciendo que cualquier actuación protectora que nosotros realicemos esté mediatizada por las respuestas que den otros. Estamos trabajando entre las tres diputaciones forales para homogeneizar criterios y compartir estrategias, pero si este mismo proceso no se realiza a nivel de todo el Estado, seguirán produciéndose fuertes desequilibrios y seguiremos siendo territorio de destino con lo que eso supone de dificultad en la atención.”

* * *

2. Vitoria-Gasteiz, Artzentales eta Tolosako adingabeentzako zentroetara egindako bisitak

Ararteko erakundearen jarraipen jardueren artean, kasu honetan *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn* izeneko ezohizko txostenari dagokionez, urtean zehar hainbat bisita egin ditugu bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako zentroetara. Hemen, 2008an Zabaltzen (Araba), Artzentales (Bizkaia) eta Tolosa (Gipuzkoa) zentroetara egindakoak laburbilduko ditugu.

Kasu guztietan, bisitak aurrez ezer jakinarazi gabe egin ziren. Eta, era berean, kasu guztietan, lehen egindako ikustaldien osagarri gisa eta haiek eguneratzeko.

Jarraian eskainiko dugun laburpenean, ikusitakoa jasotzen saiatuko gara; itxuraz modu objektiboagoan har daitezkeen eta kezkarriagoak diren datu edo egoerak nabarmenduko ditugu eta, (zentro horietako batzuk aurreko urteetan zer egoeratan zeuden eta zer arazo zituzten jakiteko, ikusi aurreko urteko txostenetan bildutako azpialau hau bera).

1) Zabaltzen zentrorako bisitaldia (Vitoria-Gasteiz)

Arartekoaren langileak uztailaren 29an joan ziren, azkenekoz (aurretiazko ohartarazpenik gabe), bakarrik dauden adingabe atzerritarrak hartzen dituen Zabaltzen zentrorara.

Hori baino lehen, batik bat zentroaren kudeaketa taldea aldatzearen ondorioz, gorabehera batzuk egon eta horiek komunikabideetan agertu ziren; horren eraginez, arartekoak ekimen batzuk garatu eta kontaktuan jarri zen Arabako Foru Aldundiko, zentroaren aurreko

kudeaketa taldeko eta talde berriko arduradunekin. Horrela, esate baterako, ekainaren 24an, erakundearen egoitzan, bilera bat egin zen, Ixuri elkarteko hiru arduradunekin, zentroaren kudeaketa elkarte horrek egiten baitzuen, ekainaren 10etik aurrera. Bilera horietan, une hartan kezkarriak ziren gai asko aztertu ziren (arduradunak eta taldea aldatzeko modua; zentroaren egoera eta harturiko adingabe kopurua; komunikabideen eragina...); gainera, oinarriko elementuak ezagutu ziren, esaterako, "Zabaltzen 2008 Hezkuntza Proiektua", "Krisian Esku Hartzeko Protokoloa", "Zabaltzenen Bizikidetz Gida" edo gazteentzako "Informazio Orria" (azken bi agiriok gaztelaniaz, arabiera zeta frantsesez).

Albiste batzuen zabalkundeak nolabaiteko alarma sortu zuen gizartean, eta zenbait erakundek euren jarrera jendaurrean azaldu eta esku hartu behar izan zuten; adibidez, Fiskaltzak, alderdi politikoek edo Gasteizeko Udaleko Gizarte Ongizateko Kontseiluak; erakunde honetako adingabearen arloko koordinatzailea kontseilu horren bilkura batera joan zen (ekainaren 25ean).

Beraz, alde aurreko informazio zabala edo aukerakoa genuen, bisitaldia egin baino lehen; izan ere, bisitaldia bera beste informazio iturri batzuekin egiaztatzeko elementuztat planteatu zen. Horrela, esate baterako, halako bisitaldien ohiko alderdiei, honako hauetatik ateratako beste batzuk gehitu genizkien: "Zabaltzen 2008 Hezkuntza Proiektua" edo "Zabaltzenen Bizikidetz Gida"...

Bisitaldian, funtsean, hauxe egin zen:

- Elkarrizketa luzea zentroaren koordinatzailearekin;
- Ikuskapen bisitaldia zentroko instalazio guztietara;
- Banakako elkarrizketak bertako hezitzaile eta adingabe batzuekin.

Gainera, ezusteko alderdi bat ere aipatu behar da; hau da, Ertzaintzaren eta osasun-unitate baten esku-hartzea behar izan zuen gorabehera bat ikusi genuen.

Hemen, ikusitako alderdi batzuk (ez guztiak) azalduko ditugu, gure ustez erabat adierazgarriak edo garrantzitsuak baitira erakundearen ikuspegitik. Eta, lehenengo eta behin, testuinguruko batuk emango ditugu, azaldu nahi duguna errazago ulertu ahal izateko.

Zabaltzen zentroa (bisitatu duguna) Gurutze Gorriak behin-behinean horretarako lagatako instalazio batzuetan kokaturik dago. Behin-behinekotasun hori urteetan mantendu da, eta ordezko baliabide berriak sortzeko proiektuek ez dute aurrera egin, dena delakoagatik. Aldi honetan, arartekoaren irizpidea hauxe izan da: oraingo zentroak mugak dituela (lekua, tenperatura, ordutegiak...) eta ez dela egokia, eta, horrenbestez, baliabide hobeak eta beharri-zanetara hobeto egokitzen direnak aurkitu behar direla.

Zentroaren mugak, bestalde, nabarmenago gelditu dira bakarrik dauden adingabe atzerri-tarren kopurua hasieran aurreikusitakoa baino askoz ere handiagoa izan denean (gogoratu zentroa, hasieran, 12 plazarako planteatu zela eta 2008ko erdialdean 40 adingabe ere izan dituela).

Izan ere, 2008aren amaieran, egoera hori arintzeko, baliabide berria ireki zen Estibalizen; horrela, bertara eraman ziren ordura arte Gurutze gorriko instalazioetan lagundutako 12 adingabe. Bisitaldiaren egunean (uztailaren 29a), bakarrik zeuden adingabe atzerritarren kopurua 24koa zen zentroan, gehienak marokoarrak eta 16-17 urtekoak. Aipagarria da, hala eta guztiz ere, adingabeetariko bost Saharatik beherako eskualdeetakoak zirela, batzuk nahiko gazteagoak, gainera (13 urteko bat ere bai). Agerikoa da adimen-, jatorri- edo kultura-aniztasun horrek zaildu egin dezakeela zentroaren kudeaketa; halaber, eragina izan dezake adingabeen arteko harremanetan, eta elkarrekiko presio-egoerak ere sor ditzake.

- Instalazioei eta ekipamenduari dagokionez, aditzera eman da hobekuntza nabariak egin direla oraintsu; esate baterako, logeletan aire egokitua instalatu, higiene-zerbitzuen modulua berritu edo ordenagailu berriak nahiz telebista berria erosi. Era berean, banakako armairuak igarotze-zonara eraman dira, oheetarako lekua zabalagoa izateko (ohatze bikoitzak). Lau leku logelatzat gaitu dira (lau oheko bat; zortzi oheko bi, eta hamar oheko bat); horrela, zentrok harrera-plazak hogeita hamar dira. Ekipamendua (egongelako hirukoak, armairuak, oheko arropa...) egoera onean zegoen, oro har.

Oraindik ere mugak eta gabeziak daude sukalde jantokian (armairu batzuk apurtuta; garbitasun eza; janariak biltzeko eta kontserbatzeko sistema...), baita komunetan ere (komunitsuak –dutxa, konketa eta komun-aska– bi logelatan erantsita).

Hezitzaileen bulegoan edo gelan (adingabeak ezin dira bertan sartu), zenbait elementu daude, adibidez, sendagaiak, bakoitzaren espedienteak, ordenagailu pare bat, ordutegiak eta erregistro liburuak eta su itzalgailuak. Hala ere, ez dago telefono finkorik, faxik edo Interneterako konexiorik.

Esan behar da zentroan ez dagoela suteak detektatzeko sistemarik.

Beste elementu arriskutsu bat, geroago egiaztatuko dugunez, teilatutik beheko solairura doan leku irekia edo erdiko hutsunea da; horrek sare bakuna baino ez dauka bigarren solairuan (harrera zentrotzat erabiltzen dena).

Solairu hori ez ezik, gaztelaniako klaseetarako, lehenengo solairuko bi ikasgela ere erabiltzen ari dira, Gurutze Gorriak horrexetarako utzi dituenak.

Zentroaren garbiketa eta mantenamendua Gurutze Gorriak egiten ditu (ez Axuri elkarteak); horren ondorioz, batzuetan, arazoan soluzioa ez da behar bezain azkarra (adibidez, kalte txikien konponketa).

- Hezitzaile taldeari dagokionez, ondoren adierazitako alderdiak aipatu ahal dira:
 - Talde berria da (aurreko taldeari dagokionez); gizonen eta emakumeen presentzia orekatua dauka, eta jatorri magrebtarreko pertsonak ditu barruan; orain arte, talde egonkorra da.

- “Hezitzaileak” eta “zaintzaileak” berezita daude; goizeko eta arratsaldeko txandetan bi horiek egiten dute lan (sei pertsonako taldeak); gaueko txandan zaintzaileek baino ez dute parterik hartzen, eta beharrezkoa da gutxienez hezitzaile bat egotea (Arabako Foru Aldundiari egindako eskabidea).
 - Pertsona batek (psikologoa) bere gain hartzen du zentroaren koordinazioa.
 - Hiru-lau zaintzaileko talde bakoitzak zortzi adingaberen tutoretza dauka.
- Antolamendu alderdiei dagokienez, gogoratu behar da bisitaldia taldea aldatu denetik bi hilabete igaro baino lehen egin dela. Horri dagokionez, zenbait alderdiri lehenatasuna eman zaie, esate baterako, dokumentazioari edo osasun laguntzari, eta “Proiektuan” ezarritako beste asko oraindik garatu barik daude.

Ordutegian eta ohiko jardueretan ere aldaketak egin dira:

- Gaztelaniako klaseak zentroan bertan, goizetan (talde eta egun bakoitzeko bat);
- Bazkaria zentroan (orain arte bertatik kanpo);
- Kirol jarduerak arratsaldeetan;
- Txandak garbiketetan, jantokian...

Kontuan hartu behar da eskolako oporren aldian oso zaila dela ordezkotako jarduerak nahiko antolatzen. Klaserako aldia, esate baterako, gure ustez ez da inondik inora ere nahikoa; izan ere, eta hau oso adierazgarria da, elkarrizketaturiko bi adingabek klase gehiago eskatu dute. Aipagarriak dira, halaber, udal zerbitzuetan aurkitu ditugun zailtasunak, kirol instalazioak luzarago erabili ahal izateko.

Bestalde, zentroaren antolamenduan egin diren aldaketek, arauen ikuskapenak edo irizpide aldaketak (otorduak, asteburuko ordutegiak, arropak...) arazoak izan dituzte. Oro har, talde berriaren iritziz, aurreko taldearen txanda ez zen ondo egin, eta lehengo hezitzaile askok ez zizkieten gauzak erraztu; beraz, ahalegin gehigarria egin behar izan dute, eta batzuetan, gainera, egoera arazotsuak ere sortu dira.

Halaber, sendagaien kontrola ere aztertu da: sendagaiak giltzapean zeuden eta banakakoak ziren, sendagaiak emateko irizpideak eta jarraibideak hezitzaileen gelako ohoetan jarritako agiri bakunean jasota zeuden.

- Tresnarik erabilienak, bestalde, eguneroko bizitzaren banakako erregistroa eta hasierako elkarrizketen adierazpena izan dira, orain arte. Hain zuzen ere, ez ziren erabiltzen funtsezko beste tresna eta erregistro batzuk, adibidez, gorabeheren erregistroa; dena den, kasu honetan, erregistrorik egon ez arren, txosten bereziak egiten ziren Aldundiarentzat. Berretsi egin nahi dugu aurreikusitako tresnak apurka-apurka aplikatzen joan behar direla.
- Era berean, beste erakunde batzuekiko harremanak eta lankidetzak ere aztertu dira (Aldundia, Udala, Ertzaintza, Osasuna...). Horri dagokionez, honako arazo hauek nabarmendu dira:

- Gasteizeko Udalean erroldatzeko arazoak.
 - Justizia sistemaren esku-hartze “negargarriak” (motelak, koherentziarik gabeak, urriak edo zigorgabetasun sentrazioa ematen dutenak), edo esku-hartzerik eza.
 - Arabako Foru Aldundiak mantendutako irizpideak, urgentziako edo asteburuetako lehenengo harrerarako, eta egun baterako edo birako, harrera zaila baita probek adingabeak ez direla ondorioztatzen dutenean.
- Dokumentazioari dagokionez, kasu honetan ez dugu espediente pertsonalik ikuskatu; baina informazioa trukatu dugu tutoretzen nahiz zaintzen, erroldatzeen, TIS lortzearen eta halakoan arloko irizpideei buruz. Hezitzaileek euren gain hartutako lana da, eta, denbora igarotakoan, horren jarraipen handiagoa egingo da.
- Hezitzaileekin eta adingabe batzuekin egindako elkarrizketek agerian jarri eta indartu egin zituzten elementu kezkarri batzuk; esate baterako:
- Janaria (hain zuzen ere, okela);
 - Adingabe magrebtarren (gehienak) eta Saharatik hegoalderako eskualdeetako adingabeen (gutxienak) arteko harremanak (harreman arazotsuak eta, kasu batzuetan, arrazakeriako edo jazarpenerako jokabideekin);
 - Jarduera maila (lehen esan dugunez, adingabe batzuek klase gehiago eskatu dute, heziketarako asti luzeagoa erabiltzeko eskabidea egin dute...);
 - Arauak ez ezagutzea (behintzat, eurentzat diseinaturiko informazio agirien ezagupen eza “formala”: Informazio Orria eta Bizikidetzeta Gida).

Lehen esan dugunez, bisitaldian ezusteko gorabehera bat egon da: adingabeetariko batek eraikinaren erdiko hutsunetik jauzi egin, sabai faltsua apurtu eta sarreraraino erori zen; zorionez, lehenengo solairutik izan zen eta gertaerak ez zuen bestelako ondorioz izan. Adingabearen erreakzioa nahasia izan zenez, larrialdietara deitu zuten. Horri dagokionez, alderdi aipagarri batzuk (positiboak eta negatiboak) ikusi genituen bertan:

- Larrialdietara egindako deiaren erantzunaren azkartasuna: Ertzaintza eta osasun unitatea minutu gutxi batzuetan heldu ziren.
- Halako gorabehera batek ordena eta kontrol eza sor dezake, une horretan zentroan dagoen hezitzaile eta adingabe kopuruaren arabera.
- Hurbileko pertsoneri eta auzokoei ematen zaien irudia...

Bestalde, adingabeari ospitaleratzean egindako osasun kontroletan, errezetarik gabeko farmakoen kontsumoa detektatu zen; horrek azaldu egin dezake, behintzat neurri batean, bai arriskuko egoera eta bai hartutako kolpearekiko erreakzioa.

Gertaeretan parte hartu zuten ertzaina batzuek lehenago ere antzeko beste zenbait gertaeretan parte hartuta zeuden (azkena, kaleko istilu bat bezperan). Euren lanbide esperientzian oinarrituz, kezka agertu ziguten, bai gertaeren, bai horiei emandako erantzunaren muga eta bai egintza edo egoera arazotsuagoak gertatzeko arriskuaren eraginez.

Hemen adierazitako arazo batzuei dagokienez (esaterako, erroldatzearena), arartekoak ekimenak garatu zituen, bisitaldia egin ondoren.

2) “Artzentaless” adingabeen harrera zentroa

Arartekoko langileek bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako Artzentaless harrera zentrorra egin zuten azken bisita 2008ko urriaren 10ean izan zen, aurrez ezer jakinarazi gabe.

Zentroa Urgatzi Taldeak kudeatzen du eta horrez gain hauek ere kudeatzen ditu: Artxandako “El Vivero” zentroa, Sodupen “adingabe bizkaitarrentzako zentroa”, Deustuko zentroa eta harrerarako zenbait etxebizitza.

2007 urteko txostenean adierazi zen zentrorra egindako bisita eta bertan ikusitakoa. Lehenengo bisitaren xedea, urte hartan bertan ireki zutenez, zentroa ezagutzea zen. Bisitan, hobekuntza behar duten arazoei eta hornikuntzei buruzko zenbait informazio jaso zen.

- Zentroaren kokapenari buruz, bi solairuko baso etxea, edozein herri edo hirigunetik oso urrun zegoen.
- Zentroaren hornikuntzari buruz, ez dago edateko urik eta telefonorik, hainbat akats daude eta segurtasun baldintzak ez dira nahikoak (gasolio tanga kanpoan dago eta oso erraz hel daiteke bertara, kanpoaldean kable solteak daude, su itzalgailuak hezitzaileen gelan daude)
- Adingabeen agiriei buruz, erroldaren ziurtagiria falta da.
- Adingabeen egoerari buruz, kexa gehienak honakoen gainekoak ziren: janaria, oheen zarata, prestakuntza jardueren falta, zentrotik atera eta zentrorra itzultzeko irizpideak eta paga eta zigorrekin erlazionatutako alderdiak.
- Prestakuntza jarduerari eta lanerako jarduerari buruz, zentroan proposamen gutxi daude eta gatzelania ikasteko taldekako eskoletara mugatzen dira, egunean bi txanda.

(Ikusi 2007ko txostena, 327-329)

2008ko otsailean zentroan sutea egon zen eta horren ondorioz etxea utzi behar izan zen, Fiskaltzak horrela eskatuta, adingabeak aldi baterako beste harrera zentro batean hartzea eta hobetzeko eta egokitzeko zenbait lan egitea eta horiek aztertu nahi genituen.

Oraingo bisita honetan, momentu horretan zentroko arduradunarekin elkarrizketa zabala izan genuen eta gainera, zenbait dokumentu berrikusteko beta izan genuen, besteak beste, alten erregistroa, zigorren zerrenda, talde bileratako aktak, gorabeheren agenda... Horrez gain, instalazioak ikuskatu eta bertan zeuden adingabeekin bakarkako elkarrizketak izan genituen.

Bisita egin genuen egunean zentroan hartuta zeuden adingabe atzerritarrak 16 ziren (nahiz eta noizbait zentroak 25 adingabe onartu izan dituen). 2007ko apirilaz geroztik, alegia,

zabaldu zenetik, zentroan guztira 152 adingabe izan dira (gainbegiratu genituen erregistroko datuen arabera).

Adingabe gehienek 17 urte baino gehiago dituzte (hiruk bakarrik dituzte 16 urte eta beste harrera zentro edo etxebizitzatara eramatea aurreikusi zen) eta magrebtarrak dira (Ghanako bi adingabe izan ezik), beste baliabidetatik bertara eramana (Zabaloetxetik, Eubatik, Artxandatik) eta prestakuntza oso urria dute edo ez dute batere prestakuntzarik, kasu batzuetan analfabetismoa topatu dugu. Batzuk problematikotzat hartzen dira.

Zentroa Urgatzi taldeak kudeatzen jarraitzen du eta horretarako zuzendari bat du eta txanda bakoitzean honakoak (hiru txanda): hezitzaile bat, animatzaile bat eta zaintzaile bat (horietako bi emakumezkoak), laguntza emateko pertsona bat eta segurtasuneko bi jagole. Hezitzaile edo zaintzaileetako batzuek arabieraz dakite eta Marokotik datoz. Oro har, langileak egonkorrak dira.

Aurreko urteko bisitari dagokionez, honakoa ikus dezakegu:

- Zentroko hornikuntza eta segurtasun neurriei dagokienez: zentroak jada badu telefonoa, gasolio tanga eta galdara babesteko beharrezko lanak egin dira, komuneko instalazioa hobetu da eta suteen prebentziorako sistema jarri da (beheko solairuko bi gelatan izan ezik). Hala ere, oraindik ez du edateko urik eta su itzalgailuak oraindik hezitzaileen gelan daude.
- Hartuta dauden adingabeei dagokienez, guztiek dute erroldatze agiria eta OTIa (Osasun Txartel Indibiduala), batzuek nortasun agiririk ez duten arren.
- Adingabeen kexei dagokienez, jakin dugu beste zentroetan egon direnen ustez beste zentroetako instalazioak eta janaria (sukalde propioa dutenek, ez catering-a) hobekiago direla; elkarrizketatutako adingabeek, oro har, jolas jarduerentzat leku gehiago, ordenagailu gela bat eta jarduera gehiago eskatzen dituzte. Adingabe batek “hemen ez dago ezer egiteko” bezalakoak behin eta berriro esan zituen.
- Zigorrei dagokienez: zigorren zerrendan lasaitasunaldiak ikusi ditugu, eta hor, zigor gehienak larunbatetako irtenaldiaren ondoren berandu itzultzen direlako gertatu dira. Beste zenbait alditan, berriz, zigor gehiago dago borrorak, irainak eta halakoak direla eta. Hala ere, oro har, zentroan, azken hilabeteetan ez da gatazka asko egon.
- Prestakuntza jardueri dagokienez, baratzeko lana egiten dute eta gaztelaniako eskolak ematen jarraitzen dute, oraingoan gehiago banan-banan eginez. Informatikako gela irekitzeko asmoa dute (hiru edo lau ordenagailurekin). Hala ere, ez dira zentroaren hasierako hezkuntza proiektuan eta zentroko arduradunek egindako planetan (aurreko txostenean aipatutakoak) aurreikusitako prestakuntza jarduerarik aurrera eramana.

Ikusitako guztia dela eta, erakunde honen ustez, zentroan egin diren hobekuntzak ez dira nahikoa adingabeen beharrei erantzuteko, hezkuntza helburua betetzeko edota behar diren

segurtasun neurriak aurrera eramateko. Zehazki, uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua, gizartean babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako egoitza-harrerarako baliabideak arautzen dituen, duela gutxi argitaratu zen eta hori kontuan hartuta, Artzentales Zentroan pixkanaka egin behar diren aldaketa eta hobekuntzen gainean hainbat kontu mahai gainean jar daitezke.

- 1) Egoitzaren kokapena berraztertzea: beharrezkoa denean soilik, hirigunetik kanpo egotea eta irisgarritasun zaila zergatik ezarri diren adierazita.
- 2) Zentroan erabilgarri dauden plazen gehienezko kopurua berraztertzea. Izan ere, gaur egun, zentroko arduradunek hala eskatuta, 18 plazara mugatua dago (esan digutenaren arabera) eta modulu edo unitate bakarrean daude.
- 3) Hornikuntza berraztertzea: oro har ekipamendua, altzariak eta apainketak ez dute kalitate nahikoa eta zentroak ez du gazteentzat nahikoa edo egokia den altzaririk.
- 4) Instalazio elektrikoa berraztertzea: zentroaren kanpoaldean oraindik kableak airean daude.
- 5) Telefonoak kanpoaldearekin duen harremana hobetzea, eta Internetera konektatzeko aukera jartzea, gutxienez nerabeek eskusiboki erabil dezaketen ordenagailu batean.
- 6) Hezitzaileen gela: zentroak administrazio gela bakarra du eta adingabeak sar daitezke. Bertan askotariko dokumentazioa, espedienteak eta erabilera orokorreko botikak gordetzen dira. Hori guztia giltzaz itxita dauden fitxategietan gorde beharko da, konfidentzialtasuna bermatzeko, eta botikina sarbide mugatuko guneetan.
- 7) Komunen hornikuntza: gaur egun zentroak goiko solairuan bainugela bakarra du, eta bertan bi dutxa, bi konketa, bi komun eta berogailu bat (solairu berean 20 ohe daude) eta behekoan, konketa bat eta komun bat dituen beste bainugela bat. Beharrezkoa da zentroko dutxa, konketa eta komun kopurua erabilgarri dauden plaza kopuruarekiko proportzionala izatea.
- 8) Logelak: gaur egun zentroan literak dituzten 6 logela kolektibo daude (lau goiko solairuan eta bi behekoan) eta gelako gehienez sei ohe daude. Hortaz, beharrezkoa izango da binakako edo banakako logelak moldatzea.
- 9) Logelen hornikuntza: gaur egun logeletan literak eta armairu bat baino ez daude. Altzariak izan beharko dituzte (mahiak, aulkia, apalak, txirrinak, lanparak), baita ateak ere; izan ere gaur egun, logeletako bakar batek ere ez du pribatutasuna bermatzen duen aterik.
- 10) Logeletako gauzak: bisita egin genuenen zentroko oheetan ez zegoen izararik, tapakia soilik (burko asko falta zen). Ezinbestekoa da zentroak osasungarritasun baldintzak bermatzeko behar dituen gauzak izan ditzan. Arropa garbitzeko sistema

ere hobetu behar da, izan ere, zentroak garbigailu bakarra du, familiatan erabiltzen garbigailu arrunta.

- 11) Segurtasun sistema: nahiz eta suteen prebentziorako sistema ezarri den, zentroko gela guztietan jarri behar da, baita beheko solairukoetan ere. Halaber, bestelako hobekuntzak egitea ere beharrezkoa izango da (adib. goiko balkoian hautsita eta gaizki zaindua dagoen baranda).
- 12) Egoitzako arreten faseak: esku hartzeko banan-banakako plana lantzea eta gero adingabea ebaluatzea ahalbidetzen duten faseak jarraitzea.
- 13) Adingabeekiko arreta hobetzea, bereziki prestakuntza eta lan orientazio eta laneratzea. Batez ere 16 urtetik gora heziketarekin jarraituko ez dutenekiko beharrezkoak diren sustapen eta laguntza neurriak hartuko dira.
- 14) Egonaldiaren amaieran prestakuntza hobea izatea, harrerarako baliabideen aldetik, batez ere, adin nagusitasuna betetzen duten kasuetan. Bisitako egunean nerabeetako batek zentroa utziko zuen, adin nagusitasuna bete zuelako. Zentroa uzterakoan izan zuen laguntza bakarra Lagun Artean zentroan lo egiteko plaza bat eta 50 edo 60 euroko laguntza ekonomiko txiki bat ziren (adierazi zigutenaren arabera). Hemen harrera programa hainbat erakunderen partzuergoak sortu zuen (Ellacuria Fundazioa, Goiztiri, Caritas Bizkaia, Izangai Elkarte, CEAR-Euskadi, Elkarbanatuz Erakundea eta Peñascal Fundazioa) egoera ahulean dauden gazte atzerritarrak, gehienak adin nagusitasuna bete ostean emantzipazio baliabideak erabili ezin zituztelako, gizarteratzeko bideak sortu eta horretan laguntzeko. Momentu hartan, Hemen harrera programak ez zeukan gazte gehiago hartzeko baliabiderik (sortu zenean 40 pertsonentzat lekua zuen arren, momentu hartan 114 gazte zeuden bertan).
- 15) Zentroan erabilgarri dagoen dokumentazioa hobetzea: arlokako jardueren programak, barne erregimeneko araudia, kudeaketaren urteko plana, banakako espedienteak, administrazio erregistroak (gorabeheren erregistroa, neurrien erregistroa, botiken erregistroa, miaketa pertsonalen erregistroa,...), urteko memoria.

3) Tolosako urgentziako harrera-zentroa (UHZ)

Arartekoak Tolosako zentrorra (bakarrik dauden EBtik kanpoko adingabe atzerritarren urgentziako harrera-zentroa) egindako azken bisitaldia 2008ko azaroaren 5ean izan zen, inolako ohartarazpenik egin gabe.

Arartekoak zentro horretara ordura arte egindako bisitaldiak urteko txostenetan jasota gelditu ziren. Hain zuzen ere, 2007ko txostenean agerian jarritakoaren arabera, zentroak narriadura maila orokorra zuen; horri dagokionez, une hartako egoera lehergarritzat hartzen zen, gabezia material asko zeudelako (armairurik ez, garbitasunik eza, biltegitzat erabilitako

lokaletan ordenarik ez, sua itzaltzeko sistema...); gainera, egonkortasun eza eta gatazka egoera zegoen, eta Ertzaintzak sarritan esku hartu behar izan zuen bertan; aipagarriak dira zaintzaileen eta hezitzaileen salaketak, disolbatzaile kontsumoak, adingabeen erasokortasuna, hezitzaile taldearen aldaketak, txanda bakoitzeko langile kopuru urriegia...

(2007ko txostena, II. kapitulua, 2. atala, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzkoa)

Urte honetan, instalazioetan obrak egin ondoren, eta horiek 2008ko otsailean amaitutakoan, zentroa oraindik ere Nuevo Futuro elkarteak kudeatzen du; horrek adingabeen urgentziako beste harrera zentro batzuk eta zenbait egoitza etxebizitza ere kudeatzen ditu, eta laguntza ematen die Gipuzkoako Lurralde Historikoko ostatuetan dauden adingabeei.

Bisitaldiaren egunean, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioaren arabera zentroak hamabost plaza eduki arren, 49 adingabe zegoen zentroan (hiru adingabe ez dira zentroan bizi, baina asteburuetan edo erreferentziako zentrotzat joaten dira bertara); horretarako, gela komun asko logelatzat egokituta zeuden, adibidez, egongela eta beheko solairuko hiru gela (bata otoi egiteko lekutzat erabiltzen da, bestea armairuen gelatzat eta zaintzaileen logela), lurrean koltxoiak botata; gainera, geletako plaza kopurua handitu egin zuten. Guztira, 26 adingabek ohatzeetan egiten dute lo, eta gainerakoek, berriz, lurrean dauden koltxoietan egiten dute lo. Logeletan ohatzea eta armairua dago (batzuetan ez dago armairurik).

Oro har, zentroa narriatuta zegoen, nahiz eta 2008ko otsailean obrak egin eta 2008ko irailan zentroa pintatu, zuzendaritzak emandako informazioaren arabera. Iazko bisitaldiari dagokionez, hobekuntza batzuk ikusten dira; esaterako: berokuntza instalatu eta galdara konpondu, apurtutako zenbait ate konpondu, sukaldeko ekipamendua hobetu, gauza pertsonalak gordetzeko armairuak eskuratu.

Instalazioak bisitatzear gain, elkarrizketak ere egin genituen bertan zeuden adingabe batzuekin eta zentroko zuzendaritzarekin nahiz hezitzaileekin.

Bertako adingaberik gehienak, bisitaldia egiteko unean, 15 edo 16 urtekoak ziren; 13 edo 14 urteko adingabe batzuk ere bazeuden. Guztiak mutilak ziren, magrebtarrak, gehienak beste autonomia erkidego batzuetatik heldutakoak, erkidego horietako harrera zentroetan egon ondoren.

14 soilik zeuden erroldatuta; izan ere, zentroak esan zigunaren arabera, Tolosako udalak ez zien kopuru handiagoa erroldatzeko baimenik eman. 23 adingabe LEZetan eskolatuta zeuden, Peñascal fundazioan edo zonako institutuetan. Gainerakoak gaztelaniazko klaseetara joaten ziren goizetan, eta klase horiek herriko akademia pribatu batekin hitzartuta zeuden.

Elkarrizketaturiko adingabeetariko batzuk iritsi berriak ziren, eta beste zenbait, aldiz, aspalitik zeuden bertan (sei hilabete, egonaldi ofizialik luzeena bi hilabetekoa izan arren). Oro har, ez daude oso pozik zentroarekin, eraikinaren egoera txarraren, adingabeen arteko giro txarraren (batzuetan, borrokak eta erasoak), hezitzaileek txanda batzuetan duten kontrol

ezaren eta halako zergatien eraginez. Elkarrizketatuek ez zuten, batek izan ezik, dokumentazio pertsonalik, eta ez zeuden erroldaturik, bertan luzaro egon arren. Bisitaldiaren egunean, horietariko batzuk, klasea eduki arren, ez ziren klasera joan, eta zentroan zeuden, lotan edo hizketan.

Profesional taldeari dagokionez, zentroak 31 pertsonako langileria dauka: zuzendari bat, bi koordinatzaile, hezitzaileak eta hezkuntza laguntzaileak, sukaldari bat eta bi garbitzaile, goizeko, arratsaldeko, gaueko eta asteburuetakoko txandetan antolatuta. Gainera, segurtasun-zaintzaile bat zegoen, bi txandetariko bakoitzean. Jasotako informazioaren arabera, eguneko txandetan hezkuntzako langileak lau edo bost ziren, eta gaueko txandetan hiru. Hezitzaile eta laguntzaile batzuk magrebtarrak ziren, batez ere asteburuetan. Zuzendaritza eta hezkuntza taldeko kide asko emakumeak ziren, asteburuetan izan ezik. Orokorrean, profesional taldeak ez zuen egonkortasunik. Aurreko urteko bi hezitzaile baino ez zeuden, eta gainerakoak, berriz, uda baino apur bat lehenago hasi ziren lanean bertan. Adierazitako zailtasunik handiena halako zentro eta baldintzetan lan egiteko prest zeuden langileak aurkitzea zen.

Narriadura eta zailtasunak egon arren, taldeak zioen zentroa nahiko lasaia zela, baina ezi-nezkotzat jotzen zuen bertan hezkuntza lanik egitea. Zentroko dokumentazio sistema berrikusten ari ziren.

Ikusitako guztia kontuan hartuta, erakunde honen iritziz, aintzat hartuta lagundutako adingabe kopurua, zentroaren eta lan taldearen baldintzek ez zuten ahalbidetzen adingabeen beharriari erantzun egokia ematea, zentroaren helburu hezitzaileari erantzutea eta adingabeak babesteko lana bermatzea, euren eskubideak segurtatu ahal izateko. Horren guztiaren eraginez, aurreko urtean bezala, nekez eusteko moduko egoera sortu zen, egoera arriskutsua.

Bestalde, gizarte babesik gabeko haurren eta gazteen egoitza harrerako baliabideak arautu dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua oraintsu argitaratu dela kontuan hartuz, gutxienez honako aldaketa eta hobekuntzak planteatu behar ditugu, Tolosako UHZ zentroan apurka-apurka sartzeko joateko:

- 1) Zentroaren kanpoko eta barruko itxura aldatzea, giro abegikorra sortzeko, ez instituzionala.
- 2) Zentroa egokitzea, ezgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna bermatzeko, bertan ez baitago eraikinean eta solairu bakoitzean sartzeko arrapalarik, ezta egokituriko gelarik edo komunik ere.
- 3) Plaza erabilgarrien kopuru ahalik eta handiena Dekretuan ezarritakora egokitzea; izan ere, bisitaldia egiteko unean kopuru hori 15 plazakoa zen, baina zentroan 49 adingabe zeuden, bizikidetza unitate bakarrean.
- 4) Suteen aurkako segurtasun eta prebentzio neurriak hartzea: ez daude seinalezaturik irteera nagusiak nahiz larrialdikoak, eta ez dago suteen aurkako planik

(seinaleztapena, larrialdiko argiztapena, detekzio sistema eta alarma). Gainera, su itzalgailu bakarra dago beheko solairuan, ikuztegiaren, sukaldean eta biltegiaren; zuzendaritzaren bulegoan ere su itzalgailuak daude, baina bulegoa giltzez itxita dago.

- 5) Zentroko higie- eta osasun baldintzak ikuskatzea; izan ere, bisitaldia egin arte ez da osasun ikuskapenik egin (zuzendaritzak adierazitakoaren arabera), aurreko txostenean esan genuenez.
- 6) Zona komunak aldatzea, bertan egongela (irakurtzeko, atsedenerako, telebistarako eta abarrerako lekua), jantokia, jolastokia eta bisita gela egoteko. Bisitaldiaren gunean, zona komunetan adingabeen logelak eta gauza pertsonak biltzeko gela zeuden; horrela, adingabeak logelan edo korridorean baino ezin ziren egon.
- 7) Kanpoarekiko telefono instalazioa hobetzea eta interneterako konexioa instalatzea; gutxienez, ordenagailu bat edukitzea adingabeek erabiltzeko.
- 8) Komunak zuzkitzea: zentroan komun bat dago zona komunean (konketa eta komun-ontzia), eta beste bi komun ere badaude logeletan (bakoitzean bi dutxa, bi konketa eta bi komun-ontzi). Beharrezkoa da zentroan beharrezko dutxa, konketa eta komun-ontzi kopurua zuzkitzea, plaza erabilgarrien kopuruaren arabera.
- 9) Logelak: zentroan taldeko bederatzi logela daude, eta horiek ohatzeak eta, gehiezin, logela bakoitzeko lau ohe dituzte; beraz, gelak bikoitzetan eta banakoetan banandu beharko dira.
- 10) Logelen zuzkidura: logelek ohatzeak eta armairu bat baino ez dute. Altzariak eduki beharko dituzte (mahaia, aulkia, apalategia eta lanpara).
- 11) Egoitza arretaren faseak: babesak, helburu hezitzailea eta harrera baliabidearen balarazio ona ahalbidetzen duten faseak jarraitu behar dira.
- 12) Behar diren neurri guztiak hartu behar dira adingabeen eskubideak babesteko (besteak beste, duintasuna, pribatutasuna, informazioa, banakako esku-hartze plana...) eta euren betebeharrak betetzeko (barne araubideko araudia betetzea, heziketa-neurri zuzentzaileak, pertsonen eta instalazioen errespetua...), araudi berrian ezarritakoaren arabera.
- 13) Erregistro pertsonalen erregistroa ikuskatzea, hori araudira egokitzeko; erregistro bakoitza dokumentatzea eta jakitera ematea Haurren eta Gazteen Babeserako Lurralde Zerbitzu Espezializatuari.
- 14) Zentroko dokumentazio erabilgarria hobetzea: jardueren arlokako programazioa, barne araubidearen araudia, urteroko kudeaketa plana, banakako espedientek,

administrazio erregistroak (gorabeheren erregistroa, neurrien erregistroa, sendagaien erregistroa, erregistro pertsonalen erregistroa...) eta urteko memoria.

15) Txanda bakoitzean ratio pertsonala zentroko adingabe kopurura egokitzea.

3. Ofiziozko espedienteen bidez egindako beste jarduketa batzuk

Zentroetara egindako bisitaldiei dagokienez, horietan detektaturiko arazoak edo zenbait iturritatik jasotako informazioak arartekoaren jarduketa anitzen bidez aztertu dira, urtean zehar. Hemen garrantzitsuenak baino ez ditugu laburbilduko, eta horiek ofiziozko espedienteen bitartez kudeatu dira:

2008an tramitatu ditugun ofiziozko jarduketak edo kexak, adingabeengan eragina dutenak, honako hauek izan dira:

- Auzotarrek zentro berriak irekitzearen aurka aurkeztu dituztenak: 1197/2008 eta 1359/2007 espedienteak.
- Adina zehazteko zailtasunari buruzkoak: 11/2007, 6/2008/OF eta 1129/2008 espedienteak.
- Adingabeen egoitza arautzen duten legezko aurreikuspenak ez betetzeari buruzkoak: 23/2008/OF, 6/2008/OF 1299/2008, 42/2006/OF eta 54/2006/OF espedienteak.
- Adingabeen eskubideei buruzkoak, adibidez, defentsa eskubideari buruzkoa, 1398/2008 espedientea, edo pribatutasun eskubideari buruzkoa, 253/2008 espedientea.
- Adingabeak autonomia erkidego batetik bestera lekualdatzeari buruzkoak. 338/2008 eta 339/2009 espedienteak.
- Foru Aldundiaren tutoretzapeko adingabeak udal erroldan inskribatzeko zailtasunari buruzkok. 269/2008/OF espedientea.

• **Herritarrak zentro berriak irekitzearen aurka egotea**

Herritarrak, zenbait kasutan, gizarte baliabide berriak irekitzearen aurka egon dira, eta horrek kezkatu egiten du erakunde hau. Aurten horri buruzko bi kexa-espediente tramitatu ditugu.

1197/2008 espedientearen muskiztarrak gazte arazotsuentzako harrera zentroa irekitzearen aurka agertu dira. Herritar horiek adierazitakoaren arabera, ez da proiektuari buruzko informaziorik egon, eta, gainera, Foru Aldundiak ez die erantzunik eman, erakunde horri euren

kezka eta beldurra jakinarazi ziotenetik, euren seme-alabei eta herritarren segurtasunari dagokienez.

Erakunde honek sarritan hartu du esku, gizarte baliabideak irekitzearen aurkako jarrera kasuetan. Herritarrak sarritan egon dira baliabide berriak irekitzearen aurka, eta hori elementu kezkarria da. Izan ere, alde batetik, gizarte urrakortasuna duten pertsonentzako baliabideak dira (babesgabetasuna duten adingabeak), eta arartekoak pertsona guztien eskubiak defendatzen ditu; bestetik, herritarrek bakean eta segurtasunean bizi nahi dute, eta halako baliabideek, zenbaitetan, alarma sortzen dute euren artean.

Arartekoak gomendio orokorra eman zuen 2001ean (2001eko txosten arrunta). Gomen-dio horretan, herritarrak gizarte arazodun talde urrakorrentzako zerbitzuak sortzearen aurka egotearen zergatiak aztertu ziren; gomendioan adierazitakoaren arabera, beharrezkoa da administrazio eskudunek jarrera aktiboa eta buruzagitza hartzea, gai honetan. Hain zuzen ere, honako helburu hauek adierazi genituen:

- 1- Gizartea sentsibilizatzea, bazterkeria arriskua duten biztanleentzako zerbitzuak beharrezkoak eta onak izateari dagokionez; horretarako, gutxienez, informazio sistematikoa eta argia eman behar da bazterkeriarako gizarte erantzuneko politikari, apustuei eta programei buruz.
- 2- Arreta beharrianak aztertzea eta, horrenbestez, erantzunak nahiz horien lurralde banaketa planifikatzea, gehiegiko zehaztapenak eta ghettoak sortzeko arriskua saihestuz.
- 3- Informazioak eta proposamenak trukatzeko aukera eskaintzen duten partaidetza mekanismoak egoteko eta erabiltzeko sustapena ematea; mekanismo horiek, gainera, antolaturiko gizarte eragileen (elkarteak...) eta proiektu fase guztien (diseinua, abioa, jarraipena...) eraginpeko herritarren presentzia aktiboa ahalbidetu beharko dute.
- 4- Koordinatzea eta jarrera komunak hartzea, administrazioen eta eraginpeko salen artean (tokikoak, lurraldekoak edo Erkidegokoak).
- 5- Zerbitzuen funtzionamendu egokirako behar diren berme guztiak eskaintzea. Berme horiek eragina edukiko dute, adibidez, programen edota profesionalen laguntzan, kontrolean, ebaluazioan eta jarraipenean gehienbat baliabide baten kudeaketa beste erakunde bati uzten zaionean edo gizarte-ekimenetik sortzen denean; halaber, bermeak eman behar zaizkie zerbitzuaren erabiltzaileei eta inguruan bizi diren biztanleei.
- 6- Egon daitezkeen gatazkak saihestea eta, halakorik sortuz gero, azkar konpontzeko laguntza erabakigarria ematea.
- 7- Programen jarraipena egitea, beharrezko aldaketa guztiak sartu eta jardun onak hedatu ahal izateko.

Espediente honetan informazioa eskatu diogu Foru Aldundiari, zentro berria irekitzeko prozesuari buruz. Halaber, Gomendio orokorrean planteaturiko helburuak betetzeko egindako jarduketei buruzko informazioa ere eskatu diogu.

Foru Aldundiak, gure eskabideari erantzunez, Udalarekin eta herritarrekin egin diren bilerei buruzko informazioa eman digu. Erantzunaren edukian, alde batetik, jarraituriko prozedura azaltzen da, eta, bestetik, lehen aipaturiko gomendio orokorra betetzea aipatzen da. Prozedurari dagokionez adierazitakoaren arabera, *"fueron múltiples y diversas las respuestas, explicaciones y garantías que se ofrecieron en la mencionada reunión, sobre las escasas probabilidades de que existan dificultades serias con los vecinos y sobre la manera de afrontarlas o resolverlas en caso de existir. No obstante en dicha reunión hubo demandas explícitas e insistentes de paralizar la apertura del proyecto o de que la decisión de abrir o no el centro se pusiera en manos del propio vecindario"*. Eta hau ere bai: *"que les consta que ha habido vecinos que han expresado públicamente su propósito personal de lograr el cierre del mismo"*.

Gomendio orokorrari buruz, hauxe esan dute:

1. puntuari buruz:

Hauxe adierazi dute: *"ha informado sistemáticamente y de manera continuada, tanto a los representantes políticos debidos, como a los medios de comunicación y ciudadanía en general, como a otras Entidades y al propio Ararteko, de todas los planes y actuaciones que se llevan a cabo. Los dos Planes Estratégicos que se han presentado son la materialización más elaborada de nuestras políticas. Pero también se han redactado informes, memorias, y planes anuales que han sido puntualmente presentados y divulgados, además de planes específicos sobre materias sectoriales. El rechazo a algunos centros de menores, en concreto, ha sido un asunto de especial repercusión y este Departamento ha informado y ha mostrado clara y repetidamente cuál ha sido su posicionamiento en cada uno de los momentos de dificultad"*.

2. puntuari buruz:

"Se han elaborado diferentes estudios respecto a necesidades de atención y en la puesta en marcha de nuevos recursos se considera siempre la evitación de concentraciones que pudieran generar guetos o zonas de alta conflictividad. Nuevamente en relación al Hogar Muskiz, hay que constatar que es una zona geográfica en la que no existía ningún tipo de servicio específico del Sistema de Protección a la Infancia".

3. puntuari buruz:

"Se mantienen habitualmente reuniones con entidades y organizaciones tanto del ámbito de la intervención social, como asociaciones de usuarios, de vecinos, etc. para explicar iniciativas, promover colaboraciones, y escuchar propuestas de mejora".

Halaber, hauxe aipatu da: *“al recientemente presentado Plan Estratégico del Departamento de Acción Social en donde figura la ‘Participación ciudadana’ como uno de los ‘Valores’ que guían las actuaciones del Departamento (pág. 25). Valor que refleja y materializa en multitud de aspectos del Plan. En concreto el Objetivo General Primero señala lo siguiente: ‘Actualizar permanentemente el conocimiento de la realidad social, de las necesidades y demandas de la ciudadanía, así como de los efectos de las actuaciones públicas en este ámbito con el objeto de mejorar y adecuar las mismas de forma planificada’. En este mismo sentido se puede citar el Objetivo General Tercero, que pretende ‘Fomentar la colaboración con las Administraciones Públicas y los agentes sociales (especialmente con el tercer sector) y la participación ciudadana en la promoción de una sociedad vizcaína inclusiva y solidaria’. Las concreciones de estos Objetivos Generales en Objetivos específicos y en acciones pueden consultarse en el Plan (pág. 39 a 43 y pág. 53 a 56)”*.

Puntu honetan hauxe ere esan dute: *“que quizá no resulte del todo oportuna la recomendación de que el vecindario participe de la manera directa y concreta en todas las fases de un determinado proyecto (diseño, puesta en marcha, seguimiento, etc.)”*.

4. puntuari buruz:

“En consecuencia con lo señalado se mantienen reuniones permanentes de coordinación y comunicación con las corporaciones locales y con otras administraciones de cara a unificar criterios de funcionamientos, respetando la autonomía y capacidades de cada ámbito”.

5. puntuari buruz:

“Se han potenciado y existe un número cada vez mayor de Manuales de Buenas Prácticas y de Modelos de Gestión basados en la Mejora de la Calidad, que promueven y garantizan el adecuado funcionamiento de los recursos”.

6. puntuari buruz:

“Cuando en ocasiones puntuales de generan conflictos de convivencia con el entorno, siempre se ofrece respuesta profesional y garantía de presencia institucional para afrontar los y gestionarlos de la manera más rápida y eficaz”.

Espedientea tramitazio fasean dago oraindik.

1359/2007 espedientean Donostiako Igeldo auzoko herritar batzuek kexa bat aurkeztu zuten, bakarrik dauden adingabeen urgentziako harrera zentroa irekitzearen aurka. Kexaren bi iturri nagusiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babes sistema zalantzan jartzean oinarritzen ziren batez ere, harrera zentroa irekitzean baino gehiago; hain zuzen ere, bertan esaten zenez, adingabeen zentroak ireki dira hirigunetik kanpo, segurtasun eta kontrol baldintza urriekin, eta neurri hori, gainera, eraginpeko herritarrei zentroaren kokalekua eta irekiera erabakitzean parte hartzeko bideak eskaini barik hartu da.

Espedientearen tramiteak hasi ondoren, eta Foru Aldundiarekin gaia aztertzeko bilera bat egingandakoan, zentroan (ireki baino apur bat lehenago) sorturiko sutearen berri izan genuen.

Gero, Foru Aldundiak jakitera eman zigun, sutearen ostean, egokitze lanak egin zirela, zentroa martxan jarri ahal izateko. Halaber, helburua ere aldatu egin zuten, eta harrerako oinarrizko programako zentroa izatera orientatu zuten, urgentziako harrera zentroa izatera orientatu beharrean. 2009ko urtarrilaren amaierarako zegoen aurreikusita zentroa irekitzea. Herritarrekiko kontaktuei dagokienez, horiek eten egin ziren 2008ko urrira arte; hilabete horretan hitzordua jarri zen herritarren solaskidearekin, horri Aldundiaren planak jakinarazteko.

Espediente hori ere tramitazio fasean dago.

• **Adina zehazteko zailtasunak**

Aurten Gipuzkoan bakarrik dauden adingabe atzerritarren adina zehazteko prozedurari buruzko espedientearen tramitazioarekin jarraitu dugu (11/2007 espedientea).

Gai honek gero eta garrantzi handiagoa dauka, pertsona bat adingabetzat edo adin nagusikotzat hartzeak ondore garrantzitsuak dituelako. Horrela, adin nagusikoa bada, Espainian dauden atzerritarren eskubideei nahiz askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoan adin nagusiko pertsonentzat ezarritako araudia aplikatzen zaio; horrek zehapen espedientea hastea dauka ezarrita, dokumentaziorik ez duten pertsonen kasuan, eta horrek kanporatzea edo barneratzeko kautela neurria eragin dezake. Adingabea bada, adingabeak babesteari buruzko araudia eta lehen aipaturiko araudiko xedapenak aplikatzen dira (4/2000 LOko 35.2 eta 3 artikulua eta 2393/2004 ED 92.2 eta 4 artikulua).

Halaber, adina elementu garrantzitsua da, zigor garrantzia duten jokabideen arloan. Gaztearen adinaren arabera, adingabeen epaitegiak izango dira eskudunak, eta proposatzen diren neurriak gazteen justizia sistemaren barruan beteko dira; bestela, zigor tratamendua adin nagusiko pertsonen dagokiena izango da.

Horrenbestez, garrantzi handikoa da zehaztasun ahalik eta handiena lortzea, adina zehazteko orduan; gainera, Justizia Administrazioari beharrezko baliabide guztiak zuzkitu beharko zaizkio, gazte horiek adin nagusikoak edo adingabeak diren lehenbailehen zehazteko. Babes erakundeek babestu egin behar dituzte bakarrik dauden adingabeak, eta, horiek urratzeren bat eginez gero, aurreikusitako prozedura aplikatu eta neurriak gazteen justizia sistemako zentroetan bete behar dira. Bestalde, adingabeentzako zentroetan edo gazteen justizia sistemaren barruan adin nagusiko gazteak ere badaude, eta horrek itxuragabetu egiten ditu baliabideok.

Beste alde batetik, adina kalkulatzeko ohiko teknikak dituen mugak aipatu ditugu. Teknika horretan, hain zuzen ere, erradiografiak ateratzen zitzaizkien ezkerreko eskumuturrari eta eskuari; gero, erradiografia horiek alde aurretik landu diren taula batzuekin konparatzen dira (hezur horiek adinaren arabera duten garapenari buruzko estatistika ikerketetan oinarrituz

landutako taulak). Zenbait alderdi ez dira aintzat hartzen, esate baterako, arraza, etnia, nutrizioa, ingurumena, psikologia eta kultura, eta horiek zuzeneko eragina dute pertsonen garapenean (ACNUR, "Bakarrik dauden adingabeak eta asiloko babesa" txostena). Horri dagokionez, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioak (ACNUR) gomendio hauxe eman du:

"Las pruebas de determinación de la edad que generalmente se vienen realizando a los menores no acompañados indocumentados, sea cual fuere su lugar de procedencia, no son precisas ya que no tienen en consideración aspectos raciales, étnicos, nutricionales, medioambientales, psicológicos y culturales, que tienen una influencia directa en el desarrollo y crecimiento del niño. Obviar estos factores así como no constatar márgenes de error en estos exámenes, puede acarrear graves consecuencias para el menor. Si se considera imprescindible realizar pruebas para estimar la edad, éstas deberán llevarlas a cabo profesionales con la experiencia y formación adecuadas, que estén familiarizados con los antecedentes étnicos/culturales del niño. Sin datos fiables y concluyentes, se debería aplicar el beneficio de la duda en favor del menor que se declara como tal"

Dirudienez, ez dago metodo zientifikorik adina zehatz jakiteko. Pediatrek ere zuhur jokatzeko dute horretan, eta aditzera ematen dute oso zaila dela benetako adina zehatz jakitea, batez ere 15-18 urte bitarteko gazteei dagokienez: "Adinaren zehaztapena ez da zientzia zehatza, eta akats-bitartea 5 urtekoa izan daiteke" (Guidelines for Paediatricians, Royal College of Paediatrics and Child Health status deritzonak 1999an argitaratuta).

Horri dagokionez, aipatuta daude Save The Children erakundeak, modu orientagarrian, egiten dituen jardun onen gomendioak: "Adina zehaztean, aintzat hartzen dira faktore fisikoak, psikologikoak, kulturalak eta garapenekoak. Adina zehazteko proba egin behar izanez gero, azterketa hori profesional independenteek egin behar dute, adingabearen jatorri etniko/kulturalari buruzko ezagupen egokiak eta beharrezko esperientzia duten profesionalak. Azterketak ez dira inoiz ere derrigorrezkoak edo ez-egokiak izango, kulturaren ikuspegitik begiratuta. Kontu handiz egokitu behar da, generoko faktoreak errespetatu egiten direla bermatzeko. Zalantzarik egonez gero, 18 urtetik beherakoa omen den norbait behin-behinean halakotzat hartzeko ustezkotasuna nagusituko da. Aditzera eman behar da adinaren zehaztapena ez dela zientzia zehatza eta akats-bitarte handia duela. Adina zehazten denean, bakarrik dauden adingabeei zalantza benefizioa eman behar zaie".

Nazio Batuen haurren Eskubideen Batzordeak ere (General Comment 6. zenb. –2005–, bakarrik eta jatorrizko herrietatik kanpo dauden haurren tratamenduari buruz) gomendioak egiten ditu, adina zehazteko prozedurak egiteko moduari buruz. Prozedura horiek kontuan hartu behar dituzte itxura fisikoa eta heldutasun psikologikoa. Zehaztapena egitean, adingabeen osotasunaren arrisku guztiak saihestu eta, gainera, errespetatu egin behar da euren duintasuna. Halaber, euren lege-ordezkaria bertan egon behar da, eta adingabeari informazioa eman behar zaio emaitzaren ondorioei eta aurkeztu ahal dituen errekurtsoei buruz. Era berean, halako prozedurak egiteko, adingabearen baimena behar da. Nolanahi ere, zalantzarik egonez gero, aintzat hartuko da adingabea dela.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak, 2/2001 Instrukzioan, hauxe adierazi du: *“Dado que las pruebas médicas no suelen ofrecer nunca una edad exacta, sino que siempre fijan una horquilla más o menos amplia entre cuyos extremos se puede cifrar que se sitúa con un escasísimo margen de error la verdadera edad del sujeto, habrá que presumir, a falta de otros datos y a efectos de determinar si éste es mayor o menor, que su edad es la establecida como límite inferior a dicha horquilla.”*

Azkenik, herriaren defentsa erakundeetako Adierazpenean jasotako gomendioa adierazi genuen, Herri Administrazioek bakarrik dauden adingabeei dagozkenez dituzten erantzukizunei buruz (2006ko urria); bertan adierazitakoaren arabera: *“Adina zehaztu aurreko osasun-probak zalantzako kasuetan baino ez dira egingo, beti ere aditu independenteen aholkularitzarekin eta teknologia modernoa erabiliz; proba fisikoak, gizartekoak eta psikologikoak konbinatuko dira. Erreferentziako adina, berriz, osasun-probetan ondorioztatzen den gutxieneko adina izango da.”*

Aurten, gai honi buruzko zenbait espediente tramitatu ditugu. Lehen aipaturiko ofiziozko espedientea ez ezik, beste bi tramitatu dira (6/2008OF eta 1299/2008), Arabako Foru Aldundiak bakarrik dauden adingabe atzerritarren pasaporteen baliozkotasuna zalantzan jarriz egindako jarduketari buruz. Ofiziozko 6/2008 espedientean, Arabako Foru Aldundiaren jarduketari buruzko informazioa eskatu genuen, adingabe horien pasaporteak Gobernuaren Arabako Ordezkaritzaren esku jartzeari dagokionez, horien baliozkotasuna egiaztatzeko. Izan ere, jarduketa horrek alarma sortu du adingabeon artean. Adingabeok egoera desberdinetan daude; batzuk aspalditik daude tutoretzapean, eta horiek egoitza baimena aurkeztu da Gobernuaren Arabako Ordezkaritzan; beste zenbait lanetan hastearen zain daude, eta gehienak duela gutxi heldu dira. Dirudienez, horren guztiaren ondorioz, adingabeek zalantza eta kezka zuten neurriaren zergatiei eta emaitzari buruz, eta horrek zaildu egiten zuen hezkuntza-prozesua. Halaber, Foru Aldundiak garaturiko jarduketei buruzko informazioa eskatu genuen, egoitza baimena Gobernuaren Arabako Ordezkaritzan aurkeztu arte egindako jarduketei buruzkoa.

Arabako Foru Aldundiak ez dio erantzunik eman egin diogun informazio eskabideari, erantzuteko eskatu diogun arren, guri lagundu beharra baitauka. Dena den, erakunde horrekin izandako bileran egiaztaturikoaren arabera, kasu batean izan ezik, zalantzan jarritako pasaporte guztiak baliozkoak izan ziren.

Kasu bakar horrek kexako beste espediente bat eragin du, 1299/2008 espedientea. Zalantzan jarritako baliozkotasuna zeukan pasaporte bakarraren titularrak (horren eraginez, Arabako Probintzia Fiskaltzak informazio eginbideak hasi zituen, eta horiek ebatzi barik daude oraindik) kexa aurkeztu zuen Arabako Foru Aldundiaren jarduketaren aurka. Administrazio horrek, zigor eginbideetan oinarrituz, eta interesduna adingabea zela egiaztatzen zuen baliozko jaiotza akta egon arren, ezeztatu egin zuen bere garaian hartutako tutoretza, interesduna adin nagusia zelakoan. Kexa hori ikusita, bidezko informazioa eskatu genuen, eta jakitera eman ziguten, adingabe horri zegokionez, tutoretza ezeztatu arren, neurriak hartu zirela, horren emantzipazioan laguntzeko.

Arabako Foru Aldundiak emantzipazioan laguntzeko hartutako neurriei buruzko balorazio positiboa egin arren, gure ustez, kasu honetan ere zaila da adina zehaztea, kontraesan nabaria baitago bere garaian egindako proba erradiologikoen emaitzaren, baliozkotasuna oraindik ere epai irmoaren bidez adierazita ez duen pasaportearen eta jaiotza aktaren artean (azken horren baliozkotasuna ez da inoiz zalantzan jarri).

Adingabeei babesgabetasun egoerak ekiditeko, irizpide bat egon beharko litzateke adingabetasunari baliozkotasuna emateko, hori egiaztatzen duen baliozko dokumentazioa egonez gero. Horrela, adin nagusitasuna dagoela adierazteko, proba erradiologikoen emaitza edozein izan arren, beharrezkoa izan beharko litzateke aurkakoa frogatzen duen ebazpen judizial irmoa egotea.

Beraz, Arabako Foru Aldundiari informazioa eskatu diogu, administrazio horrek jarraituriko jarduketa protokoloari buruz, baita pasaportearen eta legeztaturiko jaiotza aktaren artean kontraesana dagoenean jarraitu behar den irizpideari buruz ere.

Lehen esan dugunez, eta aurrekoari lotuta, adingabe atzerritarren adina zehaztearen gaiak ofiziozko espedientea dauka, eta hori Gipuzkoako Foru Aldundira eta Justizia- Lan eta Gizarte Segurantzza Sailera bidali dugu. Ofiziozko jarduketa Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hasi genuen, jakin genuenean hori proba erradiologikoak egiten ari zela, adina zehazteko, eta, batzuetan, tutoretzen ezeztapenak jakinarazten ari zela, adingabe horiek, aipaturiko probaren arabera, adin nagusikoak zirelako. Gai honetan zenbait prozedura judizial egon dira, eta, horien eraginez, Gipuzkoako Foru Aldundiak irizpideak ezarri ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Saileko Hautzaro eta Gazteria Zuzendaritza Nagusiaren instrukzioaren bidez (2008ko otsailaren 19koa); gainera, aldatu egin da Gipuzkoan Bakarrik dauden Adingabeen protokoloa, instrukzioaren edukira egokitzeke. Instrukzioak ezarritakoaren arabera, adingabe atzerritarren adina honako irizpide hauen arabera zehaztuko da:

- “1. Adingabeak jatorrizko pasaportea baldin badu, agiri horretako jaiotegunaren arabera ateratzen den adina hartuko da kontuan.*
- 2. Adingabeak pasaporterik ez baldin badu, baina, bere jatorrizko herrialdeko agintariek emanda, jaiotzaren akta edo antzeko agiri publikoa baldin badu, agiri horretako jaiotegunaren arabera ateratzen den adina hartuko da kontuan, baldin eta agiriak legeztapen edo amaierako oharra baldin badu.*
- 3. Adingabeak ez baldin badu aurreko bi puntuetan adierazitako agirietatik bat bera ere, froga medikoetan oinarrituta Fiskaltzak dekretuz bidez zehazten duen adina hartuko da kontuan.*
- 4. Baldin eta Gizarte Politikako Departamentuak atzerritar bat bere tutoretzapean hartu badu Fiskaltzaren Dekretuan zehaztutako adinean oinarrituz, une horretan atzerritarrak ez zuelako bat bera ere lehen bi puntuetan adierazitako agirietatik, eta atzerritar horrek geroago aurkezten badu (edo bere gain baldin badu) agiri horietakoren bat eta agiri horrek erakusten badu adinez nagusia dela edo beste*

adin batekoa dela, foru agindua egingo da tutoretzako neurria amaitzat emateko, atzerritarra adinez nagusia baldin bada, edo jaiotegunari buruzko datuak aldatzeko, atzerritarra benetan adin txikikoa baldin bada.

5. *Tutoretzan hartutako adingabearen jatorrizko pasaportearen eta Aginduko bigarren puntuaren arabera haren identitatea egiaztatzen duten beste agirien kopia kautotzak egingo ditu Gizarte Politikako Departamentuko Idazkaritza Teknikoak.*
6. *Kopia edo kopia kautotzak babeseko espediente administratiboari erantsiko zai-zkio, kontuan hartu behar baita Espainiako lurraldean dauden atzerritarren eskubidea eta obligazioa dela beren gain edukitzea Espainian sartzeko baliatu ziren dokumentazioa, eta dokumentazio horrek atzerritarren jatorrizko herrialdeko edo etorkizko herrialdeko agintariak emana, atzerritarren identitatea egiaztatu behar duela eta indarrean egon behar duela, 2004ko abenduaren 30eko 2393/04 Errege Dekretuak, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizartertzeari buruzko 2000eko urtarrilaren 11ko 4/00 Lege Organikoaren Araudia onartzekoak, 100. artikuluan eta 2005eko otsailaren 18ko 3/05 Euskal Legeak, haur eta nerabeak zaindu eta babesteari buruzkoak, 11.3 5. artikuluan xedatutakoaren arabera."*

Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak eman zigun erantzunaren arabera, ados zegoen herri-administrazioek bidezko neurriak hartu behar izatearekin, adina zehazteko osasun probak esperientzia eta ezagupen egokiak dituzten profesional independenteek egiteko, proba fisikoak, gizartekoak eta psikologikoak konbinatzen dituen teknologia modernoa erabiliz: *"Creemos adecuado que la determinación de la edad de aquellas personas extranjeras que llegan a Gipuzkoa indocumentadas (o cuya documentación presenta indicios de falsedad) pudiera realizarse con los medios humanos y materiales que sugiere el Ararteko, de forma que el Decreto de Fiscalía estuviera basado en informes más precisos."*

Era berean, hauxe erantzun zuen: *"la determinación de la edad de las personas extranjeras indocumentadas (o cuya documentación presente indicios de falsedad) tal y como señala el oficio del Ararteko, corresponde según la legislación de extranjería (art. 35.2 de la LO 4/2000 Y ART. 92.2 Y 4 DEL RD 2393/2004), al Ministerio Fiscal, para lo cual deben colaborar las instituciones sanitarias oportunas, que con carácter prioritario y urgente, realizarán las pruebas médicas necesarias. Por ello entendemos que sería conveniente que el Ararteko se dirigiera también al resto de las administraciones públicas implicadas en la atención de este colectivo, especialmente a la administración de justicia (pensando en los médicos forenses) y sanitaria, para que pudieran conocer estas recomendaciones y buenas prácticas, y adoptar las medidas oportunas para poder llevarlas a efecto mediante la contratación de los medios humanos y materiales necesarios"*

Arartekoak, horrenbestez, informazio eskabidea egin dio Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari, arlo honetan eskumena duen saila delako. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak erantzun zehatza eman dio gure informazio eskabideari, alde zuzeneko zehaztapena eginez:

“Justizia Sailaren mende dagoen Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeak arreta berezia eskaini dio beti adingabeen adina ezartzeko problematikari; izan ere, Erakunde horrek bai baitaki zigor-arloko adina ezartzeak zer ondorio duen tratamendu judizialean. Horregatik, Erakunde horrek hiru eremutan gauzatu ditu jardunak:

- a) Eremu horretan eskumenak dituzten erakundeekin, bereziki Fiskaltzekin, koordinatzeko ahaleginak.*
- b) Auzitegiko medikuen esku-hartzeak perituen bidez lantzeko moduaren protokolizazioa.*
- c) Ezagutzak eguneratzea adina ezartzeko eremuan. Izan ere, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeak orain dela bost urte estatu mailan Auzitegiko Medikuen Biltzar bat antolatu zuten Donostian gai hori lantzeko. Biltzar horretan estatuko nahiz nazioarteko adituek hartu zuten parte.*

Zehaztapen hori egin eta gaiari buruzko edukia aztertu ondoren, agerian jarri behar dugu Adingabeak babesteko Legean bilduta dagoenaren arabera, adingabeak babesteko helburuarekin Erakunde bakoitzean dauden baliabideak koordinatzeko, bideragarri egiteko eta hobetzeko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren (Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeak), Osasun Sailaren (Osakidetza) eta Herrizaingo Sailaren eta Fiskaltzaren artean Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen erakundeen arteko Akordioaren arabera, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeak Epaitegien, Auzitegien, Erregistro Zibilen eta Fiskaltzen zerbitzura dagoen organo teknikoa den aldetik Protokolo Tekniko eta Operatibo bat egin zuen ustezko adingabeak errekonozitzeko eta kalkulaturako adin kronologikoa ezartzeko, betiere Ministerio Fiskalak eskatuta eta hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundietako lantalde psikosozialekin eta Osakidetzarekin koordinazioan jardunda.

Hortaz, esandakoaren arabera, ustezko adingabe baten adina zein den kalkulatzeko arrazalderdiak, alderdi biologikoak, patologikoak, elikadura-arlokoak eta alderdi somatikoak karporen hezur-adina eta hortzen Ortopantomografia balioztatuko dira. Era berean, ondorio orokorretan eta behin betiko erabakia hartu aurretik honako adin hauek bildu dira: adierazitako adina, gorpuzkera-adina, pubogramaren araberako adina, alderdi soziokulturalaren eta arraza-alderdien araberako adina, zuzeneko hezur-adina, hortzen egoeraren araberako adina, eta kalkulatzeko adin kronologikoa, jakina.

Protokolo Operatiboak koordinatzen du Polizia Kidegoek ustezko adingabea ustezko delitu edo hutsegiteren bat egin dutelako zigor-arloko bidean atxilotzen dituztenak izan ezik; horiek epailearen esku geratzen baitira Adingabeak Babesteko Zentro batera eramaten eta Gizarte Langileek edo Aldundiek mendeko Laguntzaileek Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen Klinika Zerbitzuei jakinaraz diezaieten ustezko adingabea aztertu egin behar dela adin kronologikoa ezartzeko. Aurretik, Ospitaletako Larrialdi Zerbitzuetara eramango dute dagozkion erradiografiak egiteko, eta, Protokolo Orokorrean bilduta dagoen dokumentazio guztia betetakoan, Traumatologian aditua den eta arlo horretan berariazko jakintza duen Auzitegiko Medikuntzako batek aztertuko du eta mediku horrek egingo du behin betiko txostena kalkulatzeko adin kronologikoarekin.

Adierazitako txostena lehenbailehen bidaliko zaio normalean egun berean Fiskaltzari, azter-lana eta balioespena eskatu dituen organoa baita.

Halaber, nahitaezkoa da nabarmentzea salbuespenezko kasu batzuetan, eta ordutegi-des-orekak direla medio, adingabea dokumentazioa beti beteta duela [bereziki, dagokion azter-lan erradiologikoarekin] Guardiako Epaitegian aurkeztu izan dela; Guardiako Auzitegiko Medikuak hartu izan du esku; "a posteriori" medikuaren fitxa eta dokumentazio erradiologikoa Auzitegiko Traumatologian Aditua den mediku batek gainbegiratu izan du.

Horri dagokionez, adierazi behar dugu Justizia Administrazioarekiko Harremanen Zuzendaritzak ez dakielako Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen hiru Zuzendariordeztan zorrotz jarraitu ez denik Akordioan azaltzen den Protokolo Teknikoa eta Operatiboa. Jarduteko aginduak Fiskaltzak ematen ditu, eta, ondorioz, Protokoloa abian jartzen da aginduemaileak lehenbailehen eduki dezan eskatutako gaietarako buruzko informazioa.

Bereziki, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, Foru Aldundiaren iritziz, Probintzia Auzitegiko Fiskaltza jakinaren gainean egonik, adingabe horien kasuetan adin kronologikoa kalkulatzeko egin behar ziren hainbat balioespen klinika pribatu batek egin behar zituen. Alderdi horretan Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeak ez du modu erabakitzailean esku hartu.

Bestalde, adierazi behar dugu Protokoloaren funtzionamenduari buruzko iritzia, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen ikuspegitik, honako hau dela: auzitegiko medikuek orain arte bete dute eta betetzen ari dira erakundearen arteko akordioa, baita Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak onartutako Protokolo Tekniko eta Operatiboa ere. Hain zuzen ere, protokolo hori erabili dute tresna gisa auzitegiko mediku espezializatuek, eta, azken batean, dagokion gaian adituak direnek.

Laburbilduz, amaitzeko esan behar dugu Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak gaiari buruzko ikuspegi oso espezifikoa eta teknikoa duenez gero, kasu horiei dagokienez, ez dagoela egiaztatu beharreko desorekarik edo eskasia-egoerarik."

Aztertzen ari garen gai horri buruz ere kexa bat tramitatu dugu (1129/2008 espedientea), Gipuzkoako Foru Aldundiak adingabearen adina zehaztean egindako irizpide-aldaketetarako buruz.

Foru Aldundiak ezeztatu egin zuen adingabe baten tutoretza, horren pasaportearen ageritza jaiotza datatik gazte hori adin nagusikoa zela ondorioztatzen zelako. Hala eta guztiz ere, auzitegiek zenbait aldiz esan zuten pasaporte horretako datuek egiazkoak ez izatearen zantzuak zituztela. Espediente honetan planteaturikoa larria da, adingabe hori babes sistematik zenbait aldiz irten delako, adin nagusikoa zelakoan, baina adin nagusikoa izan barik; horrenbestez, kalean bizi izan da, adingabea izan arren. Sartu eta irten horiek ez diote beharrezko egonkortasunik eman adingabe horren integrazio prozesuari, eta horri jokatutako arazo bat ere gehitu zaio; horren ondorioz, desegituratze larria egon da adingabe horren kasuan.

• **Adingabeen egoitza arautzen duten legezko aurreikuspenak ez betetzea**

Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2006an, adingabe atzerritarrak aberriratu dira, eta, horren eraginez, bi espediente ireki ditugu ofizioz. Bata Bizkaiko Foru Aldundiari lotuta (42/2006 espediente), baina hori eten egin genuen, adingabeak auzibidera jo zuelako. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak (Administrazioarekiko Auzietako Sala) 2008ko otsailaren 14an emandako epaiak (668/07 apelazio errekurtsua) ezeztatu egin zuen Polizia Kidego Nazionalako funtzionarioek egindako jarduketa; jarduketa horren helburua Gobernuaren Bartzelonako ordezkariak 2005eko maiatzaren 2an emandako ebazpena betearaztea zen; horren bidez, tutoretza organoak eskatuta, adingabea jatorrizko herrira aberriratzeari ebatzi eta ebazpena gauzatzeko ardura Poliziaren Goi Buruzagitzari eman zitzaion.

Horren arabera, adingabe atzerritarrak atzerriratzeko prozesuan adingabeak esan beharrekoa ez entzuteak urratu egiten du prozedura, eta erabateko deuseztasun akatsa da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidegoari buruzko Legeko 62.1 e) artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta: *“La actuación material dirigida a la ejecución de la repatriación acordada por la resolución del Subdelegado de Gobierno en Barcelona vulnera los derechos fundamentales del recurrente a la tutela judicial efectiva, art. 24.1CE y a la defensa, art. 24.2CE.”*

Auzitegiak hauxe erantsi du: *“la falta de audiencia del menor en el procedimiento administrativo lesiona su derecho a la tutela judicial efectiva al impedirle trasladar al órgano jurisdiccional llamado a controlar la legalidad del acto por el que se ordena su repatriación su opinión contraria a la misma, máxime si, como en el caso ocurre, la resolución de repatriación no es notificada al menor sino exclusivamente al órgano de tutela.”*

Aurrerago hauxe esan du: *“la ejecución material de la repatriación sin llegar a notificar previamente la resolución que constituye el título habilitante abunda además en la lesión del derecho a obtener la tutela judicial efectiva y a la defensa, en la medida en que frontalmente impide al menor alzarse por vía jurisdiccional contra la resolución.”*

Gazte horrek, gaur egun, egoitza baimena dauka eta HEMEN izeneko emantzipazio programan parte hartzen ari da.

Beste espedienteari dagokionez (54/2006), arartekoarengana jo eta aditzera eman genion aberriratzeko prozeduran ikusitako akatsei buruzko iritzia. Hain zuzen ere, esan genion kome-nigarria zela bakarrik dauden adingabe atzerritarren aberriratzeari arautzen dituen araubide juridikoa legez argitu beharra zegoela, eta ezinbestekoa zela autonomia erkidegoen eta adingabearen tutoretza euren gain hartzen duten foru-aldundien arteko lankidetzaren sustatzea. Arartekoak emandako erantzunaren arabera, Etorkinen Integrazioarako Zuzendaritza Nagusiaren txostena jaso dute; bertan informazioa ematen da bakarrik dauden adingabe atzerritarrak aberriratzeko prozedura garatzeko protokoloari buruz. Txosten horren edukia hauxe da:

“El Grupo de Trabajo, creado para abordar la cuestión de MENA ha seguido trabajando en el proyecto de protocolo para el desarrollo del procedimiento de repatriación de

dichos menores. A lo largo de todo el trabajo han ido surgiendo dificultades que han requerido del asesoramiento de expertos en la materia y la petición de un informe a la Abogacía General del Estado, Dirección del Servicio Jurídico del Estado, del Ministerio de Justicia.

En este momento, el trabajo realizado por el grupo está bastante avanzado, quedando reflejado en el proyecto del Protocolo la cuestión planteada por esa Institución acerca de la inexistencia de plazo para la ejecución de la resolución de la repatriación.

Considerando el Procedimiento de repatriación como un procedimiento administrativo común, que ha de regirse por lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (LRJ-PAC), los plazos para resolver, han de ajustarse a los establecidos en dicha Ley.

La dificultad que se planteaba es la imposibilidad de cumplir dichos plazos, en muchos casos, debido a la tardanza en la recepción del Informe de la Embajada o Consulado, relativo a la familia del menor, o en su defecto, a los servicios de protección de menores en el país de origen.

Considerando que dicho informe es relevante para que la repatriación del menor pueda llevarse a cabo con todas las garantías, se han considerado como Actuaciones Previas al Procedimiento todas las gestiones relativas al mismo, por lo que el procedimiento de repatriación no se inicia hasta que dicho informe no se haya recibido. Por lo tanto, los plazos a cumplir, desde el inicio del procedimiento de repatriación hasta la ejecución de la misma, vendrán fijados por lo recogido en la LRJ-PAC."

Erakunde honek planteaturiko gaiari dagokionez (aberriraturiko adingabe batek berriro ere tutoretza hartzen duenean edo aberriratzeko ebazpena tutoretzakoa ez den gobernu ordezkarriz batek ematen duenean gertatzen den egoera), hauxe jakinarazi du: *"desde la Secretaría de Estado de Seguridad se está trabajando en el cumplimiento del registro único, a través del fichero ADEXTRA cuya responsable es la Comisaría general de Extranjería y Fronteras. Esta ha de llevar a una información única del menor que esté a disposición de los departamentos que tienen las competencias en el procedimiento de repatriación, sea cual sea la Comunidad Autónoma donde se encuentre, evitando así la duplicidad de procedimientos"*.

Berretsi egin behar da garrantzi handikoa dela aberriratzeko prozesuak berme guztiak betetzea. Horri dagokionez, Human Rights Watch erakundeak Espainiari buruzko txostena egin du oraintsu: *"Edozein preziozko itzultzeak: Espainiak oraindik ere bermerik gabe aberriratzeko dituzten bakarrak dauden adingabe atzerritarrak"*. Txosten horretan, akatsa identifikatu da prozeduran; hain zuzen ere, interesen arteko gatazka dago adingabea babesteko zerbitzuen eta adingabearen artean, azken horren legezko ordezkaria babes erakundea denean.

Horren adibide bat iaz adierazi genuen aberriratzeko prozedura da, 23/2007OF espedientean adierazitakoa. Espediente hori tramitazioan dago oraindik; izan ere, Eusko Jaurlaritzako

Justizia, Lan eta Gizarte Sailaren erantzuna baino ez dugu jaso oraintsu. Kasu horrek agerian jartzen ditu adingabe atzerritarrek integrazioarako dituzten zailtasunak, baita esku hartu duten administrazioek erantzun egokiak emateko dituzten arazoak ere. Adingabe horri buruzko ebazpenean, Gobernuaren Bartzelonako Ordezkaritzak (2005eko maiatzaren 1ean) emandako aberrirratzea betetzeko agindua eman zen. Iazko txostenean adierazitakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak adingabea aberrirratzeko agindua gauzatzeko eskabidea egin zion Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzari. Horrenbestez, kasu honetan ere, bete-arazpena egiteko eskabidea jaso duen ordezkari ez den ordezkari batek aspaldi emandako Ebazpena da; beraz, 54/2006 espedientera jo behar dugu, hain zuzen ere, Integrazioko Zuzendaritza Nagusiak arartekoari bidalitako erantzunera (oraintxe aipatu duguna).

Azkenean ez da betearazi aberrirratze ebazpena, baina aipagarriak dira gure ustez adingabe horren integrazio prozesuan eragina izan duten zenbait elementu; esate baterako, Foru Aldundiak egindako aberrirratze eskabidea eta adingabearen tutoretzaren amaiera (432/2008 Foru Agindua, adin nagusitasunaren eraginezkoa; Donostiako Lehen Auzialdiko 3. Epaitegiak eten egin zuen, kautelaz, agindu hori -750/08 autoa-). Foru Aldundiak, auto hori betetzeko, tutoretza hartzeko beste agindu bat eman zuen (1366/08, irailaren 18koa), eta adingabea hartzeko baliabide bat esleitu zuen, Madrileko Santa Lucía zentroan (Dianova elkarteak kudeaturiko zentroa). Agindu berri hori emateko unean, inork ez zekien gaztea non zegoen. Adingabe hau zenbait hilabetetan egon da babes sistematik kanpo, gazteen justizia sistemako neurriak bete ondoren. Eskuaratean dugun informazioaren arabera, adingabea ez zen aurkeztu, eta, beraz, ezin izan zuen egoitza baliabide hau aprobeztatu, adin nagusitasunera heltzeko falta zitzaizkion hilabeteetan (autoan esaten zenez, 2008ko azaroaren 22a). Badaezpadako neurriak, beraz, ez zuen ondorerik izan.

Gure txostenetan eta egoitza zerbitzuetara egindako urteroko bisitaldietan egiaztaturikoaren arabera, Gipuzkoan adingabe atzerritarrak babesteko sistemak gabezia asko ditu. Gabezia horien artean, aipagarria da arreta iraunkorrik eta adingabeen dokumentazioaren erregulazio prozeduraren jarraipenik ez egotea. Horren ondorioz gazte batzuk, hemezortzi urte bete ondoren, bakarrik gelditzen dira, eta jasotzen duten laguntza bakarra beste gizarte baliabide humanitario batzuek emandakoa da, baina baliabide horiek ez dira nahiko eta ez dira egokitzen adingabeen beharrianetara.

• **Adingabeen eskubideak: defentsa eskubidea eta pribatutasun eskubidea**

Defentsa eskubidea Haurtzaroari eta Nerabezaroari Laguntza eta Babesa emateari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legean onartu zaie adingabeei. Haurren eta nerabeen egoitza harerako baliabideak arautu dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak ere onartzen du eskubide hori. Aurten kexa bat jaso dugu, tramitazio fasean dagoena, eskubide hori betetzeak dituen gabeziei buruz.

1398/2008 kexan agerian jarri ziren adingabe atzerritar batek izandako zailtasunak, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Ofiziozko Txandaren laguntza juridikoa lortzeko izandakoak; hain zuzen ere, bakarrik dauden adingabe atzerritarren jarduketa protokoloa erabili nahi

zuen; protokolo horren bidez, onartu egiten da adingabeak aholkularitza edo informazio juridiko independentea eskatzeko duen eskubidea, edota ofiziozko abokatua lortzeko duen eskubidea, bere eskubideak defendatu ahal izateko. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailera jo eta informazioa eskatu diogu, bakarrik dauden gazte atzerritarren defentsa eskubidea betetzeko egiten ari denari buruz.

Gure idazkian Konstituzio Auzitegiak 2008ko abenduaren 22an emandako bi epai aipatu ditugu. Lehenengoak, 3321-2007 babes errekurtoa ebatzi duenak, onartu egiten du elkarte batek administrazio jarduketa bat aurkaratzeko duen eskubidea, horren interes legitimoa egiaztatzen denean, hau da, elkartearen helburuen artean arazoak dituzten pertsonak (gizarte-bazterkeria, batez ere adingabeen eta gazteen kasuan) gizarteratzeko eta sustatzeko helburua dagoenean. Halaber, elkarteak bidezko ekintza judizial guztiak egin ahal izango ditu adingabeen eta gazteen funtsezko eskubideak eta askatasunak zaintzeko.

Bigarrenak, 3319-2007 babes errekurtoa ebatzi duenak, onartu egiten du adingabeek organo judizialaren entzunaldia edo arakatzea izateko duten eskubidea, euren inguru pertsonalean eragina duten neurriak hartzen direnean. Horrenbestez, euren judizioa eratzeko moduan dauden adingabeek entzunaldia izateko eskubidea dute, eurengan eragina duen edozein prozedura judizialean edo administratibotan, bai zuzenean edo bai ordezkariaren nahiz organo egokiaren bidez.

Eskubide hori, gainera, onartuta dago Konstituzio Auzitegiaren epai batzuetan (azaroaren 25eko 221/2002 Epaia eta urtarrilaren 30eko 17/2006 Epaia), Nazio Batuek Haurren Eskubideei buruz egindako Konbentzioan (1989ko azaroaren 20a), Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan eta Europar Batasunaren Funtsezko Eskubideen Gutunean.

Adingabea aberriratzeko erabakiak eragina dauka horren inguru pertsonalean eta familiarrean. Horri dagokionez, aipagarria da Konstituzio auzitegiak 2007ko irailaren 17an emandako epaia: *“ nos encontramos en un caso que afecta a la esfera personal y familiar de un menor, que, con diecisiete años de edad en el momento de resolverse sobre la autorización para la repatriación, gozaba ya de juicio suficiente para ser explorado por el Juzgado de Menores, con el fin de hacer efectivo el derecho a ser oído... Por esta razón, es claro que el Juzgado debió otorgar un trámite específico de audiencia al menor antes de resolver la pretensión deducida por la Dirección General de Policía.”*

Epaian, Konstituzio Auzitegiak hauxe adierazi du: *“ la interpretación y aplicación de la regulación de la capacidad procesal, por ser un presupuesto de acceso a la jurisdicción, debe estar regida por el principio pro actione, siendo constitucionalmente exigible que se ponderen las circunstancias concurrentes para adoptar una decisión que no resulte rigorista ni desproporcionada en que se sacrifique intereses de especial relevancia. Entre estos intereses está, sin duda, y como ya se expuso anteriormente, el derecho de cualquier menor con capacidad y madurez suficiente, a ser oído en vía judicial en la adopción de medidas que afectan a su esfera personal, en tanto que este Tribunal ya ha reiterado que forma parte del*

contenido el art. 24.1 de la Constitución Española. De este modo, con mayor razón, y por ser en muchos casos su presupuesto lógico, también forma parte del contenido esencial del art. 24.1 de la Constitución Española, que se posibilite a cualquier menor, con capacidad y madurez suficiente, instar de los órganos judiciales en cualquier orden jurisdiccional, la defensa de intereses que afecten a su esfera persona, incluso contra la voluntad de quienes ejercen su representación legal."

Kexa-espeditentean informazioa eskatu dugu adingabeentzako ofiziozko txandaren funtzionamenduari buruz, bai atzerriartasunaren arloan eta bai beste arlo batzuetan; baita Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren aurreikuspenei buruz ere, bakarrik dauden gazte atzerriarren defentsa eskubidea betetzeari dagokionez. Hau da, abokatu bat hartu eta horrek defendatu egingo ditu, beharizana dutenean; gauza bera egin dezakete, gainera, adingabeen eta horien legezko ordezkarien arteko interesak elkarren aurkakoak direnean; adibidez, aberriratzeko prozeduretan, tutoretza galtzean, egoitza eta lan baimenak ukatzen zaizkienean, asilo eskubidea onartzen ez zaienean, zaintzaileak salatzen dituztenean edo legezko ordezkariak egindakoarekin edo egin gabearekin ados ez daudenean. Halaber, antolamenduak eta funtzionamenduak aintzat hartuko ditu adingabe atzerriarren ezaugarriak eta beharizanak; esaterako, hizkuntzaren arloko zailtasunak, etab. Horri dagokionez, EAEko araudia hartuko da kontuan, defentsa eskubidearen eduki zabala aurreikusten duena, baita adingabeen babes araudi eta, hain zuzen ere, administrazioek adingabearen interesean jarduteko betebeharra ere.

Adingabeak tratu duina eta intimitatea izateko eskubidea, era berean, aztertuta dago Haurren Eskubideen buruzko Konbentzioan (1989ko azaroaren 20an onetsita), Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoan eta Haurtzaroi eta Nerabezaroi Laguntza eta Babesa emateari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legean; lege horretako 80. artikuluko f) atalean "*langileengandik eta gainerako egoiliarrengandik tratu duina jasotzeko*" eskubidea dago jasota, eta i) atalean, berriz, "*zentroan bere intimitatea eta ondasun pertsonalak errespetatzeko*" eskubidea, egoitza-zentro batean hartutako adingabeak direnean.

Horri dagokionez, aurreko ofiziozko espediente bat ireki dugu, 238/2008 espediente, eta hori tramitazio fasean dago; izan ere, jakinarazi digutenaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko adingabeen harrera zentroetariko batean adingabeak oso-osorik biluztera behartzen dituzte, zentroan sartzen diren bakoitzean.

Administrazioari informazioa eskatu ondoren, esan ziguten hori ez zela egiten; gainera, jakitera eman ziguten zentro horretan jarduketa protokoloa dutela, "*Adingabeen zentroetako segurtasun-zaintzaileentzako lan prozedurak*". Gainera, "*ha habido ocasiones en las que se han realizado registros o cacheos que superan la mera pasación del detector de metales. (...) Estas actuaciones se han realizado cuando, a criterio de los profesionales de seguridad, se ha observado una posible situación de peligro y tras una fuga bastante prolongada. En ningún caso se ha dejado a los menores desnudos. Siempre han estado en ropa interior y tapados con una toalla. Siempre han estado presentes personal de seguridad y educador*".

Bestalde, adingabeen babes zentro batzuetara egindako bisitaldian ikusi dugunaren arabera, irizpide desberdinak daude miaketa pertsonalak egiteko kasuei buruzko irizpideetan, baita jarraitu beharreko prozedurari buruzko irizpideetan ere. Horri dagokionez, gogoratu behar da uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak (babesgabetasuna duten haurren eta nerabeen egoitza-harrerako baliabideak arautu dituen dekretua), 15. artikuluan, pribatutasun eskubidea onartzen duela; gainera, i) atalean miaketa pertsonal horiek egiteko kasu murriztaileak ezartzen ditu, baita administrazio eskudunari horri buruzko informazioa eman beharra ere; baina ez du arautzen miaketa horiek nola egin behar diren, adingabearen intimitatea babesteko.

Hori guztia aintzat hartuta, komenigarria da babesgabetasuna duten adingabeen harrera zentroak Dekretuaren interpretazio murriztailera egokitzea, adingabearen eskubideak beti bermatu ahal izateko.

• Adingabeak autonomia erkidego batetik bestera lekualdatzea

Komunikabideetan zabalduetako albiste baten arabera, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundien mendeko harrera zerbitzuetako (bakarrik dauden adingabeentzako zerbitzuak) profesionalak sustatu egin dute (adingabeei geltokira lagunduta, bidaia egiteko txartela erosita eta eman beharreko pausoak adierazita) adingabe batzuk Galiziako Autonomia Erkidegora joatea. Hori dela eta, ofiziozko bi espediente ireki ziren.

Espedientearen helburua hauxe jakitea zen: ea administrazioek ba ote zekiten horren berri, eta ea zer neurri hartzen dituzten halako egoerarik gehiago ez gertatzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako erantzunean (339/2008 espedientea), Galiziako Xuntako Ongizateko Idazkaritza Nagusiari bidalitako gutuna erantsi du; bertan, ukatu egiten zen hori egia izatea, eta jakitera ematen zen Aldundiak eta erakunde laguntzaileek adingabeen harrera sustatzen dutela, baita horiek familiakoekin (edukiz gero) integratzeko behar diren neurriak hartzen zirela ere, edo harrerako erkidegora itzultzeko neurriak ere bai, aurretiazko tutoretza agerian egonez gero Xuntak aipaturiko 13 adingabeen kasuan (EAEtik igaro diren adingabeak): bost kasutan erraztu egin zen itzulera, penintsulan zeuden familiakoekin; hiru kasutan, jatorrizko zentrorako itzulera erraztu zen, eta gainerako bostetan borondatezko uztea gertatu zen. Hiru kasutan, agerian gelditu zen Galiziara eraman zirela, kontaktuak egon baitziren bi autonomia erkidegoko teknikarien artean. Ezein kasutan ere ez da administrazio tutoretzarik formalizatu.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak (338/2008 espedientea) ukatu egin du, emandako erantzunean, foru erakundeak edo bakarrik dauden adingabe atzerritarren harrera programek beste lurralde edota autonomia erkidego batzuetarako deribazioa sustatu dutenik. Gainera, emandako erantzunaren arabera, adingabeak lurralde batetik bestera ibiltzea ohikoa da, eta, adingabeek beste babes zentro batzuetatik datozela diotenean, koordinazio lana egiten da jatorrizko zerbitzuarekin, adingabearentzat egokiak diren neurriak hartzeko. Hain zuzen ere, esan digutenez, 2008ko udan Zabaltzen zentroko bi adingabe Galiziara lekualdatu ziren,

eurek eskatu zutelako. Adingabe horietariko bat familiaren bila joan zen, eta, horretarako, koordinazioa egon zen kasuan kasuko zerbitzuen artean; bigarren adingabea, Galiziara nahi-ta joan ondoren, Gasteizera itzuli zen.

Valedor do Pobo deritzonak eta zenbait auzialdik ere ikertu egin dute gaia, baina jarduketak orain arte ez dira amaitu.

Hala eta guztiz ere, esku artean dugun informazioaren arabera, berretsi egin behar da herri-administrazioen erantzukizunei buruzko Adierazpenean onetsitakoa, bakarrik dauden adingabeei dagokienez; adierazpen hori Herriaren Defentsa Erakundeek egin zuten 2006an, eta, bertan, autonomia-erkidegoen arteko koordinazioa eskatzen da, bakarrik dauden adingabe atzeritarrei laguntzeko eredueta, "ihesik" ez egoteko eta, kasu bakoitzean, adingabearen intereserako neurririk egokienak bermatu ahal izateko.

• **Foru Aldundiaren tutoretza duten adingabeak udal erroldan inskribatzeko zailtasuna**

Uztailaren amaieran Zabaltzen egoitzara egindako bisitaldian, Arabako Foru Aldundiaren tutoretzapeko adingabe atzeritarrak udal-erroldan inskribatzeko zituzten zailtasunen berri izan genuen (egindako bisitaldiaren laburpena kapitulu honexetan, hurrengo orrialdeotan).

Bisitaldi horren ondorioz, ofiziozko jarduketa bat hasi dugu, Gasteizeko udalak arlo honetan duen jarduketa zein den jakiteko. Egindako informazio eskabidean, iritzi batzuk eman genizkion, adingabearen goi interesaren printzipioaren aplikazioari buruz, gure ustez printzipio hori indarrean baitago erabat. Halaber, erakundeen jarduketarako protokoloen bat ezartzeko aukerari buruzko iritzia ere eman genion, Arabako Foru Aldundiaren tutoretzapeko adingabe atzeritarrak (bakarrik daudenak) erroldan inskribatu ahal izateko.

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizeko udalak erantzuna eman diote gure eskabideari. Arabako Foru Aldundiak emandako erantzunaren arabera, halako egoerek erakundeen arteko koordinazioak eragin dituzte sarritan, eta, horrela, zailtasun batzuk konpondu egin ahal izan dira; esate baterako, adingabearen pasaporte Marokoko Kotsuletxean tramitatu baino lehenagoko ziurtagiria behar izatea.

Gasteizeko udalak jarduketa horri buruz emandako erantzunaren arabera, *"con el fin de que los menores puedan acceder a los servicios y prestaciones municipales y facilitar el ejercicio de su derecho a la salud, educación y demás que puedan resultar afectados, se crea un identificador ficticio para poder empadronar al menor en el domicilio del Centro asistencial. Posteriormente, una vez que Zabaltzen ha conseguido la documentación correspondiente al menor, ésta se entrega en la Unidad de Padrón para regularizar la situación"*. Halaber, adierazi digutenez, Informazioaren Teknologiak Saileko Udal (Errolda Unitatea sail horren mende) Zerbitzu Teknikoa protokolo bat lantzen ari da, arazo guztiak jasotzeko eta kasuan kasuko prozedurak ebatztean erabiltzen diren irizpideak bateratzeko. Era berean, protokolo hori lantzean harremanetan jarriko dira Arabako Foru Aldundiarekin. Hau da, Gasteizeko

udala, une honetan, egoera guztiak aintzat hartzen dituen jarduketa-protokoloa lantzeko fasean dago, eta guk horren balorazio oso positiboa egiten dugu.

Gainera, gai horri dagokionez, ofiziozko jarduketa hasi dugu, euren udalerrietan egoitza baliabideak dituzten udalei zuzenduta (guztira 36 udal), eroldako datuak gaurkotuta edukitzeko zer jarduketa egiten duten jakiteko. Informazio eskabidean, ahalegina egingo da eroldako inskripzioa arautzen duen legezko araubidea zein neurritan betetzen den aztertzeke, baita erakunde eskudunarekiko jarduketa protokolorik dagoen aztertzeke ere. Udalek bidaltzen dizkiguten emaitzen arabera, horiek ikertu eta aztertu ondoren, jarduketa proposamenak egingo dira.

3) Adingabe lege-hausleak

Arartekoaren txosten berezia egin ondoren (adingabe lege-hausleekiko esku-hartzeari buruzko txostena, 1998an argitaratutakoa), erakunde honek jarraipena egin du urtero, zentroetara aldi behingo bisitaldiak eginez, datuak urtero eskatuz eta sektoreko ardura-dunekin, taldeekin nahiz profesionalekin bilerak eginez. Urteroko orain arteko txostenetan horren guztiaren berri eman dugu.

2008ko jarraipen jarduketa horien artean, bi aipatu behar dira: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari ofizioz egindako datu eskabidea, eta Uribarri zentrorako bisitaldia, hori birmoldatu ondoren. Hurrengo orrialdeotan, bi jarduketan laburpena ageri da, azken datu honetako datuetan oinarrituz.

Aditzera eman behar da, hala eta guztiz ere, 2008aren amaieran, Gobernu Kontseiluan, Gazte Justiziako III. Plana onetsi zela (2008-2012), eta hori interes handiko tresna dela. Plan berri hori 2004-2007 Planaren ebaluaziotik abiatzen da, eta hauxe ezartzen du: ildo estrategikoak, printzipioak, helburuak, ekintzak, aldi baterako aurreikuspenak, aurreikuspen ekonomikoak, ebaluazio irizpideak, kudeaketa-eredua... Hau da, plan baten oinarritzko elementuak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzari eta horren zuzendaritzari dagokienez, baina baita eraginpeko beste sail batzuei dagokienez ere (Herrizaingoa, Hezkuntza, Osasuna, Etxebizitza eta Gizarte Gaiak).

Gure datu eskabideari emandako erantzunean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak Planaren eduki osoa erantsi du (aurreko planaren bilakaera ere bai). Horrenbestez, urte askotako datuak, hausnarketak eta konpromisoak eskaini ditu.

Kontuan hartuta hurrengo hilabeteotan arartekoak adingabeei buruzko txosten berezia argitaratuko duela eta, bertan, adingabe lege-hausleei buruzko atal berezia egongo dela, gure ustez komenigarriagoa da hemen 2008ari buruzko informazioa jasotzea eta beste alderdi batzuk hurrengo txosten berezian aztertzea.

Horrenbestez, ondoren, Sailari egindako informazio eskabidean planteaturiko sei puntuko eskemarekin jarraituko dugu; horrek, nolabait ere, lehenagoko txostenekiko konparazioa ahalbidetzen du.

1. Azken urteotan gauzatutako neurrien bilakaera

Arartekoak adingabe lege-hausleei buruz egin zuen txostenak sustatu nahi zuen jarduteko oinarritzko ildoetako bat ezarritako neurriei eta, bereziki, askatasuna hainbeste mugatzen ez duten, hezkuntza-ahalmen handiagoa duten eta barneratzea ez dakarten neurriei zegokienez legeak zituen ahalmen guztiak garatzearena izan zen. Bitarteko eta baliabideak eskuratzeko aukera handiagoa edo txikiagoa izatea neurriak benetan aplikatzeko faktore erabakigarrietako bat izan ohi da, eta halaxe nabarmendu du erakunde honek, neurriak gauzatzea euskal administrazioaren eskumena baita.

Aurreko txostenetan kontu horren inguruko datuak eskaini, balorazioak egin eta elementu positiboak eta negatiboak nabarmendu ditugu. Hori bereziki 2000n eta 2006n egin zen, orduan lortu eta aztertu baienuen Gazte Justiziaren Zerbitzuak egindako memoria zehatza ("*Adingabekoen epaitegiek 1999an EAEn ezarritako neurrien betearazpenari buruzko azterketa*"). Esan bezala, aurten antzeko beste memoria bat lortu dugu, kasu honetan, 2006koa.

Memoria horiei esker, neurrien bilakaera globala eta zenbakizkoa ezagutzeaz gain, informazioa xehetasun handiagoz azter daiteke, oso interesgarriak izan daitezkeen irizpideen arabera. Horrela, esate baterako: gertakaria edo arau-haustea izan zenetik neurria hartu arte igaro den denbora; edo neurriak aplikatzerakoan dauden aldeak, adingabeak mutilak edo neskak izan kontuan hartuta; edo neurri zorrotz edo murriztaileagoen (barneratzea) eta talde jakin batzuek (babespeko adingabeek, berrerorleek, bakarrik dauden adingabe atzerritarrek, etab.) duten egoera ahularen edo ezaugarrien arteko erlazioa.

Bestalde, bilakaera-datu orokorrei esker, neurri bakoitzaren aplikazio maila handiagoa edo txikiagoa den eta joera orokorrak zeintzuk diren ikus dezakegu. Datu orokor horiek, 2004-2008 aldirako, ondorengo taulan jaso dira (aurreko urteetako datuetarako, ikusi, adibidez, aurreko urteetako ohizko txostenetako azpiatal hauxe bera).

2004-2008 aldian ezarritako neurrien bilakaera					
	2004	2005	2006	2007	2008
Zaintzapeko askatasuna	259	201	207	216	324
Gizartearen mesederako lanak egitea	430	506	469	444	299
Tratamendu ambulatorioa	25	33	16	10	8
Gizarte-hezkuntzako zereginak	66	95	73	141	157
Harrera / Bizikidetasuna	5	4	3	10	10
Eguneko zentrora joatea	2	12	6	27	19
Asteburuetan barneratzea	88	66	147	129	102
Zentroan barneratzea	142	137	186	170	131
GUZTIRA	1.017	1.054	1.107	1.147	1.050

(Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Guk eginikoa)

Datuek agerian jartzen dutenez, nolabaiteko egonkortasuna dago betearazitako neurrien kopuru osoan, eta hori kontrajarri egiten zaio aurreko urteetan izandako gorakada handiari, batez ere 2001etik aurrera egondakoari (5/2000 Legearen aplikazioa). Azken urteotan, hala ere, gorakada txiki-txikia izan da (%3tik %5era bitartekoa), eta azken urtean, gainera, %8tik gorako murriztapena egon da.

Sailak emandako datuetan, badaezpadako neurrien kopurua berezi egiten da neurri irmoen kopurutik (zaindutako askatasunetan, barneratzeetan eta bizikidetzan). Horrek ondorengo datuak ateratzeko aukera ematen du:

- Kautela neurrien kopuruak gora egin du (adibidez, 2008an 38 barneratze), eta gehienak (%60) atzerrian (batez ere, Marokon) jaiotako pertsoneri aplikatu zaizkie. Proportzio hori oso deigarria da Gasteizeko (%100) edo Gipuzkoako (%77) epaitegiak aplikaturiko kautelazko barneratzeen kasuan.
- Erkidegorako prestazioek azken urtean izandako murriztapen handia (aurreko urtean baino 145 gutxiago).
- Zaintzapeko askatasun-neurrietan izandako hazkunde handia (104 gehiago), eta, neurri txikiagoan, gizarte- eta hezkuntza-lanetan izandakoen hazkundera (16 gehiago).

Sailak azalpen hauxe eman die azken datu horiei: *"Se ha producido un cambio en la tendencia de las medidas en medio abierto, no privativas de libertad, hacia aquellas más intervencionistas: libertad vigilada y realización de tareas socioeducativas; en detrimento, fundamentalmente, de las prestaciones en beneficio de la comunidad. Este cambio de tendencia tiene mucho que ver con la última modificación de la Ley Orgánica 5/2000. Desde ese momento, ante hechos de baja entidad penal, faltas, es posible imponer libertad vigilada y realización de tareas socioeducativas"*.

Azken urteko barneratze irmoei dagokienez (93) kopuruak beherakada nabaria izan du aurreko urtetik (136).

Halaber, aipagarria da familia barruko eta bikotekidearen aurkako delituen eraginez ezarritako neurri kopuruaren hazkundera (azken urtean 73 neurri); era berean, kasu horien herena neskei buruzkoak izatea ere aipatzekoa da.

2. 2008an barneratze zentro eta baliabideen eta ingurune irekiko zerbitzuen sarean egindako aldaketak

1) Heziketa-zentroak

Gure autonomia-erkidegoan berriaz adingabe lege-hausleak barneratzeko diren heziketa-zentroen sarea, hainbat urtez, hiru zentrok osatu zuten: Andoiuko zentroak (hasiera batean neskentzat izango zena), Aramaiokoak eta Ortuellakoak (azken hau mutilentzat). Egoera horixe zen nagusi Arartekoaren ezohizko txostena prestatu zenean. Bertan, zentro horiek zituzten mugetako batzuk adierazi ziren; muga horiek hainbat faktoreren ondorioa ziren, besteak beste, kokapena, titulartasuna, egitura edo harrerarako ahalmena. Baliabideak ge-

hitzea beharrezkoa zela ere adierazi genuen eta iruditu zitzaigun Zumarragako zentro berria sarean sartzea (hasiera batean 2001ean egingo zena) aukera ona zela zentroen konfigurazioa berrikusi eta horien etorkizuna planifikatzeko.

Egoera asko aldatu da azken urteotan. Horrela, lehengo hiru zentroi –Aramaioko Mendixola (12 plaza), Ortuellako Miguel Ángel Remírez (8 plaza) eta Gasteizko Andoiu (7 plaza)–, beste baliabide batzuk gehitu zaizkie eta, hala, plaza gehiago sortu dira eta sarea berrantolatu ahal izan da. 2007. urtean, esaterako, Uribarri zentroa osorik berritu zen eta, ondorioz, plaza gehiago barneratu ziren sarean, edo azken urte honetan Mendixola zentroa birmoldatzeari ekin zaio.

Horrela, egun Justizia Sailak, zentroak mailen arabera berrantolatu ondoren, eremu itxiko neurriak betetzeko, ondorengo koadroan laburbil daitezkeen baliabideak ditu: Heziketa-zentroen sarea:

HEZIKETA ZENTROA	MAILA	LEKUA	PLAZAK	KUDEAKETA	LANGILEAK (2008-12-31n)
IBAIONDO	I	Zumarraga	34 (mutilak) 5 talde	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, zuzenean	64 + 12 irakasle + zerbitzuak (sukaldea, garbiketa, zaintza)
MIGUEL ÁNGEL REMÍREZ (CEMAR)	II	Ortuella	7 (mutilak)	Berritzu hezkuntza-elkarteak, zeharka	15
MENDIXOLA	II	Aramaiio	Urrira arte asteburuetako barneratze zentro gisa erabilia	Berritzu hezkuntza-elkarteak, zeharka	3
URIBARRI	II	Arrazua-Ubarrundia	14 (barneratzea) 4 (eguneko zentroa)	Berritzu hezkuntza-elkarteak, zeharka	28
ANDOIU	II	Andoiu	7 (neskak)	Gaztaroen Ekin elkarteak, zeharka	16
BILBOKO AUTONOMIA EGOITZA	III	Bilbao	6 (mutilak eta neskak)	Berritzu hezkuntza-elkarteak, zeharka	8
GASTEIZKO AUTONOMIA EGOITZA	III	Vitoria-Gasteiz	4 (mutilak eta neskak)	Gaztaroen Ekin elkarteak, zeharka	6
SAN SEBASTIÁN EGOITZA	III	Donostia-San Sebastián	4 (mutilak)	Berritzu hezkuntza-elkarteak, zeharka	6
SAN SEBASTIÁN-2 EGOITZA	III	Donostia-San Sebastián	6 (mutilak eta neskak)		8

Horrela, beraz, abenduaren 31n zeuden barneratze plazak 82 ziren (iaz baino 10 gehiago), asteburuko egonaldietarako 6 plazak eta eguneko zentroko 4 plazak kontuan hartu gabe. Barneratze plaza horiek honela banatzen dira, mailen arabera:

- 34 plaza I. mailan (zentroak 5 hezkuntza-talde ditu; horietako batek berariaz barneratze terapeutikoko neurriak betetzen jarduten du).
- 28 plaza II. mailan (lau zentro), (4 plaza eguneko zentroan; 6 asteburukoak).
- 20 plaza III. mailan (lau egoitza-unitate, horietatik bat familia-ingurunean erasoak edo mehatxuak egiteagatik zenbait neurri bete behar dituzten pertsonen arreta ematen espezializatua).

Sailaren datuen arabera, azken urte honetan ez da gure erkidegotik kanpoko beste zentro batzuetara barneratze-neurririk bideratu plazarik ez zegoelako, baizik eta, izatekotan, adingabeentzako epaitegiei komenigarria iruditu zaielako eta hala egitea erabaki dutelako. Zentrozen batez besteko okupazioa %75ekoa izan da (ia %80koa, non dauden ez dakigun baina plaza erreserbatu duten pertsonak kontatzen badira).

2) Ingurune irekiko zerbitzuak:

- Lau hezitzaile-taldeak mantendu eta indartu dira: Bizkaiko biak (14 profesional); Gipuzkoakoa (7 profesional); eta Arabakoa (4 profesional).
- Bizkaiko Zabalik eguneko zentroa finkatu eta handitu da (20 neska-mutil eta zortzi profesional).
- Gipuzkoan eguneko beste zentro bat zabaldu da (Ireki): 12 plaza ditu eta lau profesional arduratzen dira zentroaz.
- 15 gazte profesional bakoitzeko ratioari eutsi zaio, lan gairik ez sortzeko, Gipuzkoan izan ezik. Gipuzkoan lan-taldea profesional gehiagorekin indartu egin da hilabete batzuetan.

3) Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekin egindako kontratuak:

Sailak emandako informazioaren arabera, Ogasun Sailak hala adierazita, kontratuaren formula erabiltzetik lankidetzat-hitzarmenaren formula erabiltzera igaro da eta ekarpen ekonomikoak gehitu dira sektoreko hitzarmen kolektiboetan ezarritako mailak bete ahal izateko.

Gainera, 163/2008 Dekretua onartu da, erakunde laguntzaileak baimendu, homologatu, ikuskatu eta erregistratzeari buruzkoa.

3. Zerbitzuen inguruko arauak

Arartekoak hainbatetan nabarmendu du oso garrantzitsua dela 2005ean onartu eta indarrean sartu ziren bi arau garatzea eta aplikatzea; hots, 5/2000 Lege Organikoaren Araudia; eta Eusko Jaurlaritzak 2005eko otsailean onartu zuen haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legea.

Aurten ere, Justizia Sailari datuak eskatzeko bidali zaion idazkian, gai hori nabarmendu zen eta hori aplikatu eta garatzeko egindako urratsei buruzko informazioa eskatu zen, bereziki, barneratze zentrozen funtzionamendu arauak erregulatzeari eta zigorren araubideari eta isolatze neurrii zegokienez.

Sailaren erantzunetik hiru datu azpimarra ditzakegu:

- Onetsi egin da 163/2008 Dekretua, goian aipatutakoa.
- Askatasunaz gabetzeko gazte neurriak betetzeko hezkuntza zentroak arautu dituen dekretu berria onetsiko da laster (erakunde honek horren zirriborroa jakinarazi zuen, eta irizpenen azken fasean dago).
- Diziplina prozedurak eta edukitze-neurriak 5/2000 Lege Organikoa garatu duen araudian ezarritakoaren arabera arautzen dira.

4. Babes sistemekiko harremana

Aurrez egindako jarraipenen ondoriozko datuak eta kezka kontuan hartuta, Sailari honakoen inguruko informazioa eskatu genion berriz ere:

- Babes sistemetatik datozen adingabeen proportzioa (jokabide arazo larriak dituzten nerabeak eta, zehazki, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak –hauen inguruko jarraipena egiten ari gara–).
- Koordinazio mekanismoak, jarduteko irizpide komunak, informazioa trukatzeko eta jarraipena egiteko sistemak, esku-hartzearen jarraitutasuna, etab.

Erantzunean Justizia Sailak berriro aipatu du bilakaera izan dela eta gazte justiziaren sisteman adingabe asko foru aldundien mende dauden babes sistemetatik datozeला, nagusiki, jokabide edo neurri larrienen kasuan (kautelazko neurriak edo barneratzeak). Horren haritik, 2007ri dagozkion ondorengo datuak ematen ditu, neurri irmoekin lotutakoak:

- Barneratze kasuen %44,5.
- Erkidegorako prestazio kasuan %29,7.
- Zaintzapeko kasuen %28,9.
- Asteburuko egonaldi-kasuen %43,41.
- Hezkuntza taldeko bizikidetza kasuen %50.
- Egunekeo zentroko egonaldien %18,5.

Datu horiek bi sistemen arteko harremana agertzen dute, bereziki, neurri zorrotz edo murriztaileagoen menpe dauden adingabeen kasuan (barneratzeak); hori askoz ere argiago ikusten da kautelazko barneratzeei erreparatzen badiegu. Txosten honen aurreko azpiatalean, bakarrik dauden adingabeek Gipuzkoan bizi duten egoerari buruz azken bi urtetan bildu diren datu esanguratsuak aipatu dira. Esperientziak garbitu utzi du, harrera-sistemak oinarrizko premiei behar bezala erantzuten ez dienean, arazo gehienek, azkenean, zigor sisteman eragina izaten dutela.

Ikuspegi horretatik, azken urteotan bezala, bi sistematan gehien ikus daitezkeen taldeak honako hauek dira:

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak (gehienak Marokokoak).
- Familiari eraso egin dioten adingabeak.
- Emantzipatzeko benetako aukerarik ez duten 18 urtetik gorakoak.
- Babes zentroyen batean bizi diren eta zentrotik kanpo neurriren bat bete behar duten adingabeak.

Familiari eraso egin dioten adingabeei eta gurasoengandik banantzera behartzen diren adingabeei dagokienez, Sailak nabarmendu du, gainera, aurten zenbait neska ere izan direla tartean.

Koordinazio ekimenei dagokienez, Sailak erantzunean berriro aipatu du arazo horiek jada aztertu direla, baina emaitzak oso urriak izan direla. Halaber nabarmendu du, bere ustez, jokabide arazoak dituzten gazte atzerritarrek eta tutoretzapekoek ez dietela beren beharrei erantzun egokia aurkitzen sisteman eta egoera hori larriagotu egin da 2008an, foru aldundien mende dauden eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrei zuzenduta dauden harrera-zerbitzuak beteta baitaude, batik bat Gipuzkoan eta Araban.

5. Zentroetan bertan eskainitako hezkuntza eta osasun arreta eta hezkuntza eta osasun sistemekiko lankidetzak

Aurreko txostenetan ikus daitekeen bezala, behin eta berriro agertu diren eta, une jakin batzuetan, erakunde hau berariazko ofiziozko jarduerak egitera bultzatu duten bi gai dira.

Hezkuntza-arretari dagokionez, Sailaren erantzunak honako hauen egoera bereizten du: III. mailako zentroetan barneratuta daudenak (eskolatzea kasu guztietan egiten da, ohiko sarean), II. mailan daudenak (arreta mistoa eskaintzen da, kasuen arabera, ohiko sarean eta barneratze zentroetan bertan), eta Ibaiondo zentroan daudenak (I. maila). Azken kasu honetan, irakatsi eta ikasteko jarduerak zentroan bertan egiten dira; horretarako, 5 irakasle daude eskolak emateko eta 7 tailerretan aritzeko, guztiak ere Hezkuntza Sailaren mendekoak.

Osasun arretari dagokionez, aldeak daude, halaber, zentro batzuen eta besteen artean. Oro har, ez dago arazo berezirik ez larrialdietako arretan ez hasierako arretan, ezta osasun zentroek edo barneratze zentroak berak ematen duten eguneroko arretan (Ibaiondon, adibidez, Osakidetzako langileek egunero arreta eskaintzen dute pare bat orduz).

Egoera goitik behera aldatzen da buru osasunaren eta toxikomanien arretari dagokienez. Horieta ez da hobekuntzarik nabari aurreko urteen aldean.

Erakunde honek urtez urte nabarmendu du arazo hau. Ikusi, adibidez, iazko txostenean –azpiatal honetan bertan– adierazitakoa, edo horren aurrekoan ere azaldutakoa.

Behin eta berriz agerian jartzen da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak ez diela behar bezala erantzuten horrelako arazoari; horren ondorioz, zerbitzuak zentroan bertan indartu behar izaten dira (Zumarragaren kasuan), zerbitzu pribatuak kontratatu behar izaten dira, edo eskaerak beste baliabide batzuetara bideratu.

Horrela, buru osasunari dagokionez, Sailak gogorarazi du Justizia eta Osasun sailek sinatutako lankidetzak-hitzarmenak larrialdi egoeretako barneratze premiei erantzuten diela –ospitale orokorretako akutuen unitateak–, betiere, barneratze horiek 3 edo 4 aste baino gutxiago irauten badute. Baina barneratzeek gehiago irauten badute, oso kasu berezietan,

ez dute erantzunik Osakidetzan: “ *No existen en la red pública recursos de media estancia para adolescentes; tampoco en la red privada, ni apenas fuera de la CAPV. Por ello, la solución parcial ha sido crear un grupo específico en el CE Ibaiondo para la atención de los internamientos terapéuticos. La atención educativa y psicológica cotidiana es prestada por parte del personal del Servicio de Justicia Juvenil de nuestro Departamento. Para ello, y como refuerzo a la estructura del centro, se ha creado y cubierto una plaza de psicólogo clínico. La atención psiquiátrica, en el mismo centro, por parte de Osakidetza, ha sido imposible, por lo que ha hecho necesario recurrir a la ampliación de una plaza más en la plantilla. En definitiva, sólo las personas menores de edad que delinquen disponen de recursos de media estancia con capacidad para prestar atención en materia de salud mental, aunque el tiempo de estancia no dependa fundamentalmente de criterios médicos sino jurídicos.*”

Horren haritik, aipatu du osasun mentaleko zentroetan ematen den arreta anbulatorioa, biztanleei oro har ematen zaiena dela, eta, horrela, antzemandako premietako askori erantzuten zaiela, nahiz eta, batzuetan, hori ez den nahikoa izaten. Halakoetan, terapeuta pribatuetara jotzen da eta horiekin kontratatzen da esku-hartzea. Halaber dio ez dagoela erantzun publikorik esku-hartzeak familia osoa barne hartzea behar denean.

Balorazio horixe bera jaso zen, beste hitz batzuekin, Gazte Justiziaren Zerbitzuaren 2006ko memorian. Honela dio: “ *tratamendu anbulatorioa gauzatzeko orduan alderdi deigarrieneraiko bat eskaera hauei erantzuteko profesional edota erakunde pribatuak kontratatze beharra izan da, kasuen %68 baino gehiagotan. Eskaintza publikoa ez da gai eskariari erantzuteko, ez kuantitatiboki –saioen periodikotasuna, iraupena, etab.– ez kualitatiboki –esku-hartze mota–.*”

Toxikomanietan ematen den arretaz ere balorazio kritikoa egin da, iaz azaldutakoaren antzekoa.

Laburbilduz, honakoa ondorioztatzen du: “ *oro har, zerbitzu publikoek buru osasunari eskaintzen dioten arretak hutsune garrantzitsuak ditu; eragindako pertsona-kopurua gero eta handiagoa da eta sare pribatura jo behar izaten da, eta, zenbait kasutan, ezinezkoa izaten da erantzunik egokiena ematea.*”

6. Eskaerari behar bezala erantzun ahal izateko sisteman egindako hobekuntzak

Puntu honetan Justizia Sailari datuak eskatu genizkionean, eskaerari behar bezala erantzun ahal izateko edo indarrean diren planak aplikatuz sisteman egindako hobekuntzei buruzko informazioa eskatu zen. Horren haritik, honakoei dagokienez ezarritako neurriak azpimarratu izan ditugu:

- Zerbitzu judizialak.
- Gazte Justiziaren Zerbitzuaren kudeaketa-ahalmena.
- Era guztietako neurriak aplikatzeko beharrezko baliabideak.
- Jarraipena, koordinazioa eta ebaluazioa.

- Irteteko eta emantzipatzeko bideak.
- Audientzia Nazionalak hartutako neurriak betez adingabeei arreta eskaintzeko aukera (lankidetzaren hitzarmena...).

Sailaren erantzunak, batez ere, plaza kopuruak izandako hazkundeari edo baliabide berriak sortzeari buruzko datuak ematen ditu: psikologi klinikoko plaza bat sortzea Ibaiondon; Gipuzkoako eguneko zentro berria (12 plaza); Uribarri eta Mendixola zentroak birmoldatzeko obrak... Horri dagokionez, oraingo baliabideak nahikotzat jotzen dira eskariari erantzun egokia eman ahal izateko.

Hobekuntzat, halaber, IVAC deritzonarekiko lankidetzaren handiagoa aipatu da, ikerketa, azterlanak eta ebaluazioak egiteko, eta, horien bidez, esku-hartzeen kalitatea hobetu ahal izateko.

Azkenik, hauxe adierazi da: *“ Se ha suscrito, y prorrogado para 2009, un Convenio de colaboración entre el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y los Ministerios de Justicia y de Educación, Política Social y Deporte para posibilitar el cumplimiento, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, de las medidas impuestas, por delitos de terrorismo, por el Juzgado Central de Menores de la Audiencia Nacional”*. Erakunde honek urteetan azpimarratu du gai hori.

Informazio horiek alde batera utzita, hasieran esan dugunez, Sailak 2004-2012 Planaren ebaluazio orokorra bidali zigun, baita 2008-2012rako onetsitako Plan berria ere; horiek ondoren aztertu eta euren jarraipena egingo da.

* * *

Aurreko informazioak osatzeko eta egiaztatzeko elementutzat, ondoren, barneratze-zentro batera egindako bisitaldiaren laburpena eskainiko dugu.

7. Uribarriko hezkuntza zentrorako egindako bisitaldia

2008ko azaroaren 4an, arartekoaren langileak Uribarri hezkuntza zentrorako joan ziren (adingabe lege-hausleentzako zentroa), ezusteko bisitaldia egiteko. Zentro hori Berriztu elkarteak kudeatzen du.

Bisitaldiaren egunean, zentroan 11 adingabe zeuden, eta zentroak, guztira, 14 plaza ditu, bi bizikidetzaren unitatean banatuta; gainera, eguneko zentroko lau plaza ditu, eguneko zentro horretan gaur egun adingaberik egon ez arren. Adingabe guztiak mutilak dira, gehienak 15-16 urtekoak, egunetik egunera gazteagoak sartu arren, zuzendaritzak dioenez; gazteok jatorri anitzekoak dira: horietariko hiru bakarrik dauden adingabe atzerritarak dira, beste hiru Amerika Latinotik iritsitakoak, eta gainerakoak Estatukoak. Egonaldiak ere oso anitzak dira, bederatzi egunetik urtebetara edo gehiagora.

Hezkuntzaren ikuspegitik begiratuta, hamaika adingabeetatik hiru Gasteizera doaz heziketa jarduerak egitera. Gainerakoek zentroan bertan egiten dituzte lantegiko eta heziketako jarduerak. Batzuek irtenaldiak egiten dituzte asteburuetan, familiarengana edo tutoretzapeko administrazioekin edo hezitzaileekin.

Zentroa landa inguruan kokaturik dago, burdinazko sareekin inguratuta. Barruan administrazio zona dago, eta, horren barruan, eguneko zentrorako bi gelak sartzen dira. Bi bizikidetzako unitateetarako bakoitzean haxe dago: gela komuna, bileretarako gela, egongela, jolaseko zona, jantokia eta sukalde txikia; mintzalekutxo eta komuna, eta logelen zona: banakako zazpi logela (ohea, mahaia, aulkia eta apalategia), denen komunak (hiru konketa, hiru dutxa, bi komun-ontzi eta bi pixatoki), edukitze-neurrietarako gela (gelatxo, komuna eta logela) eta hezitzaileentzako gela.

Barruko instalazioak kontserbazio eta garbiketa egoera onean daude, edukitze-neurrietarako gelen kasuan izan ezik; horietan, hobi septikotik iritsitako kiratsa jasanezina da.

Zentroak, gainera, zurgintzako eta mekanikako bi lantegi ditu, ekipaturiko kirol-lekua eta ordenagailuak dituen ikasketa-gela. Gainera, negutegiko zona ere badu, lorezaintzako lanak egiteko, eta futbol-kantxa bat ere bai, eta, bertan, kirol-jardueretarako saskiak daude.

Zentroak, bestalde, honako langile hauek ditu: zuzendaria, ikuskatzailea, bi koordinatzaile (bizikidetzako unitateko bat), lantegiko bi maisu, gizarte- eta familia-hezitzailea, ikasgelako andereñoa, eguneko zentroko hezitzailea eta eguneroko bizitzako bi talde, unitate bakoitzeko, eta talde bakoitzean zortzi hezitzaile daude, gutxienez bat magrebtarra; halaber, segurtasuneko zaintzailea eta sukaldaria ere baditu. Guztiek goizeko, arratsaldeko eta gauetzko txandan egiten dute lan. Oro har, zentroko langileria egonkorra da.

Instalazioak ikusteaz gain, bisitaldian zentroko dokumentazioa ikuskatu genuen; bertan, haxe dago jasota: sartzeen erregistroa, adingabe bakoitzaren zerrenda gaurkotua (horren fasea adierazita), hartu beharreko hezkuntza- nahiz zuzentze-neurri nagusiak, gorabeheren erregistroa, zuzentze-neurrien erregistroa (aldian behin ikuskatzen dena), deien erregistroa, adingabe bakoitzaren kontaktuko pertsonak, eguneroko nahiz asteburuko jardueren plana, zehapen-protokoloa, seihileko memoria... Oro har, zentroaren dokumentazioaren eta jardueraren erregistro- eta artxibo-sistema egokia da.

Bisitaldian elkarrizketak egin genituen zentroko langileekin eta adingabe batzuekin. Azken horiek adierazitakoaren arabera, zentro itxian egotearen ondoriozko haserrea alde batera utzita, pozik daude zentroko baldintzekin eta hezkuntza taldearekin; eskatu duten gauza bakarra, izan ere, makinak, pisuak edo barrak dituen gimnasioa da, besoetako indarra landu ahal izateko.

Jasotako informaziotik ondorioztaturikoaren arabera, zentroko giroa eta hezitzaileen nahiz nerabeen arteko harremanak onak dira. Era berean, zentroko hezkuntza-erantzunari eta jarduerari buruzko balorazio positiboa egin da, baita adingabe bakoitzaren jarraipen sistemari eta beste erakunde batzuekiko koordinazioari buruzkoa ere.

Zuzendu beharreko alderditzat, aipagarriak dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko adingabe atzerritarren (bakarrik dauden adingabeak) dokumentazioaren tramitazioan zenbait aldiz egoten diren zailtasunak, baita zentroko miaketa eta arakatze pertsonalen sistema ere.

* * *

4) Sasoikako langileen seme-alabak

1995az geroztik, Ararteko erakundeak Arabako sasoikako langileen egoerari buruzko jarraipena egin du. Horren baitan, beste zenbait alderdiren artean, familiarekin nekazal lanetara joaten diren sasoikako langileen seme-alaben eskolatzeko baldintzak aztertu ziren batez ere.

2002an, gai honen inguruko ezohizko txostena egin zen (*Sasoikako langileen egoera Araban*). Hori Eusko Legebiltzarrean aurkeztu eta eztabaidatu zen eta hainbat ekimenen jatorria izan zen: sasoikako langileei buruzko ez-legezko proposamena, Eusko Legebiltzarrak 2002ko abenduaren 12an onartua; sasoikako langileei buruzko mozioa, Arabako Biltzar Nagusien 2003ko urtarrilaren 20an onartua.

Une hartatik aurrera, Arartekoaren jarraipenean, batetik, kanpaina bakoitzean burututako jarduera zehatzak eta, bestetik, epe ertaineko planak edo jarduerak bereizi dira (ikus, adibidez, atal hau iazko txostenean). Hemen azken ikasturteko eskolatzeko edo eskolako arreta bakarrik aipatuko dugu, oso labur. Hezkuntza Sailak gure azken informazio-eskaerari emandako erantzunaz honako datuok nabarmendu ditzakegu:

- Kanpainen zehar ikasle horiek ondorengo ikastetxe hauetan eskolatu ziren: Arabako Errioxa aldean:
 - Víctor Tapia LHI (Guardia): irailaren 24tik urriaren 27ra, gehienez 26 ikasle eta guztira 28 matrikulatuta, horietatik 5 Haur Hezkuntzan, gehienak Bilarretik, Eskuernagatik eta Lapuebla de Labarcatik garraiatuak.
 - Elciego LHI: gehienez 18 ikasle eta guztira, 24 matrikulatuta).
 - Ramiro de Maeztu LHI (Oion): urriaren 6tik 28ra, gehienez ere 9 ikasle, matrikulatutako guztiak.
 - Lantziego Ikastola: urriaren 6tik 27ra; guztira 16 ikaslek eman zuten izena, ia denak Bilarretik garraiatuak.
 - Labastida LHI: bi ikasle.
 - CPEIPS Assa Ikastola, Lapuebla de Labarcakoa: bi ikasle.
 Arabako Mendialdean, adingabeak Kanpezuko Ibernalo Ikastolan eskolatu ziren, urriaren 13tik 27ra bitartean; guztira 8 ikasle matrikulatu ziren.
- Programara bideratutako laguntzako irakasleei dagokienez, horiek 9 izan ziren (aurreko kanpainen baino hiru gutxiago): irakasle bat Oion eta Kanpezuko ikastetxeetan, bi Lantziego eta Eltziegoko ikastetxeetan eta hiru Guardiako zentroan.

- Hainbat kasutan, ikasleak taldekatzerakoan, adingabe horiek gainerako ikasleekin zuten integrazioa hartu zen kontuan, gutxienez zenbait arlotan edo denboratan.
- Kasu gehienetan garraioa eta eskolako jantokia erabiltzen ziren.
- Zentroren batean, ikasle horietaz modu zuzenagoan arduratzen diren irakasleei aurretiaz berriazko prestakuntza eskaini behar zaiela nabarmentzen jarraitu zen; beste zentro batzuetan, kolokan jartzen ziren zonifikatzeko irizpideak edo arreta emateko toki gehiago eta hobeak eskatzen ziren.
- Alderdirik positiboenen artean, aipatzekoak dira zentro batzuetan egindako banakako programazioak. Negatiboen artean, berriz, aipagarria da arreta leku ez-egokietan edo zentroko dinamikan integratu gabeko lekuetan eskaintzen dela. Nolanahi ere, parte hartzen duten irakasleen balorazio orokorra nahiko positiboa da.

Bestalde, komeni da gogoraraztea, adingabe horietako askorekin, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailak bultzatutako gizarte-hezkuntzako programei esker, hezkuntzako beste jarduera batzuk burutzen direla, horiek zehazki eskolaren eremukoak izan ez arren (aisialdiko jarduerak, higiene pertsonaleko edo elikadurako ohituren garapena, osasun premien inguruko orientazioa, etab.).

5) Hezkuntza-premia bereziak edo berriazkoak dituzten ikasleak

Gai honetan egindako jarraipena, funtsean, *EAEko hezkuntza premia bereziei emandako erantzuna* deritzon txosten berezitik abiatu da; txosten hori Legebiltzarrean aurkeztu eta eztatidatu zen, 2001ean.

Une horretatik aurrera, jarduketa asko egin ditugu, bai Hezkuntza Saileko arduradunekiko bilkurak, bai ofiziozko espedienteak.

Ordutik 2007ra arte lorturiko emaitza, bestalde, aurreko urteetako txostenetan adierazi da (esate baterako, atal hau 2007ko txostenean).

Batzuetan, jarraipen orokorra egin nahi izan da; beste zenbaitetan, berriz, gomendio batzuetara mugatu gara, horien garrantzia edo hobetzeko premia kontuan hartuta.

laz bereizi egin genituen informazio eskabideak: bat orokorragoa, beste bat arkitektura oztopoei buruzkoa eta hirugarren bat, azkenik, hezkuntza- nahiz terapia-unitateei buruzkoa. Horri dagokionez, erantzun partziala lortu genuen.

Aurrekari horiek aintzat hartuta, 2008an berriro jo dugu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera, Legebiltzarrerako txosten arrunt hau eta haurtzaroari buruzko hurrengo txosten berezia egiteko baliozkoak izan daitezkeen datu batzuk gaurkotzeko; haurtzaroari buruzko txosten horretan, hezkuntzak eta hezkuntza-premia berezien arretak atal bereziak izango dituzte.

Gure lehen jarraipen jardueretan txosteneko 21 gomendioen gaineko informazio zehatza eskatu eta jaso genuen arren, azken urteotan baliagarriagoa iruditu zaigu gomendio haietako

batzuk baino ez hartzea ardatz nagusi, eta, horregatik, aurreko informazioaren arabera esanguratsuenak eta modu objektiboan aztertzeko modukoak iruditu zaizkigun proposamen eta datu zehatzak bakarrik aztertuko ditugu.

Bestalde, erreferentzia-txostena eta gero, plan sorta onartu da, eta behar horiei erantzuna emateko hainbat konpromiso hartu dira. Funtsean "Hezkuntza" atalari, immigrazio planen barne dagoena eta ijitoen parte-hartzea eta integrazioari buruz ari gara.

Argiago izateko eta jarraipen hobea izateko, aurtan, sei atal desberdinu ditugu, eta horietako bakoitzari espediente zehatza eman zaio:

- 1) Ezgaitasunen bati loturiko hezkuntza-premia bereziei erantzutea.
- 2) Etorकिन populazio jakin batzuen berariazko premiei erantzutea.
- 3) Ijitoen populazio jakin batzuen berariazko premiei erantzutea.
- 4) Gizartean gutxiagotutako populazio jakin batzuen berariazko premiei erantzutea.
- 5) Traba arkitektonikoak kentzea.
- 6) Eguneke zentroak edo terapia- eta hezkuntza-unitateak.

Espedienterik gehienak 2008-2009 ekitaldia hasi ondoren abiatu ziren, datu berriak erabilgarri izateko eta horiek aztertzeko astia edukitzeko. Informazio-eskabideak Hezkuntza Saile-ra bidali ziren, 2008ko urriaren amaieran, arkitektura oztopoei (aurreko urtetik ere ofiziozko espedientea dauka, erantzun barik) eta gizarte egoera txarreko biztanleen premia bereziei (gai hau geroagorako uztea erabaki genuen) zegokienez izan ezik.

- 1) **Ezintasunen batekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei** dagokienez, sail horri datu eguneratuak eskatzen dizkiogu, 2008-2009 ikasturteari dagozkion (eskolatze-data lurraldeka, sareak, etapak...) egoki deritzon termino edo banakatze mailan, beti ere aurreko urteetako datuekin alderatzeko aukera eduki ahal izateko.

Era berean, erreferentzia-txostenaren 10. gomendioarekin lotuta (ezgaitasuna duten irakasleak lanean hasteari buruzkoa) eta gure aurreko Ezgaitasuna duten pertsonen lan-integrazioa EAEn txostenaren gomendioekin (lanpostuen erreserben kupoa %10era iritsi arte igotzea, kontratazio mota guztietara bere aplikazioa zabaltzea, beren banaketa talde eta lan-kategoria ezberdinetan lortzea, lan-publikoak eskuratzea ahalbidetzen duten neurri positiboak finkatzea), ondorengoari buruzko informazio gaurkotua eskatzen dizugu:

- Zein neurri hartu diren goian aipaturiko lau proposamenak benetan aplika daitezten.
- Ea baden sail horrek kontraturiko langile ezinduei buruzko daturik, eta, hala bazen, zein datu ziren horiek.

Arartekoak Hezkuntza Sailari egindako errekerimendu baten ostean (informazioa garaiz jaso ez zuelako), azkenean, 2009ko otsailaren 9an erantzuna jaso da, urteko txosten honen testua ia itxita dagoenean.

Hala ere, behintzat oinarritzko datu batzuk jasotzea erabaki dugu, batez ere, ikasleei eta laguntzako langileei dagokienez, aurreko urteekiko konparazioa egiteko aukera ematen dutenak (adibidez, 2007ko txosteneko datuekin konparazioa, atal honexetan).

Horrela, ezgaitasunari, supergaitasunari eta hezkuntza laguntzari lotutako hezkuntza premia bereziei dagokienez, honako taula hau eskaintzen da (2008/2009 ikasturteari dagokio):

HONAKOAK DITUZTEN IKASLEAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
Ikusteko urritasuna	41	70	64	175	1,6
Entzuteko urritasuna	59	154	96	309	2,9
Adimen urritasuna	439	770	512	1.721	15,9
Mugitzeko urritasuna	84	207	186	477	4,4
Autismoa / GNO /TEA	79	524	191	794	7,3
Hainbat urritasun	106	543	202	851	7,9
Emozio arazo larriak	197	824	734	1.755	16,2
Aparteko talentu intelektuala	9	35	16	60	0,6
HPB ez iraunkorrak	808	2.193	1.665	4.666	43,2
Ikasleak, guztira	1.822	5.320	3.666	10.808	%100
Lurraldeko %-a	%16,9	%49,2	%33,9	%100	

Beraz, oro har, 339 ikasleko igoera txikia gertatu da, aurreko ikasturtearen aldean. Horiek honela banatuta daude, lurraldearen eta sareen arabera:

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA
	Publ.	Prib.	Publ.	Prib.	Publ.	Prib.	
Haur eta Lehen Hezkuntzak	719	417	2.101	1.102	1.386	904	6.621
DBH	261	251	915	612	557	538	3.134
Derrigorrezko irakaskuntzaren ondokoa	19	14	31	20	30	18	132
Ikasgela egonkorak	119	30	232	307	79	154	921
GUZTIRA	1.110	712	3.279	2.041	2.052	1.614	10.808
GUZTIRA	1.822		5.320		3.666		10.808

Datu horiek ez dute aldaketa handirik adierazten, aurreko urteari dagokionez; ikasle horiek sareen arabera duten banaketaren arloan, berriz azken ikasturte honetan %59,6 sare publikoan egon dira eta %40,4 sare pribatuan.

Eta laguntzako langileei dagokienez, honako datu hauek eskaini dira:

HPBko ikasleen laguntzako profesionalak	KOPURUA
Kontsultako irakasleak	343
Orientazioko irakasleak	246
Hezkuntza premia berezietarako aholkularitzak	95
Fisioterapeutak	32
Okupazio terapeutak	8
Lehen hezkuntzako maisu-maistrak	772
Bigarren hezkuntzako maisu-maistrak	388
PTko irakasleak (Helduen Hezkuntza Iraunkorra)	18
PTko irakasleak (Lanak Ikasteko Ikasgelak)	48
Lantegiko maisuak	46
Ikusmen Ezgaitasuneko irakasle adituak	51
Brailleren transkribatzaileak	7
Etxeko nahiz ospitaleko irakasleak eta terapeutikoak	59
Ikasle gorra eskolatzeko koordinatzaileak	3
Entzumen Ezgaitasuneko irakasle adituak	233
Keinuen hizkuntzako interpretea	8
Hezkuntza-laguntzako langile adituak	685
	3.042

Kasu honetan, taulan aurreko tauletan jaso ez diren lanbideak jaso dira; horrenbestez, konparazioa nahasgarria izan daiteke. Hala eta guztiz ere, aipagarria da arretako eta laguntzako lanetan diharduen profesional kopuru handia (3.000 baino gehiago).

Sailaren idazkiak honako honi buruzko datuak ere eskaintzen ditu:

- Hitzarmena:
 - 34.537.094,30 euro hezkuntza bereziko 546 unitate hitzartzeko;
 - 9.298.791,86 euro itunpeko 195 zentrori, laguntzako 486 aditu kontratatzeko.
- Hezkuntza-premia bereziei lotutako heziketa-ikastaroak: Garatu 2008/2009 programan eskainitako 48 ikastaro.
- Heziketa- eta berrikuntza-proiektuak zentroetan: hezkuntza-premia bereziei lotutako 40 proiektu eta aniztasun-programari lotutako 85.

2) **Ikasle etorkinen berariazko premiak** direla eta, aurreko urteetako datuak kontuan hartuta (esaterako, 17.827 eskolatu 2007an), bilakaera garrantzitsua izan denez eta, txostenaren ondoren, dagoeneko hezkuntza arloko neurriak eta konpromisoak bil-tzen dituzten bi inmigratio-plan garatu direnez gero, neurri horien gaineko informazioa eskatu dugu, alor honetan egiten ari diren esku-hartze guztien ikuspegi zehatza izate aldera. Zehazki, honako informazioa eskatu dugu:

- a) Ikasleen banaketaren datu gaurkotuak lurralde historikoen, sareen eta abarren arabera.

- b) Gure hizkuntzetako baten ezagutzaren eta jatorriaren inguruko datu gaurkotuak.
- c) Datu gaurkotuak ikasle horien eskolako emaitzen inguruan: Lehen Hezkuntza gainditu dutenen tasak; errepikatze tasak; eskola graduatua lortu dutenen tasak; 16 urte bete baino lehen edo DBH amaitu baino lehen ikasketak uzten dituztenen tasa.
- d) Hizkuntz errefortzurako programen inguruko datuak.
- e) Kultura artekotasunaren koordinatzaile lanpostua izaten hasi diren zentroak (zentro kopurua, zentro mota, banaketa irizpena...).
- f) 2007-2008 ikasturtean hiru lurralde historikoetako eskolaratze batzordeei aurkeztutako eskaera kopurua eta eskolaratzeko proposamenak, hau da, eskolatuak izan diren zentroak. (Joan den urtean, eskolaratzeko lurralde batzordeek jarraitzen dituzten irizpideen berri eman ziguten. Hori dela eta, aurten eskolaratzeko lurralde batzorde horren funtzionamenduaren inguruko informazioa eskatzen dugu).

Bestalde, kulturen arteko dimentsioa, bereziki, Immigrazioaren II Euskal Planean jasotzen den konpromisoa da Horrez gain, ezohizko txostenaren gure gomendioetako bat honako hau zen: "Hezkuntza behar berezien aniztasunaren eta arretaren erantzun gisa, profesionalen berariazko hautapena eta prestakuntza". Horren ildotik, honako informazioa eskatzen dugu:

- a) Irakaslegoak garatu dituen prestakuntza ekintza eta parte hartu dituen ekintza motak eta kopurua.
- b) Aniztasuna ikasketen zati izan dadin egindako ekintzak: beste kulturak ezagutzea, ama hizkuntzak irakastea, erlijioak ezagutzea...

Txosten honetako testua ixteko unera arte, eta eskabidea egin dugun arren, ez dugu datu-eskabidearekiko erantzunik jaso.

3) **Ijitoen biztanleriaren hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna.**

Gai honi buruzko hirugarren espediente egin da (272/2008/090); horri dagokionez, informazio-eskabidearen erantzuna jaso dugu, Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Sailak 2009ko urtarrilaren 9an bidalitako idazki baten bitartez.

Erantzuna labur-labur azalduko dugu, eta haurtzarolari buruz egingo dugun hurrengo txosten berezian sakonago aztertu ahal izango dugu.

Gure informazio-eskabidea, kasu honetan, honako alderdi hauetan oinarritzen zen:

- a) Ikasle ijitoen banaketari buruz eskura dauden datuak, lurraldeka eta sareka.
- b) Datu gaurkotuak ikasle horien eskolako emaitzen inguruan: Lehen Hezkuntza gainditu dutenen tasak, errepikatze tasak, eskola-graduatuak lortu dutenen tasak, 16 urte bete baino lehen edo DBH amaitu baino lehen ikasketak uzten dituztenen tasa.
- c) Biztanle talde honen berariazko premiei emandako erantzuna hobetzeko programa edo laguntzak bideratzea eta eskola-emaitzen hobekuntzan izaten ari den eragina.
- d) Saila horrek Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Planean ezarritako jardueren inguruko informazioa eskatzen dizugu:

- Plana eratzea ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko.
 - Curriculumaren berrikuspena, eta bertan Ijito Herriari erreferentzia esplizituak gehitu, kultura arteko ikuspegian.
 - Ikasle ijito asko dituzten ikastetxeetan erromana egoteko sustatzeko jarduerak.
 - Ikastetxeek ekintza positiboko proiektuak egitea ikasle ijitoen arrakasta eta kultura arteko bizikidetzat hobetzeko, berritzeguneen eta hezkuntza-ikuskaritzaren jarraipen eta laguntzarekin.
 - Neurri osagarriak orokortzea ikasketa laguntzarako beken kudeaketa errazteko.
 - Ikastetxeetatik familiakoen prestakuntza sustatzea, eskola orduen barne zein kanpo.
 - Ikastetxeak aldatzeko bideak sustatzea, esku hartzeko proiektu globalen, ikaskuntza erkidegoen, teknologia berrien bidezko ikaskuntzen eta besteen bidez.
 - Eredu elebidunetan seme-alabak dituztenen familien prestakuntza sustatzea, euskaraz oinarritzko gaitasuna izateko.
- e) Bidean dagoen Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako II. Planari dagokionez informazioa eskatzen dugu: dokumentuak jasotzen dituen ala ez alde batera utzita, horretarako urratsak eman ote diren, bidaliko diren baliabideak zein diren eta betetzeko epeen inguruko aurreikuspenak edo, bestelakoetan, egingo ez diren arrazoiak aipatzea. Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko planari dagokionez, dagoen prestatze aldia eta noiz onartuko den.

Sailaren erantzunetik ateratako datu edo txosten nagusiak honako hauek dira:

- a) Datu erabilgarriak dagokienez, 2.700 ikasle inguru kalkulatu dira, horietatik %89 sare publikoan eskolatuta.
- b) Eskolako emaitzen aldetik, ez dago daturik, baina Programa abiatzen denean datuak edukitzeko asmoa dago, ikasle ijitoen eskolatzea hobetu ahal izateko.
- c) Biztanleria sektore horren premia bereziei emandako erantzuna hobetzeko programei edo laguntzei dagokienez, Sailaren erantzunean ikasle guztien hezkuntza-laguntza hobetzeko programak aipatzen dira, batez ere bazterturiko gizarte-inguruetan bizi diren ikasleei dagokienez; gainera, honako arlo hauetan egin beharreko jarduketak bereziak ere adierazten dira:
 - irakasleen trebakuntza (Garatu programaren barruan);
 - ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko taldea (pertsonek gehiagorekin edo gutxiagorekin, eta arduraldi handiagorekin edo txikiagorekin, lurraldearen arabera);
 - ikasle ijitoei zuzendutako hezkuntza-jarduerak garatzen dituzten erakundeetarako laguntza (2008an 700.000 euro);
 - ikasketa lizentzia bat;
 - material espezifikoaren prestakuntza (CD bat editatu; weba);
 - EAEko ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko Programaren zirriborroa.
- d) I. Planeko egin gabeko jarduketei dagokienez, Sailaren erantzunean adierazitakoaren arabera, zaila da jarduketak batzuk zein neurritan egin diren baloratzea, ez baitago ebaluazioko adierazlerik; gainera, egin gabeko jarduketak batzuk

dagoeneko hasita daude; beste zenbait egin gabe gelditu dira; egin gabe gelditu diren batzuk azaltzen ditu, eta, kasuren batean, horren zergatia ere bai.

- e) Azkenik, eskolatzea hobetzeko programa lantzeko fasearen aldetik, onartu egiten da atzerapena egon dela; gainera, zein fasetan dauden adierazi (erakunde batzuei bidalitako zirriborroa) eta aditzera ematen da 2009ko lehenengo hilabeteetan jardunaldi teknikoak daudela aurreikusita.

Lehen esan dugunez, informazio horietariko batzuk arartekoaren hurrengo txosten berezian (haurtzaroari buruzko txostena) aztertuko dira berriro.

4) **Gizarte bazterkeria duten biztanleen premia bereziei emandako erantzuna**

Lehen esan dugunez, 2008an sektore horren jarraipena atzeratzeko erabakia hartu genuen. (Orain arteko jarraipenei buruzko ikuspegia edukitzeko, ikusi, adibidez, atal hauxe 2007ko txostenean)

5) **Arkitektura oztupoak ezabatzea**

Sailari egindako azken datu eskabidearen helburua (arlotan buruzko datuak) informazio erabilgarria osatzea izan da, batik bat irisgarritasunaren "egoeraren mapa" erreala egiteari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko zentroetan (hau da, gure 18. gomendioa aplikatzeari dagokionez, Sailak hori betetzeko konpromiso formala hartu baitzuen), baita zentro guztietan erabateko irisgarritasuna lortzeko aurreikuspenei dagokienez ere.

Txosten hau ixteko unean, oraindik ere erantzunaren zain gaude.

6) **Eguneko zentroak edo hezkuntza terapiako unitateak**

Gai hau kapitulu honetako beste atal batean aztertuko dugu (6. atala: haurren buru osasunaren arreta).

6) **Buru osasuneko arazoak dituzten haurrak edo nerabeak**

Haur eta nerabeen buru-osasuna berariaz aztertu dugu buruko gaitzari erkidegoan ematen zaion trataerari buruzko txosten berezian. Txosteneko gomendio batean zera proposatu zen, hitzez hitz: *"Adinez txikiei zehazki zuzendutako zerbitzuak gehitzea"*, eta, besteak beste, hauxe azpimarratu zen: *"haurren eta nerabeen arreta psikiatrikorako baliabideen urritasuna (bitarteko egituren kasuan, existentziarik eza)"* eta *"autismoak jotako pertsonentzako arreta goiztiarreko programen, eguneko zentroen, programa okupazionalen eta abarren beharra"*.

Arartekoaren txostenetan, aditzera eman da gero eta eskari gehiago dagoela Euskal Autonomia Erkidegoan buru osasuneko arazo larriak dituzten haurren eta nerabeen arreta beharizanen erantzun egokirako zerbitzuak edukitzeko.

Horretarako, arlo honetan inplikaziorik zuzenena duten sailei eskaturiko informazioa biltzen joan gara: Hezkuntza Saila eta Osasun Saila.

Azken urtean, arartekoak eskariak jaso ditu, haurren eta gazteen buru osasuneko arazoei arreta berezia emateko dagoen urgentziari buruz; urgentzia hori erakunde honek FEDE-AFES elkartearekin izandako bileretan gelditu da agerian. Horrela, AVIFES elkartearekin izandako bileran (Buruko Gaixotasuna duten Pertsonen eta Familien Bizkaiko Elkarte), honako gabezia eta premia hauek planteatu ziren, besteak beste:

- Hezkuntzaren arloan: neurri zehatzak eta berehalakoak hartu behar dira, familia eredu berriak, gizartearen erritmoak eta etorkin kopuruaren gorakadak sorturiko gizarte aldaketari erantzun egokia emateko; neurri horiek, gainera, baliozkoak izan behar dira irakasleek detekzio goiztiarreko orientazio espezifikoak edukitzeko, nerabeen heziketa (lanean hasi aurrekoa) sustatzeko eta sektorean sentsibilizazio kanpainak hasteko.
- Osasunaren arloan: ezinbestekoa da detekzio nahiz arreta goiztiarreko programak sortzea, eskualde nahiz adin bitarte batzuetan laguntza terapeutikoak abiatzea, psikiatriako nahiz psikologiako profesional kopurua handitzea (haurren eta gazteen buru osasunean espezializaturiko profesionalak), ospitaleetan haurren ospitaleratze psikiatrikorako unitateak sortzea eta, baliabideen planifikazioan, gizarte-, hezkuntza-nahiz osasun-batzordeak sustatzea.
- Gizartearen eta familiaren arloan: familien aisialdirako zein jolasaldirako eremuak sortu behar dira, gurasoentzako nahiz seme-alabentzako talde psikologikoak zein hezkuntzakoak, eta sentsibilizazio kanpainak eta familiei laguntzeko programak.

Gabezia horietariko batzuk ikusita, eta aurreko txostenetan eskaturiko informazioarekin jarraituz, eskabide bana egin zaie Osasun Sailari eta Hezkuntza Sailari, honako datuei eta balorazioei buruz:

1. Osasun sistemako zerbitzuen kokalekua eta atxikipena, 18 urtetik beherako haurren buru osasunaren laguntza berezirako;
2. Zerbitzu bakoitzeko plaza kopurua;
3. Profilak (batez ere, lagundutako adinak eta patologiak);
4. Zerbitzuetan dagoen arduraldi osoko profesional kopurua;
5. Sartzeko irizpideak eta sistemak;
6. Itxarote zerrendak;
7. Aldi jakinean (adibidez, 2007an) lagundutako kasu kopurua...

Osasun Sailaren erantzunean honako datu hauek adierazi dira:

- Zentro terapeutikoei eta hezkuntzakoei dagokienez: 2008ko maiatzaren 1ean lan-kidetza hitzarmena sinatu zen Hezkuntza Sailaren eta Osakidetzaren artean, buru osasuneko hezkuntza premia bereziak zituzten hurrei eta nerabeei laguntzeko, lurralde zentro terapeutikoen eta hezkuntzako arloan. Praktikan, honako baliabide hauek jarri dira martxan:

- o Ortuellako zentro terapeutikoa eta hezkuntzakoa (ZTH)

Hasieran 15 plaza aurreikusi dira, baina gero kopurua 25era handitu da, arretaren barruan 16 urtera arteko adingabeak sartu direlako. Profesional kopuruak gora egin du (haur psikiatra bat, psikologo kliniko bat eta buru osasuneko erizain espezialista), plaza kopuruak ere gora egingo duela baitago aurreikusita. Hala ere, plazak betetzeko zailtasunak daudela aintzat hartuta (ez baitago profesional espezializatu nahikorik), 2009ra arte ez dago aurreikusita horiek sartzea. Itxarote zerrendei buruz esan digutenaren arabera, balorazio batzordeak ez du txostenik egin, datuak jakin ahal izateko.

- o Arabako zentro terapeutikoa eta hezkuntzakoa (ZTH)

Gasteizen inauguratu zen, 2008ko azaroan. Informazioan ez dago daturik kokalekuari, plaza kopuruari, profilei eta abarri buruz.

- o Gipuzkoako zentro terapeutikoa eta hezkuntzakoa

Lasarten inauguratu zen, 2008ko azaroan. Kasu honetan ere ez dago daturik kokalekuari, plaza kopuruari, profilei eta abarri buruz.

- Haurren eta gazteen ospitaleratze laburreko unitateak: Basurto, Donostia eta Santiagoko ospitaleetako psikiatria zerbitzuen barruan daude; guztira, 20 ohe dira.

Psikiatrak (5), psikologo klinikoak (3), erizaintzako diplomatuak (14) eta erizaintzako laguntzaileak (16) dituzte, eta gizarte langileak eta okupazio terapeutak partekatzen dituzte helduen sarearekin.

2007an 223 ospitaleratze eta 218 alta egon dira; guztira, 85 larrialdi egon dira. Unitateko batez besteko egonaldia 16,11 egunekoa izan da.

- Anbulatorioak eta erkidego unitate espezializatuak, haurren eta gazteen laguntzarako: haurren eta gazteen buru osasuneko ekipamenduak (Galdakao, Bilbao-Ercilla, Bilbao-Ajuriaguerra, Herribitarte, Barakaldo eta Uribe) eta arratsaldeko zentro bat (Donostian).

Psikiatrak (20), psikologo klinikoak (23), erizaintzako diplomatuak (2), gizarte-langileak (7) eta administrariak (7) dituzte.

Gainera, espezifikoak ez den arreta eskaintzen da buru osasuneko 15 zentrotan, batez ere Gipuzkoan.

Sarerako sarrera lehenengo arretatik egiten da, pediatriaren eta helduen mailan. Egon daitekeen itxarote zerrendari dagokionez, ez da halakorik aipatzen; arlo horretan, 30 egunetik beherako berandutzea adierazten da, kasu guztien %70ean, deribazioko txostena egiten

denetik espezialistaren kontsultara, eta 15 egunetik beherakoa kasu guztien %90ean, ospitaleko unitate batetik iritsitakoa izanez gero.

2007an lehenengo 3.602 kontsulta egin ziren, eta jarraikako 41.196 kontsulta; guztira, 6.660 gaixo.

Bestalde, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak 2009ko otsailaren 2an bidali zigun bere erantzuna, txosten honen idazketa amaitzeaz zegoenean; beraz, informazioa hitzez hitz adieraziko dugu, lehen aipatu diren zentro terapeutikoei eta hezkuntzakoei buruz:

- 4.– *Buru-gaixotasun larriak dituzten derrigorrezko eskolatzearen adineko pertsonen kolektiboari, esku-hartze espezifiko bat eskatzen duenari, terapia eta hezkuntza-arreta eman ahal izatea du hitzarmen honek helburu.*
- 5.– *Eskaerak baloratzen dituen eta ikasleen jarraipena egiten duen batzorde bat dago lurralde bakoitzean.*
- 6.– *Unitate hauen erabiltzaileek buru-patologia larria dute, antsietateari, fobieiei, depresioei, nahaste psikotikoei... lotuak.*
- 7.– *Terapia eta hezkuntza-arreta emateko Urtuellako (Bizkaia) unitatean Lehen Hezkuntzako 10 ikasleri ematen zaie arreta. Unitatea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zazpi ikaslerentzat egokitze aukera aztertzen ari da baloratze batzordea; izan ere, bigarren talde bat, gehienez ere 10 ikaslerekin (hitzarmenaren bosgarren klausularen arabera), funtzionatzen hasi da 2008-2009 ikasturte honetan, 12-16 urteko ikasleentzat.*
- 8.– *12-16 urteko 5 ikasleri arreta ematen zaie terapia eta hezkuntza-arreta emateko Vitoria-Gasteizko unitatean. Unitatea beste bi ikaslerentzat egokitze aukera aztertzen ari da balorazio-batzordea eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 10 ikasle, gehienez ere, sartu ahal izango dira 2008-2009 ikasturtean. Hurrengo ikasturteetarako, premien arabera, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat bigarren talde bat funtzionatzen hasiko dela aurreikusten da.*
- 9.– *11-13 urteko 4 ikasleri arreta ematen zaie terapia eta hezkuntza arreta emateko Lasarteko (Gipuzkoa) unitatean. Unitatea bosgarren ikasle batentzat egokitze aukera aztertzen ari da jarraipen batzordea. 2008-2009 ikasturtean 10 ikasle, gehienez ere, sartuko dira. Halaber, bigarren talde funtzionatzen hasiko dela aurreikusten da ere kasu honetan, premien arabera."*

Jasotako informazioa laburbildu eta adierazi ondoren, komenigarria da ohar eta hausnarke-ta batzuk egitea, arartekoaren erakundeari dagokion eskubide bermearen ikuspegitik begiraruta. Haurren eta gazteen buru osasunaren arreta, izan ere, adingabeen osasun eskubidearen arretaren premiarik handienetarikoa da, eta Haurraren Eskubideen Konbentzioko 24.1 artikuluan onartuta dago. Zalantzarik gabe, buru osasuneko arazoak dituzten gazteen

taldea garrantzia hartzen ari da oraingo gizartean. Haurrak babesteko politika publikoek eskaini behar duten babes integralari dagokionez, ezinbestekoa da diagnostiko zehatza egitea, arazoari erantzun egokia emateko (eraginpeko adingabe kopurua, diagnostikoak, baliabide erabilgarriak edo sorberriak, profesionalen espezializazioa, koordinazio egituraren hezkuntza, osasun, familia nahiz gizarte mailan...); talde horren arretari lehenetsua eman behar zaio, berorren estaldura maila oraindik ere ez baita inondik inora ere egokia. Arartekoa kezkatuta dago errealitate hori ikusita; horrenbestez, jarraipen berezia egingo dio hurrengo urteotan.

7) Eskolako tratu txarreko edo jazarpenerako egoerak

Azken urteotan arartekoak, kasu askotan, esku hartu behar izan du eskola jazarpenerako egoeretan. lazko txostenean ere gai hau azpimarratu genuen, kezkarik handiena sorrarazten ziguten hiru gaien artekoa baitzen. Horren ondorioz, arartekoak ekimen ugariak eta anitzak garatu ditu, eta horiek guztiak atal honetan laburbilduko ditugu; hain zuzen ere, azken urtean egindakoak nabarmenduko dira. Baina, lehenengo eta behin, horiek testuinguruan xertatzea komeni da.

2006. urtean zehar bizikidetzari buruzko azterlan bat egin zen Bigarren Hezkuntzako zentroetan; 2006ko abenduan argitaratu zen *Bizikidetzaren eta gatazka ikastetxeetan* ezohizko txostenaren funtsezko oinarria izan zen. Horrela, nolabait, bi urte lehenago herritarrek parte hartzeko II. foroarekin eta gure erkidegoko Bigarren Hezkuntzako 80 zentrotako ikerketarekin hasitako prozesua amaitu zen. Txosten horretan zehatz-mehatz aztertutako gatazketako bat –bakarra ez den arren– eskolako jazarpenera edo berdinen arteko tratu txarra zen.

Baina, azterlana bera alde batera utzita, azken urteetan, asko izan dira erakunde honetan jazarpen egoeren edo bestelako tratu txar moten inguruan jaso ditugun deiak, kontsultak, bisitak eta kexak, formalak zein informalak. Gehienak beren seme-alabei eragiten dieten gertakariak estututako gurasoen aldetik heldu zaizkigu. Gertakari horien aurrean, beren ustez, ez zen ezer egiten ari, edo oker jarduten ari ziren, ez behar bezala. Beste batzuetan, arazoak konpontzen ez zirela ikusita, gurasoek beren seme-alaba ikastetxez aldatzea erabakitzen zuten eta, hala ere, hori lortzeko zailtasunak topatzen zituzten.

Eta beste zenbaitetan –azken urte honetan gertatu den bezala– erasotzaile izan diren ikasleek gurasoen kexak jaso ditugu, erasotzeagatik haiei jarri zaien zigorra gehiegizkoa dela iritzita.

Aurrez adierazi izan dugun bezala, problematika konplexua da, zalantzarik gabe, eta ez da batere erraza jarrera orekatuei eta, aldi berean, eraginkorrei eustea.

Kasu horietan guztietan, erantzun pertsonalizatua eta arazoarekiko proportzionala ematen saiatu gara beti, kasuak erakunde egokienetara bideratu nahian: oso kasu larriren batean, baita sistema judizialera ere; baina, gehien-gehienetan, hezkuntza-sistemara bertara eta baliabideetara (ikastetxea; ikuskaritza; laguntza-zerbitzuak; berariazko Bizikidetzaren programa,

etab.), horrelako arazoei erantzun egokienak eman diezazkieketenak eta eman behar dizkietenak horiek direlakoan.

Baina kasu bakoitzean beharrezkoak diren esku-hartze zehatzetatik aparte, aipaturiko txostenean eginiko gomendioak aplikatzeak hautemandako arazo asko konpontzeko eta eraginkortasun handiagoz esku hartzeko balio duela eta, beraz, hurrengo urteetan gai horren berriazko jarraipena egin behar dela uste dugula.

Balorazio horien arabera, Ararteko erakundeak, azken bi urtetan, hainbat ekimen gauzatu ditu. Besteak beste, honako bost hauek nabarmenduko ditugu:

- 1) **Herritarren partaidetzako foro** berria antolatzea, 2007an, **hezkuntza zentroetako bizikidetzari eta gatazkei buruz**. 2007ko txostenean (V. kapitulua) foro horri buruzko informazio laburbildua eskaintzen da; orainsu, horren argitalpen monografikoa egin eta Euskal Autonomia Erkidegoko zentro eta zerbitzu guztietara bidali da.
- 2) Tratu txarreko eta bizikidetzako arazoen azpian dagoen eta horiek baldintzatzen dituen funtsezko alderdietariko batean, **balioetan**, sakontzeko aukera eman duen **ikerketa berria** egitea. 2007an hasi eta 2008an amaitu egin da balioak eskolara eramateari buruzko ikerketa espezifiko bat, bai Lehen Hezkuntzarako eta bai Bigarren Hezkuntzarako, eta hori laster argitaratuko da txosten berezi batean.
- 3) Zentroetan **material elkarreragileak** editatzea eta zabaltzea, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat; bertan, eskolako jazarpenaren modu berriak aztertzen dira, "**ciberbullying**" hitzaren barruan sartzen direnak, baita teknologia berrien beste erabilera ezegoki batzuk ere, horien arriskuak ekiditeko eta defentsa gaitasuna handitzeko. 2008an bi CD eta gida didaktikoak banatu dira, "Ciberbullying" eta "Leihoak" izenburua dutenak.
- 4) Hiritarren partaidetzako beste foro bat egitea, sexu orientazioaren eraginez jazarpena jasaten duten nerabeen arazoei buruzkoa. Nerabe eta gazte lesbianeiei, homosexualiei, transexualei eta bisexualei buruzko foro honen ondorioak (2008an egin-dako foroa) hurrengo hilabeteotan jakinaraziko dira.
- 5) Gai honi buruzko **hitzaldiak eta bilerak**, hezkuntzako eragileekin egindakoak, batzuetan arartekoaren beraren ekimenez (adibidez, ikerketan parte hartu zuten 80 zentroetako zuzendaritza taldeei dei eginez) eta beste zenbaitetan, berriz, beste batzuen ekimenari erantzunez egin direnak (esaterako, laguntza zerbitzuak, udalak, unibertsitateak edo elkargo profesionalak). Ildo horretan, aipagarria da aldizkari pedagogiko batzuetan gai horri buruzko artikulua argitaratu direla.
- 6) Hezkuntza Sailari zuzendutako ofiziozko bi espediente tramitatzea, *Hezkuntza zentroetako bizikidetzari eta gatazka* txosteneko **gomendioak betetzearen jarraipena** egiteko.

Txosten honetako beste atal batzuetan, ekimen horietariko batzuei buruzko informazioa eskaintzen da. Bestalde, 2007ko txostenean, atal honetan, laburpen nahiko zabala eskaini genuen, goian adierazitako bi ekimeni buruz; hain zuzen ere, Bigarren Hezkuntzako zuzendaritza taldeekin izandako bilkuretan jasotako ekarpenei eta Hezkuntza Sailak gure lehenengo

datu eskabideari emandako erantzunari buruz. Erantzun hori honako agiri honetan zegoen: "Bizikidetzak, Bake eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza deritzon programako 2007/2008ko ekintzak, eta arartekoaren gomendioekin duten lotura" (2007ko txostena, atal honexetan bertan). Horrenbestez, emandako pausoak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskaturiko informazioa baino ez ditugu adieraziko hemen.

Hezkuntza zentroetako bizikidetzak eta gatatzak txostenaren jarraipentzat, 2007an lehenengo jarduketa bat hasi genuen ofizioz, Hezkuntza Sailari zuzenduta; horrek 2008ko urtarrileko azken egunetan eman zuen erantzuna, eta, lehen esan dugunez, erantzun hori iazko ohiko txostenean jaso genuen.

Gero, 2008ko apirilaren 8an, arartekoak beste idazki bat bidali zion Hezkuntzako sailburuari; bertan, jasotako erantzuna eskertu, gure urteroko txostenaren testua ikuskatzeko eskatu (zuzenketa edo ñabardura behar zuen akatsen bat egonez gero), hurrengo txosten bereziko beste edozein informazio komenigarri (zehatza edota gaurkotua) eransteko aukera eskaini eta, batik bat, azken ikasturteetako (ahal izanez gero, 2007-2008 ikasturteko) jazarpen egoeretarako protokoloa aplikatzeari buruzko datuak emateko eskatzen zen.

Gero, ekainaren 16an, errekerimendua bidali eta, bertan, berriro ere informazio hori eskatu zen.

Denborak aurrera egin eta erantzun jaso ez genuenez, jarraipen espediente berria ireki zen, 2008ko urriaren 22koa; bertan, besteak beste, azken bi urteotako (2006-2007 eta 2007-2008) datuak eskatu genituen, protokoloaren aplikazioari buruzkoak, horiek ondo baloratzeko aukera ematen zuten zehaztapen mailarekin: datuek lurraldeka, sareka eta etapaka zuten banaketa; irekitako espediente kopurua; jazarpeneko espediente kopurua; jazarpen motak; kasu horietan harturiko neurri edota zehapen bereziak; Sailak ikusi den bilakaerari buruz egindako balorazioa; epaitegiko salaketa kopurua... Gainera, datuak ez ezik, gomendio berriak betetzeari zuzen-zuzen lotutako beste edozein informazio aztertuko genuela adierazi genuen.

Arartekoak, 2009ko urtarrilaren 4an, espediente berri horretarako erantzuna ere eskatu zuen.

Azkenik, erantzuna 2009ko otsailaren 9an jaso zen, urteko txosten honen testua ia itxita zegoenean. Hala eta guztiz ere, hemen datu oinarrikoagoak emango ditugu, eta horiek haurtzaroi buruzko hurrengo txosten berezian aztertuko ditugu zehatzago.

Sailaren erantzunak 2006-2007 eta 2007-2008 ikasturteetako datuak eskaintzen ditu: "*casos denunciados que, a juicio del inspector o inspectora, previa valoración compartida con el director o directora del centro, se pueden considerar como maltrato entre iguales, entendiendo pro tales los que cumplen las características principales que se citan en la 'Guía de actuación en los centros educativos ante el maltrato entre iguales', que son el desequilibrio de poder, la intencionalidad, la repetición en el tiempo y la situación de indefensión en la que se encuentra la víctima*".

Laburbilduta, helburua hauxe da:

- 2006-2007 ikasturtean 72 kasu (10 Araban; 29 Bizkaian; 33 Gipuzkoan).
- 2007-2008 ikasturtean 62 kasu (20 Araban; 29 Bizkaian; 13 Gipuzkoan).

Informazioa aldagai desberdinen arabera bananduta dago. Funtsean: hezkuntza sarea; ikasleak; eskolatzeko maila; tratu txar mota; eta harturiko neurriak.

Lehen esan dugunez, informazio hau zehatzago aztertuko da hurrengo txostenean. Hala ere, dagoeneko joera batzuk ikusten dira. Esate baterako:

- Kasuen metaketa DBHn eta Lehen Hezkuntzan.
- “Zuzeneko eraso fisikoak” kasurik gehienetan.
- Zaintzaren hazkundea (neurririk erabiliena).

Aipagarriak dira, halaber, kasuen desberdintasun nabariak lurraldeen nahiz sareen artean, eta, lurralde berean, ikasturte batetik bestera ere bai.

Sailak berak ere datuen balorazio positiboa egin du (kasu kopuruak ez du gora egin; zentroen inplikazio handiagoa dago), eta aditzera eman du ikasleen eskubideen nahiz betebeharren Dekretu berriak fenomenoaren bilakaeran izango duen eragina.

8) Famili biltokiak

2007ari buruzko ohiko txostenean, arreta berezia jarri zitzaion famili biltokien egoerari, aurreko urteetan kudeaketari buruz planteaturiko kexei eta arazoei erantzun sistematikoagoa emateko; kexa horiek, berriz, zerbitzuarekin edo funtzionamendu-irizpide batzuekin pozik ez zeuden elkarrekin eta norbanakoek aurkeztu zituzten.

Beraz, administrazio eskudunengana jo genuen (Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Portugaleteko Udala eta Gasteizeko Udala), baita Gipuzkoako lurraldean Iruneko nahiz Donostiako biltokiak kudeatzen zituzten elkarrengana ere.

Txosten horretan adierazitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaie-tako Sailak dekretu zirriborroa egin zuen, zerbitzu horiek arautzeko eta, besteak beste, horien baldintza funtzionalak nahiz materialak ezartzeko. Zerbitzu batzuek zalantza planteatu duten arren (Eusko Jaurlaritzak zuzeneko kudeaketako biltokiak sortzeari buruzko zalantza), txostenean berretsi egiten da oraingo egoera (sistemaren zehaztugabetasunaren eraginezkoa) gainditzeko duen arauketa ezarri beharra.

Aurten, berritasun nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko deribazio judizialaren eraginezko familia biltokiak arautu dituen uztailaren 1eko 124/2008 Dekretua argitaratzea izan da; dekretu horretan, deribazio judizialaren eraginezko biltokiak bete behar dituzten baldintza

funtzionalak, materialak eta langileriakoak arautu dira. Dekretuan ezarritakoaren arabera, deribazio judizialaren eraginezko biltoki berriak sortzeko eta kudeatzeko eskumena Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak dauka. Lehendik daudenek, berriz, administrazio-baimena lortu beharko dute bi urteko epean, indarrean sartzen direnetik zenbatzen hasita; horretarako, Dekretuan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Arauketa berria ikusita, eta urtean zehar biltokien funtzionamenduari buruzko kexarik jaso ez badugu ere, aurten arartekoak eskabidea egin die gaur egun famili biltokien titularrak diren administrazioei, batez ere honako honi buruzko informazioa emateko:

- Lehendik dauden famili biltokiak 124/2008 dekretura errazago egokitzeko hartu diren edo hartuko diren neurriak, bi urtetan administrazio baimena lortu ahal izateko.
- Informazio gaurkotua zentroaren gaitasunari, kudeaketa sistemai, profesionali, lagundutako kasu kopuruari, segurtasun baldintzei eta abarri buruz (2007an lorturiko datuen antzekoak).

Era berean, Etxebizitza eta Gizarte gaietako Sailari ere informazio eskabide horixe egin dio, lehendik dauden biltokiak errazago egokitzeko hartutako neurriak eta familia biltoki berriak sortzeko dagoen aurreikuspena jakiteko.

Txosten hau ixteko unean, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Gasteizeko Udalaren eta Portugaleteko Udalaren erantzunak jaso ditugu.

Erantzunetan jasotako informazioa, erakunde honentzat interesgarrienak diren alderdietan, honako honetan laburbildu ahal da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoa

Eusko Jaurlaritzak, berak emandako informazioaren arabera, oraindik ez du zentro berriak sortzeari buruzko aurreikuspenik egin; hala ere, egiten ari den txosten batean, lehendik dauden biltokien egoera, eskaria eta jatorria azalduko ditu, zentro berrien kokalekua erabakitzeke eta horiek sortzeko egutegia finkatzeko aukera ematen duen diagnostikoa egin ahal izateko.

Lehendik dauden biltokiei dagokionez, Eusko Jaurlaritzak esan du harremanak izan dituela guztiekin, funtzionamendu egokia bermatzeko, eta, batez ere, eskari ekonomikoak jaso dituela.

b) Arabako Lurralde Historikoa

Lurralde honetan bi biltoki daude, bata Arabako Foru Aldundiaren mendekoa eta bestea Gasteizeko Udalaren mendekoa. Txostena ixteko unean, ez dugu foru-erakundearen informaziorik jaso.

Gasteizeko Udalaren bisitaldi zerbitzuak, batez ere (%88) arlo judizialek deribaturiko kasuak jasotzen ditu, eta gainerako kasuak (%12), berriz, egoitza- eta familia-harrerako udal baliabideetatik iritsitakoak dira, eta horiek gizarte espedientea dute Haurtzaro eta Familia Zerbitzuan.

Dekretua onetsi ondoren, euren iritziz zerbitzuak bete egiten ditu baldintza funtzionalak (iraupena, doako izaera, ordutegia nahiz egutegia, sarbidea, esku hartzeko prozedura...), baita antolamendu nahiz langileria mailako baldintzak ere. Aldiz, euren ustez, irisgarritasunaren arloko baldintza materialetan ez dira betetzen irisgarritasuna sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak ezarritako irizpideak; beraz, Gasteizeko Udalak beste lokal batzuetarako lekualdatzea dauka aurreikusita, halako beharrianak bermatu ahal izateko.

Aurten kudeaketan ez da aldaketarik egon, aurreko urteei dagokienez. Lagundutako adingabe kopurua 34koa izan da; horiek hemendik iritsi dira: familiako epaitegiak (28), emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegia (2) eta haurtzaro zerbitzua (4).

c) Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako erantzunean, bere sailaren mendeko bi zerbitzuei buruzko informazioa ematen da: Famili Biltokia, 2008tik agintaritza judizialek deribaturiko kasuak baino laguntzen ez dituen, eta Arreta Espezializatuko Famili Bilgunea, 2007an sortu dena, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Haurtzaro Zerbitzutik deribaturiko kasuei laguntzeko.

Horiatariko lehenengoa bakarrik dago uztailaren 1eko 124/2008 Dekretua indarrean sartzearen eraginpean (Euskal Autonomia Erkidegoko deribazio judizialaren eraginezko famili biltokiak arautu dituen dekretua); hortaz, txosten honetan horri buruz emandako informazioa baino ez dugu jasoko, eta hori ondoren adierazitakoan laburbiltzen da:

Bizkaiko Foru Aldundiko Famili Biltokiak, titulartasun publikoa duen zentroa denez, ez du administrazio baimenik behar bere jarduera garatzeko; hala ere, Dekretuan ezarritako baldintza materialen, funtzionalen eta langileria baldintzen eraginpean dago.

Hori indarrean sartu zenetik, zenbait bilera egin dira Bizkaiko Foru Aldundiko Emakume eta Haurtzaro Zerbitzuko arduradunen eta Biltokiko profesionalen artean (berori kudeatzen duen Bizgarri elkarteko kideak).

Dekretuan ezarritako baldintzak betetzeari dagokionez, hauxe adierazi dute:

- Baldintza funtzionalak: esku hartu aurreko jarduketetan beharrezko aldaketak egin hasi dira (elkarrizketak), baita esku-hartze prozesuan ere (banakako esku-hartze plana), Dekretuaren araudira egokitzeko.
- Baldintza materialak: ondo betetzen dute Dekretuan ezarritakoa.
- Antolamendu- eta langileria-baldintzak: nahiko ondo betetzen dute Dekretuan ezarritakoa.

Azken urteko datuei dagokienez, ez dago aldaketa aipagarriarik, aurreko urteari dagokionez, kudeaketaren arloan. Aurten 477 adingabe lagundu dira, honako hauetatik deribatu direnak: 386 epaitegietatik, 82 Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Haurtzaro Zerbitzutik, 8 Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Emakume eta Familia Zerbitzutik eta 1 oinarritzko gizarte zerbitzuetatik. Urtarrietik Haurtzaro Zerbitzutik deribatutako kasuak arreta espezializatuko biltokira deribatzen direnez, aurreko urteetako 15 kasu baino ez dira gelditzen.

Bizkaiko beste famili biltoki bat Portugaleten dago. Portugaleteko famili biltokian, 2007ko txostenean adierazitakoaren arabera, ebazpen judizialez deribatutako familiei ematen zaie, gehienbat, laguntza (Bizkaiko Foru Aldundiak gaur egun irekitako hiru kasutan bakarrik deribatu ditu adingabeak harrerako administrazio-ebazpenaren bidez). Bestalde, aurten ez da aldaketarik egon kudeaketan.

Udal-zerbitzua denez, eta Dekretuan ezarritakoa aintzat hartuta, amaitutzat jo dute administrazio kontrataziorako aldia, eta, Eusko Jaurlaritzak edozein lankidetzatza prozedura ezarri ezean, Udalak amaitu beharko du zerbitzu-ematea.

c) Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoako Foru Aldundian ez dago bertako lurraldean dauden bi biltokien kudeaketari buruzko informaziorik, kudeaketa hori pribatua baita; biltoki horiek, hain zuzen ere, Donostian eta Irunen daude.

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako erantzuna ikusita, eta aurten biltokiak kudeatzen dituzten elkarteei informaziorik eskatu ez diegula aintzat hartuta, ez dugu lurralde horretako datu zehatzik, Dekretua argitaratu ondoren hartu behar diren neurriei buruz.

Nolanahi ere, esan daiteke aurten, aurreko urteetan ez bezala, erakunde honetan ez dela familia biltokien kudeaketari eta funtzionamenduari buruzko kexarik jaso. Txosten honetan adierazitakoaren arabera, justiziaren arloan Gipuzkoako Lurralde Historikoko biltokiei buruzko kexa bat baino ez da jaso, finantziario zailtasunen ingurukoa. Nolanahi ere, alderdi hori konpondu ondoren, zerbitzua ondo eman da hurrengo hilabeteetan.

Hala eta guztiz ere, uztailaren 1eko 124/2008 Dekretua indarrean sartu denez (Euskal Autonomia Erkidegoko deribazio judizialaren eraginezko famili biltokiak arautu dituen dekretua), hurrengo txostenetan arauaren aplikazioaren eta lehendik dauden puntuen nahiz sorberrien aldaketen jarraipena egiten jarraituko dugu.

9) Beste egoera ahul batzuk

Aurreko azpiataletan laburbildu ditugu adingabe taldeen edo, orain arte, berariazko arretaren xede eta, ia kasu guztietan, hainbat ezohizko txostenetako azterketaren eta gomen-dioen xede izan diren egoeren inguruan eginiko jarraipen jarduera nagusiak.

Sektore hauez gain, azken urteetan, eta oso ekimen desberdinen bidez, Arartekoak arreta berezia eskaini die beste egoera batzuei edo bereziki ahulak diren taldeei. Batzuk ekarriko ditugu gogora:

- **Ikasle atzerritarrak eskolatzeko** baldintzei dagokienez, beka baten bidez, ikerketalana egin zen. Dagoeneko argitaratuta dago, izenburu honekin: *Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban*.
Azken urte honetan, atal honetan bertan jaso den bezala (hezkuntza-premia bereziei buruzko txostenaren jarraipenaren eremuan), berriz eskatu dira etorkinen eskolatzeari buruzko datu gaurkotuak, joerak eta hobetu beharreko elementuak antzeman ahal izateko eta Inmigrazioko II. Euskal Plana –Hezkuntzari buruzko atalean– edo gai honi buruzko ez-legezko proposamena –2007ko martxoaren 15ean EAEko osoko bilkuran onartutakoa– aplikatu diren baloratzeko elementu gisa.
Bestalde, Gasteizeko Ramón Bajo LHiko familiek gai honi buruzko kexa aurkeztu dute; bertan, agerian jartzen da haur etorkinek jasaten duten bereizkeria, dena delakoagatik integrazioa edo inguru normalizatuko hezkuntza ekiditen duten zentroetan sartzen direnean. Hori txosten honetan azalduko dugu, “Hezkuntza” atalean.
- **Ijito etniako adingabeen** eskolatzeari eta eskolako emaitzei dagokienez, harremanetan jardun gara ijito herriaren elkarteekin eta sektore horrentzako programak dituzten beste batzuekin, haiek antolatutako ekitaldietan parte hartu dugu, datu gaurkotuak eskatu dizkiogu Hezkuntza Sailari, eta sasoikako biztanleen jarraipena egin da; horien gehiengoa ijito etniakoak dira. Eskainitako datuak laburki azaldu dira kapitulu honetako aurreko ataletan.
Ildo horretan, alde batetik, hainbat elkartek eskolatzearen jarraitutasuna edo eskolako emaitzak sustatzeko eta baloratzeko gauzatu dituzten ekimenak nabarmen ditzaiegu. Beste alde batetik, berriz, gure erkidegoko biztanle talde horren eskolako arrakasta-mailari buruzko datu fidagarri eta globalak lortzeko zailtasuna.
Azterlan orokor batzuek (Ijito Idazkaritzaren Federazioak argitaratutako eskolako emaitzak edo “Ikasle ijitoen sarbidea Bigarren Hezkuntzara” ikerketa, esaterako) erakusten dute oraindik alderdi asko daudela hobetzeko.
Erakunde honek bilerak egin ditu Kalè dor Kayikó eta Gao Lacho Drom elkarteekin; elkarreok zuzeneko inplikazioa dute ijitoak eskolatzeko eta horiei laguntzeko programetan; bileretan, eskola arrakastari buruz duten datuak aztertzen saiatu gara, biztanleria lagin jakin bati buruzko datuak baino ez badira ere.
- **Telebista saioei, Interneti eta jolas interaktiboiei lotuta, adingabeen eskubideei** dagokienez, Arartekoak bere proposamenak eta ekarpenak aurkeztu zituen beste defentsa-erakunde batzuekin batera, Defendatzailen Koordinazioaren XX. Jardunaldiei begira, eginiko lan mintegian; ondorioen agiri bat adostu eta onartu zen bertan. Geroago INTECOk sustaturiko lan batean ere parte hartu zuen, eta Ararteko erakundeak lan horri bere ekarpenak egin zizkion.

Jarduera-lerro zehatzago batean, berariaz hezkuntza arloari zuzendutakoan (ikasleak, familiak, irakasleak, hezitzaileak), Arartekoak material didaktiko batzuk argitaratu ditu, adingabeei teknologia berriak modu seguruagoan erabiltzen laguntzeko. Horrela, 2008an, bi CD elkarreragile eta horien gida didaktikoak editatu eta EAEko ikastetxeetan eta zerbitzuetan banatu dira; horietariko batean, Ciberbullying deritzona aztertzen da, eta bestean, berriz, Interneten eta teknologia berrien erabilera seguruagoa. Kapitulu honetako beste atal batean, horiei buruzko informazio zehatzagoa emango dugu.

- **Gehiengoena ez den sexu orientazioa duten nerabeen** eskubideen gaia, oro har, gutxi landu edo baloratu da gure artean, gai horri dagokionez, azken urtean arartekoak bi ekimen desberdin eta osagarri garatu ditu. Alde batetik, herritarren hausnarketaren eta partaidetzaren V. Fororako deialdia eta horren gauzapena egin zuen. Foroa honako honi buruzkoa zen: “Nerabe eta gazte lesbianak, homosexualak, transexualak eta bisexualak: zailtasunak eta ukapenak euren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan”. Horrek aukera eman zuen kezka, esperientziak eta proposamenak trukatzeko, profesional desberdinen artean. Bestalde, balioen transmisioari buruz aurrean egindako ikerketan (adin desberdineko 1.200 ikasleren jarrerak, jardunak eta aurreiritziak aztertu dituen ikerketa) aztertutako bost gai nagusienetarikoa bat sexu-orientazioarekiko jarrerena izan da. Foroko ondorioak biltzen dituen argitalpenak eta adingabeei egindako balio transmisioari buruzko hurrengo txosten bereziak horren berri emango dute.
- **Droga kontsumo problematikoei** edo nerabeen eta hainbat drogaren arteko harremanari dagokienez, Ararteko erakundeak, Eusko Legebiltzarrak berak onartutakoaren ildotik, beste txosten berezi bat prestatzeari ekin dio 2008an eta datozen hilabeteetan argitaratu ahal izango da.
- Azken bi urtetan zehar, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako programak edo baliabideak kudeatzen dituzten hainbat erakunderekin eginiko bilereetan, normalean, baina baita kexa batzuen bidez ere, **pobreziari eta adingabeei** loturiko egoera kezagarri batzuen berri izan da. Bereziki etxerik gabe dauden eta adingabeak dituzten familien kasuan edo baliabiderik ez duten, haur jaioberriak dituzten eta etxerik gabeko pertsonentzako gaueko harrera-zentroak beste aterperik ez duten emakume atzeritarren kasuan. Etorkizunean errealitate horren jarraipena egin behar izango dela iruditzen zaigu. Geure artean gutxi aztertu den errealitatea da; biztanleria sektore handian eragina izan eta, krisi ekonomikoko egoera batean, gainera, oraindik ere gehiago hedatu ahal da; horrenbestez, jarraipen eta arreta handiagoa beharko du.

Jakina, adingabeen eskubideen aplikazioa neurri handiagoan edo txikiagoan arriskuan jarzen dituzten beste sektore edo egoera batzuk daude. Gainera, sarritan, arazo desberdinak metatu edo gainjarri egiten dira pertsona berberetan, eta, horren eraginez, pertsona horiek oso urrakorrak dira.

II. KEXAK

Askotan adierazi dugun bezala, erakunde honetan ez dira 18 urtetik beherako adingabeek aurkeztutako kexa asko jaso. Eta hainbat arrazoiengatik izan daiteke hori: beren eskubideen jakitun ez izatea, adingabeek besteak beste beren defentsarako mekanismo gisa erakunde hau dutenik ez jakitea, erakundeetara jotzeko trebetasunik, ohiturarik edo konfiantzarik eza, familiarekiko edo beste pertsona eta erakunde batzuekiko duten mendetasuna, etab. Kexa gehienak hurbileko familiartekoren batek aurkeztu ohi ditu; batzuetan, egoera ezagutzen duen profesionalen batek eta, beste batzuetan, sektore ahulekin lan egiten duten edo zerbitzu jakin batzuk kudeatzen dituzten elkarteek.

Adingabeei buruzko kexa zehatzak eta, batez ere, adingabeek aurkeztutakoak asko izaten ez diren arren, ikuspegi zabalago batetik hartuz gero, asko dira, zuzenean edo zeharka, adingabeei eragiten dietenak. Adibidez, hezkuntzaren arloko ia kexa guztiek –unibertsitateko goi ikasketen ingurukoak salbu– harreman zuzena dute gure erkidegoko adingabeen traerarekin (ikus Hezkuntzaren arloa, txosten honen I. atala). Eta gauza bera esan genezake bereziki adingabeei zuzendutako beste zerbitzu batzuek (babes zerbitzuak, zerbitzu judizialak, osasun zerbitzuak, etab.). Logikoki, adingabeei buruzko kexa eta esku-hartze gehienek zerikusia izan ohi dute sektore hauekin. Ia tradizionalak diren eremu hauekin batera, azken urteetan beste batzuk ere nabarmendu behar dira. Batzuk aipatu ditugu dagoeneko aurreko azpiataletan; eskolako jazarpena edo berdinen arteko tratatu txarrak. Eta badira berriagoak diren beste batzuk ere; lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko neurriak edo seme-alabengatiko diru-laguntzak, esaterako.

lazko txostenean, atal honexetan, urte horretan jasotako kexen zerrenda (adingabeei eragiten zieten kexak) nahiko zehatza jaso genuen (2007ko txostena, PGI-adingabeak, Kexak). Bertan jasotako arazo askok ere arartekoaren kexa edo jarduketa eragin dute azken urte honetan.

Horrenbestez, hemen ez dugu zerrenda berririk jasoko; hala ere, adibidetzat, adingabeen hezkuntzaren arloko kexarik gehien eragin dituzten gaiak gogoratuko ditugu:

- Eskolatzea: eskolatzearen kostua; ikasle etorkinak eskolatzeko baldintzak, biztanleria autoktono urriko ikastetxe batzuetan; eskolatzeko baldintzak adinera egokitzea; ebaluazio-irizpideak edo azterketak...
- Ikasleen onarpena: zerotik hiru urtera bitarteko Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan onartzeko irizpideak; erroldako datuen iruzurrezko erabilera; neba-arrebak ikastetxe berean eskolatzeko ezintasuna; euren seme-alaben irakas hizkuntza aukeratzeko aukera defendatzen duten familiek aurkezturiko kexak; euskararen salbuespen irizpideekiko desadostasuna; derrigorrezkoaren osteko urruneko ikasketak eta D eredukoak egiteko zailtasunak...
- Hezkuntza premia bereziak: zenbait kasutan curriculum egokitzapenak aplikatzeko aukerari buruzko kexak; dislexia duten ikasleei erantzunik ez ematea; hezkuntza laguntzako adituak ordeztzeko arazoak...

- Bekak eta laguntzak: Testuliburuen Elkartasunezko Kudeaketa Programa (ikastetxe pribatuak eta publikoak bereizita) ezartzeari buruzko kexak; onartu ez diren laguntza eskabideak...
- Ikastetxeetako instalazioei dagokienez: irisgarritasunari eta arkitektura-oztopoak ezabatzeari lotutako arazoak; ikastetxe batzuen egoera (batez ere, zero eta hiru urte bitarteko biztanleentzako Haurreskolak Partzuergoak kudeatzen dituen ikastetxeak).
- Eskola garraioari dagokionez: beste urte batzuetan bezala, kexarik gehienak ikasleek (etaparen, ikastetxearen, bertara egin beharreko distantziaren eta abarren arabera) eskola-garraioa erabiltzeko eskubidea edukitzeari edo ez edukitzeari buruzkoak izan dira.
- Eskola jantokiei dagokienez: menua egoera batzuetara egokitzea, adibidez, zeliakoen ezaugarrietara; zenbait ikastetxetan jantoki zerbitzua ezabatzea (Billoko haur-eskolak)...
- Ikastetxeetako bizikidetzari eta gatazkei dagokienez: gehienetan biktimen familiek aurkezturiko eskola jazarpeneko egoerei buruzko kexak (esaterako, ikastetxea aldatzera behartuta daude edo ez daude ados ikastetxeko jarduketarekin nahiz jarduketa ezarekin), baina baita jazartzaileen familiek aurkeztutakoak, uste baitute euren seme-alabekiko hartutako neurriak gehiegizkoak direla.

Ikusten denez, kexa horietariko asko arartekoaren txostenetan, gomendioetan eta jarraipenetan aztertutako gaiei buruzkoak dira (hezkuntza-premia bereziak; irisgarritasuna; eskola bizikidetzak...).

III.GARRANTZI BEREZIKO GERTAERAK EDO EGOERAK DIRELA-ETA HASITAKO OFIZIOZKO JARDUERAK

Normalean, adingabeen eskubideen urratze larrienak ez dira erakunde honetara iristen, besteak beste, delituak direnean, aldez aurretik salatu egiten direlako, edo agintari judizialek ikertzen dituztelako. Hain larriak ez direnetan, ikastetxeetan bertan, zerbitzuetan edo tartean diren administrazioetan konpontzen direlako.

Hala ere, zenbaitetan, zituzten ondorioengatik edo gizartean zuten garrantziagatik bereziki larriak ziren kasu batzuetan esku hartu du Arartekoak, kexa aurkeztu zelako edo ofizioz.

Adingabeen heriotza eragin duten gertaeren ondorioz ere esku hartu dugu (esate baterako, 2004ko txostena, I. kapitulua, 1.1.5 atala).

Azken urte honetako jarduketan artean, larritasuna baino gehiago gizarte garrantzia kontuan hartuta, gure esku-hartzea behar izan duten bi alderdi edo arlo aipatu behar ditugu:

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei lotutako egoerak.
- Adingabeei buruzko datuen zabalkundea.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei lotutako egoerei dagokienez, esku-hartze asko egin ditugu: herritarrek baliabideak sortzearen aurka egotea, substantzia toxikoen kontsumo arazoak, zentro batzuen egoera, adina zehazteko prozesuak, familiak berriro biltzea, etab. Jarduketa horietako gehienei buruzko informazio zehatza eskaintzen da kapitulu honetako beste atal batean (“Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak”).

Baina, kasuen gainetik, hemen hausnarketa orokorra egitea eta gure kezka agertzea komeni da. Biztanleria sektore oso urrakor horri dagokionez (ez da ahaztu behar babesik gabeko eta hurbileko familia laguntzarik gabeko nerabeak direla), guztiz kezkagarria da gizartean horiei buruz sortzen ari den irudia; hain zuzen ere, arazoak sortzen dituen taldetzat (ia delitugiletzat) hartzen dira gizartean.

Gizartean irudi hori eratzea estu lotuta dago, erakunde honen iritiz, komunikabideetan ematen diren albisteei eta egiten diren iruzkinei; hain zuzen ere, horiek, ia beti, egoera arazoak buruzkoak dira: halako egoerak gertatu bai, baina salbuespenezkoak dira. Eta hori, gainera, halako arazoak sortzearen zergatiak aztertzen sartu barik, eragileak ez baitira beti adingabeak eurak, harrera-zentroetako baldintzak baizik.

Egiaz, arazo jakin batzuk ezagutarazteak gizarte-kontzientzia handiagoa lortzen lagundu dezake, baina, konponbidea topatzen lagundu ordez konponbidea oztopa dezakeen alarma edo iritzi egoera ere sor dezake. Azken urteetan arazoak dituzten edo problematikotzat hartutako nerabeentzako baliabide berriak sortzearen aurka auzoan izandako erreakzio batzuk esaten ari garenaren adibide kezkagarria dira. Ildo horretan, berriz ere Arartekoak gogora ekarri eta nabarmendu nahi ditu bere garaian “Erakundeen gidaritzaren bereziki ahulak diren kolektiboentzako zerbitzuen sorreran” hizpide zuen gomendio orokorrean planteatu zituen gai eta proposamenak, era honetako egoeretan erabat aplikagarriak eta baliagarriak iruditzen zaizkiolako (ikusi 2001eko txostena, 461. orrialdea eta ondorengoak).

Goian aipatutako bigarren gaia ere estu lotuta dago informazioaren tratamenduari; kasu honetan, adingabeei buruzko datu pertsonalen zabalkundea egiteari. Arartekoaren esku-hartzearen eragileak komunikabideetan agertutako datuak izan ziren (adingabe batek 2008ko otsailaren 10ean Ermuan jasandako eraso baten ondorioz agertutakoak). Datu eta informazio horien iturritzat, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila agertzen zen.

Gertaerak eta horien ondorioak larriak direnez, eta kontuan hartuta horiek salatu egin zirela, uste genuen sistema judizialak epaitu eta bidezko neurriak hartuko zituela.

Hala eta guztiz ere, ofiziozko jarduketa hasi genuen Hezkuntza Sailean, baina ez gertaerak eta erantzukizunak argitzeko (hori sistema judizialaren lana baita), sail horrek komunikabideekin egindako jarduketei buruzko informazioa eskatzeko baizik.

Helburua, izan ere, hauxe jakitea zen:

- Saileko zer informazio iturrik eman zituen komunikabideetan agertutako datuak.

- Zer komunikabide erabili zen, oharra edo informazio idatzia zen, horren eduki osoa zein zen.
- Sailak datuok zergatik eman zituen.
- Ea jarduteko modu horren ondorioak ezagutzen zituen (batez ere, eraginpeko adingabeek eta horien ingurukoak jasandako ondorioak).
- Sailean adingabeei buruzko informazioak zabaltzeko irizpiderik dagoen (konfidentzialtasuna edo intimitatearen errespetua urratzen duten informazioak); halako irizpiderik egonez gero, ea zein ziren.
- Espedienterako bidezkoak ziren gainerako informazio guztiak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari egindako informazio eskabidea, bestalde, datuak zabaldu eta berehala egin zen (arartekoak 2007ko otsailaren 21ean egindako idazkia); urtebete igaro ondoren, eta errekerimendu egokia egin arren, oraindik ez dugu erantzunik jaso, ezta egindako akatsak onartu eta horien eraginez harturiko erabakiren bat adierazten duen idazkirik ere; akatsok, berriz, komunikabideek eurek onartu eta horren zabalkundea egin zuten.

Nolanahi ere, jarduketa honek agerian jartzen du beharrezkoa dela erakundeetako ardura-dunek irizpideak eta arauak edukitzea, adingabeen intimitate eskubidea beti bermatzeko.

IV.GIZARTE AGENTEKIKO LANKIDETZA ETA GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA

Arartekoak elkarteekin duen harremanari dagokion azpiatalean adierazi bezala, Arartekoak, bere jarduteko ildoan artean, hemen hizpide dugun gaiari dagokionez, haurren edo nerabeen esparruan lan egiten duten gizarte agente desberdinekin lankidetzan jardutearen aldeko aukera argia egiten du. Bai haien eskubideen zabalkundean edo defentsan, bai askotan bereziki egoera problematikoetan dauden adingabe taldeentzako baliabide jakin batzuen kudeaketan.

Lankidetzaharreman hau hainbat jardueraren bidez gauzatu da aurten; besteak beste, arrisku egoeran dauden edo premia bereziak dituzten adingabeak artatzen lan egiten duten hainbat elkarte edo erakunderekin izandako hartu-emanak nabarmen ditzakegu. Urgatzi, Gao Lacho Drom, Kalé dor Kayikó, Landalan, Berriztu, EDEX, Dianova, Ixuri, Dislebi, Gaztaroan Ekin, Salesianoak, Hirugarrendar Kaputxinoak, Enseñantes con gitanos, AGIPASE, Gurutze Gorria, Nuevo Futuro, familia hartzaileen elkarteak, etab. bezalako elkarte edo erakundeekin izandako harremanak.

Baita haurren eskubideen defentsan diharduten Unicef, Plataforma de Organizaciones para la Infancia eta Save the Children bezalako erakundeekin ere. Eta eremu zabalagoan, hezkuntzari lotuta, ikastetxeekin, hainbat ikastetxetako gurasoen elkarteekin, zuzendaritza-taldeekin edo sektore jakin batzuetako hezitzaile taldeekin izandako harremanak edo trukeak. Zenbaitetan, ikastetxeetara bertara joan gara; beste batzuetan, Ararteko erakundea bisitatu duten ikasle taldeei arreta jarri diegu.

Elkarte eta erakundeekiko lankidetzaren honen esparruan, arartekoaren eta erakundeko langileek haiek gure erkidegoan zein handik kanpo adingabeen problematika desberdinen inguruan antolatutako foro eta topaguneetan izandako parte-hartzea ere nabarmen daiteke. Esku-hartze horietako batzuk aipatu dira txosten honen V. atalean.

V. HAURREN ETA HAURTZAROKO ESKUBIDEEN KULTURA ZABALTZEA

Jarduteko ildo honetan kokatu dira haurren berriazko eskubideak zabaltzera, giza eskubideei buruzko material didaktikoak hezitzaileen esku jartzera, adingabeei erakundea ezagutaraztera, beren eskubideei eragiten dieten arazo batzuk eztabaidatzera eta abarretara bideratutako Arartekoaren hainbat ekimen.

Horrela, 2008. urtean zehar, honako ekimen hauek adieraz ditzakegu, besteak beste:

- Ararteko erakundearen web orrian elementu berriak sartzea, bereziki adingabeen inguruko gaiak dagokienez.
- Gasteizko Udalarekiko lankidetzaren programaren barruan, Arartekoaren egoitza bisitatzera etorritako Gasteizko ikastetxeetako ikasle taldeei Ararteko erakundea aurkeztea eta arreta eskaintzea.
- Erakundea ikasle taldeei edo etorkizuneko hezitzaileei aurkezteko gure presentzia eskatu duten ikastetxe batzuetako esku-hartze zuzena; giza eskubideen gaineko lan sistematikoaren esparruan, normalean.
- "Gure eskubideak" eskolako lanen III. Lehiaketaren deialdia, gure erkidegoko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiei zuzendua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan norbere erabilerako egutegiak eta kartelak banatzea, haurren berriazko eskubideak zabaltzeko eta zigor fisikoaren gainean sentsibilizatzeko.

Giza eskubideen gainean sistematikoki lan egiteko material didaktikoei dagokienez, berriazko beka batzuen deialdiren emaitza gisa, aurreko ikasturteetan zenbait material bidali ziren ikastetxe guztietara: Bigarren Hezkuntzarako materialak biltzen dituen karpeta bat, haurren eskubideei buruzko beste bat Lehen Hezkuntza ikastetxeetarako, giza eskubideak modu ludikoagoan lantzeko karta-sortak, gidak eta baliabideak jasotzen dituen kaxa bat Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako eta beste hezkuntza-zerbitzu batzuetarako eta, azkenik, emakumearen eskubideei buruzko CD interaktiboa, neska-mutilek berek prestatutako materialak...

Azken urte honetan ere bi material berri bidali dira ikastetxeetara, teknologia berrien erabilerari egokiari dagokionez. Bi kasutan, EDEX fundazioko Pantailak Lagun ekimenak landutako materialak dira, hezkuntza munduari zuzendutakoak (ikasleak, irakasleak eta familiak). Bertan, CD euskarriko programa elkarrengileak (adingabeei zuzendutakoak) eta paper euskarriko gida didaktikoak (adin nagusiko pertsonen zuzendutakoak) konbinatzen dira.

Arartekoak materialok editatzeko eta banatzeko, aurrekontu ahalegin handia egin behar izan da; izan ere, ikasleei zuzenen lotutako zerbitzuei eta elkarteei dohainik eman zaizkie: ikastetxeak, guraso elkarteak, eskola-sistemari laguntzeko zerbitzuak, KZguneak, adingabeen harrera-zentroak, liburutegi publikoak...

Jarduera horiek, beti nabarmendu izan dugun bezala, askoz ere ikuspegi zabalago batean kokatu behar dira: Ararteko erakundeak adingabeak giza eskubideen errespetuan eta tolerantzia eta errespetu balioetan oinarritutako kulturaren gizarteratzeko duen kezka eta konpromisoa. Beharrezkoa da edozein gizarte demokratikotan, eta are gehiago geurean, hainbat urtez indarkeriaren eta hilketaren erabilera sistematikoa bizi izan baitugu. Horren aurrean, erakunde honek, une oro, giza bizitzaren balio gorena defendatzeko eta hezkuntza-sisteman bizikidetzarako balioei sistematikoki heltzeko proposamenak azaltzeko ahalegina egin du. Giza eskubideei buruzko ikasleentzako eskolako erabilerako materialak prestatzea eta zabaltzea horretarako ekarpen bat da, hain zuzen.

VI. BETE DIREN EDO BETETZEKO DAUDEN ARAUZKO GOMENDIOAK

Azken urteetan zehar, erakunde honek arauzko hainbat gomendio egin ditu adingabeen egoeraren inguruan. Horietako batzuek lotura zuzena dute hemen laburbildutako sektore, problematika edo egoerekin. Honakoei buruz ari gara, bereziki:

- Haurrak eta nerabeak artatzeko lege baten premia, hiru lurralde historikoetan irizpide komunak eta eska daitezkeen oinarritzko baldintzak ezarriko dituen eta babes sistemak zein barneratze zentroak barne hartuko dituen, eta gero lege hori garatzea (2005eko otsailean onartutako legea).
- Hezkuntza-premia bereziei buruzko ezohizko txostenean egin ziren zenbait gomendio orokor, arauak aldatu beharra dakartenak.
- Zerotik hiru urtera bitartean haurren hezkuntza-arreta behar bezala garatzea komeni da.
- Ikastetxeetako ikasleen eskubideen eta betebeharren araudia berrikusteko premia.
- Biltokiak arautzea, etab.

Gomendio batzuk azken urte honetan bete dira, arau batzuk onestearen ondorioz. Horri dagokionez, esate baterako, aurtun haxe onetsi da:

- Ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko dekretu berria (abenduaren 2ko 201/2008 Dekretua)
- Gizarte babesgabetasun egoera duten haurren eta gazteen egoitza harrerako baliabideak arautu dituen dekretua (uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua)
- EAEn deribazio judizialaren eraginezko biltokiak arautu dituen dekretua (uztailaren 1eko 124/2008 Dekretua)

VII. AZKEN URTEKO EGOERA PROBLEMATIKOENAK EDO KEZKAGARRIENAK

Adingabeen problematikari eskainitako atal luze honekin amaitzeko, aurreko bi urtetan bezalaxe, sintesi modura, Ararteko erakundeak eginiko lanaren arabera, arazo eta egoera konplexuenak zein izan diren nabarmenduko dugu hemen.

Azken urteetako jarduerak (bisitak, kexak, kontsultak, esku-hartzeak, etab.) aurreko urteetakoekin alderatzen baditugu, egoera kezkarriak edo jarduera gehien eragin dituztenak hiru hauek izan dira, batik bat:

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarren problematika.
- Eskolako jazarpeneko egoerak.
- Haur eta gazteen buru gaixotasuna artatzea, osasun sistemak ez die behar bezala erantzuten adimen narriadurako, droga-mendetasuneko zein jokabide arazo larriko egoerei, adingabeetan, bereziki.

Lehenengo bi gaiak Arartekoaren ezohizko txosten banatan landu dira eta haien jarraipen sistematikoa egin da. Horren berri eman dugu aurreko orrialdeetan.

Hirugarren gaia ere izan dugu hizpide hemen, txosten honetan bertan, nahiz eta hurbilketa partzialak baino ez ditugun egin; bakarrik dauden adingabe atzerritarrak artatzeko erakundeen arteko lankidetzaz hitz egitean, adibidez; lege-hausleen problematikari heltzean; La Ola hezkuntza- eta terapia-zentroaren jarraitutasuna edo beste lurralde batzuetarako antzeko zentroen premia planteatzean, etab. Alabaina, gai horrek duen garrantzia eta bilakaera kontuan hartuta, sakonago aztertu beharko litzateke. Ararteko erakundeak 2009rako zenbait ekimen dauzka pentsatuta ildo horretan.

Komeni da gogoraraztea aipatutako hiru gai horiek haurren oinarrizko eskubideei dagozkien, eta adingabe, familia eta profesional askori. Gainera, horiek konpontzeko, ezinbestekoa da gizarte osoaren eta erakundeen konpromisoa eta, zehazkiago, gaiarekin zerikusi zuzena duten osasun, hezkuntza eta babes sistemena.

Gure aldetik, datorren urtean ere lehentasuna emango diogu horiei arreta eskaintzeari.

II.4

**BERARIAZKO ARRETA
EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEI**

4. BERARIAZKO ARRETA EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEI

Arartekoaren erakundeak eskubide guztiak bermatu behar dizkie pertsona guztiei; gainera, lehentasunezko jarduketa izan behar du urrakortasun handiagoko egoeran egon daitezkeen taldeekin. Atal honetan, zehatzago eta zeharkako ikuspegitik aztertuko ditugu erakunde honen jarduketa arlo guztiak, baita ezgaitasunen bat duten pertsonak, aukera berdintasuneko eskubidea errebindikatu, 2008an planteatu dituzten gai guztiak ere.

Guztira 127 kexa jaso ditugu, eta, beraz, erakundeak aldi honetan jasotako kexa guztien %7,49 izan dira. Kexa horiek honako banaketa hau dute, jarduketa eremuen arabera:

– Herri Lanak eta Zerbitzuak	31
– Gizarte Ekintza	26
– Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	23
– Ogasuna	14
– Etxebizitza	8
– Hezkuntza	7
– Osasuna	7
– Herrizaingoa	5
– Funtzio Publikoa	4
– Lana eta Gizarte Segurantza	1
– Kultura eta Elebitasuna	1

Kexak arloka sailkatuta, ikuspegi orokorra eskaini nahi dugu aurkezturiko salaketek izan duten banaketari buruz (kasurik gehienetan ezgaitasunen bat duten pertsonak edo horien familiakoek aurkezturiko kexak), horrela, agerian geldituko da gure iritzipean jarri diren gaien zeharkako izaera; gai horiek, ikusten denez, erakunde honen lan arlorik gehienetan sartzen dira. Horrela, halaber, agerian geldituko da ezgaitasunen edo irisgarritasun arazoren bat duten pertsonak oraindik ere mota askotako oztopoak dituztela, hirigintzakoan eta arkitekturen, gizartean, kulturen eta taldean.

Ikusten denez, aurten ere, hirigintzako eta herri laneko nahiz zerbitzuko jarduketei buruzko kexak, gizarte ekintzakoekin batera, ugarienak dira, gainerako arloetan aurkeztu diren kexekin konparatuta.

Hirigintza eta Lurralde Antolamendua – Herri Lanak eta Zerbitzuak

Arlo hauetan, kexa kopuruak gorakada handia izan du, eta, edukiari dagokionez, oso heterogeneoak izan dira.

Ezgaitasunen bat duten pertsonak eskubide osoa dute zuzkidura publikoak eta talde ekipamenduak aukera berdintasunean erabiltzeko. Eskubide horren alderdietariko bat, izatez ere, talde ekipamenduetarako eta zuzkidura publikoetarako irisgarritasun unibertsala bermatzea

da, oztopo arkitektonikoak ezabatuta. Ekipamendu edo zuzkidura kontzeptu horren barruan, hiritarrei zerbitzu publikoak (hirigintzakoak, garraiokoak, hezkuntzakoak, gizartekoak, kulturakoak, etab.) eskaintzeko eta emateko behar diren azpiegiturak sartzen dira.

Pertsonak leku publikoetara iristeari lotutako arazoetariko bat, irisgarritasuna sustatzeko planak abiatzearen ondoriozkoa, hiriko oztopoak ezabatzeko edo gainditzeko onetsitako udal obretan eskailera mekanikoen aukera soila da. Arrapalek eta eskailera mekanikoez ez dute pertsona guztien irisgarritasun arazoa konpontzen (adin nagusikoak, haurrak dituzten pertsonak, ezgaitasun fisikoa dutenak); horiek, berez, ezin dituzte halako instalazioak erabili.

Hori dela eta, Arartekoaren iritziz, araudian ezarritakoa betetzeko, aztertzen ari garen kasuan, lehentasuna eman behar zaio egokituriko igogailuak instalatzeari, arrapala nahiz eskailera mekanikoen edo tapiz gurpildunen aurretik. Horrenbestez, udalerrri askok, herriko zonen arteko komunikazio arazoak konpontzeko, igogailuak edo igotzeko plataformak instalatu dituzte, horrek pertsona guztien irisgarritasuna bermatzen baitu.

Ekitaldi honetan kexa-espeditante bat izapidetu dugu Andoaineko eta Hondarribiako Udalekin, hirigunearen barruko desnibelak gainditzeko eskailera mekanikoak instalatu dituztelako. Halako kasuetan, administrazio eskudunari hirigune horietan bi elementuak instalatzeko aukerarik dagoen galdetu diogu, baita zonako ezaugarri orografikoak kontuan hartuta igogailua ez instalatzea justifikaturik dagoen ere. Arrapalak bakarrik instalatzeko erabakia zuzenbidearen araberakoa den ala ez baloratzeko, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko V. eranskineko 3.3. artikuluan, arauan jasotako irisgarritasun irizpideen salbuespena eskatzeko jarraitu behar den prozedura ezartzen da.

Bestalde, aipagarria da Erandioko herritar batek aurkezturiko kexa; bertan, irisgarritasun araua urratzearen berri eman zigun, eta urratze hori Astrabudua auzoko futbol zelai berriaren eraikuntzan egin zen. Dirudienez, instalazio berrian ez zen harmailetarako sarbiderik aurreikusi mugikortasun urriko pertsonentzat; halaber, barrutiko tabernara eta zelaiko albo batera zuzen-zuzen joateko arrapalarik ere ez zen instalatu, bertan ez baitzegoen ezgaitasuna duten pertsonentzako lekurik.

Egindako eskaerari erantzunez, Erandioko Udalak jakitera eman zigun proiektu osagarria egitea erabaki zutela, instalazio berriari ordura arte aurreikusi gabeko irisgarritasun neurriak zuzkitzeko.

Hala eta guztiz ere, egindako irregulartasun nabarmenak kontuan hartuta, gure ustez, beharrezkoa da udalbatzari gertatutakoari buruzko hausnarketa eskatzea; halaber, gogoratu egingo diogu irisgarritasuna sustatzeari buruzko 20/1997 Legeak erabilera nahiz zerbitzu publikoa duten eraikinetan irisgarritasun arauak betetzearen jarraipena eta kontrola egiteko funtzioa eratzikitzen diela hirigintza antolamenduaren arloko erakunde eskudunei. Kontrolaren eta ikuskapenaren arloan, udalek funtsezko eginkizuna dute, eta, horretarako, manuzko baimenak edo lizentziak ematen dituzte obrak betearazteko.

Azterturiko kasuan, argi gelditu da udalak jarduteko duen gaitasuna, instalazio berrirako irisgarritasuna bermatzeari dagokionez, mugatua izan dela.

Irisgarritasunari buruzko lege horretan ezarritakoaren arabera, funtsezkoa da udal teknikariek proiektu tekniko guztiak eta lizentzia nahiz baimen eskaerak ikuskatzea, irisgarritasunaren ikuspegia kontuan hartuta, arlo honetan aplikagarriak diren xedapenak bete egiten direla bermatzeko. Horri dagokionez, Legeko 17.2 artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta, udal agintariek berariaz eskatu behar dute aurkezten den hirigintzako agirietan arauan ezarritakoa bete egiten dela adierazteko.

Halaber, ez da ahaztu behar obrak ikuskatzea funtsezkoa dela, betearazpen fasean; izan ere, behin baino gehiagotan egiaztatu dugunez, eraikinak edo eraikuntzak amaitu ondoren, teknikoki ezinezkoa izan da instalazioa beharrezko irisgarritasun baldintzetara egokitzea.

Hortaz, kasu honetan gertatutakoa ikusita, Erandioko Udaleko alkateari udal zerbitzuak indartzeko beharrezko ahalegina egiteko eskatu diogu, hirigintza jarduera orokorrean kontrolatzeko eta bertan esku hartzeko funtzioak bermatzeko, eta, horrela, irisgarritasunaren arloko indarreko araudian ezarritakoa bete egiten dela bermatzeko.

Hiritarrek planteaturiko beste eskakizun bat etxebizitzak irisgarritasuna edukitzea da, hau da, higiezinaren kanpotik gainditzeko moduko oztopo arkitektonikorik ez egotea. Atal honetan, zenbait pertsonak lehenik dauden eraikinetan **igogailuak** instalatzeko dituzten arazoak apatu behar dira.

Hiritarrek era anitzeko arazoak azaldu dizkigute. Alde batetik, higiezinako jabeekin akordioa lortzeko zailtasunak adierazi dituzte, etxebizitza guztietarako sarbidea ahalbidetzen duen igogailuaren instalazioa onesteari dagokionez, eraikinaren segurtasun baldintzak murriztu gabe.

Bestalde, oztopo hori ezabatzeko soluzioa beti ez da egingarria eraikinaren barruan edo erkidegoaren lursail pribatuaren barruan. Halako kasuetan, fatxadan itsatsi eta erabilera publikoa duen lurzoruaren zati bat okupatu behar da.

Neurri honen hirigintza arazoa, bestalde, hiriko lursailen antolamendu egokiko interes publikoa eta eraikinaren irisgarritasuna ahalbidetzeko gizarte interesa haztatu behar izatetik sortzen da. Administratzaileek baloratu egin behar dute bide publikoen okupazioa noiz baimendu ahal den; izan ere, horrek estutu egiten du oinezkoen igarobidea, eta, gainera, aldatu egiten ditu eraikinen eraketa eta estetika.

Erabilgarritasun publiko eta gizarte interes horrek ahalbidetu egiten du igogailua instalatzeko behar den eremu publikoa jaregitea eta jabeen erkidego mugakideei eskualdatzea. Hala ere, esan behar da interes publikoa ez dela aintzat hartzen igogailua lursail pribatuaren barruan instalatu ahal denean, ezta oztopoak ezabatzea gainditzen duten eraikuntza soluzioetan ere, horien helburua ondare irabazia lortzea bada, eraikinaren eraikigarritasuna handituta edo barruko espazioen banaketa hobetuta nahiz handituta.

Udal batzuek, adibidez, Getxokoak, Bilbokoak edo Irungoak, ordenantzaren bidez arautu dituzte lehendik dauden eraikinetan igogailuak instalatzeko baldintzak, erakinaren edo lursail pribatuaren barruan ebazteko ezintasuna justifikatu behar izatean oinarrituz. Beste zenbait udalerritan, esaterako, Barakaldon, aldiz, kasuz kasuko erantzuna eman zaie auzotarrek egindako okupazio proposamenei. Xedapen orokor batean jasotako irizpide objektiborik ez egoteak, lehenago esan dugunez, erakunde honetan kexak aurkeztea eragin du. Bestalde, LHLk higiezinako elementu pribatiboak desjabetzeko aukera ematen du, igogailua lursail pribatuan instalatu ahal izateko. Irisgarritasuna lursailean bertan konpondu behar izatearen kalterik gabe, legegilearen aukera horrek (udal batzuen ordenantzetan jasota dagoena) arazoak sor ditzake, arlo pribatuan esku hartzen duelako: horrek aldatu egiten ditu erabakiak jabetza horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legean ezarritakoaren arabera hartzeko arauak. Ez da ahaztu behar hirigintza lizentziak neutroak direla arlo zibiletarako, eta gainontzekoen eskubideen kalterik gabe ematen direla.

Arartekoaren erakundearen ustez interesgarria da lehendik dauden eraikinetan igogailuak instalatzeko baldintzak orokorrean arautzea, pertsonen irisgarritasun unibertsala bermatzeko (egoiliarrek ezgaitasuna duen pertsona izaera justifikatu beharrik gabe). Beharrezko egokitzapen hori higiezinak kontserbatu eta birgaitu behar izatearen ondoriozkoa da (LHLko 199. artikulua); horren barruan, betearazpen aginduak emateko aukera sartzen da, jabetza pribatuaren barruan irisgarritasun araudia betetzea bermatzeko. Erkidegoak aukera hori bideragarria ez dela modu objektiboan justifikatuz gero (adibidez, eraikinaren bizigarritasun edo segurtasun baldintzetan eragina duelako), udalak eremu publikoaren erabilera pribatiboa aldi batean lagatzeko aukera izango du, eraikuntza tipologiak eta bideko irisgarritasun arauak hori ahalbidetzen dutenean.

Garraio publikoa autonomiaz eta berdintasun baldintzetan erabili ahal izatea, bestalde, ezgaitasuna duten pertsonen beste errebindikazio nagusienetarikoa bat da, eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan garraio publikoko zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresen erronka nagusia ere bada; izan ere, une honetan garraioaren irisgarritasun unibertsala ez dago inondik inora ere bermatuta, arlo horretan aurrerakuntza handiak egon badira ere.

Autobuseko hiri garraioaren arloan, aipagarria da oraintsu onetsi dela Barakaldoko bidaiarien hiriko herri garraio erregularreko eta iraunkorreko zerbitzuaren Araudia (212. BAO, 2008-11-4koa). Halaber, 2009an herri horretan hiri autobusen zerbitzua abiatzea dago aurreikusita. Zerbitzu hori arautzen duen araua interesgarria da, bidaiariak honako eskubide hau dutela berariaz onartzen duelako: *“Zerbitzua eroso, garbia eta segurua izatea, eta hala egokitzuz gero, ibilgailuetara sartzeko baldintzak behar bezalakoak izatea, bai eta zerbitzua erregularra izatea eta garaiz agertzea.”* (8.1.e artikulua.). Hain zuzen ere, zerbitzuak bere gain hartzen duelako ezgaitasuna duten pertsonak lekualdatzeko betebeharra. Arau horretako 34. artikuluan hauxe esaten da hitzez hitz: *“Aulki gurpildun batean mugitzen den pertsona bat ezin bada autobus batera igo pertsona horientzat gordetako lekua hartua dagoelako, zerbitzua ematen duen enpresak lekua ziurtatuko dio hurrengo autobusean. Ez badio zerbitzurik eskaintzen epe horren barruan, enpresak beste garraiobideren bat eskaini beharko dio, enpresaren kontura betiere, eskatu zaion garraio zerbitzua betetzearren”.*

Hiri arteko autobusak egokitzea zailagoa da, linea horiei oraindik ere lurzoru altuko unitateak esleitzen zaizkielako gehienbat; horren eraginez, flota hori egokitzeko prozesua denboran luzatzen ari da. Hiru lurralde historikoen arteko egoera aldagarria da. Horrela, esate baterako, teorian, Araban egokituta dago Arabako Foru Aldundiaren titulartasuna duten lineetara atxikitako autobus flota osoa. Hala eta guztiz ere, praktikan errealitatea desberdina da. Aiara haranaren eta Gasteizen arteko loturak ez ziren beti egokituriko ibilgailuekin egiten (1327/2008); bidaia segurtatzeko, erabiltzaileek, egun batzuk lehenago, kontaktuan jarri behar ziren enpresa emakidadunarekin, horrek ibilgailu irisgarria eta egokitzapen eraginkorra duena esleitzeko.

Herri Lan eta Garraio Sailak jakinarazi digunaren arabera, zehaztu berria zen linea horren enpresa emakidadunarekin sinatu beharreko programa kontratua. Programa horren arabera, zerbitzuak zortzi autobusen bitartez emango ziren; horietako hiruk igotze eta egokitzeko plataforma zuten, gurpildun aulkiak ainguratzeko. Halaber, lau hilabeteko epea zegoen, kontratua sinatzen zenetik zenbatzen hasita, igotzeko eta barrutik ainguratzeko plataforma zuten bost autobus erosteko; autobus horiek ordeztu egingo zituzten mugikortasun urriko pertsonak garraiatzeko egokiturik ez zeuden bost ibilgailuk. Horrenbestez, 2009ko apirilaren 1ean (gehienez), eraginpeko hiru ibilbideetan zerbitzuak ematen zituzten autobus guztiak egokituta egon behar ziren.

Gipuzkoan, 90eko hamarkadatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak erraztu egin du emakida duten lineetako autobusen ordezpena egokituriko ibilgailuekin egitea. Horrela, linea horietako flotaren %84 egokituta dago gaur egun. Hala eta guztiz ere, Mugikortasun eta Lurralde Antolamendu Saileko jarduketaren arau horren barruan, baimentzen diren zerbitzu osagarriak ere sartu beharko lirateke. Deba eta Itziar errepidetik lotzen dituen zerbitzua erabiltzaile batek esan zigun ez zegoela ados, egokituriko taxi-bus zerbitzuaren ordeztu, 2008ko maiatzaren hasieran, mikrobus bat sartu zelako, eta horrek mugikortasun urriko pertsonentzat irisgarritasunik ez zuelako. Izan ere, erreklamazio gileak adierazitakoaren arabera, mikrobusaren barruan sartzeko, hiru eskailera maila igo behar ziren, eta horrek zaildu egiten zuen garraio publikorako irisgarritasuna; batzuetan, gainera, benetako oztopoa zen (636/2008). Taxi-bus zerbitzua osagarria da, eta ez dauka zerikusirik administrazio emakida duen garraio linearekin. Sailak defendaturikoaren arabera, taxi egokituaren ordeztu antzeko ezaugarriko beste ibilgailu bat sartzeko zailtasunen ondorioz, behin-behinean mikrobus hori erabiltzeko baimena eman zen. Egoera hori ikusita, eta kontuan hartuta bidaiari guztien lekualdatzeko beharrianak betetzen dituen bakarra egokituriko ibilgailua dela, erakundeak eskaera egin zion Mugikortasun eta Lurralde Antolamendu Sailari, mikrobus horren ordeztu mugikortasun urriko pertsonen garraioari egokituriko ibilgailua jartzeko, lehenbailehen. ([2008ko abenduaren 9ko Ebazpena](#)¹⁰).

¹⁰ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 9koa. Horren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Sailari eskaera egiten zaio Deba eta Itziar lotzen dituzten zerbitzu osagarriak ematen dituen mikrobus egokitua aldatu dezan eta mugikortasun urritasuna duten pertsonentzako ibilgailu egokitua jarri dezan.

Bizkaian, administrazio emakida duten lineak (Bizkaibus enpresaren zerbitzukoak) egokitzeko prozesua motelagoa da; hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Hirigintza Sailak lehenasuna eman dio irisgarritasunari, Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden bi ospitale nagusiak lotzen dituzten lineetan, epe oso laburrean irisgarritasun hori bermatu ahal izateko (1199/2006 eta 1441/2008).

Aldundiak, gainera, beste garraio linea batzuen titularrak dira, eta horien ustiapena administrazio emakidako araubidea esleitu zaie garraio enpresa pribatuei. Linea horiek ibilbide handiak egiten dituzte Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, eta hiru lurralde historikoetako hiriburuak lotzen dituzte. Linea horietan daude, hain zuzen ere, egokituriko ibilgailuen ehunekorik txikienak. Irisgarritasuna duten ibilgailuen erabilgarritasun eza horrek murriztu egiten du ezgaitasunen bat duten pertsonen mugimendu askatasuna.

Kontuan hartu behar da, mugikortasun arazoak dituen pertsona batek lekualdatzeren bat egitea erabakitzen duenean, helmugara iristearen nolabaiteko bermea izan behar duela; izan ere, bestela, bidaia ez du garraio publikoan egingo, eta, beraz, ordeko formularen bat aurkitzen saiatuko da, azkenean helmugara helduko dela segurtatzeko. Mugikortasun arazorik ez duten pertsonak ez dute halako zalantzarik, edozein autobus (programaturiko ordutegietan) lekualdatzeko beharrianak betetzeko aukera ematen baitiete. Muga honetan ezkututzen da, sarritan, mugikortasun urriko pertsonen bereizkeria.

Arazo hau ezgaitasuna zuten pertsonen elkarte batek azaldu zuen, Gasteiz Bilborekin lotzen duen linean (462/2006). Elkarte horrek egindako salaketaren arabera, autobusak ez daude benetan egokituta, mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna errazteko aurretiazko instalazio bat eduki arren, hori amaitu gabe baitzegoen.

Beraz, ezin zen esan egokituriko autobusak zirenik, aurretiazko instalazio bat baino ez zutelako; izan ere, agerikoa zen aurretiazko instalazio horrek ez zuela ahalbidetzen mugikortasun arazo larriko pertsonak autobus horiek autonomiaz erabiltzea; eta kontuan hartu behar da egokitzeari buruz hitz egiteko aukera ematen duen funtsezko elementua garraioa autonomiaz erabiltzeko aukera dela.

126/2001 Dekretuak, bestalde, zerbitzu erregularrak ematen dituzten hiriko eta hiri arteko taldeko garraibide publikoak egokitzen joateko betebeharra ezartzen du.

Betebehar hori segidako denbora-tarteko betebeharra da, behintzat eskuratzen diren unitate berriei dagokienez; emakidadun enpresa honen kasuan, betebehar hori ez zen bete.

Bizkaiko Foru Aldundiak onartutakoaren arabera, enpresarekin sinaturiko kontratuaren indarraldia 2013ra artekoa zen. Era berean, aditzera eman zigun, indarreko emakidak amaitzearen ondorioz, baldintza agerietan beharrezko ratioetara egokituriko ibilgailuak atxiki beharra ezarriko zela, mugikortasun urriko pertsonen beharriari erantzun egokia emateko. Gainera, txosten horretan onartzen zenez, lau urteko programarik egon ez arren, diru-laguntzak ezarri ziren, garraio publikoko zerbitzuak ematera atxikitako ibilgailuen egokitzapena sustatzeko. Diru-laguntza horiek enpresa emakidadunak ere jaso zituen.

Egoera hori ikusita, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza espedienteak berrikusteko konpromisoa hartu zuen, baita enpresa emakidadunari informazioa (erabiltzaileei) emateko eskaera egiteko konpromisoa ere, egokituriko ibilgailuekin eskainitako zerbitzuei buruz. Horiek, gutxienez, bidaia guztien %57 izan behar dira.

Garraio publikoaren zerbitzuek mugikortasun urriko pertsonen lekualdatzeko beharrianak betetzen ez dituztenean, ordezeko soluzioa **taxia** da; baina, zoritxarrez, hori ez dago beti dibertsitate funtzionala duten pertsonen esku.

Komunikabideetan entzunda jakin genituen ezgaitasuna duten pertsonen zailtasunak, Nerbioiren ezkerraldeko udalerrietan egokituriko taxia lortzeko. Zona horretan auto-taxiko 168 lizentzia daude; horietatik 70 lizentzia Barakaldon, 42 Portugaleten, 38 Santurtzin eta 18 Sestaon. Hala eta guztiz ere, lizentzia horien artean ez dago egokituriko ibilgailurik.

Egokituriko taxirik ez egotearen eraginez, ezgaitasunen bat duten pertsonak Bilbon eskatu behar dute zerbitzua, eta, horrenbestez, bidaiaren kostua garestiagoa eta itxaroteko aldiak luzeagoak dira.

Eraginpeko udalerriei informazioa eskatzeko, lau espediente hasi genituen ofizioz; horietan, ezgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna sustatzeko (taxi zerbitzuari zegokionez) abiatuko zituzten neurriak adierazteko eskatu genien tokiko administrazioei.

Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, erreserba batzuk ezartzen ditu garraioan, hain zuzen ere, taxiaren udal zerbitzuari dagokionez:

“Mugikortasun murriztua duten pertsonak lekuz aldatzeko beharrianak bete ditzaten, ibilgailu edo taxi egokitua egotea sustatuko dute hiru mila bizilagun baino gehiago duten herrietako udalek. Hala behar izanez gero, lizentzia berria eman daiteke horretarako.” (10.3 art.)

Halaber, lege horretako 15.2. artikuluan ezartzen denez: *“Taxia erabiltzeko lizentzia lortzeko edo ibilgailua bera aldatzeko, egiaztatu egin beharko da horrek behar bezalako irisgarritasun-baldintzak betetzen dituela.”*

Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legea, garraioen arloan, Garraioko Irisgarritasunaren Baldintzei buruzko Arau Teknikoak onetsi zituen uztailaren 10eko 126/2001 Dekretuak garatu zuen.

Dekretu horretan, udalerriek egokituriko taxien arloan eduki behar dituzten gutxieneko lizentzia kopurua ezartzen da. Legeko 4.6. artikuluan ezarritakoaren arabera:

“1.-Hiru milatik gorako biztanle kopurua duten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan, udalek gutxienez taxi egokitu bat izan dadin sustatuko dute eta eguneko 24 ordutan bermatu beharko da zerbitzua.

2.– Nolanahi ere, 20 taxi lizentzia baino gehiagoko udalerrietan, taxien lizentzien %5ek gutxienez gurpil-aulkidun erabiltzaileentzat egokituta egon beharko dute, Eranskin honetako 4.6.1 atalean ezarritakoaren arabera.

3.– Egokitutako taxiek lehentasunezko zerbitzua emango diete mugikortasun urriko pertsonari, baino ez dira inolaz ere pertsona horientzako bakarrik izango.

4.– Tarifa-zerrendak, baita gainerako informazio gehigarria ere, inprimakietan, Braille sisteman eta beste edozein idatzizko komunikabidetan.

4.6.1.– Egokitutako taxiak.

Gurpil-aulkidun erabiltzaileentzat egokitutako taxitzat hartuko dira honako baldintzak betetzen dituztenak:

– Gurpil-aulki elektrikoa eramateko espazioa dutenak eta espazio horren gutxieneko dimentsioa apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren I Eranskinean, Parametro Antropometrikoari buruzkoan, ezarritakoari egokitzen zaionean.

– Gurpil-aulkientzako sarbidea apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren I Eranskinetik gurpil-aulki elektrikoak lasai sartzeko moduko neurrikoa denean.

– Gurpil-aulkiak ontziratze edo lehorreratzeko erabiliko den atea arrapala edo plataforma jasotzaileak dituenak. Arrapala edo plataforma hauek apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren III Eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

– Gurpil-aulkientzako ainguraketa eta erabiltzailearentzako segurtasun-uhala da-goenean.

– Bidaiari-lekuak heldulekuak dituenak; inguruarekiko kontrastatutako kolorean, eta erabilgarritasuna eta dimentsioei dagokionez, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren I eta III Eranskinetan xedatutako parametroen arabera direnak.

– Gidariak ainguraketak eta segurtasun uhalak jartzeko eta gurpil-aulkidun erabiltzaileei ibilgailurako sarrera eta irteera errazteko jarritako ekipamendua manipulatzeko arduradunak direnak.”

Legeria honek aldeko joera argia eskatzen die botere publikoari, garraio bideak apurka-apurka egokitzen joateko. Apurka-apurkako egokitzeko prozesu hori ondoen deritzen moduan egituratu behar dute administrazioek, baina euren ekimenak eta horiek lau urteko programetan izango duten irismena agerian jarrita (20/1997 Legeko 13. art. eta 126/2001 Dekretuko 6. art.).

Bestalde, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legeko 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazioek *“kasuan kasuko eskumenak garatu eta burutzean, irisgarritasuna sustatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea sustatuko dute.”*

Arlo honi buruzko diru-laguntza programetan, herri-administrazioek lehentasunezko zatik har ditzakete ekimen batzuk, besteak beste, honako hauek: *“Ibilgailu pribatu eta taxiak edo erabilera publikoko ibilgailu pribatuak erosi eta irisgarritasun-baldintzei egokitzea.”* (Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legeko 14.2 art.).

Txosten hau amaitzeko unean, eraginpeko lau udalerrietatik bik baino ez digute erantzun, Santurtzik eta Portugaletetik. Horrela, Santurtzik konpromisoa hartu du egokituriko ibilgailu

baterako taxi lizentzia berri bat emateko; Portugaletek, berriz, bidalitako txosten labur baten bidez, esan digu udalak emandako 42 taxi lizentziatariko ezein ere ez dela egokituriko ibilgailu baterako, honako hauek indarrean sartu baino lehen eman baitziren: Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 20/97 Legea eta hori garraioaren arloan garatu duen 126/2001 Dekretua. Dena den, badirudi irisgarritasun plana dagoela, egokituriko taxi kopurua finkatu duena, baina ez digute horri buruzko datu zehatzik eman. Nolanahi ere, ez dago diru-laguntzarik halako ibilgailuak lortzeko, eta *“al no haber ningún taxista que voluntariamente elija la adquisición de un taxi de este tipo, la corporación no ha decidido como impulsar este tema.”*

Irisgarritasun unibertsalean aurrerapausoak emateko eta hori lortzeko, beharrezkoa da inplikaturiko administrazioek konpromiso aktiboa izatea, gutxienez oztopoak ezabatzea sustatzen duten neurriak hartuta.

Mendetasunaren arloko legeriaren aplikazioa baliozkoa izan da mendetasunari loturiko prestazio eskariak agertzeko, horiek oso zentzuzkoak izan arren ez baitute babesik legeria horretan. Horixe da mendetasun handiko pertsonen **laguntzaileei doako txarteletarako eskaera**.

Lehen esan dugunez, halako hobarien ezarkuntza ez da legeriak mendetasunaren arloan ezarritakoaren eraginezkoa. Hala eta guztiz ere, garraio konpainia batzuk, adibidez, Eusko Tren enpresa, halako eskaerei erantzuteko prest agertu dira; beraz, doako txartelak emateko prest daude, beste pertsona baten laguntza eta arreta behar duten pertsonekin doazen pertsonentzat (157/2008).

Gizarte Ekintza

Ezgaitasuna duten pertsonak oraindik ere zailtasunak dituzte berdintasunezko bizitza edukitzeko aukera ematen duten laguntzak lortzeko. Erakunde honetan aurkezturiko kexetariko baten helburua, izan ere, Arabako urteroko laguntza teknikoen deialdia izan da, eta, bertan, elbarritasunaren eraginpeko pertsonentzako laguntza emakida arautu duen araudia (Ongizateko Foru Erakundearena) onetsi duen martxoaren 1eko 17/1998 Foru Dekretuan ezarritakoa aplikatzeko eskaera egin da. Laguntza horien barruan, 2007an, ez zen sartzen ohe artikulatua erosteko laguntza.

Egindako eskaerari erantzunez, Arabako Foru Aldundiaren erantzuna hauxe izan zen: *“analizar la posibilidad de incluir ciertas ayudas no contempladas hasta la fecha, y entre las que se incluyen las camas articuladas, en la convocatoria correspondiente al ejercicio 2009. En caso de que este informe fuera favorable y que por el Consejo de Administración se considerara oportuno. Se procederá a modificar el catálogo de ayudas susceptible de subvención para la convocatoria del próximo ejercicio.”*

Bestalde, elbarritasuna duten pertsonen eta horien egoitza arretari dagokienez, 60 urte-tik beherako pertsonen kasu batzuk planteatu dizkigute; horiek behin-behineko eta behin

betiko egoitza baliabidea nahi zuten Bizkaian. Bi kasuetan adina planteatzen zen, egoitza baliabidea esleitzeko orduan kontuan hartu beharreko elementu garrantzitsutzat.

Azterturiko kasu batean egiaztatu genuenez, buruan lesioa zuen pertsona zen, eta aldi baterako egoitza egonaldia eskatzen zuen. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak adierazitakoaren arabera, ez zegoen plaza hutsik pertsona horren ezaugarrietarako, eta, gainera, baliabidea ez zen egokiena berarentzat, adina eta egoera aintzat hartuta. Beraz, erakunde honek hauxe proposatu zion foru sail horri: eskuraturiko buruko gaixotasuna zuten pertsonentzat egoitza berezirik ez zegoenez, buruko paralisia zuten pertsonen zentro batean esleitzeko plaza bat. Gure ustez, azken talde hori adineko pertsonena baino egokiagoa zen, halako ezaugarriak zituen pertsona batentzat, bai adina eta bai egoera aintzat hartuta.

Aldundiak berretsi egin zuen kasua adineko pertsonen egoitza batera bideratuko zuela; Aldundiak alegaturikoaren arabera, salbuespenezko kasuetan, zentro horiek 50 urteko edo gehiagoko pertsonak onartzen dituzte. Gainera, aldi baterako egonaldietarako egoitza plazen helburua hauxe omen zen: adimen mailako ezgaitasuna, buruko paralisia eta garapenaren nahaste orokorra, autismoa eta haur-psykosia. Hau da, ez zegoen egoitza plazarik eskuraturiko buruko gaixotasunerako.

Gizarte Ekintza Sailak baztertu egin zuen erakunde honek proposaturiko zentroa (buruko paralisia zuten pertsonentzako zentroa), kasu honetarako egokia ez zela alegatuz; baina ez zuen esan balorazio horren zergatia, eta mendetasuna zuten adineko pertsonentzako zentroa hobea izatearen zergatia. Horrenbestez, zergati horiek oinarritzeko egin den balorazioa jakin nahi dugu.

Foru sailak kasua zehatzago aztertzea erabaki zuen eta ASPACE elkarteari iritzia eskatu zion; elkarte horrek buruko paralisia duten pertsonentzako zentroak kudeatzen ditu. Elkarrekin pertsona honi laguntzearen alde egin zuen, eta, horrenbestez, Gizarte Ekintza Sailak 15 eguneko aldi baterako egonaldia esleitu zion, proposaturiko zentroan. Pertsona horrek eta bere familiak esperientziaren aldeko balorazio positiboa egin zuten.

Bestalde, uda honetan, Bizkaiko Foru Aldundiak ezgaitasuna duten mendeko helduen arretarako (EMHU) egoitza unitate bat ireki du Leioako egoitza konplexuan, eta unitate horrek 18 plaza ditu. Unitatearen helburua ezgaitasun fisiko larria edo oso larria duten pertsonen arreta da (aldi baterakoa edo iraunkorra), pertsona horiek nahaste kognitiboak edo burukoak ere izan ditzaketenean.

Gizarte Ekintza Sailak egoitza plaza iraunkor bat esleitu zion, unitate horretan, 37 urteko pertsona bati, horrek ezgaitasun fisiko larria baitzuen. Handik gutxira, pertsona horrek nahi ta utzi zuen unitatea, bere egoerarako egokia ez zelakoan.

Berak adierazitakoaren arabera, unitate hori ez da egoitza bereizitako eta banandutako espazioa, zentro osoari irekita baitago; horrela, zentroaren luzapena da, eta, beraz, egoitzako erabiltzaileek askatasun osoz sartzen dira unitatean. Gainera, espazioak ere partekatzen dituzte aldi berean, adibidez, egongelak eta jantokiak. Beraz, egun ia osoa adineko

pertsonekin egin behar omen zuen, bere unitatean 60 urtetik beherako bi pertsona baino ez baitzeuden. Egoera hori ez zen eroso berarentzat, eta ez zuen nahi; halaber, beste zenbait alderdi ere kritikatu zituen, esate baterako, bainuko elementuen egokitzapena, unitatean garatzen diren jarduerak (bere ustez, hobetzeko modukoak), etab. Horren guztiaren eraginez, utzi egin zuen zentroa, eta horren eragile nagusia bere 37 urterekin adineko pertsonen egoitza batean egotea zen, horrek eragin txarra baitzuen bere aldarlean.

Gai horiek guztiak foru sailari planteatu eta, orain, erantzunaren zain gaude.

Nolanahi ere, gure ustez garrantzitsua da pertsonen adina aintzat hartzea, gizarte baliabideetan espazioak eta denborak partekatzeko orduan; izan ere, bizi erritmoak, interesak, ohiturak eta abar desberdinak dira bizitzako etapa bakoitzean. Era berean, egoerak pertsona gazte horren aldarlean eragin kaltegarririk ez sortzeko ahalegina egin behar da, horren ezgaitasuna bakarra fisikoa baita.

Azkenik, erakunde honek laneko barne batzordea sortzea erabaki du, Mendetasunari buruzko Legeak Euskal Autonomia Erkidegoan duen aplikazioaren jarraipena egiteko. Helburua honako honi lotutako alderdiak nahiko zehatz ezagutzea da: mendetasun egoera onartzeari buruzko alderdiak, horren ondorioak, erabilitako irizpideak, prestazioen nahiz gizarte zerbitzuen eskuragarritasuna, etab. Gainera, lan espezifiko egin nahi da, lege honen aplikazioan hurrengo urteotan sortuko diren egoerei buruz, baita lege hori garatzeko araudi osoari buruz ere, horren eboluzio eta konparazio azterketa egin ahal izateko (behatokia balitz bezala), eta, horrela, arlo honetan eskudunak diren EAEko administrazioei hobekuntza proposamen guztiak egin ahal izateko.

Batzorde hau 2008an eratu da, horren beharrezana egiaztatu ondoren, ekitaldi honetan ikusitako errealitateak kontuan hartuta. Hurrengo urteko txostenean, edo agian aurten aurkeztuko dugun ikerketa berezi baten bidez, egindako jardueren berri emango dugu.

Ogasuna

Ezgaitasuna duten pertsonen zerga babesa, zalantzarik gabe, doktrinak eta jurisprudenziak gehien onarturiko zerga helburuetariko bat da (zergetatik kanpoko helburua), Zergei buruzko Lege Orokorreko 2.1. artikuluko bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera¹¹.

Hauxe izan da PFEZren erreforma berrian jarraituriko ildoak; horrek, hain zuzen ere, mendetasunari buruzko Legetik sorturiko kontzeptuak jaso ditu, bai mendetasun egoera bakoitzari dagozkion zerga hobariak eratzeko, bai Legean ezarritakoaren ondoriozko prestazioen zerga tratamendua arautzeko eta horiek salbuetsitakotzat kalifikatzeko.

¹¹ Zergak, gastu publikoak eusteko behar diren baliabideak lortzeko tresnak izateaz gain, politika ekonomiko orokorreko tresnatzat ere baliozkoak izan daitezke, eta Konstituzioan jasotako helburuak eta printzipioak betetzeko erabili.

Hain zuzen ere, familia inguruko zaintzetarako prestazioen tratamenduak polemika sortu du Gipuzkoan; izan ere, lurralde horretako foru ogasunak egindako interpretazioaren arabera, 9. artikuluko 27. atalean onarturiko salbuespena prestazioaren onuradunarentzat baino ez da, hau da, mendetasuna duen pertsonarentzat, baina ez zaintzailearentzat. Interpretazio irizpide hori ez finkatzeko, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin, beste bi paragrafo gehitu zaizkio PFEZi buruzko 6/2006 Foru Arauko 9. artikuluko 27. atalari; hain zuzen ere, honako hauek:

“Asimismo, estará exenta la percepción recibida por el cuidador no profesional por la atención prestada a la persona en situación de dependencia que sea beneficiaria de la prestación económica para cuidados en el entorno familiar que deriva de lo previsto en el apartado 4 del artículo 14 de la Ley de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia, con el límite del importe de la prestación económica reconocida al citado beneficio.

A los efectos de la exención prevista en el párrafo anterior, por cuidador no profesional de la persona en situación de dependencia se entenderá a su cónyuge, pareja de hecho o pariente por consanguinidad, afinidad o adopción, hasta el tercer grado de parentesco, inclusive.”

Tokiko arloari dagokionez, zentzuzkoa dela dirudi, herritarrenganako hurbiltasun handiagoak, baita tokiko erakundeen ezgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonen arazo batzuetan garaturiko jarduketek ere (batik bat, mugikortasunaren eta gizarte laguntzako zenbait zerbitzu ematearen arloko jarduketak), tokiko ogasunei eragitea, zergazko diru-sarreraren arloan ezgaitasunaren berezitasunak aintzat hartzeko.

Horri dagokionez, gogoratu behar da mendetasuna duten pertsonen bereizitasunak tokiko zergen arloan sartzea guztiz koherentea dela gure konstituzio eta zerga printzipioekin, eta, gainera, horrek aukera ematen duela tokiko zergetan ezintasunaren tratamendua bateratzeko, estatuko zerga sistema osatzen duten gainerako salbuespenetan ezarritakoarekin, bertan ezgaitasunaren babesa iraunkorra eta gero eta handiagoa baita.

Bestalde, argi dago ezgaitasunak gaitasun ekonomikoaren murriztapen handia dakarkiola, bai eraginpeko pertsonari eta bai horren aurrekoei, ezkontideari eta ondorengoei. Oinarri horretatik abiatuz, eta aintzat hartuta gure zerga sistemaren substratua gaitasun ekonomikoa dela (EK-ko 31.1 artikulua¹²), agerikoa da tokiko auzitegiek tratamendu berezia eman behar dietela ezgaitasuna duten pertsonari.

Hala eta guztiz ere, esan behar da ezgaitasunak Tokiko Ogasunetan duen tratamendu espezifikoa (zergapeturiko gaitasun ekonomikoaren murriztapen azkarra aintzat hartzen duten

¹² Denek laguntzen dute gastu publikoen mantenamenduan, euren gaitasun ekonomikoaren arabera, bidezko zerga-sistema baten bidez; sistema hori berdintasun eta aurrerakortasun printzipioetan oinarritzen da, eta ez du inoiz ere konfiskazio-izaerarik edukiko.

zerga hobariak ondo erabilia) modu oso partzialean baino ez dela gertatzen gaur egun, eta zerga batzuetan arazo larriak daudela.

Arlo honetan, adibiderik agerikoena Trakzio Mekanikoko lbilgailuen gaineko Zergarekin gertatzen da, hain zuzen ere, ezintasunaren eraginezko salbuespenaren aplikazioan, udal batzuek iruzur egiten baitiete Tokiko Ogasunen azken erreforman (2004tik aurrerako aplikazioa EAEn) arlo honetan adierazitako jarraibideei; izan ere, udal ordenantzaren bidez, zerga arautzen duen foru arauan ezarritakoak baino baldintza gogorragoak ezarri ziren.

Guk, orain arteko txostenetan eta jakinarazpenetan berretsi dugunez, uste dugu horrek urratu egiten duela lege erreserbaren printzipioa. Zerga ordenantzek alderdi formalak arautu ahal dituzte, ezgaitasuna duen pertsonak %33ko gradua egiaztatzeko aurkeztu behar dituen agiriak zehazteko, baina ezin dituzte arautu funtsezko alderdiak (salbuespena funtsezko alderdia da), horiek Legeak arautzen baititu.

Etxebizitza

Etxebizitzaren arloko kexak urterik urtera biltzen dituen arazoetariko bat, izatez ere, babes publikoko etxebizitzetako eraikuntza akatsen eraginezko erreklamazioei buruzkoa da. Kasurik gehienetan, gure esku-hartzea eskatzen duten pertsonen helburua erakunde honen, arartekoak, herri-administrazioak behartzea da, etxebizitzetako eraikuntza akatsak konpontzeko behar diren legezko neurriak har ditzaten.

2008an gora egin du **mugikortasun urri iraunkorreko pertsonen erreserbatutako etxebizitzetako eraikuntza akatsak** konpontzeko eskariari lotutako kexa kopuruak; kexa horietan salaturikoaren arabera, esleituriko etxebizitzak ez ditu betetzen irisgarritasuneko gutxieneko baldintzak, esleipendunak ezin baitu etxebizitza erabili independentziaz eta modu normalizatuan.

Halako kasuetan, etxebizitza ezintasuna duen pertsonaren beharrezanetara egokituta ez egoteari lotutako eraikuntza akatsen eraginez, pertsona horrek ezin du etxebizitza berehala okupatu, eta, horrenbestez, inoiz baino gehiago, babesturiko etxebizitzak sustatu dituzten herri-administrazioen erantzun eraginkorra eta berehalakoa behar da.

Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak ez dauka zalantzarik horri buruz; hain zuzen ere, pertsona guztientzako irisgarritasun unibertsaleko eta diseinuko printzipioak aintzat hartuta, aditzera ematen du etxebizitza sustatzaile guztiek etxebizitza esleipendunaren ezaugarrietara egokitu egin behar dituztela mugikortasun urriko pertsonen erreserbatutako etxebizitzak.

Lege agindu hori eta babes ofizialeko etxebizitzetako eraikuntza akatsei buruzko araudia betetzeko, aurren zenbait eskera egin dizkiogu Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, enpresa eraikitzaileei beharrezko konponketa obrak egiteko eskaera egin diezaion, mugikortasun urriko pertsonen erreserbatutako etxebizitzak egokitzeko, edo bestela, obrak sailak berak

egiteko, enpresa eraikitzailearen kontura; horrela, administrazioaren jarduketa ezak ez du inoiz ere oztopatuko ezgaitasuna duten pertsonen etxebizitza duina eta egokia edukitzeko eskubidea.

Bestalde [2008ko uztailaren 1eko Ebazpena](#)¹³, aipatu behar da; bertan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ezartzen dituen baldintzak aztertuko ditugu, **irisgarritasun baldintzak betetzen ez dituen etxebizitza aske baten jabeen babesturiko etxebizitza egokitua** emateko ezartzen dituenak. Erreklamaziogileek (horietariko bat ezgaitasuna duen mugikortasun urriko pertsona) esku hartzeko eskatu ziguten, uste baitzuten truke jarduketa (babesturiko etxebizitza egokitua eta euren jabetzako etxebizitza askea) kaltegarria zela eurentzat; izan ere, euren ordeztu hartzen zuten etxebizitza ez zitzaion jabetza araubidean esleitzen, azalera eskubidean baizik (75 urteko aldirako).

Ikerketako izapidetzeak egin ondoren, eta babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenean egoten diren salbuespeneko gorabehera guztiak aztertutakoan¹⁴, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari gomendatu egin genion, alde batetik, halako kasuetan, etxebizitza behar duten pertsonen jabetza araubideko babes ofizialeko etxebizitza lortu ahal izateko behar diren neurriak hartzeko; bestetik, halako salbuespeneko truke eragiketetan lorturiko etxebizitza guztiei babes ofizialeko etxebizitza kalifikazioa emateko.

Etxebizitza eta Gizarte Ekintza Sailak ezetz erantzun zion gure gomendioko lehenengo zatiari; hala eta guztiz ere, etxebizitza egokia behar duten jabeek bere esku jarritako etxebizitza kopuru ahalik eta handiena babes ofizial gisa kalifikatzeko konpromisoa hartu du.

Hezkuntza

2007an, hezkuntza-premia berezien txostenaren jarraipena egiteko jarduketa espezifikoak planteatu genuen, oztopo arkitektonikoak ezabatzeari zegozkionez.

¹³ Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 1ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari gomendatzen zaio beharrezko neurriak har ditzala beren jabetzako etxebizitza EAEko Administrazioari ematen dioten pertsonen erabateko jabetzako erregimenean adjudikatutako babes ofizialeko etxebizitza eskuratu ahal izan dezaten.

¹⁴ "Hizpide ditugun aparteko kasu hauetan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak pentsatu du etxebizitzaren jabeak diren eta, beraz, etxebizitzarik ez dutela egiaztatzen ez duten pertsonen etxebizitza babestua eskuratzeko eskubidea dutela. Izan ere, kasu horietan, botere publikoek babestu beharrekoak diren beste interes batzuk daude, alegia, ezgaitasunen bat duten pertsonen etxebizitza duin eta egokia izateko duten eskubidea bermatzea, gainerako biztanleen baldintza berdinetan.

Azken batean, eskubideen benetako berdintasunaren printzipioak eta giza aniztasunarekiko errespetuak justifikatzen dute ezgaitasunen bat duten pertsonen etxebizitza babestua eskuratzeko dituzten arazoak konpontze-ara bideratutako neurri zehatzak hartzea.

Hori kontuan izanda, eta baita, babes ofizialeko etxebizitzaren gainerako adjudikaziodunek ez bezala, etxebizitza babestuak salbuespeneko bide honetatik eskuratzeko dituztenek beren etxebizitza Sailaren esku uzten dutela ere etxebizitza babestuen parkean barnera dadin, berariazko irtenbidea aurkitzea proposatu behar dugu berenganatzen duten etxebizitza babestuaren edukitze erregimenari dagokionez; horren baitan, babes ofizialeko etxebizitza erabateko jabetzapean eskuratu ahal izango dutela bermatu beharko litzaike."

Kudeaketak egin diren arren, jakin gabe gelditu zen ea ikastetxeetako irisgarritasunaren egoera errealararen maparik dagoen, eta ea zer aurreikuspen dagoen erabateko irisgarritasuna lortzeko.

Zoritzarrez, irisgarritasun arazo berriak aipatu behar ditugu, horiek gainditu egin diren arren. Horrela, Bizkaiko Basauri herriko familia batek Etxebarrira joan nahi izan du bizitzera, bere semeari inguru irisgarriagoa eskaintzeko; familia horrek dioenez, herri horretako ikastetxe publikoak (Barandiaran LHI) oztopo arkitektonikoak zituen. Hala eta guztiz ere, azkenean, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Heziketa Sailak bidezko neurriak hartzea erabaki zuen, euren semearen ohiko eskolatzea bermatu ahal izateko.

Osasuna

Arlo honetan, osasun zerbitzu osagarria ukatzearen eraginezko kexa jaso dugu: adingabe batek gurpil aulki elektrikoa eskatu zuen. Desadostasuna 1.030/2006 Errege Dekretuak ezarritako baldintzak betetzearen ingurukoa zen; dekretu horrek, hain zuzen ere, aulki hori erabiltzeko ikusmeneko, buruko eta kontroleko gaitasun nahikoa eskatzen du, erabiltzailearen eta beste pertsona batzuen osotasuna arriskuan ez jartzeko.

Halako gaiak aztertzen dituen teknikari talde batek osaturiko batzordeak 11 urteko adina ezarri du, gaitasun hori bermatzen duen gutxienezko zatik, beste gorabehera batzuk egon ezean. Eskaera egin zuen pertsonaren 9 urteko adina sendagileak adierazitakoaren aurretik jarri zen, eta familiak horren txostena aurkeztu du.

Adina prestazio honen finantziazio publikorako baldintzat edo elementutzat baloratzea egokia izan daiteke, baldin eta onartzen bada gaitasuna beste modu batera egiaztatu ahal dela. Horri dagokionez, 11 urteko pertsona batek gaitasun hori eduki dezake, eta gerta daiteke nagusiago batek ez edukitzea.

Horrenbestez, gure iritzian, adinaren baldintza ez da modu itxian ezarri behar (ez behetik eta ez goitik), prestazio eskubidea eragiten duen baldintzat; izan ere, gurpil aulki elektrikoa erabiltzeko gaitasuna beste moduren batera egiaztatzeko aukera eman behar da.

Emandako erantzunean, Osasun Saila balorazio horren aurka agertu zen; izan ere, bere iritziz, edozein neurri jar daiteke zalantzan, baina neurri hori irizpide hedakortzat aplikatzea egokiagoa da, irizpidetzat *ad hoc* egindako txosten baten irrika edo arrazoibide eza erabiltzea baino. Txostenean adierazitakoaren arabera, halaber, 11 urte edukitzea ez da berez irizpide nahikoa izan inoiz.

Arartekoaren ustez, aulkia autonomiaz eta eraginkortasunez erabiltzeko gaitasunari buruzko osasun txostena aztertu ondoren, bertan lehen adierazitako zergatiak ikusten badira (*ad hoc* txostena izatea), ez litzateke zalantzarik egon behar administrazio erabakia oinarritua izateari buruz. Baina halako kasuei buruzko txosten guztiak halakoak direla pentsatzea ez da justifikazio nahikoa.

Gure balorazioa [2008ko abenduaren 16ko Ebazpenean](#)¹⁵ jasota gelditu da, eta hori Osasun Sailera bidali dugu.

Osasun arloari lotutako beste gai batzuei dagokienez, gogoratu behar da iaz entzumen ezgaitasuna (sortzetikoa edo hartutakoa) zuten pertsonak aurkezturiko kexen eraginez hasitako jarduketak aztertu genituela. Euskal Autonomia Erkidegoan inplante koklearrak lekualdatzerik gabe egiteko aukerari buruzko informazioa eskatu genuen, baita bigarren inplanteak edo alde biko inplantea egiteari buruzkoa ere. Halaber, inplantearen osteko logopediako tratamenduak egiteko moduari buruzko informazioa ere eskatu genuen, errehabilitazio hori irizpide desberdinekin egiten ote zen jakiteko.

Bigarren inplanteari dagokionez, Osasun Sailak jakinarazitakoaren arabera, ez dago irizpide batasunik, horren onuradunak zein gaixo diren zehazteko; gainera, lehentasuneko da lehenengo inplante hori behar duten pertsona guztiei bermatzea.

Beste zentro batzuetarako lekualdatzei dagokienez, aurreko egoera aipatu ondoren, osasun administrazioak jakitera eman zigun gaur egun, Gurutzetako ospitaleko gazteak izan ezik, gaixoak Osakidetzako erreferentziako zentrora deribatzen direla (Donostiako Ospitalea), ebakuntza kirurgikoak egiteko.

Ondorengo tratamendu logopedikoak egiteko moduari buruz, txostenak esan du osasun administrazioaren ustez irizpide klinikoetan ez dagoela desberdintasunik. Hala eta guztiz ere, homogeneizazioan lan egiteko arrazoiak ikusi ziren (agian, Gipuzkoako zentro batekiko itunpeko hornidura desberdin baten ondoriozko arrazoiak).

Inplante koklearra deribatzeke edo jartzeko barruko irizpideak zein diren jakiteko eskatutako informazio osagarriari dagokionez, oraindik ez dizkigute bidali Osakidetzan erabiltzen dituzten protokoloak.

Herrizaingoa

Arlo honetan, aurten ere mugikortasun urriko pertsonak aurkeztu dituzte kexarik gehienak, ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkamendu txartelaren titularrek; kexa horietan, euren ibilgailua aparkatzeko orduan dituzten zailtasunak salatu dituzte, bai erreserbatutako aparkamendu plazak nahikoak ez direlako, bai pertsona batzuek euren plazak (zenbaitetan, aparkamendu txartelak ere bai) erabiltzen dituztelako.

¹⁵ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 16koa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari gurpildun aulki elektrikoa finantzatzeko eskaria berrikusteko gomendioa egiten diona.

Funtzio Publikoa

Lehenengo eta behin, arlo honetan, pertsona batek Euskal Autonomia Erkidegoko Down Sindromea Fundazioaren jarduera azaltzeko aurkeztu dugun (bere ahizpa fundazio horretako kidea baita) kexa azaldu nahi dugu.

Gertaerak bere ahizpari erakundearen bitartekotzarekin eskaini dioten lan kontratu baten eraginezkoak izan dira. Fundazioak zenbateko bat ordaintzeko eskatu zion, lan bizitzan emandako laguntza zerbitzuagatik. Kexa aurkeztu duen pertsonaren ustez, bere ahizpak ez zuen behar, lanpostua garatzean, gainontzeko pertsona baten laguntzarik.

Gai horri dagokionez, ez dugu kexa onartu, gure eskumen eremutik kanpoko gaia baita. Fundazioaren izaera, hain zuzen ere, sektore pribatuaren barrukoa da.

Hala eta guztiz ere, azal-azaletik, laguntza duen lanaren ezaugarriak azaldu genizkion; laguntzako lan hori ezgaitasuna duten pertsonak lan merkatuan ahalik eta gehien integratzeko egiten da. Halako pertsonen lanak zerbitzuak eta ekintzak behar ditu, eta, horrenbestez, kostu ekonomikoa dauka. Halaber, komenigarria da informazio gehiago jasotzea, Fundazioari berari datuak eskatuta, eta esan diogu Laguntzako Laneko Espainiako Elkartearekin kontaktuan jartzeko aukera duela; horretarako, elkarte horren web orrialdea eman diogu.

Bestalde, Osakidetzako LEP 2006 hautapen probetan parte hartu duen herritar baten erreklamazioa jaso dugu. Esleitu zaion norakoa hartu baino lehen, osasun azterketa gainditu behar du, lanpostu hori betetzeko gaitasun psikofisikoa duela egiaztatzeko. Azterketan, erakunde publiko horretako lan prebentzioko zerbitzuak esan du ezintasun iragankorreko egoeran dagoela, eta probako aldia ezarri dio, bere benetako gaitasuna egiaztatu ahal izateko. Aldi horretan, Osakidetzak jakin du Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak erabateko ezintasun iraunkortzat hartu duela hautagaiaren egoera. Ebazpena eman eta, bertan, ondore barik utzi dira hautapen probak garatzeko jarduerak.

Interesatuak esan du bazterkeriako jarduketa izan dela, bere ustez erabakia ezgaitasuneko ehuneko handian oinarritu baita.

Osasun zerbitzuetako estatutu langileen Esparru Estatutuan ezarritakoaren arabera, ezgaitasun iraunkorrek (erabatekoa, absolutua eta baliaezintasun handia) estatutudun finkoaren izaera galtzea dakar.

Ezgaitasuneko legezko kasua da, lanpostuak lortu ahal izateko. Legeak ahalmena ematen dio administrazioari, hautapen prozesua gainditu ondoren jarduketak ondore barik uzteko, izendatuak izateko baldintzak betetzen ez dituzten pertsoneri dagokienez, eta baldintza horietariko bat gaitasun psikofisikoa da.

Aldi berean, Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen lanpostuak aldi baterako betetzeko hautagaia den pertsona batek egindako erreklamazioa aipatu behar dugu; pertsona horrek dioenez, ez da egokitzen eskaini zaion lanpostura, eta, beraz, ezin izan du kontratua onartu.

Eskaintzaren kudeaketaren informazioa ez da zehatza izan. Eginaren Eginez Elkartearen bidez, *in situ* jakin ditu Arana egoitzako lanpostuaren baldintzak, eta ikusi du oztupoak kontrolko panel bat eta alarmako dispositibo bat direla. Dirudienez, bi elementu horiek, lanpostua lortzen duen pertsonak derrigorrez erabili beharrekoak, zutik soilik heltzeko moduko altueran kokatuta daude horman (interesatua gupil aulkian dabil).

Funtzio publikoaren arloko legeriak jasota dauka herri-administrazioek lanpostuetan ezgaitasuna duen pertsonak behar dituen egokitze guztiak sartu behar dituela. Betebehar hori lanpostuaren titularra denak edo izango denak ezartzen du, lanpostuari dagokionez. Ez da ezer esaten betebehar hori lanpostua aldi baterako edo modu iraunkorrean betetzeko kasuetan aplikatzeari buruz. Foru erakundeari informazioa eskatu diogu eta erantzunaren zain gaude.

Azkenik, funtzio publikoko arlo honi dagokionez, Osakidetzak LEP 2006an iragarritako erizaintza lanpostuetarako hautagai batek aurkezturiko kexa aipatuko dugu; hautagai hori ezgaitzat hartu da, esleituriko lanpostua hartu baino lehenagoko osasun azterketan.

Hautagaiak elbarritasuna dauka, eta, horrenbestez, ezgaitasuna duten pertsonentzako lanpostu erreserbarekin hartu du parte. Hautatua izan ondoren (norakoetariko bat edukitzeko aukerarekin), Prebentzio Korporatiboko Zerbitzuak esan du ez dela gauza funtzioak betetzeko. Bidali zaion ebazpenean adierazpen hori baino ez da egiten, baina ez dira adierazten balorazio hori eragiten duten zergatiak zein izan diren.

Norakoen esleipena argitaratu da; ebazpenean interesduna ageri eta tokatu zaion norakoa adierazi da, baina horrek ezin izan du lanpostua hartu, bere gaitasuna adierazten duen osasun azterketarik ez duelako.

Osakidetzaren laguntza eskatu dugu; arlo honetan, alde batetik, prozedura alderdiak eta, bestetik, gaiaren oinarriari dagozkionak bereizten ditugu. Azken horiei dagokienez, adierazpena interesdunak kategoriako funtzioak betetzeko duen gaitasunaren ebaluazioaren ondoriozkoa izan den jakin behar dugu, edo puntuazioaren nahiz hautapenaren arabera dagokion lanpostuaren edo aukeraturiko lanpostuen funtzioak betetzeko gaitasunaren ebaluazioaren ondoriozkoa izan den. Azkenik, Osakidetzak interesdunak bete ahal duen erizaintza lanpostua adierazteko aukerei buruz ere galdetu dugu, baita erakundeak kasu honetan mugikortasun tresnak aplikatzeko dituen aukerei buruz ere (langileen ezintasun egoeren tratamendurako dituen tresnak).

Kultura eta elebitasuna

Erakunde honetan, Euskadiko Gorren Guraso eta Lagun Elkarteen Federazioaren kexa bat jaso dugu; bertan, salaturikoaren arabera, EITB Erakunde Publikoak urratu egin du irisgarritasuna sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legea.

Lege horrek pertsonen garapen askea eta erabatekoa bermatzeko ahalegina egiten du, gizarte eta erkidego inguruan; halaber, inguru fisikorako eta komunikaziorako irisgarritasuna

bermatzen die Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona guztiei, batez ere, dena delakoagatik mugaren bat duten pertsonei.

Lege horretako 6.4 artikuluan ezartzen denez: *“Titulartasun publikoa duten komunikabideek neurri teknikoan plan bat egingo dute, pixkana-pixkana herritar guztiek komunikaziorako duten eskubidea behar bezala bermatu ahal izango duena.”*

Halaber, araudi aplikagarriak zerbitzu publikoaren izaera ematen dio EITBri; horren arabera, besteak beste, beharrezkoa da gutxiengoaren gizarteratzea sustatzea eta beharizan bereziak dituzten gizarte taldeei laguntza ematea, aurrerakuntza teknologikoan parte hartuz, *“... utilizando las nuevas técnicas de producción, distribución y difusión, de programas de radio y televisión y de servicios conexos o interactivos de comunicación audiovisual para ofrecer nuevos servicios, incluidos los digitales y en línea, susceptibles de enriquecer o completar su oferta de programación, así como procurando la transmisión de los servicios de subtítulo, autodescripción e interpretación en la lengua de signos, de apoyo para el acceso de personas con discapacidad o con necesidades especiales.”*

Hala eta guztiz ere, elkarteak adierazitakoaren arabera, orain dela hamar urte sortu zenetik komunikazio iraunkorra dauka EITBko arduradunekin eta arlo honetan eskuduna den herri-administrazioarekin, baina egiaztatu dute gai honetan eman diren aurrerapausoak ez direla nahiko izan. Horri dagokionez, hauxe adierazi du:

- 1.a Telebistako emisio oso gutxi dira gorrentzat eskuragarriak; gutxi gorabehera, emisio 620 ordu inguru.
- 2.a Ez dago programazio estaldura nahikorik talde horretako adin segmentu guztientzat, are gutxiago haurrei zuzendutako programen kasuan. Une honetan, ez dago Euskal Autonomia Erkidegoan entzumen ezgaitasuna duten haurrentzako programa egokiturik EITBn.
- 3.a Euskal Autonomia Erkidegoko telebista publikoan lehenetasuna ematen zaio erakunde programak beste genero batzuetako programetara egokitzeari, nahiz eta, 2007-2010 aldirako ezarritako programa kontratuan ezarritakoaren arabera, konpromisoa hartuta eduki, programazio genero guztiak eta gizarte, kultura, kirol, aisialdi eta halako ikuskizunak herritar guztien esku jartzeko.

Bestalde, Elkarteak adierazitakoaren arabera, gaur egun aurrerakuntza teknologiko handiak daude arlo honetan, eta horiek aukera ematen dute zeinuen hizkuntzan azpitu-tuen, audiodeskribapenen eta interpretazioaren arloko beharizanak betetzeko, telebista modu berrien bitartez. Izan ere, gaur egun, adierazgarria da beste telebista publikoetako (autonomia erkidegoetakoak) eta pribatuetako (estatukoak) programazioan ordu kopuruan egon den gorakada handia; izan ere, horiek komunikazio modu berriak erabiltzen dituzte, euren telebista emanaldietan, horiek entzumen ezgaitasuneko pertsona guztien esku egoteko.

Horri dagokionez, erreklamazioek adierazi dutenez, adierazgarria da EITBren egoitza berriaren eraikuntza (Bilbon), horrek sustapen handia eman baitio EAEko Erakunde Publikoaren ikus-entzunezko proiektuari. Hori lagungarria izan da telebistaren aro analogikoa atzean uzteko eta instalazio digitalizatu berriei bidea irekitzeko. Hori dela eta, aurreko garaietan eskatu diren irisgarritasun neurriak sartzea oztopatu duten zailtasun teknologikoak gaindituta daude, teknologia horien bitartez; horrela, arlo honetan aurrerapauso handia eman da, kostu ekonomiko handiegirik gabe, gainera.

Hori guztia kontuan hartuta FEVAPASen ustez, Euskadiko Irrati Telebistako Erakunde Publikoaren (EITB) helburua ez da batere asmo handikoa, 2007-2010eko aldirako programa kontratuan gorrentzat ezarritako azpituludun programazioko ordu kopurua; izan ere, dagoeneko bete egiten da 2010erako ezarritako ordu kopurua (620 ordu); gainera, interesdunek diotenaren arabera, zifra hori 2004an ere lortuta zegoen. Horren guztiaren eraginez, mesfidantza handia sortu da gorren taldean, datu horrek agerian jartzen baitu EITBk lortuztat hartzen duela ezarritako helburua.

Txosten hau amaitzeko unean, oraindik ez dugu gai hau EITBko zuzendaritzarekin aztertu, kontuan hartuta erakunde horrek arartekoari emandako erantzuneko azalpenak ez ditugula nahikotzat hartzen.

Bestalde, zeinuen hizkuntza gure web orrian jasota gelditu da (www.ararteko.net), web horren aurkezpenean, Bizkaiko Gorra Elkartearen laguntzari esker, ekarpen hori elkarte horretako kideek egin baitute.

Irisgarritasuna EAEko eraikin publikoetan deritzonari buruzko txosten bereziaren jarraipena

Hiri inguruko, leku publikoetako, eraikinetako, garraibideetako eta komunikazio sistemetako irisgarritasuna funtsezko elementua da herritar guztiek oinarrizko eskubideak eduki ahal izateko. Irisgarritasunaren arlo honetan, erreferentziako elementutzat hartu behar da diseinu unibertsal deritzon kontzeptua; horretarako, onartu egin behar da gizarte osoa bere kideen dibertsitatera egokitu behar dela, horretarako behar diren aldaketa guztiak eginda, pertsona guztiek bizitzako arlo guztietan erabateko partaidetza dutela bermatzeko. Aintzat hartu behar da gizartearen egokitzapen hori (dibertsitaterako egokitzapena) pertsonen berdintasunerako eta euren eskubideen errespeturako bide eraginkor bakarra dela.

Euskal Autonomia Erkidegoko legeriak berme eta babes nahikoa eskaintzen du, arlo honetan. Horrela, jarduketa esparru orokorrean egituratzen da, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legean ezarritakoaren arabera; halaber, esku-hartze arlo guztietan aplikatzeko moduko baldintza teknikoak ere badaude, Lege hori garatu duten bi dekretuetan jasota: apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri inguruetako, leku publikoetako, eraikinetako eta informazio nahiz komunikazio sistemetako irisgarritasunari buruzko arau teknikoak onetsi dituena; eta uztailaren 10eko 126/2001 Dekretua, garraioko irisgarritasunerako baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dituena.

Legeak lehendik dauden erabilera eta zerbitzu publikoa duten hiri inguruetan, leku publikoetan, eraikinetan, garraioetan eta informazio nahiz komunikazio sistemetan irisgarritasuna bermatzeko eta sustatzeko diseinaturiko oinarritzko tresna, hain zuzen ere, irisgarritasuna sustatzeko lau urteko programa da. Programa horren bidez, administrazioek eta gainerako erakunde publikoek haxe egin behar dute: egoeraren diagnostikoa egitea eta egokitu behar diren kanpoko eremuen, eraikinen, garraioen eta komunikazioko bideen inbentarioa sortzea; lehentasunen ordena finkatzea, pertsonen jariora eta eraginkortasun handiagoa aintzat hartzen dituen; eta programa ekonomikoa nahiz finantzazkoa eta egokitzapenak betearazteko egutegia onestea.

1997an aldarrikaturiko legeak bi urteko epea eman zien erakundeei, EHAAn argitaratu zenetik zenbatzen hasita, lau urteko lehenengo programa onesteko. Horrenbestez, 1999aren amaierarako, EAEko udal guztiek eginda eduki behar zuten halako plan bat.

2003an, Arartekoaren erakundeak txosten berezia aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean, Euskal Autonomia Erkidegoko erabilera publikoa duten eraikinetako irisgarritasunari buruz. Txosten horretan, irisgarritasunaren arloko esku-hartze publikoak aztertu ziren, 20/1997 Legea eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko (eraikinetako irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak ezarri zituen dekretua) III. eranskina indarrean sartu zirenetik aurrerakoak.

Txosten berezi horretako ondorioetan egiazaturikoaren arabera, legeak ezarritako epea aspaldi igarota egon arren, gure galdeketa jaso zuten zazpi udalerrik soilik bete dute lege agindu hau.

Hori dela eta, erakunde honek ofizios esku hartzeko konpromisoa hartu zuen, herri-administrazioek lau urteko programak egitearen eta betearaztearen jarraipena egiteko.

Horrela, 2004an Eusko Jaurlaritzako sailetara, hiru foru aldundietara eta 10.000 biztanletik gorako udaletara (bere garaian lau urteko programarik ez zutela jakinarazi zigutenak) jo genuen.

Ekitaldi horri dagokion txostenean, lorturiko emaitzak jaso ziren, eta, oro har, esan daiteke ondorio positiboak atera zirela; izan ere, txosten berezia argitaratu zenetik (2003), kontsultaturiko herri-administrazio guztiek neurriren bat hartu zuten, irisgarritasunerako Lau Urteko Programa egiteko; hain zuzen ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila gainezka zegoen, udalek irisgarritasuneko manuzko Lau Urteko Programetarako diru-laguntza deialdiei buruz egindako eskaera guztiei erantzun ahal izateko.

Denbora nahikoa igaro da, udalek kasuan kasuko programak edukitzeko, eta, beraz, gure ustez, egoeraren diagnostiko gaurkotua egitea komeni da.

Oraingoan, 10.000 biztanletik beherako udalerrietan jarri dugu arreta, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerririk gehienetan: 248tik 211. Izan ere, ezgaitasuna duten pertsonen elkarte batzuek (udalerrri txikietakoak) horixe eskatu digute zenbaitetan; hain zuzen

ere, elkarte horiek atzerapenak ikusi dituzte udalerrietan irisgarritasuna sustatzeko neurriak hartzearen arloan.

Informazioa adierazitako 211 udalei bidalitako galdeketa laburraren bidez bildu da; galdeketa horretan honako galdera hauek egin dira: ea irisgarritasuna hobetzeko lau urteko programarik duten; ea planaren jarraipena egiteko pertsonarik berariaz izendatu duten, eta ea programa onetsi denetik bertan ezarritako egokitzapenak betearazteko mailari buruzko baloraziorik egin duten.

Kontsultaturiko udal guztietatik, 188 udalek erantzun dute; horrenbestez, betetako galdeketa guztien %89,09 izan dira. Erantzuna nahikoa da emandako datuak ondo interpretatu ahal izateko.

LURRALDEA	KONTSULTATURIKO UDALAK	ERANTZUN DUTENAK	ERANTZUN EZ DUTENAK
ARABA	49	43	6
BIZKAIA	93	83	10
GIPUZKOA	69	62	7

Ikusten denez, erantzun kopururik handiena Gipuzkoako Lurralde Historikoak eman du (%89,85 inguru); gero, Bizkaiak (%89,24), eta, azkenik, Arabak (bertako udalerrien %87,76k erantzun dute).

Lorturiko informazioaren arabera, jasotako erantzunak lau multzotan bildu ditugu: irisgarritasuneko lau urteko programa duten udalerrriak; halako programarik ez duten udalerrriak; programa hori edukitzeko kudeaketak hasi dituzten udalerrriak edo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailean programa egiteko diru-laguntza eskatu dutenak (2008an); azkenik, erantzunik eman ez duten udalerrriak daude.

Lurralde Historikoen arabera

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA

UDALERRIA	LAU URTEKO PROGRAMA DUTENAK	LAU URTEKO PROGR. EZ DUTENAK	PROGRAMAK IZAPIDETZEN	ERANTZUN EZ DUTEN UDALAK
Armiñon		X		
Alegria-Dulantzi	X			
Amurrio	X			
Añana		X		
Aramaio	X			
Arraia-Maeztu		X		
Arrazua-Ubarrundia	X			

UDALERRIA	LAU URTEKO PROGRAMA DUTENAK	LAU URTEKO PROGR. EZ DUTENAK	PROGRAMAK IZAPIDETZEN	ERANTZUN EZ DUTEN UDALAK
Artziniega	X			
Asparrena	X			
Ayala/Aiara	X			
Baños de Ebro/Mañueta		X		
Barrundia	X			
Berantevilla		X		
Bernedo		X		
Campezo-Kanpezu	X			
Elburgo/Burgelu		X	X	
Elvillar/Bilar		X		
Elciego		X		
Iruña Oka/Iruña de Oca				X
Iruñaiz-Gauna		X		
Kripán		X		
Kuartango		X		
Labastida/Bastida	X		X	
Lagrán		X		
Laguardia				X
Lanciego/Lantziego		X	X	
Lantarón	X		X	
Lapuebla de Labarca		X		
Legutiano	X			
Leza				X
Moreda de Álava	X			
Navaridas				X
Okondo		X	X	
Oyón-Oion	X			
Peñacerrada/Urizaharra	X			
Ribera Alta	X			
Ribera Baja/Erribera Beitia		X		
Salvatierra/Agurain	X			
Samaniego		X		
San Millán/Donemiliaga	X			
Urkabustaiz	X			
Valdegovía/Gaubea	X			
Harana/Valle de Arana		X		
Villabuena de Álava/Eskuernaga		X		
Yécora/Iekora	X			

UDALERRIA	LAU URTEKO PROGRAMA DUTENAK	LAU URTEKO PROGR. EZ DUTENAK	PROGRAMAK IZAPIDETZEN	ERANTZUN EZ DUTEN UDALAK
Zalduondo				X
Zambrana				X
Zigoitia		X		
Zuia		X		

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

UDALERRIA	LAU URTEKO PROGRAMA DUTENAK	LAU URTEKO PROGR. EZ DUTENAK	PROGRAMAK IZAPIDETZEN	ERANTZUN EZ DUTEN UDALAK
Arakaldo		X		
Arantzazu				X
Abadiño		X		
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	X			
Ajangiz	X			
Alonsotegi		X		
Amoroto	X			
Areatza	X			
Arrankudiaga	X			
Arratzu		X		
Arrieta	X		X	
Artea	X			
Artzentales		X		
Atxondo		X		
Aulesti	X			
Bakio	X			
Balmaseda	X			
Barrika	X			
Bedia		X		
Berango	X			
Berriatua		X	X	
Berriz				X
Busturia	X			
Derio	X		X	
Dima	X			
Ea		X	X	
Elantxobe		X		

UDALERRIA	LAU URTEKO PROGRAMA DUTENAK	LAU URTEKO PROGR. EZ DUTENAK	PROGRAMAK IZAPIDETZEN	ERANTZUN EZ DUTEN UDALAK
Elorrio	X			
Ereño		X		
Errigoiti	X		X	
Etxebarri	X			
Etxebarria		X		
Forua	X			
Fruiz	X			
Galdames		X		
Gamiz-Fika		X		
Garai	X			
Gatika	X			
Gautegiz Arteaga	X			
Gizaburuaga		X		
Gordexola	X			
Gorliz		X	X	
Güeñes	X			
Ibarrangelu		X		
Igorre	X		X	
Ispaster	X			
Iurreta	X			
Izurtza		X		
Karrantza Harana/Valle de Carranza				X
Kortezubi		X		
Lanestosa		X		
Larrabetzu	X			
Laukiz				X
Lekeitio	X			
Lemoa	X			
Lemoiz		X		
Lezama	X			
Loiu	X			
Mallabia				X
Mañaria		X		
Markina-Xemein	X			
Maruri-Jatabe	X			
Mendata				X
Mendexa		X		
Meñaka		X		

UDALERRIA	LAU URTEKO PROGRAMA DUTENAK	LAU URTEKO PROGR. EZ DUTENAK	PROGRAMAK IZAPIDETZEN	ERANTZUN EZ DUTEN UDALAK
Morga		X		
Mundaka	X			
Munitibar-Arbatzeki Gerrikaitz				X
Murueta		X		
Muskiz		X	X	
Muxika		X		
Nabarniz		X		
Ondarroa	X			
Urduña-Orduña	X			
Orozko		X		
Ortuella		X		
Otxandio	X			
Plentzia	X			
Sondika				X
Sopuerta		X	X	
Sukarrieta		X		
Trucíos-Turtzioz		X		
Ubide	X			
Ugao-Miraballes	X			
Urduliz	X			
Zaldibar	X			
Zalla	X			
Zamudio	X			
Zaratamo				X
Zeanuri		X		
Zeberio	X		X	
Zierbena				X
Ziortza-Bolibar		X		

GIPUZKOAKO LURRADE HISTORIKOA

UDALERRIA	LAU URTEKO PROGRAMA DUTENAK	LAU URTEKO PROGR. EZ DUTENAK	PROGRAMAK IZAPIDETZEN	ERANTZUN EZ DUTEN UDALAK
Aduna	X			
Aia	X			
Aizarnazabal		X		
Albatzisketa		X	X	

UDALERRIA	LAU URTEKO PROGRAMA DUTENAK	LAU URTEKO PROGR. EZ DUTENAK	PROGRAMAK IZAPIDETZEN	ERANTZUN EZ DUTEN UDALAK
Albiztur	X			
Alegia		X	X	
Alkiza				X
Altzaga		X	X	
Altzo	X			
Amezketeta		X		
Anoeta	X			
Antzuola	X			
Arama	X			
Aretxabaleta	X			
Asteasu	X			
Astigarraga	X			
Ataun	X			
Baliarrain		X		
Beizama		X		
Belauntza				X
Berastegi	X			
Berrobi				X
Bidegoian		X		
Deba	X			
Elduain		X		
Elgeta	X			
Errezil		X		
Eskoriatza	X			
Ezkio-Itsaso				X
Gabiria		X		
Gaintza		X		
Gaztelu		X		
Getaria	X			
Hernialde		X	X	
Ibarra	X			
Idiazabal	X			
Ikaztegieta	X			
Irura	X			
Itsasondo	X			
Larraul				X
Lazkao	X			
Leaburu				X

UDALERRIA	LAU URTEKO PROGRAMA DUTENAK	LAU URTEKO PROGR. EZ DUTENAK	PROGRAMAK IZAPIDETZEN	ERANTZUN EZ DUTEN UDALAK
Legazpi	X			
Legorreta	X			
Leintz-Gatzaga	X			
Lezo	X			
Lizartza	X			
Mendaro	X			
Mutiloa	X			
Mutriku	X			
Oiartzun	X			
Olaberria	X			
Ordizia	X			
Orendain		X	X	
Orexa		X		
Orio	X			
Ormaiztegi		X	X	
Segura	X			
Soraluze-Placencia de las Armas	X			
Urnietza		X		
Urretxu	X			
Usurbil		X	X	
Villabona	X			
Zaldibia	X			
Zegama	X			
Zerain	X			
Zestoa	X			
Zizurkil				X
Zumaia		X	X	

Ondoriotzat, esan daiteke Gipuzkoako udalerrien %67,74k, Bizkaiko udalerrien %56,62k eta Arabako udalerrien %48,83k lau urteko programak dituztela, eta hori gure eskaerari erantzun dioten 10.000 biztanletik beherako 188 udalerrien %58,51 da. Gipuzkoako udalek irisgarritasunean egindako ahalegina 2003ko txostenean ere adierazi genuen; bertan, hain zuzen ere, aditzera eman genuen, plana egin edo onetsi zuten udalerri kopurua txikia izan arren, Gipuzkoako udalerrien %28k plana zutela (Arabakoaren %12 eta Bizkaikoaren %17).

Nolanahi ere, ekitaldi honetan lortutako emaitzak 2003koekin konparatuta ikusten denez (plana duten 10.000 biztanletik beherako udalerriei dagokienez), balantzea positiboa da, lau

urteko programa onetsita duten 6 udalerrietatik oraingo 108etara igaro baikara, termino absolutuetan.

Bestalde, interesgarria da programa duten udalerrien eta programa lantzeko neurriren bat hartu nahiz hori izapidetzen ari diren udalerrien ehuneko datua azpimarratzea. (Horri dagokionez, udal batzuek jakitera eman digute plana egiteko diru-laguntza eskatu dutela, ekitaldi honetako deialdian)

Alderdi horretatik, Araban udalerrien %62,79 dira, Bizkaian %68,67 eta Gipuzkoan %80,64 (oraingoan, gainerako lurraldeetan baino gehiago). Nolanahi ere, esan daiteke 10.000 biztanletik beherako udalerrien %70,74k lau urteko programa izango dutela laster.

Bestalde, lau urteko programa onetsita duten udal ia guztiek jakitera eman digutenaren arabera, ez dute berariaz pertsonarik izendatu planaren jarraipena egiteko. Hala eta guztiz ere, adierazgarria da udalaren antolamendu egitura urria duten udalerrietan Planean ezarritakoa betetzearen benetako kontrolaren erantzukizuna alkateek edukitzea. Aldi berean, gainerako udaletan, jarraipen lan hori hirigintza sailtako teknikari arduradunek egiten dute.

Bestalde, ikusi dugu programan ezarritako egokitzapenen betearazpen maila (programa onetsi denetik) positiboa dela, kasurik gehienetan; hala ere, aipagarria da planen aurreikuspenak finantziario nahikoa ez edukitzeagatik oraindik betearazi gabe duen udal kopurua.

Gure eskaerari erantzuna eman dioten udalerrietatik lorturiko informazioak berretsi egin du udalek irisgarritasuna sustatzearen arloan egindako udal inbertsioak handiak direla. Lau urteko programa eduki edo ez, udal ia guztiek egokitu egin dituzte instalazioak eta euren titulartasuneko eraikin publikoak; gainera, jarduketak egin dituzte leku publikoetan irisgarritasuna bermatzeko. Horri dagokionez, guztiz adierazgarria izan da kontsultaturiko tokiko erakundeek udal zerbitzuak dituzten eraikinen irisgarritasunean egin duten ahalegina. Ez da ahaztu behar horietatik direla udal egoitzarik erabilienak eta hiritarrengandik hurbilen daudenak.

Halaber, aipatzekoa da udal askok esan digutena, udalerrian irisgarritasunaren arloko helburuak bete ahal izateko zailtasunak edukitzeari buruz. Kasu batzuetan, esan digute planean aurreikusitako programa ekonomikoak eta finantzazkoak gaitzitu egiten duela udal aurrekontua; besteak beste, aditzera eman digute obra handiak egin behar direla eta jasotako diru-laguntza ez dela nahikoa horietarako, aurrekontuaren %30era baino ez baita heltzen.

Horri dagokionez, aipagarria da udalek aurrekontu partidak handitu behar izateari buruz egin duten errebindikazioa, irisgarritasun planetako aurreikuspenak betearazteko behar diren jarduketak sustatu ahal izateko.

Azkenik, esku-hartze honetan jaso dugun informazioa kontuan hartuta, esan behar da arlo honetan hobekuntza nabaria egon dela gure udalerrietan, hain zuzen ere, Irisgarritasuna Bermatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta horren arauzko garapena aplikatzearen ondorioz.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko udal askok, legea indarrean sartu denetik 10 urte igaro ondoren, oraindik ez dute irisgarritasuneko lau urteko programa, lege horretako 13. artikuluan adierazitakoaren arabera. Horrenbestez, ezinbestekoa da udal horiek beharrezko jarduketa guztiak berehala hastea, bertako hiri inguruen, leku publikoen, eraikinen, garraioen eta informazio sistemen irisgarritasunerako lehenengo plana egiteko.

Halaber, beharrezkoa da udalek baliabide material eta pertsonal nahiko edukitzea, lau urteko programak betetzeari eta betearazteari buruzko manuzko kontrolak egiteko.

II.5

BERARIAZKO ARRETA ETORKINEI

5. BERARIAZKO ARRETA ETORKINEI

Etorkinak erakunde honen helburu nagusia dira. Pertsona horiek errealitate plural eta askotarikoa osatzen dute. Arartekoak arlo horretan esku hartzeko arrazoia da horietako asko oso kalteberak direla eta Administrazioaren esku-hartzeak, politika publikoek, haien egoera sozial eta ekonomikoari eragiten diotela. Atal honetan, 2008. urtean talde horri eragin dioten araudi berriak eta zenbait jardun bildu ditugu, bai eta Arartekoak haien eskubideen alde eta gizarteratzea sustatzeko egin dituen esku-hartzeak ere. Nagusiki kexak izapidetuz esku hartu dugu, eta etorkinei kasu egiten dieten zerbitzu publikoetako batzuk ere bisitatu ditugu. Horrez gain, ofizioz ere jardun dugu, egindako bisita horietan hauteman ditugun legezko gabezien inguruan.

1. Berritasunak araudian

Berritasun nagusi gisa, garrantzitsua da aipatzea Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2008ko abenduaren 16an emandako 2008/115/EE **zuzentaraua** –arau eta prozedura bate-ratuak ezarri ditu estatu kide guztientzat **egoera irregularrean dauden kanpotarrak beren herrialdeetara itzultzeko**– eta lege aldaketaren iragarpena.

Europako araudi berriak prozedurazko araudiak eta berme juridikoak txertatu ditu, egoera irregularrean dauden atzerritarrak beren herrialdera itzultzeko; hala ere, garrantzizkoena da estatu kideei ahalmena ematen diela atzerritarrak 6 hilabetez babes etxeetan sartzeko, baldin eta ihes egiteko arriskua badago edo pertsona hori itzultze zein kanporatze prozesua saihesten edo zailtzen saiatu bada; alde hori beste 12 hilabetez ere luza daiteke. Horrez gain, adingabeak babes etxeetan ezartzeko aukera ematen du, “azken neurri gisa eta ahalik eta denbora gutxienerako;” hala familiarekin egon nola haiekin pertsona heldurik ez egon. Zuzentarauak honako dokumentu hauek aipatzen ditu: Nazio Batuen 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa; Giza Eskubideak Babesteko Europako Hitzarmena; Iheslarien Estatutuei buruzko 1951ko uztailaren 28ko Genevako Konbentzioa, 1967ko urtarrilaren 31n aldatua, New Yorkeko Protokoloaren bidez; eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideei buruzko Gutuna. Testu horiek osatzen dute Giza Eskubidea, eta estatu kideek kontuan hartu behar dituzte hor xedatutakoa betetzean. Zuzentarau hori 2011ko abenduaren 24a baino lehen ezarri behar da gure ordenamendu juridikoan.

Espainiako Gobernuak iragarri duenez, aldaketa bat egingo du atzerritarren sarrerari eta bizilekuari buruzko araudian; hori dela eta, lege aurreproiektu bat prestatu du **Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa erreformatzeko**.

Zirriborro horretan, udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea da txertatu da, Konstituzioan eta legeetan ezarritako moldeetan, hau da, elkarrekikotasun baldintzarekin; beraz, Espainiak elkarrekikotasun akordioaren bat izenpetua duen estatuetako pertsonen soilik eragingo die, hala nola Norvegiakoei. Aurreikuspen horrek, ordea, ia ez die eragiten, oraingoz, Europar Batasunetik kanpoko etorkinei; dena dela, Gobernuak iragarri duenez, hurrena

Kolonbiarekin eta Perurekin izenpetuko ditu akordioak, eta baliteke Argentina, Txile, Uruguai eta Boliviarekin ere izenpetzea.

Bestalde, eskubide hauek ere txertatu ditu: biltzeko eta elkartzeko eskubidea, aske sindikatze eskubidea zein erakunde profesionalen batera afiliatzeko eskubidea eta greba egiteko eskubidea, egoera juridiko-administratiboa edozein dela ere. Halaber, hezkuntzarako eskubidea ezarri du adingabe guztientzat, bai eta doako laguntza juridikoa izateko eskubidea ere. Gainera, interpreteen laguntza izateko eskubidea ere izango dute, baldin eta herrialdean erabiltzen den hizkuntza ofiziala ulertzen ez badute edo hizkuntza horretan hitz egiten ez badakite. Administrazioarekiko auzien prozesuetan doako laguntza juridikoa izateko eskubidea onartzeko, beste eskari bat aurkeztu behar da, eta berriaz agertu behar da pertsonak errekurtsoa jarri nahi duela (urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea, Prozedura Zibilarena, 24. artikulua). Eskubide horiek onartu zituzten auzitegiek eta Auzitegi Konstituzionalak.

Eskubideen onarpenarekin lotuta egin den beste aurrerapauso bat da automatikoki emango zaiela lan baimena familiarekin berriz elkartu diren eta lan egiteko legezko adinean dauden (16-18 urte bitartean) seme-alabei eta familiarekin berriz elkartu diren ezkontideei. Halaber, lan baimena emango zaie berriz elkartutako familietan genero indarkeria pairatu duten emakumeei eta salbuespenezko zirkunstantziengatik, genero indarkeriaren biktima izateagatik, bizileku baimena lortu dutenei. Horrez gain, hasierako bizileku eta lan baimenetan zehaztutako lurraldea edo lanbidea aldatzeko eskatu bada, gehienez ere hilabeteko epean ebartziko horren gainean eta emango da ebazpenaren berri, eta, epe horretan berriazko ebazpenik eman ez bada, baimena eman dela ulertuko da.

Bakarrik dauden adingabe etorkinei dagokienez, adingabeak direla ziur esaterik ez dagoen kasuetan, beharrezko arreta emango diete berehala adingabeak babesteko zerbitzu eskudunek, adingabeen babes juridikorako legeriaren arabera. Beste aurrerapauso bat da gobernuz kanpoko erakundeekin eta atzerritarrek babesteko erakunde nazional, nazioarteko eta gobernuz kanpokoekin harremanetan jartzeko eskubidea onartu zaiela babes etxeetan sartu diren atzerritarrei.

Azkenik, nabarmentzekoa da zer ezartzen duen gizakien legez kanpoko trafikoaren edo salerosketaren, legez kanpoko immigrazioaren nahiz langileen legez kanpoko trafikoaren edo prostituzio esplotazioaren biktima, kaltetu eta lekukoak babesteko; hain zuzen ere, salaketa jarri aurretik gogoeta egiteko tarte bat hartzeko aukera ematen du, gutxienez 30 eguneko; aldi horretan, pertsonak babesa izango du.

Iragarritako beste aldaketa garrantzitsu batzuk, kasu honetan murriztaileak, familia berriz elkartzearekin lotutakoak dira; izan ere, 65 urte beteak izan behar dituzte familiarekin berriz elkar daitezkeen aurreko ahaideek, eta familia berriz elkartu nahi duen pertsonak luzerako bizilekua eduki behar du, familia berriz elkartzeko eskaria egiteko. Gainera, aurreko ahaide horiek bere kargu dauzkala egiaztatu behar du, eta arrazoiak badirela Espainian bizitzen uzteko baimena emateko; horrenbestez, are gehiago murriztu da aurreko ahaideak beren seme-alabekin eta bilobekin bizitzera etortzeko aukera. Beste aurreikuspen garrantzitsu bat

da hezkuntza agintariek alde zuzenetik jakin behar dutela eskolako adinean dauden adingabeak familiarekin berriz elkartu nahi dituztela.

Berritasun garrantzitsuenetako bat da arau-hauste gehiago sartu dituztela, hala nola udal erroldan izena emateko nahitaez eman beharreko datuak faltsutzea eta etxebizitza baten titularrak atzeritar bati udal erroldan izena emateko baimena ematea, etxe horretan bizi ez bada. Arau-hausteak dira, halaber, bizileku eta lan baimenean ageri ez den lanbide, jarduera edo sektore batean lan egitea edo kontratatzea eta Espainian egonaldi irregularra sustatzea. Azken hori bereziki garrantzitsua da; izan ere, atzeritarra ekonomikoki arau-haustearen mende badago eta baimendutako egonaldia legez ezarritakoa baino gehiago luzatu bada, egonaldi irregularra sustatu dela pentsatuko da. Hori hala idatzita, ordea, herritarren elkartasuna eta errukia zigor litezke, pertsonak duin bihurtzen dituzten ezaugarriak biak ere, eta hori kezagarria iruditzen zaigu.

Hona hemen aurreikusten dituen beste arau-hauste berri batzuk: ezkontzea edo antzeko harreman afektibo baten itxurak egitea, adingabe baten lege ordezkari egitea eta atzeritarren batekin lan harremana izatearen itxurak egitea, baldin eta etekina ateratzeko asmoz jokatu bada edo legeak onartzen dituen eskubideak bidegabeki lortzeko asmoz jokatu bada. Horrez gain, zigorren zenbatekoa ere handitu da.

Alderdi kezagarrien artean, honako hauek daude: 60 egunetara luzatu dela babes etxeetan sartzeko aldia, eta adingabeak ere babes etxeetan sartzeko aukera ematen duela.

Bestalde, onartzen diren zenbait planek ere eragiten diote talde horri, hala nola **Gizon-emakumeak sexu esplotaziorako salerostearen kontrako plan integralak**. Plan horren ondorioz, behar-beharrezko aldaketak egingo dira legerian, sexu esplotaziorako pertsonekin trafikatzeko duten sareei jartzeko eta biktimak eta haien senitartekoei beren jatorrizko herrialdeetan babesteko. Plan hori 2009ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean. Horren bidez, besteak beste, babes handiagoa emango zaie biktimei, trafikatuak salatzen erabakia hartu bitartean, lehenago ere adierazi dugun bezala; neurri horri oso ongi irizten diogu, biktima laguntzea eta babestea lehenetsi behar baita, nahasbiderik emango ez duten arau argien bidez. Etorkinei eragiten dien beste plan garrantzitsu bat **Etorkinen arteko genero indarkeria kasuetarako arreta eta prebentziorako plana** da. Plan horrek, lege aldaketak iragartzeaz gain, hainbat jarduera aurreikusten ditu indarkeriaren biktima diren emakumeak informatu eta sentsibilizatzeko eta indarkeriari aurre hartzeko, antzemateko eta emakumei lagun egiteko prestakuntza emateko.

Araudiak ekarri duen beste berritasun bat **Asilo eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen Legearen** aurreproiektua da; aurreproiektu hori Ministroen Kontseiluak onartu zuen, 2008ko abenduaren 5ean. Asilo eskubidearen eta babes subsidiarioaren ondorio behinena da ezin itzuli eta kanporatuko dela eskubide hori onartu zaion inor. Aurreikusi dituen berritasunen artean, nabarmenezkoa da generoa txertatu duela errefuxiatuen estatutua emateko arrazoi gisa. Horrez gain, babes subsidiarioaren eta familia berriz elkartzearen onuradunen egoera arautuko da; horren bidez, familia unitateak babestutako pertsonarekin

bizitzeko modua izango du. Ekarri duen beste berritasun bat adingabeen eta beste pertsona kaltebera batzuen gainekoa da.

Pertsona horien arazo nagusia herrialdetik irtetea eta herrialde seguru batera iristea da, bai eta asiloa eskatzea ere, beste arrazoi batzuen artean Europako gobernuak immigrazio irregularra murriztu dutelako, kontrolatu egiten dutelako eta mugak zaintzen dituztelako. Orain arte ezarrita zegoen bideetako bat Espainiako misio diplomatikoetan eta kontsulen bulegoetan asiloa eskatzea zen, eta aukera hori kendu egin dute, aurreproiektuaren arabera.

2. Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrek bizileku eta lan baimena lortzeko dituzten arazoak

Lan eta bizileku baimenik ez izateak larri eragiten die atzerritarren eskubideei. Euskal Autonomia Erkidegoan, duela urte batzuk, atzerritarrei lege eta gizarte arloan laguntzeko zerbitzu bat jarri zen abian, **HELDU** programa. Zerbitzu horren hartzaileak honako hauek dira: EAEko herrietan bizi diren eta bizileku baimenik ez duten etorkin atzerritarrak; bizileku baimena duten eta urrakortasun egoera muturrekoan dauden pertsonak, hala nola bakarrik dauden adingabeak, neurriren bat ezarria duten eta Eusko Jaurlaritzako gazte justiziaren berreziketa ikuskaritzaren pean dauden 18 eta 23 urte bitarteko gazteak; tratu txarren biktimak izan diren emakumeak eta haien familia unitateak; beregaintasun pertsonalik ez duten toxikomano mendekoak; eta beste edozein egoeratan dauden pertsonak, oinarrizko gizarte zerbitzuetako langileek laguntza behar dutela irizten badiote. Zerbitzuak doan ematen du etorkin atzerritarren bizileku eta lan baimenei buruzko informazioa, aholkua eta laguntza, eta izapideak ere doan egiten ditu. Hiru bulego daude, hiru hiriburuetakoko bakoitzean bat. Bulego bakoitzak espediente hauek izapidetu ditu zerbitzua abian jarri zenetik: Arabako Heldu 2003ko martxoan hasi zen lanean, eta 4.622 espediente izapidetu ditu; horietatik 1.140 espediente 2008. urtean izapidetu zituen. Bizkaiko Heldu 2002ko azaroaren hasi zen, eta 15.511 espediente izapidetu ditu; horietatik 2.850 espediente 2008. urtean izapidetu zituen. Gipuzkoako Heldu, berriz, 2003ko martxoan hasi zen lanean, eta 6.386 espediente izapidetu ditu; horietatik 1.191 espediente 2008. urtean.

Estatuko Administrazio Orokorraren eskumena da adierazitako dokumentazio hori izapide-tzea; beraz, ez da Arartekoaren eskumena jarduerak konparatzea. Nahiz eta iragarri den aurki Espainiako Gobernuak araudi bat onartuko duela eta horren bidez lan baimena kudeatzeko eskumena Kataluniak, Valentziak, Andaluziak eta beren estatutu erreformetan hala agertzen duten autonomia erkidego guztiek izango dutela, ez da hori, oraingoz, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua. Hori dela eta, Herriaren Defendatzaileari bidaltzen dizkion dokumentazio prozesuarekin lotuta aurkezten dizkiguten kexak. Nolanahi ere, aurtan HELDU zerbitzua bisitatu dugu, atzerritarrek dituzten arazorik handienak zein diren jakiteko. Krisi ekonomikoak larri eragin dio etorkinen enpleguari, eta, horren ondorioz, urrakortasun egoera nabarmenean daude. Haien baldintzak okerragoak dira; izan ere, zaila da haien administrazio egoera arautzen duen araudiko trabak gainditzea, eta dokumentazio prozesua geldoa eta zorrotza da, lehen aipatu dugun bezala, iragarri dute aldatu egingo dela Europar

Batasunetik kanpoko pertsonen sarrerari eta bizilekuari buruzko araudia; beraz, interesgarria iruditzen zaigu zerbitzu horretako esperientziaren berri izatea, gaur egun kontuan hartu beharreko ekarpen gisa. Ondoren, hiru bulegoek agertutako hainbat kontu bildu ditugu. Hiru lurraldeetako gobernu ordezkariordetzek eta Lan eta Immigrazio Ministerioaren probintzia ordezkarietzek dute atzeritarren lan eta bizileku baimenen espedienteak izapidetzeko eskumena; beraz, lurraldez lurralde bereiziko ditugu agertutako arazoak.

Bestalde, denek dituzten arazoak bildu ditugu:

Zigor aurrekariak ezeztatzea

Egoera irregularrean dauden herritarrek debeku dute zigor-aurrekariak ezeztatzeko izapideak egitea, eta hori eskatzeko derrigorrean jo beharko dute zigor-eginbideetarako jardule duten prokuradore edo abokatuarengana. Dena dela, garrantzitsua litzateke zigor aurrekariak ofizioz eta berehala ezeztatzea, epeak bukatutakoan. Zigor Kodeko 136. artikulua ezartzen duenez, Justizia Ministerioak du aurrekariari buruzko idatz oharren gainean ofizioz jarduteko ahalmena, baldin eta idatz ohar horiei buruz jasota dauden datuek behar beste egiaztatzen badute betetzen direla erantzukizun penal eta zibilak bertan behera uzteko baldintzak eta igaro dela ezarritako epea.

Ezeztatuak behar luketen idatz oharrak Zigortuen eta Auzi-iheslarien Erregistroan bere hartan uztearen ondorioz, ez dute ematen lehenengoz eskatutako baimenik, eta lehendik emandakoak ere ez dituzte berritzen. Oso garrantzitsua da epeak betetakoan ofizioz berehala ezezta daitezten exijitzea.

Jatorrizko herrialdean zigor aurrekariak izatea eta dokumentuak legeztatzea

Zenbait herrialdetan arazoak izaten ari dira zigor aurrekariak emateko. Baita dokumentuak legeztatzeko ere. Kanpo Gaietarako Ministerioak ez ditu arazo horiek behar besteko aurrerapenarekin konpontzen, nahiz eta baduten arazo horien berri. Horrek kalte larriak ekartzen dizkie herrialde horietako pertsonari. Adierazi dute arazo horiek bide diplomatikotik konpon litezkeela; hala, herritarrek ez lukete arazorik izango, eta ez litzateke alferrikako atzerapenik izango izapideak egiteko orduan.

Nigeria, Nikaragua eta Pakistanen kasua da hori. Nikaraguak, oraindik orain, idazki bat bidali du Polizia Nazionalak dituen funtzioen inguruan; hain zuzen ere, Poliziari baimena emana dio zigor aurrekariari ziurtagiriak emateko, baina arazo horiek konpondu bitartean herritarrek arazoak izaten dituzte agiri hori lortzeko, haien nahiaz bestelako arrazoi batzuegatik. Arazo horiek bide diplomatikotik konpon litezke; hala, herritarrek ez lukete arazorik izango, eta ez litzateke alferrikako atzerapenik izango izapideak egiteko orduan.

Horrez gain, arazoak sortzen ditu zigor aurrekariari ziurtagiriak soilik hiru hilabeterako balio izateak; izan ere, lortzea asko kostatzen da, eta berehala galtzen du balioa.

Arazoa da litekeena dela atzeritarrak dokumentu hori lortu eta gero iraungitzea, asko luzatzen baitira eskaria aurkezteko ordua emateko.

Dokumentuak legeztatzeko ere, arazoak izaten dira zenbaitetan, jatorrizko herrialdearen arabera baita hori. Gerta liteke Espainiako Enbaxadatik ez izatea jatorrizko herrialdean, edo han daukaten sistema guztiz bestelakoa izatea. Halaxe gertatzen da, esate baterako, Mongolian; han, itzulpenaren dokumentua zigilatzen dute, eta ez originala, nahiz eta zigilatu beharko luketen. Brasilen, berriz, estatu bakoitzak ematen du zigor aurrekariaren ziurtagiria, eta ez Brasilgo Estatuak.

Adierazi dute oso garrantzitsua dela Kanpo Gaietarako Ministerioak irizpideak garbi izatea eta moduren bat aurreikusia izatea herrialde batzuk sortzen ari diren arazoak konpontzeko. Alde horretatik, pertsona askorentzat oso neketsua da bere jatorrizko herrialdean dokumentuak lortzea, haien senitartekoei bide luzea egin behar izaten dutelako hiriburura joateko, edo ez daukatelako agiri horiek lortuko dizkien senitartekorik.

Atzerapenak baimen espedienteen ebazpenean

Madriilen esku jarri dute orain salbuespenezko zirkunstantziengatik –hala nola aurreko ahai-deak espainiarrak izateagatik– bizileku baimena emateko erabakia; horrek atzerapenak sorlitzake espedienteari buruzko ebazpena emateko orduan, eta isiltasun negatibo bidez ebaztea ere ekar lezake. Gaur egun, urtebete pasatzen dute espediente horien gaineko ebazpena emateko.

Atzerritarrak eta espetxea

Atzerritarra espetxean edo behin-behineko espetxealdian dagoenean, handiak izaten dira bizileku baimena berritzeko arazo, kasu askotan administrazioak ez baitu laguntzen izapideak azkentzen (hatz aztarna, tasak ordaintzea, argazkiak), eta pertsona horiek beren dokumentazioa galtzen dute, ez egitez.

Erabiltzaileen profil berriak

Erabiltzaileen profil berrien artean, bizileku baimenik ez duten eta babes sistematik datozen gazte atzerritarrak daude. Gazte horietako batzuek izan dute bizileku baimena ere, baina Gobernu Ordezkariordeak ez die bizileku baimena berritzeko baimenik eman, Poliziarekin arazoren bat izan dutelako.

Nabarmendu dute ez dagoela gizarte baliabiderik gazte horiek adin nagusitasunera iristen direnerako. Halaber, polizi atxilotetek eragotzi egiten dute bizileku baimena lortzea, eta, baimena lehendik izanez gero, berritzea. Gazte horien egoera oso larria da; fenomeno berria da, gorabehera handikoa, eta beharrezkoa da azterketa serio bat egitea, gazte horien bitzitan dituen ondorio larriengatik. Egoera horrek nagusiki Bizkaiari eta Gipuzkoari eragiten die.

Eskubideen gaineko informazio falta

Langile atzerritarrek ez dituzte ezagutzen beren lan harremanaren ondorioz dituzten eskubideak, hala nola langabezia prestazioa jasotzeko, modu bidegabean kalera botaz gero erreklamatzeko eta gizarte segurantzian kotizatze eskubideak, eta, hori dela eta, galdu egiten dituzte.

Hona hemen **lurralde historiko bakoitzean hauteman ditugun arazoak**, zerbitzura egin-dako bisitan lortu genuen informazioaren arabera:

Arabako HELDUn, nagusiki arazo hauek adierazi zizkiguten:

Defentsarako eskubidea

Arabako HELDUk jarduera asko egiten ditu; hala nola aholkuak ematen ditu, beharrezko izapideak egiten ditu, eta jarraipena ere egiten du, atzerritarrek bizileku zein bizileku eta lan baimen administratiboak izan ditzaten edota gal ez ditzaten; zigor espedienteen defentsa egokia ere egiten du, eta horrek kasu askotan berekin dakar fase administratiboan beharrezko –ez, horratik, nahitaezko– errekurtsuak jartzea.

Arabian, fase judizialean bakarrik dago atzerritarrentzako txanda, hau da, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, badaukate atzerritarrentzako txanda espezifikoak. Zigor espedientea abiarazten den unetik bertatik, atxilotuari laguntzeko txandakoa ez beste abokatu bat izaten da, eta hark jarraitzen du prozedura osoa, fase administratiboan eta judizialean. Horren ondorioz eta berraztertze errekurtsua aukerakoa izatearen ondorioz, kasu askotan Arabako HELDU zerbitzuko abokatuek berek egiten dute horren kontra.

Ohar gisa, nabarmendu behar da, Auzitegi Gorenak ezarri dituen eta administrazio instrukzio berriek onartu dituzten irizpideak kontuan hartuta, oso garrantzitsua dela aukerako berraztertze errekurtsua jartzea; izan ere, baliteke gerora dokumentuak legeztatze oztopo izango den zigor larri baten orde, kanporatzeko zigorraren orde alegia, beste zigor txikiago bat jartzea, isun bat alegia, zigorra modu zatikatuan betetzeko modua ere emango duena.

Horregatik, interesgarria litzateke hala epaitegi eta auzitegiek nola zigor prozeduretan jarduten duten profesionalek horretan laguntzea, eta guztiz bermatutako prozesu bat izateko eskubidea urratzen duten egoerak saihestea, eta dokumentuak legeztatze modua izatea.

Zigor eta sustraitze espedientea; irizpide desberdintasuna Gobernu ordezkariordetzen eta ordezkariarten artean

Nahiz eta pertsona bat kanporatzeko proposamena edo ebazpena eman den eta zigor espedientea irekitzeko egon, pertsona horrek sustraitze arrazoiak direla eta bere egoera legeztatze baldintzak betetzen baditu, kanporatzeko zigorra baliogabetzea edo espedientea iraungitzea da bidezkoena, baldin eta egonaldia irregularra izatea bada pertsona hori kanporatzeko arrazoiak. Arazoa da ebazpena eman duen probintziaren irizpide edota nahia- ren arabera izaten dela erantzuna. Horren ondorioz, ordezkariordetzen eta ordezkariarten artean lankidetzarik ez dagoenez, ezin izapidetu daiteke sustraitze espedienterik.

Arabian, ezarritako zigorra baliogabetzeko gaur egungo irizpidea da sustraitze espedientearen eskatzaileak zuzeneko odolokidea behar duela izan espainiar batekin edota legezko egoeran dagoen atzerritar batekin.

Sustraitze eskariak

Gasteizko Udala sustraitze sozialari buruzko txostenak egiten ari da egoera jakin batzuetan, eta txosten horietan gomendatzen du lan kontratua aurkeztu beharretik salbuetsi daitezela, esate baterako, ikasleak, baldin eta haien gurasoek bizitzeko baliabideak badituzte.

Gainera, Udalak, ikusita ugaritu egin direla salbuespenezko zirkunstantziengatik bizileku baimenaren espedienteak, indartu egin du sustraitzeagatik gizarte txostenak egiten dituen zerbitzua, oinarrizko gizarte sareetan sartuta ez dauden herritarrentzat.

Sustraitze eskarietan eta lan eta bizileku baimenak berritzeko eskarietan, urtebetetik beherrako kontratuak onartzen ari dira, lan munduan sartzeko programetako edota prestakuntza eta enplegu programetako kontratuak badira, hala nola Auzolanekoak eta toki, foru edo erkidegoko administrazioek kontratatutako beste prestakuntza eskaintza batzuetakoak.

Egonaldi eskakizunari dagokionez, errolda agiriaz gain beste dokumentu batzuk ere ari dira onartzen egonaldia egiaztatzeko, hala nola banku igorpenen ziurtagiriak.

Zigor espedienteak

Zigor espedientei dagokienez, arazo handia izaten da atxiloketak izaten direnean eta horren ondorioz bizileku irregularra izateagatik zigor espedienteak irekitzen direnean. Hala, norbait atxilotu duten bigarren aldia bada, nahiz eta denbora gutxi pasa lehenengoz atxilotu zutenetik, kanporatzeko zigorra jartzea ebazten da, baldin eta aurreko aldian isuna jarri bazen. Kontua da esku hartze horiek oso denbora gutxian izaten direla, eta egoera berbera izan arren ondorioak oso desberdinak izaten direla. Bestalde, gauza on bat nabarmendu behar da, alegia, Araban onartzen dutela isuna zatika ordaintzea.

Bizileku eta lan baimenak berritzea

Baimenak ez berritzeko arrazoi ohikoenak hauexek izaten dira:

- Zigor aurrekariak izatea; aurrekari horiek eragin dituzten legez kontrako egintza ohikoenak hauek izaten dira: alkoholemia edo zirkulazio segurtasunaren kontrako egintzak, gidabaimenik gabe gidatzea eta etxeko indarkeriarekin lotutakoak.
- Segurtasun neurriak ez betetzea, hala nola komunitatearen onurarako lanak ez egitea; izan ere, lankidetzak akordiorik ez dagoenez erakundeekin, ez publikoekin eta ez pribatuekin, eta neurriak betetzeko atzerapenak izaten direnez, egoera administratiboa ez da berritzen, edo atzerapenak izaten dira egoera administratiboa erregulartzeko.

Horren ondorioz, ugaritu egin dira gerora sortutako irregulartasun kasuak, hau da, bizileku baimenaren edota bizileku eta lan baimenaren titular ziren eta baimen horiek berritzez izan ez duten pertsonen kasuak, eta hori oso kaltegarria da gizarteratzeko eta familiaren integrazioarako. Azken horri dagokionez, familiako kideren bati eragin diezaioke; hala, gerta liteke familia berean kide batzuk egoera irregularrean egotea eta beste batzuk egoera erregularran egotea, eta, ondorioz, familian bizitzeko eskubidea galtzea.

Gerora etorritako irregulartasuna eragiten ari da Kontseiluaren 2003ko irailaren 22ko 2003/86/EK ere, familia berriz elkartzeko eskubideari buruzkoa. Hain zuzen ere, bizileku baimenaren eskariak eta bizileku baimena berritzeko eskariak ukatzen ari dira, baldin eta familia elkartu nahi duenak ez badu famili unitatea mantentzeko bere kabuzko behar beste baliabide, gizarte prestazioen onuradun delako, hala nola oinarrizko errenta edo larrialdietarako laguntzak jasotzen dituelako.

Ez dago denek ezagutzen duten baremo ekonomiko argirik eskatzaileak bizileku baimena berritzeko behar beste baliabide ekonomiko baduen jakiteko.

Oinarrizko errenta, gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko prestazio gisa, baliagarria izaten ari da lan baimena berritzeko (4/2000 LO, 38. artikulua); ez, ordea, bizileku baimena lortzeko; izan ere, legeak ez du jasotzen azken kasu horretarako.

Bizileku eta lan baimenak ez berritzeko beste arrazoi ohiko bat da urtebetean gutxienez 6 hilabetez ez kotizatu izana.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak

Gobernu Ordezkariordeztak azkar samar ebatzen du eskari osatua aurkeztu bada. Arazoa da eskaria aurkezteko beharrezko dokumentazio guztia osatu gabe amaitzen direla bederatz hilaabeteak.

Atzerritarren egoerari eragiten dioten eskariak aurkeztea eta izapidetzea

Gobernu Ordezkariordeztak azkar samar erantzuten die aurkezten diren eskariei. Gerta liteke sustraitze eskariei hilabete baino gutxiagoan erantzutea. Baimenak berritzeko eskarien kasuan, baimena iraungi denetik 2 hilabetera edo 2 hilabete eta erdira izaten da erantzuna.

Komunikazio eta koordinazio handia dago administrazioen, Poliziaren, epaitegien eta Gobernu Ordezkariordeztaren artean.

Bizkaiko HELDUn, arazo hauen berri eman ziguten:

Sustraitzeagatik gizarte txostenak izapidetzea

Arazo handi gisa adierazi dute Bilboko Udala asko luzatzen dela erabiltzaileei txanda emateko, sustraitzeagatik bizileku baimenaren eskaria izapidetzeko gizarte txostena egin ahal izateko. 6 eta 8 hilabete bitarteko atzerapena izaten da; gizarte zerbitzuekin bilera egin eta gero, txostena nahiko azkar egiten dute, 15 egun baino lehen.

Jakinarazi dute beste zerbitzu bat jartzeko asmoa dutela atzerritarren dokumentazio prozesuetarako beharrezko txostenak egiteko, hau da, bai sustraitze sozialarekin lotutako txostenak egiteko eta bai etxebizitza egokia dela ziurtatzeko agiriak egiteko, beharrezko dokumentua baita hori familia berriz elkartzeko eskarietan. Zerbitzu hori uztailetik ari dira ematen, baina oraindik (2008ko azaroan) ez dute aldaketa nabarmenik sumatu adierazitako atzerapen horri dagokionez.

Txosten horiek egiteko izaten diren atzerapenek atzerritarren dokumentazio prozesuari kalte egiten die, hain zuzen ere, sustraitze eskarietako dokumentuak, hala nola jatorrizko herrialdeko zigor aurrekariak, hiru hilabetearen iraungitzean direlako, eta, beraz, berriz eskatu behar izaten dituzte, horrek dakarren kostuarekin. Bestalde, lan eskaintza ere erantsi dute, enpresaren egoeraren arabera beharrei erantzuteko. Baimena emateko orduan atzeratuz gero, enpresak atzera egin dezake, eta atzerritarra ez kontratatu.

Gaineratu dute beste udal batzuek, hala nola Getxok eta Barakaldok, hilabete edo bi hilabeteren bururako ematen dutela ordua; Donostiako Udalak, berriz, egun gutxiren bururako ematen du.

Sustraitze eskariei eragiten dien beste arazo bat sortzen da polizi aurrekariak izateagatik ukatzen direnean. Adierazi dute aurrekari horiek ez dutela zertan ordena publikoko arazoan zantzu izan, askotan ez baitute zigor aurrekaririk izaten ondorio gisa; hori dela eta, proposatu dute beharrezkoa dela espedientearen instrukzioan audientzia izatea. Audientziaren izapidea eginez gero, ez litzateke errekurtsorik jarri beharko administrazio bidean edota bide judizialean, atzean ordena publikoko arazorik egon ezean.

Lan kontratua aurkezteko eskakizunetik salbuesteko gomendioa sartzea gizarte txostenean

Adina, gaixotasuna, ikasketak edo famili kargak direla-eta lan kontratua aurkeztea beharrezkoa ez dela irizten den kasuetan egiten da gomendio hori.

Ez dute adierazi aurrean inolako arazorik hauteman dutenik gomendio hori.

Lan baimenak berritzea

Nabarmendu dute krisi ekonomikoak garrantzi handia duela talde honetan, enpleguan duen eragina kontuan hartuta. Ohartarazi dute lan baimenak berritzeko beharrezko baldintzak zorrotz aplikatuz gero litekeena dela lan eta bizileku baimenak ukatzea, eta horrek gerora etorritako irregulartasuna ekarriko duela. Ez dauka zentzu handirik lan baimena berritzeko urtebetean 6 hilabetez kotizatu behar izateak edo lanaldi murriztuen kasuan zorrotz-zorrotz kontaktuek, salbuespenik egin gabe, nola gertatzen baita egun batzuegatik 6 hilabeteetara ez iristean, kontuan hartuta, bestalde, bizileku baimena berritzea onartzen dela, gizarte laguntzarako prestazioa –oinarriko errenta– jasotzen bada. Gainera, baimen horiek ukatuz gero, lana ez bilatzea susta daiteke.

Baimena berritzeko eskaria ukatzeak dakartzan arazoan artean, adierazi dute zigor aurrekariak eragin handia dutela delituren bat egiten bada, hala nola gai sorgogarraren eraginpean gidatzea eta gidabaimenik gabe gidatzea; delitu horiek egiteagatik, komunitatearen onurarako lanak egin behar izaten dira zigor gisa, eta zigor hori betetzeko beste administrazio batzuen lankidetzara behar izaten bada. Zigor horiek betetzeko atzerapenak izaten dira, ordea, eta horrek kalte egiten die bizileku baimena berritu nahi dutenei. (Kontu hori kapitulu honetan bertan aztertu dugu, "Lehentasunezko Arreta behar duten Taldeak, espetxeratuak" atalean).

Zigor eta sustraitze espedienteak: irizpide desberdintasuna Gobernu ordezkariordetzen eta ordezkariarten artean

Gobernu ordezkariordetzek eta ordezkarietzek irizpide desberdinak baliatzen dituzte bizileku irregularra izateagatik kanporatze ebazpenak baliogabetzeko orduan. Hala, pertsona batek lan baimena edota sustraitzeagatik bizileku baimena lortzeko baldintzak betetzen direnean, pertsona hori kanporatzeko ebazpenaren zain badago, kasuan kasuko gobernu ordezkariordetzari dagokio egoera irregularrean egoteagatik jarritako zigorra baliogabetzeko ebazpena ematea.

Halaxe gertatzen da denbora igaro delako edo arau-haustea preskribitu delako zigor espedienteak iraungi den kasuetan ere. Ordezkariordetza batzuek ez diote erantzuten zigor espedienteak iraungitzeko eskariari, hala nola Salamancako Gobernuaren Ordezkariordetzak.

Langileen kontigenteak

Haren ustez, eskatutako profilak ez datoz bat merkatuko beharrekin.

Familia berriz elkartzeko

Eskari batzuei enbaxadetan ematen diete ezezkoa, uste dutelako eskatzaileek ez dutela ziurtatu behar beste baliabide ekonomiko senitartekoak ondo biziko direla bermatzeko, nahiz eta horren gaineko txostena egiteko eskumena Gobernu Ordezkariordetzak duen eta egindako txostena aldekoa izan. Halaber, familia berriz elkartzeko eskariak ukatzen ari dira, seme-alabak adin nagusitasunetik gertu badaude.

Horrek dakarren arazo handi bat da familia berriz elkartzeko bisa ukatzen denean Madrilgo Justizia Auzitegi Gorenak egiten duela berrikuspen judiziala, hark baitu Kanpo Gaietarako Ministerioaren mendeko erakundeen egintzak ezagutzeko eskumena; atzerapen handiak izaten ari dira, ordea, eta, gainera, asko kostatzen da.

Gobernuak komunikabideetarako iragarri duen erreformaren gaineko kezka bada.

Zigor espedienteak

Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordetza jurisprudentziako doktrina aplikatzen ari da; horren arabera, egonaldi irregularren kasuan, isun bidezko zigorra lehenesten da, eta ez lurraldetik kanporatzea.

Sustraitzeagatik egiten diren eskariak onartzeko, aldez aurretik isuna ordaintzeko exijitzen ari dira.

Estatuko Administrazio Orokorren funtzionamendua

Aurreko urteen aldean hobetu egin da, eta epeak murriztu dira, nahiz eta desberdintasunak badiren Lan Bulegoaren –lan baimenak eta familia berriz elkartzeko baimenak izapidetzen ditu– eta Bilboko Polizia Nazionalaren bulegoen artean. Kasu honetan, oso kezagarria da sarreraren hain ilara luzeak sortzea. Arazo hori aspaldikoa da, eta ez da konpontzen. Eskariren bat aurkeztu nahi dutenek edo izapidereen bat egin nahi dutenek, goizean kasu egingo ditela ziurtatzeko, ilaran jartzen dira bulegoaren sarreraren egunsentian, eta are bezperan ere.

Berriki, beste sistema bat jarri dute, eta 50 zenbaki banatzen dituzte hurrengo egunerako. Zenbakien sistema hori Lan Bulegoak ere erabiltzen du, bizileku baimenatarako eta familia berriz elkartzeko baimenatarako. Bulegoak 20 zenbaki banatzen ditu.

Bestelakoa da lan baimenak izapidetzen dituen bulegoaren egoera. Bulego horretan, egunero erantzuten diete egindako eskariei eta eskatutako informazioari, eta sustraitzeagatik egindako eskarien gaineko ebazpenak 3 bat hilabetean ematen dituzte gutxi gorabehera. Gainera, web gune bidez eskura daiteke informazioa. Lan baimenak berritzeko 20 bat egun behar izaten dituzte gutxi gorabehera. Beste ebazpenek luzeago jotzen dute, hau da, bizileku baimena aldatzeko eskariaren gainekoek, lan eta bizileku baimenen gainekoek eta salbuespenezko zirkunstantziengatik lehenengoz eskatzen diren bizileku baimenen gainekoek; batez beste 7 hilabete inguru behar izaten dituzte.

(Guri dagokigunez, adierazi behar dugu berriki horrekin lotutako kexa bat jaso dugula, 1632/2008 espedientea. Hain zuzen ere, Polizia Nazionalak atzerritarrak nola tratatzen dituen salatu du kexagileak: hainbat egunetan joan behar izaten dute, kalean itxaroten dute, eguraldi txarrarekin, informaziorik izan gabe...).

Gipuzkoako HELDUrekin izandako bileran, arazo hauek agertu zizkiguten:

Arazoak erroldarekin

Errolda agiria herrialde horretako egonaldia egiaztatzeko froga garrantzitsuena da; hori dela eta, larri eragiten dute erroldan izena emateko edo izena emanda jarraitzeko izaten diren arazoek.

Zenbaitetan gertatzen da jendea erroldatik kentzea dagokionak horren berri izan gabe; horrek kalte larriak eragin ditzake, esate baterako, sustraitzeagatik bizileku baimena eskatzean, zaildu egiten baitu eskatzen den hiru urteko egonaldia egiaztatzea.

Sustraitzeagatik bizileku baimena emateko eskaria; irizpide aldaketa

Azkenaldian irizpide murriztaileagoak aplikatzen ari dira Espainian bizi direla egiaztatzeko; izan ere, hasieran Espainian sartu zireneko zigilua hartzen zen kontuan, gero erroldatze ziurtagiriaren eskakizuna gehitu zioten horri, eta orain ia errolda baizik ez dute jotzen baliozkotzat Espainian hiru urte eman dituztela frogatzeko. Kasuren batean pasaporteak hiru urteko antzintasuna izatea ere eskatu izan dute, bai eta aurreko pasaporte iraungia erakustea ere, herrialdean hiru urte daramatzatela egiaztatzeko. Horren ondorioz, lehen exijitzen ez zituzten dokumentu ugari eskatzen ari dira orain sustraitzeagatik bizileku baimena lortzeko eskariak izapidetzeko.

Atzerritarrak desberdin tratatzen dituztela erakusteko, adierazi dute langile atzerritarrei lana ematen dietenek kaudimena egiaztatu behar dutela eta dokumentazio originala aurkeztu behar dutela edo Lan eta Immigrazio Ministerioiko lan bulegoetan agertu behar dutela. Halakorik ez dute eskatzen hemengo langileak kontratatzean.

Adierazi dute arazoak sortzen dituela sustraitzeagatik eskatutako lan baimenetan jarduera mugatzeak, ez baita aldaketarik onartzen gisa horretako baimenetan. Norbaitek lana galdu

baldin badu eta baimena eman zitzaion sektore horretan lanik aurkitzen ez badu, arazoak izango ditu baimena berritzeko.

Datu on gisa, nabarmendu behar da Gipuzkoan Auzolan programak onartzen ari direla, lan munduan sartzeko programak alegia, sustraitzeagatik aurkeztutako eskarietan; programa horiek 6 hilabeteko lan kontratua dakarte berekin, eta ez dute luzatzeko aukerarik ematen. Datu txar gisa, adierazi behar da ez duela ematen irizpide hori oso argi dagoenik, eta zenbait kasutan trabak jarri direla, urtebeteko kontratuaren eskakizuna ez betetzeagatik; gainera, lehen adierazi dugun bezala, baimenean muga jartzearen arazoa gaineratu behar zaio; izan ere, kontratuko sei hilabeteak bete eta gero sektore berean aurkitu behar dute lana, esan dugun bezala ez baita onartzen inolako aldaketarik.

Horri dagokionez, hiru lurraldeetan agertu den kontu bat nabarmendu dute: gizarte laguntzek, hau da, oinarrizko errentak eta antzekoek balio dutela lan baimenak berritzeko, baina ez dutela balio bizileku baimena lortzeko edo bizileku baimena berritzeko.

Zigor eta sustraitze espedientea; irizpide desberdintasuna Gobernu ordezkariordetzen eta ordezkartzen artean

Baldin eta pertsona batek sustraitzeagatik lan eta bizileku baimena eskatzeko baldintzak betetzen baditu eta kanporatzeko zigor espediente bat ireki badiote, soilik seme edo alaba espainiar bat izateagatik edo Europako Erkidegoko ezkontidea izateagatik, onartzen diote kanporatze zigorra baliogabetzeko eskaria. Gainerako kasuetan, soilik zigor espedientearen gaineko ebazpenik eman ez bada eta zigor espedientea eteteko eskatzen bada jarraitu ahal da bizileku baimenaren eskaria izapidetzen.

Gerta liteke, halaber, zigor espedientea iraungitzea, 6 hilabete igaro direlako eta horren gaineko ebazpenik eman ez delako. Eskaria iraungi dela adierazten duen ebazpen bat bada soilik izapidetu daiteke sustraitzeagatik eskatutako bizileku baimena; ebazpenik ez bada, ezin izapidetu daiteke ezein espedienterik. Ordezkariordetza guztiek ez dute irizpide berbera; beraz, zehazki zigor espedientea izapidetu duen ordezkariordetza zein den, sustraitzeagatik bizileku baimena lortzeko eskaria aurkeztu ahal da edo ez.

Murrizketak lan baimena emateko orduan

Jatorrizko herrialdean kontratatzeo aukerarik ia ez dago (LOEXeko 40. artikuluan agertzen diren lehentasunetarako izan ezik), INEMek betetzen zailak diren lanpostuen inguruan hiru hilean behin argitaratzen dituen katalogoen ondorioz, eta, zehazki, 2008ko azken hiruhilekoan eta 2009ko lehenengokoan argitaratutako ondorioz; izan ere, 2008ko hirugarren hiruhilekoan 48 lanpostu zeuden zerrendan, eta azken bi hiruhilekoetan hiru lanpostutara murriztu da.

Sustraitzearen behin-behineko baldintza betetzen ez duten baina lan eskaintza baduten eta beren herrialdera bidaiatzeko aukera baduten pertsonak orain ezin bidaia dezakete, gehienek ez bailukete pasako INEMen iragazkia. Horren ondorioz, etorkinen egoera erregularizatzeko bideak sustraitzera eta Europar Batasuneko pertsona batekin ezkontzera murriztu dira.

Ziurgabetasun juridikoa

Administrazioa denek ezagutzen ez dituzten instrukzio batzuk aplikatzen ari da bizileku edo lan eta bizileku baimenen zein bisen eskariak izapidetzeko eta emateko. Arazoa da instrukzio horiek ez direla bakarrik barne ordenamendurako, baizik eta pertsonen eskubideei ere eragiten dietela.

Lan baimenak berritzea

Adierazi dute gerora irregulartasunak etor daitezkeela lan baimena berritzeko eskatzen diren baldintzen ondorioz. Lan baimena berritzeko, ezinbestekoa da hainbat egun kotizatuak izatea, eta lanaldi murriztuko kontratazioen kasuan oso zaila da hori betetzen. Modalitate horren ondorioz, arazoak sortzen dira lan baimena berritzeko beharrezko kotizazio epeak egiaztatzeko orduan. Alde horretatik, lehen adierazitako inkoherezia gogorarazi behar dugu berriro ere, alegia, gizarte laguntzek, hala nola oinarrizko errentak, lan baimena berritzeko balio dutela baina ez dutela balio bizileku baimena berritzeko.

Familia berriz elkartzea

Zaila da familia berriz elkartzeko espedienteak burutzea; izan ere, baldintza asko bete behar izaten dira, hala nola familia elkartu nahi duenak kaudimen ekonomikoa izan behar du, eta etxebizitzak egokia izan behar du. Arazoa da zenbaitetan familia elkartu nahi duenak hainbat seme-alaba dauzkala, eta, kaudimen ekonomikoz ebazteko egiten dituzten kalkuluekin, ez diotela uzten seme-alaba guztiak elkartzen, diru-sarrerak ez direlako iristen denak herrialdean mantentzeko; beraz, anai-arrebak bereiztera behartu daiteke. Gainera, larrialdietarako laguntzak ez dira hartzen egoera ekonomikoa hobetzen laguntzen duten diru-sarrera gisa.

Agertu duten beste arazo bat da bi ezkontideek egoera erregularrean egon behar dutela bikotea Espainian bizi denean. Hala ez bada, egoera erregularrean dagoen ezkontideak baizik ezin aurkez dezake familia berriz elkartzeko eskaria, guraso bakarreko familia balitz bezala.

Batzuetan, jatorrizko herrialdean tratamendua bestelakoa delako bete ezin diren edo betetzen zailak diren baldintza batzuk eskatzen dira. Familiak guraso bakarrekoak direnean, familia elkartu nahi duen amak edo aitak judizialki emanak behar ditu izan zaintza eta babespea. Eskakizun hori zaila da betetzen askotan, eskatzaileak aita edo ama non dagoen ez dakielako nahiz trabak jartzen dituelako edo etekina ateratzen saiatzen delako.

Jatorrizko herrialdeetan dauden Espainiako kontsulatuek familia berriz elkartzea galarazten duten erabakiak hartzen dituzte, nahiz eta aldeko txostena emana izan Gobernu Ordezkariordeak; hala gertatzen da, esate baterako, aurreko ahaideak berriz elkartzea ukatzen denean, "ez delako egiaztatu Espainian bizitzeko beharra dutenik". Gobernuak iragarri du araudia erreformatu eta murriztaileago egingo duela, baina jadanik oso zaila da benetan familia berriz elkartzea.

Zigor espedienteak

Adierazi dute Gipuzkoan ez dutela automatikoki aplikatzen isunaren zigorra lurraldetik kanporatzeko zigorraren orde.

Arazoak Erregistro Zibilarekin

Zenbait kasutan, kontrako txostenak egiten ari dira ezkontza espedienteei dagokienez (Errenteriako kasua). Arazo gisa ikusten dute jatorrizko lekuan edo azken bi urteetan bizi izandako tokian ediktuak argitaratu beharra, bai eta ediktuak argitaratzea ez dela beharrezkoa dioen ziurtagiri bat aurkeztu behar izatea. Eskakizun horrek ez dauka zentzurik, espedientean jadanik aurkeztu baita ezkongabetasun ziurtagiria.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak

Adierazi dute adingabe horiek babesik gabe daudela. Nabarmendu dute hobetu beharra dagoela herrialdean bizitzeko baimena ematen dien dokumentazioaren izapidetze juridikoa, eta hobeto babestu behar direla haiei eragiten dieten erabakiak hartzean, hala nola adina zehazteko erabakiak eta zaintzailearen gaineko erabakiak hartzean.

Atzerritarren egoerari eragiten dioten eskariak aurkeztea eta izapidetzea

Eskariak honela aurkezten dira:

- Aldez aurretik txanda eskatuta, sustraitzeagatik eta adingabeen sustraitzeagatik eskatutako baimenen kasuan (Espainiako atzerritarren eskubideei eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoaren Erregelamenduko 94.2. artikulua) eta familia berriz elkartzeko baimenen kasuan. Sistema hori oso ondo dabil. Ez da kexarik izan horren inguruan.
- Aldez aurretik txandarik eskatu gabe, gainerako eskari guztien kasuan.

Sustraitzeagatik bizileku baimena lortzeko eskarien kasuan, txandak hilabete barrurako ematen dituzte, eta espedientearen gaineko ebazpena hiru hilabete baino lehen ematen dute, legeak ezartzen duen bezala.

Kasuak bideratzea

Udaletako gizarte zerbitzuek ondo bideratzen dituzte kasuak, Orioko Udalekoak izan ezik; adierazi dute zerbitzu horrekin arazoak izan dituztela sustraitze txostenak egiteko hainbat kasu bideratzeko orduan.

Herriaren Defendatzaileari jakinaraziko dizkiogu HELDU zerbitzuko hiru bulegoek adierazi dizkiguten arazoak, bera baita arlo horretako erakunde eskuduna. Bilboko Udala sustraitze sozialaren txostenak egiteko asko atzeratzen dela eta, ofiziozko jarduna hasi dugu.

3. Arartekoak izapidetutako kexak

Udalak, Espainiako atzerritarren eskubideei eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoa gauzatzeko erregelamendua erreformatu ondoren (abenduaren 30eko 2393/2004 ED), esku hartzen ari dira **sustraitze sozialaren txostenetan**.

Udalek atzerritarren dokumentazio prozesuan esku hartzeak zerikusia du bizileku erregularrak lortzeko arazoekin. Atzerritar gehienek ez daukate lehenengo urteetan hemen bizitzeko baimena emango dien dokumentaziorik. Atzerritar asko, hala turista gisa muga postuetatik

sartu direnak nola muga postuak saihestu dituztenak, ez dira hona iritsi atzerritarren araudiak bizileku erregularra izateko dioen moduan; beraz, pertsona horiek itxaron egin behar dute herrialdean sustraituta daudela egiaztatzeko, eta, hala, sustraitzeagatik bizileku baimena eskatzeko. Prozedura hori Espainiako atzerritarren eskubideei eta askatasunei buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduko 45.2 b) eta 46.2 c) artikuluek arautzen dute. Adierazitako araudi horren arabera, sustraitze arrazoiengatik eman dakieke bizileku baimena Espainian gutxienez hiru urtez jarraian egon direla ziurtatzen duten atzerritarrei, betiere zigor aurrekaririk ez badute Espainian eta beren jatorrizko herrialdean, langilearen eta enpresaburuaren artean izenpetutako kontratu bat badute eskaria aurkeztu duten garaian, eta Espainian bizi diren beste atzerritar batzuekin familia loturak dituztela ziurtatzen badute nahiz ohiko bizilekua duten herriko Udalak emandako gizarteratze ziurtagiria aurkezten badute.

Lan kontratua izateko eskakizuna ken liteke Udalak hala gomendatzen badu, betiere etorkinak bizitzeko behar beste baliabide badituela egiaztatzen badu. Udalek egiten duten txostena ez da derrigorrean bete beharrekoa, baina izugarrizko garrantzia du. Aurten, 1014/2007 espedientearen azken izapideak egin ditugu; espediente hori ireki genuen Gasteizko Udalak ez zuelako gomendatu nahi lan kontratua aurkezteko eskakizunetik salbuestea sustraitze sozialaren txostenean. Espedientea izapidetzean, Udalari txostenaren edukari buruzko ohar bat egitea erabaki genuen; izan ere, ez zuenez ez argudiatu eta ez aipatu ez zuela gomendatzen adierazitako salbuespena egitea, uste genuen defentsarik eza ekar zezakeela, salbuespen hori gabe gobernu agintaritzak nekez aztertuko baitzuen bizileku baimena emateko aukera; izan ere, bizileku baimena eskatzean eta horrekin batera Udalaren gizarte txostena aurkeztean, ez zen horri buruzko inolako aipamenik agertuko, eta horrek zaildu egingo zuen bizileku baimenerako bere eskubidea aldezte. Horregatik, Gizarteratze Zuzendaritzaren ereduari lotu gintzaizkion, 2005eko ekainaren 22ko instrukzioei alegia, arrazoibide horixe jasotzen baitzuen. Halaxe gomendatu genuen [2007ko apirilaren 23ko Ebazpenean](#)¹⁶.

Atzerritarren interes eta eskubideetarako funtsezkoa den prozedura batean sartzeko eskatzen da sustraitze sozialaren txostena udaleko gizarte zerbitzuetan: bizileku baimena emateko. Nahiz eta txostena ez izan derrigorrean bete beharrekoa gobernu agintaritzaren eskudarenentzat, garrantzi handiko dokumentua da. Horregatik, gure iritziz, sustraitzearen gizarte txosten espezifikoa egin beharko lirateke; halaxe ezartzen du 4/2000 Lege Organikoak, Espainiako atzerritarren eskubideei eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoak, 2393/2004 ED bidez onartutako Erregelamenduko 46.2 c) artikuluan. Gure iritziz, sustraitzeari buruzko gizarte txosten orok behar bezain arrazoitua egon behar du atzerritarrentzako berme izan dadin, ordenamendu juridikoaren arabera. Hori dela eta, atzerritarra lan kontratua izateko eskakizunetik salbuestea gomendatzen bada, erabaki horrek behar bezain ondo arrazoitua behar du egon sustraitzearen gizarte txostenean, eta horretarako arrazoiak berriaz jaso behar dira. Garrantzitsua da gogoratzea herritar batek hala eskatuta adierazitako

¹⁶ Arartekoaren ebazpena, 2007ko apirilaren 23koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio herritar baten eskaerari erantzun diezaiola eta gizarte txostena egin dezala, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzko araudian ezarritako xedapenei egokitueta.

prozedura administratibo bat dela, eta, beraz, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 54. eta 89. artikulua direla aplikatzekoak. Honela dio bi artikuluko horietan azkenak: *“Prozedura amaitzen duen ebazpenean erabakiko dira bai interesdunek agertutako gai guztiak bai prozedura horretatik eratorritakoak.”*

Udalak erantzun digu, batetik, zer arrazoiengatik ez duten gomendatu lan kontratua aurkezteko eskakizunetik salbustea. Esplikatu dutenez, jendea prestatzen eta lana aurkitzen laguntzeko esku hartzen dute, baldin eta posible dela uste badute pertsonaren diagnostiko eta pronostiko soziala kontuan hartuta, udal baliabideak erabilia eta pertsonak berak gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko dituen baliabideak sustatuta; hori dela eta, kasu honetan ez dute gomendatu lan kontratua aurkeztetik salbustea: *“El motivo por el que se solicita esta exención es que tiene que hacerse cargo del cuidado de sus tres hijos. Los hijos se encuentran escolarizados y cuentan con servicio de comedor escolar. Para completar este servicio y compatibilizar el trabajo con el cuidado de los menores el Departamento de Intervención Social contempla dentro del programa de Prestaciones Municipales con una ayuda económica destinada a costear gastos derivados de la atención a personas dependientes (hijos menores) cuyo cuidado impide a la persona beneficiaria la realización de actividades recogidas en su Convenio de Inserción. El objetivo de nuestra intervención es que las personas extranjeras o no, puedan ser autónomas y consigan a través del empleo y su regularización documental la inclusión socio-laboral.”*

Bestalde, gaineratu dute jaso dutela guk egin genien ekarpena, alegia, lan kontratua aurkezteko eskakizunetik salbustea zergatik onartu edo ukatu den arrazoitza, aldeko eta kontrako sustraitze proposamenetan bezalaxe.

Izapidetu dugun beste kexa bat, 1014/2008 espedientea, pertsona bati Laneko, Gizarte Gaia-tako eta Immigrazioko Ministerioak Kale Nagusiko 50. zenbakian duen bulegoan emandako tratua ingurukoa da. Pertsona horrek emandako informazioaren arabera, hauxe esan zuen sarbidea kontrolatzen ari zen pertsonak: *“Aquí no eres bien recibida.”* Ezin izan dugu baieztatu hala esan zuenik, baina, hala ere, Administrazio eskudunera jo dugu, garrantzitsua baita portaera horiek egiaztatzea.

Aurten ere esku hartu dugu atzerritarrek **udal erroldan sar daitezen**.

Alde horretatik, 301/2008 espedientea izapidetu dugu. Espediente hori irekitzeko arrazoia izan da Gasteizko Udalak ez dituela aintzat hartzen bizileku gisa Arabako SOS Arrazismoa erakundearen egoitza ematen duten atzerritarren erroldatze eskariak, eta ez dituela erroldatzen hirian bizi diren baina eskarian bizilekua egiaztatzerik ez duten pertsonak. Arabako Sos Arrazismoa erakundeak 83 bat erroldatze eskariren kopiak aurkeztu zituen erakunde honetan, denak ere 2008ko urtarriletik ekainera bitartean eginikoak. Eskari horiek Gasteizen bizi diren nazionalitate guztietako atzerritarrenak dira, eta bizileku gisa Arabako Sos Arrazismoa erakundearen egoitza agertzen da.

Aldez aurretik, Udalari zenbait ohar egin dizkiogu, hala nola zer araudi diren aplikatzekoak izena emateko eskarian ohiko bizilekua adierazteko arazoak dituzten pertsonen kasuan (Toki

Araubideko Oinarrien Legea, Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Erregelamendua, INEren instrukzioak, Erroldatze Kontseiluaren kontsultak).

Oharren artean, adierazi genion etxebizitza egokia lortzeko zailtasunarekin lotutako arazok, nagusiki alokairuen prezioa oso handia izateak baina baita gizarte aurreiritziak ere, eragotzi egiten dutela udaletako errolda zerbitzuan balio duen helbide bat izatea. Egoera horrek nagusiki gizartean oso kaltebera diren taldeei eragiten die, besteak beste, osasun, mendetasun eta bazterkeria arazoak dituztelako, etorkinak direlako eta egoera administratibo irregularrean daudelako, bakarrik dauden gazte atzerritarrak direlako, eta lan prekarioa dutelako zein lanik gabe daudelako. Testuinguru horretan, Udalaren eskumenak eta funtzioak kontuan hartuko dituen prozedura bat ezartzea oso ona da zailtasun horiek dituzten pertsonentzat. Hori oso garrantzitsua iruditzen zaigu; izan ere, segur aski, erroldatzeko helbide gisa Arabako Sos Arrazismoa erakundearen egoitza ematea lotuta dago bizilekurik ez duten eta gizartean baztertuta dauden pertsonen errolda formalizatzeko duten zailtasunarekin.

Bestalde, adierazi genuen duela urte asko dagoela eztabaida hori, alegia, legezkoa ote den edo ez Sos Arrazismoa erakundearen gizarte egoitzan erroldatzea; oso ezaguna da eztabaida hori, komunikabideetan izan duen presentziarengatik. Erakunde honen iritziz, garrantzitsua litzateke eztabaidaren muinean dauden hainbat kontu gogoraraztea, hala nola:

- Nolako garrantzia duen erroldatzeak oinarrizko eskubideak baliatzeko. Erroldatzea gizarte eskubideak baliatzearekin lotuta dago, hala nola osasunerako, hezkuntzarako eta gizarte zerbitzuetarako eskubideekin. Horrez gain, herrian eta politikan parte hartzeko eskubideari lotuta dago, bai eta joan-etorrian libre ibiltzeko eskubideari lotuta ere. Atzerritarren kasuan, sustraitzea egiaztatzeko balio du, bizileku baimena ematea errazten baitu.
- Aplikatzekoa den legezko araubidea. Erroldatzeko baldintza bizilekuan benetan bizi izatea da. Araudiak jasotzen du nola jardun behar duen Udalak erroldan agertzen diren datuak errealitatearekin bat etor daitezen lortzeko. Udalek osatzen dute errolda, eta beharrezko jarduerak eta eragiketak egin behar dituzte errolda eguneratuta edukitzeko, hor agertzen diren datuak errealitatearekin bat datozela. Udalak baditu ahalmen eta baliabideak pertsona jakin bat benetan adierazitako bizilekuan bizi ohi den egiaztatzeko. Azkenik, adierazi genuen araudiak ez duela onartzen errolda eta herrian bizi diren pertsonen errealitatea bat ez etortzea, eta horretarako, prozedura bat hastea aurreikusten du, erroldatzea onartzeko edo, hala badagokio, erroldatik ofizioz kentzeko.

Egin genuen beste ohar bat izan zen bizileku gisa Arabako Sos Arrazismoak Gasteizen duen egoitza ematen duten erroldatze eskarien kasuan ezin ondoriozta daitekeela eskaritik bertatik pertsona horiek herrian bizi direnik. Adierazitako lokal horrek ezin balio du ohiko bizileku gisa helbide hori ematen duten pertsona guztientzat. Hori ez da eragozpena, ordea, Udalak araudia betetzeko eta eskariak legez ezarritako prozeduraren arabera izapidetzeko.

Gasteizko Udalak zein prozedura jarraitzen duen azalduz erantzun digu. Erantzunean, jaso dituzten erroldatze eskariak nola izapidetu dituzten adierazi du; hain zuzen ere, 142 eskari ziren orduan. Izapidetzean, 30/92 Legean jasotako administrazio prozedura erkidea

aplikatzen dute. Adierazi dute eskari horien artean pertsona batzuk gerora beste helbide batean erroldatu direla (43), beste 46 eskari administrazioaren isiltasun aldekoaren bidez ebatzi dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 43. artikulua aurreikusten duenari jarraiki, eta erroldatze data gisa eskaria aurkeztu den eguna hartzen dela. Beste 53 eskari izapidetzen ari dira gaur egun. Horretarako, prozedura haxe jarraitzen dute.

Lehenik eta behin, eskaria zuzentzeko eskatzen dute, uste baitute emandako ordezkaritza ez dela behar bezala egiaztatu geratzen zuzenbidean. *“La petición de empadronamiento es una solicitud y por tanto, la representación ha de acreditarse de forma fidedigna. Los medios válidos en derecho que dejan constancia fidedigna, conforme a la jurisprudencia, a lo explícito en el antigua LPA de 1958 y a lo manifestado unánimemente por la doctrina son los siguientes: Documento público autorizado por Notario o empleado público competente con los requisitos exigidos por la Ley; Documento privado con firma legitimada notarialmente, Declaración en comparecencia personal del interesado. En base a lo anterior se procede a citar a representante y representado en las dependencias municipales, para la firma “apud acta” por la que se autoriza la representación ante la Jefa de l Unidad Administrativa de Padrón. En segundo lugar, si en el plazo concedido al efecto, no comparecen las partes para subsanar el defecto de que adolece la solicitud, se procede al archivo de la misma por desistimiento en virtud de la previsión del Art. 71 de la Ley 30/1992 ya mentado. En el caso de que la representación quede debidamente acreditada, se inscribe al ciudadano en el padrón municipal con efectos administrativos desde la fecha en que los Servicios Sociales determinen el arraigo en el municipio del solicitante.”*

Adierazi dute Arabako Sos Arrazismoa erakundearen egoitzan erroldatzea eskatzen duten pertsonen helbide hori emateko arrazoi hauek ematen dituztela beren eskarietan: *“por no haber encontrado lugar alguno donde residir de manera normalizada al carecer de medios económicos suficientes para alquilar una vivienda o similar.”* Por ello entienden que *“estas personas reconocen explícitamente que no viven en la dirección suministrada por lo que el tema debería reconducirse a la situación prevista en la Instrucción nº 4 de la Resolución de 4 de julio de la Presidenta del Instituto Nacional e estadística y del Director General de Cooperación Territorial, por la que se dictan instrucciones técnicas a los ayuntamiento sobre actualización del Padrón Municipal, de que la persona que solicita la inscripción no aporta ningún domicilio. Entonces, tal y como establece el art. 54.3 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial, aprobado por Real Decreto 1690/1986, en su redacción dada por RD 2612/1996, de 20 de diciembre y de la instrucción nº 4 ya citada, es necesaria la intervención de los Servicios Sociales para que éstos informen sobre la habitualidad de la residencia en el municipio de la persona que se pretende empadronar y para que indiquen la dirección que debe figurar en la inscripción padronal.*

Para los casos en lo que sí se aporta una dirección, una vez realizado el empadronamiento, y cuando se sospeche que los datos suministrados no coinciden con la realidad, en cumplimiento de las previsiones del art. 17.2 de la Ley 7/85 de 2 de abril, RBRL, que establece la obligación de que los Ayuntamientos realicen las actuaciones y operaciones necesarias para mantener actualizados sus padrones de modo que los datos contenidos en éstos, concuerden con la realidad, así como del art. 53 y siguientes del Reglamento de Población

y Demarcación Territorial, y de la resolución de 4 de julio, ya citados, puede procederse a solicitar los informes pertinentes a Policía Local, Servicios Sociales y demás que puedan ser necesarios para confirmar, que efectivamente, el solicitante reside habitualmente en la dirección facilitada. En función del contenido de esos informes, y si no queda acreditado que el domicilio aportado sea el de residencia efectiva, o aquel en que, según el criterio expresado en la instrucción 4 de la Resolución de 21 de julio sea razonable esperar que las comunicaciones que se le dirijan, puedan llegar a conocimiento del destinatario, ni que el interesado resida efectivamente en el municipio, se incoará un expediente para proceder a la baja de oficio.

Por otro lado, y si bien desde este Ayuntamiento se comparte la apreciación del Ararteko sobre la importancia del empadronamiento a la hora del ejercicio de distintos derechos sociales, es menester puntualizar que, cualquier persona, esté o no empadronada en el municipio, tiene garantizada, en los casos de urgencia, tanto la asistencia sanitaria como la de los servicios sociales.

También es importante añadir la dificultad a la que se enfrentan muchas veces, tanto los servicios sociales, como la Policía Local, y demás Departamentos implicados, a la hora de fijar la residencia efectiva de una persona que solicita el empadronamiento en el municipio de Vitoria-Gasteiz, dado el alto índice de transitoriedad y los habituales cambios de residencia en distintos municipios, de estas personas. Asimismo es importante mencionar el elevado aumento de petición de empadronamiento por parte de personas extranjeras en los últimos años, circunstancias todas ellas que impiden la tramitación de los expedientes con la debida diligencia.

En cualquier caso, y en cumplimiento de la recomendación de esa institución, y dada la creciente complejidad de la casuística relacionada con el empadronamiento de personas que están en situación de vulnerabilidad social por distintas razones, se está procediendo por los Servicios Técnicos Municipales del Departamento de Tecnologías de la Información al que está afecto la Unidad de Padrón, a la elaboración de un protocolo que recoja la diferente problemática y que unifique los criterios utilizados al resolver los procedimientos en cuestión.”

Ongi irizten diogu Udalaren erantzunari, eta, beraz, eten egin ditugu espedientearen izapideak, egiten ari diren protokoloaren edukia ezagutu bitartean. Horri buruz, ikus larri bazter-tutakoen gaineko atala, kapitulu honetan bertan; hain zuzen ere, atal horretan, arazo horren inguruan aurten Gasteizko Udalari egin dizkiogun hainbat iradokizun aipatzen dira, bai eta Udalak zer erantzun duen ere.

Erroldaren arloan jaso dugun beste kexa bat Abantoko Udalaren gainekoa da, atzerritarrak erroldatzeari uko egiten diola eta. Bizkaiko Sos Arrazismoa erakundeak salatu du Abantoko Udalak AIZ (atzerritarraren identifikazio zenbakia) aurkeztea eskatzen duela erroldatzeko, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen kontra. Araudi horren arabera, nahikoa da pasaporte aurkeztea erroldan izena emateko, bizileku baimenik ez duten atzerritarren kasuan. Kexa hori izapidetzen ari gara.

Etorkinek administrazioaren esparru guztietan **hizkuntz irisgarritasuna** izaten dezaten, beharrezkoa da egitura bat diseinatzea, eta horren inguruan, ofiziozko jarduera bat hasi dugu, 325/2008. Aurreko espedientean (26/2006), Immigraziorako Euskal Planean aurreikusitako hainbat ildo espezifikoren garapenez jarduteko aukera izan genuen. Orduan, hala Sail horrek nola Osasun Sailak jakinarazi ziguten Gobernuaren jardun esparru guztietarako egitura bateratu bat sortzea erabaki zutela horretarako, kontuan hartuta sailez sail antolatzeak nolako gastuak ekarriko lituzkeen. 2007ko urtarrilaren 30ean, Sail horrek adierazi zigun egitura bateratu hori **interpreteen sare bat** osatuta gauzatuko zela eta Immigrazio Zuzendaritza arduratuko zela horren gaineko sustapena eta plangintza egiteaz. Halaxe jasotzen du Immigraziorako II. Euskal Planak; hain zuzen ere, Antolaketa Instituzionalerako Sailaren 1. gidalerroa osatzen duten neurrietan 10.ak ardura hauxe ematen dio Zuzendaritza horri: *Administrazio publikoei zerbitzu emango dieten interpreteen sare bat sortzea, EAEko hizkuntza ofizialak ez dakizkiten erabiltzaile etorkinekiko harremanetarako*. Hori guztia, Berme Juridikoen Sailaren 4. gidalerroan aurreikusitakoa betetzeaz gain; hain zuzen ere, gidalerro horretako 1. eta 2. neurriak Justizia eta Barne Administrazioaren esparruko itzulpen eta interpretazio zerbitzuei buruzkoak dira.

Idatzi horretan bertan, Immigrazio zuzendariak adierazi zigun emanak zituela sare hori ezartzeko lehenengo pausoak; zehazki, agindua zuen zerbitzu hori emateko modurik egoki eta bideragarriena zein zen jakiteko azterlan bat egitea, eta kalkulatzen zuen 2008an egongo zela abian.

Ordutik, hainbat kexa jaso ditugu erakunde honetan, Administrazioak bere zerbitzuen erabiltzaileek dituzten itzulpen eta interpretazio beharrei erantzuteko abian jarritako ekimenen batzuen gainean. Adierazi dute neurri horietan nolabaiteko boluntarismo eta inprobisazioa izaten dela zenbaitetan, eta horrek arriskuan jar litzakeela, betiere gure erreklamatzailleen ustez, etorkinek, gure erkidegoko hizkuntza ofizialak jakin zein ez, beren eskubideak erabat baliatu ahal izango dituztela bermatzeko beharrezko dituzten inpartzialtasuna, isilpekotasuna, hizkuntz leialtasuna eta kultur sentiberatasuna.

Horrenbestez, informazioa eskatu dugu Sailak iragarri zigun aurreikuspen hori zertan den jakiteko, egoera baloratzeko modua izan dezagun; zehazki alderdi hauen gaineko informazioa eskatu dugu: zer kontratazio mota egiten den zerbitzua kudeatzeko eta emateko; zer sistema erabiltzen den zerbitzu horretako partaidetza egiaztatzeko; nola optimizatzen diren dauden profesionalak, eskatzen dituzten zerbitzuetarako izendatuz: batetik bestera ibiltzen diren, zenbat aritzen diren gehien eskatzen diren hizkuntzetan, eta abar; zer sistema dauden kontratatutako itzultzaile eta interpreteen hizkuntz trebakuntza eta kulturartekotasun prestakuntza kontrolatzeko, eta zer betekizun duen Unibertsitateak sistema horretan; zer prestakuntza duten zerbitzu publikoetako profesionalak interpreteen bidez erabiltzaileekin elkarreaginean aritzeko; eta beste edozein informazio adierazgarri. Ez dugu inolako erantzun formalik jaso, eta, beraz, espedientea izapidetzen ari gara oraindik.

12/2007 espedientea izapidetzen jarraitu dugu. Espediente hori ofizioz ireki genuen, batez ere **erkidegoan bizi direnei eta haien senitartekoei** eragiten dien araudi berriaren aplikazioari lotuta, eta Herriaren Defendatzaileari igorri genion, bera baita arlo horretan

egin beharreko legezko aldaketa guztiak eskatzeko organo eskuduna. Gure iritziz, Europar Batasuneko estatu kideetako eta beste estatu batzuetako herritarrak Espainian sartzeari, askatasunez joan-etorrian ibiltzeari eta bizitzeari buruzko otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretuari lotuta martxoaren 22an emandako DGI/SGRJ/03/2007 Instrukzioek modu murritzailan interpretatzen dute 240/2007 EDko 2. artikulua arautzen duen araudiaren jardun esparrua. Iaz egindako txostenean eman genuen egindako jardueren berri. Hau da, instrukzio horiei zer irizten genien adierazi genuen, uste baikenuen bazter uzten zirela araudi autonomikoari atxiki zitzaizkion izateko bikoteak, kontuan hartuta Europar Batasuneko araudiak (2004/38 Zuzentaraua, 2004ko apirilaren 29koa, Europar Batasuneko herritarrek eta haien senitartekoei estatu kideetan libre ibiltzeko eta bizitzeko duten eskubideari buruzkoa) **erkidegoko senitarteko gisa hartzen dituela ezkontzaren antzeko bideren batetik elkartutakoak.**

Gure oharretan, Herriaren Defendatzaileari adierazi genion badakigula Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak Europar Batasuneko araudian aurreikusitako baldintzak betetzen dituela, baina ez direla aplikatzen ari. Azken batean, adierazi genion kezkatuta geundela, instrukzio batzuetan goragoko araudi bat ez aplikatzea agintzen ari direlako; adierazi ere genion ezezkoa emateko arrazoia erakundeen jardun falta bada, esate baterako datu bikoiztasuna saihesteko tresnarik martxan jarri ez dutelako, horrek ez lituzkeela eraginik gabe utzi behar pertsonen onartzen zaizkien eskubideak. Horrekin lotuta, 364/2007 espedienteko kexa ere igorri genion, Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeak Europar Batasuneko herritar baten senitarteko bati bizileku txartela ukatu ziola-eta jarritakoa; txartela ukatzeko arrazoi hau eman zuen Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeak: *“ que los diferentes registros de parejas estables existentes en las Comunidades Autónomas o Ayuntamientos no serán válidos a estos efectos, por el momento, en tanto no cumplan los requisitos señalados en el artículo 2b del citado Real Decreto”*. Herriaren Defendatzaileak kexa horren inguruan egindako jardueren berri eman digu.

Alde batetik, Immigrazio eta Emigrazioeko Estatu Idazkaritzaren erantzuna helarazi digu:

“El Real Decreto 240/2907 (artículo 2.b y Disposición final tercera. Dos) equipara al cónyuge de ciudadano español o comunitario con la pareja con la que éste mantenga una unión análoga a la conyugal inscrita en un registro público establecido a estos efectos en un Estado miembro y que impida la posibilidad de dos registros simultáneos en dicho Estado.

Ello porque el artículo 2.2.b) de la Directiva 2004/38/CE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 29 de abril de 2004, relativa al derecho de los ciudadanos de la Unión y de los miembros de sus familias a circular y residir libremente en el territorio de los Estados miembros, incorporada al Ordenamiento jurídico español a través del citado Real Decreto exige, para la equiparación de la pareja no casada al cónyuge,

– que dicha pareja del ciudadano comunitario hay celebrado con éste una unión registrada, con arreglo a la legislación de un Estado miembro,

- *que la legislación del Estado miembro con arreglo a la cual se haya celebrado la unión registrada otorgue a esas uniones un trato equivalente a los matrimonios de conformidad con las condiciones establecidas en dicha legislación (recuérdese que la legislación española sólo otorga un trato equivalente a las parejas no casadas en relación con los matrimonios en supuestos expresamente previstos, y recuérdese asimismo que, conforme al artículo 149.1.8 de la Constitución, el Estado tiene competencia exclusiva sobre la materia de legislación civil –sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades Autónomas de los derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan– y, en todo caso, respecto a las relaciones jurídico-civiles relativas a las formas de matrimonio y a la ordenación de los registros públicos).*

De conformidad con lo anterior, y de acuerdo con lo que se establece en el artículo 2.b) del Real Decreto 240/2007, así como en las Instrucciones DGI/SGRJ/03/2007, de 22 de marzo de 2007, dictadas por la Dirección General de Inmigración y relativas a dicho Real Decreto, los diferentes Registros de Parejas Estables existentes en diversas Comunidades Autónomas no son válidos a esos efectos, ya que, en la actualidad, no cumplen lo preceptuado en el artículo 2.b) del Real Decreto 240/2007, ni serán válidas a estos efectos las situaciones de pareja estable a las que la legislación de un Estado miembro otorgue efectos parciales análogos al matrimonio pero sin establecer un registro público que permita su correcta acreditación. Todo ello en aplicación de la Directiva 2004/38/CE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 29 de abril de 2004, relativa al derecho de los ciudadanos de la Unión y de los miembros de sus familias a circular y residir libremente en el territorio de los Estados miembros.

Es, por lo tanto, exigible, acorde con la normativa comunitaria y española e imprescindible, la existencia de un registro público que impida la posibilidad de dos registros simultáneos en el Estado miembro afectado, condición que se produce en algunos Estados miembros como Alemania, Francia, Reino Unido, etc., pero no en España, dado que los Registros de Parejas Estables existentes en nuestro país, de carácter autonómico y municipal, permiten la existencia de inscripciones múltiples y simultáneas, inscripciones que pueden tener lugar con personas diferentes, lo que, entre otras carencias, impide cualquier posibilidad, por el momento, de otorgar a estas inscripciones un trato equivalente al matrimonio en materia de extranjería (recuérdese, conectado con el tema, que el Legislador español, en desarrollo del principio constitucional de igualdad, ha suprimido la prohibición de contraer matrimonio a las parejas del mismo sexo, prohibición que estuvo en la base de la creación, por otros países, de Registros Estatales de Parejas Estables)."

Bestalde, Herriaren Defendatzaileak jakinarazi digu eten egin direla Immigrazioko Estatu Idazkaritzarekin hasitako jarduerak; izan ere, jakin du administrazioarekiko auzi errekurso bat jarri dutela 240/2007 EDko hainbat alderdiren kontra, eta horien artean izatezko bikoteei ematen dien tratamendua dagoela. Bidalitako informazioaren arabera, oraindik ez dago kasu horren gaineko epai judizialik. Dena dela, Gobernuko ordezkariordetzak Europar Batasuneko egoiliarren senide txartela ukatzen ari dira, adierazitako instrukzio hori

aplikatuz; beraz, kaltetuak bide judizialera jotzen ari dira. Horren inguruan, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak emandako epaia ezagutzen dugu; epai horretan, epaitegiak adierazi du Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztaren ebazpena, txartela ukatzeko emandakoa, ez dela zuzenbidearen araberakoa, Eusko Legebiltzarrak maiatzaren 2an izatezko bikoteei buruz emandako 2/2003 Legearen araudi autonomikoaren arabera eta EAEko Izatezko Bikoteen Erregistroaren Araudia onartzen duen ekainaren 22ko 124/2005 Dekretuaren arabera. Zehazki, araudi horretako xedapen iragankorra aipatzen du; honela dio xedapen horrek: *“ hasta tanto se produzca la interconexión o el intercambio de información con otros registros de similar naturaleza de otras Comunidades Autónomas el requisito de no estar válidamente inscrito en otro registro de parejas de otra comunidad se acreditará mediante la declaración jurada de ambos miembros de la pareja que solicita la inscripción de que cumplen dicho requisito. Por lo que una vez inscrito en el Registro, al ser la inscripción incompatible con la inscripción simultánea de los integrantes de la pareja en cualquier otro registro autonómico de similar naturaleza del Estado español, según recoge la certificación del Registro, se cumplirían los requisitos.”* Nahiz eta Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren epaia izan, hizpidera ekarri nahi izan dugu, kontu hori eztabaida handia sortzen ari dela erakusten baitu.

Lehenago, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenak –2006ko martxoaren 10eko Epaia, gora jotzeko 607/2000 errekurtsioa– 2004/38/EE Zuzentaraua aplikatu zuen, artean ezarri gabe zegoela; hala, epaitegiak emandako epaia berretsi zuen, hau da, deuseza zela atzerritar bat bisatik ez salbuestea eta Europar Batasuneko egoiliarren senide txartela ez ematea; izan ere, atzerritar hori espainiar nazionalitatea zuen atzerritar batekin bizi zen, eta harremana Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatuta zegoen.

Gaineratu behar da, bestalde, badela aurreproiektu bat lehen adierazi dugun atzerritarren eskubideei buruzko Lege Organikoa aldatzeko, eta aurreproiektu horrek izatezko bikoteak berriz elkartzeko aukera aurreikusten duela. Ezkontzaren antzeko moduren batean elkartutako pertsonak berriz elkartzea onartzen bada, ez dauka zentzurik Europar Batasuneko izatezko bikoteei bizileku baimena ukatzeak.

Argitzeko dago, beraz, Europar Batasuneko estatu kideetako eta beste estatu batzuetako herritarrek Espainian sartzeari, askatasunez joan-etorrian ibiltzeari eta bizitzeari buruzko otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretuko araudia egokitzen den edo ez Europar Batasuneko herritarrek eta haien senitartekoez estatu kideetan libre ibiltzeko eta bizitzeko duten eskubideari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 29an emandako 2004/38/EE Zuzentarauaren jardun esparruari lotutako aurreikuspenetara.

4. Talde horri eragiten dioten eta txosten honetan jasotzen diren beste hainbat jarduera

Bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerak kezka handia sortzen du oraindik ere, eta hainbat esku-hartze egiten dira horrekin lotuta, kapitulu honetan bertan adingabeen atal

berariazkoan jaso dugun bezala; atal horretan adierazitakoari lotzen gatzaizkio. Atal horretan, gainera, talde horri buruzko ohiz kanpoko txostenen jarraipena egin dugu, hala nola: bakarrik dauden adingabe atzerritarrek eta ikasle etorkinek hezkuntza aldetik dituzten behar bereziei buruzkoa, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak babesteko egoitza baliabideetara egin ditugun zenbait bisitari buruzkoa eta izapidetu ditugun kexei buruzkoa. horri eragiten dioten kexak hainbat alderdiri buruzkoak dira, hala nola: Talde adina zehazteko prozedura, egoitzari buruzko lege aurreikuspenak ez betetzea, atzerritar adingabeak autonomia erkidego batetik bestera aldatzea eta defentsarako eta pribatutasunerako eskubideak urratzea. Horrez gain, aberriratzeko prozeduraren gabezien inguruan Herriaren Defendatzaileari igorri genion ofiziotzko espedientea ere aipatu dugu. Espediente horretan, adierazi genion komenigarria zela bakarrik dauden adingabe atzerritarren aberriratzeko arautzen duen araubide juridikoa lege aldetik argitzea, eta beharrezkoa zela adingabe horien tutoretza beren gain hartzen duten autonomia erkidegoak eta foru aldundiak elkarren artean koordinatzea. Herriaren Defendatzaileak adierazi digu Etorkinak Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiaren txostena jaso duela eta txosten horretan bakarrik dauden adingabe atzerritarrak aberriratzeko prozedura garatzeko protokoloaren gainean egin diren lanen berri eman duela. Protokolo horretan, argi ageri da nolako arazoak sortzen diren aberriratzeko ebazpena betetzeko eperik ez dagoela eta. Ondorioztatu dute azaroaren 26ko 30/1992 Legea dela aplikatzekoa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta, beraz, ebazteko epeak lege horretan ezarritako epeen arabera izan behar dutela. Epe horiek bete ezin direla eta, kasu askotan, luze jotzen duenez adingabearen familiari edo, halakorik ezean, jatorrizko herrialdean adingabeak babesten dituzten zerbitzuei buruzko enbaxada edo kontsulatuaren txostena hartzeko prozesuak, "prozeduraren aurreko jarduera" gisa hartzen dira, halako moldez non aberriratzeko prozedura ez den hasten harik eta txosten hori jasotzen den arte. Adierazi genion beste kontuari dagokionez, alegia, aberriratu den adingabe bat berriz ere tutoretzapean hartzen denean edo aberriratzeko ebazpena tutoretzaren arduraren duenak ez beste gobernu ordezkariordetza batek ematen duenean sortzen den egoerari dagokionez, jakinarazi ziguten erregistro bakarra sortu dutela, ADEXTRA fitxategiaren bidez, eta horren arduraduna Atzerritarren eta Mugen Komisaria Orokorra dela. Horren ondorioz, adingabe bati buruzko informazio bakarra izango da, eta aberriratzeko prozeduran eskumenak dituzten sailen eskura egongo da, adingabea edozein autonomia erkidegotan dagoelarik ere; hala, bi prozedura izatea saihestuko da.

Horri buruz, ikus kapitulu honetako adingabeei buruzko atala, bereziki adingabe atzerritarrei buruzko zatia, hor aztertu baititugu egoera eta guk egindako jarduerak.

Atzerritarrek aurkeztu dizkiguten kexak hainbat alorretan aztertu ditugu, hala nola Gizarte Ekintza, Herrizaingo eta Etxebizitza alorretan. Norbaitek horri buruz gehiago jakin nahi badu, alor horietara igortzen dugu (I. kap.); dena dela, honako hauek nabarmendu nahi ditugu, labur:

Gizarte Ekintzaren alorrean, hainbat kexa jaso ditugu esku-hartze sozialetan kultura arloa kontuan hartzeko beharrezko inguruan; bestalde, familia baten kexa ere jaso dugu, adingabe atzerritar bat modu iraunkorrean hartzeko gizarte babes egokia lortzeko arazoak izan dituela eta.

Herrizaingo alorrean, garrantzitsua da ohartaraztea jasotako kexa gehienek atzeritarrei eragiten dietela, eta kexak jarri dituzten pertsonak zirkunstantzia horrekin lotzen dutela Poliziak emandako tratua.

Herrizaingo alorrean aztertu ditugu kexa horiek, eta, beraz, atal horretara igortzen dugu kexa horiek zeri buruzkoak diren jakin nahi izanez gero.

Kexa horietan salatu dute indarra neurri gabe erabili dutela, Poliziak tratu bidegabea eman diela eta Ertzaintzak autoritateaz abusatu duela. Aurten ere jaso ditugu atzeritarrak identifikatzeko eta haien ondasunak miatzeko moduaren gaineko kexak; hain zuzen ere, Bilboko eta Erreneriako udaltzainen jardunbideaz kexatu dira.

Adierazitako atal horretan adierazi dugun bezala, zer buruzkoa den eta polizi arduradunek zer azalpen eman dituzten kontuan hartuta, uste dugu ez direla betetzen ari San Frantzisko aldean Poliziak atzeritarrekin izandako jardunbideari buruzko txostenean egin genituen gomendioak; txosten horretan, batetik, indarraren erabilera barrutik kontrolatzeko gomendioa egin genuen (7. eta 8. berariazko gomendioak), Poliziaren jardunbide orotan aplikatu dadin, zeinahi izanik ere jarduten den tokia, beste hainbatetan adierazi dugun bezala; eta, bestetik, jakinarazi genuen hainbat kexa izan zirela, Polizia lekukoen aurrean pertsona bati kalean hurbiltzeko moduaren inguruan (8., 2. eta 3. berariazko gomendioak); kontu horiek, lehenago esan dugun bezala, aurreko txostenean aipatu genituen. Gainera, Ertzaintzak auzo horretan izan duen jokamoldearen gaineko kexaren ondorioz, txostenean egindako beste gomendioetako bat betetzen ote den jakin nahi izan dugu, 5. gomendioa, hain zuzen ere; gomendio horretan, adierazi genuen garrantzitsua dela haien lanarekin lotutako arlo espezifikoko batzuetan prestatzea, hala nola atzeritartasunaren eta beste kultura batzuen gainean. Sailaren erantzuna izan da 2001. urtetik ez dutela eman halako prestakuntzarik, baina adierazi du antolatzeke prest dagoela. Alde horretatik, BILTZEN zerbitzuarekin izandako bileran –aurrerago emango dugu horren berri–, adierazi ziguten datorren urtean prestakuntza jarraitu bat emateko asmoa dutela Ertzaintzarentzat, eta hori oso ontzat ematen dugu. Halaber, BILTZENek jakinarazi digu gai honen inguruko hasierako prestakuntza eman dietela ertzainei: *“Kultur taldeen errealitateak eta poliziaren funtzioak immigrazioaren arloan, eta immigrazioaren gaineko estereotipoak eta aurreiritziak”*. Udalei ere eman die prestakuntza hori, udal langileentzako prestakuntza eskaintzaren barruan. Immigrazioari eragiten dioten kontuen gaineko ezagutza hobetzea eta sakontzea behar-beharrezkoa da talde horiei eragiten dien edozein jardueratan.

Herrizaingo alorrean aztertu dugun beste kontu kezagarri bat da, kexa batzuek agerian utzi dutenez, agenteek sumatzen badute beren jardunak kaltetuengan arbuioa edo gaitzespena piztu duela aurrea hartzen dietela, eta aldi berean haien aurkako salaketa jartzen dutela, agenteek berek egindako egintza bidegabe penalengatik (erresistentzia, desobedientzia, atentatua eta abar). Jardun horien ondorioz, txosten txarrak egiten dira atzeritar horien portaerari buruz, eta horrek gero zaildu egiten du bizileku baimena edo nazionalitatea lortzea; beraz, oso garrantzitsua da salaketa soilik zigor arloarekin lotutako zerbait egin bada jartzea.

Talde horrekin lotutako beste kexa bat ere aztertu dugu Herrizaingo alorrean. Izan ere, Ertzaintzak ez dio salaketa formalizatzen utzi pasaporte galdu duen pertsona bati, administrazio egoera irregularrean zegoelako eta ezin egiazta zitekeelako haren bere nortasuna.

Etxebizitza alorrean, emantzipazio errentaren laguntzekin lotutako kexa bat jaso dugu. Kexa jartzailearen ustez, egoera irregularrean dauden atzerritarrek errenta hori ezin eskatzea kontraesanetan dago Immigrazioarako Euskal Planeko herritar integratuaren printzipioarekin, eta larri bazterten ditu pertsona talde batzuk, hala nola bakarrik dauden adingabeen sistematik datozen eta etxebizitza bat behar duten 18 eta 22 urte bitarteko gazteak, eta ezkutuko ekonomian lan egiten duten edo lan ezegonkor zein segurtasunik gabekoetan lan egiten duten gazteak. Ikusi txosten honetan Etxebizitzari buruzko alorra, han aztertu baitugu egin dugun jarduna.

5. Beste jardura batzuk

Aurten, **ikerketa proiektu** bat babestu dugu: *“Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinak eta gizarte zerbitzu eta prestazioak. Neurketa katalogo eta sistema baten lanketa”*. Egoera irregularrean dauden atzerritarrek gizarte zerbitzuak eskuratzeko dituzten arazoak aztertzea izan da ikerketa horren xedea. Ikerketaren emaitzak modua emango du jakiteko etorkinak zein egoeratan dauden eta zer desberdintasun dauden hemengo biztanleen aldean, prestazioak eskuratzeko orduan.

Azkenik, aurten Arartekoak **gomendio orokor bat** egin du. Gomendio hori txosteneko III. kapituluaren kontsulta daiteke: *“Hilerrietako zerbitzuak erlijio sinesmen guztietara egokitzea; aipamen berezia musulmanen komunitateari”*.

6. Bereizkeria, gizarte sentsibilizazioa eta bizikidetzatza

Bereizkeriaren kontrako borrokari dagokionez, lehenasunezkoa da nabarmentzea beharrezkoa dela kontrol mekanismoak ezartzea bereizkeriarik ez gertatzeko. Ijito herriari buruzko atalean adierazi dugun bezala, bereizkeriak zaildu egiten du pertsona askok sozialki eta ekonomikoki aurrera egitea. Nahiz eta hari buruzko definizioan aurreratu den (2000ko ekainaren 29ko Kontseiluaren 2000/43/EK Zuzentaratua eta 2000ko azaroaren 27ko Kontseiluaren 2000/78/EK Zuzentzarua, gure ordenamendu juridikoan neurri fiskal, administratibo eta gizarte mailakoei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legearen bidez ezarria) eta arraza edo etnia jatorriko pertsonak berdindatu eta bazter ez daitezela sustatzeko kontseilua sortu den, oraindik ere beharrezkoak dira neurri eta jardun jakin batzuk. Gure web gunean, *“Bereizkeriari ez”* atala nabarmendu dugu; horren bidez, arreta pizten lagundu nahi dugu bereizkeriaren kontrako borrokak duen garrantziaren inguruan.

Aurten harreman pribatuekin lotutako hainbat kexa jaso ditugu; esate baterako, etxebizitza batzuen alokairuari buruzko iragarkietan jartzen zuen etorkinek ez deitzeko. Bestalde, izapidetzen jarraitu dugu iaz atzerritar bat ostalaritzako establezimendu batean onartu ez

zutela eta jakinarazi genuen kexa. Erreklamazio horiek ezagutzeko erakunde eskuduna Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saila da. Ezin izan genuen egiaztatu Sailak emandako informazioa kexa jarri zuen pertsonarekin, eta, beraz, bertan behera utzi genuen gure esku-hartzea; dena dela, aipatu egin nahi izan dugu, bereizkeriagatik jarri diren eta aurrera egin ez duten salaketen beste adibide bat baita.

Gizartea sentsibilizatzeko beharrari dagokionez, 2007. urteko txostenean adierazi genuen beharrezkoa zela Administrazioak gizarte prestazioak eskuratzeko baldintzei eta berdintasun printzipioari buruz informatzea; izan ere, ikusi genuen jende asko kexatu zela gizarte laguntzarik jaso ez zuelako eta uste zuelako atzeritar izate hutsagatik gizarte laguntzak ematen zituztela; informazio hori, ordea, ez dator bat errealitatearekin, eta immigrazioaren iritzia desitxuratu eta immigrazioa arrisku gisa agertzen du. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aurtan kanpaina bat egin du, informatu eta sentsibilizatzeko asmoz. Kanpaina horretan informatzen zen atzeritar gehienak inoren kontura lan egiten dutela, eta oso gutxi jotzen dutela gizarte zerbitzuetara. Kanpainaren bidez, ideia hau amaitu asmo zen: atzeritarrek ematen duten baino gehiago jasotzen dutela eta gizarte laguntzez aprobetxatzera etortzen direla hona. Gisa horretako kanpainak behar-beharrezkoak dira. Alde horretatik, aurtan Bakeaz erakundeak Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio Zuzendaritzaren laguntzarekin egindako txosten bat argitaratu da: *“Europako Erkidegotik kanpoko immigrazioaren eragina Euskal Autonomia Erkidegoan”*; txosten horretan, etorkinen etorrerak zer ondorio dakartzan aztertzen da, eta, ateratako ondorioen artean, nabarmentzekoa da zerbitzu publikoak finantzatzen laguntzen dutela, haien lan jarduera handia denez gero.

Halaber, euskal biztanleriak immigrazioarekin duen jarrerari dagokionez, garrantzitsua da **IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokiak** egindako 2008ko barometroa aipatzea; barometro honek honako alderdi hauek aztertzen ditu: atzeritarrekiko **bizikidetz**a, enpatia eta atzeritarrei atxikitzen zaien gizarteratze maila, jatorriaren arabera eta EAERako desiragarri jotzen den immigrazio politikaren arabera.

Ondorioen artean, nabarmentzekoa da herritarrek kezkatuta daudela immigrazioaren gaineko estereotipo batekin, alegia, immigrazioak izugarri eragiten duela herritarren segurtasunean, eta haien etorrerak mesfidantza eta zalantza sortzen dituelako ongizate estatuari eusterik izango ote den. Jarrera anibalenteari zein ildo asimilazionistaren eredu baten alde agertzeko joerari buruzko datuak kontuan hartu beharreko abiapuntu dira programak diseinatzean nahiz Immigrazioarako II. Euskal Plana aplikatzean. Alde horretatik, aurtan BILTZENek antolatutako jardunaldietan, barometroak agerian utzitako zenbait alderdi nabarmendu ziren. Jardunaldi horietan, hiriko gune publikoen gizarte erabilerari buruzko gogoeta egin zen, eta kulturartekotasunarekin lotutako hainbat esperientzia eta kudeaketa eredu azaldu ziren.

Aurtan, **BILTZEN** zerbitzua bisitatu dugu. Zerbitzu horrek gizarte eragile publiko nahiz pribatuen kulturartekotasun ekimenak babestu, koordinatu eta dinamizatzen ditu. Zerbitzu horren helburua kultur komunitateen arteko bizikidetz, ezagutza eta elkarrizketa prozesuak sustatzea da. Jarduera nagusiak eragile instituzionalak eta sozialak prestatzea da; horretarako, prestakuntza ekintzak antolatzen ditu sektore jakin batzuentzat, oso gai espezifiko

eta praktikoekin, hala nola “adingabeekin eta familia etorkinekin esku hartzea”, “kulturarte-kotasuna eta genero indarkeria” eta “kultur taldeen eta Poliziaren funtzioen errealitateak migrazioaren esparruan”.

Zerbitzuaren jarduera garrantzitsuenetako bat kulturen arteko artekaritzaren arloa da; zenbait kasutan, zuzenean esku hartu behar izaten da, eta, beste batzuetan, aurrea hartzeko artekaritza estrategiak baliatu behar dira, hala nola eskolako bizikidetzarako programak garatuta eta gune publikoen gizarte erabileretan esku hartzeko programak garatuta, edo, bestela, aholkuak emanez bizikidetzaren diseinuen gainean, kulturarteko artekaritzaren beste zerbitzu sektorial batzuk abian jarrita eta abar.

Sentsibilizazioaren arloan, oso ekarpen garrantzitsua egiten ari da, bai programen diseinuari dagokionez eta bai antolatzaileak jarduera horien gainean aholkatzeari eta laguntzeari dagokionez. Bestalde, beste hainbat ekintzatan parte hartu dute, hitzaldiak eta lantegiak dinamizatuz.

Gainera, hainbat esku-hartze egin dituzte itzulpenaren eta interpretazioaren arloan. Azken kasu horretan, jadanik adierazia dugun bezala, ez dago interpretazio lanak egiten dituen zerbitzu egituraturik (Gasteiz, Bilbo eta Donostiako udalek hainbat ekimen jarri dituzte abian ildo horretan, bai eta zenbait ospitalek ere, baina ez diote erantzuten dagoen eskari guztia-ri); hori dela eta, BILTZEN bihurtzen da, askotan, aukera bakarra, premia sozial eta medikoa dagoen kasuetan.

Egiten duten beste funtzioetako batek zerikusia du informazioa, dokumentazioa, kontaktua edo teknika handiagoa ematearekin; alde horretatik, aholkuak eta argibideak ematen dituzte, zerbitzu, programa, azterketa eta ikerketa berriak abiatu nahi izanez gero.

Batez ere, arlo hauetan egiten duten lan: hezkuntza, gizarte zerbitzuak eta osasuna, enplegua, parte hartzea, eta kultura eta etxebizitza.

Lan taldea jatorri guztietako profesionalek osatzen dute; hizkuntza ugari dakizkitez, orekatuta daude sexuari dagokionez, eta diziplina anitzeko prestakuntza dute.

Bileran, 2008. urtean adierazi ditugun arlo horietan egin zituzten jardun ugari eta askotarikoen berri eman ziguten. 2004. urtetik ari dira lanean, eta, beraz, esperientzia handia daukate kulturarteko ekimenak sustatzen eta dinamizatzen.

Halaber, gure gizartean gertatzen ari diren egoera kezkarri batzuen gaineko informazioa eman ziguten, hala nola ijito errumaniarren komunitateak duen egoeraren berri. Komunitate horren ezaugarriak kontuan hartuta, beharrezkoa da hainbat arlotan esku hartzea; haien egoerak agerian uzten du adingabeen babesgabetasunari buruzko adierazleak behar direla, kulturarteko ikuspegiarekin.

Bileran azaldu zen beste kontuetako bat izan zen beharrezkoa dela itzulpen eta interpretazio zerbitzua egituratzea, batez ere premia sozial eta medikoen arloetan.

Atzerritarren gaur egungo egoerari dagokionez, adierazi zuten, adierazleek erakusten duten bezala, atzerritarren artean langabezia tasa handiagoa sumatzen ari zirela, eta nagusiki behe mailako kualifikazioko lanetan aritzen ziren pertsonen eragiten ziela horrek. Halaber, talde horrek oso lan baldintza prekarioak dauzkala adierazi zuten, eta oso lan ordutegi zabalak dutela eta etengabeko prestakuntza galarazten duela horrek.

Jarritako erronken artean, adierazi dute familiek adingabeen hezkuntzan gehiago parte hartu behar dutela eta osasun hezkuntzan prebentzioa landu behar dutela. Horrez gain, beharrezkotzat jotzen duten atzerritarren kontsulta eta parte-hartze organoetako partaidetza dinamizatzea.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak pobrezia eta gizarte desberdintasunen inguruan egindako azken inkesta aipatu nahi dugu. Izan ere, inkesta horretan, pobre bizitzeko arriskuan dagoen talde gisa agertzen dira etorkinak. Joera hori kontuan hartu beharrekoa da gizarte politikan, batez ere etorkin izateari gain gazte edo seme-alabak dituzten emakumeen kasuetan. Horri dagokionez, gizartearen larri baztertuta dauden pertsonen buruzko atalari lotzen gatzakio, kapitulu honetan bertan; atal horretan, egindako esku-hartzeen eta gizarte-ko pertsona kaltebereri eragiten dieten beste kontu batzuen berri ematen dugu.

7. Lankidetzaren gizarte erakundeekin

Aurten, atzerritarren eskubideen alde lan egiten duten **gizarte erakundeekin** harremanetan izan gara. Esparru horretan, parte hartu dugu atzerritarrek zer arazo dituzten eta administrazio publikoari zer eskari egiten dizkieten gizartearen ezagutarazteko antolatutako jardunaldietan eta topaguneetan. Guri dagokigunez, erakundea ezagutarazten saiatzen gara, arlo horretan zer esku-hartze egiten dituen eta zer funtzio dituen ezagutarazten. Alde horretatik, jakinarazi nahi dugu nornahik, zeinahi izanik ere bere naziotasuna, gugana jo dezakeela, baldin eta uste badu euskal administrazio publikoren batek jarduera irregularren bat egin duela edo baztertu egin duela. Bestalde, esparru horretan bertan, Herritar Etorkinak Euskal Herriaren Gizarteratu eta Gizartearen Parte Hartzeko Foroaren Berme Juridikoetarako Batzordeak antolatutako bileran parte hartu dugu. Bilera horretan, atzerritarren errolatzaren inguruan Arartekoak zer jardura egiten duen eman genuen ezagutzera.

II.6

**BERARIAZKO ARRETA
IJITO HERRIARI**

6. BERARIAZKO ARRETA IJITO HERRIARI

Atal honetan Arartekoak 2008an ijito herriari zuzendutako jarduketa nagusiak jasotzen dira. Halaber, bestelako argibide interesgarriak ere jasotzen dira, bai eta batzartu garen gizarte eragileek gai honen inguruan helarazi dizkiguten beste kezka batzuk ere.

Ijito herria gutxiengo kultural bat da eta herri hau ez diskriminatzeko neurriak hartu behar dira, bai eta sustatu ere bere partaidetza sozial, ekonomiko, politiko eta kulturala. Konstituzioak eta Autonomi Estatutuak hainbat betebeharrak ezartzen ditu askatasuna eta berdintasuna eraginkorrak izateko oztopoak kentzeko eta pertsona guztien partaidetza sustatzeko; era berean, Estatuak Gutxiengo Nazionalak Babesteko Hitzarmen Markoa (1999ko urtarriaren 23ko EAO) berretsi du eta berori betetzeko konpromisoa hartu du.

Euskadin betebeharrak hauek erakundeen arteko jarduketa plangintza batean zehaztu dira; plan hori, gainera, ebaluatu egin da. Aurten II. jarduketa plangintza egin da, eta txosten hau amaitzeko momentuan ijito herria Euskal Autonomia Erkidegoan bultzatzeko eta gizartearen parte hartzeko kontseiluak onetsi du aipatutako plangintza; horrenbestez, betebeharrak horiek beste marko bat izango dute aurrera egiteko eta, hartara, gutxietsien dauden kideen desabantailak konpentsatu ahal izango dira eta, besteak beste, euren kultura eta nortasuna sustatu eta euren partaidetza sozial eta ekonomikoa bultzatu ahal izango da.

Aurten **Europako Kontseiluak**, 2008ko apirilaren 2an, CM/RESCMN(2008) ebazpena onetsi du, Espainiak bete beharreko konbentzioari dagokionez. Europako Kontseilua Europako 47 herrialde demokratikok osatutako nazioarteko erakunde bat da eta haren xedea da demokrazia sustatzea eta giza eskubideak nahiz zuzenbide estatua babestea. Espainia Europako Kontseiluaren partaidea da eta, aipatu dugun bezala, hitzarmen hau berretsi du; hori dela eta, erakunde honen ebazpenek garrantzia dute eta horrexegatik aipatu dugu azkena; izan ere, bertan azaltzen diren arazoek eta zailtasunek gure erkidegoko ijitoei ere eragiten diete eta ematen diren gomendioak guztiz indarrean daude.

Lehenengo eta behin, ebazpen honek estatuan izandako zenbait aurrerapen aipatzen ditu, esate baterako berdintasuna eta ez-diskriminazioa sustatzeko kontseilua edo ijito herriaren kultura, historia, nortasuna eta hizkuntza sustatzea helburu duen Ijito Kulturaren Institutua sortu eta abian jarri izana. Gainera, Ijito Herriaren Estatu Kontseilua ere jarri da abian; erakunde hau kontsulta organo bat da eta haren xede nagusia da elkarte ijitoen mugimenduen partaidetza sustatzea ongizateari buruzko politikak garatzeko orduan eta Administrazioaren eta komunitate honen arteko lankidetzaren areagotzea. Aldi berean, herri honen egoerari buruzko datuak eskuratzeko garrantzia azpimarratu da, gizarte eskubideak lortzeko bideak hobetzeari, eskolatuak izateko hobekuntzak lortzeari eta lan merkatuan sartzeko erraztasunak emateari begira.

Bigarrenik, ebazpenak agerian jartzen ditu oraindik ere kezkarriak diren gaiak. Ildo honi jarraituz, bereizkeriaren kontrako borrokari buruzko arautegia aplikatzeko zailtasunak zehazten ditu, bai eta arrazoi arrazistengatiko delituak jazartzeko sistema judizialaren inplikazio txikia ere. Halaber, ijitoen zailtasunak eta, batik bat, emakumezkoenak azaltzen ditu lana,

etxebizitza edo gizarte zerbitzuak eskuratzeko orduan, eta maila judizialean jasotzen duten tratuari ere men egiten dio.

Arreta jartzeko gaien artean ijitoen kulturari, historiari eta tradizioei buruzko erreferentzia falta daukagu, bai eskoletako materialetan bai curriculumean. Gainera, ijitoen falta antzematen da irrati, telebista eta prentsaren ekoizpenean, eta gaineratzen du ijito herriaren gaineko estereotipo negatibo askok irautea dutela. Hezkuntzari dagokionez, azpimarratzen du absentismo eta eskola porrot handiagoa eta ikasketak bertan behera uzteko kopuru handiagoak dituztela, batik bat Bigarren Hezkuntzan; era berean, azaltzen du behar baino ijito gehiago (bai eta ikasle etorkinak ere) dituzten ikastetxeetan maila akademikoa txikiagoa dela. Azkenik, ijitoen iritzia azaltzen dute; izan ere, haien ustetan, ez dituzten behar adina kontsultatzen euren gizarte eta ekonomi integrazioa helburu duten programen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan eta ez dute esku hartzen ijitoekin lan egiten duten erakundee-tara bideratutako laguntzen banaketan.

Ebazpenean jasotako gomendioek bereizkeriaren kontra borrokatzeko garrantziari egiten diote men, eta haien helburua da kontseilu berriak tratuaren berdintasunerako eta ez-diskriminaziorako baliabide eta eskumen eraginkorrak bermatzea; aldi berean, ahaleginak handitu nahi dituzte poliziak, fiskaltzak, epailetzak, komunikabideek eta iritzi publikoak bereizkeria arazoan eta arrazoi arrazistengatiko delituen kontzientzia har dezaten.

Beste gomendio baten xedea da herritarrek kultur gutxiengoenganako elkar ulertzea areagotzea, estatuan bizi diren pertsona guztien elkarrizketa interkulturala lortzeko neurrien bitartez. Era berean, ijitoen partaidetza hobetu behar dela aipatzen da, bai euren integrazio sozial eta ekonomikoa sustatzen duten programen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan bai egingo den plangintza berrian. Jorratzen den beste gai bat datuen bilketari dagokio. Azken gai horri buruz ahalegin gehiago egiteko gomendatzen du, ijitoen eta beste talde etniko batzuen egoerari buruzko datuak hartzeko eremu garrantzitsu guztietan (baita sistema judizialean ere), betiere ukitutako pertsonen adostasuna bilatuz.

Beste batzuek kulturaren eta nortasunaren onarpena aipatzen dute eta horretarako gomendatzen dute arategiak ezartzea eta erakunde zein finantza neurriak abian jartzea, ijito herriaren kultura eta nortasunari onarpen zabalagoa emateko. Halaber, aldarrikatzen du ijitoak komunikabideetan sarbidea izaten eta agertzen laguntzeko urratsak eman behar direla eta komunikabideen beraien kontrola edo auto-erregulazioa behar-beharrezkoa dela estereotipoen aurre egin ahal izateko.

Hezkuntzari dagokionez, gomendatzen du hezkuntzako agintariek beharrezko ahaleginak egin behar dituztela talde ahulentzako sarbide berdintasuna eta aukera berdintasuna ezartzen dituen arategia bermatzeko eta ikasle guzti-guztien onurako aplikatzeko.

Partaidetzari gagozkiolarik, Ijito Herriaren Estatu Kontseiluaren eraginkortasuna ziurtatzeko premia aipatzen dute; gainera, kontseiluan esku hartzen ez duten ijitoen elkarteek organo horren lanari eragiteko aukerak izatea aldarrikatzen dute.

Aurten, gainera, Europako Kontseiluak ijitoei buruz antolatutako aurreneko gailur europarra izan da; horrek erakundeen aldetiko aintzatespena dakar eta espero dugu ondorio bezala Europako ijitoak sustatzen laguntzeko neurriak abian jarriko direla.

Arrazismo eta xenofobiari buruzko adierazpide molde batzuei dagokienez, garrantzi handikoa da 2008/913/JAI erabaki markoa aipatzea; izan ere, erabaki horrek zigor zuzenbidearen eremuan zenbait neurri ezartzen ditu eta estatu kideek horiek txertatu behar dituzte beren antolamendu juridikoetan jarrera arrazistak eta xenofoboak edo motibazio arrazista eta xenofoboa duten jokabideak zigortuko direla bermatzeko.

Ijitoek edo, haien izenean, aurten zenbait elkartek aurkeztutako **kexek** ondoko gaiekin izan dute zerikusia:

I. Etxebizitzaren premia

Etxebizitza lortzeko zailtasunari lotutako arazoek modu berezian eragiten diete ijitoei. Momentu hauetan etxebizitza eskuratzeko ohiko zailtasunei bestelakoak gehitu behar zaizkie, esate baterako auzokideen arbuioa eta jabe batzuek etxebizitza alokatzeko emandako ezezkoak.

Aurten ijitoek etxebizitza eskuratzeko daukaten zailtasuna erakusten duten zenbait espediente izapidetu ditugu. Hartara, 799/2008 espedientean kamioi batean lau seme-alaba txikiekin (eta beste bat bidean) bizi zen familia baten egoera babesgabea ageri zen. Gainera, kasu honetan bestelako zirkunstantzia bat ere aipatu beharra dago; izan ere, alaba txikienak minusbaliotasun bat zeukan eta zenbait ebakuntza egin zizkieten, eta horiei guztiei zirkunstantzia horietan egin behar izan zien aurre. Beraien gizarte eta hezkuntza txostenak oso aldekoak izan ez badira ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak ez die etxebizitza premiaren aldeko erantzunik eman oraindik ere. Horrenbestez, familia honek kamioian bizitzen jarraitzen du eta lekuz aldatu behar izan du askotan. Izan ere, aparkatzen duten tokitik bidaltzen dituzte, bide publikoan kokatzea eta motordun ibilgailuan bizitzea ez baitaude baimenduta. Hona hemen, adibide gisa, bizi izan diren leku batzuk: Oiartzun ibaiaren inguruetan, Lasarteko hipodromoaren inguruetan, Oiartzungo industrialdean, Usurbilgo mendi batean, Belauntzako etxebizitza batean, Tolosako tren geltokiaren inguruetan eta Belauntzako fabrika abandonatu batean. Bizileku iraunkorrik ez dutenez gero, horrek gizarte laguntzak eskuratzeko aukerak zailtzen dizkie. Donostiako Udalera jo dugu, bai eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailera ere. Udalak erantzun digu egindako jarduketan berri emanaz; horrela, eroldaren inskripzioa mantendu dute eta esku-hartze soziala jarraitzeko prest azaldu dira. Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak ez digu erantzun, informazioa eskatzeko egindako eskaerak gorabehera eta familia honen egoeraren estutasuna jakinarazi arren. Erantzun ez izanak berekin dakar Arartekoaren erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak ezarritako lankidetzeta betebeharra ez konplitzea.

Badago beste espediente bat (1535/2007), kolektibo honi eragiten diona; horren inguruan Arartekoak [2008ko abenduaren 19ko ebazpena](#)¹⁷ taxutu zuen; espediente honek ere zerikusia zuen etxebizitza eskuratzeko zailtasunarekin. Horrek zenbait kasutan eragiten du lokalak erosi eta horiek etxebizitza gisa egokitzea irtenbide bakarra izatea. Hernaniko Udalak ez du inskripziorik egin eta ez dio inskripzio eskaerari erantzun; hori dela eta, udalari gure iritzia helarazi genion legezko erregimenaren inguruan eta udaleko erroldan inskribatzeko ahalmenaren irismenaren inguruan. Hurrengo atalean berriro ere aipatuko dugu erroldan izena emateko zailtasunei buruz mintzatzen garenean. Hemen ere jaso dugu bizileku egokia eskuratzeko zailtasunarekin zerikusia duelako.

Beste espediente batzuetan udalaren jarrerak eta beste erakunde batzuen lankidetzak, kasu baterako Caritas Gipuzkoa elkartearenak, ahalbidetu dute urteetan osasungarritasun faltan bizi izan diren familia batzuei irtenbide bat ematea. Hori berori gertatu da 208/2007 espedientearen; kasu honetan Irungo Udalak familia bati lagundu dio, etxebizitza egokian bizitzeko aukera izan dezan.

Ijitoek duten beste zailtasun batek zerikusia dauka bigarren belaunaldiak etxebizitza eskuratzeko daukan zailtasunarekin; horren ondorioz, seme-alabek, aldi berean seme-alabak dituztenek, familiaren etxebizitzan bizitzen jarraitu behar dute, bestelako bizileku bat eskuratzeko aukerarik ez dutelako. Errentamendu kontratuek etxebizitzan bizi diren pertsonen kopurua handitzeko klausulak ezartzen dituzte. Horixe izan zen udal alokairuko pisu batean bizi zen ijito familia baten kasua. Udalak ez zuen semearen neskalagunaren erroldatzea baimendu, haurdun zegoen arren. Erditu zenean, haurra erroldatu zuen baina ez ama. Arartekoak [2008ko uztailaren 4ko ebazpena](#)¹⁸ taxutu zuen eta bertan familia hori erroldan inskribatzea gomendatzen zuen. Erroldaren legezko erregimena ere aztertzen duen ebazpen honetan aipatzen zen ijitoen kultura familiak garrantzi handia daukala eta, horregatik, kideen arteko elkartasuna oso kontuan hartu beharreko elementu inportantea dela. Ildo honi jarraituz, ijito herriaren sustapen oso eta gizarte partaidetzarako euskal plana aipatu behar dugu; izan ere, ijito herriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoeraren azterketa jasotzen den atalean adierazten da ijito herriaren ezaugarrietariko bat familiaren ideia dela, familiaren batasuna eta senideen arteko laguntza, eta balio hori beste batzuei gailentzen zaiela, esaterako aberaste pertsonalari. Hortik ondorioztatzen da ijito kultura duten pertsonen artean ezin onartuzkoa dela seme edo alaba bati, emazte bati edo iloba bati aterperik ez ematea. Ebazpenean zehaztu genuen gizarte etxebizitzaren errentariet, aitita-amamek, kontratua sinatzean beste pertsona batzuk ez erroldatzeko konpromisoa hartu arren, erabaki hori erroldari buruz indarrean dagoen legezko erregimenarekin eta aurreko zirkunstantziekin alderatu behar dela, ebazpen horretan aztertzen den bezala. Ez dauka inolako zentzurik erroldan haur bat sartzeko eta ez horren ama. Caritas Gipuzkoa erakundearekin izandako bileran (geroago horren berri emango dugu) bikote ijito gazteek etxebizitza eskuratzeko

¹⁷ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 19koa. Horren bidez, Hernaniko Udalari gomendatzen zaio beharrezko izapideak egin aurretik, udal erroldan izena ematearen ziurtagiria egin dezala.

¹⁸ Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 04koa. Horren bidez, Ortuellako Udalari gomendatzen zaio pertsona bati erroldan izena eman diezaiola.

duten zailtasunari buruzko arazoa agertu zen. Era berean, gizarte alokairuko etxebizitzetako errentamendu kontratuen klausulei buruzko arazoa ere aipatu zen; izan ere, zenbaitetan klausulek ez dute ahalbidetzen egoiliar gehiago sartzea eta horrek egoera harrigarriak sorra-razi ditu, famili unitate berriak daudenean kaleratzeak saihesteko. Laburbilduz, lehenengo belaunaldiak arazoa konpondu duen arren, bigarren belaunaldiak etxebizitza eskuratzeko daukan zailtasuna kontuan hartu beharreko datua da.

II. Erroldatzea ukatzea

Kasu batzuetan ikusi dugu udalek herrian bizi diren ijitoen familiak erroldatzeko ukoaren atzean pertsona hauek udalerrira iristearen aurkako jarrera edo arbuioa dagoela. Udalek ukoa justifikatzeko ematen dituzten arrazoiaren artean honakoak ditugu: etxebizitza okupatzeko titulurik ez egotea edo bizigarritasun baldintzak ez betetzea. Maiz aipatu dugun bezala, erroldan izena ematea herrian benetan bizitzearekin lotuta dago. Arartekoak zenbait gomendio egin ditu erroldako inskripzioa arautzen duen legezko erregimena aztertuz. Txosten honen I. kapituluaren lan eta zerbitzuen atalean argibide gehiago daude, baina atal honetan garrantzitsua da erroldan izena emateko ukoa jaso duten ijitoei eragiten dien bi ebazpen aipatzea: [2008ko uztailaren 4ko ebazpenak](#)¹⁹ eta [2008ko abenduaren 19ko ebazpena](#)²⁰; horietan Ortuella eta Hernaniko udalek herrian bizi diren familiei udal erroldan inskribatzeko emandako ukoa aztertzen da. Udal horiek, txosten hau amaitzeko momentuan, ez diote Arartekoari erantzun, bidalitako gomendioak betetzearen inguruan.

Behin eta berriz adierazi dugun bezala, erroldan izena emateko betebeharra etxebizitzaren titularitatearen gaineko gorabehera juridiko-pribatuetatik edo etxebizitzari eragiten dioten zirkunstantzia fisiko edo higienikoetatik edo bestelakoetatik kanpoko kontua da. Legezko-tasuna berrezartzeko bestelako legezko prozedurak jar daitezke abian, hala nola diziplina urbanistiko arlokoak, baina ez da zuzena udalen ahalmena erabiltzea kasu mota hauetan inskripzioa ukatzeko. Udalek duten ahalmenari esker egiazta dezakete ea nortasun edo helbideari buruz ematen dizkieten datuak errealitateari lotzen zaizkion ala ez. Arautegiak, gainera, bizilekurik gabeko pertsonak erroldatzeko aukera ematen du eta zenbait udalek, Bilbokoak adibidez, kasu horietarako jarduketara protokolo bat atondu du. Lehentasunezko arretako kolektiboari buruzko atalean (gizarte bazterkeria larriaren dauden pertsonak), txosten honen kapituluaren bertan, udal erroldan bizilekurik gabeko pertsonak inskribatzeari buruz egin ditugun jarduketan berri ematen dugu. Nolanahi ere den, ezin onar daiteke erroldaren ukoa erabiltzea etxebizitza batean pertsona gehiago bizitzea saihesteko edo ijito familiak udalerrira heltzea ekiditeko.

¹⁹ Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 04koa. Horren bidez, Ortuellako Udalari gomendatzen zaio pertsona bati erroldan izena eman diezaiola.

²⁰ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 19koa. Horren bidez, Hernaniko Udalari gomendatzen zaio beharrezko izapideak egin aurretik, udal erroldan izena ematearen ziurtagiria egin dezala.

2008. urtearen amaieran ofizioz ekin diogu Trapagarango Udalak ijito familia bati udal erroldan inskribatzeko emandako ukoarekin zerikusia duen jarduketa bati. Familia honek urtebete egin du Trapagaranen. Sestaoko jatorria daukate, baina herri horretan gizarte eta hirigintza eraberritze prozesu bat jarri da abian eta horrek ekarri du zenbait familia bizilekuz aldatu beharra Sestaon bertan eta Sestaotik kanpo ere. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak etxebizitza bat esleitu die alokairuan. Erabaki horrek auzokideen arbuioa eta udal erroldan izena emateko ukoa ekarri ditu, komunikabideek emandako informazioaren arabera.

Familia bizilekuz aldatzeko prozesuan zenbait administraziok hartu dute parte; hori dela eta, inplikaturako hiru administrazioetara jo du: Tragarango Udalera, Sestaoko Udalera eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailera, betiere administrazioen arteko lankidetzeta nola garatu den jakiteko asmoz. Halaber, Trapagarango Udalari zenbait iritzi eman dizkiogu alde aurretik. Txosten hau bukatzeko momentuan, Sestaoko Udalaren eta Trapagarango Udalaren erantzuna baino ez dugu jaso. Sestaoko Udalak jakinarazi digu familia hau bizilekuz aldatu dutela gida plan eta legeria urbanistikoa betez eta, lehenengo eta behin, Trapagarango ostatu batera lekualdatu zutela 2007ko uztailen. Aldi berean, adierazi digute aurretiko konpromiso guztiak bete zituztela eta protokoloa aplikatu zutela. Gainera, zehaztu dute Trapagarango Udala Sestaoberrirekin koordinatu zela, baina erroldan izena emateko momentuan ezaguna den ika-mika sortu zela. Trapagarango Udalak emandako erantzunean jarduketen berri ematen da kronologikoki eta zenbait agiri erantsita azaltzen dira, hala nola familiak erroldan inskribatzeko eskubidea, auzokideen aurkako jarrerari buruzkoak, auzokideen elkarrekin egindako bilera eskaera eta sinaduren aurkezpena, Arboledako Kontseilu Sektorialaren bileren aktak, udaltzaingoak familiaren bizilekuari buruz egindako txostena eta udalak Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailari egindako bilera eskaera (batzarrean Arboledako auzokideen elkarrekin egoteko eskatu dute). Espediente hori izapidetzen ari da momentu honetan.

Aurreko urtean 1272/2007 kexa espedientea aipatu genuen; kasu honetan bi seme-alaba txiki zituen eta Abanto-Zierbenan erositako etxebizitzara lekualdatu zen ijito bikote bati ukatu zioten udal erroldan inskribatzea. Espediente hori adibide bat da udalak erroldan inskribatzeko ahalmena nola erabiltzen duen ikusteko, betiere familia batek udalerrian bizitzea nahi ez duenean. Hori guztia iazko txostenean islatu genuen.

Etxebizitzara joan eta handik egun gutxira, udalak etxebizitza zigilatu zuen. Arrazoiak ondokoak izan ziren: etxebizitzan hainbat lan egin izana modu ilegalean eta horrek pertsonen nahiz ondasunen segurtasunari arriskua ekarri izana. Gainera, udalaren ustetan, aurreko jabeak etxebizitza laga zion eta, horrenbestez, etxebizitza udalarena zen. Horren ondorioz, familia furgoneta batean bizi zen etxebizitzatik hurbil eta bertan ez zeukan gutxieneko bizigarritasun baldintzarik. Horren ostean, familiak auzotik alde egin eta bide judizialari ekin zion; hori dela eta, bertan behera utzi genuen jarduketa.

Espediente honen garapenak Santa Juliana auzoko goiko aldearen egoera urbanistiko eta gizarte degradazioarekin zerikusi handia dauka; egoera horrek erakunde honetan hainbat

kexa izapidetzea ekarri du. Hori dela eta, jarduketa bati ekin diogu ofizioz eta aurrerago ematen dugu horren berri zehatzagoa.

III. Bizikidetzak, mesfidantza eta arbuio arazoak

Auzokideen arteko gatazkek eragindako kexak jaso ditugu. Kexa horiek erakunde hau arduratzen dute; izan ere, kexok, zenbait kasutan, ijitoak estigmatizatzen dituzten aurreiritzi eta estereotipoetan oinarritzen dira eta atzean ez da bizikidetzako benetako arazorik izaten, esate baterako auzokideen aldetiko arbuioak auzoko berriak, besterik gabe, ijitoak izateagatik. Beste kasu batzuetan erakundeen inplikazio handiagoa behar da auzokideen arteko bizikidetzak hobetzen laguntzeko gizarte ildoko programekin eta auzoko egoera ekonomiko, urbanistiko eta soziala hobetzeko bestelako jarduketekin. Gai hori garrantzi handikoa da, batik bat etxebizitzari buruzko politika publikoei dagokienez; izan ere, batzuetan bizikidetzako arazoak saihesteko, ez zaie ijitoei etxebizitzarik esleitzen.

Bizikidetzako gorabehera lotuta jasotzen dugun kexei gagozkielarik, Arartekoaren ohiko jarduketa honakoa izaten da: udalaren gizarte zerbitzuekin harremanetan jartzea, jakinarazi dizkiguten zailtasunak moteltzeko gizarte esku-hartzerik dagoen ala ez jakiteko. Horixe egin genuen 84/2008 espedientearekin; kasu horretan gizarte jarduketa egiaztatu genuen, bai eta beste erakunde batzuekin zegoen koordinazioa ere, hala nola hezkuntzakoekin. Halaber, garrantzitsua da aipatzea Arartekoa pertsona guztien eskubideak defendatzeko erakunde bat dela; horrenbestez, gure jarduketetan esku-hartze integralak bideratzen dira, betiere alde guztien premia eta beharrianak kontuan hartuz.

IV. Jarduketak guneratuak

Aurten 2006ko azaroaren 6ko ebazpenaren²¹ jarraipena egiten segitu dugu; horren xedea Sestaoko eraberritze sozial eta urbanistikoa daukagu. Jarraipen hori egiteko, eragile nagusiekin bildu gara: Aldeberri eta Txabarrigarbi auzokideen elkarteekin, Iniziativa Gitana elkartearekin, beste gizarte kolektibo batzuetako ordezkariarekin (Caritas eta Secretariado Gitano fundazioarekin), Sestao Berri 2010 SA elkartearekin, plangintzaren zuzendaritzarekin eta Sestaoko Udalarekin. Sestaoberri elkarteak aurrera eramandako jarduketan berri eman digute nagusiki; izan ere, zerbitzu hori lekualdaketak, eraberritze eta alokairuen kudeaketa lana egiteko sortu zen, betiere Sestaoko Txabarri, Urbinaga, Simondrogas, Rivas eta Mainueta auzoetako eraberritze sozial eta urbanistikoaren barruan. Aurten nabarmen egin dute aurrera lekualdaketen kudeaketarekin. Horietariko asko Sestaotik kanpora bideratu dira, batez ere ezkerraldera eta Bilbo Handira; horrela, erreferentziazko bulego gisa sendotu da. Gainera, lan garrantzitsua egin dute jabeen komunitateetan, kontuen kudeaketan eta

²¹ Arartekoaren ebazpena, 2006ko azaroaren 6koa; horren bidez Sestaoko Udalarik, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harreman eta Hirigintza Sailari jakinarazten zaizkie Sestao eraberritzeko prozesuari buruzko ondorio eta gomendioak.

eraberritzean; halaber, eremu honetan garrantzi handiko lanak izan dira gizarte zerbitzuekin koordinatzeko eta informatzeko betetako zeregina eta gizarte laguntzak. Beste jarduketan inportante bat Txabarri ingurua eraberritzeko lana izan da. Sestaoko gida plana 2007ko urrian gaurkotu zen. 2008ko maiatzean erakundeekin informazio bilera bat egin zen, guk daukagun albisteen arabera, egin den batzar bakarra. Arazo nagusia Sestaon bertan egiten diren bizileku aldaketak dira. Inguru hori eta urbanizazio proiektuetan (Punta) izandako atzerapenak ere arazotsuak izan dira, bai eta Txabarri inguruan segurtasun ezari buruz izandako salaketak ere.

Plangintzan ezarritako jarduketa asko ez dira abian jarri edo ez dira amaitu. Ildo beretik, aldi baterako lekualdaketei buruzko akordioak daude eta pausoak eman dira behin betikoen inguruko akordioak lortzeko, baina oraindik ere argitu beharreko gaiak daude, hala nola gizarte laguntzekin edo jarduketak amaitzeko epeekin zerikusia dutenak, eroldan inskribatzeko dauden zailtasunak, legegintzaldiaren aurretik auri adierazpenak egiteko prozesuen ondorioak (legezko okupatzaileek lekualdaketarako duten eskubidea argitu duena, baldin eta etxebizitza jarduketa urbanistiko baten xedea izango den lursail batean badago); hori guztiori dela eta, espediente zabalik daukagu eta oraingoz ez dugu gomendioen betetze mailari buruzko baloraziorik egingo.

Inguru degradatu bati buruzko beste esku-hartze bat da Abanto-Zierbenako San Juliana auzoari dagokiona. Auzo hau erakinen multzo batek osatzen du; eraikin gehienak txabolak dira, udal baimenik gabe eraikitakoak, eta ez daude urbanizazio zerbitzu egokiez hornituta (ez dago kalerik eta urbanizazio lanik; kale kantoiak estuak daude zementu kapa fin batez estaliak; euri urak eta ur beltzak biltzeko hoditeria ez da nahikoa kopuruari eta neurriei dagokienez). Eraikinak urbanizaziorako gai ez den lurzoruan eginda daude eta eraikinen erregimen urbanistikoa hirigintza plangintzatik kanpo dago. Eraikinen eta hiri ingurunearen egoera kaxkar-kaxkarrak agerian jartzen ditu udal zerbitzu publikoak emateko zailtasunak, hala nola argiteria, bide publikoen garbiketa edo oztopo arkitektonikoak; horrek azken urteotan hainbat kearen izapidetzea ekarri du. Udalak auzoaren berri eman zigun 290/2005 eta 825/2007 espedienteetan.

Kexak izapidetu eta bisitak egin ditugu; hori dela eta, auzoaren errealitatearen berri daukagu. 2008. urtearen amaieran erakunde honen zenbait aholkularik bilera bat egin zuten hirigintza ataleko udal arduradunarekin eta auzoa bisitatu zuten; bertan ikusi ahal izan zuten zuzenean zein den inguru honen egoera.

Beste alde batetik, Abanto-Zierbenako Udalak ez ditu onartu orain arte helarazi dizkiogun gomendioetarik bakar bat ere, esate baterako hirigintza plangintza aldatzea edo lurrak berreskuratzea hirigintza plangintzak ezarritako helbururako, hau da, lurzoru urbanizaezin gisa, eta bertan bizi diren pertsonak lekualdatzea. Nolanahi ere den, aurrerakuntza batzuk izan dira, baina, daukagun informazioaren arabera, une honetan geldirik daude auzokideen arteko akordioa dela eta. Udalak auzoaren berrantolaketa egitea aurreikusita dauka une honetan izapidetzen dabilen Hirigintza Antolamendurako Plangintza Nagusian. Antolamendu horretan auzoko lurzoru birsailkatzea eta etxebizitza berriak urbanizatzea eta eraikitzea aurreikusita dago, bota beharreko eraikinek ukitako pertsonak lekualdatzeko. Plangintza honen sustapenean aurrera egiteko, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako

Sailak jardun du lankidetzan. Orain arte, 2008ko maiatzean udalak Hirigintza Antolamendurako Plangintza Nagusiaren berrikuspena onetsi du hasiera batean eta bidezko alegazioak aurkezteko jendaurreko epea zabaldu du. Era berean, plangintza nagusiaren berrikuspenean sartutako proposamenak ezagutzera emateko, udalak auzokideei deitu zien informazio saio batera.

Aurten ere auzoaren degradazio egoerari eta bizikidetzaz arazoak buruzko kezak jaso ditugu. Pertsona hauek beren kezka azaldu digute erortzeko arriskua duten eta abandonatuta dauden zenbait eraikinen degradazio egoera dela eta; gainera, eraikin horiek modu ilegalean okupatu dituzte titulurik gabeko pertsonak. Horregatik, beste jarduketari bati ekin diogu (1618/2008 espedientea) eta horretan udalari alde aurretiko gogoeta batzuk helarazi dizugu eta haren iritzia eskatu dugu.

Lehenengo eta behin, Santa Julianako gizarte eta hiri eraberritzea sustatzeko neurriak bul-tzatzeko premia helarazi genion.

“Aipatu behar da administrazioaren eta bizilagunen artean dagoen adostasuna, esku-hartze publikoko premiako beharrean. Esku-hartzea honako hauetara bideratzen da: auzoko hondamen egoera aztertzea, jada abian jarri diren neurrien eraginkortasuna baloratzera eta, kasu honetan, auzoko gizarte eta hiri biziberritzea planifikatzera eta koordinatzera. Behar hori geroz eta premiazkoagoa da. Izan ere, denbora igaro den arren eta administrazioek jarduteko aurreikuspenak egin badituzte ere, ez dira urrats esanguratsuak eman.”

Horrenbestez, hirigintza eta gizarte aldeak eta partaidetza publikoa kontuan hartu dituen esku-hartze integrala behar da. Hori dela eta, ondokoa zehaztu beharrean gaude:

“Gizarte ikuspegitik, egungo hirigintza egoerak auzotarren gatazkak handitzea eta gizarte harremanak okerrera egitea bakarrik ekar dezake. Auzoetan, talde ahuletako kide diren pertsonak baldin badaude, neurriak hainbat esparrutatik (gizarte, hezkuntza, lan, osasun...) dira beharrezkoak aldaketak sustatzeko.

Gizarte biziberritze prozesuak talde espezializatuaren esku-hartzea eskatzen du, ahulak diren taldeentzako gizarte laguntzan. Santa Julianaren kasuan esku-hartzeak ijitoen familiei eragiten die eta hori kontuan hartu beharreko elementua da.

Hiri biziberritzeko ikuspegitik, abiapuntutzat egungo hirigintza egoera hartu behar da. Auzoak etxebizitza multzo bat du. Etxebizitza gehienak ez dira hirigintza legezkotasunarekin bat etorritik eraiki eta ez dira eraikuntza eta bizigarritasun ezaugarri egokiekin hornitu. Bestalde, auzoko hiri ingurunean dagoen erabateko gabezia azpimarratu behar da: zuzkidura publikoak, ekipamenduak edo gutxieneko hirigintza zerbitzuak.

Eremu horretako hirigintza jardueren aukerak udal erabakien menpekoak dira, jada adierazia, alegia, izapide bidean dagoen plangintzako berrikuspenarekin esku hartzea. Ekimenak udal-ekoa izan behar badu, eragindako pertsonak aktiboki parte hartu behar dute prozesu horretan. Funtsezkoa da esfortzu handiagoa egitea auzoa tartean dagoen prozesuen eta prozeduren inguruko informazio nahikoa eta jarraitua emateko.

Herritarren partaidetza administrazioek kontuan hartu behar duten aktiboa da, egun auzoak, zenbait ikuspegitatik eta interesetatik, aurkezten duen hondamen egoera konpontzen saiatzen diren auzotarren proposamenak entzuteko.

Benetakoa eta eraginkorra den partaidetzak honako hau hartzen du tartean: herritarrek proposamenari buruzko informazioa izateko onartutako ahalmena; erabakia hartu aurretik, oharrak edo bestelako proposamenak aurkezteko aukera eta, nolana ere, ekarpen horiek administrazio organo eskudunak behar bezala baloratzea. Azken batean, organo horrek du erabakia hartzeko ahalmena.

Administrazioek herritarrek parte hartzeko programa espezifikoak sustatu behar dituzte, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 108. artikuluan ezarritakoak bezalakoak. Beraz, jendaurreko bilerak honako hau azaltzeko: administrazioak proposatutako erabakiak eta horien aukera posibleak, izapidetzen ari diren hirigintza bitartekoei buruzko eta herritarrek egindako ekarpenei buruzko material dibulgatzailea edo, baita, eztabaida larrietako kasuetan, herritarrek aktiboki parte hartze bideak ezartzeko aukera. Programa horietan eta garatu beharreko jardueretan, administrazioek lehentasunezko partaidetza bidea ingurumenaren babesa eta hirigintza garapen iraunkorra sustatu nahi duten pertsonen edo elkarteen eman beharko diete. Hirigintza erabakiak hartzeko prozesuan herritarren ekarpenak lortzeko bitarteko baliodunak gure erkidegoko udal askotan eratu diren Udal Plangintzari buruzko Aholku Batzordeak dira.

Abanto eta Zierbenako Udalak Udal Plangintzako Aholku Batzordea sortu du, hirigintza gaien buruzko agente sozialen, ekonomikoen eta ingurumen agenteen informazioaren eta eztabaidaren udal gune gisa. Beraz, bitarteko a proposa da Santa Juliana auzoko egoerari buruzko informazioaren, partaidetzaren eta kontsultaren eginkizun hori egiteko.

Edozelan ere, hirigintza berrantolamendu prozesua ez da mugagabea eta hirigintzako legeriak jasotzen dituen exigentziak hartu behar ditu abiapuntutzat, hirigintza estandarrei dagokienez, bereziki, gutxienezko eta gehienezko eraikigarritasunari, etxebizitza babestuentzako eta zuzkidura publikoentzako eta ekipamenduentzako lurzorua erreserbari dagokionez.

Legezko exigentzia horiek abiapuntu gisa baldintza horiek ez dituzten auzoko hirigintza berrantolamenduaren proposamenak baloratzea eragozten dute.

Bestalde, hiri biziberritze prozesua administrazioak bideratu behar du, legezko pertsona okupatzaile horiei bizilekua ematearen aldeko apustu garbiarekin.

Santa Juliana auzoko bizilagunei etxebizitza emateko plana hiri biziberritze prozesu horretako oinarria da. Hori dela eta, garrantzitsua da eskubide horren edukia argitzeko ahalegina, legezko ezarpenekin bat etorri (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen bigarren xedapen gehigarria).

Biziberritzeko plana indarrean sartzeko epearen definizio egokia erabakigarria da etxebizitza legez okupatzeko eta bizilekua berriro hartzeko eskubidearen okerreko erreklamazioak saihesteko. Kontuan hartu beharreko elementu garrantzitsuen artean, hasiera batetik, bizilekua emateko onuradunen azalpena dago. Esku-hartze publiko eta azkarrak bakarrik saihestu dezake bazterkeria jasateko arriskua duten pertsonak eta taldeak hiri ingurune andeatuetan kontzentratzea, epe iragankor horretan zehar higiezinak hondatzea eta, eraikinen "hustea" laguntzeko, irteera duinik gabeko pertsonen joanarazteak ekartzen duen tekniken erabilera galaraztea.

Jabeak erabiltzeko eta gozatzeko bidea ematen duen baldintza egokietan mantendu behar du etxebizitza eta testuinguru horretan kokatu behar da eraikinaren aurri deklarazioa. Nolanahi ere, aurri deklarazioa, etxea uzteko agindua eta eraikin baten eraispena ez dira desegoki erabili behar hirigintzako sustatzailearen eginkizuna errazteko bidea emango duen hirigintza kudeaketa teknika gisa eta, are gutxiago, bide horretatik beren etxebizitzan nola desagertzen den, bizilekua berriro emateko eskubidea nola desagertzen den eta etxebizitza berri bat, beren bitarteko eskaekin, nola eskuratu behar duten ikus dezaketen legezko okupatzaileen eskubideak urritzeko."

Behin gogoeta horiek eginda, udalaren iritzia eskatu genuen ondoko gaien inguruan: Santa Juliana auzoan sortutako bizikidetza arazoei konponbidea emateko gizarte eta hirigintza arloko jarduketa neurrietarako plangintza zehatza, aurreko gure gogoetak kontuan hartuko dituen; auzokideei auzoko eraberritze urbanistikoan esku hartzeko borondatearen berri emango dieten informazio bileren jarraipena; hiri antolamendurako aukerei, lurraren jabeen eskubideei eta betebeharrei eta batez ere etxebizitzaren legezko okupatzaileak lekualdatzeko eskubidearen edukari buruzko abiapuntua; herritarrek parte hartzeko moduko programa baten taxuketa, bai auzoko gizarte eta hiri arloko eraberritze plan bat egiteko bai Hirigintza Antolamendurako Plangintza Nagusiak ezarritako jarduketa plana atontzeko.

Beste alde batetik, beste administrazio batzuek jo dugu, esaterako Bizkaiko Foru Aldundira eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailera, gure esku-hartzearen berri emateko eta informazioa eskatzeko. Kasu honetan, haiengana jo dugu Santa Juliana auzoa eraberritzeko Abanto-Zierbenako Udalarekin batera egin edo ezarritako plangintzen edo hitzarmenen berri izateko. Espediente hau izapidetzen ari da une honetan.

Aurten ijito ikasleen hezkuntza premiei buruzko txosten bereziaren jarraipena egin dugu; horren berri ematen dugu kapitulu honen atal batean, adin txikiko pertsonen buruzko kapituluaren, hain zuzen ere.

Edozein kasutan ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bidali digun informaziotik zenbait gai nabarmendu behar ditugu, interesgarriak direlako. Alde batetik, ijito ikasleen %89 sare publikoan dago; Bizkaian %92, Araban %90 eta Gipuzkoan %77,15. Beste alde batetik, I. plangintza indarrean egon bitartean egin ez diren jarduketek dagokienez, batzuk abian jartzeko aurrerapausoak eman direla jakinarazi digute; horietariko batzuk ondorengoak dira: zentron eraldaketarako bideak, ikasketa komunitateak, teknologia berrien bidezko ikasketa eta bestelakoak sustatzea esku hartzeko proiektu globalen bitartez; bi zentrok ekintza positiboko proiektuak egitea ijito ikasleen eskola arrakasta eta kultura arteko bizikidetza hobetzeko berritzeguneen eta hezkuntza ikuskaritzaren jarraipen eta laguntzarekin... Halaber, adierazi digute eskolaratzea hobetzeko egitaraua fase aurreratu batean dagoela eta horren onspena eta abian jartzea ijito herriaren sustapen oso eta gizarte partaidetzarako II. planaren barruan sartu direla.

Bideratu ditugun beste esku-hartze batzuk lotzen zaizkio ijitoak sustatzeko, laguntzeko eta aintzat hartzeko lanean ari diren **gizarte elkarrekin lankidetzari**.

Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko **ijitoen elkarrekin** bildu da, euren aldarrikapenak zeintzuk diren eta zein egoeratan dauden jakiteko.

Aurrena jakinarazi zizkiguten arazoei, laburbilduta, **adin txikiko eskolaratzearekin** zerkusua zuten. Haien iritziz, ez ziren aintzakotzat hartzen ijito haurren zirkunstantziak. Sarritan lehendabiziko kezka eskolaratzea izaten zen, familiak bete gabe uzten dituen bestelako premiak daukanean. Arlo honi eragiten zion beste gai bat ondokoa zen: zenbait ikastetxek haurrak inskribatzeari uko egiten zioten, azalpen handirik gabe. Beste gai bat eskolaratze batzordeen erabakiak kontrastatzeko prozedura baten premia izan zen (ikastetxeetako

aldaketei buruzko gaiari dagokionez, adierazi digute ahalegin handiak ari direla egiten eta arazo horiek konpontzeko eta azalpenak emateko bide berezi bat dagoela eta horregatik ez dagoela zailtasunik dakarren akordiorik).

Bigarrenik, **babes judizialaren arloan**, babesik gabe segitzen dutela adierazi dute, jokabide arrazisten biktimak izan direla salatzen dutenean, ekintzek ez baitute aurrera egiten.

Era berean, zuzeneko eta zeharkako **diskriminazioaren helburu** dira, baina ez dago jokabide horiei aurre egiteko kontrol tresna nahikorik, adibidez, taberna batera sartzen uzten ez dietenean.

Aurri espedientei dagokienez, Sestaoko familia batzuen egoera aipatu zuten; izan ere, beren etxebizitzak utzi behar izan dituzte, aurri espedienteak izapidetu direlako, baina lekualdaketak bideratu gabe. Aurri espediente horiek larriki eragiten diete ijito familiei, etxebizitza ez ezik eroldaren inskripzioa eta gizarte laguntzak ere galtzen dituztelako eta egoera horrek haurren eskolaratzeari eragiten diolako. Azken hori garrantzi handikoa da, hurrek eskolan bazkaltzen dutelako; beraz, etxebizitza galtzeak modu globalean eragiten die.

Otxarkoagan bizikidetzeta programa bat egitea aurreikusita dago Fomed bitartekaritza institutuaren laguntzaz eta, adierazi digutenez, hori modu positiboan baloratzen dute.

Agerian jarri duten beste arazoetariko bat da udalerrri batzuetan **errolatzeko** dituzten zailtasunak. Haien ustetan, udalerrri batzuetan ez dute uzten ijitoen kopuruak gora egiten eta begi onez ikusten dute herritik alde egitea. Arazo guztiak leporatzen dizkietela uste dute.

Indarkeriaren biktimak diren emakumezkoek zuzendutako politikari gagozkielarik, ijito emakumezkoen ezaugarri kulturalak eta egoera kontuan hartzeko eskatzen dute. Ildo honetatik, zigor arloko salaketa bestelako tasunak ditu; izan ere, salaketa agiria aurkezteko eskatzen bada, ziur asko, ez dute ezer salatuko eta babes, laguntza eta etxebizitzarik gabe utziko dituzte. Gainera, adierazten dute betekizunak gogortu direla; izan ere, lehen nahikoa zen elkartearen agiri bat aurkeztea, baina orain salaketa agiria ari dira eskatzen.

Aldi berean, etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko eta gizarte laguntzen onuradunak izaten jarraitzeko ezintasuna adierazten dute, nahiz eta askotan bizileku bat lortzeko jabetzan erostea beharrezkoa izan.

Azkenik, aipatzen dute arazo nagusia bizileku egokia eskuratzea dela eta atzerantz ari direla; gauzak horrela, haien esanetan, gaur egun pertsona gehiago bizi dira furgonetan eta kamioietan orain dela urte batzuk baino.

Gainera, harremanak izan ditugu **Ijitoen Kontseiluaren Idazkaritzarekin**; izan ere, organo horren helburuetariko bat da ijito herriaren sustapen oso eta gizarte partaidetzarako plan-gintza abian jartzeko bultzada eta laguntza ematea eta horren jarraipena egitea. Besteak beste adierazi digute Ijitoen Kontseiluaren bileraren batean erakundeen presentzia espero baino txikiagoa izan zela eta horrek kezkatzen zituela, batez ere kontseiluaren gizarte

erakundeak. Halaber, jakinarazi ziguten 2008a I. planaren ebaluazioa eta hausnarketa egiteko urtea izan dela; prozesu horretan Arartekoak ere hartu du parte aldian-aldian.

Halaber, ijito herriaren sustapen oso eta gizarte partaidetzarako euskal planaren prozesua abian jarriko dela jakinarazi ziguten, 2008tik 2011 bitartera; gauzak horrela, txosten hau idazteko unean, Ijitoen Kontseiluak abenduaren 10ean egindako bilkuran onetsi zuen plangintza horren behin betiko zirriborroa eta jadanik Gobernu Kontseiluari bidali zaio bertan baloratu eta, hala badagokio, onets dezaten. Lehendabiziko planaren ebaluazio eta hausnarketa prozesuaren emaitza gisa, idazkaritzak jakinarazi digunez, bigarren plangintza honetan konpromiso eraginkorrak jasotzen dira, errealitateari lotzen ez zaizkion perspektibak saihesteko eta helburuen definizioan eta erantzukizunaren esleipenean asmatzeko; gainera, koordinazio hobea ahalbidetuko duten solaskideak eta plan honen eta gobernuaren beste plan batzuen arteko lotura zehaztuko dira, sortutako sinergiekin baliatzeko. Nabarmendu beharreko arazoetan, diskriminazioaren kontra borrokatzeko ahalegin handiagoak egin behar dira eta jokabide diskriminatzaileak kontrolatzeko eta jazartzeko mekanismo edota organoak ezarri behar dira, betiere zigorrak ezartzeko gaitasunari eutsita. Orain arte lehenengo plangintza-aren testuinguruan garatutako jarduketak gizarte bazterkeriaren kontrako borrokan bilbatu dira gehienbat, eta noizean behin ijitoen kultur egitatearen aintzatespenean; izan ere, diskriminazioaren eta jokabide hori bultzatzen duten jarreraren kontrako borroka ez da behar bezalako erantzunik eman. Plan berriak egoera horri konponbidea eman nahi dio, jarduketak hiru helburu nagusiren inguruan egituratuz: bizi kalitatearen hobekuntza, gizarte partaidetzaren sustapena eta bizikidetzaren bultzada.

Azkenik, **Caritas Gipuzkoa** erakundearekin izandako bilera bat aipatu behar dugu; batzar horretan ijitoei eragiten dieten zenbait arazo jorratu ziren.

Aurkeztutako arazoak:

1. Famili unitate berriak udal etxebizitzetan:

Famili unitatea handitzen denean datorren arazoa aurkezten dute; izan ere, seme edo alaba bat ezkontzen da, seme-alabak ekartzen ditu eta familia berriak ez dauka bizilekurik. Udalak ez du errolatze berririk baimentzen udal etxebizitzetan; horrek bizikidetzako ekonomi unitate berriaren laguntzen izapidetzea zailtzen du. Kasu batzuetan, Hernanin gertatu bezala, adibidez, familia banatzea ekarri du; izan ere, udal etxebizitzaren esleipendunaren alabaren senarrari ez diote utzi etxebizitza horretan bizitzen emazte eta semearekin.

2. Guraso eta seme-alaben aldeko neurriak hartzeko premia:

Kasu batzuetan ijito bikoteak ezin dira elkarrekin bizi, gurasoena ez den bizileku bat aurkitzeko zailtasunak direla eta. Litekeena da seme-alabak izatea, aurreko adibidean aipatu bezala. Baliabide ekonomikorik ez badute, laguntzen eskaera bat egin beharko dute. Arazoa zera da: kasu hauetan, bizikidetzarik ez badago, adin txikikoen gastuei aurre egiteko adostutako neurri judizialak aurkeztea beharrezkoa da, laguntzak izapidetzeko beharrezko agiri gisa, nahiz eta banaketak etxebizitza aurkitzeko zailtasunarekin zerikusia izan. Horrek ekar lezake neurri judizialak hartu behar izatea, hala ez dagokien kasuetan.

3. Udal etxebizitzaren baldintzak:

Inoiz gertatu da, Hernaniko kasu honetan bezala, ijito familiak udal etxebizitzetan bizitzen hastea eta horiek nahiko hondatuta egotea, aurreko bizilagunek utzi ondoren beharrezko eraberritze obrak egin ez direlako.

4. Etxebizitza eta gizarte laguntzak:

Ijitoek, batzuetan, bakarrik eskura ditzakete egoera txarrean dauden etxebizitzak, errentaren prezioa altua izan arren. Arazoa da gizarte behar larrietarako laguntzak izapidetzeko udal batzuk hasi direla eskatzen etxebizitzek bizigarritasun baldintzak betetzea. Horrek arazoa nabarmen zailtzen du; izan ere, alde batetik, laguntzak etxebizitza ordaintzeko behar dituzte, baina, beste aldetik, ez dute inor aurkitzen egoera onean dagoen etxebizitza bat alokatzeko prest. Kontua da gizarte zerbitzuek jabeak (haiek dira etxebizitzaren bizigarritasun egoera ona bermatu behar dutenak) presionatzeko erabiltzen duten bide honek kalte egiten diela.

5. Errolda arazoak:

Okupazio titulurik ez dagoen edo baldintzak betetzen ez diren lekuetan erroldatzeko zailtasuna aipatzen dute, hala nola karabanetan, jabetza lurretan, kanpinetan edo lokaletan.

6. Eskolako kuota handien ordainketa:

Itunpeko sareko ikastetxe batzuetan kontzeptu batzuk ijito familien ekonomiarako garestiak direla aipatzen dute; hori dela eta, ezin dituzten seme-alabak bertan matrikulatu. Era berean, adierazi dute ikastetxeek eurek jantoki, eskola material eta abarreatikoko bekak ari direla kobratzen, nahiz eta hori ijito familiei egokitu, eta kontuak ez daudela oso garbi; horrek batzuetan ekartzen du, beharbada, familiei jantokiagatik kobratzea, baina seme-alabak ez joatea bazkaltzera. Jakinarazi digute Hezkuntza Sailera jo nahi dutela egoera hori argitzeko kontrolak handitzeko premia azaltzera.

II.7

**BERARIAZKO ARRETA
GIZARTEAN BAZTERTUTA EDO
POBREZIAN BIZI DIREN PERTSONEI**

7. BERARIAZKO ARRETA GIZARTEAN BAZTERTUTA EDO POBREZIAN BIZI DIREN PERTSONEI

Atal honek Arartekoak 2008an, izenburuak adierazi legez, gizarte bazterkerian edo txirotasunean dauden pertsonen lotuta burutu dituen jarduketak biltzen ditu. Haren helburua gure erkidegoko jende askok eskubideak erabiltzeko eta etxebizitza edo elikadura bezalako oinarrizko premiei aurre egiteko dauzkan zailtasunei buruz ohartaraztea ere bada. Holako zailtasunak krisialdi ekonomikoaren testuingururik gabe ere izan dira, 2006an *“Etxerik gabe edo gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonen oinarrizko premientzako erantzuna”*ri buruz egin genuen txosten berezian aztertu genuenez. Egungo krisialdi egoerak eragin larria dauka talderik ahulenengan, eta horregatik garrantzi berezia hartzen dute gizarte ahultasunean dauden pertsonen laguntzen dieten programek.

Bestalde, iaz bezala, aipatu txostenean egin genituen gomendioen jarraipena egin dugu, eta horregatik, haiek betetzea dagokien Administrazioei informazioa eskatu eta gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonekin lan egiten duten erakundeekin bildu gara.

Aurten Herriaren defentsa erakundeen arteko koordinazio tailerretako baten gaia gizarte babesgabetasun larria zen; beraz, ondorioak eta Estatuko Herriaren defentsa erakundeek herri-administrazioei holako egoerei aurre egiteko proposatutako gomendioak bildu ditugu Txosten honetako V. atalean.

Bukatzeko, udako Unibertsitatearen “Buruko osasuna eta Pertsonen Eskubideak” ikastaroan eztabaidatu zen gaia aipatuko dugu: helduen babesgabetasuna. Gai horrek badauka eragina, aterperik eta gizarte eta familia loturarik gabe bizi diren pertsonak areagotu baitira.

1. 2008an izapidetutako kexak

Holako pertsonen dagozkien kezkak edo zailtasunak bilduz izapidetu ditugun kexei dagokienez, erroldan erregistratzeari, ordutegiei dagokienez egoitza baliabide batzuek dauzkaten bizikidetzara arauen zorrotasunari, edo kultura aniztasunarentzako arreta faltari buruzkoak aipatuko ditugu; azkenari dagokionez, esaterako, musulman herritarrek Ramadan bete ahal izatea dago. Koordinazio sozio-sanitario faltari buruzko kexak ere jaso ditugu; horrek desintoxikazio prozesuetan dauden pertsonen egoerari egokitutako baliabiderik ez izatea dakar; lurralde batzuetan etxegabeen premiei eta egoerari aurre egiteko dagoen baliabiderik ezari edo eskasiari buruzkoak ere jaso ditugu.

Erroldan izena emateari lotutako kexei dagokienez, aurten Gasteizko Udalari zuzendutako zenbait ebazpen egin ditugu, eta onartuak izan dira. Haietako bat etxerik gabeko pertsona bati dagokio, [2008ko irailaren 15eko Ebazpena](#)²² eta bestea gizarte bazterkeria arriskuan dagoen pertsona bati, hura ere [2008ko irailaren 15ekoa](#)²³.

Horiez gain, gizarte bazterkeria larrian edo etxerik gabe dauden pertsonentzako egoitza baliabideak dauzkaten udalei zuzenduta ofiziozko jarduketa abiarazi dugu. Informazio eskaera horretan, erroldan erregistratzea arautzen duen lege erregimena betetzen den eta dago-kion Foru Aldundiarekin jokabide protokolorik dagon aztertu nahi litzateke. Udalek bidalitako erantzunak ikusita, ikertu eta aztertu ondoren, jokatzeko proposamenak egingo dira.

Gasteizko Udalari igorritako iradokizunei dagokienez, arestian adierazi legez, haietako bat etxegabe bati zegokion. Pertsona hura udal gizarte zerbitzuen erabiltzailea izan zen eta zenbaitetan ahalegindu zen udal erroldan erregistratzen. Gure azterketan ondorioztatu genuen Udalak zuzen jokatu zuela eta Gizarteko Esku-hartze Sailak egoera horretarako xedatutako baliabideak eskaini zizkiola; baliabideok Gasteizen bizi diren etxegabeei bizimodu duina izatea ahalbidetzen diete; baina administrazioko informazioari buruzko hobekuntzak bultzatzeko iradokizun batzuk egin behar genituela ikusi genuen. Gure gogoeten artean honakoa adierazi genuen: "Administrazio informazioa sistema demokratikoen faktore garrantzitsua da, herritarrei beren eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko eta beren ondasunak eta zerbitzu publikoak erabiltzeko aukera ematen dielako. Horrekin lortu nahi dena da, alde batetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 35. artikulua edukiz hornitzea. Lege horrek ezartzen du herritarrek egin nahi dituzten proiektu, jarduera edo eskaeren inguruan indarreko xedapenek ezartzen dituzten baldintza juridiko edo teknikoari buruzko informazioa eta orientazioa eskuratzeko eskubidea. Bestalde, Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 18. artikulua ere edukiz hornitu nahi da. Lege horrek ezartzen ditu bizilagunek informazioa jasotzeko duten eskubidea eta Udal Administrazioari eskaerak egiteko duten eskubidea" Azterketa eginda, Udalak erroldan erregistratzeko betekizunei buruz emandako informazioak etxegabea izatea aintzat hartzen ez zuela ondorioztatu genuen. Egokia zen pertsonak bizitzeko etxebizitza izanez gero. Arazoa zera da, pertsona horrek ez zeukan etxebizitzarik eta horregatik, jasotako informazioaren arabera, ezin zuen udal erroldan izenik eman, eta hura ez zen gutziz zuzena.

"Biziko den etxebizitza justifikatzen duen informazioa aurkeztea" zioen informazioak udal erroldan izena emateko etxebizitza eduki behar dela ondorioztaraz dezake, baina etxerik izan gabe, udalerrian bizi ohi diren eta gizarte bazterkerian edo marjinazioan dauden pertsonak egon daitezke. Ondorioz, Udalari esan genion herritarrei erroldan erregistratzeko bete-

²² Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa. Horren bidez, Gasteizko Udalari iradokitzen zaio erroldatzeko baldintzei eta eskubideari buruzko informazioa hobetu dezan; eskaera idatziz aurkeztu dezan; eta erroldan izena emateko etxerik gabeko pertsonen izena ematea mantentzeko zailtasunak kontuan hartzen dituen jarduera protokoloa landu dezan.

²³ Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa. Horren bidez, Gasteizko Udalari iradokitzen zaio erroldatzeko baldintzei eta eskubideari buruzko informazioa hobetu dezan; eskaera idatziz aurkeztu dezan; eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak, erroldan izena emateko edo mantentzeko zailtasunak kontuan hartzen dituen jarduera protokoloa landu dezan.

kizunei buruz ematen zaien informazioa hobetzea eta, eskatzen diren agiriak eduki ezean, eskaera idatziz jasotzen laguntzea garrantzitsua dela.

Horregatik, Gasteizko Udalari honakoa iradoki genion: udalerrian bizi ohi den pertsonak udal erroldan erregistratzeko betekizunei eta daukan eskubideari buruzko informazioa hobetzea; pertsonak, udalerrian bizi arren, biziko den etxebizitza justifikatzeko agiririk ez daukan kasuetarako, eskaera idatziz egitea errazta; eta Errolda Zerbitzuaren eta Gizarteko Esku-hartze Sailaren arteko jokabide protokoloa egitea, etxegabeek erroldan erregistratzeko dauzkaten zailtasunak aintzat hartzeko.

Honakoa da Gasteizko Udalaren erantzuna: *“los Servicios Técnicos Municipales del Departamento de Tecnologías de la Información de este Ayuntamiento, al que está afecto la Unidad de Padrón, han comenzado ya a trabajar para la elaboración de un protocolo que recoja la diferente problemática planteada tanto en el empadronamiento de personas sin hogar, como de aquellas otras que se encuentran en situación de vulnerabilidad social por distintas razones, de manera que se unifiquen los criterios utilizados al resolver los procedimientos en cuestión. El protocolo incluirá la mejora de la información facilitada a los ciudadanos a través de los distintos canales por los que el ciudadano puede relacionarse con este Ayuntamiento. A tal efecto, se han mantenido reuniones con el Departamento de Intervención Social en las que se han comenzado a trabajar los criterios de actuación. En cualquier caso, es necesario hacer constar que la elaboración de dicho protocolo es un proceso que incluye la toma de contacto y la aprobación de normas comunes de actuación, no solo con distintos Departamentos Municipales, sino también con otras Administraciones que puedan resultar implicadas, tales como la Diputación Foral de Álava o el Gobierno Vasco. Proceso que entraña serias dificultades que tendrán que ser superadas en el desarrollo de los trabajos.”*

Gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonen zuzenean eragiten dien beste kexetako bat, **dutxa publikoko udal zerbitzua** abiarazteari buruzkoa da, 419/2006 txostena. Arartekoak [2008ko abuztuaren 28ko Ebazpena](#)²⁴ egin du bertan, Donostiako Udalari guztiei irekitako kostu baxuko dutxa publikoko udal zerbitzua jartzea iradokitzen zaio.

Azken urteotan, agerian geratu da beharrezkoa dela eskulsioko arriskuan dauden pertsonen oinarrizko higiene premiak betetzeko baliabideak jartzea, hala nola, bainu etxeak deritze-nak. Gure aburuz, oinarrizko higiene zerbitzuak emateari dagozkion heinean, holako gizarte eskaerak baliabide publiko egonkorren bidez bete behar dira. Gainera, osasun-egoera publikoaren babesaren eremu materialari eragiten dionez gero, holako zerbitzuak ematea udalek hartu behar lukete euren gain.

2007. urteari dagokion txostenean adierazi genuenez, arazo hori Donostian agertu da. Hiri horretan, “bainu etxeen” eskaera Kontxa hondartzako kabinetara desbideratu zen. Udalak onartzen zuenez, ordea, zerbitzuak gainezka egiten zuen uda garaian, instalakuntzek

²⁴ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abuztuaren 28koa. Horren bidez, Donostiako Udalari iradokitzen zaio dutxa publikoaren edo “bainu etxeen” udal zerbitzua ezar dezala, guztiei irekia, udalerriko leku egonkor batean kokatuta eta, gutxienez, merke.

funtzio bikoitza bete behar zutelako: "bainu etxea" izatea, eta hondartzara hurbiltzen diren pertsonentzako zerbitzua. Arazoaren aurrean, Udalak hautatu zuen aukera "bainu etxe" zerbitzua, uda garaiko hiletan, Zurriola hondartzako kabinetara eramatea izan zen. Horrela eginda, neurriak talde bakar bati eragiten zion, etxegabeei, alegia.

Zerbitzuaren kokapenaren behin-behineko aldaketak eskulsioko arriskuan zeuden pertsonak gizarteratzeko proiektuei eragiten zien, eta horregatik, Arartekoak guztiei irekitako dutxa publikoko udal zerbitzua edo "bainu etxea" udalerriko kokapen egonkor batean eta, gutxienez, kostu baxuan, jartzea iradoki zion Donostiako Udalarari.

"Bainu etxe"ko zerbitzua behar duten pertsonak baliabide ekonomiko urriak dauzkate, eskulsioko arriskuan ez badaude zerbitzua horregatik zerbitzua doan edo prezio sinbolikoan eman behar zaie. 2008an Donostia udalerrian zerbitzuak emateko eta udal jarduerak egiteko indarrean zeuden tasak arautzen dituen zerga ordenantzak, ordea, itxuraz handiak ez baziren ere, etxerik gabeko edo baliabide urriko pertsonentzat ordainezinak diren zenbatekoak finkatzen zituzten.

Egun arte, Donostiako Udalak ez du iradokizuna onartu, eta horregatik ez onartutzat jo behar izan dugu.

2. "Etxerik gabe edo gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonen oinarrizko premientzako erantzuna"ri buruzko txosten bereziko gomendioak betetzen diren ikusteko jarraipena

Aurten ere txosten bereziko gomendioak betetzen diren ikusteko jarraipena egin dugu. Oraingoan, foru aldundietara ez ezik, udal nagusietara eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailera ere jo dugu.

Informazio eskaeran arreta sozio-sanitarioari buruzko txosten berezia aipatzen genuen. Arreta soziosanitarioari buruzko txostena duela gutxi egin bada ere, bertan jasotako gomendioek 2005-2008 Plan Estrategikoak jasotzen zituen alderdiekin dute zerikusia. Horregatik, garrantzitsua generitzon bertan jasotako gomendio batzuei buruz ohartarazteari. Izan ere, gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonekin lan egiten duten erakundeen ohiko kexa dira osasun arloarekiko koordinazioan dauzkaten zailtasunak eta gizarte arretaren gabeziak, osasun ekarpenik ez dagoenean. Balorazio hori bat dator txostenean, dauden itxaropen, premia eta aukeren neurrian, arreta soziosanitarioan aurreratu ez dela dioten ondorioekin.

Funtsean, eskatu dugun informazioaren edukia honakoa zen: alde batetik, arreta sozio-sanitarioaren bilakaera, baliabide berriei edo lekuen hazkundeari buruzko aurreikuspenak, eta lan modu eta tresnei buruzkoak, hala nola, jokabide protokoloak, balorazio tresnak, edo arloen arteko lan taldeak.

Bestalde, gizarte arlo hertsian, honakoei buruzko informazioa eskatu genuen: erakundeen arteko koordinazioa, zehazki, gazte justizia sistemarekin eta espetxe sistemarekin, batez

ere zentroetako irtenaldiei begira; eskuduntza banaketako aurrerapenak eta udalei eta gizarteratze arloan foru erantzukizuneko zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeei lotutako koordinazioan; lekuen hazkundera eta abiarazitako programa berriak; eta gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonen egoerarentzako erantzunari buruzko txosten bereziko gomendioak betetzeari eragiten dion hobekuntza edo aldaketa oro.

Erantzunak honakoak izan dira:

• **Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila**

Hasteko, logikoki, garapen soziosanitarioaz baino ez dugula galdetu zehaztuko dugu. Jasotako informazioa gaitz kronikoei buruzko atalean bildu dugu, eta horri lotzen gatzaizkio, azterketa zabalagoa egiten baita. Bertan Osasun Sailak igorritako erantzunaren edukiaren zati bat jasoko dugu; bertan, agerian geratzen da talde horri eragiten dion garapen soziosanitariorik aurreikusten ez dela.

Osasun Saileko koordinazio soziosanitariotik igorritako erantzunak egindako lanei buruz dihardu. Jarduketa horiek behar bezala bete gabe egonda ikuspegi soziosanitarioko arreta behar duten arloak identifikatu dituzte. Arloak honakoak dira: egoitzetan dauden adinekoak eta goiztiarrak izan ohi diren adingabeak edo, erditzeko zailtasunengatik, traumatismoengatik edo tratu txarrengatik, garatzeko arriskuak edo zailtasunak dauzkatenak. Arlo horietan diziplina arteko lan batzordeek proposamenak egiten dihardute. Lehentasunezko beste arlo batzuk honakoak dira: gaizo psikiatrikoak, garuneko kalteak eta zaintza leungarriak kanpora eramatea. Bestalde, jakinarazi dutenez, oraindik ez da dagokien sektoreen arteko desbideratze edo transferentziarako protokolorik edo hitzarmenik prestatu. *“Baina edonola ere, berriazko baliabideak sortzea Foru Aldundien eskuduntza da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera.”*

• **Arabako Foru Aldundia**

– **Arreta soziosanitarioaren** garapena

a) Baliabide berrietarako edo leku gehiagorako aurreikuspena:

Arabako Foru Aldundiak jakinarazi du egun Gizarte Ongizateko Foru Institutuak hitzartutako 140 egoitza leku, eguneko arretarako hiru leku eta hezkuntza jarraipeneko 7 dauzkala, gutxira bereizitako 14 egoitzatan (egoitzak edo tutoretzapeko pisuak). Bestalde, Foru Aldundiak buruko gaitzari lotutako elkarte mugimenduaren jarduerak bultzatzen ditu; elkarte mugimenduak buruko gaitza daukaten pertsonak gizarteratzeko eta lan munduratzeko baliabideak planifikatzen, sortzen laguntzen eta mantentzen hartzen dute parte. Bere idatzian, erakundeei, baliabide motari, leku kopuruari, programei eta 2008rako esleitutako aurrekontuari buruzko informazioa ematen du.

b) Lan modu eta tresnei buruz:

Adierazi dutenez, planteamendu sozio-komunitarioaren esparruan, buruko osasunaren errealitateko psiko-hezkuntzako esku-hartzean lan egiten duten pertsonen zuzendutako etengabeko prestakuntza eskaintzarik eza ikusi dute. Horregatik, UHUN eta "Beti Gizartean" Fundazioarekin hitzarmena sinatu dute, UHUNen titulua eta 2008-2009ko Etengabeko Prestakuntzako ikastaro instituzionala izateari begira, "Komunitateko Buruko Osasuneko Aduku Ikastaroa" egiteko.

Koordinazio eta informazio tresna komunei dagokienez, "Taldea ahulei edo gizarte bazterkeria arriskuan daudenei zuzendutako Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren mendeko baliabideetarako eskaerak eta sarbidea lzapidetzeko prozedura" prestatu dute; hura aplikatuko da Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren mendekoak izanda, gizarte bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden pertsonen zuzendutako baliabide espezializatuak eskatzeko edo eskuratzeko, besteak beste: GIB/IHESA duten pertsonentzako baliabideak eta buruko gaitza duten pertsonentzako baliabideak.

– Aurrerapenak Eusko Jaurlaritza eta espetxe sistemarekiko **erakundeen arteko koordinazioan**

Zigortutako pertsona taldeari dagokionez, Arabako Batzar Nagusiak, 2008ko martxoaren 31n, mozio bat onartu zuen; bertan, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailarekin elkarlanean, Langraizko Espetxean egonda sendaezinezko pairamendun gaitz oso larriak dauzkaten zigortuak hartzeko zentro espezializatuak sortzea proposatzen zen. Aldez aurretiko hausnarketa eta kontaktuen ondoren, dauden premiei buruzko ikerketa eta diagnosia egitea adostu dute. Ikerketa 2008. urteko bukaera aldera esleitu da, eta haren helburuak honakoak dira:

1. Eskaria kuantifikatzea eta sendaezinezko pairamendun gaitzak dauzkaten zigortuen ezaugarriak definitzea.
2. Haien premiak betetzeko erabil litezkeen egungo baliabideen eskaintza aztertzea.
3. Pertsona horientzako berariazko baliabidea sortzea egokia den baloratzea.

Ikerketak hiru espetxeetako zuzendaritzen, Eusko Jaurlaritzaren, aldundien, elkarten eta Espetxeetako ordezkarien baten informazioa bildu nahi du.

– Aurrerapenak gizarteratze arloko **koordinazioan**

Arabako Foru Aldundiak "Baztertutako pertsona taldeak gizarteratzeko mahaia" osatzen du parte, Gasteizko Udalarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta gizarte erakundeekin batera. Aurten mahaia behin baino ez da bildu.

Bestalde, Arabako koadrila guztietan, gizarteratze teknikariek, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte langileek, Komunitateko Prebentzioko teknikariek, lan teknikariek eta gizarteratzeko udal planetako teknikariek osatutako "Gizarteratzeko Batzordeak" garatu dira. Batzordeak hiru hilean behin biltzen dira, eta bertan premiak aztertu eta koadrila bakoitzari eta pertsonen banakako premiei egokitutako programak diseinatzen dira. Koadrila bakoitzeko batzorde bat dago, Aiaran izan ezik, bertan hiru baitira. 2008an 15 bilera egin dira.

- Egoitza zerbitzuetako eta egoitzarako ez diren zerbitzuetako **lekuen hazkundera** 2008. urtean eta abiarazitako **programa** berriak

2008an, GOFIak Laudioko Okupazio zentroan buruko gaitza daukaten pertsonentzako leku gehiago (15-20 leku) egin ditu eta buruko gaitza daukaten pertsonentzako tutoretzapeko pisu berri bi zabaldu ditu, bata hiru lekukoa eta bestea 10ekoa.

Gainera, Bizitza Berria Elkarteari 190.000,00 euroko dirulaguntza eman dio gizarte bazterkeria larriko pertsonentzako "Betoño Etxea" Zentroa irekitzeko eta garatzeko; egoitzak guztira egoitzako 21 leku eta egonkortzeko beste 5 dauzka.

Etorkizunari begira, Arabako Lurraldeko Batzorde Soziosanitarioko Buruko osasuneko azpibatzordea, 2009ko bigarren seihilekoan, "Abegia" zentroa edo patologia anizkoitzak daukaten pertsonentzako baliabide soziosanitarioa abiarazteko profilak, metodologia eta aurrekontuak definitzen ari da.

• **Bizkaiko Foru Aldundia**

Hasteko, adierazi behar da, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatuta, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila honako ikerketa ari dela prestatzen: "*Bizkaiko etxerik gabeko pertsonen ezaugarriei eta premiari buruzko ikerketa*." Ikerketak holako pertsonen arazoei kuantitatiboki eta kualitatiboki hurbildu nahi du, eta ezaugarriak ez ezik, haien premiak ere argitu nahi ditu. Ikerketak haien osasunari buruzko atal berezia jasotzen du. Ikerketa 2009ko lehen hiruhilekoan bukatuta egotea espero da.

Bizkaiko Foru Aldundiak gizarte bazterkeriako arriskuan dauden pertsonen lotutako honako programei buruzko informazioa ere eman digu.

- Leku gehiago Mundutik Mundura Programaren baitan

Honakoa jakinarazi zaigu: "*a través de este Programa, la Diputación está posibilitando un proceso de emancipación a las personas inmigrantes mayores de 18 años que han hecho un proceso de al menos un año en el Servicio de Protección a la Infancia. Con el incremento de menores no acompañados que llegan a Bizkaia y, por consiguiente la elevación del número de ellos que acceden a la mayoría de edad, la Diputación Foral de Bizkaia ha optado por incrementar su oferta de plazas en el Programa Mundutik Mundura, alcanzando al final del año 2.008 el número de 83. Con las rotaciones que hay en el Programa, se estima que no menos de 150 jóvenes pueden pasar anualmente por ese proceso de emancipación.*"

- Hitzarmena "Hemen" Partzuergoarekin

Honakoa adierazten da: "*Las condiciones de acceso al Programa Mundutik Mundura, especialmente la permanencia de un año en el Sistema de Protección a la Infancia, hacía que los menores que salían de los Centros al cumplir 18 años se encontraban sin ninguna cobertura formal de apoyo. Por eso, se ha diseñado un Programa de Acompañamiento a estos jóvenes para lo cual se ha formalizado un Convenio de Colaboración con un grupo de Entidades del Tercer Sector, agrupadas en el **Consortio Hemen**, para acompañar a estos jóvenes.*"

– GIBak jota eriondo dauden pertsonentzako egoitza dispositiboa

Azpimarratu behar da, osasun erakundeekin maiz dauzkan harremanen bidez, Aldundiak *“detectó la necesidad de crear un dispositivo para personas con SIDA que, tras pasar un proceso agudo con ingreso hospitalario, no disponían de ningún lugar donde poder llevar a cabo una convalecencia en condiciones que les condujera a la recuperación esperada.*

El Departamento tomó la decisión de crear ese Centro y entró en contacto con la Asociación T4 con quien se firmó un Convenio de Colaboración para la apertura de un Centro para 14 plazas. En estos momentos está el dispositivo creado y en funcionamiento, si bien en una ubicación provisional con una capacidad para 8 plazas.”

– Koordinazio mekanismoak

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko bestelako Sailekin eta beste administrazioekin bultzatu diren **koordinazio mekanismoei** buruzko informazioa eman digute.

“1.- Ayuntamiento de Bilbao: Reuniones mensuales para coordinar todas las actuaciones que incidan sobre personas en situación o riesgo de exclusión social.

2.- Departamento de Empleo y Formación de la Diputación Foral de Bizkaia. Además de permanentes contactos entre ambos Departamentos, se ha llevado a cabo una iniciativa singular. Con asistencia de los dos Departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia, EUEDEL, Entidades del Tercer Sector y la BBK, se ha llevado a cabo un Seminario sobre Inclusión Activa, para, siguiendo directrices europeas, elaborar un Plan Piloto en Bizkaia de Inclusión Activa. Este Seminario ha finalizado y Bizkaia dispone de un Plan Piloto de Inclusión Activa que pretende básicamente la inserción laboral, siempre que ésta sea posible, de personas perceptoras de Renta Básica. Es un Plan complejo que ya ha sido presentado a la sociedad vizcaína’ y que está en sus primeras fases de desarrollo.

El trabajo con el Departamento de Sanidad sigue incrementándose y como dato significativo y singular de esta coordinación en el tema que nos ocupa, es la asignación conjunta de las plazas en dispositivos como Bizitegi.”

Gizarteratze arloan aldundiaren erantzukizuneko zerbitzuak kudeatzen dituzten Udal eta erakundeei lotutako **eskuduntza banaketako eta koordinazioko aurrerapenei** dagokionez, Sailak balorazio oso baikorra egiten du *“porque ha ayudado a centrar las actuaciones de todas las partes implicadas, redundando en una mejor atención a las personas”*.

Foru erantzukizuneko zerbitzuetarako sarbidearen **kudeaketa sistema zentralizatuaren balorazioari** dagokionez, informazioa eskatzeko idatzian honakoa helarazi genien: *“las asociaciones planteaban que se daba la situación de plazas libres en los recursos y que el proceso de asignación era largo, por lo que podía darse que “algunos perfiles” abandonaran el proceso iniciado. También que en ocasiones no se ajustaba las características del recurso al perfil de la persona a ala que se le ha asignado. Se trataría de conocer si existe algún sistema de evaluación del servicio y la memoria de actividad”*

Balorazioaz, Bizkaiko Foru Aldundiak honakoa erantzun digu: *“sigue siendo positiva por parte de la Diputación Foral de Bizkaia. Se mantienen reuniones periódicas con las Entidades gestoras de*

estos servicios y no aparece éste que menciona su escrito como un problema significativo; al ser un sistema de reciente implantación, puede tener problemas iniciales de ajuste, pero entendemos que se ha ido progresivamente mejorando y que el sistema está ya bien implantado."

Gai horri dagokionez, Bizkaian gizarte bazterkeriako arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten elkarteekin izandako bilerari buruz epigrafe honetako beste atal batean egiten den aipamenari lotzen gatzazkio; bertan, zerbitzuaren mugei buruz hitz egiten da.

Bukatzeko, 2009. urterako esklusioaren aurkako borrokaren arloan aurrekontuetan jasotako zentro eta lekuei eta Sailak 2008-2011 aldirako daukan Plan Estrategikoari buruzko informazioa eman digute.

• **Gipuzkoako Foru Aldundia**

– Jarduerak

Gipuzkoako Foru Aldundiak burututako jarduketak helarazi dizkigu:

"1- Enplegua sustatzea. Enplegua sustatzeko programak dekretu eta erabaki hauen bidez arautu dira: alde batetik, 2008ko apirilaren 29ko 28/2008 Foru Dekretua, Gizarte Politikako Departamentuko enplegu programak arautuko dituzten oinarriak onartzen dituena (GAO, 24. zk., 2008ko maiatzaren 5ekoa), 3.360.896 euroz hornituta; eta beste aldetik, Diputatuen Kontseiluaren 2008ko ekainaren 24ko Erabakia, gizarte izaerako zailtasun larriak dituzten pertsonen autoenplegurako laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituena (GAO, 125. zk., 2008ko uztailaren 1ekoa), 336.684 euroz hornituta. Bi programek xedetzat dute lan munduan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua, lagun egitea bultzatuz, prestakuntzaren eskaintza doituz, eta autoenplegua nahiz berrikuntza kontuan hartuz.

2.- 24 orduko larrialdi zerbitzua apirilaz geroztik normal ari da lanean. Gipuzkoako Foru Aldundiak prestatutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapan beharrezkotzat jo da larrialdiko ostatu plazak edukitzea. Urtearen barruan Larrialdi Zerbitzuaren eskura jarri dira adinekoen egoitzako bi plaza, Larrialdi Zerbitzuan hartuak diren eta gainbegiratu beharra daukaten adineko pertsonak edo beste batzuek erabil ditzaten. Ostatu emateko baliabide berri baten identifikazioa kudeatzen ari gara, baina, bien bitartean, pentsioetan hartzen dira.

3.- Abuztuan abiatu zen baliabide berri bat, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei zerbitzu osoa ematekoa: 20 plazarainoko instalazio bat da, biktimentzat eta laguntzaileentzat pentsatua. Funtzionamendua Lurraldeko udalekin koordinatu da; gainera, Donostiako Udalarekin hitzartu da Donostiak daukan udal baliabidearekin batera erabiltzea. Gainera, biktimei dagokienez, aurrera darrai laguntza psikologikoa emateko programak, eta hitzarmen bat sinatu da Gipuzkoako Abokatuen Elkargoarekin, salaketa jarri aurretik lege aholkularitza ematekoa. Azpimarratu beharra dago zerbitzu hori ez duela jasotzen Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenak. Udalekin elkarlanean, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzat, Gipuzkoa Plana izenekoa ezartzea kudeatzen ari gara.

4.- Gizarte bazterkeriaren arloko zerbitzuak ematen dituzten erakundeekin Departamentuak sinatuta dauzkan hitzarmenei dagokienez, esan beharra dago erakundeekin definitu eta adostu direla askotariko laguntza ereduak edo motak, modulu ekonomikoak eta guzti. Horri buruz azpimarratu beharra dago 2008ko ekitaldian aplikatutako hitzarmeneko batez besteko gehikuntza % 30ekoa izan dela, aurreko urtean –2007– indarrean egon ziren modulu ekonomikoen aldean. Joera horrekin jarraituz,

2009ko ekitaldirako, alderdien arteko konpromiso berriak definitzeko lanean ari gara, hitzarmenei gehitzeko, baita orain arte kontuan hartu gabeko kostu kontzeptuak hitzarmenei gehitzeko ere.

5.- Kartzelatik ateratzen direnei laguntzea, Loiola Etxea erakundeak Martutuneko espetxean hasten duen programaren bitartez. Presoen eta preso ohien irteerak eta baimenak koordinatzen dira, eta gizarteratzeko prozesu batean konprometitzen dira. Loiola Etxean ostatu emanez eta lagun eginez gauzatzen da –hamabi plaza–, eta gero intentsitate txikiagoko jarraipena egiten da sei plazako bi pisutan.”

– Beste jarduera batzuk

“Gizarte Politikako Departamentuak beste jarduera hauek ere sustatu ditu bazterkeria jasaten ari diren edo jasateko arriskuan daudenentzat:

- Prestakuntza ikastaroak gizarteratze arloko profesionalentzat, Osakidetzako profesionalek emanak. Partaidetza eta balorazio handia izan dituzte, profesionalentzako baliabide gisa identifikatuta.

- Diagnostiko, balorazio eta orientazio programa finkatzea, 2009an zabaltzeko asmotan.

- LORTUZ programa ezartzea eta finkatzea. Ezaugarri du Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatuta egotea, hartara adingabe emantzipatuen arretan etenik egon ez dadin legezko tutoretza amaitzen zaienean. Programa horren emaitza gisa, 2008an 31 plaza berri sortu dira emantzipazio prozesuan dauden gazteentzat Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapan aurreikusita dago 100 plaza gehiago sortzea 2008tik 2012rako aldiari.

- Etxegabeentzako programekin jarraitzea.

2008an gizarteratze zerbitzuen zenbait erabiltzaile identifikatu dira,ustez sareko beste zerbitzu batean arretea eman beharko litzaiekeenak. Diagnostiko eta orientazio prozedurak definitu dira, hartara bazterkeria jasaten ari diren pertsonak beren beharren ezaugarriari ondoen egokitzen zaizkien baliabide orokorretara bideratuak izan daitezen.

Gizarte Zerbitzuen II. Mapan aurrekusi da ondorengo baliabideak sortzea buruko gaixotasuna duten pertsonentzat:

1. Intentsitate txikiko etxebizitzak: 36 plaza
2. Intentsitate ertaineko etxebizitzak: 30 plaza
3. Intentsitate handiko egoitza unitateak: 68 plaza
4. Eguneko zentroak, errehabilitazio psiko-sozialekoak: 47 plaza

- Gizarte Politikako Laguntza, Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusiko teknikari bat sartzea Osakidetzarekin batera eraturako koordinazio eta balorazio sozio-sanitarioko batzordean. Era berean, lankidetzaren sozio-sanitarioaren esparruan, Gizarte Politikako Departamentua Eusko Jaurlaritzari proposatzen ari zaio batera finantza dezaten buruko gaixotasunetan aditua den teknikari bat, gizarteratze erakundeetara laguntzeko.”

Azkenik, jakinarazi dute “2008. urtean ez dela itxaron zerrendarik izan, eta egindako eskaera guztiei erantzun zaiela, onargarritzat jotzen den egokitasun maila batekin erantzun ere.”

Hiru euskal hiriburuetakoko Udalak

Arestian adierazi legez, hiru euskal hiriburuetakoko udalei ere antzeko eskaerak egin dizkiegun informazio eske: arreta soziosanitarioaren garapena; aurrerapenak Foru Aldundiari lotutako eskuduntza banaketan eta koordinazioan eta larrialdiko gizarte esku-hartzerako Udal, administrazio eta erakundeetako sailei dagozkien jokabide protokoloak eta haien edukiak. Baita abiarazitako baliabide berriei buruz ere: programa berriak, plaza gehiago, jantokiak, kontsigna, arropa garbiketa... bezalako zerbitzuen eta haietarako irisgarritasunaren hobekuntza, eta *Etixerik gabe eta gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonen oinarrizko premientzako erantzunak* txosten bereziko gomendioak betetzeari lotutako bestelako edozein jarduketari buruzkoak.

Udal horiek igorritako informazioko alderdirik garrantzitsuenak islatuko dira.

• **Bilboko Udala**

– Bizilekurik gabeko pertsonekin (BGP) kalean esku-hartzeko programa

1999an hasi zenetik, programak pertsona baliabideak eta baliabide teknikoak hobetu ditu. 2008an gizarte-hezitzaile bat gehiago sartu da, eta oraintxe bertan 4 gizarte-hezitzaile dira.

2007 eta 2008. urteetan urrats garrantzitsuak eman dira egindako esku-hartzea sistematizatzeari dagokionez. 2008an Gizarte Ekintza Sailean esku-hartzeak erregistratzeko eta datuak ustiatzeko erabiltzen den aplikazio informatikoa prestatu da.

Bestalde, hiriko aldi baterako ostaturako zentroekin eta GLUZrekin (Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzua) egindako koordinazio lana indartu da, hasitako edo berrasitako gizarteratze prozesuak bultzatzeko eta gizarteratze ibilbide pertsonalizatuagoak diseinatuz.

2008. urtearen hasieran udalerraren ekomapa sistematikoki egin da kalean lo egiten duen jende kopurua eta lekuak jasotzeko.

– Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzua (GLUZ)

Lagundutako jendeari zerbitzua irisgarriago bihurtzeko asmoz, 2007ko otsailean Elejabarriko Udal Aterpea egungo tokira, Mazarredo 22ra, eraman zen.

2007an profesional taldea handitu zen, 6 gizarte langiletik 9ra, eta administrazio langile 1etik 1,5era.

2007ko martxoan GLUZk kudeatzen duen oinarrizko premientzako Arretarako Udal Programa abiatu zen. Haren helburua eskariaren kudeaketa eta oinarrizko premiak, hots, aldi baterako ostatua, elikadura eta arropa, betetzeko prestazioak eskaintzen dituzten baliabideetarako sarbidea. dira. Udal erantzukizuneko zerbitzuetara zentralizatutako kudeaketa sistema da, eta erabiltzaile, profesional eta herritar guztientzako erreferentziatzeko zerbitzu bakarra izateko eratu da. Dagokien erakundeekin aipatu prestazioetarako sarbidea arautzen duten beharrezko prozedurak burutu dira.

2008an Udaltzaingoaren eta GLUZren artean babesgabetasun egoerak biltzen dituen Jokabide Koordinaturako Prozedura egin da.

2008. urte osoan lan talde batek udaleko Larrialdiko Zerbitzuen Gutuna prestatu du.

– Neguko Ostaturako dispositiboa

2004-2005eko negutik Mazarredo 22an burutzen da. 50 leku dauzka eta muturreko eguraldiaren pean 100era handitzen da. Urteotan eredia sendotu egin da eta, gainera, uda honetan eskakizun gutxiko gaueko zentroaren ordutegia zabaltzeko neurria abiarazi da, jarraian azalduko denez.

Datu bilketa eta koordinazioa sistematizatu dira Kaleko Esku-hartzeko Programarekin, GLUZrekin, Gizarteratzeko Zentroekin, eskakizun txikiko Gaueko Zentroarekin eta Elejabarriko Udal Aterperekin gizarteratze prozesuak bultzatzeko.

– Eskakizun txikiko gaueko zentroa

2005eko azaroan zabaldu zen. Txostena prestatzeko eta argitaratzeko uneari dagokio, horregatik ez da ageri. 32 lekuko eta eskakizun txikiko zentro mistoa da. Ordutegia 21-9 bitartekoa da. Arduratzen den taldea 4 gizarte-hezitzailek eta zinpeko jagole batek osatzen dute.

Printzipioz pertsona autonomoa izatea eskatzen bada ere, bestelako aukerarik ez dagoenez gero, malgutu eta mugikortasun zailtasun larriak dauzkaten pertsonak onartu ditugu.

Negu honetan (2008ko azaroa – 2009ko apirila) ordutegia zabaltzea dakarren neguko neurria abiarazi da: egunero 19 orduetan zabaldu eta jaiegun eta asteburuetan 15 orduetan.

2008ko abenduan Sta. Marina Ospitalearekin TBC detektatzeko eta tratatzeko lankidetzako protokoloa abiarazi da.

2007 eta 2008. urteetan GLUZrekin dagoen koordinazioa nabarmen areagotu da.

– Gizarte jantokiak

Frantziskotarren jantokiak eta Apostolikoen jantokiak ordu batzuetan eguneko egonaldiko prestazioa daukate jantokien erabiltzaileentzat.

– Elejabarriko udal aterpea

Eskakizun txikiko gaueko zentroan bezala, printzipioz pertsona autonomoa izatea eskatu arren, beste aukerarik ez dagoenez gero, malgutu eta mugikortasuneko zailtasun larriak dauzkaten pertsonak onartzen dira.

2009an Elejabarriko Aterpean, esperimentatzeko, susperraldia behar duten BGPentzako arretarako programa abiaraziko da.

Programaren helburua etxerik gabe edo eskusio larrian egonda, eguneroko bizitzako jardueretarako aldi baterako mendekotasun funtzionala daukaten pertsonen egonaldi egokia, jana, zaintza pertsonalak eta osasun zaintzak ematea da.

– Erakundeen **koordinazioa** eta finantzaketa

2005ean Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak gizarteratze eta eskusio arloetako zerbitzuak eta programak (gizarte jantokiak, gaueko zentroak, tailerrak, informazio zerbitzuak) banatzea adostu zuten.

Gizarte jantokiaren eta gaueko zentroen finantzaketa diru-laguntza deialdietatik irteten da, eta erakunde bakoitzarekin ezartzen dira hitzarmenak.

2005az geroztik, Gizarte Ekintza eta Hirigintza eta Ingurumen Sailen eta zehazki Udal Etxebizitzaren artean aldiro koordinazioa ezarri da, elkarrekin bizileku bazterkeriako egoera larri batzuk aztertzeko.

– **Erroldatzea**

Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Sailak urte batzuetatik hona bizilekurik gabeko pertsonak erroldatzeko darabilen prozedura berrikusi du. Berrikusketa bakoitzaren ondorioz aldaketa batzuk egin dira. Esanguratsuenaren arabera, hirugarren sektoreko erakundeek elkarlan hitzarmenak sina ditzakete Gizarte Ekintza Sailarekin erakundearen pisuetan euren zentro eta programetan laguntza jasotzen duten pertsonak erroldatu ahal izateko.

• **Donostiako Udala**

– Arreta soziosanitarioaren garapena

Adinekoentzako arretatik harago (eta hark ere gabeziak dauzka) doan arreta soziosanitarioko baliabiderik ez dagoela adierazi dute. Bereziki, azpimarratu dute ez dagoela buruko osasun arazoak daukaten pertsonentzako arretarako baliabiderik. Hori dela eta, haien eskuduntza diren izaera orokorragoko baliabideetatik (Harrera zentroak, Etxez etxeko laguntza, Pertsona autonomoentzako ostatuko zerbitzuak, Larrialdietarako pisuak...) ematen zaie laguntza, eta holakoek "ez daukate –eta ezin dute izan– gaitasunik funtzio hori behar bezala betetzeko".

Diotenez, gainera, ez da aurreikusten leku soziosanitarioak gehitzea haien aburuz ez delako Udalaren eskuduntza. Donostiako Udalak, ordea, bestelako baliabideen bidez hartzen dituen pertsonentzako osasun arreta hobetzeko ahaleginak egiten ditu.

Hitzarmen garrantzitsu bi azpimarratu behar dira:

- GHUZko erabiltzaileei osasun arreta emateko hitzarmena (egoera bi bereizten dira: Osasun Zentrorik hurbilenean arreta jasotzen duten "egonaldi luzeko" pertsonak, eta arreta gehien bat Sorospen Gelan jasotzen duten eta "iragaitzaz" dauden pertsonak).

- Muturreko eguraldiko egoeretan kalean lo egin eta harrera zentro batera joateari uko egiten dioten pertsoneri arreta emateko hitzarmena.

Horiez gain, Donostiako Udalaren eta Osakidetzako Gipuzkoa Ekialde Eskualdearen arteko lankidetzako protokoloa prestatzen ari da ikerketan aipatutako komunitateko arreta sozio-sanitarioa koordinatzeko. Udalak adierazi duenez, uste baino arazo gehiago izan dira hura zehazteko eta oraintxe bertan ez dago aurreikusterik noiz sinatuko den.

Erantsi dutenez, azken zirriborroan ez da ia ezer sartu etxegabeentzako arretari buruz.

Puntu horri dagokionez, Udalak uste du *“protokoloarekin zein hura gabe, gizarte zerbitzuen eta osasun zerbitzuen arteko harremana etengabea dela eta, Donostiako udal batzuetan, gero eta eraginkorragoa”*.

– Aurrerapenak Foru Aldundiarekiko **eskuduntza banaketan eta koordinazioan**

Gipuzkoako hiriburuko Udalak Foru Aldundiarekiko eskuduntza banaketan eta koordinazioan aurrerapenak onartzen ditu eta honakoa adierazten du *“a partir de la concentración de toda la acción social de la DFG en un solo departamento se han establecido vías de comunicación más efectivas entre ambas instituciones lo cual ha llevado a avances importantes en algunas cuestiones que afectan a las personas sin techo como la atención a Mujeres Víctimas de Violencia de Género (muy importante en este ámbito) o en la atención a situación de Emergencia Social.”* Hala ere, onartzen duenez ez dute jokabide eredu komunik lortu.

Gainera, eskuduntza banaketan zailtasunak aipatzen ditu, administrazio batek edo besteak noiz esku hartu behar duen erabakitzeke irizpideetan adostasunik ez dagoelako.

Gai horretan azpimarratu beharreko programei dagokienez, honakoak aipatzen dituzte:

– Larrialdiko gizarte esku-hartzea

2007ko maiatzean Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua abiarazi zen, eta urteko egun guztietan 24 orduz dihardu. Harrezkero jokabide protokolo zenbait sortu dira:

- Genero indarkeria.
- Adingabeak arriskuan.
- Bizilekurik gabeko pertsonak eta muturreko eguraldia.
- Mendeko pertsonak.
- Hondamenak (pertsona kopuru handiari eragiten dioten kalteak).
- Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuak antzemandako larrialdiak.
- Albiste txarren jakinarazpenak.

la protokolo guztietan Udaltzaingoarekin eta Udalaren beste sailekin edo bestelako erakundeekin koordinatuta jokatzen da.

– Baliabide berriak

Arartekoak bizilekurik gabeko pertsoneri buruz prestatu zuen txostenean aipatutakoez gain, Donostiako Udalak honako baliabide/programa berriak sortu ditu:

- Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua (24 orduko gizarte arreta).
- Ate Irekiko Zerbitzua. INMk Donostiarako egiten duen tenperatura iragarpena 0 gradutik beherakoa den guztietan irekitzen den lokala da, eta bertan kalean lo egiten duten pertsona guztiei uzten zaie sartzeko.
- GHUZren eranskina. Gizarte Harrera Zentroaren lursailak adingabeak dauzkaten familiei harrera egiteko daukan lokala da.
- Kaleko teknika. Bizilekurik gabeko pertsonengana kalean bertan hurbil dakiekeen langile baten kontratazioa da.
- Gainera, Neguko Aterpea (Eskakizun Txikiko Lokala zena) zerbitzu mailan instalakuntza onak dauzkan Zorroagako lokan batean jarri da; 40 lekuak gorde ditu, eta larrialdietan 45era zabaltzen da.
- Kultura arteko Bitartekaritza zerbitzuak, hasierako helburuetan etxegabeekin zuzenean lan egitea ez ba zeukan ere, bere denboraren zati handi bat etxerik gabeko etorkin taldeekin lan egiten eman du (batez ere magrebtar eta errumaniarrek), orientazio eta konpainia funtzioetan.
- Etxebizitzako Enpresa Erakunde Publikoarekin (Udalaren etxebizitza patronatua zena) larrialdiko hiru pisu trukatu dira, mugikortasun arazoak dauzkaten pertsonen haientarako irisgarritasuna ahalbidetzeko.
- Gizarteratze Hitzarmenerako Laguntzako laguntzen benetako gastua ia 190.000 euroraino handitu da. Holako laguntzak orain arte Gizarte bazterkeriaren Legea zeneko prestazioak ezin eskura ditzaketan pertsonen ematen zaizkie, batzuetan, lege horrek jasotzen ez dituen gastu kontzeptuengatik. Laguntza horren ideia, batez ere, honakoa da: estalita ez egoteak kalte handia sor ditzakeela baloratu ondoren, premiei oso azkar aurre egin ahal izatea. Oso balorazio ona egiten dute, bai ahultasun egoeretan dauzkaten ondorioei dagokienez, bai marjinazio handiagoko egoeretara igarotzea prebenitzeko tresna izateari dagokionez.
- Ildo beretik, honakoa uste dute *“la Renta Básica y las AES son dos recursos fundamentales para prevenir que muchas personas acaben en situaciones de sin hogarismo. Por ello el Ayuntamiento de Donostia ha aportado cerca de 1.500.000 € a los 2.550.000 que pone el Gobierno Vasco para las AES. Se ha creado un nuevo taller dentro del programa de promoción y acompañamiento social, esta vez especialmente orientado a mujeres gitanas y se ha ampliado en una plaza cada uno de los otros dos. Estos talleres (38 plazas en total) están orientados a personas en situación de exclusión grave, con gran alejamiento del mercado laboral y, normalmente, una utilización muy inadecuada del tiempo libre. La valoración que hacen de su repercusión en personas muy frágiles es muy positiva.”*

• Gasteizko Udala

– Arreta soziosanitarioaren garapena

Gasteizko Udalak adierazi duenez, arreta soziosanitarioan dagoen gabezia Bizilekuko Esklusio Egoeran dauden Pertsonetatik (BEEP, aurrerantzean) harago doa, baliabide faltak holako pertsonengan eragin larriagoa izan dezakeela onartu arren.

Honakoa uste dute: *“la atención a las personas sin hogar con patología dual requiere recursos sociales y sanitarios.”* Honakoa ere azpimarratzen dute: *“son los recursos sociales quienes fundamentalmente acogen a las personas con problemática de patología dual, dado que los recursos sanitarios establecen una atención ambulatoria que no responde a las necesidades específicas y especializadas que estas problemáticas requieren tal y como señala los expertos en el campo. En este sentido, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, más allá de sus competencias, desde sus programas y recursos y desde sus equipos multidisciplinares de profesionales puede decirse que trata de realizar un abordaje integral de las problemáticas que le surgen. En consecuencia, se realiza la diagnosis sobre la situación para tratar de, una vez consensuada con las personas usuarias, realizar una derivación hacia los Servicios Especializados (CTT, Dispensario de Alcoholismo, Centros de Recuperación y tratamiento de toxicomanías...); pero la realidad enseña que posteriormente deben ser los Servicios Sociales desde sus Centros y Recursos quienes deben acompañar y apoyar a las personas con problemática de patología dual (supervisión en la ingesta de medicamentos, apoyo psico-educativo, apoyo emocional,...) dado que los Servicios Sanitarios realizan una función que no es compaginable con el, a veces, escaso compromiso personal de las personas que sufren estas problemáticas.”*

Honakoa ere adierazten dute: *“la necesidad de llegar a consensos en la materia en la que se está hablando, puesto que en los ámbitos de coordinación o en los diferentes marcos de colaboración y de encuentro que se proponen entre “lo social” y “lo sanitario,” se constata que los “puntos de partida” para el abordaje de las problemáticas y el acompañamiento en el itinerario de las personas que sufren estas problemáticas son diferentes. Tanto es así que, suele darse el caso en el que el ámbito sanitario (psiquiátrico), sitúe el peso del diagnóstico en los “trastornos de conducta” evitando otro tipo de diagnosis patológica más grave y trasladando la responsabilidad de la respuesta al ámbito de lo “social.” Conllevaría la necesidad de consensuar:*

- *Conceptos y códigos de lenguaje,....*
- *Procedimientos y protocolos de colaboración delimitando ámbitos de trabajo y responsabilidades mutuas, de apoyo, de responsabilidades propias y diferenciadas, establecimientos de plazos referenciales, de profesionales a intervenir en cada fase de los itinerarios, en la aplicación de recursos,...*
- *Ámbitos competenciales.*

Así mismo, se señala la necesidad de implementar una MESA o FORO de TRABAJO TÉCNICO además del Foro interinstitucional y político existente para acordar propuestas de trabajo operativas derivadas de la MESA o FORO INTERINSTITUCIONAL”

– **Baliabide** berriak edo leku **gehiago**

Bestalde, dauzkaten baliabideen berri eman digute:

- *Gizarte Larrialdiko Pisuak, Udalaren –Gasteizko Udala– titulartasun publikokoak dira, eta kudeaketa zuzena daukate. Egun, 2009an, Gizarte Larrialdiko Pisuak honakoak dira:*
 - *Genero indarkeria pairatzen duten emakumeentzako Gizarte Larrialdiko pisuak: 9 pisu. 49/57 leku.*
 - *Genero indarkeria pairatzen duten emakumeentzako Berehalako Harrera Zentroak (Pisuak): 3 pisu. 11/13 leku.*

- Gizarte Larrialdiko Pisu balioaniztunak: 6 pisu. 34 leku.
- *Vitoria Etxea, udalaren –Gasteizko Udala– titulartasuneko baliabidea* da eta Elkarre Afroamerikarrak kudeatzen du (Hitzarmena). Egun, baliabidea birdiseinatu arte, Pisuetan kokatuta eta 16/18 lekukoa.
- *Ibiltari Programa, udalaren –Gasteizko Udala– titulartasuneko baliabidea* da eta Compartir Elkarreak kudeatzen du (Hitzarmena). Egun 10 lursailetarako, 10 familia-erentzako lekua dauka, eta birdiseinatzen ari da.
- *Tutoretzapeko Pisuak, atzerritarrentzat, udalaren –Gasteizko Udala– titulartasuneko baliabidea* da eta Afroamerikar (2) eta Compartir (1) Elkarreak kudeatzen dute (Hitzarmenak). 19 leku.
- *Etxe Irekia, udalaren –Gasteizko Udala– titulartasuneko baliabidea* da eta Arabako HIESaren aurkako Herritar Batzordea Elkarreak kudeatzen du (Hitzarmena). 12 leku (mantenuko 5 leku gehiago, eta Eranskinako 4 leku gehiago gehitu).
- *Tutoretzapeko Pisuak, gizarte ahultasun larrian dauden pertsonentzat, udalaren –Gasteizko Udala– titulartasuneko baliabidea* da eta Arabako HIESaren aurkako Herritar Batzordeak eta bestelako elkarreak (Ostatu) kudeatzen dute (Hitzarmenak). 23 leku.
- *Gazteentzako Pisuak, udalaren –Gasteizko Udala– titulartasuneko baliabidea* da eta Irse Elkarreak kudeatzen du (Hitzarmena). 4/8 leku.
- *Presoentzako Pisuak: Harrera, baldintzapeko askatasuna, emakumezko presoak...*, titulartasun publikoko baliabidea da –Gizarte Ongizateko Foru Institutua eta Gasteizko Udala– eta Arabako HIESaren aurkako Herritar Batzordeak eta Presoarentzako Laguntza Elkarreak –ASAP– kudeatzen dituzte (Hitzarmenak).
- *Estrada Eguneko Zentroa, udalaren –Gasteizko Udala– titulartasuneko baliabidea* da eta Arabako HIESaren aurkako Herritar Batzordea Elkarreak kudeatzen du (Hitzarmena).
- Erainzi eta Bidegurutzeari Elkarreentzako laguntza: Elkarre horiek kudeatuta, gizarte ahultasunarekin batera buruko osasunari, alkoholismoari, kontsumoei... lotutako arazoak dauzkaten pertsonen harrera egiten dieten Pisuak laguntzeko Hitzarmen Dirulaguntzaren bidez.
- Betoño Etxea kudeatzen duen Bizitza-Berria Elkarreentzako laguntza: Bizileku bazterkeriako egoeran dauden pertsonen ostatu emateari laguntzeko elkarlan hitzarmenaren bidez. Ostatuko 18 leku, eta mantenuko 25 leku arte.
- Besarkada Etxea: GIB izanda egoera terminalean dauden pertsonentzako Harrera zentroa. Titulartasun publikoko baliabidea –Gizarte Ongizateko Foru Institutua eta Gasteizko Udala– eta Arabako HIESaren aurkako Herritar Batzordea Elkarreak kudeatzen du (Hitzarmena).

– Osoko planteamendua

Gasteizko Udalak adierazi duenez, bere helburua izaera orokor eta osoko jarduketak diseinatzea da, azkenean holako pertsonen ahultasuneko egoera konpondu ahal izateko.

Zentzu horretan, honakoa adierazi dute: *“se han ido estructurando los recursos de personas sin hogar desde una menor exigencia hasta niveles de mayor compromiso personal para la adquisición de hábitos y habilidades que pudieran derivar en una más apropiada incorporación social”*

Arreta batez ere Bizileku bazterkerian dauden Pertsonen ematen dieten baliabideak azpimarratu behar dira:

- Eskakizun Txikieneko Zentroak: Estrada Eguneko Zentroa eta Aterpe Gaueko Zentroa. Kalteak txikiagotzeko eta hondatzea geldiarazteko zentroak. Oinarrizko arautegiko zentroak (begirunea, erasorik eza, droga salerosketarik eta kontsumorik eza); gizarte ahultasunik handieneko pertsonak harrapatzeko eta ondoren banakako Lanerako Planak proposatzeko balio lezakete.
- Etxe Irekia: eskakizun handiagoko ostatuko baliabidea; bertara jendea proposamen eta lanerako planak dauzkala iristen da. Zentroan bizi direnei laguntzen dien profesional taldea dauka (Gizarte langilea, hezitzailea eta monitorea).
- Gizarte Harrerako Udal Zentroa (GHUZ): 67 lagunentzako lekua dauka, profesional talde handia, eta, bestelako Udal Gizarte Zerbitzuetatik... bideratuta, ostatu behar duten pertsonen, eta hirian iragaitzaz daudenei ere egiten die harrera.

Holako baliabideei laguntzeko, eta haien erabilzaile batzuentzat sarbidea izateko, Udalaren Gizarte Esku-hartze Sailak Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua (GLUZ) dauka; eguneko 24 orduko zerbitzua ematen du eta 7 gizarte langile eta koordinatzaile 1 dauka. GLUZn, Berehalako Harrerako Zentroaren (BHZ) eta 800 telefonoaren bitartez, genero indarkeria pairatzen duten emakumeentzako larrialdiko laguntza taldea ere sartzen da (Gizarte Langile 1 eta Psikologo 1).

“HURBIL” Intentsitate Handiko Laguntza Taldea ere azpimarratu behar da. Talde hori gizarte langile batek, psikologo batek eta kaleko hezitzaile bik osatzen dute, eta intentsitate handiagoko esku-hartzetik eta lekuan bertan, ahultasun arazo handiagoeekin detektatu diren pertsonekin lan egiten dute, haien artean, BEEPetako batzuk ere.

Honakoak dira erabilitako beste tresnetako batzuk:

- Tailerrak GHUZn, eguneroko bizitzarako norberaren trebetasunak landu ahal izateko, goizeko eta arratsaldeko txandetan ahalik eta pertsona gehienek parte hartu ahal izateko.
- Zentro eta Programetako egiturazko hobekuntzak eta hobekuntza materialak: pertsonen autonomiarako ibilbidean, ahultasun handieneko egoeretan arreta kalitate eta intentsitate handiagokoak izatea bilatzen dute.
- Harrera eta Ostatu Baliabideen Unitatea laguntza irizpideak batzen eta lan tresnetan (Programak eta Proiektuak, Erregistroak, Konpainia Metodoak...) ari da lanean.

– **Lan Modu eta Tresnei** buruz

Gasteizko Udalak, eguneroko lanean agertzen zaizkion eskaerei erantzun ez ezik, bere baliabide eta programen diseinu eta sorkuntzan sakondu nahi izan du, gizarte ahultasuneko egoerak sor ditzaketen zioetan eragiteko eta haiek borrokatzeko. Horrela, zenbait maila eta ikuspegitik egin dute lan:

- *Departamentuzko Plan Estrategikoa*: Lehena, 2003 eta 2007 artean garatua, eta bigarrena, 2009 eta 2013 artean garatzeko. Horren bidez, sailen jokabideen muineko

ildoetan eragin nahi da. Haien artean, gizarte ahultasuneko egoera larrian dauden pertsonentzako, BEEPentzako arretari dagozkionak nabarmentzen dira (Hurbil Taldea, Banakako Planen lana eta koordinazioa, GHUZren berregituraketa...).

- *Ikerketetatik etorritako neurrien ezarpena*: Bizileku bazterkeriako Egoeran dauden Pertsonen dagozkien alderdi eta arazoei buruz lan egin zuen ponentzia politiko-teknikotik datozenak: Aterpe gaueko zentroari buruzko diagnosi ikerketa. Ikerketa horretatik zenbait ondorio atera ziren; ondoriook zentroaren kudeaketa birbideratze-ko balio izan dute eta BEEPei dagokienez, eta haien artean, larritasun handiagoan bizi direnei dagokienez, Udalaren Gizarte Esku-hartze Sailaren jokabide esparrua hobetzeko ikertzen eta aplikatzen ari dira: esparru teorikoaren (premien, erabiltzaileen... ezaugarriak), arautegi eta funtzio esparruaren (kasuistika batzuk bere gain hartzea, erakundeen edota profesionalen arteko koordinazioa, profesionalen esku-hartzea...) mugaketa, leku fisikoaren ebaluazioa, hiriaren sare sozio-komunitarioaren eragina...

Gasteizko Udalak adierazi duenez, baliabide eta programen diseinu globala egiten ahalegindu da, esparru teorikoen, arautegien, funtzionamendu protokoloen eta koordinazioaren laguntzarekin, baliabide eta programok hobeto ibiltzeko, haien ustez ez dagoelako eskuduntza daukaten erakundeek, Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak, emandako irizpide, arautegi, dekretu edo bestelako agiririk. Horretarako:

Azpimarratu behar da udalak Harrera eta Ostatu Zentroentzako –Estrada Eguneko Zentroa, Aterpe Gaueko Zentroa, Etxe Irekia, GHUZ– “Funtzionamendu Arautegiak” prestatu dituela. Arautegiak ez-betetze motak eta haien larritasuna, ez-betetze horiek agerian uzten dituzten ekintzak, ez-betetzeek ekar ditzaketen zehapenak, denborazkotasuna, etab... bilzen ditu.

Neurri horren bidez, gainera, Eusko Jaurlaritzak berak eta Gizarte Zerbitzuen... Legeak ematen dituzten gomendioak eta betebeharrak bete dira, eta erakunde honek egindako gomendio bati ere erantzuten zaio. Arau horiek Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako profesionalen eta erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren gutunaren esparruan burutu behar lirateke; gutunak garapena behar du, batez ere gogoeta orokor batzuek osatzen dutelako.

Gainera, arautegia aplikatzeko proposamenen trataerarako, haiek Baloratzeko Batzordeetarako, jakinarazteko modurako (pertsonentzako eta teknikariarentzako jakinarazpen pertsonala, ALHAO...)... protokoloak ezarri dituzte.

Udalak esparru horren oso balorazio ona egiten du, profesionalentzat banakako gizarteratze prozesu eta ibilbideetarako... lan egitura eta, askotan, aipatzen ari garen baliabideen erabiltzaile onuradunen arteko begirunezko giroa ahalbidetu dituelako, pertsona horiek arautegia- ren berri baitzeukaten.

Gainera, Koordinazioa eta Banakako Lanerako Planak abiaraztea sustatu dira, eta horren bidez pertsona batzuen egoerei malgutasunez eta laguntza handiagoa eta Zerbitzuen eta

are Erakundeen arteko jarraipen koordinatuagoa behar zituzten premia eta arazoei arreta emanaz heldu ahal izan zaie. Horri esker, holako kasuetan, kontuan hartu ohi diren betekizunak (administratiboak, proposamen txostenak...) alde batera utzi dira. Malgutasun horrek, askotan, eta indarreko arautegia gorabehera, jendeak baliabide edota Programa horien onurak jaso ahal izatea ekarri du (mantenu jantokirako txartela, GHUZko edo bestelako ostatu baliabideetako ostatua, joateari uko egiten zioten Alkoholismoko Anbulatoriora joan ahal izateko, CTT...).

Jendearen parte hartzea lortzeko neurriak ere azpimarratu behar dira: GHUZn bide horretan hasi dira lanean, eta horrela Zentroa erabili eta haren onuradun diren pertsonak, euren gaitasunen neurrian, Zentroko laguntza hobetzeko iradokizunak egin ditzakete. Gainera, informazio eta partaidetzarako ohiko bideak daude (iradokizunetarako postontziak zentro guztietan...); erabiltzaileen, langileen eta orokorrean herritarren partaidetza errazten duten bide sistematizatuagoekin batera.

Bestalde, Baliabideen Erakunde Kudeatzaileekiko koordinazioa indartu dute: Lankidetzaz Hitzarmenen esparruan, holako Erakundeekin koordinazio eta jarraipen bilera asko egiten dira. Eta, gutxienez, norabide bikoitzean egiten da:

- Egitura mailan: urteko Proiektutik, aurreko Urteko Ebaluazio Memoriatik... Baliabide edota Programa baloratuz, ikuspegi orokor batetik.
- Jarraipen Tekniko mailan: kasuei buruzko jarraipen bilerak, erreferentziatzeko profesionalak, banakako lanerako planak, helburuak eta jarduketak, tresnak, erregistroak...

– Aurrerapenak Foru Aldundiarekiko eskuduntza banaketan eta koordinazioan

Puntu horri dagokionez, Udalak erakundeen arteko koordinaziorik handiena lortzeko daukan jarrera adierazi dute. Salatu duenez, eskuduntzen banaketa ez dago oso argi eta Osasun Plana idazten ari dira; bertan, batez ere osasun arloarekin lan eremu guztietan behar diren bultzada eta koordinazioari dagozkien neurriak azpimarratzen dira. Plan horrek, Udalak Europa mailan OMEk bultzatutako Hiri osasungarrien Foroaren esparruan daukan engaiamendua adierazten du: *“Hala ere, egokia da gogoraraztea indarrean dagoen arautegiak, egonaldi er-tain eta luzeko ostatuari dagokionez, gizarte ahultasuneko egoeran dauden pertsonentzako arreta foru aldundien eskuduntza dela ezartzen duela. Horrela ondorioztatzen da 155/2001 Dekretutik eta Gizarte Zerbitzuen Lege Berriaren zorroitik.*

Esparru horretan, Gasteizko Udalak Arabako Foru Aldundiarekin batera (IFBS) dihardu administrazio bakoitzak garatzen dituen baliabideak eta Programak indarrean dagoen eskuduntza esparrura egokitzeko.”

Puntu horretan, egiten ari diren lana eta Aldundia, Osakidetza eta Eusko Jaurlaritza bera bezalako erakundeek euren eskuduntzak eta erantzukizunak euren gain hartzeko beharra aipatzen dituzte.

– Larrialdiko gizarte esku-hartzeko Jokabide Protokoloak

Gasteizko Udalak onartzen du gizarte ahultasuneko egoerei osorik ekiteko beste Udal Sailekin, beste Administrazio edota Erakunde publikoekin eta Hirugarren Sektoreko Eragileekin ere elkarlanean aritu behar dela. Horrek era sistematizatuagoan eta prozedura finkoagoekin lan egitea eskatzen du. Besteak beste, honako protokoloak adostu dituzte:

- *Neguko Ostatuko Dispositiborako (NOD) protokoloa*; bertan eguraldi baldintza txarrek ahultasun egoera larrian egonda ostatua behar duten pertsonen gutxieneko eta larrialdiko ostatua emateko bestelako eskakizunak gaindiarazten dituzten neguko egunetarako irizpide teknikoak eta funtzionamenduzkoak biltzen dira. Horrela, Harrera eta Ostatu Zentroetatik kanporatutako pertsonen holako Egunetan harrera egin dakieke.

Berrikuntzen artean, BEEPei laguntzeko izpiritu malgua sartzeaz gain, azpimarratu behar da Udaltzaingoa Protokoloan sartu dela, eta “hil ala biziko arriskua”ren traktuera, Osasun Zerbitzuen laguntzarekin eta epaile/fiskalen baimenarekin, “hil ala biziko arrisku” egoeran dauden pertsonak, baita nahi gabe ere, ospitaleren edo, gutxienez, egoitzaren batean sartu ahal izateko.

- *Gizarte Larrialdietako egoerentarako jokabide protokoloa*. Berria da eta helburua holako kasuetan era egokiagoan eta bizkorrago jokatzeko laguntzea da.
- *Larrialdiko egoerentarako jokabide protokoloa* (prestatzen ari da): Udal Sail askorekin elkarlanean (Udaltzaingoa, Suhiltzaileak, Hirigintza, Ingurumena...). Herritar askori eragin diezaieketen larrialdietan erantzun azkarra emateko. Horretarako sortutako Krisialdiko Mahaian parte hartzen da.

“HURBIL” Intentsitate Handiko egoerei arreta emateko Profesional Taldeak eta Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuak (GHLZ), Gizarteratzeko Udal Zerbitzuko Teknikariek batera, aipatu protokoloa bien (Urgentziak eta Larrialdiak) garapen eta ezarpenean dihardute, holako egoerak pairatzen dituzten pertsonak detektatzeko, kalterik jasango ez dutela prebenitzeko eta haien arazoei erantzun bizkorrak emateko (urgentziazko ostatua, larrialdietan estaldura bermatzea...).

- *Legez kanpoko Kokaleku, Kanpaldi eta Zabortegiei buruzko protokoloa*: zenbait udal Sailekin batera prestatua. Gizarte Esku-hartze Sailari dagokionez, hura, legez kanpoko kokalekuetan detektatuta, joanaraziko diren pertsonen bestelako ostatuaren proposamenak prestatzeko eta eskaintzeko dago.

Protokolo horiekin batera, gizarte ahultasuneko egoeran dauden pertsonen gizarteratzea nahi eta beste Udal Sail batzuekin garatzen diren beste batzuk daude: Gizarteratzeko eta lan munduratzeko (Ekonomia Sustapen eta Plangintza Estrategikoko Sailarekin), etab.

– Etokizunerako planteamendua: Baliabide berriak hobekuntzak...

Azpimarratzekoa da Gasteizko Udalak, jokabide egokiagoa definitu ahal izateko, bizileku bazterkerian dauden pertsonen errealitateari buruzko diagnosi ikerketa egitea aurreikusten duela. Udal Gizarteratze Plana egitea ere aurreikusten du: handik, eta ahultasunean eragiten duten arloei (ostatua-etxebizitza, prestakuntza, lana, baliabide ekonomikoak...) globalki eta osorik helduz, udal gizarte ekintzan gizarte ahultasuna murriztuko luketen esku-hartze estrategiak diseinatu ahalko dira.

Gainera, aurreikusten diren aldaketen berri eman dute: ATERPERako eraikin berria, gizarte larrialdietako udal zerbitzuaren (GLUZ) eta intentsitate handiko taldearen (HURBIL) bulego eta arreta berriak, eta Udal Gizarte Harrera Zentroaren berregituraketa.

4. Gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonekin lan egiten duen elkarteekin egindako bilerak

Aurten Arartekoaren erakundeak bilerak izan ditu gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonekin lan egiten duten elkarteekin, eta haien pertsona horiei eragiten dieten honako zailtasun eta kezkek helarazi dizkigute. Zailtasunetako batzuk komunak dira hiru lurralde historikoentzat, hala nola eroldan erregistratzeko zailtasunak, baliabide handiagoen eta ezau-garrietarako egokiak diren baliabideen premia edo gabeziak koordinazio soziosanitarioan.

– Araban etxegabeekin lan egiten duten elkarteek honako kezkek helarazi dizkigute:

Esparru soziosanitarioa garatzeko premia

Salatzen dutenez, herritar sektore horri dagokionez ez dago aurrerapen handirik, batez ere pertsonen buruko osasun arazoak daukatenean. Haien iritziz, mendekotasunari buruzko arautegia aurrerapausoa izan arren, haren onurak ez zaizkio talde horri iritsi, haien berezitasunengatik, zaila dutelako ezarritako izapidetze eta betekizunetara lotzea. Pertsona horiek oraindik joaten dira Aterpe edo Etxe Irekia bezalako eskakizun txikiko baliabideetara, haie-tako batzuk tutoretzapeko pisuetan ederto ibil litezkeen arren, hots, ez dira sartzen euren mendekotasunaren arabera prestatutako prestazioetan, etxegabeentzat prestatutako baliabideetan baizik.

Gasteizen ez dago osasun zerbitzuen, Epaitegien eta talde horrekin lan egiten duten gizarte erakundeen arteko protokolorik. Ez dago poliziari, euren borondatearen kontra, kalean dauden pertsonak, euren hondatzeagatik edo tenperatura hotzetan kalean lo egiteagatik osasuna arriskuan daukatenean, Ospitalera edo gizarte baliabidera eramaten uzten dion legezko estaldurarik. (Puntu honetan, Gasteizko Udalak txosten bereziaren gomendioa, zehazki Neguko Ostatuko Dispositiborako Protokoloa betetzeari buruz egin genion informazio eskaerari emandako erantzuna jasotzen dugun atalari lotzen gatzazkio).

Adierazten dutenez, oraindik, arlo horretan, garrantzitsua da gizarte arloari eta osasun arloari dagokienaren arteko definiziorik eza. Gizarte zerbitzuek laguntza sanitarioa eskatzen dute

pertsonentzat baina osasun zerbitzuek senda-agiria berehala ematen diete eta pertsona ezagutzen dutenean ez dute hartzen, zerbitzua ezegonkor dezakeela dakitelako. Diotenez, batzuetan anbulantzia ez doa laguntza sanitarioa norentzat eskatzen den ezagututakoan. Agertzen duten beste arazoetako bat gizarte zerbitzuetako langileen prestakuntza sanitario falta da; hori dela eta, ezin dute baliabideen erabiltzaileen krisialdien edo antsietate aldien tamaina baloratu, eta horregatik, larrialdiko arazoa izatea prebenitzeko, osasun zerbitzueta- ra deitzen dute.

Baliabideen erabiltzaileen ezaugarriak

Adinari dagokionez egondako aldaketa azpimarratzen dute. Gero eta jende gazteagoa doa, 18 eta 25 urte bitartekoa, seguruenik, zenbait estupefaziante, alkohola... hartzeak eragin- dako buruko osasun arazoekin.

Baliabide berrien premia

Elkartek nabarmentzen dute, arestian adierazi dugunez, aurten baliabide berria, Betoño Etxea, abiarazi dela, baita Udalaren Gizarte Esku-hartze Sailari lotutako intentsitate handiko taldea ere.

Ez diote eskakizun txikiko egoitza baliabide gehiagoren beharrari antzeman, neguan plazak areagotzen direla kontuan hartuz gero.

Aterpe baliabidea beteta egon ohi dela baina Etxe Irekian batzuetan lekuak badaudela adierazten dute. Aldea honakoa izan daiteke: baliabide horretarako gizarte zerbitzuetatik etorritako egonaldiko txartela behar dela. Kontuan hartu behar da beti daudela baliabiderik erabiltzen ez duten pertsonak. Ordugeirik eta baliabideen erabilerarako eta elkarbizitzarako proposatutako araurik onartzen ez duten pertsonak izan ohi dira.

Adierazi dutenez, profil berria hartu behar da aintzat, "lan bila dabiltzan iragaitzazkoak". Bes- te erkidegoetan eraikuntzan dagoen lan faltagatik hirira hurbiltzen diren pertsonak dira. Lan egitea errazagoa delakoan doan jendea da.

Baliabideak erabiltzaileen ezaugarriei egokitzea

Uste dute holako baliabideak oraindik saski-nazkia direla, eta horrela arazo eta ezaugarri desberdinak dauzkaten pertsonak elkartzen direla. Zentzu horretan, deigarriak dira, gero eta gehiago direlako, adin nagusitasunera iritsita portaera ona izan ez dutenean, emantzi- patzeko baliabideetarako sarbiderik gabe dauden konpainiarik gabeko gazte atzeritarren kasuak. Arazoa honakoa da: baliabideak ez dira haien beharretara egokitzen, heldu desegi- ratuen esparrura doaz, eta horrek haien prozesua are gehiago distorsionatzen du.

Nabarmentzen duten beste elementu bat da holako baliabideetan etxerik gabeko pertsona gero eta nagusiagoak daudela. Haientzat ez dago beste baliabiderik adinekoentzako egoitza baliabideek ez dutelako profil hori hartzen eta, gainera,aldi berean, haiek adinekoentzako egoitza baliabideetako arauetara egokitzeko zailtasun handiak izango lituzkeelako.

Bestalde, holako baliabideek ez dituzte irisgarritasuneko irizpideak betetzen, ez daude mu- gikortasuneko arazoak dauzkaten pertsonen premietara egokituta.

Gizarte zerbitzuen funtzionamendua

Aurten ere, elkarteak kexu dira oinarrizko gizarte zerbitzuetako langile batzuen gertutasun faltagatik, baina diotenez, norberaren lan estiloaren araberakoa da. Adierazi dutenez, oraindik burokrazia handia ere badago, eta betekizun asko bete behar dira; horrek konfiantzazko harremana oztopatzen du. Larrialdiko laguntzak emateko atzerapena elementu txar berri gisa azpimarratzen dute.

Beste arazo batzuk dakartzan funtsezko arazotzat jotzen dute etxebizitza eskuratzeko zailtasuna. Gizarte zerbitzuen erabiltzaile asko etxebizitza ez daukaten pertsonak dira. Arazoa honakoa da: ostatu egokirik izan ezean, Udalaren ikuspegitik, ezin de gizarte prestazio batzuen onuradun izan, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, hain zuzen ere, laguntzak behar izatea dakartenak izan arren.

Erroldatzeko zailtasunak

Askotan adierazi dugunez, erroldatzea gizarte eta osasun prestazioak eskuratzeko eta Etxebide, etxebizitzako zerbitzu publikoan izena emateko betekizuna da. Elkarteek salatzen dute udal erroldan izena emateko mugak eskubideak erabiltzea galarazten ari direla. Kezka, inskripzioak ukatzeagatik ez ezik, bizileku aldaketa dagoenean, pertsona hark udalean bizi-zen jarraitu arren, ofiziosz bajako txostenak izapidetzen direlako ere bada. Holakoetan gizarte arretak jarraitzen du, baina egoitzako baliabidetik, eta denboraldi batez gizarte prestazioak ezin dira izapidetu, horrela eskubideak murriztuz.

Jakinarazpeneko arazoak

Adierazten dutenez, erabiltzaileen eskubideei eragiten dieten ebazpenak Agerkari Ofizialean argitaratzeak ez du balio haien edukiaren berri izan dezaten.

Finantzaketako zailtasunak

Gizarte Zerbitzuen Lege proiektuak itxaropenak sortu ditu, hitzarmenen bidez arlo horretan lan egiten duten elkarteentzako finantzaketak egonkortasun handiagoa izateari dagokionez. Dirulaguntzen bidez lan egitea zail bihurtzen da, justifikazioak eskatzen direlako, eta horregatik hitzarmenak nahiago dituzte. Aurten, izapidetzeko atzerapenak direla eta, Aldundiaren laguntza batzuekin arazoak egon direla azpimarratzen dute.

– Bizkaian etxegabeekin lan egiten duten elkarteek honako kezkak helarazi dizkigute:

Erroldatzeko zailtasunak

Gizarte erakundeen ustez, orokorrean, “fikziozko erroldatzea” burutzeko hiru edo lau hilabete arteko atzerapenak gertatu arren, ez da txarto baloratu beharrekoa, elkarteek erroldatutako pertsonarekin daukan loturaren jarraitutasuna bermatzen uzten dielako. Hala ere, bat egiten dugu erroldatzea eskubidea dela eta, beraz, pertsonaren eta erakundearen arteko loturak gorabehera eta atzerapenik gabe bideratu behar dela uste dutenik.

Erabiltzaileen ezaugarriak

Oraintxe bertan ahultasun handiena daukan taldeetako bat ardurapean seme-alabak daukaten eta bakarrik dauden emakumeena dela ikusten da, lan merkatuan sartzeko eta

gizarteratzeko zailtasun handiak dauzkatelako; horregatik, elkarte batzuek harrera pisuak ireki dituzte holako ezaugarriak dauzkatentzat. Etorkinen aldetik ere gero eta baliabide gehiago eskatzen direla egiaztatzen dute.

Baliabide berrien premia

Diotenez, orokorrean, hurbileko zerbitzuak dira beteenak.

Zenbait elkarte baliabide berriak ari dira irekitzen, besteak beste, ardurapean haurrak dauzkaten emakumeentzako pisuak (Itaka eta Lagun Artean), konpainiarik gabeko gazteentzako emantzipazio baliabideren bat eskuratu ezinik geratu ziren gazte etorkinentzako pisuak (Itaka), edo independentziara iritsi aurreko bitartekaritza pisuak (Lagun Artean).

Oraindik ere eriondo dauden pertsonen premia azpimarratzen da, elkarteren bat proiektu-
ren bat abiarazten ari bada ere, eta balorazio ona egiten da Basurtoko Ospitalearen gizarte
zerbitzuaren koordinazioaz ospitaleko senda-agiriaren ondoren lekuak bilatzeko.

GIB/IHESA ez daukaten eta eriondo dauden pertsonentzat baliabideak irekitzeko premia larria adierazten dute.

Bestalde, buruko osasun arazoak dauzkaten etxegabeei arreta emango dieten baliabide gehiago behar direla ere azpimarratzen dute. Gainera, lekuren bat eskuratzeko itxaronaldia oso luzea da. Diotenez, arlo horretan argi geratzen da osasun arloaren eta gizarte ekintza-
ren artean akordio batera iristeko eta esparru soziosanitarioari behar bezala heltzeko koor-
dinazio edo borondate politiko gutxi dagoela.

Salatzen duten beste gabezia garrantzitsu bat jantokiei dagokie; izan ere, zerbitzua murriztu egin da eta dagoen eskariari ez zaio aurre egiten, erabiltzaile batzuen aldetik gehiegikeriak egiten direla uste dutelako, zein, gizarte laguntzak jasotzeaz gain jantoki horietan jatera baitoaz. Irizpide berriak ezartzeko aukera hartzen dute aintzat, baina haien ustez ez dago onartzerik Bilbon gose diren pertsonak egotea.

Arazoak Foru Aldundiaren aldetik egoitza baliabideen eskarian dagoen zentralizazioarekin

Gizarte erakundeek uste dute orokorrean lekuak esleitzeko sistema hobetu egin dela, baina hala ere oraindik dauzkate zailtasunak, eta hori dela eta leku batzuk libre geratzen dira. Batzuetan, arazoa erabiltzaileen ezaugarriak esleitutako baliabidera egokitzen ez direlako geratzen da (adib. lehenagoko errehabilitazioan urratsik eman gabe gizarteratzeko baliabidea eskuratzen dutenak), besteetan, eskari zehatza eta eskuragarri dagoen plaza pertsonaren premiari egokitzen zaiola jakin arren, plazak ez dira betetzen (adib., ardurapean haurrak dauzkaten emakumeentzako pisuak); horrek bete gabeko plazak egotea dakar.

Elkarteek oraindik adierazten dute egoitza baliabideetan leku bat esleitzeko prozesua luzea dela eta horrek erabiltzaileen profil batzuk alde batera geratzea dakarrela. Puntu horri dagokionez adostasun handia dago. Uste dute ez dela pertsona horiek sartzeko prozesuetara egokitzen, eta pertsona horiekiko kontaktua, zaildu barik, erraztu behar litzatekeela. Pertsona horien prozesuak larrialdiko erantzun azkarrak eskatzen ditu memento batean. Zentzu

horretan, Aldundiaren langileen malgutasuna baloratu arren, diotenez elkarteek zuzenean kudeatutako leku kopuru edo ehunekoren bat gorde behar da. Ondorengo balorazioa egin behar litzateke pertsonaren ezaugarriak hitzarmenetan ezarritakoari egokitzen direla egiaztatzeko. Azken batean, sistema berrikusteko premia adierazten dute. Berrikusketa horretan taldearen eta erakundeen ezaugarriak hartu behar lirateke aintzat, eta erabiltzaileen eta arreta zerbitzuen arteko hurbiltasun handiagoa lortu behar litzateke, azken horiek baitira pertsonak ezagutzen dituztenak.

Finantzaketako zailtasunak

Elkarteek Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzetarako deialdien ebazpeneko atzerapenek sortzen dituzten arazoak agerrarazi dituzte. Zehazki, martxoaren hasieran aurkeztutako eskakerak ez dira oraindik ebatzi eta, beraz, onartutako zenbatekoa ez da ordaindu (2008ko azaroan); hori dela eta, elkarte batzuek nominen ordainketa atzeratu behar izan dute, eta aldi berean finantzaketarako ezin dute bankuen kreditua erabili, ukatu egin dietelako.

Hitzarmena daukaten administrazioekin, ordea, ordainketak epean edo gehienez ere hilabete biko atzerapenez burutu dira.

– Gipuzkoan etxegabeekin lan egiten duten elkarteek honako kezkak helarazi dizkigute:

Erroldatzeko zailtasunak

Bizileku aldaketek erroldan bajako txostenak dakartzate eta, dakigunez, horrek ondorioak dauzka gizarte prestazioetan pertsona horiek hirian bizitzen jarraitu arren. Batez ere, baliabideak uzten dituzten atzeritarren kasuan. Zailtasun hori gero eta handiagoa da, arreta emandako atzeritarren kopurua handitu delako.

Gizarteratzea eta toxikomaniak sendatzeko arazoak

Holako programek ondorengo gizarteratzeko bermeak daudenean dakartzate emaitzak. Atzeritarren kasuan holako bermeak ez dira ohikoak, eta horregatik programa horietan sartzea, gizarteratzeko aukera falta dela eta, lehenagoko betekizunak eskatuz murriztea pentsatzen ari da.

Erabiltzaileen ezaugarriak

Buruko osasun arazoak eta substantzia berrien kontsumo arazoak dauzkaten gazteak gero eta gehiago direla ikusten da; zailtasun horiei batzuetan atzeritar gazteak izatea batzen zaie. Gazte horietako batzuk Aldundiaren gazteentzako babes zerbitzuetatik igaro dira. Zentro irekietan dauzkaten mugak direla eta, euspen zentroen premia baloratzen dute.

Berariazko irregulartasun egoeran dauden atzeritarren egoera

Salatzen dutenez, pertsona horiek ez daukate batere aukerarik ezin dutelako baimenik lortu, eta horregatik ez daukate etorkizunik.

Baliabide berrien premia

Orokorrean eskakizun txikiko baliabideak nahikoak ez direla ikusten da. Gipuzkoan holako baliabideak Donostian pilatzen dira. Erreterian baino ez dago ezaugarri horiei lotzen zaion

baliabide bat. Horrela, pertsona horiei laguntza emateko eta gizarteratzeko prozesuak abiarazteko eguneko zentroak egon arren, ez dago ostatu eskuragarririk, eta horrek jarraikortasuna oztopatzen du.

Neguko kanpainaren aurrean dispositiboa sortu da (Neguko: 40 leku eta Hotzaldi: 40 leku, eta beste bat, tenperaturak -1 gradutik jaisten direnean) leku berriak eskuragarri jartzeko, baina tenperaturak jaitsez gero eskariari aurre egiteko irekitzeko datak (azaroaren 15etik martxoaren 31ra) malgutzeko aukera aztertzen ari da.

Bestalde, krisialdiaren ondorioz, eskariak dauden lekuak gainditzea aurreikusten da. Izan ere, egoera egituratuetatik datozen pertsonak jantokiak... bezalako larrialdiko baliabideetara jotzen ari dira.

Esparru soziosanitarioaren premia

Haien ikuspuntutik, osasun arloaren eta gizarte arloaren arteko desadostasuna dago, eta Osakidetza ez du bere eskuduntza eremua bere gain hartzen. Hori agerikoagoa da buruko osasunari eta gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonen dagokienez.

Bestelakoak

Elkarteek Sargiren (gutxi gorabehera gizarte bazterkeriaren munduko 23 erakunde biltzen dituen plataforma) balorazio ona egiten dute; Sargik batzordeetan egiten du lan: buruko osasuna, oinarritzko errenta, ostatua, etorkinak, barne arautegia. Urteko batzar orokor bi dauzka. Erakundeen artean apurtuta dagoen koordinazioaren ardura.

4. Koordinazioa Estatuko Defentsa Bulegoekin

Aurten **Estatuko Defentsa bulegoekin tailerra** egin dugu gizarteko babesgabetasun larrian dauden pertsonen egoera aztertzeko. Tailerrean babesgabetasunean biltzen diren zioak eta eragileak, politika publikoak eta haien mugak eta defentsa bulegoetatik egiten ziren proposamenak izan ziren mintzagai.

Tailer horren **ondorioak** txosten honetako V. kapituluko 2.1 atalean aurkituko dituzue.

5. Gizarteko babesgabetasun larriko egoerak: helduen babesgabetasuna; Kode Zibileko 239.3 artikularen irismena

Azkenik, aipatu behar da aurten Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroetan, zinetan Arartekoak urtero parte hartzen baitu, *"Buruko Osasuna eta pertsonen Eskubideak"* izeneko ikastaroa antolatu zela. Jardunaldiaren edukia laster argitaratuko da. Edonola ere, ikastaroan landu ziren kontuetako bat Kode Zibileko 239.3 artikularen edukia eta irismena izan ziren. Manu hori erakunde publikoaren ardurapean dauden ezgaien ministerio legis tutoretzari buruzkoa da. Artikulua honako bidez sartu zen: 41/2003 Legea, azaroaren

18koa, ezgaitasuna daukaten pertsonen ondarea babestu eta Kode Zibila aldatzen duena; Prozedura Zibilaren legea; eta Zerga Araudia. 239.3 artikulua: *“La entidad pública a la que, en el respectivo territorio, esté encomendada la protección de los incapaces, asumirá por ministerio de la ley la tutela del incapaz cuando ninguna de las personas recogidas en el art. 234 sea nombrado tutor, o cuando éste se encuentre en situación de desamparo.*

Se considera como situación de desamparo la que se produce de hecho a causa del incumplimiento o del imposible o inadecuado ejercicio de los deberes que le incumben de conformidad a las leyes, cuando éstos queden privado de la necesaria asistencia moral o material.”

Lege xedapen horrek ia ez dauka aplikaziorik babesgabetasunean dauden pertsoneri dago-kienez. Gainera, artikulua idazketak ikuspegi desberdinak dauzkan doktrinako eztabaida piztu du. Dena dela, Arartekoaren ikuspegitik, eskubideen defentsarako erakundea izanik, gertatzen diren eta, kexen izapidetzearen bidez, edo *“Etixerik gabe edo gizarte bazterke-riako arrisku larrian dauden pertsonen oinarrizko premientzako erantzunak”* izeneko txosten bereziaren jarraipena dela eta ezagutu ditugun egoera batzuei buruz ohartarazi nahi dugu. Kanean bizi eta alkoholaren mendekotasun edo bestelako toxikomania arriskuan dauden pertsona helduak dira; arreta material eta afektiborik eza pairatzen dute, hots, eskusioko fase aurreratuan daude.

Holako kasuetako bat pertsona berari dagozkion 511/2006 eta 1001/2007 txostenetan landu zen. Txosten horiek etxegabe baten hondatzea erakusten dute, beste batzuen adibide izan daitekeen *“bizitza historia”* bat. Pertsona hura, ezkontza banantzea dela eta, etxebizitzarik gabe geratu zen. Bere udalerrria emazte ohiaren eta seme-alabengandik gertu aparkatuta zeukan autoan hasi zen bizitzen, ibilgailua handik kendu zioten arte.. Ondoren, kanean bizi izan zen. Ez du gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonentzako egoitza baliabideetara joan nahi izan. Tarte laburrean haren osasun fisikoa eta buruko osasuna larriki hondatu dira. Txostenak, neguan ere, euren bizia arriskuan jarritz, baliabide publikoak erabili nahi ez duten pertsonen arazoa dakar. Ez dira ezgaitasun judizialeko kasuak, printzipioz autonomoak diren edo izan diren pertsonak baizik, zeinen buruko osasunari babesgabetasuneko egoera larriak eragiten baitie. Batzuetan, seguruenik, ezgaitzeko prozesuari ekinez gero, ezgai direla ondorioztatuko da, baina ez dago holako ebazpen judizialik, besteak beste, inork eskatu ez duelako.

Bukatzeko, Kode Zibilaren xedapenak, gizarteko babesgabetasunean dauden pertsoneri ez ezik, ezgaietara judizialik ez dakarten *“ezgai aldiak”* dauzkaten buru-gaixoei edo zahartzaroko dementzia edo autonomia fisiko falta daukaten pertsoneri, hots, maila batean mendekoak izanda, seniderik gabe eta une batean laguntzarik gabe dauden pertsoneri ere eragiten die. Kapitulu honetako gaitz kronikoei buruzko atalean Foru Aldundiei Kode Zibileko 239. artikulua interpretazioari buruzko iritzia eskatu diegu.

Kontuak garrantzi handia dauka, gizarte eta familia loturarik ez daukaten talde batzuei, esaterako, etxegabeei, atzerritarrak izan zein ez, eragiten dien gizarte errealitatea delako,

holako kasuetan inork ebatzen judizialik ez eskatzea eta, beraz, haien osasuna arriskuan egotea gerta baitaiteke. Helduen babesgabetasun larriak erronka berriak dakarzkie herri-administrazioei. Gaiaren garrantziak haren egokitasunari, mugaketari, irismenari, prozedurari... buruzko eztabaida sakona eta holako egoerei ematen zaizkien erantzunen –hala nola, ezgaitzeko prozesu judizialak– azterketa eskatzen ditu.

II.8

**BERARIAZKO ARRETA
TERRORISMOAREN ETA JAZARPEN
INDARKERIAREN BIKTIMEI**

8. BERARIAZKO ARRETA TERRORISMOAREN ETA JAZARPEN INDARKERIAREN BIKTIMEI

Terrorismoaren biktimei emandako berariazko arretaren eremu honetan erakundearen jarduera nagusia, batez ere, erakundea egiten ari den terrorismoaren biktimen egoerari buruzko ezohizko txostena amaitzera zuzendu da. Laster Eusko Jaurlaritzari aurkeztuko zaion txosten horrek nazioarteko araudia, erreferentzi esparru modura terrorismoaren biktimekiko errekonozimendu eta solidaritate politikentzako, eta gai horren inguruan estatuko araudia eta erkidegoetako arauak aztertu ditu.

Erakundeek terrorismoaren biktimen egoerari udal eremuan eman beharreko erantzuna ere islatu da, euskal udal guztiei eskatutako informazioaren tratamendua abiapuntutzat hartuta. Udal askok erantzun dute.

Egia ezagutzeko, justiziarako, memoriarako, duintasunerako eta kalte-ordain materiala eta morala jasotzeko eskubideak aztertzen dira. Biktimek horiek behin eta berriro eskatu dituzte eta horiek guztiak Terrorismoaren Biktimei Aintzatespena eta Kalte-ordainak eskaintzeko ekainaren 19ko 4/2008 Lege garrantzitsuan jasotzen dira.

Terrorismoari legitimazio soziala kentzea aztertzen da, hezkuntzaren eta gizarte hedabideen bidez.

Txostenak honako hauek ere hizpide ditu: biktimazio terroristako esperientziak EAEn eta biktimen euren balorazioa, biktimek jasan duten erakundearen eta gizartearen aldetiko utziketaria zuzendu nahi duten erantzunei dagokienez.

Txostenean jasotzen den egoera latza “jazarpen indarkeria” deiturikoaren mehatxu eta hertsapen terroristaren indarkeriaren biktimen egoera da. Zuzenbide Estatuaren oinarria osatzen duten talde asko –demokraziaren ordezkariak, epaileak, fiskalak, poliziak, militarrek, espetxeetako funtzionarioak, kazetariak, unibertsitateko irakasleak, intelektualak eta enpresariak– ETArekin eta bere proiektu totalitarioarekin kritikoak izan dira eta horiek mehatxu terroristen pean daude. Talde horien kide diren herritarrak une oro mehatxatuta daude eta beren eginkizunak, herritar guztientzat oso garrantzitsuak direnak, kontrako inguruabarretan burutzea behartuak ikusten dute euren burua. Egoera hori txostenean jasotzen da, ETAk mehatxatutako talde horien kide diren pertsonen egindako elkarrizketen analisiak abiapuntutzat hartuta.

2008. urtean, ezohiko txosten hau bukatzeaz gain, beharrezkoa da gertaera garrantzitsuenetako baten moduan azpimarratzea Eusko Legebiltzarrak Terrorismoaren Biktimei Aintzatespena eta Kalte-ordainak eskaintzeko ekainaren 19ko 4/2008 Legea onartu izana. Luze zain egon ondoren, lege horrek bidegabeko egoera konpontzen lagunduko du. Egoera horretan, terrorismoaren biktimak daude.

Legeak biktimen eskubide gisa horien eskaera asko jasotzen ditu, hala nola, memoriaren, justiziaren eta kalte-ordainen printzipioak. Horrela, justiziarako, duintasunerako, kalte-

ordainak jasotzeko eskubideak arautzen dira, biktimek bidegabe pairatutako mota anitzeko sufrimenduen aintzatespenaren ondorio gisa. Arauari, horrez gain, memoriarako eta egia ezagutzeko eskubideak gehitzen zaizkio.

Bestalde, biktimen esangura politikoa eta terrorismoari legitimazio etikoa, soziala eta politikoa kentzeko beharra aintzat hartzen ditu. Gainera, arau horrek euskal herritar guztien eskubide gisa bakerako, askatasunerako eta bizikidetasunerako eskubideak jasotzen ditu.

Lege horrek kalte-ordainak jasotzeko zenbait neurri jasotzen ditu eta neurri horiek *“posibile den heinean, biktima kaltea eragin baino lehenagoko egoerara itzul dadin ahalegintzen dira”*.

Biktimen eskubideak osasun fisiko eta psikologikoaren, irakaskuntzaren, prestakuntzaren, etxebizitzaren edo lanaren esparruan aurreikusi dira.

Legeak, horrez gain, euskal botere publikoek *“bakerako hezkuntza eta giza eskubideak eta hezkuntza sistemaren maila guztietan balio demokratikoen sustapena”* bultzatu dezaten aldeko apustu ausarta egin du.

Araua oso aurrerapen handia da eta arau horrek arauzko garapena eta euskal botere publikoen jarduketak eskatuko ditu, bertan jasotzen diren eskubide asko eraginkorrak egiteko.

Ekitaldi honetan terrorismoaren biktimen elkarrekin eta fundazioekin harremanetan egon gara, ez bakarrik lehen aipatutako ezohizko txostena egiteko, baita beren beharrak ezagutzeko ere.

Alderdi politiko baten egoitzan jarritako lehergailu baten ondorioz etxebizitzan kalte larriak pairatu zituen pertsona baten kexa jaso da. 4/2008 Legeak zehaztasunez ekintza terroristek eragindako kalte materialak konpontzeko laguntzak zehazten ditu eta, batez ere, etxebizitzetan sortutako kalteak. Hala ere, beharrezkoa da, kasu horietan, ekintza terroristek kalte egin dien eta egoera larrian dauden horiei berehalako erantzuna eta erantzun eraginkorra ematea. Kaltetu horiek berehala beren etxebizitza uzteko beharrean ikusten dira.

II.9

**BERARIAZKO ARRETA
LESBIANA, GAY, BISEXUAL,
TRANSGENERIKO ETA TRANSEXUALEI**

9. BERARIAZKO ARRETA LESBIANA, GAY, BISEXUAL, TRANSGENERIKO ETA TRANSEXUALEI

Baldin eta behar bezala babestuko badira orientazio homosexuala eta nortasun transexuala duten pertsonen duintasunerako, nortasunaren garapen askerako, berdintasunerako, ez baztertuak izateko eta osotasun fisiko eta moralerako oinarrizko eskubideak, eskubide horiek urratuz gero modu eraginkorrean esku hartzeko modua emango duten tresnak behar dira. Aldi berean, aurreranzko politika publikoak behar dira, prebentzioaren arloan jarduteko; politika horiek oinarrizko helburu hauxe izan behar dute –bai eta helburu horrekin lotutako edo hortik eratorritako beste zenbait ere–: bete-betean eta ondorio guztiekin errotzea gizarte pentsamenduan eskubide horiekiko errespetuzko balioak, homofobia eta transfobia azterna oro erauziz eta gizarte pedagogia eginez, sexu eta afektuzko aniztasunarekiko eta genero nortasunarekiko errespetua nagusitu dadin arlo horretako ideia eskusibista eta uniformizatzaileen gainetik.

Arartekoak esparru horretan egiten dituen lanek aurrez adierazitako xede horixe dute; zehazki, eginkizun hauek ditu:

- o Euskal herri-administrazioak kontrolatzea, berdintasunerako eskubideari dagokionez eta pertsona orok orientazio sexuala edo genero nortasuna dela-eta baztertua ez izateko duen eskubideari dagokionez.
- o Orientazio sexualagatik edo genero nortasunagatik inor bazter uzteko edo diskriminatzeke modu oro erauztearen aldeko kultura sustatzea gure gizartean.
- o Euskal lesbiana, gay, bisexual eta pertsona transgeneriko eta transexualen egoerari eta errealitateari buruzko gizarte ezagutza zabaltzea, eta Euskadiko erakunde publikoek eta gizarteak pertsona horien eskubideak babes ditzaten sustatzea.

Arlo horretan egiten ditugun jarduerak hiru ataletan sailka ditzakegu: a) politika publikoak aztertu eta baloratzeko jarduerak; b) eskubideak bultzatu eta sustatzeko jarduerak; eta c) pertsonen edo pertsonen taldeek agertutako kexen ondorioz sortzen diren jarduerak.

A) **Politika publikoak aztertu eta baloratzeko jarduerak**

Gay, lesbiana, bisexual, transgeneriko eta transexualenganako errespetuzko kultura sustatzeko Arartekoak berak ofizioz bultzatzen dituen jarduerak dira.

1. Joan den irailaren 19an, hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko Arartekoaren V. Foroa izan zen, honako gai honen gainean: “Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan”. Foroaren metodologia sei txosten laburki azaltzea izan zen, beste hainbeste espezialistaren eskutik; txosten horietako bakoitzaren inguruan eztabaida sortu zen mintegian parte hartu zuten ia berrogei lagunen artean. Mintegi horretan parte hartzera gonbidatu ziren Euskadiko elkarteak eta LGBT taldeak (lesbianak, gayak, bisexualak eta transexualak), AMPGYL, LGBT seme-alaben gurasoak, irakasleen sindikatua, administrazio publiko eskudunetako ordezkariak,

zentroetako elkarteak, gurasoen elkarteak, eta hezkuntzaren eta adingabeen esparruko hainbat erakunde eta pertsona aditu. Suediako *ombudsman* Hans Ytterberg-ek orientazio sexualagatiko bazterketaren kontra emandako hitzaldiarekin amaitu zen jardunaldia.

Foroan argi gelditu zen politika publikoak egin behar direla nerabe lesbiana, gay, transexual eta bisexualen duintasunerako, osotasun fisiko eta moralerako, nortasunaren garapen aserako, askatasunerako eta tratu berdintasunerako, eta segurtasunerako eta txarra ez den giro bat izateko oinarritzko eskubideak bezala babesteko. Gaur egun, ez dago halako baldintzarik; izan ere, bere hartan jarraitzen dute homofobiak eta transfobiak, eta izugarritzko pisua du heterosexismoak, hau da, normaltasunarekin eta orientazio heterosexuala –hasieran mundu guztiari egozten zaio orientazio hori– orientazio homosexualaren gainetik dagoelako ideiarekin lotzen den gizarte ikuspegiak. Horrek guztiak izugarritzko presioa eta ondorio txar nabarmenak sortzen ditu LGBT nerabeengan eta gazteengan.

Egiaztatu zenez, *bullying* kasuak edo jazarpenak izaten dira eskolan arrazoi homofobiko edo transfobikoengatik. Hori estuki lotuta dago nerabe eta gazte askok homosexualitatea eta transexualitatea arbuizatzeko eta gaitzesteko dituzten ideia eta jarrerekin. Halaber, agerian gelditu zen premia handia dagoela irakasleak sexu eta afektuzko aniztasunaren arloan behar bezala prestatzeko, bai eta irakaskuntzako curriculum programetan arlo hori behar bezala sartzeko beharra dagoela ere.

Halaber, HDH (hitz egin dezagun homosexualitateaz) programa ezagutzeko eta balaratzeko aukera izan zen. Programa hori Gehitu Euskadiko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarteak kudeatzen du, Gipuzkoako hainbat ikastetxetan. Bestalde, oso interesgarria izan zen Suediako *ombudsman*aren hitzaldia. Hain zuzen ere, Suedian dauzkaten politika publiko ez-baztertzailen berri eman zuen; politika horiek, nabarmentzekoak diren beste hainbat neurriren artean, orientazio homosexuala edo nortasun transexuala duten nerabeak berdindatuko direla bermatzeko plan bat egitera behartzen dituzte ikastetxeak.

2. Era berean, aipatu behar dugu lan handia egin dela Euskadiko pertsona transgenderikoen eta transexualen egoerari buruzko ohiz kanpoko txostena prestatzen. Lan hori egiteko oinarriak iaz ezarri ziren, eta espero dugu txosten hori 2009aren erdialdera aurkeztea Eusko Legebiltzarrari. Horrekin, Arartekoak talde hori xertatu nahi du urtero pertsonen eskubideak sustatzeko egiten dituen ekimenetan; izan ere, erakundeek historikoki ahaztu egin izan dute talde hori, nahiz eta normal gizarteratzeko zailtasun ugari aurre egin behar izaten dieten. Alde horretatik, pertsona horien egoera ikuspegi zabal batetik aztertu nahi dugu, beste alderdi batzuk ere kontuan hartuta, hala nola: nolako zailtasunak dituzten gizarte, kultura, lan eta ekonomia aldetik integartzeko, eta zenbateraino dauden laguntza publikoen edo laguntza neurrien mende; nolako zailtasunak aurkitzen dituzten pertsona horiek prestatutzeko edo hezkuntza aldietan; nola eragiten duen trasgeneriko edo transexual

izateak familia harremanetan (jatorrizko familian), giza harremanetan eta bikote harremanetan, edo lagun taldea egiteko orduan; lanean zenbaterainoko prekarietatea duten eta zenbateraino dauden baztertuta (transexual femeninoetan prostituzioak duen eragina kontuan hartuta); eta pertsona horiek nolako oreka duten oro har psikologia aldetik eta osasun aldetik, medikuntzan genero disformaren sindromeari lotzen zaizkion behar espezifikoetatik harago.

Gainera, garrantzitsua iruditzen zaigu aztertzea ez bakarrik pertsona transgenerikoek eta transexualek nola ikusten duten beren burua eta beren bizimodua, baizik baita gizarteak nola erantzuten duen eta pertsona horiek gizarte inguruneetan nolako erreakzioa eragiten duten ere, zenbaterainoko onespena edo gaitzespena sortzen duten neurtzeko, eta, zehazki, pertsona horiek jasaten duten gizarte estigma sortzeko orduan gizarte klaseek nolako rola betetzen duten neurtzeko. Azkenik, txosten horren bidez jakin nahi dugu zenbaterainoko interesa duten gai horren inguruan eskumenak izan ditzaketen botere publikoek, talde hori babesteko neurriak hartzeko.

B) 2008. urtean gehien nabarmendu diren bultzada edo sustapen jarduerak

Gay, lesbiana, bisexual, transgeneriko eta transexualen eskubideak errespetatzeko kultura sustatzeko asmoz gure erakundeak berak ofizioz sustatu dituen jarduerak dira.

Maiatzaren 17an Homofobia eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Iñigo Lamarca arartekoa Katalunian izan zen, Terrasa herrian, Dona Mes Dona elkarteak gonbidatuta, "Homofobia, giza eskubideen minbizia" izenburuko hitzaldia ematen.

Halaber, EHUren udako ikastaro batean ere parte hartu zuen arartekoak, hizlari gisa. Ikastaro hori Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle Aitor Martxuetak zuzendu zuen, eta hitzaldia gai honen ingurukoa izan zen: "Afektu eta sexu aniztasuna eskolan: gatazkak eta konponbideak".

C) Hainbat pertsonak edo pertsona taldek aurkeztu dituzten kexen harira egindako jarduerak

Arartekoaren lan esparrua administrazio publikoen jarduerak eta politika publikoak dira, eta, zorionez, gaur egun, horien logikaren barruan gaur egun ez dauka lekurik orientazio sexualagatiko edo nortasun transexualagatiko bazterketak; hori dela eta, ez da izan gisa horretako kexarik. Nolanahi ere, emakume baten kexa jaso genuen: emakume horrek ezusteko desatsegin bat izan zuen bere bikotekidearekin ezkontzean –bikotekidea ere emakumea zen–; izan ere, familia liburua ez zegoen behar bezala prestatua, eta ez zuen ematen gizona eta emakumea beste aukerarik. Familia liburua ezkontzari buruzko legeriarekin bat ez zetorrela ikusita, premiazko kudeaketak egin ziren Justizia Ministerioan. Arduradunek erantzun zuten esanez bazeukatela irregulartasun horren berri, eta berehala ezarriko zutelako bertorio

zuzendua Inforeg4 aplikazioan, egoera zibilari buruzko informazioa kudeatzen duen aplikazio informatikoan, alegia.

Beste gai bati helduz, Donostiako Udalaren kirol instalazioak erabiltzen dituzten transexualetan egoeraren inguruko keza bat helarazi ziguten. Pertsona horiek ezin erabil dezakete banako dutxarik, eta ezin gorde dute beren pribatutasuna. Eskaera arrazoizkoa zela iruditu zitzaigun, eta hiriko udalari bere iritzia eskatu genion. Iritzi hori jadanik eskuartean daukagu, eta aurki emango dugu Arartekoaren irizpena.



II.10

BERARIAZKO ARRETA ESPETXERATUEI

ararteko

10. BERARIAZKO ARRETA ESPETXERATUEI

1- Arartekoaren lanaren lehentasunak askatasunik ez duten pertsonen alde, betiere lehentasunezko arreta behar duen kolektibo gisa

Arartekoaren funtsezko helburuetariko bat da gutxietsitako gizarte kolektiboenganako erakunde laguntza bultzatzea; kolektibo horien barruan, besteak beste, espetxeetako egoiliarak ditugu. Horren inguruan aurrera eraman dugun jarduketaren ildo estrategikoak ondorengoak izan dira:

- Kartzelaz bestaldeko tratamendu alternatiboetarako aukerak dibertsifikatzea behar beharrezkoa da eta araubide irekiaren bidea ahalik eta gehien zabaltzea. Horretarako, elkarte sarearen lanari sostengua eman diogu, gaur-gaurkoz betebeharrak alternatiborik gehienak errazten dituen esparru bezala. Haren lana agerian jarri nahi dugu espetxe eta justizi administrazioaren aurrean eta lan hori zailtzen duten oztopoak gainditzen lagundu nahi diogu, betiere Eusko Jaurlaritzaren Zigorrek Betearazteko eta Gizarteratzeko Laguntza Zerbitzuarekin lankidetzan.
- Aurreko puntuari lotuta, espetxeratutako pertsona batek gizarteratzeko dituen aukerak bere lan eta kultur jarduera bultzatzean dautza. Kartzelak duen eragin desozializatzaileak zuzeneko zerikusia dauka bi mailetan dituen hutsune nabarmenekin. Hori dela eta, horiek moteltzen ahalegintzen gara esku hartzen duten gizarte ekimeneko erakundeei laguntzen, bai espetxe eremuan bai lana bilatzeko zereginean espetxetik irten ondoren.
- Espetxeek irekiagoak izan behar dute, gizarte osoarekin harreman gehiago izan behar dituzte. Ziur asko puntu horretan ikusi dira aurrerapenik gehienak azken urteotan. Meritu hori, batik bat, gizarte zibilak ehundutako elkartasun sare oparoari eman behar zaio, baina hori ez zen posible izango, baldin eta espetxeetako zuzendaritzek eta Espetxeratuen Zaintzako Epaitegiak aldeko jarrera erakutsi izan ez balute.
- Partaidetza sistemak garatu eta bultzatu behar dira. Une honetako erronka tratamendu taldeek eta elkarteek egiten dituzten bileren garrantzia bultzatzea da, informazioa jasotzeko zereginetik haragoko bidea egin dezaten, hausnarketa eremu bezala erabil daitezten eta premia nahiz eskari berriei aurre har diezaieten.
- Espetxeratutako pertsonen zuzentzen zaizkien bitarteko eta baliabideak handitu behar dira. Aurten ildo honetan egin dugu lana gaixorik dauden pertsona espetxeratuen auzian bildu da; izan ere, batzuek espetxetik aterak izateko moduko patologia larria izan arren, gaixotasun hori ez zaio lotzen baliabideen profil zehatzari eta horien aukera bakarra (bitartekoak zabaltzen ez badira) espetxe barruan hiltzea da.

2- Egindako gestioak

EAEko administrazioek gai honetan eskumenik ez dutenez gero, gure betebeharra bikoitza da: alde batetik, gobernu autonomikoak behin eta berriz eskatutako eskumen hori espe-txeetako errealitatea hobeto gizarterako lanean islatu beharko litzatekeela berretsi behar dugu, betiere Arartekoak gizarteratze hori lortzeko lan egiten duen hiru mailetan duen ga-rantziagatik:

- erakunde autonomiko eta foru nahiz toki erakundeen mailan, espetxeratuen gizarte, hezkuntza, osasun eta lan sustapeneko zerbitzuen sare normalizaturako sarbidea ahalik eta gehien bultzatzeko zigorren mugen barruan.
- gizarte ekimeneko gobernuzko kanpoko erakundeen partaidetza aktiboaren mailan, espetxearen araubide premiak oztopo izan ez daitezen eta gizarte bazterkeriari aurre egiteko laguntza ematen dieten pertsonekin diseinatutako gizarteratze ibilbi-deak kontuan har daitezen.
- gizarte osoaren mailan, kartzela ez dela inoren erakunde urruna jakinarazteko, baizik eta guztiok erantzukizuna hartzeko moduko errealitate hurbila. Premia horren ikus-pegia, gainera, handitzen da, ez bakarrik gestioaren hurbiltasun geografikoagatik, baizik eta komunitateak betetzat hartzen dituen erakundeek duten arduragatik, bai identitate arrazoiengatik bai praktikan eta egunerokotasunean bizitzaren gainerako alderdietan esku hartzen dutelako.

Beste alde batetik, borondate oneko gestioak aurrera eraman behar ditugula uste dugu, ahal den heinean, askatasuna kentzen duen zigorra betearazteari legeak ematen dion gizartera-tze zereginaren eta kartzelaren errealitatearen artean dauden arazoetarik askori konponbi-dea aurkitzen laguntzeko. Arazo horiek EAEko administrazioek laguntzen dituzten heziketa, osasun edota lan sustapeneko jarduerekin zerikusia duten heinean, horien aurrean jardun dugu gorago aipatutako eskumenen auzia oztopoa izan ez dadin, euren partetik esku har-tzeko dituzten aukerak ahalik eta gehien lantzeko. Alde horretatik, oso kontuan hartzekoa da Eusko Jaurlaritzaren Zigorrek Betearazteko Zuzendaritzaren aldetik izan dugun laguntza.

Era berean, Arartekoak ildo honetan izan duen esku-hartzeak gure erkidegoko hiru espe-txeak bisitatzera eta Espetxe Administrazioko arduradun nagusiekin biltzera bultzatu gaitu, bai eta espetxeratutako pertsonak gizarteratzen laguntzen duten elkarteekin batzartzera ere. Halaber, elkarteek helarazi dizkiguten kasu partikularrei erantzuten saiatu gara; kasu horiek askotarikoak izan dira, hala nola espetxeko sailkapena, baimenak, lekualdaketak, destinoak edota zigor araubidea. Hori guztia estatuko Herri Defendatzailearekin koordinatu da; izan ere, erakunde hori eskuduna da, administrazio jarduketaren gai hau estatuaren gobernuaren menpe dagoelako.

Edozein kasutan ere, eskertu behar dugu gestio hauek agintaritzza zentralen nahiz Langraiz, Basauri eta Martuteneko espetxeetako zuzendaritzen aldetik izan duten aldeko jarrera eta laguntza jokabidea. Nolanahi ere den, ondoren azaltzen diren gaiak ardura eta kezka bide nagusiak dira:

Espazio fisikoa eta ekipamenduak

Jatorrizko materialen kalitate kaxkarra eta euren kokapenagatik azpiegitura zaharkituetan (batez ere Langraiz eta Martutenen) sortutako osasun arazoak gorabehera, agerikoa da arlo honetan izan den hobekuntza, azken bisita egin genuenez gozotik.

Ildo honetan, Arabako espetxean izandako aldaketa nabarmendu beharra dago; bertan, zuzendaritza berriaren bultzada nabaritu da. Gelak eta espazio erkideak, egiaztatu ahal izan genuenez, berritzen ari dira, ur, elektrizitate eta berogailu sareak hobetzearen. Gainera, ikusi ahal izan genuen beste aldi batzuetan 5. moduluan antzemandako garbitasun eta artapen egoera txarra desagertu dela. Deigarriak egin zitzaizkigun beste bi hobekuntza lana lehien berriztapena (horien egoera negargarria zen) eta erizaintzakoa.

Azken honi dagokionez, aldaketak ez die bakarrik instalazioei eragin, baizik eta jarduerari berrari ere; gauzak horrela, drogazaletasunak tratatzeko erabiltzea aurreikusita dago espetxe barruko komunitate terapeutikoko araubidean. Hori guztia aurrera aipatuko dugu (erizaintza aurreko 4. modulura pasatuko da).

Era berean, Martuteneko espetxeko sukaldeetan hobekuntzak ikusi ahal izan genituen, bai eta hodian eta elektrizitatearen sarea ere. Patioen eta kanpoko elementuen mantentze eta garbitasun egoera hobea zen gure azken bisitan ikusi genuenaren aldean, eta horrek islatzen zuen azpiegiturak berritu zirela 2008an bertan. Aitzitik, euspen zeregina beharrezkoa den kasuetan isolamendu zigorrak betearazten diren eremuan ("zelular" gisara ezagutua) lurra eta bainua zikin zeuden. Edozein kasutan ere, zuzendaritzak azpimarratu zuen isolamenduarekin zigortuak diren pertsonak normalean beren gelan bertan betetzen dutela zigorra eta "zelularra" salbuespen modura baino ez dela erabiltzen.

Hala eta guztiz ere, Martutenen dauden espazio arazoak agerikoak dira bi mailatan:

- Alde batetik, instalazioen banaketa dela eta, ez dago tarte fisikorik espetxeratu nagusi eta adin txikikoen artean. Adin txikikoek galerietariko batean euren gelak dituzten arren, espazio komunak erdibana dauzkate nagusiekin. Zuzendaritzaren uste-tan, hori faktore positiboa da, tentsioa apaltzeko; izan ere, nagusiekin espazioak partekatzen dituztenez gero, horrek laguntzen du gazteenen arteko tentsioa murrizten.
- Beste aldetik, ezin onar daiteke gizarte langileek euren zeregina betetzeko duten leku murrizta. Horrek estresa areagotzen du, osasungarritasunaren baldintzei modu negatiboan eragiten die eta, kanpoko gizarte zerbitzuen kasuan, presoei zein senideei ematen zaie zerbitzu kalitateari ere eragiten dio; senideei, esate baterako, intimitatez eta errespetuz tratatuak izateko baldintzarik batere betetzen ez duen gelaxka batean egiten zaie harrera.

Tratamendua

Arlo honetan ikusitako gabeziak oso kezagarriak dira, espetxeetako jarduera administrazioaren elementu garrantzitsuenetariko bati eragiten diotelako, hau da, gizarteratzeko

zereginari; hori barik askatasuna kentzen duen zigorraren betearazpenak neurri handi batean galtzen du legeriak emandako zentzua. Gai hau sakonago aztertuko dugu txosten honen azken epigrafean. Puntu honetan, hala ere, kezkarriak diren bi arrazoi zehatz aipatu behar ditugu:

- Alde batetik, oro har tratamenduko langile gutxi eta, bereziki, gizarte langile kopuru urria izatea; horrek nabarmen zailtzen du jarraipen pertsonalizatua behar duten kasu guztiak behar bezala artatzea. Horrek ekartzen du presoek eta elkarteek sarri askotan pentsatzea euren zeregina guztiz formala dela, burokratizatuta dagoela eta ezin duela inola ere presoak gizarteratzeko baldintzarik sustatu.

Arazoa larriagotzen da, langile mota hauen artean izaten diren lan bajak eta administrazioaren estaldura falta kontuan hartzen baditugu. 2008an kasu aipagarri batzuen berri izan dugu eta horietan Espetxeratuen Zaintzako Epaitegiak eskatutako txostenak bidaltzeko lana zenbait hilabete atzeratu da, sailkapen gaietan prozedurak luzatuz edo preso batzuen baldintzapeko askatasuna atzeratuz, nahiz eta zigorraren hiru laurden bete izan eta hori ukatzeko arrazoirik egon ez. Beste zenbaitetan txostenen edukia ez da aproposena; izan ere, txostena pertsonarekin ia kontakturik izan ez duen tratamenduko langileren batek egin behar duenez gero, espetxeratuaren behaketa ordeztu behar du egindako delitu motaren, oraindik ere bete beharreko zigor tartearen edo aurreko espetxe historialaren arabera ondorioekin. Hasieran aipatu dugun jarduketan irizpide nagusien laugarrenarekin bat, gure ustetan, egoera hau hobe liteke partaidetza kanalak sortuz, espetxeetako psikologo, kriminologo eta gizarte laguntzaileek espetxeratuaren gaineko datuak kontrasta ditzaten presoeekin lanean ari diren gizarte ekimeneko erakundeek ematen dizkietenekin; gauzak horrela, gizarteratzeko dituzten ibilbideei eragiten dieten erabakiei buruzko behaketa metodoa gehiago hurbilduko zaio legeriak ezartzen duen indibidualizazio zientifikora. Horrelaxe azaldu genion Espetxeetako Idazkari Nagusiari gure bisita egin genuenean, eta ildo honetan egiten hasi diren koordinazio bilerek jarraipena izatea eta eduki osoko lankidetzarako baliagarriak izatea espero dugu; gure erakundeak horren guztiaren jarraipena egingo du.

- beste aldetik, maila honetan antzeman ditugun arazoak espetxeetako inguruak helburu hori lortzeko dituen funtsezko zailtasunen testuinguruan ulertu behar badira ere, horietariko batzuen konponbidea antolakuntzaren eta lehentasunen arabera izan daiteke, alderdi deigarrienei dagokienez, behinik behin.

Aurten ere nabarmendu behar dugu ondorio horietarako langileek orduak pilatzeak dakarren arazoa; langile horietariko batzuek lanaldi luze-luzeak izan ditzakete, 16 ordura artekoak. Horrek, jakina denez, kalte egiten die askatasunik gabeko pertsonen gizarteratzea errazten duten baldintzak bultzatzeko beharrezko ekimenari, energiari eta irudimenari.

Tratamendu arloko berrikuntza nagusi bezala, espetxetik kanpoko komunitate terapeutikoa aipatu beharra dago; horri men egin diogu Langraizko espetxeko berrikuntzen gainean hitz

egitean. Anbizio handiko proiektua da eta Eusko Jaurlaritzaren Drogazaletasun Zuzendaritzaren lankidetzarekin garatu da; dena dela, horren diseinua oraindik ere ez da amaitu txosten hau idazteko orduan. Nolanahi ere den, positibotzat hartzen dugu, bai erabiltzaileen ezaugarri partikularren arabera gizarteratzeko baliabideak egokitzeko ildoan aurrera egiten delako, bai kudeaketa lana ospe eta esperientzi handiko erakunde bati, Gizakia fundazioari, eman izanak dakarren bermeagatik.

Edozein kasutan ere, aintzat hartu beharra dago proiektuaren bitartez kanpora ezin irten daitezkeen espetxeratuei Espetxe Araudiaren 182. artikulua ematen duen aukera bideragarri bihurtzeko asmoa dago; izan ere: *asistencia en instituciones extrapenitenciarias adecuadas, públicas o privadas, de penados clasificados en tercer grado que necesiten un tratamiento específico para deshabituación de drogodependencias y otras adicciones*. Erroketariko bat, beraz, hori guztia eraginkor bihurtzean datza eta ahal dela saihestu beharko da praktikan beharrezko terapia jasotzeko kanpora irten zitezkeen pertsonen zuzendutako espetxe barruko baliabidea bilakatzea. Erakunde honek, bada, horren guztia jarrailen berezia egingo du.

Komunitatearen aldeko lanak

Orain dela bi urte aurkeztu eta erakunde honen beka baten bidez egindako ikerketa lan zehatz bati esker agerian geratu ziren gure erkidegoak dituen gabeziak (arazo hau ez da gure komunitatearena bakarrik) komunitatearen aldeko lanak antolatzean eta abian jartzean.

Orduz geroztik bildutako datuek baieztatzen dute gauzek hobera egin beharrean okerrera egin dutela; egoera hori zenbait faktorek eragin dute:

- Zigor hori orokortu izana baina hori egiteko bitartekoak neurri berean gehitu barik; hori dela eta, desitxuratu da eta gizarte edukia galdu du.
- Tokiko erakundeekin akordiorik ez dagoenez gero, espetxeek, zigoren iraungitzea saihesteko, edukirik gabeko zereginak ematen dizkiete halakoak bete behar dituztenei.
- Horien jarraipena egiteko beharrezkoa den lan burokratikoak neurri handiko trabatzea ekarri du, eta horren aurrean ezer gutxi egin dezakete betearazpenez arduratu behar duten epaitegiek.

Arartekoak, besteak beste, hori guztia azaldu zien espetxe administrazioko goi agintariei; agintariok egoera horri aurre egiteko plangintza iragarri zuten, baina horien eraginak oraindik ere ez dira nabaritu txosten hau amaitzeko orduan; dena dela, gure erakundeak horren jarraipena egingo du.

Lekualdaketak

Baliabideen urritasuna arazo larria da espetxeratuen lekualdaketak egiteko; zeregin hori Ertzaintzari dagokio. Arazoa jasan behar duten espetxeratuek eta gizarteratzeko laguntza

ematen dieten elkarteek hori berori aipatzen dute, baina espetxe administrazioaren zerbitzuean lan egiten duten beharginen lekukotzak ere bat datoz auzia aipatzeko orduan. Honen ondorioz izan daitezkeen eskubide urraketen artean bi nabarmendu behar ditugu:

- honako hau onartezina da espetxeratuen oinarrizko eskubideei eragiten dielako; izan ere, arazo honek eragin dezake kanpoko gizarte zerbitzuekin eta osasun zerbitzuekin berbatutako hitzorduak bertan behera utzi behar izatea. Horrelaxe gertatu zaie, adibidez, gurasoei; aita-ama horiek seme-alabekin egoteko aukera galtzen dute bisita izan behar den tokira iristeko patruiliarik ez dagoelako eta, beraz, seme edo alabarekin elkartzeko aukera gauzatzen ez delako. Hitzordua osasun arlokoa denean, ez dago arazorik larrialdia bada, baina bai espetxean ez dagoen zerbitzu mediko espezializatu baten esku-hartzea beharrezkoa denean eritasun jakin baten kasuan. Zenbait kasutan lekualdaketa alde aurretik programatuta egon arren, ez da egin eta, horrenbestez, bertan behera utzi behar izan da lortzeko zaila izan den eta denbora asko eskatu duen hitzordu bat; hori dela eta, beste hitzordu bat eskatu beharra dago eta horretarako denbora luze eman behar izaten da.
- espetxeen antolakuntzari berari egonaldi laburretarako sartzeko etengabeek eragiten diote; adibidez, Bilboko epaitegietako diligentzietara joan behar duten Langraizko presoak eragiten dietenak; izan ere, horregatik bakarrik zenbait egun igaro behar dituzte Basaurin. Espetxe horretako presoak, bestalde, diligentzia izan baino aste-bete lehenago lekualdatzen dituzte eta, behin diligentzia hori egin eta gero, beste astebete egin behar izaten dute bertan, harik eta euren espetxera itzuli arte; gainera, zenbait kasutan euren espetxean prozesu terapeutikoa egiten ibiltzen dira eta halako lekualdaketa luzeek eragiten diote horri.

Egoera onartezinagoa izaten da, kontuan hartzen badugu egoera saiheste litekeela itzulera egun bererako antolatuko balitz; horrek, gainera, ez luke arazo logistiko larririk ekarri behar; izan ere, horrela egin ohi da preso dauden emakumezkoekin, haientzako gelarik ez dagoelako Basaurin. Nolanahi ere den, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren baliabide mugatuak optimizatzeko arazoak daudela ukatu gabe, hona jaso ditugun akatsen garrantziak ezinbesteko bihurtzen du gairi buruzko neurri zehatzak hartzea.

Gaixotasun oso larri edo sendaezinak dituzten presoak

Gai honek zenbait erreklamazio ekarri dizkio Arartekoari azken urtean. Espetxeratutako pertsona hauen ustetan, euren gaixotasun larri edo sendaezinak aintzat hartuta, legeriak (berezi Espetxe Araudiaren 104. artikulua ezarritakoa) kasu horietarako ezarritako neurriez gozatzeko eskubidea izan beharko lukete arrazoi humanitarioak direla eta.

Kasuen lehenengo multzo bat pertsona talde baten senideek aurkeztu zituzten; izan ere, administrazioak pertsona horiei ez zien halako neurririk aplikatu, nahiz eta, euren ustetan horiek denak egoera horretan egon. Estatuko zenbait espetxetan zeuden zigorra betezen eta horrek eskumenen aldetik esku hartzeko ditugun mugak handitzen zituen. Beraz, Herri Defendatzaileari helarazi genion eta, halaber, askatasuna kendu dieten pertsonekin

zerikusia duten gainerako eskabideekin egin ohi dugun bezala, gure esku zeuden gestioak egin genituen, agintari eskudunei kasuaren berri emateko; kasu honi gagozkiolarik, idazkaritza nagusiari zuzenean jakinarazi genion, erakunde honekin apirilean izan genuen bilera bat baliatuz.

Kasuen bigarren multzo batean, pertsona talde batek kexa orokor bat helarazi zioten erakunde honi; kexa horretan adierazten zuten, arrazoi hori zela-eta espetxetik ateratzeko baimena izan arren, kanpoan familiaren eta gizartearen laguntzarik ez zuten eta egoitzazko baliabiderik ez dagoenez, horrek ez ziela praktikan uzten askatasuna lortzen.

Jakitun gaude Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek ahaleginak egin dituztela presoek espetxe onurez goza daitezela, betiere erakunde publiko nahiz pribatuekin sinatutako hitzarmenen bitartez. Egia esan, eskertu beharra daukagu gai honen inguruan iritsi zaizkigun kasu partikularrak konponduz joateko eman diguten laguntza.

Nolanahi ere den, ezin da ukatu horietariko bakoitzari aurki diezaiokegun konponbide zehatzetik harago, behar-beharrezkoa da preso mota hauen arazoari modu orokorrean heltzea; izan ere, euren patologia espetxetik ateratzeko bezain larria izan arren, ez zaio baliabideen profil zehatzari lotzen eta, azkenean, espetxeratu hauen perspektiba bakarra kartzelan hiltzea baino ez da. Horrek ageri-agerian jartzen du baliabide horiek handitzeko premia eta, zehatzago, egoera horretan dauden espetxeratuei zuzendutako zentro espezializatu bat sortzeko beharra; gaiari buruz izandako bilera eta kontaktuetan Arabako Foru Aldundiak zentro hori eraikiko dela adierazi digu.

Ildo honi jarraituz, 2008ko martxoaren 31n, Arabako Batzar Nagusiek mozio bat onetsi zuten aldundiari honako hauxe eskatzeko: *"en colaboración con las Diputaciones de Bizkaia y Gipuzkoa y el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, analice seriamente la creación de un Centro Especializado de Acogida para los penados con enfermedades muy graves con padecimientos incurables que se encuentran en el Centro Penitenciario de Nanclares que puedan acogerse a beneficios penitenciarios."* Azpimarratu nahi dugu mozioa batzarreko talde guztiek onetsi zutela aho batez; ezohiko joera horrek argi adierazten du arazoari presazko erantzuna emateko premiaren inguruan gizarte adostasun zabala dagoela.

Mozioaren bigarren puntuak, era berean, presa horren berri ematen du; izan ere, Batzarrek pertsona horien giza eta duintasun arazoak aipatzen dituzte Aldundiari eskatzeko ez dezala itxaron zentro hori sortu arte eta ahalik eta arinen jarduteko erkidegoko gainerako erakundeekin lankidetzan. Gauzak horrela, honako hauxe eskatu dio: *"amplíe los recursos sociales existentes en la actualidad para dar salida a aquellos internos de Nanclares que, por el tipo de enfermedad terminal que padecen, no se pueden encuadrar en los recursos sociales ya existentes"*.

Azkenik, Batzar Nagusiek uste dute handitze horren kostua Eusko Jaurlaritzarekin erdibanatu behar dela; horrela ondorengoa eskatzen diote: *"gorago aipatutako patologiak dituzten askatasunik gabeko pertsonen behin-behinean emango zaizkien gizarte baliabideen erdia ordaintzeko."*

Ikusten denez, bi norabideetan jorratutako jarduketa (beste baliabide bat sortzea eta oraingoak handitzea) Foru Legegintzaren ekimen honen edukia izanik, hiru aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean jardutea horren zeharkako ardatza da. Horrek berekin dakar erakundeen arteko plangintza presaz diseinatzeko premia; plangintza horrek, egun eskura dauden bitartekoen mapa bat azaltzeaz gain, eskariaren nondik norakoak eta horien bilakaera ezagutzea ahalbidetu beharko luke, bai eta bi ildo horietan jarduteko beharrezko bitartekoak eta alde bakoitzak hartzen duen erantzukizuna definitzea ere.

Ordutik hona zenbait topaketa izan dira; horietan, besteak beste, gai horretan ardua eta erantzukizuna duten hiru foru aldundietako sailak eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailaren Zigorrek Betearazteko Zuzendaritza izan dira. Kontaktuen ondoren, beste konpromiso batzuen artean, aipatutako baliabideen mapa egiteko asmoa sortu zen. Oso positibotzat jotzen dugun ekimen honi laguntzeko, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiarekin hainbat gestio egin ditugu, gure erkidegoko espetxeetan dauden eta azken urteotan eta gaur egun egoera hau jasan behar duten pertsonen kopuruaren gaineko informazioa bilatzeko eta zerbitzu mota hauen eskariak izan duen bilakaera aurreikusteko, betiere gure espetxeetako herritarrei eragiten dieten patologiak eta pertsona horiek dituzten famili eta gizarte laguntzak kontuan harturik. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Gaietarako Sailburuordetzara ere jo dugu, plangintza honetan inplika dadila eskatzeko; izan ere, aipatutako erakunde guztiek adierazitakoarekin bat, une honetan plana taxutzen ari dira.

3- Gure espetxeetako egoerari buruzko hausnarketa, zigor betearazpenaren helburuak aintzat hartuta

Urtean zehar gure espetxeetan antzemandako arazoak aipatzean, errehabilitazio tratamenduko gabeziak nabarmendu nahi izan ditugu. Oztopo hori gainditzeko guk egindako ekarpena ez litzateke erakunde honen helburuekin koherentea izango, baldin eta giza baliabideak eta bitarteko materialak handitzeko premia besterik gabe berretsiko balu. Izan ere, deskribatu dugun errealtateetik abiatzen den azterketa bat behar da, beti murrizak izango dira baliabide horiek optimizatzeko egokienak izan daitezkeen bideak estrategikoki proposatzeko, betiere errehabilitazio helburuaren zerbitzuepan.

Errehabilitazioa espetxe sistemaren helburu eta justifikazio gisa

Espetxeratuen tratamendua espetxe antolakuntza egituratu beharreko oinarrizko zeregin gisa aurkeztu ohi da. Hori oinarritzeko, Espetxeen Lege Organiko Orokorren (ELOO) 1. artikulura jo ohi da; izan ere, ezarpen horren arabera, birgizarteratzea askatasuna kentzen duen zigorraren betearazpena arautzen duen irizpidea da, betiere Konstituzioaren 25.2. artikulua ezarritako aginduari jarraituz.

Handik aurrera, hala ere, espetxeratuen bizimoduak berez justifikatzen den zigorraren betearazpen hutsa izateari uzten dio eta legitimotasun konstituzionalaren funtsezko osagai

bihurtzen da. Esan nahi baita, helburu garrantzitsu hori erdiesteko birtualtasun falta egiaztatzen duten adierazleak dauden neurrian, kolokan dagoena askatasuna kentzen duen zigorraren muina da. Eta egia esan, espetxearen ingurune itxiaren eragin desozializatzailer frogatuak saihesteko premia da betearazpen alternatiboetarako moldeak abian jartzea eskatzen duena, eragin horiek ekiditeko. Beraz, gehienbat itxialdia bermatzen jarduten duen egitura baten markoan, ez da bakarrik portaera ona saritu behar, baizik eta askatasuna kendu zaionaren birgizarteratzea errealitate bihurtzeko legezko agindua bete beharra dago.

Helburu hori erdieste aldera, Espetxeen Lege Organikoaren 71. artikulua ezartzen du espetxeen helburu nagusia dela bertan tratamenduaren arrakastarako giro egokia lortzea, eta horren ondorioz agintzen du erregimen zereginak bitartekotzat hartu behar dira helburua lortze aldera. Espetxeen Lege Organikoaren 59.1. artikulua itzalpean, antolakuntzara eta espetxe araubide osora zabaltzen den tratamenduaren kontzeptu horrek ondoko hauxe aipatzen du: *“conjunto de actividades directamente dirigidas a la consecución de la reeducación y reinserción social de los penados”*. Edozein kasutan ere, kontuan hartu behar dugu Espetxeen Lege Organikoaren 62. artikulua termino bera erabiltzen duela beste zentzu batean, lehenbizikoaren aldean instrumental eta zirkunstantziala dena, eta espetxeratuari antzeman dakizkiokeen gabeziak gainditzera zuzendutako terapia batzuei men egiten diena metodo biologiko, psikiatriko, psikologiko, pedagogiko eta sozialen bidez.

Sailkapen eta indibidualizazio zientifikoa gure kartzelarako errealitatean

Espetxeratuaren bizimodua arautzen duten erregimeneek ekimenerako gaitasun eta askatasun indibidual handiagoa ematen diote zigortuari, baldin eta delinkuentzia eragin edo erraztu duten muga indibidual eta sozialak gainditzeko emango zaizkion laguntzak onuragarriagozat jotzen badira. Horretarako, Espetxeen Lege Organiko Orokorra indarrean sartu zenetik, *“indibidualizazio zientifikoari buruzko printzipioak”* finkatzen duen sailkapena erabiltzen da. Aurreko sistema, *“arian arikoa”*, gradu baten aurrerapena ezartzen zuen denborak aurrera egin ahala; beraz, zigorraren iraupenak garrantzi handi-handia zeukan sailkapenean eta, horregatik, espetxeratuari aplikatzen zitzaion espetxe erregimenean. Aitzitik, indibidualizazio zientifikoak sailkapena tratamendurako bitarteko bihurtzen du, betiere den-dena askatasuna kentzen duen zigorrari Konstituzioan birgizarteratzeko ematen zaion helburu; izan ere, zigortua aurrera egingo du graduan, bere jokabideak erakusten duenean delituzko jarduerarekin zerikusia duten nortasun zantzuak edo sektoreak aldatu direla, betiere Espetxeen Lege Organiko Orokorren 55.2. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.

Logika honi jarraituta, espetxeratutakoari jarritako zigorraren iraupenari buruzko irizpidea sailkapen prozesuan parte hartzen duten gainerako irizpide eta aldakiekin batera baloratu behar izango litzateke neurritz. Hortaz, ez litzateke zailtasunik izan beharko espetxeratu bat hirugarren graduan sailkatzeko, betetzeko geratzen zaion zigorra alde batera utzita, baldin eta espetxeratuak gozatuko lituzkeen erantzukizun eta askatasun maila handiagoak eta konfiantza zabalagoak egoki eragingo baliote birgizarteratzea errazten duten baldintzak sortzeko aukerari.

Jakitun gaude, nola ez, ELOOK printzipio horiek islatu zituenean, horiek aplikatzen zireneko herrialdeetan desilusio prozesu batean zeudela, "What works? Nothing works" esapideak ondo adierazten duena. Hirurogeiko hamarkadaren amaierara arte, espetxeei buruzko teorietan (praktika beti izan da bestelakoa) eragina izan dute delinkuentzia murriztera aplikatutako ikerketa aukerek, bai delituaren arrazoiei buruzko ikerketa zientifikoaren bidez, bai jokabidearen zientzietako banakako erabileraren bidez. Hirurogeita hamarreko hamarkadaren lehenengo urteetan, hala ere, espetxe tratamenduak berrerortze tasetan izandako eragin murrizak kartzelako errehabilitazio helburuak modu errealistagoan birformulatzea ekarri zuen.

Gure zuzenbide positiboan hogei urte geroago txertatu bazen ere, jatorrizko bertsioan egin zen; horrek anakronismo bat ekarri zuen, gutxienez bertute bat eduki ahal izan zuena: askatasuna kentzen duen zigorraren alternatibak eta zigorra erregimen irekian betetzea modu esanguratsuan bultzatzeko legezko laguntza eskaintzea. Alabaina, horren ordez, eragin gaizto bat izan zuen, hogei urte geroago ere indarrean dagoena. Izan ere, hain helburu bikainak, haiekin zerikusirik ez zuen errealtatea kolokan jarri behar izan zutenak, neurri batean horren justifikazio pantaila bihurtu ziren: inertziek, aurrekontu faltak, egitarauen jarraipenak eta politika kriminalak (Europako bururaino eraman gaituena, biztanle bakoitzeko dugun preso kopurua kontuan hartuta, 157/100.00 azken kalkuluen arabera) baldintzatutako errealtatea.

Espetxeak erraztu beharreko birgizarteratzea, hortaz, *desideratum* bihurtu zen modu abstraktuan; asmoen adierazpen errukior baten antzera erabili zen eta ez zen ebaluatu behar espetxeratuaren bizitzan kartzelako egonaldia benetako eraginekin edo berrerortze tasekin zeukan erlazioa. Aldi berean, eta arauen mailan, hurrengo espetxe araudiak 1979ko Lege Organikoaren errehabilitazio asmoak murrizten saiatu ziren. Administrazioak horren manuen inguruan egindako interpretazioak ildo horretan sakondu zuen eta hori Zigor Kode berrian berretsi zen, bai eta hori izandako aldarazpenetan ere, "zigorren bete osoa" delakoa bermatzeko: oinarrian eta, lanagatiko libratzearen desagerpenak espetxe egonaldia ekarritako luzapenarekin batera, hirugarren gradura iristeko segurtasun epeak azaldu ziren; horrek praktikan arian ariko sistema zaharraren logikara eramaten gaitu.

Litekeena da horrek legeak zigorrerako ezarritako beste helburuei erantzutea eta horrek zerikusia izatea prebentzio berezi negatiboaren, prebentzio orokorraren edo ordainaren premiekin. Edozein kasutan ere, ekarri duen efektua honakoa da: kasurik gehienetan graduan aurrera egiteak zerikusi handiagoa izatea pertsona bati zigorra betetzeko geratzen zaion denborarekin, askatasunean deliturik egin gabe bizitzeko dituen aukeren gaineko banakako azterketarekin baino. Testuinguru honetan zentzua hartzen dute, gorago aipatu bezala, tratamenduko profesionalen eta espetxeratuaren artean ia kontakturik egon gabe izan diren sailkapen proposamenek.

Erregimen irekia zigor betearazpenaren helburuak bultzatzeko bitarteko gisa

Legeak, sailkapenaren eta gradu aurreratzearen bidez, zigortuaren nortasunari eragin nahi dio, elkarbizitzaarako gizarte aukera batzuetara egokitzeko, askatasunean bizitzen ikasteko

prestakuntzari begira. Nolanahi ere den, kartzelako errealtatearekin egindako kontrasterik txikienak kolokan jartzen du, ez bakarrik praktikan legezko ezarpen hauen betetze maila, baizik eta noraino hitz egin daitekeen errehabilitazioari buruz norbanakoei askatasuna kentzea ezaugarri nagusitzat hartzen duen ingurune batean.

Askatasuna kentzeak espetxeratuari, irtendakoan, deliturik gabeko bizi aurrera eramaten lagunduko diola pentsatzeak talka egiten du presoak bere askatasun bizitzan duen ohiko testuinguruaren eta tratamenduaren arteko interakzio faltak dakarren zailtasunarekin. Egia da espetxeratuaren behaketak, ingurune itxian egiten denak, ez dituela alde batera uzten kartzelan sartzea baldintzatu duten gizarte faktoreak. Edozein kasutan ere, praktikan ikusten da, arrazoen ikerketa garrantzirik gabekoa izan ez arren, esku-hartzearen testuinguru ezak bultzatzen duela hori efektuen konponbidean bilbatzea. Baina ezin da pentsatu espetxeratuari lagunduko zaiola presondegira eraman zuten mugak gainduz joaten, portaeraren eta gizarte testuinguruaren arteko elkarreragina kontuan hartzen ez bada.

Faktore hau azpimarratzean, presoak tratatzeko bitarteko gehiago aldarrikatzeak (gizarteratzeari begira, askatasuna kentzen duen zigorraren porrota ikusita) dakarren leku komuna gainditu nahi dugu; izan ere, tratamendua eraginkorra izan dadin, ezin da espetxeratuaren benetako bizimoduaren testuingurutik kanpo ikusi. Beste modu batera esanda, Espetxeen Legearen hogeita hamar urteko esperientziak erakusten du birgizarteratzeko helburuak ingurune itxiarekiko haustura ezartzen duela.

Nolanahi ere den, erregimen irekia lortzen duten gehienek “ohiko” erregimen batean –betiere praktikan haien zigorraren luzapenaren arabera– egon eta gero eskuratzen dute eta normalean ohiko erregimen horrek ez dio bilakaera pertsonalari ezertan laguntzen, hirugarren graduko gauzak errazteari begira. Gauzak horrela, ELOOK birgizarteratzea lortzeko oinarri hartzen duen tratamendua ez da kasurik gehienetan interpretatzen helburu “terapeutikoetara” bideratua bezala –beharbada bai maila instrumentalean–, baizik eta presondegiaren birgizarteratze efektuak indargabetzeko tresna gisa, betiere askatasuna kentzea eta zigortuaren birgizarteratzeko bidea ahalbidetzen duten bitartekoak lortzea bateratuz.

Ez da kasuala erregimen irekiko tratamenduaren funtsezko helburuetariko bat erregimen itxian espetxeratuaz zatearen ondorioak apaltzea izatea. Espetxe itxian egindako egonaldien ondoren, presoak, aipatu dugun bezala, “espetxeratuta” iristen da: moldatzeko prozesu bat garatu du eta tarte horretan bizirauteko barneratutako balioak erantzukizunaren, elkartasunaren eta indibidualizazioaren kontrakoak izan dira gehienetan. Erregimen irekira iristen delarik, zigortuak erantzukizun eta protagonismo aktiboaren eskakizuna izango du eta horri hobeto erantzun ahal izango dio, lehenengo eta bigarren graduko “heziketak” gutxiago eragin izan badio.

Hemen azaldutako arrazoiak direla eta, tradizioz espetxe doktrina juridikoak hausturatzat edo erregimen itxiaren alternatibatzat hartu du erregimen irekia. Dena dela, gure legerian izandako lehenengo erregulazioan bezala (Espetxeei buruzko 1968ko urtarrilaren 25eko Araudia), interesgarria da egiaztatzea perspektiba bateratzaile baten barruan aurkezten duela azken honekin. Ikusi dugun bezala, hasiera batean bateratze hori arian ariko sistemaren

bidez gauzatzen da: zigor denborak aurrera egin ahala, erregimena apalduz doa eta autonomia tarte handiagoak ematen dizkio espetxeratuari. Modu automatikoan erregimen irekira pasatzea –portaera txarrik ez badago– zigorra gizatiartzeko asmo modura uler daiteke, horrek sortzen duen atsekabea arian-arian murriztuz zigorra betez doan neurrian.

Horren aurrean, ELOOK indibidualizazio zientifikoaren irizpidea ezarri zuenean, ez du bakarrik egiten, ikusi dugun bezala, konstituzioaren osteko espetxe antolamenduak gizarteratzeko gidatzen duen orientabidearekin bat etorri; hori egiten du horretan ez zegoelako ez-beharrezko zigorraren apaltze modura justifikatzen zen arian ariko sistema bat. Edonola ere, erregimen baten eta bestearen asmoen arteko kontraesanak ez dira sortzen horiek bateratzeko printzipioaren justifikazio teorikotik, ezpada presoaren bizitzaren errealitatetik. Eta erregimen itxian dagoen pertsona baten bizi baldintzek ekartzen dutena, orain arte adierazi dugun bezala, zera da: horiek espetxeratuaren desozializazioa handitzea. Erregimen irekia bultzatzeko premia Konstituzioaren 25.2. artikulua ezarritako zigor betearazpenerako helburuek ezartzen dute. Eta horrelaxe aintzatesten du ELOOK ere bere azalpen zatian; izan ere, bertan erregimen irekia bultzatzeko eta erregimen itxia kasu berezietarako murrizteko asmoa azaltzen da.

Ildo honi jarraituz, oso interesgarria da gaur egungo espetxe administrazioak erregimen irekia bultzatzeko egindako ahaleginak, benetakotzat jotzen ditugunak, eta egungo politika kriminalaren ondorioak aldaratzea; izan ere, azken 4 urteotan askatasuna kentzen duen zigorra erregimen irekian betetzen duten pertsonen kopurua %11tik %17ra handitu da, baina epe berean espetxeratuak 15.000 gehiago izan dira. Baldintza hauek ikusita, ia-ia ezinezkoa da espetxe erakundeek bestelako zeregina betetzea, presoaren aseguramendua izan ezik.

Preso batek, hala ere, bere eskubide guztiei eusten die, zigorraren ondorioz mugatuak izan ez badira. Muga horiek, Konstituzioaren 25.2. artikulua ezarritakoarekin bat etorri, zigor epaiak, zigorraren zentzuak eta espetxe legeak bakarrik eska ditzakete. Horren arabera, auzia ez da presoak ez duela “gizarteratzeko eskubiderik”, baizik eta, Konstituzioak hala aginduta, askatasuna kentzen duen zigorraren eraginak bi gauza errespetatzeko eskubidea daukala: 1. “bere nortasunaren garapen osoa”; 2. zigorra betetzeko eskubideak, gizarterean sartzen lagundu ez arren, ez dezala presoaren desozializazioa bultzatu.

Konstituzioaren eskakizun horietariko lehenengoa da tratamendu taldeek ematen duten laguntza jardueraren zentzua interpretatzeko abiapuntua, ELOOren 59.2. artikulua ezartzen duen bezala:

“El tratamiento pretende hacer del interno una persona con la intención y la capacidad de vivir respetando la Ley penal, así como de subvenir a sus necesidades. A tal fin se procurará, en la medida de lo posible, desarrollar en ellos una actitud de respeto a sí mismos y de responsabilidad individual y social con respecto a su familia, al prójimo y a la sociedad en general.”

Horrenbestez, zigortuari ematen zaion laguntzak ez ditu bakarrik kontuan hartu behar arazoak konpontzeko eta bakoitzaren gabeziak heziketa programak eta programa psikosozialak; izan

ere, ezinbestekoa da horiek emateko ingurunea ere aintzat izatea. Ildo honi jarraituz, gizarte nahiz familiaren testuinguruaren eta laguntzaren arteko interakzioa ahalbidetuz, askatasuna kentzeak sortutako disfuntzioak apaldu ahal izango dira. Aukera garrantzitsuak erantzukizunez hartzeko gutxieneko gaitasuna dagoenean bakarrik egon daiteke zigortua tratamenduak bilatzen dituen balioak barneratzeko egoeran. Ez da errealista baldintza horiek emango dituen beste erregimen bat bilatzea, irekia ez bada.

Bigarrenari dagokionez, ageri-agerikoa da gizarteratzea, oro har hartuta, espetxez gaindiko helburua dela, eta hori errealitate bihurtuko da bakar-bakarrik espetxeratuak deliturik gabeko bizimodua aurrera eramateko borondateak eta ekonomia nahiz gizarte arloko bestelako faktore batzuek laguntzen badute. Baina, espetxeratu askatasuna kentzen dion zigor batera kondenatu dute, eta Konstituzioaren 9.1. artikulua Administrazioari ezartzen dio hori oztopoa ez izatea preso birgizarteratu behar den erkidegoko bizitza politiko, ekonomiko, kultura eta sozialerako sarbiderako.

Hori guztia errealitate bihurtzen laguntzeko proposamen gisa, hausnarketa hau amaitzeko adierazi nahi dugu erregimen irekiko bidea ahalik eta gehien zabaltzea gaur-gaurkoz ez dagoela soil-soilik birgizarteratzearen inguruan bilbatutako espetxe zigorra oztopatzen duten inertziak (hori guztia segurtasunaren eta ordainaren izenean) gainditzeko lanean. Aipatu dugun bezala, helburu hori lortzeko zuzendutako bitarteko eta baliabideak nabarmen handitu behar dira. Baina, enfasia zerbaitetan jarri behar bada, ez da Administrazioaren bitartekoe-tan. Gure ustetan, espetxeen malgutasun handiagoa lortu behar da eta gizarte osoarekiko erlazio zabalagoa; gauzak horrela, partaidetza sistemak garatu behar dira, zorionez euskal elkarte sarean dugun elkartasun potentzialaz baliatzeko. Horrelaxe eskatu du erakunde honek 1996tik; urte horretan gai honi buruzko txosten berezia egin zuen eta bertan arlo honetan egindako jarduketan ildo estrategiko garrantzitsuak jaso zituen; ildo horiek hasieran aipatu dira. Hamahiru urte geroago, eta gure espetxeetako egoerari buruz bildutako azkeneko datuak ikusirik, gure ustetan ildo horiek indarrean daude oraindik ere.



II.11

BERARIAZKO ARRETA GAIXO KRONIKOEI

11. BERARIAZKO ARRETA GAIXO KRONIKOEI

Gaixotasun kronikoak luzeak izaten dira, eta, oro har, oso mantso egiten da aurrera. Horien artean, Osasunaren Mundu Erakundeak bihotzeko gaixotasunak, bihotzekoak, minbizia, arnas gaixotasunak eta diabetesa hartzen ditu munduko heriotza-kausa nagusi gisa.

Hala ere, gaixotasun kronikoek erasandako pertsonen arreta berezia ematea da sail hone-tako helburu nagusia; izan ere, zaugarriago edo baztertuago daude, bai gabeziak daudelako gaur egun ematen den arretaren kalitatean eta bai gizartean duten estigmatik.

Oro har, zentzu hertsian esanda sendatzaileak diren tratamendu edo zaintzetan ez bes-telakoetan oinarritutako arreta eskatzen dute, batez ere, talde horiek, eta gehiago erre-paratzen diete bizi-kalitatea bermatuko dieten ikuspegi soziosanitarioari, beregaintasuna, zainketa, narriaduraren prebentzioa eta tratu eta aukera berdintasuna sustatzearen bidez. Azken batean, eskubideak dituzten herritar titular gisa hartzea.

A) Buruko gaixotasun kronikoa duten pertsonak

Talde honetan, bereziki aipatu behar dira burutik gaixo daudenak; gaixo horien egoera hainbat txosten espezifikotan aztertu izan dugu, hala nola "Psikiatrikoak" (1992) eta "Buruko gaixo-tasunen erkidegoko arreta" (2000) txostenetan.

2008. urtean, Arartekoak batez ere arlo hauetan jardun du:

- "Buruko gaixotasunen erkidegoko arreta" ohiz kanpoko txostenaren jarraipena egin du, buruko gaixotasunari buruzko edo gaixotasun horrekin lotutako bi plan indarrean zeudela –Asistentzia Psikiatriko eta Osasun Mentaleko Plan Estrategikoa (2004/2008) eta Atentzio Soziosanitarioaren Garapenerako Plan Estrategikoa (2005/2008)– ospitaleko eta ospitaletik kanpoko arretan zer aldaketa egin diren kon-tuan hartuta.
- Tutoretza erakunde publiko edo pribatuaren zaintzapean dauden pertsonen egoeraren jarraipena egin du; horien artean, hainbat talde sartu ditu, hala nola ezgaitasunen bat duten pertsonak, adinekoak eta burutik gaixo dauden pertsonak. Horren jarrai-pena egin genuen jadanik 2002. urteko ohiko txostenean (ikus 2002ko Txostena, 1.1.9 atala).
- Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertso-nei Laguntzeko Legearen (aurrerantzean Mendekotasun Legea) aplikazioaren jarrai-pena egin du, osasun mentalaren arlo espezifikoan.
- Pertsonen Osasun Mentalari eta Eskubideei buruzko Jardunaldia antolatu du, EHU-ren XXVII. udako ikastaroen barruan.
- Osasun mentaleko taldeetan espezializatuta dauden elkarteekin harremana izan du, haien kezka eta eskari nagusiak biltzeko.

a) Ohiz kanpoko txostenaren jarraipena

Buruko gaixotasunen erkidegoko arretari buruzko ohiz kanpoko txostena argitaratu zenetik, gogoeta ugari egin dira kontu horren gainean. Osasun administrazioaren esparruan, osasun mentaleko hainbat plan egin dira. Horregatik, aurten planik berrienen jarraipena egin nahi izan dugu, erakunde honek egindako gomendioak garatzeko hartu diren neurrietan gomen-dio horiek zenbateraino bete diren ikusteko.

Zehazki, Asistentzia Psikiatriko eta Osasun Mentaleko Plan Estrategikoa (2004/2008) eta Atentzio Soziosanitarioaren Garapenerako Plan Estrategikoa (2005/2008) aztertu ditugu.

Horretarako, hainbatetan eskatu diegu informazioa Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, eta, horrez gainera, osasun mentalaren esparruko hainbat profesionalen eta elkarteren informazioa ere bildu dugu.

Asistentzia Psikiatriko eta Osasun Mentaleko Plan Estrategikoari (2004/2008) dagokionez, hainbat alderdiren gaineko informazioa eskatu genuen, plan hori zenbateraino betetzen ari ziren jakiteko. Erantzunarekin batera, osasun mentaleko arduradunak 2008ko maiatzean Plan Estrategikoaren ebaluazioari buruz informatzeko Eusko Legebiltzarrean egin zuen aurkezpena igorri ziguten, eta informazio gehigarria ere eman ziguten; informazio hori honela laburbil daiteke:

- Osasun mentalaren sarea berrantolatzeari dagokionez
 - Laguntza eta egoitza baliabide publiko nahiz hitzartuen lurralde banaketa, sektore bakoitzean: Araba, Gipuzkoa, Uribe, Ezkerraldea-Enkarterri, Bilbo eta barrualdea. Erantzunarekin batera, hainbat diagrama bidali zizkiguten; diagrama horietan, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun mentalaren mapa agertzen da, eta banaketa hau egiten da lurralde historiko bakoitzean: eguneko zerbitzuak eta jar-duera egituratuak, egoitza zerbitzuak, eta komunitate eta laguntza zerbitzuak, hala sare publikoko zerbitzuak izan nola sare hitzartuko zerbitzuak izan. Oraindik sortzeko edo garatzeko dauden zerbitzuak eta baliabideak ere nabarmentzen dira mapa horretan.
 - Sektore, eskualde edo eremu bakoitzeko beharrei erantzuteko neurri, ekintza eta baliabide berriak, bai eta onuradunak zenbat diren ere. Erantzunean, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak adierazi du hainbat proiektu egin direla lurralde sektORIZAZIOAN, hautemandako beharrak oinarri gisa hartuta. Proiektu horiek jadanik ezarri dira Araban eta Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, kontsul-ta egiten eta proiektua ezartzen ari dira.
 - Honako gabezia hauek betetzeko baliabideak –publikoak zein pribatu hitzartuak–:
 - o Eguneko laguntza duten eta gaixotasun akuturik ez duten pazienteentzako egoitza zerbitzua, aldi baterako egonaldikoa nahiz egonaldi mugagabekoa:

Erantzunean adierazi dute bi egoitza sortu direla, bat Galdamesen (Bizkaia) eta bestea Gipuzkoan, guztira 30 lekurekin, eta beste egoitza batzuk irekitzeko asmoa ere badagoela. Egoitza psikiatriko txikiak dira (15-20 leku), buruko nahaste larria, ageriko sintomatologia apala eta mendekotasun ertain edo handia duten pertsonentzat. Horrekin batera, adierazi dute mendeko pertsonentzako etxebizitza babestuen sare bat badutela Bizkaiko eta Gipuzkoako elkarteek, eta neurri txikiagoan Arabakoek.

- o Larrialdietarako nahiz arreta jarraitua emateko zerbitzu ibiltariak burutik gaixo daudenentzat, “krisietako esku-hartze” egoeretan laguntzeko eta etxex etxeko laguntza emateko: Emandako informazioaren arabera, Araba, Bermeo, Zamudio eta Zaldibarko ospitaleek erkidegoko asertzio tratamendurako programak izenpetu dituzte; programa horietan, etxex etxeko laguntza eta krisietan esku hartzeko laguntzak sartu dira, errehabilitazio zerbitzuen eta eguneko zentroyen barruan. Gipuzkoan ezein erakundek ez du izenpetu programa hori.
 - o Gizarte harremanetan jarduten duten eguneko egiturak: Haien ustez, gehiago dagokio arlo sozioterapeutikoari arlo sanitario terapeutikoari baino. Informatu dutenez, gehienak sektoreko elkarten esku daude.
 - o Ospitaleez bestelako egoitza zerbitzuak, paziente akutuentzat: Adierazi dute ez dagoela eskaintza publikorik edo pribaturik gisa horretako pazienteentzat, nahiz eta jakin antzeko esperientziak badirela Erresuma Batuko, Eskandinaviako eta Europa erdialdeko herrialdeetan.
- Egoitza zerbitzuak, segurtasun neurriak betetzeko. Ospitaleko zaintza behar duten presoentzat badira espetxe unitateak ospitale orokorretan (Basurtu, Txagorritxu eta Donostia), eta osasun mentalaren esparruan ere ari dira segurtasun neurriak betetzen, Zaldibar, Bermeo eta Arabako ospitale psikiatriko publikoetan eta Arrasateko Aita Menni ospitale hitzartuan; hain zuzen ere, pertsona batzuk segurtasun neurriak betetzen ari dira ospitale horietan, delitu egintzaren bat egin dutelako baina egileen egozgarritasun falta onartu delako.
- Nolanahi ere, bidalitako informazioaren arabera, zalantzak sortzen dira gisa honetako neurriak betetzeko orduan; izan ere, osasun arloan oso gutxi dakite legezigor figurari buruz, ez dago elkarrizketa joririk osasun eta espetxe erakundeen artean, eta maiz alde handia egoten da zigor neurriak irauten duen denboraren eta ospitaleratutako pertsonaren hobekuntza klinikoaren artean, beste pazientekin batera ospitalean edukitzeak dakartzan arazoekin.
- Egoera hori konpontzeko, beharrezkotzat jotzen dute EAEko ospitale psikiatrikoetan dauden segurtasun neurriak betetzeko unitateak sortzea (kasu larrienean eta arriskutsuenetan izan ezik, halakoetan Foncalent-eko espetxeko ospitale psikiatrikora eramaten baitira, Alacantera), eta batera finantzatzea Osasun eta Justizia sailek eta espetxe erakundeek. Hain zuzen ere, adierazi dutenez, bada Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari aurkeztutako proiektu bat, eta hori formalizatzeko ez da inolako pausorik eman.

- Pazienteen eta erabiltzaileen gogobetetzea
 - Baliabide berriak laguntza psikiatrikoaren sareko zerbitzu zorroan, 2008. urtean. Haur eta gazteen osasun mentalaren arloari dagokionez emandako informazioaren arabera, hezkuntza zentro terapeutiko bat inauguratu dute Gasteizen eta Lasarten, Hezkuntza Sailarekin elkarlanean. Buruko nahaste larria duten pazienteentzat, lehen adierazitako egoitzak inauguratu dira, Galdamesen (Bizkaia) eta Donostian. Egoitza horiek Osasun Sailak eta foru aldundiek finantzatu dituzte. Horrez gain, osasun mentaleko hainbat ospitale eta zentro egokitzeko lanak egin dira.
 - EAEn hiru lurralde historikoetarako zerbitzu zorro homogeneo bat jartzeko neurriak.
Osakidetzeta-Euskal Osasun Zerbitzuak bere erantzunean adierazi du psikiatria sareko baliabideen zorroak hiru lurraldeetan prestazio berberak izan arren desberdintasun handiak daudela aldundiek eta Osasun Sailak elkarrekin finantzaturako sare hitzartuan, eta Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluari dagokiola homogeneizatzea.
 - Teknika diagnostiko eta terapeutiko berriak txertatu dira osasun mentalaren zerbitzu zorroan.
Hain zuzen ere, hainbat proiektu badira 2008-2009ko kudeaketa planean jasoak, nahiz eta oraindik onartzeko dauden; proiektu horien bidez, nortasun nahastea dutenak tratatzeko unitatea, patologia dualerako unitatea eta psikosia goiz detektatzeko programen ebaluazioa txertatuko dira.
 - Osasun eta gizarte aldetik baztertuta geratzeko arrisku handia duten taldeak detektatzeko eta kopurua zehazteko neurriak (besteak beste, nahaste larriak dituzten pertsonak, mendekotasun egoeran dauden adinekoak, askotariko arazoak dituzten pertsonak, esate baterako patologia duala dutenak, portaera nahastea dutenak, bereziki haurrak eta nerabeak...).

Gizarte bazterketaren munduko gizarte erakundeekin elkarlanean jarduteaz gain eta aldundietako Gizarte Ekintza sailekin zahartzearekin zerikusia duten politikak sustatzeko jarduerak aurrera eramateaz gain (adinekoak gero eta baztertuago dagoen talde gisa hartzen baitira), erakundeen arteko batzorde batean parte hartzen du osasun mentaleko Euskal Kontseilu aholkulariak, erkidegoko esku-hartzeak ezartzeko bazterketa arrisku handiko arloetan, buruko nahaste eta mendetasunen gainean jarduteko asmoz. Sortu zenetik, 2008ko martxotik, mendetasunei buruzko txosten bat egiten ari da Osasun mentaleko Euskal Kontseilu aholkularia, talde horietan mendetasunak detektatzeko eta mendetasun horiei aurrea hartzeko nola jardun ezartzeko; txosten hori amaitzeko dago oraindik.

- Senitartekoen eta gaixoen elkarte adierazgarrienak txertatzea erabakitzeko eta ebaluatzeko prozesuetan.

Osasun mentaleko senitarteko eta erabiltzaileen ordezkari batek parte hartzen du osasun mentaleko Euskal Kontseilu aholkularian, eta haren parte-hartzea oso ontzat jotzen da.

- Erkidegoko eredia garatzea eta sustatzea
 - Erakundeen koordinaziorako protokoloak.
Bidalitako informazioaren arabera, koordinazio protokoloak egin dira osasun mentaleko sarearen eta lehen mailako arretako unitateen artean. Gainera, hitzarmenak ere badira Hezkuntza Sailarekin, hezkuntza zentro terapeutikoetako kudeaketetarako. Alabaina, emandako erantzunaren arabera, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren eskumena da foru aldundien, Eusko Jaurlaritzaren eta udalen artean bestelako koordinazio molde batzuk lantzea, Arreta Soziosanitarioko Plan Estrategikoa garatuta.
 - Arreta aldundien tutoretzapeko adingabeei.
Protokolo bat izenpetu dute Osakidetza eta Bizkaiko Foru Aldundiak, babesik gabe dauden adingabeei arreta psikiatrikoa emateko. Erantzunean ez da adierazi antzeko jardunik ba ote den Arabako eta Gipuzkoako aldundiekin. Lurralde horietan, haurren eta gazteen osasun mentaleko sarearen bidez ematen da arreta.
 - EAEko errehabilitazio psikosoziala.
Emandako erantzunean adierazi dute lurralde historiko bakoitzak bere eredia garatu duela buruko nahaste larria artatzeko; dena dela, duela bost urtetik hona, erkidegoko asertzio tratamendurako programak abian jartzen ari dira ospitaleak, eta horrek hiru lurraldeetako baliabideak nolabait bateratzea ekarri du. Erkidegoko baliabideak eta arlo soziosanitarioko baliabideak garatzea espero du Osakidetza, hala nola egoitza txikiak eta eguneko zentroak.
 - Portaera arazoak dituzten droga-mendekoetan esku hartzeko eredu berriak.
Informazioaren arabera, EAEn psikosi immuneko unitate bat dago, 14 oherekin, eta arrakasta handi samarra izan duten programak garatu ditu. Erantzunean ez dute aipatu, ordea, esku hartzeko inolako eredu berririk, Plan Estrategikoak aurreikusten zuen bezala.

Lehenago adierazi dugun bezala, jarraipena egin nahi izan diogu 2005-2008ko Atentzio Soziosanitarioko Plan Estrategikoaren garapenari; izan ere, plan hori garatzeko eta helburuak lortzeko epea amaitzeaz zegoen. Horretarako, informazioa eskatu genien Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, foru aldundiei eta hiru hiriburuetako udalei, arlo horretan emandako pausoen berri izateko:

- a. Zer baliabide soziosanitario berri sortu diren, eta zein handitu diren tamainari dagokionez edo leku kopuruari dagokionez.

- b. Zer lan molde eta tresna ezarri diren diziplinarteko eta koordinaziorako lan dinamika ezagutzeko, eta zer deribazio eta koordinazio protokolo edo akordio egin diren arlo soziosanitarioko sailen artean.
- c. Zer beste gauza interesgarri egin diren planaren garapenarekin lotuta.

Arreta soziosanitarioko koordinazio autonomikoak honako hau jakinarazi digu, telefonoz eta idatziz:

Osasun arloan, behar bezala beteta ez dauden eta ikuspegi soziosanitarioaren aldetik arreta behar duten sailak zein diren jakiteko egin da lan. Zehazki, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak sail hauek identifikatu ditu, eta Kontseiluko koordinatzaile eta idazkariari agindu dio lan dinamika antolatzea:

- Hitzarmen berriak sortzea, gizarte egoitzetako osasun arreta hobetzeko: sail horri dagokionez, adierazi du lehendik ere badirela hitzarmen batzuk baina ez direla nahikoak zahar etxeetan dauden adinekoen osasuna behar bezala artatzeko. Orain arte, emandako erantzunaren arabera, etorkizunean erakundeen artean izenpetuko dituzten hitzarmenatarako printzipio eta irizpide bateratuak prestatzen aritu dira. Bada hitzarmenaren zirriborro bat, eta aztertzen ari dira orain.
- Aldez aurreko lanak egitea etorkizunean gizarte egoitzen eremuan osasunari buruzko inkesta bat egiteko: emandako informazioaren arabera, osasun inkesta bat egiten ari dira, ikerketa beka baten babesean, eta horrek egoitzetako osasun zerbitzuen plangintza egiten lagunduko du.
- Gizarte egoitzetan progresiboki sartzeko zaintza aringarriak: erantzunean, adierazi dute zaintza aringarriak txertatu nahi dituztela egoitzen eremuan bertan. Horretarako, Osasun Sailak eta Osasun eta Kontsumo Ministerioak jardunaldi bat antolatu zuten, Zaintza Aringarrien Munduko Egunaren harira.
- Haurrentzako laguntza goiztiarraren eremua berraztertzea eta eredu homogeen bat proposatzea hiru lurralde historikoetarako: adingabeentzat, eskuarki haur goiztiarrentzat, edo erditze arazo ondoz, traumatismoen ondoz edo tratu txarren ondoz garatzeko zailtasunak dituzten dituztenentzat edo zailtasunak izateko arriskua dutenentzat, osasun, hezkuntza, laguntza eta bestelakoetan izan ditzaketen behar guztiei erantzuteko. Aurreko arloan bezala, orain arte egin den aurrerapena diziplinarteko batzorde bat sortzea izan da; batzorde hori hezkuntza eta osasun arloetako pertsonak, aldundiek eta teknikariek osatu dute. Batzorde hori gomendioen proposamen bat prestatzen ari da, talde horri hobeto laguntzeko modua emango duen diziplinarteko talde bat eratzeke.
- Araban unitate soziosanitario bat sortzeko kudeaketak egitea: aurrerapenak egiten ari dira, adierazi dutenez, administrazio eskudunen artean hitzarmen bat sinatzeko:

- Kalte zerebralerako gaur egungo laguntza aztertzea eta laguntza hori hobetu dezaketen ildoak aztertzea. erantzunean ez dute adierazi ildo horretan zer pauso zehatz emango diren.
- Paziente psikiatrikoen desinstituzionalizazioan sakontzea:
Adierazi dutenez, nabarmen egin dute aurrera Bizkaian eta Gipuzkoan.
Arabian xede hori duen proiektu bat egiten ari dira.

Bestalde, Osasun Saileko arreta soziosanitariorako koordinazio autonomikoak emandako informazioan adierazten denez, Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko Legea indarrean sartu ondotik sortu da Plan Estrategikoa garatzeko zailtasun nagusietako bat, bi arrazoiengatik: batetik, adierazi dutenez, abian zeuden eta emaitza onak ematen ari ziren zenbait prozedura gelditzea ekarri duelako horrek, esate baterako, Gipuzkoan esperientzia aitzindari gisa garatzen ari ziren informazio sistema, horren ordez Mendekotasun Legeak sortutakoa ezarri behar izan baitute; eta, bestetik, Legea jadanik Legebiltzarrean izapidetzen ari zirelarik foru aldundiek ahalegin guztia egin dutelako lege hori aplikatzen, arlo soziosanitarioaren garapenaren kaltetan, nahiz eta foru aldundiei dagokien baliabide soziosanitario espezifikoak sortzea, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera.

Bestalde, hiru foru aldundiek eta hiru hiriburuetakoko udalek gizarte arloaren inguruan emandako erantzuna zabalago dago jasota erakunde honek baztertuta garatzeko arriskuan dauden pertsonen laguntzeko sailaren bidez “Etixerik gabe edo gizartean larri baztertuta garatzeko arriskuan dauden pertsonen oinarritzko beharren erantzuna” ohiz kanpoko txostenari egin dion jarraipenean (ikusitako Artatuak izateko lehentasuna duten taldeak, Baztertuta dauden pertsona); izan ere, talde horretan maiz sartzen dira buruko gaixotasunen bat edo bestelako gaixotasun kronikoren bat duten pertsonak, eta horiek, osasun tratamenduaz harago, asistentzia erantzuna behar dute, eta, kasu askotan, egoitza erantzuna.

Atal honetan soilik aipatu nahi dugu hainbat lurraldetan –bereziki Gipuzkoan eta Araban– badirela ikuspegi soziosanitarioa duten baliabideak sortzeko ekimenak, hala nola diziplinarteko languneak sortzeko, langile espezializatuak prestatzeko prozesuak sortzeko eta abar, mundu sozialetik arreta espezifikoagoa eman ahal izateko burutik gaixo dauden pertsonen taldeari. Zalantzarik gabe, gabeziak handiak dira, baina ikusten da gizarte arloan hainbat pauso eman direla talde horri erantzuteko.

Jasotako informazioa laburtu eta agertu ondoren, komeni da hainbat ohar eta gogoeta egitea eskubideen bermearen ikuspegitik, Arartekoari dagokion esparrutik, alegia. Buruko gaixotasunen erkidegoko arretari buruzko ohiz kanpoko txostena (2000) egin zenetik, ikusten da hainbat ahalegin egin direla osasun mentalaren sarea berrantolatzeke, gabezia handienak hautemateko eta tresna egokiak martxan jartzeko, eta, horrez gain, baliabide berriak kudeatu eta sortzeko sistemak ere ezarri direla; sistema horiek, beste hainbat gauzaren artean, modua eman behar dute egonaldi luzeetarako zentroetan sartuta dauden pertsonak desinstituzionalizatzeko; horretarako, foru aldundiekin akordioak egin dira, behinik behin Bizkaian eta Gipuzkoan, eta neurriak hartu dira arreta soziosanitarioa garatzeko, hala nola

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua sortu da, eta Plan Estrategikoa egin eta abian jarri da. Nolanahi ere, aurrez adierazitako txosten horretako gomendioei jarraiki, hainbat arlotan garatzeko behar handiagoa dagoela ikusi ahal izan dugu:

- Erdibideko baliabideen sarea hobetzea, hala nola eguneko zentroak, egoitzak edo etxebizitza babestuak eta aisiarako baliabideak (ohiz kanpoko txosteneko 5. gomendia); eskari hori profesionalak berek eta erabiltzaileen eta haien senitartekoen elkarrekin egin dute.
- Talde batzuei zuzendutako arreta eta baliabideak ugaritzea, hala nola adinekoei (7. gomendia) eta adingabeei (6. gomendia) zuzendutakoak. Horretarako, ontzat jotzen dira arlo soziosanitarioan osasun arreta hobetzeko kontuan hartu diren neurriak. Adingabeei dagokienez, gaur egungo egoerari buruzko informazio gehiago eman dugu adingabeen atalean (ikus osasun mentalarekin lotutako arazoak dituzten haurren eta nerabeen atala).
- Arreta handiagoa jartzea osasun mentalaren prebentzioan eta sustapenean (9. gomendia). Alde horretatik, garrantzitsua litzateke osasun zerbitzuan lankidetzaren handiagoa izateko modua egitea lehen mailako arretako sarean eta ohiko zaintzaz arduratzen diren senitartekoen artean; modu horretan, gizarte zerbitzuen jardunarekin, errazagoa izango litzateke buruko gaixotasunari aurrea hartzea, eta, gizarte zerbitzuen laguntza jasotzeaz bat, mantsotu egingo litzateke osasun arloko eskuhartzea.
- Lanaren bidez gizarteratzen laguntzen duten neurriak areagotzea (14. gomendia); eskari hori egin dute profesionalak eta elkarrekin ere.
- Arlo soziosanitarioa garatzeko eman diren pausoak (3. gomendia) oso garrantzitsuak dira, baina oraindik ez dira nahikoak. Aurten, Arartekoak ohiz kanpoko txosten bat argitaratu du arreta soziosanitarioaren gainean. Datozen urteetan jarraipena egingo dio txosten horri; dena dela, hor agertzen diren gomendio batzuk kontuan hartuta, jadanik esan liteke beharrezkoa dela koordinazio egitura batzuk sortzea; egitura horiek dinamikoagoak eta eraginkorrak behar duten izan, autonomia handiagoa eduki, ahalmen handiagoa izan dagokien sarean lankidetzaren kultura zabaltzeko eta elkarren arteko ezagutza handiagoa izateko; esan liteke, halaber, elkarrekin lan egiteko benetako dinamika jarri behar direla martxan. Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatzearen ondorioz sortuko den baliabideen mapa egiteko zain, kontu honek eragiten dien taldeen eskariei erantzunez, beharrezkoa da koordinazio prozesuan ez bakarrik osasun arloa eta foru aldundiak kontuan hartzea, baizik eta gizarte zerbitzuen eta senitartekoen eta erabiltzaileen elkarrekin sare zabala ere kontuan hartzea, erkidegoko arretaren formulak egokiago garatzeko.
Bestalde, ikusi dugu oraindik ere badela nolabaiteko bereizketa osasun arloak emandako ikuspegi soziosanitarioaren azterketaren eta gizarte esparruan hautesman ditugun gabezien artean; hain zuzen ere, osasun arloa, Arreta Soziosanitarioko

Koordinazio Autonomikoaren erantzunean ikusi dugun bezala, adinekoen taldearekin aritzen da gehiago, eta gizarte arloan ikusi dugunez, udalek eta elkarteek arre-ta handiagoa eskatzen dute arriskuan dauden beste talde batzuentzat, hala nola nahaste larriak dituzten pertsonentzat, askotariko arazoak dituzten pertsonentzat, esate baterako patologia duala dutenentzat, portaera nahastea duten pertsonentzat, bereziki haurrentzat eta nerabeentzat.

Oro har, gizarte eta elkarten arloan ikusi dute, eta halaxe eskatu ere dute, premiazkoa dela osasun eta gizarte arloen arteko elkarrekintza hobetzea eta horrek ondorio ekartzea osasun baliabideak, buruko gaixotasunen tratamendua eta osasun mentaleko profesionalen prestakuntza kudeatzeko jarraitzen den filosofia aldatzea, buruko gaixotasunen bat duten edo izateko arriskua duten pertsonen arreta osoagoa eman ahal izateko –gizarte arreta, osasun arreta eta beregaintasun pertsonala sustatzeko arreta–.

b) Tutoretza erakunde publiko eta pribatuen jarraipena

2002. urteko ohiko txostenean lehen jarraipena egin zen EAEko tutoretza fundazioen egoeraren inguruan, buruko gaixotasunen erkidegoko arretari buruzko ohiz kanpoko txostenean tutoretza fundazioak sortzeko sustapenaren inguruan egindako gomendioa kontuan hartuta (ikusi Buruko gaixotasunen erkidegoko arretari buruzko ohiz kanpoko txostena, Gomendioak, 15. zenbakia).

Aurten, tutoretza erakunde publiko eta pribatuen jarduera finkatuta dagoelarik, gaur egun zein egoeratan dauden jakin nahi izan dugu, tutoretza emateak zer beste erronka dakartzan identifikatzeko asmoz, tutoretzapeko pertsonen beregaintasuna eta garapen pertsonala sustatzearen ikuspegitik.

Horretarako, informazioa eskatu diegu Gizarte Ongizateko hiru foru ahaldunei; gainera, bilerak egin ditugu dauden tutoretza fundazioekin, eta horien gaineko informazioa ere bildu dugu:

- Arabako Lurralde Historikoa

Lurralde horretan, bi tutoretza fundaziok jarduten dute:

- Beroa tutoretza fundazioa – Buruko Gaixoen Tutoretza Fundazioa, Asafes elkarteari loturikoa (Buruko Gaixoen eta Familiako Arabako Elkarte).
- Usoa tutoretza fundazioa, Apdema elkarteari loturikoa (Adimen Urritasuna duten Pertsonen aldeko Arabako Elkarte).

Biek sinatu dituzte lankidetzaz hitzarmenak Arabako Foru Aldundiarekin, Beroak 2003ko uztailaren 30ean eta Usoak 2008. urtean. Bi hitzarmenek ahalmen handiagoa eman diete tutoretza gehiago beren gain hartzeko, beren profesionalen taldeak indartzeko eta tutoretzapeko pertsonen beharrei erantzuteko baliabide gehiago izateko.

- Bizkaiko Lurralde Historikoa

Lurralde horretan, erakunde publiko bat eta fundazio pribatu bat aritzen dira:

- Bizkaiko Tutoretza Erakundea (aurrerantzean BTE), Bizkaiko Foru Aldundiaren mendekoa.
- Futubide – Gorabide tutoretza fundazioa. Fundazio pribatu hori Gorabidek eratu zuen, urritasun psikikoren bat duten pertsonen aldeko Bizkaiko elkarteak. Dena dela, kontseilu nagusian Apnabiko (Autismoa eta beste Haur Psikosi batzuk dituzten Haurren Gurasoen Bizkaiko Elkarte), Bizkaiko ASPACEKO (Garun Paralitikoetako Laguntzeko Bizkaiko Elkarte), Gorabideko eta Uribe Kostako Urritasun Psikikoen Aldeko Elkarteko ordezkariak daude.

Fundazio horrek lankidetzak hitzarmen bat sinatu du aurten Bizkaiko Tutoretza Erakundearekin, eta, horren bidez, Futubidek bere gain hartuko ditu bere lurraldean ezgaitasun psikikoa onartu zaien pertsona guztien tutoretzak.

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Aurreko lurraldeetan bezala, bi erakunde pribatuek lankidetzak hitzarmenak izenpetuak dituzte Gipuzkoako Foru Aldundian:

- Hurkoa fundazioa; adinekoak nahiz beste edonor babestea da fundazio horren xedea, eta lankidetzak hitzarmen bat du sinatua Agifeseekin (Gaixo Psikikoen eta Familien Gipuzkoako Elkarte), burutik gaixo daudenak aholkatzeko, defendatzeko eta babesteko.
- Atzegi fundazioa; buruko urritasuna duten pertsonak babesten ditu fundazio horrek.

Tutoretza erakundeek egindako eskaerari emandako erantzun zehatz eta zabaletik funtsezko zat jotzen ditugun alderdiak biltzen saiatuko gara.

1. Tutoretza fundazioen eta erakundeen datu garrantzitsuenak

Tutoretzapeko pertsonen gaur egungo kopuruari dagokionez:

TUTORETZA FUNDAZIO EDO ERAKUNDE BAKOITZAK GAUR EGUN DUEN TUTORETZA KOPURUA (2008-12-31)																	
	Guztira hartutako tutoretzen kopuru historikoa			Guztira bertan behera gelditutakoak	Tutoretza kopurua gaur egun												Guztira gaur egun
					18-40			41-64			65-80			≥ 81			
	G	E	G		G	E	G	G	E	G	G	E	G	G	E	G	
Beroa ¹	51	42	93	29	5	2	7	25	8	33	5	10	15	1	8	9	64
Usoa ²	16	20	36	0	6	6	12	8	12	20	2	2	4	0	0	0	36
I. T. B	409	387	796	162	89	52	141	168	88	256	56	57	113	31	93	124	634
Futubide ³	48	41	89	6	11	7	18	22	23	25	5	3	8	0	0	0	51
Hurkoa	158	230	388	179	23	11	34	76	40	116	48	44	92	18	102	120	362
Atzegi	31	40	71	0	15	20	35	16	19	35	0	1	1	0	0	0	76

¹ 1997tik, sortu zenetik, Beroa fundazioak guztira 93 tutoretza hartu ditu bere gain; horietako 29 bertan behera gelditu dira (23 tutoretzapean zeuden pertsonak hil direlako, 3 pertsonaren ahalmena aldatu delako, eta 3 tutorea kargutik kendu dutelako).

Urtean batez beste 6-7 tutoretza hartu dituzte beren gain, 2002. urte arte; urte horretan, kopurua jaitsi egin zen, finantzaketa arazoengatik. Gaur egun, sei ezgaitasun prozedura izapidetzen ari dira; beraz, datorren urtean tutoretza gehiago izango dituzte.

2003. urtean, lankidetzeta hitzarmen bat sinatu zuten Arabako Foru Aldundiarekin. Horren bidez, tutoretzapeko pertsona bakoitzeko diru kopuru jakin bat lortu zuten. Modu horretan, urtetik urtera beren gain hartzen dituzten tutoretzen kopurua handituz joan da, eta aurten, 2008. urtean, 15 tutoretza gehiago hartu dituzte beren gain.

² Eratu zenetik, 1985. urtetik, Usoa fundazioak etorkizuneko tutoretzetarako konpromisoak hartu ditu. 1999. urtean guztira 11 pertsona izan zituen. Ordutik ez da konpromiso gehiagorik izan.

³ Taulan emandako datuetan, Futubidek hartutako konpromisoa txertatu da; hain zuzen ere, etorkizunean beste 30 tutoretza hartzeko konpromisoa hartu du, gurasoek testamentuan jadanik adierazitakoak. Modu berean, 28 ezgaitasun prozedura izapidetzen ari dira, eta horrek nabarmen ugartuko ditu datorren urtean bere gain hartuko dituen tutoretzak.

Azken urtean, tutoretza bakarra gelditu da bertan behera, tutoretzapeko pertsona hori hil dela eta.

Beraz, gaur egun 1.213 pertsona daude EAEn erakunde publiko edo pribatuen tutoretzapean. Tutoretzapean dauden horietatik gehiago dira gizonak emakumeak baino 65 urtetik beherakoen artean, eta adinean aurrera egin ahala, berriz, gehiago dira emakumeak, batez ere 65 urtetik aurrerakoetan. Oro har, ezintasun psikikoagatik tutoretzapean dauden pertsonak gazteagoak dira, eta talde horretan espezializatutako tutoretzapeko fundazioetan ez du inork tutoretza utzi lan horretan dabilzanetik.

Tutorea familia ez izateko arrazoiei dagokienez, bereizketa hau egin behar da:

GAUR EGUNGO TUTORETZEN JATORRIA (2008-12-31)				
	Senitartekorik ez izatea	Senitarteko egokirik ez izatea	Babesik ez izatea edo baztertuta geratzeko arriskua izatea	Besterik
Beroa	5	56	3	0
Usoa ¹	12	235	3	0
I. T. B	143	38	237	19
Futubide	17	210	16	0
Hurkoa ²	107	30	70	41
Atzegi	41	30	0	0

¹ Senitartekoak tutore izatea egoki ez den kasuen artean, honako hauek sartzen dira: tutorea kargutik kentzea, oso zaharra delako edo hila delako (5); senitartekoen artean liskarrak edo desadostasunak izatea (3); eta senitartekoak egokiak ez izatea.

² Hurkoak emandako datuetan, zenbait kasu birritan kontatu dira, erakundea tutore izateko arrazoiak bi direlako.

Oro har, datuak aztertuta, hauxe ondorioztatzen da: pertsona juridikoek nagusiki tutoretzak beren gain hartzen dituztela ez dagoelako senitarteko egokirik ezgaitzat jotako pertsona hori eta haren ondasunak behar bezala babestuko dituela bermatuko duenik; Bizkaiko Tutoretza Erakundeak, ordea, babesgabetasun egoera eta baztertuta geratzeko arriskua nagusi direlako hartzen ditu tutoretzak bere gain, herri-administrazio eskudunak ezgaitasun egoeran dauden pertsonak babesteko duen funtzioa betez.

Ezgaitasunaren adierazpen judizialaren kausari edo arrazoiari dagokionez, hainbat ezgaitasun edo patologia mota bereiz ditzakegu, tutoretza erakunde bakoitzak duen espezializazioaren arabera:

EZGAITASUNA ADIERAZTEKO KAUSA EDO ARRAZOIA (2008-13-31)

	Buruko gaixotasuna			Ezgaitasun fisikoa			Ezgaitasun psikikoa			Endekapenezko gaix. (dementia, besterik)			Besterik		
	G	E	G	G	E	G	G	E	G	G	E	G	G	E	G
Beroa ¹	37	27	64	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Usoa ²	0	0	0	0	0	0	16	20	36	0	0	0	0	0	0
I. T. B	201	121	322	1	1	2	103	65	168	37	102	139	3	0	3
Futubide ³	5	4	9	0	0	0	33	29	62	0	0	0	0	0	0
Hurkoa	86	70	156	7	5	12	21	10	31	39	107	146	13	6	19
Atzegi	0	0	0	0	0	0	39	32	71	0	0	0	0	0	0

¹ Burutik gaixo daudenen tutoretza ematen duen fundazioa denez, ezgaitasuna adierazteko kausak edo arrazoiak diagnostiko hauen araberakoak izan dira: 31k eskizofrenia dute, 10ek demenzia, 7k nahaste bipolarra, 5ek adimen atzerapena, 3k nortasunaren nahastea, 3k portaeraren nahastea eta 3k alkoholismoa.

² Tutoretzapeko pertsona guztiek ezgaitasun psikiko motaren bat badute ere, kasu gehienetan ezgaitasun horrekin batera beste diagnostiko motaren bat izaten da: ezgaitasun psikikoa eta buruko nahastea (24), adimen ezgaitasuna eta osasun fisikoarekin lotutako beste zailtasun batzuk (ikusmenaren galera, mugitzeko zailtasunak...) (4). 8 kasutan bakarrik daukate adimen ezgaitasuna beste diagnostiko gehigarririk gabe.

³ Ezgaitasuna adierazteko kausa edo arrazoi gehienetan ezgaitasun psikikoa izaten da, baina kasu batzuetan buruko nahaste larria ere izaten da ezgaitasun psikikoarekin batera, eta batzuetan hartzen dituzte inolako ezgaitasunik ez duten pertsonen tutoretzak ere, familiarekin daukaten loturarengatik.

Dauden tutoretza erakundeetatik, ezgaitasunen bat duten pertsonetan (Atzegi, Futubide eta Usoa) eta burutik gaixo dauden pertsonetan (Beroa) espezializatutakoak izan ezik, Hurkoa fundazioak eta Bizkaiko Tutoretza Erakundeak adinekoen tutoretza ugari hartzen dituzte, burutik gaixo dauden pertsonen tutoretzak hartzeaz gain. Datu horiek aldatu egiten dira ondoz ondoko urteetan, Bizkaiko Tutoretza Erakundearekin eta Futubiderek izenpe-tutako hitzarmenaren ondorioz; beraz, etorkizunean ezgaitasun psikikoa duten pertsonen tutoretza guztiak Futubidek hartuko ditu bere gain.

Erakunde bakoitzak bere gain hartzen duen babes motari dagokionez, bereizketa hau egiten da:

HARTUTAKO BABES MOTA (2008-12-31)

	Tutoretza			Kuradoretza			Izatezko zaintza			Defendatzaile judiziala			Ondare administratzailea		
	G	E	G	G	E	G	G	E	G	G	E	G	G	E	G
Beroa	23	17	40	19	5	24	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Usoa	15	14	29	2	5	7	0	0	0	0	0	0	0	0	0
I. T. B	265	243	508	79	47	126	0	0	0	46	40	84	3	1	4
Futubide	35	31	66	2	1	3	0	0	0	1	1	2	0	0	0
Hurkoa	96	113	209	10	1	11	48	55	103	11	15	26	6	7	13
Atzegi	29	36	65	1	4	5	0	0	0	1	0	1	0	0	0

Tutoretza erakundeek beren gain hartzen dituzten babes motak tutoretza eta kuradoretza izan ohi dira batez ere. Dena dela, horietako batzuek bestelako ordezkari batzuk hartzen dituzte beren gain, hala nola egiteko zainzailearen figura, defentsa judiziala eta ondarearen kautelazko administrazioa. Figura horiek guztiak etorkizunean garatzekoak dira, ezgaitasun egoeran dauden pertsonak babesteko moduak malgutzeko.

Bizilekuari dagokionez, modu honetara banatzen dira emandako datuak:

TUTOREZAPEKO PERTSONAREN BIZILEKUA	BEROA	USOA	ITB	FUTUBIDE	HURKOA	ATZEGI
Bakarrik bizi da	5	3	46	9	11	6
Senitartekoekin bizi da	5	1	67	0	16	1
Zaharrentzako egoitza	14	0	241	1	211	2
Ospitale psikiatrikoa	18	1	96	0	43	6
Ezinduentzako egoitza	0	22	82	13	7	12
Etxebizitza babestua	15	1	69	0	15	29
Ostatu gainbegiratua	–	6	7	5	55	11
Pentsioa	7	0	7	0	2	0
Besterik	0	1	19	35	2	4
Guztira	64	35	634	63	362	71

Datu multzo horretatik ondorioztatzen denez, tutoretzapeko pertsona asko adinekoentzako, burutik gaixo daudenentzako edo ezgaitasunen bat dutenentzako egoitzetan bizi dira, behar beste arreta dutela, duten beregaintasun mailaren arabera. Aldiz, oso gutxi bizi dira bakarrik, senitartekoekin edo pentsioetan, batere ikuskapenik gabe. Oro har, azken egoera horiek ohikoagoak dira burutik gaixo daudenen artean.

Tutoretzaren eta horretarako erabil daitezkeen baliabideen kostuei dagokionez, interesgarria da erakunde bakoitzak gaur egun duen egoera aztertzea, eskura ditugun datuak kon-tuan hartuta:

TUTORETZAREN KOSTUAK ETA BALIABIDEAK	BEROA ¹	USOA	I. T. B	FUTUBIDE ²	HURKOA	ATZEGI
Tutore karguaren gutxi gorabeherako kostua, batez beste (euro urtean)	4.120	–	2.937,45	7.124	1900	2.800
Zenbat tutoretzarengatik jasotzen den ordainsari judiziala	41	9	0	45	48	11
Ordainsarien bidez batez beste tutoretza kostuaren gutxi gorabeherako zer portzentaje ordaintzen den	9,5 %	–	0	5%	15,50%	2%
Tutoretza erakundearen urteko aurrekontua (eurotan)	288.300	114.250	1.862.345	715.653	742.000	190.000
Igo da aurreko urtearekin alderatuta? (erantzun bai edo ez)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Aldunditik jasotako laguntza	96,10%	75%	100%	8,38%	64,5 %	86,6 %
Igo da aurreko urtearekin alderatuta? (erantzun bai edo ez)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Zenbat profesional ditu tutoretza erakundeak	6	2	21	8	17	4
Igo da aurreko urtearekin alderatuta? (erantzun bai edo ez)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez
Tutoretza ordezkari edo boluntario kopurua	7	2	0	43	60	–

¹ 41 tutoretzatan judizialki adierazitako ordainsaria urteko 77 euro eta 1.388 euro bitartekoa da. Funtzionamenduari dagokionez, oso ongi irizten diote tutoretza ordezkarien lanari, zaila baita boluntarioak izatea buruko gaixotasunen esparruan. Haien lana, batez ere, foru egoitzetan eta Arabako Ospitale Psikiatrikoko lanpostu psikogeriatrikoetan dauden tutoretzapeko pertsonak artatzea da.

² Judizialki ordaintzen diren tutoretzen kasuan, ordainsariaren batez bestekoa urteko 500 euro inguru da. Futubidek bere urteko sarrera gehienak tutoretza emateagatik ondare horniduraren eta prestazioen etekinetik lortzen du. Dena dela, 2008ko uztailan Bizkaiko Tutoretza Erakundearekin izenpetutako hitzarmenaren ondorioz, handitu egingo dira Aldunditik jasotako diru laguntza publikoak, bere gain hartutako tutoretza bakoitzeko 200 euro kobratuko baititu hilean. Hain zuzen ere, hitzarmen hori sinatzearen ondorioz, beste tutoretza laguntzaile bat kontratatu ahal izan da.

Gaur egun, tutoretza erakunde pribatu guztiek dituzte izenpetuak lankidetzaz hitzarmenak, nork bere foru aldundiarekin; beraz, denek daukate jarduera finantzatzeko diru publikoa beren urteko aurrekontuan, nahiz eta finantzaketa publikoarekin duten mendekotasuna oso desberdina izan haien artean. Hala eta guztiz ere, denek adierazi dute langile gehiago eta tutoretza gehiago hartu ahal izan dituztela nork bere hitzarmena sinatu eta gero, eta horrek tutoretzapeko pertsonen ematen zaien arreta hobetzea ekarri du.

Bestalde, Bizkaiko Tutoretza Erakundeak izan ezik, judizialki ezarritako urteko ordainsaria daukate beren kargua betetzeagatik; dena dela, ikusi da ekarpen horrekin ordaintzen den tutoretza kostuaren portzentajea gutxienez dela kasu guztietan.

Denek daukate, profesionalen eta tutoretza ordezkariaren gain, tutoretza erakundearen zereginen nola edo hala laguntzen duten boluntarioak; boluntario horiek harreman pertsonala daukate tutoretzapeko pertsonarekin. Figura horri oso ongi irizten diote denek ere.

2. Balorazio eta aldaketa nagusiak

Atal honetako informazioa iturri hauetatik hartu dugu batik bat: Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden tutoretza erakunde pribatuek emandako informaziotik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzunetik eta Arabako eta Bizkaiko tutoretza fundazioekin egindako bileretatik. Arabako Foru Aldundiak gure informazio eskariari emandako erantzunean, tutoretza fundazioek aurkez zitzaizkien datuak aipatu zituen; dena dela, gu ordurako harremanetan jarriak geunden fundazio horiekin, eta emanak zizkiguten beren datuak eta balorazioak.

2.a. Tutoretzapeko pertsonen ondarea administratzeari dagokionez

Bizkaiko Foru Aldundiak bere erantzunean ondarea eguneratzeko (hala nola funtsak eta akzioak saltzeko, altzariak saltzeko eta mailegu eragiketak egiteko) baimen judiziala lortzeko dauden zailtasunen berri eman du. Batik bat zailtasunak sortzen dira abokatua eta prokuradorea behar direlako borondatezko jurisdikzio espedienteak izapidetzeko, eta epai-tegiak atzeratu egiten direlako prozedura horiek izapidetzeko orduan, horrek tutoretzapeko pertsonari dakarkion kaltearekin; izan ere, gastua da eta bere ondarrerako onuragarriak izan daitezkeen eragiketak gal daitezke.

Era berean, adierazi dute banketxeekin ere zailtasunak izaten dituztela, ez dutelako ezagutzen ezgaitasunaren prozedura eta ez dakitelako zer diren tutoretza eta kuradoretza, edo mesfidatiegiak direlako eta horrek ez duelako errazten tutorearen edo kuradorearen lana. Bereziki, kuradoretzen kasuan gertatzen da hori; izan ere, ez dakite kuradorearen laguntza noraino iristen den. Hori dela eta, zenbaitetan epai argitzeak edo baimen judizialak eskatu behar izaten dituzte banku eragiketa jakin batzuk egiteko.

Horixe bera adierazi dute tutoretza fundazio pribatuek ere; horiek, prozedura judizialen zailtasunak eta atzerapenak ez ezik, tutoretzapeko pertsonekin duten harremanaren ondorioz izaten dituzten zailtasunak ere aipatu dituzte –ludopatía eta droga edota alkohol kontsumo aktiboaren kasuetan, bereziki kontrolatzen zailak diren gastu ekonomikoak badira tartean–.

2.b. Zaintza pertsonalari dagokionez

Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi du aldeak daudela egoitzetan, etxebizitza babestuetan edo ospitaleetan dauden pertsonen zaintzan; eguneroko arreta erakunde horiek ematen dute, nahiz eta Bizkaiko Tutoretza Erakundeak egiten duen bakarrik zein senitartekoekin edo pentsio nahiz aterpetxeetan bizi diren pertsonen jarraipena. Kasu horietan, Bizkaiko Tutoretza Erakundeak berak eman behar die laguntza pertsona horiei, bere gizarte langileen bidez edo laguntzaileak kontratatuta.

Hori gorabehera, tutoretzapeko pertsona asko beren etxeetan bizi dira, gaixo daudela jakin ere gabe; zenbaitetan, gai sorgogarraren kontsumoari lotuta egon ohi dira halako kasuak; ondorioz, tutoretzapeko pertsona horiei ezin zaie behar bezala eman zaintza pertsonal eta medikoa.

2.c. Nahaste psikikoa dela-eta nahi gabe ospitaleratzeari dagokionez

Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi du esku hartzeko irizpide desberdinak daudela osasun arloan eta gizarte arloan; hori dela eta, kasu askotan ospitaleratze arruntetarako baimen judizialak lortu behar izaten dituzte lehenago, horrek tramitazioan dakarren atzerapenarekin.

2.d. Lurraldean nahi gabe ospitaleratzeko dagoen edo ezar daitekeen jardute protokoloaren balorazioari dagokionez

Nahiz eta Bizkaiko Lurralde Historikoan baden protokolo bat, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi du beste ospitaleratze protokolo bat planteatzeko beharra dagoela, eta protokolo horren garapenean Osakidetzak, gizarte zerbitzuek, segurtasun indar eta gorputzek, organo judizialek eta buruko gaixotasunen esparruan lan egiten duten erakunde eta elkarteek hartu behar luketela parte. Horretarako, diagnostikorik batere ez daukaten edo tratamendua hartzea osasun mentaleko zentzura joan nahi ez duten pertsona horiekin eguneroko jardueran sortzen diren zailtasunak hartu dituzte oinarri gisa. Kasu horietan ez dago jarduteko modu koordinaturik ez osasun arloarekin eta ez segurtasun indarrekin, baldin eta pertsona horren edo beste inoren bizia arriskuan badago. Lankidetzarik ez dagoenez, ezinbestekoa da aurretik baimen judiziala lortzea, eta horrek atzerapena eta arriskua dakar pertsonarentzat.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan, tutoretza erakundeek adierazi dute, Donostiako epaitegi espezializatuko esperientzia ona alde batera utzita, protokolo bat behar dela zerbitzu sozial, sanitario eta judizialen arteko koordinazio eta lankidetzaz errazteko, neurri hori azkar hartu ahal izateko lurraldeko gainerako auzitegi barrutietan.

2.e. Nahi gabeko tratamendu anbulatorioaren neurri judiziala baloratzeari dagokionez (duela urte batzuetatik halaxe egiten dute Donostiako auzitegi barrutian)

Nahiz eta eztabaida dagoen neurri horren inguruan –txosten honetan aurrerago ikusiko dugunez, ez dute onartu erabiltzaileen elkarteek–, Bizkaiko Foru Aldundiak neurri hori berme judizial guztiekin hartzearen alde egin du bere erantzunean, horren osteko ezgaitasuna saihesteko eta bilakaera kronikoa duen buruko gaixotasunen batek erasandako pertsonen osasuna, duintasuna eta bizi-kalitatea bermatzeko tresna gisa.

Neurri judizial hori bereziki balioesten dute Gipuzkoako Lurralde Historikoan jarduten duten tutoretza erakundeek. Hala Atzegik nola Hurkoak adierazi dute kautelazko neurri horrekin ez dela izango beharrezko ez den ospitaleraterik, eta modua emango duela pertsonak bere ohiko ingurunean jarrai dezan, are dagokion pertsonak neurria nekez ulertu duen kasuetan ere. Hala ere, nabarmendu dute ahalegin eta “irudimen” handia behar duela organo judizialak, eta horregatik, adierazi dute epaitegiak espezializatu egin behar duela neurri hori hartzeko, Donostian gertatu den bezala.

2.f. Nola interpretatzen den Kode Zibileko 239. artikulua, laguntza moral zein materialik ez dagoela-eta edo artikulua hori garatzean neurririk hartu ez dela-eta administrazioak babesik gabe dauden pertsonen tutoretza bere gain hartzeari buruzkoa

Bizkaiko Foru Aldundiak honela dio bere erantzunean, berariaz: “*Babesik gabe daudenen kargu legearen ministerioz egiteari buruz ari denean, uste dugu tutorearen, kuradorearen edo guraso-aginte luzatua edo birgaitua duenaren lege betebeharrak eta obligazioak ez betetzeari buruz ari dela soil-soilik; ondorioz, izan behar da ezgaitze epairen bat, eta, jakina, artikulua horren interpretaziotik kanpo geratzen dira ustez gai ez diren baina legez ezgaiturik ez dauden pertsonak.*” Hori gorabehera, eransten du kasu horietan errekurtsioa jar daitekeela organo judizialean, kautelazko neurri bat eskatzeko, PZLko 762. artikulua arabera; prozedura horretan kontuan hartu ahal izango da pertsonaren ustezko babesgabetasuna. Horretarako, baldin eta neurriak badio defendatzaile judicial bat izendatu behar dela, Bizkaiko Foru Erakundea eratzeko 9/2000 Foru Arauari jarraiki, haren ardua izango da “*autoritate judicialak erabakitzen dituen funtzioak betetzea, babesik gabe dauden ustezko pertsona ezgaiak eta haien ondarea behin-behinean babesteko neurriei dagokienez.*”

2.g. Lurraldean gizarte larrialdietarako esku-hartze protokolo bat ezartzeko beharrari buruzko balorazioa, babesik gabe dauden eta gizarte edota osasun laguntza behar duten pertsonen dagokienez

Foru Aldundiak, aurreko atalean adierazitakoaren ildotik, beharrezkotzat jotzen du esku-hartze protokolo bat ezartzea babesik gabe dauden pertsonentzat; nolana ere, PZLko 762. artikuluko kautelazko neurri baten bidez emandako ebazpen judicialaren arabera babesik gabe daudela onartutako pertsonentzat edo aurrez ezgaitasuna onartu zaienentzat mugatzen du protokolo hori.

2.h. Beste erakunde batzuekiko koordinazioari eta sar daitezkeen aldaketei dagokienez

Bizkaiko Foru Aldundiak aldaketa eta hobekuntza hauek proposatu ditu:

- 2006ko abenduaren 13ko Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmena onartu zenez geroztik, beharrezkoa da ezgaitasun prozedura erreformatzea, ezgaitasun kontzeptua hitzarmeneko aurreikuspenen arabera egokitzeko. Halaber, borondatezko jurisdikzio espedienteak aldatzea proposatu du, bizkorrago egiteko modua emango duen baimen judiciala lortzeko.
- Ezgaituen erregistro bat sortzea; entitate eta erakundeek sarbide murriztua izango dute erregistro horretan, hala nola Jabetza Erregistroak, banketxeek eta notarioek, eta ezin kontsultatuko dituzte pertsona ezgaituak babesteko eta beste inork iruzurrezko neurririk ez hartzeko ezinbesteko kontuak baizik.
- Kanpaina bat egitea, banketxeek ezgaitasunaren prozedura ezagut dezaten eta tutoretza eta kuradoretzaren erabileraren berri izan dezaten.

Bestalde, tutoretza erakundeek adierazi dute beharrezkoa dela osasun zerbitzuak, gizarte zerbitzuak, justizia administrazioa eta tutoretza fundazioak elkarlanean aritzea. Elkarrekiko ezagutzan, informazioan eta jardun-esparruen errespetuan oinarritutako elkarlana. Besteak beste, eskari hauek egin dituzte:

- Arlo judizialari dagokionez: beharrezkotzat jotzen dute pertsona juridikoek, hala nola EAEn jarduten duten fundazio eta elkarteek, tutoretzaren erabileraren errealitatea hurbilagoetik eta hobeto ezagutzea. Horretarako, tutoretza mahai bat sortzea proposatu dute, Katalunian dagoenaren antzekoa; mahai horretan, tutoretza fundazio eta erakunde guztiak, mundu judiziala, gizarte eta elkarteen mundua bilduko dira, informazio lanetarako eta elkarrekin gogoeta egiteko.

Gisa horretako lankidetzarekin, ez litzateke gertatuko Araban gertatzen dena; izan ere, tutore gisa tutoretza fundazioetako bat izendatuta ematen dira ezgaitasun epaiak, aldez aurretik interesdunei berei galdetu gabe; horren ondorioz, egoera kontraesankorrek gertatzen dira, hau da, pertsona batzuk ezgaitzat jotzen dira, baina ez dute benetako tutorerik, ez dutelako onartu izendatutako fundazioa haien kargu egin dadin, eta horrek, noski, kaltea dakarkio pertsona ezgaituari, harik eta tutore egoki bat izendatzen den arte. Halako egoerarik ez da sortzen, ordea, ez Bizkaian eta ez Gipuzkoan, izendatutako fundazioek ezgaitze prozeduran parte hartzen baitute, defendatzaile judizial gisa.

Behin eta berriz proposatutako beste kontuetako bat da adieraz dadila ezgaitasun gradua, bai fiskaltzaren ezgaitasun eskakizunetan eta bai sententzia judizialean. Fundazioek behin eta berriz eskatu dute froga jarduera gehiago izan dadila pertsonaren ezgaitasun gradua zehazteko eta ebazpen orokorrak saihesteko. Zehazki, oraindik sententzia askotan kentzen da automatikoki botoa emateko eskubide aktiboa, banan-banako baloraziorik egin gabe.

Modu berean, fundazioek adierazi dute azken urteetan ezgaitasun partziala onartzeko joera izan dela, fundazioak kuradore izendatuta. Izendapen horrek zailtasun ugari dakartza; izan ere, egiatan, kuradoreek tutorearen antzeko funtzioak betetzen dituzte tutoretzapeko pertsonaren eguneroko bizimoduan –zaintzari eta arretari dagokienez–; alabaina, muga praktiko asko dituzte tratamendu medikoak edo, beharrezkoa denean, nahi gabeko ospitaleratzeak eskatzeko, pentsio batzuk kobratzea eskatzeko, hala nola seme-alabak beren kargura izateagatiko pentsioa kobratzea eskatzeko, non eta tutoretzapeko pertsonak ez duen %65eko elbarritasun gradua baino handiagoa, bai eta mendekotasun balorazioa eta zerbitzu jakin batzuk eskatzeko ere.

Tutoretza egitea errazagoa izan dadin, protokolo bat egitea proposatzen dute, urteko kontuak emateko baldintzak bateratzeko.

Nolanahi ere, zailtasun horietako asko ezgaitasun, ospitaleratze eta tutoretza prozesuak izapidetzen dituzten epaitegiak espezializatuta konponduko lirateke, edo,

behintzat, gaiak banatuta eta kontuok epaitegi bakarrean biltzeko modua eginda. Horretaz gain, espediente judizial bakarra sortzea proposatzen dute, eta espediente horretan batzea tutoretzari buruzko eta tutoretzapeko pertsona bakoitzaren ondoz ondoko ospitaleratzeei buruzko kontu pertsonal eta ondarezko guztiak.

- Osasun arloari dagokionez: adierazi dute zailtasunak dituztela buruko gaixotasuna eta adimen ezintasuna, bi diagnostikoak dituzten pertsonak artatzeko. Horregatik, osasun mentaleko profesionalak gehiago espezializatzea eskatzen dute, talde hori hobeto artatzeko, bai eta baliabide espezifikoak sortzea ere: ezgaitasunen bat duten pertsonen osasun mentalean espezializatutako unitateak, Katalunian dauden modukoak, eta talde hori artatzeko egoitza baliabideak, bereziki adinekoentzat (tokiz aldatu dira adimen ezgaitasuna duten eta bizitzako urte gehienak ospitale psikiatrikoetan eman dituzten adineko batzuk, baina kasu gehienetan zaila izan da baliabide egokirik topatzea) eta gazteentzat (talde horietan buruko nahastea da nagusi, eta baliabide egokiak falta dira).

Oro har, adierazi dute ez dagoela gune soziosanitarioko baliabide berezkorik tutoretzapeko pertsonaren eta haren senitartekoen beharrei behar bezala erantzuteko.

Bestalde, adimen ezgaitasunean espezializatutako fundazioek adierazi dute oro har ez dela ezagutzen ezgaitasunaren mundua; hain zuzen ere, ezgaitasuna hainbat modutara agerrarazten da, besteak beste, ezgaituen baimen informatua lortzeko prozeduraren bidez, eta, hala badagokio, tutorearen edo kuradorearen esku-harztearen bidez.

- Gizarte arloari dagokionez: berriz ere nabarmendu dute jendeak oro har ez dakiela tutoreak zer diren eta tutoretza fundazioek zer lan egiten duten.

Jasotako informazio guztitik gogoeta hauek egin ditzakegu, eskubideen bermearen ikuspegitik:

- Betetzat eman dezakegu buruko gaixotasunen erkidegoko arretari buruzko ohiz kanpoko txostenean tutoretza fundazioak susta daitezela egin genuen oharra; izan ere, erakunde pribatuekin izenpetutako hitzarmenen ondorioz, laguntza nabarmena dute beren lanean, eta tutoretzapeko pertsonak, berriz, zerbitzu hobea; hala, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen aurreikuspenei erantzun zaie, tutoretza zerbitzuak sartzen baititu bere zerbitzu katalogoan.
- Nolanahi ere, zenbait alderditan hobetu liteke ematen den arreta: legeria erreformatu liteke, eta ezgaitasun prozedurako izapideak eta tutoretza baliatu ahal izateko modua bizkortu, gaur egungo errealitatera egokituta; ezgaitasuna adierazteko arrazoiaz harago beregaintasuna eta garapen pertsonala sustatuko dituzten tutoretza moduak susta litezke –bizi-kalitatearen ereduaren ildoan–, eta elkarte, osasun eta gizarte munduek elkar ezagutzeko eta koordinatzeko mekanismoak sortzen jarrai liteke.

- Burutik gaixo daudenen taldeari buruzko proposamen espezifikoetan, konponzeko dauden bi kontu azaldu dira: EAE osorako protokolo bat egitea nahi gabeko ospitaleratzeetarako, Bizkaiko Foru Aldundiak bere erantzunean nabarmendutakoaren ildotik; hain zuzen ere, familia elkarteek berek egindako eskakizunari erantzuten dio horrek. Bestalde, nahi gabeko tratamendu ambulatorioaren kontua dago; hori jadanik jaso genuen Arartekoaren 2001. eta 2002. urteetako txosten ohikoetan, tutoretza erakundeen eta senitartekoen elkarteen eskariari erantzunez. Hau da, pazientea tratamendua egitera behartzea, modu ambulatorioan eta esku-hartze judizialaren bidez, ospitaleratze ambulatorioa saihesteko. Lehenago adierazi dugun bezala, interesgarria litzateke Gipuzkoan jarraitutako eredia beste epaitegi eta lurraldeetara zabaltzea.

Hurrengo txostenetan ildo horretan emandako pausoen berri emango dugu; bereziki, gure esparru juridikoaren barruan 2006ko abenduaren 13ko Ezgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa aplikatzearen ondorioz, gogoeta egin beharko da elkarren artean, bai eta lege erreforma handiak egin ere, talde horren eskubideak bermatzeko.

c) Mendekotasun Legearen jarraipena

2007. urteko ohiko txostenean adierazi genuen burutik gaixo dauden pertsonen elkarteak kezkatuta zeudela Mendekotasun Legearen aplikazioaren inguruan; izan ere, sektore horretako eskariei modu integralean erantzungo zitzaiela bermatzea nahi zuten. Zehazki, hauxe eskatzen zuten: "Arazoaren handitasuna aztertzea, eta prestazio katalogo bat proposatzea, ez bakarrik buruko nahastea duten pertsonen beharrei erantzuteko, baizik eta baita hain senitartekoen beharrei erantzuteko ere (haiekin bizi baitira kasuen %80etan)".

Aurten, alde batera utzita Arartekoak etorkizunean azterketa zorrotz bat egin dezakeela EAEn Mendekotasun Legea nola aplikatzen den ikusteko eta lege horrek eragiten dien eragile instituzional eta sozial guztien informazioa biltzeko, informazioa eskatu zaie Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari eta foru aldundiei, eta lehenengo kontsulta egin zaie hainbat elkarte inplikaturi, Legearen aplikazioak nolako eboluzioa izan duen jakiteko, osasun mentaleko zerbitzuetan tratamendua egiten ari diren eta, aldi berean, beste baliabide, zerbitzu eta prestazio sozial batzuk eskuratzeko mendekotasun balorazioa eskatu duten buruko gaixoen edota mendekoen taldeari dagokionez.

Zehazki, **Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren** eskaria alderdi hauen ingurukoa izan da:

1. Datuak ematea, besteak beste lurraldez lurraldeko informazio hau izateko: burutik gaixo dauden zenbatek eskatu duten mendekotasun balorazioa, zer mendekotasun gradu duten eta zer zerbitzu eta prestazio dituzten.
2. Zer neurri hartu diren burutik gaixo dauden pertsonak mendekotasuna artatzeko sisteman sartzeko.

3. Zer zailtasun sortu diren lurralde bakoitzean Mendekotasun Legea aplikatzeko orduan.
4. Zer aldaketa egin daitezkeen Mendekotasun Legean.
5. Zer baliabide berri dauden buruko nahaste larria duten pertsonen beharrei erantzuteko.
6. Zein diren Mendekotasun Legearen alde onak.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren erantzunetik, honako alderdi hauek nabarmendu ditzakegu:

- Eskatutako datuei dagokionez, gaur-gaurkoz ez dago modurik datu horiek izateko, eskariaren zehaztasunagatik eta osasun mentaleko arreta antolatzeke dagoen dinamikagatik beragatik eta dituen baliabide ugariengatik.
- Mendekotasuna kudeatzeko eskumena foru aldundiek dutenez, osasun mentaleko sareak balorazioa proposatu eta balorazio baremoa egiteko izapideak erraztu besterik ez du egiten.
- Zailtasun handienetako bat mendekotasunaren balorazio baremoan datza, hasieratik ezgaitasun fisiko eta zentzumenezkoei begira egin izan baita; hori dela eta, buruko nahaste larria duten pertsonen kasuan, benetan duten gradua baino gutxiago ateratzen da balorazioan, eta pertsona horiei ematen zaizkien baliabideak ez dira egokitzen haien asmo eta beharretara.
- Osasun mentaleko sareari dagokionez, Banan-banako Tratamendurako Plana (BTP) izeneko lan tresna sortu da; horren barruan, modu integralean biltzen dira buruko nahaste larria duten pertsonen tratamenduarekin lotutako alderdiak, erabili beharreko baliabideen balorazioa barne. Gerta liteke elkarren aurka egotea Banan-banako Tratamendurako Plana (BTP) –osasun mentaleko sareak egiten du– eta Banan-banako Arretarako Plana (BAP) –Foru Aldundiak egiten du–. Hortik ondorioztatzen da ezinbestekoa dela gizarte arloa eta osasun arloa elkarrekin koordinatuta egotea, pertsona bakoitzaren ikuspegi integrala izateko, haien errealitatera egokituago dauden baliabideak emateari begira.
- Gabeziarik handienak lan munduan sartzeko baliabideetan eta egoitza baliabideetan daude, bereziki 40 eta 60 urte bitarteko pertsonentzat, instituzionalizazioaren alternatiba gisa.
- Mendekotasun Legea desberdin aplikatzen da lurralde bakoitzean, ez hainbeste mendekotasun balorazioaren baremoak aplikatzeari dagokionez, baina bai gune soziosanitarioa ulertzeko eta garatzeko moduari dagokionez. Alde horretatik, Osakidetza bere erantzunean adierazi du Bizkaian eta Gipuzkoan badela gune soziosanitario bat, eta hor laguntza egiturak batera sortu eta finantzatzen direla (egoitza txikiak, etxebizitza babestuak...); Araban, ordea, ez dago halakorik, ez baita adostasun hori lortu. Adierazitako desberdintasun horren adibidea da lurralde bakoitzean

modu batera garatu dela paziente psikiatrikoak gizarte egitura normalizatueta berri kokatzeko akordioa, hau da, Atentzio Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak sinatutako akordioa (2005).

- Aurrekoa gorabehera, erantzunean adierazi du ongi irizten diola Mendekotasun Legeari; izan ere, Legeak agerian utzi du beharrezkoa dela ezgaitasunaren arretan erantzukizun partekatua izatea, eta hortik ondorioztatzen da erakundeen artean behar bezalako lankidetzak izan behar dela, lankidetzak soziosanitarioa izan behar dela eta egitura berriak sortu behar direla, alde batera utzita lortu nahi diren asmo guztiak betetzea lortzen den edo ez.

Modu berean, **foru aldundi** bakoitzari galdetu zaio Legeak zer ondorio ekarri dituen bere jardun esparruan, burutik gaixo dauden pertsonen dagokionez.

Arabako Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako foru diputatuak bere erantzunean baieztatu du prozedura bat egin dela talde ahulen eta baztertuta geratzeko arriskua dutenen –horien artean daude burutik gaixo dauden pertsonak– eskariak izapidetzeko eta talde horiek GOFEn mendeko baliabideak eskuratzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak bere erantzunean honako hau adierazi du bere tutoretzapeko pertsonengan legeak duen eraginari dagokionez: *“Zinez eskasa izan da, eta ez da igoera adierazgarririk hauteman gizarte edo prestazioetarako eskubidean.”* Bi arazo nagusi adierazi ditu:

- Legeak erabiltzen duen mendekotasun kontzeptuak modu esplizituan zehazten du zer den eguneroko bizimodurako oinarritzko jardueretarako laguntza, baina ez die erantzuten “beregaintasun pertsonalerako beste laguntza batzuk” behar dituzten buruko gaixoen beharrei.
- Mendekotasun Legearen baremoak beregaintasun fisiko, intelektual edo zentzumenezkoaren galerarekin lotutako egoerei erantzuten die; ez, ordea, burutik gaixo dauden pertsonen egoerei. Beraz, lortzen den emaitza askotarikoa da, hainbestearino non kontraesanak ere sortzen diren eta buruko gaixotasun batengatik judizialki ezgai jotako pertsonak beregain gisa hartzen diren lege horren ondorioetarako, horrek prestazio eta zerbitzu jakin batzuk eskuratzeari begira dakarren kaltearekin.
- Bestalde, adierazi du asko luzatzen dela mendekotasuna baloratzeko prozesua.

Alde horretatik, Arartekoak sektoreko hainbat **profesionalekin eta elkarterekin** izandako harremanaren ondorioz, alderdi hauetan ere eragin dezakegu:

- Beharrezkoa da mendekotasuna baloratzeko baremoa berraztertzea, buruko nahaste larria duten pertsonen egokitzeak, gaixotasunaren aldakortasuna eta mendekoak izan arren pertsona horiek dituzten gaitasunak eta trebetasunak kontuan hartuta.

- Banan-banako Arretarako Programa egiteko prozedura berraztertzea, modu koordinatuan lan egiteko modua izan dezaten pertsonaren jarraipena egiten ari diren profesionalak, senitartekoeak, gehienak haiekin bizi baitira, eta gizarte arloak.
- Beharrezkoa da emandako baliabide eta zerbitzuez azkarrago gozatzeko modua egitea, atzerapenik gehiago izan ez dadin, zenbaitetan urte eta erdi baino gehiago igarotzen baita balorazioa eskatu denetik benetan ematen den arte.
- Ez dira nahikoak egoitza baliabideak, lan munduan sartzeko baliabideak eta aisialdirako eta denbora libererako jarduerak.
- Ikuspegi baikorretik, aintzat hartzen da Mendekotasun Legeak beste bide bat gehiago martxan jarri izana diru laguntzak eskatzeko, bereziki familiako zaintzaileek beren etxeetan zaintzen dituzten mendeko pertsonen kasuetarako.

Arartekoa kezkatuta dago Mendekotasunaren Legeak burutik gaixo dauden pertsonengan duen eragina dela eta. Horregatik, azterketa monografiko bat prestatzen ari da, EAEn Legea nola aplikatzen den sakon aztertzeko.

Guztiarekin, txosten honetan jasotako informaziotik ondorioztatzen da beharrezkoa dela legeria aldatzea eta Legearen aplikazioa egokitzea, burutik gaixo dauden pertsonen eta haien inguruko zaintzaileen eskariak aintzat hartzeko.

d) Osasun Mentalaren eta Pertsonen Eskubideen gaineko Jardunaldia

Arartekoak Osasun Mentalaren eta Pertsonen Eskubideen gaineko Jardunaldia antolatu zuen EHUren 27. Udako Ikastaroen barruan, eta unibertsitateko, osasun arloko eta elkarteetako (Egunabar eta Fedefes) hainbat hizlarik hartu zuten parte.

Jardunaldi horretan, gogoeta orokorra egin ahal izan zen burutik gaixo daudenek jarduteko gaitasunean dauzkaten mugen inguruan. Kontu hori 2008ko maiatzaren 2tik da bereziki interesgarria, Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko NBERen Konbentzioa indarrean sartu zenetik (Espainiak 2007ko martxoaren 30ean berretsi zuen); izan ere, konbentzio horrek nabarmentzen du ezgaitasunen bat duten pertsonak beregainak eta independenteak izan behar dutela, eta aske izan behar dutela erabakiak hartzeko eta aukera berdintasuna eta beregaintasun pertsonalaren garapena sustatzeko.

Horrez gain, beste kontu interesgarri batzuk ere azaldu ziren, hala nola: gaur egun nola dagoen osasun mentalaren arreta –horren inguruan, sarean sar daitezkeen aldaketa batzuk proposatu ziren–; espetxeratuek nolako osasun mentala duten –erakunde honek berariaz aztertu du hori atal batean–; zer eskatzen duten burutik gaixo dauden eta nahi gabeko tratamendu anbulatorioari uko egiten dioten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lanean diharduten erabiltzaileen elkarteek –hain zuzen ere, zerbitzu espezializatuagoak eskatzen dituzte, gehiegizko medikazioa saihestea, gaixotasunaren eta horrek dituen sintomen eta arriskuen gaineko informazioa hobetzea, eta pertsonak gaixotasunean gehiago parte hartzea–; eta zer

eskatzen duten senitartekoen elkarteek –besteak beste, bizi-kalitatearen eredua aldeztu dute, gaixok herrian parte hartzeko modua izan dezaten, bai eta arreta soziosanitarioaren eredua ere, psikologoek parte hartzeko modua izan dezaten lehenengo mailako arretatik, eta buruko gaixotasunaren arretako medikalizazio gogorra saihestu dadin–.

Jardunaldi horren gaineko informazio gehiago nahi izanez gero, Arartekoaren web gunean kontsulta daiteke, 2008ko jardueren barruan.

e) Elkarteekiko harremana

Arartekoak bilerak eta harremanak izan ditu burutik gaixo dauden pertsonekin eta haien senitartekoekin (Fedeaifes Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarten Federazioarekin eta haien federatuekin, Agifes, Asafes, Asasam eta Avifeseekin, bai eta Egunabar Psikiatria Erabiltzaileen Bizkaiko Elkartearekin ere).

Bilera horietan adierazi du bereziki kezkatuta dagoela talde ahulenekin: batez ere buruko nahastea duten hurrekin eta oraindik adin nagusitasunera iritsi ez diren gazteekin, bai eta adinekoekin, presoekin, etorkinekin eta etxerik gabekoekin ere.

Arartekoak kezka berezia agertu izan du errealitate horiengatik, premiazkoak baitira oso, eta jarraipena egin izan die berariazko arloetan, txosten honetan adingabeekin, presoekin eta baztertuta dauden pertsonekin egin duen bezala.

B) Gaixo kronikoak

Honen aurreko txostenetan, hiesa dutenek eta GIB-eramaileek hainbat prestazio eskuratzeko egin dituzten eskarien berri eman dugu, eta fibromialgia dutenek egindako eskaria ere jaso dugu; fibromialgia ezgaitzen duen gaixotasun gisa hartzea eskatu du, besteak beste, talde horrek.

Aurten, hainbat harreman izan ditugu gaixotasun kronikoaren eremuko zenbait elkarterekin, hala nola Euskadiko Erretinosi Pigmentarioko Gaixoen Elkartearekin (EPEGE), Gipuzkoako Alkoholiko Anonimoen Elkartearekin, Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartearekin, Bularreko Minbiziaren Elkarteekin eta Hartutako Kalte Zerebralaren Gipuzkoako Elkartearekin (Atece); elkarte horien eskari eta kexa batzuk txosten honetako osasunaren gaineko atalean daude jasota.

Arartekoak arreta berezia eman nahi dio gaixo kronikoen talde horri, bereziki ahultasun, gizarte estigma eta desatentzio arrisku handiagoko egoerak eragiten dituzten gaitzei dago-kienez.



III. ATALA

GOMENDIO OROKORRAK



1. HILERRIETAKO ZERBITZU PUBLIKOAK ERLIJIO SINISMEN EZBERDINETARA EGOKITZEA. AIPAMEN BEREZIA KOMUNITATE MUSULMANARI

Sarrera

Izaera orokorreko Gomendio honetan garatuko dugun gaia kokatzeko, beharrezkoa da, lehenik era behin, komunitate musulmana osatzen duten pertsonen buruz aritzea. Horrela, talde hori, gure erkidegoan errotutako musulman etorkinez gain, bertakoak izan baina erlijio hori praktikatzan dutenek osatzen dute, bai bigarren belaunaldiko pertsonak, hemen jaiotako etorkinen seme-alabak edo musulman erlijiora atxiki direnak.

Komunitate musulmana osatzen duten pertsona taldeari buruz aipatutakoaren kaltetan gabe, etorkinek talde horren zatirik nagusia osatzen dute. Euskal Autonomia Erkidegoan, azken urteotan, gure erkidegoan finkatu diren etorkinen fluxuan igoera nabari izan da. Igoera hori musulman erlijioa praktikatzan duten etorkin taldean ere izan da. Fluxu hori azken urteotan areagotu da, eta horrek harrerako jendartearen aldetik, baina batez ere administrazio arduradunen aldetik, hartzean ahaleginak areagotzea eta bizitzaren esparru guztietara helduko diren politikei bultzada ematea eskatzen du. Horren bidez, euskal jendartearen pertsona talde hori erabat integratzea lortu nahi da.

Kontu hori aztertzerako orduan, esan beharra dugu ez dugula erlijio hori praktikatzan duen populazioaren gaineko datu estatistikorik, nahiz eta magrebtar jatorria duten etorkin taldearen inguruko zenbait datu kontuan har ditzakegun. Izan ere, talde horren gehiengoak, bere erlijioa dela eta, musulmantzat du bere burua¹. Datu horiei beste taldekoak ere gehitu beharko genizkieke, gutxiago izan arren, musulman erlijioa praktikatzan den beste herrialdeetatik datozenak (Mali, Senegal, Pakistan, etab).

Etorkin biztanleriaren handitze hori berresteko, nahikoa da Immigrazioaren Euskal Behatokiak EAEko atzerriko biztanleriari buruz 2008ko urtarrilaren 1an emandako datuei begiratzeari². EINek egindako behin-behineko aurrerapenaren arabera, etorkinen kopurua 116.650

¹ ZERBITZUAN 43.zk 2008. *"Biztanleria magrebtarra eta bere integrazioa euskal gizartean"* Trinidad L. Vicente, 33-44 orrialdeak.

² Ikuspegi aldizkaria, 23. zk., 2008ko abuztua (<http://www.ikuspegi.org>).

biztanlekoa da. Horrek 2005. eta 2008. urtetan zehar % 60ko handitzea egon dela esan nahi du. Handitze horretatik, % 19 aurten izan da.

Handitze horrek ere EAEn 2008an errolatuta zeuden magrebtar jatorriko biztanleriari eragin dio. Horrela, azken hirurtekoan 8877 pertsonetatik 13.765 pertsona izatera pasa da eta adierazgarria da Arabako Lurraldeko Historikoko egoera. Bertan, biztanleria marokoarra lurraldean dauden atzerritarren % 21,9 da. Gainera, zifra horiei, gure erkidegoan dauden baina hainbat arrazoi direla medio datu estatistikoetara sarbiderik ez duten etorkin horiek gehitu beharko litzaieke.

Guztira, nahiz eta gure erkidegoan dagoen musulman biztanleria gehiengoa atzerritara izan, beharrezkoa da bertakoak izan eta musulman erlijioa praktikatzen duten pertsona taldeen datuak ezagutzea, nahiz eta esan genezakeen gure Erkidegoko musulman biztanleriaren gehiengoa atzerritara dela, magrebtar jatorrikoa eta bereziki marokoarra. Beharrezkoa da datu horiei gehitzea, bertakoak izan eta musulman erlijioa praktikatzen dutenak, gero eta gehiago direnak. Horiek guztiek osatzen dute komunitate musulmana.

Gaian sakondu aurretik, esku artean duguna testuinguruan kokatzeko, kontuan izan behar dugu nola bizi duten musulmanek Islama herrialde islamikoetan eta bizipen horrek bizitzaren esparru guztietan duen isla, eta bestalde, nola garatu den erlijioa mendebaldeko gizartean. Juan Luis Fuentes Nogales eta Trinidad L. Vicente autoreek aipatzen duten moduan:³

“Mundu musulmanari” edo Islamari buruz hitz egiten denean ez da bakarrik erlijio islamiarrari buruz izaten, normalean bizimodu bat, kultur pilaketa, politika egiteko moduak, ohiturak...biltzen dituelako. Aitzitik, egun Europako kristautasunari buruz hitz egiten dugunean erlijio bati buruz ari gara nagusiki, nahiz eta eragin handia izan duen kulturaren, politika ulertzeko moduetan eta herri europarren ohituretan. Mendebaldeak, neurri handiago edo txikiagoan, bizi izan duen sekularizazio prozesuak, ordea, aukera eman digu neurri handi batean erlijioaren elementuak eta politikarenak bereizteko, alegia, Estatua eta Eliza ezberdintzeko.

Komunitate musulmanaren eskaerarik nagusia musulman hilerriak sortzearena da, erlijio hori praktikatzen dutenek beren errituen arabera lurperatzeko aukera izan dezaten. Hala ere, eskaera hori aintzat hartzeko zailtasun handiak daude. Besteak beste, udalerrri guztien eskumenaren nahitaezko prestazioaren zerbitzu publikoa izan arren, administrazio bakoitzak bere udalerriko lurperatzeeri erantzuna eman behar die. Beraz, talde horrentzako herriz herriko erantzuna ematea zaila da.

Une hauetan, soilik Bilboko Udalak eman dio behar horri erantzuna. Horretarako, udaleko hilerrian espazio bat egokitu du, musulman errituaren arabera lurperatzeak egin ahal izateko. Bestalde, Gasteizko udalaren aurrean kexa izapidetzen ari gara, udalerriko hainbat elkar-

³ “Biztanleria magrebtarra Euskal Autonomia Erkidegoan” Egoera eta itxaropenak: “Juan San Martín” Giza Eskubideen Bilduma”. Arartekoa 75. orr.

tek aurkeztutakoa. Kexa horren bidez musulman hilerria eskatzen dute, eta eskaera hori, hain zuzen ere, hiriko musulman taldeek orain dela hamar urtetik hona egiten ari dira.

Hilerriak nahitaezko ekipamenduak dira, hau da, biztanleentzako beharrezkoak dira lurperatzeak egiteko, eta tokiko tradizioen erakusgarri argia izan ohi dira, gizartearen garapenaren eta zerbitzu horiek erabiltzen dituzten herritarren eskaeren arabera. Beren erabileran eta sinesmenetan izandako aldaketak txertatuz joan dira. Horrela, adibide gisa, erlijio fedea, katolikoa nagusiki, hilerri askotako instalazio komunetan dauden kapera edo elizetan islatu da edo erabilera orokorreko espazioetan gurutzeak edo bestelako erlijio ikurrak daude. Berriki, erabileren garapenak, errausketaren ondorioz sortutako errautsen kutxa gordetzeko espazio zehatzak proiektatzen hasi dira, orain dela urte batzuk, pentsaezina zena.

Egia da, egun, Konstituzioak aldarrikatutako kultu askatasunari dagokion bezala, hilerriak ez direla inolako sinesbideren alde agertu behar. Bereizkeriarik gabe, norberaren sinesmen edo erlijioaren arabera hileta-errituak praktikatzeko aukera ematen dion zerbitzua eman behar du. Hala ere, praktikan, erlijio sinesmenek heriotzarekin lotutako errituetan duten eragina dela eta, ekipamendu horien diseinuak, antolamenduak eta ezaugarriek euskal gizartearen sinesmenei erantzuten diete, katolikoari nagusiki.

Testuinguru horretan, gai horretan eskumena duten administrazio publiko ezberdinek, zerbitzu publikoaren eta musulman erlijioa praktikatzen duten pertsonentzako beharrezkoak den jarduera aztertzea proposatzen dugu. Izan ere, erlijio talde horrek zailtasun handiak ditu egungo hilerrietan musulman heriotza errituak jarraitzeko. Administrazio publikoek talde horren eskaera aurreikuspen nahikoarekin prestatzeko eta horri heltzeko dituzten jarraibideetan eta tresnetan sakontzen saiatuko gara.

Aplikatu beharreko oinarrizko araudia Erlijio askatasuna

Gaia kokatzeko, lehenik eta behin, aplikatu beharreko oinarrizko araudia aipatuko dugu. Horrela, Espainiako Konstituzioaren 16.1. artikulua, dio erlijio eta kultu adierazpenaren askatasuna bermatzen zaiela herritarrei eta komunitateei, Legeak babestutako ordena publikoa betetzeko mugarekin baino ez.

Bestalde, 16.artikulu horren 3. atalak ezartzen du erlijio batek ere ez du estatu izaerarik izango, nahiz eta botere publikoek kontuan izango dituzten Espainiako gizartearen erlijio sinesmenak eta Eliza Katolikoarekin dagozkion lankidetzaren harremanak mantenduko dituen. Hau da, estatuaren erlijio neutraltasunaren printzipioa jasotzen du, eta *“fede erlijiosoak eta Estatuaren xedeak nahastea galarazten du”* (Auzitegi Konstituzionalaren 177/1996 Epaia).

Konstituzioaren agindu hori Erlijio Askatasunaren 7/1980 Lege Organikoak, uztailaren 5ekoa, garatu du. 2.1 b) artikuluan pertsona orok ondorengoari eskubidea duela ezartzen du:

“Practicar los actos de culto y recibir asistencia religiosa de su propia confesión; conmemorar sus festividades; celebrar sus ritos matrimoniales; recibir sepultura digna,

sin discriminación por motivos religiosos, y no ser obligado a practicar actos de culto o a recibir asistencia religiosa contraria a sus convicciones personales.”

Bestalde, Lege Organiko horren 7.1. artikulua zehazten du, Estatuak, Espainiako gizartean dauden erlijio sinesmenak kontuan hartuta, ezarriko duela, hala balegokio, Erregistroa izena emana duten erlijio Eliza, Sinesmen eta Komunitateekin lankidetzak akordioak eta hitzarmenak sinatzea, beren esparrua edo fededun kopuruarengatik Espainian errotze garrantzitsua lortu dutenekin, hain zuzen ere.

Horrela, Estatuak, musulman erlijioaren errotzea nabaria zela eta, bere fededun kopurua eta bere sinesmenaren hedadurarengatik, azaroaren 10eko 26/1992 Legea, Espainiako Bartzorde Islamikoa Estatuarekin lankidetzak hitzarmenarena, berretsi zuen, 1992ko apirilaren 28an sinatutakoa. Dagokigun gaiarekin lotuta dagoela eta, 2.5. artikulua diona aipatuko dugu:

“Se reconoce a las Comunidades Islámicas, pertenecientes a la Comisión Islámica de España, el derecho a la concesión de parcelas reservadas para los enterramientos islámicos en los cementerios municipales, así como el derecho a poseer cementerios islámicos propios. Se adoptarán las medidas oportunas para la observancia de las reglas tradicionales islámicas, relativas a inhumaciones, sepulturas y ritos funerarios que se realizarán con intervención de la Comunidad Islámica local. Se reconoce el derecho a trasladar a los cementerios pertenecientes a las Comunidades Islámicas los cuerpos de los difuntos musulmanes, tanto los actualmente inhumados en cementerios municipales como los de aquéllos cuyo fallecimiento se produzca en localidad en la que no exista cementerio islámico, con sujeción a lo dispuesto en la legislación de régimen local y de sanidad.”

Beraz, pertsona orok erlijio askatasunerako duen eskubidea erlijio arrazoiengatik baztertuta ez izateko eskubidetik eratoritzen da. Eta, ondorioz, bere erlijio sinesmenen arabera hileta errituak praktikatzeko eskubidea dute. Horretarako, aipaturiko Legeak, eskubide hori eraginkorra egin dadin, zenbait tresna ezartzen ditu.

Lurperatze islamikoetarako udal hilerrietan lursailak gordetzeko ezarpen horri dagokionez, azaroaren 3ko udal hilerrietan lurperatzeari buruzko 49/1978 Legean dagoen kontraesana doktrinaren bidez eztabaidatu da, hilerri zibilak deiturikoen arazoa konpontzen saiatu zena. Horren bidez, hilerriko beste zatietatik bananduta zeuden espazio horien arteko komunikazioa berrezartzera behartu zen, indarrean zegoen diskriminazioarekiko aurrerapen handia zena, gerra zibilean aldarrikatutako Lege batetik eratorritakoa.

Edonola ere, uste dugu, erlijio arrazoiengatik diskriminaziorik ez egoteko printzipiotik abiatuta, eskudun administrazioek horren inguruan dauden eskaerei erantzuna eman behar dietela. Nahitaez banatuta egon behar ez duen zerbitzua eman behar diete, hau da, ez dela hilerriaren osotasunetik banatuta egon behar, baizik eta talde horren beharrei erantzuna emateko toki edo espazioa eman behar zaiela, ondoren aztertuko dugun moduan.

Musulman errituaren araberako hilotzen sanitatearen eta lurperatzearen inguruko araudia

Autonomia Estatutuaren 18.1. artikuluekin bat, osasun kontuetan Estatuko oinarrizko legeriaren legegintzako garapena eta betetzea Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiona, 202/2004 Dekretua egin zen, urriaren 19koa. Horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko hilotzen sanitatearen araudia onartu zen.

Arau horren arrazoen azalpenak aipatzen du beste garaietako osasun arriskueta ez bezalako egoerara egokitu nahi duela, izan ere heriotzaren inguruko erabilera eta ohiturak, bizitzeko moduak, eraikuntza teknikoetan aurrerapenak eta hileta-enpresek eskaintzen dituzten zerbitzuak aldatu dira. Horrek osasun-administrazio kontrolak eguneratzea eragin dute, eta horrekin, hilotzen sanitatean biltzen diren administrazio izapideak, horrek osasun publikoak dituen bermetan kaltetu gabe.

Hau da, araudi hori egun heriotzaren inguruko garapenari eta errealitate berriei dagokie. Araudiaren zioen azalpenaren zati hori nabarmendu dugu, gomendio honetako sarreran aipatutakoa azpimarratzeko, hilerriak gizartearen garapenera egokitzuz joan direla. Eta hori dela eta, pentsaezina litzateke herritar talde baten sinesmenak ezarritako arauak eta parametroak berrikustera bultzatu dezakeela, osasun publikoa babesteko muga bakarrarekin. Edo bestela esanda, osasun publikoko arazoak egon ezean, gai horri dagokion erregulazioa biztanleen zati baten erlijio sinesmenenek bat etorri beharko litzatekeela.

Bestela, araudiaren 40. artikuluan, hilerriaren zerbitzuari buruz ari denean, ezartzen du udalerrri guztiak zerbitzu hori ematera behartuta daudela, beren kabuz edo taldeka, tokiko araubidearen legerian ezarritakoarekin bat. Gai hori hurrengo atalean aztertuko dugu.

Hain zuzen ere, hilerria udal guztiek ematen duten eta eman izan duten zerbitzua da, nahitaezkoa delako. Derrigortasun hori bi alderditatik azter dezakegu: Zerbitzua izatea beharrezkoa da, eta, bestalde, izendaturiko zerbitzua da. Hau da, herritar guztiak behartuta daude lurperatzeak hilerrian egitera, jarduera hori bestelako tokietan egitea debekatua da goelako, ustezko berezi batzuetan izan ezik.

Aurrekoa aipatu ostean, musulman errituaren araberako lurperatzei buruz ari gara, hain zuzen ere, eta gure erkidean hilotz sanitatea arautzen duen araudira egokitzeke zailtasunei.

Musulman erlijioeko pertsona bat hiltzen denean, garbitu eta oihal garbi eta zuri batean biltzen dute. Ahal dela, egun horretan bertan lurperatzen dute. Sakonera gutxian lurperatzen da gorpua, kaxarik gabe eta lurrarekin kontakturik izan gabe, ura, Islamean, rahma dela uste delako (Jainkoaren Errukia), eta hilotzera iristea funtsezkoa delako. Hilotza ezker alboaren gainean jartzen da, hilobi batean, hilkutxarik gabe eta Mekara begira. Hildako pertsona ezin da hilobitik atera, ezta datzan tokitik mugitu ere, gutxienez berrogei urte baino gehiago igaro arte.

Hileta erritu hori ez dator bat hilotzen sanitarearen arautegian ezarritako araudiarekin. Izan ere, ezin da heriotza jazo eta hogeita lau ordu baino gehiagoko epea igaro arte lurperatu, eta hilotzaren garraioa eta lurperatzea nahitaezkoa den hilkutxarekin egin behar da. Lurrean lurperatzea⁴, hilkutxarekin izan arren, baimenduta dago, nahiz eta egun, hilerri gehienetan lurperatzeak hil eraikuntzetan egiteko joera izan (nitxoak, panteoiak, mausoleoak). Horrela, beste gauza batzuen artean, sortzen diren lixibiatuen jasotzea eta hustuketa errazten da, eta hobeto kontrolatzen da lurpeko uretan sor dezaketen balizko arriskua. Nolanahi ere, hau ez da arazo saihestezina eta araudiak lurrean egindako hilobi batean zuzenean lurperatzeko aukera ematen du, beti ere beharrezko neurriak hartzen badira.

Hilkutxak nahitaez erabiltzeari dagokionez, Autonomia Erkidego gehienek EAEk dituen termino berdinetan derrigortasun hori ezarrita dute. Soilik, guk dakigula, Andaluziako Autonomia Erkidegoak aurreikusten du hildako pertsonen konfesionaltasuna berau lurperatzean. Kontua apirilaren 3ko 95/2001 Dekretuak arautzen du, Hilobietako Osasun Zainketari buruzko araudiak. Hain zuzen ere, adierazten du lurperatzeak hilkutxarekin egin behar diren arren, konfesionaltasun arrazoiengatik onartzen dela, hala eskatuta eta udalak baimentzen duenean (beti ere araudiaren 4. artikuluko 2. Taldearen barnean dauden hilotzak direnean), lurperatzea egiteko hilkutxa ez erabiltzea, nahiz eta garraiorako beti erabili beharko den

Bestalde, hilerriak eraikitzeari dagokionez, EAEko hilotzen sanitarearen araudiak, kontuan ditu erlijio sinesmenak. Horrela, 40. artikulua ezartzen du Eusko Jaurlaritzako sailak erlijio-sineskera ezberdinetarako berariazko hilerriak eraikitzea baimendu dezakeela Osasun Sailak; betiere, eskabidean ondokoa behar bezala justifikatzen bada: ingurumenarentzako eta osasun publikoarentzako arriskurik ez dela izango bermatzeko baldintza higieneko eta sanitarioak dituela instalazioak.

Aurreikuspen horrek hilerri pribatuak egoteko aukera irekitzen du, baina ez dirudi komunitate musulmanaren eskaerari erantzuteko egokiena denik, hau da, lurperatzea musulman errituaren arabera egitearena. Izan ere, horrek nahitaezko prestazioaren zerbitzu publikoa erabiltzeko eskubidean tratu ezberdina adieraziko luke.

Azken batean, atal honetan aipatutakoa laburbilduz, kontu horren inguruko planteamendua berrikusi beharko litzateke, komunitate musulmanak praktikatzen dituen hileta errituen argitan, eta, bereziki, lurperaketetan hilkutxak izateko behararen eta hilobien sakoneraren azterketari dagokionez. Hori guztia, era arrazoituan eta osasun publikoa eta bestelako gai praktikoa kontuan hartuz, eskaera hori aintzat hartzeko desegokitasunera helduko balitz.

⁴ EAEko hil osasunaren araudiaren 43. artikulua arabera, lurrean hondeatutako hilobiak hurrengo ezaugarriak izan beharko ditu: 2 metroko sakonera, 0,80 metroko zabalera eta 2,50 metroko luzera, haien arteko banaketa, gutxienez, 0,50 metro koadrokoa izango da lau aldetatik.

Administrazio publiko ezberdinen eskumena kontu honi dagokionez

Atal honetan administrazio ezberdinen eskumenak aztertuko ditugu, hau da, udal, foru eta Autonomia Erkidegoaren eskumena. Hori guztia, musulmanek beren errituaren arabera lurperatzeko eskubidea betetzeko jardueri dagokionez, oinarrizko araudiaren eta aplikagarria den arloaren barruan, aipatu dugun bezala.

a) Udal administrazioaren eskumenak

Aurreko atalean aipatu dugun bezala, udalek hilerri zerbitzua eskaintzeko beharra dute, edozein dela beren biztanle kopurua, beren kabuz edo beste batzuekin elkartuta (apirilaren 7ko 7/1985 arauaren 26. artikulua, Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen, TAOL). EAEko udalerrri guztietan zuzenean ematen ari den zerbitzua da, baita biztanleria gutxieneko udalerrietan ere, nahiz eta zerbitzuak liberalizatu diren⁵, tokiko erakundeentzako gordetako beren izaera ezabatuz. Praktikan, udal guztiek hilerri zerbitzua berez ematen jarraitzen dute. Baina, bestelako prestazioetan, tanatorioek, hilobi garraio zerbitzuek, errausketek, etab, hileta zerbitzuen barruan sar genitzakeenak, lehia askeari bidea eman diote ekimen pribatuaren bidez.

Erlijio askatasuna bermatzen duen estatu bati dagokion moduan, zerbitzu horren prestazioa berdina izan beharko litzateke udalerrian bizi diren bizilagun guztientzat, erlijio arrazoiek edo bestelakorik bereizi gabe. Horri dagokionez, jada aipatu dugu azaroaren 3ko 49/1978 Legea, udal hilerrietan lurperatzeari buruzkoa. Lege horrek hilobi bakoitzean praktikatzen diren hil errituak ezartzen ditu, kaperetan edo horretara bideratutako tokietako gurtzearen kaltetan gabe. Gainera ezartzen du, udalek beren ordenantza eta araudiak berrius ditzaketela diskriminazioa ez egoteko printzipioan izan daitezken murrizketak baztertzeko, bai hilerrien erregimenean zein hil zerbitzuetan⁶.

Guztira, teorian gutxienez, hilerrietako zerbitzuek ezaugarri zehatz batzuk izan behar dituzte, pertsona oro bere sinesmenekin bat datozen hileta errituen arabera lurperatzeko baimenduko duena, diskriminaziorik gabe. Praktikan, hala ere, ezarpen horiek udal hilerri askotan betetzea zail da, helburua lortzeko neurri egokiak hartu arren. Neurri horiek, zenbait kasutan, onargarriak izango dira zerbitzua arautzen duen araudian aldaketak eginez gero. Bestetan, espazioaren egokitzapenaren bidez, eta gehienetan, mota bateko edo besteko neurriak hartuz. Baina, finean, eskariari erantzuna emateko helburu argia duten erabakiak hartu beharko dira.

⁵ Ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretu Legea, presazko zerga-neurriak eman eta jarduera ekonomikoa sustatu eta liberatzeari buruzkoa.

⁶ Lege hori egin zenetik denbora asko igaro den arren, egun, oraindik ere, lege ezarpen horiei egokitzen ez diren udal araudiak aurkitu ditugu. Adibidez, Gasteizko udalak indarrean duen "Salvador" hilerriko araudia, 1973. urtean onartutakoa eta 1998an aldatua. Hilotzetzako hilerri zibila mantentzen du, eliza bidezko lurperatzea ematen ez zaien hilotzetzat eta hilerri katolikoaz aparte dagoen esparruan lurperatu behar direnak.

Edonola ere, gainetik bada ere, musulman errituaren arabera hileta eskubidez baliatzeko dauden tresnak eta izan daitezkeen egokitzapenak aztertuko ditugu. Zerbitzu horren prestazioa, normalean, udal ordenantza edo araudiaren bidez arautua dago, hilerrietako erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituenak, aurreko epigrafean aipatu dugun arloko araudiaren esparruan. Udalerri bakoitzak, autoantolaketarako duen bere eskumena erabiltzean, ekipamendu horrek duen jabari publikoko izaeratik abiatuta, araudi ezberdina du eta, hori dela eta, hileta eskubidea osatzen duten araudiaren ezaugarri unitarioak eskaintzea zaila da. Udalerri bakoitzeko kasuistika dela eta aipatutako zuhurtzia izan arren, oro har, hileta eskubiderako moduak, oinarritzko bi taldetan taldekatu ditzakegu: aldi baterako emate ez berriztagarria eta epe luzetarako ematea.

- Aldi baterako ematea hilotza epe ez berriztagarrian uztea⁷, hau da, aurreikusitako epea igaro ostean, beharrezkoa dela lurperatutako gorpuzkia kentzea. Epe hori aldatu ohi da hilerriaren edukieraren, erabilgarritasunaren, plangintzaren, eta abarren arabera.

Emate horietan lurperatze eskubidea, normalean, udalerrian bizi edo jaio direnei dagokie, eta lurperatzea lurlean zuzenean edo fabrikako hilobietan izaten da. Egun, lurreko lurperatzea baztertzen ari da, eta obrako hilobiak orokortu dira, bai edukiera arrazoiengatik zein ingurumen arrazoiengatik.

- **Epe luzeak ematea**, epe zehatz baterako izan arren eta nahiz eta mugaezin izaera izan dezaketen, indarreko araudian ezarritakoaren arabera⁸. Legezko gehieneko epeak 99 urtetatik, 75 edo 50 urtera alda daitezke, kontuan hartzen den araudiaren arabera⁹, eta gehieneko horietatik udal bakoitzak bere irizpideak ditu, nahiz eta emate epeak normalean luzeak izan.

Ustekoz horiek lurperatze unitateei dagozkie, hainbat hilotz izateko edukiera dutenak eta normalean beharrezko fabrika eraikuntza behar dutenak, panteoiak edo mausoleoak direla. Ohikoa da mota horietako emateentzat, emandako lursailen zuzenean lurlean egindako lurperatzea ez egitea, lursailak jada eraikitako lurperatze unitatea duelako edota lursailaren esleipendunak erabili aurretik berau erabiltzera behartuta baldin badago.

⁷ Oro har, gutxienez bost urte igaro behar dira. EAEko hilotzen sanitatari buruzko araudiaren 26. artikulua (urriaren 19ko 202/2004 Dekretua).

⁸ Baieztapen horren egin arren, bai doktrinak zein jurisprudentziak ondasun mota horietarako administrazio emakida egokitu dute eta "hileta eskubidearen" teoria sortu dute. Eskubide horren bidez, ematearen titularrari baimena ematen zaio lursailen, nitxoan edo hilobian bere senitartekoen hondakinak gordetzeko, epe mugagabea, edota herentzia tituluaren bidez transmititzeko. Ezaugarri horiek jabari publikoko ondasunen izaera bereziaren ideia ematen dute. Izan ere, udal askok beren ordenantzetan jasoa daukate betiko emate horien aukera, nahiz eta askotan, emate zahar horietarako, indarrean dagoen arauditik ezberdina izan.

⁹ Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren (ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua) 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoaren Ondarearena edo Tokiko Korporazioetako Zerbitzuei buruzko Araudia (1955eko ekainaren 17ko Dekretua), hurrenez hurren.

Bestalde, hilobi horien ematea, normalean, pertsona fisikoen alde egiten da. Horrela, hilobi eskubidea soilik titularraren lurperatzeari eta bere senitartekoei onartzen zaie, araudi ezberdinen arabera aldatzen den ahaidetasun mailaren arabera alda daitekeena. Hala ere, badira beste usteko batzuk, eta horietan eskubidea soilik titularraren nahiaren arabera da.

Egoera horren salbuespen gisa Bilboko udala aipa dezakegu¹⁰, pertsona juridiko batzuen alde hilobi eskubidearen ematea onartzen duena, esaterako; erlijio komunitateak, beren kideek soilik erabiltzeko. Eta hilobi eskubidez baliatzeko ahalmena estatutuek hala eskatzen duten pertsonari dagokio, edo, bestela, presidenteari edo maila goreneko karguari.

Laburbilduz, esan genezake, musulman errituaren aplikazioaren ondoretarako, udal eskumenari dagokionez, Mekara begira dagoen espazio bat aurkitzeko arazoak gain, hilerri askotan talde horren eskaerari erantzuna emateko arazoak agertuko liratekeela. Zentzu horretan, Bilboko udala aipa dezakegu, berriki, helburu horretarako, udal hilerriaren zati bat gaitu duena. Oro har, ondorengo adieraz dezakegu:

- Lurrean zuzenean egindako lurperatzeak, legearen aldetik, egin daitezke, hala dagokionean, udal batzuetako araudietan beharrezko aldaketa egiteko kaltetan izan gabe.
- Hilobi berean hilotzak mantentzea, epe luze batean zehar, hileta eskubidearen administrazio emakidaren bidez egingarria da.
- Beharrezko zuhurtziaz, jabari publikoko ondasunak direlako, egingarria da epe luzeetarako espazioak ematea (40 urte baino gehiago), bai eta erlijio erakunde baten alde, beren kideen hileta eskubidez baliatzeko titular gisa.

Edonola ere, badakigu musulman errituaren arabera lurperatzeak egiteko eskaerari udalez udal erantzuteko zailtasun handia dagoela. Egokiago deritzogu bere biztanleriaren ezaggarri, kapitalitate edo udalaz kanpoko bere izaeragatik, zenbait udalerrik Autonomia Erkidegoaren eskaerari erantzun ordenatua eta planifikatua ematea, beste ekipamenduekin gertatzen den bezalaxe.

b) Foru administrazioaren eskumenak

Lurralde Historiko bakoitzeko Foru Erakunde eta Organoei dagokie udal eskumeneko zerbitzuen prestazioa bere osotasunean eta era egokian bermatzea. Ondorioz, udal zerbitzuen koordinazio eskumenak beren artean erabiltzen dituzte, udalekoak diren eskumenak osotasunean eta egoki bermatzeko, udalaz gaindiko eta eskualdez gaindiko zerbitzu publikoen prestazioan (TAOLren 31.2a) eta 36.1 a) artikulua¹¹.

¹⁰ Bilboko udalaren hilerri buruzko araudiaren 21.1 c) artikulua.

¹¹ Foru Lurraldeetan aplikatu beharrekoa, TAOLren bigarren xedapen gehigarriarekin eta Lurralde Historiko bakoitzaren gobernu eta administrazioa arautzen duten arauekin bat.

Beraz, eskumen horien erabileran, Lurralde Historikoez paper garrantzitsua joka dezakete dagokien lurraldea antolatzeke eta sustatzeko, errotatu dagoen musulman populazioaren ezaugarrien arabera eta egoki diren ekipamenduen lurralde konfigurazioaren arabera, eta horretarako egin daitezkeen beharren azterketaren ondorioz egin daitezkeen aldaketak egingo dira.

Ohikoa da Foru Aldundiek jarduera zehatz batzuen sustapen neurriak sustatzea, diru-laguntzetarako deialdien bidez, borondatez interesatutako udalerriek, kasu bakoitzean, lortu nahi dituzten helburuak lortzeko ekintzak bete ditzaten. Hori bide egokia izan zitekeen, lurralde mailan, azterketen ondorioen arabera, udal hilerrietan espazioak egiteko beharrezkoak diren aldaketak sustatzeko, komunitate musulmanaren beharrari erantzuna eman ahal izateko.

c) Erkidego administrazioaren eskumenak

Ulertzen dugu Autonomia Erkidegoko administrazioaren esparruan maila ezberdineko jarduera ildoak proposatzea, hilotzen sanitatari dagokion arloko eskumena dela eta dagokion araudia arautzeaz gain, aurreko atal berezian aipatu duguna.

Alde batetik, foru administrazioetarako adierazitakoarekin bat joateko jardueren sustapena sustatzea, adibidez, immigrazio politikari buruzko arloko eskumenen esparruan, Eusko Jaur-laritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Immigrazio Zuzendaritzari dagokiona. Immigrazio Zuzendaritzak, atzerriko etorkinen integrazioarako politika publikoak artikulatzeko estrategia komuna duena bere funtzioen deskribapenean, helburu hori lortzeko neurriak eta egintzak ezartzeko papera bete dezake.

Bestalde, Autonomia Erkidegoko plangintza orokorrean, gai horri ere heldu lekiok, lurralde antolamendurako dagozkion tresnen bidez, musulman taldearentzako mota horretako ekipamendurako eskaintza ona antolatzeke erreferentziak ezar ditzakeena, beren beharren azterketa egin aurretik.

Horretarako ditugu plangintza tresnak. Hain zuzen ere, Lurralde Antolamendurako Artezpi-deei buruz ari gara (LAA).

Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako sailak adierazten duen moduan, LAAek ingurumen, natur baliabideen, paisaiaren, hiri, industria eta landa espazioen, azpiegituren eta **ekipamenduen** eta gure kultura eta historia ondare handiaren inguruko etorkizuneko jarduerarako oinarrizko ardatzak ezartzen dituzte ¹².

Ongizaterako eta hiri berrikuntzarako ekimenen atalen barnean, LAAek, lurralde ikuspegiko ekipamenduei buruz hitz egiterakoan, gai horren inguruan dauden erronkak planteatzen dituzte bai eta ekipamenduen antolaketarako erreferentziak ere (18. kapitulua, 1 eta 2 atalak). Horrela, beste batzuen artean, ondorengo adierazten du:

¹² <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net>

Ekipamenduen konfigurazioak gizarte-mailan gertatzen diren etengabeko aldaketei erantzuteko behar bezain azpiegitura malgu eta dinamikoa lortzeko beharrari egin behar dio aurre. Ekipamendu-kontzeptua estatikoa da berez; definitu eta gauzatzen denean berau sortzerakoan aintzat hartu ziren igurikapenei erantzun behar die. Hala eta guztiz ere, gizarte-mailako beharrianak arian-arian ari dira aldatzen, gizartearen beraren bilakaeraren arabera eta gizartea bera etengabe ari da aldatzen. Horrenbestez, herrialde bat hornituko duten ekipamenduak gizarte-portaeren ildoek bideratzen dituzten gertakari eta parametroekiko etengabe aldatzen aritzea bihurtzen da, inolako zalantzarik gabe, erronkarik handienetako bat.

Bestalde, ekipamenduen antolaketaerako erreferentzien atalean, hainbat jarraibide ezartzen dira, eta gai honi dagokionez, ondorengoak azpimarra ditzakegu:

- Orokorrean, lurraldean eragina duten nazio edo eskualde mailako ekipamenduen antolaketa, Eusko Jaurlaritzako eta Lurralde Historikoetako sailen aldetik, Lurraldeko Plan Sektorial izaera izango dute, maiatzaren 31ko Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako 4/1990 Legearen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Lurraldeko Plan Sektorial horiek ekipamendu bakoitzerako lurralde eskala identifikatu beharko dute, eta eskala nazionala, Lurralde Historikoarena edo Eremu Funtzionalekoa edo eskualdekoa orientatzeko erreferentzia gisa.
- Eskala horiek ez dute nahitaez ekipamenduen kopuru, tamaina eta sofistikazioarekin harremanik gorde behar, baizik eta horien zentzuarekin udalaz kanpoko beren asmoan.

Azken batean, ekipamenduei dagokienez LAAek proposatzen dituzten jarraibide guztiak txertatzea luzeegia litzateke, gai horrek gomendio honen zentzua gainditzen baitu, nahiz eta xehetasun horiekin lurralde antolamendurako tresna horrek duen interesa azpimarratu nahi dugun, arlo edo lurralde mailako nahitaezko planak horren inguruko jarduera jarraibideak eta gogoetak proposatzeko.

Badakigu gaian sor daitezkeen beharrak minimoak izan daitezkeela beste ekipamendu batzuk sor ditzaketenekin alderatuko bagenitu, esaterako, osasunekoak, hezkuntzakoak, kulturak edo aisiakoak. Hala ere, uste dugu egokia dela gai horri ikuspegi orokor eta integratzaile batetik heltzea, batez ere berezko borondatearen ustezkoan edo goian aipatu ditugun sustapen neurrien bidez, eskudun administrazio publikoek hilerriaren zerbitzuaren eskaera horri erantzungo ez baliete.

Ondorioa

Musulman talde oraindik gaztea da, eta hori dela, zerbitzu horren beharra oraindik ere bali-teke premiazkoa ez izatea, kontuan hartuta heriotz tasak egungo populazioaren adinarekin duen harreman zuzena. Baina administrazio publikoek gogoan izan behar dute, fenomeno horri ahalik eta aurreikuspen nahikoarekin heltzeko.

Guztira, administrazio publikoek beren eskumen esparruetan hartu beharreko neurri eta hausnarketarako, musulman errituaren arabera lurperatzeko beharrari erantzuna emateari dagokionez, kontuan izan behar dute talde hori gero eta handiagoa dela eta, etorkizunean, gure gizartean jaiotako musulman pertsona gehiago egongo direla.

Kontuan izan behar dugu, Juan Luis Fuentes Nogales eta Trinidad L. Vicente autoreek adierazten duten bezala¹³, hango zein hemengo musulmanen lurperatzearekin lotutako alderdi sinbolikoa.

Pertsona batek bere jatorriko herrialdean edo bizi eta lan egiten duen herrialdean lurperatua izatea erabakitzea, azken horretan bere familia ere egon daitekeela kontuan izanda, nortasunaren adierazpena da dudarik gabe, gizarteratzeko nahia bezalaxe. Azken batean, toki batekoa izatearen zeinua da. Prozesu horretan, ordea, etorkin magrebtarren biztanleria baldintzaturik egongo da, noski, gizarte hartzailearen onarpen jarreragatik. Ez bakarrik lanean eta ekonomian egindako ekarpenarekiko jarreragatik, baita Islama, gizarte errealtate den heinean, gizarteratzearekin zerikusia duen guztiarekiko agertzen duenagatik. Izan ere, horrek bizitzeko eta hiltzeko moduak baldintzatu ditu.

Gomendioa

Azaldutako gogoetak ikusirik, uste dugu administrazio publikoek, araudian eragina duten beren berezko eskumen esparruetan, sustapenean, plangintzan edota hilerrien zerbitzu publikoaren prestazioan, irekita egon behar dutela eta musulman taldearen gero eta eskaera handiagoari erantzun behar diotela, eta dagozkion neurriak hartu behar dituztela lurperatzeak musulman errituaren arabera egiteko.

¹³ "Biztanleria magrebtarra Euskal Autonomia Erkidegoan" Egoera eta itxaropenak:" Juan San Martín" Giza Eskubideen Bilduma". Arartekoa 102. orr.

2. GURE ERKIDEGOAN IZAPIDETZEN DIREN HIRIGINTZA ANTOLAMENDUKO PLANETAN INGURUMENAREN GAINEKO BEHARREZKO EBALUAZIOA ESKATZEA

Sarrera

Gomendio honen helburua hirigintza plan batzuetarako ingurumen ebaluazioaren eskakizuna aztertzea da, horiek, berez, EAEko legeriaren arabera aplikaziotik kanpo gelditzen baitira; planak honako hauek dira: plan partzialak, plan bereziak (hiri-lurzoruaren barruan) eta egitura antolamenduko planeamenduaren aldaketak, horiek hiri lurzorutzat edo lurzoru urbanizagarritzat sailkaturiko lurzoruaren soilik eragiten dutenean.

Hirigintza planeamenduko tresnak ingurumen ebaluazioa arautzen duten arauak lotuta daude, eskakizun hori ezartzen duen Europako araudiaren aplikazioan oinarrituz. Araudi hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko ekainaren 27ko 2001/42/EE Zuzentaraua da, plan eta programa batzuek ingurumenean dituzten eraginaren ebaluazioari buruzkoa (Zuzentaraua). Zuzentarau hori ingurumenean eragina duten planen eta programen ondorioak ebaluatzeko helburua (proiektuak betearazi baino lehen) duen prebentzio estrategia baten eraginezkoa da. Gero, Estatuak plan eta programa batzuek ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen bidez irauli du Zuzentaraua (9/2006 Legea).

Oinarritzko ingurumen arau hauek indarrean sartzeak eta onesteak, bestalde, aldaketa eragin du gai honek Euskal Autonomia Erkidegoan duen irismenean, batik bat arloa arautzen duen EAEko legeriaren aplikazioan: Euskadiko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legea (3/1998 Legea) eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea (2/006 Legea).

Arartekoak Legebiltzarrean aurkezturiko 2006ko urteroko txostenean adierazi zuen gai hau. Hirigintza eta lurralde antolamenduaren arloaren sarreran, aditzera eman genuen EAEko legeriak aintzat harturiko aplikazio eremutik kanpo gelditzen zirela, oro har, hiri-antolamenduko plan batzuk eta horien aldaketak, nahiz eta horiek, Europako legeriaren arabera, ingurumenean eragin nabariak edukitzeko arriskua egon.

Gomendio honen helburua, izatez ere, Euskal Autonomia Erkidegoan legeria hau garatzen duen araudia Europako araudiaren (horrek ingurumen alderdi hau jasotzen baitu) eta Estatuak onetsitako funtsezko iraultzearen arabera den aztertzea da.

Ingurumen ebaluazio hau, hirigintza planeamenduan, ez da prozedura mailako eskakizun hutsa. Ulertu behar da tresna horrek eragiten duen azterketa aukera ona dela jarduketa publikoaren barruko beste arlo batzuetan ingurumen aldagaia sartzeko; adibidez, hirigintza antolamenduan.

Ekimen honek garrantzi handia dauka hiritarren benetako partaidetza prozesua irekitzeko, politika publikoen arloan, erabakiak hartu baino lehen, oraindik ere aukera guztiak irekita dituen fasean (zero aukera ere barne, hau da, esku-hartzerik ez izateko aukera).

Bestalde, planeamendu xehatuan ingurumen ebaluazioa egiteko aukerak, egitura antolamenduan egin ondoren, ez ditu prozesuak bikoizten edo errepikatzen. Ingurumen ebaluazioa hirigintza-antolamenduaren xehetasun fasean egin behar da. Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategiko honek ez du esan nahi proiektuetan ingurumen eraginaren ebaluazioa ezabatu behar denik, ingurumen araudiak hori eskatuz gero; era berean, antolamendu xehatuak ingurumen ebaluazio xehatuagoa ahalbidetuko du, baina hierarkian gorago dauden tresnen informazio erabilgarria kontuan hartuta.

Aztertzen ari garen gai honek erreklamazioak eragin ditu herritarren edo ekologia elkartearen artean; horiek, hain zuzen ere, salatu egin dute antolamendu xehatuko tresnak, hiri antolamenduko plan bereziak edo plan partzialak horien ingurumen ebaluazioa aztertu barik eta ingurumen legerian ezarritakoa aintzat hartu gabe aztertzea ([2008ko abenduaren 2ko Ebazpena](#))¹⁴. Arartekoari planteaturiko kasuetan, proiektua sustatu duen administrazioak "nahita" egin du planaren ingurumen-ebaluazioa, eta horrek, praktikan, erantzun positiboa eman dio kasu honi.

Nolanahi ere, arazoa ikusita, oraingo arauzko esparrua aztertu eta ohar batzuk egin ditugu, Legebiltzarrerako txostenean jaso ditugun oharrak.

Planeamenduko tresnen ingurumen eraginaren ebaluazioari buruzko lege esparrua

Lehen esan dugunez, hirigintzako planen ingurumen azterketa eskatzea arautu duen araudia Europako zuzenbideak sartu du, lehen aipatu dugun zuzentarauaren bitartez. Zuzentarau hori oinarritzko lege baten bidez irauli da Estatuan, arlo horretan eskumena duten autonomia erkidegoetarako. Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoak lehendik ere araututa zeukan arlo hau.

Ondoren, arlo honi buruzko hiru legeria mailak adieraziko ditugu, labur-labur:

Europar Batasuneko Zuzenbidea

Europar Batasunak planen eta programen ingurumen ebaluazioari buruz duen strategiaren helburua ingurumen alderdiak gainerako politika publikoetan integratzea da, gehienbat hiri politketan, garapen iraunkorra sustatu ahal izateko.

Testuinguru horrexetan promulgatu da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko ekainaren 27ko 2001/42/EE Zuzentaraua, plan eta programa batzuek ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioari buruzkoa. Zuzentarauko 3. artikuluan aplikazio eremua ezartzen da:

¹⁴ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 2koa. Horren bidez, amaiera ematen zaio Bakioko plangintzako Arau Subsidiarioen aldatetaren gaineko jarduerari.

1. Ingurumen ebaluazioa egingo da, Zuzentarauko 4-9. artikuluetan ezarritakoaren arabera, 2. eta 4. ataletan aipaturiko planei eta programei buruz, horiek ingurumenean eragin garrantzitsuak izan ditzaketenean.

2. Horri dagokionez, 3. atalean ezarritakoa izan ezik, honako plan eta programa hauek ingurumen ebaluazioa egin beharko dute:

a) nekazaritza, basogintza, arrantza, energia, industria, garraio, hondakinen kudeaketa, baliabide hidrikoen kudeaketa, telekomunikazio, turismo, hiri nahiz landa inguruaren antolamendu edo lurzoruaren erabilerrari buruz egiten direnak, baldin eta etorkizunean 85/337/EEE Zuzentarauko I. eta II. eranskinetan ezarritako proiektuetarako baimena emateko esparrua ezartzen badute, edo

b) zona batzuen gaineko balizko eragina kontuan hartuta, 92/43/EEE Zuzentarauko 6. edo 7. artikuluetan ezarritakoaren araberrako ebaluazioa behar dutenak.

3. Bestalde, 2. atalean aipaturiko planek eta programek, tokiko zona txikierabileraren eta aldaketa txikien sarrera (2. ataletan aipaturiko planetan eta programetan) behar dutenek, estatukideen ustez ingurumenean eragin nabariak izan ditzaketela erabakitzen dutenean soilik beharko dute ingurumen ebaluazioa.

4. Halaber, 2. atalean aipaturikoak ez diren planei eta programei dagokienez, horiek etorkizunean proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen dutenean, estatukideek kasuan kasuko planak edo programak ingurumen eragin nabarmenak izan ditzakeen erabakiko dute.

5. Estatukideek, gainera, 3. eta 4. ataletan jasotako planen edo programaren batek ingurumenean eragin adierazgarriak izan ditzakeen erabakiko dute, bai horiek banan-banan aztertuta, bai plan eta programa motak zehaztuta edo bai bi metodo horiek konbinatuz. Horretarako, estatukideek kontuan hartuko dituzte II. eranskinean ezarritako bidezko irizpideak, ingurumenean eragin nabariak izan ditzaketenen planak eta programak Zuzentaruaren mendean geldituko direla bermatzeko.

6. Kasuak banan-banan aztertu eta plan nahiz programa motak zehazten direnean (5. atalean ezarritakoaren arabera), 6. artikuluko 3. atalean aipaturiko agintariei egingo zaie kontsulta.

7. Estatukideek bermatu egingo dute 5. artikuluan ezarritakoa dela bide lorturiko emaitzak eta ingurumen ebaluazioa ez eskatzeko zioak (4-9. artikuluetan ezarritakoaren arabera) jendeari jakinaraziko zaizkiola.

Zuzentaru honetan ezarritakoa aintzat hartuta, lurraldea antolatzeko eta lurzoruaren erabilteko (besteak beste) egiten diren planek ingurumen ebaluazioa beharko dute ingurumenean eragin nabarmenak dituztenean.

Zuzentaruaren arautzat ezarrita dago 85/337/EEE Zuzentarauko¹⁵ I. eta II. eranskinetan ezarritako proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen duten plan guztiak ingurumen eragin nabariak dituztela beti. Horren barruan, lurzoruaren hirigintza-eraldaketaren berezko obra guztiak sartzen dira; esate baterako:

- industria-zonetako proiektuak (II.10.a eranskina)

¹⁵ Proiektu publiko eta pribatu batzuek ingurumenean dituzten eragin ebaluazioari buruzko Zuzentaruaren.

- hirigintza-proiektuak, merkataritzako guneak eta aparkalekuak eraikitzea ere barne (II.10.b eranskina)¹⁶

Horrenbestez, hirigintzari dagokionez, edozein hirigintza obra duten hiri-antolamenduko (hiri eta landa lurzoruan) planeamendu tresna guztiak sartzen dira, obra hori industria nahiz egoitza lurzoruan, merkataritza ekipamenduan eta aparkalekuetan eginez gero.

Arau orokor horretan, Zuzentarauak bi salbuespen sartu ditu: aurreko planen aldaketa txikiak eta tokiko zona txikien erabilera ezartzen dituzten planak. Halako kasuetan, estatukideek planok ingurumen eragin nabarmenak izan ditzaketela erabakitzen dutenean baino ez da behar ingurumen ebaluaziorik.

Erabaki eremu honen barruan, Zuzentarauko 3.5 eta 3.6 artikuluetan plan txikiak zein diren kasuz kasu zehazteko prozedura ezartzen da, plan motak zehaztuz edo bi metodoak konbinatuz. Horretarako, aintzat hartu behar dira ingurumenaren gaineko eragin nabarmenak, kontuan hartuta planaren ezaugarriak, ondorioei eta antolamendu tresnaren balizko eragin aldeari buruzko irizpideak (II. eranskina). Halaber, erabakia hartu baino lehen, agintari eskudunei kontsulta egin eta erabakia jendeari jakinarazi behar zaio, kasuan kasuko planak ingurumen ebaluaziorik behar izatearen zergatiakin batera.

Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak (1996ko urriaren 24ko –C 72/95 *Kraaijeveld* gaia– eta 1999ko irailaren 6ko –C-435/97 *World Wildlife Fund* gaia– epaiak), bestalde, estatukideek ingurumen eragin nabarmenak kontzeptua baloratzeko duten bitartea zehaztu du, proiektuen kasuan. Horrela, estatukideek zenbait proiekturi ingurumen ebaluaziorik ez eskatzeko duten bitartea Zuzentarauaren irizpideek mugatzen dute. Horrenbestez, Jurisprudenziaren ustez, proiektu mota jakinari halako ebaluaziorik ez eskatzeak (horien ingurumen-eraginak aztertu barik) gainditu egingo luke bitarte hori.

Aurreko esparrua adierazi ondoren, komenigarria da Europako zuzentarauak aztertzea. Erkidegoko Zuzenbideko tresna berezi horrek baliabide askatasuna ematen du estatukideen barruko zuzenbidean iraultzeko, eta horiek iraultze epearen barruan lortu behar dute emaitza. Nolanahi ere, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak (1991ko azaroaren 19ko Epaiak, C-6/90 eta C-9/90 *Francovich*) onartu egin du epearen barruan irauli ez diren xehapen zehatzen nahiz derrigorrezkoen zuzeneko eragina, edo hautaturiko neurriak emaitzaren araberakoak ez direnean sortzen den eragina.

Horrela, Zuzentaru hau iraultzeko epea amaitu denetik (kasu honetan, 2004ko uztailaren 21), adierazitakoak bezalako xedapen argiak eta zehatzak eskatuko zaizkie estatukideei.

Halaber, estatukideek Erkidegoko Zuzenbidearen aurkako neurriak ezabatu behar dituzte. Justizia Auzitegiak, 2004ko urtarrilaren 7an emandako epaian (C 201/02 *Delena Wells* gaia) ezarritakoaren arabera, lankidetzaz zintzoaren printzipioa aintzat hartuta: " *En virtud del*

¹⁶ 85/377EEE Zuzentaruak aldatu duen 97/11/EE Zuzentaruaren ezarritakoaren arabera.

artículo 10 CE, las autoridades competentes están obligadas a adoptar, en el marco de sus competencias, todas las medidas generales o particulares destinadas a subsanar la omisión de la evaluación de las repercusiones de un proyecto sobre el medio ambiente”.

Planen eta programen ingurumen ebaluazioari buruzko estatu legeria

Ezarritako epea igaro ondoren, Espainiako estatuak irauli egin du 2001/42/EE Zuzentaraua, plan eta programa batzuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen bidez.

Lege horretan Zuzentzarauko irizpide bera ezartzen da ingurumen eragina behar duten planak zehazteko. Horrela, 3. artikuluan aplikazio eremua dago ezarrita:

1. Ingurumen-ebaluazioa beharko dute, lege honetan ezarritakoaren arabera, ingurumenean eragin nabaria izan ditzaketen planek eta programek nahiz horien aldaketek, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:
 - a. Herri-administrazioak eskatuta egitea edo onestea.
 - b. Legezko nahiz arauzko xedapen batek edo Ministro Kontseiluaren zein Gobernu Kontseiluaren erabakiak horiek egiteko edo onesteko eskabidea egitea.
2. Honako kategoria hauetarikoren batean sartzen diren planek eta programek ingurumenean eragin nabaria dutela joko da:
 - a. Honako arlo hauetan ingurumen eraginaren ebaluazioari legez lotutako proiektuak etorkizunean baimentzeko ezartzen direnak: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, akuikultura, arrantza, energia, meatzaritza, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, baliabide hidrikoen kudeaketa, itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren okupazioa, telekomunikazioak, turismoa, hiri eta landa lurraldearen antolamendua edo lurzoruaren erabilera.
 - b. Eremu naturalen eta basoko floraren nahiz faunaren kontserbazioari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legean arauturiko Europako Natura 2000 Sare Ekologikoa arautu duen araudia-
ren araberako ebaluazioa behar dutenak.
3. Bestalde, 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek ingurumen eraginaren ebaluazioa beharko dute ingurumenean eragin nabariak izango dituztela aurreikusten denean:
 - a. Lurralde eremu txikiko zonen erabilera ezartzen duten planak eta programak.
 - b. Planen eta programen aldaketa txikiak.
 - c. 2.a atalean ezarritako planak eta programak.

Beharrezkoa da hiri nahiz landa lurraldeko antolamendu plan guztien eta lurzoruaren erabilerrari buruzko planen eraginaren ebaluazioa egitea, horiek ingurumenean eragin nabaria sortzen dutenean.

Arauren arabera, honako bi kasu hauetan ingurumen eragin nabariak sortzen dira: ingurumen eraginaren ebaluazioari loturiko proiektuak etorkizunean onesteko esparruan ezarritako planak, eta Natura 2000 Sarea arautu duen araudia-
ren araberako ebaluazioa behar duten

proiektuak (Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 45. artikulua).

Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren mendeko proiektuak etorkizunean baimentzearen esparruan ezartzen diren planak zehazteko, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako indarreko Lege Dekretua aipatu behar da, proiektuen Ingurumen Eraginaren Ebaluazioari buruzko Legeko testu bategina onetsi duena.

Ingurumen-eraginaren ebaluazioa behar duten proiektuen zerrendaren barruan, honako hauek daude:

- I. eranskinean (9. taldea), lurzoruaren erabilera aldaketak, zuhaixken landare estaldura ezabatzea eragiten dutenak, eraldaketa horiek 100 hektareatik gorako azalera eragiten dutenean.
- II. eranskinean ¹⁷ (7. atala), industria zonetako proiektuak eta hirigintza proiektuak, merkataritzako guneen eta aparkalekuen eraikuntza ere barne.

3/1998 Legeko I. eranskineko c).7 atalean ezarritakoaren arabera, EAEn ingurumen eraginaren ebaluazioa eskatuko da lurzoruaren erabilera mota eraldatu eta zuhaixka estalduraren 5 hektarea baino gehiago ezabatzen duten jardueretarako.

Bestalde, halako planek lurralde eremu txikiko zonen erabilera arautzen dutenean edo aldaketa txikiak eragiten dituztenean ere beharko dute ingurumen eraginaren ebaluazioa, baldin eta ingurumen administrazioak ingurumenean eragin nabariak izango dituztela aurreikusten badu. Horretarako, 4. artikuluan ingurumen administrazioaren ebazpena eskatzen da, ingurumen eskakizun hori kasuz kasu zehazteko edo mota zehatzak adierazteko. Prozedura horretarako, betiere, lehenengo eta behin, eraginpeko herri administrazioei kontsulta egin eta hartzen den erabakia argitaratu egin behar da, erabakiaren zergatiak azaltzeko eta arrazoitzeko.

Aditzera eman behar da Legeko 6. artikuluan planen pilaketa eta hierarkia daudela ezarrita, eta horrek ez duela ekiditen bakoitzaren ingurumen ebaluazioa egitea; hain zuzen ere, ko-ordinazioa behar da bikoiztasunik ez egoteko.

Ingurumen-arloko estatu-araudi hau oinarrizkoa da; hain zuzen ere, ingurumen babesaren arloan eskumena duen autonomia-erkidego bakoitzean errespetatu edo hobetu beharreko gutxienezkotzat jarduten du¹⁸, eta Zuzentaraua iraultzeko epea amaitzen denetik ditu ondoreak planetan.

¹⁷ Kasu honetan, II. eranskineko proiektuek ingurumen-organoak erabakitzen duenean behar dute IEE

¹⁸ Horixe ezartzen du Konstituzio Auzitegiak, besteak beste, 2000ko martxoaren 30eko 90/2000 Epaiko 3. OJan (90/2000 KAE): "oinarrizkoa 'sektore jakinean guztientzako arazko izendatzaile komuna da', eta arlo honetan oinarrizkoak 'antolamendu-eginkizuna dauka gehienbat, beti errespetatu behar diren gutxienezkoen bitartez; gutxienezko horiek, hala ere, arlo honetan eskumena duten autonomia-erkidegoei aukera eman behar diete babes maila altuagoak ezartzeko".

Planen eta programen ingurumen ebaluazioari buruzko EAEko legeria

Aurrekoa azaldu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoan gaiari buruz dagoen arauzko esparrua aipatu behar da.

Aditzaera eman behar da Euskal Autonomia Erkidegoak Zuzentaraua argitaratu baino lehen eta estatu legeria onetsi orduko sartu zuela planen eta programen ingurumen eraginaren ebaluazioa; hain zuzen ere, EAEko ingurumen legeria onetsi zenean.

Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 41. artikulua, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa egiteko sistema bat ezarri du, eta hori bertako I A) eranskinan aipaturiko planen multzoan oinarriturik dago.

Multzo honen barruan, hirigintza antolamenduari dagokionez, hiri antolamenduko plan orokorrak eta horien aldaketak sartzen dira, lurzoru urbanizagarriaren eragina dutenean; baita plan bereziak eta horien aldaketak ere, lurzoru urbanizaezinean eraginez gero.

Ingurumen ebaluazioa halako planetarako soilik eskatzen dela kontuan hartuta, legeriak horien aldaketen kasurako ere garatu zuen eskakizuna. Hain zuzen ere, Legeko 50. artikuluan ezarritakoaren arabera, eranskineko planen aldaketek ingurumenean eragin kaltegarri nabariak dituztenean soilik beharko dute ingurumen ebaluazioa. Horretarako garatu behar den prozedura, ingurumen organoak, kasuz kasu edo gutxieneko atarrien bidez, eragin nabarmenak zehazten dituen ebazpena eman behar du.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak (ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautu duen dekretua) Legean ezarritako prozedura alderdiarikoren bat garatu du. Dekretu horretako 3. artikuluan, 3/1998 Legeko I A) eranskinari lotutako planen aplikazio eremua ezartzen da.

Planen aldaketei dagokienez, hirigintza planen aldaketa guztiek, lurzoru urbanizaezinean eraginik izanez gero, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa behar dute.

Onetsitako planen aldaketa (ikuskapena), bestalde, aldaketa horrek ingurumenean eragin kaltegarri nabariak sortzen dituztenean baino ez da egongo prozedura honi lotuta. Horri dagokionez, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa behar dute aplikazio eremuaren barruko plan guztien aldaketak, baldin eta lurzoru urbanizaezinean nahiz ingurumen zona ahultan eragina sortzen badute edo etorkizunean ingurumen eraginaren ebaluazioari lotutako proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen badute.

Aurreikuspenak aztertu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen legeriak, oro har, ingurumen ebaluaziotik salbuesten ditu hiri lurzoruaren edota urbanizagarriaren barruko antolamendu xehatuko planak, baita lurzoru urbanizaezinean eraginik ez duten hirigintza planen aldaketak ere¹⁹.

¹⁹ Dekretuak ez du ondo argitzen ea bere jarduketaren eremua 3/1998 Legeko I. eranskina den (lurzoru urbanizaezineko aldaketak) eta 4.2 puntuko baldintzak biltzen dituzten planetan nola aplikatu ahal den (lurzoru urbanizaezina, zona oso ahula edo IEE behar duten etorkizuneko proiektuak gaitzen dituen plana).

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, ingurumen eraginari buruzko aurreiazko txostena jaso du, honako plan hauek onesteko prozeduran: hiri antolamenduko plan orokorrak, sektorizazioko planak eta lurzoru urbanizaezinean eragina duten plan bereziak. Plan partzialei dagokienez, ez du ingurumen ebaluazioa aipatzen. Bestalde, Legeko 97.1 artikuluan berariaz ezabatu da, izapidetze prozeduran, ingurumen eraginaren ebaluazio, hiri antolamenduko plan berezietan.

Ingurumen ebaluazioaren eskakizuna Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza planetan

- Europako Erkidegoko Zuzenbidea, ingurumen arlo hau arautzen duena, zuzenean aplikatzeko modukoa da, eta zuzeneko eragina dauka Herri Administrazioetarako. Zuzentarauen kasuan, estatukideek errespetatu egin behar dituzte horien helburuak, iraultzeko eta garatzeko araudian. Nolanahi ere, iraultzeko epea igaro ondoren, zuzentarauetako xedapen argiak eta zehatzak aipatu egin daitezke agintaritzza publiko nazionaletan. Bestela, agintaritzza nazionalak urratu egingo luke Erkidegoko Zuzenbidea.

Bestalde, Zuzentaraua irauli duen 9/2006 Legea oinarritzkoa da, ingurumen eraginaren ebaluazioa izango duten planen aplikazio ereduari dagokionez.

- Arau hauek hirigintza antolamenduko plan guztien ingurumen ebaluazioa behar dute, baldin eta ingurumenean eragin nabarmenak izan ahal badituzte.

Bi arauen arabera, eragin nabariak dituzte ingurumen eraginaren ebaluazio prozedura beharko duten proiektuak baimentzeko esparrutzat baliozkoak diren hirigintza antolamenduko planek (hiri eta landa lurzoruan).

Ingurumen eraginaren ebaluazioa behar duten proiektuen artean, Zuzentarauan eta estatu legerian ezarritakoaren arabera, industria zonetako proiektuak eta hirigintza proiektuak daude, baita merkataritzako guneen eta aparkalekuen eraikuntza ere.

Horrenbestez, ingurumen ebaluazioa eskatu ahal zaie lurzoru eraldatzeko obrak ahalbidetzen dituzten hirigintza planei, baldin eta horiei ingurumen eraginaren ebaluazioa egin behar bazaie. Zuzentarauak eta Estatuko oinarritzko legeriak jasotako irizpide hau desberdina da 3/1998 Legean ezarritakotik; izan ere, arau horrek hirigintza antolamenduko planekin nahiz horien aldaketekin lotzen du ingurumen ebaluazioa, baita landa lurzoruko plan bereziekin ere.

Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ezarritakoaren arabera, hiri lurzoruan aurreikusitako proiektuak ezin dira *a priori* salbuetsi ingurumen eraginaren derrigorrezko ebaluaziotik. Justizia Auzitegiak 2006ko martxoaren 16an emandako Epaiaren iritziz (C-332/04 gaia, *Paterna aisialdi-zentroa*), Erkidegoko Zuzenbidearen eta horren 85/337 Zuzentarauaren aurkakoa da hirigintza proiektuak ingurumen eraginaren ebaluaziotik salbuestea, lurzoru urbanizaezinean kokatuta daudelako bakarrik: "*ni los considerandos ni las disposiciones de la Directiva 85/337 modificada apoyan la interpre-*

tación de que no todos los proyectos de urbanización en zonas urbanas pueden tener repercusiones importantes sobre el medio ambiente en el sentido del artículo 1, apartado 1, de esta Directiva y pueden, por tanto, ser excluidos del requisito de autorización y evaluación con respecto a sus efectos".

Bestalde, ingurumen legeriaren arabera ingurumen eraginaren ebaluazioa behar duten hirigintza edo industrialde proiektuetarako baimena antolamendu xehatuak ematen du, zenbait kasutan. Berez, plan berezi eta plan partzial horien eremuak ez dauka zertan azalera txikia izan, eta udal mugarte osoa ere izan daiteke, 2/2006 Legeko 69. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Planeamenduaren aldaketei dagokienez, Europako Erkidegoko araudiak ez du ingurumen ebaluazioa horren eraginpeko lurzoru motarekin lotzen, ingurumen eraginaren ebaluazioa behar duen proiektua egotearekin baizik. Azalpen ondoreetarako, hirigintza planeamendua hiri lurzoruan aldatzeak aukera eman dezake lurra birkalifikatzeko (ordura arte zona berdea) eta ingurumen eraginaren ebaluazioa behar duen jarduera bat instalatzeko, baita geltoki intermodala edo kirol-portua instalatzeko ere.

Gauzak horrela, Herri Administrazioek ingurumen ebaluazioa eskatu behar dute beti, plenek lurzoruaren erabilera edo hirigintza antolamendua gaitzen badute, ingurumen eraginaren ebaluazioa behar duen proiekturen baterako.

- Halako planen edo lurralde eremu urriko planen aldaketa txikien kasuan, ingurumenean ingurumen eragin nabarmenak noiz dauden ingurumen administrazioak berak adieraziko du berariaz, Zuzentarauko 3. artikuluan eta 9/2006 Legeko 4. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

Zuzentaruaren aplikazio eremuak ez du ahalbidetzen hirigintza planen multzo bat hiri lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian egoteko irizpidean oinarrituz soilik zuzenean salbuesteko. Izan ere, II. eranskineko irizpideak aplikatu behar dira; besteak beste, dimentsioak, planaren izaera, horren ondoreen izaera pilotzailea eta eraginpean geratu ahal den eremua.

Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak agintaritz nazionalen balarazio bitartea mugatu dute, ingurumen eragin zehaztapenari dagokionez. Horrela, modu murriztailean interpretatu behar dela jotzen da, salbuespenezkoa baita. Plan jakina salbuesteko aukeraturiko metodoak ez du gutxietsi behar ebaluazio estrategikoko zuzentaruaren helburua, ingurumenean eragina sortzen duten planei dagokienez, baldin eta jakina bada ez dutela eraginik sortuko²⁰. Horretarako, plana lurzoru urbanizaezinean kokatzen dela ez ezik, bere dimentsioak eta proiektuaren izaera ere aintzat hartu beharko dira²¹.

²⁰ Justizia Auzitegiak 1999ko irailaren 16an emandako Epaia, C-435/97 gaia, World Wildlife Fund

²¹ Justizia Auzitegiak 2006ko martxoaren 16an emandako Epaia, C-332/04 gaia, Paternako aisialdi-zentroa.

2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak ñabardurak egin dizkio Ingurumenaren gaineko eraginak landa lurzoruarekin lotzeko irizpideari, bai "*ingurumenaren gaineko eragin kaltegarriak*" kontzeptuaren barruan, lurzoru urbanizaezina ez ezik zona sentikorrek ere sartu dituenean (3/1998 Legeko 51. artikuluan ezarritakoaren arabera), bai etorkizunean ingurumen eraginaren ebaluazioa beharko duten proiektuak baimentzeko esparrua ezaritzen duenean.

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan 2001/41/EE Zuzentaraua eta 9/2006 Legea aplikagarriak dira hirigintza-antolamenduko (egiturazkoa eta xehatua) plan guztietarako, horiek ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketenean, baldin eta euren prestakuntza formaleko lehenengo ekintza 2004ko uztailaren 21etik honakoa bada.

- Aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen eta hirigintza legeriak ez du eskatzen, oro har, antolamendu xehatuko planek eta egitura antolamenduko planen aldaketek ingurumen ebaluazioa edukitzea, ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketen arren, oinarritzko ingurumen legerian ezarritakoaren arabera.

Halaber, orain arte ez da prozedura berezirik garatu (aipaturiko araudian ezarritako eskakizunen arabera), planeamenduko edo eremu txikiko planetako aldaketa batzuek ingurumenean eragin nabarmenik sortzen duten ala ez zehazteko.

Aditzera eman behar da erabaki hori ingurumen organo eskudunak eman behar duela (Eusko Jaurlaritza edo Foru Aldundia), eta berariazko eta jendaurreko pronuntziamendua behar duela, harturiko erabakiaren zergatiak azaltzeko, gutxienez eraginpeko administrazioei kontsulta egin ondoren.

Prozedura hori garatu arte, ingurumen organoak kasuz kasu aztertu behar du ea plan bereziak, plan partzialak edo hiri antolamenduko plan orokorretako edozein aldaketak ingurumen ebaluazioa behar duten, ingurumenean eragin kaltegarriak sortzen duelako.

Gure ustez, EAEko hirigintza eta ingurumen legeria prozedura horretara egokitu behar da, lehen adierazitakoaren arabera.

Ezin da inondik inora ere aplikatu arlo hau arautzen duten Europako Erkidegoko eta Estatu-tuko xedapenen aurkakoa den ezein lege xedapen. Bestela, hori eginez gero, erakunde honen iritzian, kasuan kasuko plana onesteko eskumena duen administrazioak urratu egingo lituzke Europako Erkidegoko legezko xedapenak.

Gomendioa

Horri dagokionez, gomendio hau hirigintza antolamenduko planak onesteko eskumena duten tokiko eta foru administrazioei zuzenduta dago.

Aipaturiko ingurumen araudia aztertu ondoren, hiri antolamenduko plan bereziek, plan partzialek eta hiri antolamenduko planei egindako aldaketek, ingurumenean eragin nabaria dutenean, ingurumen ebaluazio estrategikoa jaso beharko dute izapidetzean.

Bestalde, ingurumen administrazioek ebazpena eman behar dute, planen aldaketa txikiak eta lurralde eremu urriko planek ingurumenean eragin nabarmenak zein kasutan izan ditzaketen ezartzeko.

Nolanahi ere, beharrezkoa da hirigintzaren, lurzoruaren eta ingurumenaren arloan eskumena duten sailek hirigintzako eta ingurumeneko legeriaren aldaketa sustatzea, bertako xedapenak hirigintza planen ingurumen ebaluazioa arautzen duen oinarrizko legeriara egokitzeke.

3. HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOARI ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEARI BURUZKO 30/1992 LEGERA EGOKITU BEHAR DIRA ETXEBIZITZA ESKATZAILEEN ERREGISTROARI DAGOZKION EBAZPENEN TRAMITAZIOA ETA JAKINARAZPENA

I. Aurrekariak eta testuingurua

Azken urteotan Ararteko erakundearen Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren funtzionamenduari buruzko kexa kopuru garrantzitsua jaso dugu. Kexa guztietan nabardura ezberdinak egon arren, agerian uzten da herritarren ezadostasuna Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak erregistro horretan onartzen dituen ebazpenak izapidetzeko moduarekin. Gainera, interesdunei alta, baja edo Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko izenemateen inguruko beste edozein alderdiren ediktu bidezko jakinarazpenek sortzen dieten babesgabetasuna ezbaian jartzen dute.

Eusko Legebiltzarrarentzako 2005eko gure txostenean azpimarratu genuen Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko kudeaketarekin lotutako kexa kopurua handitu zela eta erakundearen jarrera hurrengo terminotan finkatu genuen:

“ez zaigu zentzuzkoa iruditzen –ez eta APLn administrazio egintzak jakinarazteko aurreikusten den araubideak ziurtatu nahi dituen gutxieneko bermeetara doitu ere–, erregistroan jasotako eskarien gorabeherak argitalpenaren bidez jakinaraz daitezzen, herritar asko eta asko zehaztugabeko denbora tarte horretan izan litezkeen berritasunetara adi egotera behartuz, beren eskubide edo interesentzat kaltegarriak izan litezkeen balizko ekintzen aurrean entzunaldi eta defentsa eskubideak galdu nahi ez badituzte behintzat. Gure ustez, gainera, eskubideak mugatzen dituzten, edo aurreko administrazio egoeraren aldean eskubide murrizketa dakarten ustezko egintzetan, administrazioaren ebazpenaren aurretik, nolahi ere, interesatuaren entzunaldia ahalbidetu edo gauzatu behar da”

Eusko Legebiltzarrarentzako 2006ko gure txostenean, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko alden eta baje kudeaketaren arazoari trataera zehatzagoa eman ondoren, hauxe ondorioztatu genuen:

“uste dugu, interesdunak babesten dituzten bermeak behar bezala errespetatuko dituen prozedura antolatze aldera, bereziki garrantzitsua dela, interesdunaren egoera aldatuko den kasu guztietan, horren berri behar bezala formalizatutako banakako jakinarazpenen bidez ematea. Gutxieneko prozedura-bermeen ikuspegitik ezinbestekotzat jotzen dugu horiei entzutea kargak ezartzen dituen egintza eman aurretik, bereziki, horrek Erregistrotik baja ematea edo kanpo uztea badakar; alegazioak aurkezteko aukera aurretik eskaini behar zaie –beharrezkoa izanez gero, ebazpena ematerakoan bizi duen benetako egoera egiaztatzen duten datuak ekarrita– eta ez errekurtsioa aurkeztu ondorengo prozesuko unean, gure ustez hori ez baita zuzena.”

Aurreko oharrak *Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn* izenburuko txosten berezian ere islatu genituen, 2007an Eusko Legebiltzarrari aurkeztutakoa. Lehenengo gomendioak babestutako etxebizitzak eskuratzeko prozeduren hobetzeari buruzko atal bat du, eta ondorengoaren beharra azpimarratu genuen “*Etxebizitza eskatzaileen erregistroak kudeatzean, herritarrak babesteko eskubideak bermatu behar dira*”

Testuinguru honetan, ikerketa-lanak egin ditugu herritarren hainbat kexatan. Kexa horietan, kexagileek salatu dute Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan beren baja espedienteak izapidetzeko orduan ez dela prozedura-bermerik izan, entzute tramiterik izan ez delako eta jakinarazpenak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Lurralde Ordezkaritzetako iragarki oholean egin direlako.

Kexa horien sustatzaileek bat egiten dute pentsatzean Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, administrazio-prozeduraren funtsezko tramiteak alde batera uztean, haien ahotsa entzutea galarazi diela, bai eta erregistroan baja ebazpenak onartu aurretik beren defentsa eskubidea erabiltzea ere. Horrek, babestutako etxebizitzaren edozein eskatzailek dituen berezko eskubideak bidegabe galtzea eragin die (etxebizitzaren zenbait zozketetan parte hartzea) eta pilatutako erregistroko antzinatasuna ezeztatzea.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak gure laguntza eskaerei ia homogeneouski erantzun die eta ezeztatu du egindako baje ebazpenen izapidetzean erreklamatzailleentzako inolako babesgabetasunik egon dela. Eta egindakoa uneoro justifikatu du, administrazio-jarduera Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko araudiaren barnean.

Sail horren irizpidea aztertutako hainbat kexa-espedientetan agertutako terminoetan laburbil daiteke:

“Horrela jokaturik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eutsi nahi dio administratuarentzako bermeen eta administrazioaren eraginkortasunaren arteko orekari. Ondo ezaguna da nola egiten diren jakinarazpenak: jakinarazteko gutun pertsonala bidaltzen da (jaso izanaren egiaztagiririk gabe) eta aldi berean iragazki-taularen bidez ere jakinarazten da.”

II. Etxebizitza eskatzaileen erregistroaren arauko erregulazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko babestutako etxebizitzaren araudian, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena ematea etxebizitza eskatzen duen edozein pertsona eskatzaileak bete beharreko betekizuna da babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen prozeduretan parte hartu ahal izateko.

Horregatik erregistro horretan alden eta baje ebazpenetatik sortutako ondorioak, babestutako etxebizitzaren eskatzaileentzat, ez izatea, inola ere ez, hutsala, finean etxebizitza duina eta egokia eskuratzeko arazoa, egun euskal herritar askori eragiten diena, konpontzeko aukera erregistroko izen-emate egokiak baldintzatzen duelako.

Ebazpen honen aurrekarietan aipatu dugun bezala, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, hainbatetan, zuzenbidearen arabekoak diren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko kudeaketan izandako jarduera eztabaidagarriak defenditu ditu, beti azken urteotan emandako araudi berezian oinarrituta.

Nahiz eta araudiaren lehenagoko erreferentziak badauden, berrienak hartuko ditugu oinarri erregistro horren prozedura-erregulazioaren azterketa egitean: hain zuzen, babes ofizialeko

etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, eta Etxebizitzen Eskatzailearen Erregistroari buruzko 2008ko apirilaren 16ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena (azken honen aurrekoa ordezkatu du 2008ko maiatzaren 13tik).

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko Aginduaren manu zehaztuz babestu da interesdunei entzun gabe erregistroan baja emateko eta formazko jakinarazpen pertsonalak alde batera uzteko. Manu horiek ondorengoak dira:

1.2 artikulua: "Agindu honetan aurreikusitako prozeduran, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-taulek ordezkaturiko dituzte jakinarazpen pertsonalak, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59-5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Herri-Administrazioen eta Administrazio-Prozedura Erkideari buruzkoa."

7.2 artikulua: "Eskaerak zuzentzea: aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, dagokion lurralde ordezkaritzako iragarki-taulan jarriko da jendaurrean zuzenketaren bat behar duten eskaeren zerrenda. Bertan adieraziko dira osatu beharreko atalak edo gehitu beharreko agiriak. 10 laneguneko epea izango da adierazitako zuzenketak egin ahal izateko. Iragarki taulan egindako argitaratzea, Lurralde Historikoan gehien saltzen den aldizkarian iragarriko da"

7.4 artikulua: "Babes ofizialeko etxebizitzaren erregistroko alta, ukoa edo, hala dagokionean, izenemateko eskaeraren artxibatzea, Lurralde Ordezkaritzaaren Ebazpen baten bidez egingo da, eta ebazpen hori dagozkien iragarki-tauletan argitaratuko da, eta Agindu honen 1.2 artikulua adierazten dituen ondorioak sortuko ditu. Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Lurralde Ordezkaritzaaren goragoko organoen aurrean hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita"

12.5 artikulua: "Eskatzaileen Erregistroan edo Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan (Etxebizitza) izena emateko eskaria lau urtez behin berritzen ez duten eskatzaileei baja emango zaie Erregistroan. Urtero emango da horren berri, dagokion lurralde-ordezkaritzako iragarki-taularen bitartez"

Bestalde, indarrean dagoen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroari buruzko 2008ko apirilaren 16ko Agindua, erregistroko izen-emateari eragiten dion alta, baja edo bestelako ebazpenen inguruko aurreikuspena du:

5.artikulua: "-Ebazpenak emateko eskumena eta jakinarazpen-prozedura.1.- Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta emateko Ebazpenak, horiek ukatzea, baja eragitea edo jada dagoen inskripzioan ondorioak izan ditzakeen beste edozein alderdiren gaineko eskumena Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren dagokion Lurralde ordezkaritza izango du.Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzuen zuzendariari, hilabeteko epean ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita.2.- Ebazpen horien jakinarazpena"

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren dagokion Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan argitaratuz egingo da, beste edozein bidetatik jakinaraztea alde batera utzi gabe."

III. Ediktu bidezko jakinarazpenak salbuespenezkoak dira

Egia da aipatutako araudiak jakinarazpenak **jakinarazpen pertsonalen ordez iragarki oho-lean argitaratzea** aurreikusi duela. Hala ere, Auzitegi Gorenaren doktrina gogoan hartu behar da, ordezko argitaratze horien izaera berezia azpimarratzen baitu. Eta hori guztia ediktu bidezko jakinarazpenek jakinarazpen guztien oinarritzko helburuarekiko eskaintzen dituzten berme gutxiek. Horrek nahi duena, hain zuzen ere, administrazio ekintza-edukiaren xede diren pertsonen horren berri izatea da beren eskubideen defentsan behar bezala jardun ahal izateko.

Illo horri jarraiki, Auzitegi Gorenaren 1993ko apirilaren 30eko epaiak (RJ 1993/2667) ondorengo adierazi du: *"la notificación edictal reviste un carácter supletorio y excepcional, siendo un remedio último al que sólo cabe acudir cuando exista la convicción o certeza de la inutilidad de aquellos otros medios normales de notificación"*.

Jakinarazpen mota horren hondar-erabilerak (eta soilik AILk baimentzen dituen ustezkoe-tan), auzitegi horrek administrazio-funtzionamendu ona ("eskatu daitekeen arreta eskaintzea") jakinarazpen pertsonalen praktikarekin lotzen du. Argigarria da Auzitegi Gorenak 2002ko martxoaren 25eko epaian adierazitako jarrera (RJ 2002\4390).

"Como hemos tenido ocasión de señalar reiteradamente el sistema de notificación edictal es operativamente eficaz cuando se refiere a sujetos desconocidos o cuyo domicilio se ignora; pero no puede utilizarse válidamente en menoscabo de las garantías procedimentales de los administrados en todos aquellos supuestos en los que la administración pueda, con el empleo de la diligencia exigible, llegar a conocer la identidad y lugar idóneo para notificar personalmente a cualquiera de los posibles interesados en el trámite correspondiente (SSTS de 23 de setiembre de 1992, de 30 de abril de 1993 y de 22 de julio de 1999, entre otras muchas)."

Oinarritutako jurisprudentzia horrek aztertzer behartzen gaitu, zorroztasunez, erregistroko kudeaketatik eratorritako ekintzek bat egiten ote duten azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak (AIL aurrerantzean) aurreikusten dituen ustezkoetan ordezko ezohiko argitaratzea baimentzeko.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko Aginduaren 1.2 artikulua babesean, uste du Etxebizitza Eskatzaileen Erregistrotik eratorritako oharrak (altak, bajak, aldaketak, etab...) "lehiaketa prozedura" bateko ekintza osatzen dutela; eta AILren 59.6. artikulua, salbuespen gisa, horien jakinarazpena iragarki oholaren bidez egitea baimentzen du.

Gure ustez, ediktu bidezko jakinarazpenaren erabilera murriztailearen inguruan adierazitako doktrinak, administratutako eskubideen eta interesen interpretazio bermatzailea finkatzen duena, berez, nahikoa da indarrik gabe uzteko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Lurralde Ordezkaritzetan iragarki oholaren bidez Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko oharren jakinarazpenak egiteko araudi-aipamenak. Ezin da ahaztu formako jakinarazpena, uko egiten zaiona, legezko bermea osatzen duela, administrazio jardueraren oinarriko printzipioei eragiten diena, uste ona eta konfiantza legitimoa bezala, eta horiekiko errespetua beti gidatu behar duela administrazio publikoen parte-hartzea (AILren 3. artikulua).

Bestalde, ez du ematen ziurra denik AILk ustezko berezietan ediktu bidezko jakinarazpenentzako erregistro oharra onartzea, eztabaidagarria baita erregistroko alta eta baja ebazpenak lehiarako prozeduraren zati izatea. Horietarako AILren 59.6. artikulua beren ordezko jakinarazpenak onartu ditu. Hain zuzen ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren berezko araudia irakurrita, ondorioztatzen da lehiarako prozedura horrek sailaren organo gorenak idatzitako ekintza independentearekin hasten dela, babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenen esleipena hasten duen Aginduarekin, alegia.

Orain indargabetu den babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko Aginduak, 2. artikuluan "Eskatzaileen Erregistroaz" jardun ondoren, 3. artikuluari "babes ofizialeko etxebizitzak esleitzen hasteko agindua" izenburua jarri dio, eta honako hau zehazten du:

"Eskatzaileen Erregistroan edo Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan (Etxebide) izena emateko eskaria lau urtez behin berritzen ez duten eskatzaileei baja emango zaie Erregistroan. Urtero emango da horren berri, dagokion lurralde-ordezkaritzako iragarkitaularen bitartez"

Oso antzekoa den beste aipamena jasotzen da babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren ²², 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren 7. artikuluan, lehenengo eskualdatzeko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko:

"Hautespen-prozesua Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bidez hasiko da. Agindua sustapenaren behin-behineko kalifikazio-egunaren ondoren eman beharko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da"

Orain sustapen bakoitzaren esleipenaren hasierako ekintza emateko unea (esleitzeko etxebizitza kopurua, kokatuko diren udalerrria, lagapen erregimen etab, aipatzen dituen), etxebizitza eskatzaileen artean sustapen zehatzean interesatuta daudela eta lehia egon daitekeela ikusten denean izaten da. Orduan, eta ez aurretik, eskatzaile bakoitzak babestutako etxebizitzan duen interesa agertzen duenean.

²² Izan ere, 2008ko apirilaren 16ko Aginduak ez du jada jasotzen Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren araudia, lehiaketa bidezko prozeduratik are gehiago urruntzen dena arau zehatz baten bidez, "Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa" 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren bidez.

Etxebizitzen bigarren eta hurrengo eskualdaketak esleitzeko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko sailburuaren araua beharrezkoa ez denez, ulertu behar da, lehiarako prozeduraren hasiera, lurralde ordezkaritza bakoitzak etxebizitza eskatzaileen zerrendaren argitaratzearekin bat ematen diola.

Bestalde, gogoan izan behar da babes ofizialeko erregimen juridikoa eta etxebizitza eta lurzoruari buruzko finantza-neurrien inguruko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak, 4. artikuluan, etxebizitzak esleitzeko prozesuan parte izatea baino eduki handiagoko helburua eta funtzio bikoitza ematen dizkiola Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroari, honela, hain justu: *“Haren xede nagusia da babes publikoko etxebizitzen esleipenaren kudeaketa eta kontrolerako beharrezkoak diren datuak hornitzea da, eta era berean herri Administrazio jarduleei informazio eguneratua ematea, beren etxebizitza-programazio publikoak dagoen eskaerara egokitu ahal izan dezaten.”*

Ardura bikoitz horrek Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eskatzen dio ahalik eta ardura eta kontraesanaren printzipioari ahalik eta arreta gehien jar diezaiola, erregistroko datuak indarrean dagoen errealitatera egokitzen direla ziurtatu ondoren. Horretarako nahitaezkoa da izena eman duten pertsonak beren eskubideei eta interesei eragiten dien erregistroaren ebazpenak garaiz ezagutzea eta Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa Euskal Autonomia Erkidegoko babestutako etxebizitzaren eskaeraren isla leiala izateko beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko.

Atal honetan, interesgarria da, azkenik, Andaluziako Auzitegi Gorenaren 2000ko azaroaren 27ko epaia aipatzea (RJCA 2000\202). Epaia horrek lurren eta abereen titularrei laguntzak emateko aginduaren baliogabetasuna aldarrikatzen du, uste baitzen ez zela ordezkoko argitaratzea erabil zitekeen lehiarako prozedura. Ondorengo zehaztu du:

“Cada ayuda precisa de un expediente personal y distinto del que el administrado tiene derecho a conocer y la Administración tiene la obligación de poner de manifiesto antes de que dicte la propuesta de resolución, siendo reiterada la jurisprudencia del Tribunal Supremo, al establecer que son nulas las notificaciones defectuosas y que causen indefensión, limitando las posibilidades del ejercicio de los derechos que especifican; si no se notificara con todos los requisitos exigidos a la persona legitimada, no tendrá eficacia alguna, ni por tanto generaría el inicio del plazo para la posible interposición de los oportunos recursos. De ahí que ha de ser acogida la pretensión de la Asociación recurrente de que los requisitos para la validez y eficacia de las notificaciones que se enumeran en la Ley 30/1992 –arts. 58 y 59– no podrán ser restringidos reglamentariamente, mediante una deslegalización no permitida constitucionalmente.”

Antzekoa esan daiteke Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eman dituen ondorengo araudiei buruz. Horietan jakinarazpen pertsonalen praktika baimentzen da, deslegalizazio antzekoan hutseginez, berezkoa ez zaion kategorian (lehia prozedura osatzen duten ekin-tzak) erregistroko administrazioaren ebazpenak sartzean (altak, bajak, aldaketak, etab...) eta horrela formako jakinarazpenak saihesten ditu.

Aurreratu dugun bezala, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak onartu du aztertutako zenbait kexa-espeditetan ediktu bidezko jakinarazpena erabiltzen duela, *“ezinezkoa da eskatzaileei modu pertsonalean jakinaraztea”* esan du, eta ondorengo arrazoiarekin defendatzen du bere ohiko prozedura hori:

*“Horrela jokaturik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eutsi nahi dio administratua-
rentzako bermeen eta administrazioaren eraginkortasunaren arteko orekari. Ondo ezaguna da nola egiten diren jakinarazpenak: jakinarazteko gutun pertsonala bidaltzen da (jaso izanaren egiaztagiririk gabe) eta aldi berean iragazki-taularen bidez ere jakinarazten da.”*

Jakina, alegazio hori ere ezeztatu behar dugu, administrazio-eraginkortasunaren printzipioan babestuta, Auzitegi Gorenaren doktrina ezagutzen ez duelako. Doktrina horren arabera, administrazio-eraginkortasunak ezin ditu interesdunen bermeak murriztu (1995eko uztailaren 8ko epaia (RJ 1995\5802) eta 1996ko otsailaren 12koa (RJ 1996\1067), beste askoren artean). Badakigu 80.000 eskaera baino gehiago dituen erregistroa kudeatzeak dakartzan zailtasunak zein diren, baina, hala ere, erregistroan izen-emate egokia eman duten eskatzaileetatik eratortzen diren ondorio garrantzitsuek, babestutako etxebizitzaren eskatzaile bakoitzaren baja eskaeraren aurreko prozeduran berme guztiak bete daitezkeen eskatzen dute. Horretarako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak behar diren baliabide material eta pertsonalak eman beharko ditu.

Azkenik, informazioarekin dugun ezadostasuna adierazi behar dugu, antza, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak emandakoa zenbait kexagileei. Eta behin Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan duten eskaeraren baja eman ondoren, berriro ere alta ematea gomendatu zaie, eta ziurtatu zaie aldi baterako erregistrotik kanpo egon izanagatik ez dela inolako kalterik izango.

Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2008ko apirilaren 16ko Agindua onartu eta indarrean sartu ondoren, erregistroko izen-ematearen antzinakotasuna berebiziko da, erosketa eta errentamendu erregimenetako babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura finkatzeko erreserba kupoa delako (*“izen-ematearen antzinakotasuna 4 urte baino gehiago”*).

Aurrekotik eratorritakoa dela eta, ikus daiteke Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja emateak kalteak eragin ditzakeela, denboran zehar irauten dutenak etxebizitza eskatu duen pertsonarentzat, Horrek, jakina denez, eskatzailea lehentasunezko esleipen kupetatik kanpo geratzea eragin dezake, eskatzen den 4 urteko antzinakotasuna ez duelako.

IV. Aurretiaz entzuteko izapidea bete beharra

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa kudeatsetik eratorritako ebazpenak jakinarazteko moduarekin gure ezadostasuna agertzen duten arrazoi batzuk azaldu ostean, aztertutako herritarren kexetan aipatzen den beste kontuari heldu

behar diogu. Kexa horiek Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja ebazpenak eman aurretik eskatzaileei entzuteko tramitea ez egiteari buruzkoak dira.

Ediktu bidezko ebazpenekin ez bezala, erregistroan baja ematean tramite hori ez egiteak (edo erregistroko izen-ematearen inguruko beste edozein aldaketa) ez du araudi zehatzik eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hori ez egitea defenditzen du, benetan korapilatsua den arrazoia aipatuz.

Sail horretatik esan da Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta emateko ebazpena ez dela bere administrazio prozedurari amaiera ematen dion ekintza, nahiz eta izen-emate eskaera baten altari ekitean, eskatzaileari babestutako etxebizitza esleitzen zaion unera arte irekia egoten den prozedura. Beraz, jakina denez, urte askotan zehar luzatu daiteke.

Horiek horrela, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izen-ematea luzatzen den denbora tarteluz horretan zehar sailak ikusten badu eskatzaileak aldatu direla, eta horren ondorioz babestutako etxebizitza esleitzeko baldintzaren bat betetzen ez duela²³, eskudun administrazio organoak, interesdunari aurretik entzun gabe, baja ebazpena jaulkiko du, zuzentze edo hasierako eskaeraren hobetzearen aurrean izango bagina bezala (AILren 71 artikulua) edo interesdunaren aldetik tramite bat betetzea (AILren 76. artikulua) bukatu gabeko prozedura baten izapidetzean.

Nahikoa da lurralde ordezkartzetan ematen den eskaera eredua, "Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emateko inprimakia" izeneko, edo aipatutako 2008ko apirilaren 16ko Aginduan ezarritako erregistroaren egungo araudia aztertzea, hurrengoa ondorioztatzeko: eskatzaileen erregistroan alta ebazpenarekin amaitzen dela pertsonak bultzatutako izen-ematearen prozedura, berriztagarria den gehieneko indarraldiarekin. Eta izen-emate horretatik, izena eman eta etxebizitza eskatu duen pertsonarentzat, bere egoera juridiko berritik eratorritako betekizun zehatzak ere sortzea, esaterako *"Inskripzioari eusteko eskaerak baldintzak betetzen direla egiaztatze behar den dokumentazioa emateari buruz egiten diren errekerimenduei prestasunez erantzutea."*

Beste kontu ezberdina da izen-emate hori balizko berrikuspenen pean egotea izena eman duten pertsonen baldintza pertsonaletan aldaketak izan ondoren. Horrek, noski, administrazio-ebazpen berriei bidea emango die (alta edo erregistroan izena ematearen inguruko beste edozein alderdiren aldaketa). Administrazio ekintza berri horiek izapidetze prozedura berezia behar dute, baina, zail da izapidetze ekintza horiek Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emateko prozeduraren hasiera edo ordenazioa izatea, aztertutako zenbait kexa-espeditetan sailak adierazi duen bezala.

Hori dela eta, Arartekoak beti defenditu du, behin eta berriz, baja ebazpenek (edo erregistroan izena ematearen inguruko beste edozein alderdiren aldaketa) oinarritzko tramitea den

²³ Horren ildotik, gogoan izan behar dira, adibidez, urtero berrikusten diren diru-sarrerak.

entzutea aurretik izan behar dutela, AILren 84. artikuluan ezartzen den bezala, Espainiako Konstituzioaren 105 c) artikuluan jasotzen den konstituzio-aginduaren garapenean.

AILren 84. artikuluan jasotzen den arauarekin bat, administrazio ekintzen funtsezko prozedura-tramitea soilik administrazio publikoek ezeztatu dezakete *“ Interesdunak azaldutako egitate, alegazio eta frogak bakarrik agertzen badira prozeduran eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan ebazpena ematerakoan”*. Beraz, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren arautzeko prozeduran, hori legalki bazter batera utz dezake soilik baja edo erregistroan aldaketa ebazpena interesdunak eskatuta egiten denean edota aurkeztutako agiri eta alegazioak gogoan hartu direnean.

Interesdunei entzuteko izaeraren inguruko jurisprudentzia asko dago, eta horien funtsa Auzitegi Gorenaren 1993ko urriaren 6ko epaian aipatutakoa da (RJ 1993\7444): *“ se trata de un trámite esencial que se alza en garantía de los administrados, para evitar que se produzca indefensión; por otra parte, la audiencia del interesado es también instrumento a través del cual pueden llegar a la Administración los datos necesarios para poder resolver, con arreglo a Derecho el procedimiento”*.

Berriki, interesdunari entzuteko tramitea *“administrazio onenaren eskubideari”* ere lotu zaio, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean jasotakoa. Bertan, zehazki, hauxe aipatzen dute: *“persona ororen eskubidea berau entzutea da kaltetuko dion bere kontra banakako neurria hartu aurretik”*.

V. Ondorioa

Orain arte azaldutako arrazoibideek agerian jarri dute Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aztertu egin behar duela Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko inskripzioei baja emateko edo horiek aldatzeko erabakietan erabiltzen duen prozedura formal, eta prozedura horretan sartu behar duela interesdunari entzuteko izapidea eta erabaki horiek interesdunari berari jakinaraztea, hark jakinarazpena jaso duela egiaztatuko duen edozein bide erabiliz.

Horretarako, hauxe eskatzen da: erregistroko oharrei buruzko ebazpenak iragarki-tauletan jakinarazteko ekintza (Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa arautzen duen 2008ko apirilaren 16ko Aginduak 5.2 artikuluan ezarritakoa), edonola ere, interesdunari berari jakinaraztearen osagarri izan dadila, eta jakinarazpen pertsonal hori espedientean beti egiaztatuta gera dadila.

VI. Gomendioa

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legea egokitu behar ditu Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroari dagozkion ebazpenen tramitazioa eta jakinarazpena.



IV. ATALA

TXOSTEN BEREZIAK



1. 2008. URTEAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIAK

1.1. ARRETA SOZIOSANITARIOA: ESPARRU KONTZEPTUALA ETA NAZIOARTEKO ETA AUTONOMIETAKO AURRERAPAUOAK. HURBILKETA

2008ko maiatzaren 22an eman zitzaion Eusko Legebiltzarreko lehendakariari *Arreta soziosanitaria: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausoak. Hurbilketa* izenburuko txosten berezia.

Txosten hau bereziki beharrezkoa zen, Zuzenbideko Estatu sozial eta demokratiko batean funtsezkoa den gai bat aztertzen duelako: arreta soziosanitaria, osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lankidetzaz biziko eremu egituratutzat hartuta.

Horrek ez du esan nahi, ezinbestean, osasunaren eta gizartearen jatorrizko bi sektore horietatik bereizitako eremu bat behar denik, baizik eta prozedura bat sortu behar dela, premia konplexu eta mistoetara egokitutako zerbitzu-prestazioa bermatzeko eta, zerbitzu horiek ematean, ekintza-jarraitutasunaren printzipiora doitzeko.

Gero eta sarriago, herritarrek aldi berean osasun- eta gizarte-beharrak izaten dituzte, eta behar horiei era koordinatuan erantzun behar zaie.

Batez ere bi arrazoirengatik egin genuen txosten hau:

- Lehenik eta behin, bi sistemen arteko mugak oso lausoak direlako eta eremu soziosanitarioa zehaztu beharra zegoelako. Behar hori gure txosten berezi askotan adierazi dugu.
- Bigarrenik, Eusko Legebiltzarraren aginduari erantzun nahi geniolako. Izan ere, arreta soziosanitarioari buruzko txostena egiteko agindu zion Ararteko erakundeari 2006ko azaroaren 23ko osoko bilkuran, Euskal Herriko Atentzio Soziosanitarioaren Garapenerako 2005-2008 aldirako Plan Estrategikoaz mintzatu zirenean.

Eremu soziosanitarioa jende guztiak ahotan dabilkien kontu guztiz ezezaguna da, egunetik egunera toki zabalagoa hartzen du diskurtso politiko eta teknikoan, baina oraindik gabezia ugari ditu bere definizio teorikoan eta gauzatzeko orduan.

Txostenak hiru helburu izan ditu:

- Bat, nazioarteko aurrerapen teorikoetan oinarrituta batez ere, esparru kontzeptuala egituratzea, oinarritzko erreferentzia-elementu batzuk eta terminologiazko nahaste batzuk argitu ahal izateko.
- Bi, Euskal Autonomia Erkidegoko egungo egoera azaltzea.
- Eta hiru, beste autonomia erkidego batzuetan eta nazioartean (Europar eta Ipar Amerikan) egindako esperientzien aurrerapen praktikoetara hurbiltzea.

Esparru kontzeptuala. Arreta soziosanitarioaren eremua

Herritarren behar batzuei erantzun osoa eta pertsonalizatua eman behar zaie, osasun-zerbitzuetako edo gizarte-zerbitzuetako ohiko egiturek ezin diete kasu egin, egitura horiek ez baitira ondo egokitzen behar misto horietara.

Behar konplexuko egoera horiei erantzutea da arreta soziosanitarioaren helburu nagusia. Arazo horrek nagusiki biztanle talde jakin batzuei eragiten die. Biztanle talde horientzat (beraien gizarte- eta osasun-beharren izaera edo ezaugarriengatik, edo, batez ere, behar horiek aldi berekoak edo mistoak direlako) ezinbestekoa da bi sektore horien artean ahalik eta koordinaziorik handiena egotea, beharrei egoki eta eraginkortasunez erantzuteko.

Honako biztanle talde hauek dira, batez ere:

- mendetasun egoeran dauden adineko pertsonak;
- gaixo kronikoak edo buruko gaixotasun larri kronifikatua dutenak;
- hil aurreko fasean dauden gaixoak.

Aipatutako talde horietako edozeinetan pentsatzen badugu, hobeto ulertu ahal izango dugu zeintzuk diren arreta soziosanitarioaren helburuak:

- Sistemak eraginkorrak izatea. Hau da, zerbitzu erabiltzailearen beharrei egoki erantzutea, ahalik eta kosturik txikienarekin eta beti kalitateari eutsiz.
- Arreta modu jarraituan ematea.

Mendetasun egoeran dauden adineko pertsonak

Mendetasun egoeran dauden adinekoek osatzen dute, dudarik gabe, talderik adierazgarriena: lehenbizi, talde ugariena delako, argi eta garbi –datuen arabera, talde horretakoak dira arreta soziosanitarioa behar dutenen %85–, baina, baita beste arrazoi batzuek ere:

Lehenik, adinekoei eskainitako osasun-arretak azken urteotan nabarmenki hoberantz egin duen arren, zahartzeak arazo fisiko, psikologiko eta sozial gero eta konplexuagoak dakartzalako, ia beti elkarren artean lotura estua dutenak.

Hona hemen gaixotasunak adinekoengan dituen ezaugarri eta berezitasunetako batzuk, baita sendatzeko behar den osasun-arretarenak ere:

- Tratamendu egokia jaso ezean, bizkor okerrera egitea.
- Patologia anitzak maiz jasatea.
- Gaixotasuna ohi bezala ez agertzea edo zehaztasunik gabe agertzea.
- Bigarren mailako konplikazioak sarritan izatea.
- Errehabilitazioko prozesu aktiboak sarritan behar izatea.
- Ohiko komunitatearen ingurunera itzultzeko laguntza maiz behar izatea.

Mendeko adinekoak arreta soziosanitarioaren lehentasunezko taldetzat jotzeko bigarren arrazoia hauxe da: ahulagoak dira, bizitzaren zikloaren beste aldi batzuetan baino aukera gehiago baitago ezintasun fisikoa eta/edo buruko ezintasuna jasateko.

Gaixo kronikoak

Orain indarrean dauden osasun-sistemak patologia akutuei eta presako beharrei erantzuteko diseinatu eta garatu ziren: aztertzea, diagnostikatzea, sintomak arintzea eta sendatzea dituzte bereizgarri. Hala ere, halako egoerei aurre egiteko oso eraginkorra izan arren, ez da ongi egokitzen egoera kronikoen arretara.

Datuek erakusten dutenez, egoera kronikoak izugarri hazten ari dira, osasun publikoarentzat benetako erronka bihurtzen ari dira, eta ez hori bakarrik, baita sektore horretan gastu publikoa areagotzearen arrazoi nagusietako bat ere –egin diren kalkuluen arabera, mendebaldeko herrialdeetan, osasun gastuaren %75 eta farmaziako gastuaren %80 baino gehiago eragiten dute–. Ezinbestekoa eta presakoa da hazkunde horrek isla izatea bai osasun sistemetan, bai horrek beste babes-sistema batzuekin (batik bat gizarte-zerbitzuekin) duen harremanean.

Hil aurreko fasean dauden gaixoak

Gaur egun, mendebaldeko biztanle gehienek, behin zahartzarora iritsita, adin handia izan arte osasun-egoera onean mantentzea lortzen badute ere, beren bizitzaren azken etapan gizarte-arazoak eta osasun-arazoak izaten dituzte denboraldi luze samarrean, hil aurretik (gaixotasun horietako asko endekapenezkoak edo pixkanaka okerrera egiten dutenak izaten dira).

Zailtasun pilo hori bereziki nekeza bihurtzen da gaixotasun baten hil aurreko fasera iristean.

Egungo demografiako eta erikortasunezko erduek pentsarazten dute datozen urteetan pertsona gehiago egongo direla gaixotasunaren hil aurreko fasean. Eboluzio hori eta bizitzaren zikloaren fase horretako beharrak nolakoak diren ikusita, nazioarteko oraingo joerak bi jarraibide aldarrikatzen dituzte zainketa aringarriak antolatzerakoan (egoera kronikoen

arretan gertatzen zen bezalaxe). Bi jarraibide horiek osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lankidetzaren estuaren alde egiten dute. Hauexek dira, hain zuzen:

- Bata, osasun eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa erraztea, gaixo bakoitzarentzat izango den arreta oso eta pertsonalizatuko programa baten barruan. Antolamenduan aldaketak erraztu beharko dira, diziplina arteko lana ahalbidetzeko eta gaixoaren behar aldakorretara malgutasunez egokitzeko.
- Eta bestea, gaixoari arreta etxean ematearen alde egitea, haren eboluzioa aztertze-ko, hura kontrolatu, tratatu eta laguntzeko toki egokiena delakoan.

Arreta soziosanitarioaren egungo protagonismoa azaltzen duten arrazoiak

Arreta soziosanitarioak orain dela gutxi hartu du protagonismoa, nazioarte mailan gainera.

Dirudienez, protagonismo horrek 3 eragile ditu:

- Batetik, lehen aipatu dugunez, gero eta gehiago direla arreta horren beharra izan dezaketen eta horretaz baliu daitezkeen biztanle taldeak: guztiak oso talde ahulak dira eta behar konplexu eta iraunkorak dituzte. Behar horiek, eguneroko bizimodu-
duan, beraien autonomian eragiten dute eta, horiei aurre egiteko, ezinbestekoa da zerbitzu mistoak izatea eta zerbitzuok aldi berean edo jarraian eskaintzea, etxean edota ospitalean edo egoitzan.
- Bigarrenik, arreta soziosanitarioak azken hamarkadan lortutako protagonismoa argitzen duen beste elementu bat, dudarik gabe, hauxe da: osasun eta gizarte politikak, zorionez, gaixoa etxean tratatzea eta beharrezko arreta komunitatearen eremuan ematea lehenesten duten formuletarako joera orokorra hartu dute.
- Azkenik, esaten denez, gure gizarte moderno eta industrializazioaren ostekoetan, osasun-sistemek presio banatzaile sakonen mende egotea dute bereizgarri. Eten-gabeko berrikuntza teknikoek eta horien hedadura bizkorrak sortu dute, batik bat, presio banatzaile hori; horren ondorioz, jada nabarmena den hiperespezializaziorako joera areagutzen da.

Ikuspegi kontzeptuala EAEn

Arreta soziosanitarioa antolatzeke bi eredu oinarritzko daude:

- koordinazio soziosanitarioa;
- arreta soziosanitarioa emateko sare bat sortzea, jatorrizko bi sareetatik –alegia, gizarte eta osasun sareetatik– bereizia.

Estatuan nahiz autonomia erkidegoetan lehenbiziko eredu hori aukeratzen da eskuarki. Horregatik, EAEn eremu soziosanitarioaz hitz egiten dugunean, koordinazio soziosanitarioaren eredu batez hitz egiten ari gara.

Koordinazio soziosanitarioaren eredia

Beraz, Euskadiko eredu soziosanitarioa koordinaziozko eredia da, ez osasun-saretik eta gizarte-saretik bereizita dagoen arreta soziosanitarioko sare berria.

Koordinazio soziosanitario hori sendotzeko asmoz, badira koordinazioa errazten duten hainbat faktore: esate baterako, helburuak jartzea; erakundeen laguntza eta konpromisoa; zuzendaritza eta kudeaketa eraginkorrak; eta laguntza teknikoak. Eta badira, halaber, koordinazioa oztopatzen duten faktoreak ere: adibidez, antolaketa desberdintasunak, elkarrengandik urruntzen diren ikuspegi profesionalak edo finantza-kontuetan segurtasunik ez izatea.

Egiaz, zenbait faktorek erraztu egiten dute gizarte- eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa.

- Funtsezkoa da helburu argiak jartzea, eta helburuok erakunde publiko eta pribatu guztiek eta aplikatzeko orduan esku hartzen duten profesional guztiek ulertu eta ezartzea.
- Era berean, erakundeen eta lekuan bertan diharduten profesionalen konpromiso sendoa behar da, eta bien arteko batasuna bermatuko duten estrategiak sortu behar dira.
- Zerbitzuak koordinatzeko ekimenek zuzendaritza eta kudeaketa eraginkorrak behar dituzte. Horretarako, erantzukizunak zehaztu eta mugatuko dizkieten jarraibide argiak ezarri behar dira proiektua kudeatu eta zuzentzeaz arduratzen direnentzat, batez ere haien eginkizunen artean zuzendaritza teknikoak, giza baliabideen kudeaketa eta kudeaketa ekonomikoa biltzen direnean.
- Koordinazio proiektu baten arrakasta, jakina denez, proiektu hori gauzatzeko ematen diren giza baliabideek eta baliabide materialek baldintzatzen dute. Sarriegi pentsatzen da, oker pentsatu ere, nahikoa dela proiektuan esku hartzen duen eremu bakoitzeko baliabideak antolatzea, aparteko inbertsio osagarriak egin gabe.
- Ebaluazio-sistemak diseinatu eta aplikatu behar dira, aldizka edo etengabe proiektuak nola funtzionatzen duen eta zein emaitza dituen jakin ahal izateko.

Aitzitik, beste zenbait faktorek oztopatu egiten dute zerbitzuen koordinazioa.

- Gizarte-sektorearen eta osasun-sektorearen artean dauden antolamenduzko desberdintasun oinarrizkoek geldiarazi egiten dituzte zerbitzuen koordinaziorako ekimenak.
- Eman beharreko arretari buruz osasun arloko eta gizarte arloko profesionalak iritzi ezberdinak badituzte, koordinaziorako oztopo handiak egon daitezke edo koordinazioa ezinezkoa ere gerta daiteke, bai plangintza eta antolaketaren maila estrategikoan, bai maila operatiboan ere.

Koordinazio estrategietan eta tresnetan izandako hainbat esperientzia aztertzen dira txostenean. Hiru mailatan azaltzen dira:

– Egiturazko edo estrategiazko mailan hainbat eredu azaltzen dira:

- Eskumenen integrazioa
Integrazio modu garbiena da strategiaren mailan, izan ere, osasun arloko eta gizarte zerbitzuen arloko eskumenak bateratzen ditu. Eskumenak estatu edo lurralde mailako administrazio organo beraren ardurapean jartzen dira.
Eredu hori erabiltzen dute Ipar Irlandan eta Quebec-en. Baita autonomia erkidego batzuetan ere, esaterako, Gaztela eta Leongoan. Erkidego horretan sailburuordetza bakarrean bateratu dira eskumenak –Osasun eta Gizarte Ongizate Sailburuordetza–.
- Eskumenak deszentralizatzea eta besteren esku uztea
Denbora luze behar konplexuak dituzten talde jakin batzuei –bereziki, mendeko adinekoek– arreta emateko orduan, zenbait administrazio besteren esku uztea erabaki dute funtsezko eginkizun batzuk.
Eredu hori Suedian eta Danimarkan erabiltzen dute.
- Sektore arteko plangintza bateratua
Maila estrategikoan koordinazioa lortzeko hirugarren bide bat jarduera bateratuko planak lantzen hastea da, osasun zerbitzuetan eta gizarte zerbitzuetan eskumenak dituzten administrazioen artean.

Kasu horietan finantzaketa esperientzia ezberdinak azaltzen dira: modulu bidezko zerbitzuen baterako finantzaketa, Katalunian; baterako aurrekontuak, Erresuma Batuan; kapitalizazio bidezko finantzaketa sistema –arreta jasotako pertsona bakoitzeko, hilean kopuru finko bat ordainduz– AEBetan eta Kanadan.

– Antolaketa mailan:

- Diziplina arteko ekipoak
Europan, diziplina arteko ekipoak dira, zalantza barik, zerbitzu soziosanitarioak eskaintzeko antolaketa-elementurik nagusien eta zabalduenetako bat. Herrialde askotan talde horiexek zuzentzen dute balorazio eta orientazio fasea.
Esperientzia hori Erresuma Batuan gailendu da.
- Diziplina anitzeko ekipoak eta egiturak
Formula hauek lanbide arteko lankidetzan oinarritzen dira, zentzurik klasikoenean ulertuta. Horien bidez, erabiltzaileak behar dituen hainbat zerbitzu eskaintzen dira. Frantzia erabili dira, gerontologiaren eremuan.
- Leihatila bakarra
Leihatila bakarraren sistema zerbitzuetara iristeko puntu bakarra ezartzean datza. Sistema bakarrean –gizarte sisteman ala osasunekoan– bildutako zerbitzu-multzora iristeko tresna hedatu samarra bada ere, jadanik badira zerbitzu mistoetara iristeko ere sarrera bakarra ezartzen ahalegintzen ari diren zenbait esperientzia.

Leihatila bakarrek ere duak daude Italian eta Holandan.

- Zerbitzuak toki berean kokatzea
Zerbitzuak egoitza berean egoteak, dudarik gabe, komunikatzeko aukera gehiago eta ohitura handiagoa sortzen du arlo ezberdinetako profesionalen artean. Gainera, profesional bakoitzarentzat, beste arlo batzuetako profesionalekin eta espezialitateekin harreman zuzena izatea pizgarria gerta daiteke, eta harreman horrek normalean bere ekintza-erlotik kanpo geratzen diren arazoekiko eta egoerekiko sentikorrago bihurtzen lagun diezaioke.
Ekimen hori Quebec-en erabiltzen dute, zerbitzu komunitarioen bertako zentroetan, edo Skaeving-en (Danimarkan) adineko pertsonentzat.

Badira bestelako esperientziak ere, adibidez, arreta-sareak edo sarean egindako lanak; arreta osoa emateko ibilbideak; informazio eta komunikazio sistemak; edo “barrendegien” figura, hau da, osasun zentro batean edo ospitale-egitura batean gizarte-laneko lanpostuak sortzea.

– Zerbitzu erabiltzaileari arreta ematean:

Maila honetan metodo ezberdinak azaltzen dira, esaterako, beharrak batera ebaluatzea eta banakako arreta eskaintzeko planak batera diseinatzea, edo “kasuaren kudeaketa” deritzana, eskuarki iraupen luzeko zainketen alorrean.

Arreta soziosanitarioaren eremuan, kasuaren kudeaketak izugarritzko garrantzia izaten du jarduerak koordinatzean, bereziki, ospitaleratzeei aurrea hartzean edo, ospitalean alta hartu ondoren, lekuz aldatu eta komunitatera itzultzeko prozesua modu egokian antolatzean.

Horrelako esperientzia izan dute Austrian.

Hemen funtsezkoa da erreferentziako profesionalaren figura. Profesional hori oso garrantzitsua da osasun- eta gizarte-arloetako lekualdatzeetan, ospitaleko altak eta komunitaterako itzulerak kudeatzen baititu.

* * *

Arreta soziosanitarioaren azterketa EAEn

Txostenaren III. kapituluaren biltzen da azterlanaren bigarren multzo nagusia: arreta soziosanitarioaren azterketa EAEn. Hor sartu dira nazioarteko esparru juridikoa, EAeko eskumen-eremua –horrek agerian jarri du eskumenak modu desberdinean tratatzen direla osasun arloan eta gizarte arloan– eta koordinazio soziosanitarioaren alderdi juridiko kontzeptualak. Administrazioen arteko lehen hitzarmenetatik hasi eta erreferentziatzko bi tresna nagusietara iritsi arteko bilakaera aztertzen da. Erreferentziatzko bi tresna nagusiak hauexek

dira: erakundeen arteko 2003ko urtarrilaren 30eko Hitzarmena, batetik, eta Euskal Herriko Atentzio Soziosanitarioaren Garapenerako 2005-2008 aldirako Plan Estrategikoa, bestetik.

EAEko arreta soziosanitarioa balioztatzeko, irizpide metodologiko gisa, lantalde bat osatu da, gai hori ondo ezagutzen duten berrogei aditurekin. Aditu horiei ez zaie ordezkaritza-baliorik eman, baina era askotako eta ikuspegi anitzeko pertsonak direnez gero, ateratako ondorioak oso adierazgarriak dira.

Funtsezko ondorio hauek atera dira:

- 1) Balorazio zertxobait ezkorra egin da EAEko eremu soziosanitarioaren garapenari buruz. Aurrerapenak, oro har, urritzat jo dira, eta lorpenak, berriz, sortutako itxaropenak eta zeuden aukerak eta beharrak baino txikiagozat.
- 2) Arlo honetan egin diren aurrerapenak ez zaizkie argi helarazi ez zerbitzu hartzaileei, ez bi sare horietako profesionalei.
- 3) Ezin da esan alferrikako esperientzia izan denik. Aurrerapen nabarmenak egin dira, adibidez, mendetasuna balioesteko tresna komun bat jarri da, bi sareen arteko elkarrizketa hasi da, erakundeak hobeto ohartu dira eremu soziosanitarioan esku hartu beharra dagoela, edo antolaketa egitura bat finkatu da.
- 4) Balorazio ezkorra egin da Euskal Herriko Atentzio Soziosanitarioaren Garapenerako 2005-2008 aldirako Plan Estrategikoan ezarri ziren oinarritzko helburu instrumentalak betetzeaz.
Ez da aurrerapen nabarmenik egin planaren helburu nagusietako bakar batean ere: hau da, sarbide bakarreko sistema jartzea, zerbitzu-leihatila bakarra, informazio partekatuko sistemak eta baterako plangintza.
- 5) Politikan ez da eremu soziosanitarioa garatzeko apustu irmorik egin, eta ez dago partekatutako eta adostutako eredurik.
- 6) Udalek pisu eskasa dute eremu soziosanitarioa garatzean; horren ondorioz, gutxi garatu da arreta komunitarioaren esparruan.
- 7) Hiru lurralde historikoen artean oraindik ere desberdintasun garrantzitsuak daude baliabide soziosanitarioak garatzean, baita lurralde historiko bakoitzaren barruan ere, baliabideak hiriburuetan pilatzen baitira.
- 8) Finantziario bide egokiak ezarri behar dira:
Baliabide ekonomiko gutxi daudela baino gehiago, etengabe baliabideen finantzaketa partekatua hitzartu beharra dagoela adierazten da, eta horrek dezente oztopatzen duela arreta soziosanitarioa garatzea.
- 9) Baliabide berriak asmatu baino gehiago, orain daudenak indartu, hobetu, hornitu behar dira.

- 10) Lau baliabide garatu behar dira ezer baino lehenago:
- buru-gaixoentzako egoitzetako baliabideak;
 - etxean arreta soziosanitarioa jasotzeko programak;
 - portaera-arazoak dituzten adingabeentzako programa terapeutiko eta hezitzaileak;
 - gehiago garatu behar dira premia soziosanitarioak dituzten adineko pertsonentzako unitate bereziak.
- 11) Honako hauek dira arreta soziosanitarioaren beharrik handiena duten taldeak:
- adinekoak (bereziki oso adintsuak);
 - buru-gaixoak;
 - era askotako patologiak dituzten pertsonak.

* * *

Beste autonomia erkidego batzuetan eta beste herrialde batzuetan arreta soziosanitarioan izan diren esperientzien azterketa

IV. kapitulua oso interesgarria da, izan ere, hor arreta soziosanitarioari buruzko hainbat esperientzia aztertzen dira. Esperientzia horiek beste autonomia erkidego batzuetakoak dira –Katalunia, Gaztela eta Leon edo Nafarroakoak–, baita beste herrialde batzuetakoak ere –adibidez, Danimarka, Finlandia, Holanda, Irlanda edo Erresuma Batukoak–.

Kapitulu horretan esperientzia horien gaineko koadro zehatzak sartu dira. Horietan agertzen dira eremu geografikoa, arreta zein biztanle-talderentzat den, harremana zenbateraino den estua, zerbitzu motak eta emaitzak edo balorazioa.

Esperientzia horietako batzuk jada azaldu ditut koordinazio estrategiez edo tresnez mintzatu naizenean.

* * *

Azkenik, Ararteko erakundearen txosten guztietan egiten den legez, ondorioen eta gomendioen kapitulua dator.

Hala ere, beste txosten batzuetan ez bezala, eremu soziosanitarioa eraikitzean herri-administrazioen jarduera hobetu dezaketen hainbat jarraibide biltzen dira kapitulu honetan. Hiru gomendio-multzo egin ditzakegu:

- a) Arreta soziosanitarioaren ereduarekin zerikusia dutenak.
1. Koordinazio ereduaren interpretazio zabal eta malgua.

Lankidetzaz-estrategia ezberdinak konbinatzearen eta zerbitzu eta prestazioen sorta malguaz ezartzearen alde egiten da.

2. Espazio soziosanitarioa indartzea.
Euskal espazio soziosanitarioa gehiago arduratu da gai estrategiko, eskumenezko eta finantzazkoez, pertsonen arreta eskaintzeko tresnak koordinatzeaz baina.
Honako hauek lortu behar dira:
 - jarduera biziago eta eraginkorragoa;
 - formula berriak zerbitzu antolaketaren arloan;
 - jakintza-alorren arteko lana sustatzea.
 3. Geografia mugaketak.
Bi ereduak, sanitarioa eta soziala, era desberdinean egituratuta daude lurralde batetik bestera.
Prozesuan dauden araudi-aldaketan bitartez, bi sistema horietako bakoitzaren zonifikaziora hurbiltzen ahalegindu beharko litzateke.
Zonifikazioan bateratasun handiagoa egongo balitz, bi zerbitzuak biztanle talde berari eman ahal izango lirateke.
 4. Berriazko diru-hornidurak behar dira.
Arreta soziosanitarioak ez du esan nahi "zero kostua", aitzitik, berriazko diru hornidurak behar ditu. Orduan:
 - arreta soziosanitarioaren kostuaren aurreikuspenak doitu behar dira;
 - zentzu handigoz erabili behar dira dauden baliabideak.
 5. Diru horniduren erabilera malgua.
Formula berri interesgarria izan liteke bi arloetako (hau da, gizarte eta osasun arloetako) herri-administrazio eskudunek funts komun batean diru-baliabideak sartzea.
Proposamen hori burutzeko proiektu pilotu bat egin liteke.
 6. Erakundeen konpromisoa
Maila guztietan (autonomia erkidegoa, foru aldundiak eta udalak) konpromiso profesionala eta politikoa indartu behar da, bi sistemen bilgunean egoteagatik behar bezala zaindu gabe geratzeko arriskuan dagoen jarduera-eremu hori babesteko.
- b) Baliabideen sarearekin zerikusia dutenak.
7. Erkidegoan arreta emateko formulak lehenestea.
Zerbitzu erabiltzaileei, ahal den guztietan, laguntza beraien etxean ematera bideratutako politikak, zaintzarako bitarteko formulak garatuz, nahiz eta erabiltzaileek behar konplexu eta misto asko izan.
 8. Arretarako sare soziofamiliarri laguntzeko formulak indartzea.

Epe luzerako beharrak dituzten pertsonak, jakina denez, funtsean beren familiariek zaintzen dituzte eta, zehazkiago, zaintzaile nagusi batek, emakume batek normalean.

Pertsona horien zama arintzeko jarduerak indartu behar dira, adibidez, etxeko laguntzak gehituz.

9. Ahalegin handiagoa egin behar da epe luzerako behar konplexuak dituzten taldeei laguntzeko.

Talde hauek dira, batik bat:

- mendetasun egoeran dauden adineko pertsonak;
- gaixo kronikoak;
- buruko gaixotasun larri kronifikatua duten pertsonak;
- hil aurreko fasean dauden gaixoak.

- c) Arreta soziosanitarioa antolatzearekin zerikusia dutenak.

10. Lan egiteko moduak.

Jakintza-alor ezberdinetako taldeekin, eta koordinazio estrategiak sortuz.

11. Lanabesak.

Esate baterako, lehenasunezko eremuak balioztatzeko lanabes komunak.

12. Proiektu pilotua.

Arlo soziosanitarioan formula berriak probatzeko balio duten ekimenak abiaraztea komeni da.

Bereziki, bitarteko zaintzarako formulak proba litezke, baita etxean arreta emateko formula hagitx intentsiboak ere.

Aipamen horren bidez, txosten trinko eta konplexu horren lerro nagusiak azaltzen saiatu gara. Txostena oso interesgarria iruditzen zaigu, eremu soziosanitariora kontzeptuen eta terminologiaren ikuspegitik hurbiltzea ahalbidetzen duelako eta, era berean, EAEko oraingo egoera aztertu eta autonomia erkidegoetako eta nazioarteko beste esperientzia batzuekin kontrastatzen duelako.

Txosten hori kontsultatzeko aukera dago erakundearen web gunean (<http://www.ararteko.net>). Orobat, aipatutako txostena argitalpen honi erantsitako pendrive-ean ere sartuta dago.

1.2. GIZARTE EKINTZA SEKTOREKO LAN BALDINTZAK

Ekainaren 11n eman zitzaion txosten hau legebiltzarreko lehendakariari. Gero, urriaren 30ean, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordearen aurrean aurkeztu eta eztabaidatu zen.

Txosten berezi hori egiten urtebete baino gehixeago eman dugu eta, bertan, gizarte ekintza sektorea deritzan horretan profesional gisa diharduten 20.000ren bat pertsonaren lan-baldintzak aztertu ditugu. Gai hori, itxuraz behintzat, berezkoagoa du sindikatu edo enpresen dinamikak, pertsonen eskubideak babestu edo bermatzeak baino.

Dagoeneko argitaratu den txostena denez eta, beraz, osorik kontsulta daitekeenez gero, laburpen honetan lau gai baino ez ditugu landuko. Lehenik eta behin txosten hau egite-raman gaituzten arazoak zehaztuko ditugu eta baita zenbait ezaugarri eta muga ere. Bigarrenik, bereziki aipagarriak diruditen sektoreko zenbait datu nabarmenduko ditut. Azkenik, gure ikuspegitik funtsezkoenak diruditen arazoak eta hobetzeko proposamen edo gomendioak azpimarratuko ditut.

• Arartekoa gai hau aztertzeraren daramaten testuingurua eta arazoak

Egun, bazterkeria arriskuan dauden pertsonak, babesgabetasun egoeran dauden adingabeak, pertsona ezgaituak edo mendetasun handi nahiz txikia duten adinekoak bezalako sektore hain esanguratsuen gizarte arretarako gure Komunitatean jarritako zerbitzu eta baliabideen zati handi bat gizarte ekimenezko elkarte edo erakundeek kudeaturikoa da. Horretarako, laguntza ekonomikoak jasotzen dituzte hainbat administrazioen eskutik (Eusko Jaurlaritzako sailetatik, foru aldundietako sailetatik udal eta mankomunitateetatik...). Horrela, bada, lankidetzara dago eremu publikoaren eta pribatuaren artean; askotan, ordea, lankidetzara hori ez da behar lukeen bezain argia izaten edo ez da behar beste arauturik egoten.

Arartekoak hainbatetan jorratu izan du errealitate hori, neurri batean edo nolabaiteko zeharkakotasunarekin bai behinik behin. Hurrengoetan, adibidez:

- Gomendio orokorretan (Gizarte Ongizatearen eta elkarleen arteko hitzarmenei buruzkoak, gizartearen alorrean lan egiten duten elkarrekin emaniko laguntzen deialdiei buruzkoetan...).
- Ezohiko txosten ezberdinetan (adingabe lege-hausleak, babesik gabe dauden adingabeak, bakarrik dauden adingabeak, ezgaituen laneratzea...).
- Gatazken ondotik hasitako ofiziozko jardueretan, adibidez bere garaietan Gipuzkoako adingabe atzerritarren zentroetan sortutakoak.
- Zerbitzu eta baliabide ezberdinei eginiko bisitetan eta horiek ohiko txostenetan islatzerakoan...

Txosten berezi horretan, gaia sakonago aztertu dugu eta, aldi berean, ikuspegi osoa eskaini dugu, hainbat arazoi direla-eta bereziki interesgarria dirudien une honetan:

- Eztabaida jazotzen ari zen gizarte zerbitzuen etorkizunaren gainean, eta posible zen Legea ere aldaraztea, eta, egiaz, hala gertatu da.
- Mendetasun egoeran dauden pertsonen arretarako legeak eta haren garapenak baliabide berriak eskatuko dituzte.
- Lurralde edo sektore batzuetan akordioak lortzen eta lan hitzarmenak sinatzen ari dira, eta horiek sektoreari eragiten diote...
- Badirudi sektorea hobetzearen aldeko apustu handiagoa dagoela (politikoa, aurrekontuetakoa)

Bestetik, etengabe hazten ari den sektorea da eta azken urteotan garapen nabarmena izan du. Gauzak horrela, adibidez, Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluak orain dela bi urte erabilitako datu batzuek erakusten zutenez, EAEko Gizarte ekintzaren irabazi asmorik gabeko sektorean 1.569 erakunde zeuden, eta bertakoak ziren 181.185 pertsona. 18.612 pertsonak soldatapean egiten zuen lan sektorean, eta 57.846 pertsona, berriz, boluntario modura aritzen ziren, ordainsaririk jaso gabe.

Gaur egun 80.000 langilek osatzen duten sektoreaz ari gara eta horietatik 20.000k lan ordaindua dute eta lanaldi osoan aritzen dira. Esku-hartzeko sektorea, gehienbat elkarre eta fundazioek osatzen dute eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, 180.000 pertsona baino gehiago daude horiekin lotuta (boluntarioak, kideak...). Sektoreak ehunka baliabide kudeatu eta milaka pertsona artatzen ditu eta horietako gehienak bereziki ahula den egoeran daude.

Aitzitik, hori horrela izanda eta eragin sozioekonomiko handia izanda ere, Gizarte ekintzaren Hirugarren Sektorea ez dago egun oraindik oso arauturik. Hurrengo alderdiek eragina dute horretan:

- Gizarte zerbitzuetara iristea eskubide subjektibo modura ez hartzea.
- Eskubide hori bermatuko duen eta edukiz beteko duen gizarte zerbitzuen zerrenda argia ez izatea.
- Gizarte zerbitzuak emateari buruzko gaien dagoen lankidetzaren publiko-pribatua behar bezala definiturik ez egotea edo eskasa izatea.

Horrela bada, egoera horren eragina ez da bakarrik milaka pertsonaren lan baldintzetan islatzen, zerbitzuaren kalitatean eta programen jarraitasunean ere baduelako eraginik. Arrazoi horiek guztiak zirela-eta heldu zion Ararteko erakundeak txosteneko gaiari, non informazio iturri nagusia elkarre berak edo sektorean lan egiten duten erakundeak izan dira. Horretarako, oso datu base zabaletik abiatu ginen, hain zuzen ere Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak erabilitakoa. Hura sailkatu egin zen guztira 898 erakunde Portu arte, eta haiei azterketaren oinarria izango zen galdera-sorta bidali zitzaion. Galdera-sorta jaso zuten 898 erakundeetatik 293k erantzun zuten (heren batek), eta horrek konfiantza maila altua eskaintzen du lortutako emaitzen gainean.

Galdera-sorten bitartez bildutako datu kuantitatiboekin batera, esfortzu nabarmena egin da parte hartu duten agente ezberdinen informazio kualitatibo guztiak biltzearen alde:

- Administrazio ezberdinen arduradunak (elkarrizketen bitartez).
- Ordezkarri sindikalak (elkarrizketen bitartez).
- 60 erakunde ingururen ordezkarriak (sei eztabaida talderen bitartez, bi lurralde historiko bakoitzeko, eta sakontasunez egindako bi elkarrizketa bereziki interesgarriak diren bi erakunderi).
- Funtsezko pertsonak edo adituak (Delphi galdera-sorten bitartez).

• **Zenbait datu aipagarri**

Aztertutako datu guztietatik (txostenak 70 grafiko baino gehiago eta 100 datu taula baino gehiago biltzen ditu), jarraian bereziki aipagarriak iruditzen diren batzuk eskainiko ditugu hemen:

1. Erakundeak, horien banaketa, izaera juridikoa edo beren jardueraren xede den biztanleriako azpitaldea...
2. Erakundeen garrantzi ekonomikoa eta horien finantzaketa bideak.
3. Administrazioarekiko duten harremana eta horren inguruan egiten duten balorazioa.
4. Sektorearen lan esparrua eta ordainsariaren truke bertan lan egiten duten pertsonen lan baldintzak.

1) Sektoreko erakundeei buruzko zenbait datu orokor:

Gizarte ekintza arloko Hirugarren Sektoreko erakunde gehienak euskal hiriburuetan eta haien zonalde metropolitarran kokatzen dira. Portzentajea are altuagoa da profesionalizatutako erakundeak bakarrik kontuan hartzen badira (ikerketa honetarako garrantzitsuenak). Horiek guztien %70 hartzen dute.

Jardueraren eremu geografikoa probintzia edo udalerria da gehienetan, eta gehien erabiltzen den forma juridikoa irabazi asmorik gabeko elkartearena da (erakundeen hiru laurenak baino gehiago). Aldiz, profesionalizazio handieneko erakundeak gizarte ekimenezko kooperatibak, fundazioak eta federazioak dira hurrenez hurren.

Gizarte ekintza arloko Hirugarren Sektoreko erakundeek Gizarte zerbitzuetan, batez ere helduei (%47,1), hirugarren adinekoei (%19,1) eta gazteei (%16,5), ezgaitasunari uztartutako egoerak bizi dituztenei (%43,7) eta gizarte bazterkerian daudenei (%37,6) eskaintzen diete arreta.

Profesionalizatutako erakundeen artean, %65,1ek hitzarmen bat edo beste sinaturik du. Gainerako %31,8k –ez du inolako hitzarmenik– langileen %13,6 bakarrik hartzen dute, hau da, tamaina txikieneko erakundeak dira arautze maila baxuena agertzen dutenak.

Hitzarmen horiek normalean lurralde historiko bakoitzari aplikatzen zaizkio, eta Gizarte ekintzakoa (Bizkaian aplikatzen da) eta Bulegoena (Bizkaia eta Gipuzkoan) dira erakunde mailan

ohikoenak, ez, ordea, lanpostu mailan. Bizkaiko hitzarmen nagusia (hura aplikatzen duen erakunde profesionalizatu kopuruagatik, ez lanpostu bolumenagatik) Gizarte ekintzarena da (erakundeen %33,3). Aldiz, Araban oso kopuru altuetan daude hitzarmenik gabeko erakundeak. Arrazoia tamaina txikieneko erakunde gehien dituen lurralde historikoa izatea da. Hala eta guztiz ere, Haur, gazte eta familia hitzarmena agertzeak zentzu horretako aldaketak ekartzea espero izan daiteke. Gipuzkoak ere hitzarmenik gabeko erakunde proportzio altua agertzen du (%30).

2) Erakundeen garrantzi ekonomikoa eta horien finantzaketa bideak:

Fondoan hornitzaile nagusia (eta zenbaitetan bakarra) Herri-administrazioa da (fondoan %71,6), bai diru-laguntzen bitartez (%57,3), bai hitzarmen eta kontzertazioen bitartez (%14,3). Gizarte mezenasgoak edo erakunde pribatuek egindako ekarpenek (enpresa korporazio handiek edo bankuen gizarte ekintzek eginikoak adibidez) hasieran dagoen bidea eratzen dute.

Gizarte ekintza arloko Hirugarren Sektoreko erakundeek 2005ean kudeatutako aurrekontua baino %12,3 gehiago kudeatu zuten 2006an. Ondorioz, etorkizunari dagokionez baikorrak izan daitezke (erakundeen %44,2k uste du eskura egongo den kopuruak gora egingo duela etorkizunean). Uste horretakoak dira batez ere profesionalizazio maila altuenekoak.

Hitzarmen motaren arabera, berezko hitzarmena dutenak dira diru kopuru altueta kudeatzen dutenak (tamaina handienekoak izatean), guztiaren %60,3rekin. Gizarte ekintza (%17,2) eta Hirugarren adina (%8,3) garrantzitsuak dira ere banaketa honen barruan.

Horrek guztiak azaldu egiten du sektoreko aurrekontu osoaren bolumen oso altua irabazi asmorik gabeko sarearen zati txiki batek kudeatzen duela: langile eta erabiltzaile kopuru garrantzitsua duten erakunde oso profesionalizatuak. Inguruabar horrek argitu egiten du estatutu mailan agertzen den joera: erakunde ugari egon arren, guztietatik gutxi batzuk bakarrik dira baliabide kopuru handia biltzen dutenak, eta horietako asko ezigaitasunaren azpisektorean kokatu ohi dira. Ondorioz, erakundeen atomizazio handia eta erakunde gutxi batzuetan baliabide pilaketa handia agertzen dira aldi berean.

3) Administrazioarekiko duten harremana eta horren inguruan egiten duten batorazioa:

Orokorrean, Administrazioarekiko harremana emankorra da, nahiz eta ohikoagoa den harreman ekonomikoa izatea teknikoa baino. Horrek agerian uzten du erakunde batzuk jasotako fondoan bitartez bakarrik daudela harremanetan Administrazioarekin.

Solaskide nagusiak aldundiak eta udalak dira, jarduera eremu nagusia udalerria eta lurraldea direlako eta gizarte esparruko eskumen gehienak administrazio horien eskuetan daudelako. Eusko Jaurlaritzak eta Gobernu Zentralak batez ere harreman eskasa agertzen dute Gizarte ekintza arloko Hirugarren Sektorearekin –maila teknikoan nahiz ekonomikoan–.

Aitzitik, alde handiak daude Administrazioarekiko harreman ekonomikoaren arabera: harreman sistema modura kontzertazioa edo hitzarmena dutenek harreman positiboagoa dute diru-laguntzen bitartez funtzionatzen dutenen aldean. Izan ere, azken kasu horretan urtea oso aurreratua egon arte ez dute jakiten jarduerak garatzeko fondoak dituzten edo ez eta, ondorioz, lortutako fondo horien zati bat kredituak ordaintzeko erabili behar dute.

Edonola ere, harreman modua edozein izanda ere (kontzertazio, diru-laguntza edo hitzarmen bidez izan), erakundeek ez dute epe luzearako lan ikuspegirik. Ondorioz, benetako zailtasunak izaten dituzte lan talde egonkorak sortu eta mantentzeko, eta zenbaitetan txandakatzeko pertsonal altua bizi izaten dute.

Maila ekonomikoan, kexa edo aldarrikapen nagusiak zerikusia du finantzaketa eskuratzeko zailtasunak sumatzearekin. Horrek etengabeko segurtasun eza eragiten die erakundeei bi arrazoi direla-eta, nagusiki hauek:

- Batetik, diru-laguntzak emateko izaten diren atzerapenak (horrek eragiten du ordainketak irregularrak izatea eta urteak aurrera egin ahala jasotzea, jarduerak zuzendaritza batzordeen ondasun pertsonalekin abalatu behar izateraino ere iritsiz. Are larriagoa da egoera kontuan hartuz gero emandako diruaren zati bat kredituen interesak ordaintzera zuzentzen dela amaieran).
- Bestetik, fondoak esleitzeko epea urtekoa izatea (horiek diru-laguntza, hitzarmen edo kontzertazio bidezkoak izan alde batera utzita). Horrek sektorean txandakatzeko areagotzea ekartzen du, lanean hartutako pertsonen segurtasun falta bizi dutelako eta zaila delako erakundeek aldetik kontratu mugagabeak sinatzea lortzea.

Maila teknikoan argitasun gutxiko irizpideak ikus daitezke hitzarmenak sinatzerakoan –Hirugarren Sektoreko zati baten arabera–. Izan ere, zenbaitetan lehentasunak aldatu egiten dira gobernuan dauden alderdi politikoak (edota pertsonak berak) aldatzearekin batera.

Sektorean diru-sarrera gehienak Administrazioetik datoz, nahiz eta lan baldintzen negoziatzioan agertu ez eta erakundeek barruan ugazaba modura eratzeko oraindik nolabaiteko kontraktotasunak azaldu. Administrazioen eta erakundeek artean elkarrekiko mendetasuna dago, Administrazioak haiek behar dituelako zerbitzu publikoak hornitzeko eta haiek herritarren erakundeek finantzaketa behar dutelako zerbitzu horietarako fondoak lortzeko. Horrek zenbaitetan tentsio egoera sorrarazten du, Administrazioak kostu gutxiagoko zerbitzuak lortzen dituelako, nahiz eta kontrol gutxiarekin, eta Hirugarren Sektoreak zerbitzu ugari kudeatzen dituelako, baina ahultasun edo egonkortasun faltako egoeran.

4) Sektorearen lan esparrua:

Gizarte ekintza arloko Hirugarren Sektorea beste ekoizpen sektore batzuk baino feminizatuago dago, eta emakumeen presentzia nagusitzen da ordaindutako lanean nahiz boluntario gisa eginikoan.

Ordaindutako langileak berezko hitzarmenetara, Gizarte ekintzakoetara eta Hirugarren adinekoetara atxikita daude nagusiki. Bulegoena autoenpleguko nitxo txikiak eta elkarte moduko forma juridikoa duten enpresak biltzen dituen hitzarmena da. Hitzarmenik gabeko erakunde portzentajea ere badago (%13 baino gehiago).

Gizarte ekintza arloko Hirugarren Sektoreak soldata baldintza eskasagoak agertzen ditu orokorrean, ekoizpeneko merkatu pribatuak edo zerbitzuena bezalako beste eremu batzuen aldean. Hala eta guztiz ere, azpisektorearen, hitzarmen motaren eta Administrazioarekiko harremana eratzeko bidearen arabera barne alde handiak sumatzen dira.

Orokorrean, Ezgaitasunaren azpisektoreko erakundeek Gizarte ekintzako azpisektorekoek baino baldintza hobekak dituzte (neurri txikiagoan Hirugarren adina), berezko hitzarmena duten erakundeak direlako (soldata altuagoekin, osasuna zaintzeko plana eta lan arriskuak prebenitzekoa erabat betez, prestakuntza plan zabalak izanez, lanegun orekatuak eta abar), Administrazioarekiko harreman modu egonkorragoekin batera (diru-laguntzei uztartutako harremanak izan gabe, adibidez).

Orokorrean, nagusi diren kontratuak iraupen luzekoak dira, nahiz eta, paradoxikoki, txandakatzeko altua ere badagoen. Horren arrazoia, erakundeek eskaintako baldintzak baino, lanean daudenen etorkizuneko ikuspegia bera izaten da (finantzaketa moduak urtetik urtera ikustean –horrek dakarren ezegonkortasunarekin–, askotan etorkizuna sektoretik kanpo bilatzen dute). Hori bereziki deigarria da Gizarte ekintzaren azpisektoreko erakunde jakin batzuen artean, diru-laguntzen menpekoak direlako.

Gizarte ekintzaren sektorean lan egindako asteko batez besteko ordu kopurua 37,5ekoa da, nahiz eta talde garrantzitsuak dauden gainetik nahiz azpitik. Edonola ere, 31 ordutik 40 ordura bitarteko tarteak lanean hartutako pertsonen %90 hartzen du. Modu berean, urtean lan egindako batez besteko ordu kopuruaren balioa 1.670koa bada ere, lan egiten duten pertsonen talde nagusiak 1.501etik 1.900 ordura doan tarte agertzen dute (ia %74k), nahiz eta urtean 1.500 ordu baino gutxiago lan egindako pertsona talde garrantzitsua ere bada- goen.

Aparteko orduei dagokienez, erakundeen %17,8k onartu egiten dute egiten dituztela baina ordu kopuru eskasean (kontsultatutako erakundeen %64,5ek diote urtean aparteko 200 ordu baino gutxiago egiten dituztela). Inguruabar horren arrazoia, besteak beste, sektorean lana lanbide gisa garatzeagatik edo boluntario moduan aritzeagatik eskaintako dedikazioaren muga lausoa izan daiteke.

Lanaldi ohikoena lanaldi osoa da (sektorean lan egiten dutenen %70ek dute), nahiz eta lanaldi erdiko kontratua dutenak ere esanguratsuak diren (%22,6). Kontratu motan gertatzen ez zen bezala, lanaldi motan alde nabarmenak sortzen dira sexua ren arabera. Izan ere, gizon gehienek lanaldi osoan egiten dute lan (%86,5) –lanaldi erdiko kontratua gutxiengoak du–, eta emakumeek lanaldi erdiko edota ordukako tasa garrantzitsuagoa agertzen dute (%27,6 eta %10, hurrenez hurren).

Sektoreak, normalean, antzinasunagatiko osagarria onartzen die erakundeetan soldatapean lan egiten duten pertsonen (erakundeen %56,5). Hala eta guztiz ere, eztabaida sorrarazten duen osagarria da, ez delako herri-administrazioek finantzaketa ereduetan onartu ohi duten elementua izaten, eta kudeaketa maila batzuetan onura ekonomiko hori kritikatu egiten delako. Ondorioz, ez da ulertzen bere horretan lanari erantsitako balioa izatea, prestakuntza, benetako ekoinpenta eta abar bezalako beste elementu batzuei uztartutako zerbait izan beharrean.

Laneko osasunaren eremuan polarizazio nabarmena dago osasuna zaintzeko eta lan arriskuaren prebentziorako planen dagokienez. Izan ere, erakundeek urteko berrikuspenak egiten dituzte bi eremuetan edo ez da horrelakorik egiten. Erdibidean geratzen diren aukerak ez dira oso adierazgarriak. Oso argi ikusten da tamaina handieneko erakundeak direla bi betebeharrak betetzearena egunerokotasun handiagoz zaintzen dutenak eta tamaina txikienekoak, berriz, zailtasun gehien dutenak.

Laneko baja ohikoenak aldi baterako laneko ezintasunarenak dira %64rekin. Atzetik amatasunekoak (%22) eta lan istripuena (%14) ditu. Baja egitura hori sektoreak berezkoak dituen baldintzen arabera da: eskakizun fisiko handiko lanbideak (Hirugarren adinean eta Ezgaitasunean, adibidez), eskakizun psikiko handikoak (Gizarte ekintzan, besteak beste), baita emakume eta gazte asko ere. Orokorrean, konplexua izaten da baja betetzea, bai baliabide ekonomikoak falta izateagatik, bai lanpostuen eskakizunak ugariak eta espezializazio maila altukoak izateagatik.

Egindako prestakuntza txikia da, bai eskaintza zehatza falta izateagatik, bai kostuagatik. Edonola ere, prestakuntza prozesu estandarizatuenak tamaina handieneko erakundeetan eta Ezgaitasuna eta Hirugarren adina azpisektoreetan kokatzen dira, tamainagatik, epe luzearako aurreikuspen eta plangintza gaitasunagatik eta prestakuntza eskaintza egokiagatik.

Erakundeek ez dute enpresa kulturarik (eta ez dute paper hori hartu nahi kasu askotan) eta langileek ez dute kultura sindikalik (haien afiliazio maila oso baxua da, nahiz eta gorantz doan). Ordezkaritza sindikalaren irudia ez da ohikoa erakunde profesionalizatuetan, nahiz eta gorantz doan. Hala eta guztiz ere, Hirugarren Sektoretik kritikatu egiten da sindikatuak berandu agertu izana eta oraindik benetako funtzionamenduaz jabetu ez izana. Sindikatuetatik, aldiz, sektore jakin bateko lan eskubideetan bereizketarik ezin dutela egin diote, langile guztiei horiek bermatu behar izanez.

Erakundeetako barne sustapena ez dago estandarizatuta, eta ez da protokolo bidez zehaztutako irizpideekin gidatzen. Egoera hori, neurri batean, erakundeen jatorriagatik jazotzen da, eta beste neurri batean haien tamainagatik. Izan ere, antolamenduari dagokionez nahiko lauk diren erakundeak dira, gehienez ere hiru maila agertuz tamaina handieneko erakundeetan.

Datu horiek, eta txostenak aztertzen dituen beste askok, sektorearen ikuspegi zehatza eskaintzen dute, baita azpi-sektore bakoitzarena ere. Hala ere, Arartekoaren ikuspegiak interesgarria deritzogu, laburpen moduan, sektorearen baldintzatzaile nagusiak diren elementuak azpimarratzea eta, beraz, zerbitzuaren kalitateari edo erabiltzaileen edo profesionalen eskubideei eragiten dietenak.

Sei gai garrantzitsuren inguruan laburbil ditzakegu.

• **Sektorean azpimarragarrien eta baldintzatzaile diren elementuak**

1. Azpimarratu beharreko lehenengo gauza sumatutako egoera aniztasun handia izan behar da:

- erakunde bakoitzak hartutako biztanleriaren sektorearen arabera da (ez-gaituak; bazterkeria arriskuan dauden pertsonak; hirugarren adina; etorkinak; toxikomaniak...);
- baliabideak zein lurraldetan kokatzen diren edo horiek diruz laguntzen dituen administrazioa zein den gorabehera egoera ezberdina da;
- egoera ezberdina da ere erakundearen tamainaren, haren historiaren, profesionalizazio mailaren, negoziazio gaitasunaren... arabera.

Hiru ezaugarri horiek aztertutako gai guztiei eragiten diete ia, kontuan hartu diren ia lan baldintza guztiei: egonkortasuna lanean, egoera ekonomikoa, lan ordutegiak eta abar.

Eta beharrezkoa da hori guztia azpimarratzea, txostenak berak eta, batez ere, haren gomendioek duten zailtasun nagusienetako bat delako: erakunde jakin batentzat onargarria edo presazkoa dena, izan liteke beste erakunde batek aspaldi gainditutakoa izatea. Aniztasuna da, beraz, sektore osoa definitzen duen ezaugarririk azpimarragarriena.

2. Baliabide kopuru esanguratsurako berezko baliabideak lortzeko behar besteko gaitasuna duten erakunde oso indartsu edo azpisektore batzuk izan ezik, orokorrean erakundeak finantzaketa publikoaren mendekoak dira. Ondorioz, finantzaketaren baldintzak nolakoak izan, horrelakoak izango dira ere bertan lan egiten duten profesionalen lan baldintzak.
3. Nahiko eskala argia dago finantzaketa sistemetan, diru-laguntzetatik (urtekoak normalean, eta kopuru baxuagoekin) hitzarmen eta kontratuetaraino joanez (normalean segurtasun handiagoa eta kopuru hobeak eskainiz; zenbaitetan, eskainitako zerbitzu osoaren kostuak estaltzera ere irits daitezke). Urteko diru-laguntzei esker bizi denak hitzarmen edo kontratu egonkorragoa lortu nahi du; hitzarmena edo kontratua duenak, sektore publikoaren baldintzak berdindu nahi ditu.
4. Programek edo baliabideek diru-laguntzen bidetik jasotzen badituzte laguntzak bereziki, oso ohikoa izaten da laguntza (neurri batean edo beste batean) ematen duten administrazioak bat baino gehiago izatea: aldundiak, udalak, Eusko Jaurlaritzaren sail ezberdinak... Normalean lan eremuak izaten dira (adibidez gizarte bazterkeriaren aurkako borroka), eta horietan administrazioak dituen eskumenak ez dira behar beste argiak izaten. Ondorioz, aurrekontu konpromisoak ez dira hain nabarmenak

ere izaten. Ondorioz, erakundeek urtero bilatu behar dituzte finantzaketa iturriak eta horrek etengabeko zalantzan mantentzen ditu programak.

Horri administrazioaren jardun txarra eransten badiogu –erakunde honek lehen ere salaturikoa eta gomendio orokorren baten xede ere izandakoa–, adibidez urteko deialdien ebazpena eta ordainketak urtean oso aurrera eginda egitea (horixe gertatu da deialdi batzuetan aurten bertan), erraz imajina daiteke erakunde batzuen ezegonkortasuna eta zailtasunak nolakoak diren programak eta zerbitzuak mantendu nahi badituzte.

5. Zerbitzu jakin bat finantzatzeko edo diru-laguntza edo hitzarmen edo kontratu bidez laguntzeko dauden arrazoiak ez dira beti argiak izaten, ezta baliabide bat X administrazioak %50ean finantzatzeko eta beste hura %20 edo %30ean bakarrik finantzatzeko dauden arrazoiak zeintzuk diren ere (funtzio berdinak beteta ere).

Lehenengo kasuan, finantzaketarako bide bat edo beste aukeratzeak zerikusi zuzena du kasuan kasuko administrazioak zerbitzua emateri dagokionez duen konpromiso edo erantzukizun mailarekin. Beste kasuan (administrazio jakin batek gain hartutako kostuaren ehunekoa), badirudi hainbat faktoreren eragina dela kontua, adibidez, urte horretarako dagoen aurrekontu kopurua edo deialdi edo ibilbide horretarako dagoena, edo erakundeen negoziazio gaitasuna.

Egoera hori argi geratzen da gizartearen eremuan “zerbitzu sorta” falta izateagatik, horrek argi ezarriko lukeelako zein baliabide edo programa hartzen diren beharrezkotzat eta zeintzuk diren administrazio bakoitzari egokituriko erantzukizunak.

6. Orain arte sektorearen ardurapekoak baino administrazioen ardurapekoak diren Gizarte ekintzaren baldintzatzaile batzuk adierazi eta azpimarratu baditugu ere, komenigarria da aldi berean txosten honek sektorean bertan sumatutako “ahultasun” batzuk ere gutxienez azpimarratzea. Adibide modura hurrengoak egongo lirarteke: erakundeen euren kudeaketa gaitasuna, profesionalizazio maila edo kontrataturiko profesionalen eta erakundearen zuzendaritza batzordearen arteko harremanak, beti atseginak izaten ez direnak.

Logikoki, txostenaren gomendioek –legeriak Arartekoari emandako funtzioekin bat etorri– arreta emango diete erakunde publikoei dagozkien hobekuntzei, baina komeni da ez ahaztea beharrezkoa dela ere hobekuntzak sartzea erakundeen antolamendu edo praktketan bertan.

• **Gomendioak**

Gure gomendioak, arestian adierazi dugunez, erakunde publikoei dagozkien hobekuntzetan biltzen dira. Txostenean, zehazki, tartean diren administrazioei zuzendutako hamahiru gomendio bildu ditugu edo, nahiago izanez gero, hamabi gomendio, eta baita sektoreari berari

edo beste gizarte eragile batzuei zuzendutako bukaerako iradokizun batzuk ere. Laburki gogora ekarrita, honako hauek dira:

1. sektorearen etorkizunerako funtsezko gaia erabat.
2. Arartekoak ohiko hainbat txostenetan egin duen gomendioa.
3. Erabiliko den finantziario bidearekin oso lotuta dagoen gomendioa (diru-laguntzak, hitzarmenak edo kontratuak).
4. Egun lurraldeen eta/edo azpisektoreen artean dauden aldeak gutxitzea.
5. (adibidez, lan-arriskuen prebentzioari, datuen babesari edo euskalduntzerako laguntzei buruz ari gara).
6. Langileen prestakuntza iraunkorra bultzatzea.
7. Bereziki altua dena zenbait azpi-sektoretan.
8. Fenomeno berri xamarra baina eragin handia duena zenbait sektoretan, hirugarren adinean, esaterako.
9. Praktika egokiak ebaluatu eta barreiatzea.
10. Plan eta ebaluazio publiko eta parte-hartzeak bultzatzea.
11. Guztiz beharrezkoa kontrako erreakzioen aurrean, adibidez, gutxiagotutako populazioari zuzendutako baliabideak sortzearen inguruan.
12. Boluntario taldea bultzatu eta haren alde egitea.
13. Sindikatuen paperari eta beste erakundeek sektorean duten parte-hartzeari dagokionez, bankuen gizarte ekintzak, adibidez.

Gomendio guztiak -hamahiruak- beharrezkoak iruditzen zaizkigu. Baina Eusko Legebiltzarrean egin zuen aurkezpenean, Arartekoak bereziki nabarmendu zuen lehenbiziko gomendioa, garrantzitsua delako eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen Proiektuaren tramitazioa zein unetan zegoen kontuan hartu zuelako.

Txostenak agertzen duen moduan, Administrazioak zerbitzu bat publikotzat jotzeak eta beste bat horrela ez hartzeak eragin handia du zerbitzu kudeatzen duen erakundearen lan baldintzetan eta langileen lan baldintzetan. Administrazioaren ustez, bere erantzukizuna handiagoa da zerbitzu publikoak edo zerbitzu publikoei osagarriak zaizkienak kudeatzen dituzten erakundeetan (kontratazioa eta hitzarmena), eta txikiagoa, aldiz, beste baliabide batzuk kudeatzen dituzten horietan (diru-laguntzak). Kasu honetan, erakundearen euren erantzukizuna dela uste du zerbitzuaren kostua estaliko duen finantzaketa izatea.

Arazoa da, kasu askotan, bereizte hori argia ez dela, ez dagoela argi definituta.

Ararteko erakundeak uste du egoera hori gainditu egin behar dela (osasunarena edo hezkuntzarena bezalako beste zerbitzu batzuekin egiten den modura) gizarte eremurako zerbitzu multzoa ezarriz, eta, ondorioz, kasu bakoitzean Administrazioak gain hartutako erantzukizunak argituz. Hori da txostenaren lehenengo gomendioan eskatzen dena. Horren haritik, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea oraintsu onartu izanak eta etorkizunean izango duen garapenak urrats erabakigarria izan behar dute, erakunde honen iritziz, adierazi duguna lortzeko eta, beraz, sektore horretako baldintzak hobetzeko. Hori datozen urteetan egingo diren jarraipen-lanek egiaztatu beharko dute.

2. 2008. URTEAN EGITEN ARI DIREN TXOSTEN BEREZIAK

2008. urtean zenbait txosten berezi egiten hasi gara eta aurrerapenak egin ditugu lehendik hasitakoetan.

- Terrorismoaren biktimei buruzko txosten berezia.
- Adingabeei balioak transmititzeari buruzko txostena.
- Pertsona transexualen edo transgenerikoen egoerari buruzko txostena.
- Nerabeei eta drogei buruzko txostena.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzko txostena.

1) EAEn **terrorismoaren biktimen egoerari eta beharrei** buruzko txostena amaitzear dago eta 2009. urteko lehenengo hilabeteetan aurkeztuko da.

Txostenak terrorismoaren biktimen egoerari emandako erakundeen erantzuna aztertu du, 2003, 2005 eta 2007ko Eusko Legebiltzarreko zenbait hitzarmen eta Terrorismoaren Biktimei Aintzatespena eta Kalte-ordainak eskaintzeko ekainaren 19ko 4/2008 Lege garrantzitsua oinarri hartuta.

Txostenak "jazarpen indarkeria" deiturikoa ere hizpide du. ETAk mehatxatutako zenbait taldeetako kide diren herritar asko indarkeria horren pean daude.

Azterketa kualitatiboa talde horietako kide diren pertsonen egindako elkarrizketak eta elkarrizketatuak izatea onartu zuten pertsona askok osatu duten lan taldeetik ateratako ondorioak oinarri hartuta egin da.

2) **Adingabeei balioak transmititzeari** buruzko txostena ia amaitua dago eta 2009ko lehenengo seihilekoan argitaratu ahal izango da.

Oso txosten zabala da. Izan ere, informazioa zenbait adin tartetan bildu da (8-10 urte; 10-12 urte; 12-16 urte) eta gai asko jorratu dira: teknologia berrien erabilera; balioak transmititzeko zenbait gizarte eragileren zeregina; ingurumena, indarkeriaren erabilera edo desberdintasunak onartzea eta errespetatzea jatorri eta sexuaren arabera eta abar bezalako gaietan balioak eta kontrabaloreak.

Egoera aztertzeak sortutako gomendioak eskaintzeko bidea emango du, familiaren, hezkuntza sistemaren edo hedabideen esparruan beharrezkoak diren hobekuntzak sartzeko, balioak transmititzeko gakoak.

3) **Pertsona transexualen edo transgenerikoen egoerari** buruzko txostena ere oso aurreratua dago. Gai hori erakundeentzako ia guztiz ezezaguna da.

Egoera honen inguruan informazio nahikoa lortzeko zailtasuna azpimarratu behar da. Zailtasun hori elkarte munduaren eta transexualek eta beren familiek emandako testigantza laguntzari esker gainditu da.

4) **Nerabeei eta drogen eta alkoholaren kontsumoari** buruzko txostenari dagokionez, Eusko Legebiltzarrak eskatutako lana da.

Gai honen inguruan ikerketa asko egin ditugu, horietako asko duela gutxi eta horrek datu eguneratuak izateko aukera ematen du. Arartekoaren txostenean horietako datu asko aztertu dira baina, batez ere, gure erkidegoan prebentzioaren alorrean

burutzen diren erakundeen jarduketak aztertu nahi dira eta emaitzak balioetsi eta egokiagotzat joko diren jarduketa bideak proposatu nahi dira.

Hasiera batean, txostena 2009. urteko erdi alderako amaitua egongo litzateke.

- 5) 2008. urte amaieran, **oinarrizko gizarte zerbitzuei** buruzko txostena egiten hasi da. Horrek, nolabait, Arartekoak duela hamar urte egin zuen zerbitzu horiei buruzko txostenaren jarraipena eta eguneratzea izan nahi du.

Oraingoz Eudelekin bilerak izan dira, gure erkidegoko oinarrizko unitate guztietara galdera-sortak bidali dira eta erantzunak jasotzen ari dira. 2009an bildutako datu guztiak aztertuko dira, hiru lurraldeetan zenbait zerbitzuri bisita egingo zaie eta txostena egiteari ekingo zaio. Txosten hori segur aski ezin izango da argitaratu 2010. urtera arte.

ararteko

V. ATALA

GIZA ESKUBIDEAK
ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE
ZIBILAREKIN NAHIZ ESKUBIDEAK
BERMATZEKO ERAKUNDEEKIN
HARREMANAK IZATEKO KULTURA
SORTZEN LAGUNTZEN DUTEN
BESTE JARDUERA BATZUK



1. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

1.1. TALDEEKIN, ELKARTEEKIN ETA GIZARTE-ERAGILEEKIN LANKIDETZAN JARDU-TEKO HARREMANAK

Elkarteei dagokienez, Arartekoak 2008. urtean burutu duen jarduerarik azpimarragarriena, ziurrenik, *Gizarte ekintza sektoreko lan baldintzak* izenburuko txostena argitaratzea izan da. Txosten hori ekainaren 11n eman zitzaion Eusko Legebiltzarreko lehendakariari eta eza-gutarazi zen jendaurrean, eta urriaren 30eko bileran eztabaidatu zen Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean. Horren laburpena eskaintzen da urteko txosten honetan bertan (IV. kapituluan).

Aipaturiko txostena prestatzeak badu zerikusia, nolabait, urteetan zehar elkarteekin izan ditugun lankidetzaharremanekin, izan ere, harreman horietan, askotan azaldu diote erakunde honi elkarteek, zenbaitetan, eskasia-egoeran edo segurtasun ekonomikorik gabe egiten dutela beren lana. Egiaz, hainbatetan, elkarteekin izandako harremanak haien funtzionamendu arazoak jasotzeko ere balio izaten du: oztopoak aurkitzen dituzte beren lana burutzeko, beraien arteko koordinaziorako mekanismoak eta lankidetzaren egonkorrerako bideak finkatzeko, beren programekin jarraitzeko, erakundeekiko topaguneak izateko, erakunde planetan, egitarauetan edo arauetan parte hartu edo ekarpenak helarazteko...

Aurreko txostenetan gai horiei buruz ari izan gara, proposamenak egin edo zenbait ekimen nabarmendu ditugularik: diru-laguntzak urtero gainditzea, elkarteekin eta erakundeekin baterako foroak ezartzea, hala nola, etorkinak gizarteratzeko Foroa, Sasoikakotasunari buruzko erakundearteko Mahaia eta ijito herriaren partaidetzarako Kontseilua, Boluntarioei buruzko Legea; alde bakoitzaren lankidetzaren hitzarmenetako erantzukizunak argitzea, ... Gizarte ekintza sektoreko lan baldintzei buruzko hurrengo txostenak arazo horietako batzuk sakon aztertuko ditu eta irtenbideak proposatuko ditu.

Hori egiteko, sistematikoki bildu behar izan da sektore izugarri anitz eta sakabanatu horri buruzko informazioa. Egiaz, gizarte ekintza sektoreko lan baldintzei buruzko txostena egiteko, galde-sortak 900 erakunderi bidali zaizkie (erakunde horietatik gehienak elkarteak edo fundazioak ziren), erakunde horietatik 293k osatutako laginaren erantzunak ustiatu dira eta multzo horretatik 55 erakundetako ordezkariak hartu dute parte lurralde guztietan eratutako

eztabaida-taldeetan. Erakunde horien zerrenda txosten berezi horretan bertan agertzen da eranskin gisa eta, beraz, ez da beharrezkoa atal honetan berriz idaztea (ikus aipaturiko txostenaren II. eranskina).

Txostena, normala denez, jendaurrean ezagutarazi ostean, elkarteei ere helarazi zaie, erakunde bakoitzari liburuaren zenbait ale bidaliz eta antolatu diren foroetan (adibidez, Gizardatzek edo Zorroaga Fundazioak antolaturikoetan) jendeari txostenaren edukiak eta proposamenak azalduz. Bestalde, txostenean egindako 13 gomendioak betetzen diren jakin ahal izateko, Arartekoak beste jarduera batzuk burutu beharko ditu eta harremanetan jarraitu beharko du sektore garrantzitsu horretako erakundeekin.

Era berean, 2008. urtean Arartekoak beste txosten berezi bat argitaratu du, oraingoan eremu soziosanitarioari buruzkoa. Txosten horrek zerikusi zuzena du sektore honen zati handi batekin eta, hori ere, gure erkidegoko elkarte guztiei helarazi diegu.

Baina bi txosten horietan bildutako jarduera berezi horietaz aparte, eta lehenbiziko txostenean bereziki, Ararteko erakundeak gizarte eragileekiko harremanak lantzen jarraitu du 2008. urtean, bere ohiko jardueran. Bereziki, baztertuta dauden pertsonen laguntzen edo gizarte arazo askotarikoak konpontzen jarduten duten talde, elkarte eta erakundeekikoak. Honako taldeok dira: giza eskubideak babesteko taldeak, atzerritarrei, askatasunik gabe edo baztertuta daudenei laguntzekoak, gaixotasun jakin batzuk dituzten pertsonen senideak, etxebizitzarik gabeko pertsonak...

Aurreko txostenetan ere adierazi bezala, Arartekoarentzat eta beste erakunde bermatzaile batzuentzat, elkarteek eta talde antolatuek benetako gizarte antena gisa jardun dezakete: bestela oharkabean pasa daitezkeen arazoak eta egoerak detektatu eta ezagutarazi ahal izateko sentsoreak.

Urte hauetako esperientziak erakutsi duenez, elkarte eta talde asko gure gizartean baztertuta dauden edo bereziki zaurtu ahal diren sektoreen eta Arartekoaren eta antzeko erakundeen arteko funtsezko bitartekariak izan daitezke. Beraiek direla bitarteko, haiek hobeto ezagutu ahal dituzte beren eskubideak eta gatazkak konpontzeko bideak. Beren aldarrikapenak adierazten lagundu ahal diete. Izan ere, herritarrei zerbitzua arretaz egiteko eskatu ahal diete administrazioei. Horrela, erakundeenganako konfiantza eta gizarte kohesio handiagoa ahalbide daiteke.

Gure erkidegoan talde, elkarte eta erakunde asko daude eta hori gizarte bizitasunaren seinalea da, baina, aldi berean, haiekin guztiekin lankidetzarako harreman egonkorrak edo izan nahi dituenarentzako erronka ere bada. Horregatik, gure kasuan eta mugak kontuan harturik, lankidetzarako gogo hori urtean zehar zenbait bide osagarriren bidez gauzatu da:

- aurretik harremanak genituen talde askorekin harremanetan jarraitzea, hori posible izan denean;
- beren arazoak eta proposamenak guri azaltzeko gogoaz azaldu duten edo Arartekoarekin bildu nahi dutela adierazi duten talde eta elkarteei baiezkotzea;

- harreman berriak finkatzen hastea, sektore bereziki ahulekin lan egiten duten talde jakin batzuekin edo une horretan aztertzen gabiltzan sektoreen arazoekin zerikusia dutenekin;
- antzeko interesak edo jarduera-eremuak (espetxeak, buru gaixotasuna, inmigrazioa...) dituzten elkarten arteko koordinaziorako plataformak edo federazioak daudela aprobetxatzea.

Horrela, 2008an Ararteko erakundeak lankidetzaharreman biziak edo izan ditu hurrengo elkarte, erakunde edo gizarte taldeekin:

- Abokatuen elkargoen kartzeletako laguntzarako txandak (TAP)
- Adimen Ezintasuna duten Pertsonen Aiarako elkarte (APDEMA)
- ADSIS-Bestalde
- Agarre bizirik
- Agiantza
- AGIPASE (Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkarte)
- Aiarako Eri Psikiko eta Senideen Elkarte (ASASAM)
- Aiarako Pertsona Ezindu Fisikoen Elkarte (APEFE)
- Alargunen Euskal Federazioa
- Alcohólicos Anónimos
- Alzheimerra duten gaixoen senideen Arabako elkarte (AFADES)
- Amarena
- Animalien bizitzaren aldeko elkarte
- Arabako buru-gaixoen babes fundazioa (Usoa)
- Ariznabarra erresidentzia erabiltzen duten pertsonen senideen elkarte
- Arrats
- Askabide
- ASPACE
- ASPACE (Garun-perlesia duten Pertsonen Laguntzeko Elkarte)
- ASVIAMIE (Amiantoaren biktimen Euskadiko elkarte)
- ATEA (Animaliak etikaz tratatzeko elkarte)
- Atxilotuta edo preso dauden pertsonen senideak, hainbat lekutakoak
- Atzegi babes fundazioa
- AVAFAS (Fibromialgia eta Abstenia kronikoa duten Pertsonen Euskal Elkarte)
- AVAIM (Tratu txarrak jasandako haurrei laguntzeko euskal elkarte)
- Baikara Federazioa
- Bakeaz
- Baketik
- Behatokia
- Beren herrietako arazoak ezagutzera emateko edo lankidetzaharreman barruan gure herria bisitatzen duten beste herri batzuetako pertsona-taldeak
- Beroa (Gipuzkoako harrera-familien elkarte)
- Beroa babes fundazioa
- Berriztu
- Beti Gizartean Federazioa

- Bidasoaldeko Emakumeak
- Bidesari – Kartzelako Pastoraltza
- Bilbo-Etxezabal
- Bizgarri
- Bizitegi
- Biztanle Afroamerikarren Elkarte
- Bularreko minbiziari buruzko elkarteak (Bizkaikoa eta Arabakoa)
- Buruko osasuneko euskal elkarte
- Caridad-Conde Aresti Bizkaiko Fundazioa
- Cáritas
- CEAR (Errefuxiatuari laguntzeko Batzordea)
- DEE
- Dianova
- DISLEBI
- Down sindromearen Euskal Herriko Fundazioa
- Drari
- Droga Gehiegi Hartzea ikertzeko eta prebenitzeko Gipuzkoako Elkarte (AGIPAD)
- EDE Fundazioa
- EDEX Fundazioa
- Eginaren eginez
- Egunabar
- Ekimen
- Ekimen Ijitoa
- Elkarbanatuz
- Elkartu
- Emaús
- Errehabilitazio Psikosozialerako Elkarteen Espainiako Federazioa
- Etorkintza Fundazioa
- Etxerat
- Euskadiko Terrorismoaren Biktimen Elkarte (COVITE)
- Euskal Gorrak
- FEDEFES (Buruko Gaixoen Senideen Elkarteen Euskadiko Federakundea) eta federakunde horren barruko elkarteak (AVIFES, AGUIFES, ASASAM, ASAFES)
- FEKOOR (Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea)
- Fernando Buesa Fundazioa
- FEVAPAS (Gorren Guraso eta Lagunen Elkarteen Euskal Federazioa)
- FEVAS
- Gao Lacho Drom ijito elkarte
- Gaztaroan Ekin
- Gazte Justiziaren Nazioarteko Behatokia
- Gazteleku
- Gernika Gogoratuz
- Gesto por la paz
- GGEBE-ADDSI (Gaixo dauden presoek eskubideak babesteko elkarte)
- Gipuzkoa eta Arabako Gurutze Gorria

- Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien elkarte (ARANSI)
- Gizabidea
- Gizakia
- Gizardatz (Bizkaiko Ekimenerako eta Gizartean Esku Hartzeko Erakundeen Elkarte)
- Gizarterako
- Goiztiri
- Gorabide Babes Fundazioa
- Gurasoak
- Gure Erkidegoko ikastetxeak
- Hainbat arazo dituzten ikastetxeetako guraso taldeak
- Hainbat ikastegi, fakultate eta eskolatako ikasleen taldeak
- Hainbat ikastetxe publikotako ikasleen gurasoen elkarteak eta federakundeak
- Hainbat ikastetxetako eskola-kontseiluak
- Hainbat lekutako oinarritzko gizarte zerbitzuetako profesionalak
- Hainbat sindikatu, kolektibo eta lanbide elkarte
- Harresiak Apurtuz (Etorkinei laguntzeko GKEen koordinakundea, honako hauek osatua: CEAR, Bilbo-Etxezabal, Cáritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, Munduko Medikiak, Satalur, Senegaldarren elkarte, Etorkinekin Bat, e.a.)
- Hartu-emanak (Etengabeko ikaskuntzarako eta gizarte partaidetzarako adineko pertsonen elkarte)
- Hartutako Kalte Zerebralaren Elkarte (ATECE)
- Haur Onkologikoen Gurasoen Elkarte (ASPANOVA)
- Haurren elkarten plataforma (POI)
- Hegaldi emakumeen elkarte
- Hegoa
- Herri kulturako zentroak
- Hezilan
- Hezkuntza Zerbitzuak (berritzeguneak, hezkuntza bereziko zerbitzuak, udal zerbitzuak, Bizikidetza programa...)
- Hirigintza-planek, ingurumen arazoek eta zerbitzu sareko hutsek kaltetutako herritarren elkarteak eta erkidegoak: Alde Berri eta Txabarri Garbi (Sestao), Andra-Mari (Getxo), Mairuko esplotazio turistikoaren kontrako herri kolektiboa, Haritzalde elkarte naturzalea eta Parkea bizirik Plataforma (Donostia), Torrolate (Labastida), Sendoa Getxoko garraio elkarte...
- Hiru lurraldeetako hiesaren aurkako herritar batzordeak
- Hirugarren Ordenako Gizon Kaputxinoak
- Hizkuntz Eskubideen Behatokia
- Hogar Mary Ward
- Hondarribiko Alardeko talde parte-hartzaileak (Alarde Zaleak)
- Hontza (drogaren mendeko pertsonen laguntzeko zentroa)
- Hurkoa babes fundazioa
- Hurkoa Fundazioa
- Ijitoekin harremana duten irakasleak
- Ijitoen Kontseiluko erakunde ijitoak
- Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak

- Industri Ondareari buruzko elkarteak
- INGEMA (Matia Erakunde Gerontologikoa)
- Intered Fundazioa
- Itaka-Escolapios Fundazioa
- Ixuri
- Izan Fundazioa – Gizakia Helburu
- Izangai
- Izate ingurugiroaren taldea
- Jaizkibel Konpainia
- Kalé dor Kayikó
- Kartzelako Pastoraltza
- Kidetza
- Kontsumitzaileen elkarteak
- Lagun Artean
- Lanberri
- Landalan
- Laneratzen eta Gizarteratzen laguntzeko Bizkaiko eta Gipuzkoako Sarea (RAIS)
- Lantegi Batuak
- Lea-Artibaiko jubilatuen elkarteak
- Loiolaetxea elkarteak
- Lur gizen
- Lurralde guztietako Cáritas
- Lurraldeetako abokatuen elkargoak
- Lurraldeetako Birgizarteratze Institutuak (IRSE)
- Lurraldeetako SOS-Arrazakeria
- Lurraldetako Salhaketa
- Martxoaren 3ko biktimen elkarteak
- Matia fundazioa
- Mejora Fundazioa
- Mendiak lau haizetara
- Mugarik gabe
- Munduko medikuak
- Nazioarteko Amnistia
- Nuestra Madre de los Desamparados Gizarte Ekintza
- Nuevo Futuro
- Oblatas del Santísimo Redentor kongregazioa. Bilboko komunitatea – Oblatas Leihobaliko Zabalik
- Ohianka elkarteak
- ONCE
- Ostatu
- Pantallas Amigas
- Parkea Bizirik plataforma
- Peñascal Fundazioa
- Pertsona atxilotuei laguntzeko taldeen plataforma
- Posada de los abrazos. Besarkaden ostatua.

- Presoei Laguntzeko Elkarte (ADAP)
- San Andres egoitza
- San Vicente de Paul Elkarte
- Sarea Fundazioa
- SARTU Federazioa
- Save the Children
- Secretariado General Gitano Fundazioa
- Siervas de Jesús de la Caridad kongregazioa
- Sortarazi
- T-4
- TAT (Torturaren Aurkako Taldea)
- Torturaren aurkako elkarteak eta taldeak
- Transexualidad Euskadi
- Txingudi Bizirik plataforma
- Txingudiko erraustegiaren aurkako medikuen plataforma
- Ume Autisten Gurasoen Bizkaiko Elkarte (APNABI)
- UNICEF-Europako Ordezkaritza (Innocenti Institutua)
- UNICEF-Euskadi
- Urgatzi
- Vicente Abreu Fundazioa
- Zorroagako Patronatua Fundazioa
- Zubietxe
- Zubiko

Kasu askotan (elkarteen eskabideetarako erantzuna, talde batekiko harremanak hasia edo koordinaguneak egotea) harremanak zuzenekoak izan dira eta topaketa edo bileraren bat ekarri dute, edo beraiek kudeaturiko zentro edo zerbitzu batera egindako bisita. Beste batzuetan, esate baterako, aurreko urteetan hasitako harremanek irautean edo kasu zehatza kudeatzean, haien iraupenak ez du beti bilera berririk ekarri; batzuetan nahikoa izan da ahozko edo idatzizko informazio-trukeak egitea, edo ekitaldiren batean parte hartzea, edo materialak edo agiriak bidaltzea...

Hortaz, modu batera edo beste batera, bide batzuk edo beste batzuk erabilirik, aipatutako mugak gorabehera, azken urtean taldeekin, elkarteekin edo erakundeekin lankidetzarako formula, material eta informazioen trukeak edo bilerak izan dira, hurrengo jardueraren eremuan:

- gure Erkidegoko zentroetan espetxeratuta dauden pertsonen giza eskubideen defentsa eta beraientzako arretarako programak garatzea;
- ezgaitasunen bat duten pertsonen giza eskubideak ematen dien erantzuna;
- atzerritar jatorriko pertsona etorkinak gizaratzea;
- ijito taldearen beharrezko zehatzekiko planteamendua eta erantzuna;
- buruko gaixotasunak dituzten pertsonen eta beraien familiei laguntza eta arreta ematea;
- buruko gaixotasunak dituzten pertsonak babestea;
- ezinduen eta familiaren laguntzarik ez duten pertsonak babestea;

- pertsona atxilotuak kartzeletatik atera edo hurbil daitezela lortzea;
- terrorismoaren biktimenzako arreta edo haien eskubideen defentsa;
- hezkuntza-beharrizan bereziei erantzutea;
- babesturik ez dauden eta legea urratzen duten adingabeak zaintzeko zerbitzuak kudeatzea;
- hezkuntzarako eskubidea defendatzea;
- hizkuntz eskubideak defendatzea eta euskara erabiltzea;
- droga-mendekotasunari buruzko arazoak dituzten pertsoneri arreta ematea;
- hirugarren munduko herriak garatzen laguntzea eta haiekiko elkartasuna;
- etnia gutxiengoak eta bazterreko taldeak gizarteratzea;
- zona bereziki deprimituetako gizarte kohesioa eta haiek suspertzea;
- bakezaletasuna eta gatazkak elkarriketa bidez konpontzea;
- emakumeen eskubideak babestea;
- tratu txarrak prebenitzea eta tortura-egoerak salatzea;
- baztertutako eta famili laguntzarik gabeko pertsonenganako gizarte eta osasun arreta;
- hainbat talde profesionalen defentsa;
- gune publikoetara sartzeko erraztasuna;
- gaixotasun ezberdinak dituzten pertsonen arreta edo defentsa;
- gizarte bazterkeria larriko egoeren prebentzioa eta etxerik gabeko pertsonentzako arreta;
- ezgaitasunen bat duten pertsoneri laguntzeko baliabide berrien erabilera;
- eskubideen urratzeak salatzea nazioarteko eremuan;
- ingurumena defendatzea;
- memoria eta biktimen oroitzapena;
- arrazakeria eta diskriminazioa eragotzi eta salatzea;
- adinekoek gizarte bizitzan parte hartzea;
- haurren eskubideak;
- proiektu edo jarduerak eragindako auzokide elkarten eskubideak;
- babesik gabeko nerabeak hartzea;
- justiziarekin arazoak dituzten nerabe eta gazteentzako arreta;

Zenbait kasutan, elkarrekin lankidetzan Ararteko erakundeak berak egindako lan monografiko batzuetan finkatu da eta haietan hasi zen, bere garaian.

Esate baterako, etxerik gabe edo larriki baztertuta dauden pertsonentzako arretari buruzko txostena egiteko, lankidetzan aritu ahal izan dugu zerbitzuak (hala nola ostatuak, jantokiak edo gizarteratzeko tailerrak) kudeatzen dituzten elkarte edo erakunde gehienekin (Agiantza, Askabide, Elkarbanatuz, Bidezari, Bizitegi, Beta, Ostatu, Goiztiri, Zubietxe, Izangai, Cáritas, Lagun Artean, Emaús, RAIS, erlijio kongregazio ezberdinak, etab.). 2008an, txosten horren jarraipena egiteko bide gisa, biztanle talde honentzako arreta eskaintzen diharduten 45 elkarteak Ararteko erakundeak lurraldeetako bakoitzean antolatu zituen bileretara gonbidatu ziren. Bilera horietan elkarte horietako asko izan ziren.

Halaber, bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerari buruzko txostena egiteko, etengabe harremanak izan ditugu harrera-baliabideak kudeatzen dituzten edo adingabeak gizar-

teratzen laguntzen duten erakundeekin (Gurutze Gorria, Nuevo Futuro, Hirugarren Ordenako Gizon Kaputxinoak, Landalan, Salestarrak, Harresiak Apurtuz koordinakundea, Urgatzi, Goiztiri, Ixuri...).

Askoz ere lehenagoko txostenei dagokienez, lankidetzeta-mota horrek, informazioa lortzekoa eta guk zehazki aztertutako gaiari jarraitzekoa askotan izan denak, eremu askotan iraun du urtean. Eremu horien artean honakook ditugu: buruko gaixotasunen arreta komunitarioa (AVIFES, ASAFES, ASASAM, AGUIFES, FEDEFES); kartzelan dauden pertsonentzako laguntza (ADSIS-Bestalde, Etorkintza, Izangai, Gizakia Helburu, Bilbo-Etxezabal, Kartzelako Pastoralta, Hegaldi...).

Beste batzuetan, elkarrekin harremanak elkarrekin antolatutako ekitaldietan edo foro zehatzetan batera parte hartzeari esker izan dira, edo kexa jakin batzuk tramitatzearen edo arazoren bat konpontzeko jardueraren kariaz, edo agiriak eta materialak elkarri trukatu.

Adibide gisa, laburki aipatu ahal ditugu Ararteko erakundeak lankidetzeta-marko honetan 2008an burututako zenbait jardueraren esanguratsua. Honela:

- Esan bezala, hainbat zerbitzu ikustera joan gara, edo elkarrizketak eta bilerak izan ditugu zerbitzu horietan lanean dabiltzan profesionalekin. Horiei esker aztertu ahal izan ditugu elkarrekin eta administrazioen arteko zenbait hitzarmen edo harreman-biderei ezaugarriak, horiek lan baldintzetan edo emandako zerbitzuaren jarraitutasunean duten eragina, diru-laguntzak jasotzean izandako atzerapenen ondorioak edo laguntzok jasotzeko bermerik ez izatea... Hori kontrapuntu gisa erabili da gizar-te ekintza sektorearen lan baldintzak aztertuko dituen txosten berezia egiteko.
- Udako ikastaroetan, EHUrekin elkarlanean, batez ere buruko gaitza duten pertsonen eskubideetan jarri zen arreta Arartekoak azken urte honetan sustaturiko jardunaldian. Biztanle-sektore horretaz arduratzen diren elkarrekin etengabeko harremana dugu (FEDEFES Senideen Elkarrekin Federazioaren bitartez) eta elkarrekin horiek zuzenean parte hartu zuten jardunaldietan (FEDEFESeko eta Egunabarreko ordezkariak).
- Hirigintzako plan eta jarduerari eta berauen ingurumeneko eraginei eta ondorioei buruz jasotako kexa asko plataformetan antolatutako pertsonen taldeek, auzotarren elkarrekin, jabeen erkidegoek, talde ekologistek eta abarrek eragin dituzte. Haietako batzuen berri emana dugu txosten honen hirigintzaren eta ingurumenaren arloei buruzko azpiataletan.
- Erakunde honek beti lehenetsi ditu terrorismoaren biktimei elkarrekin eta fundazioekin nahiz biktimekin beraiekin edo haien senideekin izandako harremanak. Elkarrekin erakusten eta babesa ematen saiatu da erakundea, deitutako ekitaldietan parte hartu du eta haiengandik hurbil dagoela erakutsi du. Hori biktimei buruzko txostena egiteko ere hartu da. Harreman horri esker, biktimei buruz laster aterako txostena egin ahal izan da, eta beste urrats bat eman da lankidetzeta-dinamikan.
- Inoren kargura ez dauden adingabe atzeritarren harrera-zentroetara aldizka bisitak egin dira eta zentro horiek kudeatzen dituzten elkarrekin harremanetan egon gara, eta, horri esker, euren egoeraren jarraipena egin ahal izan dugu. Horri buruz luze

eta zabal hitz egiten da txosten honetan bertan (adingabeen behin-behineko harre-rarako zentroa).

- Urtean egindako bisitetako askori esker (adibidez, baztertuta daudenentzako gaue-ko harrera-zentro edo zerbitzuetara, erreforma zentroetara, harrera-zentroetara...) baliabideak kudeatzen dituzten elkarteekin harreman zuzena izaten da, egoeraren berri egunez egun izaten da, gure gomendioak betetzen dira, jarduera berriak bultzatzen dira...
- Presoei laguntzeko elkarte askorekin harremanak izan ditugu aldizka. Horrek alde zordez du espetxeetara zuzenean sartu ezina. Horrela, datuak elkarri trukatu ahal izan dizkiogu, eta ofiziozko jarduera edo borondate oneko kudeaketa batzuk abiarazi ahal izan ditugu.
- Laguntza-elkarte batzuek salaketak egin dituzte gai hauen gainean: atzerritar jatorriko pertsonak atxilotzea edo kanporatzeko agindua, jasotako polizi tratua, erroldatzeko arazoak, atzerritarren enplegu publikoko deialdi edo enplegu horren eskaintza batzuetatik baztertzeko baldintzak edo hedabideetan zenbait berri tratatzeko modua. Salaketa horiek mota ezberdineko jarduerak ahalbidetu dituzte: eskudun agintaritzaren aurreko bitartekotzak eta kudeaketak, kexak izapidetzea, ofiziozko jarduerak, berriazko gomendioak...
- Harremanak izan ditugu hainbat talde bakezalerekin, gatazketan bitartekari gisa ari diren elkarteekin eta ikastetxeekin. Haien bultzatuta, erakunde honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari bakerako hezkuntzari buruzko proposamen orokorra aurkeztu zion, eta proposamena garatzeko ekarpen eta bultzada bezala, giza eskubideetan hezteko eskolan erabiltzeko ziren materialak egiteko eta hedatzeko lau lankidetzaren bidez deialdia egin zuen. Era berean, "Haurren Legea"ri buruzko herriz herriko erakusketa antolatu du, edo giza eskubideei buruzko eskolalari IV. Lehiaketa (hau datorren urtean ebatziko da). Eta abar.

Erakunde honen iritziz, antolatutako gizarte zibilaren eta zerbitzu eta administrazio publikoen arteko lankidetzaren sustatu eta horretarako laguntza eman behar da, dauden baliabideak hobeto erabiltzeko. Gizarte eragileek aktiboki hartu behar dute parte. Hala ere, erakundeek herritarrei zerbitzuak egiteko erantzukizunak hartu behar dituzte eta askotan egokitzen zaien buruzagitzaren berenganatu. Ildo horretatik, jada 2001eko txostenean gomendio orokor bat egin zen, askotan elkarteek kudeatzen dituzten talde ahulentzako zerbitzuak sortzeko erakunde buruzagitzari buruz.

Azken urteotako esperientziak (herrietan zentro edo zerbitzu berriak zabaltzeko administrazioek eurek dituzten zailtasunak), azken urte honetan ere agerian jarri du oso garrantzitsua eta beharrezkoa dela aipatutako gomendioan egin ziren proposamenak kontuan hartzea.

Bestalde, hainbat zerbitzutan egindako ikustaldietan, edo bileretan edo jasotako kexetan, baita Gizarte Ekintza sektoreko lan-baldintzei buruzko gure txostena argitaratu ondoren ere, oraindik konpondu gabeko arazoak daudela egiaztatu dugu berriz, esate baterako, diru-laguntzen deialdi batzuk ebatztean atzerapenak egon direla. Horrek egoera larri eta zailtan jarri dituzte elkarteak nahiz abian zeuden egitarauak, eta oso eragin kaltegarria izan du, ez elkarteetan bakarrik, baizik eta, batez ere, elkarteok laguntzen dituzten herritar eta taldeen-

gan. 2008. urtearen bukaeran, artean ebazteke zeuden funtsezko diru-laguntza batzuei buruzko deialdiak.

Berriro adierazi behar dugu gizarte arloan lanean dabiltzan elkarteek sarritan bereziki bazterturik bizi diren pertsonen arreta eskaintzeko egitarauak burutzen dituztela eta, askotan, bestela egongo ez liratekeen edo nahikoak ez diren baliabide eta zerbitzuak kudeatzen dituztela. Horrela, erakundeek erantzukizun nabarmena duten arreta-eremuetan jarduten dute eta administrazioen beren gabeziak betetzen dituzte. Hortaz, arrazoizkoa omen da beharrezko laguntza guztia eta beren programetarako berme handiagoa lortzea.

Ilido horretan, Arartekoak, ofiziozko espedienteen bidez elkarte askotan eragin handia izan zuten 2003 eta 2004. urteetako deialdiei buruzko datu objektiboak bildu eta gero, 2005eko txostena prestatu zuen eta, bertan, izenburu hau zuen gomendio orokorra egin zuen: "Eremu sozialean lan egiten duten elkarteetarako erakunde laguntzako bideak eta prozedurak hobetu beharra". Gomendio hori oraindik indar betean dago, azken urte honetan bildu ditugun datuak kontuan hartuta.

1.2. ARARTEKOAK EMATEN DITUEN IKERKETA BEKAK ETA ARARTEKOAREN ARGITALPENAK

2008. urtean bukatu da Matia Fundazioarekin lotura duen lantalde bati Arartekoak emandako bekan egindako lana. Jakina denez, fundazio horrek ibilbide ezaguna du adinekoak zaintzen. Txostenean garrantzi handiko kontuak aztertzen dira, nahiz eta gure artean orain arte gutxi landu diren edo gutxi ezagutzen diren: adinekoen eta beren zaintzaileen eskubideak eta tratu desegokiaren prebentzioa. Urteko txosten hau idazteko unean, lan hori argitaratze-aldian dago eta, ziur aski, txosten hau baino lehenago ezagutarazi ahal izango da.

Lanak, ikus daitekeenez, erreferentzia, informazio, agiri, tresna eta datu asko ematen ditu oso maila ezberdinetan, mundu osoan ezartzen diren kode edo eskubideekin hasi (maila orokorra) eta zerbitzu jakin batean edo zaindu den biztanleriaren sektore jakin batean lortu diren ebaluazio-datueta iritsi arte (maila zehatzagoa).

Aukeratzeko orduan, eta baita material horien argitalpena prestatzeko orduan ere, erabilgarritasunik handiena bilatu da. Horregatik, esate baterako, edonork ezarri edo bere egoerara egokitu ditzakeen galdera-sortak sartu dira eranskin moduan: mendetasun egoeran dauden adinekoentzako galdera-sorta bat, adineko autonomoentzako beste galdera-sorta bat, senideentzako galdera-sorta edo profesionalentzako galdera-sorta. Baina, testuaren hariari jarraiki, honako hauek ere erantsi dira: eskubideen katalogoak, tratu zehatz bat egokia ala desegokia den baloratzeko irizpideak, edo egoera ezberdinetan (egoitzetan, eguneko zentroetan, familian...) aplika daitezkeen tresnak.

Honen antzeko beste gai batzuetan gertatzen den bezala (genero indarkeria, haurrei tratu txarra ematea...), errealitate opaku, ezkutu, ia ezezagunari egin behar diogu aurre, eta errealitate horrek jarduera ugari behar ditu: gizartea sensibilizatzea, profesionalak trebatzea, pertsonak beren eskubideez kontzientziaztea, etengabe kalitate-irizpideak ezartzea, zerbitzuak ebaluatzea, pertsonen aditza, prebenitza, hautematea, esku hartzea...

Kontuan izan dezagun gure erkidegoan 400.000 adineko daudela. Gainera, beste milaka eta milaka pertsona dabilta adineko horiek zaintzen –ondo edo ez hain ondo, dedikazio handiago edo gutxiagorekin–, baita egoitzetan, eguneko zentroetan, etxeko laguntza zerbitzuetan eta abarretan lan egiten duten milaka profesional ere. Argitaratutako lanak pertsona horientzat guztientzat baliagarria izan nahi du, izan ere, horien eskuetan dago, neurri handi batean, errealitatean tratu egokia lortzea, eskubideak gordeko dituen. Baina, era berean, lan honek gizarte osoarentzako ohartarazpena izan nahi du, gizarteak oraindik sentikortasun gutxi erakusten baitu adinekoen eskubideekiko, eta ia ez baita ohartzen tratu desegokia benetan gertatzen dela. Lan hori (liburuan nahiz CDan argitaratua) 2009ko lehen hiruhilekoan banatzeko asmoa dugu eta, batez ere, gaiarekin lotura zuzenena duten baliabide eta zerbitzuentzako izango da: adinekoentzako egoitzak, eguneko zentroak, etxeko laguntza zerbitzuak, oinarriko gizarte zerbitzuak, adinekoen elkarteak, adinekoentzako baliabideak kudeatzen dituzten elkarteak...

2006-2007 ikerketako beken deialdian, honako honen azterketa egiteko beka ere esleitu zen: "Inkomunikazioa: eraginkortasuna versus giza eskubideak". Une honetan hori bukatzeaz dago.

2007-2008 ekitaldian ikerketa aplikatuko beka bana esleitu zen, honako honi buruzkoak:

- "Euskal Autonomia Erkidegoan etorkinek gizarte zerbitzuetan eta prestazioetan sarbidea izatea. Katalogoa eta bitartekotza sistema egitea".
- "Adingabeak edo atzerritarrak? Bakarrik dauden adingabe atzerritarren inguruan esku hartzeko politiken analisia".

Lan biak bidean dira.

1.3. HERRITARREN PARTAIDETZARAKO FOROA: “BIZIKIDETZA ETA GATAZKAK IKAS-TETXEETAN”

2007ko maiatzean, Ararteko erakundearen deialdiari jarraiki, ikastetxeetako bizikidetzari eta gatazkei buruzko partaidetza-foroa egin zen Bilboko Euskalduna Jauregian.

Foroak bi zati ezberdin izan zituen. Goizez, xede horretarako deitutako berrogei bat pertsonak (horien artean, irakasleak, zuzendariak, laguntzaileak, ikuskatzaileak, ikertzaileak, sistema judizialeko pertsonak...) zortzi gai hauen inguruko hausnarketak eta ekarpenak egin zituzten:

- Eskola-giroan eragin positiboa edo negatiboa duten faktoreak.
- Bizikidetzako praktika onak.
- Administrazioaren eginkizuna.
- Ikastetxeen antolaketa.
- Eskolako jazarpen egoeretan edo tratu txarreko egoeretan nola esku hartu.
- Sistema judizialaren eginkizuna.
- Zer ebaluatu edo ikertu behar litzatekeen.
- Zertan lagun dezakeen Arartekoak.

Arratsaldez, saio irekian, Arartekoak berriki argitaratu den *Bizikidetzeta eta gatazkak ikastetxeetan* izeneko ezohizko txostenaren laburpena egin zuen eta gai honetan aditua den María José Díaz-Aguado irakasleak konferentzia eman zuen, “Hacia un nuevo modelo de convivencia. Del acoso escolar a la cooperación en las aulas” izenburupean. Bi esku-hartze horien ondoren, mahai-ingurua egin zuten foroan parte hartu zutenek.

Esku-hartze guztiak idatziz jaso ziren eta, orraztu ondoren, 2008. urtearen bukaeran argitaratu dira “Francisco de Vitoria” Giza Eskubideen bilduman, ikastetxe guztiei eta gainontzeko zerbitzuei banatzeko.

1.4. EHUko UDAKO IKASTAROEN JARDUNALDIAK, "BURUKO OSASUNARI ETA PERTSONEN ESKUBIDEEI" BURUZKOAK

1997az geroztik Arartekoaren erakundeak giza eskubideei buruzko azterketa eta eztabaida-jardunaldiak antolatzen ditu EHUko udako ikastaroetan.

Ikastaro horrek abiapuntutzat honako egiaztapena hartu zuen: buruko osasunarekin erlazioatutako nahasteak eta gaixotasunak giza eskubideei eta osasunaren eta gizarte zerbitzuen sistemei dagozkien hainbat mailatan daudela. Horren ildotik, era horretako osasun arazoren bat duten pertsonen zuzendutako politika publikoak ebaluatu ziren, bai osasunaren arlokoak bai gizartearen arlokoak. Era berean, pertsona horien eskubideak eta eskubide horiek babesteko mekanismoak zer egoeratan dauden aztertu zen. Hizpide honako hauek izan ziren: borondatezko ez tratamendu ambulatorioa edo erkidegoko baliabide nahikoen ga-beziaren eragina tratamenduen eteteen. Ikastaroa buruko gaixotasunak dituzten pertsonen osasunaren eta eskubideen babesa hobetu nahi izatearen ikuspegitik garatu zen.

Clara Asúa irakaslea "Buruko osasunari eta jarduteko gaitasunaren mugari" buruz mintzatu zen. Iñaki Markez irakasleak "Buruko osasuna artatzeko egoerari" buruz hitz egin zuen. Julián Carlos Ríos irakasleak "Espetxeen ingurunean buruko osasunari" buruzko hitzaldia egin zuen.

Azkenik, mahai-ingurua egin zen eta, bertan, Egunabar elkartearen (Psikiatriaren Erabiltzaileen Bizkaiko Elkartearen), FEDEAFES federazioaren (Gaixo Psikikoen eta beren Familiartekoen Elkartearen Euskadiko Federazioa) ordezkariak eta psikologo kliniko batek parte hartu zuten.

1.5. GIZA ESKUBIDEEN ARLOAN SENTSIBILIZATZEKO JARDUERAK

Ararteko erakundeak giza eskubideen arloan sentsibilizatzeko hainbat jarduera burutu ditu 2008. urtean, eskoletan batez ere.

Horrela, 2008. urtean, Arartekoak giza eskubideei buruzko eskola-lanen III. lehiaketako deialdia ebatzi eta IV. deialdia iragarri zuen, EAEko ikastetxeetako Lehen naiz Bigarren Hezkuntzarako. Edizio berri honetan giza eskubideei buruzko, edo, zehazkiago, haurren eskubideei buruzko lan sistematikoan erabilitako eta ekoiztutako programazio lanak eta materialak aurkeztu ahal izango dira. Horiek gela, ikasturte, ziklo edo ikastetxe mailan pertsona-batzordeak aurkeztutako lanak, horien originaltasuna eta kalitatea baloratuko ditu, argitaratzeko dituen aukerak eta didaktikoki duten aprobetxamendua ere baloratuz. Etapa bakoitzeko, hau da, Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako, sari bana egongo da; horiek arartekoak berak entregatuko ditu. Ohi denez, aurten ere, Ararteko erakundeak Gasteizko Udalaren Hezkuntza Sailak antolatzen duen *Gasteiztxo albistegia* izeneko jarduerari lagundu dio. Arabako hiriburuko ikastetxe ezberdinetako ikasleek aldian-aldian bisita egiten digute eta, egun batez kazetari bihurtuta, erakundearen lanari lotutako datuak eta informazioak biltzen dituzte, ondoren irrati edo telebista saioa edo egunkaria egiteko.

Gainera, abenduaren 10ean Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzen denez, Ararteko erakundeak, herritarren biztanleen defendatzaile gisa, kartela argitaratzen du, ikastetxeetan jar dadin. Horren helburua gizarte egoera ahulean dauden pertsonen beharrezan inguruko hausnarketa ahalbidetzea eta beharrezan horiekiko sentikortasun handiagoa sortzea da, baita giza eskubideak defendatzen eta babesten modu aktiboan jardungo duen gizartean aurrera egin ahal izatea ere.

Azken urte honetan, Europako Kontseiluak zigor fisikoaren kontra bultzatu duen ekimena aprobetxatuz, Arartekoaren karteletan ekimen horretako zenbait irudi eta goiburu erabili dira, beste herrialde batzuetan egiten ari diren moduan. Elementu berberak aprobetxatu dira haurren oinarrizko 10 eskubide biltzen dituzten egutegiak argitaratzeko ere. Material horiek Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan banatzen dira.

Europako Kontseiluak bultzaturiko kanpaina horri dagokionez, Arartekoak, Kontseilu horrekin ados jarri ondoren, EITBri euskaraz eta gaztelaniaz doako iragarki bat emititzeko aukera eskaini zion azaroaren 20 inguruan, egun horretan ospatzen baita haurren eskubideei buruzko Hitzarmena. EITBko Zuzendaritzak, irizpide orokor bat ezarriz, ez zuen komenigarritzat jo iragarki hori emititzea, baina hori bai, data horren inguruan eman zuten programa batean erakutsi zuen iragarkia eta jorratu zuen gai hori.

Bestalde, teknologia berriak modu desegokian erabiltzea eta erabilera horrek adin txikikoei dakartzkien arrisku-egoerak direla-eta, azken urte honetan, Pantallas Amigas Ekimenarekin lankidetzan, Arartekoak bi CD-ROM argitaratu eta bidali ditu EAEko ikastetxe eta hezkuntza-zerbitzu guztietara. CD-ROM horietan, hainbat material didaktiko biltzen dira, bai ikasleentzat, bai irakasle eta familientzat ere.

Lehenbizikoak “Ciberbullying” du izenburu (teknologia berrien bidezko jazarpena prebenitzeko material didaktikoa) eta 2007-2008 ikasturtean bidali genuen ikastetxe guztietara; Arartekoak bizikidetasuna hobetzeko eta jazarpenari aurrea hartzeko egin duen beste ekarpen bat da. Material hori batez ere Lehen Hezkuntzako ikasleentzat pentsatuta dago, eta haien guraso eta hezitzaileentzat ere bai.

Bigarren CD-ROMak “Leihoak” du izenburu (Abentura ERREALA Mundu BIRTUALEAN) eta gai zabalagoa lantzen du: sarean aurki daitezkeen arriskuak (jazarpena, pribatutasuna galtzea, iruzur edo maialak, eduki desegokiak...) saihesteko edo horiei aurre egiteko oinarrizko arauak, ergonomiazko aholkuak, e.a. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe eta hezkuntza-zerbitzuetara bidali dugu, baita liburutegi, KZgune, guraso elkarte eta beste baliabide edo erakunde batzuetara ere.

Bi material horien bidez helburu bera lortu nahi da: adin txikikoek teknologia berriak seguru eta egoki erabiltzea. Joko elkarreragileak, irizpide pedagogikoak, gida didaktikoak... eskaintzen dituzte eta interes bizia piztu dute hezkuntza-erkidegoan.

2. GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO ERAKUNDEEKIN BIDERATUTAKO JARDUERAK

2.1. HERRIAREN DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XXIII. JARDUNALDIAK

Herriaren Defendatzailearen eta autonomietako ordezkarien arteko harremanek koordinazioa eta kooperazioa dituzte oinarri. Hori dela eta, urtean zehar horiek harreman estua izaten dute burutzen dituzten ohiko funtzionamendu jardueren inguruan. Koordinaziorako jardunaldiak erakunde guztien interesekoak diren gaiei buruzko eztabaida eta hausnarketa egiteko foroa dira.

2008an, Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako Jardunaldiak Oviedon egin ziren irailaren 28, 29, 30 eta urriaren 1ean, eta Asturiaseko Prokuradore Nagusiak antolatu zituen. Jardunaldi hauetako gai nagusia "gizarte babesik gabeko egoera larrian dauden pertsonak: haien eskubideen defentsa" izan zen.

Aurrez, jardunaldi horien xedearekin erlazionatutako tailerrak egin ziren. Lehenengoa Gas-teizen egin zen apirilaren 14an eta 15ean, Arartekoaren erakunde honek antolatu zuen eta "gizarte babesik gabeko egoera larrian dauden pertsonak" izan zen gaia. Honakoak izan ziren tailerreko ondorioak:

"GIZARTE BABESGABETASUN LARRIA DUTEN PERTSONEI BURUZKO LANTEGIA-REN ONDORIOAK

- I. *Gizarte babesgabetasun larria eta urrakortasun bereziko egoeran dauden pertsonak edo biztanleria sektoreak*
- II. *Babesgabetasunaren zergatiak eta faktoreak*
- III. *Politika publikoak eta horien mugak*
- IV. *Proposamenak*

I. GIZARTE BABESGABETASUN LARRIA ETA URRAKORTASUN BEREZIKO EGOERAN DAUDEN PERTSONAK EDO BIZTANLERIA SEKTOREAK.

Gizarte babesgabetasun larriko egoeran dauden pertsonak aipatzeko, zehaztasun handiagorik gabe, hitz oso anitzak erabiltzen dira; horiek, sinonimoak izan ez arren eta egoera berdin-berdinak azaltzen ez badituzte ere, lagungarriak izan daitezke aipatzen ari garen pertsonak edo biztanleria sektoreen ezaugarriak adierazteko.

Urrakortasuna, bazterkeria, muturreko pobrezia, kolokatasuna, etxerik gabekoa, marjinalizazioa, gizarte bereizkeria eta halako hitzen bidez, dena delakoagatik euren eskubideak guztiz erabili ezin dituzten eta erabateko gizarte hiritartasunaz (aukera berdintasunean) gozatu ezin duten pertsonen inguruko egoerak adierazten dira.

Horrela, esate baterako, bazterkeria gizarte eskubideak gauzatzeko ezintasuna dela esan daiteke; batez ere, lanerako eskubidea, baina bai hezkuntzarako, kulturarako, osasunerako,

etxebizitza duina izateko eta gizarte babeserako eskubidea ere. Ez da pobrea izatea edo etxerik ez edukitzea bakarrik: lanik ez edukitzearen eta gizarte isolamendua jasatearen eraginezko babesgabetasun eta bazterkeria egoerak dira. Gizarte babesgabetasuna, bazterkeria bezala, ez da egoera finkoa edo egonkorra, prozesu dinamikoa eta mailakatzeko modukoa baizik; hain zuzen ere, hiritarrak integrazio, segurtasun eta egonkortasun zonetatik erabateko bazterkeria zonetara eraman ditzakeen bilakaera egon daiteke, eta, bide horretan, hiritarrak urrakortasun, kolokatasun eta ezegonkortasun zonetatik igarotzen dira. Baina alderantzizko prozesua ere izan daiteke, hau da, gizarteratzeko edo bergizarteratzeko prozesua.

Oro har, "gabeziak metatuta" eragindako egoerak dira, desabantaila orokorrak, sarritan iraupen luzeokak; horrenbestez, halako egoerek ekidin egiten dute erabateko hiritartasunari dagozkion gizarte eskubideak garatu ahal izatea.

Ikuspegi hauxe izan daiteke interesgarriena eta erabilgarriena guretzat (babesgabetasuna eskubideak erabiltzeko ezintasunarekin lotzen duen ikuspegia), defentsarako erakundeek dagozkien eskubideak bermatzeko funtzioak kontuan hartuta.

Konplexua izan daiteke babesgabetasunaren edo gizarte bazterkeriaren mugak non hasten diren mugatzea (besteak beste, prozesuak direlako, denborarekin aldatu egiten diren mugak, gizarte batzuetatik besteetara aldagarriak direnak); hala eta guztiz ere, denok dakigu gure inguruko pertsona batzuek, baita zenbait gizarte sektorek ere, gizarte bazterkeriako arrisku edo urrakortasun berezia dutela. Defentsarako erakundeetan metaturiko esperientzian oinarrituz egiaztatu dugunaren arabera (adierazitako arloan garatu dugun lana kontuan hartuta), egoera pertsonal edo gizarte egoera batzuk berebizikoak dira gizarte bazterkeriako egoera errealak edo ahalezkoak eragiteko prozesuak sortzeko edo halako egoerak larriagotzeko.

Agerikoa da etxerik gabeko pertsonak gizarte bazterkeriako egoera larri-larrian daudela. Baina horiei, mutur horretara heldu ez arren bazterkeria egoeran edo horren arriskuan daudenak gehitu behar zaizkie, kontzeptu horri buruz lehen adierazitako parametroak aintzat hartuta. Ondoren, lehen adierazitako egoera pertsonalak edo gizarte egoerak adieraziko ditugu; zerrrenda hau ez da itxia, eta bere helburua gizarte bazterkeriaren errealitate anitza eta konplexua ikuskatzea da (egoera guztiak barruan sartzeko asmorik gabe: a) langabezia egoerak; b) gutxiengo etnikoetakoa edo kulturaletakoa izatea (batez ere, ijitoen komunitatea); c) familia kargekin eta baliabiderik gabe bakarrik bizi diren emakumeak; d) egoera irregularreko etorkinak; e) pobrezia egoeran, eskolatu gabe edo absentismoarekin dauden haurrak eta gazteak; f) ezindua eta mendeko pertsonak, baliabide gutxi dituztenak; g) adineko pertsonak eta erretirodunak, pentsio urriak dituztenak, gehienbat emakume alargunak; h) buruko gaixotasuna duten pertsonak, familia edota gizarte sarerik gabeak; i) droga-mendetasuna duten pertsonak, baliabiderik edo familia laguntzarik ez dutenak; j) presoak eta preso izandakoak; k) prostituzioan dabiltzanak; l) kolokako lanak edo gutxiegi ordaindutakoak dituzten pertsonak, gutxieneko beharrizan ekonomikoei aurre egin ezin dietenak; etab.

Arrazoi anitzen eraginez, goian adierazitako pertsona edo gizarte sektore askok gizarte babesgabetasun handiagoa dute beste batzuek baino. Izan ere, kasu askotan, txosten

berezien edo ofiziozko jarduketan bitartez, defentsarako erakundeek arreta berezia jarri diete sektore horien arazo bereziei.

Horren ondorioz, sarritan, errealitate horietara egiten diren hurbilketak partzialak izaten dira (sektore jakinarazi mugatutakoak); gainera, hori horrela izan arren, datuak fidagarritasun gutxikoak izaten dira. Horrela, esate baterako, etxerik gabeko pertsonen buruzko ikerketarik serioenetan (ondoan zehazturiko gizarte sektoreetariko bat), Europarako ematen diren zifrak milioi bat pertsonatik (etxerik gabeko pertsonekin lan egiten duen erakundearen Europako Federazioaren arabera) 2,5 milioira (Europako Erkidegoen Estatistika Bulegoa) bitartekoak dira; edo, Espainiaren kasuan, zifrak 16.000 pertsonatik 200.000 pertsonara bitartekoak izan daitezke (Estatistikako Institutu Nazionalak egindako "Etxerik gabeko pertsonen buruzko inkesta. 2005" deritzonaren arabera, 21.900).

Hortaz, oraintsu (2008/04/10eko Adierazpena) Europako Parlamentuak hauxe eskatu dio Europako Batzordeari: "etxerik gabeko pertsonen fenomenoaren Europako zehaztapen orokorra egiteko," konparatzeko moduko datu estatistikoak jasotzeko eta urteroko informazioa eskaintzeko, hartutako neurriei eta izandako aurrerakuntzei buruz.

Beste alde batetik, antzeko adibideak jar daitezke goian adierazitako edozein sektoretan.

Nolanahi ere, babesgabetasunaren eta bazterkeriaren arloan, "maila" desberdinak daude, eta maila horien continuuma erabateko gizarteratsetik gehieneko bazterkeriara bitartekoa da, erabateko babesetik guztizko babesgabetasunera, bitarteko egoera askorekin. Horrela, babesgabetasun edo bazterkeria arriskuek banaketa oso desorekatua dute, kasuan kasuko pertsonaren gizarte eremuaren arabera: integrazio, segurtasun edo egonkortasuneko zona; urrakortasun, kolokatasun edo ezegonkortasuneko zona; bazterkeria edo marjinazioko zona. Hemen egiten diren hausnarketak eta proposamenak gizarte babesgabetasun "larriko" pertsonen buruzkoak dira. Pertsona horiek, euren bizitzako uneren batean eta gizarte testuinguru jakinean, dena delakoagatik, continuum horren muturretariko batean kokatu ahal dira, arriskurik eta babesgabetasunik handienekoan, euren gizarte eskubideak garatzeari dagokionez.

II. BABESGABETASUNAREN ZERGATIAK ETA FAKTOREAK

Gizarte babesgabetasunaren aurka eraginkortasunez borrokatu ahal izateko, marjinazioko edo gizarte bazterkeriako egoerak aurreikusi eta zuzendu ahal izateko, halako egoeren zergatiak aztertu eta faktore eragile nagusiak bereizi behar dira, babesgabetasuna edo hori jasateko arriskua eragiten duten faktoreak.

Gehien iritiz, "zergati anitzeko" fenomenoak dira, gorabeherak (banakakoa, gizartekoa, egiturazkoak, ekonomikoak,...) metatzearen eraginezko egoerak. Horrenbestez, bazterkeria maila desberdinak kalibratzeko edo babesgabetasunaren maila (larria/moderatua/arina) nahiz hori jasateko arriskua haztatzeko, zenbait aldagai hartzen dira kontuan, funtsezko faktoretzat edo adierazletzat, eta horietariko bakoitzean "maila" desberdinak hartzen dira aintzat. Horrela, esate baterako:

- *Lana*: kasuan kasuko pertsona lan merkatutik kanpo dagoen, kolokako lana duen, lan egonkorrik ez duen...
- *Egoera ekonomikoa*: oinarrizko beharrianak betetzeko baliabiderik duen; horretarako arazoak dituen; beste gastu batzuetarako zailtasunik duen...
- *Etxebizitza*: etxebizitza eskuratzeko aukerarik duen; etxebizitza eskuratzeko gehiegizko gastua egin behar duen edo horrek kolokatasun egoerarik dakarkion; etxebizitzan oinarrizko ekipamendurik duen...
- *Hezkuntza*: eskolaturik dagoen edo hezkuntzarik izan ez duen; eskolatzea mugatua izan den; trebakuntza urriegia duen...

Balio berezia (gizarteratzea errazteko eraginkortasun berezia) ematen zaien funtsezko lau faktore horiek ez ezik, bazterkeriaren ondorioak modulatu duten beste batzuk ere kontuan hartzen dira, egoeren larritasuna mailatzen dutenak. Esate baterako:

- *Osasun fisikoa eta, batez ere, burukoa (alderdi honetan, egoerarik larriena edo arriskutsuena osasuna larri narriatuta duen eta baliabide soziosanitariorik lortu ezin duen pertsonarena izango litzateke).*
- *Gizarteratzea eta familia integrazioa (oinarrizko harremanik ez edukitzea edo horiek arazotsuak izatea).*
- *Gizarte harremanak (delituzko edo gizartearen aurkako jokabideak eta familia gatazkak).*
- *Bereizkeria (etnia, jatorri, sexu orientazio eta hala zergatiekiko bereizkeria).*

Babesgabetasun egoerarik muturrekoena edo arriskutsuena, horrela, alderdi negatiborik gehien biltzen edo lotzen dituena da, hau da, arlorik gehien barruan hartzen dituena: lan merkatutik kanpo egotea, oinarrizko beharrianak betetzeko baliabiderik ez edukitzea, etxebizitzarik lortu ezin izatea, gizarte edota familia laguntzarik ez izatea, osasun txarra edukitzea...

Horri dagokionez, babesgabetasun arriskurik edo urrakortasunik handieneko biztanleria sektorea etxerik gabeko pertsonena dela esaten da. Baina, kasu honetan ere, etxebizitzarik ez edukitzeko beste integrazio faktore batzuk ez edukitzeari lotutako egoera orokorragoa adierazten du, hau da, gizarte politikak eskuratzeko zailtasuna; besteak beste, etxebizitza, baina beste batzuk ere bai, adibidez, lanerako politika, oinarrizko errentak, heziketa, etab.

Muturreko pobrezia ere babesgabetasunari lotuta egoten da, baina ez da horrekin nahasi behar. Izan ere, babesik gabe ez dauden pertsona oso pobreak daude (esate baterako, gizarte edo familia laguntza handiena dutenak); era berean, baliabide ekonomiko nahikoa duten eta, hala ere, babesgabetasun larriko egoeran bizi diren pertsonak ere badaude (adibidez, buruko gaixotasunaren, bertan behera utzita gelditzearen edo bereizkeriaren eraginez).

Babesgabetasunean eragina duten zergatiak edo faktoreak orain arte adierazitakoak direla kontuan hartuta (lana, egoera ekonomikoa, etxebizitza, heziketa...), horiexek landu beharko ditugu gehienbat. Horrela, babeserako mekanismorik indartsuenak lanari lotuta badaude, pertsonen babesa bermatzeko modurik zuzenena edo eraginkorrena pertsonen eta lan

merkatuko sektoreen integrazioa izango da. Sarritan, egia da, bazterkeria eragiten duten egoera pertsonalak edo gizarte egoerak daudela, baina politikak ikuskatzeko eta beste modu batera orientatzeko aukera (babesgabetasunaren arriskuak ahalik eta gehien murrizteko) ematen dutenak egiturazko faktoreak dira.

III. POLITIKA PUBLIKOAK ETA HORIEN MUGAK

Azken urteotan, autonomia erkidego ia guztietan bazterkeriaren aurka borrokatzeko arauak, planak eta programak garatu dira. Izen desberdinak dituzte, jarduketako baliabide eta ildo anitzak erabiltzen dira, orokorrak edo arlo jakinera bideratutakoak, biztanle guztientzako edo beharrian berezia duen biztanleria sektore jakinerako pentsatuta... Halaber, defentsarako erakunde guztiok, uneren batean, ekarpenak egin ditugu jarduketa horiek hobetzeko: hobetu beharra duten alderdiak azpimarratu, oinarrizko arauen aurreproiektuei edo zirriborroei ekarpenak egin, planak betetzearen jarraipena gauzatu, ikerketa bereziak egin edo eraginpeko sektoreei nahiz arloei buruzko txostenak prestatu (etxerik gabeko pertsonak, etxebizitza, gizarte zerbitzuak...).

Egotez badauden eta, zenbait kasutan, handiak diren desberdintasunen gainetik, elementu komunak aztertu ahal dira, kointzidentzia handia izan dezaketen jarduketa ildo nagusiak.

Horrela, mendetasunari buruko legea eta horren garapena alde batera utzita (gai hau beste lantegi batean aztertuko baita), esan daiteke gure inguruan pertsonen babesean eta babesgabetasunean eraginik handiena duten politika publikoak, egiturazko arazoetan eragina dutenak edo izan dezaketenak, honako hauek direla, zalantzarik gabe:

- Lanerako politikak.
- Oinarrizko errenten politika.
- Gizarte prestazioak unibertsalizatzeko politikak.
- Etxebizitza politikak.
- Hezkuntzako eta arautu gabeko heziketako politikak.

Gure gizartean, **lana** edukitzea, gehienbat hori egonkorra eta ondo ordaindutakoa denean, gizarteratzeko bide nagusia da biztanlerik gehienentzat. Mugak, hala eta guztiz ere, nabiak dira:

- Pertsona guztiek ezin dute lana lortu, dagoen lana pertsona edo biztanleria sektore batzuen aukeretara edo ezaugarrietara egokitzen ez delako (heziketa, trebakuntza, administrazio egoera...).
- Lan guztiek eskaintzen dituzten baldintzek ez dituzte bermatzen bizitza duina izateko behar diren baliabideak. Batzuetan, laneko kolokatasunaren edo soldata baxuen eraginez, pertsonen babesa ez da nahikoa izaten.
- Bestalde, lanerako laguntzek ere muga handiak dituzte, gehienbat dena delakoagatik baldintza jakinak betetzen ez dituzten edo laneratzeko kontratua bete ezin duten pertsonen kasuan.

Muga horiek gainditzeko, neurri garrantzitsuak hartu behar dira: lanbide arteko gutxieneko soldata igo, lan egonkorra sortu, heziketa hobetu, pertsonak trebatu, laguntzako programak garatu, lanerako politikak sortu (lan merkatutik kanpoko pertsonak edo sektoreak berreskuratzeke), etab.

Oinarrizko errentei eta **gizarteko zerbitzuak nahiz prestazioak unibertsalizatzeari** buruzko politiken aldetik, esan behar da horiek oraindik ere nahiko berriak direla eta alderdi askotan muga handiak dituztela:

- Hurrengo arauetan, leku batzuetatik besteetarako alde nabariekin.
- Betetzeko baliabide ekonomikoetan, laguntzen zenbatekoan.
- Prestazioak lortzeko eskatu ahal diren irizpideetan eta baldintzetan.

Horrela, prestazio hauek behar dituzten pertsonak edo bizikidetasun unitateek, euren administrazio egoeraren, kasuan kasuko lekuan erroldatuta egoteko denboraren, autonomia erkidegoen arteko lekualdatzeen edo beste gorabehera batzuen arabera, ezin dituzte hako baliabideak eskuratu eta baliabideok jasotzeko eskubiderik ere ez dute.

Bestalde, Konstituzioan jasotako **etxebizitza** eskubideari dagokionez, kontuan hartuta jabetzako etxebizitzaren prezio garestia eta alokairuko gizarte politiken garapen urria, hemen adierazitako urrakortasun egoerako pertsonak eta gizarte sektoreek eskuratu ezin duten ondasuna da: etorkinak, etxerik gabekoak, baliabide urriko ijitoak, buruko gaixotasuna duten pertsonak... Beste zenbait kasutan, arazoa ez da baliabiderik ez edukitzea, horiek egokiak ez izatea baizik: etxebizitza ezegokia, ghetto erako auzuneak, gizarte laguntzarik eza...

Baina adierazitako politika bakoitzean ohikoak diren muga horiek ez dira bakarrak, ezta garrantzitsuenak ere.

la beti, babesgabetasun arrisku larrian dauden pertsonen **arazoak orokorrak** izaten dira, eta zenbait arlotan izaten dute eragina: osasuna, lan egoera, familia loturak, baliabide ekonomikoak, ostatu baldintzak... Oso zaila da horiek arlo bakarrera mugatzea. Hala eta guztiz ere, sarritan, gizarte jarduketak ez dira integralak izaten, eskumenik, koordinaziorik, aurrekonturik edo esperientziarik ez dagoelako, esku-hartze globalak egitea zaila delako, etab.

Horri dagokionez, herriaren defentsarako erakundeetatik, gure ustez muga horiek gainditzeko funtsezkoak diren alderdi batzuk azpimarratu nahi ditugu:

- Gainditu egin behar da esku-hartzeetan sarritan ikusten den zatiketa, sail edo administrazio bakoitzaren eskumenetan oinarrituriko ikuspegi partzialen eraginezkoa.
- Bazterkeriaren zeharkako dimentsioa kontuan hartu eta horren arabera jardun behar da.
- Hobetu egin behar dira administrazioen, sailen eta zerbitzuen arteko mekanismoak, batez ere arlo soziosanitarioan, soziolaboralean, hezkuntzakoan...
- Erkidegoko gizarte zerbitzuen eginkizun nagusia indartu behar da, hori gizarte zerbitzuen sistema osoaren gakoa baita, eta gainerako zerbitzuekiko koordinatzaile izaera ere indartu egin behar da.

- Tokiko administrazioak gizarte zerbitzuen arloan dituen eskumenak argitu eta, behintzat udalerrri nahiko handietan, indartu egin behar da tokiko erakundeok gizarte babesaren arloan duten eginkizuna, erkidegoko gizarte zerbitzuak bateratzeko ahalgina eginda, horretarako eskumena duten administrazioei dagokienez, batez ere oinarrizko gizarte prestazioen arloan.
- Arautu, kontrolatu eta aprobetxatu egin behar dira arlo honetan garatzen ari diren gizarte ekimen ugarien esperientzia eta emaitzak, administrazioak eskubideak bermatzearen arloan duen erantzukizuna desagertu barik.

Esku-hartze **integralak** eta **koordinatuak** sustatzeko ildo honetan, pertsona bakoitzaren beharrezko erantzun globala emateko, baloratu eta hedatu beharreko esperientziak eta mekanismoak daude: baterako jarduketako protokoloak, mahai teknikoak, partzuergoak, koordinazio soziosanitarioko ekipamenduak, tokiko arlorako edo zona jakinen baterako esku-hartze globaleko programak, baterako lanak (elkarteen, gizarte eragileen eta administrazioaren zerbitzuen artekoak)...

Sustaturiko politika bakoitzaren mugak edo eskumen nahiz koordinazio mailako arazoak ez ezik (esku-hartze integralagoa eta eraginkorragoa oztokatzen dituzten arazoak, aurreko paragrafoetan azaldutakoak), beste alderdi batzuk ere aipatu behar dira, garrantzi handikoak baitira, gizarte politikak baldintzatzen dituztelako.

Horien artean, aipagarria da gizarte eskubideen arloan, autonomia erkidegorik gehienetan, pertsona guztiei berez dagozkien prestazioen edo zerbitzuen katalogo argia ez egotea. **Eskatzeko moduko gizarte eskubideak zein diren** argi ezartzen duen legerik kasu askotan ez egotearen ondorioz, gaur egun, lurraldeen arteko aldeak oso nabarmenak dira, bakoitzaren arauzko garapenaren, aurrekontu erabilgarritasunen edo unean uneko lehentasunen arabera.

Horrenbestez, era askotako mugak daude:

- Eskubideen erregulazioan.
- Zerbitzuen egiturari.
- Babesera bideraturiko baliabideetan (nahiko ez direlako edo egokiak ez direlako).
- Urrakortasun handiko pertsonen edo sektoreen beharrezko erantzuna emateko gaitasunean.

Hurrengo atalean egiten ditugun proposamenen helburua muga horiek gainditzea da, hain zuzen ere.

IV. PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK

Erakunde bakoitzak egindako azterketak eta garaturiko ekimenak, gizarte politiketan ikusitako funtsezko arazoak eta une honetako erronkak kontuan hartuta, defentsarako erakundeek, euren funtzioen arabera eta gizarte babesgabetasun larriko egoeran dauden

pertsonen eskubideak hobeto bermatzeko, honako proposamen edo gomendio hauek egin dizkiete administrazio eskudunei:

GIZARTE ESKUBIDEAK ARGITZEARI ETA LEGEZ BERMATZEARI DAGOKIONEZ

Gizarte eskubideen arloko oraingo arauzko garapena aintzat hartuta, eta pertsona guztiei eskubideok guztiz beteko direla bermatzeko, defentsarako erakundeek, indarreko eskumen esparrua erabat errespetatuz, eskubide hauxe egin nahi diete botere publiko eskudunei:

1. Gizarte eskubideen Gutuna finkatzea eta arautzea legez; bertan, pertsona guztiak eskubideok erabiltzeari dagokionez bermatzen diren prestazio eta zerbitzu guztiak adierazi beharko dira.

Arlo honetan, dagoeneko lege batzuk daude, adibidez, Nafarroako Foru Komunitateko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Legea edo Kataluniako Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 11ko 12/2007 Legea.

Eskubideak benetan betetzeko, jakina, politika eta aurrekontu mailako konpromiso batzuk behar dira, une bakoitzean eskatzeko moduko gutxieneko zerbitzuak eta prestazioak bermatu ahal izateko.

2. Beharrezana egonez gero, botere publikoetatik bizitzeko beharrezan betetzeko aukera ematen duten eta bizi baldintza duinak bermatzen dituzten prestazioak jasotzeko eskubidea segurtatzeko behar diren neurriak eratzea, arautzea eta hartzea.

Oinarrizko errentaren arauketa berriak, urteotako esperientzian oinarrituz, horren gauzape-na mugatzen edo baldintzatzen duten alderdiak ikuskatu beharko litzuzke. Alderdiok, batik bat, honako honi lotuta daude: aurrekontuen mugak, laneratzeko hitzarmenak, baldintza batzuen ezarkuntza (hiritartasuna, lekuan bizitzeko administrazio baimena, erroldatuta egoteko aldia, adina, bizikidetasun unitatea...), erkidego batetik besterako lekualdaketak nahiz aldaketak, muturreko beharrezan egoerarako salbuespenezko laguntzak...

3. Bizileku edo etxebizitza eskubide erreala eta benetakoa (Espainiako Konstituzioan jasotakoa) bermatzeko behar diren neurriak eratzea, arautzea eta hartzea, euren beharrezanarako bizileku duinean eta egokian egon beharra egiaztatzen duten pertsona guztientzat, baldin eta halako higiezin bat euren lortzeko ekonomia eta gizarte baliabide nahikorik ez dutela edo orain arte eduki dutena mantendu ezin dutela frogatzen badute.

Eskubide honen aplikazio errealerako, ezinbestekoa da, gutxienez, baliabide mota desberdinak garatzea eta administrazioak eraginkortasunez esku hartzea, pertsona askok oinarritzko baliabide hau lortzea ekiditen edo baldintzatzen duten zergatiak ezabatzeko; sustapen publikoko etxebizitzak esleitzeko oraingo programak eta irizpideak berriro aztertzea; bazterkeria auzo edo zona jakinetan metatzeko arriskua ekiditea; beharrezkoa izanez gero, gizarte laguntzako neurriak ezartzea, higiezinaren kontserbazioaren, mantentamenduaren eta

erabilera egokiaren arloko konpromisoak hartzeko; auzotarren arteko bizikidetzaren ohiko arauak ezartzea...

ESKUMEN ESPARRUARI ETA ADMINISTRAZIOEN NAHIZ GIZARTE ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA EDO KOORDINAZIOA BEHAR IZATEARI DAGOKIONEZ

4. Gizarte arloan, inplikaturiko arlo guztien arteko (Estatua, autonomia erkidegoak, aldundiak, udalerriak, mankomunitateak edo tokiko erakundeak) adostasunak lortzea eta eskumen hartze koordinatua errazten duten mekanismoak ezartzea.

5. Beharrezko lankidetzeta eta laguntza mekanismoen bidez, eta autonomien estatuan eskumen arloko erantzukizunen eta eskumen banaketan arabera, integrazioaren arloko irizpide komunak hartzea, estatu mailan erreferentziakoak izateko eta honako hau berdintasun baldintzetan bermatzeko: biztanle guztiek bazterkeria ekiditeko edo integrazioa errazteko ezinbestekoak diren oinarrizko prestazioak lortzeko eskubidea edukitzea.

6. Tokiko arloan transferitzeko edo eskuordetzeko moduko eskumenak ikuskatzea, gizarte eskubidearen arlokoak, ahal izanez gero tokiko erakundeen protagonismoa sustatzeko eta sakontzeko, biztanleen bizitzaren zehaztapenean, Espainiako Konstituzioko 103. artikuluan ezarritako deszentralizazio printzipioa erreferentetzat hartuta.

Deszentralizazio honekin batera, baliabideak berregokitu egin behar dira, tokiko erakundeek aurrekontu nahikoa edukitzeko. Horrela, finkatu egingo dira biztanleek gizarteko zerbitzuen eta prestazioen arloan dituzten eskubideak, krisi ekonomikoetako ohiko aurrekontu murriztapenek gizarte arloko zerbitzuetan eta prestazioetan eraginik ez izateko.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da deszentralizatzeko edo subsidiariotasuneko aukera errealak, sarritan, zenbait faktorek baldintzatzen dituztela; esate baterako, udalerrri oso txikiak egotea.

7. "Esparru soziosanitarioa" izenekoa garatzea, lankidetzeta, koordinazioa eta osagarritasuna bermatuz, zerbitzu eta sistema soziosanitarioek babesgabetasun arriskuan dauden pertsonen beharrezko emandako erantzunean.

Baterako lankidetzeta, koordinazio edo esku-hartze hau premiazkoa eta behar-beharrezkoa da, gaur egun zenbait arlotan (adibidez, buruko osasuna, adikzioak, susperraldiak edo gizarte baliabide jakineko oinarrizko osasun laguntzak) oso ohikoak diren egoerei erantzun egokia emateko.

Esparru soziosanitarioa garatu beharra ia leku komuna da. Praktikan egin diren aurrerakuntzak, hala eta guztiz ere, gutxi izan dira. Beharrezkoa da, horrenbestez, koordinazio egitura eraginkorrak garatzea, zerbitzuak antolatzeke modu berriak esperimentatzea, diziplinen arteko lana sustatzea (ondo egituraturiko erantzun soziosanitarioen beharrezkoaren eta

diseinuaren baterako balorazioa egiteko), prozesuaren banakako laguntza egin behar izateari erantzuna ematen dioten proiektu aurrendariak sortzea, etab.

8. Erkidegoko gizarte zerbitzuen funtsezko eginkizuna berriro zehaztea edo indartzea, oinarriko tresnak baitira, babesgabetasun larria edo horren arriskua duten pertsonen arretarako edota prebentziorako, detekziorako, laguntzarako eta deribaziorako.

Horretarako, erkidegoko zerbitzuetan baliabide gehiago eduki behar dira, eta, gainera, ezinbestekoa da horiei laguntza handiagoa ematea, beste sistema edo baliabide espezializatu batzuekin duten loturan, batzuen eta besteen arteko koordinazioa egon beharra azpimarratuz.

Kasu askotan, beharrezkoa izan daiteke zerbitzu batzuk halako eginkizunak garatzeko zein neurritan diren egokiak edo ezegokiak aztertzea, zehaztea edo baloratzea.

9. Administrazioen eta gizarte ekimeneko beste erakunde batzuen arteko lankidetzak sustatzea eta arautzea, horiek babesgabetasun larriko egoeran dauden pertsonen zuzendutako programak eduki edo horretarako baliabideak kudeatzen dituztenean.

Horri dagokionez, ondo bereizi behar da baliabideen kudeaketa (kudeaketa publikoa edo pribatua) eta erantzukizunak eskuordetzea (erantzukizun hori, azken batean, eta gizarte eskubideei dagokienez, administrazio eskudunari dagokio).

Lankidetzak, beraz, ez da administrazioaren erantzukizunak ezabatzeko izan behar, beste gizarte eragile batzuek laguntzaren eta esku-hartzearen arloan duten ahalmena aprobetxatzeko baizik; hain zuzen ere, horretarako behar diren esparruak eta baliabideak eman behar zaizkie, eta, halaber, gizarte laguntzako sareak indartu egin behar dira.

Administrazioak, era berean, zorrotz ebaluatu behar du gizarte ekimeneko erakundeek garaturiko lana; hain zuzen ere, horiek helburuak ondo betetzen dituzten baloratu eta, horrenbestez, ikuskatu nahiz egokitu egin behar du erakunde horien lankidetzak zein finantziakoa.

ESKU-HARTZEA HOBETZEARI DAGOKIONEZ, NEURRI POLITIKO INTEGRALEN ETA BEREZIEN BITARTEZ

10. Kalitatezko lan egonkorra sustatzeko neurri praktikoak garatzea, batik bat urrakortasunik edo bazterkeria arriskurik handiena duten pertsonen edo sektoreen zuzenduta.

Ordaindutako lanak gizarteratzeko eta bazterkeriari aurre egiteko tresnatzat duen balio handia kontuan hartuta, gure ustez, ezinbestekoa da lanerako politikek gizarte dimentsio hori aintzat hartzea. Horretarako, beharrezkoa izan daiteke gizarte sektore batzuen aldeko ekintza positiboak garatzea, eraketan, trebakuntzan, laguntzan eta kontratazioan bertan; besteak beste, tokiko erakundeek nahiz gizarte ekimeneko erakundeek sustaturiko gizarte lan babestua, laneratzeko enpresak, gizarte kooperatibak eta abar sortuko dira, laneratzeko

planak, ibilbideak eta kontratuak egin ondoren, bazterkeria egoeran dauden pertsonen lan egonkorra eta kalitatezkoak lortzea ahalbidetzen duten tresnatzat. Ikuspegi horretatik, ezinbestekoa da koordinazio soziolaborala ere hobetzea.

11. Zeharkako politikak edo esku-hartzeak sustatzea, horien prebentzio aukerei arreta berezia jarrita.

Esaterako, gizarte zerbitzuek epaitegietan duten esku-hartzea, utzarazpenen, banantzeen edo dibortzioen, espetxetik ateratzeen eta halakoen eraginezko babesgabetasun egoerak aurreikusi ahal izateko; edo osasun zerbitzuetan, ospitaletako altei edo susperraldiei lotutako egoerak aurreikusi ahal izateko; edo hezkuntza sistematan, haurren eta gazteen babesgabetasun egoerak aurreikusteko; hirigintzako plangintzan, planek duten gizarte eragina aurreikusteko eta aintzat hartzeko, baita ingurumen eragina aurreikusteko ere, etab. Zeharkako esku-hartzeak dira eta, oro har, bulego edo zerbitzu desberdinen arteko lankidetzak behar dute, edo baterako jarduketak protokoloen bidez garatu ahal dira.

Babesgabetasun egoeren prebentziorako, beste alde batetik, pertsonetan edo familietan oinarrituriko jarduketak ez ezik, beharrezkoa izan daiteke bazterkeria egoeran dauden auzoetan edo zonetan ere jarduketak egitea, edo landa inguruko jarduketak egitea, bertan beharrezkoak, handiak izan arren, ez baitira hain agerikoak.

12. Gizartearen beharrian edo profil "berrietarako" erantzuna detektatzea edo egokitzea.

Gizarte aldaketek, sarritan, arazo berriak agerian jarri edo egiturazko arazoak nahiz egoerak nabarmentzen dituzte, orain arte ia nabaritu ere egiten ez zirenak: lanik gabe gelditzen diren etorkinak, etxerik eta lanik gabeko emakume etorkinak (haur jaioberriak dituztenak), alta hartuta eduki eta susperraldirako lekurik ez duten gaixoak... Ezinbestekoa da halako egoerak lehenbailehen detektatzea, horien azpian dauden egiturazko arazoak aztertzea eta baliabide eskuragarriak egokitzea, edo baliabide berriak sortzea, beharrian horiei erantzun egokia eman ahal izateko.

Horrela, politika publikoek, biztanle guztiei zuzendutakoak izan behar badira ere, aintzat hartu behar dituzte pertsona edo sektore jakinen zailtasun bereziak, dena delakoagatik gizarte ondasunak eskuratzeko dituztenak. Horren adibidetzat, aipagarria da ijito familia eta etorkin askok etxebizitza duina lortzeko dituzten zailtasunak, besteak beste, honako zergati hauen ondoriozkoak: gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzeko zailtasunak, sasoikako lanetan egoera txarreko etxebizitza izateko arriskua, errentamendu kontratuak lortzeko arazoak, dauden laguntzei buruzko informazioa lortzeko oztopoak, jabe nahiz agentzia batzuen bereizkeria, etab.

13. Gizarte esku-hartzea planifikatzea eta sistematikoki ebaluatzea.

Azken urteotan, administrazio askok jarduketak planak egin dituzte, orokorrak (adibidez, gizarteratzeko planak) eta, gehienetan, arlo edo eremu jakinera bideratutakoak (esate baterako, etxebizitza planak).

Plan horiek hobekuntza tresna eraginkorrek izateko, komenigarria da oinarrizko baldintza batzuk betetzea: handitzeko baliabide nahikoa edukitzea eta horiek zehaztea, gizarte eragileen partaidetza aktiboa edukitzea; ebaluazio adierazleak izatea; ebaluazio independentea, publikoa eta parte-hartzailea edukitzea...

14. Egoera anitzei erantzuna emateko gaitasuna duten baliabideen eta ekipamenduen benetako "sarea" sortzea.

Hau da, baliabideak dibertsifikatzea, pertsona eta egoera bakoitzerako ibilbide egokiak ahalbidetzeko; horretarako, plangintza eta sareko lana behar dira. Sareko lanak baliabide desberdinen arteko lankidetzak eta koordinazioa behar du, eta, gainera, ezinbestekoa da eragile publikoen eta gizarte nahiz familia eragileen partaidetza erraztea; horiek partekaturiko erantzukizunak berenganatu ahal izango dituzte, beharrizanei erantzuna emateari dagokionez.

15. Erakundeek euren gain hartu behar dute gizartea sentsibilizatzeko lana, urrakortasun bereziko egoeran dauden pertsonak edo sektoreak babestu behar izateari buruz.

Horretarako, beti pertsona horien aldekoak ez diren gizarte erreakzioak aurreikusi behar dira; gainera, ukapen erreakzioekiko buruzagitzak lortu behar da, halako erreakzioak agertu ahal direlako, arriskurik handieneko pertsonen edo sektoreen zuzendutako programak aplikatzen direnean edo baliabide berriak sortzen direnean.

16. Pertsona guztiei errolatzeko aukera erraztea. *Ezinbesteko izapidetzea da pertsonak babesteko laguntza ematen duen gizarte prestazio asko eskuratu ahal izateko; halaber, ez da ahaztu behar larrialdiko egoerak ere badaudela, eta, halako egoeretan, ezinbestekoak direla gizarte laguntzako tresnak eta larrialdiko gizarte prestazioak; halako egoerak daudenean, ez da kontuan hartuko udalerrian errolatuta egon behar izatea.*

17. Baliabideek bete behar dituzten gutxiengo baldintzak arautzea eta kontrolatzea.

Baldintza fisikoak, funtzionalak eta segurtasunekoak dira, funtzionamendu arauen aldetik, erabiltzaileen eta profesionalen eskubideei eta betebeharreri dagokienez. Halako baliabideen oinarrizko arauketaren eta ondorengo kontrolaren helburua (sarritan ez baitago halakorik) gutxiengo estandarrak bermatzea da, kantitateari eta kalitateari dagokionez, eta laguntza jasotzen duten eta horretan lan egiten duten pertsonen eskubideak bermatzea.

EZAGUPENA ETA JARRAIPENA ERRAZTEN DUTEN ADIERAZLEAK EDUKITZEA KOMENIGARRIA IZATEARI DAGOKIONEZ

18. *Gizarte babesgabetasun larriaren zehaztugabetasuna edo muga lausoak aintzat hartuta, komenigarria da **adierazle edo parametro nahiko argiak eta malguak edukitzea, bazterkeria egoeran eta horren arriskuan (eta zein mailatan) dauden pertsonak zehazteko;***

hori lagungarria izango litzateke beharrianak zein diren hobeto jakiteko, horiei hobeto ego-
kituriko esku-hartzea egiteko edo lehentasunak finkatzeko.

19. Era berean, komenigarria izango litzateke politikak eta horien emaitzak ebaluatzeko aukera ematen duten adierazleak egotea; horrela, horien aurrerakuntzak eta atzerape-
nak hobeto baloratu eta neurri berriak nahiz eraginkorragoak hartu ahal izango dira.

Horri dagokionez, adosturiko adierazle batzuk egotea ona izango litzateke defentsarako erakundeen jarraipen lanak errazteko eta errealitate edo une desberdinak konparatzeko. Halako adierazleen adibidetzat, aipagarriak dira pobrezia larriaren tasa, oinarrizko errentaren prebalentzia tasa, oinarrizko errentan titular bakoitzeko egindako urteko gastua, gaueko har-
rerako baliabidetako plaza kopurua (pertsona kopuru jakinari dagokionez), etab.”

* * *

Bigarren tailerra ere egin zen Logroñon, apirilaren 21ean eta 22an. Errioxako Herriaren Defendatzaileak antolatu zuen eta izenburua “Mendetasuna: Mendetasunaren legearen hutsuneak eta hori ezartzeko arazoak” izan zen. Honakoak izan ziren tailer horretako on-
dorioak:

“LANTEGIA: “MENDEASUNA: MENDEASUNARI BURUZKO LEGEA EZARTZEKO ARAZOAK ETA HUTSUNEAK”

- 1. Mendetasunari buruzko Legean ezarritako sistema garatzeko eta betearaz-
teko arau autonomikoak sustatzea,** Mendetasuna Gizarte Zerbitzuetan sistema
bakartzat jasotzeko.
- 2. Onuradunaren eta baterako ordainketa sistemaren gaitasun ekonomikoa ze-
hazteko irizpideak ezartzea; sistema horrek gutxieneko laguntza bermatu
behar du,** onuradun guztiei zerbitzu kalitate berbera emanez, eta, zerbitzu asko
daudenean, ordainketan partaidetzako formulak garatuz.
- 3. Aurrekontu autonomikoen kontura, prestazio ekonomikoetarako eta mendeta-
sunari laguntzeko zerbitzuetan gehigarriak ezartzea.**
- 4. Inplikaturiko administrazio guztien koordinazioa eta konpromisoa indartzea,**
batez ere tokiko erakundeena, administrazio autonomikoarekin hitzarmenak eginda
eta beharrezko baliabideak nahiz tresnak eskualdatuta, Erkidegoko Gizarte Zerbi-
tzuen lankidetzat egokia eta eraginkorra bermatzeko, sistemaren kudeaketan.
- 5. Gizarte laguntzako zerbitzu eta zentro kopurua nabarmen handitzea,** legea-
ren helburua lortzeko eta bertan ezarritakora egokitzeko.
- 6. Mendetasun egoera baloratzeko eta ebazteko baliabideak indartzea,** maila
onartzeko prozedurak eta arloko prestazioetarako nahiz zerbitzuetarako proze-
durak arintzeko, ezarritako epeetan, zerbitzua edo eskubidea gauzatzeko orduan
berandutzerik ez egoteko.
- 7. Onuraduna edo zaintzaile ez-profesionala izateko baldintzak malgutzera** (bizile-
kuan egondako gutxieneko aldia, bizikidetasun aldia mendeko pertsona ibiltarien-
tzat edo autonomia erkidego desberdinetan bizi diren familiek hartutakoentzat)

8. **Gehieneko epeak arauen bitartez arautzea**, mendetasun egoera baloratzeko nahiz onartzeko eta horri lotutako zerbitzuak zein prestazioak lortzeko prozeduran, zentzuzko itzarotealdiak bermatzeko; halaber, **urratzearen ondorio juridikoak finkatzea**.
9. **Prestazio ekonomikoen katalogoko zerbitzuen lehentasuna errespetatzea**, Laguntzako Banakako Programetan (LBP) mendetasuna duen pertsonaren beharrezan ondoen egokitzen zaien esku-hartzea zehazteko orduan.
10. **Prestazio ekonomikoak onartzeko ondore data ezartzea**.
11. **Zaintzaile profesionali eta ez-profesionali laguntza eta trebakuntza emateko neurriak ezartzea**.
12. **Mendeko pertsonen arlo soziosanitarioa garatzea**, laguntza integrala, iraunkorra eta koordinatua bermatzeko, laguntza maila guztien artean, laguntzako egiturak erabiltzaile hauen beharrezanetara egokituz.
13. **Mendeko adin txikikoei laguntzeko programa bereziak abiatzea**, laguntza soziosanitarioan eta hezkuntzakoan maila nahikoa bermatzeko, euren adina edozein izan arren.
14. **Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeren prebentziorako programak abiatzea, mendeko pertsonen ingurura egokitzeko laguntzak ere aintzat hartuta** (motorreko ibilgailuak, garraio gastuak, etxebizitzaren egokitzapena...), autonomia pertsonala sustatzeko baliabiderik eraginkorrenetarikoa baita.
15. **Premiazko beharrezan betetzeko edo arintzeko neurriak aurreikustea**, LBP egokian jasotako zerbitzua gauzatu arteko izapidetzealdian.
16. **Biztanle guztientzat informazio bateratua, ulergarria eta eskuragarria eskaintzen duten bideak egituratzea; era berean, profesionali jarraipen, informazio eta aholkularitzako mekanismoak eskaintzea**, euren balorazio lana errazteko, zerbitzuen erabilgarritasuna jakiteko eta mendeko pertsonak orientatzeko.
17. Mendetasuna baloratzen duten taldeetan psikiatrak sartzearen eta LBPetan, beharrezkoa izanez gero, laguntza baliabide espezializatuak erabiltzearen komenigarritasunari dagokionez..."

* * *

Hirugarren tailerra Albaceten egin zen, apirilaren 28an eta 29an, eta bertan "gizarte babesik gabeko egoera larrian dauden pertsonen duten beren gaitasunaren mugaketa" izan zen gaia. Honakoak izan ziren ateratako ondorioak:

"3. LANTEGIA.- GIZARTE BABESGABETASUN LARRIKO EGOERAN DAUDEN PERTSONAK, GAITASUNA MUGATUTA DUTENAK

1. *Edukien eta kontzeptuen mugaketa*
2. *Gaitasun mugatua duten gizarte babesgabetasun larriko pertsonen emandako arreta*
 - 2.1. *Proposaturiko neurriak*

3. Gaixoen borondatea murrizten duten neurriak, gaitasun mugatua izan eta gizarte babesgabetasun larriko egoeran dauden pertsonak babesteko tresnatzat
 - 3.1. Borondatezkoa ez den barneratzea
 - 3.2. Borondatezkoa ez den tratamendua
 - 3.3. Gaixoen borondatea murrizten duten beste neurri batzuk
4. Legezko ezintasuna, gizarte babesgabetasun egoeran dauden gaitasun mugatuko pertsonak babesteko
 - 4.1. Proposatutako neurriak

1.- EDUKIEN ETA KONTZEPTUEN MUGAKETA

Gaitasuna mugatuta duten pertsonen gizarte babesgabetasun larriko egoerari buruzko erreferentzia izateko, beharrezkoa da "gizarte babesgabetasun larria" eta "gaitasunaren mugaketa" zer den ondo zehaztea, aipatzen ari garen pertsonen taldea ondo mugatuta gelditu ahal izateko.

Horrela, gizarte babesgabetasun larria, defentsa erakundeek adierazitako ahobatezko irizpide baten arabera*, 1 hiritarrek Konstituzioko I. tituluko hirugarren kapituluan jasotako gizarte eskubideak bermatuta edukitzeko zailtasuna edo ezintasuna dela esan daiteke.

Horrenbestez, gizarte babesgabetasun hitzak gizarte baliabideak ez edukitzea adierazten du (baliabide ekonomikoak, lana, etxebizitza edo ostatua, familia sarea, heziketa, etab.), edota baliabide pertsonalak ez edukitzea (osasuna, gaitasuna, autonomia, gizarte trebetasunak, etab.), gizarte bazterkeriako egoerarekin batera; hau da, ez dago integrazioz edo partaidetzarik gizarteko sistema sozioekonomikoaren eta arauzkoaren nahiz kulturalaren barruan.

Gizarte babesgabetasuna, bazterkeria bezala, ez da egoera finkoa edo estatikoa, prozesu dinamikoa eta bilakaera jakinaren arabera mailakatzeko modukoa baizik; bilakaera horretan, herritarrek integrazio, segurtasun eta egonkortasuneko zonetatik erabateko bazterkeriako zonetara igaro daitezke, urrakortasun, kolokatasun eta ezegonkortasuneko zonetatik igarota; baina alderantzizko prozesua edo gizarteratzea ere egon daiteke.

Ikuspegi honetatik begiratuta, pertsona baten gizarte babesgabetasuna larria dela esan daiteke pertsona horrek baliabide pertsonalen eta gizarte baliabideen gabezia handia duenean, eta inguruko gizarte sareetatik marjinazio maila handia eta bizikidetasun arauetik ez-egokitze larria duenean; horren ondorioz, pertsona hori une eta gizarte testuinguru jakinean

* Gizarte babesgabetasun larriko egoeran dauden pertsonen buruzko lantegia; Gasteizen, 2008ko apirilaren 14an eta 15ean.

dago, eta, zenbait zergatiren eraginez, lehen azaldutako “continuum” deritzonaren barruko arriskurik eta babesgabetasunik handieneko muturrean ere bai.

Gaitasuna mugatzeari dagokionez, ikuspegi juridiko hutsetik begiratuta, Kode Zibileko 200. artikuluan ezarritakoa aipatu behar da:

Ezintasunaren zergatiak gaixotasun edo gabezia fisiko edo psikiko iraunkorrak dira, pertsonari berenez moldatzea ekiditen diotenak.

Medikuntzako definizioetan sartu barik, manu horrek bi ezintasun kasu ezartzen ditu, argi eta garbi: gabeziaren edo gaixotasunaren iraunkortasuna eta norbera moldatzeko ezintasuna.

Jurisprudentiaren interpretazioak argitu egiten du hori. Hain zuzen ere, bertan adierazitakoaren arabera, ez da bideragarria gaixoa fase kritikoetariko bakoitzean bakarrik ezgaitzea; izan ere, gaixotasuna iraunkorra bada, eta errepikatu ahal izanez gero, beharrezko neurri guztiak hartu behar dira gaixoa eta horren ondasunak iraunkortasunez eta egonkortasunez defendatzeko; horretarako, egokiena zaintza izan daiteke, zaintzak zaindutakoaren osasuna suspertzea eragitera behartzen baitu zaintzailea.*

Beraz, kasu honetan, gure esku-hartzea eurak bakarrik moldatzeko gaitasuna mugatuta duten pertsonen buruzkoa da, pertsona horiek baliabide pertsonalik eta gizarte baliabiderik ez dutenean, gizarte sareetatik isolatuta daudenean edota bizikidetasun arauekin arazoak dituztenean.

Azken batean, gure ustez, profil honetara gehienbat bi pertsona mota egokitzen dira:

- *Buruko gaixotasunen, demenziaren edo ezintasuna eragiten duen adimen urritasunen bat dutenak, baldin eta gizarte babesgabetasuneko egoeran badaude, lehen adierazitakoaren arabera. Adibiderik argigarriena Diogenesen sindromea duten pertsonena izan daiteke.*
- *Buruko gaixotasun larriren bat dutenak, beste patologiaren bati edo ezintasunen bati lotuta, baldin eta gaixotasun horrek etengabeko arreta eta ikuskapena behar badu; hau da, baldin eta, arreta edo ikuskapen hori eskaini ezean, edo berori nahikoa nahiz ez-egokia izanez gero, gizarte babesgabetasuneko prozesua hasteko edo larritzeko arriskua badago. Adibide garrantzitsuenen artean, aipagarria da esquizofrenia edo patologia duala duten pertsonak, euren egoera jakin ez edo tratamenduak uzten dituztenak.*

Halaber, aditzera eman behar da gure helburua herri-administrazioek babesgabetasun bikoitzeko egoeraren mende dauden pertsonen eskubideak bermatzeko egiten dutena ikuska-

* Auzitegi Gorenaren 1999ko uztailaren 26ko Epaia.

tzea dela; egoera horren eraginez, pertsonok ezin dira eurenez moldatu, eta, horrenbestez, arreta berezia behar dute.

Arreta hori, funtsean, zerbitzu soziosanitarioak eskaintzean oinarritzen da, halako pertsonen osasuna babesteko eskubidea bermatzeko, gainerako gizarte eskubideak bermatzeko ezinbesteko baldintzat; halaber, legezko babeserako neurriak hartu behar dira, euren konstituzio eskubideak erabili ahal izateko, eta, horretarako, beharrezkoa da gaixotasunaren edo ezintasunaren eta hasierako nahiz ondorengo balizko ezintasunaren diagnostikoa lehenbailehen edukitzea.

2.- GAITASUN MUGATUA DUTEN GIZARTE BABESGABETASUN LARRIKO PERTSONEI EMANDAKO ARRETA

Gizarte babesgabetasuneko egoeran dauden gaitasun mugatuko pertsonen arreta emateko, hiru faktore nagusi hartu behar dira aintzat: buruko gaixotasunaren edo ezintasunaren mota eta larritasuna, gizarte bazterkeriaren maila, eta familia eta gizarte sarea.

Horren arabera, pertsona bakoitzak, une bakoitzean, arreta soziosanitario jakina behar du, anbulatoriokoa, ospitalekoa edo egoitzakoa, bera osasuna eta, ahal den neurrian, suspertze pertsonala hobetzeko, gizarteratze prozesua sustatzeko eta familia nahiz gizarte sareko herritarrek ordeztuko.

Beharizan horretatik, kasu bakoitzerako baliabide nahiko eta egokiak eduki beharra sortzen da; batez ere, arretaren iraunkortasuna ahalbidetu ahal duten baliabideak, hau da, zain-tzaileak. Horri dagokionez, arreta handia eta lehentasunezkoa eman behar zaie familiei eta tutoreei; gainera, egoitzako plazak zuzkitu behar dira, egonaldi iraunkorrekoak ere barne.

Arazoa, gaur egun, gizarte babeseko sistemek (funtsean, osasuneko eta gizarte zerbitzuko sistemak) halako pertsonen prebentzioa, detekzioa eta tratamendua egiteko zailtasun asko dituztenean sortzen da; horri dagokionez, esan daiteke, larritasuna zenbat eta handiagoa izan, erantzuteko gaitasuna hainbat eta urriagoa dela, eta, horrela, halako pertsona asko babeseko sistemetatik baztertuta gelditzen dira.

Hori gertatzen da, esate baterako, buruko gaixotasun larriak edo beste patologia batzuei lotutakoak dituzten pertsonen kasuan; izan ere, anbulatorioko tratamenduak emaitza onik eman ezean, ezin dute familia edo gizarte laguntzarik aurkitu, ezta egonaldi luzerako egoitza baliabide egokirik ere, sare publikoko zentroetan.

Egoera horretan, pertsona horiei arreta egokia emateko behar diren zerbitzu soziosanitarioak bermatzea lehentasuna izan behar da botere publiko eskudunentzat, babesteko legezko neurrien eraginkortasun handiagoa ere ahalbidetzeko.

Horretarako, gure ustez garrantzitsuenak eta lehentasunezkoenak diren neurriak azalduko ditugu, halako zerbitzuen ezaugarri eta antolamenduari dagokionez:

- Defentsa erakunde bakoitzak egindako azterketak eta garaturiko ekimenak.
- Gizarte eta osasun arloko indarreko arauak.
- Osasun Sistema Nazionaleko Buruko Osasuneko Estrategia; izan ere, agiri hori erreferente garrantzitsua da Estatuko errealitatea zein den jakiteko, Osasun Ministerioaren, autonomia erkidegoen, gaixo elkarteen eta zientzia elkarteen baterako ahaleginaren emaitza baita, buruko osasunaren arretan politika soziosanitarioak hobetzeko.

2.1.- Proposaturiko neurriak

2.1.1.- Pertsona hauen gehieneko **autonomia** eta susperraldia sustatzeko, honako neurri hauei lehentasuna ematea:

- Halako pertsonak komunitatean bizitzeko duten autonomia hobetzeko esku-haritzeak, euren baliabide pertsonalak indartzen dituztenak; horrela, ahalik eta gehien murrizten da neurri hertsagarrien eta askatasuna mugatzeko neurrien aplikazioa, pertsona horien artean eta inguruan sor daitezkeen arriskuak ekiditeko.
- Estigmatizazioaren, bereizkeriaren eta marjinazioaren aurkako borroka, pertsona hauen duintasuna zaintzeko.
- Pertsonari, familiari edo tutoreari, zaintzaileari eta gizarte inguruari eman beharreko informazioa, egindako diagnostikoari, kanpoko eragin faktoreei, sortzen diren ondorioei eta tratamenduaren aukerei buruz.
- Zaintzaileen heziketa, aholkularitza eta arreta psikoterapeutikoa, pertsonen autonomia hobetzeak zaintzaile horien ahalegin handiagorik ez eragiteko.

2.1.2.- Arretaren **jarraipena** hobetzeko antolamendu moduak ezartzea (tratamendua, errehabilitazioa, zaintzak eta arreta), arreta sareko zerbitzuen artean; tratamendu uzteak ekiditea, ospitaleratze kopurua murriztea eta gizarte funtzionamendua nahiz bizi kalitatea hobetzea, prozesuen araberako arreta nahiz horren diziplina anitzeko izaera sustatuz eta jarraipen prozedurak ezarriz.

2.1.3.- Arretan **irisgarritasuna** sustatzea, baliabideak bizilekuetara hurbilduz, ordutegiak zabalduz, kontsulta modu berriak eskainiz eta etxerako bisitaldiak erraztuz. Azken batean, funtzionamendu proaktiboa eta asertziozkoa ezarri behar da, beharrezana bilatzeko, eskariari arreta eskaintzea bakarrik ez baita nahikoa.

2.1.4.- **Ekitatea** bermatzea, sustapen, prebentzio, tratamendu eta errehabilitazioko baliabide soziosanitarioak lortzeko eta banatzeko orduan; halaber, pertsona horiei ambulatorio, ospitale eta egoitzako arreta baliabide guztiak bermatzea:

- Baliabideok kantitate nahikoan eskainita, uneko beharriaz aurre egiteko (egonaldi iraunkorreko egoitza plazak ere barne).
- Zerbitzuak ematea kalitate ahalik eta handiena lortzera bideratuta.
- Baliabideen tipologia dibertsifikatuz, pertsona horien ezaugarrietara egokitzeko.

2.1.5.- Arreta planifikatzeko eta **koordinatzeko** mekanismo eraginkorrak ezartzea, honako hauen arteko funtzionamendu integratuko akordioetan oinarrituriko **zerbitzu sarea** finkatzen joateko: buruko osasuneko zerbitzuak, lehen mailako arreta eta gizarte zerbitzuak. Hori, berriz, kasuan kasuko gobernuek jarduketara koordinatzeko duen organoak sustatu beharko du, Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko 16/2003 Legeko 14. artikuluan ezarritako arreta soziosanitarioa bermatzeko; hain zuzen ere, "gaixoei (gehienetan, kronikoei) eskainitako zaintzen multzoa, baldin eta, euren ezaugarri bereziak edota egoera kontuan hartuta, osasun eta gizarte zerbitzuen aldiberekoa eta sinergikoa den jarduketara jaso ahal badute, euren autonomia hobetzeko, mugak edota oinazeak arintzeko eta gizarteratzea errazteko."

3. GAIXOEN BORONDATEA MURRIZTEN DUTEN NEURRIAK, GAITASUN MUGATUA IZAN ETA GIZARTE BABESGABETASUN LARRIKO EGOERAN DAUDEN PERTSONAK BABESTEKO TRESNATZAT

Borondatezkoak ez diren tratamendu, barneratze eta edukitze prozedurak ez dira diagnostiko jakinetan oinarritzen, buruko egoera jakina egotean baizik; egoera horren eraginez, pertsonak ezin du tratamendua onartu edo hauteman, hori beharrezkoa denean. Halako prozedurak salbuespenezkoak dira antolamendu juridiko orokorrean ezarritakoari dagokionez, antolamendu horrek autonomia pertsonala bermatzen baitu, onarpenaren aldetik, eta autonomia hori informazioan euskarrituriko onarpenaren bidez gauzatzen da.

Halako neurriak hartzean dagoen dimentsioaren eta maiztasunaren aldagarritasun handia, izan ere, pertsonak tratamendurik egokiena erabakitzeko duen gaitasuna zehatz ebaluatze-ko zailtasunen eraginezkoa da (adibidez, droga-mendetasunak dituzten pertsonekin gertatzen dena), baita tratamendurik ez egotearen nahiz hori iraunkorra ez izatearen eraginezkoa edo familien zein zaintzaileek gehiegizko laguntza kargaren eraginezkoa ere, eta ospitale-eratzeko eta etxeko nahiz egoitzako baliabideen erabilgarritasunaren eraginezkoa ere bai.

Hori dela eta, gizarte babesgabatasuneko egoeran dauden gaitasun mugatuko pertsonak urrakortasun handia dute euren borondatea murrizten duten neurrien aplikazioari dagokionez, behar duten premiazko arreta emateko ohiko modutzat, gehienbat segurtasunik ezari lotutako arriskuarekin batera gizarte alarma dagoenean, baldin eta gero jarraipena egiteko behar den laguntza ematen ez bazaie.

Horrek agerian jartzen du sistema soziosanitarioa ahalik eta gehien garatu behar dela, bai baliabide nahikoen zuzkiduran eta bai horien funtzionamenduaren eraginkortasunean, la-

guntzaren iraunkortasuna bermatzeko; horrela, neurri horiek behar-beharrezkoak direnean baino ez dira erabiliko, eraginpeko pertsonen eta horien inguruaren babesa bermatzeko.

Halaber, halako neurrien aplikazioak funtsezko eskubideen mugaketa dakarrela aintzat hartuta, Fiskaltzaren eta Organo Judizialen ikuskapena behar da beti, eta, gainera, banakako jarduketa protokoloak garatu behar dira, bertan esku hartzen duten alderdi guztiak ondo zehazteko: ekintzak, prozedurak, etab.

Garrantzitsua izango litzateke informaturiko onarpen eredia garatzea, familiakoentzat edo tutoreentzat eta interesatuentzat eurentzat, neurri murriztaileak hartu behar direnerako, Gaixoaren Autonomiari buruzko 41/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Neurri murriztaileok honako hauek dira:

- *Borondatezkoa ez den barneratzea.*
- *Borondatezkoa ez den tratamendua.*
- *Gaixoen borondatea murrizten duten beste neurri batzuk; adibidez, isolamendua, euspena, tratamendu oso erasokorrak edo komunikazioen kontrola.*

3.1.- Borondatezkoa ez den barneratzea

Lehen azaldutakoaren arabera, gizarte babesgabetasuneko egoeran dauden gaitasun mugatuko pertsonen borondatezko barneratzea (Prozedura Zibilar buruzko Legeko 763. artikuluan ezarritako bermeekin egindakoa, jakina) terapeutikoa izan daiteke, ospitaleratzean oinarrituriko tratamendu egokia eskaintzeko; laguntzako ere izan daiteke, tratamendu hori eraginkorra izateko behar diren baldintzak aldi jakinean bermatzeko, egoitza araubidean.

Horri dagokionez, sistema soziosanitarioak bete egin behar du bere eginkizuna, hau da, bermatu egin behar du, berdintasun baldintzetan, pertsona horien osasunerako eskubidea, eta euren esku jarri behar ditu, bidezko deritzon moduan, barneratze horiek egiteko behar diren baliabide guztiak, kantitate nahikoan eta modu egokian.

Ezinbestekoa da, bestalde, esku hartzen duten zerbitzu guztiek barneratzeak ahalik eta koordinazio, eraginkortasun, ardura eta azkartasun handienarekin egitea; horretarako, garrantzi handikoa izango litzateke jarduketa protokoloak egitea, probintzia eta autonomia erkidego batzuetan daudenen modukoak.

3.2.- Borondatezkoa ez den tratamendua

Antolamendu juridikoan ez dago arauketa berezirik, burutik gaixo dauden pertsonentzat borondatezkoak ez diren tratamenduak (anbulatorio edo barneratze araubidean) baimentzeari buruz; hala eta guztiz ere, legeria orokorra dago (Osasunari buruzko Lege Orokorra eta Gaixoaren Autonomiari buruzko 41/2002 Legea), horrek halako kasuetan aplikatzeko moduko tratamenduak (borondatezkoak ez direnak) arautzen dituena.

Gizarte babesgabetasuneko egoeran dauden gaitasun mugatuko pertsonen dagokienez, arazoa nagusia ez da lege aurreikuspen hori borondatezkoa ez den tratamendua gauzatze-ko nahikoa den jakitea, integritatea zaintzeko ezinbesteko egoeretan soilik aplikatzea baizik, eta, halako kasuetan, garatzeko behar diren baldintza guztiak egotea.

Dena den, sarritan, pertsona horiei borondatezkoak ez diren tratamenduak ematearen zergatiak ez dira gaixotasunari lotutako prozesuetan oinarritzen, zerbitzu soziosanitarioen sarearen funtzionamendu gabeziatan baizik (batez ere, irisgarritasunaren eta koordinazioaren arloko gabeziak), hain zuzen ere, laguntzaren jarraipena bermatzeko gabeziatan; gabezia horien ondorioz, laguntza ezin da anbulatorioan eskaini, eta, horrela, gaixoak ezein tratamendurik gabe egoten dira aldi luzeetan.

Horrenbestez, berretsi egin behar da ezinbestekoa dela gure sistema soziosanitarioaren ahalmenak ahalik eta gehien garatzea, borondatezkoak ez diren tratamenduak salbuespe-nezkoak eta oso urriak izateko, gaixoen osasuna babesteari dagokionez; gainera, derrigo- rezkoak direnean, halako tratamenduek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- *Sendagileak aginduta egingo dira, banakako arreta plan batean oinarrituz; bertan, jarraipena aurreikusiko da, laguntza prozesuaren barruan.*
- *Ezarri nahi den tratamenduaren ordeztiko baliabideak aplikatzeko aukera guztiak agortuta egon beharko dira.*
- *Gaixolari tratamendua nahita betetzeko aukera eman zaiola egiaztatuko da.*
- *Gaixoarengan autodeterminazioko eta erantzukizun pertsonaleko maila ahalik eta handiena sustatuko da, hartzen dituen erabakiei dagokienez; ahal den neurrian, bere nahiak eta iritziak errespetatu egingo dira.*
- *Familiakoek edo tutoreek (eta, behar izanez gero, interesatuak berak) onartu egin beharko dute tratamendua.*
- *Aurretiatzko baimen judiziala egongo da, gaixoaren eskubideak babesteko eta tratamendua bidezkoa dela bermatzeko; hori ez egoteak kalte larria egingo lioke gaixoaren edo horren ingurukoaren osasunari.*

3.3.- Gaixoen borondatea murrizten duten beste neurri batzuk

Gaixoen borondatea (euspena eta tratamendu oso erasokorrak) eta euren banakako as- katasuna (isolamendua) edo funtsezko beste eskubide batzuk (esate baterako, komunika- zioen kontrola) murrizten dituzten neurriei dagokienez, aipagarria da Espainiako Herriaren Defendatzaileak Justizia Ministerioari 2005eko azaroan egindako gomendioa, Prozedura Zibilar buruzko Legeko 763. artikulua aldatzeari buruzkoa, bertan baimen edo jakinarazpen judiziala eduki beharra jasotzeko, osasun prozesuak halako neurriak hartzea gomendatzen duenean.

Halaber, eta Buruko Osasunaren Estrategian jasotako gomendioak kontuan hartuta, gure ustez, garrantzi handikoa da:

- *Protokolo orokorren eta banakakoen bidez, halako neurriak aplikatzeko prozedurak (borondatezkoa ez den tratamendua ere barne) arautzea; neurri horietan, pertsonen ahalik eta murriztapen urrienerako printzipioa, errespetua eta duintasuna jasoko dira.*
- *Informaturiko onarpen eredia garatzea, familiakoentzat eta gaixoentzat, halako kasuetan.*
- *Jardun onen gida orokorra sortzea, laguntza jardueraren alderdi etikoei eta legezkoiei buruz, gaixoaren borondatearen aurkako edozein esku-hartze modalitatetan.*

4. LEGEZKO EZINTASUNA, GIZARTEAN BABESIK GABE DAUDEN GAITASUN MUGATUKO PERTSONAK BABESTEKO PROZEDURA JUDIZIAL GISA.

Orain arte azaldutako guztiaren arabera, gizarte babesgabetasuneko egoeran dauden gaitasun mugatuko pertsonen legezko ezgaitasuna ez da izapidetze hutsa balitz bezala erabili behar, pertsona horiek barneratzeko, sarritan gertatzen den bezala; hain zuzen ere, euren eskubideen erabilera babesteko bidezko neurriak hartu ahal izateko legezko prozeduratzat erabili behar da.

Horri dagokionez, botere publikoen eginkizuna funtsezkoa da; izan ere, kasurik gehienetan, prozeduraren hasiera eta halako pertsonak babestearen nahiz zaintzearen erantzukizuna botere horien esku dago, familiarik ez dagoenean legezko betebeharrak hori baitute.

Horrela, aipagarria da gizarte eta osasun zerbitzuen funtsezko eginkizuna, balizko ezintasuna duten pertsonen egoera fiskaltzari jakinarazteari dagokionez; gainera, ezinbestekoa da administrazio autonomikoek egitura eta baliabide egokiak eta nahikoak edukitzea, arlo honetan dituzten eskumenak erabiltzeko, batez ere babes funtzioaren erabilera zailagoa denean.

Ondoren, defentsa erakundeek gizarte babesgabetasuneko egoeran dauden gaitasun mugatuko pertsonak babesteko legezko neurriei buruz egindako azterketaren ondorio nagusiak azalduko ditugu.

4.1.- Proposamenak

- 4.1.1. *Eraginpekoiei, familiei edo zaintzaileei eta arlo soziosanitarioko profesionalei informazioa eta prestakuntza ematea, legezko ezintasunari, prozedura judizialari eta horrek sortzen dituen ondorio juridikoei buruz; halaber, horren erabilera egokia bermatzea, eraginpeko pertsonen lehentasunezko arreta lortzeko.*
- 4.1.2. *Gaitasun mugatuko pertsonen babes prozeduretan esku hartzen duten profesionalen prestakuntza espezializatua sustatzea.*
- 4.1.3. *Prozedurak arintzeko, fiskaltzarako komunikazioa hobetzea (osasun eta gizarte txostenen ohiko formularioak eta behar diren datuei buruzko agiri ahalik eta onena) eta auzitegiko osasun azterketa nahiz judiziala etxean bermatzea.*

- 4.1.4. *Pertsona baten ondarearen zati bat administraziora joateko aukera aztertzea, horrek pertsonaren tutoretza duenean, jarduketaren kostu publikoa konpentsatzeko, gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta.*
- 4.1.5. *Tutoretza betebeharren arabera, herri-administrazioek bermatu egin behar dute tutoretza funtzioak garatzean aintzat hartzen dela ezinduen onura eta interesa, eta laguntza integrala ematen zaiela.*
- 4.1.6. *Tutoretzako ordezkarien funtzioak eta tutoreekin nahiz zaintzaileekin duten lotura arautzea; izan ere, pertsona horiek zuzeneko harreman pertsonala dute tutoretzapekoekin, eta horien guztien arteko kontaktutzat jarduten dute.*
- 4.1.7. *Tutoretzako Fundazio Publikoak eta zuzenbide publikoko beste erakunde batzuk sustatzea, gizarte babesgabetasuneko egoeran dauden gaitasun mugatuko pertsonen tutoretza segurtatzeko.*
- 4.1.8. *Tutoretzako Fundazioek edo Erakundeek tutoretzapeko pertsonen arretarako finantziario nahikoa dutela bermatzea."*

* * *

Oviedoko jardunaldietan izen handiko kanpoko hizlariak egon ziren, besteak beste, Konstituzio Zuzenbideko katedradun Yolanda Gómez Sánchez edo Auzitegi Goreneko Zibileko Salako fiskalburu José María Paz Rubio, baita parte hartu zuten herriaren defentsaren erakundeen ordezkariak ere.

Gainera, Herritarren Eskubideen VII Foroa egin zen, "Gizarte ekimenaren ikuspegitik zailtasun bereziak dituzten pertsonen eskubideak" gaiarekin, eta bertan elkarre eta gizarte erakundeen ordezkariak hartu zuten parte.

Azkenik, herriaren defendatzaileek honako ondorioak atera zituzten jardunaldietan:

"HERRIAREN DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIO JARDUNALDIKO ONDORIOAK. OVIEDO, 2008ko URRIA

Sarrera

Gizarte babesgabetasun larria defentsa bulego guztientzat da aztertzeko eta esku hartzeko arrazoi, eskubideak bermatzeko duten funtzioa betetzeko orduan. Gabezia eta desabantaila orokortuak pilatzearen ondorioz sortzen diren egoeren adierazle da babesgabetasun hori; egoera horiek, oro har, aldatu egiten dira denborarekin, eta eragotzi egiten dute herritar osoei dagozkien gizarte eskubideak baliatzea, bai eta horretarako gaitasuna kentzen ere.

Nahiz eta gure erakundeak maiz hurbiltzen diren gizarte babesgabetasun larriaren ondorioak pairatzen dituzten herritarren sektoreetara, hurbiltze hori, askotan, ez da erabatekoa

izaten. Herriaren Defendatzaileen 23. Koordinazio Jardunaldiaren bidez, gizarte babesgabetasunaren gaineko gogoeta orokorra egin eta agertu nahi izan da; hain zuzen ere, eboluzio prozesu bat da babesgabetasuna, kausa anitzekoa, eta hor eragina du, gutxi-asko, politika publikoek –hala nola ekonomia politika, etxebizitza politika, hezkuntza politika, enplegu politika, oinarrizko sarrera eta gizarteratze politika, osasun politika eta abar– elkarreraginik eta zeharkakotasunik ez izateak edo behar baino gutxiago izateak.

Beraz, dauden politika publikoak aztertu dira, bai eta politika horiek gizarte babesgabetasunean duten eragina ere; hala, ikusi da nahiz eta orokorrak izan babesgabetasun larriari dauden pertsonen arazoak edo egoera horren eragileak, hau da, nahiz eta haien bizimoduko hainbat esparruri eragiten dieten, hala ere, esku-hartze sozialak maiz ez direla integralak izaten, egitura edo eskumenak zurrunik direlako eta ez dagoelako koordinaziorik administrazioen artean; horren ondorioz, ez da kontuan hartzen bazterketaren eta gizarte babesgabetasunaren zeharkako dimentsioa.

Defentsa bulegoek ezinbestekotzat jotzen dute adieraztea beharrezkoa dela botere publikoek esku-hartze integralak eta koordinatuak diseinatu eta jorratzea, erantzun globala ematea pertsonen beharren multzoari. Zalantzarik gabe, helburu hori lortzeko lagungarria izango da gizarte eskubide bakoitzari dagokion katalogoa onartzea, pertsona orok lortzeko eskubidea duen prestazio edo zerbitzu bihurtuta.

Esku-hartze publiko koordinatu eta sektore anitzekoa gehien eskatzen den alderdietako bat, zalantzarik gabe, oso egoera zaurgarrian daudelako eguneroko bizimoduko funtsezko jarduerak egiteko laguntza behar dutenen arretari dagokiona da. Pertsona horiei beregainago izaten eta hiritar eskubideak guztiz baliatzen lagundu behar zaie. Horixe du helburu, jakina denez, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzekoak.

Hori onartzeak nolako garrantzia duen kontuan hartuta, herritarren eskubide subjektibo bat taxutzen duen aldetik, gizarte dagoen ustearekin bat egiten dute defentsa bulegoek, alegia, garrantzitsua eta beharrezkoa dela lege hori egoki ezarri eta garatzen dela bermatzea.

Ohartzen gara oso konplexua dela lege horrek diseinatutako sistema ezartzea; konplexutasun hori hasieran da bereziki agerikoa, baina, araudi bidez garatu eta handik pixka batera –lurralde artean koordinatuta, neurri handi batean– autonomia erkidegoek, aldi berean, administrazio kudeaketa azkar eta eraginkorra egin behar dute.

Hain zuzen ere, legea zehazten duten oharretako bat da adostua behar duela izan; hala, legea garatzeko eta sistema ezartzeko, aurrez akordioak iritsi behar dituzte herri-administrazio eskudun guztiek, Lurralde Kontseiluan. Adostu beharreko erregelamendu garapenaren alderdiek ez bakarrik lotzen eta baldintzatzen dute eskubidearen hedapena bera; horretaz gainera, berdintasun printzipioa sartzen dute Mendekotasun Sistemaren gutxienezko maila osatzen duten oinarrizko prestazioetarako eskubidea gozatzeari dagokionez. Ikusirik ez dagoela akordiorik oinarrizko alderdietan, hala nola erabiltzailearen ekarpen ekonomikoan, administrazio eskudunei erantzukizun publikoa hartzeko eskatzen diegu defentsa bulegoek, beharrezko akordioak egin ditzaten berdintasun printzipioa ez galtzeko.

Azkenik, esan behar dugu, baldin eta gizarte babesgabetasunak adierazten badu jendeak zaila edo ezinezkoa duela ziurtatzea Konstituzioan aitortutako gizarte eskubideez baliatzerik izango duenik, bereziki agerikoa eta bistakoa dela zailtasun edo ezintasun horrek zein modu nabarmenean eragiten dien buruko gaixotasun edo adimen ezgaitasunaren ondorioz beren burua gobernatzeko ahalmena mugatua dutenei eta baliabide, laguntza eta tresna sozial eta pertsonalik ez dutenei.

Arrazoizkoa denez, pertsona horien jarduteko ahalmena murrizta den aldetik, botere publikoek modua egin behar dute pertsona horiek gizarte babesgabetasunean erortzeko arriskurik izan ez dadin. Alde horretatik, ezin ahantz daiteke jarduteko ahalmena murriztua badute ere Konstituzioak aitortzen dizkien eskubideen titular direla, eta horien artean, zalantzarik gabe, bereziki garrantzitsuak direla bizitzarako eskubidea, osotasun fisikorako eskubidea eta norberaren duintasunerako eskubidea; eskubide horiek, pertsona horien egoera kontuan hartuta, osasunaren babeserako eskubidean mamitzen dira.

Alde horretatik, pertsona horien gizarte babesarekin lotuta, botere publikoek prebentzio, detekzio, diagnostiko, tratamendu, atentzio eta jarraipen integralak bilduko dituen laguntza soziosanitario eraginkor eta koordinatu bat ematea lortu genuen defentsa bulegoek.

Halaber, bidezkoa da herri-administrazioei eskatzea ezar ditzatela patologia guztietarako klinikoki egokiak diren baliabide materialak eta giza baliabideak, gaixoen beharren eta eboluzioaren arabera moldatutakoak; izan ere, baliabide nahikorik ez bada, babesgabetasun publiko larria sortzen da. Halaber, bidezkoa da botere publikoek gogoeta eginaraztea ea aukera juridikorik ba ote den eta zientifikoki bideragarria ote den berariazko lege baten bidez xedatzea derrigorrean izan behar direla osasun tratamendu eta baliabideak, ezgaitzeaz eta ospitaleratzeaz bestelako babes tresna alternatibo gisa.

Azkenik, ezin utz dezakegu alde batera Espainiako Estatuak berriki berretsi duela, 2007ko abenduaren 3an, Nazio Batuetako Batzar Nagusiak 2006ko abenduan onartutako Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena; hitzarmen hori Espainiako ordenamendu juridikoan sartuz gero, baliteke hor bermatzen diren eta ezinduen eskubideen erabateko erabilerari zuzenean eragiten dioten hainbat esparruri buruzko barne araudia aldatzea. Hitzarmen hori benetan gure ordenamendu juridikoan ezartzeko, dagokien botere publikoek berehala esku hartu behar dute ildo horretan, eta, hain zuzen ere, hala egin dezaten eskatzen diegu guk, adierazpen honen bidez.

Proposamenak

Adierazitakoa kontuan hartuta, herriaren defendatzaileek uste dute botere publikoek protagonismo eta erantzukizun berezia izan behar dutela gizarte babesgabetasunaren arloan, eta horretarako pauso hauek eman behar dituztela:

1.- Gizarte eskubideen agiri bat onartzea, nork bere eskumen esparru autonomikoan; agiri horretan, pertsona guztiei zer prestazio eta zerbitzu bermatuko zaizkien zehaztuko da,

eta neurri eraginkorrak hartuta osatuko da; neurri horiek, besteak beste, hauxe ziurtatuko dute:

- oinarrizko diru-sarrera batzuk emango direla, bizitzeko beharrak betetzeko eta bizi baldintza duinak bermatzeko.
- ostatura lortzeko baliabiderik ez duten pertsonen ostatu duinaz gozatzeko duten eskubidea benetan eta egiaz baliatzeko modua emango zaiela.

2.- Zeharkako politika publikoak diseinatu eta gauzatzea, gizarte babesgabetasun egoerak ezabatzeko edo egoera hori pairatzeko arriskua apaltzeko; horretarako, beharrezkoa da "gune soziosanitarioa" benetan eratzea, honako arlo hauek antolatuta:

- sailen arteko eta diziplina anitzeko araudiak.
- egitura organikoak; egitura horiek, beren izaerari, funtzionamendu araubideari eta garapen praktikoari esker, koordinazio tresna eraginkorrak izango dira, eta ordezkaritza eta erantzukizun partekatua izango dute sektore inplikatueta.
- diziplinarteko lana egingo duten tresna funtzionalak, dauden beharrak elkarren artean baloratzeko eta ongi antolatutako erantzunak, bereziki soziosanitarioak, diseinatuzko.

3.- Benetako erantzukizun partekatua izatea Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak sortutako sistema ezartzeko eta garatzeko eskumena duten herri-administrazio guztiek, Mendekotasun Sistemaren gutxieneko maila osatzen duten oinarrizko prestazioetarako eskubideak gozatzeko berdintasun printzipio konstituzionala bermatzeko; horretarako, Lurralde Kontseiluaren barruan beharrezko neurriak har ditzatela eskatzen zaie, legeak hala aginduta sortutako eskubide subjektiboa nola taxutu behar den zehazten duten arloetan.

Halaber, alde batera utzita nabarmen konplexua dela berriki sortutako Mendekotasun Sistema hori ezartzea eta hasieran garatzea, jakinaren gainean egonik nolako garrantzia duen gizartean beste eskubide subjektibo bat sortzeak, bidezkoa da herri-administrazio eskudunei eskatzea ezinago zorrotz joka dezatela hasieran sistema kudeatzeko aldi baterako edo egoeraren arabera hartutako neurriak izanagatik ere etorkizuneko finkatze ezinbestekoa baldintzatu edo alda dezaketen neurri arautzaile, antolatzaile eta funtzionalak ezartzeko orduan.

Beraz, bidezkoa da eskatzea etengabeko autoebaluazioa egin dezatela Mendekotasun Sistemaren garapenari dagokionez eta sistema hori osatzen duten zerbitzuen kalitateari dagokionez, eta zuzendu eta berriz bidera ditzatela hautemandako disfuntzioak, hala nola hasierako uneetan hautematen dituztenak; batez ere, hauexek izan daitezke hauteman daitezkeen disfuntzio horiek:

- ematen den informazioaren eta orientazioaren kalitatea sustatzeko eta hobetzeko beharra, batez ere sistemarako sarbidearekin lotuta; izan ere, bidezkoa da eskatzea sarbide hori bideratzen duten mekanismoek koordinazio eraginkorra izatea.
- eskaera egin eta zerbitzua edo prestazioa eman arteko erantzun denbora hobetzeko beharra; halaber, konpondu egin beharko da egiaztatutako larrialdi egoerarik

gertatuz gero aldi batez erantzuteko modua emango duen aurreikuspenari buruzko araudi orokorrik ez izatea.

- *hasieran baloratu eta hautemandako mendekotasun pertsonalaren egoeraren eboluzioa eta joera aurreikusiko duten neurriak ezartzeko beharra; horretarako, espediente pertsonala eta horren eboluzioaren jarraipena batera kudeatzeko modua emango duten tresnak jarriko dira.*

4.- Bidezkoa da botere publiko eskudunei babes berezia eskatzea nahaste psikiatrikoei lotutako edo lotu gabeko buruko gaixotasunen ondorioz beren burua gobernatzeko ahalmena murriztua duten eta, beraz, gizarte eskubideen erabilera gutxiagotua duten pertsonen gizarte babesari dagokionez; babes berezi horrek eskakizun hauei erantzun behar die:

- *Zuzeneko neurriak hartzea pertsona horien estigmatizazioa, diskriminazioa eta bazterketa alde batera utziko dituen gizarte kontzientzia bat sortzeko, pertsona horien duintasuna zaintzeko ezinbesteko tresna gisa.*
- *Laguntza soziosanitario eraginkor eta koordinatu bat ematea, prebentzio, detekzio, diagnostiko, tratamendu, atentzio eta jarraipen integralak batuko dituen, eta, funtsean, pertsona horiek duten osasun babeserako eskubidea bermatuko duena, gainerako gizarte eskubideak gozatzen direla bermatzeko beharrezko baldintza gisa.*
- *Patologia guztietarako klinikoki egokiak diren baliabide materialak eta giza baliabideak ezartzea, gaixoaren beharren eta eboluzioaren arabera moldatutakoak.*
- *Laguntza lortzeko bidea erraztuko duten neurriak ezartzea, aurreranzko laguntza jardueraren bidez, beharra detektatzeko eta gaixotasunaren diagnostiko zehatz eta goiztiarra egiteko, une oro sistemara sartzeko bidea sustatuz, esku hartzeko formula hurbileko, etxez etxeko, malgu eta jarraituekin.*
- *Laguntzaren jarraipena hobetzeko antolaketa formulak ezartzea (tratamendua, errehabilitazioa, zaintzak, laguntza); formula horiek, dena dela, diziplina anitzekoak izan behar dute, eta jarraipen prozedurak ezarriko direla bermatu behar dute, tratamendu utzikierarik izan ez dadin eta bizikidetzan normalerako bide eman dezan.*
- *Azterketa konparatu bat egitea, gogoeta eginarazteko ea aukera juridikorik ba ote den eta zientifikoki bideragarria ote den berariazko lege baten bidez xedatzea derri-gorreetan izan behar direla osasun tratamendu eta baliabideak, ezgaitzeaz eta ospitaleratzeaz bestelako babes tresna alternatibo gisa.*
- *Beharrezko neurri guztiak hartzea, herri-administrazioek berma dezaten babesik gabe dauden ezinduen tutoretza beren gain hartuko duten egitura administratibo eta insituzionalak fiskalizatuko dituztela, bai eta egitura horiek behar besteko finantzaketa eta behar besteko giza baliabidez eta bitartekoz hornituko dituztela berma dezaten ere, funtzio horiek zuzen betetzeko beharrezko espezializazioa emanda.*

5.- Gaur egungo araudia aztertzea, ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko hitzarmenera eta haren aukerako protokolora egokitzen ote den aztertzeke, eta, hala bada, goki, beharrezko aldaketak egitea, eskubide horiek betetzen direla bermatzeko."

2.2. EUROPAR BATASUNEN ESTATU KIDEEN ESKUALDE MAILAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEEN VI. MINTEGIA

Azaroaren 3an eta 4an Berlinen Europar Batasuneko Estatu Kideen Eskualde Mailako Herriaren Defendatzaileen VI. Mintegia burutu zen. VI. Mintegi horretara, Berlineko Eskualde Mailako Legebiltzarreko Eskaeren Batzordeak eta Europako Herriaren Defendatzaileak antolatukora, Europar Batasuneko zenbait herrialdeetako eskualde mailako herriaren defendatzaileak joan ziren: Alemania, Austria, Belgika, Espainia, Italia eta Erresuma Batua.

“Gizarteko ahulenak babestuz: kexen eta eskaeren egitekoa” izenburupean, mintegiko bi jardunaldi parte-hartzaileetan zehar, Ombudsmanaren erakundeentzako gaurkotasun eta interes handiko zenbait gai izan ziren hizpide.

Mintegia zabaltzeko ekitaldiak honako hauen hitzaldiak izan zituen: Berlineko Eskualde Mailako Legebiltzarreko Eskaeren Batzordeko presidentea den Ralf Hillenberg, Europako herriaren defendatzailea den P. Nikiforos Diamandourus, Berlineko Eskualde Mailako Legebiltzarreko presidentea den Walter Monper eta Alemaniako Legebiltzar Federaleko Eskaeren Batzordeko kidea den Günter Baumann.

Hasierako jardunaldia Alemaniako Auzitegi Goreneko presidente ohia eta aseguruaren alorrean egungo herriaren defendatzailea den Günter Hirsch irakaslearen hitzaldiarekin hasi zen. Aipatutako jaunak estatuko eta Europako babes juridikoaren esparruan herriaren defendatzaileen egitekoa izan zuen hizpide.

Jarraian, “Herritarrentzat eraginkor lan eginez” izenburupean, Bolzanoko herriaren defendatzailea den Burgi Volgger buru den lehenengo saioan honako ponentzia hauek aurkeztu ziren: “Eskaeren Batzordearen burujabetasuna bermatuz”, Berlineko Eskualde Mailako Legebiltzarreko Eskaeren Batzordeko presidentearen Ralf Hillebergen kargura eta “Herriaren defendatzailearen burujabetasunaren zaintza” Kataluniako síndic de greuges deituriko Rafael Ribóren kargura.

Lehenengo jardunaldi horren bigarren saioan Renania-Palatinatuako herriaren defendatzailea den Ullrich Galle zen burua eta, saio horretan, honako ponentziak aurkeztu ziren: “Erreklamazioen balorazioak”, Eskoziako herriaren defendatzailea den Alice Brownen kargura eta “Hedabideen eraginkortasuna”, Valoniako herriaren defendatzailea den Frédéric Bovessen kargura.

Bigarren jardunaldian, “Ahulak diren taldeen erreklamazioen/eskaeren izapidetzea” izenburupean, Ingalaterrako tokiko herriaren defendatzailea den Jerry White buru izandako lehenengo saioan, honako ponentzi hauek aurkeztu ziren: “Osasunaren arloko erreklamazioak”, Toskanako herriaren defendatzailea den Giorgio Moralesen kargura eta “Hirugarren adinari buruzko erreklamazioak”, Iñigo Lamarca arartekoaren kargura. Bere hitzaldian, arartekoak hirugarren adinekoren ahulezia eta biztanle talde horrek aurkeztu dituen kexak eta kontsultak aipatu zituen. Gainera, herriaren defendatzaileen jarduketan, adinekoei dagokienez, hobekuntzako zenbait gogoeta eta proposamen egin zituen.

Bigarren jardunaldi horren azken saioan Tiroleko herriaren defendatzailea den Josef Hauser zen burua eta, saio horretan, honako ponentzi hauek aurkeztu ziren: "Gizarte gaiei buruzko erreklamazioak", Schleswig-Holsteineko gizarte gaietarako herriaren defendatzailea den Birgit Wille-Handelsen kargura eta "Immigrazioaren arazoei buruzko erreklamazioak", Andaluziako herriaren defendatzailea den José Chamizoren kargura.

Mintegia Berlineko Eskualde Mailako Eskaeren Batzordeko presidentea den Ralf Hillenbergen hitzekin eta P. Nikiforos Diamandouros Europako herriaren defendatzailearen hitzaldiarekin amaitu zen. Horrek Herriaren Defendatzaileen Europako Sarearen esparruan Ombudsmanaren erakunde guztien artean lankidetzaren areagotzeko beharra azpimarratu zuen.

2.3. OMBUDSMANEN IBEROAMERIKAKO FEDERAZIOAREN (OIF) XIII. URTEKO BILTZARRA

Mexikoko Merida hirian Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioaren (OIF) Urteko XIII. Biltzarra egin zen, azaroaren 20an eta 21ean. Horrekin bat, bere Ohiko XIII. Batzar Nagusia egin zen, baita Amerikako Kontinenteko Giza Eskubideak sustatzeko eta babesteko Nazioarteko Erakundearen Sarearen VII. Biltzarra ere.

Biltzarraren funtsa “Giza eskubideen etorkizuna, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta 60 urte beranduago” izan zen. Giza eskubideen indarraldia hipzide izan zen, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 60. urteurrena bezalako efemeride garrantzitsu baten parada profitatuta.

Batzar nagusian OIFeko estatutuan sare tematikoak sartzearabaki zen, “bere jardunen burutzapena indartu eta hobetzeko”.

Kongresu honetan eta Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin bat, **“Feminizidioa gaitzesteko Deklarazioa”** onartu zen:

“Datorren azaroaren 25ean Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunan ospatuko da.”

Ombudsmanen Federazio Iberoamerikarra osatzen duten erakundeak Méridan, Mexikon, bildu dira federazioaren XIII. ohiko bilkura egiteko. Erakunde horiek azpimarratu nahi dute, zoritxarrez, egunero eta munduko herrialde guztietan izaten den emakumeen aurkako indarkeriak, hainbat eratan eta zentzutan, giza eskubideak larriki urratzen dituela.

Egoera onartezin horren adibide argia osatzen dute behin eta berriro eta sistematikoki Juárez hirian izan diren emakumeen hilketek. Hilketak horiek jada mila baino askoz gehiago dira. Indarkeria ekintza gorrotagarri horiek pertsona orok duen oinarrizko eskubidea, alegia, bizitzeko eta osotasun fisikoko eskubidea, urratzen dute.

Arrazoi hori dela eta, Ombudsmanen Federazio Iberoamerikarrak (OIF) inguruabar larri horiek nabarmentzeaz eta gertaera horiek zorrotz zigortzeaz gain, giza eskubideen defentsarekin eta babesarekin haren konpromisoa errepikatu nahi du. Horretarako, gehiago ahaleginduko gara gure herrialdetan gerta daitekeen genero indarkeriarekin edozein agerpen ezabatzeko borrokan eta, hori egin ahal izateko, botere publikoei eskatuko diegu fenomeno horiekin amaitzeko eta aipatutako gertaeren erantzuleen zigorrari bidea ematen dioten mota guztietako neurriak hartzeko. Izan ere, modu horretan baino ezin dugu giza eskubideekin gizarte askeagoa, justuagoa, solidarioagoa eta adeitsuagoa sortu.

Dagokien erakundeei bidezkoak diren eskubideen berri emango zaie, horien ondorioetara jardun dezaten.

Méridan, Mexikon, 2008ko azaroaren 21ean.

2.4. HERRIAREN DEFENDATZAILEEK GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALAREN 60. URTEURRENA DELA-ETA EGINDAKO ADIERAZPENA

Herriaren defendatzaile autonomikoek eta Espainiako herriaren defendatzaileak egun garrantzitsu hori gogoratzeko adierazpen bat onartu zuten Bartzelonan, 2008ko abenduaren 10ean egindako bilkuran.

Adierazpen horretan, eskubideen arloan dauden gabezia batzuk nabarmendu zituzten, hala nola indarkeria terrorista, lan baldintzen okertzea, indarkeria matxista eta hirugarren adinekoentzako baliabide falta.

Horrez gain, adierazi zuten giza baliabideak eta bitarteko materialak falta direla justizia administrazioan, eta baldintza txarrak dituztela espetxeek eta arau-hausleentzako adingabeen zentroek. Defendatzaileek, besteak beste, eskubide hauen alde egin zuten: administrazio ona izateko eskubidearen alde, aukera berdintasunean oinarritzen den eta behar bereziei arreta zehatza ematen dien hezkuntza eskubidearen alde, ekonomi eta hirigintza garapen jasangarriaren alde eta “denbora igarota ere eskakizun eta iraukor” izango diren gizarte prestazio batzuen alde.

Hauxe da adierazpen horren testu osoa:

“Espainiako Defensor del Pueblo Enrique Múgicak; Andaluziako Defensor del Pueblo José Chamizok; Aragoiko Justicia Fernando García; Asturiasko Procuradora General M^a Antonia Fernándezek; Kanarietako Diputado del Común Manuel Alcaidek; Gaztela-Mantxako Defensor del Pueblo José Manuel Martínezek; Gaztela eta Leongo Procurador del Común Javier Amoedok; Kataluniako Síndic de Greuges Rafael Ribók; Valentziako Erkidegoko Síndic de Greuges Carlos Morenillak; Galiziako Valedor do Pobo Benigno Lópezek; Errioxako Defensora del Pueblo María Bueyo Díezek; Nafarroako Ararteko Francisco Javier Enérizek; Euskal Autonomia Erkidegoko Ararteko Íñigo Lamarck eta Murtziako Defensor del Pueblo José Pablo Ruiz Abellánek ondorengo adierazpen bateratua egiten dute, Nazio Batuetako Batzar Nagusiek 1948ko abenduaren 10ean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala eman zutenetik 60. urteurrena betetzen dela eta.

Giza eskubideak errespetatzea eta eskubideok bermatu eta babesteko erakundeak eta mekanismoak izatea dira egungo demokrazien oinarri nagusiak. Ildo horretan, Espainian, pertsonen eskubideak bermatzeko hainbat erakundek, zentralak izan nahiz autonomia erkidegoetakoak izan, zeregin hori dugu geure gain, Administrazioen jarduerak eta politika publikoak gainbegiratu behar ditugularik, ordenamendu juridikoan aitortutako eskubideak errespetatu daitezten, eta ahalik eta gehien gara daitezten. Erakundeok, bada, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren alde sendo lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, herritarrek ahalik eta ongizate mailarik altuena izan dezaten lortzeko.

Adierazpen bateratu honen bitartez, gure lanari loturiko gaien artean, gure ustez nabarmendu beharreko batzuk ezagutarazi nahi ditugu, aitortutako eskubideei egiazko edukiak

emango dizkieten politika publikoak bultzatu eta sustatzeko bidea eman diezagun Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 60. urteurrenaren ospakizunak. Pertsonen duintasuna, askatasuna, justizia eta berdintasuna dira, beren zentzu osoan, pertsonen eskubideek euskarritzat dituzten oinarrizko balioak, eta, horregatik, euskarri ez ezik, bermea ere badira. Horrenbestez, eskubide horiek babestea helburu duten mekanismo eta baliabide instituzionalek politika publiko sektorialekin eraginkortasunaz ere arduratu behar dute.

Indarkeria terrorista –ETArena, Al Kaedarena zein beste edozein jatorri duena izan–, fanatismoan, gorrotoan eta totalitarismoan oinarritua, herritarren oinarrizko eskubideei eragiten dien minbizi bat da, dudarik gabe. Etengabe, koordinazioz eta irmo jardunez desagerrarazi eta deslegitimatu behar dugu gaitz hori. Ildo horretan, terrorismoaren biktimei dagokienez, behar den garaian eta eraginkortasunez islatu behar dira legeetan, politika publikoetan eta gizartearen aitorpenean egia, justizia eta ordaina.

Egungo egoera ekonomikoan, agerian utzi nahi dugu oso kezkatuta gaudela lan baldintzak nahiz bizi baldintzak pixkanaka okerrera egiten ari direlako (lan istripuak gero eta gehiago izatea barne), herritar eta familia askoren kaltetan, eta langabezia gehitu delako. Horrek, ziur aski ahultasun sozioekonomikoa eta gizarte bazterketa areagotuko ditu, batez ere integrazteko prozesuan zeuden etorkinen artean eta, are modu dramatikoagoan, gure lurraldeetara era irregularrean iristen jarraitzen dutenentzat. Hartara, bizimodu duina, harrera egitea, eta gizarteratzea bermatzeko gizarte laguntzak hobetu behar dira, pobrezia eta bazterketa poltsak, –gero eta nabariagoak, hasteko, kaleetan aurkitzen diren etxegabeak direla bidehandiago daitezen ekiditeko; era berean, desberdintasun horiek sortzen dituzten kausei ere aurre egin behar zaie.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista errealitate jasanezina da, eta eraginkortasun handiagoz aurre egin behar zaio, egun genero indarkeriaren aurka dagoen legediaren gizarte eta prebentzio alderdiak zabalago eta sakonago garatuz, eta dauden zerbitzu eta baliabideak era egokian koordinatuz.

Era berean, botere publikoek arreta berezia eskaini behar diete haur eta nerabeei, bereziki talde babesgabea izanik. Arlo honetan, hainbat gertaera direla bide gaude kezkatuta: babes baliabideen beharra duten gazteak gehitu izana; lagundu gabeko atzerriko adingabeei ematen zaien laguntza nahikoa ez izatea; eskola eremuan, familiaren barruan zein aisialdiko guneetan eraso jokabideak areagotu izana, eta nahaste psikikoei eta alkoholaren zein beste droga batzuen kontsumoari loturiko fenomenoak ugartu izana.

Adinekoen beharrezko nabarmenki hazten ari diren arren, haietan laguntzeko baliabideak ez dira neurri berean gehitzen ari. Nahiz eta norberaren autonomia sustatzeko legea aurrerapena den mendetasunen bat duten pertsonentzako politiketan (adinekoei dagokienez, gehienbat), badira oraindik ere zenbait gabezia lege horren oinarrizko alderdi batzuk garatu eta aplikatzeko garaian –hala nola erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa zehaztea– eta, ondorioz, eskumena duten administrazioek beren erantzukizun publikoarekin bat jardun beharko lukete.

Kezka adierazi behar dugu, halaber, buru gaixotasunek gero eta eragin handiagoa dutelako, eta haietaz arduratzeko politikak eta programak nahikoak ez direlako. Norberaren autonomiarako lege horrek ez du behar bezala erantzun halako gaixotasunak dituzten pertsonen nahiz haiek zaintzen dituzten beharrizanen aurrean. Sektore horretan, eta, oro har, urritasunen bat duten pertsonen sektorean, gabeziak konpontzeko eta arriskuak prebenitzeko, beharrezkoa da apustu sendoa egin dadin gizarte eta osasun arloko laguntzaren alde, gizarte eta osasun eremuen artean koordinatutako baliabideak abian jarri.

Bazterketa ororen aurkako borrokan ere bultzada eta tresna berriak behar dira, planteamendu integral, zeharkako eta proaktibo batekin, sexua, arraza, ideologia, erlijioa, elbarritasuna, sexu joera edo beste edozein arrazoi direla bide gertatzen diren bazterkeria kasuei eraginkortasunez aurre egiteaz gain, kontrabaloak desagerrarazteko helburua ezarrita, hau da, sexismoa, arrazismoa, homofobia eta, oro har, pertsonetikiko errespetua zein haien berezko duintasuna zapaltzera daramatzaten mespretxu edo intolerantzia. Horri dagokionez, atzeritar edo etorkinen aurkako jarrera xenofoboek kezkatzen gaituzte, bai eta ijitoen aurkako etsaigo eta bazterkeriazko jokabideek ere.

Herritarren segurtasuna eta pertsonen askatasuna eta osotasuna, bai eta haien ondasunena ere, ahalik eta irmoen babestu behar dituzte botere publikoek. Ildo horretan, beraz, ahalik eta gehien indartu behar dira delinkuentzia prebenitzeko eta hari aurre egiteko baliabideak, polizia indarrei, zeinek lan goraipagarria egiten baitute, beharrezko baliabideak emanda.

Magistratu, epaile, fiskal eta Justizia Administrazioa osatzen duten guztiek, bestalde, Zuzenbide Estatu demokratiko batean funtsezkoa den zeregina betetzen dute, eta Estatu hori ahulduta geratuko litzateke delako zeregina bere osotasunean gauzatuko ez balitz babes judizial eraginkorra lortzeko, prozesuen arintasunari dagokionez, bereziki. Horregatik, Botere Judizialak eta Justizia Administrazioak beharrezko baliabide pertsonal eta materialak izan behar dituzte, beren zeregina egoki betetzeko, eta egiaztatzeko moduko egoera bat izatetik urrun dago hori gaur egun.

Kartzelen eta adingabe arau-hausleak hartzen dituzten zentroen baldintzek zehatz-mehatz bete behar dituzte printzipio eta eskubide konstituzionalak. Ez dira inoiz ere bazterrean utzi behar giltzapetuak berriz gizarteratzeko eta hezteko helburuak, pertsona horiek, hain zuzen, gizarte bazterketa larriko egoeretatik datoz eta. Ildo horretan, funtsezko garrantzia du espetxeetako funtzionarioek egiten duten lana; horrenbestez, lan hori indartu behar da baliabide pertsonal eta materialen zein prestakuntzazko baliabideen bidez.

Demokrazia oso batek bereziki zorrotza izan behar du pertsonak askatasunaz gabetzen diren eremuetan, eta ardura bereziz bermatu behar ditu atxilotuen edo kartzelaratuaren eskubideak, bai eta poliziako eta espetxeetako funtzionarioenak ere. Espainiak, 2005eko apirilaren 13an, Tortura eta beste tratu txar edo zigor krudel, gizagabe ala ankerren aurkako Hitzarmenaren Hautazko Protokoloa izenpetu zuen, eta ahalik eta lasterren erabaki behar da protokolo horretan xedatutako mekanismoaren izendapena, bai mekanismo zentralarena bai eskumena duten autonomia erkidegoetako lurralde mekanismo deszentralizatuena; hain zuzen ere, herritarrak defendatzeko erakundeok eginkizun nagusi bat izan beharko dugu delako mekanismoan.

Administrazio ona izateko eskubideak Administrazio publikoen jarduerak zein herritarrekin dituzten harremanak zuzendu behar ditu, eta bereziki informazioa izateko eta parte hartzeko eskubideei dagokienez. Bestalde, komeni da kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak babesteko eta bermatzeko elementu berriak ezar daitezen, batez ere eguneroko bizitzarako ezinbestekoak diren zerbitzuen eremuan, hala nola energiaren eta telekomunikazioen erabileran, eta inbertsio eta aurrezkien inguruko gaietan.

Ilido berean, elkarbizitzako sistema demokratiko batean nahitaezkoak dira ekonomiaren eta hirigintzaren garapenak iraunkorrak izan daitezen, ingurumena nahiz ondare artistiko-historikoa errespetatzen, hurrengo belaunaldiak haietaz gozatzea arriskuan jarri edo negatiboki baldintzatu gabe. Sistema horrek, era berean, herritar guztiei Interneteko baliabideak erabiltzeko aukera ematen saiatu behar du, sarea erabiltzeko aukeren arabera eten digitala delakoa sortzea edo zabalagotzea ekiditeko. Halaber, herritarren intimitaterako eskubidea eta haien datu pertsonalen babesa bermatu behar ditu; ingurumenaren kutsadura zein kutsadura akustikoa murrizteko baliabideak jarri behar ditu, eta animalien presentzia eta bizitza era egokian arautu.

Aipatu ditugun eskubideei, besteak beste, eman beharreko babesik handiena osatzeko, Estatu sozialaren oinarri klasikoak diren horiek ere sendo babestu behar dira. Osasunerako eskubideak gora doazen eskarien eta eskura dauden baliabideen arteko desorekaren gorabeherek jasaten ditu, eta behar bezala bermatu behar da espainiar guztientzat, berdintasunean oinarrituta eta eska daitekeen kalitaterik handienarekin.

Hezkuntzarako eskubideak, bestalde, guztientzako hezkuntza egokia, aukera berdintasuna eta beharrian berezietarako berariazko laguntza bermatu behar ditu. Eskola gure haurrek elkarrekin bizitzen eta giza eskubideak errespetatzen ikasteko gunea izan behar du, eta, era berean, etorkizuneko gizartea dibertsitatean barne-hartzaileagoa, solidarioagoa eta zuzenagoa izateko balioak landu behar ditu.

Gizarte prestazioek, kotizatuak zein kotizatu gabekoak izan, etxebizitza duina izateko eskubideari dagokiona barne, oinarritzat dituzten printzipioekin bat etorri behar dute, eta haiek eskatzeko aukera nahiz denboran zehar irautea bermatuta izan behar dute.

Eskubideak babestu eta bermatzeko erakunde guztiok, adierazpen hau bukatzeko, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak bere hasieran egiten duen baieztapena merezi duen ospearekin gogoraziko dugu: "gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute". Nahiko genuke horixe balitz botere publikoen eta pertsona guztien ekintza eta jokabideen bide-erakuslea.

Bartzelona, 2008ko abenduaren 9a"

3. ARARTEKOAREN ERAKUNDEAREN BESTE JARDUERA BATZUK

Arartekoaren erakundeak, legez agindutako funtzioekin zuzen lotutako ekintzez gain, jarduera ugari egiten du urte osoan; hala nola, gizarte erakundeek antolatutako ekintzetan parte hartu, giza eskubideekin eta euskal Ombudsmanaren jarduerarekin lotutako gaiei buruzko foroetan hitzaldiak eman, erakundearen helburuekin lotutako ekitaldi instituzionaletan izan, etab.

Jarraian Iñigo Lamarca arartekoa izandako jarduerak daude, eta zehatzak izateko asmorik izan ez dugun arren, urteko txosten honetan honakoak islatuta geratzea garrantzitsua iruditu zaigu:

- o Urtarrilak 17: fibromialgiako psikologiari buruzko jardunaldietan hartu zuen parte, Gasteiz.
- o Otsailak 3: frankismoan baldintza sexualengatik jazarri eta kartzelatu ziren pertsonen omenaldian hartu zuen parte, Langraiz Oka.
- o Otsailak 5: Emakunderen 20. urteurreneko ekitaldian izan zen, Gasteiz.
- o Otsailak 22: AMPGYLek, Ama eta Aita Gay eta Lesbianen elkarteak, antolatutako mintegian hartu zuzen parte, Bartzelona.
- o Otsailak 22: haurren minbiziaren aurkako gala batean izan zen, Bilbo.
- o Martxoak 6: Bakeaz elkarteko ordezkariekin bilera, Gasteiz.
- o Martxoak 6: Aiete Ikastetxe Nagusiko ikasleekin topaketa, Donostia
- o Apirilak 1: Gipuzkoako Abokatuen Eskolako egoitzan hitzaldia izenburu honekin "Zigor betearazpena Euskadin: espetxe ereduak eta politika kriminaleko aukerak," Donostia.
- o Apirilak 2: terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen omenezko eskulturaren inaugurazio ekitaldian izan zen, Gipuzkoako Batzar Nagusietako egoitzan, Donostia.
- o Apirilak 4: Comillaseko Unibertsitateak antolatuta, Adingabeen eskubideei buruzko VI. Jardunaldian parte hartu zuen, Madril.
- o Apirilak 9: EHUko Gizarte Zientzietako Fakultatean hitzaldia, "Arartekoa eta demokraziaren kalitatea," Leioa.
- o Apirilak 9: Arabako eta Bizkaiko bularreko minbizidunen elkarteekin bilera, Bilbo.
- o Apirilak 11: terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen omenezko eskulturaren inaugurazio ekitaldian izan zen, Eusko Legebiltzarraren egoitzan, Gasteiz.

- o Apirilak 12: “Biktimak-Víctimas” erakusketaren inaugurazio ekitaldian izan zen, Eusko Legebiltzarren egoitzan, Gasteiz.
- o Apirilak 17: Izaskun Bilbaok, Eusko Legebiltzarreko presidentea, emandako hitzaldian izan zen, izenburua, “Politikan berritzea”, Bilbo.
- o Apirilak 24: ERNE sindikatuak emakume poliziei buruz antolatutako jardunaldietan parte hartu zuen, Bilbo.
- o Apirilak 24: AMPGYL Ama eta Aita Gay eta Lesbianen elkartearekin bilera, Bartzelona.
- o Apirilak 29: emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko Emakunde Sarien ekitaldian izan zen, Bilbo.
- o Maiatzak 7: FEKOORrek (Bizkaiko pertsona ezinduen federazio koordinatzailea) antolatutako jardunaldietan parte hartu zuen. Izenburua: “Herritartasun eskubideak eta autonomia pertsonala”, Bilbo.
- o Maiatzak 7: ATECE elkartearen egoitzara ikustaldia. Elkarte hori hartutako burmuineko kaltea duten pertsonak artatzeaz arduratzen da, Bilbo.
- o Maiatzak 10: Martin Scheinin-ekin bilera. NBERen errelatore berezia terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubideak eta funtsezko askatasunak sustatzeko eta babesteko, Donostia.
- o Maiatzak 14: Manuel de Irujo Sariak emateko ekitaldian izan zen, Gasteiz.
- o Maiatzak 15: EHUko Zuzenbide Fakultatean lizentziatu berriei diplomak emateko ekitaldian hartu zuen parte, Donostia.
- o Maiatzak 17: hitzaldia “Homofobia: Giza Eskubideen minbizia”, Tarrasa.
- o Maiatzak 18: terrorismoaren eta indarkeriaren biktimekiko bigarren elkartasun ekitaldian izan zen, Eusko Jaurlaritzak antolatu zuen, Donostia.
- o Maiatza 30: Herri Administrazioetako Kudeaketaren Bikaintasunari buruzko 2. Bazarrean izan zen, hitzaldia “Kudeaketako bikaintasuna versus herritarren parte-hartzea”, Gasteiz.
- o Ekainak 7: Errehabilitazio psikosozialeko elkarteen espainiar Federazioko II. Kongresuan izan zen, Bilbo.
- o Ekainak 9: FEDEAFESeko, Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarteen Federakuntzako ordezkarekin bilera, Gasteiz.

- o Ekainak 12: adinekoen sektoreko etorkizuneko lan-baldintzei buruzko jardunaldian parte hartu zuen, hitzaldia, "Gizarte parte-hartze sektoreko lan-baldintzei buruzko txostena", Donostia.
- o Ekainak 13: Giza Eskubideen Nazioarteko III. Kongresuko itxiera ekitaldian izan zen, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendaritzak antolatuta, Bilbo.
- o Ekainak 15: Gipuzkoako Alkoholiko Anonimoen elkarteak antolatutako ekitaldi batean parte hartu zuen, Donostia.
- o Ekainak 16: Pueblo Gitano elkarteko ordezkariekin bilera, Gasteiz.
- o Ekainak 17: Irene Khanekin bilera, Amnesty Internationaleko idazkaria, Gasteiz.
- o Ekainak 19 eta 20: Andaluziako Herriaren Defendatzaileak antolatutako jardunaldietan hartu zuen parte, arautzen zuen Legeak 25 urte bete zituelako, "Herri defendatzaileen erronkak estatutu marko berriaren aurrean", Baeza.
- o Ekainak 21: Berria egunkariaren 5. urtemuga ospakizunean izan zen, Donostia.
- o Ekainak 24: Europako zenbait herrialdetan bizi diren Kolonbiako emakume eta gizon errefuxiatuen aldeko elkartasun ekitaldian izan zen, EHUko Gizarte Lan Eskolak antolatuta Bachué taldearekin elkarlanean, Gasteiz.
- o Ekainak 27: Paul Bilbaorekin bilera, Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria, Donostia.
- o Ekainak 30: Irungo Alarde mistoko desfilean izan zen, herri horretako jai ekitaldian emakumeen eta gizonen parte hartzean berdintasuna babesteko.
- o Uztailak 8: udako ikastaro honetan hartu zuen parte: "Aniztasun afektibo-sexuala eskolan: gatazkak eta konpontzeko bideak" EHUko XXVII. udako Ikastaroetan, hitzaldi honekin "Bizi historiak", Donostia.
- o Uztailak 8: EHUko Bizkaiko Zuzenbide Fakultateko Ordezkaritzak antolatutako topaketan hartu zuen parte, Prácticumen parte hartutako erakundeekin, Bilbo.
- o Irailak 8: Hondarribiako alarde mistoan izan zen, herri horretako jai ekitaldian emakumeen eta gizonen parte hartzean berdintasuna babesteko.
- o Irailak 8: "Biktimak-Víctimas" erakusketaren inaugurazio ekitaldian izan zen, Gipuzkako Batzar Nagusien egoitzan, Donostia.
- o Irailak 12: Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordeak (CEAR) antolatutako Migrazioen mundu mailako III. Gizarte Foroan hartu zuen parte, "Gure ahotsak, gure eskubideak. Hormarik gabeko munduaren alde", Rivas-Vaciamadrid.

- o Irailak 16: Joxe Mari Korta 2007 sariak emateko ekitaldian egon zen. Sari hauek izen bereko enpresari eta Adegiko (Gipuzkoako Enpresarien Elkarte) presidente zenaren omenez eratu ziren, ETak eraila 2000. urtean, Gasteiz.
- o Irailak 22: eskolako jazarpenari buruzko mahai-inguru batean hartu zuen parte, Durangoko Maristak Ikastetxeak antolatuta.
- o Urriak 2: Arabako Buruko Osasunaren Batzorde Etikora ikustaldia, Vitoria-Gasteiz.
- o Urriak 2: El valor de la palabra liburuaren aurkezpen-ekitaldian izan zen, Fernando Buesa Fundazioak editatua, Gasteiz.
- o Urriak 17: Genero indarkeriari eta familia barrukoari buruzko diziplinarteko II. biltzarrean parte hartu zuen, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailak antolatuta, Donostia.
- o Urriak 20: kartzelekin eta preso daudenekin erlazionatutako eremu desberdinetako taldeekin bilera, Gasteiz.
- o Urriak 23: kartzelan dauden emakumeek egindako soinekoen desfilean izan zen, Agiantza GKEak antolatuta Bartzelonako Ared Fundazioarekin eta Madrilgo Los Molinos taldearekin elkarlanean, Bilbo.
- o Urriak 30: genero indarkeriaren, etxeakoaren edota sexu erasoen ofiziozko txandan egoteko nahitaezko ikastaroan parte hartu zuen, Abokatuen Euskal Kontseiluak antolatuta, hitzaldia, "Berdintasunaren printzipioa genero-indarkeriaren edota etxeakoaren emakume biktimen kasuan", Bilbo.
- o Azaroak 13: "Baliabideen beharra eta bere ezaugarriak" mahai-inguruan parte hartu zuen, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko 1. jardunaldian, Lea-Artibain, Lea-Artibaiko mankomunitateak antolatuta, Markina-Xemein.
- o Azaroak 27: genero indarkeriaren, etxeakoaren edota sexu erasoen ofiziozko txandan egoteko nahitaezko ikastaroan parte hartu zuen, Abokatuen Euskal Kontseiluak antolatuta, hitzaldia, "Berdintasunaren printzipioa genero indarkeriaren edota etxeakoaren emakume biktimen kasuan", Donostia.
- o Abenduak 1: Natacha Atlas abeslari anglo-egipziarraren ongintzazko kontzertuan izan zen, Montehermoso Kultur Etxeak antolatuta SIDALAVArekin lankidetzan, HIESaren aurkako mundu eguna dela eta, Vitoria-Gasteiz.
- o Abenduak 3: Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunean izan zen, Gasteiz.
- o Abenduak 10: René Bassin sariak emateko ekitaldian izan zen eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 60. urtemugako itxiera ekitaldian ere bai, Bilbo.

- o Abenduak 11: Gipuzkoako Giza Eskubideen Sariak emateko ekitaldian izan zen, Donostia.
- o Abenduak 18: Bizkaiko Emakumea eta Ezintasuna V. Foroaren inaugurazio ekitaldian hartu zuen parte FEKOORrek antolatuta (Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea), leloa, "Izan gaitezen gai: genero transbertsalitatearen eta ezintasunaren proposamena Euskal Autonomia Erkidegoarentzat", Bilbo.
- o Abenduak 18: Prisión y género. *Efectos del encarcelamiento en mujeres y hombres presos y su entorno familiar*, liburuaren aurkezpenean izan zen, hitzaurrea berak egina da eta Zubiko elkarteak argitaratu du, Bilbo.

Era berean, arartekoaren ondokoak, Julia Hernándezek, parte hartutako ekitaldirik nagusienak aipatzen dira:

- o Apirilak 3, 4 eta 5: Defendatzaileak bileran izan ziren. Herri Defendatzaileen eta Justizia Administrazioaren arteko erlazioak aztertu ziren, Santa Cruz de la Palma.
- o Apirilak 21: ONCE Euskadi Solidarios IV. sarietan izan zen, Bilbo.
- o Apirilak 25: "Pena alternatiboak/Penen alternatibak" diziplinarteko II. jardunaldietan izan zen, Gasteiz.
- o Apirilak 27 eta 28: San Prudentzio jaietako Erretretan eta Harreran izan zen, Gasteiz.
- o Maiatzak 7: Mikel Cabièces, Euskadiko Gobernu Ordezkararen kargu-hartzean izan zen, Gasteiz.
- o Maiatzak 9: Gipuzkoako Esklerosi Anitzeko elkartearen ongintzazko afarian izan zen, Donostia.
- o Maiatzak 12: "Femeninoan proiektatu, sortu eta eraiki" jardunaldietan parte hartu zuen, NARO 2008ko Berdintasunaren Foroaren baitakoan, Gasteiz.
- o Maiatzak 18: terrorismoaren eta indarkeriaren biktimekiko bigarren elkartasun ekitaldian izan zen, Eusko Jaurlaritzak antolatuta, Donostia.
- o Maiatzak 23: Gasteiz hiriburu izatearen 28. urtemuga ospatzeko ekitaldietan izan zen.
- o Ekainak 5: EITBren datorren hirurtekorako erantzukizun sozial korporatiboari buruzko iritzia eta ideiak elkartrukatzeko topaketan parte hartu zuen, Bilbo.
- o Ekainak 13: Herri-administrazioiko giza baliabideen kudeaketari buruzko Nazioarteko IV. Biltzarreko itxiera ekitaldian izan zen, Gasteiz.

- o Ekainak 15: Extremadurako Asanbladaren eta Autonomia Estatutuaren 25. urtemugako ospakizun ekitaldian izan zen, Bilbo.
- o Ekainak 18: euskal hezkuntza sistemaren erronkei buruzko hitzaldi mahai-inguru batean izan zen, Tomás y Valiente Trebakuntza Eskolak antolatuta, Gasteiz.
- o Ekainak 19: Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Bartzordeak terrorismoaren biktimak aitortzeko eta konpontzeko Lege Proiektuari buruz egindako irismena eztabaidatu eta ebatzi ziren saioan izan zen, Gasteiz.
- o Ekainak 19: Pila programan parte hartutako enpresei sariak emateko ekitaldian izan zen, Asafesek antolatuta (Buruko gaixotasunak dituzten pertsonen eta familiakoen Arabako Elkarteak), Gasteiz.
- o Ekainak 21: Once eguna 2008ko inaugurazio ekitaldian izan zen, Donostia.
- o Ekainak 22: Galiziaren XXIII. egunean Euskadin agintariei emandako harrera ekitaldian izan zen, Bilbo.
- o Ekainak 26: Fernando Buesa VII. Mintegian izan zen eta komunikabideetan balio demokratikoak nola sustatzen diren aztertu zen, Donostia.
- o Ekainak 26: Aspectos psicológicos básicos para la atención de víctimas por parte de los cuerpos de seguridad liburuaren aurkezpenean izan zen, Arcok antolatuta (Gatazkak konpontzeko eta lankidetzarako elkarteak), Bilbo.
- o Uztailak 10: Praktika Juridikoko Eskolaren 2007-2008 ikasturtearen itxiera ekitaldian izan zen, Gasteiz.
- o Irailak 4: Galiziako Xuntak antolatutako "As nosas palabras, os nosos mundos" erakusketaren inaugurazio ekitaldian izan zen, galegoa aniztasun linguistikoan gai hartuta, Bilbo.
- o Irailak 8: Guadalupeko Ama Birjinaren ohoretan izandako Harrera Ofizialean izan zen, "Virgen de Guadalupe" Extremadurako etxeak antolatuta, Gasteiz.
- o Irailak 24: Mesedeetako Andre Mariaren festaburuan antolatutako ekitaldietan izan zen, Langraizko kartzelan.
- o Irailak 25: Mesedeetako Andre Mariaren festaburuan eta inauguratu zela 60. urtemugako ekitaldietan izan zen Martuteneko kartzelan.
- o Urriak 2: Aingeru Zaindarien festaburuan antolatutako ekitaldietan izan zen, Donostia.
- o Urriak 9: Urte Judizialaren irekiera-ekitaldian izan zen, Bilbo.

- o Urriak 10: AARPEK (Euskadin Erretinosi Pigmentarioa dutenen elkarteak) antolatutako afarian izan zen, Bilbo.
- o Urriak 16 eta 17: Genero indarkeriari eta familia barrukoari buruzko diziplinarteko II. biltzarrean parte hartu zuen, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak antolatuta, Donostia.
- o Urriak 21 eta 22: Gazteen Justiziarri buruzko Nazioarteko Behatokiaren Nazioarteko III. Hitzaldian izan zen, Valentzia.
- o Urriak 28: salerosketaren biktima diren mutiko, neskato eta nerabeak identifikatzeko eta artatzeko lanerako mahaian izan zen, Save the Children elkarteak antolatuta, Gasteiz.
- o Azaroak 4: hitzaldia eman zuen jardunaldi hauetan “Parte-hartze psikologikoa, hezkuntza arlokoa, juridikoa eta sozio-familiarra tratu txarren biktima emakumeekin eta adingabeekin,” Clara Campoamor elkarteak antolatuta, Biasterin.
- o Azaroak 6 eta 7: Berdintasunerako Ministerioak antolatutako “XXI. mendeko feminismoaren agendan. Emakumeen denbora, askatasunerako denbora” batzarrean hartu zuen parte, Emakumearen Institutua eratu zela 25. urte zirela eta, Madril.
- o Azaroak 10: SOS Arrazakeriak antolatutako “Lagunik gabeko adingabe atzerritarrak: politikak eta alternatibak” jardunaldietan parte hartu zuen eta hitzaldi bat eman, Donostia.
- o Azaroak 25: Genero Indarkeriaren aurkako jardunaldietan parte hartu zuen, Miajadaseko Udaleko Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Sailak antolatuta, Caceres.
- o Azaroak 25: Genero indarkeriaren aurkako gizonen VIII. mahaian izan zen, “Mujeres en ayuda” Extremadurako elkarteak antolatuta, Caceres. Ekitaldian “Lazo blanco Cecilia” saria eman zitzaion Jesús Neira Rodríguez irakasleari eta bere emazteak, Isabel Cepedak, jaso zuen.
- o Azaroak 30: ACOVIDEMek, Etxeko indarkeriaren aurkako eta adingabeak defendatzeko elkarteak, genero indarkeriaren aurka antolatutako martxan hartu zuen parte, Donostia.
- o Abenduak 3: FEKOORrek (Bizkaiko pertsona ezinduen federazio koordinatzaileak) Ezintasuna duten Pertsonen Nazioarteko Eguna dela eta antolatutako ekitaldietan parte hartu zuen, Bilbo.
- o Abenduak 10: Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 60. urtemuga dela eta Abokatuen Euskal Kontseiluak antolatutako ekitaldi batean izan zen, Gasteiz.

- o Abenduak 12: AMPEAk (Arabako Profesional eta Enpresari Emakumeen Elkarteak) antolatutako “Arabako etorkinen gizarteko parte-hartzeari eta gizartean eta lanean sartzeari buruzko Jardunaldietan” hitzaldi bat eman zuen, Gasteiz.
- o Abenduak 13: Santa Luzia eguna dela eta, ONCEk antolatutako bazkarian izan zen, Bilbo.
- o Abenduak 17: “Fórum Europa. Tribuna Euskadi” gosari informatiboan izan zen, eta Diego López Garrido, Europar Batasunerako Estatu Idazkariak hartu zuen parte, Bilbo.



VI. ATALA

ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN



1. OHAR ETA DATU OROKORRAK

Estatistikaz aritzen garen atal honetan zehar Arartekoak burutzen duen jardueraren ikuspegi orokorra bilduko dugu. Beraz, honako gaiok zehatz-mehatz bildu ditugu: eragindako euskal administrazio publiko bakoitzari zenbat kexa dagozkion, lurraldeka nola banatzen diren eta prozedurako zein fasetan dauden. Gainera, analisi soziologikoari esker, pertsonen erreklamazioa egiteko zer bide erabiltzen duten, zein hizkuntza erabiltzen duten, zer adin duten eta nondik datozen, etab. jakin ahal izango dugu. Halaber, arreta zuzena eskaintzen duten hiru bulegoen jarduera ere xehatuko dugu. Kopuru horien inguruko xehetasunak estatistikako kapitulu honetan jaso dira, baina, ondoren, zenbait alderdi aipatuko ditugu, laburpen gisa.

2008. urtean 4.054 kontsulta izan dira, telefonoz deitu dutenen nahiz gure hiru bulegoetakoren batera etorri diren pertsonenak. Guztira 2.601 bisita izan dira. Jasotako bisita guztietatik 590 kexa bihurtu dira, hau da, %22,68. Hortaz, agerikoa da arreta zuzeneko bulegoetan aurrez lan garrantzitsua egiten dela, izan ere, bulego horietan ez da onartzen arrazoi bategatik edo besteagatik Arartekoak ikertzerik izango ez duen erreklamaziorik. Lehenbiziko aldiz, Internet bidez egin dira kexa gehienak. Kexagileetatik %38,91k aukeratu du bide hori.

2008an, herritarrek guztira 1.696 erreklamazio egin dizkiote Arartekoari eta ofiziozko 389 espediente bideratzen hasi gara.

2008. urtean erabat izapidetu diren kexei dagokienez, 392 kasutan okerreko jarduerak antzeman dira, hau da, aztertu diren kexetatik %28,43tan. Okerreko jardueraren bat antzeman den kexen artean, eragindako administrazioak %85,54tan zuzendu du kexa sortarazi zuen jarduera.

Erakunde honen jarduera baloratzeari dagokionez, borondatez betetzekoak eta anonimoak diren inkesten emaitzek agertzen duten bezala, Arartekoaren esku-hartzea oso ona edo nahikoa ona iruditu zaie galdera-sorta erantzun dutenetatik %82,2ri. Euren arazoa konpondu ez den edo aurkako emaitza jaso dutenen pertsonen ere balorazio positiboa egin dute (%71,23k). Erakunde honetara jo duten pertsona gehienek adierazi dutenez (%91,1ek), beste pertsona batzuei ere Arartekora jotzeko gomendatuko liekete administrazioarekin arazoren bat izanez gero.

Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun-maila	
	%
Konpondutako jarduera okerra	85,54
Konpondu gabeko jarduera okerra	14,46

(Ikusi 2. diagrama eranskinean)

- Jasotako kexak

2008an guztira 1.696 kexa jaso dira. Horietatik 1.268 bideratzeko onartu dira, Ararteko erakundeak aztertu eta ikertzeko. Kexetatik %7,25 talderen batek egin ditu.

Jasotako kexen kopuruaren bilakaera (1989 -2008)	
Urtea	Kop.
1989	585
1990	1.159 ¹
1991	766
1992	781
1993	827
1994	747
1995	1.164
1996	1.674
1997	1.991
1998	2.660 ²
1999	1.283 ³
2000	1.231
2001	1.513 ⁴
2002	1.253
2003	1.377
2004	1.531
2005	1.459
2006	1.678
2007	1.558
2008	1.696

¹ 545ek kexa berdinen multzo bat osatzen dute.² 1.143k kexa berdinen 2 multzo osatzen dituzte.³ 62k kexa berdinen multzo bat osatzen dute.⁴ 264k kexa berdinen 2 multzo osatzen dituzte.

(Ikusi 3. diagrama eranskinean)

- Onartu gabeko kexak

Ararteko erakundea sortu eta arautzeko 3/1985 Legearen 21. artikuluan adierazten dira zein zertzelada gertatu behar duten herritarren kexak ez onartzeko. Horrela, 2008. urtean guztira zenbatutakoan artean, hainbat arrazoiengatik onartu ez diren kexak bereizi behar dira: norbanakoen arteko gatazka zelako, ordurako auzitegian azalduta zegoen arazoren bati buruzkoa zelako (epai irmoa jasoa zuen edo epailearen ebazpenaren zain zegoen), edo erakunde honen eskumen eremutik kanpo geratzen zelako.

Nolanahi ere, kexei ahalik eta babes juridikorik handiena eskaintzeko irizpidea mantentzen da; horrela, ahalegina egiten da prozedura mailako arauei herritarrek egindako kexa onartzearen aldeko interpretazioa emateko. Onartu ez diren kexei dagokienez, erakundeak beti ere ahalegina egiten du kexagileari gomendioak emateko, azaldutako arazoak konpontzeko egokienak izan daitezkeen bideei buruz.

Onartu gabeko kexak eta egoerak	
Eskumen eremutik kanpo	112
Ez dago aurretiazko erreklamazio administratiborik	75
Partikularren arteko auzia	41
Jarduera okerrik ez, argi eta garbi	36
Epai bidean	29
Forma akatsa	16
Legezko epeen zain egon beharra	16
Izenik gabe aurkeztu da	7
Urtebetetik gora igaro da	5
Estatuko Herriaren Defendatzailearekiko bikoiztasuna	4
Interes legitimorik eza	1
Guztira	343

(Ikusi 4. diagrama eranskinean)

- Estatuko Herriaren Defendatzaileari edo beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak

Badira Estatuko Administrazioaren jardueraren aurkako kexak, Ararteko erakundeak zuzenean izapidetzen ez dituenak, administrazio hori ez dagoelako erakunde honen kontrolpean. Erreklamazio horiek Herriaren Defendatzaileari bidaltzen zaizkio. Gainera, kexa batzuk beste autonomia erkidego batzuetako parlamentuetako ordezkarietara igortzen zaizkie, horien eskumen-eremupean dauden administrazio publikoei dagozkielako.

2008an 65 kexa Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidali dizkiogu eta beste 12 beste defendatzaile batzuei.

Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidalitako kexak	65
Beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak	12

- Zenbait gestio eragin dituzten kexak

Badira kexa batzuk, onartu arren, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko baten jarduera jakin baten aurka zehazki zuzendu ez direnak. Horiek, estatistikarako bereizita zenbatzen dira. Kexa horietan, zenbait gestio egin behar izan ditugu azaldutako arazoa konpontzeko, eta horietan era askotako gaiak aipatzen dira. 2008. urtean barrena horrelako 5 kexa jaso ditugu.

Zenbait gestio eragin dituzten kexak

5

- Arlo eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexa-kopurua ondo interpretatzeko era

Lehenengo hurbiltze batean, pentsa genezake administrazio jakin baten jarduerak eragindako edo arlo jakin batean kokaturiko kexa-kopurua handia izatea estu lotuta dagoela herri-tarrek administrazio horren funtzionamenduaren gainean duten iritzi txarrarekin, akatsak, gehiegikeriak, edo legea betetzen ez duten jarduerak egoteari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da kexa-kopuruaren interpretazioari buruz azaldutakoari ñabardura garrantzitsuak egitea, bestela ondorio okerrak atera baitaitezke (ondorio akastunak eta bidegabeak, kasuan kasuko administrazioari dagokionez).

Horrela, *a priori* administrazio jakin baten jarduerak eragindako kexa-kopurua esanguratsua izan arren, esanguratsuagoa da kexa askok (eta hauxe da garrantzitsua), kexagilea erakunde honetara ekartzeko moduko arrazoiak edukitzea (administrazio baten jokabidea txarra izateari lotutako arrazoiak). Halaber, erakunde honen iritziz, kexa-kopuruaren datua bera baino garrantzitsuagoa da kasuan kasuko administrazioaren jokabidea, bai ezarritako epean jakinarazpena egiteko betebeharrari eta bai erreklamazioa ikertu edo aztertu ostean emandako ebazpenei dagokienez. Hau da, funtsezkoa da administrazioak gomendioak edo iradokizunak onartzen dituen ala ez egiaztatzea, horren jokabideari irregularra irizten zaionean.

2. ESTADISTIKA ALORREZ ALOR

Kexak zein arlori dagozkion kontuan hartzen badugu, zera ikusten dugu: 2007. urtearen aldean, 2008an ez dela aldaketa handirik izan, baina kexa gutxiago egin direla Herri Lanen eta Zerbitzuen alorrean (%12,46; aurreko urtean, aldiz, 16,34). Kexetatik %12,38 Gizarte Ekintza alorrarekin lotuta daude eta %11,12 Herrizaingokoak dira.

Zuzenean bideraturiko kexen banaketa, jarduera-alorren arabera		
	Jasotako kexak	%
Herri Lanak eta Zerbitzuak	158	12,46
Gizarte Ekintza	157	12,38
Herrizaingoa	141	11,12
Funtzio Publikoa	128	10,09
Hezkuntza	111	8,75
Ogasuna	106	8,36
Etxebizitza	97	7,65
Ingurumena	88	6,94
Osasuna	83	6,55
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	82	6,47
Justizia	52	4,10
Kultura eta Elebitasuna	32	2,52
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	16	1,26
Animalien Babesa	12	0,32
Lana eta Gizarte Segurantza	4	0,32
Bereizkeria	1	0,08
Guztira	1.268	100

(Ikusi 5. diagrama eranskinean)

- Kexen sailkapena azpiarloka

Jasotako kexak gaika aztertuz gero, gaikako arlo bakoitzean egon diren aldaketetan azpiarlo bakoitzak duen eragina ikus dezakegu (Ararteko erakundeak gaikako arlo horietan sistemaztatzen du bere lana).

Jasotako kexen banaketa, jardueraren azpialorren arabera	
Herri Lanak eta Zerbitzuak	158
Tokiko zerbitzu publikoak	46
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	32
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. erantzukizuna	26
Garraioak	16
Azpiegiturak	12
Irisgarritasuna	10
Eskubideak eta askatasunak	9
Obrak egitea	6
Beste batzuk	1
Gizarte Ekintza	157
Diruzko gizarte prestazioak	58
Adinekoei eskainitako laguntza	25
Ezgaitasunen bat duten pertsoneri eskainitako laguntza	19
Haur eta nerabeei eskainitako laguntza	16
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	13
Babes bereziko taldeei eskainitako laguntza	11
Familiari eskainitako laguntza	8
Emakumeei eskainitako laguntza	3
Eskubideak eta askatasunak	2
Beste batzuk	2
Herrizaingoa	141
Trafikoa	101
Eskubideak eta askatasunak	17
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	16
Herritarren segurtasuna	4
Beste batzuk	3
Funtzio Publikoa	128
Aukeraketa	51
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	18
Beste eskubide eta betebeharrak	13
Ordezkapenak	11
Lanpostuak betetzea	9
Ordainsariak	7
Lizentziak eta baimenak	6
Hizkuntz normalizazioa	6
Eskubideak eta askatasunak	2
Beste batzuk	2
Irisgarritasuna	1
Lanpostuen zerrenda	1
Administrazio egoerak	1

Jasotako kexen banaketa, jardueraren azpialorren arabera	
Hezkuntza	111
Eskubideak eta betebeharrak	31
Haur hezkuntza	17
Eskola garraioa	11
Ikasleen onarpena	9
Unibertsitateko irakaskuntza	9
Bekak eta beste laguntza batzuk	7
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	6
Hezkuntza premia bereziak	6
Hizkuntzen irakaskuntza	4
Ikastetxeak - Antolaketa	2
Jantokia	2
Lanbide heziketa	2
Beste batzuk	2
Batxilergoa	1
Irakaskuntza artistikoak	1
Hezkuntza planifikazioa / programazioa	1
Ogasuna	106
Udal zergak	56
Foru zergak, PFEZ	14
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	10
Udal prezio publikoak	8
Udal tasak	5
Prezio publikoak, EAE	4
Eskubideak eta askatasunak	3
Foru zergak, BEZ	2
Foru zergak, O EZ	1
Foru zergak, oinordekotzak eta dohaintzak	1
Beste batzuk	1
Prezio publikoak, aldundienak	1
Etxebizitza	97
Etxebizitza babestuak esleitzeko prozedura	24
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	19
Etxebizitza babestua alokatzea	17
Etxebizitzaren beharra egiaztatzea	14
Etxebizitza babestuetan eraikuntza-akatsak eragindako kalteak	14
Beste batzuk	4
Irisgarritasuna	2
Etxebizitza erosteko eta birgaitzeko laguntzak	2
Eskubideak eta askatasunak	1

Jasotako kexen banaketa, jardueraren azpialorren arabera	
Ingurumena	88
Sailkatutako jarduerak etxebizitzetarako lurzoruan	57
Ingurumenari eragiten dioten beste jarduera batzuk	19
Sailkatutako jarduerak lurzoru urbanizaezinean	6
Sailkatutako jarduerak industri lurzoruan	3
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	3
Osasuna	83
Erabiltzaileen eskubideak	54
Osasun laguntza	13
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	11
Buruko osasuna	4
Beste batzuk	1
Hirigintza eta Lurralde Antolamendu	82
Hirigintzako diziplina eta aurria	44
Irigarritasuna	13
Hirigintzako antolamendua	13
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	7
Hirigintzako kudeaketa	4
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. erantzukizuna	1
Justizia	52
Justizia administrazioaren funtzionamendua	18
Espetxe gaietako jarduerak	16
Abokatu eta prokuradore elkargoak	9
Doako laguntza juridikoa	6
Beste batzuk	3
Kultura eta Elebitasuna	32
Elebitasuna	15
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	6
Kultur ekintzak	3
Kirola	2
Eskubideak eta askatasunak	2
Beste batzuk	2
Kultur ondarea	2
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	16
Kontsumoa	7
Merkataritza	3
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	3
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	1
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. erantzukizuna	1
Turismoa	1

Jasotako kexen banaketa, jardueraren azpialorren arabera	
Animalien Babesa	12
Animaliak edukitzea	6
Beste batzuk	3
Gune zoologikoak	2
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	1
Lana eta Gizarte Segurantza	4
Lana	3
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	1
Bereizkeria	1
Generoa	1

3. ESTATISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA

Udalen kontra egin dira 2008an kexarik gehienak, guztira %44,32, administrazio bakoitzari eragiten dioten kexen proportzioari buruzko datuen arabera. Horrek esan nahi du zertxobait gutxitu dela 2007. urtearen aldean (%48).

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren (Eusko Jaurlaritza) aurkako kexak %35,26 izan dira 2008. urtean; 2007an, aldiz, %36,27.

Foru administrazioak, bere aldetik, guztira azaldutako kexetatik %14,17 eragin ditu (%11,64 aurreko urtean).

Espedienteetan inplikaturako administrazioak ikertzeak ez du esan nahi jarduera okerrik egin dutenik, haren jardueraren bat kexa-gai izan dela baizik.

Zuzenean bideratutako kexen banaketa, eragindako administrazioen arabera		
	Kop.	%
Toki administrazioa	538	44,32
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza)	428	35,26
Foru administrazioa	172	14,17
Erakunde publikoak	45	3,70
Estatuko administrazioa	16	1,32
Justizia	14	1,15
Erakunde pribatuak	1	0,08
Guztira	1.214	100

(Ikusi 6. diagrama eranskinan)

A) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurka aurkeztutako kexak

- Banaketa arloka

Eusko Jaurlaritzak eskumen zabalak dituen arloetan (Osasuna, Etxebizitza, Hezkuntza eta Funtzio Publikoa) egon da, normala denez, kexa-kopururik handiena.

Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurka (Eusko Jaurlaritza) aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera		
	Kop.	%
Osasuna	83	19,39
Etxebizitza	74	17,30
Hezkuntza	71	16,59
Funtzio Publikoa	57	13,32
Herrizaingoa	54	12,61
Gizarte Ekintza	21	4,91
Kultura eta Elebitasuna	18	4,21
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	12	2,80
Justizia	11	2,57
Herri Lanak eta Zerbitzuak	8	1,87
Ingurumena	7	1,63
Ogasuna	5	1,17
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	4	0,93
Lana eta Gizarte Segurantza	3	0,70
Guztira	428	100

(Ikusi 7. diagrama eranskinean)

- Sailen arabera banaketa

Sailen arabera, Osasun Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila dira erreklamaziorik gehien jasotzen dutenak, eta atzetik Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila eta Herrizaingo Saila datoz.

Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurka (Eusko Jaurlaritza) aurkeztutako kexen banaketa, sailen arabera		
	Kop.	%
Osasuna	102	23,83
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	95	22,20
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	83	19,39
Herrizaingoa	60	14,02
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza	36	8,41
Industria, Merkataritza eta Turismoa	14	3,27
Ogasun eta Herri Administrazioa	12	2,81
Ingurumen eta Lurralde Antolamendua	10	2,34
Kultura	6	1,40
Garraio eta Herri Lanak	5	1,17
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	4	0,93
Lehendakariordetza	1	0,23
Guztira	428	100

(Ikusi 8. diagrama eranskinean)

B) Foru administrazioen aurka egindako kexak**- Banaketa lurraldeka**

Foru aldundien aurkako erreklamazioak honela banatzen dira: Bizkaiko Foru Aldundiaren aurkakoak %48,26 (%50 2007an), Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurkakoak %29,07 (%28,13 aurreko urtean) eta Arabako foru administrazioaren aurkakoak %22,67 (%21,87 2007an).

Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa, lurraldeen arabera		
	Kop.	%
Bizkaiko Foru Aldundia	83	48,26
Gipuzkoako Foru Aldundia	50	29,07
Arabako Foru Aldundia	39	22,67
Guztira	172	100

(Ikusi 6. diagrama eranskinean)

- Banaketa arloka

Ohikoa denez, Gizarte Ekintza da foru administrazioen aurka jasotzen diren kexetatik gehien eragiten dituen arloa, eta, horren atzetik, Ogasuna eta Herri Lanak eta Zerbitzuak.

Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera					
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Gizarte Ekintza	19	42	26	87	50,59
Ogasuna	5	18	5	28	16,29
Herri Lanak eta Zerbitzuak	3	12	7	22	12,79
Funtzio Publikoa	7	0	5	12	6,98
Kultura eta Elebitasuna	2	2	1	5	2,91
Etxebizitza	0	2	1	3	1,74
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	1	0	2	3	1,74
Animalien Babesa	1	1	1	3	1,74
Ingurumena	0	2	1	3	1,74
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	0	2	1	3	1,74
Lana eta Gizarte Segurantza	0	1	0	1	0,58
Justizia	0	1	0	1	0,58
Hezkuntza	1	0	0	1	0,58
Guztira	39	83	50	172	100

(Ikusi 9. diagrama eranskinean)

C) Toki Administrazioen aurka egindako kexak**- Banaketa lurraldeka**

Kexa gehienak Bizkaiko udalen aurkakoak izan dira; hots, toki administrazioaren aurka jasotako kexa guztien %51,12 (%48,67 aurreko urtean). Ia ez dago aldaketarik Gipuzkoako udalen kontra egindako kexen portzentajea (%24,90) eta, aldiz, dezente gutxitu dira Arabako udalen aurkako kexak, izan ere, aurtun %19,51 jaso dituzte eta 2007an, berriz, %25,19.

Kexa gehien jaso duten udalerrak Gasteiz (76), Bilbo (74), eta Donostia (35) izan dira. Aipatu beharrekoak dira, orobat, honako herri hauek: Bizkaian, Barakaldo (26), Portugalete (14) eta Getxo (12); Gipuzkoan, Irun, Errenteria eta Zarautz (bakoitzak 10 kexa); eta Araban, Amurrio eta Laudio (bakoitzak 5 kexa).

Toki administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa		
	Kop.	%
Bizkaiko udalak	275	51,12
Gipuzkoako udalak	134	24,90
Arabako udalak	105	19,51
Bizkaiko mankomunitateak partzuergoak eta parkeak	14	2,60
Arabako administrazio batzarrak	7	1,30
Gipuzkoako mankomunitateak partzuergoak eta parkeak	2	0,38
Arabako mankomunitateak partzuergoak eta parkeak	1	0,19
Guztira	538	100

Autonomia Erkidegoko udalen eta administrazio batzarren aurka aurkeztutako kexak

Arabako udalak	Kop.	Arabako administrazio batzarrak	Kop.
Vitoria-Gasteiz	76	Ullibarri-Jauregui	2
Amurrio	5	Aretxabaleta	1
Llodio	5	Beotegi	1
Iruña Oka / Iruña de Oca	3	Legutiano	1
Arrazua-Ubarrundia	2	Puentelarrá	1
Artziniega	2	Ullibarri-Gamboa	1
Berantevilla	2	Guztira	7
Campezo/Kanpezu	2		
Alegria-Dulantzi	1		
Armiñon	1		
Asparrena	1		
Ayala / Aiara	1		
Laguardia	1		
Okondo	1		
Urkabustaiz	1		
Zigoitia	1		
Guztira	105		

Bizkaiko udalak	Kop.	Bizkaiko udalak	Kop.
Bilbao	74	Mendexa	2
Barakaldo	26	Sopelana	2
Portugalete	14	Zaldibar	2
Getxo	12	Zalla	2
Santurtzi	10	Zamudio	2
Sestao	10	Abadiño	1
Basauri	8	Amorebieta-Etxano	1
Galdakao	7	Aulesti	1
Erandio	6	Bakio	1
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	5	Bedia	1
Arrigorriaga	5	Berango	1
Leioa	5	Elorrio	1
Plentzia	5	Ermua	1
Derio	4	Etxebarri	1
Durango	4	Gernika-Lumo	1
Lekeitio	4	Gordexola	1
Mungia	4	Igorre	1
Urduña-Orduña	4	Iurreta	1
Zierbena	4	Karrantza Harana/Valle de Carranza	1
Dima	3	Laukiz	1
Larrabetzu	3	Lemoa	1
Lezama	3	Lemoiz	1
Ondarroa	3	Mallabia	1
Orozko	3	Mañaria	1
Zaratamo	3	Maruri-Jatabe	1
Alonsotegi	2	Meñaka	1
Barrika	2	Muskiz	1
Bermeo	2	Ortuella	1
Galdames	2	Otxandio	1
Gorliz	2	Guztira	275
Güeñes	2		

Gipuzkoako udalak	Kop.	Gipuzkoako udalak	Kop.
Donostia-San Sebastián	35	Zizurkil	2
Errenteria	10	Zumarraga	2
Irun	10	Anoeta	1
Zarautz	10	Aretxabaleta	1
Bergara	8	Ataun	1
Pasaia	7	Getaria	1
Arrasate/Mondragón	4	Irura	1
Beasain	4	Itsasondo	1
Hondarribia	4	Lasarte-Oria	1
Ibarra	4	Lezo	1
Hernani	3	Lizartza	1
Ordizia	3	Mutriku	1
Tolosa	3	Olaberria	1
Andoain	2	Soraluze-Placencia de las Armas	1
Azpeitia	2	Villabona	1
Deba	2	Zestoa	1
Elgoibar	2	Zumaia	1
Usurbil	2	Guztira	134

- Banaketa arloka

Ohi bezala, toki administrazioen jarduerak eragindako kexak berdintsu banatzen dira udalek eskumen garrantzitsuak dituzten arlo guztien artean. Horietan, Herri Lanen eta Zerbitzuen arloa nabarmentzen da.

Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera					
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Herri Lanak eta Zerbitzuak	28	69	24	121	23,22
Herrizaingoa	17	56	13	86	16,51
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	15	42	22	79	15,17
Ingurumena	8	42	29	79	15,17
Gizarte Ekintza	18	14	12	44	8,45
Ogasuna	4	16	13	33	6,33
Funtzio Publikoa	10	8	9	27	5,18
Etxebizitza	7	11	2	20	3,84
Kultura eta Elebitasuna	1	8	3	12	2,30
Animalien Babesa	1	7	2	10	1,92
Hezkuntza	3	1	2	6	1,15
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	–	1	1	2	0,38
Justizia	–	–	1	1	0,19
Bereizkeria	–	–	1	1	0,19
Guztira	112	275	134	521	100

(Ikusi 10. diagrama eranskinean)

Toki administrazioaren menpeko beste erakunde batzuen aurka aurkeztutako kexak	
	Guztira
Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa	8
Mebisa - Metro de Bilbao	4
Durangoko Merindadeko Mankomunitatea	1
Arratiako Mankomunitatea	1
Deba Garaiko Mankomunitatea	1
Txingudiko Zerbitzuak	1
Arabako Errioxako Ur Partzuergoa	1
Guztira	17

D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak

Udal, aldundi zein Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexa horiez gain, Ararteko erakundearen ikerkuntza esparruaren barruan dauden beste administrazio batzuen aurkako zenbait erreklamazio ere jaso dira. Herri erakunde zein organismoen, elkargoen eta abarren aurkako kexak dira. Atal honetan, era berean, Estatuko administrazioaren aurkako kexak ere jasotzen dira, Arartekoak modu informalean ikertu dituenak, nahiz eta jakin badakigun Estatuko administrazioaren jarduera gure erakundearen kontrol eremutik kanpo dagoela.

Euskal Herriko Unibertsitatearen aurka aurkeztutako kexak	
	Guztira
Hezkuntza	11
Funtzio Publikoa	11
Ogasuna	3
Guztira	25

E) Euskal Autonomia Erkidegoko justizia-administrazioaren zerbitzu administrazioen aurka aurkeztutako kexak

Ararteko erakundea arautzen duen 3/1985 Legearen 9.2 artikulua dioenez, justizia-administrazioaren funtzionamenduaren ondoriozko kexak kasu bakoitzean ikertzeko edo ebazteko eskumena duen organora bideratuko dira.

Lehenago aurkeztu diren Eusko Legebiltzarrarentzako txostenetan azaldutakoaren arabera, halako kasuetan erakundeak Fiskaltzari, EAEko Auzitegi Nagusiko lehendakariari edo, bestela, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidali ohi dizkio kexak, beraiek iker ditzaten kontu horiek eta gure erakundeari egindako gestioen berri eman diezaioten.

2008. urtean 3 erreklamazio bideratu dira, justizia-administrazioak EAEn dituen administrazio zerbitzuen funtzionamenduari dagokionez; iaz, aldiz, 1 izan zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko justizia-administrazioaren zerbitzu administrazioen aurkako kexak	3
---	---

4. LURRALDE ESTADISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)

Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrek egin dituzte kexa gehien, guztira 868. Gipuzkoakoek 394 egin dituzte, eta Arabakoek 341.

Kexen lurralde banaketaren bilakaera, jatorriaren arabera			
	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
1989	288	188	97
1990	828 (284) ¹	195	125
1991	293	244	158
1992	332	241	201
1993	376	250	182
1994	349	234	160
1995	528	281	328
1996	746	448	446
1997	915	663	371
1998	1.471 (764) ²	905 (471) ³	244
1999	649	372 (311) ⁴	237
2000	645	295	256
2001 ⁵	651	375	444
2002	643	294	268
2003	646	318	322
2004	730	457	271
2005	712	412	275
2006	834	398	367
2007	738	380	361
2008	868	394	341

¹ Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

² Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

³ Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

⁴ Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

⁵ Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikusi 11. diagrama eranskinean)

- Kexen lurralde banaketa 10.000 biztanleko

Lurralde historikoen banaketaren arabera, kexen jatorriaren konparaziozko azterketa egiteko, lurralde bakoitzetik jasotako erreklamazio kopuru absolutua lurralde horretako biztanleriari lotuko diogu. Hurrengo koadroan lurralde bakoitzetik 10.000 biztanleko multzo bakoitzeko jaso diren kexei buruzko datuak bildu ditugu.

Kexen lurralde banaketa 10.000 biztanleko			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
1989	4,3	3,3	3
1990	4,5	7,87 (2,7) ¹	2,9
1991	5,8	3,6	2,5
1992	7,4	3,5	2,8
1993	6,7	3,7	3,3
1994	5,9	3,5	3
1995	11,59	4,54	4,11
1996	15,92	6,55	6,66
1997	13,24	8,03	9,77
1998	8,37	12,95 (6,73) ²	13,30 (6,93) ³
1999	8,37	5,74	5,56 (4,64) ⁴
2000	8,97	5,77	4,42
2001 ⁵	15,56	5,7	5,53
2002	9,37	5,73	4,37
2003	11,24	5,75	4,71
2004	9,46	6,50	6,77
2005	9,6	6,34	6,11
2006	12,81	7,42	5,9
2007	11,82	6,46	5,46
2008	11,15	7,64	5,74

¹ Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

² Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

³ Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

⁴ Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

⁵ Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikusi 12. diagrama eranskinean)

- Kexen banaketa lurralde bakoitzean

Kexagileak lurralde historikoko hiriburuan bizi diren ala beste udalerrri batzuetan bizi diren, herritarren jokabidea ez dela berdina erakusten du kexen banaketak. Egiaz, Bizkaian eta Gipuzkoan gora egin du hiriburutik kanpo bizi diren kexagileen kopuruak; Araban, ordea, kexetatik %79,77 Gasteizen bizi direnek egin dituzte. Gipuzkoan %36,71 Donostian bizi direnek egin dituzte eta Bizkaian %31,42 Bilbon bizi direnek.

Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek aurkeztu dituzten kontuan hartuta		
Araba	Kop.	%
Vitoria-Gasteiz	272	79,77
Beste udalerrri batzuk	69	20,23
Guztira	341	100
Bizkaia	Kop.	%
Bilbao	274	31,42
Beste udalerrri batzuk	598	68,58
Guztira	872	100
Gipuzkoa	Kop.	%
Donostia-San Sebastián	145	36,71
Beste udalerrri batzuk	250	63,29
Guztira	395	100

- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo datozen kexak

2008an ere Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpotik etorritako zenbait kexa jaso dira. Horietatik, 54 beste autonomia erkidego batzuetatik etorri dira, 11 beste estatu batzuetatik (Frantzia, AEB, Argentina...) eta 23 izenik gabekoak izan dira (Internet).

Beste autonomia erkidego batzuetatik etorritako kexak	Kop.
Nafarroako F.K.	14
Kantabriako A.E.	8
Gaztela eta Leongo A.E.	8
Kataluniako A.E.	5
Andaluziako A.E.	4
Madrilgo A.E.	4
Errioxako A.E.	3
Valentziako K.	3
Kanarietako A.E.	1
Gaztela-Mantxako A.E.	1
Galiziako A.E.	1
Guztira	54
Beste estatu batzuetatik etorritakoak	Kop.
Frantzia	5
Mexiko	2
Alemania	1
Honduras	1
Erresuma Batua	1
Mazedoniako Errepublika	1
Guztira	11
Izenik gabe aurkeztu dira (Internet)	23

5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA (KEXEN EGOERA)

Jarraian, Arartekoari aurkeztutako erreklamazioen izapidetzea zein egoeratan dagoen aztertuko dugu. 2008. urtean 1.379 espedienteren izapidetze prozesua amaitu da. Horietatik 688 urtean zehar egindako kexei buruzkoak izan dira, eta gainerakoak, 691, aurreko urteetan egindako kexak ziren, azaldu ziren urtean bertan osorik ezin izapidetu izan zirenak.

Arartekoak eman dituen ebazpenek agerian utzi dutenez, 2008an amaitutako 392 erreklamaziotan eragindako administrazioaren jarduera okerren bat zegoen, hau da, kasuetatik %28,43tan; beraz, kopurua dezente gutxitu da 2007koaren aldean (%42,26). Ez da, ordea, okerreko jarduerarik antzeman aztertutako espedienteetatik %46,12tan (%37,78 aurreko urtean).

	Guztira	Jarduera okerra	%	Jarduera okerrik ez	%	Beste batzuk	%
2008an amaitutako kexak	1.379	392	28,43	636	46,12	351	25,45

(Ikusi 1. diagrama eranskinean)

- 2008an aurkeztutako kexak: ebatzita daudenak eta izapidetzen ari direnak

2008. urtean aurkeztutako kexei dagokienez, Ararteko erakundeak 563 ebazpen eman ditu, eta 314 kasutan ez du jarduera okerrik antzeman. Ostera, 524 espediente oraindik izapidetzen ari dira.

Izapidetzen ari diren zenbait espedientetan, kexa aztertzen hasi ondoren hainbat inguruabar agertu dira (beste defendatzaile batzuekiko bikoiztasuna, epailearen ebazpenaren zain dauden auziak, epai irmoa dutenak, epai bideari ekin diotenak eta abar). Espediente horiek eratorritako ez-onarpena izenpean jaso dira ondoko koadroetan.

Kexa-espedienteen egoera, jarduera-alorren arabera						
	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratorritako ez-onarpena
Herri Lanak eta Zerbitzuak	69	92	36	35	21	3
Gizarte Ekintza	100	41	4	26	11	12
Herrizaingoa	92	40	18	21	1	8
Etxebizitza	40	56	7	20	29	1
Funtzio Publikoa	28	59	13	43	3	9
Ingurumena	68	18	8	9	1	3
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	41	38	9	15	14	7
Osasuna	22	60	12	42	6	1
Hezkuntza	12	65	8	56	1	2
Ogasuna	26	39	4	27	8	4
Kultura eta Elebitasuna	11	24	12	11	1	–
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	6	11	3	4	4	–
Justizia	3	10	5	1	4	–
Animalien Babesa	4	9	2	4	3	–
Lana eta Gizarte Segurantza	2	1	1	–	–	1
Bereizkeria	–	–	–	–	–	1
Guztira	524	563	142	314	107	52

- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurkako kexen egoera

2008. urtean 262 ebazpen eman dira, Eusko Jaurlaritzaren aurka urte berean jarritako kexei dagokienez, eta 152 espediente oraindik izapidetzen ari dira.

Burututako kasurik gehienetan, 159 kasutan hain zuzen ere, ez da inolako jarduera okerrik ikusi.

Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoeraren azterketa, jarduera-alorren arabera						
	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Osasuna	22	60	12	42	6	1
Etxebizitza	31	43	5	16	22	–
Hezkuntza	8	61	8	52	1	2
Funtzio Publikoa	19	33	8	23	2	5
Herrizaingoa	37	13	5	7	1	4
Gizarte Ekintza	11	9	1	6	2	1
Kultura eta Elebitasuna	5	13	10	3	–	–
Nekazaritza, Industria Merkataritza eta Turismoa	2	10	2	4	4	–
Justizia	2	9	5	–	4	–
Herri Lanak eta Zerbitzuak	5	3	1	1	1	–
Ingurumena	5	2	1	1	–	–
Ogasuna	3	2	1	1	–	–
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	–	4	1	3	–	–
Lana eta Gizarte Segurantza	2	–	–	–	–	1
Guztira	152	262	60	159	43	14

**Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoera,
bertako sailen arabera**

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Osasuna	29	71	16	51	4	2
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	14	76	12	63	1	5
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	32	50	6	18	26	1
Herrizaingoa	39	17	7	8	2	4
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	14	22	11	6	5	–
Industria, Merkataritza eta Turismoa	6	8	2	3	3	–
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	5	5	2	3	–	–
Ogasun eta Herri Administrazioa	8	3	1	2	–	1
Kultura	2	3	2	1	–	1
Garraio eta Herri Lanak	2	3	1	1	1	–
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	–	4	–	3	1	–
Lehendakariordetza	1	–	–	–	–	–
Guztira	152	262	60	159	43	14

- Foru administrazioen aurkako kexen egoera

Foru administrazioen aurka amaitu diren 72 erreklamazioetatik 12 kasutan okerreko jardue-
ren bat antzeman da. Beste 87 espediente izapidetzen ari dira.

**Foru aldundien aurkako kexen egoera,
lurralde historikoen arabera**

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Bizkaiko Foru Aldundia	45	32	4	19	9	6
Gipuzkoako Foru Aldundia	24	22	4	16	2	4
Arabako Foru Aldundia	18	18	4	9	5	3
Guztira	87	72	12	44	16	13

**Foru aldundien aurkako kexen egoera,
jarduera-alorren arabera**

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortako ez-onarpena
Gizarte Ekintza	55	24	2	15	7	8
Ogasuna	11	15	1	11	3	2
Herri Lanak eta Zerbitzuak	9	13	4	6	3	–
Funtzio Publikoa	3	7	2	5	–	2
Kultura eta Elebitasuna	2	3	1	2	–	–
Etxebizitza	–	3	–	2	1	–
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	1	2	–	1	1	–
Animalien Babesa	1	2	–	1	1	–
Ingurumena	1	1	1	–	–	1
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	3	–	–	–	–	–
Lana eta Gizarte Segurantza	–	1	1	–	–	–
Justizia	–	1	–	1	–	–
Hezkuntza	1	–	–	–	–	–
Guztira	87	72	12	44	16	13

- Toki administrazioen aurkako kexen egoera

Toki administrazioaren aurka jasotako kexetatik, Arartekoak 220 ebazpen eman ditu, eta okerreko jardueraren bat antzeman da 68 kasutan. Urtearen amaieran, 279 espediente ari ziren izapidetzen.

Arabako udalen aurkako kexen egoera						
	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Vitoria-Gasteiz	41	28	5	18	5	7
Amurrio	–	5	3	2	–	–
Llodio	3	2	2	–	–	–
Iruña Oka / Iruña de Oca	2	1	1	–	–	–
Arrazua-Ubarrundia	–	2	–	2	–	–
Artziniega	2	–	–	–	–	–
Berantevilla	1	–	–	–	–	1
Campezo / Kanpezu	1	1	–	1	–	–
Alegria-Dulantzi	1	–	–	–	–	–
Armiñon	–	1	1	–	–	–
Asparrrena	–	1	1	–	–	–
Ayala / Aiara	1	–	–	–	–	–
Laguardia	1	–	–	–	–	–
Okondo	–	1	1	–	–	–
Urkabustaiz	1	–	–	–	–	–
Zigoitia	–	1	1	–	–	–
Guztira	54	43	15	23	5	8

Arabako administrazio batzarren aurkako kexen egoera						
	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Ullibarri-Jauregui	–	2	–	1	1	–
Aretxabaleta	–	1	1	–	–	–
Beotegi	–	1	–	1	–	–
Legutiano	–	1	–	–	1	–
Puentelerrá	1	–	–	–	–	–
Ullibarri-Gamboa	–	1	–	1	–	–
Guztira	1	6	1	3	2	–

Gipuzkoako udalen aurkako kexen egoera

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Donostia-San Sebastián	16	16	5	10	1	3
Errenteria	7	3	1	2	–	–
Irun	5	3	–	3	–	2
Zarautz	5	4	2	2	–	1
Bergara	7	1	–	1	–	–
Pasaia	1	6	–	3	3	–
Arrasate / Mondragón	2	2	–	2	–	–
Beasain	4	–	–	–	–	–
Hondarribia	2	2	1	1	–	–
Ibarra	2	2	–	1	1	–
Hernani	2	1	–	1	–	–
Ordizia	1	1	–	1	–	1
Tolosa	3	–	–	–	–	–
Andoain	2	–	–	–	–	–
Azpeitia	1	1	1	–	–	–
Deba	–	2	2	–	–	–
Elgoibar	1	1	1	–	–	–
Usurbil	–	2	1	1	–	–
Zizurkil	–	2	2	–	–	–
Zumarraga	2	–	–	–	–	–
Anoeta	–	1	–	1	–	–
Aretxabaleta	1	–	–	–	–	–
Ataun	–	1	–	–	1	–
Getaria	–	1	1	–	–	–
Irura	–	1	–	1	–	–
Itsasondo	–	1	–	–	1	–
Lasarte-Oria	–	1	1	–	–	–
Lezo	1	–	–	–	–	–
Lizartza	1	–	–	–	–	–
Mutriku	1	–	–	–	–	–
Olaberria	–	1	–	1	–	–
Soraluze-Placencia de las Armas	–	1	–	1	–	–
Villabona	–	1	–	–	1	–
Zestoa	1	–	–	–	–	–
Zumaia	–	1	–	1	–	–
Guztira	68	59	18	33	8	7

Bizkaiko udalen aurkako kexen egoera

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Bilbao	45	27	14	9	4	2
Barakaldo	13	13	2	5	6	–
Portugalete	10	4	2	2	–	–
Getxo	8	4	1	2	1	–
Santurtzi	8	2	–	1	1	–
Sestao	4	6	2	2	2	–
Basauri	3	4	1	3	–	1
Galdakao	3	4	1	2	1	–
Erandio	3	3	1	2	–	–
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	4	1	–	–	1	–
Arrigorriaga	2	2	–	–	2	1
Leioa	1	4	–	3	1	–
Plentzia	3	2	1	1	–	–
Derio	2	2	1	–	1	–
Durango	1	3	1	1	1	–
Lekeitio	2	2	–	1	1	–
Mungia	1	3	2	–	1	–
Urduña-Orduña	2	2	–	1	1	–
Zierbena	3	1	–	1	–	–
Dima	–	2	–	1	1	1
Larrabetzu	2	1	–	–	1	–
Lezama	3	–	–	–	–	–
Ondarroa	2	1	–	1	–	–
Orozko	2	1	–	1	–	–
Zaratamo	1	–	–	–	–	2
Alonsotegi	2	–	–	–	–	–
Barrika	1	1	–	–	1	–
Bermeo	1	1	1	–	–	–
Galdames	1	1	–	–	1	–
Gorliz	1	1	–	1	–	–
Güeñes	2	–	–	–	–	–
Mendexa	1	1	1	–	–	–
Sopelana	2	–	–	–	–	–
Zaldibar	2	–	–	–	–	–
Zalla	1	1	–	1	–	–
Zamudio	1	1	–	1	–	–
Abadiño	1	–	–	–	–	–
Amorebieta-Etxano	–	1	–	–	1	–

Bizkaiko udalen aurkako kexen egoera

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Aulesti	1	–	–	–	–	–
Bakio	–	1	1	–	–	–
Bedia	1	–	–	–	–	–
Berango	1	–	–	–	–	–
Elorrio	1	–	–	–	–	–
Ermua	1	–	–	–	–	–
Etxebarri	–	1	–	1	–	–
Gernika-Lumo	1	–	–	–	–	–
Gordexola	1	–	–	–	–	–
Igorre	1	–	–	–	–	–
Iurreta	–	1	–	1	–	–
Karrantza Harana / Valle de Carranza	1	–	–	–	–	–
Laukiz	–	1	–	1	–	–
Lemoa	–	1	–	1	–	–
Lemoiz	–	1	1	–	–	–
Mallabia	–	1	–	–	1	–
Mañaria	–	1	–	1	–	–
Maruri-Jatabe	–	1	–	1	–	–
Meñaka	1	–	–	–	–	–
Muskiz	1	–	–	–	–	–
Ortuella	–	1	1	–	–	–
Otxandio	1	–	–	–	–	–
Guztira	156	112	34	48	30	7

Udalen aurkako kexen egoera, jarduera-alorren arabera

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Herri Lanak eta Zerbitzuak	50	69	29	26	14	2
Herrizaingoa	55	27	13	14	–	4
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	40	32	8	11	13	7
Ingurumena	62	15	6	8	1	2
Gizarte Ekintza	34	8	1	5	2	2
Ogasuna	11	21	2	14	5	1
Funtzio Publikoa	6	19	3	15	1	2
Etxebizitza	9	10	2	2	6	1
Kultura eta Elebitasuna	4	8	1	6	1	–
Animalien Babesa	3	7	2	3	2	–
Hezkuntza	3	3	–	3	–	–
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	1	1	1	–	–	–
Justizia	1	–	–	–	–	–
Bereizkeria	–	–	–	–	–	1
Guztira	279	220	68	107	45	22

Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, eragindako erakunde publikoaren arabera

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa	2	5	–	2	3	1
Mebisa - Metro de Bilbao	2	2	1	1	–	–
Durango Merindadeko Mankomunitatea	–	–	–	–	–	1
Arratiako Mankomunitatea	1	–	–	–	–	–
Deba Garaiko Mankomunitatea	1	–	–	–	–	–
Txingudiko Zerbitzuak	–	1	1	–	–	–
Arabako Errioxako Ur Partzuergoa	–	–	–	–	–	1
Guztira	6	8	2	3	3	3

Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, jarduera-alorren arabera

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Herri Lanak eta Zerbitzuak	5	7	2	2	3	1
Ogasuna	1	1	–	1	–	1
Gizarte Ekintza	–	–	–	–	–	1
Guztira	6	8	2	3	3	3

- Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexen egoera

Euskal Herriko Unibertsitatearen aurkako kexen egoera

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Hezkuntza	2	9	-	9	-	-
Funtzio Publikoa	8	2	-	2	-	1
Ogasuna	-	3	-	3	-	-
Guztira	10	14	-	14	-	1

6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO ERA)

- Kexagileen ezaugarriak

2008. urtean egindako kexen azterketa soziologikoak azken urteotako joera egiaztatu du: alegia, gehitu egin dela kexa aurkezten duten emakumeen portzentajea, guztira %43,81ekoa baita. Gizonezkoen portzentajea %48,64koa da eta taldeena %7,25ekoa.

Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera		
Kexagileen ezaugarriak	Kopurua	%
Gizonezkoak	825	48,64
Emakumezkoak	743	43,81
Taldeak	123	7,25
Identifikatu gabeko pertsonak	5	0,30
Guztira	1.696	100

(Ikusi 13. diagrama eranskinean)

- Kexa idazteko erabilitako hizkuntza

Gaztelania da, oraindik ere, kexak idazteko orduan gehien erabiltzen den hizkuntza. Herritarren artean, %93,16k gaztelania aukeratzen dute eta %6,72k euskara edo ele biak (%9,93k 2007an).

Ararteko erakundeak erreklamazioak herritarrak aukeratutako hizkuntzan izapidetzen ditu, irizpide modura. Arartekoa kexa eragindako administrazioekin harremanetan jartzean, eta ofiziozko espedienteren bat abiatzen duenean, komunikazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiten da.

Kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera		
Hizkuntza	Kopurua	%
Gaztelania	1.580	93,16
Euskara	94	5,54
Ele biak	20	1,18
Frantsesa	2	0,12
Guztira	1.696	100

(Ikusi 14. diagrama eranskinean)

- Kexak aurkezteko era

Kexak aurkezteko erari dagokionez, datuek erakusten digute lehenbiziko aldiz Internet izan dela kexak egiteko biderik erabiliena, kexagileetatik %38,91k aukeratu baitute bide hori. Aldiz, %38,8k gure hiru bulegoetakoren batera etorri eta kexa beraiek jartzea erabaki dute.

Kexen banaketa, aurkezteko eraren arabera		
Jasotzeko era	Kopurua	%
Internetez	660	38,91
Bulegoetara bertaratuta	658	38,80
Postaz	331	19,52
Faxeaz	47	2,77
Guztira	1.696	100

(Ikusi 15. diagrama eranskinean)

7. ARRETA ZUZENENKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONO BIDEZKO KONTSULTAK)

1996tik, Ararteko erakundeak arreta zuzeneko bulegoak dauzka Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan. Horri esker, administrazioen batekin arazoak dituzten herritarrei hobeto lagun diezaiekegu. Bulegoetan hartutako eskarmentuak erakusten du, gainera, bertan jasotzen diren bisitez gain, telefono bidezko kontsulta ugari ere egiten direla, erakunde-ko langileek erantzuten dituztenak.

Horregatik, bisitez gain, telefonozko kontsultak ere zenbatzen ditugu, ziur baikaude horien bitartez informatzeko lan interesgarria egiten dela pertsonen administrazioekin dituzten harremanetan zein eskubide dituzten adierazten. Horrela, 2008. urtean guztira 4.054 kontsultari erantzun diegu. Horietatik 1.453 telefono bidezko kontsultak izan dira, eta 2.601, berriz, hiru bulegoetakoren batera etorri diren pertsonenak. Zehazki, Bilbon 1.488 kontsultari erantzun diegu (%39,54), Gasteizen 1.328 kontsultari, eta Donostiako bulegoan 1.238 kontsultari.

Telefono bidezko kontsulta eta bisiten kopurua arreta zuzeneko bulegoetan				
Herria	Telefono bidezko kontsultak	Bisitak	Guztira	%
Bilbao	575	913	1.488	36,70
Donostia-San Sebastián	528	710	1.238	30,54
Vitoria-Gasteiz	350	978	1.328	32,76
Guztira	1.453	2.601	4.054	100

(Ikusi 16. diagrama eranskinean)

- Arreta zuzeneko bulegoetara etorri eta kexa aurkeztu dutenenak

Arreta zuzeneko hiru bulegoetan jasotako bisitetatik 590 kexa bihurtu dira, hau da, bisita guztietatik %22,68. Horietatik 249 Bizkaiko hiriburuan, 205 Gasteizen eta 136 Donostian.

Kexa bilakatutako bisitak		
	Kopurua	%
Bilbao	249	42,20
Donostia-San Sebastián	136	23,05
Vitoria-Gasteiz	205	34,75
Guztira	590	100

(Ikusi 19. diagrama eranskinean)

Gainerako bisitei dagokienez, kasu batzuetan erakunde honen jarduera-eremutik kanpoko gaiiei loturikoak izan dira; horrenbestez, ezin izan dira kexatzat bideratu; beste zenbait kasutan, agiri gehiago ekarri behar zituzten, edo aurretiazko gestioak egin behar ziren, admi-

nistrazio organo eskudunetan; eta azkenik, beste kasu batzuetan, planteaturiko arazoak, edo kexa egiteko funtsik gabekoak ziren edo bisita kexa-espeditente baten izapidetzeari lotuta egon da, edo herritarrak bere arazo zehatzetan jarraitu beharreko izapideei buruzko informazioa lortu nahi izan du.

- Arreta zuzeneko bulegoetara bertaratutako pertsonen ezaugarriak

Jada adierazi dugu kexagile gehienak gizonezkoek direla, nahiz eta arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren emakumezkoen kopurua handitu egin den. Bikoteak eta taldeak bisita guztietatik %8,84 dira.

Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako bisitarien ezaugarriak					
	Bilbao	Donostia-San Sebastian	Vitoria-Gasteiz	Guztira	%
Gizonezkoak	467	283	472	1.222	46,98
Emakumezkoak	375	336	438	1.149	44,18
Bikoteak	56	55	36	147	5,65
Taldeak	15	36	32	83	3,19
Guztira	913	710	978	2.601	100

(Ikusi 17. diagrama eranskinean)

- Arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren pertsonen adina

Adin multzoen araberrako datuak aztertuz, ez da aurreko urteetakoan aldean gorabehera handirik ikusten. Bisitarietatik %57,71 36 eta 55 urte bitartekoak dira, eta %28,8, berriz, 56 urtetik gorakoak.

Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako bisitarien banaketa, adin multzoka					
Adina	Bilbao	Donostia-San Sebastian	Vitoria-Gasteiz	Guztira	%
25 arte	9	13	15	37	1,42
26-35	118	49	147	314	12,07
36-45	245	210	320	775	29,80
46-55	218	256	252	726	27,91
56-65	190	111	107	408	15,69
66 edo gehiago	133	71	137	341	13,11
Guztira	913	710	978	2.601	100

(Ikusi 18. diagrama eranskinean)

8. OFIZIOZKO JARDUERAK

Herritarren kexak aztertu eta ikertzeaz gain, Ararteko erakundeak, bere ekimenez, hainbat gai ikertzeari ekiten dio: batzuetan, euskal administrazio publikoren batean jarduera irregularrik egoteko arriskua ikusi dugulako; beste batzuetan, zerbitzu berriak emateko edo laguntzeko aukera ikusi dugulako. Ararteko erakundeak sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 17.1 artikulua ofizioz jarduteko aukera aurreikusten du. Horren bidez, Arartekoak esku hartzeko aukera du, administrazioaren irregulartasunen edo akatsen baten ondorioz kalteturiko herritarren erreklamazioen zain egon barik.

2008an ofiziozko 389 espediente bideratzen hasi gara (62 aurreko urtean). Ofiziozko jardueren artean azpimarragarriak dira, ugariak direlako, Hirigintza eta Lurralde Antolamendu arlokoak, bereziki irisgarritasunari buruzko lau urteko programaren bilakaera aztertzeko hasi direnak. Gainera, Gizarte Ekintza arloan, *Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna* izenburuko txosten bereziaren bilakaera aztertu da.

Ofiziozko jardueren banaketa, alorren arabera		
	Ofizioz egindako espedienteak	%
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	214	55,02
Gizarte Ekintza	92	23,65
Herri Lanak eta Zerbitzuak	52	13,37
Herrizaingoa	10	2,57
Osasuna	9	2,31
Hezkuntza	7	1,8
Ingurumena	2	0,51
Etxebizitza	2	0,51
Bereizkeria	1	0,26
Guztira	389	100

(Ikusi 20. diagrama eranskinean)

Irisgarritasunari buruzko lau urteko programaren bilakaera aztertzeko lan horrexegatik batik bat, jarduera gehienek tokiko administrazioekin izan dute zerikusia, %81,52k hain zuzen. Bestalde, %9,37k foru administrazioetan izan dute eragina, %9,11k Eusko Jaurlaritzan.

Ofiziozko jardueren banaketa, eragindako administrazioen arabera		
	Kopurua	%
Toki administrazioa	322	81,52
Foru administrazioa	37	9,37
Eusko Jaurlaritza	36	9,11
Guztira	395	100

(Ikusi 21. diagrama eranskinean)

9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)

Ararteko erakundeak duela zenbait urte herritarrengana hurbiltzeko bidea hasi zuen, esku-hartzea eskatu dioten pertsonen iritzia jakiteko. Horrela, erakundearen ibileraren punturik ahulenak ezagutu nahi dira, eskaintzen den zerbitzua hobetzen saiatzeko.

Horretarako, kexa-espeditente baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera-sorta bidali ohi zaio, nahi izanez gero eta izena ipini barik, galdera batzuei erantzuteko eskatuz, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioa jakiteko.

Azken urteotan, bai kexagileek bete dituzten galdera-sorten kopuruak, bai gure bitartekotzaz azaldu duten iritziak ere, berretsi egiten dute esperientzia honen emaitza ona.

Emaitzak baloratzeko orduan garrantzitsua da honako hau kontuan hartzea: 2008an guztiz izapidetu diren kexetatik, soilik %28,43tan iritzi diogu eragindako administrazioak oker jokatu duela.

Betetako galdera-sorten datuak laburbilduz, kexaren bat egin duten herritarren eta kexa horren tramitazioa bukatu den kasuetan, kexagileetatik %86,99k hauxe adierazi dute: *“Arartekoak emandako informazioa ona edo oso ona izan da,”* eta *“erabat edo nahikoa ados gaude Arartekoak kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin”* (%66,44k).

Arartekoaren esku-hartzeaz oro har nola baloratuko luketen galdetzean (erakutsi duen interesa, laguntzeko prestasuna, egindako gestioak eta abar), kexagileetatik %82,2k esku-hartzea *“oso ona edo nahikoa ona”* iruditu zaiela adierazi dute eta %91,1ek *“beti edo batzuetan administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko lioketela”* baieztatu dute.

Inkestetatik lortzen diren datuez gain (jarraian biltzen dira), kexagileek beren iritziak eta iradokizunak ere helaraz diezazkigukete galdera-sortako ataletako baten bidez. Oro har, askoren ustez, Arartekoak botere handiagoa izan beharko luke, bere ebazpenak euskal administrazio publikoentzat nahitaez bete beharrekoak izan daitezen. Herritar batzuek uste dute Arartekoaren informazio-emaile hutsa besterik ez dela, eta administrazioek bidaltzen diguten informazioa sakonago iker dezagula eskatzen digute. Zenbaitek eskatu digute publizitate kanpainak egin ditzagula, jendeak erakundea eta egiten duen lana ezagut ditzan. Kritiken artean, herritar batzuei luzeegia iruditu zaie kexa jarri zutenetik erantzuna jaso arte igarotako denbora.

- Inkestaren emaitzak (ikusi 22 eta 27 bitarteko diagramak eranskinean)

. Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?	
. Oso ona	39,04
. Ona	47,95
. Txarra	2,74
. Oso txarra	4,11
. Erantzunik ez	6,16

. Nolakoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik tramitazioa bukatu arteko denbora?	
. Oso luzea	17,12
. Luzea	32,19
. Laburra	36,30
. Oso laburra	10,28
. Erantzunik ez	4,11

. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz erabaki edo proposatu duenarekin?	
. Guztiz ados nago	31,51
. Nahikoa ados nago	34,93
. Ez nago oso ados	10,96
. Ez nago batere ados	14,38
. Erantzunik ez	8,22

. Zure ustez, kexa sorrarazi zuen arazoa:	
. Oso ondo konpondu da	19,87
. Nahikoa ondo konpondu da	25,34
. Aski gaizki konpondu da	4,11
. Ez da konpondu	45,89
. Erantzunik ez	4,79

. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)	
. Oso egokia	54,80
. Nahikoa egokia	27,40
. Ez oso egokia	6,16
. Oso desegokia	6,16
. Erantzunik ez	5,48

. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?	
. Bai, beti	69,18
. Bai, kasu batzuetan	21,92
. Ez, inoiz ez	6,85
. Erantzunik ez	2,05

Galdetutakoen erantzunak beren kexa eragin zuen arazoa konpontzearen ala ez konpontzearen arabera desberdinak izan zitezkeen. Ez da, baina, horrelakorik gertatu, kexagileek beren arazoa ez dela konpondu edo txarto konpondu dela dioten galdera-sortetako datuek erakusten dutenagatik.

- Euren arazoa “ez da konpondu” edo “aski gaizki konpondu” da erantzun duten kexagileek Ararteko erakundeak izandako esku-hartzeari buruz egin duten balorazioa (ikusi 28. eta 29. diagramak eranskinean)

. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)

. Oso egokia	36,98
. Nahikoa egokia	34,25
. Ez oso egokia	12,33
. Oso desegokia	10,96
. Erantzunik ez	5,48

. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?

. Bai, beti	56,16
. Bai, kasu batzuetan	26,03
. Ez, inoiz ez	13,70
. Erantzunik ez	4,11

ararteko

VII. ATALA

ADMINISTRAZIOAREN SAIL
BATZUEK ARGIBIDEAK EPE
BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA



1. SARRERA ETA OHARRAK

Lege antolamenduak Ararteko erakundearen modukoei esleitzen dizkien kontrol eginkizunak betetzeko ezinbestekoa da erakunde horien jarduera esparruetan sartzen diren herri administrazioen laguntza. Izan ere, administrazio horiek izapidetzen ari diren espedienteen ebazpen oinarritua lortzeko behar den informazio guztia eman behar dute eta, gainera, ezarritako epeetan egin behar dute hori, ikerketa eta kontroleko lanek gutxienerako eragingarritasuna izan dezaten nahi bada behintzat.

Errealitate horretaz jabetuta, Ararteko erakundea sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –23. artikuluan– bere kontrolpean jarritako herri administrazioen bete-behar hori espresuki aipatzen du, administrazio horiei eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten eta argitasun guztiak lehenasunez eta premiaz aurkeztu behar dutela dioenean. Era berean, 26. artikuluan ohartarazten du informazioak, espedienteak edota bestelako datuak bidaltzeko eskatzen zaienean, erakundeak eskatutakoari erantzun dakion epe bat ezarri beharko duela. Betebehar hori sendotzeko, lege berberak dio, 24.2 artikuluan, herri Administrazioaren zerbitzura ari den edozein organismo, funtzionario, zuzendari edo pertsonak Arartekoaren ikerketa lanaren aurrean jarrera ezkorra edo oztopatzailea erakusten tematzekotan, txosten berezia egin ahal izango da, urteko txostenean dagokion atalean aipatzeaz gain.

Izan ere, kapitulu hau urteko txosten honetan sartu badugu, Legebiltzarrak eta, hedapenez, iritzi publikoak oro har Arartekoari zintzoki lagundu ez dioten, Arartekoaren esku hartzea eragotzi edo atzeratu duten eta herritarrek jarritako kexak behar den epearen barruan ebatzi ahal izatea eragin duten kargudunak edo funtzionarioak nortzuk izan diren jakin dezaten izan da.

Are gehiago, kontroleko erakunde hauei lagundu behar horrek lege antolamenduan hain garrantzi handia hartzen du, non ez betetzeak ondorio penala ere baduen. Izan ere, lankidetzarik edo laguntzarik ez ematea Estatuko Erakundeen eta Botere Banaketaren aurkako delitu gisa aurreikusita dago Zigor Kodearen 502.2 artikuluan, eta *“Autonomia Erkidegoko Ararteko, Kontu Epaitegi edo antzeko erakundeen ikerketa oztopatzen duten agintari edo funtzionarioei eskatzen zaizkien txostenak bidaltzera ukatzen direlako edo bidaltzea besterik gabe atzeratzen dutelako, edo ikerketarako beharrezkoak diren administrazioko espediente edo dokumentazioak eskuratzea eragozten dietelako”* enplegu edo ardura publikotik sei hilabetetik bi urterako etenaren zigorra ezar lekieke.

Ikusten denez, mota diseinatzeko orduan lehenago aipatu ditugun bi aldagaiak hartzen dira kontuan, multzoan, lankidetzaren betebehar hori betetzen dutenak, alegia, zorrozki betetzea eta epe jakin batean egin beharra.

Aurreratu dugun bezala, kapitulu honen helburua administrazioek eta erakundeek nola jardun duten islatzea da ordenamendu juridikoak ezartzen dien laguntza-betebeharrari dagokionez.

2007. urtean erabili genuen sistema berari jarraiki, ondoren aipatzen diren datuetan Arartekoak tartean diren instituzioei dagokienez garatu dituen kudeaketa-lanak jasotzen dira; horrela, helarazi zaien informazio eskaeraren inguruko erantzunik eman ez denean edo hori berandu heldu denean nahiz gomendioak betetzeari eta legezketasuna gogorarazteari dagokienez isilik geratu direnean, erakunde eskubide-bermatzaile honi laguntzeko betebeharrak egoki bete behar dutela ohartarazi eta gogorazati die.

Aipatu beharrekoa da, errekerimendu horiek egitean, Arartekoak ez duela automatikoki jarduten. Laguntzeko betebeharrak gogorarazteko eginkizuna zuhurtziaz egiten da, administrazio kudeaketan eragina duten aldagaiak kontuan hartuta eta kexa aurkeztu duten pertsonen erantzun eraginkorra eta azkarra emateko helburuarekin. Nahitaezko arreta eskatzen duten inguruabarren artean, honakoak azpimarra daitezke: informazio eskaeraren xede den arazoaren izaera materiala; eskaeraren hartzaile den organoak duen burokrazi eta administrazio egituraren konplexutasuna; bideratu beharreko prozeduren behin-behineko metaketa; kontrolpean dauden erakundeen eraketari aplikatzen zaizkion denbora-aldagaiak, hauteskudeen ondorioz edota arduradun eta funtzionarioak txandatu eta/edo ordeztearen ondorioz; etab.

Baina, guztia gorabehera, kasu batzuetan ardura-falta antzematen da eta horrek erakunde honen kontrol lanarekiko eta, beraz, kexagileen eskubideekiko errespetu falta adierazten du.

2008an, Hondarribiko alkateari ohartarazpen bat egin zaio. Azkenean eman digute eskatutako informazioa, baina salatu beharra daukagu laguntza falta horrek egiaz oztopatu duela erakunde honek egoki esku hartzea.

* * *

Jarraian, uste dugu hainbat kontu ere argitu behar ditugula, jarraian sartuko diren zerrendetan bildutako datuak hobeto ulertu ahal izateko:

- * Lehenengo zerrendan, gure kontrolaren mende jarri diren eta izapideetan gutxienez informazio eskari bat eta, izatekotan, agindei bat egin behar izan zaien erakunde edo organismo desberdinetan izapidetutako espedienteak guztira jaso dira. Zerrenda honetan gomendioak betetzeaz eskatutako informazioak eta luzatutako agindeiak ere sartuta daude. Hona hemen zutabe bakoitzean zer informazio islatzen den:

- (1) zenbat espedientetan egin den 2008. urtean informazio eskariren bat.
- (2) 2008an informazioa eskatu deneko espedienteetatik zenbatetan egin den agindeia.
- (3) agindeia egin zaien espedienteen portzentajea, 2008an informazio eskaririk egin zaieneko gutzirako espedienteen aldean.
- (4) 2008an agindeirik zenbat espedienteri egin zaion, aurreko urteetan egindako informazio eskariei buruzkoak izanik.

- * Bigarren zerrendan xehetasunez islatzen dira, banan-banan, bideratzeko azaldu dizkiguten jarduerak burutu dituzten organo edo erakundeei agindeia helarazi behar izan zaieneko espedienteak, bai ohiko informazioei dagokionez bai gomendioak betetzeari dagokionez.
 - Zenbakiaren ondoan izartxoak duten espedienteak aurreko urteetan izapidetzen hasitako eta 2008an, izapidetzen jarraitzen zutenez, agindeiak egin behar izan zaizkienak dira.
 - Azkeneko zutabearen islatzen den datua, informazioa oraindik jaso gabe dagoen ala jasota dagoen dioena, muga data 2008ko abenduaren 31 zelarik sartu da. Ezer adierazten ez bada, gaiak eragindako beste administrazio batzuen laguntzari esker konpondutako espedienteak dira, edota bat-batean geldiarazitako espedienteak, arrazoi ezberdinengatik (kexari uko egiteagatik, epaileak esku hartu duelako, e.a.)
 - Era berean, komeni da nabarmentzea behin baino gehiagotan aipatzen diren espedienteak informazio-eskaera bat baino gehiago eragin dutenak direla. Egindako eskaera bakoitzeko zenbat agindei egin behar izan diren erakusteko agerrarazten dira horrela.
- * Hirugarren zerrendan, ohartarazpena egitera behartu gaituzten espediente guztiak jaso dira, zehatz-mehatz.

2. ARARTEKOAK 2008. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKAEREI ETA AGINDEIEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA

A) Eusko Jaurlaritza

	(1)	(2)	(3)	(4)
Saila	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	1	-	-	-
Kultura	3	-	-	-
EITB	3	-	-	-
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	72	42	45,65	12
Uniquial	1	-	-	-
Ogasun eta Herri Administrazioa	8	2	25	-
IVAP – Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea	2	-	-	-
Industria, Merkataritza eta Turismoa	5	1	20	-
Herrizaingoa	41	9	21,95	-
Terrorismoko Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza	1	-	-	-
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza	16	-	-	1
Doako Laguntza Juridiko Batzordea	1	-	-	-
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	11	1	9,09	-
Uraren Euskal Agentzia	2	-	-	-
Osasuna	29	1	3,44	-
Osakidetza	53	3	5,66	-
Garraio eta Herri Lanak	3	1	33,33	-
Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos	1	-	-	-
Lehendakariordetza	1	-	-	-
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	56	19	33,92	8

B) Foru aldundiak

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Arabako Foru Aldundia				
Foru Administrazioa	2	1	50	-
Toki Administrazioa eta Lurralde Oreka	1	1	100	-
Nekazaritza	1	-	-	-
Diputatu Nagusia	1	-	-	-
Euskara, Kultura eta Kirola	3	1	33,33	-
Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak	1	-	-	-
Herrilanak eta Garraioak	1	-	-	1
Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuak	15	10	66,66	1

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Bizkaiko Foru Aldundia				
Gizarte Ekintza	15	-	-	-
Nekazaritza	4	-	-	-
Kultura	1	-	-	-
Lana eta Trebakuntza	1	1	100	-
Ogasun eta Finantzak	11	4	36,36	1
Herri Lanak	6	-	-	-
Garraioak eta Hirigintza	3	1	33,33	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Gipuzkoako Foru Aldundia				
Kultura eta Euskara	1	-	-	-
Landa Ingurunearen Garapena	2	-	-	-
Diputatu Nagusia	1	-	-	-
Ogasun eta Finantzak	4	-	-	-
Bide Azpiegiturak	6	1	16,67	-
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	3	-	-	-
Gizarte Politika	11	-	-	-
Lehendakaritza eta Foru Administrazioa	3	1	33,33	-

C) Udalak

- Arabako Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Arabako udalak				
Alegria-Dulantzi	1	1	100	-
Amurrio	4	-	-	-
Añana	1	-	-	-
Aramaio	2	1	50	-
Armiñón	2	2	100	-
Arraia-Maeztu	2	2	100	-
Arazua-Ubarrundia	4	-	-	-
Artziniega	4	1	25	1
Asparrena	2	1	50	-
Ayala / Aiara	2	2	100	-
Baños de Ebro / Mañueta	1	-	-	-
Barrundia	1	-	-	-
Berantevilla	2	2	100	-
Bernedo	1	1	100	-
Campezo / Kanpezu	3	-	-	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
Arabako udalak	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Elburgo / Burgelu	1	-	-	-
Elciego	1	-	-	-
Elvillar / Bilar	1	-	-	-
Harana / Valle de Arana	1	-	-	-
Iruña Oka / Iruña de Oca	2	2	100	2
Iruraiz Gauna	1	-	-	-
Kripan	1	-	-	-
Kuartango	1	-	-	-
Labastida	1	1	100	-
Lagrán	1	-	-	-
Laguardia	2	2	100	-
Lanciego / Lantziego	1	-	-	-
Lantarón	1	1	100	-
Lapuebla de Labarca	1	1	100	-
Legutiano	1	1	100	-
Leza	1	1	100	-
Llodio	9	-	-	18
Moreda de Álava	1	-	-	-
Navaridas	2	1	50	-
Okondo	2	-	-	-
Oyón / Oion	1	1	100	-
Peñacerrada – Urizarra	1	1	100	-
Ribera Alta	1	-	-	-
Ribera Baja / Erribera Beitia	1	-	-	-
Salvatierra / Agurain	1	-	-	-
Samaniego	1	-	-	-
San Millán / Donemiliaga	1	-	-	-
Urkabustaiz	2	1	50	-
Valdegovía	1	-	-	-
Villabuena de Álava / Eskuernaga	1	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	59	14	23,73	3
Yécora	1	-	-	-
Zalduondo	1	1	100	-
Zambrana	1	1	100	-
Zigoitia	3	2	66,67	-
Zuia	1	-	-	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Arabako administrazio batzarrak				
Aretxabaleta	1	1	100	-
Legutiano	1	-	-	-
Puentelarrá	1	-	-	-
Ullibarri-Gamboa	1	-	-	-
Ullibarri-Jauregui	1	-	-	-

- Bizkaiko Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Bizkaiko udalak				
Abadiño	2	-	-	-
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	1	-	-	-
Ajangiz	1	-	-	-
Alonsotegi	3	1	33,33	-
Amorebieta-Etxano	2	1	50	-
Amoroto	1	1	100	-
Arakaldo	1	1	100	-
Arantzazu	1	1	100	-
Artzentales	2	1	50	-
Areatza	1	-	-	-
Arrankudiaga	1	1	100	-
Arratzu	1	-	-	-
Arrieta	1	-	-	-
Arrigorriaga	3	-	-	-
Alonsotegi	2	-	-	-
Artea	1	1	100	-
Atxondo	1	-	-	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
Bizkaiko udalak	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Aulesti	2	2	100	-
Bakio	2	-	-	1
Balmaseda	2	1	50	-
Barakaldo	18	3	16,67	-
Barrika	2	1	50	-
Basauri	8	1	12,50	-
Bedia	1	-	-	-
Berango	2	1	50	-
Bermeo	5	-	-	-
Berriatua	1	1	100	-
Berriz	2	1	50	-
Bilbao	60	1	1,67	-
Busturia	1	-	-	-
Carranza	1	1	100	-
Derio	4	2	50	-
Dima	3	-	-	1
Durango	2	-	-	-
Ea	1	-	-	-
Elantxobe	1	1	100	-
Elorrio	2	1	50	-
Erandio	6	1	16,67	1
Ermua	3	-	-	-
Errigoiti	1	-	-	-
Etxebarri	2	-	-	-
Etxebarria	1	1	100	-
Forua	1	1	100	-
Fruiz	1	-	-	-
Galdakao	7	2	28,57	-
Galdames	3	2	66,67	-
Gamiz-Fika	2	2	100	-
Garay	1	1	100	-
Gatika	1	1	100	-
Gautegiz Arteaga	2	-	-	1
Gernika-Lumo	1	-	-	-
Getxo	9	3	33,33	1

	(1)	(2)	(3)	(4)
Bizkaiko udalak	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Gordexola	2	1	50	-
Gorliz	3	-	-	-
Güeñes	3	-	-	-
Gizaburuaga	1	1	100	-
Ibarrangelu	1	1	100	-
Igorre	2	-	-	-
Ispaster	2	1	50	-
Iurreta	1	1	100	-
Izurtza	2	1	50	-
Kortezubi	1	1	100	-
Lanestosa	1	1	100	-
Larrabetzu	3	-	-	-
Laukiz	2	1	50	-
Leioa	2	-	-	-
Lekeitio	3	1	33,33	-
Lemoa	1	1	100	-
Lemoiz	2	1	50	-
Lezama	4	-	-	-
Loiu	2	-	-	-
Mañaria	2	1	50	-
Markina-Xemein	1	1	100	-
Maruri-Jatabe	3	1	33,33	-
Mendata	1	1	100	-
Mendexa	2	1	50	-
Meñaka	2	2	100	-
Morga	1	1	100	-
Mundaka	2	-	-	1
Mungia	6	3	50	-
Munitibar-Arbatzegi Gerrickaitz	1	1	100	-
Murueta	1	1	100	-
Muskiz	2	1	50	-
Muxika	2	2	100	-
Nabarniz	1	-	-	-
Ondarroa	4	1	25	-
Orduña	5	1	20	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
Bizkaiko udalak	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Orozko	3	1	33,33	-
Ortuella	3	3	100	-
Otxandio	1	1	100	-
Plentzia	6	2	33,33	-
Portugalete	18	5	27,78	1
Santurtzi	10	1	10	-
Sestao	10	2	20	-
Sondika	2	1	50	-
Sopelana	2	1	50	-
Sopuerta	1	-	-	-
Sukarrieta	1	-	-	-
Trucios-Turtzioz	1	-	-	-
Ubide	1	1	100	-
Ugao-Miraballes	1	-	-	-
Urduliz	1	-	-	-
Valle de Trápaga-Trapagaran	2	-	-	-
Zaldibar	3	-	-	-
Zalla	2	-	-	-
Zamudio	1	-	-	-
Zaratamo	3	2	66,67	-
Zeanuri	1	1	100	-
Zeberio	1	1	100	-
Zierbena	4	2	50	-
Ziortza-Bolibar	1	1	100	-

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Gipuzkoako udalak				
Abaltzisketa	1	1	100	-
Aduna	1	1	100	-
Aia	1	-	-	-
Aizarnabal	1	1	100	-
Albiztur	1	-	-	-
Alegia	1	1	100	-
Alkiza	1	1	100	-
Altzaga	1	-	-	-
Altzo	1	-	-	-
Amezketeta	1	-	-	-
Andoain	4	2	50	-
Anoeta	2	-	-	1
Aretxabaleta	2	1	50	-
Arrasate / Mondragón	3	-	-	-
Asteasu	1	1	100	-
Astigarraga	1	-	-	-
Ataun	2	1	50	-
Azkoitia	1	-	-	-
Azpeitia	3	1	33,33	-
Baliarrain	1	1	100	-
Beasain	4	-	-	-
Beizama	1	1	100	-
Belauntza	2	1	50	-
Berastegi	1	-	-	-
Bergara	9	2	22,22	-
Berrobi	1	1	100	-
Bidegoian	1	1	100	-
Deba	3	1	33,33	-
Donostia-San Sebastián	34	5	14,71	1
Eibar	2	1	50	-
Elduain	1	1	100	-
Elgeta	1	-	-	-
Elgoibar	3	2	66,67	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
Gipuzkoako udalak	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Errenteria	11	1	9,09	1
Errezil	1	1	100	-
Eskoriatza	1	-	-	-
Ezkio-Itsaso	1	1	100	-
Gabiria	3	1	33,33	-
Gaintza	1	1	100	-
Gaztelu	1	1	100	-
Getaria	2	-	-	-
Hernani	6	-	-	-
Hernalde	1	-	-	-
Hondarribia	6	1	16,67	-
Ibarra	5	2	40	-
Idiazabal	2	-	-	-
Ikaztegieta	1	1	100	-
Irun	11	1	9,08	1
Irura	1	-	-	-
Itsasondo	2	-	-	-
Larraul	1	1	100	-
Lasarte-Oria	4	1	25	1
Lazkao	2	2	100	-
Leaburu	1	1	100	-
Legazpi	1	-	-	-
Legorreta	1	-	-	-
Leintz-Gatzaga	1	1	100	-
Lezo	4	-	-	-
Lizartza	1	1	100	-
Mendaro	1	1	100	-
Mutiloa	1	1	100	-
Mutriku	2	-	-	-
Oiartzun	1	1	100	-
Olaberria	2	2	100	-
Oñati	2	-	-	-
Ordizia	2	-	-	-
Orendain	1	1	100	-
Orexa	1	1	100	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Gipuzkoako udalak				
Orio	1	-	-	-
Ormaiztegi	1	1	100	-
Pasaia	8	4	50	-
Segura	1	1	100	-
Soraluze-Placencia de las Armas	1	1	100	-
Tolosa	5	1	20	-
Urnieta	1	1	100	-
Urretxu	1	-	-	-
Usurbil	4	2	50	-
Villabona	1	1	100	-
Zaldibia	2	2	100	-
Zarautz	6	-	-	-
Zegama	1	-	-	-
Zerain	1	1	100	-
Zestoa	2	1	50	-
Zizurkil	4	2	50	-
Zumaia	2	1	50	-
Zumarraga	4	2	50	-

D) Beste erakunde publiko batzuk

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2008ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	1	-	-	-
Bidegi	1	-	-	-
Bilbao Exhibition Centre	1	-	-	-
Bizkaiko Abokatuen Elkargoa	1	-	-	-
Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa	1	1	100	-
Bizkaiko Psikologoaren Elkargoa	-	-	-	1
Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua	1	-	-	-
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa	2	2	100	-
Arabako Errioxako Ur Partzuergoa	1	-	-	-
Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola Fundazioa	1	-	-	-
Haurreskolak	5	1	20	-
Mebisa-Bilboko Metroa	3	1	33,33	-
Txingudiko Zerbitzuak	1	-	-	-
Euskol Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia	1	-	-	-
Euskal Herriko Unibertsitatea	19	11	57,89	-

3. ARARTEKOAK 2008. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN AGINDEIEN ZERRENDA

A) Eusko Jaurlaritza

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	39/2007/090F*	Sasoikako langileen egoera Araban	2008/03/04	J
	47/2007/090F*	Hezkuntza premia bereziei buruzko txostenaren bilakaera aztertzea	2008/03/04	JG
	1279/2007/20*	Aintzat hartu gabeko hezkuntza-premia bereziak	2008/01/30	J
	1327/2007/20*	Seme-alabak zaintzeko eszedentzia ukatzea	2008/01/10	J
	1341/2007/20*	Erlijio eta ebanjelio heziketako eskola eman dadin eskatu da	2008/01/16	J
	1412/2007/20*	Oker egindako ordainketen itzulketa kudeatzea	2008/01/10	J
	1413/2007/20*	Senitartekoen heriotzagatiko baimena kudeatzea	2008/01/10	J
	1438/2007/20*	Hezkuntza-laguntzako espezialista bat behar da	2008/01/10	J
	1465/2007/20*	Ezkutuko ikastoletan burututako jarduera onartzea	2008/01/16	J
	1474/2007/20*	Eskola-garraioa. Zaintzaileen hizkuntza trebakuntza	2008/01/15	J
	1500/2007/20*	Eskolako jantokia kudeatzea	2008/01/30	J
	1502/2007/20*	Beka ukatzea	2008/01/30	J
	1286/2005/20	Laneko jazarpen morala	2008/09/12	J
	48/2007/090F	Ikastetxeetako bizikidetasunari eta gatazkei buruzko txostenaren bilakaera aztertzea	2008/06/16	JG
	686/2007/20	Gezurrezko erroldatzea, zonagatik ez dagokion ikastetxe batean sartzeko	2008/03/13	J
	951/2007/20	Eskolak ezezkua eman dio gluzemia kontrolak egiteari	2008/02/19	J
	1157/2007/20	Eskola-garraioa ukatzea	2008/06/17	-
	1205/2007/20	Eskola-garraioaren zerbitzuetan baja eman diotela jakinarazi zaio ikasle bati	2008/05/14	J
	1205/2007/20	Eskola-garraioaren zerbitzuetan baja eman diotela jakinarazi zaio ikasle bati	2008/09/02	JG
	1279/2007/20	Aintzat hartu gabeko hezkuntza-premia bereziak	2008/05/14	J
	1341/2007/20	Erlijio eta ebanjelio heziketako eskola eman dadin eskatu da	2008/05/06	J
	1474/2007/20	Eskola-garraioa. Zaintzaileen hizkuntza trebakuntza	2008/06/17	J
	1474/2007/20	Eskola-garraioa. Zaintzaileen hizkuntza trebakuntza	2008/09/02	J
	1502/2007/20	Beka ukatzea	2008/03/13	J
	1527/2007/20	Lekualdatze-lehiaketa batean esleitutako destinoa ezeztatzea	2008/02/12	J
	4/2008/090F	Eraso baten ondorioz, adingabe batzuen datuak jakinaraztea	2008/04/07	JG

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	103/2008/20	EHAako lizentziaturen zerrendan ez dagoen lizentziatura	2008/03/04	J
	103/2008/20	EHAako lizentziaturen zerrendan ez dagoen lizentziatura	2008/05/28	JG
	116/2008/20	Eskola-garraioaren zerbitzutik kanpo uztea	2008/05/28	J
	158/2008/20	Ikasle bati egindako erasoaren salaketa, ustez faltsua	2008/03/13	J
	172/2008/20	Administrazioaren isiltasuna	2008/05/06	J
	318/2008/20	Ghettoak sortzea. Ramón Bajo ikastetxe publikoa	2008/05/28	JG
	338/2008/20	Ikasle bati buruzko erabaki desegokiak	2008/04/23	J
	338/2008/20	Ikasle bati buruzko erabaki desegokiak	2008/07/04	J
	365/2008/20	Irakasleen kidegoetan sartzeko aukeraketa-prozesua	2008/05/06	-
	441/2008/20	Eskola-garraioa	2008/05/22	J
	462/2008/20	Eskolako jazarpena	2008/05/22	J
	463/2008/20	Eskolako jazarpena	2008/05/22	J
	502/2008/25	Eskolako jantokian ez dute ordezkotzatzen elikadura arazoak dituzten haurrentzat	2008/06/23	J
	671/2008/20	Irregularitasunak erroldan, ez dagokien ikastetxe batean matrikulatzeko	2008/07/09	J
	721/2008/20	Ikastetxean ez dute onartu eskaera	2008/07/09	J
	730/2008/20	Ikastetxe batean ikasgela banatzeko eskaera	2008/07/09	J
	813/2008/20	Eskolatze-maila ez dator bat adingabe baten benetako adinarekin	2008/09/02	J
	845/2008/25	Eskola-garraioa	2008/09/09	J
	870/2008/20	Eskola-garraioa	2008/09/02	J
	871/2008/20	Irakasleek ez dute egonkortasunik	2008/09/02	J
	896/2008/20	Bigarren hezkuntzako irakasleentzako lekualdatze-lehiaketa	2008/09/02	J
	912/2008/20	Eskola-garraioa	2008/09/02	J
	914/2008/20	Hezkuntza-premia bereziak	2008/09/02	J
	948/2008/20	4 HE egiaztatzea	2008/10/28	J
	952/2008/25	Batxilergoko ikasleentzako eskola-garraioa	2008/09/09	J
	993/2008/25	Eskolatze arazoak bizileku berria dagoen zonan	2008/09/09	J
	1008/2008/25	Urrutiko batxilergoa euskaraz ezin ikasi	2008/09/09	J
	1039/2008/20	Testuliburuak kudeatzeko planarekin ados ez egotea	2008/09/10	J
	1082/2008/20	Ikasleak onartzea	2008/10/02	J
	1112/2008/20	Administrazioaren isiltasuna	2008/10/22	J
1174/2008/20	Hizkuntza-eredu bat eskatzea	2008/10/28	J	
1180/2008/20	Eskola-garraioa	2008/10/28	J	
IVAP	280/2008/20	Ordezkapenatarako lan-poltsa kudeatzea	2008/09/24	J
	1275/2008/20	Lekualdatze-lehiaketa EAEko administrazio orokorrean	2008/11/05	J

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Industria, Merkataritza eta Turismoa	731/2008/22	Ez dago sailaren jarduerarekin ados, kontsumo arloko erreklamazio batean	2008/09/01	J
Herrizaingoa	278/2006/32	Bere buruari kalte egiteko arriskua zuen pertsona batek bere burua hil zuen, ospitalean Ertzaintzaren zaintzapean zegoela	2008/06/03	J
	953/2006/20	Laneko jazarpena salatu du	2008/04/09	J
	1354/2007/19	Ertzaintzak gazte talde bati emandako tratua	2008/10/02	J
	1495/2007/19	Polizien uniformeetan lanbide identifikazioko zenbakia agertzea	2008/04/07	J
	16/2008/190F	Koordinazio-akatsak 2008ko ekaineko uholdeek eragindako larrialdia kudeatzean	2008/08/29	J
	209/2008/20	Bereizkeriazko tratua emakume ertzain bati	2008/04/03	J
	209/2008/20	Bereizkeriazko tratua emakume ertzain bati	2008/05/28	J
	217/2008/18	Ertzain batek ez du bete tabakoaren kontrako legea	2008/07/14	J
	217/2008/18	Ertzain batek ez du bete tabakoaren kontrako legea	2008/10/08	J
	642/2008/18	Deustuko ertzain-etxean euskaraz arreta ematea	2008/09/05	J
	984/2008/18	Ertzaintzaren esku-hartzea buru-gaixoak derrigorrez ingratsatzean	2008/11/28	JG
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	23/2007/310F*	Adin txikiko bat aberriratzeko prozedura ustez ez da zuzena	2008/07/31	J
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	1/2008/170F	Osasunarentzat arriskua zabortege bat ikastetxearen ondoan dagoelako	2008/04/10	J
Osasuna	270/2008/170F	Elikadura arazoez arduratzea	2008/12/16	J
Osakidetza	1539/2007/18	Medikuaren laguntzarik ez Osakidetzan	2008/02/28	J
	7/2008/180F	Txagorritxuko errehabilitazioko igerilekuan ura eguneroko aldatzea	2008/12/16	JG
	18/2008/180F	Historia klinikoa eskuratzeko prozedura	2008/12/03	J
Garraio eta Herri Lanak	435/2008/29	Errenteria-Hendaiako topoaren ibilbidearen kontra	2008/05/19	J
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	458/2006/17*	Etxebizitza egokituen gaineko balorazio teknikoa	2008/01/22	J
	1299/2006/34*	Ezinduentzako etxebizitzak	2008/01/18	J
	1423/2006/34*	Etxebizitza bat alokairuan esleitzea	2008/03/26	J
	1523/2006/34*	BOEtan antzemandako eraikuntza akatsak	2008/01/31	J
	313/2007/34*	Gizarte-alokairuetako baldintzekin konforme ez Legazpin	2008/03/11	J
	1319/2007/34*	Ez dago ados etxebizitza babestua errentan hartua duten pertsonen BOE bat jabetza erregimenean esleitzeke irizpidearekin	2008/03/26	J

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia ren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	1418/2007/34*	BOEetan antzemandako eraikuntza akatsak	2008/03/26	J
	1440/2007/34*	BOEetan antzemandako eraikuntza akatsak	2008/03/26	J
	1180/2006/18	Hainbat toki publikotan ez da bete tabakoaren kontrako legea	2008/11/07	J
	1096/2007/34	Akatsak alokairuko etxebizitzetan	2008/05/22	JG
	243/2007/34	BOE ematerakoan izandako atzerapena	2008/10/07	J
	142/2008/34	BOE bat behar du familia-erantzukizunak dituen dibortziatu batek	2008/05/22	J
	142/2008/34	BOE bat behar du familia-erantzukizunak dituen dibortziatu batek	2008/09/16	J
	454/2008/34	Akatsak etxebizitza babestuetan	2008/09/16	J
	569/2008/34	Alokairuko BOE bat eta arazoak maizterekin	2008/09/02	J
	593/2008/34	Etxebizitzarik ez BOE bat eskuratzeko	2008/09/02	J
	711/2008/34	Ez dago konforme Etxebiden diru-sarrerak zenbatzeko moduarekin	2008/09/16	J
	744/2008/34	BOE bat eskuratzeko araubidea aldatzea	2008/09/02	J
	773/2008/34	Etxebizitza eskuratzea, etxe hutsen programa	2008/09/16	JG
	799/2008/31	Presako familia-laguntza	2008/08/13	JG
	818/2008/34	Zigorra BOEei buruzko legeria hausteagatik	2008/09/16	J
	835/2008/34	Babes ofizialeko etxebizitza baten errenta oker eguneratu da	2008/12/17	JG
	863/2008/34	Akatsak etxebizitza egokitu batean	2008/09/16	J
	886/2008/34	BOE baten beharra	2008/09/16	J
	955/2008/34	Bizigune. Akatsak alokairuko etxebizitzan	2008/10/07	JG
	963/2008/34	Akatsak babes ofizialeko etxebizitza batean	2008/10/07	J
1005/2008/34	Etxebizitza berritzatzeko laguntzak eskatzea	2008/10/07	J	
1218/2008/34	Informazio desberdina alokairu erregimeneko BOE bati uko egiteko aukeraren gainean	2008/12/17	J	

B) Foru aldundiak

- Arabako Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Foru Administrazioa	519/2008/33	Titulazio jakin bat ez da onartu LEPerako	2008/06/19	J
Toki Administrazioa eta Lurralde Oreak	1361/2007/16	Ezintasunagatik TMIZ ordaintzetik sabuestea	2008/06/16	J
Euskara, Kultura eta Kirola	1150/2008/20	Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola Fundazioa	2008/12/17	JG
Herrilanak eta Garraioak	1436/2006/20*	Eskola-garraioa	2008/06/11	JG
Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuak	454/2006/17*	Irisgarritasuna	2008/01/22	J
	454/2006/17	Irisgarritasuna	2008/10/29	JG
	748/2007/31	Haurrentzako zerbitzuak harrera-zentro batera eraman du beraren alaba	2008/05/06	J
	1362/2007/20	Lan poltsen kudeaketan ustez izan diren irregulartasunak	2008/10/27	J
	6/2008/310F	Arazoak bakarrik dauden adingabe atzerritarren dokumentatze-prozesuan	2008/06/05	JG
	940/2008/31	Gizarte egoera larria eta etxebizitzaren beharra	2008/10/27	J
	375/2008/33	Ukatu egin diote sektore publikoan zerbitzuak egiteko borondatezko eszedentzia	2008/06/19	J
	527/2008/31	Pertsona adintsu bati laguntzea	2008/10/02	J
	606/2008/01	Ariznabarra egoitzaren egoera	2008/07/09	J
	790/2008/31	Ukatu egin diote ohe artikulatua erosteko laguntza	2008/10/02	J
1088/2008/33	Aldundiaren funtzionario batek ez du kotizatu Gizarte Segurantzaz	2008/10/03	J	

- Bizkaiko Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Lana eta Trebakuntza	281/2008/22	Langile bat kontratatzeagatik ematen den laguntza ukatzea	2008/06/10	J
Ogasuna eta Finantzak	1360/2007/16*	Oker egindako jakinarazpena	2008/02/22	J
	137/2008/16	Balio katastrala berriz aztertzea eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzea	2008/05/16	J
	137/2008/16	Balio katastrala berriz aztertzea eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzea	2008/11/18	J
	1143/2008/16	Administrazioaren isiltasuna	2008/10/29	J
	1226/2008/16	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga neurritz gain igotzea	2008/12/03	J
	1231/2008/16	PFEZn nola tratatzen den ezintasun iraunkorra	2008/11/18	JG
Garraioak eta Hirigintza	1315/2007/25	Ondare erantzukizuna	2008/04/11	J

- Gipuzkoako Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Bide Azpiegiturak	414/2008/29	Desjabetzeko jarduera. Zumaiaiko saihesbidea	2008/07/24	J
Lehendakarietzako eta Foru Administrazioak	1073/2008/20	Aukeraketa-prozesu bati buruzko epaia betearaztea	2008/10/02	J

C) Udalak

- Arabako Lurralde Historikoa

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia ren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Alegría – Dulantzi	62/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Aramaio	266/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonek errolatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	JG
Armiñón	21/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
	468/2008/29	Enpresa bati ez diote faktura ordaindu	2008/06/30	J
Arraia-Maeztu	44/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
	1298/2007/17	Osasunaren kalterako abeltzaintza jarduera	2008/10/29	JG
Artziniega	1478/2007/29*	Lursail publikoa hartzea	2008/02/07	J
	1153/2008/29	Argiak jartzeko eta hondakinak kentzeko eskaera	2008/11/19	J
Asparrena	60/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Ayala/Aiara	65/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
	475/2008/17	Kaleko obra batek ez du betetzen irisgarritasuna sustatzeko legea	2008/10/29	J
Berantevilla	37/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
	303/2008/34	Etxebizitza libre tasatuak emateko atzerapena	2008/07/24	J
Bernedo	40/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Iruña Oka / Iruña de Oca	176/2007/23*	Ibilgailuentzako sarbiderik ez duen eraikuntza	2008/01/30	JG
	1361/2007/16*	Ezintasunagatik TMIZ odaintzetik salbuestea	2008/02/21	J
	63/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
	1361/2007/16	Ezintasunagatik TMIZ odaintzetik salbuestea	2008/10/14	JG
Labastida	56/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Laguardia	57/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
	760/2008/20	Eskolatzea eta errolatzea	2008/07/24	JG
Lantarón	49/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Lapuebla de Labarca	47/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Legutiano	59/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Leza	26/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Llodio	1173/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1174/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1176/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1177/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1178/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1179/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1180/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	JG

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia ren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Llodio	1181/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1182/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1183/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1185/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	JG
	1186/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1187/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1188/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	JG
	1189/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1190/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1193/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
	1198/2007/17*	Irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea	2008/01/22	J
Navaridas	25/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Oyón / Oion	66/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Peñacerrada- Urizaharra	27/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Salvatierra- Agurain	1381/2007/22*	Administrazioaren isiltasuna	2008/01/21	J
Urkabustaiz	588/2008/28	Herri-bidetik zuzenean heltzen dira zaratak eta usainak	2008/11/18	JG
Vitoria-Gasteiz	789/2007/34*	Legez kontrako alokairua prezio tasatuko etxebizitza batean	2008/02/28	J
	1260/2007/19*	Trafikoko zigorra	2008/02/14	J
	1437/2007/29*	Gamarrako kirol parkea biziberritzeko proiektua	2008/01/30	J
	1014/2007/31	Atzerritarren Identifikazio Zenbakia berritzea	2008/11/07	J
	146/2008/16	Errekargua uraren ordainagirian	2008/04/07	J
	157/2008/31	Erroldatzea ukatzea	2008/04/29	J
	238/2008/31	Erroldatzearen atzeraeragina onartzeko eskaera	2008/05/06	J
	269/2008/310F	Erroldan izena emateko zailtasunak dituzte Arabako Foru Aldundiaren tutoretzapeko adingabe atzerritarrek	2008/11/05	J
	301/2008/31	Etorkin atzerritarrek erroldatzea	2008/06/24	J
	301/2008/31	Etorkin atzerritarrek erroldatzea	2008/11/07	J
	323/2008/25	Ondare erantzukizuna	2008/05/06	J
	328/2008/01	Ez diote gizarte-langilearekin hitz egiten utzi	2008/10/09	J
	397/2008/29	Herritarrek osoko bilkurarako sarbidea izatea	2008/10/02	J
	403/2008/29	Ez dago udalaren obren gaineko informaziorik	2008/06/30	J
	528/2008/23	Hitzarmena ustez ez betetzea	2008/07/10	J
	573/2008/29	Hilerrri musulmana eskatzea	2008/07/24	JG
	688/2008/31	Casa Abierta. Ordu-tegi-arazoak ditu desintoxikazio prozesuan dagoen pertsona batek	2008/10/02	JG
	1150/2008/20	Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola Fundazioa	2008/10/22	JG

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Zalduondo	20/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Zambrana	36/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Zigoitia	55/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
	656/2008/23	Zakur arriskutsuak aske dabilta	2008/07/10	J

Administrazio batzarrak

Batzarra	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Aretxabaleta	403/2008/29	Ez dago udalaren obren gaineko informaziorik	2008/06/30	-

- Bizkaiko Lurralde Historikoa

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Alonsotegi	134/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Amorebieta- Etxano	243/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	JG
Amoroto	85/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Akakaldo	69/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Arantzazu	78/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Artzentales	99/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Arrankudiaga	102/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Artea	100/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Aulesti	98/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
	559/2008/23	Zuhaitzak moztea	2008/07/10	J
Bakio	78/2007/29*	Arazoak arazketa-sistema baten funtzionamendua dela eta	2008/05/14	J
Balmaseda	153/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Barakaldo	2/2008/170F	Haur eskola batean sartzeko arazoak	2008/04/10	J
	249/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	J
	1243/2008/28	Hiri lurreen sailkatutako jarduerak	2008/04/16	JG
Barrika	121/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Basauri	449/2008/25	Ondare erantzukizuna	2008/06/23	J
Berango	1098/2008/29	Administrazioaren isiltasuna	2008/10/21	J

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia ren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Berriatua	115/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Berriz	147/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Bilbao	42/2008/01	Adinekoentzako zentro baten jarduera	2008/12/17	JG
Carranza	136/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Derio	149/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
	1500/2008/20	Lantokian benetan lanean ez jardutea	2008/12/17	JG
Dima	1486/2006/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/02/12	J
Elantxobe	90/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Elorrio	154/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Erandio	1357/2007/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/01/30	J
	223/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/12/05	JG
Etxebarria	104/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Forua	110/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Galdakao	17/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/08/29	J
	505/2008/29	Auzo batera iristeko arazoak	2008/06/30	J
Galdames	39/2008/17	Ustezko irregulartasunak harrobi baten jardueran	2008/06/12	J
	611/2008/22	Udalaren lursail batzuei onura ateratzeko emakidari ez	2008/06/23	J
Gamiz-Fika	118/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
	246/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	J
Garay	77/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Gatika	123/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Gautegiz Arteaga	323/2007/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/02/12	J
Getxo	1350/2007/34*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/02/12	JG
	289/2008/29	Herri-bidea horma batez hartzea	2008/06/30	J
	547/2008/22	Edukiontzari batzuen kokalekua aldatzeko eskaera	2008/07/23	JG
	619/2008/23	Ez dago ados hirigintza-lizentzia bat ematearekin	2008/07/24	JG
Gordexola	124/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Gizaburuaga	70/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Ibarrangelu	95/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Ispaster	97/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Iurreta	141/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Izurza	73/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Kortezubi	86/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Lanestosa	75/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Laukiz	109/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Lekeitio	713/2008/29	Saihesbidearen kontra	2008/07/24	J
Lemoa	135/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia ren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Lemoiz	49/2008/33	Udalan langileak kontratatzea	2008/02/25	J
	49/2008/33	Udalan langileak kontratatzea	2008/10/28	J
Mallabia	114/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Mañaria	91/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Markina-Xemein	146/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Maruri-Jatabe	550/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/09/16	J
Mendata	80/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Mendexa	83/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Meñaka	96/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
	1130/2008/29	Udalak ez du esku hartzen hondatutako eraikin batean	2008/11/19	JG
Morga	88/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Mundaka	1425/2007/34*	BOE baten zozketan parte hartzeko baldintzak	2008/03/26	J
Mungia	22/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/04/11	JG
	361/2008/22	Desadostasuna bide baten titulartasunari buruz	2008/06/02	J
	536/2008/22	Ur horniduraren etenaldiak auzo batean	2008/09/01	-
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaiz	82/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Murueta	76/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Muskiz	152/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Muxika	120/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
	537/2007/22	Baseri batera iristerik ez	2008/06/11	J
Ondarroa	764/2008/23	Etxebizitza bat eraikitzeko hirigintza-proiektua	2008/07/28	J
Orduña	1273/2006/17	Gaueko zarata	2008/10/29	J
Orozko	132/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Ortuella	159/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
	91/2008/31	Erroldatzea ukatu	2008/04/29	JG
	267/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	JG
Otxandio	113/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Plentzia	140/2008/170F	Irigarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
	617/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/10/13	JG
Portugalete	1325/2007/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/02/12	J
	37/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/12/01	J
	187/2008/28	Irigarritasunari buruzko araudia ez betetzea. Gordetako aparkaleku-plazak	2008/10/27	J
	267/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	JG
	427/2008/25	Ondare erantzukizuna	2008/09/09	J
	572/2008/25	Zona bateko herri-lanek eragozpenak sortzen dituzte	2008/06/23	J

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia ren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Santurtzi	251/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	JG
Sestao	449/2004/19	Trafikoko zigorra	2008/06/25	J
	1260/2008/20	Kontratua ez berritzea	2008/12/17	JG
Sondika	145/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Sopelana	1016/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/09/24	J
Ubide	71/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Zaratamo	125/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
	424/2008/29	Egoera txarrean dagoen lokal batek eragozpenak sortzen dizkie auzokideei	2008/06/30	JG
Zeanuri	117/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Zeberio	111/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Zierbena	119/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
	145/2008/22	Ez dago ados kirol portuan atrakatzeko esleipenarekin	2008/09/01	JG
Zierbena Portua SA	145/2008/22	Ez dago ados kirol portuan atrakatzeko esleipenarekin	2008/09/01	J
Ziortza-Bolibar	87/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia ren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Abaltzisketa	175/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Aduna	180/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Aizarnabal	191/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Alegia	204/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Alkiza	178/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Andoain	5/2008/170F	Oinezkoentzako pasagunean eskailera mekanikoa jartzea	2008/06/12	JG
	261/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	J
Anoeta	1259/2007/28*	Ezinduentzako aparkaleku eskaera	2008/01/22	J
Antzuola	208/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Aretxabaleta	225/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Asteasu	201/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Ataun	203/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Azpeitia	368/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/09/16	J

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia ren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Baliarrain	163/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Beizama	170/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Belauntza	176/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Bergara	211/2008/17	Zentral hidroelektrikoa bere baitan hartzen duen eraikinean jarduerak legezatztea	2008/06/12	J
	1040/2008/29	Auzo bateko legez kontrako eraikuntzak	2008/11/19	JG
Berrobi	186/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Bidegoian	185/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Deba	220/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Donostia-San Sebastián	983/2007/29*	Osoko bilkureta joateko arazoak	2008/01/30	J
	1495/2007/19	Polizien uniformeetan lanbide identifikazioko zenbakia agertzea	2008/04/07	J
	495/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/07/14	J
	799/2008/31	Presako familia-laguntza	2008/08/13	J
	827/2008/16	Ondasun Higiezin gaineko Zerga	2008/10/29	J
	1041/2008/23	Erantzunik ez hirigintzako kontsulta bati	2008/11/13	J
Eibar	1397/2007/33	INEMekin egindako hitzarmena, hiru laguntzaile kontratatzeke	2008/02/15	J
Elduain	172/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Elgoibar	99/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/04/16	J
	828/2008/17	Abentzaintzako ustategia aire librean	2008/09/02	J
Errentería	1405/2007/33*	Obra-arduradunaren lanpostuko berariazko osagarria	2008/01/09	J
	410/2008/19	Baliteke poliziak atzerritar homosexual batekin bereizkeriaz jokatu izana	2008/06/25	J
Errezil	189/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Ezkio-Itsaso	188/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Gabiria	238/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Gaintza	164/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Gaztelu	165/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Hondarribia	264/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	J
Ibarra	570/2007/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/04/16	J
	358/2008/16	Kiroldetiko bazkidearen erreziboa itzultzeko eskaera	2008/06/16	JG
Ikaztegieta	183/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Irun	1166/2007/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/02/12	J
	1166/2007/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/06/20	J
Larraul	171/2008/170F	Irisgarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Lasarte-Oria	1167/2007/20*	Haur eskola baten funtzionamendua	2008/01/10	J
	1167/2007/20	Haur eskola baten funtzionamendua	2008/05/14	JG

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Lazkao	219/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
	263/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	JG
Leaburu	182/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Leintz-Gatzaga	174/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Lizartza	190/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Mendaro	205/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Mutiloa	169/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Mutriku	546/2007/23*	Portuko lanek etxebizitzetan eragindako kalteak	2008/01/30	J
Oiartzun	230/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Olaberria	192/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
	480/2008/29	Erroldatuaren eta bizilekua bertan duenaren legezko kontzeptua	2008/06/30	J
Orendain	168/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Orexa	162/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Ormaiztegi	198/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Pasaia	259/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	JG
	551/2008/31	Errollda	2008/07/09	J
	596/2008/31	Errollda	2008/07/11	J
	597/2008/31	Errollda	2008/07/14	J
Segura	197/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Soraluze-Placencia de las Armas	214/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Tolosa	236/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	JG
Urnieta	223/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
Usurbil	221/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
	240/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	JG
Villabona	222/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Zaldibia	202/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
	257/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	JG
Zerain	173/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Zestoa	212/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	J
Zizurkil	211/2008/170F	Irisingarritasunari buruzko lau urteko programa	2008/11/03	JG
	256/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	J

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Zumaia	149/2008/34	Bereizkeria egon liteke etxebizitza bat esleitzeko oinarrietan	2008/04/25	J
	149/2008/34	Bereizkeria egon liteke etxebizitza bat esleitzeko oinarrietan	2008/09/02	J
Zumarraga	265/2008/310F	Egoitza batzuetan sartuta dauden pertsonen erroldatzeko arazoak dituzte	2008/12/16	JG
	779/2008/33	Faustino Orbegozo udal fundazioko emakume langileak	2008/09/25	J

D) Beste erakunde publiko batzuk

	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agingearen data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa	910/2007/32	Ofiziotzko abokatu batek ez du jarri demanda, horretarako izendatu bazuten ere, eta abokatuen elkargoak ez dio horregatik erantzukizunik exijitu	2008/10/02	J
Bizkaiko Psikologoan Elkargoa	746/2007/32*	Administrazioaren isiltasuna	2008/05/28	J
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa	523/2008/22	Ur horniduraren etenaldiak Mungiako auzo batean	2008/09/01	J
	815/2008/22	Saneamendu zerbitzuagatik kuotak itzultzea	2008/11/05	J
Haurreskolak	864/2008/20	Matrikula	2008/09/02	J
Mebisa – Bilboko Metroa	274/2008/22	Metro Bilbaoren funtzionamendua	2008/09/01	J
Euskal Herriko Unibertsitatea	1451/2006/20	Administrazioaren isiltasuna	2008/09/10	J
	1580/2006/20	Laneko jazarpena salatu dute	2008/09/02	J
	1349/2007/18	Ez da bete tabakoaren kontrako legea	2008/04/02	J
	1525/2007/33	Irakasle elkartuen kontratuak esleitzeko lehiaketa publikoa	2008/04/11	J
	478/2008/33	Lan-baldintzak aldatzea	2008/06/19	J
	600/2008/20	Administrazioaren isiltasuna	2008/07/09	J
	624/2008/20	Lansari-osagarri gehigarriak irakasle eta ikertzaileentzat	2008/07/09	J
	927/2008/33	LEP	2008/09/25	J
	927/2008/33	LEP	2008/12/11	JG
	1022/2008/25	Selektibitatea, aparteko azterketa	2008/09/23	J
	1146/2008/25	Arkitektura karrerako ikasturte bukaerako proiektuen tutoretza	2008/12/02	J
	1273/2008/33	LEP	2008/12/11	JG

4. ARARTEKOAK 2008. URTEAN EGINDAKO OHARTARAZPENEN ZERRENDA

Udalak

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Udala	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpenaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Hondarribia	Alkatea	Aitor Kerejeta jauna	1169/2007/16*	Gorpu familiari jakinarazi gabe lurpetik ateratzea	17/03/2008	J

ararteko

VIII. ATALA

ARARTEKOAREN GOMENDIOAK
ETA IRADOKIZUNAK
ZENBATERAINO BETE DIREN



Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen 3/1985 Legeak –otsailaren 27koak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoari dagokio: *“Dagokien ihardutze-sailei, herrilariari edo hoi lanariburuei aholkuak ematea edo legezko egitekoak gogoraraztea, legez kontrako edo bidegabekeriako egintzak zuzentzen edo Arduralaritzea-zerbitzuak hobetzea lortzen saiatzeko”* (sic).

Horregatik, kexak aztertzean administrazioaren jokaera ez dela zuzena izan ondorioztatzen dugunean, gomendio edo iradokizun bat bidaltzen diogu kexak eragindako administrazioari, bere jokaera alda dezan eskatzeko.

Gomendioak ordenamendu juridikoa urratu dela, legez kontra jokatu dela edo hutsegite larria izan dela ikusten denean egiten dira eta, horien bidez, delako jarduera berrikusteko eskatzen zaio kasuan kasuko administrazioari. Formula honen pean egiten dira, orobat, legeak bete behar dela gogorarazteko oharrak.

Iradokizunak, aldiz, honelako kasuetan egiten dira: eragindako administrazioak legeei jarraiki jardunda ere, eskubideak babestearren edo administrazio egokia bermatzearren, beste era bateko jarduera behar denean. Kategoria honetan barneratzen dira, orobat, administrazio bakar bati zuzenduta dauden eta kexa-espeditente jakin batekin zerikusia duten arau aldatetako proposamenak ere.

Baina beti ez da beharrezkoa izaten gomendioa edo iradokizuna egitea. Askotan, administrazioak bere jokaera jakin bati buruzko informazioa eskatzeko idazkia jaso eta bere jokaera legezkontasunarekin bat ez zetorrela egiaztatu ondoren, bere jokaera ez dela zuzena izan aitortzen du, luzamendutan ibili gabe, eta herritarrari urratutako eskubidea berrezartzen dio. Arazoak konpontzeko modu honek ez du gomendio edo iradokizun bat beren-beregi egitea eskatzen eta berari esker, irregulartasunak antzeman dituzten 316 administrazio jokaera gomendio edo iradokizunik egin gabe konpondu dira.

Nolanahi ere, egindako gomendioak betetzeari dagokionez, azpimarratu beharra dago 2008. urtean egindako 36 gomendioetatik eta 2007ko txosteneko datuen arabera erabakitzeke zeuden beste 26 gomendioetatik, 26 onartu egin direla; 27 ez direla onartu, 8 erantzunaren edo azken erabakiaren zain daudela. Orobat, zehaztu behar da egindako gomendioetako bat, azkenean, bertan behera utzi dela, gaia epaitegietara eraman delako.

Emaitza horiek aintzat hartzean, ezin dugu ahaztu erakunde honek egindako gomendio edo iradokizunak ez direla lotesleak eta, ondorioz, limurtzea edo pertsuasioa besterik ez dugula laguntza eskatu diguten herritarren egoera juridikoak konpontzen saiatzeko.

Horregatik, aipatu nahi dugu erakunde honek garrantzi handia ematen diola administrazio publikoetara bidaltzen dituen erabakiak behar bezala arrazoitzeko beharrari, batez ere erabaki bat edo esku hartzeko irizpide batzuk aldatzeko eskatzen denean. Beti esan izan dugu behartzeko gaitasunik ez izateak ahalegin dialektiko handiagoak egitera behartzen gaituela, gure analisietan sakontzera, desadostasun juridikoak egiaztatzen eta gure argudioak errepikatzen, gure gomendioak eta gogorarazteko oharrak betetzeko orduan bidegabeko aitzakiak jartzen direla ikusten dugunean. Hau da, esku hartzeko dauzkagun aukera guztiak agortzen saiatzen gara, gure asmo bakarra egiaztatu ditugun legez kontrako egoera horiek berrezartzea eta legez kontrako edo bidegabeko praktikak aldatzea dela.

Beti onartu dugu Ararteko erakundeak administrazio jokaera bat aldatzea gomendatu edo iradokitzen duenean, administrazioak ez duela zertan onartu gomendioaren eta/edo iradokizunaren interpretazio juridiko hori, eta ados ez egoteko arrazoiak zeintzuk diren argudia dezakeela.

Batzuetan, eragindako administrazioak ez du adierazten gomendioa edo iradokizuna onartzen duen ala ez. Kasuok bestelako balorazioa merezi dute, eta halakoetan, erantzunik ezak gomendioa edo iradokizuna ez betetzeko asmoa estaltzen duela susmatzen da, eta, hortaz, administrazioari adierazten zaio erantzunik ez emateko jarrerari eusten badio, ez onartutzat joko dela gomendioa edo iradokizuna, eta zertzelada hori jakinaraziko dela Legebiltzarrari egiten zaion urteko txostenean. Erakundeen artean begirune eza erakusten duen jarrera horrek eragotzi egiten du gomendioa ez onartzeko arrazoiak jakitea, eta, askotan, besterik gabe, hartutako administrazio erabakiak ez duela oinarri juridikorik azaldu beharra saihesten du.

Espedienteak bukatzeko beste modu desegoki bat zera da: eragindako administrazioak gomendioa ez onartzea eta bere ezezkoa oinarritzeko argudio nahikorik ez ematea.

Uste dugu jokaera horiek –ez erantzutea edo arrazoitu gabeko ezezkoa ematea– urratu egiten dutela Eusko Legebiltzarreko erakunde ordezkari gisa eman dizkiguten eginkizunak onartzea. Era berean, gure iritziz, jokaera horiek begirunerik eza erakusten dute Zuzenbideko Estatuak arazoak konpontzeko eman duen tresnetako bat erabiliz beren eskubideak aitor diezazkieten eta legeria bete dadin erakunde eskubide-bermatzaile batera babes eske joan diren herritarrekiko. Ildo horretan, gogorarazi behar da onartu gabeko gomendio edo iradokizun bakoitzak, erakunde honen bermatze lanerako oztopoa izateaz gain, batez ere legea ez betetzen edo herritarren eskubideak urratzen jarraitzea dakarrela berekin, herritarrei legez dituzten eskubideak berrezartzea galaraziz.

Ohi bezala, atal honetan aipatuko dugu zein egoeratan dauden 2008an egin ditugun gomendio eta iradokizunak, baita 2007ko abenduaren 31n azken erantzunaren zain zeudenak ere. Aipamen hori lau kategoriatan banakatutako gomendioen azaleko deskribapena

baino ez da izango. Lau kategoriak honako hauek dira: 1) Administrazioak onartu dituenak; 2) Administrazioak onartu ez dituenak, 3) txosten hau egiten amaitutakoan, administrazioaren behin betiko erabakiaren zain daudenak eta 4) bertan behera utzi direnak.

2007an eta 2008an egindako gomendioek eta iradokizunek lotura zuzena dute ebazpenaren testuarekin, erreferentzi zenbakian sakatuta. Gainontzeko guztiak gure web gunean kontsulta daitezke.

1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK

A) EUSKO JAURLARITZA

Herrizaingo Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko azaroaren 12koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio zenbait koordinazio neurri eta prozedura ezar ditzala Ertzaintzaren zaintzapean dauden pertsonak beren buruaz beste egitea saihesteko, baita halako egoeretan hiltzen diren pertsonen senideei horren berri emateko ere.
278/2006/32 espedientea (41/2007 Gomendioa)

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2006ko ekainaren 20koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio industri jarduera bateko isurpen-gune batzuk araupetzera behartu dezala eta horien gainean beharrezko kontrol jarduerak egin daitezela.
88/2005/17 espedientea (14/2006 Gomendioa)

Osasun Saila

Osakidetza

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko urriaren 30ekoa](#). Horren bidez, kexagileari eskatu duen informazioa helaraz diezaiola gomendatzen zaio, zehazki, administrari laguntzaile kategoriako aldi baterako kontratazio zerrendak.
123/2008/33 espedientea (27/2008 Gomendioa)

B) FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Nekazaritza Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2008k uztailaren 17koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio zenbateko jakin bat ordain dezala obra baten segurtasun eta osasun gaietako laguntza teknikoko eta koordinazioko zerbitzuaren kontratu aldatuari dagokion ordainsari gisa.
17/2008/29 espedientea (17/2008 Gomendioa)

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko martxoaren 11koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio zenbait interesdunei eskatu duten dokumentazio jakina lortzeko aukera eman diezaiela. *1281/2007/18 espedientea (3/2008 Gomendioa)*

Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Saila

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko martxoaren 14koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio baimena eman dezala haurdunaldiak eragindako aldi baterako ezintasunarekin batera gertatu zen 2006ko oporraldiaz gozatzeko. *831/2007/33 espedientea (4/2008 Gomendioa)*

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

ARABAKO UDALAK

Guardiako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko apirilaren 9koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio berriaz erantzun diezaiola herritar batek egindako eskaerari. *1409/2006/23 espedientea (5/2008 Gomendioa)*

Laudioko Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio beharrezko lanak gauza ditzala Hiru Gurutzeta kaleko 9.ean mugikortasun urria duten pertsonentzat erreserbatuta dagoen ibilgailuen aparkaleku plaza irisgarritasun arautegira egokitzeko. *176/2006/17 espedientea (26/2007 Gomendioa)*
- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio Gurutzeta kaleko 23.ean dagoen oinezkoentzako goiko pasagunea irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala. *169/2006/17 espedientea (27/2007 Gomendioa)*
- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio Landaluze kaleko 52.ean dagoen oinezkoentzako goiko pasagunea irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala. *170/2006/17 espedientea (28/2007 Gomendioa)*

- **Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa.** Horren bidez gomendatzen zaio Landaluze kaleko 46.ean dagoen oinezkoentzako goiko pasagunea irisgarritasun arategira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala.
171/2006/17 espedientea (29/2007 Gomendioa)
- **Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa.** Horren bidez gomendatzen zaio Landaluze kaleko 14.ean dagoen oinezkoentzako goiko pasagunea irisgarritasun arategira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala.
173/2006/17 espedientea (31/2007 Gomendioa)
- **Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa.** Horren bidez gomendatzen zaio Zumalakarregi kaleko 24. zenbakiko espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arategira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala.
178/2006/17 espedientea (34/2007 Gomendioa)
- **Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa.** Horren bidez gomendatzen zaio Virgen del Carmen 38-44. zenbakietako espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arategira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala.
179/2006/17 espedientea (35/2007 Gomendioa)
- **Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa.** Horren bidez gomendatzen zaio Hiru Gurutzeta kaleko 22. zenbakiko espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arategira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala.
180/2006/17 espedientea (36/2007 Gomendioa)
- **Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa.** Horren bidez gomendatzen zaio Ugarte kaleko espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arategira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala.
181/2006/17 espedientea (37/2007 Gomendioa)
- **Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa.** Horren bidez gomendatzen zaio Viña Vieja kaleko 6. zenbakiko espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arategira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala.
183/2006/17 espedientea (39/2007 Gomendioa)

Gasteizko Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2007ko urtarrilaren 3koa.** Horren bidez gomendatzen zaio baliogabetzat jo dezala Ibaiondoko 8B sektoreko etxebizitza bioklimatikoaren azken prezioari buruzko “informazio oharra”, eta enpresa sustatzaileari eska diezaiola etxebizitza bioklimatikoaren esleipendunei itzul diezazkiela bidegabe jaso dituen kopuruak.
861/2006/34 espedientea (1/2007 Gomendioa)

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa](#). Horren bidez iradokitzen zaio errol-datzeko baldintzei eta eskubideari buruzko informazioa hobetu dezan; eskaera idatziz aurkeztu dezan; eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak, erroldan izena emateko edo mantentzeko zailtasunak kontuan hartzen dituen jarduera protokoloa landu dezan.
157/2008/31 espedientea (3/2008 Iradokizuna)
- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa](#). Horren bidez iradokitzen zaio errol-datzeko baldintzei eta eskubideari buruzko informazioa hobetu dezan; eskaera idatziz aurkeztu dezan; eta erroldan izena emateko etxerik gabeko pertsonen izena ematea mantentzeko zailtasunak kontuan hartzen dituen jarduera protokoloa landu dezan.
238/2008/31 espedientea (4/2008 Iradokizuna)

Zigoitiko Udala

- [Arartekoaren ebazpena, ekainaren 1ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio udal zerbitzuen erabiltzaileei zorrak dirutan, erabilera legaleko diruarekin, ordaintzeko aukera berma diezaiela.
1326/2006/16 espedientea (13/2007 Gomendioa)

BIZKAIKO UDALAK

Portugaleteko Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko maiatzaren 6koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio udal erroldan helbidea aldatzea onar dezala.
625/2007/31 espedientea (11/2008 Gomendioa)

Zaratamoko Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko apirilaren 23koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio hirigintzako diziplina-espedientea has dezala dagozkion hirigintzako baimenik gabe egindako urbanizazio eta eraikuntzako zenbait obra direla-eta.
1128/2007/23 espedientea (8/2008 Gomendioa)

GIPUZKOAKO UDALAK

Errenteriako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 16koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio pertsona bati erroldan izena eman diezaiola.
1078/2007/31 Gomendioa (23/2008 Gomendioa)

Tolosako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko ekainaren 23koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio hirigintzako diziplinako espedientearen izapideak egiten jarraitzeko.
233/2006/23 espedientea (12/2008 Gomendioa)

D) ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofiziala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko abuztuaren 21ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio erantzukizun zibilaren eta diziplinazkoaren arloko kexen kudeaketarako irizpideak aplikatzala eta Estatutuetan zenbait aldaketa egin ditzala.
746/2007/32 espedientea (19/2008 Gomendioa)

2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK ETA IRADOKUZUNAK

A) EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko uztailaren 16koa](#). Horren bidez iradokitzen zaio ikasleak onartzeko prozesu baten eraginetarako familia batek aitortu duen helbidearen egiazkotasuna ziurtatzeko saiakera egin dezala.
686/2007/20 espedientea (4/2007 Iradokizuna)

Herrizaingo Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko martxoaren 4koa](#). Horren bidez iradokitzen zaio herri ikuskizun eta adierazpenetan animaliak erabili ahal izateko aurretiko baimenaren arauzko garapena susta dezala.
298/2005/23 espedientea (1/2008 Iradokizuna)

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 18koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio erreklamazioa aurkeztu duen merkataritzako erakundeari Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan eskatutako erregistro idazpenetara heltzeko modua erraztea.
477/2008/29 espedientea (24/2008 Gomendia)

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko azaroaren 22koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio baliarik gabe utz dezala 8/2005 Instrukzioa, Etxebizitza Sailburuordetzarena, "Sailari eskaini zaizkion edo bere esku utzi diren eta lehentasunez erosi diren etxebizitzak eskuratu eta esleitzeko prozedurei" buruzkoa.
1004/2006/34 espedientea (44/2007 Gomendia)
- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 1ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio beharrezko neurriak har ditzala beren jabetzako etxebizitza EAeko Administrazioari ematen dioten pertsonak erabateko jabetzako erregimenean adjudikatutako babes ofizialeko etxebizitza eskuratu ahal izan dezaten.
1299/2006/34 espedientea (13/2008 Gomendia)
- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 18koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio etxebizitzaren arloan ezarritako zigorra ondoriorik gabe utz dezala eta isun bidez bildutako zenbatekoa itzul dezala.
1358/2007/34 espedientea (25/2008 Gomendia)

B) FORU ADMINISTRAZIOA**ARABAKO FORU ALDUNDIA****Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Saila*****Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea***

- **[Arartekoaren ebazpena, 2007ko irailaren 14koa.](#)** Horren bidez gomendatzen zaio bere jarduerara Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42. eta 89. artikuluetan ezarritako prozedurara molda dezala eta adopzio hartzailearen eta adopziogaiaren artean dagoen 42 urte baino gehiagoko aldean oinarrituta adopziorako egokitasunaren ziurtagiria ukatu izana berriro azter dezala. *797/2006/31 espedientea (22/2007 Gomendioa)*

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**Lan eta Trebakuntza Saila**

- **[Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 30ekoa.](#)** Horren bidez gomendatzen zaio Auto-reparaciones (...) S.L. enpresari aitordieziola 35/2007 Foru Dekretuak sortu zituen diru-laguntzak emateko prozeduran parte hartzeko eskubidea. Diru-laguntza horiek 50 urtetik gorako langile gionezkoen aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko dira. *281/2008 espedientea (18/2008 Gomendioa)*

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**Gizarte Politikarako Departamentua**

- **[Arartekoaren ebazpena, 2006ko abenduaren 11koa.](#)** Horren bidez zera gomendatzen zaio: ezarritako adin mugaren irizpidean oinarrituta, berriz hausnar dezala kexagileei adoptatzeko egokitasun ziurtagiria ez emateko erabakia. *333/2006/32 espedientea (26/2006 Gomendioa)*

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

ARABAKO UDALAK

Arraia-Maeztuko Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 10ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio ofizioz itzul dezala Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa zehatzari dagokion espedientea idatzi eta izapidetzeko ordaindu zen konturako zenbatekoa.
1501/2007/29 espedientea (16/2008 Gomendia)

Bastidako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko apirilaren 25ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio interesatuta dagoen orori aukera eman diezaiola Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrikusi eta egokitzeko prozesuan benetan parte hartzeko.
1202/2006/29 espedientea (9/2008 Gomendia)

Guardiako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko maiatzaren 5ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio ondare erantzukizuneko espediente baten tramitazioa amaitu dezala, berriazko ebazpena eman eta jakinaraziz.
367/2006/25 espedientea (10/2008 Gomendia)

Laudioko Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio Landaluze kaleko 15.ean dagoen oinezkoentzako goiko pasagunea irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala.
172/2006/17 espedientea (30/2007 Gomendia)
- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio José Matia kalean dagoen oinezkoentzako goiko pasagunea irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala.
174/2006/17 espedientea (32/2007 Gomendia)
- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio Zumalakarregi eta Landaluze kaleak elkartzen diren eremuko espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala.
177/2006/17 espedientea (33/2007 Gomendia)

- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa.](#) Horren bidez gomendatzen zaio José Matia kaleko 16-18. zenbakietako espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala.
182/2006/17 espedientea (38/2007 Gomendia)

Gasteizko Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko urtarrilaren 17koa.](#) Horren bidez gomendatzen zaio bertako kale batean apurtuta zegoen baldosa zapaldu eta erortzearen ondorioz jasandako kalteengatikoa ondare erantzukizuneko erreklamazioa izapidetu dezala.
962/2006/23 espedientea (1/2008 Gomendia)

BIZKAIKO UDALAK

Abanto-Zierbenako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko apirilaren 17koa.](#) Horren bidez, gomendatzen zaio itzul dezala partikular batek abandonatutako animalia bat jaso zuenean ordaindu behar izan zuen zenbatekoa.
337/2006/23 espedientea (7/2008 Gomendia)

Gordexolako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko urtarrilaren 23koa.](#) Horren bidez gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezala herri onurako mendi bateko bazkalekuak abeltzaintzarako erabiltzeko eman duen baimena.
1518/2006/29 espedientea (2/2008 Gomendia)

Ortuellako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 4koa.](#) Horren bidez gomendatzen zaio pertsona bati erroldan izena eman diezaiola.
91/2008/31 espedientea (14/2008 Gomendia)

GIPUZKOAKO UDALAK

Bergarako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 9koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio ofizioz ezezta dezala 2007. urtean zehar Zabaleta Mendi auzoko bizilagunei zaborren tasa gisa kobratutako zergen likidazioa. Izan ere, urte horretan zehar, ez zen zabor-bilketa zerbitzurik egon beren etxebizitzetan.
807/2007/22 espedientea (22/2008 Gomendioa)

Donostiako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko irailaren 26koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio urbanizazio lan batzuen atzerapenak eragindako kalteengatiko erantzukizuneko erreklamazioa izapidetu dezala.
391/2007/23 espedientea (24/2007 Gomendioa)
- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko abuztuaren 26koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio arau ditzala biztanleek Udalbatzaren bilkura publikoetara joateko dituzten eskubideak eta betebeharrak.
983/2007/29 espedientea (21/2008 Gomendioa)
- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko abuztuaren 28koa](#). Horren bidez iradokitzen zaio dutxa publikoen edo "bainu etxeen" udal zerbitzua ezar dezala, guztiei irekia, udalerriko leku egonkor batean kokatuta eta, gutxienez, merke.
419/2006/22 espedientea (2/2008 Iradokizuna)

Errenteriako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko abuztuaren 21ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio bertako kale batean altxatutako estolda estalkiarekin estropezu egin eta erortzearen ondorioz aurkeztu zen ondare erantzukizuneko erreklamazioa izapidetu dezala.
382/2006/24 espedientea (20/2008 Gomendioa)

Hernaniko Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko otsailaren 27koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio bertan behera utz dezala familia bat Patronatuaren jabetzako etxebizitza batetik joanarazteko hartutako erabakia eta gizarte babeseko neurri egokiak gara ditzala.
15/2007/31 espedientea (6/2007 Gomendioa)

Ibarrako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 30ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio baliogabetzat jo dezala egin ez zen dantza-ikastaroari zegokion prezio publikoaren % 50 itzultzeko emandako udal erabakia eta beste erabaki bat har dezala, ordaindu zen zenbatekoa osorik itzul dadin.

118/2006/16 espedientea (40/2007 Gomendia)

3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK

A) EUSKO JAURLARITZA

Kultura Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 18koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio Praileaitzeko historiaurreko santutegiaren mugaketan aldaketa sustatzeko aukera azter dezala. Aldaketa horrek barne hartu beharko luke haitzuloaren inguruko mendi-mazela osoa.
40/2008/23 espediente (31/2008 Gomendia)

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 9koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio berrius dezala seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi laburtua hartzen duten langileen artean zergatik ematen zaien laguntza handiagoa gizonei emakumeei baino.
598/2007/30 espediente (15/2008 Gomendia)

Osasun Saila

- [Arartekoaren Ebazpena, 2008ko abenduaren 16koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio berriz azter dezala gurpildun aulki elektrikoa finantzatzeko eskaria.
867/2008/18 espediente (30/2008 Gomendia)

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko urriaren 27koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko izapidetze eta jakinarazpenak 30/1992 Legeari egokitzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
836/2007/34 espediente (26/2008 Gomendia)

B) FORU ADMINISTRAZIOA**ARABAKO FORU ALDUNDIA****Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Saila*****Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea***

- [Arartekoaren Ebazpena, 2008ko abenduaren 11koa](#). Horren bidez gomendatu zaio sektore publikoan zerbitzuak emateagatiko borondatezko eszedentzia eskatzen duten karrerako langile funtzionarioei egoera hori onartzea, destino berrirako atxikipenak izaera iraunkorra ez badauka ere.
375/2008/33 espedientea (29/2008 Gomendioa)

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**Ogasun eta Finantza Departamentua**

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko apirilaren 14koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio ezintasun iraunkor osoagatiko prestazioengatik ordaindu behar den PFEZ aldatzea susta dezala.
414/2007/16 espedientea (6/2008 Gomendioa)

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA**GIPUZKOAKO UDALAK****Hermaniko Udala**

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 19koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio beharrezko izapideak egin aurretik, udal erroldan izena ematearen ziurtagiria egin dezala.
1535/2007/31 espedientea (32/2008 Gomendioa)

D) ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK**Gipuzkoako Abokatu Elkargoa**

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 9koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio diziplinazko erantzukizunaren arloko kexen kudeaketarako zenbait irizpide aplikatu dezala, haren doako laguntza juridikoaren onuradun batek bere abokatuari jarritako salaketa gairi izapidetzeagatik, aurkeztutako kexa baten harira.
910/2007/32 (28/2008 Gomendioa)

4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK

GIPUZKOAKO UDALAK

Zumarragako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2007ko abenduaren 4koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio jabeen komunitate batean kanpoko igogailua jartzeko emandako lizentzia berrikeri dezala. *517/2007/23 espedientea (46/2007 Gomendioa)*

ararteko

IX. ATALA

**ONDORIOAK.
ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK**



Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 1/1895 Legearen 32.2 artikulua honako hau erabakitzen du: *“Legebiltzarrari aurkezteko txostenari, Euskal Autonomia Erkidegoan, eskubideen babesen balorazio bat erantsi behar zaio.”*

Arartekoak bere jardueran hartutako ezagueraren bidez egiten du balorazio hori, eta bere jarduteko eremuan barneratzen diren euskal erakunde publikoek (hots, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, lurralde historikoetako Administrazioak eta Toki Administrazioak) hiritarren eskubideak zein heinetan errespetatzen dituzten islatzen saiatzen da.

2008. urtean zehar Arartekoak bere jardueran jakin barik urratu diren eskubideak ez direla kontuan hartuko esan nahi du horrek, ezta Arartekoaren lan esparrutik kanpo daudenak ere, Estatuaren Administrazioaren ekintzak izateagatik. Ezta, bistakoak izanda ere, partikularrek edo talde antolatuek urratzen dituzten funtsezko eskubideak ere.

Hala ere, aipatu behar da, Arartekoak ezin esku har dezakeen arren ETAk giza eskubideak larriki urratzen dituela ikusita, bereziki, bizitzeko, osotasun fisikorako eta askatasunerako eskubideak, elkartasuna adierazi nahi diela terrorismoaren biktimei eta erabat gaitzesten dituela eskubide oinarritzkoenak urratzen dituzten jardunbide horiek.

Atal honetan egiten den balorazioak, hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen jarduerak eta jarduera horietan izan litekeen eskubide-urratzea izango ditu hizpide.

Atala Konstituzioaren testuaren lehenengo goiburuan bildutako eskubideen azterketan oinarrituz egituratzen da, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 9. artikuluan ezarritakoarekin lotuta, horien defentsa esleitzen baitzaio Ararteko erakundea araupetzen duen Legearen 1.1. artikuluan.

Atal honetan egindako balorazioaz gain, txosten honen I. kapituluko alorretako bakoitzean administrazioaren jardueraren esparru desberdinak eta herritarren eskubideekin duten lotura xehatuta aztertzen dira.

Txosten honen II. kapitulan ere, lehentasuneko taldeei dagozkien alorretan, zenbait balorazio egiten dira talderik ahulenen eskubideen egoeraz.

Aurkeztutako kexarik gehienak gizarte eskubide deritzanen ondorioz jarri dira, baita Espainiako Konstituzioaren 103.2 artikulua urratze posibleen ondorioz ere –artikulu horretan

administrazio publikoei eraginkortasunaren printzipioari adituz eta legearen eta zuzenbidearen erabat mende, interes orokorreki objektibotasunez zerbitzatuz jokatzea ezartzen zaie—.

Hala ere, badira oinarrizko eskubide eta askatasun publiko deritzen eskubideetakoren bat ustez bete ez dela dioten kexak ere.

Ararteko erakundeak uste du Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideak babesteko egoera baloratzeko funtsezko erreferentea dela Konstituzioaren 10. artikulua. Agindu hori I. tituluaren atartea da. Bertan jaso eta arautzen da gizon-emakumeen oinarrizko eskubide eta betebeharren sistema. Artikulu horrek hauxe dio lehenengo atalean: *“Ordena politikoaren eta gizarte bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxezkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoen eskubideei zor zaien begirunea.”* Hortaz, gizabanakoaren duintasuna da oinarrizko zutabea, hau da, gizabanakoaren autodeterminazio eta askatasunarekiko errespetua, eta norberaren bizitza egiteko eta garatzeko eskubidea, norberaren ezaugarrien eta borondatearen arabera, elkarrenganako errespetu osoz. Eta horren gainean eusten dira oinarrizko eskubide guztiak. Gainera, eskubideen sistema osoan islatu beharko dira lehenengo artikuluan jasotako ordenamendu juridiko-konstituzionalaren balio nagusiak, hau da, askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluraltasun politikoa. Ararteko erakundearen jarduera guztien helburua pertsonen duintasuna eta balio demokratikoak errotik zaintzea da.

Beste kasu batzuetan ere adierazi dugu herritarrek administrazio ona izateko eskubidea dutela, eta, hori, gai publikoetan parte hartzeko oinarrizko eskubidearekin lotuta dagoela; hori guztia administrazio publikoen jardunbidea arautzen duen legerian jasota dago. Herritarrek 2008an aurkeztu zituzten kexetako askok oro har administrazio ona izateko eskubidea izendatu duguna osatzen duten alderdien ingurukoak izan dira. Administrazio publikoek sarriagotan entzun behar lituzkete herritarrak, hobetu egin behar lituzkete informazio bideak, eta, batez ere, parte hartzeko benetako bide eraginkorrak ahalbideratu behar lituzkete.

1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua

“Legearen aurrean berdinak dira espainiarrak, eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein egoera edo gorabehera pertsonal edo sozialarekin lotutako bereizkeria ezin da nagusi izan.”

Espainiako Konstituzioaren 9.2. artikulua

“Botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta denena batera osotzen dutenena benetako eta eragileak izan daitezen; baita galarazi edo osotasuna zailtzen dituzten oztopoak eragitea hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere.”

Berdintasunaren eta gizakiaren duintasuna errespetatzearen balioek arreta berezia exijitzen dute beren eskubideak urratzeko arrisku handiagoa duten pertsonen egoerari: atzerritarrak,

adinekoak, adingabeak, ezgaitasun fisiko edo psikikoren bat duten pertsonak, gaixo kronikoak, gizarte bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonak...

Kasu horietan, bai arloen azterketari eskainitako kapituluetan, bai lehenetsuneko arreta behar duten taldeekin egindako jardueri buruzkoan adierazi dugunez, oraindik gabezia asko daude. Euskal herritar askok bete beharreko helburua izaten jarraitzen du egiazko berdintasunak, eta helburu hori lortu nahi bada, kendu egin behar dira pertsona eta talde guztien benetako berdintasun eraginkorra galarazten duten oztopoak.

Kexa askok, zuzenean edo zeharka, berdintasun printzipioaren balizko urratzearekin dute zerikusia.

Erakunde honek bere esku-hartzeetan ahaleginak egin ditu Konstituzioaren testuan mugatutako zioetako edozeinengatik baztertzailak diren botere publikoen jarduerak gerta ez daitezzen.

Zehaztu behar dugu sarritan berdintasun printzipioa urratzea beste eskubideetako edozeinek lotu behar dela eta, horregatik, kasu horiez egiten den azterketan, batzuetan, printzipio hori ere hizpide izaten da.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubideari dagokionez, Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea onartzeak honako hau zuen helburu: eremu publikoan nahiz pribatuan eragitea, parekotasuna sustatzeko eta emakumeek bizi duten bereizkeria deuseztatzeko. Arau horrek Konstituzioaren 9.2 artikuluan botere publikoentzat jasotako benetako berdintasunaren eta berdintasun eraginkorren agindua zehaztu zuen.

Legean zehaztutako aurreikuspen gehienak denboran luzaturik geratu ziren eta kasu askotan kasuan kasuko araudi garapena behar zuten.

Eraginak generoaren arabera duen aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak onetsi dituen otsailaren 14ko 14/2007 Ebazpena aplikatuz, 2008an eraginari buruzko 151 txosten bidali zaizkio Emakunderi, arauko eta administrazio egintzako beste horrenbeste proiekturi buruzkoak. Gainera, une honetan hiru aldundiek, EAeko 56 udalerrik eta mankomunitate batek (Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren bi heren baino gehiago) berdintasuneko plana edo programa dute. Bestalde, Tolosako Udalak, 2008an, emakumeen eta gizonen berdintasunerako lehenengo udal ordenantza onetsi du.

Genero arrazoiak direla-eta egiten den bereizkeriarik larriena, indarkeria sexistaren fenomeno kezagarria da eta emakumeen duintasun, askatasun eta osotasun fisikoaren aurkako eraso onartezina da.

Botere publikoek tratu txarrak jasandako emakumeen beharrei eman behar dieten erantzunak diziplina ezberdinak uztartu behar ditu, besteak beste, jarduera judizialak, laguntza juridikoa, gizarte eta abegi zerbitzuen funtzionamendua eta etxebizitza bat izateko aukera lotuz.

Indarkeriaren aurrean erakundeek ematen duten erantzunaren eraginkortasuna hainbat faktoreren arabera da, hala nola: fenomenoaren ezagutza egokia izatea, zerbitzuak etengabe ebaluatzea eta zerbitzuak diagnostiko berrietara egokitzea, erantzunaren arintasuna, azkartasuna edo berehalakotasuna, zerbitzuen alde aurretiko planifikazioa Autonomia Erkidegoko lurralde osorako edo zerbitzu guztien arteko koordinazioa (herrietakoak barne). Horri dagokionez, aipagarria da Koordinazio Zentro Bakarra eta Integrala sortzea eta Generoko eta Familia barruko Indarkeriaren Balorazio Integralerako Unitateak diseinatzea.

Emakume batzuek bizi duten eraso arrisku objektiboko egoerak agerian jartzen du zenbait kasutan polizia babeseko neurriak hartu behar direla. Balorazio positiboa egiten da Herrizaingo Sailak genero indarkeriaren biktima diren emakumeen arriskuaren balorazioaren protokoloa egiteari buruz. Aipagarria da Ertzaintzaren jarduketa irizpideak (genero indarkeriako kasuetan) ezartzen dituen Herrizaingoko instrukzioak kalitatezko ziurtagiria lortu izana. Gainera, tratu txarraren biktima diren emakumeek balorazio positiboa egin dute Ertzaintzaren jarduketari buruz. Hala eta guztiz ere, genero indarkeriako biktima batzuek desadostasuna adierazi dute, Herrizaingo Sailak bizkartzain zerbitzua kentzeko hartu duen erabakiarekin; izan ere, sail horrek uste du arrisku mailak ez duela babes iraunkorreko sistema hori justifikatzen.

Sexuagatiko bereizkeria ezabatzeko jarduketa publikoei dagokienez, iaz zalantzan jarri ziren ekintza positiboko neurriak, esate baterako, abenduaren 15eko 293/2005 Dekretuan ezarritakoa, horrek eragina izan baitezake berdintasun printzipioan; izan ere, dekretu horrek emakumeentzat baino zenbateko handiagoko laguntza ezartzen du gizonentzat, horiek seme-alabak zaintzeko lanaldiaren murriztapena edo eszedentzia hartzen dutenean. Gainera, mendetasuna duten familiakoak zaintzeko laguntza ildo dago, eta horrek gizonen aldeko ekintza positiboak ezartzen ditu. Berdintasunezkoa ez den tratamendu hau ez da eragin-korra gizonak lanaren berdintasunezko banaketan inplikatzeko.

Sexuagatiko bereizkeriaren adierazpen bat emakumeak jai ospakizun jakin batzuetatik kanpo uztea izan daiteke, horretarako ekimen pribatutik antolatutako emanaldiak izateari eta errotutako tradizioak izateari helduz. Uste dugu ezin dela pribatutasunaren estalkiarekin benetan udalerrri bateko ospakizun nagusia dena estali. Aurten, aipagarria da emakumeek Laudioko San Roke kofradiako bazkari batean izandako bereizkeria; bazkari hori Arabako herri horretako jaietan egiten da.

Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak politikaren arloan ez du ondo aplikatzen emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak orekatuaren printzipioa, aldundi horren organo bete-arazlearen osaketan, ez baita errespetatzen Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 4/2005 Legeko 3.7 artikuluan ezarritakoa.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari eginiko aipamena amaitzeko, azpimarratzekoa da urtero egiaztatzen den desberdintasunaren muturreko seinalea: pobrezia feminizazioa deritzanaz ari gara; horrek ekartzen du gizarte zerbitzuen erabiltzaile gehienak emakumeak izatea.

Atzerritarrak eta gutxiengo kulturalak eskubideetan urradura gehien jaso ditzaketen taldeak dira.

Europar Batasunaz kanpoko atzerritarrek dituzten premia nagusietako bat legezko eran lan egin eta bizitzeko baimena ematen dien dokumentazioa lortzea da. Estatuko Administrazio Orokorra da aipatu dokumentazioa izapidetzeko eskumena duena. Hori dela-eta, Herriaren Defendatzaileari bidali zaizkio batez ere dokumentazio prozesuari buruz aurkeztu diren kexak.

Atzerritarren arazorik ohikoenetarikoz batzuk, izatez ere, honako hauek dira: zigortzeko aurrekariak ezerezteko izapidetzerako zailtasunak egotea, pertsona horiek egoera irregularrean daudenean; zigortzeko aurrekariak jatorrizko herrian sortzea eta agiriak legeztatzea; baimen espedienteen ebazpena atzeratzea; edo egoitza eta lana edukitzeko baimenen berriztapena ukatzea.

Berririo adierazi behar da udalak sustraitze sozialaren txostena betetzeak duen garrantzia, izan ere, sustraitze sozialaren prozedura hori da, egun, atzerritarrei gure lurraldean bizi eta lan egiteko baimena emango dien dokumentazioa lortzeko bide nagusia.

Funtsezkoa da ere nabarmentzea garrantzitsua dela egoera irregularrean dauden atzerritarrentzat udaleko erroldan izena ematea.

Zenbait kastan, pertsona atzerritar batzuk kexatu egin dira poliziarengandik jasotako tratuegatik, euren ustez bereizkeriazkoa izan baita, atzerritarrak direlako.

Egoera irregularrean dauden pertsona atzerritarrek ezin dute jaso emantzipazio errentako laguntzarik, eta hori kontrajarri egiten zaio EAEko Immigrazio Planeko herritartasun inklusiboaren printzipioarekin.

Ijito herriko pertsonak oso estigmatizatutako taldea izan da tradizionalki, eta gizarte zerbitzu eta aukeretara gutxiago iritsi dira.

Gure erkidegoan ijito herria osorik bultzatzeko eta gizarteratzeko plan zehatza egon arren, talde horren biztanleriaren multzo garrantzitsuak baztertuta geratzeko arrisku handieneko bat izaten jarraitzen du. Oraindik ere, zenbaitetan, euskal udal batzuek ez dituzte erroldatu nahi izaten udalerrian bizi diren ijito familiak.

Halaber, bizikidetzako, konfiantza ezeko eta errefuseko arazoak ikusi dira ijitoen eta Bizkaiko udalerrietakoren bateko auzotarren artean, edo toki administrazioarekin berarekin. Arazo horiek faktore ezberdinengatik etorri dira, baina egun oraindik errefus xenofoboa dago talde horrekiko.

Administrazio publikoek auzo batzuen biziberritze sozialeko, berrantolamenduko eta osoki birgaitzeko prozesuak gain hartu behar dituzte, herritarren gizarte beharrei erantzunez.

Ijitoek jasaten dituzten bereizkeria arazoetariko batzuk, beste alde batetik, honako honi lotuta daude: adingabeen eskolatzea, ostatua lortzeko zailtasunak edo bereizkeria kasuak, adibidez, tabernetan edo dendetan sartzeko debekua.

Bestalde, **ezgaitasunen bat duten pertsonak** zailtasun larriak izaten dituzte gainerako biztanleekiko benetako berdintasuna lortzeko laneratzeari nahiz eguneroko bizitzari dagokietan. Izan ere, askotan ezinezkoa izaten da garraio bideetara iristea edo hiri- eta arkitektura-oztopoak gainditzea.

Legerian aurrerapauso erraldoiak egin diren arren, homofobiak eta heterosexismo baztertzailak, estigmatizazio eta bereizkeriaz gain, gizarte bazterkeria izugarria ere ekarri dute **pertsona homosexual, gay eta lesbianen aurka, bai eta identitate transexual eta transgenerikoen aurka ere**. Nabarmentzekoa da egun oraindik pertsona homosexual asko ez dela ausartzen maitasuna erabateko askatasun eta duintasunez bizitzera, beraz, pertsona hauentzat orain dela gutxi lortutako berdintasun formalari benetako berdintasuna eta gizarte berdintasuna eransteke lanean jarraitu behar da hori oztopatzen duten elementu garrantzitsuak dauden tokietan.

Bereizkeria kasu batzuk araudi berriarekiko beharrezko egokitzapenik egon ez dela gertatu dira. Horrela, familia liburuak gizonen eta emakumeen arteko ezkontza aukera baino ez dute jasotzen. Irregularitasun hori berehala zuzenduko du Justizia Ministerioak.

2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

2.1. BIZITZEKO ETA OSOTASUN FISIKO ETA MORALERAKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 15. artikulua

“Guztiek dute bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidea, sekula ere torturarik eta zigor edo tratu krudel edo iraingarririk jaso gabe. Indarrik gabe geratzen da heriotza-zigorra, gerra garaian lege penal militarrek erabaki dezaketena alde batera utzita.”

Bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidearen babesa Ararteko erakunde honen lehentasunezko arduratako bat da.

Era berean, ETA talde terroristak eskubide horiei egiten dien zapalketa beti gaitzetsi izan dugu.

Zoritxarrez, 2008. urtean ETAk Isaías Carrasco, Juan Manuel Piñuel, Luis Conde eta Ignacio Uria hil ditu.

Gure elkartasuna adierazi behar diegu terrorismoaren biktima horien familiartekoei eta lagunei, eta erabat gaitzetsi behar ditugu halako ekintza terroristak.

Gainera, ezin ahatz dezakegu hiritar asko bizia edo osotasun fisikoa galtzeko mehatxupear bizi direla, eta beren askatasuna mugaturik dagoela. Herritar asko estortsio ekonomikoaren mende daude oraindik ere eta beren askatasun eta ondasunen kontrako ekintza terroristak jasaten dituzte.

Egoera horrek bere horretan dirauen bitartean, Ararteko erakundeak bere idatzi ofizial guztietan, euskaraz eta gaztelaniaz, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 3. artikularen testua ipintzen jarraituko du *“Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea”*; ETArrik EZ leloarekin batera.

Emakumeen kontrako indarkeriak bizitzeko eskubidearen eta osotasun pertsonalerako eskubidearen aurkako urradura larrienetako bat izaten jarraitzen du eta erakunde bermatzaile hau ezin gera daiteke axolagabekeria.

Genero indarkeria deuseztatzea ahalbidetuko duen gauza bakarra pertsona guztien arteko benetako berdintasuna izatearen ideia berresten badugu ere, funtsezkoa da botere publikoen erantzuna tratu txarrak jasandako emakumeen beharrekiko egokia izatea.

2008an hiru emakume hil dituzte EAEn euren bikotekideek. Matxismo adierazpen onartezin horrek, genero indarkeriaren biktima diren emakumeen zoritxarreko heriotzak ez ezik (matxismoaren adierazpenik larriena), indarkeria episodio asko ere sortu ditu; hain zuzen ere, guztira, genero indarkeriako epaitegi espezializatuek 3.979 zigortzeko gai aztertu dituzte. Zifra oso altu horiek, segurutik, ezkutuko errealitate baten izebergaren muturra baino ez dira, eta aditzera ematen dute emakumeen eskubideak guztiz urratzen direla; horren ondorioz, Euskadin hamabost emakumek bizkartzaina eraman behar izan dute, 2008an, euren osotasun fisikoa eta bizitza segurtatzeko.

2008an ez dugu gure eskumen eremuaren barruko administrazioen aurkako kexarik jaso, tortura eta tratu txarreko kasuei buruz. Hala ere, berretsi egin behar da **tortura** giza eskubideen urratze larrienetarikoa dela, eta, beraz, Arartekoaren erakundeak pertsona guztien osotasun fisikoa eta morala bermatzearen aldeko jarrera izan du beti, horretarako, zigorgabetasuna ahalbidetu ahal duten aldi eta eremu ilunak ezabatzeko neurriak planteatu ditu.

Ararteko erakundearen esku-hartzea poliziaren jarduna etengabe ikuskatzeko lan prebentiboaren alorrean kokatzen da. Helburua polizi kidegoek torturarik edo tratu txarrik ez ematea da eta, horrelakorik jazotzen den kasuan, bidegabeko jarduera horiek ezagutu eta zigortzea posible izatea.

Jakina denez, tortura ekiditeko neurrien artean, Ararteko erakundeak hauxe gomendatu zion Herrizaingo Sailari 1999an: ziegen eremuko korridoreetan kamerak jarri eta haien bidez egindako grabaketetan oinarritutako kontrol-sistema ipin zezala, atxilotuen eskubideak bermatzeko neurri gisa.

2006. urteaz geroztik, Herrizaingo Sailak bideo-grabaketen sistema ezarri zuen Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren menpeko atxiloteta-zentroetan, baita deklarazioak hartzen diren lekuetan ere.

Erakunde honi oso egokia iruditzen zaio Ertzaintzak egiten dituen atxiloketa guztiak grabatzea eta sistema hori deklarazioa hartzen den bakoitzean ere erabiltzea. Gure ustez, bi neurri horiek aurrerapauso handia dakarte atxilotuen osotasunaren eta duintasunaren aurkako jardunbideak prebenitzean.

Ertzaintzako komisarietara egindako bisitaldi batzuetan, bideo grabazioko sistemak instalatuta daudela ikusi dugu. Hala eta guztiz ere, aditzaera eman behar da oraindik ez direla betetzen erakundeak proposaturiko berme neurriak, grabazioei dagokienez. Hain zuzen ere, komisaria batera egindako bisitaldian jasotako informazioaren arabera, grabaturiko materiala gordetzeko lekurako sarbidean ez dago inolako murriztapenik. Hala ere, Herrizaingo Sailak, gero, baietz esan zuen, hartzen direla murriztapen neurriak.

Errenteriako Udaltzaingoaren komisariara egindako bisitaldi batean, bestalde, Donostiako Udaltzaingoaren komisariara egindako bisitaldian bezala, egiaztatu genuen bideo grabazioko sistema zegoela instalatuta.

Pozik gaude halako prebentzio neurriek izandako hedapenarekin, baina Ertzaintzari planteaturiko berme neurriak ere hartu behar direla uste dugu. Neurriak honako hauek dira:

- Grabazioen arduradunak pertsona independenteak izatea, atxiloketak eta atxiloturiko pertsonen zaintza egiten duten unitateetatik.
- Grabaturiko materialaren kontserbazioa bermatzea, gutxienez balizko administrazio edo zigortzeko erantzukizunen preskripzioaren gehieneko mugaraino.
- Egindako grabazioak egiaztatzen dituen erregistroa edukitzea.

Azkenik, aipatzekoa da erakunde honek Prebentzio Mekanismo Nazionala abiatzeko kontsulta prozesuan parte hartu duela; mekanismo hori Nazio Batuen Konbentzioaren (torturaren eta beste tratatu txar edo narriagarrien aurkako konbentzioa) Protokolo Fakultatiboan ezarrita dago.

2.2. ASKATASUNERAKO ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA. ATXILOTUEN ESKUBIDEAK

Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua

“1. Pertsona guztiek dute askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Inori ezin zaio askatasuna kendu, artikulua honetan eta legeak aurreikusitako kasuetan ezartzen denari jarraituz ez bada.

2. Atxiloketa prebentiboak ezin du ekintzak argitzeko behar den denbora baino gehiago iraun, eta edozelan ere, sekula ez du iraungo 72 ordu baino gehiago; epe hori igarotakoan, atxilotua agintaritzaren eskuetan uzteko askatuko da

3. *Atxilotu guztiei jakinarazi behar zaizkie, berehala eta modu ulerkorrean, beren eskubideak eta beren atxiloketaren arrazoiak, eta ezin dira aitortzera behartuak izan. Atxilotuari abokatuaren laguntza bermatu behar zaio dilijentzia polizial eta judizialak, legeak ezartzen duen bezala.*

4. *'Habeas corpus' prozedura arautuko du legeak, legez kontra atxilotutako pertsona guztiak epailearen eskuetan berehala uzteko."*

Azken urteotan, hainbat kexatan salatu da poliziak tratu desegokia eman duela edo indarra neurritz gain erabili duela poliziaren bulegoetatik kanpo burututako jarduera batzuetan.

Horrelako kasuak tratatzean, erakunde honek behin eta berriro azpimarratu du indarra erabili behar den polizia-jardueretan, zertzelada hori dagokion erregistroan jaso behar dela. Horri esker, posible izango da esku-hartzea indarreko araudiarekin bat datorrela eta erabilitako indarraren neurria kontrolatzea. Atxiloketetan indarraren erabilera azken baliabide gisa hartu behar da eta egokitzapen eta proportzionaltasun printzipioa errespetatuz.

2008an ere hainbat kexa egin dira gai honen gainean: poliziaren agenteek neurrigabeko edo errespeturik gabeko jarduera burutu dutela. Horrek eragindako pertsonen atxiloketa ekarri ohi du, eta parte hartu duten polizien aurkako atentatu delituagatiko salaketa ere bai. Horrelako kasuetan, herri-bidean agenteak pertsonengana hurbiltzeko duten modua erabakigarria izan ohi da gertakarien geroko jazoeran. Gure ustez, beti tratu egokia eta begirunezkoa eman behar da eta premiazko edo berehalako arriskuzko zertzelada berezirik gertatzen ez bada, agenteek beren jardueraren zergatia eta helburua azaldu behar dizkiote eragindako pertsonari, labur bada ere. Era berean, berriz adierazi behar dugu agenteek beren identifikazio zenbakia eman beharra daukatela, baldin eta beraiekin harremanetan dagoen pertsonak hala eskatzen badie.

Gainera, polizi funtzionarioek ez dute errespetu faltatzen edo desobedientziatzen jo behar eragindako pertsonen informazioa eskatze hutsa.

Hala ere, aurkezturiko kexetan agenteen esku-hartzeak azaltzen dira; agenteok, esku-hartzea egiteko unean, ez zuten uniformerik eta bereizgarririk gabeko ibilgailuan zebiltzan; ez zuten euren identifikazio zenbakia eman nahi izan, eta errespetu gabe tratatu zituzten atxiloturiko pertsonak. Halaber, planteaturiko kasu askotan agenteek salaketa jarri dute ustezko zigorrezko ez-zilegien eraginpeko pertsonen aurka (erresistentzia, desobedientzia, atentatua...). Salaturiko gertaeren egitasunaren kalterik gabe, berretsi egin nahi dugu halako jarduketak kontrolatzeko mekanismoak jarri behar direla.

Gainera, arazoak egon dira poliziak kalean egindako jarduketan lekukoak egotearekin, lekuko horiek kritikatu egin baitute esku-hartze hori.

2.3. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA ETA NORBERAREN DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua

“Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta nork bere irudia izateko eskubidea bermatzen da.”

Espainiako Konstituzioaren 18.4 art.

“Legeak informatikaren erabilera mugatuko du herritarren ohorea eta norberaren eta familiaren intimitatea eta beren eskubideez erabat baliatzeko aukera bermatzeko.”

Intimitaterako eskubidea ustez urratzearen aurkako keak planteatu dira. Horrela, salaturiko polizia jarduketa batean, ikerturiko gauzen jabeak bertan egon barik egin zen miaketa. Transexual batek, bestalde, kirol instalazio publikoetan banakako duxtak egon behar izatea planteatu du, bere transexual izaera pribatutasunean mantendu ahal izateko. Halaber, Er-zaintzako komisari batean, komunaren instalazioak ez du zaintzen atxiloturiko pertsonen pribatutasuna.

Intimitaterako eskubidearen inguruan azpimarratu nahi dugun ikuspegi berria sortu da. Hala, epaileen adierazpen batzuetan, norberaren etxean kanpotiko zaratak sortzen dituen eragozpenek intimitaterako eta etxearen bortxaezintasunerako eskubidea, besteak beste, urratzen dituztela baieztatu izan da.

Herritarrek gero eta ozenago eskatzen dute administrazioek erabiltzen dituzten **datu pertsonalen babeserako eta intimitaterako** eskubidea bermatu dadila. Zentzuzkoa da datuak isilpean eduki daitezela eskatzea, asko eta asko direlako datu pertsonalak dituzten fitxategiak. Berdin da tresna informatikoekin lantzen diren datuak edo babes bereziko datuen multzoan sailkatutakoak izan nahiz ez.

Administrazio publikoek, berezko informazio sistemarekiko konfidentziasuna bermatzeko neurri zuzenak ezarri behar izateaz gain, datuak tratatzeko zerbitzuak hirugarren batzuek emateko aukera hausnartu egin behar dute.

2.4. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO BERDINTASUNAREN PRINTZIBIOA

Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikulua

“Halaber, funtzio eta kargu publikoak berdintasunez lortzeko eskubidea dute, legeak ezarritako baldintzen arabera.”

Erakunde hau euskal administrazio publikoek berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei zor dioten errespetua bermatzen saiatzen da. Horiek, Konstituzioaren agindu espre-sagatik, enplegu publikora iristean agertu behar dira.

Gasteizko Udalaren 2007ko lan eskaintza publikoak ere kexa asko eragin ditu, gaztelaniaren ezagupenaren balorazio probak izandako eraketaren ondorioz; izan ere, eskaturiko ezagupenek gainditu egiten zuten oinarrietan proba horretarako ezarritako edukia.

Enpresa publiko batek, deialdi batean, naziotasunaren baldintza ezarri zuen, eta horrek urratu egiten du Espainian legez bizi diren EBtik kanpoko pertsona atzeritarrek herri-administrazioetan laneko langiletzat sartzeko duten eskubidea. Enpresa horrek onartu egin du hurrengo deialdietako oinarrietan baldintza hori ezabatzea.

Azkenik, kexa batzuek funtzio publikoaren arloan ekintza positiboko neurriak ezartzeko aukera planteatu dute, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko. Legegile autonomikoak ez du plazen ehuneko erreserba jakinik ezarri, ezgaitasuna duten pertsonen kasuan egin den bezala, baina ekintza positiboko beste neurri batzuk jaso ditu. Horrela, baimenduta dago, gaitasunean berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna ematea, emakumeen % 40tik beherako ordezkariak duten kidegoetan edo eskaletan, baldin eta beste hautagaiaren ezaugarriek (sexuagatiko bereizkeriak ez izanik) neurria ez aplikatzea justifikatzen badute. Eduki hori EAEko Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 27. artikuluan erantsi da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bitartez.

2.5. BABES JUDIZIAL ERAGINKORRERAKO ESKUBIDEA. ERRUGABETASUN USTEAREN PRINTZIBIOA

Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua

"1. Pertsona guztiek dute epaileen eta auzitegien babes eraginkorra jasotzeko eskubidea, beren zilegizko eskubideak eta interesak erabiltzeko, babesik eza sekula ere gertatu barik."

"2. Legeak aurretik ezarritako ohiko epailea izateko eskubidea dute pertsona guztiek, baita legelariaren babesa eta laguntza izateko, euren kontrako akusazioa jakiteko, atzerapen bidegaberik gabeko eta berme guztiak dituen prozesu publiko bat izateko, babeserako egokiak diren frogak erabiltzeko, nor bere buruaren kontra ez aitortzeko, erruduntasunik ez aitortzeko eta errugabetasun-presuntzioa erabiltzeko eskubidea ere.

Senidetasuna edo sekretu profesionala dela aitortzeko beharra ez dagoenean erabiltzeko arauak jarriko ditu legeak."

Azken urteotan atzerapen judizialen arloan aurrerakuntza egon arren, prozedura judizialak gehiegi atzeratzearen ondorioz kexa kopuru handiagoa dago Justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruz.

2008an atzerapenen eraginez jaso diren kexen artean, aipagarria dira seme-alabentzako janarietarako pentsioei buruzkoak, banantze prozeduretan.

Jurisdikzio zibilean, kexarik ugarienak, aurtan ere, banantze eta dibortzio prozesuen eraginezkoak izan dira.

2008an **trafikoko zigor prozeduren** arloan jaso ditugun kexak, nagusiki, zigorrak ezartzeko bideratutako prozedurari buruzkoak izan dira. Kexa horietan lehendik ere aurkeztu ziren kontuak aipatu ziren, besteak beste, jakinarazpen pertsonalak egiteko modua eta prozeduren izapidetze estandarizatua. Horrela, jasotako zenbait kexatan, interesdunek diote ez dutela zigortzeko prozeduraren berri izan bide betearazlea hasi arte; hori, kasurik gehienetan, izapidetzeen jakinarazpenak ediktuen bidez izapidetzearen ondoriozkoa da. Egiaztatu dugunaren arabera, zenbait kasutan, gainera, ediktu bidea horretarako legezko baldintza guztiak bete orduko erabiltzen da.

Horren haritik, azpimarratu behar dugu **ediktuen bidezko jakinarazpena** bide berezia dela, eta, berori erabiltzeko, beharrezkoa dela zuzeneko jakinarazpena bermatzen duten bide guztiak agortuta egotea. Konstituzio Auzitegia gai horretaz mintzatu da aurten (lehenagoko bere doktrinan oinarrituta), otsailaren 25eko 32/2008 Epaian. Epai horren arabera, ediktuen bidezko jakinarazpena *“constituye un remedio último de carácter supletorio y excepcional, que requiere el agotamiento previo de las modalidades aptas para asegurar en el mayor grado posible la recepción de la notificación por el destinatario de la misma”* (2. oinarri juridikoa).

Gutziz kezagarria iruditzen zaigu, gainera, administrazio batzuek ediktuen bidezko jakinarazpena modu automatikoan erabiltzen dutela, pertsona juridikoei euren titulartasuneko ibilgailuaren gidaria identifikatzeko eskabidea egiteko, gidari hori trafikoko araudia urratzeagatik salatu denean.

Aurreko urteetan bezala, trafikoko zigor prozeduren izapidetze estandarizatua dela-eta aipatu diren kontuak, funtsean, alegazioak eta frogak aztertu ez izatearekin eta frogak besterik gabe ukatu izatearekin erlazionatuta egon dira.

Azkenik, **babestutako etxebizitzak eskuratzeko prozedurari** dagokionez, azpimarratzekoa da BOE eskatzaileei eragindako babesgabetasun arazoak Etxebizitza eta Gizarteko Gaietako Sailak herritarrekiko harremanetan erabiltzen dituen jakinarazpen eta komunikazio moduengatik.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak jarduteko modu honen ondorioz, gomendio orokorra egin da; bertan, berretsi egiten da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidegoari buruzko 30/1992 Legea egokitu behar dela Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren ebazpenen izapidetzea eta jakinarazpena. Hain zuzen ere, aldatu egin behar da Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko inskripzioen baxako eta aldaketako ebazpenak egiteko prozedura, eta, bertan, interesatuaren entzunaldi izapidetzea eta ebazpenen jakinarazpen pertsonala jaso behar dira; jakinarazpenok, berriz, horiek jaso izana egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bide erabiliz egingo dira. Horretarako, erregistroko oharrei buruzko ebazpenak iragarki taulan jakinarazten direnean (Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa arautu duen 2008ko apirilaren 16ko Aginduko 5.2 artikuluan ezarritako jakinarazpena), jakinarazpen pertsonala ere egin beharko da, eta espedientean egiaztatuta gelditu beharko da beti hori.

2.6. ASKATASUNIK EZ DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK

Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua

“Askatasuna kentzen dituzten penak eta segurtasun neurriak berreziketa eta birgizarteratzea lortzeko izango dira eta ezin izango dira nahitaezko lanak izan. Presondegiko pena duen kondenatuak Kapitulu honetako oinarritzko eskubideak izango ditu, kondenak apropos ezarritakoak, penaren zentzuak edota presondegietako legeak mugatzen ez badituzte behintzat. Edozein modutan, ordaindutako lana izateko eta gizarte-segurantzaren onura guztiak izateko eskubidea izango du, baita kulturaz gozatzeko eta nortasuna guztiz garatzeko eskubidea ere.”

Konstituzio aginduak ezartzen duenez, askatasunaz gabetzeko zigorren helburua berriro gizarteratzea da.

Dibertsifikatu egin behar dira espetxearen ordeko tratamenduak, eta, gainera, ahalik eta gehien zabaldu behar da araubide irekiaren bidea; horretarako, botere publiko guztien inplikazioa behar da.

Presoen egoerari dagokionez, aditzera eman behar da, azpiegiturak (batez ere, Langraiz Oka eta Martutene) zaharrituta egon arren, nolabaiteko hobekuntza egon dela, batik bat Arabako espetxean. Zentro horretan, ziegak eta eremu komunak berriztatu egin dira, baita erizaintza ere. Gipuzkoako espetxean hobetu egin dira sukaldeak eta saneamendu sarea nahiz sare elektrikoa.

Tratamenduko langileen urritasunak sortzen duen arazoaren eraginez, ezinezkoa da kasu guztiei arreta egokia ematea, horiek jarraipen pertsonalizatua behar baitute; gainera, espetxe politikako funtsezko elementu bat zailtzen du, gizarteratzea.

Erkidegoaren onurarako lanen aplikazioan dauden gabeziak, neurri batean, zigor horren orokortasunaren eraginezkoak dira, ez baita berorren gizarte edukia mantentzeko baliabideen handitzeko korrelatiborik egon. Gainera, tokiko erakundeekin akordioak ez daudenez, espetxeek, neurriaren preskripzioa ekiditeko, edukirik gabeko lanak esleitzen dizkiete hori bete behar dutenei.

Baliabideen urritasuna arazo larria da, oro har, presoen lekualdatzeak egiteko, eta lan hori Ertzaintzak egiten du. Horren eraginez, kasu askotan, ezeztatu egin dira osasun eta gizarte zerbitzuekin hitzarturiko hitzorduak.

Aipagarria da gaixotasun oso larriak edo sendaezinak dituzten pertsonen kasua; izan ere, horren eraginez espetxetik irten ahal badute ere, kanpoan gizarte eta familia laguntzarik ez dutenez, gaixotasun horri aurre egiteko baliabiderik ezak preso horien askatasuna ekiditen du. Egoera horrek agerian jartzen du beharrezkoa dela EAEko erakundeek baliabide gehiago eskaintzea, askatasunaz gabeturiko pertsonen espetxe hobariez gozatu ahal izateko.

Azkenik, berretsi egin behar da espetxe sistemaren helburua eta justifikazioa presoak berriro gizarteratzea dela, eta ahalegin guztiak helburu hori lortzera bideratu behar direla.

2.7. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua

- "1. Pertsona guztiak dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna onartzen da.*
- 2. Gizakiaren nortasuna guztiz garatzea izango da hezkuntzaren xedea, bizikidetzako printzipio demokratikoen eta oinarrizko eskubide eta askatasunen arabera.*
- 3. Aginte publikoek gurasoen eskubidea bermatzen dute, seme-alabek euren uste erlijioso eta moralekin bat datorren heziketa jaso dezaten.*
- 4. Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da.*
- 5. Aginte publikoek herritar guztien hezkuntza eskubidea bermatuko dute irakaskuntzaren programazio orokorraren bitartez, interesa duten sektore guztien parte-hartzeaz eta ikastegiak sortuz.*
- 6. Ikastegiak sortzeko askatasuna onartzen zaie pertsona fisiko eta juridikoei, printzipio konstituzionalen errespetuaren arabera.*
- 7. Irakasleek, gurasoek, eta behar denean ikasleek ere parte hartuko dute Administrazioak diru publikoaz finantzaturako ikastegien kontrol eta kudeaketan, legeak esaten duenaren arabera.*
- 8. Aginte publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko dute legeak betetzen direla bermatzeko.*
- 9. Aginte publikoek legeak ezartzen dituen baldintzak betetzeko laguntza emango diete ikastegiei.*
- 10. Unibertsitateen autonomia onartzen da, legeak ezarritakoaren arabera."*

Hezkuntzarako eskubidea prestazio eskubide moduan konfiguratu da eta, horregatik, agian egokiago zatekeen hura gizarte eskubideen artean jorratzea. Aitzitik, hura kokatzen den konstituzio testuingurua eta aukeraturako metodoa ikusita, atal honetan aztertuko da. Iazko urteko txostenean aditzera eman genituen zero eta hiru urte arteko haur hezkuntzako lehen zikloan ikasleak onartzeko dauden irizpideen inguruan jasotako kexak. Are gehiago, kexa haietan eta eskola mapa berriaren inguruan aurreraturiko informazioan oinarrituta, haur hezkuntzako ikastetxeetan ikasleak onartzeko irizpide komunak ezartzea komenigarria dela dioen ebazpena egiteko aukera kontuan hartu genuen eta horri buruzko gomendio orokorra eman genuen.

Besteak beste, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako itunpeko ikastetxe publikoetan eta ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duen martxoaren 4ko 35/2008 Dekretua; 2008ko apirilaren 24koa Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen 12/04-2008 Akordioa –azken horren bidez, Haurreskolak Partzuergoan haurrak onartzeko araudia eta irizpideak onesten dira–. Aipaturako bi horien argitalpenak baieztatzen digu 2008-2009 ikasturtean ikasleak onartzeko prozesua irizpide komun batzuen arabera burutu dela. Beraz, nabarmendu behar dugu gomendio hori bete dela.

Ikastetxeetan ikasleak onartzeari dagokionez, berretsi egin behar dugu guraso batzuk iruzurra egiten dutela errolda erabiltzen dutenean. Ikaslea 2008-2009 ikasturtean onar-

tzeko instrukzioa onetsi duen aginduan ez da sartu NANA aurkako probatzat erabiltzeko irizpidea, adierazitako helbideak bat ez datozenean. Gure ustez, bateragarritasun izapidetzea egotea eta berme batzordeak eratzea agian ez da nahikoa jarduera irregular hori ez gertatzeko.

Hezkuntzako Curriculumaz ezarri duen urriaren 16ko 175/2007 Dekretua argitaratzearen ondorioz, 2008an familiek kekek aurkeztu dituzte; hain zuzen ere, euren seme-alaben ikasketetarako irakas-hizkuntza hautatzeko aukera eduki nahi dute. Euskal Autonomia Erkidegoko **hizkuntza- eta hezkuntza ereduak**, orain arte, hizkuntza aukerako sistema hautatu du hezkuntza etapa guztietan. EAEko legegile autonomikoak aldatu egin dezake aukera hori, konstituzio oztoporik egon gabe, eta, horren orde, "hizkuntza bateragarritasuna" edo "erabateko elebitasuna" izeneko sistema ezar dezake. Nolanahi ere, sistema aldatzeko, beharrezkoa da orain indarrean dagoen arauzko ereduak aldatzea.

EAEn **hezkuntza-premia bereziko ikasleentzako** hezkuntza erantzuna antolatzeko onetsi den araudian, alde batetik, curriculum-egokitzapenak egoteko aukera ezartzen da, eta, bestetik, banakako curriculum egokitzapen garrantzitsuen azterketa. Egiaztatu denaren arabera, banakako curriculum egokitzapena egiteko aukerak, neurri berezizat, zailtasunak sortzen ditu. Hain zuzen ere, dislexia duten haurren familiakoen ustez, EAEko hezkuntza sistemak ez die ikasleoi behar bezalako arretarik eskaintzen. Hezkuntza administrazioak berak ere zailtasunak onetsi ditu, hezkuntza laguntzako adituak ordeztu ahal izateko.

Eskola-garraioari dagokionez, Hezkuntza Sailera jo dugu, hori erabiltzen duten adingabeen segurtasun baldintzak jakiteko; egiaztaturikoaren arabera, eskola-garraioa zerbitzuaren antolamenduak segurtasun neurri guztiak hartzen ditu aintzat, segurtasun uhalak erabiltzearen arloan.

Zoritzarrez ikastetxeetan jazotzen jarraitzen duten bullying kasuak edo berdinkideen arteko jazarpenekoak kezkarriak dira. Arazoa oso konplexua da eta, sistema judizialera desbidera daitezkeen oso kasu larriak kenduta, hezkuntza-sistemak berak eman behar dio erantzun egokia.

Arlo horretan, Arartekoaren V. Foroa egin da, herritarren partaidetzari eta hausnarketari buruz; foro horren gaia hau da: "Nerabe eta gazte lesbianak, homosexualak, transexualak eta biseualak: zailtasunak eta ukapenak garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan". Bertan egiaztatu denez, "homofobiaren" edo "transfobiaren" eraginezko bullying-a edo eskolako jazarpenak daude; fenomeno hori estu lotuta dago homosexualitatea eta transexualitatea ukatzeko eta kondenatzeko ideiekin eta jarrerekin (nerabe eta gazte askoren arteko jarrerak). Agerian gelditu da, halaber, behar-beharrezkoa dela irakasleek heziketa egokia behar dutela aniztasun sexu-afektiboaren arloan, eta irakaskuntzako curriculum programek jaso egin behar dutela gai hau.

3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

3.1. ZERGA-SISTEMA BIDEZKOA. BERDINTASUN, PROGRESIBOTASUN ETA LEGEZKOTASUN PRINTZIOIAK

Espainiako Konstituzioaren 31. artikulua

“1. Herritar guztiek lagunduko dute gastu publikoei eusten, nork bere ahalmen ekonomikoarekin bat, zergen sistema bidezko baten bitartez, berdintasun eta progresibotasun printzipioetan oinarrituta, eta sistema horrek inola ere ez du edukiko konfiskatze-ko gaitasunik.

2. Gastu publikoak baliabide publikoen esleipen zuzena egingo du, eta bere programazioan eta gauzatzean eraginkortasun eta ekonomia printzipioei eutsiko die.

3. Prestazio pertsonal edo ondare-prestazio publikoak legearekin bat bakarrik ezarri ahal izango dira.”

2007an, hiru lurraldeetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren foru arau berriak sartu ziren indarrean, eta horietan berritasun handiak daude aurreko araudiari dagokionez. Berrikuntza horren ondorio errealak 2008ko martxo-apiriletik aurrera, zerga likidatzeko epea hasi denetik aurrera, egiaztatu dira.

Jasotako kexen artean, aipagarria da legearekiko berdintasun printzipioan eragina izan dezakeen kexa bat, zergak ezgaitasun iraunkorreko pentsioei ematen dien tratamenduari buruzkoa (Bizkaian eta Gipuzkoan); izan ere, horiek 55 urtetik gorako kualifikaturiko erabateko ezgaitasun iraunkorreko kasuetan soilik daude salbuetsita. Araudi horrek justifikaziorik gabeko berdintasun gabeziako egoerak sortzen ditu, jasotzailearen ezgaitasuna ez baitu oinarritzen horren gaitasun ekonomikoan, adinean edo Gizarte Segurantzako araubide jakinean egotean baizik.

Arauketa horrek bi talde kanpoan uzten ditu: alde batetik, Gizarte Segurantzako araubide orokorraren barruko 55 urtetik beherako pentsiodunak eta pentsioa ez ezik lanaren edo jardueraren eraginezko beste diru-sarrerarik ez dutenak; bestetik, nekazaritzako, itsasoko eta autonomoko araubide berezietan dauden pentsiodunak, euren pentsioa 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera onartuta dutenak.

Zergaren berrikuntzarekin planteaturiko beste arazo bat, izatez ere, honako honek intimitaterako eskubidean izan dezakeen eragina da: sindikatuko kuotari edo alderdi politikoetako afiliazioaren kuotei dagokien murriztapena eraginkor bihurtzeko diseinatu den mekanismoak, horrek ekidin egiten baitu zergadunak murriztapena aplikatzeko eskubidea berenez egiaztatzeko. Arauan ezarritakoaren arabera, sindikatuak edo alderdi politikoek aurkeztu behar duten informazio ereduari jasotako zergadunek soilik izan dezakete murriztapen hori.

Katastro balioaren aldaketei buruzko kexa asko jaso dira, eta, horietan, akatsen bat aipatu da balio horren zehaztapenean. Kasuetariko askotan, administrazioak ez ditu akatsa gertatu zen unera arte eraman nahi arauketaren ondorioak.

Katastro balioa murriztea eragiten duten eta eraikuntza urteko nahiz higiezinaren azalerako akatsen eraginezkoak diren aldaketak, oro har, administrazioaren funtzionamendu txarrari egotzi behar zaizkio, eta egitatezko akats gisa kalifikatu behar dira; horrela, salaturiko akatsaren eraginpeko likidazioen erregularizazioa akatsa gertatzeko unera arte eraman ahal izango dira, muga bakarra preskripzioa izanik. Irizpide horrek aukera ematen du segurtasun juridikoaren oraingo printzipioa eraginpeko pertsonen eskatzen duten justizia materialeko oinarritzko printzipioekin bateratzeko.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gainerako Zergaren (TMIZ) salbuespena ezgaitasuna duten pertsonen aplikatzea oraindik ere arazotsua da EAEko udalerrri batzuetan; udalerriotan, salbuespenaren aplikazioa udal ordenantzen bidez arautzen da, eta horrek urratu egiten du foru arauaren erreserbako printzipioa.

Azkenik, ura hornitzeagatik, zabor bilketa zerbitzuagatik edo ibilgailuak aparkatzeagatik udal tasek hainbat kexa sortu dituzte herritarren partetik.

Azken urteotan, tokiko erakundeek ahalegin handia egin dute udal zerbitzuak hirigunetik kanpo ere eskaintzeko; zerbitzu horien artean, zabor bilketa dago. Hala eta guztiz ere, zenbait kasutan, zerbitzua eman gabe ari dira tasa kobratzen.

3.2. JABETZA PRIBATURAKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua

- "1. Jabetza pribaturako eta jaraunsletzarako eskubidea onartzen da.
2. Eskubide hauen funtzio sozialak bere edukia mugatuko du, legeekin bat.
3. Inori ezingo zaio ondasun eta eskubiderik kendu baliagarritasun publiko edo gizartearen interesarengatik ez bada, beharrezko kalte-ordainketaren bitartez eta legeek ezarritakoaren arabera."*

Jabetza pribaturako eskubidearen edukia, bestalde, eskubide horri Konstituzioan ematen zaion funtzioak mugatzen du. Lur jabe batek eraikitze duen muga eta lurzorua udalerriko hirigintzako plangintzaren arabera erabiltzeko betebeharra, beraz, gure herrien eta hirien zentzuzko garapenerako gizarte interesak justifikatzen ditu.

Hiriko lurzoru bihurtzeko eta bertan eraikitze aukera botere publikoen ahalmena da, hirigintza plangintzaren bidezkoa, eta ez jabetza eskubidearen berezko ahalmena. Lur jabeen eskubideak eta betebeharrak, berriz, hirigintzako legeriak plangintzari, kudeaketari eta plangintza betearazpenari buruz kasu bakoitzean ezartzen duen araudiaren arabera gauzatzen dira. Zuzenbidearen muga horiek, batzuetan, zenbait pertsonaren kexa eragin dute; pertsona horiek, izan ere, zalantzan jarri dute udalak obra egiteko edo erabilera aldatzeko lizentzia ukatzea, horiek udal plangintzaren aurkakoak izan arren.

Bestalde, azaroaren 28ko 11/2008 Legeak haztaturiko eraikigarritasunaren % 15ean (hirigintza kargarik gabe) handitu ditu hiriko lurzoruko jabeen lagapen betebeharrak.

Ondare erantzukizunaren irudiak esan nahi du herritarrek ondarean jasandako kalteengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dutela horiek zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorio izan badira, eta horrek oraindik kexa ugari sorrarazten du.

Eragindako kalteak ordaintzearen izaera objektiboak eragiten du beharrezkoa ez izatea errua edo axolagabekeria egotea zerbitzu publikoen jardun edo jardun ezean. Izan ere, nahikoa zen kausalitate erlazioa frogatzea zerbitzu publikoen funtzionamendu normalarekin edo normala ez denarekin eta eragindako lesioarekin.

Administrazio publikoak, oro har, ez dira eragindako kalteen erantzukizuna onartzearen aldeko izaten, eta, askotan, gogorarazi egin behar zaie beren betebeharrak duen izaera objektiboa. Sarritan, herritarrek arrazoi honengatik jartzen dituzte kexak: kalte-ordaina jasotzeko eskabidea egin zenetik arrazoizko epea igaro arren, interesdunak ez duelako administrazioaren erantzunik jaso.

4. GIZARTE ESKUBIDEAK (GIZARTE ETA EKONOMI POLITIKAREN PRINTZIBIO GIDARIAK)

4.1. FAMILIAREN BABESA. ADINGABEEN ESKUBIDEEN BABESA

Espainiako Konstituzioaren 39.1. eta 4. artikulua

"1. Aginte publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatuko dute."

"4. Umeek nazioarteko euren eskubideak zaintzeko hitzarmenetan ezarritako babes izango dute."

Familiari laguntzeko neurrien aplikazioak zenbaitetan kexak eragiten ditu, eta administrazioaren jardunarekiko edo arau horiek arautzeko moduarekiko desadostasuna agertu ohi da horietan.

Harrera iraunkorreko eta adopzio aurreko egoerak ez parekatzeak (seme-alabak dituzten familiei) kexa eragin du.

Garraio publikoa erabiltzen duten **familia ugari** emandako laguntzei dagokienez planteaturikoaren arabera, udalerrri batzuek txartel bakarria ematen dute familia osorako, eta, gainera, hori banketxe jakinean lortu behar da.

Familia babesgabetasunean dauden haurrei eta nerabeei dagokienez, jarduketa bat egin da Euskal Autonomia Erkidegoko 10.000 biztanletik gorako 40 udalerrietan. Agerian gelditu da aldatu egin dela laguntzaren jasotzaile diren familien tipologia; hain zuzen ere, arazo anitzeko familiak izatetik familia normalizatuagoak izatera igaro dira, adigabeei arauak eta mugak ezartzeko orduan arazoak izan arren.

Lagundu beharreko adingabeen profilari dagokionez, aldaketa handiak egon dira. Hain zuzen ere: drogak egunero hartzen dituzten 13-17 urte bitarteko nerabe kopuruak hazkundera nabaria izan du, eta horien gurasoak ez dira gauza nerabeoi arauak edo mugak ezartzeko (gainera, askotan, gazte horiek ez dira eskolara joaten); kultura kode desberdineko etorkin kopuruak ere gora egin du; guraso bakarreko familiak; familia barruko indarkeriari eta emakumeen kontrako tratatu txarrari lotutako arriskuak; gurasoen ezintasuna haurren/nerabeen jokabidea kontrolatzeko; "enperadorearen sindromea" duten nerabeak; familiak berriro batzea, urteetan bananduta egon ondoren...

Babesgabetasun egoera duten nerabeen sektorearen barruan, **bakarrik dauden adingabe atzerritarrek** ezaugarri eta beharrian bereziko taldea osatzen dute.

Baliabide sarea handitu egin da, kasu batzuetan behin-behineko instalazioak eginda edo lehendik dauden zentroetako plaza kopurua handituta. 2008an lehenengoz babestutako adingabe kopuruak eta urtean zehar hartutako adingabe kopuru osoak nabarmen egin dute gora: Araban hirukoiztu egin da, Gipuzkoan % 50eko hazkundera izan du eta Bizkaian hazkundera txikia egin da.

Kezkagarria da ondoan bizi diren herritarrak halako zentro berriak irekitzearen aurka egotea, bakarrik dauden adingabe atzerritarrek eduki ahal izateko. Kasu hauetan, gizarte sentsibilizazioa lortu beharra azpimarratu da beti, halako gizarte baliabideak behar izateari dagokionez; horretarako, gizarteko politikari eta programei buruzko informazio sistematikoa eman behar da. Halaber, parte hartzeko mekanismoak sustatu, gizarte baliabideak zona berean metatzea ekidin eta zerbitzuen funtzionamendu egokiaren bermeak eskaini behar dira.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarren adina zehazteko zailtasunak ere agerian jarri dira 2008an. Gai hau garrantzi handikoa da, adingabetasunak edo adin nagusitasunak ondorio juridiko garrantzitsuak baititu. Adina kalkulatzeko teknikarik ohikoena hezur-proben bidezkoa da; hala eta guztiz ere, ez dago benetako adina zehatz jakiteko aukera ematen duen metodo zientifikorik, batez ere 15 eta 18 urte bitarteko gazteen artean. Horrenbestez, adingabeen babesgabetasun egoerarik ez egoteko, adingabetasunari baliozkotasuna eman beharko litzaioke, hori egiaztatzen dituen agiriak egonez gero; horrela, adin nagusitasuna adierazteko, horren ondorio guztiekin, proba erradiologikoen emaitza edozein izan arren, beharrezkoa izango litzateke ebazpen judizial irmoa egotea.

Adingabe urratzaileei dagokienez, betearazitako neurrien kopuru osoa egonkortu egin da, nolabait ere. Hain zuzen ere, erkidegoaren onurarako prestazioek beherakadaxoa izan dute, eta zaintzapeko askatasun neurriek gorakada handia izan dute, baita gizarte eta hezkuntza lanek ere, neurri txikiagoan izan arren.

Azken urteotan, gorakada handiagoa egon da adingabe lege-hausleentzako hezkuntza zentroen sareko plaza erabilgarrietan. Oraindik ere handia da babesetik iritsitako adingabe arau-hausleen proportzioa (jokabide arazo larriko nerabeak eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrek). Harrera sistemak oinarritzko beharrianei erantzun egokia ematen ez dienean, arazo asko zigortzeko sistemara heltzen dira.

Aipagarria da 2008an, familiaren barruan eraso egiten duten adingabeen artean (gurasoengandik banantzeko neurria ezartzen zaien adingabeak) neska kopuru nahiko handia egotea.

Hezkuntza-premia bereziak edo espezifikoak dituzten talde jakinak eskolatzeari dagokionez, aipatzekoa da ezintasuna, supergaitasuna eta hezkuntza laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen kopuruak gorakadatxoa izan duela (% 60an sare publikoan eskolatuta). Talde horien arretako eta laguntzako lanetan dabiltzan profesionalen kopurua handia da (3.000 baino gehiago).

Haurren eta gazteen buru osasunaren arreta, izatez ere, adingabeen osasunerako eskubidearen arretaren barruko premia nagusienetakoa da. Buruko osasuneko arazoak dituen gazte taldea, zalantzarik gabe, gero eta handiagoa da oraingo gizartean. Haurtzarora babes-teko politika publikoek eskaini beharreko babes integralaren ikuspegitik begiratuta, beharrezkoa da erantzun egokia ahalbidetzen duen diagnostiko zehatza egitea (eraginpeko gazte kopurua; diagnostikoak; baliabide erabilgarriak edo sortuko direnak; profesionalen espezializazioa; hezkuntza, osasun, familia eta gizarte mailako koordinazio egiturak...).

Adingabeak atxilotzeko baldintzei dagokienez egiaztaturikoaren arabera, komisaria bazuek oraindik ez dute adingabeko pertsonentzako eremu berezirik.

Famili biltokien arloan, berritasun nagusia halako biltokiak bete beharreko baldintza funtzionalak, materialak eta langileriakoak arautu dituen uztailaren 1eko 124/2008 Dekretua onestea izan da.

Pobreziari eta adingabeei lotutako egoera kezkarriak ere ikusi ditugu. Egoera hau, batez ere, etxerik ez duten adingabedun familien edo baliabiderik gabeko emakume atzeritarren kasuan gertatzen da; horiek haur jaioberriak dituzte, eta euren ostatu bakarrak gaueko harrerako zentroak dira.

Amaitzeko, esan daiteke egoerarik kezkarrienak honako hauek izan direla: bakarrik dauden adingabe atzeritarrek; eskolako jazarpena; haurren nahiz gazteen buru osasunaren arreta, eta osasun sistemak buru narriadurako, droga-mendetasuneko edo jokabide arazo larriko egoerei emandako erantzuna (batez ere, nerabeen kasuan).

4.2. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua

"1. Osasuna babestua izateko eskubidea onartzen da.

2. Aginte publikoen eskuetan dago osasun publikoa antolatu eta babestea, neurri preventibo eta prestazio eta zerbitzu beharrezkoen bitartez. Legeak ezarriko ditu guztion eskubide eta betebeharrak, honi dagokionez

3. Aginte publikoek osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola bultzatuko dituzte. Aisiaren erabilpen egokia ere erraztuko dute."

2008an itxaron zerrendei buruzko kexa gutxi jaso ditugu.

Herritar askok adierazitakoaren arabera, arretaren kalitatea ez da ona, eta ez dute maila egokirik lortu euren eraginpeko erabakiei buruzko informazioaren eta partaidetzaren arloan.

Neurriak hartu dira lehen laguntzako sendagileei esleituriko osasun txartelen kopurua murrizteko; horren eraginez, euren lehengo egoeran jarraitu nahi zuten erabiltzaile askori aldatu egin zaizkio sendagileak. Neurri horien bidez, osasun sistemaren barruko arazo nagusienetarikoa bat gelditu da agerian; hain zuzen ere, espezialitate batzuetan profesional nahikorik ez goatea, adibidez, pediatrian.

Gaixo kronikoen arazoetariko bat errehabilitazioa da, gaixo horien ustez sistema publikoak eskainitako maila ez baita nahikoa.

Halako premiak EAEko Osasun Publikoan Gaixotasun Kronikoen Errehabilitazioa Hobetze-ko 2007-2009 Planean aurreikusita daude (gaixotasun neurologikoak, gaixotasun kardiologikoak, biriketako gaixotasunak, bularreko minbizia eta linfedema). Hala eta guztiz ere, errehabilitazio neurologikoari lotutako jarduketetan, burmuineko gaixotasun baskularra edo garezurreko nahiz entzefaloko traumatismoa duten gaixoen arretak ez dauka jarraitasunik; izan ere, oro har, sistema publikoan ez dago errehabilitazioko tratamendurik.

Halaber, bularreko minbiziaren detekzio goiztiarreko oraingo programa berrogeita hamar urtetik beherako emakumeei ere aplikatzea planteatu da; hala eta guztiz ere, ez dago horri buruzko adostasun edo ebidentzia zientifikorik.

Agerian gelditu dira gaixotasun kroniko batzuen arazoak; adibidez, erretinosi pigmentarioarena edo esklerosi anizkoitzarena.

Bestalde, neurriak hartu behar dira osasun eta gizarte bazterkeriako arrisku handia duten taldeak detektatzeko eta kuantifikatzeko; besteak beste, buru arazo larriak dituzten pertsonak, mendetasun egoeran dauden adineko pertsonak, arazo anitzeko pertsonak (adibidez, patologia duala) edo jokabide arazoak dituzten pertsonak.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako "Osasuna eta emakumeak" programak zenbait kontzeptu hartzen ditu aintzat, adibidez, "arrisku faktore diferentzialak" edo "erikortasun diferentziala"; osasunean ekitatea sustatzeko, emakumeen taldearen osasun berezitasunak aintzat hartuta.

4.3. INGURUMEN EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua

“1. Herritar guztiek dute pertsonaren garapenerako ingurumen egokia izateko eskubidea, baita hura zaintzeko betebeharra ere.

2. Aginte publikoek baliabide naturalen zentzuzko erabilpena zainduko dute bizimodua babestu eta hobetzeko, guztien elkartasun ezinbestekoan oinarriturik.

3. Aurreko atalean ezarritakoa urratzen dutenentzako, zigor penalak ezarriko dira legeak esaten duenaren arabera, edo behar denean zigor administratiboak ere bai, eta eragindako kaltea ordaindu beharko dute.”

Ingurumenaren arloan jasotako kexa dezentek zerikusia dute udal baimenen araubidearen pean dauden **jarduera sailkatuen** zarata, usain eta keen ondorioz herritarrek jasaten dituzten eragozpenekin.

Normalean, ostalaritza establezimenduek (taberna, pub, jatetxe, txoko edo elkarte gastronomikoek) egindako zaraten ondorioz sortzen diren eragozpenak izaten dira kexagai, lokal horiek behar bezalako hots-isolamendurik ez dutelako edo musika-ekipoak neurritz gain erabiltzen direlako.

Ikusi dugunez, nabarmen ugaritu dira aspaldiko edo jatorri tradizionaleko ostalaritza establezimenduei buruzko kexak. Establezimendu horiek urteak daramatzate jardunean eta bere garaian baimendu zirenak ez bezalako jarduerak bihurtzen dira.

Gazteek merkataritzarako lonjak elkargune gisa erabiltzeak hainbat kexa eragin ditu lonjeto zaratek sortutako eragozpenak jasaten dituzten pertsonen aldetik. Izan ere, horietan musika-ekipoak eta beste hainbat gailu jartzen dituzte, lokal horiek adierazitako funtzionamendurako prestatuta egon gabe. Lokal horiek jarduera sailkatuen araubidearen pean daude eta, hortaz, administrazioaren lizentzia behar dute jarduteko.

Egiaztaturikoaren arabera, kasu askotan utzikeria edo pasibitate handiegia dago, halako jarduerak sortzen dituzten egoerak arintzeko, eta hori udalek egin behar dute, manuzko jarduera edo irekitzeko lizentziak administrazio horiek baimentzen baitituzte.

Udalek, kasu guztietan ere, bermatu egin behar dute baimendutako jarduerak instalazio lizentzian ezarritako murriztapenetara eta neurri zuzentzailetara egokitzen direla.

Bestalde, merkataritzako establezimenduek sorturiko eragozpenei buruzko kexa asko jaso ditugu; kexa horiek, zenbait kasutan, hozteko eta aireztatzeko sistemek sorturiko zaraten ondoriozkoak izan dira, eta beste kasu batzuetan, berriz, zamalanek sortzen dituzten eragozpenen eraginezkoak.

Herritar ugari daude kezkatuta oso kutsatzaileak diren industriako jardueren eraginpean egotearen ondorioz jasaten dituzten eraso eta nahasteek osasunerako eta ingurumenerako eskubidean izan dezaketen eraginaz. Zoritzarrez, kasu gehienetan administrazio eskudunek

ia-ia ez dute kontrolik egiten instalazio horien gainean. Gaur egun, Kontaminazioa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko 16/2002 Legeak eragina du arras kontaminatzaileak diren enpresarik eta jarduerarik gehienetan.

Bestalde, garrantzitsua da landa-eremuko herrietako biztanleek abeltzaintzako jarduerak edo abereak ukuiluratzeko jarduerak sortzen dituzten arazoengatik aurkeztutako salaketa-kopurua. Aipaturiko jarduerak sortzen dituzten usain txarrak kritikatzeko dira, baita hirigintza-araudia ez betetzea ere, instalazio horientzat ezarritako gutxienezko distantzietan dagokienez.

Planteatu diren beste ingurumen eragin batzuk **telefonía mugikorrek antenen instalazioak** izan dira, bai hiriko zonetan eta bai zona urbanizaezinetan egiten direnak. Halako antenarik gehienak, izan ere, udal baimenik gabe instalatu dira.

Beste alde batetik, aipagarria da Euskal Autonomia Erkidegoko errepide sare nagusietatik hurbil bizi diren pertsonen jasandako kutsadura akustikoa.

Era beran, aipatzekoak dira gure udalerrietako herriko jaietan instalatzen diren txosnek, barrakek eta oholtzek sorturiko eragozpenak, ez baitira beharrezko neurriak hartzen horiek sor ditzaketen eragozpenak arindu ahal izateko.

Azkenik, gogoratu beharra dago gure erkidegoan izapidetzen diren hirigintza antolamenduko planen ingurumen ebaluazioa egin behar dela.

4.4. ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua

“Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea.

Aginte publikoek beharrezko baldintzak sustatu eta behar diren arauak ezarriko dituzte eskubide hori gauzatzeko, luraren erabilpena interes orokorrekkin bat arautuz, especulazioa galarazteko.

Gizarteak erakunde publikoen hirigintza-jarduerak sortutako gainbalioetan parte hartuko du.”

Euskal herritar batzuen arazoetako bat etxebizitza duina eskuratu ahal izateko zailtasun objektiboa izatea da. Botere publikoak etxebizitza babestuen sorrera bultzatzen aritu dira, merkatu librean etxebizitza erostea ezinezko dutenei etxebizitza eskuratzeko posible egiteko beste neurri batzuekin batera. Neurriak bereziki zuzendu zaizkie etxebizitza-premia larria duten sektore horiei.

Lehenengo eta behin, aipagarria da Eusko Legebiltzarrak azaroaren 28ko 11/2008 Legea onetsi duela; lege horren bidez, *“aldatu egin du erkidegoak hirigintza ekintzaren eraginez sorturiko gainbalioetan duen partaidetza.”* Legeak aukera emango du lurzoruko udal ondarea osatzen duten lurak handitzeko, eta horien helburu nagusia babes publikoko araubideren

bat duten etxebizitzak eraikitzea da, baita etxebizitza horiek dituzten egoitza eremuetan hirigintzako obrak ordaintzea ere. Neurri horren eta indarreko beste sustapen neurri batzuen bidez, EAEko udalek esku-hartze handiagoa izango dute babes publikoko etxebizitzaren sustapenean.

Zoritarrez, Eusko Legebiltzarrean ezin izan da onetsi Etxebizitzari buruzko EAEko Legea, *“herritarrek etxebizitza duina edukitzeko eskubidea bermatzen duen”* legea; izan ere, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoak legezko tresna egokia edukitzea, etxebizitza duina eta egokia edukitzeko konstituzio eskubidea gauzatzeko, eta EAEko administrazioek etxebizitzaren arloan dituzten eskumenak arautzeko esparru juridikoa ezartzea.

Gazteen emantzipaziorako oinarritzko errenta arautu duen azaroko 1.472/2007 EDren aplikazioak erreklamazio kopuru handia eragin du; hain zuzen ere, ohikoa eta iraunkorra den etxebizitzaren alokairua ordaintzeko laguntza ekonomikorako zuzeneko laguntza multzoak osatzen du.

Babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzan akatsak edo gabeziak izateagatik arazoak badira oraindik, horiek eraikuntza-akatsetatik eratorritakoak izatean. Gaia, orokorrean, administrazioaren jardun ezaren eremuan kokatu ohi da, enpresa eraikitzaile arduradunak sumatutako gabeziak konpontzeko ardura gain hartzea bultzatzeko.

Etxebizitza eskuratzeari dagokionez, arreta bereziko taldeek bizi duten egoerak kezka sorrarazten du. Horien artean ezgaitasunen bat duten pertsonak edo indarkeria sexistaren biktima diren emakumeak egongo lirateke.

Zenbait kasutan mugikortasun urritik eratorritako beharrei egokitu gabeko etxebizitza babsuak egokitu zaizkie ezgaitasunen bat duten pertsonari.

Sarritan, babes publikoko etxebizitzaren esleipenari lotutako prozesuei buruzko erreklamazioak planteatu dira; horietan, prozedurako alderdi batzuekiko desadostasuna gelditu da agerian.

Azkenik, narriaturiko auzoak edo eremuak suspertzeko jarduketa publikoek aintzat hartu behar dute herritarrek etxebizitza duina izateko duten eskubidea. Zaharkituriko eraikinak berri behar diren interes publikoa, oinarritu ere, etxebizitzetan bizi diren pertsonari (legezko okupatzaileak) beste bizileku bat bilatu behar izatean oinarritzen da. Ez litzateke ulergarria izango, narriaturiko auzo baten hiria suspertzeko prozesu baten ondorioz, ordura arte etxebizitza izan duten pertsonak bertatik irten behar izatea eta ohiko etxerik gabe gelditzea. Horri dagokionez, legeriak, oro har, **berriro bizilekua emateko eskubidea** ezarri du, baita lehengora itzultzeko eskubidea ere, hirigintza jarduketaren baten eraginez etxebizitza utzi behar duten pertsonentzat. Hala eta guztiz ere, berriro bizilekua emateko eskubide hori arazotsua da, sarritan ukatu egiten baita, bai eraikinaren aurri-adierazpena edo hori eraisteko agindua dagoelako, bai eskubide hori legez eskatu ezin delako, ezarritako hirigintza jarduketa sistemaren eraginez.

4.5. EZGAITASUN FISIKOA, SENTIMENEZKOA EDO PSIKIKOA DUTENEN ESKUBIDEAK

Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua

“Aginte publikoek minusbaliatu fisiko, sentimenezko eta psikikoentzako prebentzio, tratamendu, birgaitze eta gizarteratze politika egingo dute. Behar duten zainketa espezializatua eskainiko die, eta laguntza berezia emango die, izenburu honetan hiritar guztientzat ezarri diren eskubideak erabili ahal izan ditzaten.”

Ezgaitasunen bat duten pertsonak eguneroko bizitzan zailtasun handiak izaten jarraitzen dute hori berdintasunezko baldintzetan garatu ahal izateko, arazoak baitituzte hirian ibiltzeko, erabilera publikoko eraikinetara sartzeko, garraioa erabiltzeko edo lanpostua eskuratzeko.

Ezgaitasuna duten pertsonak eskubidea dute zuzkidura publikoak eta taldeko ekipamenduak berdintasun baldintzetan erabiltzeko. Eskubide horren alderdietariko bat, izatez ere, taldeko ekipamenduetarako eta zuzkidura publikoetarako irisgarritasun unibertsala lortzea da, arkitektura oztopoak kenduta.

Pertsonak eremu publikoetara iristeari loturiko arazoetariko bat, irisgarritasuna sustatzeko planak abiatzearen eraginezkoa, onetsitako udal obretan eskailera mekanikoak instalatzeko aukera baino ez egotea da, hiriko oztopoak ezabatzeko edo gainditzeko. Arrapala eta eskailera mekanikoek ez dute pertsona guztien irisgarritasun arazoa konpontzen (adinekoak, haurrak dituzten pertsonak, ezgaitasun fisikoa dutenak); horiek, berez, ezin dituzte halako instalazioak erabili.

Horrenbestez, gure iritiz, araudian ezarritakoa betetzeko, lehentasuna eman behar zaio egokituriko igogailuen instalazioari, eta bigarren mailan utzi behar da arrapala nahiz eskailera mekanikoen edo tapiz gurpildunen soluzioa.

Herritarrek planteaturiko beste eskakizun bat etxebizitza irisgarria izatea da, hau da, higiezinaren kanpoaldetik gainditu ezin den arkitektura oztoporik ez egotea. Atal honetan, aipagarriak dira pertsona batzuek lehendik dauden eraikinetan **igogailuak** instalatu ahal izateko dituzten arazoak.

Kasu batzuetan, arkitektura oztopoa ezabatzeko soluzioa ez da egingarria eraikinaren barruan edo erkidegoko lursail pribatuaren barruan. Halako kasuetan, beharrezkoa da hori fatxadan itsastea eta erabilera publikoko lurzoruaren zati bat okupatzea. Neurri honek planteaturiko hirigintza arazoaren eraginez, beharrezkoa da interes publikoa hirigintza lursailen antolamendu egokian ondo haztatzea, eraikinaren irisgarritasuna ahalbidetzeko gizarte interesa ere aintzat hartzea. Administrazioek baloratu egin behar dute ea noiz baimendu ahal den bide publikoen okupazioa, horrek oinezkoen igarobideko zonak estutzen dituenen eta eraikinen eraketa nahiz estetika aldatzen dituenen.

Garraio publikoa autonomiaz eta berdintasun baldintzetan erabiltzea ezgaitasuna duten pertsonen eskakizun nagusienetarikoa da oraindik ere, eta Euskal Autonomia Erkidegoan

garraio publikoko zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresen erronka nagusia ere bada, une honetan garraioaren irisgarritasun unibertuala ez dago bermatuta, arlo horretan aurrerakuntza handiak egon diren arren.

Zergen arloan, pertsona ezinduak oraindik ere kezu dira udal batzuek trabak jartzen dituztelako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren zenbatekoan salbuespena aplikatzeko.

Hainbat kexa aurkeztu dituzte ezgaitu txartelaren titular diren mugikortasun urriko pertsonak, ibilgailua aparkatzerakoan dituzten zailtasunak salatzeke, gordetako plaza-kopurua eskasa delako edo zenbaitzuek ez dituztelako plaza horiek edo aparkatzeko txartela bera behar bezala erabiltzen.

2008an, honako hau eskatu duen kexa kopuruak gora egin du: **mugikortasun urri iraunkorreko pertsonentzat erreserbatutako etxebizitzetako eraikuntza akatsak** konpontzea. Kexa horietan salaturikoaren arabera, esleituriko etxebizitzak ez ditu betetzen irisgarritasuneko gutxieneko baldintzak, eta, beraz, esleipendunak ezin du etxebizitza independentziaz eta modu normalizatuan erabili.

Gorrek komunikabideak erabiltzeko arazoak salatu dituzte; euren ustez, ez da betetzen neurri teknikoaren plana aplikatzeko legezko betebeharra, hiritar guztiei komunikaziorako eskubidea bermatzen diona. Diotenez, telebista emisioko ordu kopuru gutxi dago gorrei bideratuta.

Azkenik, aipagarria da EAEko udalerrri askok onetsita dutela 1997ko Irisgarritasun Legean ezarritako lau urteko plana. Arartekoak Eusko Legebiltzarrean 2003an aurkezturiko txosten berezian adierazitakoaren arabera, EAEko zazpi udalerririk baino ez zuten bete plana egiteko legezko agindua. Orain, 10.000 biztanletik beherako 107 udalerririk lau urteko plana dute. Hala ere, legea onetsi denetik hamar urte igaro ondoren, irisgarritasuna bermatzeko tresna garrantzitsu hau ez duten udalerriei hori sortzeko esan behar diegu berriro.

4.6. ADINEKOEN ESKUBIDEAK

Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua

“Aginte publikoek, pentsio egoki eta aldizka eguneratuen bitartez, adineko pertsonen nahikotasun ekonomikoa bermatuko dute. Eta familiaren betebeharrak alde batera utzita, euren ongizatea sustatuko dute gizarte zerbitzu sistema baten bitartez, osasun, etxebizitza, kultura eta aisialdiko arazo espezifikoak konpontzeko.”

Adinekoek geroz eta talde ugariagoa eratzten dute –400.000 pertsona pasatxo–, euskal biztanleriaren % 20 inguru. Ondorioz, beharrezkoa da botere publikoek demografian igarritako errealtate horri eta arreta bereziki behar duen taldearen beharrei erantzutea.

Oraindik ere, EAEn hirugarren adinerako gizarte baliabide gutxi dago, baina horiek hiru lurraldeetan duten banaketa ez da berdina; hala ere, estaldura osoaren tasa, egoitza

zentroetan, eguneko zentroetan eta etxez etxeko laguntzan (adineko pertsonentzat), hazkunde nabaria izan du.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuari dagokionez, arau autonomiko espezifikoa behar da hori arautzeko, eta lortu behar diren laguntza mailak ezartzeko, zerbitzuak aukera berdintasunez eskuratzen direla bermatzeko. Lurraldean arteko desorekak ikusi dira, besteak beste, zerbitzuak lortzeko baldintzetan, prezio publikoaren finkapenean, familia unitate kontzeptuaren zehaztapenean (erabiltzaileak hartutako zerbitzuaren zenbatekoa kuantifikatzeko), laguntzako batez besteko ordu kopuruan edo zerbitzua asteburuetan edo oporretan ematean. Horren ondorioz, arauzko neurriak ez ezik, kudeaketakoak eta finantzakoak ere hartu behar dira, lurraldeen artean orain dauden desorekak arintzeko. Beharrezko neurriak hartu behar dira etxez etxeko laguntzaren estaldura maila egokia bermatzeko, bai estaldura-tasaren eta bai zerbitzuaren intentsitatearen ikuspegitik. Esan daiteke etxean lagundutako adineko pertsona kopuruak gora egin duela EAEn, baina hazkunde horrek ez du esan nahi, kasu guztietan, erabiltzaile bakoitzeko laguntza-ordu gehiago eskaintzen denik.

Adinekoentzako berritasun oso garrantzitsu bat, Gizarte Zerbitzuei buruzko ekainaren 25eko 8/2008 Legean ezarrita dagoena, pentsioduna oinarritzko errentaren titulartzat hartzea da, familia egoitzak diru-sarrerak dituen beste pertsona bat egon arren (ezkontidea izan ezik).

Kezkagarria da adinekoei emaniko tratu txarrak egotea edo haiei emaniko tratua behar bezalakoa ez izatea; oso errealitate opakoa da oraindik, eta antzematen zaila, baina gero eta ezagunagoa.

Amaitzeko azpimarratu nahi dugu 65 urtetik gorako hamar pertsonatik bakar batek duela egun erakundeen aldetiko nolabaiteko arretaren bat. Hori dela-eta, babeserako sare informala, adinekoaren senideak normalean –kasu gehienetan emakumeak–, kontuan hartu behar litzateke garatzen diren gizarte politketan.

Horri dagokionez, Mendetasunari buruzko 2006ko abenduaren 14ko Legeak eta hori garatu duen dekretuak prestazio ekonomikoa aurreikusi dute familia inguruan egindako zaintzetarako; horrela, onartu egiten da mendetasuna duen pertsonarekin (gehienbat, adineko pertsonekin) bizi diren familiako askok egiten duten ahalegin handia.

5. LABURBILKETA

Atal honek Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesaren egoeraren beharrezko balorazioa jasotzen du. Balorazio hori Konstituzioak onartutako eskubideak aztertuz egituratzen da, baina ondorioen atal bat izanik, ez ditu, noski, Arartekoaren jardueran gertatzen diren kontu guztiak agortu nahi.

Hori dela-eta, balorazio osatuagoak gainerako atalen gaineko jarraipena egitea ere eskatuko du, eta, batez ere, I. atalaren gainekoa. Izan ere, eremu bakoitzaren azterketan eremu material bakoitzeko benetako balorazioak biltzen dira eta kasu guztietan ez dira atal honetan laburbildu.

Halaber, bereziki behartsuak diren eta eskubideetan urradurak jasateko aukera gehiago dituzten talde batzuei eragiten dieten gaiak azter daitezke txostenen honen II. atala aztertuz.

Bestalde, IV. atalari esker eskubide batzuk aztertu ahal izango ditugu, 2008an egindako txosten monografikoen bitartez edo lantze fasean daudenen bitartez.

Edonola ere, espero dugu atal honetan eta txostenaren gainerakoetan bildutako diagnostikoa lagungarri izatea botere publikoentzat herritarren eskubideen defentsan neurri zehatzetan sakontzeko.



ERANSKINA


GRAFIKOAK






1. DIAGRAMA

ARARTEKOAK ZENBATETAN IKUSI DUEN JARDUERA OKERRA ADMINISTRAZIOAREN JOKAERAN 2008an BURUTUTAKO KEXETAN




2. DIAGRAMA

ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU-HARTZEA ZENBATERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA



3. DIAGRAMA

ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989 -2008)



¹ 545ek kexa berdinaren multzo bat osatzen dute.


² 1.143k kexa berdinaren 2 multzo osatzen dituzte.

³ 62k kexa berdinaren multzo bat osatzen dute.

⁴ 264k kexa berdinaren 2 multzo osatzen dituzte.


4. DIAGRAMA

2008an JASOTAKO KEXEN EGOERA ONARPEN PROZESUAREN ONDOREN




5. DIAGRAMA

ZUZENEAN BIDERATURIKO KEXEN BANAKETA, JARDUERA ALORREN ARABERA




6. DIAGRAMA

ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA, ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




7. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA, ALORREN ARABERA




8. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA, SAILEN ARABERA




9. DIAGRAMA

FORU ALDUNDIEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA, ALORREN ARABERA




10. DIAGRAMA

UDALEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA, ALORREN ARABERA




11. DIAGRAMA

LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA (1989-2008)



12. DIAGRAMA

LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA 10.000 BIZTANLEKO (1989-2008)






¹ Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

² Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

³ Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.


⁴ Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

⁵ Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.


13. DIAGRAMA**JASOTAKO KEXEN BANAKETA, KEXAGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA****14. DIAGRAMA****JASOTAKO KEXEN BANAKETA, ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA****15. DIAGRAMA****JASOTAKO KEXEN BANAKETA, AURKEZTEKO ERAREN ARABERA**

**2008an ARRETA ZUZENENKO BULEGOETAN JASOTAKO BISITAK
(KOPURUA ETA EZAUGARRIAK)**

16. DIAGRAMA




17. DIAGRAMA



18. DIAGRAMA


BANAKETA ADIN TALDEEN ARABERA





19. DIAGRAMA


KEXA BILAKATUTAKO BISITAK



OFIZIOZKO JARDUERAK (2008)


20. DIAGRAMA

BANAKETA ALORREZ ALOR



21. DIAGRAMA


ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA



KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)


22. DIAGRAMA

Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?



23. DIAGRAMA


Nolakoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik tramitazioa bukatu arteko denbora?




KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

24. DIAGRAMA

Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz erabaki edo proposatu duenarekin?




2008




2007

25. DIAGRAMA

Zure ustez, kexa sorrarazi zuen arazoa:



2008




2007

KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)


26. DIAGRAMA

Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)



27. DIAGRAMA


Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?




**EUREN ARAZOA "ez da konpondu" EDO "aski gaizki konpondu da"
ERANTZUN DUTEN KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAK IZANDAKO
ESKU-HARTZEARI BURUZ EGIN DUTEN BALORAZIOA**

28. DIAGRAMA

Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)




2008




2007

29. DIAGRAMA

Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?



2008



2007

ararteko

GAIEN AURKIBIDEA



**A****Abeltzaintza**

Hiltegiak

Diru-laguntzak, 73

Ikuskatzea, 73

Abeltzaintzako ustiategiak, 208

Abeltzaintzako ustiategiak, 208

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 194**Adin muga**

Adopzioa, 852

Adinagatiko bereizkeria

Nazioarteko adopzioa, 46, 852

Adinekoak, 336, 888

Berdintasunerako eskubidea, 863

Etxez etxeko laguntza, 336

Gizarte zerbitzuak

Egoitzak, 50, 51, 55

Tutoretzapeko apartamentuak, 50

Lana

Diru-laguntzak, 256, 852

Legeria, 49

Osasunerako eskubidea, 245, 677

Osasun prestazioak

Gurpil aulkiak, 245

Osohasun fisiko eta moralerako eskubidea, 714

Prestazio ekonomikoak, 49

Zerbitzu soziosanitarioak, 677

Adingabe atzerritarrak, 389, 532**Adingabe baztertuak**

Eskolatzea, 455

Adingabe etorkinak

Eskolatzea, 95, 452

Adingabe ijitoak

Eskolatzea, 453

Adingabe lege-hausleak, 438

Atxiloketa-zentroak, 172

Adingabeak, 48, 366, 880

Adingabe baztertuak

Eskolatzea, 455

- Adingabe etorkinak
 - Eskolatzea, 95, 452
- Adingabe ijitoak
 - Eskolatzea, 453
- Adingabe lege-hausleak, 438
 - Atxiloketa-zentroak, 172
- Adopzioa, 852
 - Eskolatzea, 94
- Babesik gabeko adingabeak, 368
 - Adingabe atzerritarrak, 389, 532
- Bakarrik dauden adingabe etorkinak, 49
 - Errolda, 49
 - Harrera-zentroak, 49
- Balioetan oinarritutako hezkuntza, 109
- Biltokiak, 188, 462
- Burutik gaixo dauden adingabeak, 455
- Egoitzak, 366
- Elkartzeko lokalak
 - Zarata, 205
- Eskolako indarkeria (bullying-a), 109, 459, 716
- Ezgaitasunen bat duten adingabeak
 - Eskolatzea, 450
- Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 718
- Gizarte taldeak, 471
- Gizarte zerbitzuak, 366, 532
- Harrera, 140
- Hezkuntza-premia bereziak, 100, 450, 490
 - Curriculuma norbanakoari egokitzea, 101, 450
 - Dislexia, 101
 - Hezkuntzan laguntzeko espezialistak, 120
- Hezkuntzarako eskubidea, 93, 366
- Ikastetxeak
 - Ikasleak onartzea, 98, 851
- Kultura arteko bitartekotza, 48
- LGBT pertsonak, 593
 - Hezkuntzarako eskubidea, 109
- Mantenu-pentsioak, 49
- Nazioarteko adopzioa
 - Adin muga, 46, 852
- Norberaren datuak, 469
- Osasunerako eskubidea, 245, 491, 492, 857
- Osasun prestazioak
 - Gurpil aulkiak, 245, 491, 492, 857
- Partekatutako zaintza, 187
- Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 448
- Udalekuak, 87

Administrazio egoerak

- Borondatezko eszedentzia, 125, 858
- Seme-alabak zaintzeko eszedentzia, 124

Administrazio erregistroak

- Informaziorako eskubidea, 851

Administrazio kontratazioa, 220

Funtzio publikoa, 129

Laneko segurtasuna eta osasuna, 220, 846

Tokiko administrazioen ondasun publikoak, 220, 854

Administrazioa kontrolatzea

Atmosferako kutsadura, 201

Kutsadura akustikoa, 201

Polizia, 164

Tratu txarrak, 164

Administrazioaren erantzukizuna

Herri lanak, 221, 855

Kalte-ordainak

Frankismoaren biktimak, 285

Udal zerbitzu publikoak, 222, 853, 854, 855

Zerbitzu publikoak, 76, 221

Administrazioaren isiltasuna

Udal zerbitzu publikoak, 222, 847, 853

Adopzioa

Adin muga, 852

Eskolatzea, 94

Afiliazio kuotak

PFEZ, 137

Aldi baterako kontratazioa

Informaziorako eskubidea, 122, 846

Alokairuak

Babes ofizialeko etxebizitzak, 279

Animaliak babestea

Jendaurreko ikuskizunak, 232, 851

Kultur adierazpenak, 232, 851

Udal zerbitzu publikoak, 232, 854

Zerbitzu publikoak

Gune zoologikoak, 231

Animaliak edukitzea, 231**Aparkalekuak, 847****Araztegiak**

Hirigintzako plangintza, 224

Atmosferako kutsadura

Administrazioa kontrolatzea, 201

Ikuskatzea, 201

Industria, 846

Keak eta usainak, 201

Atxiloketa-zentroak

Adingabe lege-hausleak, 172

Bideo grabaketak, 172

Polizia, 172

Atxilotuak, 870

Atxiloketa-zentroak, 172

Tortura, 189

Tratu txarrak, 189

Atzerritarrak

Berdintasunerako eskubidea, 863

Aurretiazko borondateak

Bizi-testamentua, 246

Aurrez egindako ordainketa

Trafikoa eta bide segurtasuna, 157, 158, 492

B**Babes bereziko taldeak**

Adinekoak, 336

Berdintasunerako eskubidea, 863

Etxez etxeko laguntza, 336

Gizarte zerbitzuak, 50, 485

Lana, 256, 852

Legeria, 49

Osasunerako eskubidea, 245

Osasun prestazioak, 245

Osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, 714

Prestazio ekonomikoak, 49

Zerbitzu soziosanitarioak, 677

Adingabeak, 48

Adingabe atzeritarrak, 532

Adingabe baztertuak, 455

Adingabe etorkinak, 95, 452

Adingabe ijitoak, 453

Adingabe lege-hausleak, 172

Adopzioa, 94, 852

Bakarrik dauden adingabe etorkinak, 49

Balioetan oinarritutako hezkuntza, 109

Biltokiak, 188, 462

Burutik gaixo dauden adingabeak, 455

Egoitzak, 366

Elkartzeko lokalak, 205

Eskolako indarkeria (bullying-a), 109, 459, 593, 716

Ezgaitasunen bat duten adingabeak, 450

Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 718

Gizarte taldeak, 471

Gizarte zerbitzuak, 366, 532

Harrera, 140

Hezkuntza-premia bereziak, 100, 101, 120, 450, 490

Hezkuntzarako eskubidea, 93, 366

Ijitoak, 548

Ikastetxeak, 98, 851

Kultura arteko bitartekotza, 48

LGBT pertsonak, 109, 593

Mantenu-pentsioak, 49

Osasunerako eskubidea, 245, 491, 492, 857

Osasun prestazioak, 245, 491, 492, 857

Partekatutako zaintza, 187

Udalekuak, 87

Atxilotuak, 870

Atxiloketa-zentroak, 172

Tortura, 189

Tratu txarrak, 189

- Atzerritarrak
 - Berdintasunerako eskubidea, 863
- Baztertuak, 557, 720
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 279, 532
 - Berdintasunerako eskubidea, 863
 - Emakumeak, 326
 - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 855
 - Gizarteratzeko diru-sarrerak, 31
 - Herritarren bizikidetasuna, 286
 - Prestazio ekonomikoak, 66
 - Udal zerbitzu publikoak, 45, 215, 543, 544, 545, 557, 558, 559, 849, 850, 854, 855, 858
 - Zerbitzu soziosanitarioak, 560
- Burutik gaixo daudenak, 583, 615, 717
 - Berdintasunerako eskubidea, 863
 - Gizarte taldeak, 615
 - Mendeko pertsonak, 615
 - Osasuna, 615
 - Osasunerako eskubidea, 243
 - Tratamendu ambulatorioa, 243, 615
 - Zerbitzu soziosanitarioak, 615
- Emakumeak
 - Administrazio egoerak, 124
 - Baztertuak, 326
 - Bularreko minbizia, 248
 - Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 293
 - Emakumeen kontrako indarkeria, 169, 294, 548, 750
 - Funtzio publikoa, 115, 116
 - Gizarte eskubideak, 321
 - Jaiak eta ospakizun publikoak, 311
 - Lana, 321
 - Lan-baldintzak, 122, 123, 321, 847
 - Lanbidea eta familiako bitzta bateratzea, 314, 857
 - Ordezkaritza karguak, 323
 - Osasunerako eskubidea, 248
 - Osasun prestazioak, 326
 - Sexuagatiko bereizkeria, 310
- Espetxeratuak, 599, 875
 - Berriro gizarteratzeko eskubidea, 188
 - Buru-hiltzeak, 846
 - Espetxeak, 599
 - Espetxeko sistema, 599
 - Espetxeko trataera, 599
 - Espetxe-zigorraren ordeko neurriak, 599
 - Gaixotasun terminala duten pertsonak, 599
 - Gizarte taldeak, 599
 - Lekualdatzeak, 599
 - Parte hartzeko eskubidea, 599
- Etorkinak, 509
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 279, 532
 - Bizileku-askatasunerako eskubidea, 512, 523, 529
 - Gizarte taldeak, 538

- Gizarte zerbitzuak, 535
- Irisgarritasuna, 528
- Lana, 512
- Legeria, 509
- Tratu txarrak, 161, 532
- Udal zerbitzu publikoak, 525
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 477, 847, 848, 853, 854
 - Aparkalekuak, 492
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 281
 - Baztertuak, 736
 - Berdintasunerako eskubidea, 863
 - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 264, 479, 489
 - Euskal Herriko Unibertsitatea, 148, 487
 - Funtzio publikoa, 493
 - Gizarte eskubideak, 485
 - Gizarte zerbitzuak, 485
 - Herri lanak, 477
 - Hirigintza, 477
 - Ikastetxeak, 104, 490
 - Irisgarritasuna, 266, 281, 477, 494, 496
 - Laguntzak, 63, 85, 485
 - Lana laguntzailearekin, 493
 - Legeria, 63, 485
 - Osasunerako eskubidea, 246, 491
 - Osasun prestazioak, 246, 491
 - PFEZ, 135, 137, 487, 858
 - TMIZ, 145, 487
 - Tutoretza, 738
 - Zerbitzu publikoak, 225, 477
- Familia
 - Etorkinak, 529
 - Familia ugariak, 66, 228, 257
 - Laguntzak, 64
 - PFEZ, 140
- Gaixo kronikoak, 615
 - Berdintasunerako eskubidea, 863
 - Burutik gaixo daudenak, 615
 - Osasun tratamenduak, 242
 - Prestazio soziosanitarioak, 243
 - Zerbitzu soziosanitarioak, 677
- Gazteak
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 279
 - Elkartzeko lokalak, 205
- Herritarren bizikidetasuna
 - Etorkinak, 535
- Ijitoak, 541
 - Adingabeak, 548
 - Berriro bizilekua ematea, 548
 - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 62, 543, 548
 - Kulturagatiko bereizkeria, 541
 - Parte hartzeko eskubidea, 541
 - Udal zerbitzu publikoak, 545, 858

- LGBT pertsonak, 593, 699, 863
 - Adingabeak, 109
- Mendeko pertsonak
 - Etkez etxeko laguntza, 336
 - Legeria, 35, 487
 - Prestazio ekonomikoak, 35, 487
 - Zerbitzu soziosanitarioak, 677
 - Ziurtagiriak, 47
- Terrorismoaren biktimak, 589, 699

Babes ofizialeko etxebizitzak

- Akatsak, 280
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 281
- Alokairuak
 - Baztertuak, 279, 532
 - Etorkinak, 279, 532
 - Gazteak, 279
- Diru zigorrak, 277, 851
- Esleipena, 282
- Etxebizitza tasatuak, 281
- Irisgarritasuna, 281
- Jabetza pribaturako eskubidea, 276, 851
- Legeria, 276
- OEZ, 142
- Salerosketa
 - Prezioak, 848, 851

Babesik gabeko adingabeak, 368**Bakarrik dauden adingabe etorkinak, 49**

- Errola, 49
- Harrera-zentroak, 49

Baldintza beretan sartzeko eskubidea, 872

- Funtzio publikoa, 113, 118

Balio Erantsiaren gaineko Zerga

- Kenkariak
 - Diru-laguntzak, 142

Balio katastrala

- OHZ, 143

Balioetan oinarritutako hezkuntza

- Hezkuntzarako eskubidea, 109

Banantzea eta dibortzioa

- Biltokiak, 188, 462
- Mantenu-pentsioak, 49
- Partekatutako zaintza, 187
- Prozedura zibila, 187

Baztertuak, 557, 720

- Babes ofizialeko etxebizitzak
 - Alokairuak, 279, 532
- Berdintasunerako eskubidea, 863
- Emakumeak, 326
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 855
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 736
 - Tutoretza, 738

- Gizarteratzeko diru-sarrerak
 - Legeria, 31
- Gizarte taldeak, 578
- Herritarren bizikidetasuna, 286
- Prestazio ekonomikoak, 66
 - Gizarte behar larrietarako laguntzak, 66
 - Oinarrizko errenta, 66
- Udal zerbitzu publikoak
 - Dutxak, 559, 855
 - Errolda, 45, 215, 543, 544, 545, 557, 558, 849, 850, 854, 858
 - Zerbitzu soziosanitarioak, 560

Bekak

- Hezkuntzarako eskubidea, 109

Berandutze interesak

- PFEZ, 139

Berdintasun printzipioa

- Adinagatiko bereizkeria
 - Nazioarteko adopzioa, 46, 852
- Adopziogileak
 - Adin muga, 852

Berdintasunerako eskubidea, 863

- Adinagatiko bereizkeria
 - Nazioarteko adopzioa, 46, 852
- Adopziogileak
 - Adin muga, 852
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 863
- Etorkinak, 509
 - Funtzio publikoa, 114, 532
- Familia
 - PFEZ, 140
- Ijitoak, 541
 - Kulturagatiko bereizkeria, 541
- LGBT pertsonak, 863

Bereizkeriarik ez jasateko eskubidea, 863

- Adinagatiko bereizkeria
 - Nazioarteko adopzioa, 46, 852
- Etorkinak
 - Funtzio publikoa, 114, 532
- Ezgaitasunagatiko bereizkeria
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 477
- Gizarte egoeragatiko bereizkeria
 - Baztertuak, 557, 720
- Identitate sexualagatiko bereizkeria
 - LGBT pertsonak, 593, 699, 863
- Jatorriagatiko bereizkeria
 - Etorkinak, 509, 535
- Kulturagatiko bereizkeria
 - Ijitoak, 541
- Sexuagatiko bereizkeria
 - Emakumeak, 310, 863

Berriro bizilekua ematea

- Hiria biziberritzea, 263, 548
- Legeria, 262

Berri gizarteratzeko eskubidea

- Espetxeratuak, 188, 875
- Espetxeak, 599
- Espetxeko sistema, 599
- Espetxeko trataera, 599
- Espetxe-zigorren ordezeko neurriak, 599
- Gaixotasun terminala duten pertsonak, 599
- Gizarte taldeak, 599
- Lekualdatzeak, 599
- Parte hartzeko eskubidea, 599

Bidegabeko atzerapenak

- Justizia, 186

Bideo grabaketak

- Atxiloketa-zentroak, 172

Biltokiak, 188, 462**Bizi-testamentua**

- Aurretiazko borondateak, 246

Bizileku-askatasunerako eskubidea

- Baztertuak
 - Udal zerbitzu publikoak, 45, 215, 543, 544, 545, 557, 558, 849, 850, 854, 858
- Etorkinak, 512
 - Familia, 529
 - Udal zerbitzu publikoak, 525
- Ijitoak
 - Udal zerbitzu publikoak, 545, 858

Bizitzeko eskubidea, 868

- Emakumeak, 294, 750
- Espetxeratuak
 - Buru-hiltzeak, 846
- Terrorismoaren biktimak, 589, 699

Boluntarioak

- Gizarte zerbitzuak, 688
- Lana, 688

Buru-hiltzeak

- Espetxeratuak, 846

Burutik gaixo daudenak, 615, 717

- Berdintasunerako eskubidea, 863
- Mendeko pertsonak, 615
- Osasuna, 615
- Osasunerako eskubidea, 243, 244
- Osasun prestazioak, 244
- Tratamendu ambulatorioa, 243, 615
- Tutoretza, 583, 615

Burutik gaixo dauden adingabeak, 455**C****Curriculum norbanakoari egokitzea**

- Hezkuntza-premia bereziak, 101, 450

D**Demokrazia ordezkatzailerak**

- Emakumeak, 323

Diru-laguntzak

BEZa, 142

Hiltegiak, 73

Lana

Adinekoak, 256, 852

Diru zigorrak

Babes ofizialeko etxebizitzak, 277, 851

Trafikoa eta bide segurtasuna, 155

Aurrez egindako ordainketa, 157, 158, 492

Jakinarazpenak, 156

Prozedura tipoa, 156

Zigorrak betearaztea, 158

Dislexia

Hezkuntza-premia bereziak, 101

E**Ebatzi beharra**

Udal zerbitzu publikoak, 222, 847, 853

Egoitzak

Adinekoak, 50, 51, 55, 485

Adingabeak, 366

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 485

Ehiza

Lizentziak eta baimenak, 74

EITB

Irisgarritasuna

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 494

Elebitasuna

Euskara eta funtzio publikoa, 119

Hizkuntz eskakizunak, 127

Euskara eta irakaskuntza, 95, 98, 119

Euskara eta justizia, 81, 190

Euskara eta osasuna, 82

Euskara eta polizia, 81

Euskara eta trafikoa eta bide segurtasuna, 82

Elkargo ofizialak

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 197, 858

Psikologoaren elkargoak, 195, 197, 850

Emakumeak

Administrazio egoerak

Seme-alabak zaintzeko eszedentzia, 124

Baztertuak, 326

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 293

Legeria, 293

Emakumeen kontrako indarkeria, 294, 750

Ijitoak, 548

Polizia, 169

Funtzio publikoa, 116

Haurdunaldia, 115

Gizarte eskubideak, 321

Jaiak eta ospakizun publikoak, 311

Lana, 321
 Lan-baldintzak
 Haurdunaldia, 122, 123, 321, 847
 Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea
 Laguntzak, 314, 857
 Ordezkaritza karguak, 323
 Osasunerako eskubidea, 248, 326
 Osasun prestazioak, 326
 Bularreko minbizia, 248
 Sexuagatiko bereizkeria, 310
 Hizkera sexista, 313

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 293, 863

Biltokiak, 188, 462
 Emakumeen kontrako indarkeria, 294, 749
 Ijitoak, 548
 Polizia, 169
 Funtzio publikoa
 Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 122, 123, 124, 321, 847
 Sarbidea, 115, 116
 Jaiak eta ospakizun publikoak, 311
 Laguntzak
 Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 314, 857
 Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea
 Funtzio publikoa, 122, 321
 Kontsulta medikoak, 238
 Laguntzak, 65
 Lanaldia, 257
 Legeria, 293, 328
 Mantenu-pentsioak, 49
 Ordezkaritza karguak, 323
 Partekatutako zaintza
 Adingabeak, 187
 Sexuagatiko bereizkeria, 310
 Hizkera sexista, 313

Emakumeen kontrako indarkeria

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 294, 749
 Ijitoak, 548
 Polizia
 Tratu desegokia, 169

Energia elektrikoa

Tarifak, 74

Erregistro zibila

Elebitasuna, 81
 Tratu egokia, 184

Erretiroak

Ezkutuko ikastolak, 126
 Funtzio publikoa, 126

Errolda

Udal zerbitzu publikoak, 45, 215, 525, 543, 849, 850, 858
 Bakarrik dauden adingabe etorkinak, 49
 Ikasleak onartzea, 97

Eskatzaileen erregistroa

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 278, 666, 857

Eskola-garraioa

Hezkuntzarako eskubidea, 105

Eskola-jantokiak

Hezkuntzarako eskubidea, 107

Eskolako indarkeria (bullying-a)

Adingabeak

LGBT pertsonak, 593

Hezkuntzarako eskubidea, 109, 459, 716

Eskolatzea

Adingabe baztertuak, 455

Adingabe etorkinak, 95, 452

Adingabe ijitoak, 453

Adopzioa, 94

Ezgaitasunen bat duten adingabeak, 450

Ikasleak onartzea, 96

Familia, 98

Haur hezkuntza, 96

Ikastetxeak

Instalazioak, 94

Espaloiak, 848, 853, 854**Espetxeak, 599**

Espetxeratuak, 599

Espetxeko sistema, 599**Espetxeko trataera, 599****Espetxeratuak, 599, 875**

Berriro gizarteratzeko eskubidea, 188

Buru-hiltzeak, 846

Espetxeak, 599

Espetxeko sistema, 599

Espetxeko trataera, 599

Espetxe-zigorraren ordezeko neurriak, 599

Gaixotasun terminala duten pertsonak, 599

Gizarte taldeak, 599

Lekualdatzeak, 599

Parte hartzeko eskubidea, 599

Etorkinak, 509

Babes ofizialeko etxebizitzak

Alokairuak, 279, 532

Bizileku-askatasunerako eskubidea

Baimenak, 512, 529

Gizartean sustraitzea, 523

Funtzio publikoa

Sarbidea, 114, 532

Gizarte taldeak, 538

Gizarte zerbitzuak, 535

Irisgarritasuna, 528

Lana

Baimenak, 512

Legeria, 509

Tratu txarrak

Polizia, 161, 532

Udal zerbitzu publikoak

Errolda, 525

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 262, 275, 885

- Babes ofizialeko etxebizitzak, 142
 - Akatsak, 280
 - Alokairuak, 279
 - Diru zigorrak, 277, 851
 - Esleipena, 282
 - Etxebizitza tasatuak, 281
 - Legeria, 276
 - Salerosketa, 851
- Baztertuak, 855
- Eskatzaileen erregistroa, 278, 666, 857
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
 - Igogailuak, 479
 - Igogailuak, 859
 - Ijitoak, 62, 543, 548
 - Jabetza pribaturako eskubidea, 276, 490, 851
 - Legeria, 262, 275
 - Berriro bizilekua ematea, 262
 - Ingurumen egokia izateko eskubidea, 266
 - Irisgarritasuna, 264, 479, 489

Etxebizitza tasatuak

- Prezioak, 281

Etxez etxeko laguntza

- Adinekoak, 336
- Mendeko pertsonak, 336

Euskal Herriko Unibertsitatea

- Prezio publikoak, 148, 487
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 148, 487
- Titulazioak
 - Ingeniaritza elektronikoa, 77

Euskara eta funtzio publikoa

- Hizkuntz eskakizunak, 127
- Ordezkapenak, 119

Euskara eta irakaskuntza, 95

- Funtzio publikoa
 - Ordezkapenak, 119
- Hizkuntzen irakaskuntza, 95
- Hizkuntz ereduak
 - Oinarrizko hezkuntza, 98

Euskara eta justizia

- Elebitasuna, 190
- Erregistro zibila, 81

Euskara eta osasuna, 82**Euskara eta polizia, 81****Euskara eta trafikoa eta bide segurtasuna**

- Seinaleak, 82

Ezgaitasunen bat duten adingabeak

- Eskolatzea, 450

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 104, 477, 847, 848, 853, 854, 887

- Aparkalekuak, 492
- Babes ofizialeko etxebizitzak
 - Akatsak, 281

Baztertuak, 736
 Tutoretza, 738
 Berdintasunerako eskubidea, 863
 EITB, 494
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 859
 Euskal Herriko Unibertsitatea
 Prezio publikoak, 148, 487
 Ezintasunagatiko pentsioak
 PFEZ, 135
 Ezintasunagatiko prestazioak
 PFEZ, 137, 858
 Funtzio publikoa, 493
 Gizarte eskubideak, 485
 Gizarte zerbitzuak
 Egoitzak, 485
 Herri lanak, 477
 Hirigintza, 266, 477, 496
 Ikastetxeak, 490
 Irisgarritasuna, 225, 266, 281, 477, 496
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 264, 479, 489
 Izogailuak, 477
 Laguntzak, 63, 485
 Kirola, 85
 Lana laguntzailearekin, 493
 Legeria, 63, 485
 Osasunerako eskubidea, 246, 491
 Osasun prestazioak
 Gurpil aulkiak, 491
 Inplante koklearrak, 246, 491
 Prestazio ekonomikoak, 70
 TMIZ
 Murrizketak, 145, 487
 Zerbitzu publikoak, 225, 477, 496
 Garraioak, 480, 481

Ezintasunagatiko pentsioak

Ezintasunagatiko prestazioak
 PFEZ, 487
 PFEZ, 135, 487

Ezkatuko ikastolak

Erretiroak, 126

F**Familia, 880**

Etorkinak
 Bizileku-askatasunerako eskubidea, 529
 Familia ugariak, 66, 228, 257
 Laguntzak, 64
 PFEZ
 Mantenu-pentsioak, 140

Familia ugariak

Garraioak, 228

Feriak eta azokak

Kalez kaleko salmenta, 76

Foru zergak

- BEZa
 - Kenkariak, 142
- OEZ, 142
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 142
- PFEZ, 135
 - Baterako aitortpena, 140
 - Berandutze interesak, 139
 - Ezintasunagatiko pentsioak, 135, 487
 - Ezintasunagatiko prestazioak, 137, 858
 - Kenkariak, 137
 - Legeria, 135

Frankismoaren biktimak

- Kalte-ordainak, 285

Funtzio publikoa

- Administrazio egoerak
 - Borondatezko eszedentzia, 125, 858
 - Seme-alabak zaintzeko eszedentzia, 124
- Administrazio kontratazioa, 129
- Erretiroak, 126
 - Ezkutuko ikastolak, 126
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
 - Lana laguntzailearekin, 493
- Lan-baldintzak
 - Haurdunaldia, 123, 321, 847
- Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 122, 321
- Laneko jazarpena (mobbing-a), 130
- Lekualdatze-lehiaketa
 - Merezimenduak, 118
- Ordainsariak
 - Itzulketak, 127
 - Osagarriak, 127
- Ordezkapenak
 - Bateragarritasuna, 120
 - Euskara eta funtzio publikoa, 119
 - Euskara eta irakaskuntza, 119
 - Hezkuntzan laguntzeko espezialistak, 120
 - Informaziorako eskubidea, 122, 846
- Sarbidea, 113
 - Arrazoitu beharra, 114
 - Betekizunak, 114, 532
 - Emakumeak, 116
 - Epaia betearaztea, 117
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 493
 - Froga balioztatzea, 114
 - Haurdunaldia, 115
 - Merezimenduak, 116

G**Gaixo kronikoak, 615**

- Berdintasunerako eskubidea, 863
- Burutik gaixo daudenak, 243, 244, 615

Gizarte taldeak, 615
 Osasunerako eskubidea, 677
 Osasun tratamenduak
 Errehabilitazioa, 242
 Tratamendu anbulatorioa, 243
 Prestazio soziosanitarioak, 243

Garapen iraunkorra

Hirigintzako plangintza, 268, 656

Garraioak

Familia ugariak, 228
 Hezkuntzarako eskubidea, 109
 Hirigintzako plangintza, 224
 Irisgarritasuna, 480, 481
 Osasun-garraioa, 239
 Zerbitzu publikoak, 226

Gasa

Ikuskatzea
 Tarifak, 74

Gazteak

Babes ofizialeko etxebizitzak
 Alokairuak, 279
 Elkartzeko lokalak
 Zarata, 205

Giza eskubideak

Adinekoak, 888
 Adingabeak, 366, 472
 Adingabe atzerritarrak, 532
 Kultura arteko bitartekotza, 48
 Berdintasunerako eskubidea
 Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 863
 Etorkinak, 114, 532
 Bereizkeriarik ez jasateko eskubidea, 863
 Adinagatiko bereizkeria, 46, 852
 Gizarte egoeragatiko bereizkeria, 557, 720
 Identitate sexualagatiko bereizkeria, 593, 699
 Jatorriagatiko bereizkeria, 509
 LGBT pertsonak, 863
 Sexuagatiko eskubidea, 863
 Bizitzeko eskubidea, 868
 Emakumeak, 294, 750
 Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 863
 Legeria, 328
 Espetxeratuak, 599, 875
 Buru-hiltzeak, 846
 Etorkinak
 Bizileku-askatasunerako eskubidea, 512, 523, 529
 Irisgarritasuna, 528
 Lana, 512
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 275, 276, 278, 490, 666, 851, 857, 885
 Baztertuak, 855
 Legeria, 262
 Euskara eta trafikoa eta bide segurtasuna, 82
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 477, 887

- Gaixo kronikoak, 615
 - Burutik gaixo daudenak, 615
- Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 718
- Gizarte taldeak, 703
- Herriaren defentsa erakundeak, 750
- Hezkuntzarako eskubidea, 876
- Hizkuntz eskubideak
 - Euskara eta funtzio publikoa, 119, 127
 - Euskara eta irakaskuntza, 95, 98, 119
 - Euskara eta justizia, 81, 190
 - Euskara eta osasuna, 82
 - Euskara eta polizia, 81
- Ijitoak, 541
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 201, 884
- Intimitaterako eskubidea, 872
 - PFEZ, 137
- Kontaminazioak eragindako pertsonak, 201
- LGBT pertsonak, 593, 699
- Migratzeko eskubidea, 509
- Osasunerako eskubidea, 882, 884
- Osoasun fisiko eta moralerako eskubidea, 868
 - Atxilotuak, 189
 - Emakumeak, 169, 294, 548, 750
 - Tratu txarrak, 160, 189
- Terrorismoaren biktimak, 589, 699
- Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 699, 718**
- Gizarte behar larrietarako laguntzak, 66**
- Gizarte egoeragatiko bereizkeria**
 - Baztertuak, 557, 720
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 736
- Gizarte ekintza**
 - Herritarren bizikidetasuna, 70
 - Prozedura administratiboa, 46
- Gizarte eskubideak**
 - Adinekoak, 49, 336, 888
 - Etxez etxeko laguntza, 336
 - Osasunerako eskubidea, 677
 - Tratu txarrak, 714
 - Adingabeak, 366, 880
 - Adingabe atzerritarrak, 532
 - Adopzioa, 852
 - Harrera, 140
 - Kultura arteko bitartekotza, 48
 - Udalekuak, 87
 - Baztertuak, 557, 720
 - Emakumeak, 326
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 736
 - Gizarteratzeko diru-sarrerak, 31
 - Osasunerako eskubidea, 559, 855
 - Prestazio ekonomikoak, 66
 - Udal zerbitzu publikoak, 45, 215, 543, 849, 850, 858
 - Zerbitzu soziosanitarioak, 560

- Emakumeak, 321
- Espetxeratuak, 599
- Etorkinak, 509
 - Legeria, 509
 - Udal zerbitzu publikoak, 525
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 275, 859, 885
 - Alokairuak, 279
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 142, 277, 851
 - Baztertuak, 855
 - Eskatzaileen erregistroa, 278, 666, 857
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 264, 479, 489
 - Ijitoak, 62, 543, 548
 - Jabetza pribaturako eskubidea, 276, 490, 851
 - Legeria, 262
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 477, 485, 847, 848, 853, 854, 887
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 281
 - Euskal Herriko Unibertsitatea, 148, 487
 - Irisgarritasuna, 225, 266, 281, 477, 481, 496
 - Laguntzak, 63, 85, 485
 - PFEZ, 135, 137, 487, 858
 - Prestazio ekonomikoak, 70
 - TMIZ, 145, 487
- Familia, 880
 - Familia ugariak, 66, 228, 257
 - Laguntzak, 64
 - PFEZ, 140
- Gaixo kronikoak, 615
 - Burutik gaixo daudenak, 615
 - Osasunerako eskubidea, 677
- Garapen iraunkorra, 268, 656
- Gizarte taldeak, 703
- Gizarte zerbitzuak
 - Boluntarioak, 688
- Ijitoak, 541
 - Udal zerbitzu publikoak, 545, 858
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 884
 - Atmosferako kutsadura, 201, 846
 - Herri lanak, 224, 225
 - Industriako kutsadura, 205
 - Ingurumen-inpaktua ebaluatzea, 655
 - Isurketak, 271
 - Kutsadura akustikoa, 201
- Kultura ondarea, 87, 857
- Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea
 - Funtzio publikoa, 122, 321
 - Kontsulta medikoak, 238
 - Laguntzak, 65
 - Lanaldia, 257
- LGBT pertsonak, 593, 699
- Mendeko pertsonak
 - Etxez etxeko laguntza, 336
 - Osasunerako eskubidea, 677
 - Prestazio ekonomikoak, 35, 487

- Osasunerako eskubidea, 677, 882
 - Adinekoak, 245
 - Adingabeak, 245, 491, 492, 857
 - Aurretiazko borondateak, 246
 - Baztertuak, 560
 - Burutik gaixo dauden adingabeak, 455
 - Burutik gaixo daudenak, 243, 244, 615
 - Emakumeak, 248, 326
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 246, 491
 - Gaixo kronikoak, 242
 - Isurketak, 271
 - Kontaminazioak eragindako pertsonak, 201, 205
 - Osasun laguntza, 239
 - Tabakismoa, 251
- Prestazio soziosanitarioak, 243
- Gizarte eta ekonomi politikaren printzipio gidariak, 224**
 - Adinekoak, 49, 336, 888
 - Etkez etxeko laguntza, 336
 - Osasunerako eskubidea, 677
 - Tratu txarrak, 714
 - Adingabeak, 366, 880
 - Adingabe atzerritarrak, 532
 - Adopzioa, 852
 - Harrera, 140
 - Kultura arteko bitartekotza, 48
 - Udalekuak, 87
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 142
 - Baztertuak, 557, 720
 - Emakumeak, 326
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 736
 - Gizarteratzeko diru-sarrerak, 31
 - Prestazio ekonomikoak, 66
 - Udal zerbitzu publikoak, 45, 215, 543, 849, 850, 858
 - Zerbitzu soziosanitarioak, 560
 - Emakumeak, 321
 - Espetxeratuak, 599
 - Etorkinak, 509
 - Legeria, 509
 - Udal zerbitzu publikoak, 525
 - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 275, 859, 885
 - Alokairuak, 279
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 277, 851
 - Baztertuak, 855
 - Eskatzaileen erregistroa, 278, 666, 857
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 264, 479, 489
 - Ijitoak, 62, 543, 548
 - Jabetza pribaturako eskubidea, 276, 490, 851
 - Legeria, 262
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 477, 485, 847, 848, 853, 854, 887
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 281
 - Euskal Herriko Unibertsitatea, 148, 487
 - Irisgarritasuna, 225, 266, 281, 477, 481, 496

- Laguntzak, 63, 85, 485
- PFEZ, 135, 137, 487, 858
- Prestazio ekonomikoak, 70
- TMIZ, 145, 487
- Familia, 880
 - Familia ugariak, 66, 228, 257
 - Laguntzak, 64
 - PFEZ, 140
- Gaixo kronikoak, 615
 - Burutik gaixo daudenak, 615
 - Osasunerako eskubidea, 677
- Garapen iraunkorra, 268, 656
- Gizarte taldeak, 703
- Gizarte zerbitzuak
 - Boluntarioak, 688
- Ijitoak, 541
 - Udal zerbitzu publikoak, 545, 858
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 884
 - Atmosferako kutsadura, 201, 846
 - Herri lanak, 224, 225
 - Industriako kutsadura, 205
 - Ingurumen-inpaktua ebaluatzea, 655
 - Isurketak, 271
 - Kutsadura akustikoa, 201
- Kultura ondarea, 87, 857
- Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea
 - Funtzio publikoa, 122, 321
 - Kontsulta medikoak, 238
 - Laguntzak, 65
 - Lanaldia, 257
- LGBT pertsonak, 593, 699
- Mendeko pertsonak
 - Etkez etxeko laguntza, 336
 - Osasunerako eskubidea, 677
- Osasunerako eskubidea, 882
 - Adinekoak, 245
 - Adingabeak, 245, 491, 492, 857
 - Aurretiatzko borondateak, 246
 - Baztertuak, 560
 - Burutik gaixo dauden adingabeak, 455
 - Burutik gaixo daudenak, 243, 244
 - Emakumeak, 248, 326
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 246, 491
 - Gaixo kronikoak, 242
 - Industriako kutsadura, 205
 - Isurketak, 271
 - Kontaminazioak eragindako pertsonak, 201
 - Osasun laguntza, 239
 - Tabakismoa, 251
- Prestazio soziosanitarioak, 243
- Zerbitzu soziosanitarioak
 - Legeria, 677

Gizarte Segurantza

Laneko istripuak, 255

Gizarte taldeak, 703

Adingabeak, 471

Baztertuak, 578

Errolda, 578

Zerbitzu soziosanitarioak, 578

Burutik gaixo daudenak, 615

Espetxeratuak, 599

Etorkinak, 538

Gaixo kronikoak, 615

LGBT pertsonak, 593

Gizarte zerbitzuak

Adinekoak, 50, 336, 485

Etxez etxeko laguna, 336

Tratu txarrak, 714

Adingabeak, 366, 532

Adingabe lege-hausleak, 438

Babesik gabeko adingabeak, 368, 389, 532

Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 448

Boluntarioak, 688

Egoitzak, 485

Etorkinak, 535

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 485

Legeria, 27

Mendeko pertsonak

Etxez etxeko laguntza, 336

Zerbitzu soziosanitarioak, 677

Baztertuak, 560

Burutik gaixo daudenak, 615

Gizartean sustraitzea

Etorkinak, 523

Gizarteratzeko diru-sarrerak

Legeria, 31

Grebarako eskubidea

Gizarte zerbitzuak, 51

Gune zoologikoak, 231**H****Harrera**

PFEZ, 140

Harrera-zentroak

Bakarrik dauden adingabe etorkinak, 49

Haur hezkuntza

Errolda, 97

Herriaren defentsa erakundeak

Europar Batasuna, 747

Giza eskubideak, 750

Herrizaingoa, 170

Ombudsmana, 170

Herri lanak

Administrazioaren erantzukizuna, 221, 855
 Araztegiak, 224
 Azpiegiturak, 224
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 477
 Garraioak, 224
 Industrialdeak, 225
 Irigarritasuna, 225, 496
 Uholdeak, 225

Herritarren bizikidetasuna

Baztertuak, 286
 Etorkinak, 535
 Gizarte ekintza, 70
 Kulturagatiko bereizkeria
 Ijitoak, 547

Herritarren eskubideak eta betebeharrak

Informaziorako eskubidea
 Funtzio publikoa, 122, 846
 Hirigintzako plangintza, 268, 656
 Jabetza pribaturako eskubidea, 879
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 276, 490, 851
 Hirigintza, 271
 Zergen arloko berdintasuna, 878

Herrizaingoa

Herriaren defentsa erakundeak, 170
 Lankidetzarik eza, 170

Hezkuntza

Adingabeak
 Ijitoak, 548
 Ikasleak onartzea
 Betekizunak, 98, 851
 Kulturagatiko bereizkeria
 Ijitoak, 541

Hezkuntza-premia bereziak, 100, 450, 490

Adingabe baztertuak, 455
 Adingabe etorkinak, 95, 452
 Adingabe ijitoak, 453
 Curriculumuma norbanakoari egokitzea, 101, 450
 Dislexia, 101, 450
 Ezgaitasunen bat duten adingabeak, 450
 Hezkuntzan laguntzeko espezialistak, 120

Hezkuntzarako eskubidea, 366, 876

Adingabeak
 LGBT pertsonak, 109
 Adingabe etorkinak, 95
 Balioetan oinarritutako hezkuntza, 109
 Bekak
 Unibertsitateko hezkuntza, 109
 Eskola-garraioa, 105
 Eskola-jantokiak, 107
 Eskolako indarkeria (bullying-a), 109, 459, 716

Eskolatzea

- Adingabe baztertuak, 455
- Adingabe etorkinak, 452
- Adingabe ijitoak, 453
- Adopzioa, 94
- Ezgaitasunen bat duten adingabeak, 450
- Ikasleak onartzea, 96
- Instalazioak, 94

Garraioak

- Unibertsitateko hezkuntza, 109

Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 718

- Hezkuntza-premia bereziak, 100, 450, 490
 - Curriculuma norbanakoari egokitzea, 101, 450
 - Dislexia, 101
 - Hezkuntzan laguntzeko espezialistak, 120

Hizkuntzen irakaskuntza

- Euskara eta irakaskuntza, 95
- Hizkuntza-eskola ofizialak, 96

Hizkuntz ereduak

- Euskara eta irakaskuntza, 98

Ijitoak

- Adingabeak, 548

Ikasleak onartzea, 96**Ikastetxeak**

- Instalazioak, 104, 490

Irakaskuntza artistikoak

- Ikasleak onartzea, 95

Laguntzak, 104

- Testuliburuak, 102

Hilerriak

- Hilerri musulmana, 223, 535, 643

Hiltegiak

- Diru-laguntzak, 73
- Ikuskatzea, 73

Hiri Lurren Balioa Gehitzearen gaineko Zerga, 144**Likidazioak**

- Azalera eskubidea, 145

Hiria biziberritzea

- Berriro bizilekua ematea, 263, 548

Hirigintza

- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 477
 - Igogailuak, 477
- Hiria biziberritzea
 - Ijitoak, 548
- Hirigintzako lizentziak, 270, 849, 850
 - Telefonia mugikorreko antenak, 271
- Irisgarritasuna, 266, 496
- Legeria, 261
 - Irisgarritasuna, 266, 477, 496
 - Prozedura judiziala, 270

Hirigintzako antolamendua

- Hirigintzako plangintza
 - Informaziorako eskubidea, 267, 268
 - Parte hartzeko eskubidea, 268

Hirigintzako diziplina, 268, 656

Hirigintzako lizentziak
Mintzalekuak, 272
Ingurumen-inpaktua ebaluatzea, 655

Hirigintzako lizentziak, 270, 849, 850

Mintzalekuak, 272
Telefonia mugikorreko antenak, 271

Hirigintzako plangintza

Garapen iraunkorra, 268, 656
Herri lanak, 224, 225
Hirigintzako diziplina, 268, 656
Ingurumen-inpaktua ebaluatzea, 655
Informaziorako eskubidea, 267, 268, 656
Obrak egitea
Herri lanak, 225
Parte hartzeko eskubidea, 268, 269, 656, 853
Udal tasak, 146, 147, 853

Historia klinikoa

Informaziorako eskubidea, 241

Hizkera sexista, 313**Hizkuntz ereduak**

Euskara eta irakaskuntza, 98

Hizkuntz eskubideak

Euskara eta funtzio publikoa, 119
Hizkuntz eskakizunak, 127
Euskara eta irakaskuntza, 95, 98, 119
Euskara eta justizia, 81, 190
Euskara eta osasuna, 82
Euskara eta polizia, 81
Euskara eta trafikoa eta bide segurtasuna, 82

Hizkuntz normalizazioa

Euskara eta funtzio publikoa, 119
Hizkuntz eskakizunak, 127
Euskara eta irakaskuntza, 95, 98, 119
Euskara eta justizia, 81, 190
Euskara eta osasuna, 82
Euskara eta polizia, 81
Euskara eta trafikoa eta bide segurtasuna, 82

Hizkuntza-eskola ofizialak

Azterketak, 96

Hizkuntzen irakaskuntza

Euskara eta irakaskuntza, 95
Hizkuntza-eskola ofizialak, 96

I**Ibilgailuak bidetik kentzea**

Trafikoa eta bide segurtasuna, 158

Identitate sexualagatiko bereizkeria

LGBT pertsonak, 593, 699, 863

Igogailuak, 859

Irisgarritasuna, 264, 477, 479

Ijito herria, 541

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 543, 548
 Kulturagatiko bereizkeria, 541
 Parte hartzeko eskubidea, 541

Ijitoak, 541

Berriro bizilekua ematea, 548
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 62, 543, 548
 Kulturagatiko bereizkeria
 Herritarren bizikidetasuna, 547
 Hezkuntza, 541
 Justizia, 541
 Parte hartzeko eskubidea, 541
 Udal zerbitzu publikoak
 Errolda, 545, 858

Ikasleak onartzea, 96

Betekizunak, 98, 851
 Familia, 98
 Haur hezkuntza, 96
 Errolda, 97
 Irakaskuntza artistikoak, 95

Ikastetxeak

Ikasleak onartzea
 Betekizunak, 98, 851
 Instalazioak, 94
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 104, 490

Ikuskatzea

Atmosferako kutsadura, 201
 Hiltegiak, 73
 Kutsadura akustikoa, 201

Industria

Hautsa, 846
 Titulazioak
 Ingeniaritza elektronikoa, 77

Industriako kutsadura

Jarduera sailkatuak, 201, 205
 Lizentziak eta baimenak, 206
 Obrak, 208
 Zentral termikoak, 208

Industrialdeak

Herri lanak, 225

Informaziorako eskubidea

Administrazio erregistroak, 851
 Hirigintzako plangintza, 267, 268
 Historia klinikoa, 241
 Kirol federazioak, 84, 847
 Ordezkapenak, 122, 846
 Osasuna, 237
 Polizia, 167
 Udal zerbitzu publikoak, 847

Ingeniaritza elektronikoa

Titulazioak, 77

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 884

- Abeltzaintzako ustiategiak, 208
- Atmosferako kutsadura, 201
 - Industria, 846
- Herri lanak, 224, 225
- Industriako kutsadura, 205
 - Lizentziak eta baimenak, 206
 - Obrak, 208
 - Zentral termikoak, 208
- Ingurumen-inpaktua ebaluatzea
 - Hirigintzako plangintza, 655
- Isurketak
 - Hondakin-urak, 271
- Kutsadura akustikoa, 201
 - Jaiak eta ospakizun publikoak, 212
 - Kanpai hotsak, 211
- Legeria, 266
- Telefonia mugikorreko antenak, 209, 271

Ingurumen-inpaktua ebaluatzea

- Hirigintzako plangintza, 655

Intimitaterako eskubidea, 872

- Adingabeak, 469
- Identifikatzea exijitzen zaien pertsonak, 167
- Kontaminazioak eragindako pertsonak
 - Atmosferako kutsadura, 201
 - Industriako kutsadura, 205, 206, 208
 - Kutsadura akustikoa, 211
- PFEZ
 - Afiliazio kuotak, 137

Irakaskuntza artistikoak

- Ikasleak onartzea, 95

Irisgarritasuna

- Aparkalekuak, 847
- Babes ofizialeko etxebizitzak, 281
- EITB, 494
- Espaloiak, 848, 853, 854
- Etorkinak, 528
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 477
 - Hirigintza, 477
 - Zerbitzu publikoak, 477
- Garraioak, 480, 481
- Herri lanak, 225, 496
- Hirigintza, 266, 496
- Igogailuak, 264, 477, 859
- Ikastetxeak, 104, 490
- Legeria, 264, 479, 489
- Oinezkoentzako pasaguneak, 847, 848, 853
- Zerbitzu publikoak, 225, 496

Isurketak

- Hondakin-urak, 271

J**Jabetza pribaturako eskubidea, 879**

Babes ofizialeko etxebizitzak, 276, 851
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 276, 490, 851
 Hirigintza, 271

Jaiak eta ospakizun publikoak

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 311
 Kutsadura akustikoa, 212

Jakinarazpenak

Trafikoa eta bide segurtasuna, 156

Jarduera sailkatuak

Atmosferako kutsadura, 201
 Keak eta usainak, 201
 Merkataritza, 205
 Industriako kutsadura, 201, 205
 Lizentziak eta baimenak, 206
 Obrak, 208
 Zentral termikoak, 208
 Kutsadura akustikoa, 201
 Jaiak eta ospakizun publikoak, 212
 Kanpai hotsak, 211
 Lonjak, 205
 Ostalaritza establezimenduak, 202
 Telefonía mugikorreko antenak, 209, 271

Jatorriगतiko bereizkeria

Etorkinak, 509
 Herritarren bizikidetasuna, 535

Jendaurreko ikuskizunak

Animaliak babestea, 232, 851

Justizia

Elkargo ofizialak
 Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 194
 Psikologoek elkargoak, 194
 Erregistro zibila
 Tratu egokia, 184
 Euskara eta justizia, 81, 190
 Justizia administrazioarekiko eskubideak, 184
 Hizkuntz eskubideak, 81, 190
 Kulturगतiko bereizkeria
 Ijitoak, 541
 Prozedura judiziala
 Bidegabeko atzerapenak, 186
 Prozedura zibila
 Banantzea eta dibortzioa, 187
Justizia administrazioarekiko eskubideak
 Hizkuntz eskubideak, 81, 190
 Tratu egokia, 184

K**Kalez kaleko salmenta, 76****Kalte-ordainak**

Frankismoaren biktimak, 285

Kanpai hotsak

Kutsadura akustikoa, 211

Kenkariak

BEZa, 142

PFEZ, 137

Kirol federazioak

Informaziorako eskubidea, 84, 847

Kirola

Laguntzak, 85

KIUBak

Zerbitzu publikoak, 76

Kontsulta medikoak, 238

Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 238

Kontsumitzaileen eskubideak

Energia elektrikoa, 74

Gasa, 74

Zerbitzu publikoak, 76

KIUBak, 76

Kontzientzia-eragozpena

Osasun laguntza, 239

Kultur adierazpenak

Animaliak babestea, 232, 851

Kultur adierazpenak, 232

Kultura

Kultura ondarea, 87, 857

Laguntzak, 86

Kultura arteko bitartekotza

Adingabeak, 48

Kultura ondarea, 87, 857**Kulturagatiko bereizkeria**

Ijitoak, 541

Herritarren bizikidetasuna, 547

Hezkuntza, 541

Justizia, 541

Kutsadura akustikoa, 201

Administrazioa kontrolatzea, 201

Ikuskatzea, 201

Jaiak eta ospakizun publikoak, 212

Kanpai hotsak, 211

L**Laguntzak**

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 63, 485

Kirola, 85

Familia, 64

Hezkuntzarako eskubidea, 104

Testuliburuak, 102

Kirola

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 85

Kultura, 86

Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 65

Lan-baldintzak

Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 122, 321

Lan-mutualitatea

Osasun laguntza, 240

Lana

Boluntarioak, 688

Diru-laguntzak, 256, 852

Emakumeak, 321

Etorkinak, 512

Gizarte Segurantza

Laneko istripuak, 255

Lana laguntzailearekin

Funtzio publikoa, 493

Lanbide, 256

Sindikatuak, 256

Lanaldia

Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 257

Lanbide

Lana, 256

Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 239

Funtzio publikoa, 122, 321

Haurdunaldia, 123, 321, 847

Seme-alabak zaintzeko eszedentzia, 124

Sarbidea, 115

Kontsulta medikoak, 238

Laguntzak, 65

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 314, 857

Lanaldia, 257

Laneko istripuak, 255**Laneko jazarpena (mobbing-a), 130****Laneko segurtasuna eta osasuna**

Administrazio kontratazioa, 220, 846

Gizarte Segurantza, 255

Lankidetzarik eza

Herrizaingoa, 170

Legeria

Adinekoak, 49

Babes ofizialeko etxebizitzak, 276

Berriro bizilekua ematea, 262

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 293, 328

Etorkinak, 509

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 275

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 63, 485

Gizarteratzeko diru-sarrerak, 31

Gizarte zerbitzuak, 27

Hirigintza, 261

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 266

Irisgarritasuna, 264, 479, 489

Lurzorua, 261, 275

Mendeko pertsonak, 35, 487

PFEZ, 135

Zerbitzu soziosanitarioak, 677

Lehen mailako arreta

Kontsulta medikoak, 238

Lanbidea eta familiako bititza bateratzea, 238

Lekualdatze-lehiaketa

Merezimenduak, 118

Lesbiana, gay, bisexual eta transexualak, 593, 699, 863

Adingabeak, 593

Hezkuntzarako eskubidea, 109

Gizarte taldeak, 593

Likidazioak

HLBGZ, 145

Lizentziak eta baimenak

Ehiza, 74

Industriako kutsadura, 206

Lonjak

Kutsadura akustikoa, 205

Lurralde antolaketa

Udalak, 219

Bereiztea, 219

Lurzorua

Legeria, 261, 275

M**Mantenu-pentsioak**

Banantzea eta dibortzioa, 49

PFEZ, 140

Memoria historikoa

Frankismoaren biktimak

Kalte-ordainak, 285

Mendeko pertsonak

Burutik gaixo daudenak, 615

Etxez etxeko laguntza, 336

Legeria, 35, 487

Osasunerako eskubidea, 677

Prestazio ekonomikoak, 35, 487

Zerbitzu soziosanitarioak, 677

Ziurtagiriak, 47

Merkataritza

Kalez kaleko salmenta, 76

Kutsadura akustikoa, 205

Migratzeko eskubidea, 509**Mintzalekuak, 272****N****Nazioarteko adopzioa**

Adin muga, 46, 852

Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 870

Terrorismoaren biktimak, 589, 699

Norberaren datuak

Adingabeak, 469

Intimitaterako eskubidea, 872

Norberaren eskubideak

- Burutik gaixo daudenak
Tutoretza, 583, 615, 717
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
Tutoretza, 738

O**Obrak**

- Industriako kutsadura, 208

Oinarrizko errenta, 66**Oinarrizko eskubideak**

- Adingabeak, 366
 - Adingabe atzerritarrak, 532
 - Kultura arteko bitartekotza, 48
- Baldintza beretan sartzeko eskubidea, 872
- Baztertuak
 - Bizileku-askatasunerako eskubidea, 45, 215, 544, 545, 557, 558, 849, 850, 854, 858
 - Udal zerbitzu publikoak, 543
- Berdintasunerako eskubidea, 863
 - Adinagatiko bereizkeria, 46, 852
 - Adopziogileak, 852
 - Baztertuak, 557, 720
 - Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 863
 - Etorkinak, 114, 509, 532
 - Familia, 140
 - Ijitoak, 541
 - LGBT pertsonak, 863
- Bereizkeriarik ez jasateko eskubidea
 - Adinagatiko bereizkeria, 46, 852
 - Sexuagatiko bereizkeria, 863
- Berriro gizarteratzeko eskubidea
 - Espetxeratuak, 188, 599
- Bizitzeko eskubidea, 868
 - Emakumeak, 294, 750
 - Espetxeratuak, 846
 - Terrorismoaren biktimak, 589, 699
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 293
 - Biltokiak, 188, 462
 - Emakumeen kontrako indarkeria, 169, 294, 548, 750
 - Funtzio publikoa, 115, 116, 122, 123, 124, 321, 847
 - Jaiak eta ospakizun publikoak, 311
 - Lanbidea eta familiako bitzta bateratzea, 65, 122, 238, 257, 314, 321, 857
 - Legeria, 293, 328
 - Ordezkaritza karguak, 323
 - Partekatutako zaintza, 187
 - Sexuagatiko bereizkeria, 310
- Espetxeratuak, 599, 875
- Etorkinak
 - Bizileku-askatasunerako eskubidea, 525
- Gaixo kronikoak, 615
 - Burutik gaixo daudenak, 615
- Gizarte taldeak, 703
- Grebarako eskubidea
 - Gizarte zerbitzuak, 51

- Hezkuntzarako eskubidea, 876
 - Adingabeak, 93
 - Balioetan oinarritutako hezkuntza, 109
 - Bekak, 109
 - Eskola-garraioa, 105
 - Eskola-jantokiak, 107
 - Eskolako indarkeria (bullying-a), 109, 459, 716
 - Eskolatzea, 94, 96
 - Garraioak, 109
 - Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 718
 - Hezkuntza-premia bereziak, 100, 120, 450, 490
 - Hizkuntzen irakaskuntza, 95
 - Hizkuntz ereduak, 98
 - Ijitoak, 548
 - Irakaskuntza artistikoak, 95
 - Laguntzak, 104
 - LGBT pertsonak, 109
 - Testuliburuak, 102
- Intimitaterako eskubidea, 872
 - Adingabeak, 469
 - Identifikatzea exijitzen zaien pertsonak, 167
 - Kontaminazioak eragindako pertsonak, 201, 205
 - PFEZ, 137
- Kontaminazioak eragindako pertsonak
 - Kutsadura akustikoa, 211
- LGBT pertsonak, 593, 699
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 870
 - Terrorismoaren biktimak, 589, 699
- Norberaren eskubideak
 - Burutik gaixo daudenak, 583, 615, 717
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 738
- Osoetasun fisiko eta moralerako eskubidea, 868
 - Adingabeak, 593
 - Atxilotuak, 172, 189
 - Emakumeak, 169, 294, 548, 750
 - Espetxeratuak, 599, 846
 - Etorkinak, 161, 532
 - Gazteak, 164
 - Kontaminazioak eragindako pertsonak, 201, 205
 - Laneko jazarpena (mobbing-a), 130
 - Terrorismoaren biktimak, 589, 699
 - Tratu txarrak, 160, 189
- Parte hartzeko eskubidea
 - Espetxeratuak, 599
 - Hirigintzako plangintza, 268, 656
 - Ijitoak, 541
 - Udalak, 217, 219, 269, 853, 855
- Tutoretza judiziala izateko eskubidea, 873
 - Bidegabeko atzerapenak, 186
 - Hirigintza, 270
 - Zigortzeko prozedura, 156

Oinarrizko hezkuntza

Hizkuntz ereduak, 98

Oinezkoentzako pasaguneak, 847, 848, 853**Ombudsmana**

Herriaren defentsa erakundeak, 170

Ondare Eskualdaketaren gaineko Zerga, 142

Babes ofizialeko etxebizitzak, 142

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, 143

Balio katastrala, 143

Ondasun publikoak, 220Tokiko administrazioen ondasun publikoak
Lurzorua, 275**Ordainsariak**

Itzulketak, 127

Osagarriak, 127

Ordenamendu juridikoaren printzipio gidariak

Berdintasun printzipioa, 863

Adinagatiko bereizkeria, 46, 852

Adopziogileak, 852

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 863

LGBT pertsonak, 863

Ordezkapenak

Informaziorako eskubidea, 122, 846

Ordezkaritza karguak

Emakumeak, 323

Osakidetzako erabiltzaileen eskubideak

Historia klinikoa, 241

Osasun laguntza

Kontzientzia-eragozpena, 239

Proba medikoak, 239

Osasun prestazioak

Bularreko minbizia, 248

Burutik gaixo daudenak, 244

Emakumeak, 326

Gurpil aulkiak, 245, 491, 492, 857

Inplante koklearrak, 246, 491

Osasuna

Burutik gaixo dauden adingabeak, 455

Burutik gaixo daudenak, 615

Elebitasuna, 82

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 491

Historia klinikoa

Informaziorako eskubidea, 241

Informaziorako eskubidea, 237

Kontsulta medikoak, 238

Lanbidea eta familiako bititza bateratzea, 238

Osasun-garraioa, 239

Osasun laguntza

Kontzientzia-eragozpena, 239

Lan-mutualitatea, 240

Proba medikoak, 239

Osasun prestazioak
 Bularreko minbizia, 248
 Burutik gaixo daudenak, 244
 Emakumeak, 326
 Gurpil aulkiak, 245, 491, 492, 857
 Inplante koklearrak, 246, 491

Osasun tratamenduak
 Errehabilitazioa, 242
 Tratamendu ambulatorioa, 243

Prestazio soziosanitarioak, 243

Tratamendu ambulatorioa
 Burutik gaixo daudenak, 615

Zerbitzu soziosanitarioak
 Baztertuak, 560

Osasunerako eskubidea, 882

Adinekoak, 245
 Adingabeak, 245, 491, 492, 857
 Aurretiazko borondateak, 246
 Baztertuak
 Udal zerbitzu publikoak, 559, 855
 Zerbitzu soziosanitarioak, 560
 Burutik gaixo dauden adingabeak, 455
 Burutik gaixo daudenak, 244, 615
 Emakumeak, 248, 326
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 246, 491
 Isurketak, 271
 Kontaminazioak eragindako pertsonak
 Abeltzaintzako ustategiak, 208
 Atmosferako kutsadura, 201
 Industriako kutsadura, 201, 205, 206, 208
 Kutsadura akustikoa, 201, 211
 Telefonía mugikorrekoren antenak, 209, 271

Osasun laguntza
 Kontzientzia-eragozpena, 239
 Lan-mutualitatea, 240
 Proba medikoak, 239

Osasun tratamenduak
 Gaixo kronikoak, 242, 243

Tabakismoa, 251
 Zerbitzu soziosanitarioak, 677

Osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, 868

Adingabeak
 LGBT pertsonak, 593
 Atxilotuak, 189
 Bideo grabaketak, 172
 Tortura, 189
 Emakumeak, 294, 750
 Ijitoak, 548
 Polizia, 169
 Espetxeratuak
 Buru-hiltzeak, 846
 Gaixotasun terminala duten pertsonak, 599

- Etorkinak
 - Tratu txarrak, 161, 532
- Gazteak
 - Tratu txarrak, 164
- Kontaminazioak eragindako pertsonak
 - Abeltzaintzako ustiategiak, 208
 - Atmosferako kutsadura, 201
 - Industriako kutsadura, 201, 205
 - Kutsadura akustikoa, 201, 211
 - Telefonia mugikorreko antenak, 209, 271
- Laneko jazarpena (mobbing-a), 130
- Terrorismoaren biktimak, 589, 699
- Tratu txarrak
 - Polizia, 160, 189
- Ostalaritza establezimenduak**
 - Atmosferako kutsadura, 202
 - Kutsadura akustikoa, 202

P**Parte hartzeko eskubidea**

- Espetxeratuak, 599
- Hirigintzako plangintza, 268, 656
- Ijitoak, 541
- Udalak, 217, 219, 269, 853, 855

Partekatutako zaintza

- Adingabeak, 187

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, 135, 137

- Baterako aitortpena
 - Familia, 140
- Berandutze interesak, 139
- Ezintasunagatiko pentsioak, 135, 487, 858
- Kenkariak
 - Afiliazio kuotak, 137
- Legeria, 135

Polizia

- Administrazioa kontrolatzea, 164
- Atxiloketa-zentroak, 172
- Elebitasuna, 81
- Espetxeratuak
 - Buru-hiltzeak, 846
- Informaziorako eskubidea
 - Identifikazio zenbakiak, 167
- Polizia atestatuak, 166
- Tratu desegokia, 167
- Tratu txarrak, 160, 164, 189
 - Administrazioa kontrolatzea, 164
 - Etorkinak, 161, 532

Prestazio ekonomikoak

- Adinekoak, 49
- Baztertuak, 66
 - Errolda, 45, 543, 858

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 70
 Ijitoak

Errolda, 545, 858

Mendeko pertsonak, 35, 487

Prestazio soziosanitarioak, 243

Gaixo kronikoak, 243

Prezio publikoak

Euskal Herriko Unibertsitatea, 148, 487

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 148, 487

Udal zerbitzu publikoak, 148

Prozedura administratiboa

Administrazioaren erantzukizuna, 220

Herri lanak, 855

Kalte-ordainak, 285

Udal zerbitzu publikoak, 222, 853, 854, 855

Zerbitzu publikoak, 76, 221

Administrazioaren isiltasuna

Udal zerbitzu publikoak, 222, 847, 853

Administrazio erregistroak

Errolda, 215, 543, 545, 849, 850, 858

Administrazio kontratazioa

Tokiko administrazioen ondasun publikoak, 220, 854

Arrazoitu beharra

Funtzio publikoa, 114

Babes ofizialeko etxebizitzak, 281, 282

Diru laguntzak

Hiltegiak, 73

Lana, 256, 852

Ebatzi beharra

Udal zerbitzu publikoak, 222, 847, 853

Gizarte ekintza, 46

Hirigintzako diziplina, 272

Hirigintzako lizentziak, 270, 271, 849, 850

Hirigintzako plangintza

Hirigintzako diziplina, 268, 655, 656

Obrak egitea, 225

Udal tasak, 147, 853

Zaborra, 148, 855

Ikuskatzea

Hiltegiak, 73

Lizentziak eta baimenak

Ehiza, 74

Prozedura administratiboko eskubideak

Informaziorako eskubidea, 84, 122, 167, 237, 241, 267, 268, 656, 846, 847, 851

Zigortzeko prozedura

Aurrez egindako ordainketa, 157, 158, 492

Elkargo ofizialak, 197, 850, 858

Ibilgailuak bidetik kentzea, 158

Jakinarazpenak, 156

Prozedura tipoa, 156

Trafikoa eta bide segurtasuna, 155

Zerbitzu publikoak, 76

Zigorak betearaztea, 158

Ziurtagiriak

- Adopzioa, 46, 852
- Mendeko pertsonak, 47

Prozedura administratiboko eskubideak

- Informaziorako eskubidea
 - Administrazio erregistroak, 851
 - Funtzio publikoa, 122, 846
 - Hirigintzako plangintza, 267, 268, 656
 - Historia klinikoa, 241
 - Kirol federazioak, 84, 847
 - Osasuna, 237
 - Polizia, 167
 - Udal zerbitzu publikoak, 847

Prozedura judiziala

- Bidegabeko atzerapenak, 186
- Hirigintza, 270

Prozedura tipoa

- Trafikoa eta bide segurtasuna, 156

Prozedura zibila

- Banantzea eta dibortzioa, 187
- Biltokiak, 188, 462
- Partekatutako zaintza, 187

Psikologoek elkargotakoak, 194**S****Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 448****Sexuagatiko bereizkeria**

- Emakumeak, 310, 863
- Hizkera sexista, 313

Sindikatuak

- Lana, 256

T**Tabakismoa**

- Osasunerako eskubidea, 251

Telefonia mugikorrek antenak, 209, 271

- Hirigintzako lizentziak, 271

Terrorismoaren biktimak, 589, 699**Titulazioak**

- Ingeniaritza elektronikoa, 77

Tokiko administrazioen ondasun publikoak

- Bazkalekuak, 220, 854
- Lurzorua
 - Legeria, 275
- Trukatzeak, 221

Tortura

- Atxilotuak, 189

Trafikoa eta bide segurtasuna

- Antolaketa, 159
- Aparkalekuak
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 492

Diru zigorrak, 155
 Aurrez egindako ordainketa, 157, 158, 492
 Jakinarazpenak, 156
 Prozedura tipoa, 156
 Zigorrek betearaztea, 158
 Elebitasuna, 82
 Ibilgailuak bidetik kentzea, 158

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga

Murrizketak
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 145, 487

Tratamendu ambulatorioa

Burutik gaixo daudenak, 243

Tratu txarrak

Adinekoak, 714
 Polizia, 160, 164, 189
 Etorkinak, 161, 532

Tutoretza

Burutik gaixo daudenak, 583, 615
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 738

Tutoretza judiziala izateko eskubidea, 873

Bidegabeko atzerapenak, 186
 Hirigintza, 270
 Zigortzeko prozedura
 Jakinarazpenak, 156
 Prozedura tipoa, 156

U

Udal barrutiak

Parte hartzeko eskubidea, 219

Udal tasak

Animaliak babestea, 232, 854
 Hirigintzako plangintza, 146, 147, 853
 Zaborra, 148, 855

Udal zerbitzu publikoak, 223

Administrazioaren erantzukizuna, 222, 853, 854, 855
 Administrazioaren isiltasuna, 222, 847, 853
 Animaliak babestea, 232, 854
 Dutzak, 559, 855
 Ebatzi beharra, 847
 Administrazioaren erantzukizuna, 222, 853
 Errolda, 45, 215, 525, 543, 544, 545, 557, 558, 849, 850, 854, 858
 Eskolatzea, 97
 Esku-dirutan ordaintzea, 849
 Hilerrak
 Hilerrri musulmana, 223, 535, 643
 Informazioarako eskubidea, 847
 Parte hartzeko eskubidea, 217, 219, 855
 Prezio publikoak, 148
 Saneamendua
 Hondakin-urak, 271
 Udalaren prezio publikoak, 856

Udal tasak
 Hirigintzako plangintza, 147, 853
 Zaborra, 148, 855

Udal zergak

HLBGZ, 144
 OHZ, 143
 Balio katastrala, 143
 TMIZ
 Kenkariak, 145
 Murrizketak, 487

Udalak

Bereiztea, 219
 Parte hartzeko eskubidea, 217, 855
 Hirigintzako plangintza, 269, 853
 Udal barrutiak, 219

Udalaren prezio publikoak

Esku-dirutan ordaintzea, 849
 Udal zerbitzu publikoak, 856

Udalekuak

Adingabeak, 87

Uholdeak

Hirigintzako plangintza, 225

Unibertsitateko hezkuntza

Bekak, 109
 Garraioak, 109

Z**Zaborra**

Udal tasak, 148, 855

Zentral termikoak

Industriako kutsadura, 208

Zerbitzu publikoak

Administrazioaren erantzukizuna, 76, 221
 Animaliak babestea
 Gune zoologikoak, 231
 Energia elektrikoa
 Tarifak, 74
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 477, 480, 481
 Ilogailuak, 477
 Garraioak, 226
 Gasa
 Ikuskatzea, 74
 Irisgarritasuna, 225, 496
 KIUBak, 76
 Kontsumitzaileen eskubideak, 76
 Zigortzeko prozedura, 76

Zerbitzu soziosanitarioak

Adinekoak, 677
 Baztertuak, 560
 Burutik gaixo daudenak, 615
 Gaixo kronikoak, 677
 Legeria, 677
 Mendeko pertsonak, 677

Zergen arloko berdintasuna, 878

Zigorrak betearaztea

Trafikoa eta bide segurtasuna, 158

Zigortzeko prozedura

Elkargo ofizialak, 850, 858

Trafikoa eta bide segurtasuna, 155

Aurrez egindako ordainketa, 157, 158, 492

Ibilgailuak bidetik kentzea, 158

Jakinarazpenak, 156

Prozedura tipoa, 156

Zigorrak betearaztea, 158

Zerbitzu publikoak, 76

Ziurtagiriak

Adopzioa, 46, 852

Mendeko pertsonak, 47